Hasteko, elizaren inguruan irekitako zanga osoaren gaineko kontrol arkeologikoa eraman genuen burura. Kontrol lan horietan hainbat elementu interesgarri dokumentatu genituen, baina ez zituzten lanak oztopatzen. Egungo asfaltoaren azpian luzatzen den harrizko bide zaharraz ari gara, elizaren ipar-mendebaldean. Bolumen askotako harriak dira, antolaera zehatz baten arabera jarri gabeak, baina bai halako erregulartasun batekin, ibiltzeko egokia den azalera horizontala eratuz.

Bestelakoa zen egoera elizaren hego-ekialdean. Alde hori garbitu ondoren, kontrol lanak hasi aurretik obrek alde hori jada ukitu baitzuten, guztira 6 ehorzketa identifikatu ahal izan ziren, zangak neurri handiagoan edo txikiagoan ukitu zituenak. Behin aztarnak aztertu ondoren, eremua ekialderantz eta hegoalderantz zabaldu zen elizaren hego-ekialdean dagoen etxolaraino iritsita. Baina sastrakak kentzeko lan mekanikoak abiarazi zirenean, landare estalduraren azpian beste aztarna batzuk dokumentatu ahal izan genituen, eta beraz, ezin izan zen hasierako planteamendua burura eraman. Ondorioz, gutxi gorabehera 47 m^2-ko azalera irregular bat harrotu zen. Zehazki, indusketa sektorearen ekialdeko muturrean, harrizko bide bat dokumentatu da ukitutako hilobien zati bat amortizatzen, tamaina askotako kareharrizko eta hareharrizko harlangaitzez egina, pieza handienak eskuarki bidearen alboetan (batez ere mendebaldean, bloke handi batekin) eta erdialdeko puntu batzuetan jarriak, ustez bidearen bizkarrezurrarena eginez, gerora tamaina txikiagoko blokeekin bete dena.

Sektore osoan dokumentatutako ehorzketak dira aztarna esanguratsuenak. Guztira 11 hilobi dira, burura eramandako zangak neurri handiagoan edo txikiagoan ukitu dituenak. Baina ez dugu baztertzen zundaketaren hegoaldean, asfaltoa berdintzeko geru-zaren azpian, hilobi gehiago egotea. Gainera, egiaztatu dugu hilobi horiek jarraipena dutela plazaren mendebalderantz eta ekialderantz.

Bost hilobitan baizik ez dugu esku hartu, horiek obrek kaltetuta gertatu direlako edo, aztarnen izaera kontuan hartuta, desagertzeko arriskuan daudelako. Kasu guztietan, hobi bakun batean antolatutako ehorzketa alde batera utzira, lauzez egindako hilobietan ehortziak dira, eta batek izan ezik estalkia dute hilobi guztiek, ekialdetik mendebaldera egokituta.

La actuación arqueológica

En un primer momento se realizó el control arqueológico de la apertura de la zanja en todo su recorrido en las cercanías de la iglesia. Durante estas labores de control se documentaron varios elementos que si bien son de interés, no impedían el desarrollo de los trabajos. Nos referimos a la presencia, en la zona noroccidental de la iglesia, del antiguo camino de piedra que discurre bajo el asfalto actual. Se trata de piedras de diferente volumetría, colocadas sin orden concreto, pero sí una cierta regularidad, creando una superficie horizontal apta para el paso.

Situación diferente se dio en la zona suroriental de la iglesia, donde tras la limpieza del área, ya abierta por las obras previas al control, pudieron ser identificados un total de 6 enterramientos que se habían visto afectados en mayor o menor medida por la zanja. Una vez reconocidos los restos se procedió a ampliar el área hacia el E y el S, llegando a la caseta ubicada al SE de la iglesia. No obstante, al iniciar los trabajos de desbroce mecánico se pudo documentar, justo bajo la cobertura vegetal, la existencia de otros restos que no permitieron llevar a cabo este planteamiento inicial. Esto propició que finalmente se abriese un área irregular de unos 47 m^2. En concreto, en la zona más oriental del sector de excavación se ha documentado un camino de piedra que se encontraba amortizando parte de las sepulturas afectadas, realizado con mampuestos de caliza y arenisca de diferentes dimensiones, estando los mayores de forma general en los laterales (sobre todo en la zona W con un bloque de gran tamaño) y en algunas zonas del área central, a modo de posible vertebración de la vía, que se ha rellenado luego con bloques de menores dimensiones.

Los restos más significativos son los enterramientos documentados en todo el sector. Se trata de un total de 11 sepulturas, que se han visto afectadas en mayor o menor medida por la zanja realizada, aunque no descartamos que, en la zona sur del sondeo, bajo la nivelación del asfalto, se documenten nuevas sepulturas, así como verificamos la continuación de las mismas tanto hacia el oeste de la plaza como hacia el este de la misma.

Solamente se ha intervenido en cinco de ellos, afectados por las obras o en riesgo de desaparecer por la entidad de los restos. En todos los casos, excepto una tumba en fosa simple, se trata de enterramientos en tumbas de lajas, de los que todos cuentan con cubierta excepto uno, orientados E-W.



Aurretik irekitako zangak ukitutako nekropoliaren ikuspegi partziala.

Vista parcial de la necrópolis afectada por la zanja previa.

Esku hartzearen izaeraren ondorioz ez dugu material arkeologiko askorik berreskuratu; Azaleko geruzan lau bala ale dokumentatu dira, karlistaldiekin lotu beharreko garaikoak dira. Zeramikari dagokionez, nekropoliaren amortizazioari dagozkio ia zati guztiak, eta beraz, Erdi Aroaren aurreneko mendeetan kokatu behar dugu haren kronologia.

Bilakaera kronologikoa

Aztertutako eremuaren hedadura txikia izan arren, lau une bereizi ahal izan dira eremu honen bilakaeran.

1. fasea. Erdi Aroko nekropolia

Nekropolia bera da dokumentatutako lehenengo fasea. Hilobien tipologia eta dokumentatutako materialak aintzat harturik, Erdi Aroko aurreneko mendeetan datatu dezakegu, eta gaur egun aztarna gutxi kontserbatu dituen lehenengo tenpluari atxikita egon zela esan dezakegu.

2. fasea. Nekropoliaren amortizazioa

Une zehaztu gabe batean, baina betiere Erdi Aroan, berreskuratutako materialaren arabera amortizatu egin zuten hilerri gunea ehorzketa geruza gisa identifikatutako depositu baten bidez. Dirudienez, depositu horren xedea zen alde horren hilerri erabilera ezerezean uztea, edo bigarren ehorzketa maila bat antolatzea, baina ez zen sekula ere horretarako erabili.

3. fasea. XIX. mendea – erabilera mailak

Aztarnarik erregistratu ez den denbora tarte luze baten ostean, San Martin elizaren inguruan XIX. mendeko beste ekintza batzuk dokumentatzen dira. Zoru maila, plazako ustezko harrizko zoladura eta, esan digutenez, hilerri zaharrera zeraman bide bat bereizten dira. Bideari atxikiriko kronologia 1900. urte inguruan eraikitako hilerri berriak markatzen du. Hilerri hori Santa Marina baselizako materialak berrerabiliz eraiki zen, baseliza eraitsi egin baitzuten erabiltzen ez zelako.

4. fasea. XX- XXI. mendeak

Azkenik, iragan mendean burura eramandako ondoz ondoko esku hartzeak eta egungo zanga dokumentatu dira. Horiek guztiak zerbitzuen instalazioarekin edo sektorearen muturrean dagoen etxolarako sarbidearekin daude lotuta.

Debido a la naturaleza de la intervención no se ha recuperado abundante material arqueológico; se han documentado cuatro ejemplares de proyectil recogidos en la unidad superficial, cuya adscripción cronológica debe asociarse a las guerras carlistas. En lo que respecta a la cerámica, casi todos los fragmentos pertenecen a la amortización de la necrópolis, y nos permiten centrar su cronología en los primeros siglos de la Edad Media.

Evolución cronológica

A pesar de la reducida extensión del área estudiada ha sido posible identificar hasta cuatro momentos en la evolución de este espacio.

Fase 1. Necrópolis medieval

La primera fase documentada se trata de la propia necrópolis, que podemos fechar tanto por la tipología de las tumbas como por los materiales documentados, en los primeros siglos de la Edad Media, asociada a ese primer templo del que quedan escasos restos hoy en día.

Fase 2. Amortización de la necrópolis

En un momento indeterminado pero también dentro de la Edad Media, según el tipo de material recuperado, se amortiza el espacio cementerial con un depósito identificado como manteado de enterramiento, que parece preparar el terreno bien para anular su uso como espacio cementerial o bien para realizar un segundo nivel de inhumaciones, que nunca se llegó a utilizar.

Fase 3. Siglo XIX – niveles de uso

Tras un largo hiato temporal para el que no se han registrado evidencias, en el siglo XIX volvemos a documentar acciones en el entorno de la iglesia de San Martín. Se trata del nivel de suelo, el posible empedrado de la plaza y la presencia de un camino que según nos han comentado, conducía al antiguo cementerio. La cronología asociada al camino viene dada por el hecho de que el nuevo cementerio se construyó hacia 1900, aprovechando materiales de la ermita de Santa Marina que se derriba por estar inutilizada.

Fase 4. Siglos XX-XXI

Por último, se documentan las sucesivas actuaciones llevadas a cabo durante el siglo pasado y la zanja actual, todas ellas relacionadas bien con la instalación de servicios o bien con el acceso a la caseta ubicada en el extremo del sector.

L. Elorza González de Alaiza

A.2. AÑANA

A.2.1. GESALTZA AÑANAKO HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO DE SALINAS DE AÑANA

A.2.1.1. Gesaltza Añanako harresia eta San Kristobal elizaren ingurua

Zuzendaritza: J. L. Solaun Bustinza
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila;
Añanako Udala

A.2.1.1. Muralla de Salinas de Añana y entorno de la iglesia de San Cristóbal

Dirección: J.L. Solaun Bustinza
Financiación: Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco;
Ayuntamiento de Añana

This text outlines the results of the archaeological intervention carried out within the framework of the 'Study, restoration and dissemination of the Salinas de Añana wall and the area around San Cristóbal (Añana, Álava)' project, which confirm the existence of an access point to the town at the north-western end of said wall. The discovery of this entrance point is, without doubt, the principal finding of the archaeological intervention carried out.

Gesaltza Añanako harresian eta San Kristobal elizaren inguruan garatutako esku hartze arkeologikoak iragan 2021. urtean zundatutako guneen informazio gehiago biltzea zuen xede. Alde batetik, lodiera estratigrafikoa ezagutu nahi genuen San Kristobal eliza desagertuarekin barruti gotortuaren hegoaldean eraikitako eustorma handiaren oinetan. Bestetik, harresiaren ipar-mendebaldeko tartean sarrera ate txiki bat ba ote zen egiaztatu nahi genuen, 2006an eta 2021ean egindako zundaketa arkeologikoetan ustezko ate horren aztarna batzuk detektatu baitziren. Haren egiturazko ebidentziarik kontserbatzen ez zen arren, kontserbatutako aztarnen morfologiak berak eta harresiz kanpoko harbide baten hondakinek sarrera hori iradokitzen zuten.

San Kristobal azpiko ibai terraza

Oso bakuna izan zen San Kristobal elizaren ondoan altxatutako harresiaren harresiz kanpoko eremuan erregistratutako okupazioaren sekuentzia. Landare geruza altxatu ondoren, maila naturalaren gainean zuzenean egokitutako betegarri lodi bat, maila berdintzekoa, dokumentatu genuen. Maila horren gainazala erabilerarako zoru gisa erabiliko zen, nahiz eta ez zuen harrizko egiturarik edo zoladura mota bakar bat ere. Itxura guztien arabera, San Kristobal eliza berreraiki zen garaiko jarduera da, XVI. mendearen lehen erdikoa, mazelaren azalera erabilgarria iparraldetik handitzeko, ibaiko terrazari espazioa irabaziz, eta elizako eustorma handia eraikitzeko bideratutakoa. Izan ere, zorua berdintzeko betegarrian bereizitako giza hezur batzuek adierazten dute Erdi Aroko San Kristobal hilerri zaharretik ekarriak direla terrazaren azalera handitzeko erabilitako lurrak, XVI. mendean tenplua berreraikitzeko lanek nahasi egin baitzuten eremu hori.

«Puerta del Caño»

2021eko ekinaldian zehar beste harresi atal bat geratu zen agerian ipar-ekialdean. Zehazki, gutxi gorabehera hemezortzi metro linealeko harresi atal bat identifikatu zen bihurgunean, eta bertan bi dorre nabarmentzen ziren: erdizirkularra bata eta ultraerdizirkularra bestea, harresiaren biribilgunea indartzeko. Orduan adierazi genuen bi kuLa intervención arqueológica desarrollada en la muralla de Salinas de Añana y entorno de San Cristóbal pretendía conseguir una mayor información de las zonas sondeadas el pasado año 2021. Por un lado, interesaba conocer la potencia estratigráfica en la base del murallón levantado con la desaparecida iglesia de San Cristóbal, al sur del recinto fortificado. Por otro lado, se trataba de certificar la existencia de un portillo de acceso en el tramo noroeste de la muralla, del que ya se habían detectado indicios en los sondeos arqueológicos realizados en 2006 y 2021. A pesar de que no se conservaban evidencias estructurales del mismo, la propia morfología de los restos conservados, así como la presencia de restos de un empedrado extramuros, apuntaban en esta dirección.

La terraza fluvial bajo San Cristóbal

La secuencia ocupacional registrada en el espacio extramuros del murallón levantado junto a la iglesia de San Cristóbal fue muy sencilla. Tras la retirada de la cubierta vegetal se documentó un potente relleno de nivelación depositado inmediatamente encima del nivel natural, cuya superficie, aunque no presentaba ningún tipo de empedrado o pavimento, debió funcionar como suelo de uso. Todo apunta a que se trata de una actividad coetánea a la reconstrucción de la iglesia de San Cristóbal en la primera mitad del siglo XVI, destinada a ampliar la superficie útil de la ladera por el norte, ganando espacio a la terraza fluvial del río, y a levantar el murallón de contención de la iglesia. De hecho, la presencia de algunos restos óseos humanos en el relleno de nivelación parece indicar que los aportes de tierra utilizados para ampliar la superficie de la terraza provenían del viejo cementerio medieval de San Cristóbal, alterado con las obras de reconstrucción del templo en el siglo XVI.

La «Puerta del Caño»

Durante la campaña del año 2021 se puso al descubierto un nuevo tramo de muralla al noreste. En concreto, se identificó un lienzo en recodo de aproximadamente dieciocho metros lineales de longitud, donde destacaba la presencia de dos torreones: uno semicircular y otro ultrasemicircular como refuerzo del quiebro



Harresiaren eta Puerta del Caño ate nabarmen suntsituaren ikuspegi orokorra. Harresiaren beheko zokaloa eta atearen atalasea ikus daitezke; eta atea etxebizitza baten goiko parterreari eusten dion suntsipen geruza batez estalirik dagoela.

Vista general de la muralla y puerta del Caño, notablemente arrasada. Se puede observar el zócalo inferior de la muralla y el umbral de la puerta, y cómo se encuentra cubierta por un estrato de destrucción que soporta el parterre superior de una vivienda.

boen arteko espazioan material gabezia bat bereizten zela, sarrera txiki baten presentzia iradoki zezakeela (*Arkeoikuska 2021*).

2022an zehar bideratutako esku hartzearekin berretsi ahal izan da hipotesi hori. Ateak, guztiz suntsituta, abiapuntuaren aztarnak kontserbatzen zituen, zehazki atalasea eta ate zangoak, eta aurretik harrizko zoladura baten aztarnak dituela, bi metro zabaleko sarbidea bereiztea ahalbidetu du. Gainera, berreskuratutako XVI. mende hasierako dokumentuei erreparatuz gero, orduan eraitsi baitzuten, sarrera horri izena ere jar diezaiokegu. Zehazki, 1521. urtean, Rodrigo de Vachycabo delako batek, egun oso bat eman zuen «Puerta del Caño"-ko arkua eraisten, eta, bost urte geroago (1526), Diego de Hurmyjana herritarrak baratze bat erosi zuen izen bereko atearen gainean. Eta badakigu ate horretatik irteten zen bidea luzatu egiten zela Camino de Traspalacio izeneko bidean barrena, hiriaren ekialderantz, izen bereko zubia zeharkatzen zuela, eta zubiaren ondoan zegoela «El Caño» izeneko iturri bat, bere garbitegiarekin. Izan ere, XIX. mendeko dokumentazioak jasotzen du 1818an Udalak herritar bati orube bat eman ziola etxe bat eraikitzeko «en el barrio que se dice de la Cerca… en una bajada para el Río del Caño». Eraikin hori orain erregistratutako ate eta harresi ondoan aurri egoeran dagoen etxea da. Beraz, huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu ate horri «Puerta del Caño» esan izan zaiola gutxienez XVI. mendeaz geroztik.

de la muralla. Señalábamos entonces que, en el espacio comprendido entre ambos cubos, se observaba un vaciado de material que podría responder a la presencia de un pequeño portillo de acceso (*Arkeoikuska 2021*).

Con la intervención efectuada durante este año 2022 se ha podido confirmar esta hipótesis. La puerta, notablemente arrasada, conservaba restos de su arranque, concretamente de su umbral y jambas, permitiendo reconocer un paso de dos metros de anchura precedido por restos de un pavimento empedrado. Podemos, incluso, poner nombre a este acceso atendiendo a la documentación recuperada de principios del siglo XVI, momento en que se procede a su derribo. Concretamente, en el año 1521 un tal Rodrigo de Vachycabo había empleado un día en derribar el arco de la «puerta del caño» y, cinco años más tarde (1526), el vecino Diego de Hurmyjana compra un huerto encima de la puerta del mismo nombre. Sabemos, además, que el camino que salía de esta puerta continuaba por el llamado Camino de Traspalacio hacia el este de la villa y cruzaba el puente del mismo nombre, junto al que se encontraba una fuente con lavadero llamada «el Caño». De hecho, la documentación del siglo XIX recoge cómo en 1818 el ayuntamiento concede un solar a un vecino de la villa para edificar una casa «en el barrio que se dice de la Cerca… en una bajada para el Río del Caño», edificio que se ha podido identificar como la casa en ruinas situada junto a la puerta y muralla ahora registrados. En consecuencia, podemos afirmar que, al menos, desde el siglo XVI, este portal era denominado como «Puerta del Caño».

J. L. Solaun Bustinza; V. Martínez Ferreras

A.2.1.2. **San Juan, 12**

Zuzendaritza: Vanesa Martínez Ferreras
Finantzazioa: Partikularra

A.2.1.2. **San Juan, 12**

Dirección: Vanesa Martínez Ferreras
Financiación: Particular

The archaeological intervention carried out at number 12 San Juan (Salinas de Añana) consisted of the archaeological monitoring of the earth moving work conducted in the subsoil of the plot as the result of the retrofitting of an old warehouse. No results of archaeological interest were found.

San Juan kaleko 12. zenbakian dagoen biltegi zaharraren jabeak eskatuta eraman genuen burura kontrol ar-

El control arqueológico se realizó a petición del propietario del antiguo almacén sito en San Juan, 12 con

keologikoa, izan ere, biltegia eraberritu nahi zuen familia bakarreko etxebizitza bihurtzeko. Eraikineko zorupea ukituko zuten lanen gaineko kontrol arkeologikora mugatu zen gure eginkizuna. Makineriaren lanen gaineko jarraipenari esker egiaztatu genuen lursaila oso-osorik okupatzen zuela berezko substratu buztintsu batek. Beraz, ez genuen aztarna arkeologiko interesgarririk aurkitu.

motivo de la rehabilitación del mismo para su adecuación como vivienda unifamiliar. La actuación consistió en el control arqueológico de los trabajos que afectaban al subsuelo del edificio. El seguimiento de los trabajos de la maquinaria permitió comprobar que la parcela estaba ocupada íntegramente por substrato natural arcilloso, no hallándose evidencias de interés arqueológico.

V. Martínez Ferreras

A.2.2. AÑANAKO GATZ HARANEKO KULTURA PAISAIA / PAISAJE CULTURAL DEL VALLE SALADO DE AÑANA

A.2.2.1. **Almacén de la Revilla**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez Zufiaurre
Finantzazioa: Añanako Gatz Harana Fundazioa

A.2.2.1. **Almacén de la Revilla**

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: Fundación Valle Salado de Añana

The Revilla warehouse in Salinas de Añana is a ruined building that will house an Ekoetxe (environmental centre) run by the Basque Government. Before work could begin, a previous study had to be carried out, consisting of the stratigraphic analysis of the walls and the excavation of the interior area. The results indicated the existence of an earlier warehouse dating from the 16th century, which occupied almost half of the current surface area and was enlarged on two occasions before reaching its current size. During the 19th century, the warehouse underwent a major overhaul designed to turn it into a spa; later on, it was converted into a dwelling, before being abandoned during the 20th century.

Sarrera

Orain arte Almacén Grande izenaz ezagutzen zen aztergaiaren xede izandako eraikina, baina esku hartze honetan zehar egiaztatu ahal izan da egiazki dokumentuetan aipatzen den Almacén de la Revilla izeneko biltegia dela, obra jakin batzuen eta XIX. mendean zehar obra horiek lizitatzeko dokumentuen artean dagoen loturari esker. Eusko Jaurlaritzak biltegia naturaren interpretazio zentro bat (Ekoetxea) bihurtzeko ekimenean txertatzen da azterlan hau. Hormen irakurketa estratigrafikoa egin da, barruko zaborrak atera dira eta indusketa arkeologikoa egin da.

Hamarnaka urte dira eraikina abandonatuta zegoela, estalkirik gabe eta guztiz galtzeko arriskuan.

Azterlan arkeologikoak orubearen historian zortzi une nagusi bereizteko aukera eman zuen, Erdi Arotik gaur egun arte.

Emaitzak

Egiturak arroka naturalaren gainean

Lehenengo eraikuntza baino lehen zenbait ebaki identifikatu dira arrokan, biltegi barruan, ekialdean, substratu geologikoa azaleratzen den gunean, beheko solairuko zoruaren mailatik gora 2,3 m-ko garaierara goratzen den aldean. Bi silo handi dira (79. eta 81. UEak), gerora amortizatu zirenak, eta ebaki zuzen bat, ekialdetik mendebaldera (137. UE), jatorrian oinplano angeluzuzeneko egitura baten zati izandakoa. Segur aski gatza edo gatzuna biltegiratzeko erabili zituzten silo horiek. Gatz Haranean XII.-XIII. mendeetatik aurrera dokumentatzen dira gisa horretako siloak; gure esku hartzean azaldutako bi siloak amortizatzen dituzten materialek Erdi Aroaren amaierara garamatzate, eta

Introducción

El edificio objeto de estudio se conocía hasta ahora como Almacén Grande, pero a lo largo del trabajo se pudo ver que en realidad se corresponde con el Almacén de la Revilla que se menciona en la documentación, gracias a la correspondencia de ciertas obras con los documentos de licitación de las mismas durante el siglo XIX. Este estudio se enmarca en la conversión del almacén en un centro de interpretación de la naturaleza (Ekoetxe), por parte del Gobierno Vasco. Se llevó a cabo la lectura estratigráfica de los alzados, el vaciado de escombros del interior y la excavación arqueológica.

El edificio se encontraba abandonado desde hacía décadas, sin cubierta y en riesgo de pérdida completa.

El estudio arqueológico permitió reconocer ocho momentos principales en la historia del solar, que nos remiten desde la Edad Media hasta el presente.

Resultados

Estructuras sobre roca natural

Antes de la primera construcción se han identificado varios cortes en la roca, situados en la zona oriental del interior del almacén, donde aflora el sustrato geológico, ascendiendo hasta los 2,3 m de altura por encima del nivel del suelo de la planta baja. Se trata de dos silos de almacenaje de grandes dimensiones (UUEE 79 y 81), amortizados posteriormente, y un corte lineal de dirección E-W (UE 137) que formaría parte en origen de una estructura de planta rectangular. Probablemente los silos fueron utilizados para el almacenamiento de salmuera o de sal. En el valle salado estos silos se documentan desde los siglos XII-XIII; los materiales de la amortización de los dos aparecidos en nuestra intervención remiten a finales de la Edad

hori bat dator datazio honekin. Beraz, guk uste dugu gatzuna biltegiratzeko erabiliko zen mazelako espazio baten aurrean gaudela.

Lehenengo biltegia

Fase honetan zehar eraiki zuten gune horretan dokumentatutako aurreneko gatz biltegia. Oinplano angeluzuzena zuen, 8,2 m luze ekialdetik mendebalerako ardatzean eta 11,6 m luze iparraldetik hego-alderakoan. Beraz, 98 m^2-ko espazio erabilgarria eratzen zuten hormek. Eraikina mendebaldetik ixten zuen horma/pantailan, haranari begira dagoen kanpoko aldean, oinplano angeluzuzeneko lau horma bular eraiki zituzten, batetik bestera 2,7 m-ko tartea utzita. Ez dakigu zer garaiera zuten, 3. fasean suntsituta gertatu baitziren.

Une honetakoak dira, era berean, egungo biltegiaren kanpoko aldeko harrizko zoladura bat eta biltegiaren kanpoko aldean, hegoaldean, arrokaren gaineko okupazioaren aztarna batzuk.

Kronologiari dagokionez, guk uste dugu eraikin hori Felipe II.ak 1564an ezarritako gatzaren gaineko zergaren monopolioarekin eta horrek Gesaltza Añanako gatzaren ekoizpenaren berrantolaketan izan zituen ondorioekin lotzen dela.

Biltegia mendebalderantz handitzea

Une horretan biltegia mendebalderantz handitu zuten hiru eraikuntza ekintza garrantzitsu bideratuta. Hasteko, aurreko horma/pantaila eraitsi zuten partzialki. Handitzeari zegokion horma eraiki zuten, eta gutxienez horma bular bat izango zuen haranari begira zuen aurpegian, eta sarrera bat hegoaldean, ate horren atalasea kontserbatu egin baita. Azkenik, handitze obraren barruko espazioa buztinezko depositu batez bete zen, eta ondoren biltegi berriaren barruko alde osoa estali zuten berdintze maila heterogeneo baten bidez.

Handitze lan horien ondoriozko eraikinak iparraldetik hegoalderako aurreko luzerari eutsiko zion, 11,6 m, baina 16 m-ra luzatuko zuen ekialdetik mendebalderako ardatza, azalera erabilgarria ia bikoiztuta, 189 m^2.

Atalasearen kanpoko zoru baten presentziak eta horma baten hondakinek adierazten digute bigarren biltegi honek egitura bat izan zuela itsatsita hegoaldean.

Batez ere aurreneko biltegia handitzeko lanetan sortutako berdintze depositu handi bietan berreskuratutako zeramika sortan oinarritzen da fase honetako datazio absolutua. Elementu horiek XVII. mende amaierara garamatzate.

Horma/pantailaren eraikuntza

Okupazioaren sekuentzian bereizitako laugarren fasean kokatzen da haranari begira eraikitako horma/pantaila, biltegiaren hego-mendebaldeko izkinari atxikia. Lau horma bular zituen. Beharbada, aurreko etapan itxura batean iradokitzen zen hegoaldeko egitura atxikia finkatzeko obra da.

Eraikuntzaren ikuspegitik kalitate handiko obra da, nabarmendu egiten da ingurukoetatik. Oso antzekoak badira ere, horma bularretan eta horman bertan ez zituzten material berberak erabili. Horma bularretan harlandu txikiak edo harlandu handiagoak eta erregularragoak erabili zituzten. Bloke paralelepipedoak dira, ilara horizontaletan jarriak, horma bularraren (soilik hegoaldeMedia, lo que concuerda con esta datación. Por lo tanto, creemos que estamos ante un espacio en ladera dedicado al almacenamiento de salmuera.

Primer almacén

Durante esta fase se construye en este espacio el primer almacén de sal documentado. Contaba con una planta rectangular de 8,2 m de longitud en su eje E-W y 11,6 m en el N-S cuyos muros formaban un espacio útil de 98 m^2. En el muro pantalla que cerraba el edificio por el oeste se edificaron en el lado exterior abierto al valle cuatro contrafuertes de planta rectangular, situados cada 2,7 m. Se desconoce su altura al haber sido arrasados en la fase 3.

A este momento se han adscrito también un empedrado visto al exterior del actual almacén, y los restos de ocupación sobre roca que se vieron al sur en el exterior del almacén.

Cronológicamente, creemos que este edificio se relaciona con el monopolio de la sal impuesto por Felipe II en 1564 y las consecuencias que esto tuvo en la reorganización de la producción salinera de Salinas de Añana.

Ampliación del almacén hacia el oeste

En este momento se amplió el almacén hacia el oeste con tres acciones constructivas de calado. En primer lugar, se arrasó parcialmente el muro pantalla anterior. Asimismo, se construyó el muro correspondiente a la ampliación, que contaba al menos con un contrafuerte en el lienzo abierto al valle y un acceso hacia el sur del que conservamos el umbral. Finalmente, el espacio interior de la ampliación se rellenó con un depósito de arcillas, cubriéndose posteriormente todo el interior del nuevo almacén con una nivelación heterogénea.

El edificio resultante de estas reformas mantenía la longitud N-S anterior de 11,6 m, pero ampliaba la del eje E-W hasta los 16 m, doblando casi su superficie útil, que pasaba a ser de 189 m^2.


La existencia de un suelo al exterior del umbral, así como de los restos de un muro, nos indican la presencia de una estructura adosada por el sur a este segundo almacén.

La datación absoluta de esta fase se fundamenta en el repertorio cerámico recuperado sobre todo en los dos grandes depósitos de nivelación generados durante la ampliación del primer almacén, que remiten a finales del siglo XVII.

Construcción del muro pantalla

La cuarta fase diferenciada en la secuencia de ocupación comprende principalmente la construcción de un muro pantalla hacia el valle, adosándose a la esquina SW del almacén. Contaba con cuatro contrafuertes. Quizá se trate de la consolidación de la estructura meridional adosada que parecía sugerirse en la etapa anterior.

Esta obra es de gran calidad constructiva, distinguiéndose de las del entorno. Aunque muy parecidas, cabe distinguir la factura de los contrafuertes de la del muro propiamente dicho. En los contrafuertes se emplean sillarejos o sillares de mayor tamaño y regularidad. Son bloques paralelepípedos dispuestos en hiladas horizontales combinados con piezas escultóricas



Eraikinaren oinplanoa, fase historiko nagusiak adierazita.

Planta del edificio, con las principales fases históricas reflejadas.

ko muturrekoa kontserbatu da) edo atzeraemanguneen goiko aldean profil triangeluarra emateko zizelkatutako pieza handiekin batera.

Horma horrek karel bat zuen, biltegitik gertuen dagoen aldean partzialki kontserbatu dena. Horrexegatik badakigu gaur egungo hormaren garaiera jatorrizkoa dela, eta ez dela beheratua izan; besterik gabe kendu egin zuten karela, nahiz eta geroago zati batean berreraikiko zuten.

Fase honetako material gutxi berreskuratu dugun arren, halako ziurtasunarekin koka dezakegu XVIII. mende inguruan, XVII. eta XIX. mendeetan zehatz datatutako bi uneren artean baitago.

Egungo biltegiaren eraikuntza

Gaur egungo biltegiaren eraikuntza teknikoki bi obra berezituetan eraman zen burura, baina guk uste dugu eraikuntza proiektu baten eta beraren zati direla bi obra horiek. Ziurrenik obrak egin zituzten kontratisten artean izandako aldaketa baten ondorioa da.

Hasteko, iparraldeko eta ekialdeko horma atalak berreraiki zituzten, eta biltegia hegoalderantz handitu. Handitze lan horretan aurreko faseetako hormen zati batzuk eraitsi behar izan zituzten obra berriei leku egiteko.

Obrak, azken batean, gaur egungo biltegiaren ekialdeko erdia hartzen du, hegoaldeko fatxada (nagusia) osorik hartuta.

Bigarren obran horma berri bat erantsi zioten biltegiaren mendebaldeko hormari, gero azken hori zoruaren mailaraino eraisteko; horrela, biltegiak beste metro pasatxo izango zuen erabilgarri mendebalderantz. Fase honetan berreraiki zituzten laugarren faseko bi horma bularren goiko zatiak.

Bi obra horiek burututa, biltegiak barruko aldetik gaur egungo azalera erabilgarria izango zuen, 259 m^2, 14,3-16 m luze iparraldetik ekialderako ardatzean eta 14-17,7 m ekialdetik mendebalderakoan. Bestalde, hegoalderantz handitu eta eraikinean 69-84 UEko horma bilduta, horma horrek beste norabide batean luzatzen

talladas para el acabado de perfil triangular tanto de la parte de arriba del contrafuerte (únicamente conservado en el más meridional) o de sus retranqueos.

Este muro contaba con un pretil, conservado parcialmente en la parte más cercana al almacén. Por eso sabemos que la altura del muro actual es la altura original, y que no ha sido rebajado; únicamente se ha retirado el pretil, si bien en parte fue reconstruido en momentos posteriores.

Aunque se ha recuperado poco material de esta fase, podemos situarla con bastante certeza en torno al siglo XVIII, ya que se sitúa entre dos momentos bien datados en los siglos XVII y XIX.

Construcción del almacén actual

La construcción del almacén actual se llevó a cabo en dos obras diferenciadas técnicamente, pero que consideramos que forman parte de un mismo proyecto constructivo. Se debe tratar, seguramente, de un cambio en los contratistas que llevan a cabo las obras.

El primer momento consistió en la reedificación de parte de sus lienzos norte y este y una ampliación hacia el sur. En esta última se produjo el arrasamiento de parte de los muros de las fases anteriores para permitir las nuevas obras.

La obra, en definitiva, abarca la mitad oriental del actual almacén, incluyendo la fachada sur (principal) completa.

Durante la segunda obra se adosó un nuevo muro al lienzo occidental del almacén, para posteriormente arrasar este último hasta el nivel de suelo, ganando el almacén algo más de un metro de espacio útil hacia el oeste. En esta obra también se reconstruyó la parte superior de dos contrafuertes de la cuarta fase.

Tras estas dos obras el almacén logró su planta interior actual de 259 m^2, con 14,3-16 m de longitud en su eje N-S y 14-17,7 m en su eje E-W. Por otro lado, la ampliación hacia el sur y la integración en el edificio del muro UE 69-74 que mantenía una orientación diferente (NW-SE en vez de N-S) hizo que el edificio dejara

baitzen (iparraldetik hegoaldera ez baizik eta ipar-mendebaldetik hego-ekialdera), hasieratik izan zuen oinplano angeluzuzena izateari utzi zion eraikinak.

Beraz, 5. faseko 2. une honetan eraiki zuten egungo eraikinaren mendebaldeko erdia, baina orduan gaurkoa baino garaiagoa zen alde hori.

5.1 eta 5.2 faseetako obretan erabilitako materialetan eta ezaugarri teknikoetan bereizten diren aldeek obretan jardundako bi lantalde bereizteko aukera ematen digute.

Fase honen identifikazioan garrantzitsua izan da proiektu bakar baten emaitza dela ikusi ahal izatea, nahiz eta obra bi eraikitzaile taldek bideratu zuten (segur aski kontratu mailako alderdiren batek ezarria). Proiektuak diseinu argia zuen, eta horren arabera, kanpoko horma bularrak estalkiaren lerrotik behera bi metrora iritsiko ziren. Hori argi eta garbi ikus dezakegu iparraldeko horman, eta funtsezkoa da eraikin honen bolumetria berreraikitzeko, izan ere, mendebalderantz, nabarmen beheratu zuten ustezko hondamen partzial baten ostean eta geroago bainutegi bihurtu ondoren.

Obra horiek ere XVIII. mende inguruan kokatu behar ditugu, XVII. eta XIX. mende bitartekoak baitira.

Biltegiko berritze lanak eta bainutegi bihurtzea

Okupazioaren sekuentziaren seigarren faseak biltegian XIX. mendean zehar egindako zenbait berritze lan biltzen ditu, bainutegi bihurtu aurretik eta aldi berean egindakoak. Hegoaldeko horman sartzeko bao burudun bat ireki zuten: 1815eko dokumentu batek ziurtatzen du eraikuntza ekintza hori. Gaur egungo eraikinean sartzeko atea da.

Haranari begira bi leihate handi eraiki zituzten, bakoitza 3,6 m zabal, eta iparraldeko horman beste bat. Hiru bao horiek segur aski eraikina biltegi izateari utzi eta bainutegi bat bihurtu zen unearekin lotu behar ditugu, XIX. mende amaierako unearekin.

Eta beste konponketa batzuk egin zituzten. Guztietan garrantzitsuena, behin nahi gabe edo nahita suntsitutako iparraldeko hormaren mendebaldeko muturraren zati handi baten berreraikuntzari dagokio.

Kronologikoki 271. UEko atearen eraikuntza zehatzmehatz datatzen digun dokumentu guztiz interesgarri bat dugu. «Reconocimiento y tasación de las obras del Almacén grande y parte del de la Revilla» izenburuko dokumentua da, 1815eko data du. Manuel Olivares eskribauaren notario protokolo bat da (APAH, Protokoloa: 11.437, 104-107v or.), obra zehazki deskribatzen duena eta gaur egungo atearekin guztiz bat datorrena.

Kontuan harturik deskribapena eta burura eramandako obra mota, dokumentu horretan egiaztatu dezakegu biltegi hau Almacén Grande ez baizik eta Almacén de la Revilla dela. Dokumentuan esaten da Almacén Grande izenekoa ez zutela erabiltzen estalkirik ez zuelako, eta konponketa batzuk proposatzen dira.

Jakin badakigu fase honetako obrek ia XIX. mende osoa hartu zutela: hegoaldeko atea 1815ean egin zuten, eta bainutegi bihurtzeko lanak mendearen amaiera aldean eraman zituzten burura.

de tener la planta rectangular que había mantenido desde sus inicios.

En este segundo momento de la fase 5, por lo tanto, se construye la mitad occidental del edificio actual, si bien esta parte contaba con una altura mayor que en la actualidad.

La diferencia de aparejo y características técnicas entre las obras de las fases 5.1 y 5.2 nos permiten reconocer dos cuadrillas de trabajadores diferenciados.

Un aspecto importante de la identificación de esta fase es que hemos podido ver que se trata de un proyecto único, aunque realizado por dos cuadrillas de constructores diferentes (seguramente por un tema contractual). Y que este proyecto tenía un diseño claro, que incluía los contrafuertes exteriores que terminaban dos metros por debajo de la línea de cubierta. Esto lo podemos ver con claridad en el alzado norte, y es fundamental para reconstruir la volumetría de este edificio, ya que hacia el oeste fue rebajado de manera importante tras una posible ruina parcial y posterior conversión en balneario.

La cronología de estas obras es también de en torno al siglo XVIII, ya que se sitúa entre los siglos XVII y XIX.

Reformas del almacén y conversión en balneario

La sexta fase de la secuencia ocupacional integra diversas reformas que se realizaron en el almacén durante el siglo XIX, antes y durante su efímera conversión en balneario. En el muro sur se abrió un vano adintelado de acceso, acción constructiva atestiguada por un documento de 1815. Se trata de la puerta actual de acceso al edificio.

Orientados hacia el valle se construyeron dos grandes ventanales de 3,6 m de anchura, y en el lienzo norte otro más. Estos tres vanos están probablemente asociados al momento en que el edificio dejó de emplearse como almacén y pasó a ser un balneario, a finales del siglo XIX.

También se realizaron arreglos puntuales. El más importante corresponde a la reconstrucción de buena parte del lienzo norte en su extremo oeste, tras un arrasamiento accidental o intencionado.

Cronológicamente contamos con un documento de gran interés que nos data perfectamente la construcción de la puerta UE 271. Se trata de un documento titulado como «Reconocimiento y tasación de las obras del Almacén grande y parte del de la Revilla», datado en 1815. Es un protocolo notarial del escribano Manuel Olivares (AHPA, Protocolo: 11.437, p. 104-107v) que describe perfectamente la obra, y se ajusta con exactitud a la puerta actual.

En este documento, por un lado, podemos confirmar que este almacén es el de la Revilla y no el Almacén Grande, por la descripción y el tipo de obra realizada. Allí se dice que el Almacén Grande estaba sin uso por carecer de cubierta, y se proponen arreglos.

Sabemos que las obras de esta fase ocupan prácticamente todo el siglo XIX: la obra de la puerta sur se ejecuta en 1815, y las reformas para transformarse en balneario se realizaron hacia finales de la centuria.

Etxebizitza bihurtzea

Fase honetan etxebizitza bihurtu ziren biltegi zaharra eta bainutegia. Obra horietan erabilitako zementuak eta hormigoiak argi eta garbi eramaten gaituzte XX. mendera. Dokumentazioak eta aztarna materialek iradokitzen dute ez zela denbora asko joan bereizitako bi faseen artean. Argazkiei esker, bigarren fase hori, hegoaldeko hormari atxikitako egitura eraiki zuten fase hori, 1934an datatzen dela jakinda, guk pentsatzen dugu aurreneko etxebizitza XX. mendearen lehenengo herenean eraiki zutela, ziurrenik 20. hamarkadan. Baditugu egitura horiek agertzen diren argazki batzuk, 1926koak.

Obra handiak dira, erabat berritu zuten eraikinaren barruko aldea, eta ondoren beste egitura bat erantsi zioten hegoaldean.

Abandonatzea

Abandonatu ondoren eraikina hondatu egin zen hurrengo hamarkadetan zehar, galdu egin zituen teilatua eta hormen zati handi bat, lapurreta espezifikoren bat tarteko. Aldi horretan zabortegi gisa erabili zuten auzotarrek, eta ondorioz, hondakindegi handi bat sortu zen.

Gesaltza Añanako biztanleen ahozko lekukotasunek adierazten dutenez, 1960ko hamarkadaren amaieran eta 1970ekoaren hasieran abandonatu zuten etxebizitza.

Konklusioak

Azterlan honek aukera eman digu Erdi Aroan hasi eta gaur egunera arte jarraitzen duen sekuentzia bat ezartzeko. Hauexek dira mugarri nagusiak:

– Aurreneko eraikina eraiki aurretik espazio honetan identifikatutako biltegiratze egiturak, segur aski gatzaren ekoizpenarekin lotuta daudenak. Silo handiak dira, Gesaltza Añanan aurkitutako beste silo batzuen antzekoak, eta agerian uzten dute XII.-XIII. mendeetatik aurrera arroka naturalaren azaleratzeak erabili direla ekoizpen jardueretarako.

– Biltegia aldatuz joan zen bere historian zehar 2. fasean aurreneko eraikina altxatu zutenetik. Eraberritze lan garrantzitsu bakoitzarekin handitu egin zuten erabilerarako azalera, eta aurreneko biltegiak 98 m^2 bazituen ere, abandonatu aurreko etxebizitzak 214,6 m^2 zituen.

– Era berean, eraikinaren funtzionaltasuna aldatu egin zen bere historian zehar. Ex novo eraikitako biltegi batetik, baina aurreko espazioaren eginkizunari eutsita, XIX. mendearen bigarren erdialdean eta aldi labur batez bainutegi izatera igaro zen. Apur bat geroago etxebizitza bihurtu zen, eta azkenik, abandonatu ostean, hondakindegi.

– Eraikuntzaren ezaugarriek, pieza eskuairatuak eta harlandu txikiak erabili baitzituzten, eta horma bularrek agerian uzten dute eraikinaren garrantzia eta tamaina biltegiarena bete zuen garaian. Gaur egun gertatzen den bezala, aldi horretan ere nabarmendu egingo zen Gatz Haraneko beste egituretatik.

– Ikusi ahal izan dugun beste alderdi bat da eraikinak eutsi egin ziola bere osaeraren eskemari denboraren joanean, izan ere, obra berrietako pilareak aurreneko biltegiko horma bularrak zeuden lekuetan oinarritu

Conversión en vivienda

Durante esta fase el antiguo almacén y balneario pasó a convertirse en vivienda. El empleo de cemento y hormigón en estas obras nos sitúa con claridad en el siglo XX. La documentación y las evidencias materiales sugieren que no debió pasar demasiado tiempo entre las dos fases diferenciadas. Sabiendo que la segunda, en la que se construyó la estructura adosada del sur, se fecha en 1934 a través de fotografías, suponemos que la primera vivienda debió levantarse en el primer tercio del siglo XX, probablemente en los años 20. Para 1926 ya tenemos fotografías en las que aparecen estas estructuras.

Las obras son de gran calado, reformando por completo el interior del edificio y luego construyendo un anexo al sur.

Abandono

Tras su abandono el edificio se deterioró a lo largo de las siguientes décadas, perdiendo su techumbre y buena parte de alzados con algún robo específico. En este periodo fue empleado como vertedero por los vecinos, generándose un depósito de residuos de grandes dimensiones.

Los testimonios orales de los habitantes de Salinas de Añana dan fe de que la vivienda se abandonó a finales de la década de 1960 y comienzos de la de 1970.

Conclusiones

Los estudios nos han permitido establecer una secuencia que parte en la Edad Media y continúa hasta el presente, cuyos hitos principales son:

– Las estructuras de almacenaje probablemente relacionadas con la producción de sal identificadas en este espacio antes de la construcción del primer edificio. Se trata de silos de gran tamaño, similares a otros encontrados en Salinas de Añana, que evidencian el uso de los afloramientos de roca natural para actividades productivas desde los siglos XII-XIII.

– El almacén fue cambiando a lo largo de su historia desde la primera edificación en la fase 2. Con cada reforma de calado fue ampliando su superficie de uso, pasándose de los 98 m^2 del primer almacén a los 214,6 m^2 de la vivienda anterior al abandono.

– La funcionalidad del edificio también fue modificándose a lo largo de su historia. De un almacén construido *ex novo*, aunque manteniendo la función del espacio previo, se pasó en la segunda mitad del XIX, y durante un breve periodo de tiempo, a un balneario. Poco después se transformó en vivienda y, finalmente tras su abandono, se convirtió en un basurero.

– Tanto los caracteres constructivos, empleando piezas escuadradas y sillarejos, como la presencia de contrafuertes, refleja la importancia y entidad del edificio durante la época en que cumplió las funciones de almacén. Al igual que ocurre hoy en día, durante este periodo debió destacar entre el resto de estructuras del Valle Salado.

– Otro de los aspectos que hemos podido ver es que el edificio mantiene su esquema compositivo a lo largo del tiempo, asentando los pilares de las obras

zituzten, eta modu horretan jardun zuten ondorengo eraberritze lanetan ere.

– Izenari dagokionez, egiazki Almacén de la Revilla dela egiaztatu ahal izan dugu.

– Eraiki zuten garaiko biltegiko bolumetria da identifikatu ahal izan dugun elementu guztiz garrantzitsu bat. Ikusi dugu nola mendebaldean gailurra gaur egungoa baino dezente gorago zegoen, gero beheratu egin baitzuten bainutegia egiteko. Beraz, gailurraren erdiko lerroa eraikinaren barruko horma bularra dagoen tokian zegoen iparraldeko horman, eta mendebalderantz beheratzen zen gutxi gorabehera gaur egungo ekialdeko pendizaren aldapa bertsuarekin. Eta hori funtsezko alderdi bat da eraikina berreraikitzeko proposamenetan aintzat hartzeko.

nuevas donde se situaban los contrafuertes del primer almacén, y así en cada reforma.

– En cuanto a la denominación, hemos podido ver que se trata en realidad del almacén de la Revilla.

– Un elemento de gran importancia que hemos podido identificar es la volumetría del almacén en el momento de la construcción. Hemos visto que, hacia el oeste, la cumbrera era bastante más elevada que la actual, rebajada para la conversión en balneario. Así, la línea media de la cumbrera estaba donde se sitúa el contrafuerte interior del edificio en el muro norte, y bajaba hacia el oeste más o menos con la misma pendiente que la pendiente actual del este. Esto es un aspecto fundamental para las propuestas de reconstrucción del edificio.

L. Sánchez Zufiaurre; E. Alfaro Suescun; U. Arruza Arenas

A.2.2.2. **Gatz Harana. Neolitoko gatz ustiategia 48. Produkzio Unitatean**

Zuzendaritza: Alberto Plata Montero

Finantzazioa: Añanako Gatz Harana Fundazioa, CNRS

A.2.2.2. **Valle Salado. Explotación salinera neolítica en la UP 48**

Dirección: Alberto Plata Montero

Financiación: Fundación Valle Salado de Añana, CNRS


Due to the international importance acquired by the Añana Salt Valley Neolithic series, in 2021 the Valle Salado Foundation, in collaboration with the Trajectoires de la sédentarisation à l'Etat laboratory, which is part of the CNRS (French National Centre for Scientific Research) and the University of Paris 1 Panthéon-Sorbonne, commenced a four-year project called NéoSal. Les salines d'Añana (Álava, Pays basque): une exploitation du sel dès le Néolithique (Ministry for Foreign Affairs and the Casa Velásquez French School, Madrid). In 2022, as well as continuing with the excavation of Productive Unit (PU): 48, work also started on the stratigraphic characterisation of the exposed part of the tophaceous structure located in the southern part of the valley, with detailed documentation being compiled in relation to each of the strata and samples being taken to determine the formation process through micromorphological, anthracological and phytolithic studies.

Honako hauek ditu laguntzaile Néosal proiektuak: UMR 8215 – *Trajectoires* (CNRS et Université Paris 1 Panthéon-Sorbonne); Gatz Harana Fundazioa (Añana); UMR 5608 – TRACES (CNRS et Université Toulouse Jean Jaurès); UMR 7264 – CEPAM (CNRS et Université de Nice); UMR 6249 – LCE (CNRS et Université de Franche-Comté); UMR 7209 – AASPE (CNRS et Museum d'Histoire Naturelle de Paris); INRAP (Institut National de Recherches Archéologiques Préventives); UPV/EHU (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea); Qark Arqueología SL; UVa (Valladolideko Unibertsitatea); UNED eta Casa de Velázquez (Madril).

Gatz Harana Fundazioak eta Frantziako Kanpo Arazoetarako Ministerioak (Indusketa Batzordea) finantzatzen dute 2021etik 2024ra arte luzatuko den proiektu hau. Olivier Wellerrek, CNRSn UMR Trajectoiresko zuzendariak, ekialdeko Europan egindako ikerketa arrakastatsuen luzapen gisa planteatu ditu Gesaltza Añanan bideratu beharreko lanak, Gatz Haraneko fase neolitikoak Europako gatzaren produkzioaren testigantza zaharrenetakoak izanik Neolitikora (K.a. VI. milurtekoaren bigarren erdia) eramaten baikaituzte. Europako eta munduko gatz ustiategi zaharrenetako hauek hainbat gairekin lotutako eztabaiden xede dira: gizakiaren egonkortzearekin, elikatzeko praktikekin (gizakien eta animalien nutrizioa, elikagaien kontserbazioa, gaztak

El proyecto Néosal cuenta con la colaboración de la UMR 8215 – *Trajectoires* (CNRS et Université Paris 1 Panthéon-Sorbonne); la Fundación Valle Salado (Añana); la UMR 5608 – TRACES (CNRS et Université Toulouse Jean Jaurès); la UMR 7264 – CEPAM (CNRS et Université de Nice); al UMR 6249 – LCE (CNRS et Université de Franche-Comté); la UMR 7209 – AASPE (CNRS et Museum d'Histoire Naturelle de Paris); el INRAP (Institut National de Recherches Archéologiques Préventives); la UPV/EHU (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea); Qark Arqueología SL; la UVa (Universidad de Valladolid; la UNED y la Casa de Velázquez (Madrid).

El proyecto está financiado por la Fundación Valle Salado y el Ministerio de Asuntos Exteriores de Francia (Comisión de Excavaciones) y se extiende temporalmente entre los años 2021 y 2024. Olivier Weller, director de la UMR Trajectoires en el CNRS, han planteado los trabajos en Salinas de Añana como una prolongación de sus reconocidas investigaciones en Europa del este, ya que las fases neolíticas del Valle Salado son un de los testimonios más antiguos de producción de sal en Europa, que se remontan al Neolítico (segunda mitad del VI milenio a.C.). Estas explotaciones salineras más antiguas de Europa, e incluso del mundo, son objeto de debates vinculados a la sedentarización del hombre, a las prácticas alimentarias (nutrición humana y animal,



Haranaren hegoaldean dagoen estratigrafiaren ezaugarriak ur jauziko tuparrizko eraikuntzako ebakian.

Estratigrafía existente en el cortado del edificio tobáceo situado al sur del valle.

egitea, etab.), ekonomia konplexuen garapenarekin (trukatzeko sareak, baliabideen eta produkzioaren kontrola, etab.) eta desberdintasun sozialen agerpenarekin.

2022ko esku hartze arkeologikoa batez ere gatzuna egosteko eta gatz blokeak ekoitzi arte kontzentratzeko erabilitako ontziak eta errautsak isurtzeko eremuan bideratu dira. Sistema hori gutxienez bost mila urtez erabili zen, egiazki erromatarren konkista gertatu arte, eta ondorioz, ikatz eta zeramika zatien hainbat metrotako estratifikazioa eragin duen metaketa gertatu da. Gu induskatzen ari garen aldean, El Pico izenaz ezagutzen den iturburu ia gezaren ur jauziak eratutako tuparri formazioko faseetan txertatuta daude errauts eta zeramika zati horiek.

Eremu hori, haraneko produkzio aztarna aspaldikoenak eskaintzen dituena, Muera ibaiaren ezkerraldean dago, Santa Engracia iturburuko uraz beheiti 130 metrora du abiapuntua. Kronologia neolitikoko estratifikazioak dira, hainbat isuriren emaitza, 1 metro lodi den tuparrizko estratu batek betikoz zigilatzen dituena. Gatzagetako beste toki batzuetan, estratu horren gainean Brontze Aroko produkzio egituren eta isurien aztarnak dokumentatu dira.

40. Produkzio Unitatean, 2015ean balorazioa egiteko zundaketa txiki bat egiteko lehen esku hartze bat bideratu ondoren, gaur egungo gatza ekoizteko zurezko

conservación de alimentos, fabricación de quesos, etc.), al desarrollo de economías complejas (redes de intercambio, control de los recursos y de la producción, etc.) y a la aparición de las desigualdades sociales.

La intervención arqueológica de 2022 se ha centrado en la zona de vertido de los recipientes y cenizas utilizados para cocer la salmuera hasta lograr concentrarla y producir bloques de sal. Este sistema fue empleado durante al menos cinco milenios, de hecho, hasta la conquista romana, lo que ha provocado la acumulación de varios metros de estratificación de carbones y fragmentos cerámicos que, en la zona en la que nos encontramos excavando, se hallan incrustados dentro de las fases de formación tobácea formada por la cascada del manantial semidulce conocido como el Pico.

Esta zona, que proporciona los restos de producción más antiguos del valle, se encuentra en la margen izquierda del rio Muera, comenzando a 130 metros aguas abajo del manantial de Santa Engracia. Son estratificaciones de cronología neolítica, fruto de vertidos que quedan definitivamente selladas por un estrato tobáceo de 1 metro de potencia sobre el que en otros puntos de las salinas se han documentado restos de estructuras de producción y vertidos correspondientes a la Edad del Bronce.

En la UP 48, tras la primera intervención de 2015 en la que se realizó un pequeño sondeo valorativo fue necesario apuntalar las estructuras de madera de produc-

egiturak sendotu behar izan ziren 2018an, 2021ean eta 2022an zehar indusketa lanak luze-zabalean egin ahal izateko. Horrela, hondakindegiko geruza aspaldikoenetan sakondu ahal izan dugu.

Aurten guztira 17 unitate estratigrafikotan lan egin dugu, eta 48.015. UEko indusketa hegoalderantz luzatu dugu. Material ilun eta karbonotsuez osatutako geruzetako bat da, zeramika asko du, eta zeramika horiek moldea kentzeko ontziak apurtzeko eremuetatik etorritako isuriekin lotu daitezke. Mota bereko beste isuri bat induskatu dugu 48.032. UEan. Hor ere errautsak dituzten beste geruza mota batzuk bereizten dira, kolorez grisaxkak, arrosakarak eta zurixkak, suetako errautsen garbiketarekin lotu daitezkeenak: 48.016, 48.024 eta 48.036. UEak eta, azkenik, paldo zulo bat identifikatu dugu, 48.031. UE, eta bertako betegarria, 48.030. UE, induskatu dugu.

48. Produkzio Unitatearen hegoaldean eta 49. Produkzio Unitatearen azpian dago Gatz Haraneko bazter harrigarri eta ezezagunenetako bat. El Pico iturburuak osatutako 7 metro garaierako ur jauziak eraturiko tuparrizko eraikuntza bat da. Elkartutako hainbat morfotipok eratuta dago, ur jauziak eta kalkarenitek eratuta, horien artean alubioizko estratu detritikoak eta Añanako Gatza ekoizteko lanek eragindako estratu antropikoak nahasten direlarik.

Eremu horretan bideratutako azterlan xehatuak aukera eman du karnioletan bermatzen den zohikatzezko geruza bat dokumentatzeko. Maila horren gainean tuparri estratu biogeniko asko garatu direla ikus daiteke, tartean material detritikoez eraturiko beste estratu batzuk daudela, hala nola kolubioi eta buztinezko geruzak, kolorez grisetik beltzera haien osaeran materia organikoa oparoa delako. Estratifikazio horren datazioek oso sekuentzia zabala eskaintzen digute, K.a. 8.500 eta 3.000 urte bitartekoa, horretan berez sortutakoak eta jatorri antropikoa dutenak sartzen direlarik.

Behin estratuen lehen ezaugarritze orokor bat egin ondoren, CNRSko *Trajectoires* laborategiko taldeak El Pico iturburuko ur jauzitik oso gertu dauden bi zutabeen identifikazio zehatzagoa egin du, eta laginak hartu ditu ondorengo sedimentologia, antrakologia eta mikromorfologia azterlanak egiteko.

Zutabe horren goi erdiko geruzak zeramikazko materialen isuriek eratuta daude, sekuentzian agertzen diren lehenak dira. Horrexegatik, hain zuzen ere, geruza horietako biren (49.002. eta 49.004. UEak) gainazal txiki batean hasi gara induskatzen. Lehenengoa karbonotsua da, eta bestea errauts moldekoa. Azalera txikia izan arren, bietan ari gara zeramikazko materialak berreskuratzen. Halaber, zeramikazko materialak eta harrizkoak berreskuratu ditugu 49.005. eta 49.007. unitateetako gainazaletan.

ción de sal actuales para realizar una excavación en extensión durante los años 2018, 2021 y 2022 que ha permitido profundizar en los estratos más antiguos del vertido.

Durante este año se ha trabajado sobre un total de 17 unidades estratigráficas, avanzando la excavación de la UE 48.015 hacia el sur. Se trata de uno de los estratos de materiales oscuros y carbonosos, con cerámica muy abundante, que pueden relacionarse con vertidos procedentes de las zonas de rotura de las vasijas para el desmoldado. De este mismo tipo se ha excavado otro vertido, la UE 48.032. También destacan otro tipo de estratos cenicientos y con coloraciones grisáceas, rosadas y blanquecinas, que podrían relacionarse con la limpieza de la ceniza de hogueras: UEs 48.016, 48.024 y 48.036 y, por última, se ha identificado un agujero de poste: UE 48.031, del que se ha excavado su relleno: 48.030.

Al sur de la UP 48 y bajo la UP 49 se encuentra uno de los rincones más sorprendentes y desconocidos del Valle Salado. Se trata de un edificio tobáceo de cascada que alcanza los 7 metros de altura que está formado por el manantial del Pico. Está compuesto por diferentes morfotipos asociados como facies de cascada y calcareníticas entre las que se entremezclan estratos detríticos de tipo aluvial con estratos antrópicos originados por los trabajos de producción de Sal de Añana.

El estudio detallado de esta zona ha permitido documentar un nivel de turba que apoya en las carniolas. Sobre este nivel se observa el desarrollo de numerosos estratos tobáceos biogénicos alternando con otros de materiales detríticos, como coluviones y arcillas con coloraciones que van del gris al negro por la abundancia en su composición de la materia orgánica. Las dataciones de esta estratificación nos ofrecen una secuencia muy amplia entre el 8.500 y el 3.000 a. C., abarcando tanto la formación natural como los de origen antrópico.

Tras una primera caracterización general de los estratos, el equipo del laboratorio *Trajectoires* del CNRS ha realizado una identificación más detallada de dos columnas situada muy cercanas a la cascada del manantial del Pico, tomando muestras para posteriores estudios de sedimentología, antracología y micromorfología.

Los estratos de la mitad superior de esta columna se caracterizan por ser vertidos con materiales cerámicos, los primeros que aparecen en la secuencia. Por ello, se ha comenzado la excavación de una pequeña superficie de dos de estos estratos: 49.002 y 49.004. El primero de ellos es carbonoso y el otro de tipo ceniciento. Pese a la pequeña extensión se están recuperando materiales cerámicos en ambos. También se han recogido materiales cerámicos y líticos de la superficie de las unidades 49.005 y 49.007.

J.M. Martínez Torrecilla; A. Plata Montero; O. Weller; D. Sordoillet; A. Dufraisse

A.3. ARMIÑÓN

A.3.1. Ekieneako energia parke fotovoltaikoa, Lacorzana inguruan

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Krean Property & Structuring S.L.U.

A.3.1 Parque de energía fotovoltaica de Ekienea, en el entorno de Lacorzana

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Krean Property & Structuring S.L.U.

Archaeological assessment of the area on which a photovoltaic solar power plant is to be built in the municipality of Armiñón, since the works will affect zones of presumed archaeological importance pertaining (in broad terms) to the Bronze Age. In ZPAs 19: 'Poblado de Santa Marina' and 24: 'Asentamiento de la Calera', remains were found that prompted the enlargement of the intervention. In ZPA 19, the remains pertained to a short-lived temporary settlement dating from the medieval period, and in ZPA 24, they were from an earth filler demarcated by two rocky outcrops containing abundant archaeological material dating from the Late Bronze Age. No indications of a stable area of habitation were found, although it is believed that one did exist in the surrounding area.

Aurrekariak

Lacorzana inguruan energia parke fotovoltaiko bat eraikitzeko etorkizuneko obrak direla eta, esku hartze arkeologiko bat egin behar izan zen zundaketa arkeologikoak induskatuta ukituko zen eremu osoa balioesteko. Helburu nagusia zen, alde batetik, zorupeko sekuentzia estratigrafikoa ezagutzea, eta bestetik, balizko ondare aztarnak aurkitzea, obrek horiei eragin diezaieketen inpaktua gutxienera eramateko.

Ekienea proiektu fotovoltaikoa Lacorzana herriaren inguruan dago, 236,38 hektareako azalera hartzen du. Aurreikusitako esku hartzeen xedeko eremua ekialdetik mendebaldera egokitzen den Santa Marina Gaineko gailur lerroak mugatzen du geografikoki iparraldetik. Ekialdean eta hego-ekialdean Zadorra ibaiaren ibilguak mugatzen du eremua. Hego-mendebaldean Lacorzanako Urmaela eremu naturala, era berean Aintzira deitua, hedatzen da; hezegune babestua da, berriki eraberritua. Poligonoaren mendebaldeko gainerako muga politiko-administratiboa da, Armiñón udalerriaren (Araba) eta Bayasko industrialdearen (Miranda de Ebro, Burgos) arteko muga baita.

Eremu horretan guztian hiru taldetan banatu ditugun ondare elementu batzuk agertzen ziren: aire zabaleko aztarnategiak, guztiak laborantza lurretan kokatuak; garai historikoko eraikinak, Lacorzanako herrian kokatuak; eta izaera etnografikoko elementu bat, lan arkeologikoei hasiera ematean ezagutu genuen ondare immaterialari lotua, Santa Marina basoan.

Nolanahi ere, etorkizuneko parkeari begira mugatutako eremuan biltzen diren arren, elementu arkitektonikoak eta ondare immaterialari lotutakoa panel fotovoltaikoak jarriko ziren eremutik kanpora geratuko zirela esan behar da, eta beraz, arreta neurriak baizik ez ziren proposatu. San Martin elizaz eta nekropoliaz ari gara, Lacorzanaren iparraldean, atxikitako eraikin batzuekin; gaur egun erabat abandonatuta dago, landaredia oparoa da, kontrolik gabe hazten da inguru hurbilean eta eraikinean bertan. 1099koa da eliza horri buruzko aurre-

Antecedentes

Con motivo de las futuras obras de construcción de un parque de energía fotovoltaica en el entorno de Lacorzana se hizo necesaria una intervención arqueológica para valorar mediante la excavación de sondeos arqueológicos toda la zona afectada. El objetivo principal era conocer la secuencia estratigráfica existente en el subsuelo y localizar posibles restos patrimoniales para minimizar el impacto de las obras sobre éstos.

El proyecto fotovoltaico Ekienea se ubica en el entorno de la localidad de Lacorzana, con una superficie de 236,38 hectáreas. El terreno afectado por las actuaciones previstas está delimitado geográficamente al norte por el cresterío del Alto de Santa Marina que se extiende de este a oeste. Al este y sureste, el terreno queda acotado por el cauce del río Zadorra. Al suroeste se extiende el espacio natural de la Laguna de Lacorzana también conocida como El Lago, humedal protegido y restaurado recientemente. El resto del límite occidental del polígono es de tipo político-administrativo ya que lo forma el límite entre los municipios de Armiñón (Álava) y el polígono industrial de Bayas (Miranda de Ebro, Burgos).

En toda este área aparecía un conjunto de elementos patrimoniales que dividimos en tres grupos: los yacimientos al aire libre, situados todos ellos en fincas de labor; las edificaciones de época histórica, localizadas en el caserío de Lacorzana; y un elemento de carácter etnográfico vinculado al patrimonio inmaterial del que tuvimos noticia al iniciar los trabajos arqueológicos, en el bosque de Santa Marina.

No obstante, hemos de decir que, pese a hallarse dentro del área delimitada para el futuro parque, tanto los elementos arquitectónicos como el vinculado al patrimonio inmaterial no se iban a ver incluidos en la zona destinada a la colocación de los paneles fotovoltaicos, por lo que sólo se propusieron medidas de precaución. Estamos hablando de la Iglesia y necrópolis de San Martín, ubicada al norte de Lacorzana, con varios edificios adosados, cuyo estado actual es de completo abandono, con abundante vegetación que crece de forma descontrolada tanto en su entorno más inmediato como sobre el

neko aipamen idatzia, eta 1989an eta 1990ean bideratutako esku hartze arkeologikoek agerian utzi zuten Erdi Aroko nekropoliaren zati bat. Era berean, Hurtado de Mendozatarren Dorrea aipatu behar dugu, Lacorzana herriaren hegoaldean, XVI. mendean eraikia, antza dorre zaharrago baten gainean. XX. mende hasietan nabarmen eraberritu bazuten ere, jabeak eraikuntzaren iragan militarra gogoratzeko erabili nahi izan zituen elementu arkitektoniko ugari kontserbatzen ditu. Eta hirugarrenik, Santa Marina muinoaren gailurrean dagoen Sagrado Corazón Plateado deitutako eskulturaz ari gara. Izena eskultura estaltzen duen pinturatik datorkio, eta mugarri bat da Miranda de Ebrotik abiatzen den mendi ibilbidearen barruan, Bayas industrialdean, Lacorzanan eta Aintziran barrena, atzera Miranda de Ebrora itzultzeko.

Bost ziren etorkizuneko parkearen eraginpeko eremuan biltzen ziren aire zabaleko aztarnategiak, eta horietan balorazioa egiteko zundaketak egin ziren, aztarnategi bakoitzaren neurriek, kokapenek eta perspektibek baldintzatutako kopuruan eta kokalekuetan. Gainera, beste bi zundaketa egin ziren San Martin elizatik gertuen dagoen lursailaren zati batean, eguzki panelak jarriko ziren aldean.

19. zenbakiko BAG: «Santa Marina herrixka»

Ribaguda herriaren hego-mendebaldera 1,2 km-ra dago gutxi gorabehera, eta Lacorzana herritik ipar-mendebaldera 1 km-ra. Santa Marina muinoaren iparraldeko hegala eratzen duen malda berez lautu baten gainean dago. 1991n aurkitu zuen Félix Murgak, eta gainazalean material arkeologikoak biltzen zituzten bi gune bereizi zituen. Horietan, eskuz egindako zeramika zati asko aurkitu zituen, batzuk handi samarrak, ore lodiko edalontziei zegozkienak, gehienak dekoratu gabeak, baina batzuk hatz markez, zimurrez eta titiburuez apainduta. Era berean, *sigillata* moldeko zeramika zati dekoratu bakar bat aurkitu zuen. Suharrian landutako beste zati ugari aurkitu zituen, tresnak, printzak eta zizelkatze lanetik etorritako hondakinak. Bestalde, leunduta, harehar-rizko hainbat zati zehaztu gabe bildu zituen. Aztarnategia nolabaiteko garrantzia izan zuen herrixka edo giza egonlekutzat definitu zen, eta kronologikoki Brontze Aroaren Erdi-Amaieraren eta Burdin Aroaren hasieraren artean kokatu zen.

Balizko Arkeologia Gunearen mendebaldean, parkearen eraikuntzak eragingo zuen aldean, hamaika zundaketa egin ziren. Oro har, oso sinplea izan zen dokumentatutako estratigrafia. Hasteko, gainazaleko geruza, laborantza lur marroiaz osatua, ehundura limotsu eta buztintsuarekin, eskuarki klastoekin eta harri txiki barreiatuekin, harriak ugariago direlarik lursailaren ekialdean. Batez beste 30 eta 40 cm lodi zen geruza hori, toki jakin batzuetan 50 cm lodi izatera iristen bazen ere. Argi eta garbi ikusi zen laborantza lanetan zehar atera egin zituztela harriak, izan ere, laborantzari emandako azaleko maila horretan oso harri gutxi zeuden, eta lursaileko eremu ez landuetan hainbat harri metaketa bereizten ziren. Burura eramandako zundaketen erdian bakarrik agertzen zen aurreko geruzaren azpian kolore gorrixkako lur buztintsuaren maila, oso garbia eta uniformea ehundurari eta koloreari dagokienez, arkeologikoki antzua; inon ere ez zituen zundaketaren 20 m-ak


propio edificio. La primera cita documental que encontramos de esta Iglesia data de 1099 y ya en los años 1989 y 1990 sendas intervenciones arqueológicas dejaron al descubierto parte de la necrópolis medieval. También debemos citar la Torre de los Hurtado de Mendoza, al sur de Lacorzana, construida a comienzos del siglo XVI al parecer sobre otra más antigua. A pesar de la transformación que sufrió a comienzos del siglo XX conserva numerosos elementos arquitectónicos con los que su propietario quería rememorar el pasado militar de la construcción. Y en tercer lugar, hablamos del llamado Sagrado Corazón Plateado, escultura que se localiza en la cresta del cerro de Santa Marina. El nombre le viene de la pintura que recubre la escultura y forma parte de un hito dentro de la ruta de senderismo que parte de Miranda de Ebro, por el polígono industrial Bayas, Lacorzana y El Lago, para volver a Miranda de Ebro.

Cinco eran los yacimientos al aire libre incluidos en el área de afección del futuro parque, en los que se excavaron sondeos de valoración en un número y localización condicionado por las dimensiones, ubicación y perspectivas de cada uno de ellos. Además, se incluyó la apertura de dos sondeos en la parte de la finca más cercana a la iglesia de San Martín afectada por la colocación de los paneles solares:

ZPA nº 19: «Poblado de Santa Marina»

Se localiza aproximadamente a 1,2 km al suroeste del pueblo de Rivaguda y a 1 km al noroeste del de Lacorzana. Se ubica sobre una pendiente aterrazada de forma natural que forma la ladera septentrional del cerro de Santa Marina. Fue descubierto en el año 1991 por Félix Murga, quien recogía el hallazgo de dos zonas con materiales arqueológicos en superficie, que consistían en abundantes fragmentos de cerámica fabricada a mano, a menudo de buen tamaño, pertenecientes a vasos de pastas gruesas, la mayoría lisos, pero también decorados mediante digitaciones, rugosidades y pezones. Así mismo se recogió un único fragmento de cerámica *sigillata* decorado. En sílex se localizaron numerosos útiles, lascas y restos de talla. En pulimento se recogieron diversos fragmentos indeterminados de arenisca. El yacimiento se definió como un poblado o asentamiento de cierta entidad con una cronología avanzada del Bronce Medio-Final y tal vez de la Edad del Hierro.

Fueron once los sondeos abiertos en la parte occidental de esta Zona de Presunción Arqueológica, la afectada por la construcción del parque. En general, la estratigrafía documentada era muy sencilla, con un nivel superficial de tierra de cultivo de color marrón y textura limoarcillosa, generalmente con clastos y pequeñas piedras dispersas, aunque con mayor profusión de éstas en el lado oriental de la finca. Su potencia media era de entre 30 y 40 cm, aumentado hasta los 50 cm puntualmente. Se advirtió que se había producido un vaciado de piedras durante las labores agrícolas, no sólo por su relativa ausencia en este nivel superficial de cultivo, sino también por la cantidad de morcueros dispersos por las zonas de la parcela no cultivadas. Sólo en la mitad de los sondeos aparecía bajo el anterior un nivel de tierra arcillosa de color rojizo, muy limpio y uniforme en cuanto a textura y coloración, estéril arqueológicamente hablando, en ningún caso ocupando todo el desarrollo longitudinal del sondeo, 20 m, y nunca sobrepasando los 30 cm de espesor máximo. Por sus características y su disposición hemos



Energia Parke Fotovoltaikoaren eraikuntzak eragindako eremua eta «Santa Marina herrixka» (ezk.) eta «La Calera giza egonlekua» (esk.) aztarnategietan induskatutako eremuak.

Zona afectada por la construcción del Parque de Energía Fotovoltaica y áreas excavadas en el «Poblado de Santa Marina» (Izda) y el «Asentamiento de La Calera» (dcha).

hartzen, eta puntu bakar batean ere ez zen 30 cm baino lodiagoa. Kontuan harturik maila horren ezaugarriak eta egokiera, guk uste dugu urari eusteko gune txikiak zirela, non dekantazio prozesuaren bidez lohia sortu zen, kasu guztietan agertzen baitzen estratu naturalaren gainean. Estratu natural hori batez ere ehundura plastikoko buztinez osatzen zen, kolorez zurixka, tonalitate hori eta okreekin puntu batzuetan eta arrokaren azaleratze puntualek hautsita.

Hamaika zundaketetatik bostetan, denak Balizko Arkeologia Gunearen ipar-mendebaldean, orban ilun txiki batzuk dokumentatu ziren, substratu geologikoaren gaineko ikatzek eraginda zeuden. Batzuk metaketa karbonotsuak ziren, ez oso handiak, berez sortutako suek edo luberritze lanak egiteko xedean eragindako suek sorrarazitakoak, ez baitzuten elementu antropikorik bat ere atxikirik. Horietako bat herrestan iritsia dela ikus daiteke, *paleoibilgu* mehar bat bereizi baita kolore gorrixkako lur buztintsuaz beterik, ikatz ziri batzuekin. Nolanahi ere, argi eta garbi adierazten dute garai batean muinoaren alde honetan biltzen zela nolabaiteko jarduera biziena. Eta horixe bera berresten du 3. zundaketa deituan aurkitutako buztinezko geruzak, buztin gorrixkez eta beltzaxkez osatua, ikatz gehiagorekin eta Erdi Aroko zeramika zatiekin. 9. zundaketan ere, aurrekoaren iparraldean irekian, ikatz geruza bat identifikatu zen: material arkeologikorik ez zuen arren, lursailaren alde honetan irekitako gainerako zangetan dokumentatutakoak baino trinkoagoa zen.

Aurkitutako material arkeologikoari dagokionez, guztiz kontrajartzen da 1991n egindako miaketetan bildutako datuekin. Eta ez soilik material horien ugaritasun urri erlatiboagatik, baita alde kronologiko izugarri handiagatik ere. Bildutako zeramika zati guztiak Erdi Arokoak ziren, baten bat aro modernokoa, eta, gainera, teila zatiak aurkitu dira, hori bai, batez ere lursailaren ekialdean. Suharriaren lanketatik etorritako bi hondakin baizik ez dira identifikatu. Bestalde, dozena erdi zati txiki zehaztu gabe bereizi dira, jatorrizko testuingurutik guztiz

determinado que se trataba de pequeñas zonas de retención de agua en la que se creó fango por decantación ya que en todos los casos estaba sobre el estrato natural. Este estrato natural se componía principalmente de arcillas de textura plástica y color blanquecino, con tonalidades amarillentas u ocres en algunos puntos y rotas por afloramientos puntuales de roca.

Se documentaron en cinco de los sondeos, todos en la parte suroeste de la Zona de Presunción Arqueológica, pequeñas manchas oscuras por la presencia de carbones sobre el sustrato geológico. En algunos casos se trataba de acumulaciones carbonosas no muy consistentes provocadas por fuegos originados de forma natural o provocados para realizar roturaciones, ya que no tenían asociados ningún elemento antrópico. En el caso de uno de ellos, incluso por arrastre, al haberse reconocido un estrecho *paleocauce* colmatado de tierra arcillosa de tonos rojizos con briznas de carbones. No obstante, reflejan que es en esta parte del cerro donde se concentraba antiguamente una cierta mayor actividad. Esto quedaría constatado por el hallazgo en el llamado sondeo 3 de una capa de arcillas de colores rojizos y negruzcos que presentaba una mayor abundancia de carbones y que contenía fragmentos cerámicos de cronología medieval. También en el sondeo 9, abierto inmediatamente al norte del anterior se localizó una capa de carbones que, aunque sin contener material arqueológico, era más compacta que las otras documentadas en el resto de zanjas abiertas en esta zona de la finca.

Respecto al material arqueológico localizado, contrasta totalmente con lo que aportan los datos de las prospecciones realizadas en 1991. Y lo hacen no sólo por su relativa escasa abundancia sino también por la enorme diferencia cronológica. Todos los fragmentos cerámicos recogidos eran de cronología medieval e incluso moderna en algún caso, además de haberse encontrado fragmentos de teja, aunque principalmente en el lado oriental de la finca. Únicamente se han recogido dos restos de talla de sílex, así como media docena de pequeños trozos informes, quizás de manteado de arcilla y totalmente fuera de su contexto original, que pudieran atribuirse a la época a

kanpo, eta agian buztinezko geruzari dagozkio; aztarnategi hau datatu zen garaikoak izan daitezke: Brontze Aro Amaiera/I. Burdin Aroa. Horren arrazoia da 1991n aurkikuntza egin zuenak material arkeologiko ia guztia jaso zuela. Horren ondorioz, material arkeologiko gehiegi biltzearen ondorioa izan da aztarnategiaren egungo balorazioan ez dela historiaurreko materialik aurkitu baina bai Erdi Arokoa, izan ere, aurkikuntza egin zuenak material horiek bildu zituenean, garaien arabera bereizi zituen, eta ez zituen interesatzen ez zitzaizkionak jaso.

Kontuan harturik aztarnategi honetan bildutako emaitzak, zundaketetatik bi handitzeko proposamena egin zen. 9. zundaketa deitutakoa handituta egiaztatu nahi genuen zundaketaren iparraldean azaldutako maila ilunaren aurrean egin genuen balorazioan planteatutako hipotesia, alegia, berez sortutako depositua zela. Hasteko, haren inguruko espazioa zabaldu genuen guztiz mugatzeko. 37 m^2 hartu zituen irekitako sektoreak. Eta bai, substratu geologikoaren gaineko kolore desberdineko orbanak, gris ilunak eta beltzak, berezkoak zirela egiaztatu genuen, ez soilik orain induskatutako sektorean, baita balorazio arkeologikoa egitean aztarnategi honetan irekitako gainerako zundaketa guztietan ere. Lur organikoz osatuta zegoen, ez zen oso trinkoa, eta landare hondakinak zituen, batez ere sustraiak, kolore beltz hori ematen ziotenak. Erdialdean, orbana nabarmenagoa zen aldean, ez zen 25 cm baino lodiagoa. Laburbilduz, prozesu natural batek sortutako jalkina zen, gai organikoaren deskonposiziotik etorria. Gai organiko hori zorupeko puntu jakin batean metatuko zen, pendiza hain handia ez den puntuan, eta bertaraino herrestan iritsiko zen, berez, edo laborantza lanen ondorioz.

3. zundaketa deituari dagokionez, 74,25 m^2-tan handitu genuen, eta zundaketa hori handitzeko lanetan dokumentatutako unitate estratigrafikoak hiru baizik ez ziren izan, aztarnategia baloratzeko lanetan zehar ikusi genuenarekin bat etorrita: azaleko lur geruza, estratu naturalaren gainean egokitutako maila gorrixka, ehunduraz buztintsua, garbia eta uniformea estaltzen zuena, eta ikatzek eraginda kolore ilunagoa agertzen zuen buztinezko geruza, zeramika zatiak zituena, estaltzen zuena. Ezin esan daiteke azken bi horiek Unitate Estratigrafiko berezituak direnik, izan ere, azken horretan identifikatutako ikatz zatiak, alde kromatikoak eta material arkeologikoak izan dira biak bereizteko arrazoi bakarrak. Geruza gorrixkaren gainerakotik bereizten diren tonalitateek, ikatzen presentziak eta jasotako zeramikazko zatiek agerian uzten dute gune hau erabilerarako azalera gisa baliatu dela, eta ondoren, segur aski laborantza lanen ondorioz, zabaldu egin dela hanhemenka. Seguruenik ez zen zoru egonkor bat izango, ez baitugu harrizko zoladurarik edo gogortutako buztinezko plaka zatirik identifikatu, ezta barreiatuta ere. Tamaina handiagoko harriak, batez ere zundaketaren hegoaldean, berez ez ziren horma zahar baten ebidentzia, alde batetik, harriak ez zirelako elkarren artean estekatzen, eta bestetik, lurrean ez zegoelako zimentarriarena egiteko erreten edo zangen presentzia salatuko zukeen arrastorik. Ez dago baztertzerik noizbait hormaren bat egon izana, izan ere, bada harri metaketa bat hurbil samar, gertuen dagoen terrazako landareen artean, baina lursail honetako gainerako terrazetan ere topatzen ditugu halakoak; lursailaren goiko aldean oso-oso gutxi dira harriak gainazalean.

la que se adscribió este yacimiento: Edad del Bronce Final /Hierro I. La razón no sería otra que el esquilmado del material arqueológico que en 1991 hizo su descubridor. La consecuencia de esta, a todas luces, excesiva recogida de material arqueológico ha sido que en la valoración actual del yacimiento no se ha localizado material prehistórico y sí medieval porque, además, se debió discriminar por épocas en el momento de su recogida, obviando el material arqueológico que no les interesaba.

En función de los resultados en este yacimiento se propuso la ampliación de dos de los sondeos. Con la ampliación del denominado sondeo 9 se trataba de confirmar la hipótesis que barajamos durante la valoración de que el nivel oscuro aparecido en la zona norte del sondeo se trataba de un depósito de origen natural. Como primer paso, se amplió el espacio a su alrededor para delimitarlo completamente. El sector abierto fue de 37 m^2. Efectivamente, se corroboró que las manchas de color diferenciado, grises oscuras y negras, sobre el sustrato geológico eran de origen natural, no sólo en el sector ahora excavado, ya que se hacía extensible al resto de sondeos abiertos en este yacimiento durante la valoración arqueológica. Estaba compuesto por tierra orgánica, poco compactada, con restos de material vegetal, sobre todo raíces, lo que le proporcionaba ese color negro. En los bordes se iba difuminando, diluyéndose incluso en el propio sustrato geológico arcilloso. Su grosor, en la zona central, de mayor intensidad, no superaba los 25 cm. En definitiva, se trataba de un sedimento creado por un proceso natural, la descomposición de materia orgánica, que se habría concentrado en un punto determinado del subsuelo cuya pendiente es menos acusada, tras un arrastre natural o como consecuencia de las labores agrícolas.

En lo que se refiere al llamado sondeo 3, se amplió en 74, 25 m^2 y únicamente tres fueron las unidades estratigráficas documentadas durante la ampliación de este sondeo, coincidentes con lo que ya vimos durante la valoración del yacimiento: la capa de tierra superficial que cubría tanto al nivel rojizo de textura arcillosa, limpio y uniforme, ya sobre el estrato natural, como al nivel de arcillas que presentaba un tono más oscuro y coloraciones negruzcas por la presencia de carbones, conteniendo fragmentos cerámicos. No se puede decir que estas dos últimas fueran dos UU.EE. diferenciadas, de hecho, sólo se han distinguido por los restos de carbones, diferencias cromáticas y el material arqueológico que contenía esta última. La presencia de carbones y tonalidades diferenciadas del resto del estrato rojizo, así como los fragmentos cerámicos recogidos evidencian que esta zona ha servido como superficie de uso, la cual se habría extendido posteriormente como consecuencia de las labores agrícolas. Seguramente no se trataría de una solera de tipo permanente, ya que no se han hallado signos de la existencia de un empedrado o restos de placas de arcilla endurecida, ni siquiera dispersos. La presencia de piedras de mayor tamaño, principalmente en el lado sur del sondeo no eran por sí solas evidencias de un antiguo muro, no solo ya por su falta de conexión, sino también por la ausencia en el terreno de marcas que sugieran la existencia de rozas o zanjas de cimentación. No podemos descartar que los hubiera en algún momento, de hecho, hay un morcuero en las inmediaciones, entre la vegetación de la terraza más cercana, pero es algo que también encontramos en el resto de aterrazamientos en esta finca, la cual en la parte alta se caracteriza por la escasa presencia de piedras en superficie.

Jasotako material arkeologikoari dagokionez, suharriaren lanketatik etorritako hondakin bakar bat identifikatu dugu, baina zundaketaren testuinguru orokorra kontuan hartuta, ezin esan dezakegu historiaurrean erabili zenik. Bestalde, zeramika beiratuzko bi ontziri dagozkien beste hainbeste zati aurkitu ditugu, kronologikoki Behe Erdi Arokoak/Aro Modernokoak; eta tornuan landutako berrogeita hamarren bat zeramika zati, estaldurarik gabeak, txikiak eta higatuak, asko eta asko ontzi bakar bati dagozkiolarik. Hau da, egindako aurkikuntzen arabera, egonleku txiki baten aurrean gaude, ez zen egonkorra izango, Erdi Aroan erabiliko zuten eta ez zuen jarraipena izango denboran.

20. zenbakiko BAG: «La Higarra etxolaren hondoa»

Lacorzanaren iparraldera gutxi gorabehera 600 m-ra dago aztarnategia, meseta formako muino txiki baten gainean, topografikoki Santa Maria muinoaren jarraipenean, A-68 autobidearen eraikuntzak eragindako ebakiak artifizialki bereizten dituelarik bi muino horiek. 1988an aurkitu zuen Félix Murgak, eta lur eremuan bi orban zeudela azaldu zuen, orban horien barrutik eskuz landutako zeramikazko edalontzien ertzak, hondoak eta paretak bildu zituela, gehienak pareta lisoekin, baina baziren baita ziztaden bidezko dekorazioekin apaindutakoak ere. Gainera, *sigillata* moldeko zeramika zati bat eta karrakagailuak, marruskak, printza ukituak, dentikulatuak eta suharriaren lanketatik etorritako hondakinak bildu zituen. Bestalde, leundutakoen artean, aizkorak eta ofitan landutako aizkora zatiak aurkitu zituen. Bere garaian Kalkolito-Brontze Aroan kokatutako kronologia eman zitzaion aztarnategiari. Baina 2006tan eta 2014an egindako miaketetan eta egungo balorazioaren harira egindakoan jada ez dira kolore aldaketak bereizten laborantza lurretan, eta berreskuratutako material arkeologikoa kronologia askotakoa da, baita aro garaikidekoa ere.

Hemen bost zundaketa egin ziren, eta lortutako emaitzei dagokienez, aztarnategiaren mendebaldea eta erdialdea eta ekialdea, garaiagoa, bereizi behar dira. Lehen bietan, estratigrafiari dagokionez, oro har, kolore grisaxkako laborantza lurrek hartzen zuten azaleko maila; lur horiek klastoak eta tamaina askotako harri koskorrak zituzten, eta mugatutako eremuaren iparraldean 30-40 cm lodi zen, baina loditu egiten zen hegoaldera egin ahala, 1,30 m-ko lodiera iritsi arte. Gainera, sakondu ahala geruza ilundu egiten zen. Horren arrazoia ez zen bakarrik lur eremuaren pendiza, alde horretara makurtzen baitzen, baizik eta ibar gune bat izatea, eta gainerakoa baino kota baxuagoan egotea; izan ere, berezko lerraduraren ondorioz, sedimentu edo jalkin gehiago biltzen dira alde horretan. Baina lursailaren eremu goienean irekitako zangetan azaleko lur maila hori ez zen 40 cm-ko lodierara iristen, eta klasto eta bolumen ezberdineko harri koskor gehiago zituen. Zundaketa guztietangeruza bakar horrek estaltzen zuen estratu naturala har-txintxarrek, arroka azaleratzeek eta ehundura plastikoko buztin horiko guneek osatzen zuten. Bildutako material arkeologikoari dagokionez, soilik Balizko Arkeologia Gunearen mendebaldean eta alde beherenean irekitako 1. eta 2. zundaketetan aurkitu genituen eskuz landutako zeramika zati txiki batzuk, Brontze/Burdin Aroan kokatu daitezkeenak, baina baita tornuan landutako zatiak, Erdi Arokoak eta Aro Modernokoak, suharri puskak eta teila

Respecto al material arqueológico recogido, únicamente consignamos la presencia de un resto de talla de sílex, que por el contexto general del sondeo no podemos afirmar que sea de uso prehistórico; dos fragmentos de sendos recipientes cerámicos vidriados, de cronología bajo medieval/moderna; y alrededor de medio centenar de fragmentos cerámicos a torno sin revestir, pequeños y rodados, muchos de ellos pertenecientes a un solo recipiente. Es decir, que por el tipo de hallazgos, nos encontraríamos ante un pequeño lugar de habitación que no podemos considerar estable, usado durante la Edad Media y de escasa continuidad en el tiempo

ZPA nº 20: «Fondo de cabaña de La Higarra»

El yacimiento se encuentra a unos 600 m al norte de Lacorzana, sobre un pequeño cerro amesetado, topográficamente continuación del de Santa Marina, del que queda separado por el oeste artificialmente por el corte producido por la construcción de la autopista A-68. Fue descubierto en el año 1988 por Félix Murga, quien señaló la presencia de dos manchas sobre el terreno, en cuyo interior se recogieron bordes, fondos y paredes de vasos de cerámica manufacturada, la mayoría de paredes lisas, pero con presencia de decoraciones incisas, además apareció un fragmento de cerámica *sigillata* y raspadores, raederas, lascas retocadas, denticulados y restos de talla en sílex. En pulimento se recogieron hachas y fragmentos de hacha en ofita. En su momento se le adjudicó una cronología centrada en el Calcolítico-Edad del Bronce. Tanto en sendas prospecciones llevadas a cabo en 2006 y 2014, como en la realizada con motivo de la valoración actual, ya no se apreciaban esos cambios de coloración en la tierra de cultivo, y el escaso material arqueológico recuperado pertenecía a muy diferentes cronologías, incluso de época contemporánea.

Aquí se abrieron cinco sondeos y en cuanto a los resultados obtenidos hay que diferenciar la zona oeste del yacimiento y la parte central y oriental, más alta. En las dos primeras la estratigrafía se componía en líneas generales de un nivel superficial de tierra de cultivo de color grisáceo, con clastos y cantos de diferente tamaño, con una potencia que progresaba de los 30-40 cm al norte del área delimitada hasta alcanzar los 1,30 m en el lado sur, que iba oscureciéndose progresivamente a medida que ganaba profundidad. Ello se debía no sólo a la pendiente del terreno, que buzaba hacia ese lado, sino también a que se trataba de una zona de vaguada y a una cota más baja que el resto que, por deslizamiento natural, recoge más sedimentos. En las zanjas abiertas en la zona más alta de la parcela, sin embargo, este nivel de tierra superficial no superaba los 40 cm de espesor, conteniendo más clastos y cantos de diferente volumetría. En todos los sondeos el estrato natural al que cubría este único nivel existente se componía indistintamente de graveras, afloramientos de roca y zonas de arcillas amarillentas de textura plástica. En cuanto al material arqueológico recogido, sólo en los sondeos 1 y 2, abiertos en la parte occidental y más baja de la Zona de Presunción arqueológica, se hallaron pequeños fragmentos cerámicos fabricados a mano atribuibles a la Edad del Bronce/Hierro, pero también a torno medievales e, incluso, de la Edad Moderna, así como trozos de sílex, localizándose también algunos fragmentos de teja. Es decir, en el caso del Fondo de cabaña de La Hi-

zati batzuk ere. Hau da, La Higarra etxola hondoaren kasuan, Santa Marina herrixkari buruz esandako gauza bera esan behar dugu, hots, aurkikuntza egin zuenak historiaurreko materialak baizik ez zituela jaso, eta ez zituela aintzat hartu aro modernoagoko zatiak.

21. zenbakiko BAG: «El Prado III etxolaren hondoa»

Lacorzanaren mendebaldera gutxi gorabehera 300 m-ra dago aztarnategia, herrira iristeko errepidearen hegoaldeko lursail batean, mendebaldetik A-68 autobideak mugatuta. Beraz, muga ditu ziur aski eraldatuko zuten bi komunikabide horiek. 1988an aurkitu zuen Félix Murgak. Orduan lur iluneko orban bakar bat bereizi zuen, eta lur horretatik eskuz landutako zeramika zatiak, *sigillata* moldeko hamarren bat zeramika zati, suharrian landutako bi aurpegiko bat (leuntzaile gisa berrerabilia) eta aizkora aho leundu bat jaso zituen. Zadorra ibaiaren urek hartu ohi duten ordekan dagoenez, ibaiak herrestan eramaten dituen sedimentuak metatzen diren gunean, materialen nahasketa azaltzen duen tokian, bigarren mailako aztarnategi bat izan zitekeela pentsa zitekeen. 2006an egindako ikusizko beste miaketa batean orban hori identifikatu bazen ere, 2014an egindako miaketa lanetan ez zen halakorik aurkitu, besterik gabe teila zati batzuk aurkitu ziren han-hemenka barreiatuta. Eta hegaldi historikoetako ortoargazkietan ere ez da identifikatzen, eta soilik 1945ekoan, lursail kontzentrazioa egin aurretik, gune ilunago bat bereizten da, laukizuzen formakoa, lursail berezitua zelako. Behin lursailak kontzentratu ondoren, baliteke laborantza lanek kolore ilunagoko orban hori zabaldu eta lausotu izana.

Bi zundaketa egin genituen Balizko Arkeologia Gunearen iparraldean, energia parke fotovoltaikoaren eraikuntza lanek eragingo zuten aldean. Lursail horretako azaleko maila laborantza lur marroiek osatzen zuten, klasto askorekin eta bolumen askotako errekarriekin, alubioi sedimentuez osatutako lursaila delako. Hartxintxarrek eratzen dute substratu geologikoa. Hartxintxar geruza horien goiko aldea gorrixka zen, baina sakondu ahala kolore zurixka hartzen zuen. Nabarmendu beharreko gauza bakarra 55 cm-ko diametroa eta 13 cm-ko sakonera zuen kubeta baten aurkikuntza izan zen; estratu naturalean zegoen, trinkotasun maila txikiko harea okreez beteta zegoen, izaera antropikoko elementurik gabe, ezta ikatzik ere ez. Segur aski sakonagoa izango zen bere garaian gainazaletik induskatu zelako, baina nekazaritzako makineriak desagerrarazi egingo zuen laborantza lurren azaleko mailan izango zuen etena. Aztarnategihonetan ere, kronologia desberdinetako zeramika zatiak, teila zatiak eta burdinazko iltze bat aurkitu genituen, baina suharrizko zati txiki bat baizik ez.

22. zenbakiko BAG: «El Prado II suharri tailerra»

Hurtado de Mendozatarren dorretik hegoaldera metro gutxi batzuetara dago aztarnategi hau. Bertan, 1988an, Félix Murgak lur iluneko orban lauso bat aurkitu zuen, eta suharrian landutako harrizko hondakin batzuk jaso zituen. Aldi baterako kanpalekua izan zitekeela ondorioztatu zen, ibai ondoan kokatua, tresnak lantzeko edo inguruko azaleratze naturaletatik jasotako harrizko lehengaiaren garraioa prestatzeko. Ordu hartan Goi Pagarra debemos decir lo mismo que respecto al Poblado de Santa Marina, su descubridor recogería en la prospección sólo los materiales prehistóricos, no haciendo referencia tampoco a la existencia de fragmentos de épocas más modernas.

ZPA nº 21: «Fondo de cabaña de El Prado III»

Yacimiento que se encuentra a unos 300 m al oeste de Lacorzana, en una finca situada al sur de la carretera de acceso al pueblo y limitada al oeste por la autopista A-68, lindando con ambas vías de comunicación que muy probablemente lo alteraron. Fue descubierto en el año 1988 por Félix Murga. Entonces se observó una única mancha de tierra oscura en cuyo interior se recogieron fragmentos cerámicos manufacturados, una decena de restos de cerámica *sigillata*, un bifaz en sílex reutilizado como alisador y un filo de hacha pulimentada. Su ubicación en la llanura de inundación del río Zadorra hacía pensar que podría tratarse de un yacimiento secundario, en una zona de acumulación de sedimentos arrastrados por el río, lo que explicaría la mezcolanza de materiales. Pese a que en 2006 se reconoció esta mancha durante una nueva prospección visual, durante la llevada a cabo en 2014 no se localizó, encontrándose sólo algunos fragmentos aislados de teja. Tampoco en las ortofotos de los vuelos históricos se reconoce y sólo en la del año 1945, antes de la concentración parcelaria, se advierte una zona más oscura, con forma rectangular por tratarse de una parcela diferenciada. Es posible que las labores de labranza, una vez unificadas las parcelas con la concentración parcelaria hayan extendido y difuminado esta mancha de coloración más oscura.

Se excavaron dos sondeos en la parte norte de la Z.P.A., la afectada por las obras de construcción del parque de energía fotovoltaica. El nivel superficial de esta finca se componía de tierra de cultivo de color marrón con gran cantidad de clastos y de cantos rodados de diferente volumetría al tratarse de un terreno de sedimentación aluvial cuyo sustrato geológico se compone de graveras. Éstas, si inicialmente presentaban una coloración rojiza, a medida que se iba profundizando adquirían una coloración blanquecina. El único aspecto a resaltar fue el hallazgo de una cubeta de 55 cm de diámetro y 13 de profundidad en el estrato natural, rellena únicamente por arenas de color ocre de escasa compactación, sin ningún tipo de elemento de carácter antrópico o, incluso, carbones. Muy posiblemente fue más profunda al haberse excavado desde la superficie, pero el paso de la maquinaria agrícola habría eliminado la discontinuidad que presentaría en el nivel superficial de tierra de cultivo. Nuevamente, se localizaron fragmentos cerámicos de diferentes cronologías, de teja y un clavo de hierro, pero sólo un pequeño trozo de sílex.

ZPA nº 22: «Taller de sílex de El Prado II»

El yacimiento se ubica a pocos metros de la torre de los Hurtado de Mendoza por su lado sur donde, en 1988, Félix Murga descubrió una mancha de tierra oscura muy tenue en la que recogió restos líticos en sílex. Se concluyó que podría tratarse de un campamento temporal asentado en la zona aluvial con el objeto de elaborar útiles o preparar para el transporte la materia prima lítica recogida en los afloramientos naturales cer-

leolitoan datatu zen aztarnategia, geroagokoa izan zitekeela baztertu gabe, bereziki Epipaleolitokoa.

Aztarnategi honetan zundaketa bakar bat egin genuen parke fotovoltaikoaren eraikuntzak ukituko zuen aldean. Aurrekoaren antzeko estratigrafia zuen, eta indusketa lanetan askotariko material arkeologikoa jaso genuen, batez ere zeramikazko zatiak, batzuk eskuz landuak, baina, batik bat, tornuan landutakoak, Erdi Arokoak. Halaber, hainbat nodulu eta suharriaren lanketatik etorritako hondakinak jaso genituen, baina askoz ere gutxiago. Bestalde, faunaren hezur hondakinak eta teila zatiak identifikatu genituen. «El Prado II suharri tailerra» miaketetan zehar gainazalean bildutako material arkeologikoaren bilketa bereizi gabeari buruz esaten ari garenarekiko paradigmatikoena da, baina, halere, selektiboa. Aztarnategi hau suharri tailer gisa dago katalogatuta, proportzioz askoz ere gehiago direnean kronologia askotako zeramika zatiak. Eta horiek, beste aztarna batzuekin (horma egiturak edo egitura negatiboak) edo kolore desberdineko orbanekin lotzen ez diren arren, Lacorzanako herriarekin lotu behar dira Goi Erdi Aroaz geroztik, orduan aipatzen baita herria iturri idatzietan.

24. BAG: «La Calera giza egonlekua»

Lacorzanako herritik iparraldera gutxi gorabehera 650 m-ra dago aztarnategi hau. Santa Marina Gainaren hegoaldeko ezpondaren oinetan dago, behe ibar txiki baten isurialdean eta ekialdetik mendebaldera Zadorra ibairantz egiten duen errekak mugatuta. 1988an aurkitu zuen Félix Murgak. Lur iluneko orban aski lausotu bat ikusi zuen gaur egun bideratuta dagoen errekasto baten paraleloan, eta orban horretan material arkeologikoa biltzen zen. Eskuz landutako zeamika zatiak jaso zituen, gehienak dekoratu gabeak, baina tartean bazeuden ziztadez eta kordoiez apaindutakoak ere. Suharrizko printzak eta suharriaren lanketatik etorritako hondakinak ere jaso zituen. Aztarnategiaren kronologia zehaztu gabe dagoen arren, zeramiketako dekorazioak eta zeramikek aztarnategiko elementuetan zuten proportzio handia kontuan harturik, Brontze Aroaren une aurreratu bateko etxola sorta batek osatutako giza egonleku bat zela proposatu zen une hartan.

Bost zundaketa egin genituen aztarnategi honetan, eta bereizgarriena ez zen estratigrafia, oso bakuna eta oro har oso antzekoa zena zundaketa guztietan, baizik eta laborantza lurraren gainazaleko geruzaren lodieran gertatzen ziren aldeak, aztarnategia hartzen duen pendizak dituen desnibelen ondorioz. Kolorez grisaxka iluna zen, ehunduraz limotsua eta buztintsua, tarteka klastoak eta harri isolatuak, angelutsuak, txikiak. Baina balizko arkeologia gunearen ipar-ekialdean 40 cm-ko lodierara iristen ez zen bitartean, 90 cm lodi zen beste muturrean. Hego-mendebaldean batez beste 50 cm lodi zen, eta erdialdean eta hego-ekialdean 30 eta 60 cm bitarte lodi. Estratu naturala batez ere buztin plastikoek eratzen zuten, kolore askotakoak, batez ere horiak, zurixkak, okreak eta grisaxkak, tarteka arroka batzuk azaleratzen zirela. 5. zundaketan buztin gogortuarekin egindako labeko parrila baten hondakinak bereizi genituen, jatorrizko testuingurutik kanpo, isolatuta, estratu naturalaren gainean. Eta inguruan ez zen beroak eragindako gune gorrien arrastorik nabaritzen. Baina 2. zundaketan tarteko geruza bat identifikatu gecanos y se dató en el Paleolítico Superior sin descartar momentos posteriores, en especial del Epipaleolítico.

Ur deposituaren ondoan antolatutako eremu logistikoan lur mugimenduak txikiak izango ziren, azaleko mugimenduak izango ziren etxolak eta beste elementu batzuk finkatzeko, eta beraz, landare geruzaren goiko zatian baizik ez zuten eragingo. Burura eramandako indusketa sakonena ezpondan egindako 70 cm-ko ebaki bat izan zen; bertan bakarrik harri txikien metaketa bat ikusi genuen, harriak angelutsuak, eta ez zuten egituraren baten zati bat osatzen, lur eremuari berari zegozkion. Zorupean puntu bakar batean ere ez genuen aztarnategiarekin lotu zitekeen aztarnarik detektatu. Eta materiala metatzeko prestatu zen eremuan ere ez; eremu horretan batez ere iparraldean jardungo zen, baina soilik gainazaleko landare geruzari eragingo zitzaion, horixe baitzen, jada miaketa lanetan ikusi ahal izan genuen bezala, arroka naturala estaltzen zuen maila bakarra. Obrak amaituta, berrerabili egin zen metatutako materialaren zati handi bat, baina ez zen lur guztia jaso, eta ondorioz, eremu hori apur bat goratuta geratu zen obrak egin aurretik zuen egoerarekin alderatuta. Eta azkenik, abandonatutako harrobiaren gain-azalean zeuden arrokak jaso ziren meatzera iristeko bidean lubeta bat eraikitzeko. Erabilitako harri horiek lehendik zeuden arroka naturaletik askatuta, ez zen ondare elementu bakar bat ere ukitu eta ez zen paisaia nabarmen aldatu, begi hutsez nabaritu zitezkeen aldaketa bakarrak mugitutako harrien kolore aldaketak baitziren.

Mina Lucia meategira iristeko bidea eraikitzeko obren gaineko jarraipen arkeologikoak aurreneko lur erauzketetan izan zuen abiapuntua, bereziki bideko ezpondan, izan ere, makineria igaro ahal izateko moduan zabaldu behar izan zen bidea. Bidearen hegoaldeko tartearen hasieran iritsi zen estratu naturala, kolorez horixka eta ehunduraz hareatsua, baina oso trinkoa, harri amatik etorritako harri batzuekin. 30-40 cm bitarte lodi zen landare lurraren azpian agertzen zen, tartean bestelako betegarririk ez zuela. Iparralderago, puntu batzuetan estratu naturaleraino iritsi zen bidearen barruko aldean, eta beste puntu batzuetan soilik landare lurrezko geruzaren goiko azala ukitu zen, batez beste 50 cm-ko sakonera baizik ez baitzen iritsi. Meatze ahoaren inguruan soilik landareak erauzi ziren, alde horretan ez zen lur mugimendurik egin. Hurrengo eguvada en el sondeo 1, también de coloración amarillenta, pero de textura no tan fina, conteniendo fragmentos de la propia roca arenisca desgajados de ésta y algunas pequeñas intrusiones calizas.

El tercer sondeo se excavó en el lugar donde se iba a construir el C.T. Intemperie, que necesitaba una cimentación de 55 cm de profundidad, y donde *a priori* el terreno no estaba alterado, al contrario que en el camino. Las medidas en planta fueron de 3,50 x 3,20 m de lado, superando incluso las medidas de la propia estructura a construir. El nivel superficial también era el compuesto por la capa de tierra orgánica que daba soporte a la cobertura vegetal, de textura arenosa pero granulosa, más limpia que en los sondeos anteriores y con menos piedras, estas de diverso tamaño y formas angulosas. Su potencia iba de poco más de 1 m a casi los 30 cm debido a la pendiente del terreno. Cubría directamente al estrato natural, de textura arenosa aunque muy compactado, de color amarillento con vetas más oscuras y algunas piedras areniscas desgajadas de la propia roca natural.

Control arqueológico de las obras

En la zona logística implantada junto al depósito de aguas los movimientos de tierra se limitaron a rebajes poco profundos para asentar las casetas y otros elementos, afectando a la parte superior de la tierra vegetal. La excavación máxima realizada consistió en un corte de 70 cm de profundidad en un talud, observándose únicamente una acumulación de piedras de pequeño tamaño, angulosas, que no formaban parte de estructura alguna, sino del propio terreno. En ningún momento se advirtieron en el subsuelo evidencias que pudieran relacionarse con el yacimiento. Tampoco en el lugar en el que se habilitó la zona de acopio, donde la mayor incidencia fue en la parte norte y este, afectando únicamente a la tierra vegetal superficial, ya que este era único nivel que cubría a la roca natural, circunstancia que ya se observó durante la prospección. Terminadas las obras, buena parte el material acumulado fue reaprovechado, aunque no llegándose a recoger toda la tierra, quedando la zona algo sobreelevada respecto a su estado previo. Y finalmente, sí se procedió a recoger rocas de la cantera en superficie abandonada, para construir una escollera en el camino de acceso a la mina. Las piedras utilizadas estaban ya desgajadas de la roca natural y no se afectó a ningún elemento patrimonial ni se alteró el paisaje de forma notable, advirtiéndose cambios a simple vista sólo por la coloración de las piedras removidas.

El seguimiento arqueológico de las obras de construcción del camino de acceso a la Mina Lucía se inició desde los primeros desmontes, que se centraron principalmente en el talud del camino, que se ensanchó lo justo para el paso de la maquinaria. Al inicio del tramo sur del camino se alcanzó el estrato natural, de color amarillento y textura arenosa, aunque muy compactada, con algunas piedras procedentes de la roca madre. Se hallaba bajo unos 30-40 de tierra vegetal, sin ningún otro tipo de relleno intermedio. Más hacia el norte se alternaban puntos en los que también se llegó el estrato natural en el lado interior del camino con otros en los que sólo se afectó a la capa superficial de tierra vegetal, al haber alcanzado únicamente a una media de 50 cm de profundidad. En el entorno de la bocamina solo se llegó a desbrozar la vegetación, sin haber realizado movimientos de tierra. En días

netan gehiago sakondu zen eremuan, eta bidearen hegoaldean ia behin betiko kaxaren kotara iritsi zen. Tarte horretan, barruko ezpondan, 1,00-1,10 m-ko sakonera iritsi zen, kolore iluneko landare lurraren maila bereizten zen harrizko substratuaren gainean. Harrizko substratu horrek bere jatorri geologikoak uzten zituen agerian: hareharrizko harri ama, aurreko hareharri birrindua, kolore horixkakoa, eta kolore grisaxkako asfaltozko arrokaren lehen ebidentziak. Lehen tarteko puntu bakar batean ere ez genuen elementu arkeologikorik aurkitu.

Bide historikoaren iparraldeko tarteari dagokionez, kaxarako behar zen obra kotaraino iritsi zirenean, nabarmen sakontzen hasi ziren barruko aldapan, metrotik gora sakondu zuten. Landare lurrezko gainazaleko geruzaren azpian ezaugarri askotako estratigrafia uzten zuten agerian ezpondek, granulometria handiko legar marroi apurkorrak, harri amaren beraren zainak eta asfaltozko arroka estratuak, ehunduraz askotarikoak eta kolorez grisaxkak, azken horiek meatze ahotik hurbil. Meatze ahoaren inguruan 40 cm bitarteko sakoneran beheratu zuten, eta alde hori berdintzeko meategitik etorritako zabor geruza bat zela ikusi ahal izan genuen. Bide historikoaren iparraldeko tarte horretan ere ez genuen inolako aztarna arkeologikorik identifikatu.

Behin meatzera iristeko bide osoan obra kotaraino iritsi zirenean hasi ziren meategiko larrialdietarako galeriako ahoa induskatzeko lanak. Aho hori lurpean irekiko zen oso-osorik, eta beraz, lanek toki horretan, bide ondoko lur eremuaren aldapan, izango zuten eragin handiena. Nolanahi ere, lur eremuaren topografiak berak eta bidearen gainerakoan ikusitako aurrekariek ez zuten iradokitzen aurreikuspen arkeologikoak positiboak izango zirenik. Aldapan bideratutako indusketak gutxi gorabehera 2 m hartu zituen barruko aldera, eta 6 m zabal eta 3 m-tik gora sakon izan zen. Bidean zehar dokumentatu genuen bezala, landare lurra oso soltea zen, marroia, 10 cm lodi zen ezpondaren goiko aldean eta gutxi gorabehera 40 cm lodi alde beherenean. Ehundura hareatsuko estratu natural horixkaren eta haren gainean hegoaldetik iparraldera makurtzen zen asfaltozko arroka gris ilunaren gainean hartzen zuen atseden. Meatzera iristeko bidearen beste zati batzuetan ikusi genuen bezala, ehundura trinkotuagoak eta ilunagoak ere bazituen, legarrez osatutako beste egitura argiago batzuekin txandakatuz, baita azpiko estratua tindatzen zuten beste material plastikoago batzuekin ere, bere tonalitate horixka ilunduz. Aurreikusi bezala, lur mugimenduak handi samarrak izan baziren ere, ez genuen «Alto del Fraile herrixka gotortua» aztarnategiari legokiokeen elementu bakar bat ere aurkitu.

Lan horiek amaitu ondoren, zabor legarrezko geruza bat zabaldu zuten bide historiko osoan barrena, eta horrenbestez amaitutzat eman ziren meategiaren kanpoko lur mugimendu edo erauzketa guztiak, argindar eroaleei leku egiteko induskatu beharreko erretenak alde batera utzirik. Erreten horiek bidearen erdialdean irekitzeko erabakia hartu zen, eta ez hasieran aurreikusi bezala, bidearen paraleloan. Azkenik, hartxintxarrezko geruza bat zabaldu zuten gainazalean, eta jarraian zabor legarrezko geruzaren gainean zanpatu zuten. Gainera, sare bat ipini zuten bideko ezpondan, lur jauziak bidera irits ez zitezen. Hartxintxarrezko geruzaren gainean zulo batzuk egin zituzten etorkizuneko eskudeleko paldoak jartzeko, baina ez zuten lur mugimendurik egin behar izan. Eta meatze

posteriores ya se incidió más en el terreno, alcanzándose la cota de cajeado prácticamente definitiva al sur del camino. En este tramo se alcanzó una profundidad de 1,00-1,10 m en el talud interior, apreciándose el nivel de tierra vegetal de coloración oscura sobre un sustrato rocoso que ya evidenciaba los diferentes orígenes geológicos de éste, desde la roca madre de naturaleza arenisca, a la arenisca pulverizada de tonalidades amarillentas que le precede y las primeras evidencias de la roca asfáltica de color grisáceo. En ningún punto de este primer tramo se hallaron elementos de carácter arqueológico.

En lo que se refiere al tramo norte del camino histórico, cuando se alcanzó la cota de obra necesaria para el cajeado, se incidió ya de manera notable en la pendiente interior, sobrepasando ya el metro. Los taludes dejaban ver una estratigrafía de características variadas bajo la capa superficial de tierra vegetal, desde gravas de gran granulometría fácilmente disgregables de color marrón, a vetas de la propia roca madre y estratos de roca asfáltica de diversas texturas y coloraciones grisáceas, estos ya cerca de la bocamina. En el entorno de esta se rebajó hasta los 40 cm de profundidad en planta, advirtiéndose que se trataba de un relleno de escombro procedente de la explotación minera para aterrazar este espacio. Tampoco en todo este tramo norte del camino histórico se localizaron evidencias arqueológicas de ningún tipo.

Alcanzada la cota de obra en todo el camino de acceso a la mina, se iniciaron los trabajos de excavación del emboquille de la galería de emergencia de la mina, que iba a ser en su totalidad subterránea. Era el lugar en el que los trabajos sobre la pendiente del terreno junto al camino iban a tener un mayor alcance. De todos modos, la propia topografía del terreno y los antecedentes vistos en el resto del recorrido no auguraban que las perspectivas arqueológicas fueran positivas. La excavación en la pendiente fue de aproximadamente 2 m hacia el interior por unos 6 m de anchura y una altura que superó los 3 m. A igual de lo que habíamos estado documentando a lo largo del camino, la tierra vegetal, muy suelta, de color marrón, tenía una potencia de ente 10 cm en la parte alta y unos 40 cm en la parte más baja del talud. Asentaba tanto en el estrato natural amarillento de textura arenosa como en la roca asfáltica, de color gris oscuro, buzando sobre la anterior de sur a norte. Presentaba también, como lo habíamos observado en otras partes del recorrido a la mina, texturas más compactadas y oscuras alternando con otras más claras compuestas de gravas, además de otras más plásticas que teñían al estrato subyacente oscureciendo su tonalidad amarillenta. Como era de esperar, pese a que el movimiento de tierra fue considerable, no se halló ningún elemento propio del «Poblado fortificado del Alto del Fraile».

Ya concluidas estas labores se procedió a extender una capa de *todo uno* por todo el camino histórico, dando por concluido ya cualquier tipo de movimiento de tierra o desmonte en el exterior, a excepción de la excavación de zanjas para las conducciones de electricidad, que se decidió fueran por el centro y no por una zanja paralela como se preveía inicialmente. El último paso fue la extensión de la capa superficial de gravilla, posteriormente apisonada, sobre el *todo uno* y la colocación de una red en el talud del camino para evitar desprendimientos sobre éste. Fue sobre la capa de gravilla sobre la que se taladró para poner los postes de la futura barandilla, por lo que no se realizaron nuevos movimientos de tierra. Tampoco para recrear un descargadero junto a la bocamina, con fi-

aho ondoko deskargalekua ingurutik jasotako harrizko plataforma baten gainean eta helburu didaktikoekin birsortzeko lanek ere ez zuten lur mugimendurik eskatu.

Mina Lucia meatzearen barrunbeari dagokionez, barruan lan egiteko tamaina egokia zuen makina elektriko baten laguntzarekin, sarrerako galeriako zorua beheratzen hasi ziren bidean topatzen zituzten zurezko trebesak berreskuratuz. Hasiera batean 50 eta 60 cm bitartean sakondu zuten, eta errailei eusten zien legarrezko ohea altxatu zuten, meategia induskatu zutenean bere gordinean zabaldu zutena. Arroka soilik korridorea berdintzeko pikatu zuten, bereziki ertzak, kaxa antolatzeko. Lehengaia kargatzeko gunera heldu zirenean 30 cm-koa baizik ez zen iritsitako sakonera. Bitartean, beharrezkoa zen guneetan, meategiko sabaia saneatu zuten bertan zeuden altxatuak ez zitezen behera etorri.

Lehengaia erauzteko aretora iritsirik eta behin bagoneten korridore osoa induskatu ondoren pasabidea antolatzeko, espazio horretatik atera egin ziren museoaren proiektuari begira interesgarriak ez ziren material pilaketak, eta espazio zabal garbiak utzi ziren, nahiz eta puntu jakin batzuetan material pilaketa horietako batzuk bertan utziko ziren helburu didaktikoekin. Prozesu horretan lehengaia erauzteko jardueraren berezko elementu batzuk berreskuratu ziren, eta gorde egin ziren museoaren helburuetarako baliagarriak izan zitezkeelakoan. Erauzketa aretoan ere hormak eta sabaiak saneatu ziren behar ziren puntuetan. Une oro errespetatu ziren kontserbatu beharreko tokiak, exudazio guneak eta, nola ez, *arrastoen eremua* deitutakoa. Jarraian, erreten batzuk induskatu ziren eskuz instalazio elektrikoari leku egiteko. Plastikozko bi hodi malgu sartzeko beharrezkoa zen zabaleran eta sakoneran baizik ez ziren zulatu erreten horiek. Hodiak jarrita, ateratako material berarekin bete ziren erreten guztiak. Era berean, kargalekuko horma berreraiki zen 90 cm-ko altuerarekin eta gutxi gorabehera 3,50 m-ko luzerarekin, jatorrizkoak izango zituen neurri berberekin, harlangaitzekin eta jatorrizko hormatik beretik etorritako harriekin, azken horiek ere meatzearen barrunbetik jasotakoak zirela.

Meatzearen barrunbean egindako lanen azalpena amaitzeko, esan dezagun lehengaia erauzteko aretora iristeko korridorea segurtatzeko, Gauzatze Proiektuan aurreikusita zegoen bezala, zurezko hiru piezaz osatutako lauki zuzenen bidez zurkaiztu zen, hiru pieza horietatik bi apur bat inklinaturik eta bestea horizontalean, batetik bestera tarte erregularrak utzirik. Sarrerako galeria eta erauzteko aretoko lehen tartea alderdik alde igarotzen zituzten errailen eta trebesen zurezko erreplika bat jartzen amaitu ziren lanak. Erreplika hori bere garaian induskatutako igarobidea betetzen zuen lurrezko betegarri trinkotuaren gainean egokitu zen.

Esku hartze arkeologikoaren emaitzak

«Mina Luciaren erabilera publikoko eta ekoturistikorako segurtasun, finkatze eta egokitzeko» obren gaineko kontrol arkeologikoaren emaitzak negatiboak izan dira, lehendik egindako balorazio zundaketekin gertatu zen bezalaxe. Arraia-Maeztu udalerriko 91. zenbakiko Balizko Arkeologia Guneaz ari gara, «*Alto del Fraile herrixka*» delakoaz, eta ez *Mina Lucia* meatzearen barrunbeaz, hor jarraipen lanen xedea obrek balizko elementu arkeologikoetan izan zezaketen eragina gutxienera eramatea baino prozesua dokumentatzea baitzen, kanpoan bideratutako esku hartzea osatuz, banes didácticos, sobre una plataforma de piedras recogidas del entorno.

Ya en lo referente al interior de la Mina Lucía, con ayuda de una máquina eléctrica con las dimensiones justas para trabajar en el interior, se fue rebajando el suelo de la galería de entrada, previa recuperación de las traviesas que se iban encontrando a su paso. La profundidad alcanzada inicialmente era de entre 50 y 60 cm retirando la cama de grava sobre la que apoyaban los raíles, que se extendió en bruto al excavarse la mina. El picado de la roca se limitó a la regularización del pasillo, principalmente en los bordes, para el cajeado. Al llegar a la zona del cargadero la profundidad alcanzada sólo era de 30 cm. Mientras, en los puntos en los que era necesario, se iba saneando el techo de la mina para evitar desprendimientos de los desconchados existentes.

Alcanzada la sala de extracción y excavado ya en su totalidad el pasillo de vagonetas para hacer el cajeo, se fue vaciando todo este espacio de los acopios de material prescindibles de cara a la musealización, dejando amplios espacios expeditos y algunos puntos en los que el acopio se iba a conservar con fines divulgativos. En el proceso se iban recuperando algunos elementos propios de la actividad extractiva, que se fueron guardando por si fueran de utilidad con fines museísticos. También en la sala de extracción se fue procediendo al saneamiento de las paredes y techos en los puntos en los que era necesario. En todo momento se respetaron los lugares que debían ser conservados, como las exudaciones y, lógicamente, la llamada *zona de huellas*. Después se procedió a la excavación manual de diversas zanjas para la instalación eléctrica. Su incidencia en el subsuelo se limitó a la anchura y profundidad necesaria para la introducción de sendos tubos de plástico corrugado. Todo ello después rellenado por el propio material extraído. También se reconstruyó el muro del cargadero, con una altura definitiva de 90 cm y una longitud de unos 3,50 m, como el original, con fábrica de mampostería y piedras procedentes del propio muro y también recogidas del interior de la mina.

Ya para finalizar la exposición de los trabajos desarrollados en el interior de la mina, decir que para asegurar el pasillo de entrada a la sala de extracción se colocó, tal y como estaba previsto en el Proyecto de Ejecución, una entibación a base de cuadros rectos compuestos de tres piezas de madera, dos ligeramente inclinados y uno horizontal, dispuestos a distancias regulares. Se terminó con la colocación de una réplica en madera de los raíles y traviesas que recorrían la galería de entrada y el primer tramo de la sala de extracción. Esta réplica se puso sobre un relleno de tierra prensada que colmataba el cajeado excavado en su momento.

Resultados de la intervención arqueológica

El control arqueológico de las obras de «Puesta en Seguridad, consolidación y acondicionamiento para el uso público y ecoturístico de la Mina Lucía» se ha saldado con resultados negativos, como ya resultó con los sondeos de valoración excavados previamente. Hablamos lógicamente de la Zona de Presunción Arqueológica nº 91 del municipio de Arraia-Maeztu; «Poblado del Alto del Fraile» y no del interior de la *Mina Lucía*, donde el seguimiento tenía como objetivo, no tanto minimizar el impacto de las obras sobre posibles elementos arqueológicos, como documentar el proceso comple-

tak zein besteak meatzeari balioa emateko jarduera bat eta bera osatzen baitute.

Lur mugimendu handienak egin ziren lekuetan, meatzera iristeko bidean, lur eremuak oso ezaugarri desegokiak zituen edozein giza egonleku motarako. Malda handiari gehitu behar zaio mazelaren alde beherenean dagoela, Balizko Arkeologia Gunearen ekialdeko mugaren muturrean. Eta hori gutxi balitz, sarbide hori Mina Lucia meatzera zeraman bide historikoaren gainean eraiki zen, eta beraz, oso nahasita zegoen nola oinean hala alboetako ezpondetan. Izan ere, proiektatutako hiru zundaketa arkeologikoen indusketa lanak amaituta egiaztatu zen estratu naturala lur organikoaren gainazaleko geruzaren azpian azaleratzen zela. Zenbait puntutan ez zen estratu naturala azaleratzen alde horietan lur maila egokitu egin zutelako pendiz handia gainditzeko eta meatze ahora zeraman bide historikoari leku egiteko espazio lautu bat sortzeko. Eta kontrol arkeologikoko lanetan, landare lurrezko gainazaleko geruza altxatu eta berehala, geruza naturalen presentzia egiaztatu genuen, hareharrizko arrokak, hareak eta asfaltozko arrokak. Inon ere ez da itxura arkeologikoko aztarnarik aurkitu, ez kolore desberdineko lur orbanik, ez egitura hondakinik, ez jatorri antropikoko ebakirik; eta material arkeologikorik ere ez.

Beste horrenbeste esan daiteke materiala metatzeko eremua egokitzeko lanen emaitzei buruz. Aurreikuspenen arabera aztertzeko eremu interesgarria izan zitekeen arren, nola aurretiazko miaketa lanetan hala ingurua garbitzeko lanetan egiaztatu zen eremua antzua zela arkeologiaren ikuspegitik. Gainazalean ez genuen material arkeologikorik bat ere ikusi, ezta balizko egituren arrastorik ere, eta arroka eremu horretako hainbat puntutan azaleratzen zela ikus zitekeen. Are gutxiago esan daiteke etxolak jartzeko eremuaren inguruan, lehendik nahasita zeudelako eta lur mugimenduak oso mugatuak izan zirelako.

Mina Lucia meatzeari dagokionez, larrialdietarako irteera antolatzeko indusketa lanak eta barruko espazioa egokitzeko lanak lurpean eraman ziren burura, eta beraz, ez zegoen itxura arkeologikoko aurkikuntzak egiteko aukerarik. Hori bai, bazegoen lehengaia erauzteko jarduerarekin lotutako elementuak aurkitzeko aukera, eta halaxe gertatu zen. Ildo horretan, trebes asko kontserbatzen zirela esan behar dugu, baina errailetatik haien arrastoak baizik ez zirela kontserbatzen. Errailen arteko distantzia 60 cm-koa zen, eta arrastoa 5 eta 8 cm lodi zen eta 2 eta 3 cm bitarte sakon. Trebesen arteko distantzia ez zen erregularra, agian ez zirelako guztiak kontserbatzen. Oro har 0,50 eta 0,60 cm bitartekoa zen trebesen arteko distantzia, baina batzuen artekoa 1 m-koa zen, eta baziren 1,14 eta 1,20 m bitarteko distantzian egokitutakoak ere. Trebes horiek oso egoera txarrean zeuden meatze barruko hezetasun handiaren ondorioz, baina jatorrizko neurriei eutsi zien bat dokumentatu ahal izan genuen: 1,16 m luze bider alde handiaren 16 cm eta alde txikiaren 8 cm. Kaxa prestatu ondoren, sarrerako galeriak 1,20 eta 1,60 m bitarteko zabalera izango zuen zoruaren mailan, gutxi gorabehera 60 cm beheratu zen behin betirako goratu baino lehen eta gainean, alde honetan eta erauzketa aretoaren lehenengo tartean, zurezko trebesen eta errailen erreplika jartzeko.

mentando la intervención en el exterior al formar parte todo ello de una misma actuación de puesta en valor.

Allí donde los movimientos de tierra fueron más acusados, en el camino de acceso a la mina, el terreno presentaba unas características muy poco propicias para cualquier tipo de asentamiento humano. A la acusada pendiente había que sumar que se trataba en la parte más baja de la ladera y en el límite oriental de la delimitación de la Zona de Presunción Arqueológica. Por si fuera poco, este acceso se ha construido sobre el camino histórico que llevaba a la *Mina Lucía*, por lo que el terreno estaba ya alterado en gran medida, tanto en planta como en lo referente a los taludes. En efecto, finalizada la excavación de los tres sondeos arqueológicos proyectados, ya se comprobó que el estrato natural aflora bajo la capa superficial de tierra orgánica. Allí donde no lo hacía era por el acondicionamiento del terreno para salvar la brusca pendiente y crear un espacio aterrazado por el que discurría el camino histórico a la bocamina. Y durante el control arqueológico se constató la presencia de estratos de carácter natural, ya sea roca arenisca como arenas y roca asfáltica, nada más retirar también la capa superficial de tierra vegetal. En ningún momento se han hallado restos de índole arqueológico, ya sean manchas de tierra de color diferenciado, restos de estructuras o cortes de origen antrópico, así como tampoco material arqueológico.

Lo mismo se puede decir del acondicionamiento de la zona de acopio que, aunque en extensión suponía un espacio a analizar potencialmente interesante, tanto durante la prospección previa como con el desbroce se reveló estéril arqueológicamente hablando. No se observó ningún tipo de material arqueológico en superficie, ni restos de posibles estructuras, aflorando la roca en varios puntos de esta zona. Menos aún puede decirse de la zona de implantación de casetas, ya alterada de antemano y donde los movimientos de tierra fueron muy limitados.

En lo referente a la Mina Lucia, tanto la excavación de la salida de emergencia como los trabajos de adecuación del espacio interior, se llevaron a cabo lógicamente bajo la superficie, por lo que las posibilidades de que se produjeran hallazgos de índole arqueológico eran nulas. Únicamente cabía la posibilidad de encontrar elementos relacionados con la actividad extractiva, como así sucedió. En este sentido, decir que, aunque se conservaban numerosas traviesas, de los raíles únicamente quedaban las huellas. La distancia entre los raíles era de 60 cm, teniendo la huella un grosor de ente 5 y 8 cm, con una profundidad de 2 a 3 cm. Las traviesas no guardaban una distancia constante entre ellas, quizás por no conservarse todas. La distancia más común entre traviesas era de 0,50 a 0,60 m, aunque también la había de 1 m y varias de entre 1,14 a 1,20 m. Éstas presentaban un estado de conservación deplorable debido a los altos niveles de humedad dentro de la mina pero se consiguió documentar una que mantenía sus dimensiones originales: 1,16 m de longitud por 16 cm el lado mayor y 8 cm el lado menor. Tras la preparación del cajeado, la galería de entrada quedó con una anchura a nivel de suelo de entre 1,20 y 1,60 m, habiéndose profundizado aproximadamente 60 cm a la espera de su recrecimiento definitivo para la colocación de la réplica en madera de los raíles y traviesas tanto aquí como en el primer tramo de la sala de extracción.

Erauzketa aretoan, kargalekuko hormarainoko beheratze horretaz gain, barruko espazioaren gainerakoan saneatu egin ziren hormak eta sabaiak, material metaketak eta zaborrak atera ziren, eta lehengaia erauzteko jarduerari dagozkion elementu batzuk jaso genituen, erakusgai jar daitezkeenak. Kargalekuko horma dagokion obra bisitan ezarritakoaren arabera berreraiki zen, 0,90 cm garai eta 3,50 m luze, eta eroritako harriak birjarri ziren eta beste atal batzuk meatze barruko metaketetatik harturako harriekin osatu ziren. Une oro errespetatu ziren brea exudazio guneak eta, nola ez, meategiko langileen laneko boten arrasto «fosilduen» gunea, inolako zalantzarik gabe guztietan interesgarriena Mina Lucia meatzea museo bihurtzeko proiektuari begira.

En ésta, aparte del citado rebaje hasta el muro del cargadero, en el resto del espacio interior los trabajos consistieron en el saneado de paredes y techos, retirada de acopios y limpieza de escombro, recogiéndose algunos elementos pertenecientes a la actividad extractiva susceptibles de ser expuestos. El citado muro del cargadero fue reconstruido conforme a lo que se estableció en la visita de obra correspondiente, quedando con una altura de 0,90 m y una longitud de 3,50 m, recolocando las piedras caídas y recomponiendo parte con otras procedentes de los acopios del interior. En todo momento se respetaron los lugares con exudaciones de alquitrán y, por supuesto, la zona de huellas «fosilizadas» de las botas de trabajo de los obreros de la mina, sin duda la más interesante de cara a la musealización de la Mina Lucía.

F.J. Ajamil Baños

A.5. ARTZINIEGA

A.5.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.5.1.1. **Artekale kalea, 11**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: María Jesús Hidalgo Silva

A.5.1.1. **Artekale, 11**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: María Jesús Hidalgo Silva

Monitoring of work carried out to redesign the internal distribution of an entire property located at number 11 Artekale Street, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce or no archaeological interest.

Artekale kaleko 11. zenbakiko eraikinaren barruko banaketa eraldatzeko obren gaineko kontrola. Agortu dira beste ikerketa bat egiteko aukerak oro, emaitzak eskasak edo interes gabeak izan baitira arkeologiaren ikuspegitik.

Control de las obras de reforma de la distribución interna del edificio situado en Artekale, 11, agotando la posibilidad de nueva investigación en este, siendo los resultados del mismo de escaso o nulo interés arqueológico.

F.J. Ajamil Baños

A.5.1.2. **Jasokundeko Andre Mariaren eliza. Gas hargunea parrokiaren lokaletan**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Gasteizko Elizbarrutia / Nortegas Energía Distribución S.A.U.

A.5.1.2. **Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción. Acometida de gas a los locales parroquiales**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Obispado de la Diócesis de Vitoria / Nortegas Energía Distribución S.A.U.

Monitoring of the laying of a new gas pipeline to premises located in the Nuestra Señora de la Asunción Church parish, from the gas connection in Goienkale Street. The results were of little historical-archaeological interest, although the rest of the Zone of Presumed Archaeological Interest has yet to be explored.

Jasokundeko Andre Mariaren Elizaren lokaletan Goienkale kaleko hargunetik abiatuta gas harguneak jartzeko obren gaineko kontrola. Emaitzak eskasak edo interes gabeak izan dira Historiaren eta Arkeologiaren ikuspegitik, baina Balizko Arkeologia Gunearen gainerakoa etorkizunean ebaluatzeko geratzen da.

Control de las obras de acometida de gas a los locales parroquiales de la Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción desde la toma de la calle Goienkale, siendo los resultados del mismo de escaso o nulo interés Histórico-Arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto de la Zona de Presunción Arqueológica.

F.J. Ajamil Baños

A.5.1.3. **Ortiz de Molinillo-Belaskotarren dorretxea**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Artziniegako Udala

A.5.1.3. **Torre de Ortiz de Molinillo y Velasco**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Ayuntamiento de Artziniega

Monitoring of the retrofitting work carried out on the tower's lower ground floor, leaving no room for further investigation, since the results proved to be of scarce or no archaeological interest.

Dorreko erdisotoko instalazioak berritzeko obren gaineko kontrola. Agortu dira beste ikerketa bat egiteko aukerak oro, emaitzak eskasak edo interes gabeak izan baitira arkeologiaren ikuspegitik.

Control de las obras de reforma de las instalaciones del semisótano de la torre, agotando la posibilidad de nueva investigación en este, siendo los resultados del mismo de escaso o nulo interés arqueológico.

F.J. Ajamil Baños

A.6. **ASPARRENA**

A.6.1. **Araiako edo Marutegiko gaztelua**

Zuzendaritza: J. L. Solaun Bustinza
Finantzazioa: Asparrengo Udala; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

A.6.1. **Castillo de Araia o Marutegi**

Dirección: J.L. Solaun Bustinza
Financiación: Ayuntamiento de Asparrena; Departamento de Cultura y Política Lingüística. Gobierno Vasco

The text outlines the principal results of the archaeological intervention carried out during 2022 in the Marutegi Castle Tower. The intervention uncovered an occupational sequence very similar to that detected in 2020, enabling us to confirm that the tower was built during the first half of the 13th century, as a defensive element and a means of monitoring the San Adrián/Lizarrate road and guaranteeing trade between the Castilian Plateau and the coast of the Bay of Biscay.

2022. urtean zehar Araiako gazteluan (era berean Marutegiko gaztelua deitua) bideratutako esku hartze arkeologikoa gotorleku hori berreskuratzeko proiektuan txertatzen da, eta proiektuaren helburua da lekuari balioa ematea eta ezagutaraztea. Horrexegatik, hain zuzen ere, goiko dorre nagusian lan egin genuen, indusketa bat egin genuen luze-zabalean 2020. urtean egindako jarduera arkeologikoa osatzeko eta ondoren gotorlekua birgaitu ahal izateko. Ikerlanaren emaitzei dagokienez, 2020an detektatutako estratigrafiarekin alderatuta oso antzeko estratigrafia erregistratu genuen, eta beraz, orduan proposatutako historia eta eraikuntza sekuentzia berretsi ahal izan genuen: gotorlekuaren eraikuntza (I. fasea, abandonatzea eta suntsipena (II. fasea).

Esku hartze arkeologikoaren emaitzak

Gotorlekuaren eraikuntza

Kronologia arlokoa izan da 2022. urte honetan egindako ekarpen nagusia, dorrea XIII. mendearen lehenengo erdian eraiki zutela berretsi ahal izan baitugu. 2020ko eta 2022ko bi ekinaldiek eskainitako datuak gurutzatuta sortzen da kronologia hori. Azken esku hartze horri dagokionez, erradiokarbono bidezko analitika bat egin zaio dorrearen eraikuntza mailan aurkitutako hondakin organiko bati (animalia baten hezurra). 2020an dorreko morteroari egindako laginketarekin gurutzatuta, XIII. mendearen lehen hamarkadetan kokatzen den datazioa

La actuación arqueológica realizada durante el año 2022 en el castillo de Araia (también llamado Marutegi) se enmarca dentro del proyecto de recuperación de esta fortaleza, cuyo objetivo estratégico era la puesta en valor y difusión del lugar. Es por ello que los trabajos se centraron en la torre principal superior, efectuando una excavación en extensión que completase la intervención ejecutada el año 2020 y posibilitase su posterior rehabilitación. En lo que respecta a los resultados de la investigación, se ha registrado una estratigrafía muy similar a la detectada en 2020 que permite confirmar la secuencia histórico-constructiva establecida en aquel momento: construcción de la fortaleza (Fase I), abandono y destrucción (Fase II).

Resultados de la intervención arqueológica

Construcción de la fortaleza

La principal aportación realizada este año 2022 ha sido a nivel cronológico, permitiendo confirmar que la construcción de la torre fue realizada durante la primera mitad del siglo XIII. Esta cronología surge del cruce de resultados aportados por las dos campañas del 2020 y 2022. En lo que respecta a esta última intervención, se ha efectuado una analítica radiocarbónica a un resto orgánico (hueso animal) presente en el nivel constructivo de la torre. Cruzándola con la muestra realizada en 2020 al mortero de la torre nos proporcio-

eskaintzen digu. Eta data horixe berresten du dorreko eraikuntza mailako zeramikari buruzko azterlanak.

Gotorlekua abandonatzea eta suntsitzea

Indusketa lan berriek berretsi egin dute gotorlekuaren abandonatze eta suntsitzeari begira 2020an egin genuen interpretazioa. Erregistro arkeologikoak berriz ere dokumentatu ditu dorrea suntsitu eta arpilatu ondoren sortutako zaborrezko depositu lodiak, baita denboraren joanak eragindako hondatze naturalak ere. Gainera, berreskuratutako zeramikari esker, jarduera horren kronologia zehazteko aukera eman du: XV. mendean datatu daiteke, segur aski mende horren bigarren erdian.

Araiako gaztelua: San Adriango bidearen defentsa eta kontrola

Gure ikuspuntutik, 1200. urtean Gaztelak Araba, Gipuzkoa eta Durangaldea konkistatzearen helburu nagusietako bat izan zen Gaztelako ekialdeko lurraldeen eta Kantauri itsasoaren arteko zuzeneko merkataritza bermatzea, Nafarroa zeharkatu behar izan gabe, eta, aldi berean, Iruñeko itsasorako irteera ixtea. Alfontso VIII. aren interes politikoa zen 1170ean bere emazte Leonor Akitaniakoak ezkontza ezkonsarian jarri zuen Gaskoiniako lurraldeekin zuzenean lotzea. Testuinguru horretan, San Adriango igarobidea (Arlabangoa izango zen bezala) garrantzi goreneko puntu estrategiko bihurtu zen Gaztelarentzat, izan ere, Gaztelako mesetaren eta Gipuzkoako kostaldearen arteko merkataritza ahalbidetzen zuen, eta, Gipuzkoako kostaldetik, itsasoz, Atlantiko aldeko portu europarretara, edo, lurrez, Frantziara.

Lautadatik San Adrianera igoeran eraiki zuten Araiako gaztelua. Ez dago inolako arazorik baieztatzeko gotorleku horren kokapena estu lotuta dagoela aipatutako bidearekin. Kokapena bera, Aistra eta Araia lotzen zituen bidearen gaineko zuzeneko kontrolarekin, eta dorre ikaragarria, «D» formako oinplanoarekin, bideari desafiatzaile begira, estu lotuta daude bidearekin. Eta lotura hori are estuago egiten du Gaztelaren konkistaren –Araiaren mugetan ezarri zuen Gaztela eta Nafarroa arteko muga berria– eta XIII. mendearen lehen erdian eraikitako gazteluaren arteko daten hurbiltasunak. Beraz, funtsezko kontrol puntu gisa eraiki zuten gaztelua, mugaren defentsa eta Gaztelako salgaien trafikoaren babesa bermatzea izango zen haren eginkizuna. Izan ere, San Adriango tunelaren jatorriak askoz ere lehenagokoak diren arren, XIII. mendetik aurrera bi tokien historia lotuta daudela dirudi. Araiako gazteluak bezala, San Adrianen egindako indusketek berresten dute mende hartan bertan berreraiki edo berritu zutela gotorlekua. Ikertzaileek diotenez, obra hori guztiz justifikatuta egongo zen kontuan hartuta Behe Erdi Aroan zehar mugaldeko eremu horretan nagusi zen ezegonkortasuna; ondorioz, gudu pasarte askoren eta zenbait itun eta trataturen protagonista bihurtu zen San Adrian/Lizarrate[1].

na una datación situada en las primeras décadas del siglo XIII. Una data confirmada también por el estudio cerámico del referido nivel constructivo de la torre.

Abandono y destrucción de la fortaleza

Los nuevos trabajos de excavación han corroborado la interpretación efectuada en 2020 respecto al abandono y destrucción de la fortaleza. El registro arqueológico documenta nuevamente potentes depósitos de escombro generados tras la destrucción y expolio de la torre, así como del deterioro natural provocado por el paso del tiempo. Además, ha permitido afinar la cronología de esta actividad con la cerámica recuperada, pudiendo datarse en el siglo XV, más próxima a la segunda mitad de esta centuria.

El castillo de Araia: defensa y control viario del camino de San Adrián


Desde nuestro punto de vista, uno de los principales objetivos de la conquista castellana sobre Araba, Gipuzkoa y el Duranguesado en el año 1200 fue garantizar el comercio directo de los territorios orientales de Castilla con el Cantábrico, sin atravesar Navarra, al tiempo que cerraba la salida pamplonesa al mar. El interés político de Alfonso VIII era conectar, sin solución de continuidad, con los territorios de Gascuña, que su esposa Leonor de Aquitania había aportado en dote matrimonial el año 1170. En este contexto, el paso de San Adrián (como lo sería Arlaban) se convirtió en un punto geoestratégico de máxima importancia para Castilla, de manera que permitía el comercio entre la meseta castellana y la costa guipuzcoana, y de aquí –por mar– a los puertos europeos atlánticos o –por tierra– a Francia.

En el ascenso de la Llanada a San Adrián se levantó el castillo de Araia. No existen demasiados problemas para afirmar que el emplazamiento de esta fortaleza se haya inevitablemente unido al mencionado camino. Desde su situación, ejerciendo un control directo sobre la vía que enlazaba con Aistra y Araia, hasta la construcción de su imponente torre, con forma en planta de «D», que mira al camino en actitud desafiante. La cercanía de fechas entre la referida conquista castellana –que estableció la nueva frontera castellano-navarro en los límites de Araia– y la construcción del castillo en la primera mitad del siglo XIII hace más evidente esta relación. El castillo nació, por lo tanto, como un punto clave de control, dirigido a garantizar la defensa fronteriza y la protección del tráfico mercantil castellano. De hecho, aunque los orígenes del túnel de San Adrián son muy anteriores, a partir del siglo XIII la historia de ambos lugares parece ir unida. Al igual que el castillo de Araia, las excavaciones arqueológicas realizadas en San Adrián documentan la reconstrucción o renovación de la fortaleza en esta misma centuria. Una obra que, como apuntan sus investigadores, se verá plenamente justificada además por la inestabilidad fronteriza dominante en el área durante época bajomedieval, convirtiendo a San Adrián/Lizarrate en protagonista de numerosos episodios bélicos y escenario de pactos y tratados[1].

J.L. Solaun Bustinza; J. Diaz de Argote; Á. Martínez Montecelo

[1] Tapia, J., Ceberio, M., Moraza, A., 2019, *Iraganera bidaia bat. San Adrian/Lizarrate Tunela. 14.000 urtetako Historia*, Zegamako Udala.

[1] Tapia, J., Ceberio, M., Moraza, A., 2019, *Iraganera bidaia bat. San Adrian/Lizarrate Tunela. 14.000 urtetako Historia*, Zegamako Udala.



Berreskuratutako tresnen laginak. Goiko ilaran, bizkarrak eta zirkulu segmentua, alaka bikotzeko ukituarekin. Beheko ilaran, mikro-zulagailua, erabilera arrastoak dituen bizkar naturala eta ukitutako printza txiki zorrotza.

Muestra de industrias recuperadas. En la fila superior dorsos y segmento de círculo con retoque en doble bisel. En la fila inferior, micro-perforador, dorso natural con huellas de uso y lasquita apuntada retocada.

A.6.2. **Lezeko iturria, Ilarduian**

Zuzendaritza: Mikel Beorlegi Ereña
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia; Asparrengo Udala; Vital Kutxa Fundazioa

A.6.2. **Fuente de la Leze, en Ilarduia**

Dirección: Mikel Beorlegi Ereña
Financiación: Diputación Foral de Alava; Ayuntamiento de Asparrena; Fundación Vital Kutxa

In this third archaeological intervention, in the Neolithic site of the Fuente de la Leze, we have expanded the information related to the stratigraphic units linked to the cabin bottom, located in the 2021 campaign, identifying more remains of lithic industry related to these cultural horizons.

Iraileko azken bi asteetan eta urriko lehen astean zehar eraman da burura hirugarren zundaketa kanpaina Lezeko Iturrian (ARYA: 11), Araia ibai Arroko ikerketa proiektuaren baitan (AIA), komunitateek neolitizazio faseetan eta inguru honetan, Kantauri/Mediterraneo isurialdeen eta Pirinio aurreko korridoreen artean, baliatu zituzten elkarrekintza eta okupazio formak edo moduak dokumentatzeko xedean.

Hainbat adituk behin eta berriz azaldu dute gisa honetako aztarnategiak, Holozenoaren hasieran kokatzen diren kronologiak dauzkaten aztarnategiak, ikertzeko beharra. Arrotik gertuko eremu batean, jatorrizko posizioan dauden estratigrafiak dauzkaten haitzulo eta harpeen testuingurutik kanpo, urri dira aztertutako Neolitoaren hasierako eta erdialdeko adibideak. Beraz, ARYA 11 aztarnategia, Lotabarri errekaren terraza batean egokitua, bereziki interesgarria da hein batean kontserbatu duen deposituari esker, eremu honetan neolitizazioa ezarri zuten mekanismoak eta pizgarriak hobe ezagutzeko aukera eman diezagukeelako. Eremu honetan, orain arte, inguruko laborantza lurretan dauden aztarnategi batzuk kontrolatzen ditugu, eta horietan arlo teknologikoan eta morfologikoan antzekotasun handiak dituzten tresnak berreskuratu ditugu, nahiz eta, tamalez, pausatu osteko desitxuratze garrantzitsuak nozitu dituzten.

Handitu egin dugu indusketa II. sektorean, zehazki 2021eko ekinaldian aurkitutako bizitegi egiturarekin lotu daitezkeen unitate estratigrafikoen ondoko gunean.

La tercera campaña de sondeos en la fuente de la Leze ARYA:11, vinculada al proyecto de investigaciones en la Cuenca del río Araya AIA, se ha realizado durante las dos últimas semanas de septiembre y la primera de octubre, con el objetivo de documentar las formas de interacción y ocupación de este entorno por las comunidades durante distintas fases de la neolitización, en esta zona, a caballo entre el interfluvio Cantábrico-mediterráneo y los corredores pre-pirenaicos.

La necesidad de investigar este tipo de yacimientos, con cronologías incardinadas en los inicios del Holoceno, ha sido reiteradamente expuesta por diferentes autores. En un área cercana a la cuenca son escasos los ejemplos del neolítico antiguo y medio estudiados fuera del contexto de cuevas y de abrigos que cuenten con estratigrafías en posición primaria. El yacimiento ARYA 11, emplazado en una terraza del arroyo Lotabarri cobra así un especial interés, con su depósito, en parte preservado, que puede acercarnos a un mejor conocimiento de los mecanismos y estímulos que implantaron la neolitización de este espacio en el cual, hasta la fecha, controlamos un conjunto de yacimientos ubicados en los terrenos de labranza cercanos, y en los que se han recuperado lotes de industrias con paralelismos tecnomorfológicos que, desgraciadamente, han sufrido importantes distorsiones post-deposicionales.

Hemos ampliado la excavación en el sector II, concretamente en el espacio adyacente a las unidades estratigráficas vinculables a la estructura de habitación localizada la campaña de 2021.

Esku hartzearen hasieran, 11 koadrante berriak neurtu, kartografian jaso eta argazkiak atera ondoren, 5 eta 8 cm bitarte lodi zen landare geruza (3201. UE) altxatu dugu; ehunduraz hareatsua/buztintsua da, trinkotasun maila ertainarekin, eta kolorez marroi iluna. Sustrai txiki asko ditu, baita ikatzak ere, batez ere azken urteetan egindako kanpaldietatik etorriak. Unitate estratigrafiko horretatik material garaikideak berreskuratu ditugu, hala nola plastikoak, kristalak, zeramika beiratua, zepak, kabilak, etab…, suharrian landutako bi produktu gordinekin batera, ukierarik gabeak.

Unitate horren azpian 3202. UE identifikatu genuen, matrize buztintsuko betegarri batez osatua, trinkotasun maila ertaineko hareen proportzio handiarekin, ehundura finarekin eta kolorez marroi/oliba argiarekin (Munsell: 2,5 Y 5/6). Gutxi gorabehera 5 eta 9 cm lodi da, eta hemen ere ugari dira sustrai txikiak, asko eta asko erreta daudela. Lur eta ikatz laginak jasotzeaz gain, suharrian landutako tresnen 17 aztarna berreskuratu ditugu, gisa honetan sailkatu ditugunak: 5 zati (puska, debris…), nukleo bat, 7 produktu teknologiko gordin eta ukitutako lau artefaktu (1 R1, 1 T1, 1 B11, 1 E2). Gainera, urradura arrastoak dituen hareharrizko pieza bat eta material garaikideak aurkitu ditugu zulo batean, aspaldi ez dela zabortegi modura irekitako zuloan, 3208. UE eta 3209. UE deitutako unitateetan. Horietan, plastikozko kabilak, zepak, beirak, lozazko adreilu zatiak eta gisako beste elementu batzuk bereizten ziren.

Lur pakete horren oinean lau orban zirkular topatu genituen (3203. UE, 3204. UE. 3205. UE eta 3206. UE deituak), 16 eta 46 cm bitarteko diametroarekin, batez beste 3 cm lodi. Horietan ugari ziren ikatzak (Quercacae), eta denak jaso genituen sakon aztertzeko.

Azpiko unitate estratigrafikoak (3207. UE) lur matrize hareatsua eta buztintsua du, eta kolorez okre-horixka da (Munsell: 7,5YR 5/3), oso trinkoa. Sustraien eta animalien jarduerak nabarmen nahasi dute unitatearen egiturazko egokiera, eta ondorengo kronologietako sarkinak eragin dituzte. Zanpatutako buztinezko pikor txikiei eta errekarri txikiei lotuta agertzen diren ikatz partikula txikiek ematen diote tonalitate grisaxka hori. Maila honetan suharrizko tresnen ekipamenduaren lagin batzuk berreskuratu ditugu, eta gisa honetan zerrendatu ditugu: ezin tipologia baten sailka daitezkeen 71 suharri zati, 9 nukleo birbizitu, zulakaitz kolpe bat, suharriaren lanketatik etorritako 48 produktu gordin eta ukitutako 22 artefaktu: 1 G11, 1 G12, 1 D1, 4 D3, 2 R1, 2 A13, 2 A1, 1 Bc1, 1 Pd12, 1 Pd21, 1 Ld21, 1 F11, 1 F4, eta 1 B31. Unitate honetan, maskor zati baten ondoan, kolpekari bat eta aurpegi ahur bat zuen errekarri bat identifikatu genituen, biak hareharrizkoak. Gainera, eskuz landutako zeramika zati bakar bat erregistratu genuen: tenperatura baxuan errea zen, azala beltza, eta sendogarri hareatsuak.

Unitate horren azpian 3210. UE identifikatu dugu, 2021ean aurkitutako barrutiaren okupazioaren azken fasearekin bat datorrena. Lur buztintsu eta hareatsuzko pakete batez dago osatuta, oso trinkoa da eta kolorez grisaxka, eta hareharrizko errekarri txikiak eta, tarteka, kuartzitazkoak dauzka han-hemenka barreiatutako ikatz zatiei lotuta, zanpatutako buztinezko bolatxoen ondoan, aurreko UEan bezalaxe. Harrizko tresnetan 162 pieza erregistratu ditugu: 78 ezin sailkatu daitezkeen suharri zatiak dira (chunck edo puskak), 2 nukleo birbizitu, 54 produktu teknologiko gordin eta ukitutako 28 euskarri,

Al inicio de la intervención, una vez medidos, cartografiados y fotografiados los nuevos 11 cuadrantes, hemos retirado el nivel vegetal (UE 3201) con una potencia de entre 5 y 8 cm, textura areno-arcillosa de compactación media, y una coloración marrón oscura. Contiene abundantes raicillas, carbones procedentes sobre todo de acampadas recientes. En el mismo hemos recogido materiales contemporáneos como plásticos, cristales, cerámica vidriada, escorias clavijas etc.… junto a dos únicos productos brutos de tecnología en sílex sin retoque alguno.

Bajo esta unidad identificamos la UE 3202, conformada por un relleno de matriz arcillosa, alta proporción de arenas de compactación moderada, textura fina y coloración marrón olivácea clara (Munsell: 2,5Y 5/6). Su potencia oscila entre los 5 y 9 cm, y aquí también abundan las raicillas en muchos casos quemadas. Se han recogido muestras de tierra y de carbón, y aquí se ha recuperado un conjunto de 17 evidencias de industria lítica en sílex, que hemos clasificado de la siguiente forma: 5 cachos (trozos, debris…) un núcleo, 7 productos brutos de tecnología y cuatro artefactos retocados (1 R1, 1 T1, 1 B11, 1 E2) Hemos hallado además, un canto de arenisca con restos de abrasión y un lote de materiales contemporáneos procedentes de un hoyo, que a modo de basurero, fue realizado en época recientemente, denominado UE-3208 y UE-3209 consistente en clavijas de plástico, escoria vidrios fragmentos de ladrillo de loza etc…

En la base de este paquete de tierra, encontramos cuatro manchas circulares (que denominamos UE 3203, UE 3204, UE 3205 y EU 3206) de entre 16 y 48cm de diámetro, un espesor medio de 3 cm y con una alta densidad de carbones (Quercacae) hemos procedido a recoger íntegramente para su estudio.

La unidad estratigráfica subyacente, UE 3207, presenta una matriz de tierra areno arcillosa, ocre-amarillenta (Munsell: 7,5YR 5/3) de alta compactación, donde la actividad de raíces y de animales han alterado claramente su disposición estructural generando intrusiones de cronologías posteriores. El tono grisáceo lo aportarían las pequeñas partículas de carbón que aparecen asociadas a pequeños granitos de barro apelmazado y a pequeños cantos rodados. En este nivel se ha recuperado una muestra del equipamiento de industrias líticas en sílex, que podemos inventariar como: 71 fragmentos de sílex no tipologizables, 9 avivados de núcleo. 1 golpe de buril, 48 productos brutos de talla y 22 artefactos retocados: 1 G11, 1 G12, 1 D1, 4 D3, 2 R1, 2 A13, 2 A1, 1 Bc1, 1 Pd12, 1 Pd21, 1 Ld21, 1 F11, 1 F4, y 1 B31. Hemos localizado aquí un percutor y un canto con una cara cóncava, ambos de arenisca, junto a un fragmento de concha y un único fragmento de cerámica a mano, cocida a baja temperatura, de superficie negra y desgrasantes arenosos.

Inmediatamente debajo, hemos identificado la UE 3210, relacionada con la fase final de ocupación del recinto localizado en el 2021. Compuesta por un paquete de tierras arcillo arenosas, alta compactación y coloración grisácea, contiene pequeños guijarros de arenisca y esporádicamente de cuarcita, asociados a fragmentos de carbón dispersos, junto a bolitas de arcilla apelmazada como en la UE anterior. Hemos registrado 162 efectivos de industria lítica, de los que 78 son fragmentos de sílex inclasificables (chuncks o cachos) 2 avivados de núcleo, 54 productos brutos de tecnología y 28 monturas retoca-

gisa honetan antolatuta: 2 G11, 1 G13, 4 R1, 2 D1, 1 D2, 4 D3, 1 Bc1, 1 A11, 1 Pd12, 4 Ld21, 1 F11, 2 B11, 1 B12, 1 B31, 1 B32; gainera, 10 zeramika zati berreskuratu ditugu, dekoratu gabeko azalekin, batzuk engobe okre gorrixkarekin, eta hareharrizko errekarri luze eta ez oso lodi bat, eremu honetakoa, leuntzaile gisa erabili izanaren ondorioz ildaska batzuk dituena, aurreko ekinaldian eta koadrante berberean hainbat kolpekari eta ukigailuren ondoan aurkitu genuaren oso antzekoa.

Aztergai ditugun unitateen kokapen kronologiko eta kulturalari dagokionez, K.a. V. milurtekoaren erdialdearen eta IV. milurtekoaren arteko okupazio aldian koka ditzakegu maila horiek tresnen tipologia eta horiek lantzeko prozesuetan (bizkardunak, zirkulu segmentuak alaka bikoitzen bidez ukituak, zulakaitzak, dekoratu gabeko azala duten zeramikak), egituren morfologian (zuloak, etxola hondo zirkularra) eta ustez datozen kanpainetan osatuko ditugun datazioetan (Uppsalako Tandem Radiocarbon Laboratory) oinarritzen bagara.

das organizadas como: 2 G11, 1 G13, 4 R1, 2 D1, 1 D2, 4 D3, 1 Bc1, 1 A11, 1 Pd12, 4 Ld21, 1 F11, 2 B11, 1 B12, 1 B31, 1 B32; también hemos recuperado 10 fragmentos cerámicos de superficies lisas, en algunos casos con engobe ocres rojizos y un canto alargado y poco espeso de arenisca, propia del terreno, que presenta varias acanaladuras, fruto de su utilización a modo de alisador y muy similar al localizado en la anterior campaña y en el mismo cuadrante junto a varios percutores y retocadores.

En cuanto a la ubicación crono-cultural de las unidades que estamos estudiando, podemos situar estos niveles de ocupación en momentos entre mediados del Vº y el IVº Milenio a.C. basándonos en los procesos de elaboración y la tipología de las industrias, con presencia de dorsos, segmentos de círculo con retoque en doble bisel, perforadores, cerámica de superficie lisa, en la morfología de las estructuras (hoyos, fondo de cabaña circular) y en las dataciones (Tandem Radiocarbon Laboratory de Uppsala) que esperamos completar en siguientes campañas.

M. Beorlegi Ereña; I. Sánchez Pinto; J.A. González de Heredia Fernández de Eribe; Á Martínez Montecelo; S. Pérez Díaz; E. Apilánez Garrido; J.J. Rikarte Senosiain; Á. López de Ipiña Peña; J.A. Mujika Alustiza; M. Ruiz Alonso; A. Ibisate González de Matauco; J. Aiastui Urzelai; A. Sáez de Arregui López de Munain

A.6.3. **La Leze. E2-1454 lursaila, Ilarduian**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantzazioa: Partikularra

A.6.3. **La Leze. Parcela E2-1454, en Ilarduia**

Dirección: Ander Arrese
Financiación: Particular

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Ukituriko azalera osoan egin zen kontrol arkeologikoa, baina emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes arkeologikorik izan.

Control arqueológico realizado en toda la superficie afectada siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico.

A. Arrese

A.6.4. **Miaketa lanak Araia-Arakil Haitzarteko unitatean**

Zuzendaritza: Eder Lekuona
Finantzazioa: Berak finantzatua

A.6.4. **Prospecciones en la unidad del Congosto Arakil-Araia**

Dirección: Eder Lekuona
Financiación: Propia

The archaeological work carried out during this season corroborated the strong presence of prehistoric societies in this region, as reflected in the different studies conducted by other groups in the same area since the 1980s. Proof of this is the appearance of several surface deposits of stone tool manufacturing.

2022. urtean zehar, 2021eko lanei jarraipena ematerako, lan arkeologiko sorta bat eraman dugu burura Lautadaren Ekialdean UPV/EHUko Historiaurreko Ikerketa Talde Sendotuaren gainbegiradapean. Esku hartze horien helburua zen Arakil-Araia Haitzarteko unitatearen gainazalean aurkitutako harrizko tresnak balioestea. Ondorioz, Arabako Foru Aldundiari egin beharreko eskaera izapidetu ondoren, miaketa kanpaina bati ekin genion, lurrak harrotu gabe, laborantzari emandako lursail batzuetan.

Azken urteetan inguru honetan bideratu diren esku hartze irregularren ondorioz, kalte egin baitzaio Ondare arkeologikoari, zenbakizko akronimoekin izendatu ditu-

Durante el año 2022, como continuación de los trabajos de 2021, hemos desarrollado una serie de trabajos arqueológicos en la Llanada oriental, bajo supervisión del Grupo Consolidado de Investigación en Prehistoria de la UPV-EHU. El objetivo de estas intervenciones era valorar diversos hallazgos superficiales de industrias líticas procedentes de la unidad del Congosto Arakil-Araia. En consecuencia, tras cursar la correspondiente solicitud a la Diputación Foral de Álava, abordamos una campaña de prospecciones sin remoción de tierra en distintas parcelas destinadas al uso agrícola.

Debido a las actuaciones irregulares que se han venido desarrollando en la zona en los últimos años, con el consecuente daño realizado sobre el Patrimonio arqueo-



Ezkerrean, ASP11 aztarnategian aurkitutako aihotza. Eskuinean, Levallois nukleoak.

A la izquierda, hendedor encontrado en el yacimiento ASP 11. A la derecha, núcleos Levallois.

gu ustezko aztarnategiak, inolako erreferentzia toponimikoa eman gabe. Ohi denez, administrazio eskudunen esku utzi genuen informazio osoa. Hauexek dira aire zabaleko ustezko aztarnategiak:

– ASP11 deritzon aztarnategian ugari dira nukleoak, suharriaren lanketatik etorritako hondakinak eta tresna amaituak, hala nola puntak eta karrakagailuak. Tipologiari erreparatuz gero, Erdi Paleolitoan kokatu daiteke aztarnategia. Era berean, kronologia zaharragoa duten bi aihotz berreskuratu dira.

– ASP11 aztarnategiaren inguruetan ASP12, ASP13 eta ASP14 izeneko hiru eremu daude elkarren ondoan, eta horietatik sukarriaren lanketatik etorritako hondakinak jaso genituen, ASP11 aztarnategiari begira deskribatutakoaren antzeko patina eta tipologiarekin. Berreskuratutako materialen artean, aipatzekoa da aurpegi biko baten forma duen pieza bat.

Ekinaldi honetan bideratutako lan arkeologikoek berretsi egiten dute lurralde honetan historiaurreko gizarteak izan zirela, inguru honetan iragan mendeko 80. urteetatik aurrera egin diren lanetan ere islatu dena. Horregatik guztiagatik, gure ustez oso garrantzitsua da miaketa lan horiei jarraipena ematea eta etorkizun hurbil batean esku hartze arkeologiko sakon bat planifikatzea.

lógico, hemos acordado denominar los posibles yacimientos con acrónimos numéricos sin referencia toponímica. Obviamente, depositamos la información completa en manos de las administraciones competentes. Los yacimientos al aire libre detectados serían los siguientes:

– El yacimiento, denominado ASP11, presenta una amplia representación de núcleos y restos de talla y útiles acabados como puntas o raederas. Por su tipología podría adscribirse al Paleolítico Medio. También se han recogido dos hendedores de cronología más antigua.

– En los alrededores del yacimiento ASP11, hay otras tres zonas colindantes denominadas: ASP12, ASP13 Y ASP14 donde se han recogido restos de talla con una pátina y tipología similar a la descrita para el yacimiento ASP11. Entre el material aparecido queremos destacar la presencia de una preforma de bifaz.

Los trabajos arqueológicos llevados durante esta campaña, vienen a corroborar la amplia presencia de sociedades prehistóricas en este territorio, tal y como viene siendo reflejado por los diferentes trabajos llevados a cabo por otros grupos en esta misma zona, desde los años 80 del siglo pasado. Por todo ello, consideramos interesante proseguir con estas prospecciones y planificar una intervención arqueológica en profundidad en un futuro próximo.

E. Lekuona Ruiz de Luzuriaga; J. Markinez González de Langarica; A. Arrizabalaga Valbuena

A.7. AYALA / AIARA

A.7.1. Añesko Zelaietako trikuharri multzoa. Edateko ur eroaleak berritzeko lanak inguruetan

Zuzendaritza: José Ángel Fernández Carvajal
Finantzazioa: Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea

A.7.1. Conjunto dolménico de las Campas en Añes. Obras de renovación de la conducción de agua potable en sus cercanías

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal
Financiación: Junta Administrativa de Menagarai-Beotegi

Intensive archaeological monitoring of the digging of trenches for laying a new drinking water pipe in the area around the Las Campas de Añes dolmen site. No elements of historical-archaeological importance were detected.

Añesko Zelaietako trikuharri multzoaren ingurunean edateko ur hargune berri bat instalatzeko lanen harira, kontrol arkeologiko zorrotz bat eraman genuen burura zangak induskatzeko lanetan zehar. Kontrol lan horietan ez genuen elementu interesgarririk detektatu historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Con motivo de la instalación de una nueva acometida de agua potable en el entorno del conjunto dolménico de Las Campas en Añes, se ha procedido a realizar un control arqueológico intensivo de la excavación de las zanjas. Durante el control no se han detectado elementos de interés desde el punto de vista histórico-arqueológico.

J.Á. Fernández Carvajal

A.7.2. Babioko Herri Harresitua, Izorian

IV. kanpaina
Zuzendaritza: Jon Obaldia Undurraga
Finantzazioa: Aiarako Udala

A.7.2. Poblado fortificado de Babio, en Izoria

IV campaña
Dirección: Jon Obaldia Undurraga
Financiación: Ayuntamiento de Ayala

The present intervention has had as main objective, to identify the accesses to the fortified town of the Iron Age. At the same time that these tasks were carried out, others have been developed in order to document a section of the second wall and locate the houses associated with the fortified town.

Laugarren kanpaina honetan zehar hainbat zundaketa egin ditugu herriko harresiz barneko gune batzuetan, herriko sarrerak non egon zitezkeen zehazteko helburu nagusiarekin. Lan horirekin batera, aurreko esku hartzeetan landutako gune batzuk handitzen jarraitu dugu, eta horiek ere emaitzak eskaini dizkigute.


18. zundaketa, herriaren ipar-mendebaldeko muturrean irekia, ebaki naturalaren ondoan, bigarren harresia desagertzen den puntuan eraman genuen burura, defendatzeko oso baldintza onak eskaintzen dituen gunean. Aldi berean, lerro zuzenean egokitzen da lehenengo harresian dokumentatutako bigarren mailako atearekin (bidezidorra). 2 x 4 metroko zundaketa egin genuen eta bigarren harresitik behera etorritako harriak identifikatu genituen, baina ez egiturazko elementurik ezta zeramikarik ere.

10. zundaketari dagokionez, aurreneko harresiaren ekialdeko muturrean ireki genuen, aurrekoa bezala Babio mendiko ebaki naturalaren ondoan, non harresia nabarmen beheratuta agertzen den. Hasiera batean 3 x 4

Durante la excavación de esta cuarta campaña, se han llevado a cabo varios sondeos por diferentes espacios de la zona intramuros del poblado, con el principal objetivo de determinar donde se podrían ubicar los accesos al mismo. A la par que se realizaban estas labores, se han seguido ampliando varias zonas trabajadas en previas intervenciones, los cuales han arrojado diferentes resultados.

El sondeo 18, ubicado en el extremo noroeste del poblado, contra el cortado natural, se ha llevado a cabo en un punto donde la segunda muralla prácticamente desaparece y que ofrece muy buenas condiciones defensivas. Así mismo, se sitúa en línea recta con la poterna (atajo) documentada en la primera muralla. Se realiza un sondeo de 2 x 4 metros donde se localiza parte del derrumbe de la segunda muralla, pero no se constatan elementos estructurales ni cerámicos.

Respecto al sondeo 19, se ubica en el extremo este de la primera muralla, al igual que el anterior, contra el cortado natural del monte Babio, donde la muralla sufre un notable rebaje. Inicialmente se plantea un sondeo de



UE 3 = Lehenengo harresiaren betelanaren erorkina
Caídas del relleno de la primera muralla

UE 4 = Lehenengo harresiaren barneko hormaren erorkinak
Caídas del muro interior de la primera muralla

UE 5 = Lehenengo harresiaren barneko hormaren luzitua
Enlucido del muro interior de la primera muralla

UE 6 = 7. UE-aren betelana
Relleno de la UE 7

UE 7 = Kreharrizko egitura zirkularra
Estructura circular caliza

UE 8 = Zirkulu-laurdeneko kareharrizko egitura zirkularra
Estructura circular de piedra caliza de cuarto de círculo

UE 9 = Lurzoruaren egokitzapena
Adecuación del suelo

UE 10 = Lehenengo harresiaren betelana
Relleno de la primera muralla

UE 11 = Lehenengo harresiaren barneko horma
Muro interior de la primera muralla

UE 13 = Kareharrizko haitza
Roca caliza



Ezkerrean, 19. zundaketako egiturak.
Eskuinean, 15. zundaketa.

A la izquierda, estructuras del sondeo 19.
A la derecha, sondeo 15.

metroko zundaketa planteatu genuen, baina ekialderantz handitu behar izan genuen egindako aurkikuntzak ikusita. Indusketa lanetan zehar lehenengo harresiaren barruko aurpegia identifikatu genuen, eta puntu batzuetan defendatzeko bi egituretan dokumentatu ahal izan dugun luzitua kontserbatzen duela esan behar dugu. Bestalde, lur eremua egokitzeko maila baten ondoan, harresiari atxikitako kareharrizko bi egitura egiaztatu ditugu, oinplano erdizirkularrekoak, baina oraingoz ezin izan dugu argitu zer funtzio betetzen zuten. Lan horietan zehar materialen lagin batzuk jaso genituen, batez ere eskuz landutako zeramikak eta animalien hezur hondakinak. Puntu honetan, oraingoz bederen, harresiak ez du sarreraren bat iradoki lezakeen hausturarik edo bihurgunerik, eta beraz, datozen ekinaldietan, alde honetan lan egiten jarraituko dugu.

Herriko beste puntu batean, lehenengo harresiko terrazan, handitu egin dugu aurreko kanpainetan induskatutako gunea 1 x 2 metroko zundaketa bat irekita, baina emaitzak eskasak izan dira arkeologiaren ikuspegitik.

Azkenik, iazko ekinaldian irekitako 15. zundaketari lotutako espazioa handitu dugu. Herriaren hego-ekialdean dago, bigarren harresiaren gainean, harresia goratzen den puntuan. Burura eramandako lanei esker, bigarren harresiaren barruko aurpegia identifikatu ahal izan dugu: ez du inolako luziturik, eta kontserbazio egoera txarrean dago, barruko aldera erorita ia-ia. Ez dugu lur eremua egokitzeko edo berdintzeko mailarik dokumentatu, baina eskuz landutako zeramika zati oso higatuak, tipologia ezagutzeko aukera ematen ez dutenak, berreskuratu ahal izan ditugu. Era berean, harresiaren beraren oinetik ikatz lagin bat jaso genuen, eta karbono 14ren bidezko datazioaren arabera, Lehen Burdin Aroko kronologia eskaintzen duela esan behar dugu.

3 x 4 metros, pero a causa de los descubrimientos realizados, se amplia hacia el este. Durante su excavación, se identifica la cara interna de la primera muralla, que en algunos puntos conserva el enlucido que se ha podido documentar en ambas estructuras defensivas. También se constatan dos estructuras de piedra caliza anexas a la muralla, de planta semicircular cuya función, por el momento, no se ha podido esclarecer, junto a un nivel de acondicionamiento del terreno. Durante estas labores, se han recogido varias muestras materiales, sobre todo cerámicas a mano y restos óseos animales. En este punto, por el momento, la muralla no presenta ninguna ruptura o quiebro que permita reconocer un acceso, por lo que, en próximas campañas, se seguirá trabajando en este espacio.

En otro punto del poblado, ubicado dentro del aterrazamiento de la primera muralla, se ha ampliado la zona excavada en previas campañas mediante un sondeo de 1 x 2 metros, pero los resultados han sido de escaso interés arqueológico.

Por último, se ha ampliado el espacio relacionado con el sondeo 15 realizado en la campaña del año pasado. Este se ubica en la parte sureste del poblado, sobre la segunda muralla, en un punto donde la muralla se ve recrecida. Las labores realizadas, han permitido identificar la cara interna de la segunda muralla, la cual no presenta ningún tipo de enlucido y se encuentra en un precario estado de conservación, prácticamente vencida hacia el interior. No se ha documentado ningún nivel de acondicionamiento o nivelación del terreno, pero se han podido recuperar varios materiales cerámicos a mano muy rodados, que no permiten reconocer su tipología. Así mismo, se ha tomado una muestra de carbón en la base misma de la muralla que tras la datación de carbono[14], arroja un horizonte cronológico de la Primera Edad del Hierro.

J. Obaldia Undurraga

A.8. BARRUNDIA

A.8.1. San Migel edo Las Carboneras aurkintzako tumulua, Maturan

Zuzendaritza: Javier Ordoño Daubagna
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.8.1. Túmulo del Paraje de San Miguel o Las Carboneras, en Maturana

Dirección: Javier Ordoño Daubagna
Financiación: Diputación Foral de Álava

The text outlines the results of the archaeological intervention carried out in November 2022 in the burial mound located in the area known as San Miguel or Las Carboneras, in Maturana. The intervention comprised the cleaning, documentation and re-protection of the area (which had previously been explored in 2019), along with a combined geophysical study of the entire surface area of the mound by the company SOT Prospecció Arqueològica.

Burura eramandako lanen artean aipatzekoak dira, lehenik, esku hartze arkeologiko baten bidez tumuluaren erdiko/goiko aldean ia posizio bertikalean aurkitutako hiru lauzaren dokumentazioa; lauza horietako batek zizelkatze lan artifizial bat du, dagoeneko desagertua den estalkiari eusteko balioko zuen agian. Bigarrenik, miaketa magnetiko baten bidez, oinplanoan 45 x 50 m neurtuko zituen tumuluaren perimetroa dokumentatu genuen; haren morfologia argi eta garbi eraldatu dute laborantza lanek, izan ere, gailurra higatuta du eta jalkinak perimetroko guneetara lekualdatuta. Eta hirugarrenik eta azkenik, georradarra erabilita, ganbera, ustezko korridore bat eta tumuluaren azpian lurperatutako beste egitura atxiki batzuk eratuko zituzten harrizko formak identifikatu eta mugatu genituen, batez ere tumuluaren erdialdean, baita interes arkeologikoa izan zitzaketen beste irregularitasun batzuk ere, tumuluaren beste puntu batzuetan.

Aurrekariak

Badira gutxi gorabehera bost urte L. M. Martínezek (UPV-EHU) eta «*Arabako Lautadako historiaurreko tumuluak kartografiatzeko eta katalogatzeko*» proiektuaren arduradunek aldi berean azaldu zituztela tumuluaren presentzia eta haren interes zientifikoa. Aipatutako proiektuan Javier Ordoño arkeologoa ari da zuzendaritza lanak egiten 2017. urte amaieraz geroztik. Ondorioz, 2019an, bi esku hartze bideratu ziren tumuluan, inguru hori aztarnategi arkeologiko bat ote zen egiaztatzeko xedean. Lehenengoan, L. M. Martínezek berak zuzendutako esku hartzean, erresistibitate elektrikoko tomografia azterlan bat egin zen, eta egiaztatu egin zen tumuluaren erdialdeko zorupean jatorri antropikoko eraikuntza batekin bateragarriak ziren irregularitasunak zeudela. Bigarren esku hartzean zundaketa bat egin zuen Iterbide S.C enpresak J. Nisoren zuzendaritzapean eta J. M. Martínezen ikuskaritzapean, eta lan horrek egiaztatu egin zituen lehendik hautemandakoak, izan ere, agerian geratu ziren hileta ganberaren zati bat osatuko zuten harrizko hiru blokeren gailurrak (Niso eta Loza, 2019), esku hartzea amaitutakoan babestu egingo zirenak.

2022ko uztailaren 1ean sute bat piztu zen Garaio eta Matura herrien artean, laborantza lur asko erre ziren, tartean tumuluari leku egiten dion lursaila. Suak monumentuaren gainazalean baizik eragin ez bazuen ere, desagerrarazi zuen 2019an jarritako babesaren zati bat.

Esku hartzearen helburuak

Esku hartzearen lehenengo helburua zen bere garaian tumuluaren erdialdean/goialdean jarritako babes

Entre los resultados de los trabajos destacan, primero, la documentación, mediante actuación arqueológica, de tres losas en posición cuasivertical en la zona central-superior del túmulo que podrían conformar parte de una cámara de notables dimensiones, una de las cuales presenta una entalladura artificial que serviría para apoyar una cubierta ya desaparecida; segundo, la delimitación, mediante prospección magnética, del perímetro de un túmulo cuya planta mediría 45 x 50 m y cuya morfología se ha visto claramente alterada por las labores agrícolas, que han resultado en la erosión de su cima y el desplazamiento de sedimentos hacia zonas perimetrales; y tercero y último, la identificación y delimitación, mediante georradar, de las formas pétreas que conformarían la cámara, un posible corredor y otras estructuras adyacentes enterradas bajo el túmulo, particularmente en su zona central, así como de otras anomalías de posible interés arqueológico en otras ubicaciones del túmulo.

Antecedentes

La existencia y el interés científico del túmulo fueron recogidos, hace cosa de un lustro y de forma paralela, por L. M. Martínez (UPV/EHU) y por los responsables del proyecto *Cartografía y catalogación de túmulos prehistóricos de la Llanada Alavesa*, dirigido por J. Ordoño desde finales de 2017. Esto motivó la realización en 2019 de dos actuaciones sobre el túmulo, destinadas a valorar la naturaleza del lugar como yacimiento arqueológico. La primera fue la realización de un estudio de tomografía de resistividad eléctrica liderado por el propio L. M. Martínez, que confirmó la existencia en el subsuelo del centro del túmulo de anomalías compatibles con una construcción de origen antrópico. La segunda fue la realización de una cata por la empresa Iterbide S.C., bajo la dirección de J. Niso y la supervisión de L. M. Martínez, que corroboró dichas observaciones al poner al descubierto la cimera de tres bloques pétreos que formarían parte de una cámara funeraria (Niso y Loza 2019), y que fueron protegidos al final de la intervención.

El 11 julio de 2022 se desató un incendio entre las localidades de Garaio y Maturana que quemó una gran superficie de campos de cultivos, incluida la parcela donde se localiza el túmulo. El fuego, si bien afectó solamente a la superficie del monumento, hizo desaparecer parte de la protección colocada en 2019.

Objetivos de la actuación

La intervención tenía como primer objetivo restablecer las medidas de protección dispuestas en su día en

neurriak berrezartzea. Beraz, suteak kaltetutako landare, jalkin eta elementu antropiko guztiak atera eta 2019an landutako gunea garbituko genuen, argazki eta fotogrametriaren bidez dokumentatuko genuen eta ukitu gabeko mailak babesteko erresistentzia handiko sare bat jarriko genuen. Jarraian, gunea mozorrotzeko lurrezko betegarri batez estaliko genuen monumentua.

Bigarren helburua zen tumuluaren gainazalaren azterlan geofisiko bat egitea, hura mugatu ahal izateko, eraikuntzaren eta egituraren izaeran sakontzeko eta tumuluaren kontserbazioari begira halako arriskua ekar zezaketen balizko eraginak aztertzeko. Museoak eta Arkeologia Zerbitzuak SOT Prospecció Arqueològica enpresari esleitu zion lan hori, esperientzia handia baitu teknika horiek aplikatzen.

Metodologia

Egiturak eta mailak garbitzeko, dokumentatzeko eta babesteko jarduera batek berezkoa duen metodologia baliatu zen esku hartze arkeologikoa burura eramateko. Beraz, ez zen beharrezkoa izan indusketan oinarritutako metodologia bat erabiltzea aztarnategiko materiala eta erregistro estratigrafikoa ulertzeko. Agerian utzitako egiturak dokumentatzeko, bertatik bertara egindako marrazkiez eta argazkiez gain, fotogrametria erabili zen aztertutako eremuaren altxaera topografikoa egiteko, baita ortoargazkiak eta erregistro planimetrikorako funtsezkoak diren eredu geoerreferentziatuak osatzeko ere. Tumuluaren gainazalean barreiatuta zeuden material arkeologiko urriak behar bezala erregistratu eta jaso ondoren, banakako plastikozko poltsa hermetikoetan sartu ziren, zegozkien etiketarekin eta siglarekin, geroago Bibaten uzteko eta haien inbentarioa ahalbidetzeko.

Azterlan geofisikoari begira, miaketa magnetikoa eta georradarra teknikak erabili ziren. Miaketa magnetikoaren kasuan, fluxgate Bartington G-601 gradiometro sistema erabili zen. Datuak jasotzeko, 0,25 x 0,5 m-ko bereizmen espaziala ezarri zen, hau da, 8 irakurketa metro karratuko. Georradarraren kasuan, IDS SOT custom sistema erabili zen, 600 MHz-ko bost antenaz hornitua aldi bereko irakurketan. 0,02 x 0,20 m-ko bereizmenarekin lortu ziren datuak, hau da, profilak elkarren artean 20 cm-ko tarteak utziz erregistratu ziren, 2 cm-tan behin irakurketa eginez aztertutako eremu osoan. Ondoren, lortutako datu gordinak teknika bakoitzarentzako software eta parametro espezifikoen bidez prozesatu ziren irudiak kalibratzeko eta ikuspen bektorialak lortzeko, emaitzak eskematizatzeko, irregulartasun magnetiko eta erreflektibo esanguratsuenak detektatzeko eta SIG kartografiaren bidez interpretatzeko eta laburbiltzeko.

Lan horiek guztiak landako egunkari batean erregistratu ziren argazkien eta/edo bideoen bidez. Egunkari horretan jaso ziren esku hartzearen iruzkinak, oharrak eta datu garrantzitsu guztiak.

Landa lanen nondik norakoak

Batez ere eguraldiak eta giza baliabideek eta baliabide materialek behartuta, hiru jardunaldi etenetan eraman genituen burura landa lanak, zehazki 2022ko azaroaren 8, 15, eta 16an.

la zona central-superior del túmulo. Se proyectó la retirada de todos los elementos vegetales, sedimentarios y antrópicos afectados por el incendio y la limpieza de la zona intervenida en 2019, su documentación mediante fotografía y fotogrametría, y la colocación de una malla resistente que protegiese los niveles intactos, así como su cubrimiento mediante un relleno térreo suficiente que enmascarase la zona.

El segundo objetivo fue la realización de un estudio geofísico de la superficie del túmulo que permitiese delimitarlo, ahondar en su naturaleza constructiva y estructural, y analizar las posibles afectaciones que supusieran riesgo para su conservación. Este trabajo fue encargado por el Servicio de Museos y Arqueología a SOT Prospecció Arqueològica, empresa con reconocida experiencia en la aplicación de estas técnicas.

Metodología

La metodología elegida para la intervención arqueológica fue la propia de una actuación de limpieza, documentación y salvaguarda de estructuras y niveles. No fue necesaria, por tanto, la utilización de una metodología de excavación dirigida a comprender el registro estratigráfico y material del yacimiento. Para la documentación de las estructuras puestas al descubierto, además de dibujos en planta y fotografía, se empleó la fotogrametría a fin de obtener un levantamiento topográfico del área intervenida, así como ortofotografías y modelos del terreno georreferenciados esenciales para el registro planimétrico. La recogida de unos pocos materiales arqueológicos dispersos en la superficie del túmulo fue debidamente registrada, y éstos fueron depositados en bolsas de plástico herméticas individuales con su respectiva etiqueta y sigla, a fin de facilitar su inventariado y depósito en el Bibat.

Las técnicas empleadas para el estudio geofísico fueron la prospección magnética y el georradar. Para la primera se utilizó el sistema de gradiómetro tipo fluxgate Bartington G-601. Para la toma de datos se estableció una resolución espacial de 0.25 x 0.5 m, es decir, 8 lecturas por metro cuadrado. Para el segundo se utilizó un sistema IDS SOT custom, equipado con cinco antenas de 600 MHz en lectura simultánea. Los datos se obtuvieron con una resolución de 0.02 x 0.20 m, es decir, registrando perfiles separados 20 cm entre sí, con una lectura cada 2 cm sobre toda la extensión explorada. Los datos brutos obtenidos fueron después procesados mediante programas de software y parámetros específicos para cada técnica, a fin de calibrar las imágenes y obtener visualizaciones vectoriales para esquematizar los resultados, detectar las anomalías magnéticas y reflectivas más significativas y proceder a su síntesis e interpretación mediante cartografía SIG.

Todos los trabajos fueron documentados mediante fotografía y/o vídeo y registrados en un diario de campo que recogió los comentarios, anotaciones y datos relevantes de la intervención.

Desarrollo de los trabajos de campo

Los trabajos se desarrollaron durante tres jornadas laborales no consecutivas, concretamente los días 8, 15 y 16 de noviembre de 2022, debido a las condiciones meteorológicas y a la disponibilidad de medios humanos y materiales.



San Migel edo Las Carboneras tumuluaren erdiko/goiko gunean dokumentatutako lauzen xehetasunak eskaintzen dituen ortoargazkia, fotogrametria bidez lortua. Gezi zuriak adierazten du hego/hego-mendebaldeari begira dagoen lauzaren goiko aldeko ebakiaren norabidea.

Ortofoto con detalle a las losas documentadas en la zona central-superior del túmulo de San Miguel o Las Carboneras, obtenida a partir de fotogrametría. La flecha blanca indica la dirección de la entalladura que presenta la cúspide de la losa orientada al SSO.

Esku hartze arkeologikoak egun oso bat eskatu zuen. Gutxi gorabehera 10 m^2-tan lan egin zen, 2019an Iterbide S.C. enpresak (Niso eta Loza, 2019) irekitako 3 x 2 m-ko zundaketa inguratuz, gune hori suteak utzitako hondakinez garbitzeko, gainazaleko lurrak 2019an aurkitutako egituretara eta ukitu gabeko mailetara iritsi arte ateratzeko eta interesgune hori kalitatezko ehunezko sare batez eta lur gehiagorekin behar bezala babesteko.

Azterlan geofisikoari begira, tumuluaren hedadura teorikoa berme osoz hartuko zuen lan eremu bat ezarri zen, inguruko lur eremuaren koloreak eta osagai organikoek markatuko zuten eremu hori. Planteatutako eremua handiagoa bazen ere (6.400 m^2), teknika bakoitzerako erabilgarriak ziren lur eremuetara, lursailaren jabearen laguntzarekin aurretik egokitutako eremuetara, moldatu behar izan zen lan egiteko azalera. Guztira 4.822,54 m^2 aztertu ziren miaketa magnetikoan zehar, eta 3.633,66 m^2 georradarraren kasuan. Hasteko, gradiometro magnetikoa pasa zen 1 m-ko zerrenda erregularretan, ipar/ipar-ekialdetik hego/hego-mendebaldera. Ondoren, georradarraren bidez aztertu zen, zerrendetan eta ekialde/hego-ekialdetik mendebalde/ipar mendebaldera. Lan hori euriteek baldintzatu zuten guztiz, horrexegatik egin behar izan zen ondoz ondoko bi egunetako lanaldietan.

Azterlan geofisikoan zehar, tumulu osoaren gainazaleko miaketa egin zen gainazaleko material arkeologikoen balizko metaketak detektatu ahal izateko.

Emaitzak

Xumeak dira esku hartze arkeologikoaren esparruan dokumentatutako aztarnak. Tumulua garbitzeko eta babesteko esku hartzeari esker, berriz ere geratu ziren

La actuación arqueológica requirió una jornada y afectó a un área aproximada de 10 m^2, enmarcando la cata de 3 x 2 m abierta por Iterbide S.C. en 2019 (Niso y Loza 2019), a fin de limpiar la zona de los restos dejados por el incendio, despejar las tierras superficiales hasta dar con las estructuras y niveles intactos descubiertos en 2019 y proteger adecuadamente el área de interés mediante un geotextil de calidad y nuevos aportes térreos.

Para el estudio geofísico se estableció un área de trabajo que cubriese con garantía la extensión teórica del túmulo, marcado por la coloración y el componente orgánico del terreno circundante. Aunque la zona planteada tenía una extensión mayor (6400 m^2), la superficie de trabajo debió ser adaptada a las zonas del terreno practicables para cada técnica que dejó su acondicionamiento previo con la ayuda del propietario de la finca. Las extensiones finales cubiertas fueron de 4822,54 m^2 para la prospección magnética y 3633,66 m^2 para el georradar. Se procedió en primer término a pasar el gradiómetro magnético, en bandas regulares de 1 m siguiendo una dirección NNE-SSO. Posteriormente, se realizó el barrido mediante georradar en bandas dirección ESE-WNW, condicionado en parte por la intensa lluvia, por lo que hubo de dividir este trabajo en dos jornadas consecutivas.

Durante el estudio geofísico, se aprovechó a realizar una prospección superficial de todo el túmulo a fin de detectar posibles concentraciones superficiales de material arqueológico.

Resultados

Las evidencias documentadas en el marco de la intervención arqueológica son humildes. La actuación de limpieza y protección permitió volver a poner al descu-

agerian Iterbide S. C. enpresak 2019an bideratu zuen esku hartzean (Niso eta Loza, 2019) identifikatutako harrizko egiturak. Tumuluaren erdialdeko zoruan ia posizio bertikalean sartutako hiru lauza handi dira, induskatutako gunean gehienez ere 30 cm-tan nabarmentzen direnak. Modu honetan daude orientatuta:

– handienak (1,5 x 0,3 m) mendebaldera (280º) du orientatuta bere zeharkako ardatza (alde luzeen perpendikularrean),
– bigarren handienak (1,4 x 0,3 m) hego/hego-mendebaldera (202º) du orientatuta,
– eta txikienak (1,1 x 0,5 m) ipar-ekialdera (59º).

Duten antolamenduagatik, guk uste dugu gutxienez lehenengo biek jatorrizko kokapenari eutsi diezaioketela, izan ere, trikuharri motako hileta monumentu baten balizko ganberaren alboetako lauzak izan daitezke. Era berean lurrean sartuta dagoen arren, zalantza gehiago planteatzen ditu hirugarrenaren posizioak.

Itxura batean hiru lauzek kontserbatzen dute beren gailurren jatorrizko morfologia ukitu gabe, eta beraz, iraganean hausturarik nozitu ez dutela berresteaz gain (nahiz eta lauza handienean goldearen arrastoak identifikatzen diren), monumentuak, gutxienez gune horretan, hileta ganberaren altuera osoa kontserbatzen duela iradokitzen dute, estalkia baizik falta ez zaiola. Ildo horretan, deigarria da bigarren lauzaren gailurrean, alde luzeen paraleloan eta barruko aurpegian beheratuago (ganberaren barrunbeari begira), bereizten den itxura antropikoko ildaska. Zizelkatze lan hori segur aski harrizkoa izango zen ganberako estalkiari eusteko balioko zuen.

Lurrean sartutako hiru lauzez gain, 0,9 x 0,8 x 0,2 metroko lauza puska handi bat dokumentatu genuen, horizontalean etzanda, ganberako lehenengo lauzaren (mendebaldean) ondoan. Zaila da zehaztea zati hori monumentuari dagokion ala tumuluaren erdiraino herrestan iritsia den, tumuluaren erdialde hori harriak pilatzeko gune gisa erabili baita inguruan agertzen diren harri puska txikiagoekin batera. Nolanahi ere, kontuan harturik lauza puska horren pisua eta neurriak, ez zaigu zentzugabea iruditzen monumentua eratuko zuten egituren zati bat izatea pentsatzea, ganberako lauza bat, estalkia edo beste elementuren bat (esate baterako, korridoreko pieza, halakorik baldin bazegoen).

Azkenik, esan beharra dago aztertutako eremuan ez genuela ustezko hileta ganberan ukitu gabe kontserbatutako deposituei edo maila arkeologikoei buruzko informazioa eskain ziezagukeen aztarna arkeologikorik aurkitu. Berreskuratutako aztarna bakarrak tumuluaren gainazalean bideratutako miaketa lanetan zehar bildutakoak dira, hau da, segur aski Urbasatik ekarria den suharriaren lanketatik etorritako hondakin bat eta ezin zehaztuzko hezur hondakin bi.

Azterlan geofisikoaren emaitzen kalitatea, onargarria izanda ere, hein batean baldintzatuta gertatu da bereziki georradarraren kasuan: lur eremuaren irregulartasuna (lehendik moldatu bazen ere), bertan metatutako hezetasuna datuak hartu zirenean, eta tokiko jalkinen ezaugarri buztintsuak izan ziren baldintzatzaile nagusiak. Hala eta guztiz ere, erabilitako bi tekniken konbinazioari esker, tumuluaren morfologiari eta haren kontserbazio egoerari buruzko eta tumulu barruko egiturazko elementuei buruzko datu garrantzitsuak lortu ahal izan dira.

bierto las estructuras pétreas identificadas en la intervención de Iterbide S.C. de 2019 (Niso y Loza 2019). Se trata de tres grandes losas hincadas en posición cuasivertical en el suelo de la zona central del túmulo, que sobresalen de la zona excavada no más de 30 cm. Están orientadas de la siguiente manera:

– la de mayores dimensiones (1,5 x 0,3 m) tiene su eje transversal (perpendicular a sus lados largos) orientado al O (280º),
– la segunda en tamaño (1,4 x 0,3 m) lo tiene orientado al SSO (202º),
– la más pequeña (1,1 x 0,5) lo tiene orientado al NE (59º).

Por su disposición, creemos que al menos las dos primeras pueden mantener la ubicación original, pudiendo ser losas laterales de la posible cámara de un monumento funerario tipo dolmen. La posición de la tercera deja más dudas pese a estar también hincada.

Las tres losas parecen conservar intacta la morfología original de su cúspide, lo que además de corroborar que no han sufrido fracturas en el pasado (aunque hay marcas de arado en la losa mayor), sugiere que el monumento conserva, al menos en esta zona, la altura completa de la cámara sepulcral, a falta de su cubierta. Llama la atención, en este sentido, la existencia de una entalladura de probable factura antrópica en la cúspide de la segunda losa, paralelo a sus lados largos y más rebajada en la cara interna (la que daría al interior de la cámara). Este entallado serviría para apoyar la cubierta, seguramente pétrea, de la cámara.

Además de las tres losas hincadas, se ha documentado un gran fragmento de losa de 0,9 x 0,8 x 0,2 m dispuesto en posición horizontal, junto a la primera losa (O) de la cámara. Es difícil establecer si este fragmento corresponde al monumento o ha sido arrastrado hasta el centro del túmulo, que ha servido como majano, junto a otros fragmentos pétreos más pequeños que aparecen en la zona. No obstante, por su peso y dimensiones, no nos parece descabellado pensar que realmente formase parte de las estructuras que constituían el monumento, sea una losa de la cámara, su cubierta u otro elemento (p.e. el corredor, si es que lo hubo).

Por último, cabe comentar que no se halló en la zona intervenida resto arqueológico susceptible de aportar alguna información sobre el depósito o niveles arqueológicos intactos conservados en la supuesta cámara sepulcral. Los únicos restos recuperados corresponden a la recogida durante la prospección superficial del túmulo y se restringen a un resto de talla en sílex, probablemente de Urbasa, y dos restos óseos inidentificables.

La calidad de los resultados del estudio geofísico, aunque correcta, se ha visto en parte afectada, especialmente en el caso del georradar, por tres condicionantes: la irregularidad del terreno (pese a su adecuación previa), la humedad acumulada en éste en el momento de la toma de datos y las propiedades arcillosas de los sedimentos locales. Pese a ello, la combinación de ambas técnicas empleadas ha permitido obtener datos relevantes no sólo sobre la morfología tumular y su estado de conservación, sino también sobre elementos estructurales internos.

Formaren ikuspuntutik, miaketa magnetikoak aukera eman du joera magnetiko positiboko irregulartasun multzo bat detektatzeko 45-50 m diametro inguruko forma eliptikoko perimetro batez inguratuta; segur aski tumulua eraikitzeko ekarritako materialak izango dira. Elipse horren erdialdeko gunean neutroagoa da erantzun magnetikoa, baina balioak handiagoak dira perimetroan, puntu horietan depositu magnetikoen lodiera handiagoa dela iradokiz, mapa magnetikoan goldearen arrastoen agerikotasun handiagoan ere eragiten duela, batez ere iparraldean, perimetroaren puntu horretan baita nabarmenena erantzun magnetikoa. Horretatik ondorioztatzen da laborantza lanek, denboraren joanean, tumuluaren estratigrafian eta haren egituraren osotasunean eragin dutela: erdialdeak, gune garaienak, nozitu du higadurarik handiena, eta ziur aski metro bete galdu du, gutxienez, altueran, perimetroko guneen mesedetan, perimetrora desplazatuko baitzen materialen bolumena eta perimetroan baitira agerikoen goldeak herrestan eramandako jalkinak.

Georradarraren ebaki horizontalen sekuentziaren azterketak, bere aldetik, ez du miaketa magnetikoan identifikatutako aldaketekin bateragarriak diren estratigrafia aztarnen ebidentziarik eskaini. Horrek esan nahi du tumuluari bolumena emateko jarritako balizko sedimentuen erantzun magnetiko desberdinek ez dutela alde nabarmenik tokiko sedimentuekiko, konduktibitateari edo porositateari dagokienez. Georradarraren ekarpen nagusia tumuluaren gainean detektatutako hiru irregulartasun multzoak izan dira, esku hartze arkeologikoak emandako informazioari eta jarraipenari dagokienez. Datuen kalitate mugatuak detektatutako egituren eskematizazio zehatza ahalbidetzen ez duen arren, indusketa lanetan dokumentatutakoen antzeko harrizko bloke handiak izan daitezke. Zalantza hori egituren kontserbazio egoerara eta barruko egituren banaketara hedatzen da, bloke batzuen lur jotze partzialak ganberaren jatorrizko morfologiaren irudi engainagarria eskain baitezake. Hala eta guztiz ere, badago hileta ganbera eta/edo alboetako egiturak egongo ziren eremuaren gutxi gorabeherako forma eta gehieneko hedadura (14 x 6 m) planteatzea, baita hego-ekialdeari begira egongo zen ustezko korridorearena ere, 40-60 cm bitartean kontserbatua, gainazaletik behera gutxienez 120 cm-tan. Era berean, aipatzekoa da perimetroaren mendebaldean jasotako erantzun nabarmena, osaera heterogeneoko depositu batekin identifikatzen dena; segur aski harrizko blokeen metaketa bat izango da, informazio gehiago izan ezean interpretatzen zaila dena.

Konklusioak eta etorkizuneko perspektibak

Hauexek lortu dira 2022ko azaroan San Migel edo Las Carboneras tumuluan (Matura, Araba) bideratutako esku hartzean zehar:

– Berretsi egin da 2022ko uztaileko suteak ez zuela Iterbide S. C. enpresak 2019an bideratutako esku hartzean aurkitutako egituretan eragin. Bestalde, egitura horiek hobe babestu dira etorkizunari begira.

– Kontserbatutako lauzen antolaera dokumentatu da eta berretsi egin dira itxura batean ukitu gabe dauden maila arkeologikoak, gutxienez lauzek mugatutako gunean.

Desde el punto de vista formal, la prospección magnética ha permitido detectar un conjunto de alteraciones de tendencia magnética positiva delimitados por un perímetro de forma elíptica de cerca de 45-50 m de diámetro, que se correspondería con los materiales posiblemente aportados para la construcción del túmulo. En el espacio central de esta elipse la respuesta magnética es más neutra, mientras que en el perímetro los valores son más acentuados, sugiriendo una mayor potencia de depósitos magnéticos que influye también en la mayor visibilidad de las trazas de arado en el mapa magnético, sobre todo en su lado norte, donde aparece más alterado el perímetro. De ello se infiere que la actividad agrícola ha afectado a lo largo del tiempo tanto a la estratigrafía del túmulo como a su integridad estructural: la zona central y más elevada ha sufrido una mayor erosión, perdiendo seguramente al menos 1 m de la altura original, en favor de la zona perimetral, a donde se desplazaría el volumen de materiales y donde el arrastre de sedimentos por el arado es más evidente.

El análisis de la secuencia de cortes horizontales del georradar, por su parte, no ha arrojado evidencias de restos de estratigrafía compatibles con las variaciones identificadas en la prospección magnética. Esto implica que las diferencias de respuesta magnética de los posibles sedimentos aportados para dar volumen al túmulo no comportan una diferencia remarcable en términos de conductividad o porosidad respecto a los sedimentos locales. El georradar ha aportado como elemento más relevante la detección de tres grupos de anomalías en la cima del túmulo y en relación y continuidad con la información aportada por la intervención arqueológica. Aunque la calidad limitada de los datos no permita una esquematización precisa de las estructuras detectadas, presumiblemente pueden corresponderse con grandes bloques de piedra similares a los documentados en la excavación. Esta incertidumbre se extiende a la conservación y distribución interna de las estructuras, ya que el derrumbe parcial de algunos bloques podría implicar una imagen engañosa de la morfología original de la cámara. A pesar de ello, es posible plantear la ubicación, forma aproximada y extensión máxima del área donde se ubicaría la cámara sepulcral y/o estructuras colindantes (14 x 6 m), así como un posible corredor orientado al sureste y conservado entre 40-60 cm y, al menos, 120 cm bajo la superficie. Así mismo, caber referir la detección de una zona con respuesta convulsa al oeste del perímetro, identificada como un depósito de composición heterogénea probablemente con acumulación de bloques pétreos y de difícil interpretación a falta de mayor información.

Conclusiones y perspectivas de futuro

Durante la intervención realizada en noviembre de 2022 en el túmulo de San Miguel o Las Carboneras (Maturana, Álava) se ha logrado:

– Corroborar la no afectación del incendio de julio de 2022 a las estructuras descubiertas en la intervención de Iterbide S.C. en 2019 y protegerlas mejor de cara al futuro.

– Documentar la disposición de las losas conservadas y corroborar la presencia de niveles arqueológicos aparentemente intactos al menos en el área delimitada por éstas.

– Tumuluaren perimetroa ezarri da eta identifikatu egin dira laborantza lanek tumuluaren morfologian eta kontserbazio egoeran eragindako aldaketak.
– Detektatu eta mugatu egin dira ustezko ganbera, korridorea eta tumuluaren azpian dauden gainerako egiturak.

Aurkikuntza berezi gisa, aipatzekoak dira:

– Monumentuaren ganberako lauza baten gaineko gune zizelkatua, ganbera estaliko zuen estalkiaren alboetako bati eutsiko ziona.
– Osaera heterogeneoko depositu bat, segur aski tumuluaren perimetroaren mendebaldean metatutako harrizko blokeez osatua, oraingoz interpretatzen zaila.

Ezin izan dira:

– Monumentua testuinguruan jartzeko eta/edo datatzeko aztarnak berreskuratu, gainazalean jasotako balio diagnostiko txikiko aztarna arkeologiko gutxi batzuk izan ezik.

Burura eramandako lan guztietatik ateratako datuekin dokumentu eta kartografia base zehatz bat osatu da, eta base hori Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaio aztarnategia behar bezala katalogatu dezan eta ezinbesteko lege babesa berma dezan.

– Establecer el perímetro del túmulo e identificar las alteraciones causadas por las labores agrícolas sobre su estado de conservación y morfología.
– Detectar y delimitar la posible cámara, corredor y demás estructuras adyacentes que subyacen bajo el túmulo.

Como hallazgos particulares, cabe citar:

– Una entalladura en la cúspide de una de las losas de la cámara del monumento, destinada a soportar uno de los laterales de la tapa que lo cubriría.
– Un depósito de composición heterogénea, seguramente con presencia de bloques pétreos en el lado oeste del perímetro del túmulo, de difícil interpretación por el momento.

No se ha podido:

– Recuperar evidencias que permitan contextualizar y/o datar el monumento, salvo unos pocos restos arqueológicos de escaso valor diagnóstico recogidos en superficie.

Con los datos extraídos en todos los trabajos efectuados se ha obtenido una base documental y cartográfica detallada que se transmitirá al Gobierno Vasco a fin de catalogar el yacimiento debidamente y garantizar su necesaria protección legal.

J. Ordoño Daubagna, P. Rodríguez Simón, R. Sala Bartrolí, E. Gartzia Gartzia, J. Niso Lorenzo, M. Loza Uriarte, L.M. Martínez Torres, T. Fernández-Crespo

A.9. BERANTEVILLA

A.9.1. Los Cascajos

III. kanpaina
Zuzendaritza: Antonio Tarriño Vinagre; Mikel Aguirre Ruiz de Gopegui
Dirulaguntza emailea: Arabako Foru Aldundia

A.9.1. Los Cascajos

III. Campaña
Dirección: Antonio Tarriño Vinagre; Mikel Aguirre Ruiz de Gopegui
Subvención: Diputación Foral de Álava

The 3rd season of sondages in the Los Cascajos settlement (Tobera, Berantevilla, Álava) focused on various archeomagnetic anomalies grouped together around 25-30 m north of sondage 6 (2021 season). As well as being in a better state of conservation, the structures distributed to the north of the settlement were also found to be older, dating from the transition from the Neolithic to the Chalcolithic.

Historiaurreko Los Cascajos (Tobera, Berantevilla, Araba) herrixkak, 80. urteez geroztik gainazalean bideratutako miaketa lanei esker eta Helmut Becker geofisikoak eta Anne Sophie Flade-Becker arkeologoak 2018. eta 2019. urteetan bideratutako prospekzio magnetikoari esker ezagutzen denak, 7 hektareatik gorako azalera du. Hirugarren ekinaldi honetan 15 x 10 m-ko (150 m^2) zundaketa bakar bat planteatu da plano orokorreko 1K koadrantean, 5 x 5 m-ko koadroak hartzen dituen gunean. Jada 6. zundaketak agerian utzi zuen, kanpaina honetan berretsi den bezala, herrixkaren iparraldeko eremuko egituren kronologia lehenagokoa zela eta alde hori hobe kontserbatzen zela. Ondorioz, kontuan harturik denbora eta aurrekontu mugatuak, 7. zundaketa honetan ipar-ekialdeko erdian agerian utzitako bizitegi egiturara mugatu behar izan genuen esku hartzea.

El poblado prehistórico de Los Cascajos (Tobera, Berantevilla, Álava), conocido desde los años 80 por prospecciones superficiales y sometido a prospección magnética por el geofísico Helmut Becker y la arqueóloga Anne-Sophie Flade-Becker durante los años 2018 y 2019, posee más de 7 ha de extensión. En esta 3ª campaña se ha planteado un único sondeo de 15 x 10 m (150 m^2) situado en el cuadrante 1K del plano general, y que comprende los cuadros (5 x 5 m). El sondeo 6 ya aportó fuertes indicios, confirmados en esta campaña, de una cronología más antigua y una mejor conservación de las estructuras del área norte del poblado, hasta el punto de tener que restringir la intervención en este sondeo 7 a la estructura de habitación desvelada en su mitad noreste, en una superficie de 10 x 7 m, dadas las limitaciones de tiempo y presupuesto.



Ezkerrean, bizitegi egituraren ikuspegi orokorra, hura babestu eta estali aurretik. Eskuinean, azken okupazio fasea: ongi asko ikusten dira errekuntza guneek eratutako eraztuna eta jalkin limotsu hareatsu beltz koipetsua.

A la izquierda, vista general de la estructura de habitación, antes de su protección y cubrición. A la derecha, última fase de ocupación; es visible un anillo de áreas de combustión y sedimento limo arcilloso negro grasiento.

Legarretan eta glaziseko limoetan induskatutako bizitegi egitura bat da, formaz gutxi gorabehera obalatuarekin, ondoan 3 silo edo zulo dituela. Glazisean egindako zulo ugariez (52 identifikatu dira) inguratuta dago, zulo horien diametroak 10 eta 30 cm bitartekoak direla. Baliteke zulo horietako batzuek motzondoen negatiboak izatea, baina gehien-gehienak antropikoak dira argi eta garbi, eta bizitegi baten hondoaren inguruan egokitzen dira: itxituraren eta estalkiaren ebidentziak dira. Oraindik ezin izan dugu zehaztu non zuen sarrera, eta konponketen eta zuinketen dinamikak interpretatzen oso zaila den palinpsesto bat osatu du itxituraren eta estalkiaren egiturari dagokionez.

Kontserbazio egoera bereziki onean dago, 60 cm-tik gorakoa da lodiera emankorra. Gutxienez bi okupazio fase identifika daitezke, eta hirugarren abandonatze eta amortizatze fasea. Hauxe da orain arte ezagutzen den sekuentzia (sabaitik zorura, induskatutako geruzen arabera –batez beste 10 cm lodi– eta indusketa lanak artean amaitu gabe daudenean):

1. Laborantza geruzaren azpiko paketea, goldeak eraldatutako glazisa. Limo hareatsuak, klasto eta bloke askorekin, oso trinkoa.
2. Urritu egiten dira blokeak, klastoak eta matrize hareatsua eta limotsua duten legarrak. Tarte batzuetan goldeak ukitua da. Zeramika beiratuzko zati batzuk dauzka. Induskatu ondoren, etxolaren erdialdeko egituraren orban ilun buztintsua, glazisaren sabaia eta inguruko egitura gehigarriak (sutondoa, paldo zuloak eta siloak) zehazten dira.
3. Maila ukitu gabea, ongi kontserbatzen dena, etxolaren amortizazio faseari (3.a) eta abandonatzeari dagokiena. Limo hareatsu beltzaxkak klastoekin eta legarrekin. Zeramikazko eta harrizko material ugari. Fase honetan errekuntza guneek eraturiko eraztun bat eta sedimentu limotsua eta buztintsua, beltza eta koipetsua, bereizten dira, baita sutondoaren azken erabilera aldia ere.
4. 2. okupazio faseari dagokion maila. Mailaren oinetan itxura batean bere abiapuntua markatzen duen errautsaren koloreko geruza bat bereizten da. Sutondoren erabilera une gorenari dagokio. Zeramikaz-

Se trata de una estructura de habitación excavada sobre gravas y limos del glacis, de forma más o menos oval poco definida, con 3 silos o pozos adyacentes a ella. Está rodeada por multitud de perforaciones en el glacis (52 identificadas) de diámetros variables entre 10 y 30 cm. Contemplamos la posibilidad de que algunos de ellos sean negativos de tocones, pero la mayoría son evidentemente antrópicos y se sitúan alrededor del fondo de habitación, y constituyen la evidencia del sistema de cerramiento y cubierta. Aún no hemos podido definir el emplazamiento de la entrada, y la dinámica de reparaciones y replanteos ha formado un palimpsesto que resulta de muy difícil interpretación, en cuanto a la estructura de cerramiento y cubierta.

Su grado de conservación es excepcional, con una potencia fértil que supera los 60 cm. Pueden identificarse al menos dos fases de ocupación y una tercera de abandono y amortización. La secuencia conocida hasta el momento (de techo a muro, según las capas excavadas, de unos 10 cm de espesor medio, y a falta de finalizar su excavación) es la siguiente:

1. Paquete bajo la capa de cultivo, glacis afectado por el arado. Limos arenosos con abundantes clastos y bloques, muy compacto.
2. Disminuyen los bloques, clastos y gravas con matriz areno limosa, ocasionalmente afectado por el arado. Con algo de material cerámico vidriado. Tras su excavación se define la mancha negra arcillosa de la estructura central de la cabaña, el techo del glacis y las estructuras adicionales de la periferia (hogar, agujeros de poste y silos).
3. Nivel intacto y bien conservado, correspondiente a la fase de amortización (3ª) y abandono de la cabaña. Limos arenosos negruzcos con clastos y gravas. Abundante material cerámico y lítico. En esta fase, se observa un anillo de áreas de combustión y sedimento limo arcilloso negro grasiento, y la última fase de uso del hogar.
4. Horizonte correspondiente a la 2ª fase de ocupación, a cuyo muro se define un nivel ceniciento que parece marcar su inicio. Es el momento de pleno



Ezkerrean, egituraren barruan berreskuratutako harrizko tresneria: gezi punten urrunaldeko zatikiak; ustezko igitai orria, ukitu lauarekin; xaflan landutako marruska eta gailur zatia. Eskuinean aizkora leunduak eta amortizatuak, edo berriz zizelkatzeko eta leuntzeko prozesuan daudenak (goi ezkerrekoa ofitazkoa, eta beste hiruak suharrizkoak).



A la izquierda, industria lítica recuperada en el interior de la estructura: fragmentos distales de puntas de flecha; posible hoja de hoz en retoque plano; raspador sobre lámina, y fragmento de cresta. A la derecha, hachas pulimentadas y amortizadas o en proceso de retalla, abujardado y pulimento (superior izquierda de ofita y las otras tres de sílex).

ko eta harrizko material asko eskaintzen ditu, zizelkatuak eta leunduak.

5. Behin-behinean bada ere, gure ustez bizitegi egituraren fundazio maila litzateke honakoa, sutondoa betebetean erabiltzen zuten garaikoa. Sutondoa itxura batean suarekin lotutako funtzioak betetzen zituen harrizko bloke handien metaketa handi baten eta enkatxo partzial baten ondoan zegoen.

Oso oparoa da bizitegi egitura honetan berreskuratutako material arkeologikoa, nola zeramikazkoa hala harrizkoa.

Zeramikazko materialari dagokionez, aipatzekoak dira dekorazioen absentzia, eskegitzeko zulo ez gutxi, hondo lauren bat eta galbo edo sabelen bat, karena arin batez estalirik.

Aniztasun interesgarria eskaintzen du harrizko tresneriak. Araiko mendikateko meategi multzotik gertu dauden harrobietatik etorritako tokiko suharrian landuak dira tresnak, horien freskotasun mailak erakusten duenez, ez baitute agerian egon izanaren estigmarik agertzen. Ugari dira karrakagailuak eta laska handietan landutako dentikulatuak eta marruskak. Xaflen ekoizpenarekin lotutako teknotipoak daude, hala nola zuzeneko perkusio arrastoak izan ditzakeen birbizituren bat eta segur aski teknika horren bidez lortutako xafla zatiak. Aipatzekoak dira ukitu lauak dituzten zati batzuk, ukitu lau estalgarriak dituen dekalotatu xafla bat eta bi aurpegiko gezi punten bi zati. Halaber, nabarmentzekoak dira leungailuak, gehienak amortizatuak: edo berriz landuak eta beste leunketa prozesu baten zain daudenak, edo puskatuta eta zoruko enkatxora bilduak, suharrizko mutxardaren batekin batera. Elementu horietako batzuk multzokatuta agertzen dira ondoko siloetan.

Nabarmentzekoa da hezurrezko tresneriaren kontserbazioa (bertan diren fauna hondakinez gain). Horien artean, aipagarriak dira hezurrezko puntzoiak eta adarrean landutako ustezko gezi punta baten ale bat.

uso del hogar. Libra abundante material cerámico y lítico, tanto tallado como pulimentado.

5. Provisionalmente, se trataría del horizonte de fundación de la estructura de habitación, con el hogar en pleno funcionamiento, junto a una gran acumulación de piedras tamaño bloque que parece cumplir funciones relacionadas con el fuego, y un encachado parcial.

El material arqueológico recuperado en esta estructura de habitación es muy abundante, tanto cerámico como lítico.

En cuanto al material cerámico, destaca la ausencia de decoraciones, las relativamente frecuentes perforaciones de suspensión, algún fondo plano y algún galbo con ligera carena.

La industria lítica ofrece una variedad interesante. La industria tallada se realiza sobre sílex local procedente de las cercanas canteras del complejo minero de la Sierra de Araico, como evidencia su grado de frescura, ausentes los estigmas de exposición a la intemperie. Abundan las raederas y denticulados en grandes lascas y los raspadores. Hay tecnotipos relacionados con la producción laminar, como algún avivado con posibles indicios de percusión indirecta, además de fragmentos de lámina posiblemente obtenidas con esta técnica. Destacan varios fragmentos de retoque plano, una lámina de decalotado con retoques planos cubrientes y dos fragmentos de puntas de flecha bifaciales. Destacan asimismo los pulimentos, la mayor parte amortizados: o bien retallados y pendientes de un nuevo abujardado y pulimento, o rotos e incorporados al encachado del suelo, junto a alguna bujarda de sílex. Algunos de estos elementos aparecen agrupados en cachés en los silos adyacentes.

Es destacable la conservación de industria ósea (además de los restos de fauna, presentes), como punzones de hueso o algún posible ejemplar de punta de flecha en asta.

Aurreko ekinaldietan ez bezala, 7. zundaketan agerian utzitako bizitegi egituraren lodiera estratigrafikoa eta kontserbazio maila oztopo izan ziren indusketa lanak osorik amaitzeko eta dokumentatzeko. Urtero lantzen diren lurrak izanik eta horrek dakartzan afekzio arriskuak kontuan hartuta, egiturak ehunezko sare batez babesteko erabakia hartu genuen, goldearen hortza sartzen den mailaraino iritsi gabe, eta ondoren, maila horretaraino lurrez betetzea. Zaku beteen erabilera saihestu genuen, goldearen hortzarekin katigatu eta mugitu baitaitezke.

Une honetan egiten ari diren erradiokarbono bidezko datak eskuratzen ez ditugun bitartean, 7. zundaketa honetan induskatutako bizitegi egiturak berretsi egiten ditu 2021eko 6. zundaketan iradokitakoak; hau da, Los Cascajos herrixkaren iparraldeko eremua izango da, ziur aski, kronologia zaharreneko eremua. Materialek Neolitoaren hasierara edo Kalkolitoren azken garaira garamatzate, hots, K.a. IV. eta III. milurtekoen bitarteko garai batera.

El grado de conservación y la potencia estratigráfica de la estructura de habitación desvelada en el sondeo 7 impidió finalizar definitivamente su excavación y documentación, como en las anteriores campañas. Dado su carácter de terreno de cultivo anual con los riesgos de afección que ello conlleva, se optó por la protección de las estructuras con tela geotextil, procurando que no superara la cota de penetración del arado, y efectuar un relleno directo hasta este nivel. Se ha evitado el uso de sacos rellenos, susceptibles de ser enganchados por la reja y removidos.

Hasta la obtención de fechas radiocarbónicas, en proceso de gestión, la estructura de habitación excavada en este sondeo 7 confirman los indicios apuntados en 2021 en el sondeo 6, esto es, que el área norte del poblado de Los Cascajos constituye, posiblemente, la zona de cronología más antigua. Los materiales apuntan a un momento reciente del Neolítico o antiguo del Calcolítico, a caballo entre el IV y III milenio a.C.

M. Aguirre; A. Tarriño

A.10. BERNEDO

A.10.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.10.1.1. **Harresiaren interpretazio gunea. 7. poligonoko 267. eta 268. lursailak**

Zuzendaritza: Raúl Leorza
Finantzazioa: Bernedoko Udala

A.10.1.1. **Centro de interpretación de la muralla. Parcelas 267 y 268 del polígono 7**

Dirección: Raúl Leorza
Financiación: Ayuntamiento de Bernedo

Archaeological intervention designed to monitor the transformation of these plots in preparation for the erection of information boards focusing on the walls.

Bernedo Hiriko Erdi Aroko Harresia Interpretatzeko gunearen eraikuntza egin nahi den hiriko bi lursailetako lur mugimenduen gaineko kontrol arkeologiko bat eraman da burura. Fase honetan lursailak berdindu egin dira, gehienez ere 0,60 m-ko kotara beheratuta. Sakonera handiko laborantza lurra da (orain gutxira arte baratze gisa erabili dira lur horiek), materialik gabea.

Ezin izan genuen harresiarekin lotu zitekeen egiturarik aurkitu, lursail hauetako batean egon behar bazuen ere. Mugitutako lurren gaineko eta obra gauzatzeko lanen gaineko kontrol lanak egin genituen lan horiek amaitu ziren arte.

Se ha llevado a cabo un control de la remoción de terreno en dos parcelas urbanas donde se pretende la construcción de un Centro de Interpretación de la Muralla Medieval de la Villa de Bernedo. En esta fase se ha procedido al explanado de las parcelas, bajando a una cota máxima de 0'60 m. Se trata de una tierra de cultivo muy profunda (se han usado como huertas hasta hace poco) sin materiales.

No se pudo localizar estructura alguna que se relacionara con la muralla, que debería discurrir por una de estas parcelas. Se ha procedido al control de la remoción de tierras y a la ejecución de la obra hasta su resultado final.

R. Leorza

A.11. IRUÑA DE OCA / IRUÑA OKA

A.11.1. Iruña / *Veleia*. Prospekzio geofisikoak

Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia; Eusko Jaurlaritza

A.11.1. Iruña / *Veleia*. Prospecciones geofísicas

Financiación: Diputación Foral de Álava; Gobierno Vasco

In 2022, two different series of geophysical prospecting were carried out. First, the company SOT used geo-radar to explore the site's current parking area (plot 245 in Estate 3) and the immediate vicinity of the visitors' centre; second, the company Geozone Asesores carried out prospecting with geo-radar and magnetometry in part of plots 98, 99 and 245 of Estate 3. The two interventions are described below.

2022an bi prospekzio geofisiko bereizi eraman ziren burura Iruña-Veleian. Alde batetik, SOT enpresari eskatu zitzaion georradarraren bidez esploratu zitzala aztarnategiko egungo aparkalekua (3. poligonoko 245. lursaila) eta bisitari gunearen inguru hurbila; bestetik Geozone Asesores enpresari esleitu zitzaizkion 3. poligonoko 98, 99 eta 245. lursailen zati batzuetan georradarraren eta magnetometriaren bidez egin beharreko prospekzio lanak. Jarraian, xehetasun osoz azalduko ditugu bi esku hartze horiek.

3. poligonoko 245. lursaila. Aparkalekua eta bisitari gunearen ingurua

Zuzendaritza: Roger Sala Bartrolí

Egungo bisitari gunearen ingurua eta ondoko aparkalekua egokitzeko eta hobetzeko obrak egiteko beharraren aurrean, kontserbatu ahal izan diren elementu arkeologikoei buruzko prebentziozko informazioa lortzea izan zuen helburu nagusia planteatutako esku hartzeak. Esku hartzeko bereizitako eremuak, alde batetik, katastroaren arabera Iruña Okako 3. poligonoko 245. lursailaren zati batean egokituta dauden aparkalekuaren eta aparkalekuari lotutako zerbitzu guneen azalera eta, bestetik, poligono bereko 1321. lursailean egokitutako errepidearen zati baten azalera izan zituen xede. Guztira 5295 m^2-ko azalera miatu genuen tuparriak eta kareharriak eta kalkarenitak txandaka agertzen diren testuinguru geologikoan, guneen arabera legar eta asfalto hondarrez estaliriko testuinguru lauak, asfaltoa errepide tartean eta landare estalkiko guneak txandakatzen zituzten gainaldeetan, nagusiki gaur egungo bisitari gunearen inguruan.

Aztarnategiko sektore hori bera lehendik ere esku hartze arkeologiko batzuen xede izan zen 20905 eta 2007 bitartean, aparkalekua bera eraikitzeko lanetan zehar. Ordu hartan zundaketa batzuk eta obren gaineko jarraipen arkeologikoa egin ziren (Gil, 2007). Esku hartze horiek II. Burdin Aroko, Goi inperioaren garaiko eta Erdi Aro osteko okupazio mailak egiaztatzeko aukera eman zuten, nahiz eta erromatarren garaiko egiturazko aleak gutxi ziren; azken horiek prospekzio lan hauei begira bereiziriko eremutik kanpora daude nagusiki. Eraikuntza egiturei buruzko erreferentzia fidagarrien gabezia horixe izan zen prospekzio geofisiko bat burura eramateko planteamendua egiteko arrazoi nagusia.

Datuen bilketa eta landa lana 2022ko apirilaren hamaikan eraman ziren burura IDS SOT custom georradar

En 2022 se llevaron a cabo dos campañas de prospecciones geofísicas diferenciadas en Iruña-Veleia. Por una parte, se encargó a la empresa SOT la exploración mediante georradar del actual aparcamiento del yacimiento (parcela 245 del polígono 3) y del entorno inmediato al centro de visitantes; por otra, se adjudicó a la empresa Geozone Asesores una prospección con georradar y magnetometría en parte de las parcelas 98, 99 y 245 del polígono 3. Ambas actuaciones se detallan a continuación.

Parcela 245 del polígono 3. Parking y entorno de centro de visitantes

Dirección: Roger Sala Bartrolí

La intervención, planteada ante la necesidad de realizar obras de adecuación y mejora en el entorno del actual centro de visitantes y su zona de aparcamiento, tuvo como objetivo principal la obtención de información preventiva en relación con posibles elementos arqueológicos conservados. El área de intervención designada se centró en la superficie del parking y zonas de servicio relacionadas, ubicadas catastralmente en parte de la parcela 245 del polígono 3 de Iruña Oka, así como parte de la carretera de acceso que corresponde a la parcela 1321 del mismo polígono. La superficie total de prospección fue de 5395 m^2, en un contexto geológico de alternancia de margocalizas, margas calizas y calcarenitas, en superficies que alternaban, según zonas, contextos llanos con cubierta de restos de asfalto y gravas, asfalto en el tramo de carretera y zonas de cubierta vegetal, principalmente en el entorno del actual centro de visitantes.

Este mismo sector del yacimiento había sido objeto de intervenciones arqueológicas previas, entre 2005 y 2007 durante los trabajos de construcción del propio parking, mediante la ejecución de sondeos y de un seguimiento arqueológico de las obras (Gil, 2007). Estas intervenciones permitieron constatar diferentes niveles de ocupación de la II Edad del Hierro, alto imperiales y postmedievales, aunque con limitados ejemplos estructurales para cronologías romanas, situados principalmente fuera del área designada para esta prospección. Esta carencia de referencias fiables en cuanto a estructuras constructivas llevó, como motivo principal, a plantear esta intervención de prospección geofísica.

La toma de datos y el trabajo de campo se desarrollaron el día once de abril de 2022, utilizándose un siste-



Ebaki horizontalen sekuentziaren hautaketa metagarria (0,38 eta 0,73 m bitarteko sakonerak) eta emaitzen interpretazioaren laburpena.

Selección acumulativa de secuencia de cortes horizontales (profundidades entre 0.38 y 0.73 m) y síntesis interpretativa de resultados.

sistema erabiliz. Sistema hori aldi bereko irakurketa egiten duten 600 MHz-ko bost antenaz hornituta dago, datuak 0,02 x 0,20 m-ko bereizmenarekin hartu ziren, hau da, elkarren artean 20 cm-ko tartea utzirik jaso ziren profilak, miatutako zabalera osoan irakurketa bat eskainiz 2 cm bakoitzeko. Lortutako seinalearen kalitatea ona izan bada ere, laneko azaleraren zati handi batean mugatua izan da sarketa, metro bete pasatxo gaur egungo mailatik behera. Sakonera horretatik aurrera nabarmen apaltzen da seinale/hots ratioa, eta ondorioz ezin izan genuen informazio esanguratsurik lortu.


Lortutako datuei esker, aztertutako gainazalen eta guneen ezaugarrien eta kontrasteen desberdintasunak gorabehera, datu garrantzitsuak lortu dira, batez ere egitura arkeologikoen lur jotzeak eragindako betegarri eta aldaketa estratigrafiko gisa interpretatu daitezkeen eraikuntza elementuekin edo irregulartasun islatzaileekin bateragarriak diren irregulartasun linealen deskribapenean. Irregulartasun horiek aukera eman zuten espektatiba arkeologiko handieneko guneak eta aztarnak hobekien kontserbatu diren guneak definitzeko eta emaitzen dentsitate apalagoa eta arrisku arkeologiko txikiagoa duten guneetatik bereizteko.

Emaitza garrantzitsuenak aparkalekuaren erdialdean, ipar-ekialdeko alboan, errepidearen trazaduraren azpian eta, hein apalagoan, hego-ekialdeko muturrean, bisitari guneko lorategi aldean, banatzen dira. Gainazaleko mailen azpian (0,30-0,40 m-ko sakonera bitartean), aparkalekuaren gainazala eraikitzeko har-txintxarrez eta beste material batzuez osatutako geruzaren azpian, egitura batzuez (gutxienez hirurogei horma identifikatu dira)

ma georradar IDS SOT custom, equipado con cinco antenas de 600 MHz en lectura simultánea, obteniéndose datos con una resolución de 0.02 x 0.20 m, es decir, tomando perfiles separados 20 cm entre sí con una lectura cada 2 cm sobre toda la extensión explorada. Aunque la calidad de la señal obtenida ha sido buena, la penetración ha sido limitada en buena parte de la superficie de trabajo, alcanzándose poco más de un metro bajo el nivel actual. A partir de esa profundidad la ratio señal/ruido disminuye significativamente, no habiéndose podido obtener información relevante.

Los datos obtenidos han permitido, a pesar de la penetración limitada y las diferencias de características y contraste de las diferentes superficies y zonas de la intervención, obtener resultados de importancia, principalmente en la descripción de anomalías lineales compatibles con elementos constructivos o anomalías reflectivas interpretables como variaciones estratigráficas y rellenos producidos por el derrumbe de estructuras arqueológicas, los cuales permitieron definir las zonas de expectativa arqueológica y mejor conservación de restos, frente a otras con una densidad más baja de resultados y menor riesgo arqueológico.

Los resultados principales se distribuyen en la parte central del parking, en el lateral noreste, bajo el trazado de la carretera y, más parcialmente, en el extremo sureste, en la zona ajardinada del centro de visitantes. Bajo los niveles superficiales (hasta 0.30-0.40 m), con respuestas convulsas por los aportes de zahorras y otros materiales para la construcción de la superficie del parking, han sido descritos un mínimo de cinco grupos constructivos formados



Aparkalekutik hurbil miatutako lursailak.

Parcelas prospectadas en las inmediaciones del parking.

osatutako bost eraikuntza talde identifikatu dira, gutxienez. Egitura horiek espazioak eta barruko gelak banatzen dituzte, modu uniformean daude orientatuta (45. 0 / 67. 5º eta 135. 0 / 157. 5º E bitarteko orientazio azimutekin), eta bat datoz aztarnategiko beste sektore batzuetan dokumentatutako hirigintzaren egokierarekin. Gutxi gorabehera 2000 m²-ko eremuan antolatzen dira egitura horiek.

Eraikuntza talde horiek gaur egungo mailatik behera 0,40-0,50 m bitarteko sakonera mailan azaltzen dira, eta 0,30 eta 0,40 m bitarteko lodiera bertikala kontserbatzen dute. Barruko espazio askok zuzenean egiturekin lotuta dauden betegarriez eta lur jotako materialez eratutako mailak dituzte. Beste kasu batzuetan, bereziki ipar-mendebaldeko muturrean eta hegoaldean, bisitari gune ondoko lorategi aldean, multzo islatzaile lodi batzuk mugatu ahal izan dira, betegarriak eta maila arkeologikoak izan daitezke. Maila horiek, hala nola ipar-mendebaldean, gainazaletik behera 0,20 eta 0,30 m bitartean hasten dira azaltzen, eta 1,20 eta 1,30 m-ko sakoneraraino iristen dira. Betegarri horien lodierak ez du eraikuntza egiturak deskribatzeko aukerarik eman, baina ez dago horien presentzia baztertzerik.

Hegoaldeak, bisitari gunearen ingurune hurbilean, egitura arkeologikoekin lotu daitekeen elementu kopuru txikiago bat eskaini du, baina elementu batzuk zehaztu ahal izan dira hego-mendebaldeko angeluan edo iparraldean dokumentatutako eraikuntza taldeei segida emanez, aparkalekuko gunearekin lotuta.

Elementu horiekin batera, morfologia argirik gabeko gune islatzaileak alde batera utzirik, aztarnategian lehendik egindako lanetan irekitako zangen edo kanalizazio berri batzuen trazadurak deskribatu ahal izan ditugu hegoaldean.

3. poligonoko 98, 99 eta 245. lursailak

Zuzendaritza: José Vicente Fuente

Lursail horietan egindako prospekzio lanak Arabako Foru Aldundiko Museoak eta Arkeologia Zerbitzuak 2022-2025 urteetarako planteatutako ikerketa ildoan biltzen dira. Ikerketa ildo horren helburuetako bat da

por una serie de estructuras (de las que se han identificado un mínimo de sesenta muros), que forman distribuciones de espacios y divisiones internas, disponiéndose en orientaciones uniformes (con azimuts de orientación entre 45.0 / 67.5º y 135.0 / 157.5º E) y coherentes con disposiciones urbanas documentadas en otros sectores del yacimiento, extendiéndose en área aproximada de 2000 m².

Estos grupos constructivos aparecen a partir de profundidades de 0.40-0.50 m bajo el nivel actual, conservando una potencia vertical, según casos, de 0.30-0.40 m. Los espacios interiores presentan en muchos de los casos, presencia de niveles de relleno y derrumbe, directamente relacionados con las estructuras. En otros casos, especialmente en el extremo noroeste o en la parte sur, en relación con la zona ajardinada del centro de visitantes, han podido delimitarse potentes conjuntos reflectivos, identificables con rellenos y niveles arqueológicos, que comienzan, como en el caso de la parte noroeste, a 0.20-0.30 m bajo la superficie, alcanzando cotas de hasta 1.20-1.30 m de profundidad. La potencia de estos rellenos no ha permitido describir estructuras constructivas, aunque no se puede descartar su existencia.

La parte sur, en el entorno inmediato del centro de visitantes, ha aportado un número menor de elementos relacionables con estructuras arqueológicas, aunque sí han podido definirse algunos elementos, en el ángulo suroeste o en continuidad con grupos constructivos documentados en la parte norte, en conexión con la zona de aparcamiento.

Junto a estos elementos, aparte de zonas reflectantes sin morfología clara, ha sido posible describir, al sur, trazados de conducciones recientes o de zanjas de obra de fases anteriores de trabajos en el yacimiento.

Parcelas 98, 99 y 245 del polígono 3

Dirección: José Vicente Fuente

Las prospecciones realizadas en estas parcelas se enmarcan dentro de la línea de investigación planteada por el Servicio de Museos y Arqueología de la Diputación Foral de Álava para los años 2022-2025, que tiene

prospekzio geofisiko bat egitea Iruña-Veleia aztarnategiaren azalera ahalik eta handienean.

Miatutako azalerak partzialki hartu zituen 3. poligonoko 98, 99 eta 245. lursailak, eta guztira 56.217 m^2-ko azalera miatu ahal izan genuen.

Hasteko, landare geruza altxatu zen –lan hori Qark Arqueología enpresak kontrolatu zuen arkeologikoki, eta ez zuen emaitza positiborik eskaini–, eta ondoren datuak hartu ziren, lehenik magnetometriaren bidez eta gero georradarraren bidez. Landa lan horiek azaroaren 28 eta abenduaren 21 bitartean eraman ziren burura.

Magnetometria egiteko SENSYS Mxv3 markako raay sistema bat baliatu genuen. Hona hemen ezaugarri nagusiak:

– FGM650/10 sentsoreak, 0. 5 V/uT-eko (mikroteslak) sentiberatasunarekin eta honako neurri mailarekin: ±10. 000 nT (nanoteslak).
– Profilaren zabalera (array) 3,5 metrokoa: aurreko 8 sentsoreen arteko espazioa 0,5 metrokoa, dena zurezko eta beira zuntzezko orga batean muntatuta.
– 200 MHz-ko laginketa maiztasuna, 15 km/h bitarteko translazio abiadura gaitasunarekin eta egindako profil berean datu magnetikoak 20 milimetroan behin lortzeko gaitasunarekin.
– GGA-NME datu sareen bidezko geoerreferentziazio sistema, datuak biltzeko softwarean irakurketa automatikoarekin, ±1 cm bitarteko doitasunarekin RTK Fix moduan. Proiektuan ez zen doitasun maila hori lortu telefoniako zuzenketen arazo saihetsezin batzuen ondorioz, baina ±10 cm-ko doitasun mailarekin lan egin zen RTK-Float eta DGPS moduan.
– Sentsoreetatik urrun samar egokitutako ATV batek jarri zuen abian sistema, 4x4 trakzio gaitasunarekin eta gaitasun murriztailearekin, abiadura gutxi gorabehera beti-batekoa mantentzeko proiektuan finkatutako abiadura tarteetan (*lur eremuaren arabera*).

Hauexek izan ziren georradarraren bidezko bilketa sistemaren bereizgarriak:

– IDSren Stream-C (HEXAGON©) ekipoa EMLID©ren GPS R2+ sistemarekin GPR multikanala duen bilketa masiboko sistema bat lortu ahal izateko 600 MHz-ko tarteko maiztasunarekin, eta sekzioen edo C-Sliceen irudiak in situ irudikatzeko gaitasunarekin edo urrunetik irudikatzeko gaitasunarekin, GRED HD© eta GPR-Slice©.bitartez, geoerreferentziazioa eskaintzen duen seinale digitalizatuen prozesatu aurreratua aplikatuz.

Interpretazio arkeologikoa egiteko dagoen honetan, jarraian lursail bakoitzean bildutako emaitzak azalduko ditugu.

98. lursaila (P98-3)

Zelai edo lursail horretan, erdialde-iparraldean, irregulartasunak dituen gune bat (5-An-Mag-2) bereizten da, eta handik oso gertu beste bi irregulartasun bereizten dira (5-An-Mag-3 eta 5-An-Mag-4). Irregulartasun horiek ez dira hain nabarmenak georradarraren C-Sliceetan, baina magnetograman duen kontrasteari esker oso egokia da haren dokumentazio fisikoa, egitura zirkular bat itxuratzen baitu. Horiek 15 metroko diametroa duten bi egitura izan daitezke, elkarren ondoan

entre sus objetivos la prospección geofísica de la mayor superficie posible del yacimiento de Iruña-Veleia.

La superficie prospectada comprendió de forma parcial las parcelas 98, 99 y 245 del polígono 3, siendo finalmente accesibles un total de 56.217 m^2.

Los trabajos comenzaron con el desbroce de la vegetación —que fue controlado arqueológicamente por Qark Arqueología y que no obtuvo resultados positivos— para pasar después a la toma de datos, primero mediante magnetometría y después con georradar. Este trabajo de campo se llevó a cabo entre el 28 de noviembre y el 21 de diciembre.

Para la realización de la magnetometría se dispuso de un sistema en raay de la marca SENSYS Mxv3, con las siguientes características:

– Sensores FGM650/10 con sensibilidad de 0.5 V/uT (microteslas) y rango de medida: ±10.000 nT (nanoteslas).
– Ancho del perfil (array) de 3.5 metros: equiespaciado de los 8 sensores anteriores cada 0.5 metros, todo ello montado en un carro de madera y fibra de vidrio.
– Frecuencia de muestreo de 200 MHz con capacidad de velocidad de traslación de hasta 15 km/h y obtención de datos magnéticos cada 20 mm en el mismo perfil realizado.
– Sistema de georreferenciación a través de tramas de datos GGA-NMEA con lectura automática en el software de captación con precisión de hasta ±1 cm en modo RTK Fix. En el proyecto no se obtuvo dicha precisión por problemas imponderables de correcciones de telefonía, pero se trabajó con una precisión ± 10 cm en modo RTK-Float y DGPS.
– El sistema fue traccionado por un ATV suficientemente alejado de los sensores con capacidad de tracción 4x4 y reductora para mantener una velocidad en el rango de las deseadas del proyecto de forma más o menos constante (*dependiendo del terreno).*


El sistema de captación por georradar contaba con las siguientes especificaciones:

– Equipo Stream-C de IDS (HEXAGON©) con el sistema GPS R2+ de EMLID© para poder obtener un sistema de captación masiva con GPR multicanal con frecuencias intermedias de 600 MHz. y con capacidad de obtener representación de secciones o C-Slice in-situ o de forma remota aplicando procesado avanzado señales las señales digitalizadas con georreferenciación asociada mediante GRED HD© y GPR-Slice©.

A continuación, a falta de la interpretación arqueológica, se indican los resultados por parcelas:

Parcela 98 (P98-3)

Destaca en esta campa o parcela la presencia de una zona con anomalías en el centro-norte de la misma correspondientes a 5-An-Mag-2 y otras dos anomalías muy cercanas 5-An-Mag-3 y 5-An-Mag-4. Estas anomalías no aparecen tan claras en los C-Slices del georradar, pero su contraste en el magnetograma hace que sea muy indicada su documentación física, puesto que delinea una estructura circular. Estas estructuras incluso podrían tratarse de dos contiguas de diámetro de



98. lursailean magnetometriaren (ezk.) eta georradarraren (esk.) bidez hautemandako irregularta sunak.

Anomalías detectadas en parcela 98 a través de magnetometría (izda) y georradar (dcha).

egongo lirateke, baina hegoalderago dagoen egiturari zati bat faltako litzaioke.

GPR bidez hautemandako irregularta sun labur eta ongi zehaztugabe batzuen multzo batek sigi-saga eraturiko egitura nabarmentzen da. Sigi-saga antolatutako egitura hori 5-An-Mag-8 eta 5-An-GPR-6 irregularta sunekin lotzen da.

99. lursaila

P99-A-1

Interpretatutako irudikapen geofisikoek eraikuntza moldeko egitura lurperatuen presentziari buruzko informazioa eskaintzen dute, eta beraz, zelai edo lursail honetan giza egonlekuaren edo aztarnategiaren zati bat ezkutatzen dela iradokitzen dute. Magnetogramak balizko eraikinen aztarnak kontraste handiago batez eta irudi bakar batean bilduta erakusten dituen arren, georradarrak (gune guztietan antzeko emaitzak eskaini dituelarik) ez du informazio hori hain garbi ematen. Georradarrak ia ebaki edo irudikapen guztietan markatu ditu bidetik eta ezpondatik edo lursail horretan mendebaldetik ekialdera egiten duen aldapa txikitik etorritako lerrokadurak.

Lehenengo irregularta sunak (1-An-GPR-1) modu aski lausoan jasotzen ditu 1-An-Mag-2/3/4/5/6/7 irregularta sunetan jasotako irregularta sunak. Multzo nahasi hori lur eremuko sakonune baten inguruan gertatzen da.

unos 15 metros, pero a la estructura de más al sur le faltaría una parte.


Destaca la estructura en *zig-zag* de un conjunto de anomalías cortas y poco definidas con GPR. Esta estructura en *zig-zag* se refiere a 5-An-Mag-8 y 5-An-GPR-6.

Parcela 99

P99-A-1

Destaca que las representaciones geofísicas interpretadas proporcionan información de la presencia de estructuras enterradas de tipo constructivo, lo que apunta a que esta campa o parcela contiene parte del asentamiento o yacimiento. Si bien el magnetograma muestra con mayor contraste en una única imagen integrada del entramado de restos de posibles edificaciones, el georradar que es bastante coincidente en las zonas no revela tan claramente dicha información. El georradar ha marcado en casi todos sus cortes o representaciones las alineaciones procedentes del camino y del talud o pequeña pendiente con orientación oeste-este de dicha parcela.

La primera anomalía 1-An-GPR-1 incorpora de forma un tanto difusa las anomalías que incluidas en 1-An-Mag-2/3/4/5/6/7. Este conjunto alterado sucede alrededor de un hundimiento del terreno.



9-A-1. lursailean magnetometriaren (ezk.) eta georradarraren (esk.) bidez hautemandako irregulartasunak.

Anomalías detectadas en parcela 99-A-1 a través de magnetometría (izda) y georradar (dcha).

1-An-GPR-2 irregulartasunak 1-An-Mag-10 irregulartasunean sartutako zelaiko irregulartasun nabarmenenak bitzen ditu, baina kasu honetan C-Slice batzuek, z~0,8 m eta 1,0 m bitarteko mailetan, egitura lineal batzuk markatzen dituzte 1-An-Mag-10 irregulartasunak markatutako multzoaren iparraldean.

1-An-GPR-3 eta 1-An-GPR-4 irregulartasunak bat datoz 1-An-Mag-11/12/13 irregulartasunekin, barruti osoak mugatzen dituzte, eta horietan handiagoa da eraikuntza aztarnak aurkitzeko aukera. Magnetogramak 1-An-GPR-5 irregulartasunaren kasuan erakusten duenaz bestelako lerrokadura posible bat markatzen du georradarrak, baina 1-An-GPR-6 irregulartasuna hobe zehazten da 1-An-Mag-15 irregulartasunean.

P99-A-1 zelaiaren erdialdean eta hegoaldean eraikuntza aztarnak egoteak eta magnetometrian lortutako kontrasteak aukera ematen dute bertan aztarna arkeologikoak aurkitzeko probabilitate handiko eremutzat jotzeko, aztarnategiaren luzapen gisa, eta batez ere, P99-A-2 lursailean induskatutako multzoaren luzapen gisa. 4 irregulartasun oso interesgarri daude 1-An-Mag-11, 1-An-Mag-12, 1-An-Mag-13 eta 1-An-Mag-1 irregulartasunetan definitutako esparruetan.

P99-A-2

P99-A-2 zelaian edo lursailean lortutako irudikapen geofisikoetatik ondorioztatu daiteke induskatutako aztarnen ondoan egitura batzuk daudela, eta horiek


La anomalía 1-An-GPR-2 corresponde a las anomalías más relevantes de la campa incluida en 1-An-Mag-10, pero en esta ocasión varios C-Slices a cotas z~0.8 m y 1.0 m muestran estructuras lineales al norte del conjunto definido por 1-An-Mag-10.

Las anomalías 1-An-GPR-3 y 1-An-GPR-4 corresponden a las anomalías 1-An-Mag-11/12/13 y que delimitan recintos enteros donde la probabilidad de encontrar restos constructivos tipo solados es mayor. El georradar marca una posible alineación un tanto diferente a la presentada en el magnetograma en 1-An-GPR-5, si bien 1-An-GPR-6 queda mejor definida en 1-An-Mag-15.

La presencia de restos constructivos en centro y sur de la campa P99-A-1 y del contraste alcanzado en la magnetometría permite valorar la zona como de alta probabilidad de encontrar restos arqueológicos a modo de extensión del yacimiento, y principalmente como extensión del conjunto excavado en la parcela P99-A-2. Existen 4 anomalías muy interesantes como son los recintos definidos en 1-An-Mag-11, 1-An-Mag-12, 1-An-Mag-13 y 1-An-Mag-1.

P99-A-2

En las representaciones geofísicas de la campa o parcela P99-A-2 puede derivarse que existentes estructuras contiguas a los restos excavados y se encuentran



99-A-2 lursailean magnetometriaren (ezk.) eta georradarraren (esk.) bidez hautemandako irregularta-sunak.

Anomalías detectadas en parcela 99-A-2 a través de magnetometría (izda) y georradar (dcha).

z~0.6-1.6 m bitarteko sakonera mailan daudela. Bestalde, GPR-ko C-Slice ebakien arabera, argi eta garbi ikusten da 1,6 m-ko sakonera mailatik behera ez dela aztarna garrantzitsurik agertzen, lodierari edo hedadurari dagokionez.

Bere morfologiagatik, 2-An-GPR-3 irregularta-suna nabarmentzen da (era berean 2-An-Mag-3 irregularta-sunari dagokio), irregularta-sun antropiko baten gaineko translazio geologiko bat izan lezake, iparraldean zehazki itxuratzen baita, baina hegoaldean modu zehaztugabe batean. Gainerako irregularta-sun linealek, gehienak induskatutako egituren luzapenari dagozkiolarik, 2-An-GPR-4 irregularta-sunetik 2-An-GPR-10 irregularta-suneraino, agerian uzten dute aztarnategiaren luzapen bat.

Azkenik, zelaian hegoalderago, 2-An-GPR-11 irregularta-sunean, forma ia zirkular bat nabarmentzen da, 2-An-Mag-16/17 irregularta-sunari dagokio.

P99-B

Aurreko zelaietako P99-A-1 eta P99-A-2 irregularta-sunen aldean egituren dentsitate txikiagoa eskaini zuen lursail honek, miatutako lursail multzoaren ipar-ekialdean, lerrokadura batzuk erakusten ditu iparraldean, iparralderantz begira dagoen barruti angeluzuzen bat ixten dutenak (alde laburrak iparraldeari eta hegoaldeari begira). Irudikapen geofisikoetan oinarrituta beren arteko osagarritasuna ezar daiteke, eta z~0,5-1.2 metro bitarte kokatzen dira.

entre z~0.6-1.6 metros. Del mismo modo se observa que a partir de la cota de 1.6 metros no aparecen restos de importancia por su potencia o extensión, según los cortes C-Slices del GPR.

Por su morfología, destaca 2-An-GPR-3 (corresponde también a 2-An-Mag-3) que podría tener una traslación geológica sobre una antrópica, puesto que delinea de forma precisa en el norte, pero más burda o grosera al sur. Del resto de anomalías lineales, la mayoría de ellas correspondientes a la prolongación de las estructuras excavadas, desde la 2-An-GPR-4 y hasta 2-An-GPR-10 revelan una extensión del asentamiento.

Por último, destaca una forma casi circular más al sur de la campa en 2-An-GPR-11 que corresponde a 2-An-Mag-16/17.

P99-B

Con una presencia menor en densidad de estructuras, respecto de las campas anteriores P99-A-1 y P99-A-2, la campa situada al noreste del conjunto de parcelas prospectadas, muestra la presencia al norte de unas delineaciones que encierran un recinto tipo rectangular orientado hacia el norte (apuntando al norte sus lados menores) De las representaciones geofísicas se puede establecer su complementariedad y se sitúan entre z~0.5-1.2 metros.

Hegoalderago GPR bidez hautemandako beste irregulartasun bat dago, beste irregulartasun magnetiko argiago batzuen erdian, eta beraz, baliteke egitura horietan giza jarduerak garatu izana (egoste hondarrak).

245. lursaila (P245-3)

P245-3 zelaian, lursailaren iparraldean, berezko muino batzuk biltzen dituen eremu bat ikusten zen, eta mendebaldean, materialak metatzeko beste eremu bat; ez bata ez bestea ezin izan ziren behar bezala miatu. Egituren dentsitatea apalagoa da, itxura guztien arabera jatorriz antropikoak ez baizik eta geologikoak baitira maila ertainetan eta sakonetan ipar-ekialdetik hego-mendebaldera egokitutako lerrokadurak.

Lursailaren mugan, errepidearen alboan, eremuko irregulartasun bat agertzen da magnetograman, eta bat dator GPR bidez detektatutako marra batekin.

GPR bidezko prospekzioak ere beste lerrokadura bat eskaintzen du harresiaren perpendikularrean, zelaiaren iparraldeko muturrean, harresia inguratzen duen bidean, gutxi gorabehera bigarren kuboaren parean.

Eta badira beste irregulartasun magnetiko batzuk miatutako gunearen erdialdean, georradarraren bidez hautemandako beste batzuekin lotzen direnak.

Zelai horretan hegoalderago hautemandako irregulartasunak kontraste txikiarekin agertzen dira GPR bidezko prospekzioak eskainitako C-Slice-etan, eta beraz, egokiagoa izango da magnetogrametan agertzen diren moduan ulertzea, aztarnak hein batean suntsituta egon baitaitezke horregatik.

3. poligonoko 98, 99 eta 245. lursailetan bideratutako prospekzio geofisikoen kontrol arkeologikoa

Zuzendaritza: José Manuel Martínez Torrecilla

Burura eraman da Iruña-Veleia aztarnategi arkeologikoan biltzen diren 98, 99 eta 245. lursailetan egindako prospekzio geofisikoaren gaineko kontrol arkeologikoa. Prospekzio geofisiko hori egin aurretik garbitu egin behar izan zen lur eremua, eta lan hori ere arkeologikoki kontrolatu genuen.

Georradar edo lurrean sartzeko radar baten bidez (GPR) eta zundaketa magnetiko baten bidez, magnetometro bat erabiliz, eraman zen burura prospekzio geofisikoa.

Lan horiek guztiak zorroztasunez kontrolatu ziren ikuspuntu arkeologikotik, eta elementu arkeologiko edo ondare elementu bakar bat ere kaltetu ez zela esan behar dugu.

Más al sur existe otra anomalía detectada por el GPR y que se encuentra en el centro de otras anomalías magnéticas más nítidas, lo que apunta que a estructuras que podrían albergar actividad humana (restos de cocción).

Parcela 245 (P245-3)

En la campa P245-3 se observaron una zona con promontorios naturales al noreste de la parcela y una zona de acopios al oeste que no pudieron ser convenientemente prospectadas. Destaca una menor densidad de estructuras puesto que las alineaciones a cotas intermedias y profundas en dirección NE-SO parecen ser más de origen geológicas que antrópicas.

En el límite este de la parcela, adyacente a la carretera, aparece una anomalía zonal en el magnetograma que coincide con un resto línea detectado por el GPR.

La prospección con GPR también proporciona una nueva alineación perpendicular a la muralla en la parte más septentrional de dicha campa sobre el camino que circunvala la muralla, aproximadamente a la altura del segundo cubo.

Existen además otras anomalías magnéticas en el centro de la zona explorada que hayan su correspondencia en otras detectadas por el georradar.

Las anomalías más al sur de dicha campa aparecen con poco contraste en los C-Slices de la prospección con GPR, por lo que parece más adecuado considerarlas tal y como aparecen en los magnetogramas, cuyos restos pueden estar parcialmente arrasados por ese hecho.

Control arqueológico de las prospecciones geofísicas de las parcelas 98, 99 y 245 del polígono 3

Dirección: José Manuel Martínez Torrecilla

Se ha realizado el control arqueológico de la prospección geofísica llevada a cabo en las parcelas 98, 99 y 245, situadas dentro del yacimiento arqueológico de Iruña-Veleia. Para esta prospección, previamente hubo que desbrozar el terreno, acción que también fue controlada arqueológicamente.

La prospección geofísica se realizó mediante un georradar o radar de penetración terrestre (GPR) y mediante sondeo magnético utilizando un magnetómetro.

Todo el trabajo fue controlado exhaustivamente desde el punto de vista arqueológico sin que fuera afectado negativamente ningún elemento arqueológico ni patrimonial.

R. Sala Bartrolí, P. Rodríguez Simón, E. Gartzia Gartzia; J. Vicente Fuente; R. Fabregad Muñoz; J.M. Martínez Torrecilla; B. Renedo Villarroya

A.11.2. **Arrieta herrixka (12. zenbakiko BAG). Larras de San Juan kalea, Santa Katalina auzoa 18, 13a (Tresponde)**

Zuzendaritza: Idoia Filloy Nieva
Finantzazioa: Trespondeko Administrazio Batzordea

A.11.2. **Poblado de Arrieta (ZPA nº 12). C/ Larras de San Juan, del barrio de Santa Catalina 18, 13a (Trespuentes)**

Dirección: Idoia Filloy Nieva
Financiación: Junta Administrativa de Trespuentes

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Lursail horretan 100 kw-ko instalazio fotovoltaiko bat antolatzeko proiektuaren harira egindako eraginaren ebaluazioa. Izan ere, lursail hori bat dator Iruña Okako udalerrian 12. zenbakiarekin katalogatuta dagoen ustezko arkeologia gunearekin, Arrieta Herrixkarekin. Azterlanean ez zen beharrezkoa izan aldez aurretik zorupean esku hartze arkeologiko bat egitea, izan ere, harrizko azaleratze batek hartzen du eremua, non kareharria gainazalaren mailan agertzen den, nahiz eta gune batzuetan landare geruza mehe batez estalita agertzen den, zuhaixka gutxi batzuekin. Beraz, ez dago estratigrafia arkeologikorik, edo ez da kontserbatzen, inoiz halakorik izan bazen. Bestalde, ez da aztarna arkeologiko bakar bat ere aurkitu, ezta Erdi Aroko balizko giza egonleku baten edo beste mota bateko egitura baten arrastorik ere, ez bederen leku honetan aspaldian giza egonleku bat izan zela adieraziko lukeen zantzurik. Ondarearen gaineko eraginik ez dagoela berresteko, eraikuntza lanen gaineko jarraipen arkeologia egitea baizik ez da falta.

Bestalde, esan behar dugu Arrieta Herrixkako balizko arkeologia gunea lursail horretan kokatzen den arren, herrixka hori ez zegoela lursail horretan. Gaur egungo historiografiak adierazten du herrixka hori sekula ez zela Nanclares Okako Erdi Aroko zirkunskripzioan egon, baizik eta Ekialdeko Lautadakoan. Donemiliagako goldea agiria da (XI. m.) aspaldiko herrixka hori Nanclares Okako barrutiarekin lotzen duen bakarra, itxura batean agiria egitean izandako akats baten emaitza dena, herrixka hori aipatutako zirkunskripzioan zegoelako interpretazio okerra eraginez.

Evaluación de impacto llevada a cabo debido a la existencia de un proyecto de instalación fotovoltaica de 100 kw en la finca en cuestión, donde se tiene ubicada la zona de presunción arqueológica nº 12 del municipio de Iruña de Oca, correspondiente al Poblado de Arrieta. El estudio no necesitó de una intervención arqueológica previa en el subsuelo dado que la zona es un afloramiento rocoso, donde la caliza asoma a nivel superficial aunque zonalmente está oculta por un manto vegetal de poco espesor con algo de vegetación arbustiva. De esta forma, no hay una formación de estratigrafía arqueológica o no se conserva, si es que algún día la hubo. Por otro lado, no se ha encontrado evidencia arqueológica alguna ni de un potencial asentamiento medieval ni de ningún otro tipo, que hubiera sido indicio de un antiguo emplazamiento humano en el lugar. Solamente queda pendiente el seguimiento arqueológico de las obras de construcción, para confirmar la inexistencia de impacto sobre el patrimonio.

Por otra parte hemos de señalar que, aunque en dicha finca se tiene situada la zona de presunción arqueológica del Poblado de Arrieta, en realidad éste no estaba ubicado allí. La historiografía actual señala cómo este poblado nunca estuvo en la circunscripción medieval de Langrares, sino en la Llanada Oriental. La Reja es el único documento (s. XI) en que aparece esta antigua aldea aparentemente asociada al distrito de Langrares debido, al parecer, a un error en la confección de la misma, ocasionando la interpretación errónea de que esa localidad estaba dentro de dicha circunscripción.

I. Filloy Nieva

A.11.3. **San Pelaio barruti gotortua, Billodan (42. zenbakiko BAG)**

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantzazioa: Billodako Administrazio Batzordea

A.11.3. **Recinto fortificado de San Pelayo, en Villodas (ZPA nº 42)**

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: Junta Administrativa de Víllodas

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Iruña Okako Billoda herriko 3. poligonoko 1.267. lursailean gizarte zentroa hartzeko eraikin bat altxatzeko obren gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Control arqueológico de las obras de construcción de un edificio para centro social en la parcela 1.267 del polígono 3 de la localidad de Víllodas, en Iruña de Oca, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico- arqueológico.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.12. KUARTANGO

A.12.1. Gurpide Hegoa trikuharria, Anda-Katadion

Zuzendaritza: Alfonso Alday Ruiz
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Arabako Foru Aldundia; Kuartangoko Udala

A.12.1. Dolmen de Gurpide Sur, en Anda-Katadiano

Dirección: Alfonso Alday Ruiz
Financiación: Gobierno Vasco; Diputación Foral de Álava; Ayuntamiento de Kuartango

Archaeological intervention prompted by the dissemination project linked to the Kuartango Dolmen Area. The intervention comprised the excavation of all the sediment preserved in the area inside the chamber and passageway. The results indicate that the monument was extensively disturbed between the moment it was first discovered in 1871 and the intervention by Barandiarán and Medrano in 1955, as well as, perhaps, during later episodes of looting. Plentiful anthropological remains were recovered, although they were very fragmented and lacked any anatomical connection. Abundant polished bone hoops were also uncovered, along with pottery fragments and stone material. The monument, chamber, passageway (not described until our intervention) and mound had been longitudinally cut during actions probably carried out during the 19th century, judging by a photograph taken at that time that reveals that the monument was fairly complete, although lacking a roof. Today, the most striking feature of this dolmen is the presence of a double layer of stone slabs in the northern wall and the lack of orthostats in the opposite wall.

Aurrekariak

Gurpide Hegoa trikuharrian bideratutako lan arkeologikoak «Kuartangoko Trikuharri Espazioari Balioa Emateko Proiektuan» txertatzen dira. Proiektua Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak finantzatzen dute eta Kuartangoko Udalak sustatzen du, proiektuaren zati bat finantzatzeaz gain. Ikuspuntu batetik eta beretik bideratu eta koordinatu dira monumentuen multzoan egindako esku hartzeak.

Ricardo Becerro de Bengoak eta Sotero Mantelik 1871n aurkitu zuten Gurpide Hegoa. Monumentu horretan egin diren lan arkeologikoetan oinarrituta hilobi galeriadun gisa deskribatu izan da, guztiz trikuharri mota berezia Euskal Herriko lurraldean. Ideia horrekin itxura batean kontrajarrita, XX. mendearen erdialdera egindako indusketa lanaren ondorioz, ganbera baten eta ganberaurre baten presentzia adierazten zen. Izan ere, 1955ean Domingo Fernández de Medranok eta Jose Migel Barandiaranek esplorazio hura egin zutenerako oso kaltetuta zegoen monumentuaren egitura, ia erabat desagertuta zegoen hegoaldeko erdia. Gertaera horren inguruan agian behar bezala dokumentatu ez den ideia bat erabili da, alegia, monumentutik desagertutako lauza batzuk borda bat eraikitzeko erabili zituztela. Eta ez dago baztertzerik aldaketa arkitektoniko horien sorburua Julián Apraizek 1892an bertan bideratutako lanetan dagoelako hipotesia. Nolanahi ere, kontserbatu diren ortostatoen tamainek dimentsio handiko panteoi bat itxuratzen dute. Zangetan txertatutako lauzen bidezko sistemaren arabera eraiki zuten monumentua, lauzak alboetatik elkar ukitzen, non, Apraizen arabera, ongi berezitutako barne espazioak izango ziren. Baina, gaur egungo irakurketaren arabera, mendebaldetik ekialderako lauzen altueraren jaitsiera bateragarria da ganbera baten eta korridore baten presentziarekin. Era berean, oso litekeena da gaur egun iparraldeko hormaren aurreko aldean ikusten diren ortostatoak hegoaldeko horma atalетik bertara lekualdatu izana, eta gibelaldean erdi ezkutaturik daudenak izatea jatorrizkoak. Multzoa lurrez eta kareharrizko blokeez eraturiko tumulu batez osatu zuten; gaur egun iparraldeko erdia kontserbatzen du tumuluak. Trikuharri horretan aspaldi samar egin zituzten

Antecedentes

Los trabajos arqueológicos desarrollados en el dolmen de Gurpide Sur se han derivado del «Proyecto de Puesta en Valor de la Estación Dolménica de Kuartango», financiado por el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Álava y promovido por el Ayuntamiento de Kuartango, que también ha financiado parte del proyecto. Las actuaciones realizadas en el conjunto de los monumentos se han regido, y coordinado, bajo una misma perspectiva.

Gurpide Sur fue descubierto por Ricardo Becerro de Bengoa y Sotero Manteli en 1871. A partir de los diversos trabajos arqueológicos que en él se han realizado ha venido describiéndose como un *sepulcro de galería,* tipo dolménico extraordinariamente raro en el área vasca. En aparente contradicción a esta idea, a raíz de su excavación de mediados del siglo XX, se señalaba la presencia de una cámara y una antecámara. En realidad, para las fechas de aquella exploración, llevada a cabo en 1955 por parte de Domingo Fernández de Medrano y de José Miguel Barandiarán, el monumento estaba estructuralmente muy dañado, habiendo desaparecido prácticamente su mitad sur. Sobre este hecho se ha manejado la idea, quizá no suficientemente documentada, del uso de varias de sus desaparecidas losas en la construcción de una borda. Tampoco puede excluirse la hipótesis de que esos cambios arquitectónicos tengan su raíz en los trabajos que en él llevo a cabo Julián Apraiz en 1892. En todo caso el tamaño de los ortostatos conservados señala un panteón de grandes dimensiones, construido mediante el sistema de lajas encajadas en zanjas y en contacto lateral entre sí donde, siguiendo Apráiz, habría espacios internos bien diferenciados. Sin embargo, tal y como se percibe hoy, el descenso en la altura de las losas de oeste a este es compatible con la existencia de una cámara y un corredor. También es muy posible que los ortostatos que se ven hoy en primer plano en el muro norte hayan sido trasladados allí desde el lienzo meridional, siendo los que quedan semiocultas detrás las originales. El conjunto se monumentalizó con un túmulo de tierras y bloques calizos, conservado hoy en su mitad septentrional.

indusketa lanetan askotariko tresnak aurkitu zituzten, kalitate handikoak, Apraizen arabera gutxienez 70-80 lagunek erabiltzekoak, Fernández Medranok eta Barandiaranek berretsiko zuten bezala. Suharrian landutakoen artean aipatzekoa da xafla handiek eta gezi puntek osatutako multzo handia. Elementu apaingarrietan esanguratsuak dira hezurrean landutako uztaiak, azabatxezko edo lignitozko lepoko bat eta apaingarri konplexu bat edo batzuk osatzeko harri ale exotiko batzuk.

Gure esku hartzeari ekin aurretik zuen itxura ez zen XX. mendearen erdialdeko jarduera arkeologikoak egin ostean deskribatutako monumentuaren oso desberdina. Kontserbazio egoera onean zeuden monumentuaren iparraldeko hormako ortostatoak, hileta gunearen mendebaldeko itxiturako lauza agian apur bat ezkutatuta zegoena eta, eraikinaren hegoaldean azalduz, beste lauza baten hondakinak. Tumuluak egoera onean kontserbatzen du iparraldeko erdia, higadurak eta zuhaitz batzuen sustraiek eragindako lerradura batzuk alde batera utzita, baina beste erdia deseginda dago. Kontserbazio egoerari erreparatuta jaso litekeen lehenengo irudipenaz beste, inguruko monumentuek ezin eskain ditzaketen azalpenak eskaintzen ditu aztergai dugun honek, megalito baten luzetarako ebaki baten modura agertzen baita. Hala bada, esate baterako, San Sebastian Iparra trikuharriaren bisitaldi «zenitalak» (Euskal Herriko trikuharrietan arruntena) hemen osagarri didaktiko bat du, izan ere, gisa honetako eraikuntza baten elementuen arteko artikulazioa ikustea ahalbidetzen du, bereziki egitura megalitikoaren eta tumuluaren artekoa.

Balioa emateko lanak

Monumentu honetan, arkitektura finkatzeko jardueren xedea zen bertan zeuden lauzak denboraren poderioz behera etortzea galaraztea, eta hedaduraz, ziurrenik baita tumuluaren zati bat ere. Ildo horretan, trikuharria ebakita egoteak nolabaiteko desoreka sortu zuen iparraldeko lauzen artean, piezen arteko euskarria galdu zelako. Halere, itxura batean posizio egonkorrari eusten zion ortostato taldeak, eta egonkortasun horri laguntzen zion lauza sortzaileak N1ari eragiten zion bultzadak. Proposatutako irtenbidea, lan arkeologikoak amaitu ondoren, zurezko eskuairak jartzea izan zen, altzairu herdoilgaitzezko oinarrien gainean. Horien alde horizontala induskatutako eremuaren ondorengo betegarriak estaliko zuen, eta alde bertikala ganberako lauza handien euskarri izango zen, lauzak mugitzea galaraziko zuen euskarria. Trikuharriaren ingurua berrantolatzeko lanetan landareak landatzea, picnic gune txiki bat antolatzea eta itxitura berri bat egitea aurreikusten zen.

Jarduera arkeologikoa

Panteoia finkatzeko lanak 1. eremua delakoan garatuko zirenez eta eremu hori babes bereziko eremua denez, metodologia arkeologiko zorrotz bat aplikatu behar izan zen gisa horretako eremuan baimentzen diren jarduerekin bateragarriak izan zitezen.

Hasteko, desagerrarazi egin zen aztarnategia estaltzen zuen landaredia, eta atera egin ziren aztertu beharreko eremuaren baitan metatutako lurrak eta harri solteak. Lan horietan zehar jaso genituen aurreneko hezur hondakinak eta zeramikazko zatiki batzuk, aurrerago ustez topatuko genuen nahasketaren ideia bat eman zigutenak. Izan ere, korridorearen eta ganberaren barruko

La antigua exhumación del dolmen proporcionó un ajuar variado y de gran calidad para un número mínimo de 70-80 individuos, en apreciación de Apráiz, y que corroboran Fernández Medrano y Barandiarán. En sílex destaca el conjunto de grandes láminas y de puntas de flecha. Como elementos de adornos son significativos los aretes sobre hueso, un collar de azabache o lignito, así como cuentas en piedras exóticas para uno o varios adornos complejos.

Su aspecto antes de nuestra intervención no era muy diferente a lo descrito tras las operaciones arqueológicas de mediados del siglo XX. Se conservaban en buen estado los ortostatos de la pared norte del monumento, una losa quizá un poco camuflada del cierre occidental del espacio funerario y, asomando en el sur del edificio, restos de otra más. El túmulo conserva su mitad norte, en buen estado, salvedad hecha de algunos deslizamientos de ladera provocados por la erosión y la acción de las raíces de algunos árboles, habiendo sido desmantelado en su otra mitad. Contrariamente a la primera impresión que pudiera obtenerse por su estado de conservación, el hecho de que se presente como el corte longitudinal de un megalito ofrece capacidades expositivas alternativas a las de sus vecinos monumentos. Así, por ejemplo, la visita «cenital» de San Sebastián Norte, la más común entre los dólmenes vascos, encuentra aquí un complemento didáctico, al permitir observar la articulación entre los elementos de una construcción de este tipo, especialmente entre la estructura megalítica y el túmulo.


Trabajos de puesta en valor

En este monumento las necesidades de consolidación arquitectónica buscaban evitar que las losas existentes cedieran con el paso del tiempo y, por extensión, seguramente una parte de su túmulo. En este sentido, la situación seccionada del dolmen había generado un cierto desequilibrio entre las losas septentrionales debido a la pérdida de apoyo entre piezas, aunque aparentemente el grupo de ortostatos mantenía una posición estable, a lo que ayudaba el empuje de la losa generatriz sobre la N1. La solución propuesta, acabados los trabajos arqueológicos, fue la colocación de unas escuadras de madera sobre bases de acero inoxidable, cuyo lado horizontal quedaría cubierto por el relleno posterior del área excavada, y cuyo lado vertical serviría de apoyo a las grandes losas de la cámara, evitando su desplazamiento. Las actuaciones encaminadas a la reorganización del entorno del dolmen preveían plantaciones, la incorporación de una discreta zona de picnic y un nuevo cercado.

La actuación arqueológica

Dado que los trabajos encaminados a la consolidación del panteón se desarrollarían en la denominada zona 1, área de especial protección, fue necesaria la aplicación de una estricta metodología arqueológica, en compatibilidad con las actividades permitidas en dicha área.

La primera actuación se ocupó de la eliminación de la vegetación que cubría el yacimiento y a la retirada de tierra y piedras sueltas acumuladas en el interior del área a trabajar, durante la cual se recogieron los primeros restos óseos y algunos pequeños fragmentos cerámicos, lo que daba una idea de la alteración que se preveía íbamos a encontrar. De hecho, en el nivel superficial que cubría el



Goian, Gurpide Hegoa trikuharriaren hasierako egoera eta esku hartze arkeologikoaren amaieraren emaitza, behin betiko finkatze lanen zain. Behean, Barandiaranek eta Medranok iragan mendearen erdialdera egindako krokisa orain landutako planimetriaren gainean, eta trikuharriaren irudi zenitala lan arkeologikoak amaitu ondoren.

Arriba, estado inicial del dolmen de Gurpide Sur y resultado final de la intervención arqueológica, a la espera de los trabajos de consolidación definitivos. Abajo, croquis realizado por Barandiarán y Medrano a mediados del siglo pasado sobre la planimetría elaborada ahora, e, imagen cenital del dolmen tras la finalización de los rabajos arqueológicos.

aldea estaltzen zuen gainazaleko mailan, trinkotasun apaleko lurrezko geruza lodian, ehunduraz hareatsu eta pikortsuan, tamaina askotako harri angelutsu askorekin, iragan mendeko jarduerek eta denboran gertuago dauden beste jarduera batzuek nahasitako gune bat bereizi genuen, eta bertan askotariko material antropologikoak identifikatu genituen, oso zati txikitan, eta argi eta garbi historiaurreko kronologia duten zeramikazko zatikiak, baina baita denboran gertuago dauden objektuen hondakin batzuk ere.

Beherago, korridorearen barruan, lur metaketa bat erregistratu genuen horizontalean antolatutako karehar-rizko lauza handien artean, lauza batzuk metro bete baino luzeagoak, metro erditik gorako zabalerarekin eta batez beste 13 cm inguruko lodierarekin: inolako zalantzarik gabe, arkitekturaren jatorrizko elementuak dira, segur aski eraikinak desegiteko historiaurreko ohiko ekintzek kaltetuak gertatu direnak. Sedimentua buztintsua zen, baina ez bereziki plastikoa, eta kolorez marroia. Bertan azaldu ziren gutxienez lau burezur ia osori zegozkien hezurrak, zatitan, eta eskuz landutako zeramika zati batzuk, horietako zenbait ontzi baten profil osoa itxuratzeko moduko tamainarekin, ontzi horrek hondo laua eta kanpora irtendako ertza zituela. Hurrengo deposituetan, lehenengoa lur marroiez osatua, oso trinkoa eta ehunduraz buztintsua, forma askotako harri

interior del corredor y la cámara, una potente capa de tierra poco compacta, de textura arenosa y granulosa, con gran cantidad de piedras angulosas de diverso tamaño, se reconoció una remoción por actividades del siglo pasado y otras incluso más recientes, hallándose diverso material antropológico muy fragmentado y restos cerámicos de clara cronología prehistórica, pero también algunos restos de objetos más recientes.

Por debajo, en el interior del corredor, se registró una acumulación de tierra entre grandes losas de caliza dispuestas horizontalmente, algunas incluso de más de un metro de longitud, con anchuras de más de medio metro y grosores que rondaban los 13 cm de media: son, sin duda, elementos originales de la arquitectura probablemente afectados por las habituales acciones prehistóricas de desmantelado de los edificios. El sedimento era arcilloso, aunque no especialmente plástico, de color marrón. Aparecieron aquí los restos de, al menos, cuatro cráneos prácticamente completos, aunque fragmentados, y varios restos de cerámica a mano, algunos de un tamaño suficiente como para inferir el perfil completo, con fondo plano y borde exvasado, del recipiente. En sucesivos depósitos, el primero de tierra de color marrón, muy compacta y de textura arcillosa, con un buen número de pequeñas piedras informes, y el siguiente mayoritariamente de piedras que, aunque ten-

txiki ugarirekin, eta bigarrena batez ere harriz osatua, horietako asko eta asko formaz lauak, ia posizio bertikalean ipiniak, lehenengo geruzan identifikatutako lurren antzeko lurrez inguratuta, inolako lotura anatomikorik ez zuten giza hezur hondakin asko berreskuratu genituen, baita eskuz landutako zeramika zatiak, harrizko materialak eta norbera apaintzeko elementuak, zehazki leundutako hezurrean landutako uztaiak.

Ganberaren barruan ere antzeko ezaugarriak zituzten deposituak identifikatu genituen, baina lauza sortzailearen eta N1 ortostatoaren oinetan, iparraldetik hartan bermatuta, lur gorrixkako maila bat bakartu genuen, ehunduraz hareatsua eta oso-oso trinkoa, aipatutako ortostatoei atxikia eta zentimetro gutxi batzuetan hedatzen dena. Oinplanoan garapen txikia izan arren, giza hezurren printza asko zituen, batzuk erreta, leundutako hezurrean landutako uztai zati bat eta suharrian egindako gezi punta bat. Maila horrek arroka naturalaren gaineko beste unitate batean hartzen zuen atseden. Unitate hori geruza mehe uniforme bat zen, zurixka, arkeologikoki antzua, ganberako ortostatoetara hurbildu ahala trinkoagoa eta lodiagoa, hareharrizko arrokaren alterazioaren berezko ezaugarriekin. Depositu hori ortostatoei atxikia zegoenez, trikuharria eraiki ondoren eratuko zen, eta jatorria lurperatuen deskonposizioan duela pentsa liteke.

Azkenik, korridorearen ekialdeko muturrean, 30 eta 34 cm bitarte zabal eta 1,15 m luze zen diaklasa bat irekitzen zen, hegoaldeko ertzaren azpian galtzen zena. Berezkoa izango zen, ez baitzen ertzetan inolako pikotx markarik hautematen. Lehenengo tartea buztinezko betegarri batek estaltzen zuen, buztin kolorez marroi biziak, oso trinkoak, han-hemenka isolatutako ikatz orban txikiekin, arkeologikoki antzua, eta bigarren tartea buztin horixkek estaltzen zuten, buztin oso-oso trinkoek, guztiz hustu ez genituenak, nahiz eta arrokaren gainazaletik sakontzen hasita 40 cm-ko sakonerara iritsi ginen. Ez zen beste inolako elementurik azaldu.

Jarduera arkeologikoaren emaitzak

Monumentuari balioa emateko lehen urrats gisa Gurpegi Hegoa trikuharrian bideratutako esku hartze arkeologikoaren emaitzek berretsi egin dituzte aurreikuspenak, eta Kuartangoko Trikuharri Estazioko beste hiru monumentu megalitikoetan garatutako jardueren emaitzen ildokoak direla esan behar dugu. Panteoi honetan XIX. mende amaieraz geroztik bideratutako esku hartzeek Historiaurretik kontserbatutako bolumenaren eta ondasun arkeologikoen zatirik handiena eraman bazuten ere, elementu higigarri esanguratsuak berreskuratu ditugu. Emaitza hauek berretsi egiten dute J.M. Barandiaranek eta D. Fernández Medranok XX. mendearen bigarren erdian jada azaldu zutena Sancho el Sabio Erakundeak 1971n argitaratutako *Investigaciones arqueológicas en Álava. 1957-1968* aldizkarian. Egileek diote Julian Apraizek 1892an egindako indusketak itxura batean ukitu gabeko gune batean eragin zuela, eta bi urtetan 70 eta 80 bitarte eskeleto aurkitu zituela fetu posizioan, buruak ortostatoen ondoan eta gorpuak barruko alderantz, baita kobrezko puntzoi bat, suharrian landutako gezi punta bat eta zeramika zatikiak ere. Ezer gutxi dakigu Murgiako Aita Pauldarren esku hartzeari buruz, jarduera hartan E. Egurenek bere doktore tesian aztertu zituen hainbat burezur aurkitu baitzituzten. Inguruabar horietan Badentes a planas muchas de ellas, se hallaban en posición casi vertical, con tierra muy similar a la del anterior, se rescató una gran cantidad de restos óseos humanos sin ningún tipo de conexión anatómica, fragmentos de cerámica a mano, material lítico y elementos de adorno personal, en concreto aretes de hueso pulido.

Dentro de la cámara también identificamos depósitos de características parecidas, pero a los pies de la losa generatriz y del ortostato N1, apoyado en aquella por el lado norte, individualizamos un nivel de tierra rojiza y textura arenosa extremadamente compactada, adosándose a los citados ortostatos y sin extenderse más allá de unos centímetros. Contenía, pese a su escaso desarrollo en planta, una gran cantidad de esquirlas de huesos humanos, algunos cremados, un fragmento de arete de hueso pulido y una punta de flecha de sílex, y se apoyaba en una nueva unidad ya sobre la roca natural. Se trataba de un fino nivel uniforme de color blanquecino, arqueológicamente estéril, que ganaba compactación y potencia a medida que más cerca se encontraba de los ortostatos de la cámara, con las características propias de la alteración de la roca caliza. Dado que este depósito se adosaba a los ortostatos debió formarse con posterioridad a la construcción del dolmen, y podría pensarse en su origen como afección por la descomposición de los enterrados.

Finalmente, en el extremo oriental del corredor se abría una diaclasa de entre 30 y 34 cm de anchura y 1,15 m de longitud, perdiéndose bajo el cantil sur. Sería de origen natural, no percibiéndose ningún tipo de marca de picado en sus bordes. Estaba colmatada por, en su primer tramo, un relleno de arcillas, de color marrón vivo, muy compactas con pequeñas motas de carbón aisladas, siendo arqueológicamente estéril y, en su segundo tramo, por arcillas amarillentas y extremadamente compactadas que no llegamos a vaciar en su totalidad, aunque se logró profundizar hasta los 40 cm desde la superficie de la roca, sin que apareciera ningún elemento de otra naturaleza.

Resultados de la actuación arqueológica

Los resultados de la intervención arqueológica en el dolmen de Gurpide Sur, como paso previo a su puesta en valor, han corroborado las expectativas que se tenían, y han seguido en la línea de los resultados de las actuaciones desarrolladas en los otros tres monumentos megalíticos de la Estación Dolménica de Kuartango. Si bien las intervenciones desarrolladas en el panteón desde finales del siglo XIX retiraron la mayor parte del volumen y bienes arqueológicos que se habían conservado, desde la Prehistoria, hemos rescatado significativos elementos muebles. Confirman estos resultados lo expuesto ya en la segunda mitad del siglo XX por J.M. Barandiarán y D. Fernández Medrano, en la publicación editada por la Institución Sancho el Sabio en 1971 *Investigaciones arqueológicas en Álava. 1957-1968*. Dicen los autores que la excavación de 1892 de Julián de Apraiz afectó, al parecer, a un área intacta, localizándose en sendos años entre 70 y 80 esqueletos en posición fetal con las cabezas junto a los ortostatos y los cuerpos hacia el interior, un punzón de cobre, una punta de flecha de sílex y fragmentos de cerámica. Poco se sabe de la intervención de los Padres Paúles de Murguía de la que proceden varios cráneos que estudió E. Eguren en su tesis doctoral. En estas circunstancias

randiaranek eta Fernández Medranok ez zuten jatorrizko estratifikaziorik identifikatu, baina hezur kopuru handi bat berreskuratu zuten, zati txikitan, baita hortzak, zeramikazko ontzi zatiak, kuartzitak, ofitak, hareharrizko errekarriak, suharrian landutako tresna asko eta norbera apaintzeko elementuak. Esku artean dugun dokumentazio grafikoaren arabera, hilobia ez da askorik aldatu 1955ean egindako azken esplorazio horiez geroztik.

Hala bada, eraikina, aspaldidanik, luzeran dago ebakita, ekialdetik mendebaldera, eta soilik iparraldeko ortostatoak, lauza sortzailea eta korridoreko lehenengo lauza, hegoaldekoa, kontserbatzen ditu, desagertuak dira ganberaren hegoaldeko horma eratzen zuten ortostatoak eta, alde horretan, korridoreari zegozkionak. Nolanahi ere, gu ziur gaude ganberaren eta korridorearen barrunbeetatik atera ditugun bloke handiak eta tumuluaren gainazalaren gainean daudenak trikuharriaren egiturari dagozkiola, korridorea bera eratuko zuten elementuak direla, edo, puskatuta gertatuta ere, ganberan oraindik ere zutik dauden ortostatoen zatiak direla, edo, agian, desagertutako ortostatoen zatiak.

Deigarria da Gurpegi Hegoa trikuharriaren hegoaldean ikusten diren lauzak alboetatik elkar ukitzen egotea bilbatuta egon beharrean, Arabako megalitismoan ezagutzen diren kasu gehienetan gertatzen den bezala. Alderdi horri dagokionez, bi dira gogoan eduki beharreko apunteak. Deigarriena da lauza horien gibelaldean tamaina megalitiko bereko beste ortostato batzuk egotea, bigarren horma bat eratuz, kasu bakarra baita eskualdeko trikuharrietan. Beste alderdi aipagarri bat da hainbat tonatako pisua duten blokeei zutik eusteko zimendatze zangarik ez egotea; urrutirago jo gabe, ondoko San Sebastian Hegoa trikuharrian badira zimendatze zangak, eta zanga horiek Historiaurrean zehar burututako birmoldaketa arkitektonikoaren emaitza dira. Guk uste dugu ez zutela horma bikoitzeko trikuharri bat eraiki, eta kontuan harturik monumentuak aurkitu eta gutxira agertzen zuen egoera (itxura zirkularreko muino gisa azaltzen zen, aski handia, erdialdean sakonune bat zuena), susmoa dugu agerian dauden lauzak gaur egun dauden posiziora mugitu zituztela bertan egin ziren lehen lan arkeologikoetan. Proposamen horri deserosoa egiten zaio lauza sortzailetzat hartzen denak, altueran oso murriztua dagoenak, lehen horma horren hegoaldeko muturrean dagoen lauzarekin alboko kontaktua izatea, hori ezinezkoa baita azken hori ere mugitua izan ez bada (agian altxatu egin zuten erorita zegoelako?). Nolanahi ere, argi dago itxura batean lauzen arteko alboko kontaktuaren bidez eraikitako beste monumentu batzuk, honako honen antzekoak, eraberritze modernoen emaitza direla, eta ez historiaurreko ahaleginen ondorio.

Guk ganberan induskatutako depositui dagokienez, bakar bat ere ez zegoen jatorrizko posizioan, agian azpiko unitate estratigrafikoa, hilobi ganberan arroka naturalaren gainean bermatua, zen salbuespena. Korridorea ondoz ondoko lurrezko mailek estalita zegoen, eta maila horien arteko alde nagusiak batez ere deskonposatutako kareharrizko hondakinen presentzia handiagoan edo txikiagoan eta, batez ere, zeuzkaten harrien kopuru, tamaina eta egokieran oinarritzen ziren. Sedimentu horien jatorria historiaurreko amortizazio ekintzekin lotu daiteke, beste kasu ez gutxitan azaldu den bezala, edo denboraren joanak monumentuan eragindako

Barandiarán y Fernández Medrano no identifican ninguna estratificación original, si bien recogen una gran cantidad de huesos muy fragmentados, dientes, trozos de recipientes cerámicos, cuarcitas, ofitas y cantos rodados de arenisca, abundante industria lítica en sílex y elementos de adorno personal. Según la documentación gráfica que manejamos, la sepultura no ha variado mucho desde estas últimas exploraciones de 1955.

Así el edificio, desde tiempo atrás, está seccionado longitudinalmente, de este a oeste, conservando únicamente los ortostatos del lienzo septentrional, la losa generatriz y la primera del corredor en el lado sur, habiendo desaparecido las del muro sur de la cámara y, por ese lado, otras del corredor. En todo caso, tenemos el convencimiento de que los bloques de grandes dimensiones extraídos por nosotros de las áreas interiores de la cámara y el corredor, y aquellas que descansan sobre la superficie del túmulo, pertenecen a la estructura dolménica, fueran elementos constituyentes del mismo corredor o, habiendo sido partidas, de algunas de las losas que aún permanecen en pie en la cámara o sean, incluso, fragmentos de las desaparecidas.

Llamativo es en Gurpide sur que las losas visibles del lienzo sur tengan contacto lateral, en vez de estar entramadas, como es usual en la mayoría de los casos conocidos en el megalitismo alavés. Sobre el asunto hay un par de apuntes que deben retenerse. El más llamativo la existencia por detrás de estas losas de otros ortostatos de los mismos tamaños megalíticos, que constituyen como un segundo muro, lo que resulta ser caso único entre los dólmenes regionales. El segundo la ausencia de zanjas de cimentación que permitieran mantenerse en pie a estos bloques de varias toneladas de peso que, por cierto, si están documentadas en el vecino dolmen de San Sebastián sur a resulta de su remodelación arquitectónica ocurrida durante la Prehistoria. Nos parece remota la posibilidad de que se concibiera un dolmen con doble muro y, a tenor del estado del monumento al poco de descubrirse (se presentaba como un montículo aparentemente circular, de apreciable dimensiones y depresión central) sospechamos que las losas visibles se movieron a su posición actual a resulta de los primeros trabajos arqueológicos. Incomoda a esta propuesta que la considerada losa generatriz, por cierto, muy disminuida en altura, mantenga contacto lateral con la losa más meridional de este primer muro, solo posible si estuviera también reubicada (¿fue tal vez levantada por hallarse tumbada?). En todo caso es evidente que otros monumentos aparentemente construidos mediante contacto lateral entre las losas, y que se toman como apoyo a este, son resultado de restauraciones modernas en vez de consecuencia de esfuerzos prehistóricos.

Respecto a los depósitos excavados por nosotros en la cámara, ninguno estaría en posición primaria, salvo, quizás, la unidad estratigráfica inferior, apoyada en la roca natural en la cámara sepulcral. Por su parte el corredor estaba colmatado por sucesivos niveles de tierra cuyas diferencias fundamentales eran la mayor o menor presencia de restos de caliza descompuesta y, sobre todo, la cantidad, tamaño y disposición de las piedras que contenían. El origen de estos sedimentos bien puede responder a acciones de condenas prehistóricas, como se han mencionado en bastantes casos, deterioros del monumento con el paso del tiempo, las

kalteekin, edo Apraizek eta beste ikertzaile batzuek bideratutako esku hartzeekin eta, probabilitate gutxiagorekin, Barandiaranek eta Medranok 1955ean egindako lanekin.

Izan ere, Barandiaran eta Fernández Medranoren esku hartzeari dagokionez, guk uste dugu jarduera hark ez zuela korridorearen ekialdeko muturrean eragin, kontuan hartzen baditugu gure landa datuak eta Gurpide Hegoa monumentuaren oinplanoaren eta altxaeraren berreraikuntza grafikoa, non ez den korridorearen zatirik handiena islatzen. Aurretik egindako lanetan sedimentu horiek azaletik baizik ukitu ez zituztenez, bertan metatu dira guk egindako aurkikuntza gehienak, eta segur aski historiaurreko iragan ziurragoa izango dute bertako unitate estratigrafiko trinkoagoek. Bertan identifikatu genuen zeramikazko eta harrizko materialen bolumenik handiena, baita apaingarriak ere. Nolanahi ere, elementu horiek ezin izan dira zuzenean lotu berreskuratutako material antropologiko hein batean oparoarekin; material antropologiko horrek ez zuen lotura anatomiko agerikorik erakusten.

actuaciones de Apráiz y de otros investigadores y, con menos probabilidad, de los trabajos llevado a cabo por Barandiarán y Medrano en 1955.

De hecho, respecto a la actuación de Barandiarán y Fernández Medrano sugerimos que la misma no afectó al lado más oriental del corredor, si nos atenemos a nuestros datos de campo y a la reconstrucción gráfica que hace de la planta y del alzado de Gurpide sur, donde no se plasma la mayor parte del corredor. Que estos sedimentos se hallaban menos afectado por trabajos anteriores es razón por la que ha sido el lugar que ha acumulado un mayor número de hallazgos por nuestra parte, y donde las unidades estratigráficas, más compactas, deben de tener un pasado prehistórico más seguro. Fue esta área la que contenía un mayor volumen de material cerámico, lítico y de adorno que, en todo caso, no se han podido asociar directamente al relativamente abundante material antropológico recuperado, el cual no presentaba articulaciones anatómicas evidentes.

A. Alday Ruiz; F. J. Ajamil Baños

A.12.2. **San Sebastian Iparra trikuharria, Anda-Katadion**

Zuzendaritza: Alfonso Alday Ruiz
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Arabako Foru Aldundia; Kuartangoko Udala

A.12.2. **Dolmen de San Sebastián Norte, en Anda-Katadiano**

Dirección: Alfonso Alday Ruiz
Financiación: Gobierno Vasco; Diputación Foral de Álava; Ayuntamiento de Kuartango

Archaeological intervention prompted by the dissemination project linked to the Kuartango Dolmen Area. The intervention focused on repositioning the principal stone that was in serious danger of tilting, after carrying out a sondage to its rear. The intervention also enabled the documentation of the structure of the mound, formed by tilted stone slabs separated by very little earth. We also excavated the inside of the chamber, finding that the existing fillers were the result of an accumulation of recent earth, either as a consequence of previous interventions or resulting from the circumstantial use of the site as a place to dump waste material. We excavated the geological soil, which was hollow and similar in size to the chamber. There can be no doubt as to its anthropological origin, although we were unable to determine either its chronology or function.

Aurrekariak

San Sebastian Iparra trikuharrian bideratutako lan arkeologikoak «Kuartangoko Trikuharri Espazioari Balioa Emateko Proiektuan» txertatzen dira. Proiektua Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak finantzatzen dute eta Kuartangoko Udalak sustatzen du, proiektuaren zati bat finantzatzeaz gain. Beraz, lan hauek aipatutako proiektuaren orokortasunean ulertu behar dira: esku hartzeak lehenetsi egin ditu monumentuak finkatzeko lanak, eta esploratu gabe utzi ditu etorkizunean aintzat har litezkeen interes zientifiko handiagoko eremuak.

Ricardo Becerro de Bengoak eta Sotero Mantellik 1871n aurkitu zuten San Sebastian Iparra trikuharria miaketa lan batzuk egiten ari zirenean. Halaber, San Sebastian Hegoa eta Gurpide Hegoa trikuharriak aurkitu zituzten. Ladislao Velascok lehen ikerketa bat eraman zuen burura 1879an, eta hezur batzuk zeudela azaldu zuen, hezur horiekin batera egon zitezkeen tresnei aipamenik egin gabe. Urte batzuk geroago, Julián de Apraiz 1893an eta Enrique Eguren 1914an, aurreko ikertzaileek azaldutakoa berrestera mugatu ziren, ez zuten datu interesgarri gehiagorik erantsi. Tamalez, oso laburrak dira ikerlan haien emaitzei buruzko iturri idatziak, baina pan-

Antecedentes

La intervención arqueológica desarrollada en el dolmen de San Sebastián Norte ha derivado del «Proyecto de Puesta en Valor de la Estación Dolménica de Kuartango», financiado por el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Álava y promovido por el Ayuntamiento de Kuartango, que también ha participado en la financiación. Por tanto, estos trabajos deben entenderse en la globalidad de dicho proyecto: la intervención ha priorizado las labores de consolidación dejando sin explorar áreas de mayor interés científico que podrían ser consideradas en un futuro.

La tumba de San Sebastián Norte fue descubierta por Ricardo Becerro de Bengoa y Sotero Mantelli en 1871, durante una prospección en la que reconocieron. También, el de San Sebastián Sur y el de Gurpide Sur. Ladislao Velasco llevó a cabo una primera investigación en 1879, indicando la presencia de algunos huesos sin citar ajuar de acompañamiento. Años después Julián de Apraiz, en 1893, y Enrique Eguren, en 1914, se limitaron a corroborar lo expuesto por los anteriores eruditos sin añadidos de interés. Desgraciadamente las fuentes escritas sobre los resultados de aquellas exploraciones son muy escuetas, si bien el

teoi honek rol garrantzitsua bete du Euskal Herriko megalitismoaren historiografian, oso aintzat hartu da fenomenoa aztertu duten azterlanetan.

Kuartangoko Estazio Megalitikoko trikuharrietan iparraldeen dagoena da San Sebastian Iparra. Orain arte deskribatutakoaren arabera, gutxi gorabehera 4,5 m^2-ko ganbera hexagonaleko monumentua da, 12 m-ko diametroa eta 2 m-ko altuera duen tumulu batez estalita dagoena. Trikuharriak ez du estalkirik, eta, orain arte azaldu denaren arabera, korridorerik ere ez: nolanahi ere, lan hauei heldu aurretik egindako prospekzio geomagnetikoak egitura konplexuago bat iradokitzen du, segur asko ekialdean korridore bat izango duena, tumuluaren formarekin bat etorriko dena. Ildo horretan, ekialdeko lauza gainerakoak ez bezala lurrean bermatuta ez egoteak, korridoretik sarbidea blokeatuz, monumentua birmoldatu egin zutela pen-tsarazten du. Bestalde, monumentuaren babes eremuaren ekialdean, bi muino txiki bereizten dira, eta aspaldiko esku hartze arkeologikoetan sortutako lur metaketak ez badira zehaztu gabeko ekintzen edo egituren emaitza dira. Nolanahi ere San Sebastian Iparra trikuharria belar geruza homogeneo batez estalita dago, eta perimetroan trikuharriaren egiturari eragiten ez dioten hainbat zuhaitz hazten dira.

Gure esku hartzeari heldu aurretik, ganberako lauzak barruko alderantz zeuden hein handiagoan edo txikiagoan makurtuta, hileta espazioa murriztuz. Egoera hori are nabarmenagoa da mendebaldean dagoen lauza sortzailearen kasuan, arriskuan jartzen baitzuen egituraren egonkortasuna. Ohartarazi behar dugu ageriko lauzak luzeran daudela hautsita, eta metro betetik gorako altuera duten arren ez dutela eraikinaren monumentaltasuna islatzen.

Balioa emateko lanak

Aipatutako «Kuartangoko Trikuharri Estazioari Balioa Emateko Proiektuaren» barruan, San Sebastian Iparra trikuharrian ganberako lauzen egitura finkatzea planteatu zen ahalik eta esku hartze txikiena bideratuz eta alboetako elementuei ahalik eta gutxien eraginez. Filosofia horri jarraiki, lauza sortzailea berriz ere dagokion posizioan jartzea planteatu zen lehentasun gisa, eta horrek tumuluaren zati bat altxatzea ekarriko zuen. Sedimentuak atera ahala eror ez zitezen, tumuluaren ertzean egokitutako ainguratze puntuarekin lotutako hedeekin eta kable tiranteekin finkatu genituen lauzak. Era berean, lauza sortzailea alboko ortostatoekin beste elementu batzuen laguntzaz (altzairu herdoilgaitzezko xaflak erabili genituen, ezkutaturik geratu zirenak) lotzea aurreikusi eta gauzatu genuen.

Azkenik, ingurua berrantolatzeko beste esku hartze batzuk eraman ziren burura, aurretiazko jarduera arkeologikorik behar ez zutenak (landareak landatu eta itxiturak jarri).

Jarduera arkeologikoa

San Sebastian Iparra trikuharriaren behar arkitektonikoen azterketak, ganberaren kolapsoa saihesteko eta, hedaduraz, segur aski baita tumuluaren zati batena ere, justifikatu egiten ditu proposatutako ekintza arkeologikoak, nahiz eta, zentzuzkoa denez, haren zentzu zientifikoa galdu gabe bere historia edo historiaurreko errealitatea ulertzeko. Horrexegatik, diziplina anitzeko talde bat inplikatu zen lanetan, adituak arkitekturan, geolo-

papel de este panteón en la historiografía del megalitismo vasco ha sido relevante, integrándose en las diferentes obras de síntesis que han abordado el fenómeno.

San Sebastián Norte es el más septentrional de los dólmenes de la Estación Megalítica de Kuartango. Se venía describiendo como un monumento de cámara hexagonal de unos 4,5 m^2, cubierto por un túmulo de 12 m de diámetro y 2 m de altura. Carece de cubierta y, según lo indicado hasta hoy, de corredor: no obstante, una prospección geomagnética realizada previamente al desarrollo de los presentes trabajos sugiere una estructura más compleja, seguramente con corredor al este, que sería acorde con la forma del túmulo. En este sentido el hecho de que la losa oriental no se apoye en el suelo, como las restantes, bloqueando el acceso desde el corredor, hace pensar en una remodelación del monumento. Por otra parte, por el lado oriental de su área de protección se reconocen sendos montículos que, si no son terreras de antiguas exploraciones arqueológicas, responderían a acciones o estructuras no concretadas. En todo caso San Sebastián Norte se halla cubierto por una homogénea capa herbácea con crecimiento en su perímetro de varios árboles que no afectan a la estructura dolménica.

Las losas de la cámara se encontraban, antes de nuestra intervención, vencidas en mayor o menor medida hacia el interior, reduciendo el espacio sepulcral. La circunstancia es más notoria en la losa generatriz, la occidental, que ponía en riesgo la estabilidad de la estructura. Advertimos que los ortostatos visibles están fracturados longitudinalmente y aunque superan el metro de altura no reflejarían la monumentalidad del edificio.

Trabajos de puesta en valor

Dentro del citado «Proyecto de Puesta en Valor de la Estación Dolménica de Kuartango», en San Sebastián Norte se planteó la consolidación estructural de las losas camerales con la mínima intervención posible y evitando afectar a elementos adyacentes. Bajo esta filosofía, como labor prioritaria se planteó reposicionar la losa generatriz, lo que obligaba a retirar una parte del túmulo. Para evitar su caída a medida que se desalojaban los sedimentos, se afianzaron las losas mediante cinchas y un cable tirante a un anclaje situado en el borde exterior del túmulo. También se previó y ejecutó, unir la losa generatriz a los ortostatos laterales que la flanquean con ayuda de elementos ajenos (se optó por chapas de acero inoxidable, que quedaron ocultas a la vista).

Finalmente, también se llevaron a cabo otras actuaciones encaminadas a la reorganización del entorno y que no requerían intervenciones arqueológicas previas (plantaciones y cercados).

La actuación arqueológica

El estudio de las necesidades arquitectónicas del dolmen de San Sebastián Norte para evitar el colapso de la cámara, y por extensión seguramente de una parte de su túmulo, justifican las acciones arqueológicas propuestas, aunque, en lógica, sin perder su sentido científico para comprender su realidad (pre)histórica. Por ello se implicó a un equipo multidisciplinar, especialistas en arquitectura, geología, antropología, documen-

gian, antropologian, dokumentazioan eta arkeologian, jardunbide egokiak eta profesionaltasuna bermatzen zituztenak.

Esku hartze arkeologikoei heldu aurretik, alde batetik prospekzio geomagnetiko bat egin zen lur eremuko irregulartasunen nondik norakoak ikertzeko, eta bestetik, altxaera fotogrametrikoa egiteko argazkiak atera ziren trikuharriaren egoeraren ikuspegi orokor bat izateko. Aurretiazko lan horiek eginda, 2 m karratuko zundaketa bati ekin genion lauza sortzailearen gibelaldean, eta zundaketa hori amaituta hasi ginen ganberaren barruko aldea induskatzen.

Lauza sortzailea askatzeko eta hartan bermatzen ziren bi ortostatoen zati bat hartzeko proiektatu genuen zundaketa. Ateratako lehen lurrek belar geruzari euskarria ematen zion gainazala eratzen zuten; osagai organikoez osatuta zeuden lur marroi horiek, trinkotasun maila txikiarekin eta klasto angelutsu batzuekin. Unitate horretatik 12 cm-ko izterrezur zati bat eta hezur printza batzuk jaso genituen. Azpian tamaina askotako harri angelutsuez –baina ertzak kamutsak– osatutako maila bat identifikatu genuen: jatorriz antropikoa da, eta halako horizontaltasunean jarrita badaude ere, oro har nahaspilatuta eta solte agertzen dira. Harrien artetik lur organikoak atera genituen, sustrai askorekin eta trinkotasun maila apalarekin. Nolanahi ere, sakondu ahala, argi eta garbi ikusi genuen lurra buztintsuagoa zela, tonalitatea lausotu egiten zela, nahiz eta blokeen forma eta egokiera ez ziren aldatzen. Jasotako material arkeologikoen artean hezur zatiak, ez ugari, maskor puska pare bat, zepa puska bat eta hareharrizko bi harri txiki, horietako batek leungailu gisa erabili izanaren arrasto agerikoekin, dira aipagarri.

Unitate horren azpian hirugarren unitate estratigrafikoa identifikatu genuen: aurrekoak baino handiagoak ziren harriek osatzen zuten, formaz lauak eta angelutsuak, ertz biribilduekin eta, tamaina handieneko piezetan, ertz biziekin. Harri batzuk 60 cm baino luzeagoak ziren, eta 36 eta 48 cm bitarte zabal. Argi eta garbi horizontalean bazeuden ere, zundaketaren alboetan inklinatuta egoteko joera zutela ikus zitekeen: iparraldeko ertzean 45º-ko angeluak egiaztatu genituen. Inolako zalantzarik gabe, nahita jarrita daude blokeak makurtuta, eta horizontalean daudenak lauza sortzailearen lekualdaketak eragindako mugimenduen emaitza dira. Unitate estratigrafiko hau bat dator trikuharriko tumuluaren jatorrizko egiturarekin, bloke handiagoez osatuta dago, eta bloke horien artean urria da lurra, buztintsua, kolore argikoa, unitatearen garapenaren lehen zentimetroetan hezur printza txiki batzuk dituena.

Tumuluaren egitura desmuntatuta buztin gorrixka homogeneoek eratutako mailara, frakzio handiagoko sarkinik gabera, iritsi ginen. Gure ustez horixe da zoru naturala, material arkeologikorik ez duena, eta bertan eraiki zuten hilobia. Puntu horretan, lanak abiarazitako hasierako gainazaletik metro beteko sakoneran, lauza sortzailea eta alboetako ortostatoak hedeekin lotzeko eta finkatzeko erabakia hartu genuen, sedimentuak aterata aldatu egin baitziren bultzadak eta jasandako kargak. Geroago lauza sortzailea hartzen zuen ebakia identifikatu genuen, jada oinarriko kareharrizko arrokaren deskonposiziotik etorritako tuparrien gainean.

Bestalde, hasiera batean ganbera garbitzea aurreikusten bazen ere, ustez aspaldikoak ez diren landatación y arqueología, que garantizaban las buenas prácticas y la profesionalidad.


Las acciones arqueológicas estuvieron precedidas tanto de una prospección geomagnética, con objeto de averiguar el sentido de las irregularidades del terreno, como de una serie fotográfica que permitiera el levantamiento fotogramétrico, para obtener una visión global del estado del dolmen. Tras ellas iniciamos un sondeo de 2 m de lado en la trasera de la losa generatriz y acabada esta labor se llevó a cabo la excavación del interior de la cámara.

El sondeo se proyectó para liberar la losa generatriz y abarcar una parte de los dos ortostatos que en ella se apoyan. Las primeras retiradas de tierra afectaron al nivel superficial que daba soporte a la cobertura herbácea, de composición orgánica poco compactada, color marrón y con algunos clastos angulosos. Se recogieron en esta unidad un fragmento de fémur de 12 cm y algunas esquirlas de hueso. Bajo ella se identificó un nivel de piedras angulosas –aunque romas las aristas- de diverso tamaño: su origen es antrópico y aunque posicionadas con cierta horizontalidad se presentaban, en general, en forma desordenada y suelta. Entre ellas retiramos tierras orgánicas con muchas raíces, y de baja compactación. No obstante, a medida que profundizábamos se advertía que la tierra se volvía más arcillosa y atenuaba su tono, por más que no variara la forma y disposición de los bloques. El material arqueológico recogido consistía en elementos fragmentados de hueso, no muy abundantes en todo caso, un par de trozos de conchas, uno de escoria y dos pequeñas piedras de arenisca, una de ellas con evidentes signos de uso como pulimento.

Inmediatamente por debajo se identificó una tercera unidad estratigráfica, compuesta por piedras que ganaban en envergadura respecto a las anteriores, de formas planas y angulosas, con aristas redondeadas o vivas entre las de mayor tamaño. Algunas superaban los 60 cm de largo con anchuras de entre 36 y 48 cm. Pese a su disposición claramente horizontal se observaba en los laterales del sondeo que tendían a estar inclinadas: en el cantil norte se comprobaron ángulos de 45º. No hay duda de la intencionada colocación buzada de los bloques, respondiendo las horizontales a movimientos por el desplazamiento de la losa generatriz. Esta unidad estratigráfica se corresponde con la estructura original del túmulo del dolmen, compuesto por bloques mayores y escasa tierra entre ellos: arcillosa, de color claro, incluyendo algunas pequeñas esquirlas óseas en los primeros centímetros de su desarrollo.

Desmontada la estructura tumular se alcanzó un nivel de arcillas rojizas homogéneas sin intrusiones de fracción mayor que consideramos el suelo natural, carente de material arqueológico, sobre el que se erigió la sepultura. En este punto, a 1 metro de profundidad de la superficie inicial de trabajo, se decidió asegurar la losa generatriz y los ortostatos laterales mediante cinchas, al haberse variado los empujes y cargas soportadas con la retirada de los sedimentos. Posteriormente se localizó el corte en el que asentaba la losa generatriz, ya sobre las margas de descomposición de la roca caliza de base.

Por otra parte, aunque inicialmente estaba prevista una limpieza de la cámara, con retirada de material vege-



Argazkiaren beheko aldean, iragan mendean egindako krokisa orain landutako planimetriaren ondoan. Goiko aldean, trikuharriaren irudi zenitala behin balioa emateko lanak amaitu ondoren.

En la parte inferior de la fotografía, croquis realizado a mediados del siglo pasado junto a la planimetría elaborada ahora. En la parte superior, imagen cenital del dolmen tras la finalización de los trabajos de puesta en valor.

2021eko azaroan ustekabean behera etorri zen Labrazako herriaren ipar-ekialdean dagoen harresiaren kanpoko horma atal bat. Kaltetutako horma atal hori ia oso-osorik zen Erdi Aroko jatorrizko harresiaren egituraren zati bat. Kaltetuta gertatu ziren geroagoko eraikuntza elementuak aro modernoan irekitako baoak (aspaldi ez dela bideratutako eraberritze lanekin eraldatuak) eta aro garaikidean eraikitako atal bat (horma atal horren gailurra, ekialdeko erdian) izan ziren. Behera etorritako harresi tarte hori berreraikitzeko lanen helburua zen lur jotako horma ataleko baoen eta harlanduen osaera jatorrizko egituraren osaeraren ahalik eta berdinena izatea, eta beraz, kontrol arkeologiko zorrotz baten pean eraman ziren burura berreraikuntza lanak. Era berean, tarte horren bazterrean dagoen dorrea sendotzeko lanak aurreikusten ziren, dorre hori harresi ataletik erdi isolatuta geratu baitzen horma atala behera etorri zenean. Berreraikuntza lanei heldu aurretik, kontrolpean atera ziren betegarriko harri solteak eta lurrak. Kare hidrauliko naturaleko kareorez zarpiatu zen kaltetutako horma atalaren ageriko tartea, eta babestu egin ziren harresiaren gailurrak. Era berean, harresiaren kanpoko aurpegitik behera etor zitezkeen harlanduak atera genituen, behin pieza bakoitzari zegokion zenbakia idatzi ondoren.

En noviembre de 2021 el paño externo del paramento de la muralla localizado al noreste de la villa de Labraza sufrió un desplome fortuito. El lienzo que se vio dañado pertenecía casi en exclusiva a la estructura original de la cerca medieval. Los elementos de construcción posterior afectados fueron los vanos abiertos en época moderna debido a los adosamientos de edificaciones, modificados después con transformaciones recientes, y un paramento de construcción contemporánea que coronaba este paño en su mitad oriental. Las obras de restauración de ese tramo de la muralla derrumbado pretendían dejar la composición de sillares y de huecos del lienzo derrumbado lo más exacto posible a la original, llevándose a cabo bajo control arqueológico. También se contemplaba la actuación de consolidación de los restos del torreón existente en la esquina de este tramo, que quedó semiaislado del paño de la muralla tras el desplome. Previamente al inicio de esta restauración ya se habían retirado, de manera controlada, las piedras sueltas y tierras del relleno. Se había procedido al zarpeo con mortero de cal hidráulica natural de la parte expuesta del paño afectado y protegido las coronaciones de la muralla. También se retiraron los sillares de la hoja externa del muro con riesgo de desprendimiento, previa numeración de cada una de las piezas.



Ezkerrean horma atalaren egoera, behera etorri ondoren. Eskuinean horma atalaren egoera, berreraiki ondoren.

A la izquierda, estado del lienzo tras su derrumbe. A la derecha, estado del lienzo una vez rehabilitado.

Behera etorritako horma atala lur jo ondoren metatutako harlanduzko piezak berrerabilita berreraiki da, eta beharrezkoa izan denean herriaren inguruko harriak erabili dira, ezaugarri bertsukoak jatorrizkoekin alderatuta. Erabilitako morteroa, karez eta hareaz osatua, jatorrizkoaren antzekoa da, eta beraz, berreraikitako horma atalaren itxura ez da Erdi Aroko harresiaren gainerako itxuratik bereizten. Piezak batzeko mortero mota hori tarte osora zabaldu da itxura homogeneo bat emateko. Soilik horma atalaren berreraikuntzaren zuzentasunak, jatorrizko horma atalaren sabeltzea agerian uzten duenak, ematen du bi egiturak begi hutsez bereizteko aukera. Nolanahi ere, obrak atzera-buelta baduela agerian uzteko eta bereizteko, beira zuntzezko sare bat jarri da egitura berriaren eta harresiaren barruko aldea estaltzen zuen morterozko zarpiatuaren artean, 2021eko azaroan gertatutako lor jotzearen ondorioz agerian geratu zen tartearen artean. Baoak, kanpoko aldetik, harlanduxkez egindako paretekin estali dira, eta bao buruen azpian hainbat zentimetrotako zuloak utzi dira aireztapenak hezetasuna metatu dadin galaraz dezan, hezetasunak zurezko karga habeak kaltetu baititzake. Ezkerraldean altura ertainean dagoenak izan ezik, zurezko buru berri bat baitu, horma atala behera etorri aurretik zuten harrizko burua kontserbatu dute gainerako baoek. Harresiaren gailurra berdindu egin da, eta morterozko geruza bat erantsi zaio ur iragazteak galarazteko.

Berreraikuntza lanak harresi atalaren ekialdeko dorrearen egituretara zabaldu dira, arrakala handiak zituelako eta ezegonkortasun egoeran zegoelako, harlandu batzuk egituraren mugimenduak eraginda zatituta zeudelarik. Horrexegatik, hain zuzen ere, obraren gainerakoaren antzeko eraikuntza ezaugarriak dituen zapata batez indartu da, eta arrakalak hareazko eta karezko morteroz estali dira.

La reconstrucción del paño derrumbado se ha realizado reutilizando las piezas de sillería acopiadas tras el derrumbe, acudiendo a piedras del entorno de la villa cuando ha sido necesario, siendo de las mismas características en cuanto a su naturaleza. El mortero utilizado, compuesto de cal y arena, se asemejaba al original, de modo que el aspecto del paño reconstruido apenas se diferencia del resto de la muralla medieval. El rejunteo con este tipo de mortero se ha ampliado a todo el tramo para regularizar su aspecto. Únicamente la reconstrucción a plomo del paño, dejando a la vista el abombamiento del lienzo original, permite distinguirlos a simple vista. No obstante, para dejar constancia de la reversibilidad de la obra y como modo de distinguirla, se ha interpuesto una malla de fibra de vidrio entre la nueva estructura y el zarpeo de mortero que cubría la zona del interior de la muralla, expuesta por el derrumbe producido en noviembre de 2021. Los vanos se han cegado en el exterior con paredes de sillarejo dejando un hueco de varios centímetros bajo el dintel para que la ventilación impida la acumulación de humedad, lo que podría afectar a los cargaderos de madera. Salvo el situado a media altura a la izquierda, con dintel nuevo de madera, el resto conserva el dintel de piedra que tenía antes del derrumbe. La coronación de la muralla se ha regularizado y se ha aportado una capa de sacrificio de mortero para evitar la filtración de agua.

Las obras de restauración se han extendido a los restos del torreón oriental del tramo, que presentaba grandes grietas e inestabilidad, con algunos de sus sillares incluso partidos por el movimiento de la estructura. Por este motivo se ha reforzado con una zapata con características constructivas similares al resto de la obra y se han cubierto las grietas con mortero de arena u cal.

F. J. Ajamil Baños

A.18.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

A.18.2.1. **La Poleja. 3. poligonoko 899. lursaila (5. zenbakiko BAG)**

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantzazioa: Partikularra

A.18.2.1. **La Poleja. Parcela 899, polígono 3 (ZPA nº 5)**

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: Particular


Urgent archaeological intervention prompted by the deep ploughing of the area in preparation for planting vines. Thanks to the intervention, we can confirm the presence of a Roman settlement that has been seriously affected by agricultural activities over the years, although some remains have survived. One striking finding was the appearance of a rectangular-shaped deposit made from opus signinum, which can be linked with a fair degree of certainty to the lacus of a press or torcularium.

Oion herriko 5. zenbakiko balizko arkeologia gunea ukitzen zuen laborantza lursail bat garbitzeko eta ondoren mahasti bat antolatzeko interesa planteatu zenez, iragan 2022ko otsailean premiazko esku hartze arkeologiko bat eraman genuen burura.

Oiongo 3. poligonoko 899. zenbakiko lursailaz ari gara, eta «La Poleja» du izena. Herriaren ipar-mendebaldean dago, eta 9.000 m^2-ko azalera du. Harearrizko harlangaitzez eraikitako terraza handi batek bi mailatan bereizten zuen. Jabeak hondealan batzuk egin nahi zi-

Con motivo del interés en desfondar una parcela agrícola para una posterior plantación de viñedos que afectaba a la zona de presunción nº 5 de la localidad de Oyón, se efectuó una intervención arqueológica con carácter de urgencia el pasado mes de febrero de 2022.

La parcela afectada es la nº 899 del Polígono 3 de Oyón y se denomina «La Poleja». Se encuentra situada al noroeste de esta localidad y su superficie es de 9.000 m^2. Estaba dividida en dos niveles por una gran terraza construida en mampostería de arenisca. El propietario



Ezkerrean, Oiongo udalerrian aztertutako lursailean dokumentatutako egituren kokapena. Irudia: Enklabe K. S. T. Eskuinean, La Poleja lursaileko lacus-aren altxaera fotogrametrikoa. Irudia. Enklabe K. S. T.

A la izquierda, localización de las estructuras documentadas en la parcela estudiada dentro del municipio de Oyón. Imagen: Enklabe K.S.T. A la derecha, levantamiento fotogramétrico del lacus de La Poleja. Imagen: Enklabe K.S.T.

tuen etorkizunean mahastiak aldatzeko, eta beraz, lursail osoan eragingo zuten lan horiek.

Azalera osoaren herena balioetsi duten zangen indusketa mekanikoan oinarritu da balorazio arkeologikoa. Egiaztatu ahal izan da lursail honetan egiazki kontserbatzen direla erromatarren garaiko giza egonleku baten aztarnak. Eta egia da aztarna horiek lursailaren azalera oso zehatz batean dokumentatzen direla, hain justu ere ipar-mendebaldean, eta ondorengo suntsipenen ondorioz oso nahasita daudela.

Hala eta guztiz ere, lehorrean batutako hareharrizko harlangaitzez egindako horma tarte bat dokumentatu ahal izan zen. Egitura horretatik tarte txiki bat baizik ezin izan genuen dokumentatu, gainerakoa galduta baitzegoen ondorengo suntsipenen ondorioz. Horma hori ipar-mendebaldetik hego-ekialdera luzatzen zen, eta zuzenean estratu geologikoaren gainean bermatzen zen errenkada bat baizik ez zuen kontserbatzen. Metro batzuk mendebaldera interpretatzen zaila den beste egitura bat erregistratu genuen, K.o. IV. eta V. mendeetako kronologia berantiarreko betegarriekin lotuta.

Hormatik hegoaldera metro batzuetara erregistratu genuen zorupean induskatuta zegoelako egoera onean kontserbatu zen egitura bakarra. Oinplano angeluzuzeneko depositu bat zen, gutxi gorabehera 1,60 x 1 m-koa, eta 0,7 m-ko sakonera kontserbatzen zuen. Egitura pikor lodiko *opus signinum* materialaz eginda zegoen, azalaren akabera finagoa zelarik. Eraikuntza teknika kofratuan oinarritu zen, paretetako batzuetan haren arrastoak kontserbatzen baitziren. Gisa honetako egitura gehienek ez bezala, paretaren eta hondoaren artean bozel

pretendía realizar trabajos de desfonde para la futura plantación de viñedos, por lo cual la afección a la misma iba a ser total.

La valoración arqueológica efectuada ha consistido en la excavación mecánica de zanjas que han valorado un tercio de la superficie total. Se ha podido comprobar que realmente en esta parcela aún quedan restos de un antiguo asentamiento romano. También es cierto que éstos solo se documentan en una superficie muy concreta de la misma, en la zona noroeste de la finca y que debido a los arrasamientos posteriores estaban muy alterados.

Aun así, se pudo documentar un tramo de muro formado por mampuestos de arenisca trabados en seco. De esta estructura solo se pudo documentar un pequeño tramo porque el resto estaba perdido por los arrasamientos posteriores. Su orientación era noroeste-sureste y sólo conservaba una hilada que iba apoyada directamente sobre el estrato geológico. Unos metros al oeste, se registró otra estructura de difícil interpretación con rellenos asociados de cronología tardía de los siglos IV y V d.C.

Unos metros más al sur respecto al muro se registró la única estructura que gracias a estar excavada en el subsuelo se conservó en buen estado. Se trataba de un depósito de planta rectangular con unas dimensiones aproximadas de 1,60 x 1 m y una profundidad conservada de 0,7 m. La estructura estaba realizada en *opus signinum* de grano grueso con un acabado final más fino en la superficie. La técnica constructiva sería la de encofrado del cual quedaba aún huellas en algunas de sus paredes. A diferencia de la mayoría de estructuras de este tipo que suelen tener entre la pared y el fondo una mol-

laurdeneko moldura bat izaten baitute iragazkortasuna eta garbiketa hobetzeko, depositu honek ez zuen moldura hori, eta paretaren eta hondoaren arteko trantsizioa zirkulu laurdenak eratuta zegoen. Oinean bi zulo dokumentatu genituen. Bata sakonera txikikoa, iparmendebaldean, garbitzeko putzuarekin lotu daitekeena eta bestea sakonagoa, erdialdean.

Depositu hau inolako arazorik gabe lotu daiteke dolare edo *torcularium* bateko *lacus*-arekin, baina, tamalez, ez dira dolare hori eratzen zuten gainerako egiturak kontserbatu. Gutxienez 1.150 litro hartzeko moduko ontzia izango zen, ertzetako batean garbiketa putzu txiki bat izango zuen, eta erdialdean beste zulo sakonago bat, agian kontserbatu ez den goiko egituraren zati izandakoa.

Kronologiari dagokionez, *lacus*-a amortizatzen duen betegarriari lotutakoa zen estratu bakarra, baina ez zuen egitura abandonatu zuteneko unea doitzea ahalbidetuko zuen material arkeologikorik eskaini. Goi inperioaren garaiko TSH zatiak eta zeramika arruntaren zatiak jaso genituen, depositua noiz amortizatu zuten datatzen laguntzen dutenak, ziur aski K.o. II.-III. mendeetako une zehaztu gabe batean, ezin gehiago zehaztu dezakegula. Baina argi dago Goi inperioaren garaiko egitura dela. Inguruan dokumentatu diren gainerako betegarriak K.o. IV. mendearen azken laurdenetik aurrera datatu daitezke, estratuak une horretatik aurrera datatzen dituzten TSH berantiar moldeko hainbat zati dokumentatu baitira.

Gisa horretako egiturak arruntak dira erromatarren garaiko herrixketan, ezinbestekoak ziren ardoa egiteko, horietara bideratzen baitzen prentsan lortutako likidoa ardoa egiteko prozesuari jarraipena emateko. Behin barruan, hartzitze nahasia delakoa abiaraziko zuen muztioak, eta mahats patsetan dauden legamiek alkohol bihurtuko zuten mahatsaren azukrea. Intentsitate energetiko handiko fase horretan, muztioa borborka hasten da irakiten balego bezala. Prozesuak bost eta hamar egun bitarte iraungo zuen, eta ondoren edukiontzi txikiago batzuetara aldatuko zuten likidoa ardo bihurtzeko prozesuari jarraipena emanez. Ugari dira Erromatarren garaiko Hispania osoan banatzen diren adibideak[2]. Hurbilenak ditugulako, Nafarroan dokumentatutakoak (Arellano, Faltzes, Funes, Ledea)[3] eta Ander Arrese arkeologoak 2019an Guardiako Cerrado aurkintzan[4] aurkitutakoak aipa di-tzakegu.

Laburbilduta, *lacus* horren aurkikuntzak iradokitzen du haren inguruan aurkitutako aztarnak ere garai batean ardoa egiten zuen aspaldiko giza egonleku honetako ekoizpen egituraren zati direla. Horrela, aurkitutako horma zatiak tamalez ezin identifikatu izan den *torcularium* bateko egonlekuetako atalak izan daitezke.

dura en cuarto de bocel para mejorar su impermeabilidad y limpieza, esta pileta no tenía dicha moldura y la transición entre pared y fondo era en cuarto de círculo. En la base se documentaron dos agujeros. Uno de escasa profundidad situado al noroeste que podía identificarse con el pocillo de limpieza y otro central más profundo.

Este depósito se puede relacionar sin problemas con el *lacus* de un lagar o *torcularium* del que desafortunadamente no se han conservado el resto de estructuras que lo conformaban. Se trataría de una cubeta de recepción con un mínimo de 1.150 litros de capacidad con un pocillo de limpieza en una de sus esquinas y otro agujero de mayor profundidad en su parte central que, quizás, formo parte de la estructura superior no conservada.

Respecto a su cronología, el único estrato asociado era el relleno de amortización del *lacus,* que apenas aportó materiales arqueológicos que permitieran ajustar su abandono. Se recogieron algunos fragmentos de T.S.H. altoimperial y cerámica común que ayudan a datar su colmatación posiblemente en un momento indeterminado de los siglos II-III d.C. sin poder concretar más. Lo que sí parece claro que se trata de una estructura altoimperial. El resto de rellenos que se han documentado en las cercanías se pueden datar sin embargo a partir del último cuarto del siglo IV d.C., pues se han documentado varios fragmentos de T.S.H. Tardía que fechan los estratos a partir de ese momento.

Este tipo de estructuras son habituales en asentamientos rurales romanos y eran indispensables para la elaboración del vino, puesto que allí se derivaba el líquido obtenido del prensado para seguir con su proceso de elaboración. Una vez dentro, el mosto iniciaría la llamada fermentación tumultuosa, en la que las levaduras presentes en los hollejos comienzan la trasformación del azúcar de la uva en alcohol. Durante esta fase, de gran intensidad energética, el mosto llega a bullir como si estuviera hirviendo. Este proceso duraría entre cinco y diez días, momento en el que el mosto es trasvasado a otros contenedores de menor tamaño donde continúa el proceso de vinificación. Son muchos los ejemplos repartidos por toda la Hispania Romana[2]. Por cercanía podemos mencionar los documentados en Navarra (Arellano, Falces, Funes, Liédena)[3] y el localizado en 2019 por el arqueólogo Ander Arrese en el paraje del Cerrado en Laguardia[4].

En definitiva, la aparición de este *lacus* sugiere que los restos localizados a su alrededor también podían pertenecer a la parte productiva de este antiguo asentamiento dedicado a la elaboración del vino. De esta forma, los restos murarios localizados podían corresponder a diversas estancias pertenecientes a un *torcularium* que lamentablemente no se han podido identificar.

J. Niso Lorenzo; M. Loza Uriarte

---

[2] Peña Cervantes, Y. (2010): *Torcularia. La producción de vino y aceite en Hispania*, Institut Català d'Arqueologia Clàssica (ICAC), Tarragona.

[3] Mezquiriz, Mª A. (1995-1996): «La producción de vino en época romana a través de los hallazgos en territorio navarro», *Trabajos de Arqueología Navarra* 12, 63-89.

[4] Eskerrak ematen dizkiegu Arabako Arkeologia Museoko teknikariei informazio hau emateagatik.

[2] Peña Cervantes, Y. (2010): *Torcularia. La producción de vino y aceite en Hispania*, Institut Català d'Arqueologia Clàssica (ICAC), Tarragona.

[3] Mezquiriz, Mª A. (1995-1996): «La producción de vino en época romana a través de los hallazgos en territorio navarro», *Trabajos de Arqueología Navarra* 12, 63-89.

[4] Agradecemos a los técnicos del Museo de Arqueología de Álava por aportarnos esta información.

A.19. PARZONERÍA DE ENTZIA / ENTZIAKO PARTZUERGOA

A.19.1. Miaketa estentsiboa. Lehen fasea

Zuzendaritza: A. Martínez Montecelo
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.19.1. Prospección extensiva. Primera fase

Dirección: Á. Martínez Montecelo
Financiación: Diputación Foral de Álava

The first season of extensive and systematic visual prospecting in Parzonería de Entzia. The fieldwork aims to document (over the course of various seasons) those elements linked to the historic and traditional use of this mountain area.

Sarrera eta aurrekariak

Jarraian aurkezten da Entzia mendizerraren ekialdeko muturreko sektorean egindako ikusizko miaketa lanen laburpena. Andia eta Urbasa mendilerroen mendebaldeko jarraipena da plataforma garai hori, eta horiekin batera egitura geologiko garrantzitsu bat eratzen du, Urbasa-Trebiñu Sinklinala izenaz ezagutzen dena, Arabako erdialdeko erliebeak hein handi batean egituratzen dituena. Ordeka zabal hori aspaldidanik izan da Euskal Herrian ikerketa arkeologikoak egiteko espazio garrantzitsua, batez ere historiaurreko faseekin lotuta, eta bereziki kultura megalitikoarekin[5]. Gaur egun inguru honetan pagadiak eta mendiko larreak tartekatzen dira abeltzaintza tradizioarekin batera.

Bestalde, azken hamarkadetan, mendiko espazioen –askok eta askok erabilera partekatua dutela– eta horien aprobetxamendu historikoen aurreko interes berritu bat sortu da, eta batez ere ekologia historikoak eta basoko arkeologiak eskaintzen dituzten informazioak eta ikuspuntuak baliatu dira, lehen arrastoak XX. mende amaieran egindako lan batzuetan ikus daitezkeelarik. Gaur egun, Entzian, ikerketa proiektu batzuk ari dira ildo horretan egiten[6], eta prospekzio lan hau bete-betean sartzen da proiektu horietan.

Helburuak eta metodologia

Epe ertainera, partekatutako mendi horien historia gutxienez XV. mendetik gaur egunera arte osatzea da

Introducción y antecedentes

A continuación se muestra un resumen de los trabajos de prospección visual realizados en el sector más oriental de la sierra de Entzia. Esta plataforma elevada es la continuación occidental de las sierras de Andia y Urbasa, con las que conforma una importante estructura geológica, conocida como el Sinclinal Urbasa-Treviño, la cual articula en gran medida los relieves centrales de Álava. Esta extensa planicie ha sido tradicionalmente un espacio destacado para la investigación arqueológica en el País Vasco, sobre todo en relación con las fases prehistóricas y, en especial, con la cultura megalítica[5]. Actualmente en este lugar alternan hayedos y praderas montanas con una tradición ganadera desde antiguo.

Por otro lado, desde hace unas décadas ha surgido un interés renovado por los espacios de montaña –muchos de ellos de uso compartido– y sus aprovechamientos históricos, utilizando la información y los enfoques que proporcionan la ecología histórica y la arqueología forestal fundamentalmente, cuyas primeras pistas se pueden seguir ya en algunos trabajos realizados a finales del siglo XX. En la actualidad en Entzia se están realizando varios proyectos de investigación en esta línea[6], en la que se enmarca plenamente esta prospección.

Objetivos y metodología

El objetivo general de este proyecto a medio plazo es realizar una historia de estos montes compartidos, desde

---

[5] Ikaragarri handia da azterlanen kopurua, baina nabarmentzekoak dira Aranzadi, Barandiaran eta Egurenek osatutako taldeak XX. mende hasieran egindako ikerketak (Aranzadi T., Barandiaran J.M. , Eguren E. 1921. *Los nuevos dólmenes de la sierra de Entzia*. Eusko Ikaskuntza. Donostia) eta J. I. Vegas eta Barandiaranek mende horren amaieran egindako lanak (Barandiaran I., Vegas J.I. 1990. *Los grupos humanos de la Prehistoria de Encia-Urbasa. Análisis cultural de asentamientos, sistemas de explotación, modos de vida y ritos desde el Neolítico hasta el final de la Edad Antigua*. José Miguel de Barandiarán Fundazioa. Eusko-Ikaskuntza. Donostia-San Sebastián). Gaur egun, Legaire aldean, alderdi horiek ikertzen ari dira. Ikus Ordoño Daubagna J., Martínez Torres L. M., Alday Ruiz A., Niso Lorenzo J., M. Loza Uriarte M., Fernández-Crespo T. 2021. Legaireko Parke megalitikoa, *Arkeoikuska* 2020, 105-112. or.

[6] Ikus, esate baterako, Menéndez Blanco A. 2022. Erabilera Publikoko mendiak Araban: Miaketak Entziako Partzuergoan, Zalduondon eta Alkoitzan. *Arkeoikuska 2021*, 195-202. or.

[5] La cantidad de trabajos es ingente aunque podemos destacar las investigaciones realizadas por el equipo de Aranzadi, Barandiaran y Eguren a principios del siglo XX (Aranzadi T., Barandiaran J.M., Eguren E. 1921. *Los nuevos dólmenes de la sierra de Entzia*. Eusko Ikaskuntza. San Sebastián) y los trabajos de J. I. Vegas e I. Barandiarán a finales de la misma centuria (Barandiaran I., Vegas J.I. 1990. *Los grupos humanos de la Prehistoria de Encia-Urbasa. Análisis cultural de asentamientos, sistemas de explotación, modos de vida y ritos desde el Neolítico hasta el final de la Edad Antigua*. Fundación José Miguel de Barandiarán. Eusko-Ikaskuntza. Donostia-San Sebastián). En la actualidad, en el sector de Legaire, estas cuestiones están siendo investigadas. Véase Ordoño Daubagna J., Martínez Torres L. M., Alday Ruiz A., Niso Lorenzo J., M. Loza Uriarte M., Fernández-Crespo T. 2021. Parque Megalítico de Legaire. *Arkeoikuska 2020*, p. 105-112.

[6] Véase, por ejemplo, Menéndez Blanco A. 2022. Montes de Utilidad Pública en Álava: Prospecciones en la Parzonería de Entzia, Zalduondo y Alkoitza. *Arkeoikuska 2021*, p. 195-202.

proiektu honen helburu orokorra[7], eta horretarako ingurumen baliabideen, dokumentuetan jasotako informazioaren, toponimiaren eta informazio etnografikoen erregistroa baliatuko dugu. Landako jarduera arkeologikoen artean, prospekzio arkeologiko bat egingo da, hainbat kanpainatan banatuta, Entziako Partzuergoko mendi guztietan. Miatutako eremua handitzen doan heinean, zorupean esku hartzea eta hainbat analitika egitea aurreikusten da.

Ekinaldi honen helburu zehatzei dagokienez, 6 kilometro karratu inguruko eremu bat mugatu dugu, eta eremu horretan ikusizko miaketa estentsibo sistematiko bat eraman dugu burura. Gorabehera handirik gabeko espazioa denez, eremu osoa miatu dugu luzetarako ibilbideak eginez ekialdetik mendebalderako ardatzari jarraiki 200 metro bakoitzeko. Lan hori bi miatzailek eraman zuten burura euren artean 20 metroko tartea utzirik.

Landa lanean *Prospekzio Unitatea* (PU) izan da erregistroaren oinarrizko unitatea. Unitate hori tipologiaren arabera (bidea, etxola, erabilitako zuhaiztiak, artegia, zedarria…) eta, ahal izan denean, kronologiaren arabera dokumentatutako elementu interesgarri bakoitzak osatzen du. PU ezberdinek, kasu batzuetan, euren arteko kronologia erlatibo bat erakusten duten lotura estratigrafikoak dituzte.

Emaitzak

Jarraian, laburbilduta eta behin-behinean azaltzen dira lortutako emaitzak. Guztira 7 tipologia orokorretan banatutako 162 PU dokumentatu dira, baina horien artean badaude zenbait tipologiari erantzuten dioten elementuak[8]. Arlo interesgarri hauek nabarmentzen ditugu:

Baso kudeaketa

Hauxe da 2022ko ekinaldian tipologia arruntena, detektatutako elementuen ia erdia hartzen baitu. Espazio horren zatirik handiena pagadi basatiak hartzen du[9], bereziki 0,50 eta 0,70 m bitarteko diametroko enborra duten pagoek. Miatutako eremu osoan ia nonahi dago banatuta, eta badira kontzentrazio handiagoko puntu batzuk. ENT-0032 da PU zabalena, aztergai dugun eremuaren hiru laurden hartzen ditu, *Andoingo Mendatetik Itandurietarano* doan pistaren hegoaldean. PU horrekin tartekatuta badira 0,70 m-ko diametroko enborra gainditzen duten pagoak, eta batzuek 1,00-1,10 m bitarteko diametroa dute. Ezagutzen diren neurri bertsuko beste batzuekin alderatuta, diametro handieneko zuhaitz horiek XIX. mendearen bigarren erdialdean zehar landatu zituztela kalkulatzen dugu.

Zuhaizti lepatuak askoz ere gutxiago dira, eta eskuarki ale gutxi batzuek eraturiko orban txikietan banatzen dira, pagoa ia erabat nagusitzen delarik. Orban

por lo menos el siglo XV hasta la actualidad[7], integrando el registro de los recursos ambientales, la información documental, la toponimia y la información etnográfica,. Entre las actividades arqueológicas de campo se prevé realizar –a lo largo de varias campañas– una prospección arqueológica en la totalidad de los montes de la Parzonería de Entzia. A medida que la zona prospectada aumente también se prevé la realización de intervenciones en el subsuelo y la realización de diversas analíticas.

En lo que respecta a los objetivos concretos de la campaña se ha delimitado una zona de unos 6 kilómetros cuadrados sobre la cual se ha realizado una prospección visual extensiva sistemática. Al tratarse de un espacio con poco contraste altitudinal, todo el terreno ha sido muestreado mediante recorridos lineales efectuados según el eje E-W cada 200 metros, realizados por dos prospectores distanciados entre ellos unos 20 metros.

La unidad básica de registro en el trabajo de campo ha sido la *Unidad de Prospección* (UP), la cual podemos definir como cada uno de los elementos de interés documentados en base a su tipología (camino, cabaña, arbolado manejado, redil, mojón…) y, si es posible, su cronología. Las diferentes UP pueden mostrar en algunos casos relaciones estratigráficas que evidencian una cronología relativa entre ellas.

Resultados

A continuación se muestran de forma sucinta y provisional los resultados obtenidos. Se han documentado un total de 162 UP distribuidas entre 7 tipologías generales, si bien hay algunos elementos que responden a varias[8]. Podemos destacar las siguientes temáticas de interés:

Gestión forestal

Esta tipología es la más representada en la campaña de 2022, acaparando prácticamente la mitad de los elementos detectados. La mayor parte de este espacio se encuentra ocupado por bosque bravo de haya[9], con especial relevancia de los pies con diámetros situados entre 0,50 y 0,70 m. Su distribución es casi omnipresente en toda la zona prospectada con algunos núcleos con una mayor concentración. La UP más extensa es ENT-0032, ocupando tres cuartas partes de la zona de estudio, situada al sur de la pista que van desde el *Puerto de Andoin* hasta *Itandurieta*. Intercalados con esta UP se han detectado algunos pies bravos de haya de más de 0,70 m con varios ejemplares que alcanzan 1,00-1,10 m. Por comparación con otros pies similares de edad conocida, se estima que estos árboles de mayor diámetro pueden haber sido plantados durante la segunda mitad del siglo XIX.

El arbolado trasmocho es mucho menos frecuente y por lo general se distribuye en pequeñas manchas con

---

[7] Orain gutxi Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusiari buruzko antzeko lan bat argitaratu du gure taldeak (Martínez Montecelo A., Urteaga Artigas M., Rodríguez Fernández J., Alonso Arratibel J. Azpiazu Ugalde A., Ugarte Garrido J.L. 2021. *Montes Altos de Urbia y Altzania. Arqueología, historia, mojones y toponimia*. Arkeolan Buletina 19).

[8] Horixe da, esate baterako, baso kudeaketari eta mugaketari dagozkien aparteko zuhaitz batzuen kasua.

[9] Soilik 0,50 metrotik gorako diametroa duten zuhaitzei esleitu zaie PU.

[7] Recientemente nuestro equipo ha publicado un trabajo similar en la Parzonería General de Álava y Gipuzkoa (Martínez Montecelo A., Urteaga Artigas M., Rodríguez Fernández J., Alonso Arratibel J. Azpiazu Ugalde A., Ugarte Garrido J.L. 2021. *Montes Altos de Urbia y Altzania. Arqueología, historia, mojones y toponimia*. Boletín de Arkeolan 19).

[8] Tal es el caso, por ejemplo, de algunos árboles singulares que pertenecen tanto a *gestión forestal* como a *delimitación*.

[9] Únicamente se ha dado UP a los pies bravos con un diámetro superior a 0,50 m.



Goi-ezkerrean, Entzia eta Urbasa bereizteko horma (ENT-0005); eskuinean, Pago lepatu multzoa Andoingo Mendate aldean (ENT-0162). Behe-ezkerrean, Erkametz urtetsua eta isolatua, zedarriarena eginez Nafarroarekiko mugan, Legunbe aldean (ENT-0011); eskuinean, Harpe bat baliatu zuen aterpearen hondarrak (ENT-0033).

Arriba a la izquierda, muro de separación entre Entzia y Urbasa (ENT-0005); a la derecha, grupo de hayas trasmochadas en la zona del Puerto de Andoin (ENT-0162). Abajo a la izquierda, quejigo añoso y solitario ejerciendo de mojón en el límite con Navarra en la zona de Legunbe (ENT-0011); a la derecha, restos de un refugio aprovechando un abrigo rocoso (ENT-0033).

handiago batzuk hautematen dira ipar-mendebaldeko sektorean, Legaireko ordekak ukituz. Gainerako orbanek bi joera erakusten dute. Alde batetik, pagadi lepatuaren artxipelagoak argi eta garbi markatzen du Asparrenarekiko muga iparraldetik eta Urbasarekikoa ekialdetik, eta beraz, argi eta garbi dago zuhaizti mota horren zati handi batek tradizioz izan duela eginkizun mugatzaile bat, zedarriekin eta aparteko beste zuhaitz batzuekin batera. Bestalde, *Bagaio errekaren* ibarrean, Nafarroako lurretaranzko komunikazio ardatz garrantzitsuan, pago lepatuen beste orban lerro bat markatzen da. Landa lanetan zehar dendrokronologiaren bidez datatu litezkeen zuhaitz batzuk –lepatuak eta basatiak– bereizi edo selekzionatu dira.

Txaradiei dagokienez, bi espezietakoak detektatu ditugu. Alde batetik, sarritan agertzen dira hurritza txaradiak kareharrizko lapiaza azaleratzen den eremuetan, bereziki aztergai dugun eremuaren ipar-ekialdeko muturreko zona labirintiko eta apur bat sigi-sagatsuan. Nolanahi ere, itxura guztien arabera berezko egoera da gisa honetako eremu harritsuan. Pagoa da beste txaradi motaren protagonista, batik bat aztertutako eremuaren erdialdeko eta hegoaldeko goraguneetan. 0,15 eta 0,40 m bitartekoak dira detektatutako diametroak, eta beraz, pocos pies, con un predominio casi absoluto del haya. Se detectan algunas manchas de mayor tamaño en el sector NW, en contacto con los rasos de Legaire. Las demás manchas muestran dos tendencias. Por un lado, el archipiélago de hayedo trasmocho marca claramente la muga con Asparrena por el norte y con Urbasa por el este, por lo que no cabe duda que gran parte de este tipo de arbolado ha tenido tradicionalmente una función delimitante, junto con los mojones y otros árboles singulares. Por otro lado, se marca otra línea de manchas de trasmochos de haya en la vaguada del *Bagaio erreka*, un importante eje de comunicación hacia tierras navarras. A lo largo del trabajo de campo se han ido seleccionando varios pies –trasmochados y bravos– que podrían ser datados mediante dendrocronología.

En lo que respecta a los jarales, se han detectado de dos especies. Por un lado, los jarales de avellano aparecen frecuentemente sobre las zonas en las que el lapiaz calizo aflora, especialmente en las zonas laberínticas y algo tortuosas del extremo NE de la zona de estudio. En cualquier caso, parece tratarse de una situación espontánea en este tipo de ambientes de roquedo. El otro tipo de jaral lo protagoniza el haya, con especial relevancia en las elevaciones de la zona central y meridional del área

ale horietako gehienak aspaldi ez dela landatu eta erabili zituzten, XX. mendearen bigarren erdiaren eta gaur egun bitartean.

Entziako baso ustiapenaren beste funtsezko elementu bat ikaztobien presentzia da. Beste ingurune menditsuetan, aldapa handiko inguruneetan, errazago detektatzen dira halako elementuak, gehien-gehienak basoan egokitutako plataformak baitira, oinplano eskuarki obalatuarekin, aldapan induskatuak izan direlako ateratako lurrarekin aurreko aldean gainazal lau bat sortzeko. Normalean ez dute obrarik izaten, baina egon daitezke halako egitura duten aleak, eskuarki harlangaitzezko arku antzeko bat mazelaren beheko alderantz begira. Entzian ez da erraza aldapa txikiko eremuetan halakoak detektatzea, soilik ikatzen presentziak salatzen ditu. Alderdi morfologikoak eta metrikoak kontuan hartuta, jada beste ingurune batzuetan detektatutako joera bat hauteman ahal izan dugu, etorkizunean egin beharreko analisiekin egiaztatu beharreko proposamen kronotipologiko bat iradokitzeko bidea ematen diguna. Azpimarratu nahi dugu ikaztobien kontu hori funtsezko gaia dela mendi hauei denboraren joanean eman zaien erabilera eta aprobetxamendua behar bezala ulertzeko. Detektatutako elementuen artean, zorupean esku hartzeak (zundaketak) egiteko leku egoki batzuk bereizi ditugu, eta horiekin batera hainbat analitika egingo ditugu (C-14 bidezko datazioak, ikatzen eta erabilitako espezieen identifikazioa …).

Artzaintza

Artzaintzari dagokionez, ekinaldi honetan elementu gutxi batzuk baizik ez ditugu detektatu Igorita aldean, izan ere, aztertutako eremuak, gaur egun bederen, baso bokazio argi eta garbia du. Esan beharra dago basoan funtzio eta kronologia ezezaguneko tumulu edo harri pilaketa batzuk identifikatu direla, baina haietako estudiada. Los diámetros detectados varían entre los 0,15 y 0,40 m, por lo que se estima que la mayoría de estas unidades fueron plantadas y manejadas recientemente, entre la segunda mitad del siglo XX y la actualidad.

Otro elemento fundamental de la explotación forestal de Entzia es la presencia de carboneras. En otros entornos montañosos, con acusadas pendientes, estos elementos son más fáciles de detectar ya que se trata de plataformas situadas en el bosque en la mayoría de los casos, con una planta por lo general tendente a ser ovalada, siendo el resultado de sobre cavar en una ladera generando una superficie plana aterrazando la zona frontal con la tierra extraída. Por lo general no suelen tener obra, pero sí puede haber ejemplares con estructura, normalmente una especie de arco de mampostería tosca hacia el lado descendente de la ladera. En Entzia su detección no es sencilla en las zonas con poca pendiente, donde únicamente la presencia de carbones delata su existencia. Atendiendo a cuestiones morfológicas y métricas hemos podidos percibir una tendencia ya detectada en otros entornos, que permite atisbar una propuesta cronotipológica que debe verse contrastada con diversas analíticas en un futuro. Insistimos en que esta cuestión de las carboneras es una temática clave para entender el uso y aprovechamiento de estos montes a lo largo del tiempo. Entre los elementos detectados se ha seleccionado varios lugares donde se podrían realizar intervenciones en el subsuelo (sondeos) acompañados de diversas analíticas (dataciones de C-14, identificación de los carbones y de las especies utilizadas…).

Pastoreo

En lo que respecta al pastoreo, en la presente campaña apenas se han detectado unos pocos elementos en el sector de Igorita, ya que la zona estudiada presenta una vocación –al menos actualmente– claramente forestal. Sí que es interesante señalar que entre la zona bos-

Tipologia orokorra Tipología general	**Guztira** Total	**Tipologia zehatza** Tipología específica	**Azpiguztizkoa** Subtotal
Baso kudeaketa Gestión Forestal	**80**	**Baso basatia** / Bosque bravo	15
		Lepatuak / Trasmochos	27
		Txaradiak / Jarales	10
		Ikaztobiak / Carboneras	27
		Landaketa modernoak / Plantaciones modernas	1
Artzaintza / Pastoreo	**1**	**Aska modernoa** / Abrevadero moderno	1
Mugaketa / Delimitación	**12**	**Horma** / Muro	1
		Zedarria / Mojón	10
		Aparteko zuhaiztia / Arbolado singular	1
Bideak / Caminería	**63**	**Baso bideak** / Pistas forestales	61
		Bide zaharra / Viejo camino	2
Eraikuntza / Edificación	**2**	**Aterpea-Etxola** / Refugio-Cabaña	2
Erauzketa / Extracción	**1**	**Erauzketa gunea** / Zona de extracción	1
Zehaztugabea / Indeterminado	**3**	**Harri pilaketak** / Montones de piedras	3
PU GUZTIRA / TOTAL UP	**162**		**162**

Dokumentatutako Prospekzio Unitateen lapurpen taula, tipologien arabera banatuta

Tabla de síntesis de las Unidades de Prospección documentadas distribuidas por tipologías.

batzuetan lizar batzuk eta elorri zuriko multzo batzuk kontserbatzen direla, eta beraz, garai bateko borda abandonatuak izan daitezkeela.

Mugaketa

Mugatzeko elementuei dagokienez, leku estrategikoetan antolatutako aparteko zuhaiztiez gain, beste bi elementu mota dokumentatu ditugu. Alde batetik zedarriak ditugu, eta gutxienez hiru zedarri mota bereizi ditugu. Alderdi estratigrafiko eta kronotipologikoei erreparatuz, sekuentzia hauxe dugu zaharrenetik hasita berrienean amaituta: tamaina handiko zedarriak (bi metro garai inguru), tokiko kareharriez eginak, tratatu eta zizelkatu gabe, eskuarki historiaurrekotzat identifikatzen diren monolito batzuen antzeko itxurarekin. Gure kasuan, aldi historikoko elementu mugatzailearen izaera hori Nafarroako mugaren kokapenarekiko bat etortzean oinarritzen da. Behin-behinean bada ere, Aro Modernoko jatorria ematen diogu tipologia horri, lehenagokoa ere izan daitekeen arren. Hurrengo zedarri multzoak akabera landuagoa du. Horiek ere tokiko kareharrian eginak dira, baina aurrekoak baino askoz ere txikiagoak dira. Forma prismatikoa dute, oina 15 x 25 cm ingurukoa eta altuera 60-80 cm bitartekoa. Akabera oso zakarra dute eta goiko aldean gurutze formako ebaki bat izan dezakete. Ustez Aro Modernoan ipiniak dira. Tipologia ustez berrienak erakusten du akabera landuena. Forma prismatikoa dute, edo apur bat piramide enborraren formakoa, oinak 20 x 30 cm ingurukoak eta guztira metro inguru garai. Deskribatutako beste bi zedarri motekiko alde nagusia da hauek landuagoak direla, eta hareharrian eginak direla. «A» bat edo «N» bat izaten dute, lehenengoa Arabari begira eta bigarrena Nafarroari, eta gurutze bat goiko aurpegian. Azken horien tipologiak historikoki dokumentatutako beste mugarri batzuena gogorarazten du, bereziki XIX. mende hasieran Gipuzkoako eta Nafarroako mugen artean egindakoena[10].

Bestalde, Entzia eta Urbasa bereizten dituen horma da detektatutako elementu mugatzaile handiena. Lehorrean eraikitako obra da, tokiko kareharrizko harlangaitzekin, piezak tratatu eta zizelkatu gabe ipiniak, piezen batez besteko tamaina, 50 x 30 x 20 cm ingurukoa. Tarte gehienetan metro bete ingurukoa da altuera gorena, eta 60-70 cm bitarte lodi da. Kilometro batzuetan zehar luzatzen da etenik gabe, pista batzuetan sartzeko etenuneek eta behera etorritako atal batzuek baizik ez dute eteten jarraitutasun hori. 1928-1929 bitartean altxatu zuten Nafarroarekiko mugen inguruan sortzen ziren auziei amaiera emateko. Horma hori aipatutako zedarri batzuekin eta zuhaitz urtetsu batzuekin lotzen da estratigrafikoki, baina inolako zalantzarik gabe da elementurik berriena.

cosa se han identificado varios túmulos o amontonamientos de piedras de función y cronología indeterminada pero que en algunos de ellos se conservan algunos pies de fresno y cierta densidad rodales de espino blanco, por lo que no hay que descartar que se pudiera tratar de antiguas bordas abandonadas.

Delimitación

En cuanto a elementos de delimitación. Además de la presencia de arbolado singular emplazado en lugares estratégicos se han documentado otros dos tipos de elementos. Por un lado se encuentran los mojones, de los cuales se han reconocido, al menos tres tipologías. En base a aspectos estratigráficos y cronotipológicos, de más antiguo a más modernos, tendríamos la siguiente secuencia: mojones de gran tamaño (cerca de dos metros de altura) construidos con piedra caliza local, sin ningún tratamiento ni talla, con el aspecto muy parecido a algunos de los monolitos identificados habitualmente como prehistóricos. En nuestro caso, su carácter delimitante en época histórica se fundamenta en la coincidencia de su ubicación sobre la frontera con Navarra. Proponemos de forma provisional para esta tipología un origen en la Edad Moderna, aunque podrían ser anteriores. El siguiente grupo de mojones presenta un acabado algo más elaborado. Se trata de piezas también realizadas en caliza local pero de mucho menor tamaño que los anteriores. Esbozan formas prismáticas con una base de unos 15 x 25 cm y una altura de unos 60-80 cm. El acabado es muy tosco y pueden presentar una cruz incisa en la parte superior. Se estima que pueden haberse colocado en la Edad Moderna. La tipología que se considera más reciente presenta el acabado más elaborado. Presentan forma prismática o levemente troncopiramidal, con bases de unos 20 x 30 cm y una altura total próxima a un metro. La diferencia fundamental con los otros dos tipos de mojones descritos es que están labrados de forma más elaborada y sobre piedra arenisca. Suelen presentar una «A» o una «N» según miren al lado alavés o navarro respectivamente, y una cruz en la cara superior. Su tipología recuerda a otros amojonamientos documentados históricamente realizados entre Gipuzkoa y Navarra a principios del siglo XIX[10].

Por otro lado, el elemento delimitante de mayor envergadura detectado es el muro de separación entre Entzia y Urbasa. Se trata de una obra construida en seco con piezas de mampostería caliza local sin ningún tipo de tratamiento ni talla, con un tamaño promedio aproximado de 50 x 30 x 20 cm. La altura máxima en la mayoría de los tramos es próxima a un metro, mientras que su grosor es de 60-70 cm. Presenta un desarrollo continuo de varios kilómetros, que se ve interrumpido para el acceso de algunas pistas así como en algunos tramos en los que se ha derrumbado. Fue levantado hacia 1928-1929 con el objetivo acabar con los litigios constantes por los límites con Navarra. Este muro interactúa estratigráficamente con algunos de los mojones mencionados, así como con algunos pies de arbolado añosos, siendo el casi siempre el elemento más reciente.

---

[10] Ikus Alonso Arratibel J., Azpiazu Ugalde A. 2021. Apuntes sobre los mojones de la Parzonería. Martínez Montecelo A. et al., *Montes Altos de Urbia y Altzania. Arqueología, historia, mojones y toponimia*. Arkeolan Buletina 19, 254-275. or.

[10] Véase Alonso Arratibel J., Azpiazu Ugalde A. 2021. Apuntes sobre los mojones de la Parzonería. En Martínez Montecelo A. et al., *Montes Altos de Urbia y Altzania. Arqueología, historia, mojones y toponimia*. Boletín de Arkeolan 19, p. 254-275.

Bideak

Aztergai dugun eremua aro garaikideko pista sare trinko batez josita dago, eta bide horiek 3-4 metro zabal dira. Asko daude gurpildunen trafikorako prestatuta, baina oro har egoera apur bat basatia erakusten dute, ibilgailuen trafikoa une jakin batzuetara mugatzen baita normalean. Bestalde, garai bateko bideen aztarnak detektatzen dira, bide estuagoak dira, batzuk lur eremuan sakon induskatuak, «U» formarekin. Oraingoz ez dakigu zein den azken bide horien antzinatasuna.

Eraikuntza

Ez dugu eraikuntza handirik identifikatu, Entziako beste sektore batzuetan dauden artzaintza egituren antzekorik bat bera ere ez. Lehen aipatutako harri pilaketez gain, tarteka okupatutako egonleku txiki batzuk aztertu ditugu. Oinarrizko obrak dira, txikiak, harlangaitzez eta material galkorrez eginak, arroken azaleratzeetako harpe txikiak baliatzen dituztenak. Itxura guztien arabera, aterpe txiki horiek garai historikoan erabili dituzte erabilera jakin batzuk emateko, baina segur aski basogintza izango zen erabilera nagusia.

Erauzketa puntuak

Ekinaldi honetan erauzketa puntu bakar bat detektatu dugu ipar-mendebaldeko muturrean, baina oso kronologia berrikoa da.

Konklusioak

Orain arte, PU gehienek kronologia garaikidea dute nahiz eta batzuk Aro Modernoan koka daitezkeen. Lehenengo ikusizko miaketa kanpaina honetan, aztertutako eremuan bederen, ia ez dugu artzaintzarekin lotutako elementurik detektatu, eta nagusi dira baso kudeaketarekin lotutako Prospekzio Unitateak. Gainera, agerikoa da zuhaizti lepatuak oso gutxi direla baso basatiaren aldean, Entziako basoek antzeko beste eremuekin alderatuta nozitu duten presio txikiaren ondorioz[11]. Ale lepatu urriek, batzuek orban txikiak eratuz eta bestetzuk han-hemenka isolatuta, izaera sinbolikoa eta mugatzailea izan dezakete. Ildo horretan, oso interesgarriak dira zuhaitz lepatu batzuen, zedarri historikoen eta 1928-1929 urteetan Urbasatik bereizteko altxatutako hormaren artean detektatzen diren lotura estratigrafikoak[12].

Azkenik, nabarmentzekoa da egonleku handien gabezia. Harpe natural batzuk baliatzen dituzten aldi baterako oinarrizko aterpeez baizik ezin dugu hitz egin kasu honetan. Nolanahi ere, ez dago baztertzerik tumulu itxurako elementu zehaztugabe batzuk garai bateko etxolen aztarnak izatea.

Á. Martínez Montecelo; J. Rodríguez Fernández

Caminería

La zona de estudio se encuentra recorrida por una densa red de pistas de época contemporánea, con una anchura de unos 3-4 metros. Muchas de ellas están habilitadas para el tráfico rodado aunque presentan en general un estado de asilvestramiento, siendo habitual el tránsito de vehículos únicamente en unas pocas. Por otro lado se reconocen retazos de la caminería tradicional, con senderos más estrechos, a veces profundamente excavados en el terreno con secciones con forma de «U». Por ahora, se desconoce la antigüedad de estos últimos trazados.

Edificación

No se ha identificado ninguna edificación de envergadura, nada parecido a los complejos pastoriles presentes en otros sectores de Entzia. Además de los amontonamientos de piedra mencionados se han reconocido algunos pequeños espacios de habitación ocupados ocasionalmente. Se trata de obras rudimentarias de pequeñas dimensiones, realizadas con mampostería y materiales perecederos, que aprovechan pequeños abrigos en los afloramientos rocosos. Todo apunta a que estos pequeños refugios han sido utilizados en época histórica para diversas ocupaciones, aunque seguramente con cierta preponderancia de las actividades forestales.

Puntos de extracción

En esta campaña, únicamente se ha detectado un punto de extracción situado en su extremo NW, aunque de cronología muy reciente.

Conclusiones

Hasta el momento, la mayoría de las UP presentan una cronología contemporánea, si bien hay algunas que se pueden retrotraer hasta época moderna. Tras esta primera campaña de prospección visual, en la zona investigada apenas se han detectado elementos relacionados con el pastoreo, con un predominio claro de las Unidades de Prospección asociadas a la gestión forestal. Es evidente además la poca presencia de arbolado trasmocho frente al monte bravo, justificada por la escasa presión que ha sufrido bosque en Entzia en comparación con otros espacios similares[11]. Los escasos pies trasmochos, a veces en pequeñas manchas, a veces solitarios, pueden tener también un carácter simbólico y delimitante. En este sentido, resultan interesantes igualmente las relaciones estratigráficas que se detectan entre algunos pies trasmochados, mojones históricos y el muro de separación con Urbasa levantado en 1928-1929[12].

Finalmente, destaca la ausencia de lugares de habitación de entidad. Solamente se puede señalar la presencia de refugios rudimentarios temporales aprovechando algunos abrigos naturales. Sin embargo, no hay que descartar que algunos de los elementos indeterminados de aspecto tumular podrían ser restos de antiguas cabañas.

---

[11] Ikus, esate baterako, Aragón Ruano A. 2003. Gestión, uso y aprovechamiento de comunales y parzonerías en la Edad Moderna: el ejemplo de Entzia y de Urbia. E. Pastor, *La Llanada Oriental a través de la historia: Claves desde el presente para comprender nuestro pasado*. Arabako Foru Aldundia. Vitoria-Gasteiz, 81-91. or.

[12] Esan beharra dago ziur aski horma hori dela Euskal Herrian lehorrean eraikitako obra tradizional luzeena, hainbat kilometro luze baita.

Todas estas informaciones confluyentes, hace pensar que se pueda tratar de una megaconstrucción con una cronología que puede variar entre el Neolítico / Calcolítico / Bronce. En principio es más difícil que pueda tener una cronología de la Edad del Hierro porque, aunque a una distancia no muy alejada (unos 1.200 m en línea recta) se encuentra el poblado de Carasta, en dicho poblado ya existen numerosos túmulos de enterramiento excavados en la década de los 90 del siglo pasado y además para llegar a él su acceso es complicado.

Canteras al norte del túmulo

Otro factor importante/interesante a favor de que se trate de un túmulo funerario es que, a 850 m en línea recta hacia el norte, siguiendo por el cordal y a una cota ligeramente superior, se han identificado mediante el modelo de sombras LiDAR cinco canteras de posible origen antiguo. Su aspecto e integración en el paisaje recuerdan otros indicios de minería prehistórica como en los que estamos trabajando actualmente en las canteras neolíticas de sílex de Pozarrate (Treviño).

Conclusión

Con todos los datos suministrados por las prospecciones y sondeos realizados en la estructura tumular de la «Llana de Hereña», a pesar de no haber encontrado restos arqueológicos de cultura material, desde un punto de vista geológico, geomorfológico, geofísico y geométrico hay indicios suficientes para poder afirmar que se trata de una estructura antrópica.

Para encontrar evidencias arqueológicas determinantes (constructivas y/o de cultura material) se recomienda realizar una intervención arqueológica para confirmar definitivamente su carácter antrópico, su funcionalidad y su cronología.

A. Tarriño Vinagre

A.21.2. **San Andres eliza, Villambrosan**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Villambrosako Administrazio Batzordea

A.21.2. **Iglesia de San Andrés, en Villambrosa**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Junta Administrativa de Villambrosa

Monitoring of the clearing work and digging of foundation pits for a wood fence to be erected around the church. The results were of little historical-archaeological interest, although the rest of the Zone of Presumed Archaeological Interest has yet to be explored.

Elizaren kanpoko aldean zurezko hesi baterako zimendatze zuloak irekitzeko eta induskatzeko lanen gaineko kontrola. Emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik, baina etorkizunean ebaluatzeko geratzen da balizko arkeologia gunearen gainerakoa.

Control de las obras de desbroce y excavación de pozos de cimentación de un vallado de madera en el exterior de la iglesia, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto de la zona de presunción arqueológica.

F.J. Ajamil Baños

A.21.3. **Santo Tomas eliza. Arreon. 5. poligonoko 1117 eta 327A lursaileko bidea**

Zuzendaritza: Rebeca Marina

2022. urtean baimendutako esku hartzea, egun burura eramana. Argitalpen honetan ez da esku hartze horri buruzko testurik jaso, lanak egikaritzeko ardura zutenek ez baitute informaziorik bat ere helarazi.

A.21.3. **Iglesia de Santo Tomás, en Arreo. Camino sobre parcelas 1117 y 327A del polígono 5**

Dirección: Rebeca Marina

Intervención autorizada en el año 2022 y actualmente ejecutada. No se incluye texto de la misma en esta publicación, ya que los responsables de su ejecución no han facilitado información alguna al respecto.

A.22. RIBERA BAJA / ERRIBERABEITIA

A.22.1. **Igaiko zubia**

Zuzendaritza: Iban Sánchez Pinto

Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia. Igaiko Administrazio Batzordea

A.22.1. **Puente de Igai**

Dirección: Iban Sánchez Pinto

Financiación: Diputación Foral de Álava; Junta Administrativa de Igai

The poor state of conservation of the cutwaters of 'Ygai' bridge spanning the River Bayas prompted the emergency consolidation of the two easternmost ones during 2021. After the completion of this project, a major flood rendered all the consolidation work carried out to date ineffective, and work had to begin again.

Zubiari buruzko iruzkin laburra

Igai herritik mendebaldera gutxi gorabehera 150 metrora dago zubia. Baia ibaia gainditzen du zubia bera bermatzeko oinarriarena egiten duen arroka azaleratzen den tokian. San Migel herrixkara, San Pelayo herri hustura eta inguruan barreiatutako etxeetara iristen den A-4339 errepideko adar batetik aurrera eginez iristen da bertara. Era berean, GR-1 ibilbide luzeko pasabidea da zubi hau.

Igai herriaren oinetan kokatuta, zubi horrek gaur egun Rivabellosako herria lotzen du ia biztanlerik ez duten San Migel eta San Pelayo herrixkekin eta Karasta herri hustuarekin. Erdi puntuko lau arku ditu, neurri bertsukoak, baina ez dira berdinak. Ibaiaren ezkerraldeko bazterretik hasita lehen hiru arkuetako ahoak trauskil landuak dira, azaletik arbastatutako lauzen bidez eraikiak dira, baina eskuinaldeko ertzean bermatzen den arkua ongi eskuairatutako dobelekin egina da. Azkaratek eta Palaciosek adierazten dute (1996) arku hori Juan Unzaluk 1858an dokumentatu zuen berritze lan baten emaitza dela. Gangek ere eskema horri erantzungo zioten: harlanduxkak eta harlangaitzak nahasita lehen hiru gangetan, eta harlanduak azkenekoan. Zubiak ez du petrilik, baina dirudienez, zubiari begira egin diren deskribapen urrietan oinarrituta, sekula ere ez zuen horrelakorik izan. Gaur egun, metalezko eskudel bat du, zubiko taula handitu zutenean ipinia da.

Zubia, bai bere ezaugarri morfologikoengatik bai 1659ko «mapa de puentes y caminos generales universales y generales particulares de la Provincia de Álava» mapan agertzeagatik, XVI. mendeko eta XVII. mende hasierako zubi handien eta XVIII. mendekoen arteko trantsizio une batean kokatu behar da. 1665eko «mapa de puentes y caminos generales universales y generales particulares de la Provincia de Álava» mapan hauxe adierazten da: «el puente que llaman de Higay (…) es puente particular y que no toca a la provincia generalmente se rreparo sino a los ybteresados» (APAH. Ara-

Breve reseña del puente

El puente se sitúa a unos 150 metros al oeste de la localidad de Igai y salva el río Bayas en un sector donde el afloramiento rocoso sirve como base de apoyo a la fábrica del mismo. Al puente se accede por el ramal de la A-4339 que conduce al núcleo de San Miguel, al despoblado de San Pelayo y a las casas diseminadas por el territorio. Asimismo, el puente, sirve como punto de paso para el GR-1.

Ubicado a los pies de la localidad de Igay, este puente enlaza actualmente Ribavellosa con los núcleos casi deshabitados de San Miguel y San Pelayo y el despoblado de Carasta. Consta de cuatro arcos de medio punto de proporciones similares, aunque no iguales. Las embocaduras de los tres primeros, partiendo de la margen izquierda del río, fueron construidas toscamente a base de lajas apenas desbastadas, a diferencia del arco que asienta en la margen derecha, realizado con dovelas bien escuadradas. Señalan Azkarate y Palacios (1996) que este arco debe corresponderse con una reforma del mismo documentada en el año 1858 a cargo de Juan Unzalu. Las bóvedas responderán a este mismo esquema: sillarejo y mampostería concertada para las tres primeras y aparejo de sillar para la última. El puente carece de pretil, aunque parece que nunca lo llegó a tener en base a las pocas descripciones que del mismo tenemos, sustituido en la actualidad por una barandilla metálica, al haberse procedido a la ampliación del tablero.

El puente, tanto por sus características morfológicas como por su aparición en el «mapa de puentes y caminos generales universales y generales particulares de la Provincia de Álava» de 1659, ha de ubicarse en un momento de transición entre los grandes puentes del siglo XVI y comienzos del XVII y los puentes del siglo XVIII. En en el «mapa de puentes y caminos generales universales y generales particulares de la Provincia de Álava» de 1665, se señala que «el puente que llaman de Higay (…) es puente particular y que no toca a la provincia generalmente se rreparo sino a los ybteresados» (ATHA. Sección Actas de

bako Batzar Orokorren Akten Sekzioa. 16. F Liburua. 173-v, Azkarate eta Palaciosen lanean aipatua 1996).

Esku hartzeko zioa

2021eko esku hartzeari heldu aurretik, zubia oso egoera txarrean zegoen ondoz ondo etorritako uholdeen ondorioz, larriki kaltetuta zeuden ekialdeko bi zubi bularrak. Horrexegatik, 2021eko urrian/azaroan, premiazko esku hartze bat bideratu genuen bi zubi bular horiek sendotzeko eta, modu horretan zubia behera eror zedila eragozteko. Zubia sendotzeko lanak bukatu ondoren, artean obra behar bezala finkatuta ez zegoenean, azaroan eta abenduan beste uholde handi bat gertatu zen, eta ondorioz, ez zen behar bezala finkatu aurreko egunetan egindako obra, eta konpondutako zubi bular horiek zati handi bat galdu zuten berriz ere. Horrexegatik, hain zuzen ere, 2022ko ekainean eta uztailean beste proiektu bat idatzi genuen zubiko bi zubi bularrak berriz ere behar bezala sendotzeko eta finkatzeko. Testuinguru berri horretan ulertu behar da obren gaineko kontrol arkeologiko hau.

Lanen nondik norakoak

Hasteko, sendotu beharreko bi zubi bularretan eta zubiaren inguruan hazitako landareak atera genituen. Gero gainazalak garbitu eta Raltec I-850 motako beira zuntzezko poliesterrezko sare bat jarri genuen jatorrizko obretako piezak eta sartutako piezak bereizi ahal izateko. Lan horretan egokitu egin genituen azalerak pieza berriak jartzeko. Jarraian, bi zubi bularrak osatu genituen. Horretarako inguruko harri mota berbera erabili genuen erdiko zubi bularrean izan ezik, hor zubiaren eraikuntzan erabilitako litologia bereko harlanduak jarri baikenituen alde horretan zegoelako zulorik handiena eta alde horretan zegoelako kontserbazio egoera okerrenean. NHL-35 kare hidraulikoa erabiliz batu genuen egitura osoa, bai pilareen barruko aldeak betetzeko bai berreraikitako guztia geroago batzeko ere.

I. Sánchez Pinto

las Juntas Generales de Álava. Libro 16, F. 173-v, citado en Azkarate y Palacios 1996).

Motivación de la intervención

El estado del puente antes de la intervención de 2021, como consecuencia de la acción reiterada de sucesivas avenidas, era muy precario, con los dos tajamares orientales gravemente dañados. Es por ello que se acometió una actuación de emergencia, en los meses de octubre/noviembre de 2011, conducente a la consolidación de ambos tajamares y así evitar su ruina definitiva. Finalizados los trabajos de consolidación, y aún sin que la obra hubiera forjado, a lo largo de los meses de noviembre y diciembre se produjo una gran avenida, lo que originó que la obra ejecutada en los días previos no se cohesionara como debía y que los dos tajamares reparados volvieran a perder gran parte de su fábrica. Es por ello que a lo largo de los meses de junio/julio de 2022 se volvió a redactar un nuevo proyecto conducente a consolidar y afianzar nuevamente los dos tajamares del puente. Es en este nuevo contexto en el que debe entenderse el presente control arqueológico de las obras.

Desarrollo de los trabajos

Los trabajos realizados consistieron en la limpieza de la vegetación existente en ambos tajares a intervenir así como en el entorno del puente. Posteriormente se limpiaron las superficies y se colocó una malla en poliéster con fibra de vidrio tipo Raltec I-850, con la finalidad de poder diferenciar las fábricas reintegradas de las originales. Esta acción supuso el acondicionamiento de las superficies para la colocación de las nuevas fábricas. Posteriormente se procedió la reintegración de ambos tajamares. Para ello se empleó la misma piedra existente en la zona a excepción del tajamar central, donde se procedió a la colocación de sillares de idéntica litología a la empleada en la construcción del puente, al ser en esta zona el hueco de mayores dimensiones y que peor estado de conservación presentaba. Toda la fábrica se cohesionó mediante el empleo de mortero de cal hidráulica NHL-35, tanto para el relleno interior de las pilas como para el posterior rejuntado de la fábrica reconstruida.

A.23. **SALVATIERRA / AGURAIN**

A.23.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.23.1.1. **Lope de Larrea kantoia**

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantzazioa: Aguraingo Udala

A.23.1.1. **Cantón de Lope de Larrea**

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: Ayuntamiento de Salvatierra

Urgent archaeological intervention prompted by work to improve the safety conditions of the Agurain cinema. Thanks to the intervention, we were able to confirm that the walls still currently standing do not correspond to the defensive medieval structure, but are rather the result of a retrofit carried out fairly recently that eliminated the southern tower of the San Sebastián gate, the foundations of which appeared in the sondage carried out during this intervention.

Sarrera

Aguraingo zinemak hartzen dituen eraikineko segurtasun baldintzak hobetze aldera, aipatutako eraikinari

Introducción

Con el fin de mejorar las condiciones de seguridad del edificio de los cines de la localidad de Salvatierra, el

leku egiten dion plataformako eustorma egonkortzeko lan batzuk egiteko asmoa agertu zuen udalerri horretako udalak. Lope de Larrea Kantoiaren alboko hormaren eta Aguraingo harresiko defentsa kuboaren beheko tartearen arteko elkargunea izango zen esku hartzearen xede. Alde horretan agerikoak ziren arrakala eta arteka ez gutxi, bai alboko lehenengo horma atalean bai kuboaren oinean.

Begi hutsez ikus zitekeen arrakalek kaltetutako muturrean ez zela dorrea kontserbatu, bai ordea beste muturrekoa, San Sebastian edo Andraiturri atea eratuko zuena eta hiribilduan mendebaldetik sartzea ahalbidetuko zuena. Beraz, alde hau lehendik egindako obrek erabat eraldatuta egongo zela pentsa zitekeen.

Testuinguru horretan, Arabako Foru Aldundiko teknikariek erabaki zuten, alde batetik, ukituko zen harresi atalaren altxaeren irakurketa estratigrafiko bat egitea, eta bestetik, zundaketa bat induskatzea harroinak eragingo zuen azleran. Gainera, obren gaineko kontrol arkeologiko bat egin behar zen.

Zundaketa arkeologikoaren indusketa

Hasteko, zundaketa arkeologiko bat egin genuen San Sebastian ate zaharraren hegoaldeko dorrearen ustezko harroinaren oinean. Hasieran gutxi gorabehera 3 m bider 1,5 m hartuko zituen zundaketak, azalera nahikoa izango zen ustezko dorrearen zimendua aztertu ahal izateko.

Landare geruza (1. UE) mehea altxatu bezain laster, argi eta garbi ikusi ahal izan genuen haren azpian zuzenean agertzen zirela ongi zehaztu beharreko egitura batzuk.

Zalantzarik gabe, zementuzko hodi handi samarra zen (2. UE) elementurik modernoena, iparraldetik hegoaldera zeharkatzen zuen zundaketa, eta ondorioz, aurreko lekukotasunak ebaki eta zaildu egiten zuen haien ulermena.

Hala eta guztiz ere, berehala ikusi ahal izan genuen harresiaren oineko obra, harroina agerian, 4. UE, ez zela jatorrizkoa. Izan ere, bertatik bertara ikusi ahal izan genuen bazegoela iparraldeko dorrearen dorre simetriko bat, artean altxaera kontserbatzen duena. Zimendua, 5. UE, dokumentatu genuen, harlanduzkoa zen, iraganeko beste esku hartze batzuetan egituran aztertutako eraikuntza ildo berari jarraiki. Harresiaren lerrotik 1,2 m irteten zen dorrea, eta gutxi gorabehera 2,7 m zabal zen.

Gainera, aztertutako harresi tartea, kantoiarekin izkina egiten zuena, atearen hegoaldeko kubo zaharra (6. UE) desagerrarazi zuten unean altxatu zutela hauteman ahal izan genuen. Izan ere, argi eta garbi ikusi ahal izan genuen ustezko Erdi Aroko harresiaren oinean hormigoia zegoela. Beraz, modernoa zen, gutxienez, aztertutako tarte osoaren kanpoko horma atala.

Harresiaren irakurketa estratigrafikoa

Ukitutako tarteen dokumentazio grafikoa egin ondoren, altxaeren irakurketa egin genuen.

Hasteko, gutxi gorabehera 2 m zabal den harresiari kantoiko eustorma, harlangaitzezkoa (8. UE), atxiki zitzaiola ikusi genuen. Arazo gehiago zeuden harresi ataayuntamiento de este municipio pretendía llevar a cabo una serie de trabajos de cara a la estabilización de un muro de sostenimiento de la plataforma que alberga al mencionado edificio. La zona a intervenir correspondía al punto de encuentro del muro de la pared lateral del Cantón Lope de Larrea, y el recalce del cubo de defensa de la muralla de Agurain. En toda esta zona eran visibles un buen número de grietas y fisuras, tanto en el primer paño del muro lateral como en la base del cubo.

Se podía observar a simple vista que en el extremo afectado por las grietas no se había conservado la torre, que sí existe en el otro extremo y que formarían parte de la puerta de San Sebastián o Andraiturri, que servía de acceso a la villa por su lateral oeste. De esta manera, cabía suponer que ya se encontraba esta zona muy afectada por obras anteriores.

En base a ello, los técnicos de la Diputación Foral de Álava, decidieron que se debía realizar por un lado, una lectura estratigráfica de los alzados del tramo de muralla que iba a verse afectado, y por otro, la excavación de un sondeo que abarcará la superficie que iba a verse afectada por la zapata. Además debía llevarse a cabo el control arqueológico de las obras.

Excavación de sondeo arqueológico

Primeramente se realizó el sondeo arqueológico en la base de la supuesta zapata de la torre sur de la antigua puerta de San Sebastián. El sondeo tenía inicialmente unas dimensiones de unos 3 m por 1,5 m, superficie suficiente para poder estudiar la cimentación de la supuesta torre.

Tan pronto como retiramos la capa vegetal (UE 1), de escaso espesor, se pudo ver como bajo ella, directamente, aparecían una serie de estructuras que había que definir bien.

Sin duda, la más moderna era una tubería de cemento (UE 2) de importante tamaño, que atravesaba el sondeo de norte a sur, cortando los testimonios anteriores y dificultando la comprensión de los mismos.

A pesar de ello, enseguida pudimos comprobar que la obra en pie de la muralla, el poyete a la vista, UE 4, no correspondía en nada a la original. De hecho, se pudo ver que allí había una torre simétrica a la norte que todavía se conserva en alzado. Se documentó su cimentación elaborada en sillería, UE 5, siguiendo la misma línea constructiva en su fábrica ya observada en otras actuaciones pasadas. La torre sobresalía de la línea de muralla 1,2 m y tenía una anchura de unos 2,7 m.

Además se pudo apreciar que el tramo de muralla afectado, el que hacía de esquina con el cantón, se había debido remontar en el momento en que eliminaron el antiguo cubo sur de la puerta, UE 6. De hecho, se pudo apreciar que había hormigón en la base de la supuesta muralla medieval. Así pues, al menos, el paramento exterior de sillería de todo el tramo afectado era moderno.

Lectura estratigráfica de la muralla

Se realizó la documentación geométrica de los tramos afectados y posteriormente se realizó la lectura de alzados.

Lo primero que se pudo apreciar es que a la muralla, de unos 2 metros de anchura, se le había adosado el muro de contención del cantón elaborado en mampostería (UE8). Más problemas existían a la hora de

lean bereizten ziren eraikuntza ekintzak identifikatzerakoan, batez ere kanpoko aurpegiaren zati handi bat tratatua izan zelako eta tratamendu horrek izugarri zailtzen zuelako tarte horren irakurketa estratigrafikoa.

Nolanahi ere, ongi asko nabaritzen zen harlandu batzuk itxuraz berriagoak zirela, eta beste batzuk zaharragoak; beharbada, aztertutako harresi atalean bideratutako berritze lanak adierazten ari dira. Izan ere, gure ustez, jatorrizko defentsa egituraren gainean (soilik errenkada bat kontserbatzen zuen altxaeran) aurreneko eraberritze lan bat eraman zuten burura, 7. UE, ez dakigu noiz egin zuten, baina itxura berri bat eman zioten harresiaren kanpoko aurpegiari. Geroago bigarren obra bat egin zuten, dorre zaharra desagerrarazteko egindako ebakiari eta harresi zaharraren lerroarekin bat eginda eraiki zuten harresi atal berriari zegokiena. Obra hori denboran bat etor liteke «Zinemak Eraikina» hartzeko goiko terrazaren (8. UE) eraikuntzarekin.

Bi esku hartze horien emaitzak oso positiboak izan ziren, Aguraingo hiribildu zaharrean aztertutako harresi tarteari buruzko informazio garrantzitsua eskaini baitzuten. Izan ere, egiaztatu ahal izan zen gaur egun zutik dauden atalak ez datozela bat Erdi Aroko defentsa egiturarekin, aspaldi ez dela burura eramandako eraberritze lan baten emaitza direla, eta eraberritze lan horietan San Sebastian atearen hegoaldeko dorrea desagerrarazi zutela. Edo gauza bera dena, argi eta garbi ikusi ahal izan da harresiko ate zahar horren gaur egungo irudia ez dela jatorrizkoa, eta bere garaian, guztiz zentzuzkoa denez, beste dorre bat izan zuela sarrera horren alboan.

identificar las distintas acciones constructivas existentes en el lienzo de muralla. Para empezar porque gran parte de su cara externa había sido tratada lo que dificultaba mucho su lectura.

No obstante, se observaba perfectamente como había sillares de apariencia más nueva y otros de aspecto más antiguo que, quizás, podían estar indicando distintas reformas en el paño estudiado. De hecho, creemos que sobre la estructura defensiva original de la cual tan sólo quedaba una hilada en alzado, podría haber una primera reforma, UE 7, que no sabemos cuándo se llegó a realizar, pero que dio un lavado de imagen al paramento externo de la muralla. Posteriormente hubo una segunda que puede corresponder al corte realizado para eliminar el antiguo torreón y al nuevo paramento que construyen coincidiendo con la línea de muralla antigua. Esta obra puede coincidir en el tiempo con la construcción de la terraza superior UE 8 para el «Edificio Cines».

Los resultados de ambas actuaciones fueron muy positivos, ya que depararon importante información sobre el tramo de muralla afectado de la antigua villa de Salvatierra. De hecho, se pudo determinar que los alzados en pie actualmente no corresponden con la propia estructura defensiva medieval sino que son fruto de una reforma que se debió producir en fechas bastante recientes, por las que se eliminó el torreón sur de la puerta de San Sebastián. O lo que es lo mismo se ha podido ver que la imagen que ahora se tiene de esta antigua puerta de la muralla no es la original y que en su día contaba, como por otra parte es totalmente lógico, con otro torreón que flanquearía este acceso.

J. Niso Lorenzo

A.23.1.2. **San Juan Plaza**

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantzazioa: Aguraingo Udala

A.23.1.2. **Plaza de San Juan**

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: Ayuntamiento de Salvatierra

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Aguraingo Hirigune Historikoko San Juan plazako zoladura berritzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Control arqueológico de las obras de renovación del pavimento de la plaza de San Juan, situada dentro de los límites del Casco Histórico de Salvatierra, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico arqueológico.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.24. SAN MILLÁN / DONEMILIAGA

A.24.1. **Barriako monasterioa. Biomasa galdaren instalazioa**

Zuzendaritza: Miguel Ángel Berjón Lobato
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.24.1. **Monasterio de Barria. Instalación de calderas de biomasa**

Dirección: Miguel Ángel Berjón Lobato
Financiación: Diputación Foral de Álava

Archaeological monitoring of the digging of a ditch for laying communication lines between biomass boilers in Barria Monastery (San Millán, Álava).

Barriako Monasterioaren (Donemiliaga) inguruan zanga bat induskatzeko obren gaineko kontrol arkeologikoa. Obra proiektuaren arabera zanga hori arkeologikoki babestuta dagoen eremu batean induskatuko zenez, aurreikusitako lanen ikuskapen teknikoa egin behar zen. Instalatu beharreko eroaleek Monasterioko galdara gela –klaustroaren ipar-mendebaldeko angeluan– eta monasterioko baratzearen ipar-ekialdeko gune osagarria lotu behar zituzten. Horretarako, bi espazio horiek lotuko zituen zanga bat induskatu behar zen, gutxi gorabehera 70 metro luze izango zen eta 1 metro zabal eta sakon. Ikuspegi arkeologikotik, monasterioko tenpluaren ondoko zelaian egokitzen zen tartea zen gune interesgarriena, alde horretan hilerriaren aztarna motaren bat egon baitzitekeen zorupean. Gainera, zanga horrek erdialdetik ebakiko zuen monasterioaren iparraldeko zelaiaren ekialdeko muturrean zegoen bolatoki tradizional arabarra

Lanen gaineko ikuskapen arkeologikoak itxura batean nekazaritzako lurrez osatua zen betegarri lodi bat dokumentatu zuen zelaiko soropilaren azpian, zuzenean hartzen zuen atseden oineko kareharrizko estratu naturalaren gainean. Kareharrizko lauza pilaketa batzuk ikusi genituen, eta itxura batean harrizko substratutik beretik erauziak ziren, segur aski eraikuntzarako materiala lortzeko erauzketa eta metaketa lanen emaitza dira. Era berean, hondakin antropologikoak dokumentatu genituen, zatitan eta barreiatuta, ageriko lotura anatomikorik gabe. Hezur horiek ez zeuden jatorrizko posizioan egon zitezkeen hilobietan.

Kontrol arkeologiko honek obraren xedeko eremuan dagoen estratigrafiaren azterketa espazial partzial bat baizik ez du ahalbidetu, induskatutako zangaren ebaluazioa egitera mugatu baita. Jatorrizko posizioan aztarna arkeologikorik –depositua edo egitura– aurkitu ez izanak agerian uzten du Barriako Monasterioaren iparraldeko zelaiaren azpiko jatorrizko estratigrafia arkeologikoa oso nahasita dagoela. Testuinguru hori inguruko gainerako azalerara estrapolatzea apur bat arriskutsua bada ere, lurpeko azpiegiturak (ur eta argi kanalizazioak) edo beste azpiegitura mota batzuk sartzeko obrek jatorrizko maila arkeologikoak modu atzeraezinean kaltetu ahal izan dituztela planteatu daiteke. Era berean, zangaren eraginpeko eremuan hondakin antropologikoak barreiatuta agertzeak adieraz dezake bertan elizari lotutako hilerri alde bat dagoela, nahiz eta oraindik ez den inolako hileta egiturarik aurkitu *in situ*.

Zangak ukitutako espazioan maila ez antropikoetaraino iritsi den arren, zanga induskatu den zerrendatik harago ez dago zelaiak hartzen duen espazio osoaren kalifikazioa aldatzerik. Beraz, prebentzioz gomendatzen da osorik mantentzea legezko estaldura Barriako Monasterioaren babes arkeologikoaren mailan, bai eraikin multzoaren barruan bai alboko espazioetan –iparraldeko zelaiaren kasuan bezala–.

Control arqueológico de unas obras de excavación de una zanja en el entorno del Monasterio de Barría (San Millán). Dado que el proyecto de obras contempla la excavación en un área con protección arqueológica, se debía proceder a la realización de una supervisión técnica de los trabajos previstos. Las conducciones a instalar debían comunicar el cuarto de calderas del conjunto monacal –situada en el ángulo NW del claustro– hasta un espacio auxiliar presente en la parte nororiental del huerto del monasterio. El resultado debía ser la excavación de una zanja de comunicación de ambos espacios, con aproximadamente 70 metros de longitud, y con una anchura y profundidad de 1 metro. El espacio más sensible a nivel arqueológico estaba en el tramo que discurría por la campa en las proximidades del templo del monasterio, por la posible existencia de algún tipo de resto cementerial en el subsuelo. Adicionalmente, el trazado de la zanja debía cortar, por su parte central, el juego de bolo tradicional alavés ubicado en el extremo oriental de la campa septentrional del monasterio.

La supervisión arqueológica de los trabajos documentó la presencia de un potente relleno de apariencia agrícola bajo la superficie de césped de la campa, que se depositaba de forma directa sobre el estrato natural calizo de la base. Se observaron varias acumulaciones de lajas de piedra caliza, aparentemente extraídas del propio sustrato rocoso, posiblemente vinculadas a tareas de extracción y acopio para la obtención de material constructivo. Así mismo, se documentó la presencia de restos antropológicos fragmentados y dispersos, sin conexiones anatómicas detectables, ni posible asociación a sepulturas en posición primaria.

Este control arqueológico tan sólo ha posibilitado un análisis espacial parcial de la estratigrafía presente en el área objeto de obra, circunscrito a la evaluación de la zanja excavada. El hecho de que no se haya localizado ninguna evidencia arqueológica –depósito o estructura–en posición primaria parece evidenciar un importante grado de alteración de la estratigrafía arqueológica original bajo la campa septentrional del Monasterio de Barría. Si bien, resulta un tanto arriesgado extrapolar esta realidad contextual al resto de la superficie de la zona, sí se puede teorizar con que posiblemente, las obras de inserción de infraestructuras soterradas (canalizaciones de agua y luz), u otras de distinta índole, hayan podido afectar de forma irreversible los niveles arqueológicos originales. De igual manera, el hallazgo de restos antropológicos en dispersión en el área de afección de la zanja –en las proximidades del templo del Monasterio–, parecen indicar la existencia de un espacio cementerial vinculado a la iglesia, aunque no se haya podido localizar ninguna estructura funeraria in situ.

A pesar de que en el espacio afectado por la zanja se han alcanzado niveles no antrópicos, no resulta posible desafectar por completo el espacio de la campa, más allá del propio donde se ha excavado la zanja. Por tanto, se recomienda de forma preventiva el mantenimiento de la cobertura legal a nivel de protección arqueológica de forma completa para el Monasterio de Barría, tanto para el interior del conjunto edificatorio, como para los espacios adyacentes –tal es el caso de la propia campa septentrional–.

M.Á. Berjón Lobato; P. Sáenz de Urturi Rodríguez

A.25. VALDEGOVÍA / GAUBEA

A.25.1. Berbeia (Barrio, Bachicabo)

II. kanpaina

Zuzendaritza: Juan Antonio Quirós

Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia; UPV/EHUko Ondare eta Paisaia Kulturalen Ikerketa Taldea

A.25.1. Berbeia (Barrio, Bachicabo)

II Campaña

Dirección: Juan Antonio Quirós

Financiación: Diputación Foral de Álava; Grupo de Investigación en Patrimonio y Paisajes Culturales de la UPV/EHU

In 2022, work continued on the archaeological assessment of the Berbeia site as part of a research programme initiated over a decade ago in the county of Lantarón. During the 2021 season, we were able to demarcate the area occupied during medieval times, confirm the existence of a long occupational sequence and affirm that only the last phase was well represented.

The main aims of the intervention carried out in 2022 were to define the different types of historical occupation with a greater degree of precision; to establish how the archaeological deposits were formed; to determine the architectural solutions used in the fort; and to locate Berbeia Castle in the broader context of medieval fortifications.

The results obtained enabled us to answer most of the research questions posed, although other aspects were not clarified. In particular, we were able to confirm that the site was occupied from Late Antiquity to the High Middle Ages, following a pattern of intermittent and discontinuous use. Only the phase corresponding to the 12-13th century is characterised by a greater degree of visibility and consistency.

In sum, the intervention in Berbeia forces us to rethink how Middle Age forts were occupied, what functions they fulfilled and what meaning they had for the local societies that made up the political landscape in the Ebro Valley.

Sarrera

Azken urteetan burura eramandako proiektu arkeologiko berriei esker, Euskal Herrian garapen handia izaten ari da Erdi Aroko gazteluen azterketa. Interes berritu horren erakusgarria da Iñaki Garcíak eta José Ángel Lecandak antolatutako «Euskal Herriko Erdi Aroko gazteluak: Lurraldearen Zaindariak eta Boterearen Irudiak» aldi baterako erakusketa. Erakusketa horren harira argitaratutako katalogoak erreferentzia egokia eskaintzen du, gazteluen heterogeneotasunaren adibideak emateaz gain Goi Erdi Aroko faseen identifikazioak eta interpretazioak planteatzen dituzten arazo ugarien nondik norakoak azaltzen baititu. Ildo horretan sakontzen du J.A. Gutiérrezek berriki argitaratutako «La creación de los primeros paisajes fortificados medievales en el noroeste peninsular: Castillos y fortificaciones en el periodo de la monarquía asturiana (c. 720-910)» liburuak. Laburbilduz, hiru taldetan banatzen dira penintsularen ipar-mendebaldean lan egiten duten adituak. Alde batetik, «gogotsuak» daude (aztarna sendoak izan gabe ere, kastro, gaztelu eta gotorleku kopuru jakin bat Goi Erdi Aroan kokatzen dutenak), bestetik «posibilistak» (halako zuhurtasunez onartzen dute badirela garai horretako gotorlekuak, baina zalantzan jartzen dute idatzizko erreferentzien eta ebidentzia materialen arteko lotura sinple eta argia), eta azkenik «agonostikoak» (guztiz zalantzan jartzen dute milagarren urtea baino lehenagoko gazteluak izatea). Eztabaida bereziki interesgarria da, zuzeneko inplikazioak baititu alderdi batzuetan, hala nola identitate aristokratikoen definizioan, defentsaren antolamenduan, boterearen lurralde antolakuntzan eta monumentalak ez diren ondareen sozializazioan.

Arazo horietako batzuei heltzeko testuinguru egokienetako bat da Berbeiako aurkintza gotortua. Jada

Introducción

El estudio de los castillos medievales en el País Vasco está conociendo en los últimos años un importante desarrollo como resultado de la realización de nuevos proyectos arqueológicos. La exposición temporal «Castillos Medievales en Vasconia. Guardianes del territorio e imágenes del poder» organizada por Iñaki García y José Ángel Lecanda (Museo Arkeologi, 2022; Museo BIBAT, 2023) es una buena muestra de este renovado interés. El catálogo editado en esta ocasión proporciona un buen cuadro de referencia, puesto que ejemplifica la heterogeneidad de los castillos, así como los numerosos problemas que supone la identificación e interpretación de las fases altomedievales. Incide en esta misma línea el reciente volumen «La creación de los primeros paisajes fortificados medievales en el noroeste peninsular: Castillos y fortificaciones en el periodo de la monarquía asturiana (c. 720-910)» editado por J. A. Gutiérrez. Simplificando, los especialistas que trabajan en el noroeste peninsular se dividen entre aquellos «entusiastas» (que atribuyen un cierto número de castros, castillos y fortificaciones a la Alta Edad Media, aún en ausencia de indicios sólidos), los «posibilistas» (que admiten con un cierto grado de prudencia la existencia de fortificaciones de este período, cuestionando la existencia de una correlación simple e inmediata entre las referencias textuales y las evidencias materiales) y los «agnósticos» (que cuestionan abiertamente la existencia de verdaderos castillos con anterioridad al año mil). Se trata de un debate de particular interés puesto que tiene implicaciones en aspectos como la definición de las identidades aristocráticas, la organización de la defensa, la organización territorial del poder y la socialización de patrimonios no-monumentales.

El lugar fortificado de Berbeia constituye uno de los contextos más adecuados para abordar algunas de estas

orain dela mende erdi egindako lehen indusketa lanetan Goi Erdi Aroko kronologiako egitura eta material batzuk berreskuratu ziren, baina ezin izan ziren behar bezala zehaztu aurkintzaren ezaugarriak, okupazioaren izaera gotortua, iraupena eta esanahia. Gaztelako eta Ebro haraneko puntu gotortu gehien-gehienak XI. edo XII. mendeaz geroztik daude gisa horretan dokumentatuta. Berbeia herrixka gutxienez XI. mendeaz geroztik aipatzen da dokumentu idatzietan, baina gazteluaren presentzia soilik 1123 eta 1177. urteetako bi testu ezin laburragoei esker ezagutzen da. Eta, halere, ohikoa da Erdi Aro Beteko gotorlekuetan egindako indusketa lanek lehenagoko okupazioen aztarnak eskaintzea, ezaugarritzen zailak direnak morfologiari, eginkizunari eta gizartean beteko zuten rolari dagokienez.

2020an Peña los Castros aztarnategian abiarazitako proiektua, 2021etik aurrera jarraipena Berbeian eman zaiolarik, gero eta intentsitate handiagoa izango duen esku hartze baten modura planteatu da, helburua sistema gotortuaren potentzialtasun arkeologikoa ebaluatzea, okupazioaren sekuentzia identifikatzea eta gazteluaren esanahi sozialari eta politikoari buruzko proposamen batzuk egitea baita. Zehazki, 2021eko ekinaldian, (a) Erdi Aroko okupazioa mugatu ahal izan zen; (b) Antzinaroko eta Goi Erdi Aroko materialak identifikatu ahal izan ziren bigarren posizioan; eta (c) Berbeiako azken okupazio fasea dokumentatu ahal izan zen, Erdi Aro Betekoa.

2022. urteko kanpaina

Era berean 2021ean lortutako ondorio nagusietako bat izan zen mazelen higaduraren ondorioz oso kontserbazio egoera txarrean zeudela okupazioari zegozkion egiturak eta gainazalak. Bereziki, goiko plataformak, dorre baten aztarnak aurkitu ziren tokiak, oso nahasita zegoela salatzen zuten arrastoak agertzen zituen.

Horrexegatik, hain zuzen ere, 2022ko ekinaldian aipatutako dorrearen hego-ekialdeko plataforman (2000. sektorea) lan egiteko erabakia hartu genuen. Balorazioa egiteko bi zundaketa egingo genituen.

Lehenengo zundaketa (2100) 2021. urtean egindakoari jarraipena emateko planteatu zen, eta tokiko okupazioaren sekuentzia bat lortzea zuen helburu nagusia. Kontuan eduki behar da aztarnategiko beste sektore batzuekin alderatuta alde honetan zirela gutxien garai protohistorikoko aztarna materialak. Aurreko urtean bezala, sinple samarra zen sekuentzia estratigrafikoa. Arroka naturala prestatzeko eta berdintzeko lehenengo maila bat identifikatu genuen, gainean zoru bat zuen, eta azken hori abandonu maila batzuek estaltzen zuten. Aurkikuntza garrantzitsuenen artean aipatzekoak dira hagen bidezko bilbadurekin altxatutako paretei zegozkien buztinezko estaldura zatiak, Goi Erdi Aroko eta Erdi Aro Beteko zeramikazko materialak, fauna hondakinak eta lantza punta bat.

Bigarren zundaketa (2200) plataforma definitzen duen terrazaren ertzean induskatu genuen tarte horretan egiturak eraiki ote zituzten jakiteko eta okupazioaren sekuentziari buruzko informazioa biltzeko. Hor ere ez zen oso konplexua izan identifikatutako estratigrafia. Eta azalera osoa induskatzea ezinezkoa gertatu bazen ere, egiaztatu ahal izan zen lehorrean altxatutako horma atal bat dagoela, gertuko arrokatik erauzi-

problemáticas. Ya desde las primeras excavaciones realizadas hace medio siglo se recuperaron algunas estructuras y materiales de cronología altomedieval, aunque no fue posible determinar con precisión sus características, la naturaleza fortificada de la ocupación, su perduración y su significado. La mayor parte de los puntos fuertes del área castellana y del valle del Ebro están documentados como tales desde el siglo XI o XII. La localidad de Berbeia está mencionada al menos desde el siglo XI, pero la existencia de un castillo es conocida únicamente a través de dos lacónicos textos de los años 1123 y 1177. Y sin embargo, es común que las excavaciones realizadas en fortificaciones mencionadas en época plenomedieval proporcionen restos de ocupaciones anteriores difíciles de caracterizar en términos morfológicos, funcionales y sociales.

El proyecto iniciado en el año 2020 en Peña los Castros y continuado a partir del 2021 en Berbeia se ha planteado como una intervención de intensidad creciente tendente a evaluar la potencialidad arqueológica del sistema fortificado, identificar la secuencia ocupacional y formular algunas propuestas sobre su significado social y político. Más concretamente, en la campaña del 2021 fue posible (a) delimitar la ocupación medieval; (b) identificar toda una serie de materiales tardoantiguos y altomedievales en posición secundaria; (c) documentar la última fase de ocupación de Berbeia, correspondiente al período plenomedieval.


La campaña del año 2022

Otra de las principales conclusiones obtenidas en el año 2021 fue la de comprobar el precario estado de conservación de las estructuras y las superficies de ocupación resultado de la erosión de las laderas. En particular la plataforma cimera, donde se hallaron los restos de una torre, mostraba signos de una notable alteración.

Por ese motivo, en la campaña del año 2022 se decidió intervenir en la plataforma situada al SE de la mencionada torre (sector 2000), mediante la realización de dos sondeos de valoración.

El primer sondeo (2100) se planteó como continuación del realizado en el año 2021, y tenía como fin principal obtener una secuencia ocupacional del lugar. Hay que tener en cuenta que fue precisamente en esta zona donde el número de materiales residuales de época protohistórica era más reducido respecto a otros sectores del yacimiento. Como en el año anterior, la secuencia estratigráfica era bastante sencilla. Se recuperó un primer nivel de preparación y nivelación de la roca natural, sobre el que se halló un suelo, cubierto a su vez por algunos niveles de abandono. Entre los principales hallazgos merece la pena señalar algunos fragmentos de manteado de arcilla correspondientes a paredes realizados con entramados de varas, materiales cerámicos de cronología alto y plenomedieval, restos de fauna y una punta de lanza.

El segundo sondeo (2200) se situó en el borde de la terraza que define la plataforma con el fin de determinar si se hubiesen realizado estructuras en este tramo y contar con información sobre la secuencia ocupacional. Nuevamente en esta ocasión la estratigrafía identificada no presentaba grandes complejidades. Y aunque no fue posible completar la excavación en toda la superficie, sí se pudo comprobar la existencia de un paramento realizado a hueso con grandes piezas extraídas del frente rocoso



Eskuinean, Berbeian egindako zundaketen oinplanoa. Ezkerrean, metal aleazioko xafla zurrunean landutako belarri puska, Berbeian aurkitua.

A la derecha, planta de los sondeos realizados en Berbeia. A la izquierda, fragmento de broche de placa rígida de aleación metálica hallado en Berbeia.

tako pieza handiekin eraikita dagoela, eta harri horiek terrazaren mugan egokitzen den horma bat osatzen dutela. Eraikuntza horren gainean metatutako deposituek aukera eman zuten Erdi Aro Betean pausatutako material arkeologikoen bilduma eder bat berreskuratzeko, baita objektu zaharrago batzuk berreskuratzeko ere, azken horiek bigarren posizio batean bada ere. Material esanguratsuenen artean aipatzekoak dira zeramika beiratuzko zeramika zati bat, Ebroko haraneko produkzioekin bateragarria dena, XII.-XIII. mendeetakoa, zeramikazko tronpa zati bat, 2021ean Berbeian eta Peña los Castros aztarnategian berreskuratutakoen antzekoa, ferrako iltze batzuk, eta Goi Erdi Aroko zeramika zati batzuk. Halere, zundaketa honetan berreskuratutako objektu bereziena metal aleazioko xafla zurruneko belarri zati bat da: barruan bi luzakin zulatu ditu larruzko gerrikoa finkatzeko, eta zulo zirkular bat orratza sartzeko. Arabako Foru Aldundiko Zaharberritze Zerbitzuak garbitu ondoren ikusi ahal izan zen pieza hori apainduta zegoela perimetroan ziztatutako erdi puntuko arkuteria sorta baten bidez. Gisa horretako piezak azaldu izan dira Euskal Herriko eta inguruko eskualdeetako hainbat sektoretan, besteak beste Aldaieta, Arroitz, Axkoeta, Buzaga, Argarai eta Diman, batik bat VI.-VIII. mendeetako hileta testuinguruetan.

Laburbilduz, 2022. urteko ekinaldiak berretsi egin zuen aurkintzako okupazio luzea, Brontze Aroaren amaiera – I. Burdin Arotik Erdi Aro Betera arte, hiato edo etenaldi argi batekin erromatarren garaian. Bi dira aztarnategi honek interpretazioaren arloan planteatzen dituen arazoak: alde batetik, nola interpretatu hondakin materialen esanahia, jatorrizko posizioan dauden materialak baino gehiago baitira; bestetik, nola zehaztu aurkintzaren funtzionaltasuna eta esanahia hain denbora bitarte luzean.

próximo, que conforman un muro que discurre en el límite de la terraza. Los depósitos que se apoyaban a esta construcción permitieron recuperar una buena colección de materiales arqueológicos depositados en época plenomedieval, así como objetos más antiguos en posición secundaria. Entre los materiales más significativos merece la pena señalar un fragmento de una forma cerámica vidriada compatible con las producciones del valle del Ebro y fechable en los siglos XII-XIII, algún fragmento de trompa cerámica similar a la recuperada en Peña los Castros y en Berbeia 2021, algunos clavos de herradura, así como varios fragmentos cerámicos de cronología altomedieval. Sin embargo, el objeto más singular recuperado en este sondeo fue un fragmento de broche de placa rígida de aleación metálica que conserva en el interior dos apéndices perforados destinados a la fijación del cinturón de cuero, y un hueco circular para la aguja. Tras la limpieza realizada por el Servicio de Restauración de la Diputación Foral de Álava se pudo comprobar que la pieza estaba decorada mediante una serie de arquerías de medio punto incisas dispuestas en su perímetro. Esta pieza tiene paralelos en numerosos contextos, principalmente funerarios, de los siglos VI-VIII en varios sectores del País Vasco y otras regiones próximas, incluyendo entre otros Aldaieta, Arróniz, Escota, Buzaga, Argaray o Dima.

En definitiva, la campaña del año 2022 confirmó la larga ocupación del lugar, desde el Bronce Final – Hierro I hasta la Plena Edad Media, con la existencia de un claro hiato en el período romano. Dos son los principales problemas interpretativos que plantea este yacimiento: por un lado, cómo interpretar el significado de los materiales residuales, que son más numerosos que los materiales en posición primaria; por otro lado, determinar la funcionalidad y significado del lugar a lo largo de un período de tiempo tan dilatado.

Zergatik material zahar horiek Erdi Aro Beteko testuinguruan?

Arazo garrantzitsu batzuk planteatzen ditu argi eta garbi Erdi Aro Betekoak diren testuinguruetan egindako Goi Erdi Aroko aurkikuntza hauen interpretazioak. Kontuan izanik behin beren funtzioa galdu ondoren bertara eraman izana oso gertagaitza dela, zer informazio ematen dute? Iradoki daiteke Berbeiako gaztelua jada Goi Erdi Aroan existitzea nahiz eta ez dagoen gaztelua aipatzen duen testurik? Ala ondorioztatu daitekeen gauza bakarra al da altueran okupazio motaren bat izan zela, gaztelu bat izan behar gabe? Edo, gisa horretako argudioak baztertu beharko lirateke bigarren posizioan dauden materialak direlako eta, beraz, jatorrizko testuinguruarekiko esanahirik ez dutelako? Testu honen hasieran azaldu dugun bezala, itxura batean bateraezinak diren posizioen alde egin duten adituen arteko eztabaida bizibizia da gaur egun.

Arazoari heltzeko modu bat da: (a) onartzea tokiko okupazio etengabeak ondorio negatiboak izan dituela fase zaharrenetako deposituen eta materialen kontserbazioan, eta Erdi Aro Beteko fasea dela halako osotasun bat aurkezten duen bakarra; (b) gisa horretako depositu mota azaltzeko beste bide bat izan daiteke okupazio etenen eredu baten aurrean gaudela pentsatzea, agian sasoiko okupazioen aurrean, garrantzi material txikiko eraikuntzekin lotuta. Gisa horretako pausatze eredu batek modu egokian azal litzake dauden eta ez dauden materialak.

Horrek esan nahi al du, aspaldi ez dela aditu batzuek formulatu duten bezala, lurralde honetan ez litzatekeela milagarren urte aurreko gazteluez hitz egin behar? Agian alderantziz birformulatu daiteke afera. Berbeiakoa bezalako proiektuen helburua Goi Erdi Aroko gaztelurik egon den ala ez egiaztatzea baino Goi Erdi Aroko gotorleku bat edo altuerako okupazio bat zer zen definitzea litzateke, kontserbatutako ebidentziak zuzenean behatuta.

Orduan, zer eginkizun zuten gazteluek Goi Erdi Aroan?

Eta hortik albiste horren helburuak gainditzen dituen arazo handiago batera garamatza. Zer eginkizun bete zezaketen altuerako okupazio horiek?

Kontuan eduki behar da hori fenomeno arrunta dela Europako beste sektore batzuetan, eta ondorioz *kastro* eta gazteluen hainbat «belaunaldiren» presentzia formulatu izan dela, edo interpretatzen zailak diren hondakinen paradigma planteatu dela. Aditu batzuek adierazi dute, era berean, okupazio horiek ez zituztela «gaztelutzat» hartuko garaikide batzuek, horrexegatik ez direla dokumentu idatzietan jasotzen.

Baina alderdi semantikotik haratago, leku horien esanahi soziopolitikoak ulertzen saiatzea da gisa horretako okupazioen azterketak etorkizunari begira planteatzen duen erronka. Adituek azpimarratu egiten dute gotorlekuen izaera multifuntzionala, nabarmendu egiten dute altuerako okupazioen izaera aldakorra eta kontin-

¿Por qué estos materiales viejos en contextos plenomedievales?

La interpretación de estos hallazgos altomedievales en contextos que son claramente plenomedievales plantean algunos problemas importantes. Asumiendo que es altamente improbable que hayan sido trasladados al lugar una vez desfuncionalizados, ¿qué información proporcionan? ¿Se puede sugerir que el castillo de Berbeia haya existido ya en la Alta Edad Media, aunque no haya ningún texto que lo mencione, o en cambio lo único que se puede inferir es que ha habido algún tipo de ocupación en la altura, sin que tenga por qué tratarse de un castillo? ¿O incluso habría que evitar este tipo de razonamientos al tratarse de materiales en posición secundaria y, por lo tanto, carentes de cualquier significado contextual? Tal y como se ha señalado al inicio de este texto, se trata de un debate latente entre los especialistas que parece que han abrazado posiciones aparentemente inconciliables.

Betegarrietan berreskuratutako materialaren arabera, horiek ez ziren askoz ere geroago amortizatu; estaldura duten zeramikak urri direnez (nola beiratuak hala esmaltatuak), guk uste dugu beste ikertzaile batzuek agujeros de poste; la mayor parte de estas evidencias se encuadran en esta cronología según los materiales recuperados y las características de las estructuras, asimiladas a las ya reconocidas en la excavación previa, pero debemos tener en cuenta lo expresado en la fase anterior.

Se trata en su mayor parte de cubetas de diferentes diámetros y dimensiones, que tienen en común la homogeneidad de los materiales de sus amortizaciones. En la zona situada más al norte, se han documentado en sus depósitos de amortización abundantes escorias de hierro y tierras rubefactadas con un color rojizo muy marcado, asociadas a la producción metalúrgica que se llevaba a cabo en la estancia identificada como fragua en la excavación de 2006, situada en la esquina noreste de la plaza; asimismo, destacan dos estructuras identificadas como silos, que han proporcionado una importante cantidad de cuernas, ambos localizados en la zona oriental de la plaza, uno en el Sector 600 y otro en el Sector 650. Este no es un hecho aislado, ya que se han documentado este tipo de restos también en abundancia en intervenciones cercanas, como la de la calle Las Escuelas. Y aunque generalmente se asocia este material a la producción de enmangues, la falta de individuos a medio procesar nos hacen ser cautas con esta interpretación, que las asociaría a la producción de la mencionada fragua; podemos pensar que tal vez tuvieron un uso secundario, pudiendo servir tal vez, como alimento para el fuego.

Sí queremos destacar, como ya hicieron mención los responsables de la excavación de 2006 en su informe, la escasez de agujeros de poste en contraposición a lo documentado en otros yacimientos de esta cronología, lo que puede estar provocado por las graves afecciones producidas en fases posteriores, especialmente en la Edad Moderna.

Urbanismo bajomedieval

En un momento que podemos encuadrar provisionalmente en el siglo XIII, el urbanismo anterior se abandona y se crea uno nuevo, caracterizado por la orientación E-W de las viviendas y la presencia de sótanos asociados a las mismas. Aunque no nos quedan restos sobre la cota de la calle que se corresponderían con el alzado de las casas, sí se han conservado las construcciones subterráneas: se trata de estructuras excavadas en el natural, que presentan en ocasiones muros medianiles de separación; se conservan algunos muros de los propios sótanos, pero en otras ocasiones, estos han sido expoliados por completo. En el caso del Sector 300, el alzado del muro ha sido arrasado por las obras posteriores, pero los restos documentados bajo la cota del suelo nos permiten verificar la buena factura del mismo, incluyendo la identificación de dos mechinales. En el caso del Sector 600, es claro el expolio de los muros, habiéndose podido identificar en ambos paramentos tanto el robo como la amortización posterior del mismo. Ninguna de estas estructuras se ha excavado en su totalidad (en dos ocasiones se trata de elementos que se excavaron parcialmente en 2006, el sótano del Sector 300 y el del Sector 400), por lo que no podemos conocer con certeza sus dimensiones exactas, aunque los cálculos realizados en ese momento parecen corroborarse.

Su amortización se produjo no mucho tiempo después según el material recuperado en sus rellenos; la escasez de cerámicas con revestimiento recogidas (tanto producciones vidriadas como esmaltadas) nos hacen



Ezkerrean, 200. Sektoreko siloa, kubetak eta paldo zuloak. Eskuinean, ondorengo faseko urbanismoak nahasitako kubetak.

A la izquierda, silo, cubetas y agujeros de poste del Sector 200. A la derecha, cubetas afectadas por el uranismo de la fase posterior.

proposatutako datak urrunegiak direla errealitate honentzat, gure ustez XVI. mendea baino lehenagokoa da; nolanahi ere, materialen azterketa eta analisiak amaitu arte itxaron beharko dugu hipotesi hori berresteko.

Obra modernoak eta garaikideak

Eremu honetan Montehermoso jauregiaren eraikuntzarekin eta garai hartan hemen dokumentatzen diren lorategiekin antolatutako hirigintza berriarekin lotzen den Aro Modernoko mendeetatik ez da arrastorik ere kontserbatzen garai hartan eta ondorengoetan plaza honetan bideratu diren esku hartze oldarkorren ondorioz. 300. Sektoreko horma bat da aro modernokoa izan daitekeen elementu bakarra, eta horma horrek lehendik egondako sotoa amortizatzen duen deposituaren gainean hartzen du atseden.

Beraz, espazio honen okupazioan etenaldi bat gertatu zen Echauri fabrikaren eraikuntzarekin lotutako aztarnak eta plazaren hegoaldeko etxea (etxe horren bi hormetako harroinak kontserbatzen dira 1000. Sektorearen hegoaldeko muturrean) azaldu ziren arte, eta bi horiek jada XX. mendeko obrak dira. Fabrikatik aztarna materialak kontserbatu dira, hala nola 400. Sektoreko hormak, atxikitako zoruekin, eta makina edo ekoizpen egituren balizko bermeak, hala nola 650. Sektorean dokumentatutakoa, bertan galdaketa hareaz eta brontzezko zepez amortizatutako ebaki lauangeluar bat identifikatu baitugu. Egitura horiek larriki kaltetzen dituzte lehenagoko elementu batzuk, esate baterako 400. Sektorean, non aurreko faseko sotoa eta hainbat kubeta eta gutxienez ehorzketa bat ebaki dituzten.

Azken faseetakoak dira zerbitzuak, harguneak eta argiteria, edateko ur hornidura eta hondakin urak biltzeko zerbitzuei lotutako gainerako elementuei leku egiteko hainbat zanga.

Etxanobetarren lorategiak

Proiektuaren arabera, tirolina bat egingo zen ondoko Etxanobetarren lorategian, eta beraz, zegokion kontrol arkeologikoaren xede izango ziren espazio hau moldatzeko lanak.

pensar que las fechas propuestas por otros investigadores presentan un horizonte demasiado lejano para esta realidad, que consideramos tuvo lugar antes del siglo XVI; no obstante, deberemos esperar a la finalización de los estudios y análisis pertinentes de los materiales para corroborar esta hipótesis.

Obras modernas y contemporáneas

De los siglos de la Edad Moderna que se asocia con un nuevo urbanismo de esta zona, con la construcción de Montehermoso y los jardines que se documentan aquí en esa época, no han quedado huellas debido a las agresivas actuaciones sobre la plaza llevadas a cabo en éste y en los momentos posteriores. Los únicos elementos documentados que con cierta certeza podrían pertenecer a este periodo es un muro ubicado en el Sector 300, que asienta sobre la amortización del sótano previo.

Por lo tanto, se presenta un hiato en la ocupación de este espacio hasta la aparición de los restos asociados con la construcción de la fábrica de Echauri, así como la casa situada al sur de la plaza (de la que se conservan las zapatas de dos de los muros en el límite sur del Sector 1000), actuaciones que tendrán lugar ya a lo largo del siglo XX. De la propia fábrica también nos han llegado restos materiales, como son diversos muros en el Sector 400 con sus suelos asociados, y posibles apoyos para maquinarias o estructuras productivas, como la documentada en el Sector 650, donde se ha reconocido un corte cuadrangular amortizado con arena de fundición y escorias de bronce. Estas estructuras afectan gravemente en ocasiones a los elementos precedentes, como es el caso del Sector 400, donde han cortado al sótano de la fase anterior, así como a diversas cubetas, y han afectado al menos a uno de los enterramientos.

De las últimas fases, se han identificado diversas zanjas para servicios, colectores y demás elementos asociados a los servicios de alumbrado, suministro de agua potable y recogida de residuales.

Jardines de Etxanobe

El mismo proyecto incluía en los cercanos jardines de Etxanobe la realización de una tirolina, por lo que los trabajos de adecuación del espacio contaban con el control arqueológico correspondiente.

Amortizazio maila bakar bat dokumentatu dugu. Bertan ugari dira eraikuntza hondakin modernoak, hala nola teilak, adreilu hutsak eta hormigoia (segur aski hirigintza zaharreko harroinen hondakinak), eta badira, zimendatze zangarik gabe, ureztapen hodietarako kanalizazio batzuk, gutxi gorabehera metro eta erdiko sakoneran, arestian deskribatutako amortizazio pakete berberean.

Ezaugarri horiek kontuan harturik, argi dago beste orube bat desegitearen edo, beharbada, orube hau bera azken urbanizazioa baino lehen eraistearen ondoriozko lur ekarpena dela depositu hori, horrexegatik ez dugu interes arkeologikoko elementurik erregistratu.

Induskatutako aztarnek berretsi baizik ez dute egiten 2006ko ekinaldian dokumentatutakoa, eta aberastu egiten dute dagoen informazioa putzu, silo, paldo zulo eta sotoen presentziari esker, denak kontserbatu egin baitira substratu geologikoan induskatuta daudelako. Esanguratsua da aztarnarik kontserbatu ez izana altxaeran, eremu honek nozitutako suntsipena agerian utzirik, izan ere, lekukotasun arkeologikoen hutsune handi bat dago XV. mendetik XX. mende hasierara arte.

Indusketa lanetan zehar berreskuratutako materialei dagokienez, aztarna kopuru handia dugu, horien artean bi motatakoak aipagarri direlarik, ugari direlako; alde batetik, zepa, arragoa eta burdinaren lanketatik etorritako beste hondakin batzuk, alde honetan bideratzen zen jarduera metalurgikoaren erakusgarri direnak. Bestetik, azaldutako adar kopuru handia dugu (silo bakar batean 250etik gora pieza berreskuratu dira, eta silo hori ez genuen induskatzen amaitu). Eta berean, zeramika zati ugari berreskuratu ditugu, eta horien azterketak aukera emango digu detektatutako egituren kronologiak zehazteko.

Únicamente se ha documentado un nivel de amortización en el que aparecen números restos constructivos modernos, como teja, ladrillo hueco y hormigón (posiblemente restos de zapatas de antiguo mobiliario urbano), así como la presencia, sin zanjas de cimentación, de diversas conducciones para las tuberías de riego, localizadas a una profundidad aproximada de medio metro, que se encuentran dentro del mismo paquete de amortización anteriormente descrito.

Con estas características, parece acertado pensar que se trata de un aporte de tierra proveniente del desmantelamiento de algún otro solar o quizás de éste mismo antes de su última urbanización, por lo que no se han registrado elementos de interés arqueológico.

Las evidencias excavadas no hacen sino reforzar lo documentado en la campaña de 2006, ampliando la información disponible con la presencia de pozos, silos, agujeros de poste y sótanos, todos ellos preservados porque se encuentran excavados en el sustrato geológico. Es significativo que no se conserven restos en alzado, dando fe del arrasamiento que ha sufrido esta área, donde hay un vacío de testimonios arqueológicos desde el siglo XV a inicios del XX.

En lo que respecta a los materiales recuperados durante la excavación, nos encontramos con un gran número de restos, entre los que destacan, por su abundancia, dos tipos; por un lado, restos de escorias, crisoles y otros restos de la manufactura del hierro, que no son sino una muestra de la actividad metalúrgica que se llevaba a cabo en la zona. Por otro lado, la gran cantidad de cornamentas aparecidas (sólo en uno de los silos se han recuperado más de 250 individuos, sin que éste se haya excavado en su totalidad). Igualmente se han recuperado abundantes restos cerámicos, cuyo estudio nos permitirá ajustar la cronología de las diferentes estructuras detectadas.

L. Elorza González de Alaiza

A.24.1.8. **Santo Domingo kalea, 5**

Zuzendaritza: Idoia Filloy Nieva
Finantzazioa: José Ignacio García Román

A.26.1.8. **Santo Domingo, 5**

Dirección: Idoia Filloy Nieva
Financiación: José Ignacio García Román

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Orubearen azaleraren heren bat hartu zuen inpaktuaren eragina neurtzeko xedean bideratutako esku hartze arkeologikoak. Horretarako, luzetarako zanga bat ireki genuen. Agortu egin genituen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro, emaitzak negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik. Eraikuntza lanen gaineko jarraipen arkeologikoa egitea baizik ez da falta Ondarearen gaineko eraginik ez dagoela berresteko.

Intervención de evaluación de impacto desarrollada en una tercera parte de la extensión del solar, mediante la realización de una zanja longitudinal, agotando la posibilidad de nueva investigación en éste, siendo los resultados de la misma de escaso interés histórico-arqueológico. Solamente queda pendiente el seguimiento arqueológico de las obras de construcción, para confirmar la inexistencia de impacto sobre el Patrimonio.

I. Filloy Nieva

A.26.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

A.26.2.1. **Abetxukoko El Áncora irin fabrika**

Zuzendaritza: Arturo Azpeitia Santander
Finantzazioa: Kultura Paisaiak eta Ondarea UNESCO katedra (UPV/EHU)

A.26.2.1. **Harinera Áncora de Abetxuko**

Dirección: Arturo Azpeitia Santander
Financiación: Cátedra UNESCO Paisajes Culturales y Patrimonio (UPV/EHU)

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Esku hartze honetan ikuskatu eta erregistratu egin dugu sotoko solairuan dauden kanalizazioen barruko aldea. Horri esker, hiru kanal dokumentatu genituen, bi metro lodi ziren hormez eratuta, erdi puntuko arkuekin eta kanoi gangekin, eraikinaren oinplano angeluzuzenaren luzetarako ardatzaren perpendikularrean. Lanen emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik, baina etorkizunean ebaluatzeko gelditzen da erdiko kanala, bertan aski kontserbazio egoera onean kontserbatzen baita 1903. urtean instalatutako 26 zaldiko «Francis» turbina hidraulikoetako bat. Era berean, 1. kanalaren mendebaldeko horman argi eta garbi bereizten dira hiru eraikuntza fase, eta fase horietan lehena, kronologikoki irin fabrikaren eraikuntzarekin lotzen duguna (1853), hareharrizko harlanduez egina da. Harlandu horren ezaugarriak kontuan harturik, gris okre tonuekin eta porositate handiarekin, guk uste dugu Elgea mendilerrotik ekarritako hareharria dela.

Intervención desarrollada en base a la inspección y registro del interior de las canalizaciones ubicadas en la planta sótano que permitió documentar tres canales construidos con muros de dos metros de grosor rematados con arcos de medio punto y bóvedas de cañón con una disposición perpendicular al eje longitudinal de la planta rectangular del edificio, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el canal central donde aún se conserva en condiciones aceptables una de las turbinas hidráulicas «Francis» de 26 caballos instaladas en 1903. Así mismo, en el muro oeste del canal 1 se distinguen tres fases constructivas claramente diferenciadas, y la primera de estas fases, que relacionamos cronológicamente con la construcción de la harinera en el año 1853, se compone por sillares de piedra arenisca cuyas características con tonos gris ocre y alta porosidad nos hace sospechar que pudiera tratarse de arenisca de la sierra de Elguea.

A. Azpeitia Santander

A.26.2.2. **Arkaia. Suestatiumeko terma publikoak eta foroa**

Zuzendaritza: Miguel Loza Uriarte
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Arabako Foru Aldundia; Gasteizko Udala

A.26.2.2 **Arkaia. Termas públicas y foro de Suestatium**

Dirección: Miguel Loza Uriarte
Financiación: Gobierno Vasco; Diputación Foral de Álava; Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

This text describes the archaeological work carried out over the past three years in the Otazibarra plot, which belongs to the Arkaia complex (Vitoria-Gasteiz), as part of a project designed to promote the comprehensive value of the site. The historic information obtained is of great interest, since it documents the forum of ancient Suestatium, located to the north of the city's public thermae.

Sarrera

Datozen lerroetan hiru urterako (2020-2022) proiektu batetik eratorritako esku hartzean lortutako emaitzak laburbiltzen saiatuko gara. Proiektu hori Euskal Kultura Ondarearen garrantzia babesteko, aberasteko eta hedatzeko Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzetarako deialdiaren (2020ko uztailaren 22ko Agindua / EHAA, 171. zk.) eta Arabako Foru Aldundiaren kargura eraman da burura, Arkaiako Administrazio Batzordeak eskatuta. Proiektuaren helburu nagusia zen Gasteizko Arkaiako termei balioa emateko eta aztarnategi arkeologikoari zabalkundea emateko beharrezkoak ziren jarduerak edo esku hartzeak abian jartzea.

Proiektua hiru urteetan eraman da burura, eta mota eta intentsitate desberdinetakoak izan dira urte bakoitzean garatutako jarduera arkeologikoak.

Introducción

En las próximas líneas vamos a intentar resumir los resultados obtenidos en la actuación arqueológica derivada de un proyecto trienal (2020-2022) financiado con cargo a la convocatoria por el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco en aras de la defensa, enriquecimiento, protección, difusión y defensa del Patrimonio Cultural Vasco (Orden de 22 de julio de 2020 / BOPV nº 171) y con cargo a la Diputación Foral de Álava y solicitado por la Junta Administrativa de Arkaia. El propósito básico del mismo era el de emprender las actividades necesarias para la puesta en valor y difusión del yacimiento arqueológico de las termas de Arkaia en Vitoria-Gasteiz (Álava).

El mencionado proyecto ha sido efectuado en los tres años, siendo las actividades arqueológicas desarrolladas en cada uno de ellos de distinta índole e intensidad.

2020

Deialdiaren lehenengo urtean gutxi eta garrantzi txikikoak izan ziren abian jarritako ekintzak, dirulaguntza emateko erabakiaren eta urte amaieraren arteko denbora bitartea oso laburra izan zelako. 2021. urtean abiaraziko ziren ekintzak izapidetzen hasi ginen, eta etorkizunean egin beharreko lanak eragozten zuten elementu batzuk desmuntatu eta garbiketa lan batzuk egin genituen.

2021

Bigarren urte horretan aztarnategirako irisgarritasuna hobetzea zen helburu nagusia, aldi berean parke arkeologiko ireki bat bihurtzeko birmoldaketa lanak abian jartzen zirelarik. Horretarako, gaur egungo multzo arkeologikoaren iparraldeko muturrean eta haren iparraldean dagoen plazatxo publikoan jardungo genuen. Eremu hori guztia metro bete baino gorago zegoen goratuta nola Otazibarrako erromatarren garaiko zoruekiko hala errepidearekiko, eta asmoa zen haren kota beheratzea irisgarritasuna hobetu ahal izateko. Gainera, aldez aurretik egonleku bat antolatu nahi zen barruti monumentalari balioa emateko eta behar bezala ulertzen laguntzeko elementuak jartzeko.

Baina, aldi berean, espazio hori guztia arkeologikoki induskatuta, hobe ezagutu nahi genuen terma monumentalak hartzen dituen lursailari atxikiriko gune hori, eta modu horretan, *Suestatium* hiri zaharreko hirigintzari buruzko informazioa aberastu.

Gainera, aurkintza ezagutarazteko ikuspegitik, onura handiak ekar zitzakeen ustezko kaleari balioa emateko aukerak. Funtsean, bisitariei aukera emango zielako monumentua orain dela bi mila urte ikusten zuten puntu beretik ikusteko, eta horri esker, aztarnategia askoz ere hobekiago ulertuko zutelako.

Horretarako, beheratze lan horrek ukitutako eremua luze-zabalean induskatu beharko zen. Indusketa arkeologikoa egiteko nahitaezko baimena lortzeko, jarduera proiektua aurkeztu genuen ekainaren 22an. 2021eko uztailaren 5ean eman zuten indusketa egiteko baimena. Ia uda osoa hartu zuen esku hartze arkeologikoak, eta datozen lerroetan hiru urteko esku hartze honetan lortutako sekuentzia eta egiten dugun interpretazioa aztergai izatean azalduko ditugun emaitza interesgarriak eskaini zituen. Gainera, ikuspegi funtzionalago batetik, ukitutako espazio osoa geratu zen lortu nahi genuen mailan, desagerrarazi ziren espazio honen garbitasuna galarazten zuten elementu guztiak, hala nola baskulako etxola eta ondoko txaleta eta lursaila bereizten zituen heskai bikoitza. Ildo horretan, mutur horretako espazioa hobetze aldera, metalezko xafla batzuk ipini ziren bastidore batzuen gainean, espazio hori artista batek balioa ematen ari zitzaien aztarnekin lotutako gai bat islatuko zuen horma irudi bat egin zezan aprobetxatzeko.

2022

Azken urte honetan batez ere lekukotasunak finkatu eta balioa emango genion aztarnategiari, eta indusketa arkeologikoak esku hartze txikiak eta urriagoak izango ziren burura eraman beharreko jarduera jakin batzuen aldean. Zehazki, terma gunearen mendebaldeko hegalean

2020

En el primer año de convocatoria las acciones emprendidas fueron escasas y de escasa entidad dado que los plazos desde la concesión de la misma hasta final de año eran muy cortos. Se empezaron a tramitar las diferentes acciones que se iban a llevar a cabo en 2021 y se hicieron algunas actuaciones de limpieza y desmontaje de elementos que entorpecían las futuras labores a realizar.

2021

El objetivo principal en este segundo año era mejorar la accesibilidad al yacimiento al mismo tiempo que se iba iniciando su reconversión en un parque arqueológico abierto. Para ello se iba a intervenir tanto en la zona más septentrional del actual conjunto arqueológico como en la plazoleta pública que se encuentra al norte del mismo. Todo este área se encontraba sobreelevada más de un metro respecto tanto a los propios suelos de época romana del complejo de Otazibarra como de la propia carretera, y se pretendía rebajar su cota lo necesario para que fuese posible mejorar la accesibilidad, creando, además, una zona estancial previa que dé cabida a elementos que contribuyan a la correcta comprensión y a la puesta en valor del recinto monumental.

Pero al mismo tiempo con la excavación arqueológica de todo este espacio se pretendía mejorar el conocimiento de esta área anexa a la parcela donde se encontraban las termas monumentales y así ampliar la información del entramado urbano de la antigua ciudad de *Suestatium*.

Además desde un punto de vista de la divulgación del lugar, la posibilidad de poner en valor la supuesta calle podía aportar grandes beneficios. Fundamentalmente porque iba a permitir a los visitantes contemplar el monumento desde el mismo punto que lo hacían dos mil años atrás, lo que, sin duda, iba a ayudar enormemente a la comprensión del yacimiento.

Para ello era necesaria una excavación en extensión del área afectada por este rebaje. Con el objetivo de obtener el preceptivo permiso para la excavación arqueológica se entregó el 22 de junio el proyecto de actuación. El permiso fue concedido el día 5 de julio de 2021. La intervención arqueológica duro prácticamente todo el verano y tuvo interesantes resultados que se desarrollarán en las próximas líneas al hablar de la información secuencial e interpretativa obtenida en esta actuación arqueológica trienal. Además y desde un punto de vista ya más funcional, todo el espacio intervenido quedo a la cota deseada, eliminándose todos los elementos que impedían la diafanidad de este espacio tales como la caseta de la báscula o el doble seto que delimitaba el chalet vecino con la parcela. A este respecto y con el objetivo de mejorar el espacio de este límite se colocaron unas chapas metálicas sobre unos bastidores, aprovechando ese espacio para que un artista hiciese un mural con una temática relacionada con los propios restos que se estaban poniendo en valor.

2022

Este último año estaba principalmente destinado a realizar la consolidación de los testimonios y la puesta en valor del yacimiento, siendo las excavaciones arqueológicas actuaciones menores en relación con algunas intervenciones concretas que así las precisaban. Concreta-

lan egin genuen. Alde batetik, *tabarnae*-etan, saltoki zahar horietako beste bat berreskuratu nahi baikenuen. Bestetik, eraikinaren mendebaldeko itxitura nagusiko horman, aspaldidanik baitzegoen erabat arpilatuta, eta berreraiki nahi baikenuen mendebaldetik zuen benetako muga behin betikoz berrosatzeko. Era berean, bainu publikoen iparraldean luze-zabalean bideratutako indusketa arkeologikoan agerian utzitako plazako zoruetan jardungo genuen, zertxobait beheratu behar baitzen zoruaren maila alde hori etorkizunean finkatu ahal izateko.

Aztarnak finkatzerakoan eta haiei balioa ematerakoan, lan horiek burura eramateko modurik egokiena zein zen planteatu beharra zegoen. 2019ra arte, helburu nagusia izan zen 40. hamarkadan aurkitu zirenetik eta denboraren joanaren ondorioz oso kaltetuta zeuden hormak berreraikitzea, gutxieneko altuera bat emateko eta bisitariek hobe ulertzeko. Horretarako, sare bat jarri genuen jatorrizko egituraren gailurraren gainean eta garai bateko horman erabilitako antzeko estekadurarekin eta morteroarekin goratu genuen horma, nahi izan zen altuera izan arte. Egiturak finkatzeko eredu hori hainbat egituratan aplikatu zen, eta emaitzak onak izan ziren. Horrexegatik, 2022an finkatuko ziren aztarnetan ere eredu hori aplikatzeko erabakia hartu genuen.

Halere, 2021ean terma gunearen kanpoko aldean bideratutako kanpaina arkeologikoan egindako aurkikuntzek beste tratamendu bat eskatzen zuten, orain arte aztarnarik izan ez duen eta horma egiturarik ia agertu ere egin ez zen lur eremu aski zabala baitzen. Aurreratuko dugu han plaza publiko bat dokumentatu genuela, eta terma gunearen hegoaldeko itxiturarekin zuzeneko muga markatzen zuen galeria arkupedun bat zuela plaza horrek.

Azkenik, terma guneak okupatzen zuen espazioa eta plaza arkupedunak okupatzen zuena behar bezala bereizi ahal izateko, ordura arte aplikatu ez genuen beste konponbide bat aplikatuko genuen.

Terma gunean azken urteetan egin zen bezala jardun genuen, hau da, berreraiki genituen horren premia zuten hormak, kasu honetan mendebaldeko itxiturako horma, eta *tabernae* batzuk.

Plaza publikoaren kasuan bestelako esku hartzeak bideratu behar ziren. Helburua zen plaza zahar hori etorkizunean ere plaza izatea, eta parke arkeologikoaren baitan espazio publikoa izatea. Gainera, galeria arkupeduna eta eremu irekia behar bezala bereizteko asmoa genuen. Helburu hori lortzeko, esku hartze jakin batzuk eraman genituen burura.

Alde batetik, garai bateko korridore estalian, oso hondatuta zegoen zoru zaharraren ordez karez eta harez osatutako zoru berri bat zabaldu zen. Gainera, zutabeetako oinarri zaharren gainean dado berri batzuk jarri ziren euskarri zaharrak babesteko eta arkupe zahar hori argi eta garbi markatzeko. Era berean, idulki baten zimendu zaharraren gainean harrizko beste bloke bat jarri genuen oroitarriren bati eutsiko zion euskarri zahar hori markatzeko. Eta harlandu bat ipini genuen terma gunearen hego-mendebaldeko izkinako sarrerak izango zuen atalasea simulatzeko. Azkenik, geroagoko uneren batean terma gune zaharrari atxikitako horma egitura batzuk berreraiki genituen. Horregatik, zoruaren mailaraino baizik ez genituen altxatuko, horma horiek hor zeudela markatzeko, baina aldi berean funtzionatzen zuen fasearen ikuspegia galarazi gabe.

mente se actuó en el ala oeste del complejo termal. Por un lado, en las *tabernae*, ya que se quería recuperar alguna más de estas antiguas tiendas. Por otro, en el muro de cierre general oeste del edificio ya desde antiguo completamente saqueado y que se quería reconstruir para, por fin, contar con el límite real por occidente. Y también en los suelos de la plaza descubierta en la excavación arqueológica en extensión al norte de los grandes baños públicos porque era necesario rebajar algo más la cota de cara a la futura consolidación de la zona.

A la hora de abordar la consolidación y puesta en valor de los restos había que plantearse cuál iba a ser la mejor manera de llevarlas a cabo. Hasta el 2019 el objetivo principal había sido reconstruir los muros, muy afectados por el paso del tiempo desde su descubrimiento hacía 40 años, para darles una altura mínima para la comprensión de los visitantes. Para ello, sobre la cimera de la estructura original se colocaba una malla y se levantaba hasta la cota que interesaba con un aparejo y mortero similar al antiguo. Este modelo de consolidación se efectuó en un buen número de estructuras con buenos resultados. Fue por ello por lo que se decidió repetir para los restos que se iban a consolidar este año.

Sin embargo, los hallazgos de la campaña arqueológica de 2021, efectuada al exterior del complejo termal, motivaban la búsqueda de un tratamiento distinto, ya que se trataba de una extensión importante de terreno hasta ahora sin restos y en los que apenas habían aparecido estructuras murarías. Adelantamos que lo que allí se documento fue una plaza pública con una galería porticada que lindaba directamente con el cierre sur del complejo termal.

Finalmente se decidió adoptar una solución distinta a lo que se había efectuado con anterioridad para poder diferenciar nítidamente el espacio ocupado por el complejo termal y el de la plaza porticada.

El primero se siguió tratando como se había venido haciendo en los últimos años, esto es, reconstruyendo las estructuras murarías que así lo pedían, en este caso el muro de cierre oeste y algunas de las *tabernae*.

El segundo, en cambio, necesitaba de actuaciones diferentes. El objetivo era que esta antigua plaza siguiera siéndolo en el futuro y que sirviera como una espació público dentro del parque arqueológico. La idea, además, era diferenciar convenientemente la galería porticada del área abierta. Para lograr este objetivo, fueron varias las actuaciones que se realizaron.

Por un lado, en el antiguo corredor cubierto se sustituyó su antiguo suelo muy machacado por uno nuevo compuesto por cal y arena. Además se colocaron sobre los antiguos apoyos de las columnas nuevos dados con el doble objetivo de proteger los antiguos y marcar claramente este antiguo pórtico. Del mismo modo, se puso sobre la antigua cimentación de un pedestal un nuevo bloque de piedra para marcar este antiguo soporte de algún elemento conmemorativo. Y también se dispuso un sillar simulando el umbral que debió tener el acceso al complejo termal en su esquina suroeste. Finalmente, se reconstruyeron una serie de estructuras murarías que se adosaron al antiguo complejo termal en un momento posterior. Debido a ello se decidió que sólo se levantasen hasta la propia cota de suelo para marcar que existían pero sin romper la visión de la fase que funcionaba de forma coetánea.

Bestalde, bere garaian plazako esparru irekia izan zen eremuan lan egin genuen. Espazio oso horretan ez zen haren garbitasuna urratzen zuen egitura mota bakar bat ere dokumentatu, eta beraz, besterik gabe ordezkatu beharra zegoen zoru zaharra, denboraren joanaren ondorioz oso egoera txarrean zegoelako, eta haren tokian zoru berriak jarri, maila berean. Beraz, plazaren zatirik handienean, arkupeko zoruaren antzeko zoru bat itxuratu zen, lorategi guneekin eta adreiluzko baldosazko zoladurarekin errepidetik gertuen dagoen aldean, baskula zaharraren ondoan.

Gainera, egiturak finkatzeko lan horiez gain, 2022an zehar aztarnategiari balioa emateko beste jarduera batzuk eraman ziren burura.

2021ean egiteke geratu zen horma irudia egin zen, Fill In Culture izan zen lan hori egiteko aukeratutako enpresa. Motiboak bat etorriko ziren aztarnategiaren gaiarekin. Zehazki, garai bateko indusketetan berreskuratutako irudi enblematikoenetako batzuk irudikatu ziren.

Hesi berri bat ipini zen aztarnategiaren ekialdean, Arkaia-Otazu bide ondoan, aurreko hesi oso zaharkituaren lekua hartu zuen. Itxitura berri horretan aurrez fabrikatutako hormigoizko oinarriak, metalezko paldoak eta sare elektrosoldatua ipini ziren. Hesi berriaren altuera aurrekoa baino apalagoa izateko ahaleginak egin ziren, kanpotik ikuspegia hobetzeko.

Seinale zaharren lekuan beste berri batzuk ipini ziren toki honetan azken urteetan bideratutako ikerlanetan bildutako informazioarekin bat etorrita. Sormen Creativos S.A. enpresa izan zen lan hori burura eramateko arduraduna. Enpresa horri agindu zitzaizkion mahai informatiboak diseinatzeko, grafismoak diseinatzeko eta maketatzeko, informazio mahaiak fabrikatzeko eta panel grafikoak inprimatzeko, testuak idazteko eta euskarara, frantsesera eta ingelesera itzultzeko, ikusizko aniztasun funtzionala duten pertsonentzako lokuzioak grabatzeko eta aztarnategian elementu guztiak muntatzeko lanak. Enpresa horretako profesionalen eta arkeologoen arteko harremanari esker, paneletan eta QR-etan islatu ahal izan zen informazio guztia ezin egokiagoa izango zen bisitariek parke arkeologiko honetan ikus ditzaketenei buruzko ideia argi eta garbi bat izan dezaten. Horrela, modu unibertsal batez, beste herrialdeetako pertsonei eta ikusizko edo entzunezko aniztasun funtzionala duten pertsonei Arkaiako aztarnategi arkeologikoaren interpretazio egokia bermatuko zitzaien modu irisgarri batean.

Azkenik, aipatzekoa da proiektu honetan Gasteizko Udalarekin izan dugun lankidetza. Udalak zuzenean esku hartu du hiriko altzariak jartzen, eta bera arduratu da aztarnategiko lorategietako ureztapen automatikoaren instalazioaz eta aztarnategian luze gabe instalatuko den argiteria monumentalaz.

Indusketa arkeologikoak

Proiektu honen baitan, gaur egungo multzo arkeologikoaren iparraldeko muturrean eta haren iparraldean dagoen plazatxo publikoan esku hartu genuen 2021ean. Eremu hori guztia metro bete baino gorago zegoen nola Otazibarrako erromatarren garaiko zoruekiko hala errepidearekiko, eta asmoa zen haren kota beheratzea irisgarritasuna hobetu ahal izateko. Gainera, aldez aurretik egonleku bat antolatu nahi zen barruti

Por otro, se actuó en lo que en su día fue la zona a cielo abierto de la plaza. En todo este espacio no se había documentado ningún tipo de estructura que rompiera su diafanidad por lo que tan sólo era necesario sustituir el antiguo suelo, también muy estropeado por el paso de los años, por otros nuevos a la misma cota. Así pues, se hizo un suelo similar al del pórtico en su mayor extensión que se alternó con zonas ajardinadas y con un pavimento de baldosas de ladrillos en la zona más próxima a la carretera, junto a la antigua báscula.

Además de estas actuaciones de consolidación a lo largo del 2022 se desarrollaron otras de cara a la puesta en valor del yacimiento.

Se realizó el mural que había quedado pendiente en el año 2021, para lo que había sido elegida la empresa elegida Fill In Culture. Los motivos fueron acordes a la temática del yacimiento. En concreto, se representaron algunos de los objetos más emblemáticos que se habían recuperado en las excavaciones antiguas.

Se procedió a la instalación del nuevo vallado en la parte este del yacimiento, junto al camino Arkaia-Otazu, que sustituía al antiguo ya muy anticuado. Este nuevo cierre consistía en la instalación de bases prefabricadas de hormigón, postes metálicos y malla electrosoldada. Se intentó que la altura de la nueva valla fuera menor que la anterior para mejorar la visión desde el exterior.

Se sustituyó la nueva señalética por una nueva acorde a la información que se había ido recopilando en los últimos años de investigación en el lugar. La empresa encargada de esta labor fue Sormen Creativos S.A. Ellos se encargaron de los trabajos de diseño de mesas informativas, diseño y maquetación de grafismos, de la fabricación de las mesas informativas, de la impresión de paneles gráficos, de la redacción de textos y traducciones a euskera, francés e inglés, de la grabación de locuciones para personas con diversidad funcional visual y del montaje en el yacimiento de todos los elementos. La relación entre los profesionales de esta empresa con los arqueólogos permitió que la información que se pudo plasmar tanto en los paneles como en los QR fuera la adecuada para que los visitantes pudieran tener una noción clara de los que se puede contemplar en este parque arqueológico. Así, quedaba garantizada la correcta interpretación del yacimiento arqueológico de Arkaia con carácter universal y accesible para personas de otras nacionalidades y aquellas que tengan diversidad funcional visual o auditiva.

Por último, cabe destacar la colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en todo este proyecto. Ha participado activamente en la aportación del mobiliario urbano, se ha hecho cargo de la instalación del riego automático de las zonas ajardinadas del yacimiento y del alumbrado monumental del mismo que se instalará próximamente.

Excavaciones arqueológicas

Dentro de este proyecto, el año 2021 estaba dedicado a intervenir tanto en la zona más septentrional del actual conjunto arqueológico como en la plazoleta pública que se encuentra al norte del mismo. Todo este área se encontraba sobreelevada más de un metro respecto de los suelos de época romana del complejo de Otazibarra como de la propia carretera, y se pretendía rebajar su cota lo necesario para que fuese posible mejorar la accesibilidad, creando, además, una zona estancial previa que diera cabida a elementos (mesa interpretativa y modelo tiflológico a escala) que contribuyese a la correcta com-

monumentalari balioa emateko eta behar bezala ulertzen laguntzeko elementuak jartzeko (interpretazio mahaia eta eredu tiflologikoa eskalan). Horretarako, luzezabalean induskatu beharra zegoen beheratze horrek ukituko zuen gunea.

2022. urtean, era berean, aztarnategiko puntu jakin batzuek behar zituzten finkatze lanei lotutako esku hartze arkeologiko batzuk egin genituen.

Lortutako emaitzak

Jarraian, orokorki deskribatuko ditugu hiru urteko proiektu honetan zehar lortutako emaitzak. Ezer baino lehen, argi eta garbi ohartarazi behar dugu lerro hauek idazten ari garela gure ustez behar-beharrezkoa delako «Otazibarra» lursaileko esku hartze arkeologiko honetatik ateratako informazioari esker ondorioztatu ditugun azken konklusio historikoak eta arkeologikoak ezagutarazteko, baina argi eta garbi azaldu nahi dugu ondorio horiek behin-behinekoak direla erabat, oraindik ere berresteko baitaude han izan zen eraikin multzoa behar bezala ulertzeko garrantzi handiko alderdi batzuk. Aurreikuspenen arabera, datozen esku hartzeetan berretsi ahal izango ditugu une honetan esku artean darabiltzagun hipotesi batzuk.

Era berean, diskurtsoari koherentzia handiagoa emateko, hiru urteko proiektuaren baitan egindako esku hartze arkeologikoetan zuzenean lortutako emaitzak deskribatzeaz gain, 2014. urtean Otazibarrako txosten zientifikoa argitaratu zen egunetik beretik ateratako informazioa bilduko dugu. Horrela, diskurtso hori idazterakoan, era berean kontuan hartuko dira Amvisak 2015eko obretan lortutako informazioa eta 2016-2019 urteetan, etengabe, aztarnategia finkatzeko eta balioa emateko bideratutako lanetatik ondorioztatutako datuak. Horri esker, guk lehendik esandakoak berrikusi eta osatzeaz gain, ikuspegi berri bat eskaintzen diegu orain dela urte gutxi batzuk planteatzen genituen interpretazio arloko proposamen batzuei.

Suestatium-eko Foroa

Txosten zaharrean ondorioztatu genuen Otazibarrako lursailean terma eraikin publiko garrantzitsu bat eraiki zutela, monumentaltasun handikoa, baina jada orduan adierazi genuen bainutegiek etxadiaren azaleraren zati txiki bat baizik ez zutela hartzen, eta bazirela jendea biltzeko, aisiarako edo otoitz egiteko leku publiko gisa erabiliko zituzten beste espazio batzuk[14]. Izan ere, palestra espazio publiko ireki bat izan zitekeela proposatzen genuen, eta egonlekua aisialdiko gune edo bilgune bateko ezkaratz gisa interpretatu genuen. Edo gauza bera dena, toki horretan termez gain beste zerbait egon zela iradokitzen genuen.

Gaur egun harago egiteko moduan gaudela uste dugu, eta inguru honetan guztian *Suestatium* hiri zaharreko foroa zegoela proposatzen dugu. Honakoa bezalako hiri txiki bateko espazio publiko nagusia izango zen.

[14] Loza Lengaran, R., Loza Uriarte, M. eta Niso Lorenzo, J. (2014): Las termas romanas de Arcaya/Suestatium. Memoria de las intervenciones arqueológicas en «Otazibarra» (1976-1982). Memorias de Yacimientos Alaveses, 13. zk. Arabako Foru Aldundia, 432. or.

prensión y a la puesta en valor del recinto monumental. Para ello era necesaria una excavación en extensión del área afectada por este rebaje.

Asimismo en el año 2022 se realizaron actuaciones arqueológicas asociadas a obras de consolidación en algunos puntos concretos del yacimiento que así lo precisaban.

Resultados obtenidos

A continuación pasamos a describir de forma global los resultados conseguidos durante este proyecto trienal. Antes de nada hay que advertir que escribimos estas líneas porque creemos necesario dar a conocer las últimas conclusiones histórico-arqueológicas a las que hemos llegado gracias a la información extrapolada en esta actuación arqueológica en la finca de «Otazibarra», pero queremos dejar claro que son todavía totalmente preliminares, puesto que aún quedan por confirmar algunas cuestiones de gran relevancia para la comprensión del conjunto edilicio que allí debió existir y que no será hasta, esperemos, próximas intervenciones cuando se puedan confirmar algunas de las hipótesis que ahora manejamos.

Asimismo queremos indicar que para darle más coherencia al discurso no sólo vamos a describir los resultados logrados directamente en las actuaciones arqueológicas efectuadas dentro de este proyecto trienal, sino que vamos a recapitular la información que se fue extrapolando desde la misma fecha que se publicó la memoria científica de Otazibarra en el año 2014. De esta forma, a la hora de redactar este discurso también se tendrá en cuenta la información obtenida por las obras de Amvisa del año 2015 y los datos sacados por las actuaciones de consolidación y puesta en valor del yacimiento que se llevaron a cabo sin interrupción entre los años 2016-2019. Gracias a ello, será posible no sólo revisar y completar los dicho por nosotros mismos con anterioridad, sino también ofrecer un nuevo enfoque a algunas de las propuestas interpretativas que planteábamos hace no tantos años.

El Foro de Suestatium

En la antigua publicación concluíamos que en la parcela de Otazibarra se había construido un importante edificio termal público dotado de gran monumentalidad, pero al mismo tiempo ya indicábamos que los baños solo ocupaban una pequeña parte de la superficie total de la manzana y que había otros espacios que se pudieron utilizar como lugares públicos de reunión, ocio, culto[14]. De hecho, ya proponíamos que la palestra podía ser un espacio público abierto y la estancia interpretada como vestíbulo una zona de ocio y reunión. O lo que es igual, ya insinuábamos que allí debió haber algo más que unas termas.

A día de hoy creemos estar en disposición de ir más allá y proponemos que en todo este entorno se localizaba el foro de la antigua *civitas* de *Suestatium*. En el sentido de espacio público principal de una pequeña ciudad como sería el caso.

[14] Loza Lengaran, R., Loza Uriarte, M. y Niso Lorenzo, J. (2014): Las termas romanas de Arcaya/*Suestatium*. Memoria de las intervenciones arqueológicas en «Otazibarra» (1976-1982). Memorias de Yacimientos Alaveses nº 13. Diputación Foral de Álava, p. 432.

Hiru dira hori iradokitzen diguten argudioak.

Funtsean, aire zabaleko espazio garrantzitsu baten presentzia. Oraingoz ez dugu ongi ezagutzen, baina badakigu gutxienez 20 m luze zela ekialdetik mendebaldera eta 15 m luze iparraldetik hegoaldera[15], eta beraz, ez dagokiola, orain arte uste genuen bezala, hiriko kale nagusietako bati. Gune edo espazio ireki hori galeria arkupedun batek mugatuko zuen hegoaldetik (dokumentatutako alde bakarra da, termen iparraldean egongo zen). Dokumentatu ahal izan dugun tartean lau oinarri karratu zituen, paleozenoko kareharrizko harlanduez eginak, 50 cm-ko aldearekin eta harlangaitzezko zimendu lodi baten gainean egokituta. Bosgarren oinarria, ekialdeen egongo zena, galduta zegoen, zimendua baizik ez zuen kontserbatzen. 3,90 m-ko tartea zegoen zutabetik zutabera, eta 4,60 m-koa zen sortutako barruko galeria (*ambulatio*). Oinarri horiek zeuden lerro berean baziren bi zimendu, eta guk uste dugu elementu oroigarriren bat jartzeko idulkiak izan daitezkeela. Multzoaren mendebaldeko hegalean egongo zen korridorearen parean daudenez, baliteke terma gunean sartzeko elementuekin estu lotuta egotea.

Gune horren hegoaldean zegoen terma gunea, seguruenik partzialki aurkitutako *cardus maximus*-aren mendebaldean, eta azpian egongo zen *cloaca maxima*[16], eta agian iparraldean *decumanus maximus*[17], horixe bailitzateke egokiena kanonikoki hitz egiten, *fora*-k bi kale nagusi horien bidegurutzean egokitzen baitziren. Halere, ez ditugu haren dimentsio orokorrak ezagutzen, eta ez dakigu zer beste eraikin mota izan zituen inguruan, bereziki mendebaldean.

Bestetik, aztarnen monumentaltasuna dugu. Aztarnategiaren alde honetako suntsipen maila oso handia bada ere[18], asko dira alde horretan garrantzi handiko eraikinak izan zirela salatzen duten elementuak[19] (*crustae* eta marmolean landutako erlaitzak, marmol gehienak nola Nafarroako Almandozko harrobitik hala Tortosako Broccatello ospetsutik ekarriak, eskultura zatiak, hauek marmol zurian landuak –marmol horren jatorria

Tres son los argumentos que así nos lo sugieren.

Fundamentalmente, la existencia de un importante espacio a cielo abierto, por el momento poco conocido, pero del que ya sabemos que tenía un mínimo de 20 (este-oeste) x 15 m (norte-sur)[15] y que, por lo tanto, no parece corresponder con una de las calles principales de la ciudad como así lo pensábamos hasta ahora. Este *área* o zona abierta estaba delimitada por el sur (único lateral documentado y que quedaría al norte de las termas) por una galería porticada. En el tramo que se ha podido documentar constaba de 4 apoyos cuadrados constituidos con sillares de caliza paleocena de unos 50 cm de lado colocados sobre una potente cimentación de mampostería. El quinto apoyo, el situado más al este, estaba perdido y sólo se conservó su cimentación. El intercolumnio entre ellos era de 3,90 m y la galería interior creada (*ambulatio*) de 4,60 m. En la misma línea dónde iban los apoyos había sendas cimentaciones de lo que, pensamos, pudieran ser pedestales para colocar algún elemento conmemorativo. Su emplazamiento frente al corredor que quedaría en el ala occidental del complejo sugiere que, de alguna manera, pudieran estar relacionados con el acceso al complejo termal.

Al sur de esta área se encontraba la manzana de las termas, probablemente al oeste el *cardus máximus* localizado parcialmente, y bajo el cual se encontraba la cloaca máxima[16] y quizás al norte el *decumanus maximus*[17], lo cual sería lo correcto canónicamente hablando, ya que los *fora* debían situarse en la intersección entre estas dos calles principales. Desconocemos, sin embargo, sus dimensiones globales y que otro tipo de edificaciones orbitaban a su alrededor fundamentalmente por poniente.

En segundo lugar, la monumentalidad de los restos. A pesar del alto grado de arrasamiento de esta zona del yacimiento[18], son muchos los elementos (crustae y cornisas en mármol en su mayoría procedentes tanto de las canteras navarras de Almandoz como del famoso Broccatello de Tortosa, fragmentos de esculturas, en este caso, elaborados en mármol blanco cuyo origen habrá que estudiar y distintos elementos arquitectónicos tallados en la caliza paleocena como tambores de columnas, plintos, basas, fragmentos de capiteles, cornisas decoradas etc.)

---

15 Baina gure kalkuluen arabera gutxienez 30 m luze da hegoaldeko hegalean, gure ustez galeria arkupedun hori gutxienez termetako aldagelaren amaieraraino iritsiko baitzen, eta badakigu non amaitzen zen.

16 Premiazko bi esku hartze arkeologikoetan identifikatu da. Alde batetik, Paquita Sáenz de Urturik tarte garrantzitsu bat dokumentatu zuen terma multzoaren mendebaldeko mugatik 20 metro eskasera (SAÉNZ DE URTURI, P. (1996): «Indusketak Araian: Otazibarra (ARC-2) eta Arzuan (ARC-3) (Vitoria-Gasteiz), *Arkeoikuska 95*, Vitoria-Gasteiz, 267-292. or.). Bestalde, guk geuk, iragan 2022an, are tarte handiago bat berreskuratu genuen Arkaiako jauregiari dagokion lursailean bideratutako premiazko esku hartze batean. Aldizkariko ale honetan bertan jaso daiteke informazio gehiago.

17 Rafa Varónek Arkaiako egungo herria urbanizatzeko lanek eraginda bideratutako esku hartze arkeologikotik ateratako datuetan oinarrituta planteatu daitekeena da egungo errepidearen beheko aldean irekitako zangen tarte osoan ez zela horma egitura bakar bat ere egiaztatu.

18 Izan ere, III. mendean eremu publiko hau abandonatu ondoren, harrobi bihurtu zen alde hori, eta ia gaur egunera arte bertatik pasa izan dira Arkaiako biztanleak harriz hornitzeko.

19 Bestalde, aztarna horiek ez dira azken urteetan bideratutako esku hartze ugarietako bakar batean ere aurkitu, eta beraz, berretsi egiten da Otazibarran zeudela monumentaltasun handieneko aztarnak.


---

15 Aunque le calculamos en su lateral sur un mínimo de 30 m ya que creemos que el porticado llegaría como mínimo hasta el final del vestuario de las termas del cual conocemos su final.

16 La cual se ha localizado en dos intervenciones arqueológicas de urgencia. Por un lado, Paquita Saenz de Urturi documentó un importante tramo a escasos 20 metros del límite oeste del complejo termal (SAÉNZ DE URTURI, P. (1996): «Excavaciones en Arcaya: Otazibarra (ARC-2) y Arzua (ARC-3) (Vitoria-Gasteiz), en *Arkeoikuska 95*, Vitoria-Gasteiz, p. 267-292.) Por otro nosotros mismos en este pasado 2022 recuperamos un tramo aún mayor en una actuación de urgencia en la parcela correspondiente al palacio de Arkaia. En este mismo número de la revista se puede ampliar la información.

17 Lo que se puede plantear a partir de los datos extrapolados de la actuación arqueológica dirigida por Rafa Varón y motivada por la reurbanización del actual pueblo de Arkaia en la que en todo el tramo de zanjas abierto baja la actual carretera no se evidencio ninguna estructura muraría.

18 De hecho tras el abandono de esta área pública en el siglo III, ésta se convirtió en una cantera donde prácticamente hasta nuestros días las gentes de Arkaia han pasado por allí para aprovisionarse de piedra.



Goi-ezkerrean, terma monumentalen eraikuntzaren planimetria (K.o. I. mendearen erdialdeko urteak); eskuinean, eraberritze lanak terma gunean eta plaza monumentalaren eraikuntza (K.o. I. mende amaiera). Behe-ezkerrean, bigarren eraberritze lanak termetan (K.o. I. mende amaiera); eskuinean, aldaketa terma gunearen funtzionaltasunean (K.o. II. mende hasiera). Planoak: ITERBIDE S.C. eta ENCLABE K.S.T.

Arriba a la izquierda, planimetría de la construcción de las termas monumentales (años centrales del siglo I d.C.); a la derecha, primeras reformas en las termas y monumentalización de la plaza (finales del siglo I d.C.). Abajo a la izquierda, segundas reformas en las termas (finales del siglo I d.C.); a la derecha, cambio de funcionalidad en el complejo termal (principios del siglo II d.C). Planos: ITERBIDE S.C. y ENCLABE. K.S.T.

aztertu behar da– eta paleozenoko kareharrian landutako askotariko elementu arkitektonikoak, hala nola zutabeak, idulkiak, euskarriak, kapitel zatiak, erlaitz dekoratuak, etab.).

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, dokumentu idatziek 1958tik aurrera Foruagako auzoari egiten dioten erreferentziak ditugu, horiek erraz asko egin baitiezaiekete erreferentzia Otazibarrako aztarnei.

Azken batean, egokia iruditzen zaigu hipotesi hori partekatzea, nahiz eta, lehendik ohartarazi dugun bezala, oraindik urria den ustezko foro horren inguruan darabilgun informazioa eta beharrezkoa izango den *Suestatium* hiri zaharreko erdigune honen azterketan sakontzea eskuragarri ditugun tresna guztiekin (airetiko argazkiak, prospekzio geofisikoa, indusketa arkeologikoak).

Nolanahi ere, eta etorkizunari begira, interesgarria iruditzen zaigu orrialde honetara Romero Vera doktorearen doktore tesitik ateratako lerroalde bat ekartzea: «Aunque todos los modelos forenses van a intentar repetir el modelo de la capital y de tratarse de un espacio público provisto en apariencia de los mismos elementos, no hubo dos foros iguales ni en *Hispania* ni en el resto del Imperio. Al contrario, bajo una misma forma arquitectónica existían infinitas posibilidades de desarrollar el modelo forense. Además, entraban en juego las peculiaridades de cada comunidad cívica, de forma que cada área forense disponía de una personalidad característica en función de la categoría jurídica, administrativa, pujanza económica o vicisitudes históricas de aquélla. En suma, cada centro cívico constituía desde el punto de vista material una relación de elementos epigráficos, escultóricos y arquitectónicos completamente única"[20].

Hirigune bakoitzak, betiere bere maila administratiboaren arabera, gisa horretako espazio kopuru jakin bat zuen. Batzuk, hala nola *curia* eta *tabularium*-a, beti egoten ziren, baina beste eraikin batzuk ez. Edo gauza bera dena, baztertu egin behar ditugu penintsulako beste *fora* batzuekin egiten diren alferrikako konparazioak, eta argi eduki behar dugu *Suestatium* hiriak zegokion tamainarako eraikin multzoa izan zuela, eta eraikin horiek nahikoa zirela behar bezala funtzionatzeko oinarrizko zerbitzuak eskaintzeko. Gainera, lekuak bizi zezakeen bilakaera historikoa bera kontuan hartu behar da. Hala bada, baliteke foroak lehen une batean eraikin publiko mota bat edukitzea eta geroago horiek handitu edo eraldatzea. Izan ere, aurrerago xehetasun handiago batez ikusiko dugun bezala, K.o. II. mende hasieran berritze lan garrantzi-tsuak eraman zituzten burura eraikin multzo osoan, eta obra horiek segur aski aldaketa batzuk eragingo zituzten eraikin garrantzitsuenetako batzuetan bideratzen ziren jardueretan. -

Hiriko eremu nagusian termak egotea ez da oso ohikoa, baina inola ere ez da *unicum* edo salbuespen que denotan que allí se debieron localizar construcciones de gran entidad.[19]

Por último pero no menos importante, las menciones que se hacen en la documentación al barrio de Foruaga desde 1598 y que perfectamente puede hacer referencia a los restos de Otazibarra.

En definitiva y aunque, como ya advertíamos, aún es escasa la información que manejamos sobre este supuesto foro y va a ser necesario profundizar con todas las herramientas a nuestro alcance dispo-nibles (fotografías aérea, prospección geofísica, excavaciones arqueológicas) en el estudio de esta zona central de la antigua ciudad de *Suestatium*, creemos oportuno compartir esta hipótesis.

En cualquier caso y de cara al futuro nos parece interesante aportar un párrafo extrapolado de la tesis doctoral del doctor Romero Vera porque puede ayudar a comprender cómo fue el antiguo foro de *Suestatium*. «Aunque todos los modelos forenses van a intentar repetir el modelo de la capital y de tratarse de un espacio público provisto en apariencia de los mismos elementos, no hubo dos foros iguales ni en *Hispania* ni en el resto del Imperio. Al contrario, bajo una misma forma arquitectónica existían infinitas posibilidades de desarrollar el modelo forense. Además, entraban en juego las peculiaridades de cada comunidad cívica, de forma que cada área forense disponía de una personalidad característica en función de la categoría jurídica, administrativa, pujanza económica o vicisitudes históricas de aquélla. En suma, cada centro cívico constituía desde el punto de vista material una relación de elementos epigráficos, escultóricos y arquitectónicos completamente única[20].

Cada centro urbano, en función de su nivel administrativo, poseía un número determinado de estos espacios. Algunos como la *curia* o el *tabularium* solían estar siempre presentes pero otros edificios podían faltar. O lo que es lo mismo tenemos que desechar comparaciones inútiles con otros *fora* peninsulares y tener claro que en *Suestatium* hubo un complejo edilicio proporcional a la entidad de la ciudad y suficiente para desempeñar los servicios básicos para su buen funcionamiento. Además hay que tener en cuenta la propia evolución histórica que pudo desarrollar el lugar. Es decir, es posible que en un primer momento el foro tuviese un tipo de edificios públicos y que posteriormente fuesen ampliándose o modificándose. De hecho, y como posteriormente se verá con mayor detalle, a inicios del siglo II d.C. se desarrollan importantes reformas en todo el complejo edilicio que posiblemente supongan cambios en las actividades efectuadas en algunos de los edificios más importantes.

La presencia de termas en el espacio principal de las ciudades no suele ser muy habitual, aunque, ni mucho menos, es un *unicum*. Ejemplos de termas en la propia *area forense* son las del Popilio de *Lucentum*[21],

[19] Restos que, por otro lado, no se han localizado en ninguna de las numerosas actuaciones efectuadas en los últimos años y que corroboran que era en Otazibarra donde había restos de mayor monumentalidad.

[20] Romero Vera, D., *(2016): La ciudad hispanorromana en el siglo II d.C. Consolidación y transformación de un modelo* urbano. Doktore Tesia. Malagako Unibertsitatea.

[20] Romero Vera, D., *(2016): La ciudad hispanorromana en el siglo II d.C. Consolidación y transformación de un modelo* urbano. Tesis Doctoral. Universidad de Málaga.

[21] Olcina Doménech, M. (2009): Lucentum (Tossal de Manises,

bat. *Lucemtum*-eko[21] Popiliokoak, *Valentia*-ko[22] Almoinakoak eta *Complutum*-eko[23] iparraldeko eta hegoaldeko foroetakoak dira, adibide batzuk ematearren, foroaren eremuan bertan dauden terma batzuk, eta horrek agerian uzten du interes handia zegoela bainutegiak hirigunetik ahalik eta hurbilen antolatzeko, eta modu horretan horien erabilera errazteko. Hortik aurrera, kasu bakoitzak inguruabar partikularrei erantzuten die, eta ez gara horietan sartuko, baina, oro har, halakoak dauden hiriaren beraren garrantziaren araberakoak izaten dira. Ez da gauza bera hiriaren erdialdean hirigune osoan zehar dauden beste bainutegi batzuk osatzen dituzten bainutegiak eta halako ezaugarriak dituen eraikuntza bakarra izatea.

Izan ere, *Suestetium*-eko foroak jatorri eta garapen berezia du, betiere datozen lerroetan azaltzen saiatuko garen terma guneari berari estu lotuta[24].

1. fasea. Aurreneko termak (K.o. I. mendearen erdialdeko urteak)

Itxura guztien arabera, K.o. I. mendearen erdialdeko urteetan[25], ordura arte ondoko Santo Tomas errekastoaren bideari jarraitzen zitzaizkion eta agian bertako tradizioaren araberako aurretiazko hirigintza bat konfiguratzen zuten horma egitura batzuek okupatutako lursail batean, eraikin sorta handi bat eraikitzeko erabakia hartu zuten, eta eraikin horiek *Suestatium* zaharreko erdigune nagusi bihurtu zuten alde hau.

Lehenengo eraikuntza proiektu hartatik ezer gutxi dakigu guk, eraiki eta urte gutxi batzuen buruan erabat birmoldatu baitzuten. Baina badakigu hasiera-hasieratik hantxe eraiki nahi izan zituztela aurreneko terma instalazioak, horixe bera salatzen du geroagoko berritze lanen ondorioz gela berotuek izango zuten hipokaustoaren antzeko sistema batez hornituriko gela baten agerpenak.

Geroago foroa antolatuko zen espazioan ez da eraikuntza mota bakar bat ere hautematen, eta beraz, eremu garbia izango zen itxura guztien arabera, aire zabalean egongo zen. Plaza horrek oraindik ez zuen halako monumentaltasuna emango zion elementurik.

las de la Almoina de *Valentia*[22], las del foro norte y sur de *Complutum*[23], por citar algunas, y que denota el interés por situar los baños lo más cerca posible del centro urbano y así facilitar su uso. Luego, cada caso responde a unas circunstancias particulares en las cuales no vamos a entrar, pero que, en general, dependen de la propia entidad de la ciudad en la que estén ubicados. No es lo mismo que en su centro haya unos baños que completen a otros repartidos por todo su área urbana, que se trate de la única construcción de estas características.

De hecho el foro de *Suestatium* tiene un origen y un desarrollo peculiar siempre muy ligado al propio complejo termal que vamos a intentar explicar en las siguientes líneas[24].

Fase 1. Primeras termas (años centrales del siglo I d.C.)

Todo apunta a que en los años centrales del siglo I d.C.[25] en una parcela hasta entonces ocupada por una serie de estructuras murarías que seguían la orientación del cercano riachuelo Santo Tomas y que configuraban un urbanismo previo, quizás de tradición indígena, deciden levantar una gran complejo edilicio, que va a convertir esta manzana en el centro neurálgico de la antigua *Suestatium*.

De este primer proyecto edilicio es muy poco lo que sabemos ya que fue totalmente remodelado pocos años más tarde. Lo que sí es una certeza es que desde su inicio allí se quisieron construir unas primeras instalaciones termales como lo denota la aparición de una sala dotada de un sistema de hipocausto similar al que van a tener las habitaciones calefactadas de las posteriores reformas.

En el espacio en el que más tarde se va a levantar el foro no se detecta ningún tipo de construcción por lo que todo apunta a que sería una zona diáfana y a cielo abierto. Una plaza todavía carente de cualquier tipo de elemento que denote cierta monumentalidad.

---

21 Olcina Doménech, M. (2009): Lucentum (Tossal de Manises, Alicante). Aqueología e Historia, MARQ, Alacanteko Diputazio Probintziala.

22 Ribera i Lacomba, A. eta Jiménez Salvador, J. L. (2012): «*Valentia:* la ciudad romana. Evidencia arqueológica», hemen: J. Beltrán Fortes eta O. Gutiérrez Rodríguez (arg.), *Hispaniae Urbes. Investigaciones arqueológicas en ciudades históricas,* Sevillako Unibertsitatea, 77- 119. or.

23 Sánchez Montes, A. L. eta Rascón Marqués, S. (2009): «La basílica y los edificios administrativos del foro de la ciudad romana de *Complutum*. De los edificios de época de Claudio a la monumentalización urbana de los siglos III, IV y V», *Anales de Arqueología Cordobesa, 20,* 175-202. or.

24 Testua luzeegia izan ez dadin, labur-labur deskribatuko dugu eraikuntza fase bakoitza. Etorkizunean argitaratuko den txosten zientifikoan zabalduko dugu informazioa.

25 Horixe bera iradokitzen du eraikuntza fase honekin lotutako berdintze betegarrietan aurkitutako zeramikak: bertako tradizioaren arabera landutako zeramikak agertzen dira, baita erromatar inportazio batzuk ere, baina ez dago TSHrik.

Alicante). Aqueología e Historia, MARQ, Diputación Provincial de Alicante.

22 Ribera i Lacomba, A. y Jiménez Salvador, J. L. (2012): «*Valentia:* la ciudad romana. Evidencia arqueológica», en J. Beltrán Fortes y O. Gutiérrez Rodríguez (eds.), *Hispaniae Urbes. Investigaciones arqueológicas en ciudades históricas,* Universidad de Sevilla, p. 77- 119.

23 Sánchez Montes, A. L. y Rascón Marqués, S. (2009): «La basílica y los edificios administrativos del foro de la ciudad romana de *Complutum*. De los edificios de época de Claudio a la monumentalización urbana de los siglos III, IV y V», *Anales de Arqueología Cordobesa, 20,* p. 175-202.

24 Para no hacer el texto excesivamente largo haremos una descripción somera de cada fase constructiva a la espera de la futura publicación de la memoria científica correspondiente en la que se ampliará la información.

25 Tal y como lo sugiere la cerámica en los distintos rellenos de nivelación vinculados a esta fase constructiva en la que aparece un grueso de cerámica de tradición indígena y algunas importaciones romanas en las que no hay TSH.

2. fasea. Terma monumentalen eraikuntza (K.o. I. mendearen erdialdeko urteak)

Apur bat geroago, zehazki noiz ez dakigula ez dagoelako kronologia desberdineko eraikuntzarako materialez osaturiko betegarririk[26], eraberritze garrantzitsu bat eraman zuten burura, eta horren ondorioz hartuko zuen lursailak gaur egun erakusten duen konfigurazioa. Hain zuzen ere une horretan eraiki zituzten termetako areto nagusiak (*apodyterium, frigidarium, tepidarium, caldarium*[27]), terma gunea ipar-mendebaldetik ixten duen areto luzea, mendebaldeko itxitura horma, urak biltzeko kanala, barruko patioa eta palestra, etab. Era berean, argi eta garbi zaharberritze lan batzuen xede izan baziren ere[28], eutsi egin zieten aurreko fasean eraikitako egonlekuei terma gunearen hegoaldeko muga gisa. Gainera, dirudienez arkupe bat zegoen patioaren mendebaldeko zerrendan, eta arkupe horrek eraiki berri zuten mendebaldeko fatxada bera erabiliko zuen itxitura gisa, curiaren hego-mendebaldeko izkinatik hego-mendebaldeko egonlekuaren iparraldeko hormaraino. Gutxi gorabehera 0,60 m lodi zen hormak eratzen zuen, eta hormak 1,15 m diametroko euskarri zirkular batzuk txarrantxatzen zituen. Arkupea 24,50 m luze zen, eta barruko korridorea 2,62 m zabal. Gure kalkuluen arabera 9 zutabe zituen, eta zutabetik zutabera 2,50 m zeuden. Ez dakigu nolakoak ziren zutabe horiek, baina badugu arrastoren bat testuingurutik kanpora dokumentatu genituen zutabeei zegozkien elementu askori esker. Zorua hartxintzarrez egina zen, eta plaza baino apur bat goratuago zegoen. Arkupe horretarako sarrera iparraldean egongo zen, kaletik etorrita sarrera monumentala izango zen, eta agian zuzeneko beste sarrera bat izango zuen mendebaldean.

Oro har, tamaina eta garrantzi handiko obra da egituretan erabilitako material guztien kalitateak salatzen duenez; hurrengo eraikuntza jardueretan ez zuten maila hori gaindituko. Gainera, une horretarako jada eraikita zeuden terma gune oso bat behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak ziren espazio guztiak. Eta bada gela handi bat, funtsean ipar-mendebaldeko aretoa deitu duguna, eraikinaren funtzionamenduan eginkizun espezifiko bat betetzen ez duena, gaur egun ezin ezaugarritu daitekeena. Bere garaian ezkaratz batez hitz egiten zen, baina ez du loturarik *apodyterium*-arekin[29], eta beraz, errazagoa da pentsatzea beste eginki-

Fase 2. Construcción termas monumen-tales (años centrales del siglo I d.C.)

Poco más tarde sin que se pueda concretar cuánto por la ausencia de rellenos constructivos con materiales de distinta cronología[26], se produce una importante reforma que es la que va a darle más o menos la configuración que actualmente se puede ver de la parcela. Es ahora cuando se construyen las salas principales de las termas (*apodyterium*, *frigidarium*, *tepidarium*, *caldarium*[27]), la sala alargada que cierra el complejo por el noroeste, el muro de cierre general oeste, el canal de recogida de aguas, el patio interior o palestra, etc. Asimismo y con evidentes reformas en ellas[28] aún mantienen las estancias construidas en la fase anterior como límite sur del complejo. Además parece que en la banda occidental del patio existía un pórtico que va a usar la propia fachada occidental recién construida como cierre y que va desde la esquina suroeste de la curia hasta la pared norte de la estancia suroeste. Estaba constituido por un muro de 0,60 m unos de anchura que arriostraba una serie de apoyos circulares con un diámetro de 1,15 m. La longitud del pórtico era de 24,50 m y su pasillo interior de 2,62 m. Calculamos que estuvo formado por 9 columnas y que había 2,50 de intercolumnio. No conocemos cómo pudieron ser, aunque tenemos alguna pista gracias a los numerosos elementos pertenecientes a columnas que se documentaron de forma descontextualizada. Su suelo era de grava fina y estaba ligeramente elevado respecto al de la plaza. La entrada a este pórtico debía realizarse por el norte a través de un acceso monumental desde la calle y quizás por alguna entrada directa por poniente.

En general, se trata de una obra de gran porte, tal y como lo denota la calidad de todas las fábricas empleadas, no superadas en las siguientes actividades constructivas. Además, en este momento ya están constituidos todos los espacios necesarios para el funcionamiento de un complejo termal. Incluso existe alguna habitación, fundamentalmente la que definíamos como sala noroeste, de gran porte que no tiene una funcionalidad específica en el funcionamiento del edificio y que a día de hoy no es posible caracterizar. En su día se hablaba de vestíbulo pero no se ve una conexión con el *apodyterium*[29], por lo que es más fácil

---

[26] Itxuraz bederen, bi obra horietan zeramikazko material berberak agertzen dira, eta Tricioko tailerretan landuak direla esan behar dugu, ez baitago *sigillata* hispanica moldeko piezarik.

[27] Eta, logikoa denez, praefurnium-a, geroagoko faseetan caldarium berri bat altxatuko zuten tokian egongo zena, baina caldarium horren eraikuntzaren ondorioz sekula identifikatu ez dena.

[28] Hipokaustoa desagerrarazi eta erabilerarako zoladura gisa erabiliko zuten zoru faltsua berokuntza sistema horretako zutabeen abiapuntutik.

[29] Kontuan izanik horma egiturak oso suntsituta daudela, ez dugu guztiz baztertzen halakorik egon ez zenik, baina argi dago ezin berretsi daitekeela. Eta kontuan badugu oso-oso ongi ezagutzen ditugula ipar-mendebaldeko aretora mendebaldeko albotik sartzeko ateko zimenduaren eraikuntza ezaugarriak, bestelakoak baitira haren gainean ziurrenik atalase monolitiko eta aski ikusgarri bat egongo zelako, arrasto hori ez da aretoa *apodyterium*-etik bereizten duen horman detektatzen. Horri buruzko informazio gehiago biltzeko, ikus Loza, M eta Niso, J (2016): «Arkaiako terma erromatarrak (Gasteiz, Araba) sendotze-

[26] Aparentemente en ambas obras aparecen los mismos materiales cerámicos que se caracterizan por la ausencia de *sigillata* hispánica de los talleres de Tricio.

[27] Y lógicamente el *praefurnium* que estaría situado más o menos donde luego se levanta en fases posteriores un nuevo *caldarium* y que a consecuencia de ello nunca se ha llegado a identificar.

[28] Se elimina el hipocausto y se utiliza como pavimento de uso el falso suelo desde donde arrancaban las columnas de este sistema de calefacción.

[29] Lo que, dado el estado tan arrasado de las estructuras murarías, no descarta totalmente que no lo hubiera, pero desde luego no sé puede confirmar. Incluso si tenemos en cuenta que conocemos perfectamente las características constructivas de la cimentación de la puerta de acceso a la sala noroeste por su lateral occidental muy diferente al resto de fábrica, porque sobre ella iría un umbral seguramente monolítico y cierta suntuosidad, este mismo rastro no se detecta en el muro que separa esta sala del *apodyterium*. Para ver más información al respecto se puede acudir a Loza, M. y Niso, J. (2016), «Consolidación parcial de las

zun mota batzuk betetzen zituela. Izan ere, areto horren aurreko interpretazioa beste terma hispaniarretan dokumentatutako egonleku angeluzuzen estalien ildoan egin daiteke; eskuarki oso handiak dira, hala nola *Clunia, Barcino, Bracara Augusta, Empuries* eta beste hiri batzuetakoak bezala, eta *Basilica Thermarum* esaten zaie. Hiriko aurrekariei ematen zitzaien erabilera bera emango zieten horiei, herritarren bilgune edo topaguneak izango ziren, edo erabilera askotarako guneak. Era berean, iturri idatzietan jasota dagoenez, beste kasu batzuetan palestra estali gisa erabiliko zuten fisikoki hain gogorrak ez ziren kirol lasaiago batzuk egiteko, edo neguan palestra gisa erabiltzeko[30].

Eta, zer gertatu zen kanpoko aldean? Bada, ia ezer ere ez. Terma gune barrukoari segida ematen zion kanal bat baizik ez genuen hauteman, baina hura ez bezala, honakoa lur eremuan induskatuta zegoen. Saneamendu kanal hori iparralderantz luzatzen zen indusketaren mugak gaindituz, baina induskatutako gunea ekialdetik mendebaldera zeharkatzen zuen adar bat zuela zirudien. Beraz, une horretan plazak irekia izaten jarraitzen zuen, garbi-garbi zegoen, oraindik ez zuten galeria arkupeduna eraiki.

3. fasea. Eraberritze lanak terma gunean eta plaza monumentalaren eraikuntza (K.o. I. mende amaiera)

Eraiki zuten unetik beretik, terma gunean hainbat eraberritze lan eraman zituzten burura haren izaera funtzionala eta monumentaltasuna hobetzeko xede bikoitzarekin. Eraberritze lan horiek oso epe laburrean gauzatuko zituzten, gehienez ere 30 urteko denbora bitartean[31]. Bi unetan zati daiteke.

Aurreneko eraberritze lanak termetan

Caldarium zaharren hegoaldean berokuntzaz hornituriko gela berri bat eraiki zuten, eta haren hegoaldean *praefurrnium* berri bat. Gela horrek izango zuen urmaeleko urak husteko, bertaraino luzatu zuten hustubidearena egiten zuen kanal nagusia, kasu horretan osorik *opus signinum* materialaz egina, eta horretarako partzialki desmuntatu zuten berokuntzaz hornituriko gela zaharra, hori ere, berrikuntza batzuk tarteko, erabiltzen jarraitzen baitzuten.

Caldarium zaharraren dimentsio berberak zeuzkan areto berri eta bero horrek. Labetik gertu egonik, bainutegiko gelarik beroena izango zen. Gainera, mendebaldeko hormak aurreko beste egonlekuetako hormen anko bigarren kanpaina». Arkeoikuska 2017, Gasteiz, 175-185. or.

[30] Pavía Page, M. (2018): *Thermae Hispaniae Citerioris. Las termas del puerto de Carthago Nova análisis arquitectonico y tipológico e inserción en el contexto de la arquitectura termal pública de Hispania Citerior,* Doktore tesia, 887. or.

[31] Kasu honetan ere ez gara eraberritze lan bakoitzari lotutako eraikuntzarako materialezko betegarrien artean egon daitezkeen ñabardura txikiak bereizteko gai. Nolanahi ere, deigarria zen zabor kantitate handia, gehien-gehienak termetako bizimoduak berak sorrarazitako hondakinetatik etorriak (zeramikazko eta beirazko ontzi txikiak, argimutilak, etab.), eta arlo kronologikoan, ondoko *Tritium Magallum*-eko tailerretan landutako *sigillata* moldeko zatien presentzia handia, betiere tailer horretan landu ziren aurreneko produkzioekin lotuak.

pensar que pudo tener otro tipo de funciones. De hecho, la interpretación de esta sala puede ir en la misma dirección que la de otras estancias rectangulares cubiertas documentadas en otras termas hispanas, generalmente de grandes dimensiones como las de *Clunia, Barcino, Bracara Augusta, Empuries* etc, y denominadas *Basílica Thermarum*. Su uso debe relacionarse, del mismo modo que en su antecedente cívico, con una función social como centro de reunión o encuentro, o bien como estancia polivalente. Asimismo, en otros casos, tal y como ponen de manifiesto las fuentes, también pudo ser usada como palestra cubierta para la realización de aquellos deportes más relajados y menos exigentes físicamente o como palestra de invierno[30].

Y ¿qué ocurre al exterior? Pues prácticamente nada. Tan sólo se detecta un canal que continuaba el del interior del complejo pero que, a diferencia de éste, estaba directamente excavado en el terreno. Este saneamiento continuaba hacia el norte más allá de los límites de la excavación si bien parecía tener un ramal que lo cruzaba con dirección este-oeste. Así pues, parece que en aún en este momento esta plaza sigue siendo a cielo abierto y diáfana sin que todavía se haya construido la galería porticada.

Fase 3 reformas en el complejo termal y monumentalización de la plaza (finales del siglo I d.C.)

Desde el momento de su construcción en el complejo termal se desarrollan distintas reformas con un doble objetivo tanto de carácter funcional como de mejorar su monumentalidad. Estas reformas se efectuaron en un lapso de tiempo muy corto que no debió ser superior a 30 años[31]. Se puede dividir en dos momentos.

Primeras reformas en las termas

Se construye una nueva habitación calefactada al sur del antiguo *caldarium* y un nuevo *praefurnium*, al sur de ella. Para evacuar el agua de alguna piscina que tendría esta nueva estancia prolongan hasta allí el canal de desagüe general, ahora elaborado exclusivamente en *opus signinum*, y, para ello, desmontan parcialmente la antigua habitación calefactada que, como ya veíamos, con distintas reformas aún seguía en uso.

Esta nueva sala caliente tenía unas dimensiones idénticas a las del antiguo *caldarium*. Por su cercanía al horno debía ser la sala más caliente de los baños. Además, su

termas de Arkaia (Vitoria-Gasteiz, Álava). Segunda campaña» en Arkeoikuska 2017, Vitoria-Gasteiz, p. 175-185,

[30] Pavía Page, M. (2018): *Thermae Hispaniae Citerioris. Las termas del puerto de Carthago Nova análisis arquitectonico y tipológico e inserción en el contexto de la arquitectura termal pública de Hispania Citerior,* Tesis doctoral, p. 887.

[31] De nuevo no somos capaces de diferenciar los pequeños matices que pudiera haber entre los distintos rellenos constructivos vinculados a cada reforma. En cualquier caso, lo que llamaba la atención era la gran cantidad de basura, en su mayoría procedente de los residuos que generaba la propia vida en las termas (pequeños recipientes de cerámica y vidrio, lucernas etc.), y a nivel cronológico la abrumadora presencia de *sigillata* elaborada en los cercanos talleres de *Tritium Magallum* siempre de las primeras producciones que allí se elaboraron.

tzeko estekadura agertzen zuen, baina harlandu handiak zeuzkan alboko gelekin lotzen zituen eskantzuetan, harlandu horiexek markatzen zuten beste gelekiko aldea. Gure ustez, lehenengo etapa honetan jada ur beroko urmael edo *alveus* bat izango zuen, baina ez dugu aurkitu. Ez dugu jatorrizko *suspensura* sistema ezagutzen hurrengo fasean eraberritu zutelako. Eta ez da goiko zorua edo ibiltzeko zorua kontserbatu.

Berokuntzaz hornituriko azken gela horren hegoaldean egokituko zen labe berria. Adreiluzko egitura batek eratzen zuen labean sartzeko ahoa, oso kontserbazio egoera txarrean dago, baina ziurrenik gangaduna izango zen. Hortik *propigneum*-era igarotzen zen: mendebaldeko alboa baizik ez zaio ezagutzen, metro bete lodi den horma batek eratzen du, baina horma hori termetan erabilitako gainerako fabrikaren oso bestelakoa da. Kanpoko aurpegia bertikalean jarritako hareharrizko blokeek eratzen zuten, eta barrukoa material nahasketa batek, horretan burdinazko mea blokeak nabarmentzen direlarik. Azken horiek beren eginkizunagatik dira aipagarri, hormak suaren zuzeneko eraginetik babesteaz gain, gelan beroa metatzeko balio baitzuten. Oso antzeko eredu bat ikus daiteke Zaragozako *Arcobriga* aztarnategian. Horma horretan kanpoko aldetik labean sartzeko bao bat zegoen.

Azkenik beste gela bat eraiki zuten patioaren iparekialdeko izkinan. Gure ustez komunak izango ziren, *agua caducae*-ak kalerantz husteko kanalaren gainean baitaude. Asko dira halakotzat interpretatutako gelak, neurriak gorabehera, urmaelak husteko kanalizazioekin lotuta daudelako; ur soberakinak instalazioak garbitzeko erabiltzen ziren, jarlekuen azpiko espazioa igarotzen zuten eta handik eraikinaren kanpoko aldera egiten zuten, bidean topatutako zikinkeria guztia herrestan eramanez.

Bigarren eraberritze lanak termetan

Alde batetik, hegoaldeko hegal osoan jardun zuten. Aurreko aztarna guztiak desagerrarazi zituen obra handia da. Hegoaldeko egonleku zaharren iparraldeko hormak terraza bat sortzeko eustorma gisa aprobetxaturik, plataforma handi bat antolatu zuten alde hori berdintzeko betegarri lodiekin, eta betegarri horietan zabor asko zegoen, zabor ugari termetako bizimoduak sorrarazten zituen hondakinetatik etorriak zirelarik, termak askoz ere lehenagotik erabiltzen baitziren. Gune goratu horretara iristeko eskailera batzuk egongo ziren, baina ez dira kontserbatu.

Goiko terraza horretan arkupe handi bat eraiki zuten, 14,5 metro luze. Horma batek eratzen zuen, guztira bost zutabe txarrantxatzen zituen, eta zutabetik zutabera 2,30 cm-ko tartea zegoen. Zutabe horiek zimendu zirkular sendoak eta 0,70 m-ko aldea duten harlandu lauangeluarrak baizik ez dituzte kontserbatu, harlandu horien gainean egokituko ziren gutxi gorabehera 55 cm-ko diametroa izango zuten zutabeak. Aldi berean, ekialdetik ixteko, 0,70 m lodierako horma bat altxatu zuten, eta horma hori hegoalderantz luzatzen da gutxienez 5,70 m-tan, eta ez da hor amaitzen edo biratzen; beraz, arkupea ere luzeagoa zela adierazten du, eta gutxienez 6 m zabal zela. Mendebaldean, galeria irekita egongo zen ibai aldera. Eta ezin dezakegu jakin nola ixten zen arkupe hori. Guk uste dugu azken fase honetan puntu horretatik iristen zela plazara, eta beraz, partzialki bada ere, kaletik irekita egongo zela, baina ezin dugu hori ziurtatu.

cierre occidental era de aparejo similar al del resto de estancias anteriores con la diferencia de tener grandes sillares como esquineras en la unión con las salas anexas, estableciendo una marcada diferencia con ellas. Suponemos que desde esta primera etapa contó, al menos, con una piscina de agua caliente o *alveus* no localizada. No conocemos su sistema de *suspensura* original puesto que fue reformado en la fase siguiente. Tampoco se ha conservado su suelo superior o de circulación.

El nuevo horno se va a situar al sur de esta última sala calefactada. La boca de acceso al mismo estaba constituida por una estructura de ladrillos, muy mal conservada, pero, probablemente, abovedada. De ahí se pasaba al *propigneum* del que sólo se conoce su lateral occidental, definido por un potente muro de un metro de anchura, pero muy distinto al resto de la fábrica empleada en las termas. Su cara externa estaría formada por bloques de arenisca dispuestos de forma vertical y su interna por un conglomerado de materiales en el que destacan bloques de mineral de hierro. Destacan estos últimos por su intencionalidad tanto para proteger las paredes del impacto directo del fuego como para acumular calor en el ambiente. Un ejemplo muy similar se da en el yacimiento zaragozano de *Arcobriga* también aparece En esta pared había un vano de acceso al horno desde el exterior.

Por último, se construye una habitación en la esquina noreste del patio, interpretada como unas letrinas porque se sitúa justo encima del canal de evacuación de las *aqua caducae* hacia la calle. Son muchas las salas así interpretadas, independientemente de sus dimensiones, por su conexión con las canalizaciones encargadas del vaciado de las piscinas, utilizándose el agua sobrante para la limpieza de sus instalaciones, recorriendo el espacio inferior de los asientos y desde allí dirigiéndose hacia el exterior del edificio, arrastrando toda la suciedad a su paso.

Segundas reformas en las termas

Por un lado, se actúa en todo el flanco meridional. Se trata de una gran obra que anuló todos los restos anteriores. Aprovechando los muros septentrionales de las antiguas estancias meridionales como muros de aterrazamiento, crean una plataforma con potentes rellenos de nivelación en los que abundaba la basura, mucha de ella proveniente de los residuos que iba generando la vida en las propias termas ya en uso tiempo atrás. Para acceder a esta zona elevada debieron existir escaleras que no se han conservado.

En esta terraza superior construyen un imponente pórtico de 14, 5 m de longitud y constituido por un muro, que arriostraba un total de cinco columnas con un intercolumnio de 2,30 cm entre ellas, de las que solo se conservan sus recias cimentaciones circulares y los sillares cuadrangulares de 0,70 de lado sobre los que irían sus columnas de un diámetro de unos 55 cm. Al mismo tiempo y con el fin de cerrarlo por el este, levantan un muro de 0,70 de anchura que en dirección sur recorre un mínimo de 5,70 m sin que termine o gire, lo que está indicando que el porticado también proseguía y tenía una anchura de, al menos, 6 m. Al oeste, la galería estaría abierta hacia el río. Tampoco podemos conocer como cerraba este pórtico. Pensamos que por allí se accedía a la plaza en esta última fase, por lo que, al

Arkupearen ekialdeko izkinan egitura handi bat altxatu zuten, segur aski *ninfeo* txiki bat, horixe bera iradokitzen baitu kanal nagusia hegoalderantz puntu honetaraino iritsi arte luzatu izanak, eta hori soilik urarekin lotutako monumentu bat baldin badago azaldu baitaiteke. Iturri monumental horrekin lotuta egon zitekeen iparraldera distantzia gutxira irekitako putzu handia. Agian monumentua uraz hornitzeko ur depositu gisa erabili zuten putzu handi hori.

Bestalde, berritze lan batzuk dokumentatzen dira mendebaldeko ardatzean, alde horretan gutxienez lau *tabernae* simetriko (5,80 m²) eraiki zituzten, aurreko arkupea amortizatu zutenak. Horiek guztiak mendebaldeko itxitura eratzen zuen hormari atxiki zitzaizkion, eta sarrera plazari begira zuten, kontserbatu ez den eskailera maila txiki baten bidez gaindituko zen aurrerago ikusiko dugunez fase honetan goratu zuten plazako zoruaren eta saltokietako barruko zoruaren arteko aldea. Saltoki horiek salmahai bat zuten, eta oinean 1,20 zabal zirela dokumentatu dugu. Gainean harrizko edo marmolezko lauza bat izango zuen, edo bestela, zurezko ohol bat. Ez dago saltoki bakoitzaren funtzionaltasuna zehazterik.

Aldi berean, atrio bat erantsi zioten *Basilica Thermarum* gisa identifikatutako aretoari. Gainera, erdiko patioan edo palestran bideratutako esku hartze batzuk hautematen dira. Goratu egin zuten plazako zoruaren maila, eta kanalen bat eraiki zuten saneatzeko. Hustubide hori eremu hau iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen kanal nagusiarekin bat egiten du. Bestalde, apur bat handitu zituzten komun zaharrak.

Suestatium-eko termak

Azken batean, une honetan konfiguratu zen terma gunearen behin betiko itxura, erabat eraldatu arte, jada hurrengo fasean deskribatuko dugun bezala. Foro aldearen hegoaldeko gune osoa okupatuko zuten termek, gutxi gorabehera 1.300 m² hartuko zituzten.

Lineal bakuna zen haren erabileraren eskema, inolako zalantzarik gabe eraikuntza eredu zabalduena baitzen *Hispanian* Julio-Klaudiaren garaiaz geroztik. Eredu horretan oinarrizko egonleku batzuk zeuden: *apodyterium* edo aldagela, *frigidarium* edo gela hotza, *tepidarium* edo gela epela eta *caldarium* edo gela beroa, eta horiek ondoz ondo antolatzen ziren luzetarako ardatz bakar batean bata bestearen ondoan, bloke bakarreko eraikinak definituz, luzetarako joerarekin, atzera egiteko moduko zirkuituarekin; izan ere, termetako erabiltzaileek, behin bainutegi eraikineko bidea egin ondoren, gela horiek berriz ere zeharkatu behar zituzten kontrako norabidean irteeraraino, lehenik *apodyterium*-etik pasa behar zutelarik arropaz aldatzeko eta euren gauzak jasotzeko.

Bakuntasunean eta aldakortasunean datza ereduaren arrakasta, baita gisa horretako eraikin motak eskatzen zuen mantentze lan txikiagoan ere, egonlekuek bloke sendo eta trinko bat eratzen baitzuten[32].

Eskema horri erantzuten dioten eraikin gertukoenen artean aipa ditzakegu Ilerda-koa (Lleida)[33], Labitolosa-ko

[32] Pavía Page, *op. cit.,* 2018, 863

[33] Payà i Mercè, J. (2000): «Las termas púbicas de la ciudad romana de *Ilerda*», hemen: C. Fernández Ochoa eta V. García-Entero (arg.), *Termas Romanas en el Occidente del Imperio, Co-*

menos, parcialmente estaría abierto desde la calle, pero no se puede asegurar.

En la esquina oriental del pórtico levantan una gran estructura, probablemente un pequeño *ninfeo*, como así lo sugiere la ampliación del canal general hacia el sur hasta llegar a este punto, que sólo se explica si hay un monumento vinculado con el agua. A esta fuente monumental pudo pertenecer un gran pozo, abierto a escasa distancia al norte, y que pudo servir como depósito de captación de agua al monumento.

Por otro lado, se documentan reformas en el eje occidental donde se van a construir un mínimo de cuatro *tabernae* simétricas (5,80 m²), que anulan el pórtico anterior. Todas ellas se adosan al muro de cierre oeste general y tienen su acceso desde la plaza a través de un pequeño peldaño no conservado que salvaría la diferencia existente entre su suelo, que en esta fase es recrecido como luego se verá, y el del interior de las tiendas. Estos establecimientos contaban con un mostrador del que se ha documentado su base de 1,20 m de anchura. Sobre ella iría una gran losa de piedra o mármol o, en su defecto, una tabla de madera. No es posible determinar la funcionalidad da cada tienda.

Al mismo tiempo a la sala identificada como *Basilica Thermarum* se le añade un atrio. Además también se detectan actuaciones en el patio central o palestra. Se eleva la cota del suelo de la plaza y se realiza algún canal para sanearlo que va a desembocar en la canalización general que atraviesa la manzana norte-sur. Asimismo las antiguas letrinas son ligeramente ampliadas.

Las termas de Suestatium

En definitiva, es en este momento cuando se configura el aspecto definitivo del complejo termal hasta su completa transformación que será descrita ya en la fase siguiente. Se trata de unas termas que ocuparían toda la manzana sur del área forense y que tendrían un mínimo de 1300 m².

Su esquema de uso era el lineal simple, sin duda, el modelo constructivo de mayor proliferación en *Hispania* desde época Julio-Claudia. Éste se caracteriza por la presencia de una serie de dependencias básicas: *apodyterium* o vestuario, *frigidarium* o sala fría, *tepidarium* o sala templada y *caldarium* o sala caliente, que se suceden de forma lineal a través de un único eje de sentido longitudinal, definiéndose edificios de bloque único y tendencia alargada con un circuito termal de tipo retrógrado donde los usuarios de las termas, una vez concluido su itinerario por el edificio de baños, debían recorrer de nuevo las estancias en sentido inverso hasta la salida, pasando primero por el *apodyterium* para cambiarse de ropa y recoger sus pertenencias.

El éxito del modelo radica en su simplicidad y versatilidad, así como en el menor mantenimiento que requerían este tipo de edificaciones al formar las habitaciones un bloque sólido y compacto[32].

Entre los edificios más cercanos atribuibles a este esquema podemos citar el de *Ilerda* (Lleida)[33], la fase I y

[32] Pavía Page, *op.cit.,* 2018, 863

[33] Payà i Mercè, J. (2000): «Las termas púbicas de la ciudad romana de *Ilerda*», en C. Fernández Ochoa y V. García-Entero

(La Puebla de Castro, Huesca)[34] I. eta II. faseak, Bilbilisko[35] II. fasea, Arcobriga-koa[36], Complutum-eko[37] Foroaren iparraldeko termak, Pompaelo-koa[38] eta beste batzuk.

Eraikinaren eskema linealak pentsaraz lezake ibilbidea atzera bueltakoa izan zela, eta barrutitik irteteko erabiltzaileek lehendik egindako bide bera egin behar zutela atzera. Halere, termek duten oinplanoak iradokitzen du ekialdeko muturrean bainutegiko gelen paraleloan luzatuko zen korridore bat egon zela, eta korridore horrek aukera ematen ziela erabiltzaileei bainutegiko ibilbidea osatzeko lehendik erabilitako geletatik igaro behar izan gabe. Datozen lerroetan saiatuko gara ibilbide horretako gela nagusiak deskribatzen[39].

Terma eraikinaren iparraldean gutxi gorabehera 122,5 m^2-ko gela handi bat zegoen, ziur aski bi girotan egongo zen banatuta. Ekialdekoak aldagelarena egingo zuen, izan ere, gela hori bainutegi eraikinean bertan zegoen eta eraikinaren kanpoko aldearekin eta termetako sektore hotzeko gelekin lotzen zen, eta ez dago gela horiek markatzen dituen beste ezaugarririk; bainutegiko sarrera markatzen zuten gela horiek, eta galarazi egiten zuten kaletik eta atetik *apodyterium*-a ikustea. Era berean, konplexu handiagoetan, erabiltzaileentzako harrera gela gisa funtzionatzen zuten *vestibula*-ek, bainutegiko ibilbidea hastean edo amaitzean bilgune gisa erabiltzen baitzituzten erabiltzaileek[40]. Baliteke gela horrek loturarena egitea zuzenean bainutegiari atxikitako gelen eta beste funtzio batzuk beteko zituzten gelen artean. Izan ere, ekialdean geratzen den es-

loquio Internacional, Gijón, 179- 184. or.

[34] Sillières, P., Magallón, M. A., Fincker, M., Navarro, M., Rico, C., Labarthe, J.M. eta Sáenz, C. (2000): «Las termas de la ciudad hispano romana de Labitolosa: avance a su estudio» , hemen: C. Fernandez Ochoa eta V. García-Entero (arg.), *Termas romanas en el Occidente del Imperio, Coloquio Internacional celebrado en Gijón,* 193-198. or.

[35] Martín-Bueno, M. eta Liz Guiral, J. (1999): «Las termas del *Municipium Augusta Bilbilis* y su relación con otros edificios análogos», J. Delaine eta D.E. Johnston, *Roman Baths and Bathing. First International Conference on Roman Barths,* Portsmouth, Rhode Island, 251-261. or.

[36] Caballero Casado, C. eta Jiménez Sánz, C. (2002): «La ciudad de *Arcobriga* en el Museo del Cerralbo: Las Termas y el Praetorio», Museo Arqueológico Nacional museoko buletina, 20, 31-49. or.

[37] Sánchez Montes, A. L. eta Rascón Marqués, S, OP. CIT., 2009, 175-202. or.

[38] Unzu Urmeneta, M. (e. p.): «Los grandes complejos termales de *Pompelo*: las termas forenses y las termas suburbanas», hemen: J.M. Noguera Celdrán, V. García-Entero eta M. Pavía Page (arg.), *Congreso Internacional Termas Públicas en Hispania*, (Murtzia, Cartagena, 2018).

[39] Horien deskribapenean geldituko gara Arkaia ondoko Otazurekin lotzen duen egungo errepidearen azpian egindako zangetan egiaztatu ahal izan zelako termek segida zutela ekialderantz. Gainera, informazio hori Ramón Loza Lengaranek zuzendutako indusketa lan zaharretatik lortutako datuekin, zehazki 1977ko kanpainan aipatutako errepidearen beste aldean jardun zuenean ateratako informazioarekin, alderatu ahal izan zen. Kanpaina hartan dokumentatutako aztarnak bere garaian bainutegiekin lotzera iritsi baziren ere, orain ez dirudi zalantzarik dagoenik. Laburbilduta, haren benetako neurriak egiaztatu ahal izan dira, eta egindako kalkulu optimisten araberakoak baino askoz ere handiagoak direla ikusi da.

[40] Pavía Page, *op. cit*., 2018, 884

Il de *Labitolosa* (La Puebla de Castro, Huesca)[34], la fase II de *Bilbilis*[35], el de *Arcobriga*[36], las termas al norte del Foro de *Complutum*[37], o el de *Pompaelo*[38], etc.

El esquema lineal que sigue el edificio pudiera hacer pensar que el recorrido fue retrogrado y que para salir del recinto los usuarios deberían volver sobre sus propios pasos. Sin embargo, la planta que tiene las termas sugiere que en el extremo oriental debió haber un pasillo paralelo a las estancias de los baños que permitía al usuario completar su circuito de baño sin necesidad de pasar por los ambientes ya utilizados. En las próximas líneas vamos a describir las salas principales de este recorrido[39].

Al norte del edificio termal se situaba una gran sala de unos 122,5 m², posiblemente dividida en dos ambientes. El más oriental pudo funcionar como vestíbulo. Su identificación se basa en la localización de la sala en el propio edificio de baños y su relación con el exterior del mismo y con las salas del sector frío de las termas, dado que no existen otros rasgos definitorios para estas habitaciones, la presencia de estancias que marcaban la entrada a los baños e impedían que el *apodyterium* se viera desde la calle a través de la puerta. Asimismo, en los complejos más grandes, los *vestibula,* funcionaban también como espacios de recepción para los usuarios, usados como lugar de encuentro tanto al inicio, como al finalizar el recorrido del baño[40]. Es posible que esta sala hiciese de nexo de unión entre las vinculadas directamente con los baños y las que podían tener otras funcionalidades. De hecho el

(ed.), *Termas Romanas en el Occidente del Imperio, Coloquio Internacional,* Gijón, p. 179- 184.

[34] Sillières, P., Magallón, M. A., Fincker, M., Navarro, M., Rico, C., Labarthe, J.M. y Sáenz, C. (2000): «Las termas de la ciudad hispano romana de Labitolosa: avance a su estudio» en C. Fernandez Ochoa y V. García-Entero (eds.), *Termas romanas en el Occidente del Imperio, Coloquio Internacional celebrado en Gijón,* p. 193-198.

[35] Martín-Bueno, M. y Liz Guiral, J. (1999): «Las termas del *Municipium Augusta Bilbilis* y su relación con otros edificios análogos», J. Delaine y D.E. Johnston, *Roman Baths and Bathing. First International Conference on Roman Barths,* Portsmouth, Rhode Island, p. 251-261.

[36] Caballero Casado, C. y Jiménez Sánz, C. (2002): «La ciudad de *Arcobriga* en el Museo del Cerralbo: Las Termas y el Praetorio», Boletín del Museo Arqueológico Nacional, 20, p. 31-49.

[37] Sánchez Montes, A. L. y Rascón Marqués, S, OP.CIT., 2009, p. 175-202.

[38] Unzu Urmeneta, M. (e.p.): «Los grandes complejos termales de *Pompelo*: las termas forenses y las termas suburbanas», en J.M. Noguera Celdrán, V. García-Entero y M. Pavía Page (eds.), *Congreso Internacional Termas Públicas en Hispania*, (Murcia-Cartagena, 2018).

[39] Nos detenemos en su descripción porque gracias a las zanjas realizadas bajo la actual carretera que une Arkaia con la cercana Otazu se pudo comprobar que las termas proseguían hacia oriente. Además, esta nueva información se pudo cotejar con la proveniente de las excavaciones antiguas dirigidas por Ramón Loza Lengaran, concretamente con la obtenida en la campaña de 1977 cuando se intervino al otro lado de la mencionada carretera y se documentaron restos que aunque en su momento no se llegaron a relacionar con los propios baños ahora no parece haber duda alguna. En definitiva, se ha podido comprobar sus dimensiones reales, mucho mayores de los cálculos más optimistas efectuados.

[40] Pavía Page, *op.cit.*, 2018, 884.

pazioa banaketa korridorea eta gela txiki batzuk hartzeko bezain handia da.

Mendebaldekoa *apodyterium*-a bera izango zen. Ez ditu ohiko elementuak kontserbatzen, hormetan ez ditu armairuetarako zuloak edo nitxoak kontserbatzen, eta jarleku luzerik ere ez, eta beraz, *frigidarium* gelarekin duen loturari esker identifikatu ahal izan da. Gela horretatik palestraren zati bat inbaditzen zuten komun txiki batzuetara iristen zen.

Frigidarium-ak 8,25 x 5,5 m-ko dimentsioak zituen, edo gauza bera dena, 45,43 m^2. Ez dugu *apodyterium*-etik izango zuen sarrera dokumentatu. Mosaiko batez eratuta izango zuen zorua, baina ez ditugu motiboak ezagutzen. Mendebaldeko ardatz laburrean 5,20 m luze, 2 m zabal eta gutxi gorabehera 1 m-ko sakonera izango zuen urmael bat zuen. Urmaeleko zorua arpilatuta zegoen. Hustubideko kanal nagusiarekin lotzen zen berunezko hodi baten bidez husten zen ura. Gela horretatik *tepidarium*-era igarotzen zen dokumentatu ez dugun ate baten bidez.

Gela horrek 8,25 x 6,50 m-ko dimentsioak zituen, edo gauza bera dena, 53,62 m^2. Dirudienez oinplano angeluzuzena zuen, baina ekialdeko muturra induskatu gabe dagoenez, baliteke burualde erdizirkularra edo angeluzuzena izatea. *Caldarium*-etik iristen zen aire beroa igarotzen uzten zuen hipokausto sistema bati esker berotzen zen gela hori, eta hori bat dator *tepidarium*-aren eginkizunarekin, izan ere, termetako alderdi beroaren hasieran egokituta, gorputza gainerako geletako tenperatura altuetara egokitzeko erabiltzen zen (Pavía Page, 2018, 887). Gela horrek dokumentatu ez dugun ur beroko urmael edo *alveus* bat izan zuen, haren hustubidea kontserbatu baita.

Tepidarium-etik *caldarium*-era iristen zen induskatutako azaleran dokumentatu ez dugun ate baten bitartez. Gela handia da, 12,6 x 8,25 m-koa, edo gauza bera dena, 104 m^2-koa[41], bainutegiko areto bero nagusiari dagokion bezala. Hipokaustoaren mailan bi girotan banatzen zen, eta bakoitzak bere *suspensura* sistema zuen. Hegoaldekoa nabarmentzen da, *praefurmium*-etik iristen ziren hiru zirkulazio bide zituen, eta horiek, beroa banatzeaz gain, dokumentatu ez ditugun balizko urmaelak finkatzeko balio zezaketen. Iparraldekoan, beheko zoruan, induskatu ez den gela horren ekialdean egongo zen urmael bateko ura husteko kanal bat kontserbatzen da. Eta ezer gutxi gehiago dakigu gela horren inguruan, horregatik jo behar dugu hobe ezagutzen diren beste batzuen ezaugarri orokorretara.

Caldaria-en morfologiak joera lauangeluarra izan ohi du, baina aldi berean, aldaera gehien dokumentatzen ditugun egonlekuetako bat da. Askotariko formak eta neurriak izan ditzakete ur beroko urmaelak –alvei– eta ur hotzeko iturriak –labrum– hartzen zituen irtenguneen edo absideen banaketaren arabera[42]. Vitruvioren deskribapenaren arabera, *caldarium*-ak bainuontzi edo *solium* bat eduki behar zuen muturretako batean, eta *labrum* bat pareko absidean –*schola labri*–.

[41] Azken eraikuntza fasean beste konfigurazio bat izan zuen. Lehen ere horri buruzkoak azaldu ditugu.

[42] Pavía Page, op. cit., 2018, 863

espacio que queda al este es suficiente para que alojara tanto el pasillo de distribución como pequeñas estancias.

Otra cuestión es determinar cuándo se llevó a cabo esta construcción, para lo cual no contamos con ningún dato esclarecedor, más allá de la información ya referida de la actuación arqueológica de 2019, que indicaba que con la construcción del sótano en el siglo XIII el foso deja de funcionar como tal, lo que, según lo comentado, puede sugerir que ya para esas fechas se sustituyó por la nueva cerca ya en piedra.

No nos olvidamos del hospital. Según las fuentes escritas, se levanta en el año 1419 por el matrimonio formado por D. Fernán Pérez de Ayala, hijo del Canciller

[54] Eta ez da lan erraza izango, lubanarro horiek «lehortzat» har daitezkeen arren lur eremuko hezetasunetatik etorritako ur asko biltzen baitute. Horrek zaildu egiten du haien erregistro egokia, eta batzuetan ezinezkoa da oinetik gertuen dauden mailetan lan egitea, eta hain zuzen ere maila horietan ikus daiteke noiz hasi zen egitura kolapsatzen. Eta horixe da modu bakarra harresia eraiki aurretik lubanarroa jada erabiltzen ote zuten jakiteko, izan ere, behin harresia eraiki ondoren, batera funtzionatuko zuten gutxienez denboraldi batez.

[54] Lo que no será una tarea sencilla puesto que estos fosos aunque se pueden tildar como «secos» reciben gran cantidad de agua procedente de las humedades del terreno, lo que dificulta su adecuado registro, a veces imposibilitando trabajar en los niveles más cercanos a su base donde se puede ver en qué momento se empezó ya a colapsar. Lo cual es la única manera de determinar si el foso ya estaba en uso antes de la construcción de la muralla ya que en general seguirían funcionando una vez levantada la muralla por lo menos durante un tiempo.

Kantzilerraren seme Fernán Pérez de Ayala eta Alfontso XI.a erregearen ondorengo María Sarmiento senaremazteek Gasteizko hiriak emandako lurretan[55].

Labur-labur deskribatuko ditugu hartatik berreskuratutako lekukotasunak. Funtsean, hegoaldeko muturreko beheko solairua dokumentatu ahal izan zen, gutxi gorabehera 20 m luze zen. Beheko solairu hori horma sendo batek eratzen zuen, metro bete baino lodiagoa zen, Olarizuko kalkarenitazko harlangaitz egokiekin jasota zegoen, eta haren ekialdeko, mendebaldeko eta hegoaldeko paretak dokumentatu dira. Barruko aldera, estekadurak modu erregularrean kontserbatzen zituen 4 edo 5 errenkada[56], errenkada bakoitza gutxi gorabehera 10-12 cm lodi, 1 eta 2 cm bitarteko junturekin. Oso luzeak dira piezak, 70 eta 95 cm bitarte luze, eta 35-50 cm lodi dira. Mortero gisa kareore beix argia erabili zuten teila zati txikiekin batera, azken horiek betegarri gisa. Estaldura kontserbatzen zuen barruko zein kanpoko aldetik. Zarpiatua, osaeraz eta itxuraz, harrizko piezak batzeko morteroaren antzekoa zen, baina harea finagoak zituen.

A priori garbi egongo zen espazio osoa, gutxi gorabehera 5 m^2 izango zituen gela karratu txiki batek baizik ez zuen garbitasun hori urratuko. Gela hego-ekialdeko izkinan zegoen, eta guk uste dugu ardandegi txiki bat izan zela, 1507ko sute ezagunak eragindako suntsipen betegarrian *in situ* aurkitu baikenuen zeramikazko eta beirazko ontzien metaketa handi bat. Hori guztia sakon aztertuko dugu hurrengo etapan.

Gela handi horren gainerako espazioak ere biltegiratzeko eginkizunak beteko zituen egindako aurkikuntzen arabera. Zehazki, artilleriako harrizko 3 bolaz eta xede militar horrekin lotuta egon daitezkeen metalezko elementu batzuez ari gara. Elementu horiek, oraindik jakiteke dagoen arrazoi batengatik, ospitaleko beheko solairuan armak gordetzen zirela iradokitzen dute.

Gainera, badago barruti hori biltegi handi gisa erabili zutelako hipotesia indartzen duen beste datu interesgarri bat. Zoruko gune jakin batzuetan sartutako zurezko paldo sorta bat da, eta paldo horiek iradokitzen dute gune zehatz batzuetan zurezko egitura batzuk izan zirela bertan biltegiratutako materialek ez zezaten zoru hezea ukitu. Azkenik, azpimarratu behar da zoruak ere bat datozela bertan garatzen zen erabilera motarekin, lur eremuko matrize buztintsuko estratu geologikoaren gainean zuzenean bermatutako erabilera mailak baizik ez baitziren.

Laburbilduta, ospitaleko biltegiei dagozkie ospitalean aurkitutako lekukotasunak, eta ikerkuntzaren une honetan ezin dugu eraikinaren atal nagusiak nolakoak izan zitezkeen adieraziko ligukeen informazio gehiago eskaini.

Iturri idatziei esker, ospitaleari buruzko xehetasun batzuk ezagut ditzakegu. Esate baterako, kontu liburuetan jasota baitago, badakigu zeintzuk artatzen zituzten bertan: gaixoak, txiroak eta erromesak. Ohea, argia eta

D. Pedro López de Ayala, y su esposa, Dª María Sarmiento, descendiente del rey Alfonso XI en el sitio que da y otorga la ciudad de Vitoria[55].

Vamos a describir brevemente los testimonios que se recuperaron del mismo. Básicamente se pudo documentar la planta baja de su extremo meridional que contaba con un desarrollo de unos 20 m. Esta planta baja estaba configurada por un muro de gran porte, más de un metro de anchura y con una fábrica de buena mampostería de calcarenita de Olarizu, del que se han documentado las paredes este, oeste y sur. El aparejo conservaba al interior de forma regular entre 4 o 5 hiladas[56], siendo cada hilada de unos 10-12 cm de grosor con juntas de entre 1 cm y 2 cm. Las piezas son muy largas, entre 70 y 95 cm de longitud y 35-50 cm de fondo. Como mortero utilizaba una argamasa beige clara con pequeños fragmentos de teja a modo de ripios. Conservaba revestimiento tanto al interior como al exterior. El enfoscado era de composición y aspecto muy similar al mortero para las juntas, pero con arenas más finas.

A priori todo el espacio sería diáfano a excepción de una pequeña sala cuadrada de unos 5 m², que se localizaba en la esquina sureste y que se ha interpretado como una pequeña bodega por la gran acumulación de vasijas y recipientes de vidrio que se localizaron in situ en el relleno de destrucción provocado en el famoso incendio de 1507. De todo ello se hablará en profundidad en la etapa siguiente.

El resto de este gran ambiente también debía servir para funciones de almacenaje dados los hallazgos. Hablamos concretamente de 3 bolaños de artillería y diversos elementos metálicos quizás relacionados con este fin militar que sugieren que, por una razón que aún está por conocer, en la planta baja del hospital se guardaban armas.

Además, se cuenta con otro interesante dato que también refuerza la hipótesis de que este recinto fue usado como una especie de gran depósito. Se trata de la presencia de una serie de pilotes de madera clavados en zonas concretas del suelo que sugiere que en determinadas zonas habría estructuras de madera para que los materiales allí guardados no tuvieran contacto con el suelo húmedo. Por último, hay que subrayar que los pavimentos también son acordes al tipo de uso que allí se desarrollaban, ya que no eran más que niveles de uso asentados directamente sobre el estrato geológico de matriz arcillosa del terreno.

En definitiva los testimonios que se han localizado del hospital corresponden a las dependencias de almacenaje del mismo sin que podamos, a estas alturas de la investigación, aportar más información sobre cómo podían ser las partes más nobles del edificio.

Gracias a la documentación escrita podemos conocer algún detalle más sobre el hospital. Por ejemplo, según reflejan los libros de cuentas, conocemos los tipos de personas que en el ingresaban: enfermos, pobres y

---

[55] Martín Latorre, P. (1996): *Hospitales, peregrinos y ….otras cosas*, Gasteizko Udala, 21. or.

[56] Puntu batzuetan 1,5 metrotik gorako altuera kontserbatzen zuen hormak, baina baliteke haren zati bat 1507. urteko sute bortitzaren ondoren ospitalea berreraikitzeko bideratutako lanen emaitza izatea.

[55] Martín Latorre, P. (1996): *Hospitales, peregrinos y ….otras cosas*, Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, p. 21.

[56] En algunos casos el muro llegaba a conservar más de 1,5 metros de altura pero es posible que parte del mismo correspondiera a las obras de reconstrucción del hospital tras el violento incendio ocurrido en el año 1507.

hazkurria ematen zitzaizkien. Eta badakigu 1420an kapilautza bat fundatu zela ondoko San Frantzisko komentuan, eta 1433an, haren debozioa hedatzeko asmoz, Nuestra Señora del Cabello kofradia sortu zutela[57]. Gainera, Juana erreginak 1509ko zedula batean zioen une hartan Gaztelan zegoen ospitalerik handiena zela honakoa.

3. fasea. Lehenengo ospitaleko sutea. Inguru osoaren berreraikuntza eta urbanizazioa. 1507tik 1556ra

Iturri idatzien arabera, 1507ko eguberri egunean ospitalea erabat txikitu zuen sute bat gertatu zen, dirudienez bertan ostatatzen zen Santa Klarako emakume jainkozale baten arinkeriaren ondorioz[58]. Sute hori argi eta garbi egiaztatu genuen esku hartze arkeologikoan. Ospitale zaharraren barrunbe osoan suntsipenetik etorritako betegarri asko dokumentatu genituen: lurrezko estratuez osatuta zeuden, ikatzen eta suaren eraginez oso belztuta zeuden, eta gertaera bortitz horretatik etorritako material asko biltzen zuten (habe, egur eta adobe erreak). Betegarri horietan zeramikazko multzo handi bat azaldu zen, eta pieza horiek berretsi egin zituzten iturri idatzietan proposatutako datak. Horiekin batera, gisa honetako eraikinetan ezohikotzat har daitezkeen lekukotasun batzuk dokumentatu genituen. Hareharrizko hiru bola dira, zuzenean erabilerarako zoru gainean zeuden. Kontu hori gaian adituak direnekin aztertzen ari bagara ere, lehen hipotesiek adierazten dute lonbardaz eta trabukoz jaurtitzeko jaurtigaiak izan daitezkeela; material hori agian Gasteizko gaztelu deseginarekin (gaur egungo San Bizente eliza) lotu behar da[59].

Aipamen berezia merezi du ardandegi gisa identifikatutako gelan egindako aurkikuntzak, zeramikazko hamarnaka ontzi oso eta beirazko ontzi kopuru handi samar bat, horiek ere osorik, dokumentatu baikenituen[60]. Gainera, aurkikuntzaren zirkunstantzia guztiz bereziei esker[61], ontzi horietan gordetzen ziren produktu eta substantzien hondarrak (haziak, hezurrak, etab.) kontserbatu ahal izan dira, eta beraz, etorkizun hurbilean, garai hartan zer elikagai kontsumitzen zituzten jakingo dugu, eta, zergatik ez, zer osagaik osatzen zituzten garaiko botikak[62].

Iturri idatziek 1507. urtean ospitalean sute bat izan zela jakinarazten diguten bezala, eraikina birgaitu zuten

[57] *Ibidem*, 21-23. or.

[58] *Ibidem,* 24. or.

[59] Eskerrak eman nahi dizkiegu Jon Andoni Fernández de Larreari eta Ekaitz Etxeberriari egin dituzten ekarpenengatik

[60] Une honetan aztertzeko prozesuan dago, baina erregistro materialak egiaztatu egiten du iturri idatziek ezarritako data, hots, lehenengo ospitalea 1507an gertatutako sute baten ondorioz suntsitu zela.

[61] Gogorarazi behar da ospitalearen suntsipena eragin zuen zorigaiztoko sute hark arkeologian oso gutxitan gertatzen den zerbait ahalbidetu duela, hau da, tokiaren kolapsoa gertatu zen une zehatza adierazten duen «argazki finko» bat edukitzea. Kasu honetan, xehetasun handiz ikus dezakegu nolakoa zen ospitaleko biltegia.

[62] Une honetan aztertzen ari dira aztarna horiek guztiak.

peregrinos. Se les proporcionaba cama, luz y combustible. También sabemos que, en 1420, se funda una capellanía en el cercano convento de San Francisco y que en 1433 queriendo propagar su devoción establecieron la Cofradía de Nuestra Señora del Cabello[57]. Además, en una cédula de 1509, la reina Juana, afirmaba que era el mayor hospital existente en ese momento en Castilla.

Fase 3. Incendio de primer hospital, reconstrucción y urbanización de todo el entorno. Desde 1507 a 1556

Según la documentación escrita, en la navidad de 1507 se produjo un incendio que redujo a cenizas el hospital, al parecer por imprudencia de una beata de Santa Clara que allí se hospedaba[58]. Este incendio fue perfectamente constatado en la actuación arqueológica. Por todo el interior del antiguo hospital, se documentaron muchos rellenos de destrucción, formados por estratos de tierra fuertemente ennegrecidos por carbones y efecto del fuego y con gran cantidad de materiales, resultado de este violento acontecimiento (vigas, maderos y adobes quemados). La aparición de un importante conjunto cerámico en ellos permitía corroborar las fechas propuestas por las fuentes escritas. Junto a ellos se documentaron unos testimonios que se pudieran tildar como extraños para este tipo de edificación. Se trata de 3 bolaños realizados en arenisca y que se localizaban directamente depositados sobre el suelo de uso. Aunque aún se trata de una cuestión que estamos tratando con especialistas en la materia, las primeras hipótesis sugieren que podría tratarse de munición tanto de lombarda como de trabuco, un material acaso relacionable con el desmantelado castillo de Vitoria (actual iglesia de San Vicente)[59].

Mención aparte merece la localización en la habitación identificada como una bodega de decenas de vasijas cerámicas completas y un buen número de recipientes de vidrio también enteros[60]. Además, y gracias a las excepcionales circunstancias de su hallazgo[61] se han podido conservar los restos (semillas, huesos, etc.) de los productos y sustancias que allí guardaban, por lo que esperemos que en un futuro próximo podamos llegar a conocer algunos de los alimentos que consumían y por qué no, que sustancias formaban parte de los medicamentos de la época[62].

Del mismo modo que las fuentes escritas nos informan del incendio del hospital en el año 1507, también lo hacen del largo paréntesis que se produjo hasta su re-

[57] *Ibidem*, p. 21-23.

[58] *Ibidem*, p. 24

[59] Agradecemos sus apreciaciones a Jon Andoni Fernández de Larrea y Ekaitz Etxeberria.

[60] En proceso de estudio actualmente, pero que ya han servido para poder confirmar desde el registro material la cronología que las fuentes escritas establecían para la destrucción del primer hospital por un incendio en el año 1507.

[61] Cabe recordar que el desafortunado incendio que provocó la destrucción del hospital ha posibilitado algo que pocas veces ocurre en la arqueología como es contar con una «foto fija» con fecha precisa del momento en que se produjo el colapso del lugar. En este caso, lo que podemos ver con gran detalle es cómo era la despensa con la que contaba el hospital.

[62] Todos estos restos están actualmente en proceso de estudio.

arte gertatutako etenaldi luzearen berri ematen digute. Ildo horretan, iturri idatziek diote Gasteizko hiriaren eta ospitale zaharreko patrono Ayalatarren artean gutxi gorabehera 30 urte iraun zituen gatazka aldi luze baten ostean, eraikina leku berean berreraikitzeko lanak abiarazi zirela. Jada data horietarako Santiago izena hartuko zuen, Paulo III.a Aita Santuak 1536an Erromako Artxi-ospitaleari emandako titulua imitatuz. 1556an amaitu zuten ospitale berria eraikitzen, eta hurrengo urtean txiroak hara lekualdatzea onartu zen[63].

Berriz ere iturri idatziek adierazitakoa berretsi du erregistro arkeologikoak. Izan ere, egiaztatu ahal izan dugu ospitale berria zuzenean altxatu zutela lehenengo ospitaleari zegozkion hondakinen gainean. Modu horretan helburu bikoitz bat lortu zuten, nabarmen goratu baitzuten zoruaren maila. Eta hori guztiz logikoa zen, suteak lehenengo ospitalean eragindako ondorio larrien ostean behar-beharrezkoa baitzen tokia saneatzea. Bi aukera zeuzkaten horretarako. Lehenengoa zen eraikinaren barruko aldetik suteak eragindako zabor guztiak ateratzea eta hortik aurrera berreraikitzen hastea. Eta bestea zen eremu osoa berdintzea, ez bakarrik guztiz suntsituta gertatu zen ospitalearen hondakin zaharrak estaltzeko barruko aldea, baita kanpoko aldea ere. Modu horretan konpondu egingo ziren ospitalea hartzen zuen lur eremuaren orografiatik eratorritako arazoak, izan ere, ingurune desegoki batean zegoen, hezetasun arazo larriekin[64], behar bezala planifikatutako hirigintza garatzeko batere egokia ez zen aldapan.

Aurrerago hitz egiten jarraituko dugu ospitalearekin lotuta sortzen ari zen hirigintza horri buruz, baina hori baino lehen, ospitalean 1556. urtera arte burutu ziren eraberritze lanak, Olaguibelek zabalgune klasikorako lehen proiektuari begira 1782an landu zuen planoan fosilduta geratu zen itxura emango ziotenak, deskribatzen jarraituko dugu. Zalantzarik gabe, mendebalderantz handitzeko obra izan zen guztietan garrantzitsuena. Eta hori ere burura eramandako indusketa arkeologikoan egiaztatu ahal izan genuen, izan ere, bertatik bertara ikusi genuen eraikin zaharraren hego-mendebaldeko izkinari horma bat lotzen zitzaiola, gutxi gorabehera aurrekoaren lodiera bera zuela, mendebalderantz luzatzen zela eta ondorengo suntsipenek oso kaltetuta zegoela. Aurreko hormaren antzeko estekadura zuen, baina bestelakoa zen morteroa, arazorik gabe hauteman zitekeen obra berri bat zela. Azken batean, horma egitura horrek gutxienez 13 metrotan luzatzen zuen eraikin berria mendebalderantz, eta beraz, egiaztatzen zuen Olaguibelek emandako informazioa.

Era berean, iparraldetik hegoaldera egiten zuen horma egitura bat dokumentatu ahal izan genuen ospitale zaharraren hegoaldeko hormari lotuta. Eraikin berriaren barneko holtz gisa interpretatu genuen.

Bestalde, bigarren ospitale horretako erabilerarako zoru batzuk dokumentatu genituen. Itxura batean galtzada harriez eratuta zeuden, eta piezak horiek ia zuzenean egokitzen ziren aurreko faseko zaborrezko betegahabilitación. A este respecto cuentan que después de un largo periodo de unos 30 años de litigios entre la ciudad de Vitoria y los Ayala, patronos del antiguo hospital, en 1537 se reanudaron las obras de reconstrucción en el mismo lugar. Ya para estas fechas el hospital pasó a denominarse de Santiago a imitación del título que le concediera el Papa Paulo III en 1536 al Archi-hospital de Roma. El nuevo Hospital se termina en 1556 y al año siguiente se aprueba el traslado de los pobres allí[63].

Nuevamente el registro arqueológico avala lo mencionado por las fuentes. De hecho, se ha podido comprobar como el nuevo hospital va a situarse directamente sobre los restos del primero. De este modo, se logra un doble objetivo, ya que lo que se hace es elevar la cota de suelo enormemente. Algo por otro lado totalmente lógico ya que era necesario sanear el lugar después de los importantes efectos que había ocasionado el incendio en el primer hospital. Para ello tenían dos opciones. La primera era vaciar el interior del edificio de todos los escombros provocados por el fuego y desde ahí comenzar su rehabilitación. Y la segunda, nivelar toda la zona, no sólo al interior, lo que permitía tapar los antiguos restos del hospital completamente destruidos, sino también al exterior. Ello permitía solucionar los problemas derivados de la orografía del terreno en el que se ubicaba el hospital y que provocaba un entorno poco favorable y con graves problema de humedades[64], que se sumaba a un terreno en cuesta poco apto para desarrollar un urbanismo bien planificado.

De todo este urbanismo que se va creando en relación con el hospital seguiremos hablando, pero antes vamos a continuar describiendo las reformas que se fueron llevando a cabo en el hospital hasta el año 1556 y que le dieron el aspecto que quedó fosilizado en el plano de Olaguibel de 1782 del primer proyecto para el ensanche clásico. Sin duda, la más importante fue la ampliación que se efectuó del mismo hacia poniente. Lo cual también se pudo comprobar en la excavación arqueológica efectuada, ya que fue posible constatar cómo a la esquina suroeste del antiguo edificio se le adosaba un muro, más o menos, del mismo grosor del anterior y que iba hacia poniente, estando muy afectado por los arrasamientos posteriores. Su fábrica era similar al anterior, si bien tenía un mortero distinto que permitía reconocerlo sin problemas como resultado de una obra nueva. En definitiva, esta estructura muraría prolongaba el nuevo edificio, al menos, unos 13 metros hacia el oeste, corroborando la información que aportaba Olaguibel.

Asimismo, también se pudo documentar una estructura muraría con orientación norte-sur y que se adosaba al muro sur del antiguo hospital. Este muro se interpretó como un tabique interno del nuevo edificio.

Por otro lado, se documentaron algunos de los suelos de uso de este segundo hospital. Éstos parecían estar pavimentados con adoquines e iban casi directamente sobre los rellenos de escombro de la fase anterior. Tan solo se registró un nivel de escaso grosor

---

63 *Ibidem*, 24-27.or.

64 Defendatzeko lubanarroak nolabait ere arindu zitzakeen aipatutako hezetasun arazo horiek, mazelan behera etorriko ziren urak biltzeko ur biltzaile antzeko baten modura jardungo baitzukeen, baina, ikusi dugun bezala, lurrean induskatutako egitura handi hori urte batzuk lehenago betetzen hasi ziren.

63 *Ibidem*, p.24-27.

64 La presencia del foso defensivo había podido paliar en cierta forma los referidos problemas de humedades, sirviendo como una especie de gran colector que recogiera todas las aguas procedentes de la ladera, pero, como ya hemos visto, esta gran estructura excavada se había empezado a rellenar años antes.



Indusketa lanetan zehar azaldutako aztarna guztiak erakusten dituen argazkia.

Fotografía de conjunto en la que se pueden observar todos los restos aparecidos durante la excavación.

rrien gainean. Zorua ipini aurretik lurra berdintzeko balio zuen maila edo geruza mehe bat baizik ez genuen erregistratu.

Azken batean, ospitale berriak ospitale zaharretik oraindik ere aprobetxatu zitezkeen zatiak baliatuko zituen, hori bai, behar berrietara moldatuz. Ildo horretan, eraikuntza proiektu berri hori anbiziotsuagoa dela esan behar dugu, nabarmen handitu baitzen ospitalea. Une horretan 1500 m^2 inguruko azalera izango zuen eraikita. Eraikin handia izango zen, garai hartan hiriko ospitale garrantzitsuena zenari zegokion bezala, 1807an, Gasteizko irteeran, Errege Atetik irtenda, «Ollaciega» izeneko tokian, era berean Santiago Ospitalea izeneko konplexu handia eraiki zuten arte. Gaur egun, zutik eta funtzionatzen jarraitzen du ospitale horrek.

Lehen ere aurreratu dugunez, sutea gertatu ondoren ospitalea berreraikitzeko lanen aldi berean urbanizatu zuten ingurune osoa. Lur eremua berdintzeko eta hezetasun arazoak saihesteko burura eramandako berdintze lan handia aipatzen genuen. Esan beharra dago lur eremua berdintzeko xedean kanpotik ekarritako betegarria oso buztintsua zela[65] eta etxeko zabor asko zuela, batez ere zeramikak[66] eta fauna hondakinak.

Berdintze lan hori hiribildu zaharreko alde horretako hirigintza hobetzeko xedea izango zuen proiektu anbiziotsuago bat garatzeko lehenengo eta ezinbesteko urratsa zen. Gutxi gorabehera 3,40 m zabaleko kareharrizko lauza handi batzuez eraturiko kalea izango zen elementu egituratzaile nagusia. Egiaztatu ahal izan zen kale bat zela, eta ez geroago espazio hau bihurtu zen plaza edo plazatxoa[67], 1789. urteaz geroztiko planoe-

que servía para homogenizar el terreno antes de colocar el suelo.

En definitiva, el nuevo hospital sigue usando los restos del antiguo edificio que aún se podían aprovechar pero readaptándolo a las nuevas necesidades. A este respecto, parece que este nuevo proyecto constructivo es más ambicioso ya que se aumenta considerablemente su tamaño. En este momento tendría una superficie construida cercana a los 1500 m^2. Se trata de una edificación de gran tamaño acorde al que sería el hospital más importante en estos momentos de la ciudad hasta la construcción en 1807 del gran complejo también denominado Hospital de Santiago en el lugar conocido como «Ollaciega», a la salida de Vitoria por Portal del Rey, donde hoy en día aún sigue en pie y funcionando.

Con anterioridad ya avanzábamos que al mismo tiempo que se reconstruye el hospital después del incendio, se realiza la urbanización de todo el entorno. Hablábamos de la potente nivelación que se efectuaba con el objetivo de regularizar el terreno y evitar los problemas de humedades. Cabe destacar que el relleno que se aporta para ello era muy arcilloso[65] y tenía gran cantidad de basura doméstica, fundamentalmente cerámica[66] y fauna.

Esta nivelación era el primer y necesario paso de un proyecto más ambicioso con el objetivo de mejorar el urbanismo de esta zona de la antigua villa. El principal elemento vertebrador será una calle formada por grandes losas calizas de unos 3,40 m de anchura. Se pudo confirmar que era una calle y no una plaza o plazoleta como posteriormente fue este espacio[67] y así

[65] Segur aski bere ezaugarri isolatzaileak aprobetxatzeko.

[66] Multzo horretako zeramiken azterketan egindako aurrerapausoei esker datatu ahal izan dugu berdintze maila hori sutea gertatu zen eta ondoren ospitalea berreraiki zuten garaian

[67] Egiaztatu ahal izan zen kale bat zela, eta ez geroago espazio hau bihurtu zen plaza edo plazatxoa, 1812. urteaz geroztiko planoetan ikus daitekeen bezala, bide hori hegoaldetik mugatzen zuen eraikin handi baten fatxada dokumentatu ahal izan baitzen. Ez gaude eraikuntza horri buruzko informazio

[65] Seguramente para aprovechar sus cualidades aislantes.

[66] Los avances del estudio cerámico de este conjunto son los que han permitido datar esta nivelación en la misma época en la que produce el incendio y la posterior reconstrucción del hospital.

[67] Se pudo confirmar que era una calle y no una plaza o plazoleta como posteriormente fue este espacio y así aparece en los distintos planos disponibles desde 1812, porque se pudo documentar la fachada de un importante edificio que limitaba esta vía por el sur. Poca más es la información sobre esta construcción ya que

tan ikus daitekeen bezala, bide hori hegoaldetik mugatzen zuen eraikin handi baten fatxada dokumentatu ahal izan baitzen. Egitura hori, gutxi gorabehera 70 cm lodi, kareorezko mortero batez batutako harlangaitz erregularrez egina, Portal de Barrera izeneko ateari lotutako hesi gisa definituari lotzen zitzaion. Agerian utzitako tartean, gutxi gorabehera 23 m luze, ez zuen birarik egiten eta ez zuen inolako etenik, eta hori oso deigarria da, agerian uzten baitu zer-nolako tamaina izango zuen. Guretzat tamalez, Santiago Ospitalea eraiki aurretik eraitsiko zuten eraikin hori, Olaguibelen 1789ko planoan ez baita agertzen. Beraz, ezin ditugu haren oinplanoa eta neurriak ezagutu.

Bide hori hiriko funtsezko ardatza izango zen hiriaren mendebaldeko antolamenduan, izan ere, San Frantzisko komentua eta Santiago ospitalea merkatuko plazarekin eta, handik, Errementari eta Zapatari kaleetako sarrerekin lotzen baitzituen.

Eta, jada hiribildutik kanpora, mendebalderantz jarraituko zuen. Horretarako ate bat ireki zuten defendatzeko horma zaharrean. Eraberritze lan hori ongi baino hobeto erregistratu ahal izan genuen aztertutako horma ataletan, atea irekitzeko ebakia ez ezik geroago hutsune hori betetzeko erabili zuten estekadura berria ere detektatu ahal izan baikenituen, estekadura horretan kareore laranja erabili zutelarik mortero gisa.

Aitzitik, ez da erraza sarrera hori noiz sortu zuten zehaztea. Ia deus ez dakigu haren jatorrizko itxurari buruz, ez baitu ate zangoetako eta ateburuko pieza bakar bat ere kontserbatzen. Soilik atearen markoa eta geroago atea itsutu zuen hormaren eta markoaren artean osatutako betegarria kontserbatu dira, eta horiei esker, ate hori erabiltzen zen unea datatu daiteke. Bada, betegarri horretan dokumentatutako zeramika zatiek XV.-XVI. mendeetan kokatu dezakete une hori[68], edo gauza bera dena, Nuestra Señora del Cabello Ospitalearen eraikuntza gertatu zen unea eta, 1507ko sutearen ondoren, hura Santiago Ospitale gisa berreraiki zuten unea biltzen dituen arku kronologikoan. Badago horri buruzko informazio gehiago eman dezakeen beste jakingarri bat. Ateko atalasea dagoen mailaz ari gara, altuegi dago aurreneko ospitaleko zoruarekin alderatuta, baina bat dator sutea gertatu ondorengo eraberritze lanen ondorioz sortutako mailarekin. Horregatik guztiagatik, ziurrenik 1507ko sutearen ondoren eremu oso hori urbanizatu zuten unean irekiko zuten atea.

Gainera, baliteke bide horrek Donejakue Bidearen tarte bat osatu izatea[69], bertatik igaroko ziren hiribildutik pasatzen ziren erromesak, eta horietako ez gutxi artatuko zituzten ospitalean. Oso-oso garrantzitsua izan zen bide hori, eta aspaldi eraiki bazuten ere, jada plazatxo bihurtuta, Olaguibelek berak oso aintzat hartu zuen haaparece en los distintos planos disponibles desde 1789, porque se pudo documentar la fachada de un importante edificio que limitaba esta vía por el sur. Esta estructura de unos 70 cm de grosor y elaborada con mampostería regular trabada con un mortero de argamasa, se adosaba a la definida como cerca asociada con el Portal de Barrera. En su tramo descubierto, de unos 23 m, ni giraba ni tenía ningún tipo de compartimentación, lo que resulta llamativo e indica la envergadura que debió tener. Desafortunadamente para nosotros, esta edificación se debió derribar con anterioridad al Hospital de Santiago ya que en el plano de Olaguibel de 1789 no aparece, lo que impide conocer su planta y dimensiones.

Esta vía debió ser un eje urbanístico clave en la articulación de esta parte meridional de la ciudad y conectaba tanto el convento de San Francisco como el hospital de Santiago con la plaza del mercado y desde allí con las entradas a las calles Herrería y Zapatería.

También continuaría hacia poniente ya a la afueras de la ciudad. Para ello en el antiguo muro defensivo abren una puerta. Esta reforma se pudo registrar perfectamente en los paramentos estudiados, ya que se pudo detectar el corte para su apertura y el nuevo aparejo utilizado para posteriormente rellenar este hueco con el empleo de argamasa anaranjada como mortero.

No resulta sencillo, en cambio, determinar cuándo se creó este acceso. De su aspecto original apenas se sabe nada, ya que no conserva ninguna pieza de sus jambas y de su dintel. Sólo se tiene el marco y un relleno formado entre éste y el muro que posteriormente la tapió y que, en consecuencia, permite fechar el momento en que este acceso funcionaba. Pues bien, los restos cerámicos en él documentados pueden situar este momento en el siglo XV-XVI[68] o lo que es lo mismo rondando el marco cronológico en el que se produce tanto la construcción del Hospital de Nuestra Señora del Cabello como, tras su incendio en 1507, la remodelación de éste pasándo a denominarse como Hospital de Santiago. Existe otro dato que pueda aportar más información al respecto. Se trata de la cota a la que se encuentra el umbral de paso, demasiado alta para que pudiera funcionar con el suelo en fase con el primer hospital y sin embargo, a nivel del creado tras las reformas posteriores al incendio. Por todo ello, lo más plausible es que la puerta se abriera en el momento en que se reurbaniza toda la zona tras el incendio de 1507.

Además es muy posible que esta calle pudiera funcionar como Camino de Santiago[69], por el que circulaban los peregrinos que pasaban la ciudad y que en no pocos casos se acogerían en el hospital. La importancia de esta vía fue tal que incluso trascurrido un largo tiempo desde su concepción y ya transformada en plazoleta, el

---

gehiago eskaintzeko moduan, indusketaren mugek bat egiten baitzuten horma egitura horrekin. Adierazi daitekeen gauza bakarra da Portal de Barreras izeneko Ateari lotutako hesi gisa definitutako egiturari lotzen zitzaiola

[68] Aztertutako zeramikazko materialaren arabera, oso zaila da betegarri hori sortu zeneko data gehiago zehaztea.

[69] Micaela Portillak bere «Una ruta europea por Álava, a Compostela del paso de San Adrián al Ebro» liburuan jasotako pasarte batzuetan antzematen da ospitale horren xedeetako bat erromesak hartzea zela.

los límites de la excavación coincidían con esta estructura muraría. Tan sólo se puede apuntar que se adosaba a la estructura definida como la cerca asociada con el Portal de Barreras.

[68] Resulta muy complicado a tenor del material cerámico estudiado, concretar con mayor exactitud la fecha de creación de este relleno.

[69] Micaela Portilla en su libro «Una ruta europea por Álava, a Compostela del paso de San Adrián al Ebro» incluye varios pasajes en los que se intuye que una de las finalidades de este hospital era la acogida de los peregrinos.

ren lehenengo trazadura bere plaza berriaren diseinua konfiguratzeko.

Eremuko saneamendua hobetzeko kanalizazio batzuen eraikuntzak osatu zuen urbanizazio prozesua.

4. fasea. Ospitalearen amaiera eta antzokiaren eta Ugartetarren etxeen eraikuntza. 1820. urte ingurua

Iturri idatzietan ospitalean gertatutako jazoerei eta eguneroko bizipenei buruzko datu ugari badaude ere, erregistro arkeologikoan ez da bertan eraberritze lanak egin zirela adieraziko lukeen datu bakar bat ere dokumentatu. Horrexegatik, hain zuzen ere, zuzenean deskribatuko ditugu detektatutako aztarnak, jada ospitalearen amaierari eta Ugartetarren etxeen eraikuntzari dagozkienak.

Eraikuntza horretatik zimendatzeko lau harroin dokumentatu ditugu, baina horma bakar bat ere ez, ospitale zaharretako hormak berrerabili zituztelako. Izan ere, harroinetatik bi ospitalearen hegoaldeko hormari atxikita zeudela ikusi genuen, ziurrenik etapa honetan zimenduarena egingo zuten horma zaharrak indartzeko.

Etapa honetan ere lur eremuko hezetasun arazoei aurre egiten jarraitu behar izan zuten. Horretarako kanalizazio eta hustubide ugari eraiki zituzten, horiek beti daude aurreko kanalizazioak baino askoz ere gorago, eta baten batek hautsi ere egiten ditu iraganeko egiturak.

5. fasea. Ugartetarren etxeen eraispena eta komun publikoen instalazioa. XX. mendea

XX. mendearen erdialdean ospitaleen eta Ugartetarren etxeen hondakinen gainean eraikitako komun publikoei zegozkien indusketa lanetan erregistratutako aztarna modernoenak.

propio Olaguibel tuvo en cuenta su antigua trayectoria para configurar el propio diseño de su nueva plaza.

Completa este proceso de reurbanización la ejecución de una serie de canalizaciones para mejorar el saneamiento de la zona.

Fase 4. Final del hospital y construcción del teatro y las casas de los Ugarte. En torno al año 1820

Si bien en la documentación escrita hay abundante información sobre distintos hechos que acontecen en el hospital y vivencias de su día a día, en el registro arqueológico no se documenta ningún tipo de dato que indique alguna reforma en el mismo. Es por ello que directamente pasamos a describir los restos que se han detectado que ya son atribuibles al final del hospital y la construcción de las casas de los Ugarte.

De esta construcción se han documentado cuatro de sus zapatas de cimentación, pero ninguna de sus paredes, ya que reutilizaron los muros de los antiguos hospitales. De hecho, se pudo apreciar cómo dos de las zapatas se adosaban al muro sur del hospital seguramente para fortalecer los antiguos muros que en esta etapa servían como cimentación.

Durante esta etapa se tienen que seguir solventando los problemas de humedades del terreno. Para ello son numerosas las canalizaciones y caños que se documentan siempre a una cota muy superior a las anteriores y alguno de ellos, incluso rompiendo las estructuras pretéritas.

Fase 5. Derribo de la casas de los Ugarte e instalación de los sanitarios públicos. Siglo XX

Los restos más modernos registrados en la excavación pertenecían a los baños públicos construidos a mediados del siglo XX sobre los antiguos restos tanto de los hospitales como de las casas de los Ugarte.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo; I. García-Gomez

A.26.2.7. **San Migel Arkanjeluaren eliza, Artatza Forondan**

Zuzendaritza: Miguel Ángel Berjón Lobato
Finantzazioa: Artatza Forondako Administrazio Batzordea

A.26.2.7. **Iglesia de San Miguel Arcángel, en Antezana de Foronda**

Dirección: Miguel Ángel Berjón Lobato
Financiación: Junta Administrativa de Antezana de Foronda

Archaeological monitoring of the digging of some drainage trenches and the installation of damp screening outside and inside San Miguel Arcángel Church in Antezana de Foronda (Álava).

Antezanako San Migel Arkanjeluaren eliza nozitzen ari zen hezetasun arazoak konpontzeko induskatu beharreko isolamendu zanga batzuk ikuskatzeko kontrol arkeologikoa. Tenplu hori Antezanako izen bereko kaleko 22 eta 22A zenbakian dago, herrigunearen erdialdean.

Eraikinak lau aldeak ditu agerian, sarrera nagusia hego-mendebaldean du, eliz atari saredun batez eratuta dago. Eraikinak harlangaitzezkoak ditu hormak, gurutze latindarreko oinplanoa du, beso laburrekin, zortzi aldeko burualdea eta bi tarte handiz osatutako habeartea. He-

Control arqueológico de obras para la supervisión de unas zanjas de aislamiento a realizar ante las humedades que estaba soportando la iglesia de San Miguel Arcángel de Antezana. Dicho templo se encuentra ubicado en el número 22 y 22A de la calle Antezana de la localidad homónima, coincidiendo con la parte central del casco urbano.

Se trata de un edificio exento, con acceso principal en su ángulo suroccidental a través de un pórtico enrejado. Se trata de un edificio de fábrica de mampostería, con planta de cruz latina de brazos cortos, cabecera

goaldeko alboan eliz atari itxia du, erdi puntuko hiru arkuk eraturiko frontisarekin, ongi landutako harlanduz egina, burdin sarez itxia, eta erdi puntuko lau parpain arkuk eusten dioten ilargi erdiko gangaz estalia. Harlangaitzezkoa da kanpandorrea, bi gorputz ditu eta oinplano angeluzuzen alakatua, eta tenpluaren ipar-ekialdeko izkinan dago.

Eliza –itxura batean Erdi Aro ostekoa (XVI. mendea)– kontserbazio egoera txarrean zegoen XXI. mende hasieran. 2005ean teilatuaren zati bat erorita zegoen, eta horrexegatik hasi ziren teilatua zahar-berritzen. Lan horiek amaitu eta hurrengo urteetan tenplu horretan hainbat kultur jarduera egin ondoren, tokiko eragile batzuek eliza arte gune bihurtzeko proposamena egin zuten, otoitz egiteko gunearen erabilerari kalterik egin gabe. Horretarako, eta barruko hormak apaindu gabe zeudela aprobetxaturik, Xabier Egaña margolaria 2013an hasi zen eliz atariaren eta elizaren barruko hormak dekoratzen, eta 2018an amaitu zituen lanak. Motibo erlijiosoez osaturiko margolan sorta itxuratu zuen arte garaikidearen ikuspuntutik. Halere, ur iragazketa batzuk nabarmen hondatzen ari ziren margolan horiek. Horregatik, hain zuzen ere, Artatza Forondako Administrazio Batzordeak arazo hori konpontzeko obra proiektu bat sustatu zuen. Hala bada, denboran ondoz ondo etorriko ziren bi eraikuntza fasetan planifikatu zen proiektuaren gauzatzea: lehenengo fasean tenpluaren iparraldeko eta hegoaldeko hormen kanpoko oinarrietan lan egingo zen; eta bigarrenean elizaren iparraldeko, hegoaldeko eta mendebaldeko hormen eta eliz atariaren iparraldeko, ekialdeko eta mendebaldeko hormen barrualdeko oinarrietan.

Horretarako, altxatu egingo zen iparraldeko eta mendebaldeko hormen kanpoko aldean zegoen zoladura metro bete zabal eta 60 eta 90 zentimetro bitarte sakon izango zen zanga bat induskatuta. Aurreikusitako lanen arabera, altxatu egingo zen elizaren fatxadetako hormen eta eliz atariaren hormen barruko zoladura: kareharrizko lauzak eliz atarian eta zurezko oholtza elizaren barnealdean, oholak batez beste 25 eta 30 zentimetro bitarte zabal zirelarik. Jarraian 50 zentimetro sakonerako eta gainazalean irekitakoaren zabalera bereko zanga induskatuko zen.

Bi fasetan eraman genuen burura kontrol arkeologikoa –kanpoan eta barruan, hurrenez hurren–.

Kanpoko fasea

Iparraldeko zanga

Hasteko, zanga bat induskatu zen kanpoko perimetroan, zehazki tenpluaren iparraldeko fatxadaren ondoko gunean. Zanga horrek ekialdeko kalezuloan dagoen euri urak biltzeko hargune orokorrean izan zuen abiapuntua. Puntu horretatik aurrera zanga elizaren iparraldeko fatxadaren ondoan luzatu zen kanpandorreari sarrera egiten dion gorputzeraino –tenpluaren ipar-mendebaldeko angeluan dago, hezetasun iragazketarik gabeko gunean–. Ikuskapen arkeologikoan nekazaritza lurrez osaturiko betegarriak hauteman genituen, horietan ugari ziren eraikuntzarako materialak eta Erdi Aro osteko kronologiako zeramikak. Era berean, tenpluko burualdean iparraldeen dagoen hormari lotuta, elizaren eraikuntzarekin amortizatu zen harlangaitzezko egitura baten aztarnak identifikatu genituen, eta elizaren horma atal hori egitura horretan oinarritzen zela ikusi genuen.

ochavada y nave de dos grandes tramos. En su lateral meridional presenta el pórtico cerrado, con frontis de tres arcos de medio punto, de buena sillería, cerrados por rejas y se cubre por bóveda de lunetos sujeta con cuatro arcos fajones de medio punto. La torre del campanario es de mampostería, con dos cuerpos y planta rectangular achaflanada y se ubica en su esquina nororiental.

La iglesia –de aparente origen postmedieval (siglo XVI)– presentaba un grado de deterioro importante a comienzos del siglo XXI. En 2005 su cubierta aparece parcialmente desplomada, ante lo cual se acomete la reforma. Concluida esta, y tras varios años de actividades culturales asociadas al templo, varios agentes locales planificaron reconvertir la iglesia en un espacio de arte, sin perder su utilidad como espacio de culto. Para ello, y aprovechando la falta de ornamentación en las paredes interiores en 2013, el pintor Xabier Egaña comenzó a decorar el interior del pórtico y de la iglesia, concluyéndose en 2018 su trabajo. El resultado fue un programa pictórico con motivos religiosos bajo un prisma de arte contemporáneo. Sin embargo, diversas filtraciones de agua estaban provocando un notable deterioro en las pinturas. Por ello, desde la Junta Administrativa de Antezana de Foronda se promovió un proyecto de obra que diera solución a esta contingencia. Así, la ejecución del proyecto se planificó en dos fases de obra consecutivas en el tiempo: una primera, actuando sobre las bases exteriores de muros de norte y oeste del templo; y en una segunda fase, se actuaría sobre las bases interiores de muros norte, sur y oeste de la iglesia y muros norte, este y oeste del atrio.

Para dar respuesta a ello, se contemplaba la retirada del pavimento existente, con la excavación de una fosa exterior, de 1 metro de anchura y una profundidad entre 60 y 90 centímetros, a los muros norte y oeste. En la cara interior de los muros de fachadas y muros interiores de la iglesia, la actuación prevista, pasaba por el desmontaje de solado existente: losas de piedra caliza en atrio y tarima de madera en el interior de la iglesia con anchura media de entre 25 y 30 centímetros. Para posteriormente ejecutar la zanja de 50 centímetros de profundidad y anchura igual a la abierta en superficie.

El control arqueológico se desarrolló en dos fases –exterior e interior consecutivamente–.

Fase exterior

Zanja Norte

Primeramente, se procedió a realizar la excavación de una zanja perimetral exterior, localizada en el espacio contiguo a la fachada septentrional del templo. Dicha zanja arrancaba desde la acometida general de aguas pluviales presente en el callejón lateral Este. Desde ese punto, el trazado de la zanja discurrió contiguo a la fachada Norte de la iglesia hasta alcanzar el cuerpo estructural de acceso al campanario –situado en el ángulo noroccidental y libre de filtraciones de humedades–. En la supervisión arqueológica se detectan rellenos de carácter agrícola, con abundancia de material constructivo y cerámico de cronologías postmedievales. Igualmente, y coincidiendo con el contrafuerte más septentrional de la cabecera del templo, se identifican los restos de una estructura de mampostería que quedó amortizada con la edificación de la iglesia, cimentándose el muro de la mis-

Zangaren tarte horretan ez genuen beste ebidentzia arkeologiko esanguratsurik (ez testuingururik ez materialik) dokumentatu. Irekitako zanga estali eta zoladura berria jarri aurretik, tarteko elementu bat (plastikozko xafla eta ehunezko sarea) ipini genuen aipatutako harlangaitzezko egituraren kontserbazioa bermatzeko.

Mendebaldeko zanga

Zanga bat induskatu zen kanpoko perimetroan, zehazki tenpluaren mendebaldeko fatxadaren ondoko gunean. Zanga horrek kanpandorrearen ipar-ekialdeko angeluan izan zuen abiapuntua, eta eliz atariaren hego-mendebaldeko muturretik gertu dagoen euri urak biltzeko kutxatila bateraino iritsiko zen. Gune honetan hormigoizko zoladura batek hartzen zuen gainazala, eta inguruan aspaldi ez dela egindako obra batzuen ondorioz nahasita zegoen. Egiaztatu genuen tenplurako hargune elektriko batzuk sartzeko lanetan nahasi zutela alde hori. Agerian utzitako zerrendan ez genuen aztarna arkeologikorik ikusi jatorrizko posizioan.

Barruko fasea

Behin kanpoko perimetroko zangak irekitzeko eta geroago betetzeko lanak egin ondoren, barruko zangak induskatu ziren. Zanga horiek habearte nagusian –hegoaldeko, mendebaldeko eta iparraldeko hormak– eta iparraldeko alboko habeartean ireki ziren, hain zuzen ere espazio horietan dokumentatu zirelako hezetasun iragazketak horma ataletako estaldura piktorikoetan. Lan horiei heltzeko, ebaki bat egin zen bertako zurezko zoladuran (gurutzadura aldean edo iparraldeko kaperan), eta altxatu egin ziren kareharrizko lauza handiak (pieza karratuak eta angeluzuzenak) eta adreilu trinkoak. Hormen ondoan 30 zentimetro zabal eta 40 cm sakonerako zulo bat induskatu zen horma atalak aireztatzeko. Induskatutako zuloen neurriak txikiak izanik sekuentzia argi bat identifikatzea erraza izan ez bazen ere, elizaren hormaren iparraldeko kanpoko tartean detektatutako horma egituraren hondakinen barneko proiekzioa hauteman ahal izan genuen. Berretsi egin genuen tenpluko horma atal horrek eraikuntza hondakin horien gainean hartzen zuela atseden, baina ezin izan genuen zehaztu hondakin horien izaera edo antzinatasuna.

Bestalde, iparraldeko horma ataletik gertu induskatutako zanga tartean, elizaren oinetatik hurbil, bi hondakin antropologiko azaldu ziren. Gizabanako heldu biri dagozkien bi burezur dira –bata osorik eta bestea ia osorik–, zangaren trazaduran azaldutako hezurtegi edo bigarren mailako depositu batean zeuden. Ebidentzia antropologiko horiek, behin beren ezaugarriak eta azaldu ziren tokia dokumentatu ondoren, hezurtegira itzuli genituen gainerako hondakinekin batera.

Zangak induskatzeko lanak amaitu ondoren, baina zanga horiek legar drainatzaileez bete baino lehen, ehunezko sareak ipini genituen amortizatutako horma egituraren aztarnak eta hezurtegia dokumentatu genituen guneetan.

Obrako lanek zorupean izan duten eragina txikia izan denez, mugatua izan da babestutako zorupean bideratutako ebaluazio arkeologikoa. Nolanahi ere, kontuan izanik tenpluaren kronologia aurreratua (XVI. mendea), ez dago baztertzerik lehendik Erdi Aroko tenplu ma sobre él. No se documentan otras evidencias arqueológicas (ni contextuales, ni materiales) significativas en este tramo de la zanja. Previamente al rellenado de la zanja abierta y disposición del nuevo pavimento, se procede a la disposición de un elemento intermediario –lámina plástica y lámina geotextil– sobre los restos estructurales detectados, a fin de garantizar su conservación.

Zanja Oeste

Se procede a la excavación de una zanja perimetral exterior, localizada en el espacio contiguo a la fachada occidental del templo. Dicha zanja arrancaba desde el ángulo noreste de la torre-campanario hasta una arqueta para aguas pluviales ubicada en las proximidades del extremo suroeste del pórtico. Esta zona presentaba un pavimento de hormigón en superficie, evidencia de una alteración relativamente reciente de la zona por obras. Se constata dicha alteración por la inserción de tomas eléctricas al templo, y no se observan restos arqueológicos en posición primaria en el trazado expuesto.

Fase interior

Realizados los trabajos de apertura y posterior rellenado de zanjas perimetrales exteriores, se procede a la realización de las zanjas interiores. Las áreas de actuación fueron la nave principal –muros sur, oeste y norte– y nave lateral norte. En estos espacios es donde se documentaron filtraciones de humedad en revestimientos pictóricos de los paramentos. Para acometer estos trabajos se procedió a cortar el pavimento de madera existente (en la zona del crucero o capilla septentrional), de grandes losas de caliza, o de ladrillo macizo, constituido por piezas cuadradas o rectangulares. Se excavó una fosa contigua a los muros para la aireación de los paramentos, con una anchura de 30 centímetros y 40 centímetros de profundidad. Si bien no resultó sencillo identificar una secuencia clara debido a las estrechas dimensiones de las fosas excavadas, si fue posible detectar la proyección interior de los restos de la estructura muraria detectada en el tramo exterior norte del muro de la iglesia. Se confirmó que el paramento del templo descansaba o se apoyaba sobre dichos restos constructivos, aunque no fue posible determinar con precisión la naturaleza o antigüedad de los mismos.

Por otro lado, en el tramo de zanja excavado junto al paramento norte próximo a los pies de la iglesia, aparecieron dos restos antropológicos. Se trataba de dos cráneos de individuos adultos –uno completo y otro semicompleto–, procedentes de un depósito secundario, u osario, que apareció en el trazado de la zanja. Dichas evidencias antropológicas, tras ser documentadas sus características y su lugar de aparición, fueron reintegradas al osario junto con los restos que albergaba el mismo.

Finalizados los trabajos de excavación de zanjas, y previamente al rellenado final de las mismas con gravas drenantes, se dispuso sendas láminas geotextiles en las áreas donde se documentaron tanto los restos de la estructura muraria amortizada como el osario.

La escasa incidencia en el subsuelo que han tenido los trabajos de obra ha posibilitado una limitada evaluación arqueológica sobre el subsuelo protegido. No obstante, es posible teorizar que, por la cronología avanzada del templo (s. XVI), no sería descartable la existencia de un templo anterior de origen medieval. En apoyatura

bat egotea. Tesi hori indartzeko, jakina da kontzeju hau Badaiozko Anaidiaren jaurerriko lekua izan zela, eta ondoko Foronda zela herriburua. Antezana/Andetxa, era berean Arabako Antezana eta Artatza Foronda deitua, Donemiliagako Goldea agirian (1025) aipatzen diren lekuen artean azaltzen da. XIII. menderako herri handi samarra izango zen, mende horren erdialdean (1257) Jerónimo Aznarrek adierazi baitzuen Anteganatik –halaxe dago jasota agirian– 6 onuradun bidali zituztela artxidiakonoen bilkurara. XVI. mendean, eliza eraikitzen hasi zirenean, Ortiz de Zaratetarren dorre bat zegoen herrian, Infantadoko Dukearena zen.

Amaitzeko, eta kontuan izanik arkeologikoki –luzezabalean eta sakoneran– ebaluatu ahal izan den azalera mugatua, Antezanako San Migel tenpluan proiektatzen den edozein obraren aurrean azterlan arkeologiko bat egiteko derrigortasuna iradokitzen dugu.

de esta tesis, se conoce que este concejo fue lugar de señorío que pertenecía a la Hermandad de Badayoz, de la que la cercana aldea de Foronda era cabeza. Antezana/Andetxa también llamado Antezana de Álava y Antezana de Foronda aparece ya entre los lugares citados en la Reja de San Millán (1025). Para el siglo XIII debía tener un notable desarrollo ya que para mediados de esa centuria D. Jerónimo Aznar (1257) menciona que desde Antegana, –como aparece en el documento–, enviaron a una reunión del arcedianato 6 beneficiados. En el siglo XVI, momento en el que se comenzó a edificar la iglesia, existió en la localidad la torre de los Ortiz de Zárate, que pertenecía al Duque del Infantado.

Para concluir, y debido a la restringida superficie que se ha podido evaluar arqueológicamente –en extensión y profundidad–, se sugiere la obligatoriedad de realizar estudio arqueológico ante cualquier obra que se proyecte realizar en el templo de San Miguel de Antezana.

M.Á. Berjón Lobato P. Sáenz de Urturi Rodríguez

A.26.2.8. **Olarizuko Andre Maria eliza. 34. lursaila, 51. poligonoa (RC-8)**

Zuzendaritza: Miguel Loza Uriarte
Finantzazioa: Olarisun S. Coop.

A.26.2.8. **Iglesia de Nuestra Señora de Olarizu. Parcela 34, polígono 51 (RC-8)**

Dirección: Miguel Loza Uriarte
Financiación: Olarisun S.Coop.

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

51. poligonoko 34. zenbakiko lursailean etxebizitza bloke bat, garajeekin eta trastelekuekin, eraikitzeko obren gaineko kontrol arkeologikoa. Lursail hori Arabako Miñoien kalearen eta Gasteizko Ansoleta industriagunearen artean dago. Kontrol lanen emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Control arqueológico de las obras para la construcción de un bloque de viviendas con garajes y trasteros en la parcela nº 34 del polígono 51, situada entre la calle Miñones de Álava y el polígono industrial de Ansoleta de Vitoria- Gasteiz, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico- arqueológico.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.26.2.9. **San Bizente Martiria eliza, Miñaogutxin. A.3604 errepidea egokitzeko eta urbanizatzeko lanak**

Zuzendaritza: Raúl Leorza
Finantzazioa: Miñaogutxiko Administrazio Batzordea

A.26.2.9. **Iglesia de San Vicente Mártir, en Miñano Menor. Acondicionamiento y urbanización de la carretera A-3604**

Dirección: Raúl Leorza
Financiación: Junta Administrativa Miñano Menor

Archaeological intervention comprising sondages and works monitoring.

Bi fasetan banatutako esku hartze arkeologiko bat eraman da burura. Alde batetik, aurretiazko sei zundaketa egin genituen San Bizente Martiria elizaren inguruan, eta bestetik, herriaren erdialdetik igarotzen den errepidea moldatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa bideratu genuen. Elizaren inguruko zundaketetan egiaztatu dugu eremu hori oso nahasita dagoela bertan ondoz ondo egin diren urbanizazio lanen ondorioz. Urteen joanean elkarren gainean egokitu diren zerbitzuak identifikatu ditugu, era guztietako harguneak eta hainbat zangaren presentzia. 2022. urtean jarri diren zerbitzuek

Se ha llevado a cabo una intervención arqueológica en dos fases, seis sondeos previos en el entorno de la iglesia de San Vicente Mártir y control de obras de acondicionamiento de la carretera que pasa por mitad del pueblo. En los sondeos, alrededor de la iglesia, hemos podido constatar una fuerte alteración del terreno con las sucesivas urbanizaciones del mismo. Se han identificado los servicios que se han ido superponiendo a lo largo de los años y que han supuesto la presencia de varias zanjas y acometidas de todo tipo. Los servicios que se han colocado en 2022 utilizan las mismas

lehendik egindako zangak baliatu dituzte, eta beraz, eremua ez da modu esanguratsuan nahasi. Zangetatik kanpora, kaleko asfaltoa baizik ez da berritu, eta horretarako gutxienera eraman zuten hondeatze lana.

Konklusioak

San Bizente Martiria elizaren inguruko balizko arkeologia gunean ez dugu materialik ez ehorzketarik identifikatu. Argi eta garbi ikusi ahal izan dugu aurreko urteetan egindako obrek guztiz nahasi dutela eremua, eta desagerrarazi egin dituztela eraikinaren inguruan izan zitezkeen ondare arkeologikoko elementu guztiak.

zanjas que ya existían, por tanto, no se ha producido una alteración sustancial del terreno. Fuera de las zanjas, solamente se ha renovado el asfalto de calle anterior a esta obra, minimizando al máximo la excavación.

Conclusiones

No hemos identificado materiales ni enterramientos en la zona de presunción arqueológica alrededor de la iglesia de San Vicente Mártir. Hemos podido ver que las obras de años anteriores han modificado mucho el terreno, haciendo desaparecer cualquier elemento del patrimonio arqueológico en las inmediaciones del edificio.

R. Leorza

A.26.2.10. **Iter XXXIV. 408. lursaila, 52. poligonoa**

Zuzendaritza: Miguel Loza Uriarte
Finantzazioa: Aratz 2020 S.L.

A.26.2.10. **Iter XXXIV. Parcela 408, polígono 52**

Dirección: Miguel Loza Uriarte
Financiación: Aratz 2020 S.L.

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Gasteizko Larrein auzoko 52. poligonoko 408. lursailean etxebizitza bloke bat eraiki aurreko balorazioak egiteko zanga eta ondorengo obren gaineko kontrol lanak. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Zanjas de valoración previas a la construcción de un bloque de viviendas en la parcela nº 408 del polígono 52 en el barrio de Larrein de Vitoria-Gasteiz y posterior control de obras, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.26.2.11. **Mariturri, Armentian. Zabalganako 6. sektorea (31. BAG)**

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantzazioa: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza

A.26.2.11. **Mariturri, en Armentia. Sector 6 de Zabalgana (ZPA nº 31)**

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: Departamento de Educación. Gobierno Vasco

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Kontrol arkeologiko hau Gasteizko Tullica plazan eraman genuen burura Aldaialde HLHA ikastegiko modulu prefabrikatuak handitzeko bigarren faseari harira. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Control arqueológico con motivo de la segunda fase de ampliación de los módulos prefabricados del centro escolar CEIP ALDAIALDE HLHA en la plaza de Tullica de Vitoria-Gasteiz, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.26.2.12. **Mendizabala herrixka (9. zenbakiko BAG)**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Batán-Zapardiel ABEE

A.26.2.12. **Poblado de Mendizabala (ZPA nº 9)**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: UTE Batán-Zapardiel

Archaeological monitoring of the work carried out in Z.P.A. (Zone of the Presumed Archaeological Importance) num. 9 in Vitoria-Gasteiz: 'Poblado de Mendizabala'. The only finding worth highlighting was the discovery of a zone with a high concentration of pottery fragments dating from the Bronze Age, but coming from an earth filling that bears no relationship with any kind of associated structure, cut or colour stain.

«Vitoria-Gasteiz udalerrian Batan eta Zapardiel ibaien uholdeen aurka babesteko proiektuaren» araberako obrak abian jarri zirenez, kontrol arkeologiko bat egin beharra zegoen trazaduraren tarte jakin batean. Izan ere, zehazki tarte hori, Gasteizko udalerriko 9. zenbakiko Balizko Arkeologia Gunetik (Mendizabala herrixka) gertu igarotzen zen. Zehazki Maite Zuñiga kalearen hegoaldean eta Batan ibaiaren ekialdean dagoen laborantza lursail batean barrena luzatuko zen. Aztarnategi horren zati bat jada R. Marinak 2005ean zuzendu zuen indusketa arkeologiko baten xede izan zen aztarnategiaren ekialdeko etxebizitza blokeen eta Mendizabalako *aparkalekuaren* arteko lursailean. Neolitoaren eta Brontze Aroaren arteko aldi kronologikoan datatu zen. Baina, ustez, desagertuta dago lursaileko zati urbanizatuan, eta beraz, ez dakigu zehazki zer ezaugarri dituen aztarnategiak Balizko Arkeologia Gunearen hegoaldean. Alde horretan ez zen aztarnaren presentziarik ezagutzen, gainazalean ez zen material arkeologikorik hautematen, nahiz eta pentsatzekoa den mugaketa lehendik egindako miaketa lanetan oinarrituta egin zen.

Obretan, aipatutako lursailetik igarotzen zen tarteari dagokionez, laborantza lurrez osatutako gainazaleko maila altxatu zuten eta gehienez ere 80-90 cm-ko sakondu zuten, maila horretan azaleratzen baitzen buztinez eta legarrez osatutako substratu geologikoa. Lan horiek 260 m pasatxo luze eta 20 m zabal izango zen korridore nagusi bat hartu zuten, iparraldetik hegoaldera, baita zerrenda horretatik abiatuz hego-mendebaldetik ipar-ekialdera egiten zuen beste bat ere, azken hori 60 m luze bider 18 m zabal. Ondoren, hodiak sartzeko zangak induskatu zituzten.

Obra horien gaineko kontrol arkeologikoa guztiz erraztu zen laborantza lurrez osatutako gainazaleko maila altxatuta, izan ere, agerian geratu zen estratu naturala ia bere hedadura osoan, elementu antropikoak, hala nola lurrean egindako ebakiak kolore desberdineko lurrezko betegarriekin, egituren aztarnak eta beste batzuk, aurkitzeko aukerak emendatuz. Halere, trazaduraren puntu bakar batean ere ez zen horrelakorik gertatu.

Baina gainazaleko maila altxatzen hasi ziren puntutik gutxi gorabehera 40 metrora, tarte horren hegoaldean, hondeamakinak irekitako korridorearen mendebaldeko ertzetik gutxi gorabehera 3 m-ra, 8 eta 10 m^2 bitarteko gune batean, zeramikazko materialen metaketa hein batean oparo bat identifikatu genuen inguruneareKin lotuta. Eskuz landutako zeramikazko ontziei zegozkien ehun eta berrogeita hamaika zati ziren, gehien-gehienak zati txikiak eta oso higatuak, batzuek apaingarriak kontserbatu dituztela; era berean, Erdi Aroko beste bi zati identifikatu genituen, suharri puska bat eta leungailu bat izan daitekeen harri bat. Material hori zuzenean zegoen legar naturalen gainean, eta eskuz egindako garbiketa lanetan

La puesta en marcha de las obras del «Proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y Zapardiel en el Término Municipal de Vitoria-Gasteiz» supuso que en un tramo de su trazado se realizara un control arqueológico. La razón es que este tramo en concreto discurría cercano a la Zona de Presunción Arqueológica nº 9 del municipio de Vitoria-Gasteiz: «Poblado de Mendizabala». En concreto lo hacía por la finca de cultivo situada al sur de la calle Maite Zúñiga y al este del río Batán. Parte del yacimiento ya fue objeto de una excavación arqueológica, en la parcela existente entre el bloque de viviendas situado al este del yacimiento y el *parking* de Mendizabala, dirigida por R. Marina en 2005. Se dató en un periodo cronológico entre el Neolítico y la Edad del Bronce. Sin embargo, se supone su desaparición en la parte urbanizada del mismo, quedando sin conocer con exactitud las características del yacimiento al sur de la Zona de Presunción. En este lugar no había conocimiento de la existencia de restos, ni de material arqueológico en superficie, aunque se supone que la delimitación se decidió en base a anteriores prospecciones.

Las obras, en lo que al tramo que discurría por la citada finca se refiere, consistieron en la retirada de la capa superficial de tierra de cultivo hasta una profundidad de incluso 80-90 cm, en la que afloraba ya el sustrato geológico compuesto de arcillas y gravas. Estos trabajos abarcaron un pasillo principal de algo más de 260 m de longitud por 20 m de anchura en dirección N-S, más otro que partía de este en sentido SW-NE de unos 60 m de largo por 18 m de ancho. Posteriormente se procedió a la excavación de las zanjas para la introducción de las tuberías.

El control arqueológico de estas obras se vio favorecido por el desbroce que retiró el nivel superficial de tierra de cultivo, ya que quedó a la vista prácticamente en toda su extensión el estrato natural, facilitando la posibilidad de que pudieran haberse hallado elementos de origen antrópico, como cortes en el terreno con colmataciones de tierra de color diferenciado, restos de estructuras, etc. Sin embargo, en ningún punto del trazado sucedió esto.

Únicamente, a unos 40 m del lugar donde se inició el desbroce, al sur de este tramo, y a aproximadamente 3 m del cantil occidental del pasillo abierto por la excavadora, se localizó en un área de entre 8 y 10 m^2 una concentración relativamente abundante de material cerámico en relación con su entorno. Resultaron ser ciento cincuenta y un fragmentos de recipientes cerámicos elaborados a mano, por lo general de pequeño tamaño y muy rodados, algunos conservando decoraciones, hallándose también dos de cronología medieval, un trozo de sílex y un canto que pudiera tratarse de una pieza de pulimento. Este material se localizaba directamente so-

ez genuen horiekin zerikusia izan zezakeen ebakirik edo egiturarik antzeman. Gainera, elementu horiek hartzen zituen lurra ez zen gainerako lurretatik desberdintzen, ez kolorez ez ehunduraz. Kopuru horretan sartzen dira puntu horretan bideratutako garbiketa lanen ondorioz sortutako lur metaketan aurkitutako zati batzuk. Garbitutako korridore horren trazaduraren gainerakoan eta korridore horretatik ipar-ekialderantz abiatzen zen adarrean ere beiratutako eta esmaltatutako zeramikazko ontziei zegozkien zati batzuk dokumentatu genituen, baita *cream ware* ore motaz egindako ontzi zatiak ere. Baina, era berean, kronologia berriagoko beste elementu batzuk dokumentatu genituen, hala nola adreilu eta teila zatiak, kristalak eta plastikoak. Itxura guztien arabera, funtsean Burdin Aroan datatu daitekeen material arkeologikoa biltzen duen lurrezko *pakete* horrek «Mendizabala herrixka» aztarnategitik ekarritako ekarpen batean du jatorria, izan ere, alde horretan lur mugimenduak egin zituzten XX. mendeko 80. hamarkadan eta mende honen hasieran eremu osoa birgaitzeko. Gerora lursailean egin diren laborantza lanen ondorioz nahasi egingo ziren egindako lur ekarpenak.

Lursail hau ukitzen zuten bi tarteak garbitu ondoren, substratu geologikoa baizik ez zuen ukitu gerora irekitako zangak eta, hala behar izan zenean, aurretiazko zangek. Substratu hori buztin horixkek eta kolore bereko legarrek osatzen zuten, baina beheko zatian grisaxkak ziren legarrak. Garbiketa lanen emaitzak ikusirik uste zitekeen bezala, lan horiek ez zuten inolako eraginik izan ondarearen ikuspegitik, jarduera antropikoek eragin gabeko mailetan bideratu baitziren, sekuentzia estratigrafikoa oso erregularra zelarik luzera osoan. Halere, tartearen azken puntuan, iparraldeko muturrean, erabileratik kanpo zegoen zeramikazko hustubide zahar bat identifikatu genuen iparraldetik hegoaldera luzatzen zen harlangaitzezko egitura baten barruan sartuta. Ur kanalizazio zahar bat zen,orain arte ez zen ezagutzen eta ez da agertzen ez planimetrietan ez hegaldi historikoetako ortoargazkietan.

bre las gravas naturales, sin que se pudiera apreciar tras la limpieza manual que se realizó ningún tipo de corte o estructura relacionados con ellos. Incluso la tierra en la que se encontraban no se diferenciaba del resto ni en coloración ni en textura. Están sumados en esa cantidad algunos fragmentos hallados en la terrera generada por el desbroce en este punto. En el resto del trazado de este pasillo desbrozado y del ramal que partía de éste hacia el Noreste, se localizaron también algunos fragmentos de recipientes cerámicos vidriados, esmaltados y de pastas *cream ware*, aunque también objetos de cronología más reciente, como fragmentos de ladrillos y tejas, cristales y plástico. Todo parece indicar que esta *bolsada* de tierra con material arqueológico básicamente fechable en la Edad del Bronce, procedía de un aporte con origen en el yacimiento del «Poblado de Mendizabala», relacionado con los movimientos de tierra realizados en esta zona desde la década de los años 80 del siglo XX y a comienzos del presente siglo, para regenerar la zona. Las posteriores labores agrícolas llevadas a cabo en la parcela han podido hacer que los diferentes aportes de tierra se mezclaran.

Desbrozados los dos tramos que afectaban a esta finca, la apertura posterior de la zanja, y de las prezanjas en su caso, ya sólo afectaron al sustrato geológico, compuesto de arcillas de color amarillento y gravas de la misma coloración, convirtiéndose en el fondo en gravas de tonalidades grisáceas. Como era de suponer vistos los resultados del desbroce, estos trabajos no depararon ningún tipo de incidencia desde el punto de vista patrimonial, al realizarse ya sobre niveles sin alteraciones por actividades antrópicas siendo muy regular la secuencia estratigráfica en todo su desarrollo. Solo casi al final del tramo, en su extremo norte, se dio con un viejo caño de cerámica en desuso inserto en una estructura de mampostería con dirección N-S. Se trataba de una antigua conducción de agua de la que no se tenía constancia y que no aparece en planimetrías ni en ortofotografías de vuelos históricos.

F.J. Ajamil Baños; L. Elorza González de Alaiza

A.26.2.13. **Aztegietako dorretxea, 2 (75. zenbakiko BAG)**

Zuzendaritza: Miguel Ángel Berjón Lobato
Finantzazioa: Jabea; Arabako Foru Aldundia

A.26.2.13. **Casa-Torre de Asteguieta, 2 (ZPA nº 75)**

Dirección: Miguel Ángel Berjón Lobato
Financiación: Propiedad; Diputación Foral de Álava

Archaeological monitoring carried out to supervise the complete retrofit of a property located i n Asteguieta (Álava). The property in question is a protected heritage site, which was why an archaeological study was required.

Aztegieta (Gasteiz) herrixkaren erdialdean dago Zarate-Aztegietatarren Jauregia edo Dorretxea, 2. zenbakian, Jaiokundeko Ama Birjinaren elizaren hegoaldean.

Dorretxea zaharberritzeko proiektu integral bat aurkeztu zenez, azterlan arkeologiko bat planifikatu genuen hiru fasetan: lehenengoan obrako lanen gaineko ikuskapen tekniko bat bideratuko genuen, izan ere, zanga batzuk ireki behar zituzten zorupean hodiak eta sanea-

La Casa-Torre o Palacio de los Zárate-Asteguieta, se ubica en el centro de la localidad de Asteguieta (Vitoria-Gasteiz), señalada con el nº 2 y al sur de la iglesia parroquial de la Natividad de Nuestra Señora.

La existencia de un proyecto integral de reformas sobre la propiedad requirió la planificación de un estudio arqueológico en tres fases: la primera de ellas comportaba la realización de una supervisión técnica de los trabajos de obra, vinculada a la excavación en el sub-

menduak sartzeko; bigarren fasean eraikinaren ageriko elementuak aztertuko genituen; eta azkenik, jauregiari buruzko bibliografia eta dokumentu idatziak arakatuko genituen. Lortutako emaitzek, dorretxean bizi izan ziren pertsonei buruzko datuak ezagutzeko aukera ez ezik, eraikinaren eraikuntzaren ondoko bilakaera hau proposatzeko aukera eman digute.

Egituraren azterketa

Eraikina

Bertan bizitzeko eraikin multzo bat da, eta herriaren erdialdean dago, kalearen lerrokadura berean. Iparraldeko eraikin nagusiari beste eraikin osagarri batzuk lotu zitzaizkion patio txiki bat biltzen duen «U» antzeko bat eratuz. Hegoaldeko eta mendebaldeko alboetan baratzea eta lorategia daude, hurrenez hurren.

Oinplano angeluzuzena du etxeak, fatxada estua eta hondo handia, hiru solairurekin: beheko solairua, lehenengoa eta bigarrena edo ganbara, eta lau isuriko teilatua du. Fatxadetan, ekialdekoan (nagusia), iparraldekoan eta mendebaldekoan, kareharrizko harlangaitzezko lauza estuak erabili zituzten, piezak karezko juntura askorekin batuak, baina eskantzuetan lauza luzeago batzuk beste laburrago batzuekin –tamainaz ia erdiak– txandakatuta ageri dira. Hegoaldeko fatxada adreilu gorri trinkoez egina da, eta eskantzuak ere kareharrizko harlangaitzezkoak ditu, piezak tamaina askotakoak direla. Ongi asko ikus daiteke eraikinaren perimetro osoaren goiko aldeko erlaitza egiteko era berean adreilu gorri trinkoak erabili zituztela. Ezaugarri orokor gisa, baoak harlanduez inguratuta daudela ikus daiteke hegoaldeko fatxadan izan ezik; han, ongi lerrokatutako 6 ardatz bereiz zitezkeen, ardatz bakoitzean 3 bao izan zirelarik batzuk itsutu zituzten arte.

Ekialdeko fatxada, edo fatxada nagusia

Gaur egun 6 bao ditu. Fatxadaren hegoaldeko behe aldean ikusten den leiho txikia hein batean berria da, 1985. urte ondorengoa, XX. mende amaierako argazkietan ez baita horrelakorik ikusten. Kalearen mailan bao bat du erdialdean, ate buruduna da. Ateburu hori egiteko kareharri grisezko harlandu bakar bat erabili zuten, formaz angeluzuzena da, eta estua da. Atearen alboetan edo zangoetan ere harri mota bereko harlanduak ipini zituzten. Atearen bi aldeetan, bereziki ezkerrekoan, kalkarenitazko harlangaitzezkoa da egitura, piezak txikiagoak dira eta formaz biribilak, eta aski nahasita ageri da, karezko juntura gutxirekin; erraz bereizten da gainerako horma ataletatik. Lehenengo solairuan bi bao ikusten ditugu, biak kareharri grisezko harlanduez inguratuta. Bi leiho horien artean etxeko jaunen armak erakusten dituen armarri bat ipini zuten, hauexek bereizten dira: Zaratetarrak (makal bat bost hostorekin), Aztegietatarrak (hiru gurutze zitoridun) eta Hurtado de Mendozatarren bandak.

Hegoaldeko fatxada

Oso-osorik dago adreilu gorri trinkoez egina. Hainbat fasetan bideratu zituzten eraberritze lanek, funtsean bao batzuk itsutu eta itxi baitzituzten, ez dute gogobetetzeko moduko azterketa oso bat egitea erraztu. Halere, ongi asko ikus daiteke bikain antolatutako 6 ardatz nagusi dituela, eta bakoitzak hiru bao di-

suelo de zanjas para la inserción de tuberías y saneamientos; en una segunda fase, un estudio de alzados de sus elementos emergentes; y por último, un vaciado bibliográfico y documental del palacio. Los resultados obtenidos han permitido proponer la siguiente evolución constructiva del edificio y conocer datos sobre las personas que lo habitaron.

Análisis estructural

El edificio

Se trata de un conjunto edificatorio habitacional, ubicado en la zona central de la localidad, en situación alineada con la calle. Al edificio principal, por el lado norte, se le adosan varias construcciones auxiliares formando una «U» que encierra un pequeño patio. Por los laterales sur y oeste se extienden la huerta y el jardín.

La casa es de planta rectangular, con fachada estrecha y mucho fondo; con tres plantas: baja, primera y segunda o desván y cubierta a cuatro aguas. En las fachadas: este, la principal, norte y oeste, se ha empleado mampostería de lajas estrechas de caliza con fuerte rejunteado de cal, excepto en los esquinales, donde alternan lajas alargadas con otras más cortas –casi la mitad de tamaño–. La fachada sur está construida de ladrillo rojo macizo, con esquinales igualmente en mampostería de caliza de piezas de tipometría diversa. Es posible observar que para la construcción de la cornisa que remata el edificio en todo su perímetro, igualmente se ha utilizado el ladrillo rojo macizo. Como rasgo general, se advierte un predominio del muro sobre los vanos, salvo en la fachada sur, donde se podían contemplar 6 ejes bien alineados de 3 vanos cada uno, antes de que fueran cegados.

Fachada este –o principal

Presenta 6 vanos en la actualidad. El pequeño ventanuco que aparece en la parte inferior del lado sur es de factura relativamente reciente, (posterior al año 1985), basándonos en fotografías de finales del siglo XX en las que no figura. A nivel de calle aparece un vano en el centro, que corresponde a la puerta adintelada. Para el dintel se ha utilizado un único sillar de caliza gris, de forma rectangular, estrecha. En los laterales o jambas también se han dispuesto sillares regulares de la misma naturaleza. A ambos lados de la puerta, especialmente en el lateral izquierdo, el aparejo es de mampuestos de piedra calcarenita de menor tamaño y formas redondeadas, se presenta bastante alterado, y con apenas rejuntado de cal, diferenciándose del resto. Correspondientes a la primera planta se observan dos vanos con marco (o cerco) de sillares de caliza gris. Entre estas dos ventanas, se colocó un escudo con las armas de los señores de la casa: los Zárate (árbol con cinco panelas), los Asteguieta (tres cruces flordelisadas) y las bandas de los Hurtado de Mendoza.

Fachada sur

Aparece construida totalmente con ladrillo rojo macizo. Las reformas realizadas en diferentes fases, especialmente por su tapiado y cegado de vanos, no han facilitado un análisis completo y satisfactorio. Sin embargo, se puede apreciar la existencia de 6 ejes principales perfectamente ordenados, con tres huecos cada uno. entre los

tuela, horien artean beste batzuk tartekatu direlarik; mendebaldeko tartean burudunak dira baoak, leihoaren funtzioa betetzen dute; beste tartean goiko solairuetako baoak leiho burudunak dira; eta beheko solairuko baoak arku beheratuak eratutako sarrerak dira. Oinarrizko antolaera hori geroagoko faseetan aldatu zen, aldatu egin ziren formak eta neurriak, bao berri batzuk tartekatu zituzten eta, batez ere, haietako batzuk itsutu zituzten.

Mendebaldeko eta iparraldeko fatxadak

Fatxada nagusiaren antzeko ezaugarriak dituzte nola eraikuntza elementuei hala baoei dagokienez. Mendebaldekoan bost bao eta gezileiho bat bereizten dira. Beheko eta lehenengo solairuetakoak eraldatuak izan dira. Iparraldeko fatxadan, atxikitako eraikin osagarriek hein batean estalita, itsututako bi bao edo leiho bereizten dira, bana lehenengo eta bigarren solairuetan. Bestalde, ate burudun bat zuen, beheko solairutik sarrera egiten ziona han zegoen barruko patioari.

Azkenik estalkia dugu, lau isurikoa. Aspaldi ez dela berritu zuten (2004), zurezko oinarria eta teila arabiarrak elementu berriekin ordeztu zituzten, baita zorrotenak ere. Errespetatu egin zuten perimetro osoa hartzen duen adreiluzko erlaitz «oso ederra». Hiru zerrenda irtenek osatzen dute erlaitza, eta goiko eta beheko zerrendetan muturra irtenda duten adreiluak txandakakada bat osatzen duten teila arabiarren ilara bat dago tartekatuta. Mudejar estiloko apaindura da, eta A. de Begoñaren arabera, XV. mendean hasi ziren estilo hori erabiltzen, garapen handiena XVI. eta XVII. mendean bizi izan zuelarik. Erlaitz mota hori Arabako antzeko beste eraikin batzuetan ikus dezakegu, hala nola Letonako Dorrean eta Zalduondoko Lazarragatarren Jauregian.

Hormen azterketa. (Eraikuntza faseak)

Oro har, lau fase nagusi identifikatzen dira Zarate-Aztegietatarren jauregiko hormetan.

1. fasea

Eraikinaren fundazio faseari dagokio, ongi asko bereiz daiteke eraikinaren lau fatxaden kanpoko aldeetan, batez ere kareharrizko harlangaitzezko horma ataletan, hegoaldeko fatxadako eta erlaitzeko adreiluzko egituran, eta inguruetan harlanduzko piezak dituzten baoetan. Fase hau XVI. mendeko uneren batean datatuko litzateke.

2. fasea

XX. mendearen bigarren erdiko lehen urteetan zehar (60. hamarkada) egindako eraberritze lan batzuei dagokie fase hau, ondo asko identifikatzen da hegoaldeko fatxadan. Aldi honetakoak dira, alde batetik, lehenengo eta bigarren solairuetako baoak handitzeko egindako obrak, bao horiek leiho bihurtzeko, eta bestetik, hegoaldeko fatxadako arku beheratuek eraturiko sarrerako baoen funtzioaren aldaketa. Era berean, une horretan instalatu zituzten argindar eta argi hornidurarako airetiko kableak.

3. fasea

Fase honetan biltzen ditugu XX. mendearen azken urteetan egindako eraberritze lan batzuk. Obrak horiek higiezinaren ekialdeko, mendebaldeko eta hegoaldeko

que se han intercalado otros huecos. En el tramo occidental los vanos son adintelados, con función de ventanas; en el otro tramo, los de las plantas superiores corresponden a ventanas adinteladas; y los de la planta baja, son accesos de arco rebajado. Este orden básico ha sido alterado en fases posteriores, modificando su forma y dimensiones, intercalando nuevos huecos y sobretodo, tapiando varios de ellos.

Fachadas oeste y norte

Presentan características similares a la principal, tanto en los elementos constructivos como en los vanos. En la del oeste se abren cinco huecos, y una saetera. Los de la planta baja y primera han sido modificados. En la fachada norte, parcialmente oculta por los edificios auxiliares adosados a ella, se observan dos vanos o ventanas tapiadas, uno en cada planta superior. Adicionalmente, aparece una puerta adintelada que daba acceso desde la planta baja al patio interior allí existente.

Por último, la cubierta, dispuesta a cuatro aguas, fue recientemente restaurada (año 2004), sustituyendo la base de madera y las tejas curvas por elementos nuevos, al igual que los canalones. Se ha respetado la cornisa de ladrillo de «gran belleza» que culmina todo el perímetro. Consta de tres bandas en saledizo en las que se han alternado ladrillos con puntas salientes en las hiladas superior e inferior. Entre ellas se ha intercalado una línea de tejas curvas formando una hilera ondulada. Se trata de una ornamentación de estilo mudéjar, cuyo uso se inicio en el siglo XV, según A. de Begoña, y tuvo su mayor desarrollo en los siglos XVI y XVII. Este tipo de cornisas también aparece en edificios similares de Álava, como es el caso de la Torre de Letona o el Palacio de los Lazarraga en Zalduondo.

Estudio de alzados. (Fases de construcción)

Con carácter genérico se identifican 4 fases principales en los paramentos del Palacio de los Zárate-Asteguieta

Fase 1

Correspondiente a la fase fundacional del edificio y ampliamente reconocible en las 4 fachadas exteriores del edificio. Reconocible por las fábicas de mampostería en caliza, el aparejo de ladrillo en la fachada Sur y cornisa, y los vanos con piezas de sillería tallada en sus marcos. Su datación se encontraría en algún momento del siglo XVI.

Fase 2

Se atribuye a una fase de reformas realizadas durante los primeros estadios de la segunda mitad del siglo XX (años 60). Muy identificable en la fachada Sur. A este período pertenecen las obras de, en algunos casos ampliación de los vanos para ventanas de la primera y segunda planta, así como la reformulación funcional de los vanos de acceso con arcos rebajados en la fachada meridional. De igual manera, en este momento se incorpora el cableado aéreo para el suministro eléctrico y alumbrado.

Fase 3

Se atribuye a una fase de reformas realizadas durante los últimos estadios del siglo XX. Estas actuaciones son reconocibles en las fachadas E, W y S del inmueble. En

fatxadetan ikus daitezke. Berritze lan horietan, aluminiozko edo metalezko elementu batzuek ordeztu zituzten zurezko elementuak, batez ere leihoetan eta ateetan. Bestalde, bao berri batzuk ireki zituzten leiho gisa (batez ere hegoaldeko, ekialdeko eta mendebaldeko fatxadetako beheko solairuetan). Gainera, eraikinaren zati batzuk zarpiatu edo morteroz estali zituzten.

4. fasea

Honakoa da azken berritze fasea, osorik berritu zuten eraikineko teilatua. Fase hau 2004. urtean kokatu behar dugu.

Obrako lanen gaineko kontrol arkeologikoa

Barrualdean irekitako zanga

Obra proiektuaren arabera kanalizazio sare txiki bat sartuko zen eraikineko zorupean. Komunak beheko solairuaren ipar-mendebaldeko erdian zeudenez, iparraldetik hegoaldera adar bat induskatzeko beharra planteatu zen. Adar hori kanalizazio nagusiarekin lotuko zen, eta azken hori zeiharrean luzatzen zen hego-mendebaldetik ipar-ekialdera, higiezinaren iparraldeko atetik irteteko orube barruko patioan dagoen kutxatila bateraino.

Saneamendu hodia sartzeko iparraldetik hegoaldera ireki beharreko zanga txikia (30 zentimetro zabal eta 30 zentimetro sakon) egiteko lanetan altxatu egin ziren zoladura eta zorua berdintzeko betegarriaren zati bat. Azpian zoladura aztarna interesgarri batzuk geratu ziren agerian, ziur aski eraikineko aurreneko eraikuntza faseari dagozkio. Zanga horren luzeraren erdialdean, prisma formako adreilu gorri trinko txikiez osatutako zoladura bat identifikatu genuen, apainketa eredu jakin baten arabera zegoen antolatuta.

Zanga nagusiaren (hego-mendebaldetik ipar-ekialdera) erdiko tartean beste zoladura baten hondakinak geratu ziren agerian, zoladura hori adreilu gorri eta trinkozko pieza karratuez osatua zegoela. Kasu honetan antolaera eredu sinple bat aukeratu zuten, piezak zeiharrean lerrokatu zituzten eraikinaren ardatz nagusiarekiko.

Adreilu gorriko zoladura horretatik hurbil, sarrera nagusiaren gunearekin bat, harri handiez eratutako zoladura bat dokumentatu genuen, eta barruko patiora iristeko ate ondoan, antzeko ezaugarriak zituen beste zoladura baten aztarnak, lauza handi batez estaliriko horma egitura bat inguratuz: guk uste dugu amortizatutako putzu itsu baten egitura dela. Barrualdea gainalderaino zegoen ehundura hareatsuko betegarri batez beteta, trinkotasun txikirekin.

Azkenik, saneamendu nagusiko adar horretarako zangak sarrera zeharkatu zuen barruko patiorantz, eta beraz, aukera eman zuen eraikinaren iparraldeko fatxadako zimendua aztertzeko. Tamaina irregularreko harrizko harlangaitzezko horma bat da, gutxi gorabehera 1 metro lodi, eta harrizko piezak kareore horiz batuta daude. Zangak iritsitako punturik sakonenean depositu bat agertu zen, lur beltzaxkez osatua, trinkotasun maila ertainarekin, eta depositu horretan zeramikazko zati barreiaturen bat identifikatu genuen, itxura batean Behe Erdi Arokoa.

estas obras de reforma se observa la sustitución de elementos de carpintería de madera por otros en aluminio o metal, principalmente en ventanas y puertas. Por otro lado, se abren nuevos vanos para ventanas (principalmente en las plantas bajas de las fachadas sur, este y oeste) Adicionalmente, se añade revoco o morteros en algunas partes del edificio.

Fase 4

Última fase de reforma, identificable por la completa sustitución de la cubierta del edificio. Esta fase tiene lugar en el año 2004.

Control arqueológico de los trabajos de obra

Apertura de zanja en el interior

El proyecto de obra planteaba la inserción de una pequeña red de canalizaciones en el subsuelo del edificio. La localización de los sanitarios en la mitad noroccidental de la planta baja planteó la necesidad de excavar un ramal N – S. Este debía conectar con un ramal principal, cuyo trazado discurriría de forma oblicua desde el SW al NE, para salir por el acceso septentrional del inmueble hasta una arqueta ubicada en el patio interior de la propiedad.

La apertura de la pequeña zanja N-S para la tubería de saneamiento, (de 30 centímetros de anchura x 30 centímetros de profundidad) retiró el pavimento existente y parte del relleno de nivelación general del mismo. Bajo el, se descubrieron interesantes restos pavimentales, probablemente correspondientes a la primera fase constructiva del edificio. En la zona central del trazado de esta zanja apareció un pavimento formado por pequeños elementos prismáticos de ladrillo rojo macizo, siguiendo un patrón ornamental.

El tramo central de la zanja principal (con trazado SW-NE) sacó a la luz los restos de otro pavimento de piezas cuadradas de ladrillo rojo macizo. En este caso, se había optado por un patrón sencillo de disposición, con las piezas alineadas en sentido oblicuo al eje principal del edificio.

En las proximidades de este pavimento de ladrillo rojo, y coincidiendo con la zona del acceso principal se descubrió un pavimento encachado de grandes piedras, y junto a la puerta de acceso al patio interior, restos de un pavimento de características similares rodeando una estructura muraría cubierta con una gran losa, que se ha identificado como una posible estructura de pozo ciego amortizada. Su interior se hallaba colmatado hasta la superficie con relleno de textura arenosa de compactación baja.

Por último, esta zanja para el ramal principal de saneamiento cruzó por el acceso hacia el patio interior, permitiendo analizar la cimentación de la fachada septentrional del edificio. Se trata de un muro de mampuestos de piedra de tamaño irregular trabado con argamasa amarillenta con una anchura aproximada de 1 metro. En el punto más profundo alcanzado por la zanja, se apreció la existencia de un depósito, con tierra negruzca de compactación media, y en el que se detectó la presencia de algún fragmento disperso de cerámica de aparente factura bajo medieval.

Kanpoaldean irekitako zanga

Euri uren drainatzea hobetzeko, zanga bat induskatu zuten eraikinaren kanpoko perimetroan, zehazki mendebaldeko eta hegoaldeko fatxaden ondoan luzatuko zen. Zanga horretan –40 zentimetro zabal eta 30-45 zentimetro bitarte sakon– nekazaritza lurrez osatutako betegarriak geratu ziren agerian, eta horietan ugari ziren eraikuntzarako materialen hondakinak eta kronologia garaikideko (XX. mendea) material zatiak.

Zarate-Aztegietatarren Jauregiari buruzko iruzkin historikoak

Azterlan arkeologiko honen eta bereziki eraikin honen testuingurua aztertzeko, M. Portillaren eta A. de Begoñaren[70] azterlanak kontsultatu ditugu, hainbat iturri idatzi berrikusteaz gain[71]. Zalantzak daude Aztegietan egiazki dorretxe bat egon ote zen eta haren jatorria zein izan ote zitekeen. Edo, agian, etxe-jauregi gisa kalifikatu behar da, edo landa eremuko jauretxe gisa, A. de Begoñak dioen bezala. Aztegietan dorre edo etxe gotortu bat zegoelako aurreneko albistea M. Portillak eskaintzen digu «*Relación del apellido y linaje de Esquibel*» zerrendan oinarrituta, bertan «Aztegietatarren leinuaren etxeak eta dorrea» aipatzen baitira, eta hauxe gaineratzen da: «*donde, a principios del siglo XV, casó DON RODRIGO GONZÁLEZ DE ESQUIBEL con DOÑA MAGDALENA SANCHEZ DE ASTEGUIETA*».

Arazo horri lotuta, dokumentuen azterketa eta txostena osatzeko dauden honetan, eta kontuan izanik esku hartzea, zorupearen mailan bederen, kontrol lan batera mugatu dela, ondorio sorta bat aurreratu dezakegu. Aztegietako etxe honen jatorria garai bateko dorre batean egoteko aukera bermatu dezakete mendebaldeko fatxadan dagoen gezileiho edo saietera txiki baten presentziak eta ustezko beste kanoi zulo batzuek. Elementu horiek defendatzekoak dira, baina geroagoko etapetan ere halakoak ireki zituzten.

Dorretxe bat izan zen ala ez alde batera utzita, Aztegietan ongi egiaztatuta dago Zaratetarren eta Aztegietatarren presentzia, etxe garrantzitsu bat zuten. Horien armak etxeko armarrian eta Jaiokundeko elizaren kaperan daude irudikatuta. Toki horretan fundatu zuten Patronatua Zaratetarrek eta Aztegietatarrek, zehazki Fernando de Zarate y Martínez de Salvatierrak eta Francisca de Chavarrik[72].

Sakramentu liburuetan –bataioak eta ezkontzak–[73] Zarate eta Aztegieta abizenak agertzen dira 1580tik aurrera; eta Badaiozko Anaidiko Ordaintzaileen 1570eko

Apertura de zanja en el exterior

Para mejorar el drenaje de aguas pluviales, se excavó una zanja perimetral exterior al edificio, que discurrió contigua a las fachadas occidental y meridional del mismo. Esta zanja –con una anchura de 40 centímetros y una profundidad variable de 30 – 45 centímetros– sacó a la luz rellenos de formación agrícola, con abundantes restos de material constructivo y fragmentos de materiales de cronología contemporánea (siglo XX).

Apuntes históricos sobre el Palacio de los Zárate-Asteguieta

Para efectuar la contextualización histórica de este estudio arqueológico, y de esta casa por ser su objeto de análisis, se han consultado estudios de M. Portilla y A. de Begoña[70], así como la revisión de diversas fuentes documentales[71]. Existen dudas sobre sí efectivamente existió una casa-torre en Asteguieta, y cuál pudiera ser el origen de ésta. O este edificio debe calificarse como una casa – palacio o como una casa señorial rural, como la considera A. de Begoña. La primera noticia sobre una torre o casa fuerte en Asteguieta nos la proporciona M. Portilla, basándose en la «*Relación del apellido y linaje de Esquibel*» donde se menciona la existencia de «casas y torre solariega del linaje de Asteguieta», y, añade «*donde, a principios del siglo XV, casó DON RODRIGO GONZÁLEZ DE ESQUIBEL con DOÑA MAGDALENA SANCHEZ DE ASTEGUIETA*».

En relación con esta problemática, a la espera de completar la revisión documental y la memoria, y teniendo en cuenta que la intervención arqueológica, a nivel de subsuelo se ha limitado a un control, se pueden avanzar una serie de conclusiones. La posibilidad de que esta casa de Asteguieta tuviera su origen en una primitiva torre, podría estar avalada por la presencia de una pequeña aspillera, saetera en la fachada occidental, así como otras posibles troneras, elementos que se consideran de carácter defensivo, pero que también se abren en etapas posteriores.

Al margen de que pudiera tratarse de una casa-torre o no, en Asteguieta está bien constatada la presencia de los Zárate y Asteguieta como poseedores de una casa importante. Sus armas están representadas tanto en el escudo de la casa, como en el de la capilla de la iglesia de La Natividad. En este lugar, en 1589, fundaron Patronato los Zárate y Asteguieta, concretamente, Don Fernando de Zárate y Martínez de Salvatierra y Doña Francisca de Chavarri[72].

En los libros sacramentales –bautismo y matrimonio–[73],a partir de 1580 figuran los apellidos: Zárate, As-

---

[70] Begoña Azcarraga, A. de. *Arquitectura doméstica en la Llanada de Álava. Siglos XVI, XVII y XVIII.* Gasteiz 1986, 158-159 eta 460-461. or.

- Portilla Vitoria, M. J. *Torres y casas fuertes en Álava.* Gasteiz, 1978, 1. lib., 313. or.

[71] Aztegietako Jaiokundeko parrokiako Sakramentu Liburuak kontsultatu ditugu Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoan.

[72] Enciso Viana, E., Portilla, M. J. eta Eguía, J. *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria. T. IV: La Llanada Alavesa.* Gasteiz, 1975, 290-294. or.

[73] Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Aztegietako parrokia eliza. Muturreko datak: 1578-1885.

[70] Begoña Azcarraga, A. de. *Arquitectura doméstica en la Llanada de Álava. Siglos XVI, XVII y XVIII.* Vitoria 1986, p.158-159 y 460-461.

- Portilla Vitoria, M. J. *Torres y casas fuertes en Álava.* Vitoria, 1978, vol 1, p. 313.

[71] Se han consultado los Libros Sacramentales de la parroquia de la Natividad de Asteguieta, depositados en el Archivo Diocesano de Vitoria.

[72] Enciso Viana, E., Portilla, M. J. y Eguía, J. *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria. T. IV: La Llanada Alavesa.* Vitoria, 1975, p. 290-294.

[73] Archivo de la Diócesis de Vitoria (Vitoria). Archivo Parroquial

Erroldan[74] Aztegietako honako biztanle hauek agertzen dira lekuko gisa izendatuak: Hernando de Zárate eta Bartolome de Esquivel, segur aski etxe-jauregi honetako egoiliarrak izango zirenak.

Amaitzeko, eta kontuan izanik ageriko egituren azterketak eta kontrol arkeologikoak ez dutela ondare elementu honen azterketa osoa ahalbidetu, beste azterlan arkeologiko batzuk egitea gomendatzen dugu etorkizunean orubean egin daitezkeen esku hartzeen aurrean.

teguieta; y en un Censo de Pagadores de la Hermandad de Badayoz de 1570[74] son nombrados como testigos los habitantes de Asteguieta: Hernando de Zárate y Bartolome de Esquivel, seguramente habitantes de esta casa-palacio.

Para concluir, y a la luz de que el control arqueológico y el estudio de estructuras emergentes no han posibilitado un análisis completo de este elemento patrimonial, se aconsejan nuevos estudios arqueológicos ante futuras intervenciones en el solar.

M.Á. Berjón Lobato; P. Sáenz de Urturi Rodríguez

A.27. ZAMBRANA

A.27.1. Ozioko gaztelua

Zuzendaritza: J. L. Solaun Bustinza
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Arabako Foru Aldundia; Zambranako Udala

A.27.1. Castillo de Ocio

Dirección: J.L. Solaun Bustinza
Financiación: Gobierno Vasco; Diputación Foral de Álava; Ayuntamiento de Zambrana

This text outlines the archaeological intervention carried out in 2022 in Ocio Castle, within the emergency consolidation project. During the work, the remains were found of several structures pertaining to the upper enclosure of the fort, enabling experts to gain a clear idea of how this space was organised.

Ozioko gaztelua hiru maila edo barruti desberdinetan antolatzen da, behean dago bata, tartean bestea eta goian hirugarrena, eta horixe izan da esku hartze honen xedea. Beheko maila ekialdeko saihetsean dago, eta gainerakoa ez bezala, harrizko substratuaren berezko irregulartasunetara moldatzen da zatirik handienean, lerro zuzenen trazadura ahalbidetzen du, eta barruko aldera tamaina handiko azalera baten sorrera, ekialdeko hormari atxikitako hainbat eraikin hartzeko modukoa. Ipar-ekialdeko muturrean ate bat dago, gaur egun zaharberrituta dagoena, eta itxura batean arku zorrotz bat marrazten zuen.

Barruti horrek tarteko bigarren mailari ematen dio bidea, ekialdeko eta hegoaldeko saihetsetako harrizko estratura egokitutako horma batek ixten du tarteko maila hori. Kubo aurreratu batzuez inguratuta dago, eta ekialdean beste ate bat dago, atalaseraino erabat hondatuta dagoena.

Bere aldetik, goiko barrutiak hartzen ditu gazteluko egitura nagusiak: dorre bat, erantsitako eraikin bat eta uraska. Iparraldeko eta hegoaldeko harresiek babestuta dago goiko barruti hau, eta harresi horiek terrazaren ertzean azaleratzen den harrizko estratura moldatzen eta haren gainean hartzen dute atseden. Ipar-ekialdean nabarmendu egiten da beste eraikin aurreratu bat, zaintza postu gisa funtzionatuko zuena barruti honetan sartzeko bi ateak babestuz. Lehenengo atea eraikin horren mendebaldeko muturrean egokitzen da, zuzenean kanpora ematen duen ate txiki bat da. Bigarrena, ate nagusia, ekialdean dago, eta tarteko barrutia eta goikoa lotzen ditu.

El castillo de Ocio se organiza en tres niveles o recintos diferentes, uno inferior, uno intermedio y otro superior, objeto de esta intervención. El nivel inferior se sitúa en el costado oriental y, a diferencia del resto, su trazado no se adapta mayoritariamente a las irregularidades propias del sustrato rocoso, permitiendo un trazado de líneas rectas y la creación de una superficie interior de considerables dimensiones, capaz de albergar varios edificios adosados a la muralla oriental. En el extremo noreste se abre una puerta, actualmente restaurada, que parece marcar un arco de tipología apuntada.

Este recinto da paso a un segundo nivel intermedio, cerrado por una muralla adaptada al estrato rocoso por su costado oriental y meridional. Se encuentra jalonado por varios cubos avanzados y en su lateral oriental se abre otra puerta de acceso, completamente arruinada hasta el umbral.

Por su parte, el recinto superior acoge las principales estructuras del castillo: una torre, un edificio anexo y un aljibe. Se encuentra protegido por sendas murallas al norte y sur que se asientan y adaptan al estrato rocoso que aflora al borde del aterrazamiento. Al noreste destaca la presencia de otro edificio avanzado que debió funcionar como cuerpo de guardia, protegiendo las dos puertas de acceso a este recinto. La primera se abre en el extremo occidental de este edificio y se trata de un portillo de salida directa al exterior; la segunda (principal) se localiza al este y comunica el recinto intermedio con el superior.

---

[74] Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegiko dokumentua (ALHA-PAHF-DH-240:-43).

de Asteguieta. Fechas extremas 1578-1885.

[74] Documento del Archivo del Territorio Histórico de Álava (ATHA-FHPA-DH-240-I-43).

Lortutako emaitzen laburpena

Gazteluan burututako lan arkeologikoak gotorlekuaren goiko barrutian bideratu nahi zen premiazko finkatze proiektuaren testuinguruan egin ziren, zehazki ekialdeko sarrerako atean eta harresian. Obra horiek kontrol arkeologiko baten xede izan ziren, eta kontrol lan horietan jarraian deskribatuko ditugun egitura batzuk hauteman genituen.

Goiko barrutira iristeko ekialdeko atea

Multzo gotortuan hobekien kontserbatu den atea da. Egituraren zati handi bat kontserbatzen du, abandonu/suntsipen betegarriek partzialki estaltzen bazuten ere. Orri bakarreko ate zabukaria zen, eta hagak edo markoak babesten zituzten harrizko hozkadurak zituen alboetan. Barruko aldetik 1,8 m-ko pasabidea zuen, eta kanpoko aldetik 1,43 m-koa. Beheko muturretan arpilatutako egitura motaren bat ahokatzeko bi hutsune zituen, agian ate orpoak sartzekoak ziren. Ateak, kanpoko aldera, zokalo edo harrizko tope luze batekin egiten zuen talka, eta barruko zurezko atalagarekin batera atea ixtea ahalbidetzen zuen. Atalagak edo burdinazko hagak lotzeko hutsunea eta itxiturakoa kontserbatzen zituen, zoruaren mailatik gora ia metro betera egokitzen ziren. Atearen goiko aldean ateburu zuzen baten arrastoa nabaritzen da, zurezko bost habe etzanetan hartzen zuen bermea, eta atearen baoak 2,5 m-ko altuera zuela esan behar dugu. Lur hareatsu batez osatutako betegarriak eta zizelkatutako arroka naturalak eratzen zuten zorua.

Goiko harresiaren iparraldeko tartea

Garbiketa lanei esker agerian geratu ziren goiko harresiaren iparraldeko tartearen ia hiru metro zuzen, baina soilik bi errenkada kontserbatzen zituen altueran. Kareharrizko harlangaitzezko egitura zuen, piezak oso handiak eta errenkada erregularretan ipiniak.

Síntesis de los resultados alcanzados

Los trabajos arqueológicos efectuados en el castillo fueron realizados en el contexto del proyecto de consolidación de urgencia que se pretendía ejecutar en el recinto superior de la fortaleza, concretamente en la muralla y puerta de acceso oriental. Estas obras fueron objeto de un control arqueológico que detectó diversas estructuras que pasamos a describir.

La puerta oriental al recinto superior

Se trata de la puerta mejor conservada del conjunto fortificado, manteniendo buena parte de su fábrica, si bien se encontraba parcialmente oculta por rellenos de abandono/destrucción. Consistía en una puerta abatible de una hoja, con mochetas de piedra laterales que protegían los largueros o marcos, presentando unas dimensiones de paso de 1,8 m al interior y 1,43 m al exterior. En los extremos inferiores poseía sendos huecos para encajar algún tipo de estructura expoliada, quizás los quicios. La puerta golpeaba al exterior contra un rodapié o tope de piedra corrido que, junto a una tranca interior de madera, posibilitaba el cierre de la puerta. El tranco o alamud conservaba tanto el hueco de recogida como el de cierre, situados a casi un metro de altura del suelo. En la parte superior mostraba también la impronta de un dintel recto apeado en cinco durmientes de madera, permitiendo deducir una altura de 2,5 m. El suelo se encontraba formado por un relleno arenoso de tierra, así como por la propia roca natural tallada.

El tramo norte de la muralla superior

Las labores de limpieza permitieron poner al descubierto cerca de tres metros lineales del tramo norte de la muralla superior, la cual apenas conservaba dos hiladas de altura. Presentaba un aparejo de mampostería caliza de gran tamaño, dispuesta en hiladas regulares.



Aztertutako eremuaren ikuspegi orokorra eta erregistratutako egitura batzuk.

Vista general del área intervenida, con algunas de las estructuras registradas.

Bide sigi-sagatsua

Atearen ezkerraldearen parean, harresiz barnera, arrokan egindako zizelkatze lan bat erregistratu genuen, gutxi gorabehera metro bete zabal zen, eta harrizko malkarrean gora sigi-saga luzatzen zen goiko harresiraino. Harresi horretan irekitzen zen ustezko ate batera iristeko bide edo xendra gisa interpretatu da.

Egitura aurreratua

Atxikiriko eraikinaren iparraldeko fatxadaren aurrean 3,8 m zabal bider 4,6 m luze den eta 1,2 m-ko altuera kontserbatu duen egitura bat erregistratu dugu. Errenkada erregularretan egokitutako kareharrizko harlangaitz handiekin jasoa da. Argi eta garbi nahasita badago ere[75], eta esku hartze arkeologiko baten xede izan ez bada ere, agian defentsa aurreratu bat izan zela esan behar dugu, dorreari erantsitako eraikineko sarrera nagusia babestuko zuena barbakana baten modura.

Eustorma

Egitura aurreratuaren ekialdeko saihetsari itsatsita beste eustorma bat dokumentatu dugu, 7,5 m luze da. Kalitate tekniko apaleko estekadura du ezaugarri: alde nagusia da harlangaitzezko bloke handiak lehorrean jarrita daudela, kareore mota bakar batek ere ez dituela piezak batzen. Ezaugarri horiek eta gazteluko abandonu/suntsipen betegarriekiko duen geroagoko lotura estratigrafikoak aukera ematen dute oso egitura berantiarra dela pentsatzeko.

El camino en zigzag

Frente al lateral izquierdo de la puerta, intramuros, se registró un retalle liso en la roca, de aproximadamente un metro de anchura, que ascendía por el escarpe rocoso en zigzag hacia la muralla superior. Se ha interpretado como un camino o senda de acceso a un posible portillo que se abría en esta muralla.

La estructura avanzada

Frente a la fachada norte del edificio anexo se registra una estructura de 3,8 m de anchura por 4,6 m de longitud y 1,2 m de altura conservada, levantada con grandes mampuestos calizos dispuestos en hiladas regulares. Aunque se halla notablemente alterada[75] y no ha sido objeto de intervención arqueológica, quizás pueda identificarse con una defensa adelantada que, a modo de barbacana, protegía el acceso principal al edificio anexo.

El muro de aterrazamiento

Adosado al lateral izquierdo de la estructura avanzada se documenta un nuevo muro de aterrazamiento, de 7,5 m de longitud, caracterizado por un aparejo de escasa calidad técnica, cuya principal diferencia es la colocación a hueso de grandes bloques de mampostería, sin ningún tipo de argamasa. Estos rasgos, unidos a su relación estratigráfica de posterioridad respecto al relleno de abandono/destrucción del castillo, permiten presumir que se trata de una estructura muy tardía.

J.L. Solaun Bustinza

A.27.2. **Zabalateko Monumentu Multzoa**

Zuzendaritza: J. L. Solaun Bustinza
Finantzazioa: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eusko Jaurlaritza; Zambranako Udala

A.27.2. **Conjunto monumental de Portilla**

Dirección: J.L. Solaun Bustinza
Financiación: Departamento de Cultura y Política Lingüística. Gobierno Vasco; Ayuntamiento de Zambrana

This text outlines the archaeological intervention carried out in 2022 in the Portilla Complex, as part of a research project aimed at recovering and preparing the site for public visitation. During the intervention, remains of the city's main street were identified, as well as a new dwelling. This has enabled experts to gain a clearer picture of the medieval urban layout and has made a positive contribution to the efforts currently being made to present the site to the public.

Portilla edo Zabalate historiaurrean okupatzen hasi baziren ere, jarduera garrantzitsua erregistratzen baita II. Burdin Aroan, leku hori berriz ere okupatu zuten milagarren urte inguruan. Inolako zalantzarik gabe, okupazio fase horixe da hobekien kontserbatu eta ezagutzen dena; izan ere, aurkintzan urbanizazio konplexu bat erregistratzen da, hiri txiki baten fisionomia hartzera iritsi baitzen. Hirigintzari dagokionez, 2016. eta 2020. urteetan egindako indusketa kanpainek aukera eman zuten hiri sarean biltzen ziren bi terrazari zegozkien 700 m²-tik gorako azalera agerian uzteko, baina horiek behar bezala ulertzeko eta balioa emateko osorik induskatu behar zen, ezinbestean, beheko terraza. Horrexegatik, 2022. urtean zehar, 200 m² inguruko espazio batean jardun genuen, eta le-

Aunque el inicio de la ocupación en Portilla se remonta a época prehistórica, registrándose una importante actividad fechada en la II Edad del Hierro, el lugar será reocupado en torno al año Mil. Esta nueva fase de ocupación es, sin duda, la mejor conservada y conocida de todas, registrándose una compleja reurbanización del enclave, hasta el punto de adquirir la fisionomía de una pequeña ciudad. En lo que respecta a su caserío, las campañas de excavación efectuadas entre los años 2016 y 2020 permitieron exhumar más de 700 m² correspondientes a dos de las terrazas que integraban la trama urbana, si bien su comprensión y puesta en valor pasaba inevitablemente por la excavación completa de la terraza inferior. Por ello, durante el año 2022 se intervino un es-

[75] Mendebaldean galduta dago, eta ekialdean duen egiturak, ezponda baten modura, ezkutatu egin du haren estekadura.

[75] Al oeste se encuentra perdida y al este posee una estructura que, a modo de terraplén, ha ocultado su fábrica.

hendik aztertutako azalerari gehituz gero guztira 900 m^2 arakatuko genituen; azalera horrek hirigintza hura berreskuratzea eta behar bezala ulertzea ahalbidetu zuen. Datozen orrialdeetan 2022ko kanpainan zehar sortutako ekarpen berriak deskribatzen saiatuko gara.

Ekarpen berriak Erdi Aroko hirigintzari

Kale nagusia

2016. eta 2019. urteetako indusketa lanetan zehar aldapan egokitutako kale baten aztarnak identifikatu ziren, beheko harresiko atetik abiatuta gora egiten zuen herrixkaren goiko alderaino. 2022an bideratutako esku hartzean ere kale aldapatsu hori erregistratu dugu, eta hiriko arteria nagusia zela egiaztatu ahal izan dugu. Kale nagusi horrek, lau eta bost metro bitarte zabal, proportzio bertsuko bi erditan zatitzen zuen hiriko planoa bere garrantzia agerian utzirik, eta harresiko bi ate nagusiak lotzen zituen, eta hedaduraz, hiribildura iristeko bi bide nagusiak. Lehenengoa ekialdean zegoen, beheko aldean, Nafarroako mendialdetik iristen zen bidea zen. Bestea goiko aldean zegoen, mendebaldeko ate ondoan, eta Jugalez ibaiaren eta Ihuda ibaiaren haranak lotzen zituen Ozio, Portilla edo Zabalate eta Berantevilla alderik alde igarota.

Bidea eraikitzeko teknikari dagokionez, batez ere tamaina ertaineko lauzez osatutako zoladura zen, piezak morfologia irregularrekoak, irudi geometrikorik marraztu gabe, eta tarte batzuetan eskailerak izango zituen desnibela gainditzeko.

Lursailak eta eraikinak

Aurreko txostenean adierazi genuen bezala (*Arkeoikuska* 2020), gero eta argiago ikusten da Zabalateko lurzoru eraikigarria antzeko lotetan zatitu zutela, eta herritar bakoitzari orube bat eman zitzaiola bere etxea eraiki zezan. Hasiera batean, eraikin bakarrak osatuko zuen etxe horietako bakoitza, eta gehienek orubeko espazio erabilgarriaren % 50 inguru hartuko zuten, eraikina betiere orubearen muturretako batean kokatuta. Gainerako espazioa hutsik geratzen zen, agian larrain, ukuilu eta/edo etxeari atxikiriko baratze gisa erabiltzeko, baina denboraren joanean jatorrizko eraikina handituko zuten eraikuntza berriek okupatuko zuten espazio hori.

2022. urtean zehar onibar eta etxebizitza berri bat erregistratu genuen terrazaren hegoaldeko muturrean, kale nagusiaren beste aldean. Erabat induskatzea ezinezkoa izan bazen ere, osorik identifikatu genuen etxearen ekialdeko fatxada eta iparraldeko fatxadaren zati bat. Bildutako datuak kontuan hartuta, goiko terrazan agerian utzitako eraikinaren antzeko tipologia duela aurreikus daiteke (*Arkeoikuska* 2016), tamaina ederreko oinplano angeluzuzena baitu eta iparraldetik hegoalderako orientazioa. Eraikin hau bederatzi metro eta erdi luze zen eta hiru metro eta erdi zabal agerian utzitako tartean (beraz, guztira 33 m^2-ko azalera izango zuen), perimetroko hormak tokiko kareharriez altxatuta zituela, berdindutako harlangaitzezko estekadurarekin, bereziki handia eskantzuetan.

Kontuan izanik hormen lodiera (0,65 metro), kontserbatutako altuera apala (0,5 metro) eta harrizko estratu lodiez eratutako suntsipen mailen absentzia, horma horiek harrizko zokalo bat izango zuten oinean, eta horren gainean hartuko zuten atseden oratutako buztinezko pacio cercano a los 200 m^2 que, sumado al anterior, hizo un total de 900 m^2, superficie que posibilitó recuperar y entender satisfactoriamente este urbanismo. En las páginas siguientes nos centraremos en describir las nuevas aportaciones generadas durante la campaña de 2022.

Nuevas aportaciones al urbanismo medieval

La calle principal

Durante las excavaciones de los años 2016 y 2019 se identificaron restos de una calle en pendiente que, desde el portal de la muralla inferior, ascendía hasta la parte alta del poblado. La intervención ejecutada en 2022 ha vuelto a registrar esta empinada calle, pudiendo confirmar que se trata de la arteria principal de la villa. Esta calle central, de entre cuatro y cinco metros de anchura, cortaba el plano de la ciudad en dos mitades de proporciones similares, denotando su importancia, y conectaba las dos principales puertas de la muralla y, por ende, los dos principales caminos de acceso a la villa. El primero se situaba al este, en la zona baja, y se correspondía con la vía proveniente de la montaña navarra. El segundo discurría por la zona alta, junto al portal occidental de entrada, y comunicaba el valle del río Inglares con el del río Ayuda, atravesando Ocio, Portilla y Berantevilla.

Con respecto a su técnica constructiva, podemos decir que se trataba de un pavimento compuesto principalmente por losas de medio tamaño, de morfología irregular, sin ningún tipo de composición geométrica, pudiendo estar provisto en algunos tramos de escaleras para salvar el desnivel.

Las parcelas y edificios

Como indicamos en un texto anterior (*Arkeoikuska 2020*), cada vez parece más evidente que el suelo edificable de Portilla fue fraccionado en lotes similares, concediéndose a cada poblador un solar para la construcción de su casa. Inicialmente, estas casas se encontraban formadas por un solo edificio, cuya construcción tiende a ocupar un 50% del espacio útil del solar, situándose siempre en uno de los extremos. El área restante se mantiene vacante, destinado quizás a era, corral y/o huerta unido a la casa, si bien con el tiempo será ocupado por nuevas construcciones que amplían el edificio original.

Durante el año 2022 se registró una nueva heredad y vivienda, situada en el extremo meridional de la terraza, al otro lado de la calle principal. Aunque no se pudo acometer su excavación completa, se identificó completamente la fachada oriental y parte de la septentrional de la casa. Con los datos recogidos es posible presumir un edificio de tipología similar al exhumado en la terraza superior (*Arkeoikuska 2016*), caracterizado por presentar una planta rectangular de notables dimensiones y orientación norte-sur. En esta ocasión, poseía nueve metros y medio de longitud y una anchura vista de tres metros y medio (lo que supone una superficie total estimada de 33 m^2), dotado de muros perimetrales de piedra caliza local, con aparejo de mampostería regularizada, especialmente grande en los esquinales.

Atendiendo al espesor de los muros (0,65 metros), a la escasa altura conservada (0,5 metros) y a la ausencia de niveles de destrucción constituidos por potentes estratos de piedra, cabe imaginar alzados compuestos



Beheko terrazan erregistratutako hirigintzaren birsorkuntza, erregistro arkeologikoan oinarrituta. (Ilustrazioa: Maialen Mendigutxia).

Recreación del urbanismo registrado en la terraza inferior, con base en el registro arqueológico (Ilustración: Maialen Mendigutxia).

edo adobezko paretek, halakoak altxatu baitzituzten goiko terrazako etxebizitzan egiaztatu zen bezala. Inguruko beste testuinguru batzuetan erregistratutakoen antzera, zokaloetan sartutako paldo sistema batek eratuko zuen egitura euslea. Atea, dokumentatu ez dugun arren, alde laburretako batean egongo zen, ziurrenik iparraldeko muturrean, kale nagusiari begira.

Erdi Aro osteko laborantza terrazak

Etxeak abandonatu eta hondatu ondoren, hiribilduko espazio hori zerealetarako laborantza lur bihurtzeko lanak eraman ziren burura. Estratigrafiaren azterketak aukera eman du ikusteko XVI.-XVII. mendeetan zehar herrixkako mazela osoan egindako obra dela, etxeak, kaleak eta hiriko beste espazioak amortizatu zituzten lur eta harri mugimendu garrantzitsuak gertatu zirela.

Nekazaritza paisaia horren eraikuntzak eragin handiagoa izan zuen laborantzarako egokiagoak ziren aldeetan, batez ere espazio publikoetan (kaleak eta plazak), horietan ahalegin txikiagoa egin behar baitzen eremu produktibo bihurtzeko. Obra horren dimentsioak egiazki dira esanguratsuak, agerian uzten dute burura eramandako eraldaketa garrantzitsua. Aztergai dugun sektorean, funtsean bi ekintzatan hautematen da nola bihurtu zuten espazio hori laborantza lur. Lehenengoan, ia metro eta erdian beheratu zuten aurreko kalearen maila. Bikoitza zen helburua. Alde batetik, espazio horretan guztian laborantza terraza bat lortzea maila baxuagoan, nekazaritza substratuaz eraturiko geruza lodi batez hornitua. Eta bestetik, goiko aldean bigarren terraza bat eraikitzeko beharrezkoa zen lurra ateratzea, aurreko aldean inolako eustormarik eraiki behar izan gabe. Bigarren helburu horrexek azaltzen du laborantza mailetan eta abandonu/suntsipen deposituetako matrize buztintsuan berreskuratutako hondar zeramikaren bolumen ikaragarri handia (protohistoriakoak eta Erdi Aro Betekoak), halakoak ez baitira ohikoak izaten aurri edo suntsipen testuinguruetan. Bigarren ekintzan, goiko aldean terraza bat sortzeko horma eraiki zuten, eta horrek hirugarren terraza sorrarazi zuen.

por zócalos de piedra sobre los que descansarían paredes de barro amasado o adobe, cuyo uso se encuentra acreditado en la vivienda de la terraza superior. La estructura portante debió estar compuesta por un sistema de postes encastrados en los zócalos, similar a los que se registran en otros contextos del entorno. Su acceso, pese a no documentarse, debió estar situado en uno de los lados cortos, muy posiblemente en el extremo norte, comunicando con la calle principal.

Las terrazas de cultivo postmedievales

Con posterioridad al abandono y ruina de las casas se ejecutará la transformación del espacio urbano en campos de cultivo para cereal. El análisis estratigráfico ha permitido observar que se trató de una obra ejecutada durante los siglos XVI-XVII en toda la ladera del poblado, con importantes movimientos de tierra y piedra que amortizaron las casas, calles y demás espacios urbanos.

La construcción de este paisaje agrario tuvo mayor incidencia en aquellas zonas que eran más aptas para el cultivo, principalmente los espacios públicos (calles o plazas) que necesitaban un menor esfuerzo para su transformación en espacios productivos. Las dimensiones de esta empresa son realmente significativas y ponen en evidencia la importante operación realizada. Para el sector que nos ocupa, la conversión del espacio en campos de cultivo se detecta básicamente en dos acciones. La primera consistió en rebajar la cota de la calle delantera casi medio metro de altura. El objetivo era doble. Por un lado, lograr una terraza agrícola inferior en todo este espacio, provisto de una buena capa de sustrato agrícola. Por otro, extraer la tierra necesaria para levantar una segunda terraza superior, sin ningún tipo de muro de contención delantero. Este último objetivo explica, además, el extraordinario volumen de cerámica residual recuperado en los niveles agrícolas y en la matriz arcillosa de los depósitos de abandono/destrucción (tanto de época protohistórica como plenomedieval), inusuales en contextos de ruina o derrumbe. La segunda acción consistió en construir un muro de aterrazamiento superior que generó una tercera terraza.

J.L. Solaun; V. Martínez

A.27.3. **Larreko Andra Maria baseliza, Berganzon**

Zuzendaritza: J. L. Solaun Bustinza
Finantzazioa: Berganzoko Administrazio Batzordea

A.27.3. **Ermita de Nuestra Señora del Campo en Berganzo**

Dirección: J.L. Solaun Bustinza
Financiación: Junta administrativa de Berganzo

This text outlines the archaeological intervention conducted in Nuestra Señora del Campo Chapel, within the restoration project carried out in 2022. During the work, we were able to confirm that the chapel was built during the final third of the 16th century or the early years of the 17th century. Nevertheless, the archaeological assessment of the subsoil inside the building is still pending. This assessment will tell us definitively whether or not evidence exists of a structure pre-dating the current one and will enable the confirmation of the proposed constructive evolution of the site.

Berganzo herriaren mendebaldean dago Larreko Andra Maria baseliza, herrigunetik apur bat isolatuta, «La Cuadra» deritzon aurkintzan. 2022. urtean baseliza sendotzeko eta saneatzeko obrak egin ziren, eta Arabako Foru Aldundiko Museoak eta Arkeologia Zerbitzuaren ebazpen arkeologikoaren arabera, altxaeren irakurketa estratigrafiko bat egin eta obren gaineko kontrol arkeologiko bat bideratu behar zen.

Emaitzen balorazio arkeologikoa

Baseliza hori Berganzoko San Vicente monasterio desagertua (XII. mende hasieratik dokumentatua) gogorarazten duen Barranco de San Vicente deritzonaren ondoan dagoenez, ikertzaile batzuek baseliza monasterio horrekin lotuta egon zitekeelako hipotesia planteatu dute. Halere, kontuan harturik datu arkeologikoak eta iturri idatziak, egungo tenpluaren hormetan ez dago Erdi Aroko jatorriaren ebidentziarik, eta inguru hurbilean ez dago hilobirik, oso eraikin uniformea da, XVI. mendearen azken herenean edo XVII. mendearen lehen urteetan eraikia. Izan ere, kontsultatutako bibliografiak bi eraikuntza fase iradokitzen baditu ere –lehenengoan burualdea eta habeartearen lehen tartea eraiki zituzten (XVII. mendea), eta bigarrenean tenplua handitu zuen habeartearen bigarren tartea (XVIII. mendea)[76]– gure azterlanean ez genuen ageriko aldaketarik hauteman. Fisionomiak berak eta oinplanoan dituen neurriek berretsi egiten dute tenplua hasieratik eraiki zutela habeartean bi tarte antolatuta, eta beraz, ez dirudi habeartearen bigarren tarte hori geroagoko handitze obra baten emaitza denik. Bestalde, XVIII. mendearen lehen urteetan eraiki zituzten gangak.

La ermita de Nuestra Señora del Campo se localiza al oeste de la localidad de Berganzo, ligeramente aislada del núcleo poblacional, en el término denominado «La Cuadra». En el año 2022 se acometieron obras de consolidación y saneamiento que, atendiendo al dictamen arqueológico del Servicio de Museos y Arqueología de la Diputación Foral de Álava, requirieron de una lectura estratigráfica de sus alzados y de un control arqueológico de las obras.

Valoración arqueológica de los resultados

La circunstancia de que esta ermita se sitúe cerca del denominado Barranco de San Vicente, que evoca al desaparecido monasterio de San Vicente de Berganzo, documentado desde comienzos del siglo XII, ha hecho que algunos investigadores planteen la hipótesis de que tuviera relación con este monasterio. Sin embargo, atendiendo a los datos arqueológicos y documentales no hay evidencias de un origen medieval en los alzados del actual templo, así como de sepulturas en el entorno inmediato, siendo un edificio muy uniforme construido en el último tercio del siglo XVI o primeros años del siglo XVII. De hecho, aunque la bibliografía consultada apunta la existencia de dos fases constructivas –una primera correspondiente a la cabecera y el primer tramo de la nave (siglo XVII) y otra en la que se amplía el templo con el segundo tramo (siglo XVIII)[76]– nuestro estudio no evidenció cambios aparentes. Su propia fisonomía y dimensiones en planta secundan la idea de que fuera levantada originalmente con dos tramos en la nave, haciendo poco probable que el segundo de ellos fuese una ampliación posterior. Por otra parte, en los primeros años del siglo XVIII se construyeron sus bóvedas.

J.L. Solaun Bustinza

[76] Tabar, F (koor.), 2011, *Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. Tomo X. Los valles occidentales entre el Zadorra, el Ayuda y el Inglares. La villa de La Puebla de Arganzón,* Vitoria-Gasteiz.

[76] Tabar, F (coord.), 2011, *Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. Tomo X. Los valles occidentales entre el Zadorra, el Ayuda y el Inglares. La villa de La Puebla de Arganzón,* Vitoria-Gasteiz.

A.27.4. **Ozioko garbitegia**

Zuzendaritza: José Ángel Apellániz González
Finantzazioa: Pazos, S.L.

A.27.4. **Lavadero de Ocio**

Dirección: José Ángel Apellániz González
Financiación: Pazos, S.L.

Washhouses, such as this one in Ocio, are some of the smaller structures of our built heritage. However, they are interesting not only because of their specific morphological and typological characteristics within the existing range of rural heritage elements, nor as a result of their past functionality and use, but also because they are places with unique constructive shapes that retain a symbolic and intangible value that, in many cases, remains inscribed in the collective memory of their corresponding towns. For over one hundred years, from its construction during the mid-19th century up until the 1960s, the washhouse functioned as a privileged and exclusive space in which the female population of the town was able to establish and consolidate their social activities. During the current study and dissemination project, we have focused particularly on its typology and social function. Although in the future it will play a different role, the recovery of the washhouse will nevertheless restore an interesting place in the town's traditional landscape.

Ozioko *Arriba Auzoko Garbitegiaren* egiturazko elementuak zaharberritzeko obra proiektu bat aurkeztu zenez, eraikina aurri egoeran baitzegoen, ezinbestekoa zen lan horiek bertatik bertara ikuskatzea kontserbatu zitekeen edozein aztarna arkeologiko eta etnografiko dokumentatzeko eta babesteko. Lur jota zegoen garbitegia hartzen zuen eraikin xumea, sastrakak estalita. Instalazio osoa zegoen agerian, urte asko baitzeramatzan aterpe edo estalkirik gabe, eta perimetroko hormak erdi erorita. Ozioko Administrazio Batzordeak sustatu du lehenengo obra fase hau (2022), baina aurreikuspenen arabera ondoren bigarren fase bat eramango da burura etorkizun hurbilean garbitegia guztiz zaharberrituta egon dadin, eta, ahal dela, erabilgarri.

Kokapena eta obraren izaera

Hirigunetik (*Abajo* edo *Arana* auzoa) ekialdera 300 m-ra dago Ozioko garbitegia, eta *Arriba* edo *La Calzada* auzoko etxeetatik iparraldera 100 m eskasera. Zehazki, A-3126 errepidera (Ozio eta Berganzo lotzen dituena egungo parrokia elizaren ia pare-parean, *Santa Marina* auzoaren sarreran) irteten den eta gaur egungo hilerrira daraman bide ondoan dago (*Chimijo* izeneko barrutian dagoen eraikin isolatu baten parean). Óscar Reinares Fernández arkitektoaren obra proiektuaren arabera, hiru jarduera fase izan ditu 2022ko udazkeneko ekinaldiak elementua hobetzeko eta zaharberritzeko, eta lan horiek Pazos, S.L: enpresak eraman ditu burura: perimetroko ageriko egiturak eraitsi ditu; uraskaren edo ur biltegiaren egitura konpondu du; eta perimetroko hormak eta barruko korridoreak lehengoratu ditu.

Lurrak mugitzeko, hormak desegiteko eta ingurua garbitzeko eta berdintzeko lanetan zehar arkeologo bat izan zen lan horiek bertatik bertara ikuskatzen, baina ez zuen aztarna material interesgarririk identifikatu. Printzipioz, bazegoen elementu horietako batzuk aurkitzeko aukera, hala nola ura «uraskara» bideratzeko eta hartatik ateratzeko metalezko iturriak eta hustubideak, zeramikazko ontziak, neguan berotzeko eta errautsa biltzeko egurra erretzeko «sutondo» edo «su» baten aztarnak, arropa garbitzeko eta «lixibatzeko» edo «gobada» egiteko harrizko kuboak edo kubetak, egiturazko elementuei eusteko euskarriak, estalkiari legokiokeen burdinazko egitura edo erabileraren erabileraz hautsi ondoren garbitegiaren espaziora botatako beste edozein material.

La existencia de un proyecto de obras de acondicionamiento de los elementos estructurales en ruina del *Lavadero del Barrio de Arriba* de Ocio, hacía necesaria una supervisión de dichas labores, al objeto de documentar y preservar cualquier resto de naturaleza arqueológica y etnográfica que pudiera conservarse. La construcción rústica que acogía el lavadero se encontraba completamente arruinada y cubierta de maleza. Toda la instalación quedaba a cielo abierto ya que llevaba muchas décadas sin cobertizo o cubierta y con los muros periféricos semi-derruídos. La Junta Administrativa de Ocio ha promovido esta primera fase de obra (2022) pero se tiene previsto una segunda más adelante para, en un futuro próximo, ver el lavadero completamente restaurado y en posible uso.

Localización y carácter de la obra

El lavadero de Ocio se localiza a 300 m al E del centro urbano (*Barrio de Abajo* o *de Arana*) y a escasos 100 m al N de las casas del *Barrio de Arriba* o *de La Calzada*. En concreto, el elemento se sitúa junto al camino que conduce al cementerio actual (frente a un edificio residencial aislado del término de *Chimijo*) y que sale a la carretera A-3126 (que conecta Ocio con Berganzo casi frente a la actual iglesia parroquial, a la entrada del *Barrio de Santa Marina*). La mejora y restauración del elemento ha tenido, en la campaña de otoño 2022, tres fases de actuación diferenciadas según proyecto de obra del arquitecto Óscar Reinares Fernández y ejecución de la empresa Pazos S.L.: el derribo de estructuras emergentes periféricas; la reparación de la estructura del vaso o depósito; y la restitución de muros perimetrales y pasillos interiores.

Durante la presencia del arqueólogo en la supervisión de las labores de remociones de tierra, desmontes de muros y explanaciones y limpiezas, no se evidenciaron restos materiales de interés. En principio, cabía la posibilidad de localizar algunos de estos elementos como posibles griferías y caños metálicos de entrada y salida de aguas a la «pila», vasijas de cerámica, restos del «hogar» u «hornillo» donde quemar madera para calentarse en invierno y proveer de ceniza, cubos o cubetas de «colada» o «cernada» en piedra para el lavado de ropa, apoyos para elementos estructurales, carpintería de armar en hierro de la estructura de cubierta o cualquier otro material arrojado en los espacios del lavadero tras su rotura por uso en el lugar.

Egiturazko elementu etno-arkitektonikoak

Garbitegi honen morfologiari dagokionez, esan beharra dago azken aldian (XX. mendea) kontserbatutako egiturazko hondarrak nahikoa izan direla oraindik erabiltzen zutenean izango zuen itxuraren deskribapen fidagarri bat aurreratzeko. Larreko edo landa eremuko eraikin bat izan zen, lau aldeak agerian zituen, eta oinplano angeluzuzena –8,60 m luze iparraldetik hegoaldera, 7 m zabal eta guztira 4,30 m inguru garai (teilatuko «gailurrean»)–. Beraz, gainditu egiten zuen eskualdeko garbitegien batez besteko azalera erabilgarria (gutxi gorabehera 45 m^2)[77]. Bi isuriko teilatua izan zuen, gailurra luzetara eta isurialdeak ekialdera eta mendebaldera, ohiko teilez estalita («arabiar» motako teilak) euri urak husteko: teilak beheranzko errenkadetan jarrita egongo ziren, «estalki· modura, alderantziz edo «kanal» modura ipinitako beste batzuen gainean (tamaina gutxi gorabehera aldakorrekin, batez beste 48 cm luze, 10 cm zabal kurbatura handienean eta 16 cm zabal txikienean, eta 1,5 cm lodi), azken horiek «oholen» edo «laten» gainean bermatutako listoien gainean paratuak. Ohol edo lata horiek, beren aldetik, zurajean (haritz zurezkoa?) bermatutako «gapirio» eta «petraletan» hartzen zuten atseden. Estalkiaren sistema «guraize», «aizto» edo «espainiar erako zertxa» molde tradizionalagoan oinarritu zen. Tirante bakoitzaren erdialdean «esekitzeko ferra» bidez (arruntena «U» formako ageriko pletina bidezkoa) ainguratutako zurezko ostiko edo «guraize habe» bat altxatzen zuen, goiko aldean «gailurra» jartzeko balio zuena. Ez dakigu ostikoak zeharkako indargarriak izan ote zituen, hala nola «besoak» edo «txarrantxak» (ez dira hain ohikoak), biak baitira eraikuntza eredu arruntenetakoak Arabako landa eremuko arkitekturan. Teilatuari eusteko habe luze eta lodien muturrak gutxi gorabehera 25 cm irteten ziren, behintzat, alboko hormen lerrokaduratik teilatu hegal labur bat eratzeko eta euri ura eraikinaren ageriko aurpegietan behera etor zedin galarazteko. Beraz, 7,5 m luze izan zitezkeen habe horiek. Hegoaldeen zegoen «tiranteak», garbitokian sartzeko aldean, alde horren perimetroko hormaren kanpoko aurpegiari atxikita eraikitako harrizko oinarri baten gainean bermatutako paldoaren gainean hartzen zuen atseden bere erdialdean. Harrizko oinarri hori altuera txikiko hormatxo bat zen, metro eta erdi pasatxo zituen altueran.

Iparraldeko karga horman, ondoko lur eremuko terrazaren kontra eraikia, itxi egin behar izan zen «tirantearen» eta «pare» zeiharren artean sortutako hutsune triangeluarra («gailurraren» azpiko erpineraino). Iparraldeko horma horretako eskantzuak alboetako hormen altuera berera iristen ziren –1,90 m garbitegi barruko zorutik, eraikinaren ekialdean dagoen ondoko bidearen maila baino beherago (gutxi gorabehera 0,5 m)–. Haren hegoaldeko muturretan harroinaren aztarnak azaldu zirenez, garbitegiak zabalik izan zuen fronte hori, baina oinean horma baxu batek ixten zuen, eraikinaren barruko aldera sartzeko pasabide bat uzten zuelarik mendebaldeko muturrean, ohiko zurezko ate burudunik gabe. Hegoaldeko fronte hori irekita zegoenez horma horren goiko aldetik teilaturaino, garbitegiaren erabiltzaileek nahikoa argi zuten be-

[77] Palacios Mendoza, V.; eta Rodríguez Fernández, J., *Patrimonio Arquitectónico en la Cuadrilla de Añana. Elementos Menores,* Vitoria-Gasteiz: AFA, 2008, 219, 248 eta 257. or., hurrenez hurren.

Elementos estructurales etno-arquitectónicos

Por lo que respecta a la morfología de este lavadero, conviene señalar que los restos estructurales conservados en su última etapa (siglo XX) han sido suficientes como para avanzar una descripción fidedigna según podía mostrarse cuando aún estaba en uso. Fue una construcción rústica exenta de panta rectangular -de 8,60 m de longitud (en sentido N-S), 7 de anchura y una altura total de unos 4,30 (a la «cumbrera» del tejado)-, superior en superficie útil a la media de los lavaderos de la comarca (unos 45 m^2)**[77]**. Poseyó cubierta a doble vertiente con viga «gallur» longitudinal y caídas a E y O, con sistema de cubrición de teja tradicional (tipo «árabe») para la evacuación de pluviales: hileras descendentes de tejas dispuestas al modo «cobija» montadas sobre otras dispuestas al revés o «en canal» (de dimensiones más o menos variables de unos 48 cm de longitud, 19 de anchura en la curvatura mayor y 16 en la menor, y 1,5 de grosor), colocadas sobre guías de listones que asentaban sobre «entablonado» o «tablazón» y éste, a su vez, sobre maderos «cabios» y «correas» apoyadas sobre la viguería (de madera de ¿roble?). El sistema de la cubierta consistió en el tipo más tradicional de «tijera», «cuchillo» o «cercha a la española». En el centro de cada tirante levantaba un puntal o «pendolón» de madera anclado mediante «herraje de cuelgue» (el más frecuente mediante pletina vista en forma de «U») y que servía en su remate superior de apoyo al «gallur». Se desconoce si el puntal contó con refuerzos oblícuos, bien a modo de «tornapuntas» o de «riostras» (menos frecuente), ambas soluciones constructivas entre las más habituales en la arquitectura rural alavesa. Las largas y gruesas vigas de amarre sobresalían en sus extremos unos 25 cm al menos de los muros laterales para propiciar un corto alero que evitara que el agua de lluvia resbalara por las caras expuestas del edificio, de tal manera que su longitud total podría alcanzar los 7,5 m. El «tirante» más meridional, en la parte del acceso al lavadero, se apoyó en su zona central en un poste que asentaba sobre una basa pétrea erigida pegante a la cara externa del muro periférico de esa parte, el cual consistía en un murete bajo que levantaba un alzado de poco más de medio metro.

El muro de carga septentrional, construido contra el aterrazado del terreno adyacente, hubo de cerrar el hueco triangular generado entre su «tirante» y los «pares» oblícuos (hasta el vértice bajo la «cumbrera»). Los esquinales de este muro N alcanzaban la misma altura de los muros contigüos laterales -1,90 m desde el suelo interior del lavadero, más rehundido (unos 0,5 m) respecto del nivel del camino que pasa junto al edificio por el E-. La detección de restos de zapata en los extremos del lado meridional del mismo implica que el lavadero poseyó este frente abierto, aunque se encontraba cerrado en la base por un muro bajo que dejaba un paso de acceso al interior del edificio por el extremo O y sin portón de madera adintelada al uso. Al presentarse este frente meridional abierto desde el remate de ese muro hasta la cubierta, proporcionaba a las usuarias lavandera buena luminosidad al interior para ejercer su actividad. Por tanto, al interior del lava-

[77] Palacios Mendoza, V.; y Rodríguez Fernández, J., *Patrimonio Arquitectónico en la Cuadrilla de Añana. Elementos Menores,* Vitoria-Gasteiz: DFÁ, 2008, p. 219, 248 y 257, respectivamente.

ren lana egiteko. Beraz, hegoaldearen mendebaldeko muturretik sartzen zen garbitegiaren barruko aldera, eta bertan «uraska» edo «ur biltegia» inguratzen zuten korridoreak antolatu ziren. Instalazioaren barruko aldea babesten zuten hormei dagokienez (ekialdekoa, iparraldekoa eta mendebaldekoa, horiek guztiak gaur egun desmuntatuak eta hein batean berreraikiak), 0,65 m lodi ziren, eta ez zuten 1,90 m-ko garaiera gainditzen alboetako hormetan. Tokiko tamaina askotako tuparrizko eta kareharrizko harlangaitzezko estekadurarekin altxatu zituzten, piezak kare eta hareazko ore mehe batez batuak eta «ziri» harriak behar bezala ezkutatu gabe. Tuparrizko harri handienak (batzuk 40 cm baino luzeagoak eta 30 cm baino altuagoak) batez ere eskantzuetan eta hormen beheko aldean jarri zituzten, zoruaren edo barruko zoruaren gainazalaren azpian errenkada bat txertatuz (30 cm inguru). Horman gora egin ahala txikiagoak dira harlangaitzak, gehiago dira tuparrizkoak (arinagoak) kareharrizkoak baino, eta denak dira herritik kanpora *El Tobal*[78] izeneko aurkintzan zegoen mota horretako harrobitik ekarriak eta arbastatuak.

Barruko korridoreek garbitegiko «uraska» edo «ur biltegia» inguratzen zuen bide zirkuitu txiki bat eskaintzen zuten, baina ipar-mendebaldeko eskantzuan itxitura batek oztopatzen zuen igarobidea, bertatik igarotzen baitzen garbitegia urez hornitzeko ubide txikia. Korridore horiek leku nahikoa eskaintzen zien emakumezko garbitzaileei beren zereginak egiteko. Hegoaldeko hormatxo baxua instalazioan sartu eta arropa saskiak bertan uzteko erabiliko zuten. Ez dugu harrizko lauzez edo zementuzko geruza batez eraturiko zoruen arrastorik bat ere identifikatu, eta horrexegatik uste dugu guk barruko perimetroko korridoreetan zoruarena egiten zuen azalera zanpatutako lurrez eratzen zela.

Lur jotako higiezinaren aztarnak garbitegi batekin lotzen dituen eraikuntza elementu erabakigarria «harraska», «ur biltegia» edo «uraska» da (era berean, «putzua», «pileta», «urmaela», «baltsa», «harria» eta abar deitua, dagoen eremu geografikoaren arabera). Ondoko errekatik desbideratutako ur emaria jaso, bildu eta husten duen edukiontzi bat da. Ur hori eraikinaren ipar-mendebaldeko eskantzutik hormak alderik alde igarotzen zituen eroale baten bidez iristen zen. Garbitegia aspaldi ez dela betetzen zuen ura Txulato mendiaren (946 m) iparraldeko sakanetan edo ibar txikietan tarteka eratzen diren errekasto pare batetik iristen zen. Valicobas sakanetik iristen diren bi erreka horiek garbitegitik gertu bat egiten dute, baina mendi oineko aurreneko laborantza lurretan (*Atxoste* edo *Atxusti* barrutian), erreka horiek lurperatu egiten dira, eta berriz ere azaleratzen dira, iturburu gisa, instalazioaren iparraldera 100 m eskaseko tartera.

Ohi denez, eraikinaren oinplano angeluzuzenera –5,50 m luze iparraldetik hegoaldera eta 3,85 m zabal– moldatzen da «uraska» edo «ur biltegia», instalazioaren

[78] Harrobi hori segur aski Goi Erdi Aroaz geroztik ustiatu da, eta herrixkaren sorrera eragin zezakeen baliabide ekonomikoetako bat da. XIX. mende hasieran, hauxe argitaratu zen: *«[…]: hay canteras de yeso y piedra caliza, como tambien de toba muy especial, en cuyo beneficio se ocupan muchos, así como en la alfarería y fábrica de loza comun, comerciando en estos ramos con los pueblos circunvecinos». Casimiro de Guvantes, Á., «Ocio» (s. v.), Diccionario Geográfico-Histórico de España por la Real Academia de la Historia, II* (l. sek.), Madril: Joaquín Ibarraren alargunaren moldiztegia, 1802, 171. or.


dero se accedía por el extremo O del lado S, que daba paso a los espacios de tránsito interiores que iban rodeando el «pilón» o «alberca». Por lo que respecta a los muros con los que se protegía el interior de la instalación (los de carga por los lados E, N y O, todos ellos ahora desmantelados y parcialmente reconstruidos), poseían una anchura de 0,65 m y no superaban el 1,90 de alzado en los laterales. Fueron levantados en aparejo de mampostería con piedras de toba y de caliza locales de tamaños dispares, unidas con leve lechada de cal y arena para mal sellar los «ripios». Las piedras de toba de mayores dimensiones (algunas superando los 40 cm de largo, 30 de alto) fueron colocadas mayoritariamente en los esquinales y en las partes bajas de los muros, con el rehundido de una hilada bajo la superficie de suelo o de piso interior (unos 30 cm). Según el alzado iba cogiendo altura, los mampuestos reducían sus tamaños, siendo mayores los de toba (más livianos) que los de caliza, procedentes y tallados en la cantera de este tipo de piedra que se encontraba a las afueras del pueblo (en el término de *El Tobal*)[78].

Los pasillos interiores proporcionaban un pequeño circuito de tránsito que rodeaba el «pilón» o «depósito» del lavadero, aunque el paso quedaba bloqueado en el esquinal NO por un cierre por el que discurría el canalillo de aporte de agua corriente. Estas zonas de tránsito proporcionaban a las lavanderas el espacio suficiente para desenvolverse en sus tareas. El murete bajo meridional bien pudo ser empleado para depositar los cestos de ropa nada más entrar en la instalación. No se ha evidenciado resto alguno de suelo conformado con losas de piedra o capa de cemento, por lo que se ha de suponer que la superficie que hacía de suelo en estos pasillos perimetrales interiores pudo ser de tierra batida.

El elemento constructivo y determinante que identifica los restos del inmueble arruinado con un lavadero es la «pila», el «depósito» o el «pilón» (también denominada «poza», «pozo», «pileta», «alberca», «cocino», «balsa», «piedra», etc., según la zona geográfica donde se ubique). Se trata de un vaso contendor que recibe, almacena y evacúa el volumen de caudal de agua desviado del cercano arroyuelo y que llegaba a través de una conducción que atravesaba los muros por el esquinal NO del edificio. El agua que hasta hace no mucho llenaba el lavadero provenía de un par de arroyuelos intermitentes formados en los barrancos o vallejos septentrionales de la sierra del monte *Chulato* (946 m). Dos de estos arroyuelos convergen cerca del lavadero provenientes del barranco *Valicobas*, aunque en las primeras fincas de cultivo de pie de monte (del término de *Achoste* o *Achusti*) los cauces se hacen subterráneos para volver a aflorar como manantial o surgencia a escasos 100 m de distancia al N de la instalación.

Como es habitual, el «pilón» o «alberca» adquiere la propia planta rectangular del edificio –con unas dimensiones globales de 5,50 m de largo (en sentido N-S) y 3,85

[78] Cantera explotada, probablemente, desde la Alta Edad Media, uno de los recursos económicos que pudo dar origen a la aldea. A inicios del siglo XIX se anotaba que «[…]: *hay canteras de yeso y piedra caliza, como tambien de toba muy especial, en cuyo beneficio se ocupan muchos, así como en la alfarería y fábrica de loza comun, comerciando en estos ramos con los pueblos circunvecinos».* Casimiro de Guvantes, Á., «Ocio» (*s. v.*), *Diccionario Geográfico-Histórico de España por la Real Academia de la Historia*, II (Secc. I), Madrid: Impr. de la viuda de D. Joaquín Ibarra, 1802, p. 171.



Ezkerrean, Ozioko garbitegiko uraskaren itxura, hura egokitzeko lanak hastean. Eskuinean, garbitegiaren oinplanoa, neurri orokorrak adierazita, eta uraskarako ur hargunea eta hustubidea.


A la izquierda, aspecto que presentaba el pilón del lavadero de Ocio al inicio de los trabajos de acondicionamiento. A la derecha, planta del lavadero, con indicativo de dimensiones generales y toma y evacuación de agua para el pilón.

erdian dago, ez dago geletan banatuta eta ez dago barruko horma bakar bati atxikita. «Uraska» 4,30 m luze eta 2,46 m zabal da barruko aldetik, eta gutxi gorabehera 7.720 litro ur eduki zezakeen gehienez ere. 55 cm-ko lodiera eta altuera duten horma baxuek mugatzen dute uraskaren perimetroa, eskantzuetan tuparrizko harlanduxkak erabili zituztelarik. Hormatxo horiek tamaina askotako lauzei eusten diete, lauzak ongi landuak dira, ezin hobe lotzen dira elkarren artean, eta lauzen gainazalak nabarmen daude inklinatuta ur biltegiaren barruko alderantz. Gainazal inklinatu horiek erabiltzen zituzten garbitzaileek arropari xaboia emateko, igurzteko, marruskatzeko eta urberritzeko, arropa horiek behin eta berriz bustitzen zituztelarik «uraskako» urarekin. Uraren maila lauza inklinatu horien oineraino iritsiko zen, eta lauza horiexek izango ziren «garbitzeko harriak» edo «harraskak» eratuko zituztenak[79]. Ozioko garbitegiaren kasuan, lisoak dira «garbitzeko harrien» gainazalak. Arropa garbitzeko lauza horiek aski modu ordenatuan daude antolatuta: hiru dira alde laburretan –bata erdian eta beste biak alboetan, azken horiek ebaki zeihar batekin alboetako ondokoekin ahokatzeko eskantzua eratuz– eta beste bosna alde luzeetan, pieza guztiak 15-18 cm bitarte lodi eta baten bat ia 1,50 m luze. «Harraskako lauzei» eusten zieten hormatxoen barruko aurpegia eta «uraskaren» oina kare hidraulikozko geruza batez (1 cm lodi) estalita zeuden, eta geruza horrek irazgaitz bihurtzen zuen edukiontzia, galarazi egiten zituen ur iragazketak. Ura «ur biltegiaren» hegoaldeko frontearen erdialdeko lauzaren gainean zizelkatutako «hustubide» txiki baten bitartez husten zen. «Uraskaren» barruko oinean ere, «hustubidearen» bertikalean, hustubide txiki bat dago: zulo hori itxi egiten zen «ur biltegia» betetzeko, edo hondoan metatutako

de anchura–, con la particularidad de quedar centrado, no estar compartimentado y no adosarse a ninguna de las paredes interiores. El vaso interior del «pilón», con unas dimensiones de 4,30 m de longitud y 2,46 de anchura, podía contener un volumen de unos 7.720 litros de agua a su cota máxima. Su perímetro se delimita gracias a muretes bajos de 55 cm de anchura y altura, con sillarejos de toba en los esquinales. Esos muretes sustentan losas bien talladas y de tamaños dispares, perfectamente ajustadas unas con otras, cuyas superficies superiores quedan sensiblemente inclinadas hacia el interior del depósito. Son esas superficies inclinadas las empleadas por las lavanderas para enjabonar, frotar, restregar y aclarar la ropa, prendas que reiteradamente mojaban con el agua del «pilón» y que alcanzaba el nivel de base de esas mismas losas basculadas, las cuales constituyen las «piedras de lavar» propiamente dichas o «refregaderos«[79]. Para el caso del lavadero de Ocio, las superficies de las «piedras de lavar» son lisas. La disposición de estas losas «refregaderas» es bastante ordenada: existen tres por los frentes cortos –una central y dos laterales, estas últimas con corte oblícuo para encajar con las contigüas laterales formando el esquinal– y otras cinco por los laterales, piezas todas ellas de unos 15-18 cm de grosor y algunas de ellas casi alcanzando los 1,50 m de longitud. La cara interna de los muretes sustentantes de las «losas fregaderas» así como la base del «pilón» estaban revestidas con cal hidraúlica con un 1 cm de espesor que lo impermeabilizaba para evitar filtraciones de agua, la cual era evacuada a través de un pequeño «aliviadero» tallado en la parte superior de la losa central del frente meridional del «depósito». En la base interior del vaso de la «pila» pero en la vertical del «aliviadero» existe también un pequeño sumidero que se taponaba para propiciar el llenado de la «alberca» y su

[79] Ikus Ruiz Bedia, M.ªL.; Morante Díaz, P.; eta Ruiz Pardo, C., *«Formas y tipos constructivos de lavaderos públicos (1880-1950», Actas del VII Congreso Nacional de Historia de la Construcción* (Santiago de Compostela, 2011ko urriak 26-29, koor. S. Huerta Fernández), II, Madril: Instituto Juan de Herrera, 2011, 1.260. or.

[79] *Cfr.* Ruiz Bedia, M.ªL.; Morante Díaz, P.; y Ruiz Pardo, C., «Formas y tipos constructivos de lavaderos públicos (1880-1950», *Actas del VII Congreso Nacional de Historia de la Construcción* (Santiago de Compostela, 26-29 de octubre de 2011, coord. S. Huerta Fernández), II, Madrid: Instituto Juan de Herrera, 2011, p. 1.260.



Garbitegiaren berreraikuntza sekzioak, altuerak adierazita, eta eraikuntzaren egiturak.

Secciones reconstructivas del lavadero con indicativo de las alturas y estructuras de la construcción.

lohiak, algak eta itsatsitako goroldioak garbitu nahi zirenean ireki eta urak husteko (agian urtean bi aldiz).

Garbitegiaren testuinguru historikoa

Garbitegi honen arrasto nabarietatik eta hura aipatzen duten iturri idatzi urri eta berantiarretatik abiatuta, etxeko jarduera honek herrian izan duen bilakaera historikoa aurreratzen saiatuko gara, mota horretako instalazioek eskualdean izan duten testuinguru orokorraren barruan. Aurreratu daiteke aztergai dugun garbitegiaren eraikuntza XIX. mendearen erditik aurrera Arabako landa eremuko herriak inplikatu zituen korronte higieniko/sanitario baten ondorioa dela; eta ziurrenik Miguel de Uriondo obra maisuak 1864. eta 1865. urte bitartean eraikia dela instalazio xume baina aldi berean interesgarri hau.

XIX. mendearen erdialdera Ozioko biztanleek ez zituzten ahaztuta denboran *Lehenengo Karlistaldiarekin* bat egin zuen «kolera-morbo asiarrak» eragindako aurreneko epidemiaren ondorioak[80]. Beste krisialdi mediko/sanitario baten mehatxuaren aurrean –hurrena 1885ean iritsiko zen, baina 1849az geroztik ezagutzen zen– tokiko agintariek ziur asko higiene arloko neurriak hartuko zituzten oinarrizko arloetan (elikadura, ostatua, arropa, etab.) ahulenak ziren pertsonei oinarrizko arreta emateko eta lehen azterketa medikoak egiteko. Lehen neurrietako bat izan zen «ongintza etxe» bat prestatzea

vaciado cuando se deseaba limpiar de lodos acumulados en el fondo o de algas y musgos adheridos (quizá en una o dos ocasiones al año).

Contexto histórico del lavadero

A partir de los restos evidenciados de este lavadero y de las escasas y tardías referencias documentales que lo citan, se ha intentado avanzar el devenir histórico de esta actividad doméstica en la localidad dentro del contexto general de este tipo de instalaciones en la comarca. Se puede adelantar que la construcción del lavadero objeto de estudio sería consecuencia de la corriente higiénico-sanitaria que recorrió las localidades rurales alavesas a partir de mediados del siglo XIX; y existe una gran posibilidad de que esta modesta pero interesante instalación fuese construida entre los años 1864-1865 por el maestro de obras Miguel de Uriondo.

A mediados del XIX, los habitantes de Ocio no habrían olvidado los efectos de la primera epidemia de «cólera-morbo asiático», coincidente en el tiempo además con los primeros años de la *Primera Guerra Carlista*[80]. La amenaza de una nueva crisis médico-sanitaria —la siguiente llegaría en 1855, pero ya se tenían noticias de ella desde 1849— pudo predisponer a las autoridades locales para que se adoptaran medidas de carácter higienista enfocada a la atención básica de las personas menos pudientes en cuestiones básicas (alimentación, cobijo, abrigo, etc.) y de primeros exámenes médicos. Una de esas medidas fue la habilitación de una «casa de benefi-

[80] Hemen dago jasota XIX. mendeko «kolera-morbo asiarra» epidemiak Ozion eragindako hesteetako gaitzen ondorioz hildakoen zerrenda: Ferrero Ardions, M., *El cólera en las transformaciones del siglo XIX en Álava. La epidemia de 1834*, Vitoria-Gasteiz: UPV-EHU, 2012, 645 eta 704. or.; eta Apellániz González, J.Á., «Espacios cementeriales o funerarios de Ocio (Zambrana, Álava). Antecedentes medievales, desarrollo en la modernidad y trayectoria contemporánea», 275 Aniversario del Real Privilegio de Villazgo de Zambrana (arg. F. Martínez de Salinas Ocio eta M. Ocio Vallejo), Vitoria-Gasteiz: AFA, 2020, 169-178. or.

[80] Las defunciones en Ocio por afecciones gastro-intestinales provocadas por las epidemias de «cólera morbo asiático» en el siglo XIX se señalan en: Ferrero Ardions, M., *El cólera en las transformaciones del siglo XIX en Álava. La epidemia de 1834,* Vitoria-Gasteiz: UPV-EHU, 2012, p. 645 y 704; y Apellániz González, J.Á., «Espacios cementeriales o funerarios de Ocio (Zambrana, Álava). Antecedentes medievales, desarrollo en la modernidad y trayectoria contemporánea», *275 Aniversario del Real Privilegio de Villazgo de Zambrana* (eds. F. Martínez de Salinas Ocio y M. Ocio Vallejo), Vitoria-Gasteiz: DFÁ, 2020, p. 169-178.

epidemia garaietan gaixoak hartzeko[81]. Nolanahi ere, Jugalez ibaian (*Zubiate* zubiaren ondo-ondoan) arropa garbitzeko tokia ordeztuko zuen garbitegiaren eraikuntza urte gutxi batzuk gehiago atzeratu zela dirudi.

Hasieran lau aldeak agerian izango zituen garbitegia eraiki zuten, alegia, eraikin independentea zen, eta aire zabalean antolatuta («putzua» eta hura inguratzen zuten «harraskako lauzak» estali gabe). Leku horixe aukeratu zuten garbitegia eraikitzeko alde batetik Ozioko auzo modernoenetatik gertu zegoelako, eta bestetik arlo mediko/higienista jakin batzuei erantzuten zielako, izan ere, ibaitik urrun samar eta bizilekuetatik isolatuta egongo zen gaixoen oheetako maindireak eta mantak edo arropak manipulatzean gaixotasun kutsakorrak hedatzea saihesteko. Segur aski 1864. eta 1865. urte bitartean gertatu zen garbitegia eraikitzeko aukera, San Andres elizak zituen egiturazko akats garrantzitsuak konpontzeko obrak kontratatu zituztenean, eliza erortzeko mehatxu larria baitziren hormetako arrakalak eta pitzadurak. Miguel de Uriondo obra maisua arduratu zen tenpluaren zati batzuk berreraikitzeko lanez eta premiazko esku hartzeez[82]. Teknikari horrek berak, «hargin eta iturgin maisua», sortzez Argotekoa (Trebiñuko Barrendegia, Burgos), ondoko Berganzo herriko plazako iturria eta garbitegia eraiki zituen bi urte lehenago (1862)[83], eta beraz, arauzko titulazio akademikorik ez bazuen ere, bazuen eskarmenturik gisa horretako iturgintza hidraulikoko obretan. Beraz, baliteke garbitegiaren eraikuntza kontzejuak Miguel de Uriondori tenpluko obra egiten ari zenean egindako eskaera informal baten edo hitzezko eskaera baten ondorioa izatea. Gainera, kontuan eduki behar da parrokia eliza eta garbitegia eraikitzeko aukeratutako lekua oso gertu daudela, eta hori inola ere abantaila handia dela kostuak murrizteko. Garbitegia egiteko beharrezkoa zen materiala («harraskako lauzak» barne), agian elizan bideratutako lanetatik sobera geratutako hondarretatik atera ziren, eta beraz, ez zen ez garestia ez arazotsua izango material horien garraioa. Oziok lizitazio garestiagoak saihestuta eraiki ahal izan zuen garbitegia, obra trazatzeko eta oniritzia emateko Aldundiko arkitektoari deitu behar izan gabe.

Urte horietan, Ozioko biztanleek sabel eta hesteetako beste gaitz batzuk nozitu zituzten, hala nola 1865, 1873 eta 1878ko udako hilabeteetan, eta pertsona zaurgarri gutxi batzuk (adinekoak eta jaio berriak)[84] hil ziren. 1885eko epidemia bete-betean zela, Probintziako Diputazioak neu-

[81] Jasokundeko Andre Mariaren ermitako (Administrazio Batzordearen egungo egoitza) hilerria 1851. urtean itxiko zuten bertan «ongintza etxea» antolatzeko, Calahorrako Katedraleko Artxiboko dokumentu baterik ondorioztatzen denez, Ocio, sign.: 13/20/3.

[82] Echeverría Goñi, P.L.; Tabar Anitua, F.; Vélez Chaurri, J.J.; eta Vidal-Abarca López, J., «Ocio» (kap.), *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria, X (Los valles occidentales entre el Zadorra, el Ayuda y el Inglares. La villa de La Puebla de Arganzón),* Vitoria-Gasteiz: Caja Vital-Kutxa Fundazioa, 2011, 426. or.

[83] Berganzoko Administrazio Batzordearen Artxiboa. Sek. historikoa, Akta Liburua, 1859. urtea, 5, 23 eta 29. kaxak (iturriaren eta garbitegiaren trazuak).

[84] Apellániz González, J.Á., *op. cit.* (2020), p. 176 (y notas 85, 86 y 87).

cencia» que serviría en época de epidemias para acoger enfermos[81]. No obstante, la construcción de un lavadero que sustituyese el lugar destinado al lavado de ropa en el río *Inglares* (en la zona inmediata al puente de *Zubiate*) parece que se demoró unos pocos años más.

El lavadero fue construido inicialmente exento o independiente y a cielo abierto (sin cubrición de la «poza» ni de las «losas fregaderas» que la circundaban). Además de su cercanía a los barrios más modernos de Ocio, la elección del sitio también hubo de responder a cuestiones prácticas de carácter médico-higienista, en una zona relativamente alejada del río y aislada del caserío poblacional para prevenir la posible propagación de enfermedades infecciosas durante la manipulación de las ropas, prendas de vestir o sábanas y mantas de los lechos de los enfermos. La oportunidad de su construcción pudo llegar entre los años 1864 y 1865, cuando se contrataron obras para reparar los importantes fallos estructurales que presentaba la iglesia de *San Andrés*, grietas y aberturas que llevaron el edificio a un estado que amenazaba su ruina. Las urgentes intervenciones y reedificaciones en diversas partes del templo recayeron en el maestro de obras Miguel de Uriondo[82]. Se da la circunstancia de este mismo técnico, «maestro cantero y fontanero» oriundo de Argote (Condado de Treviño, Burgos), había intervenido un par de años antes (1862) en la construcción de la fuente de la plaza y lavadero de la vecina localidad de Berganzo[83], por lo que a pesar de no contar con una titulación académica reglada, ya tendría experiencia en este tipo de realizaciones de fontanería hidraúlica. Por tanto, la construcción del lavadero bien pudo ser consecuencia de una petición informal o de palabra por parte del concejo a Miguel de Uriondo mientras realizaba la obra del templo. Además, se ha de tener en cuenta que la iglesia parroquial y el lugar elegido para el lavadero están muy próximos, sin duda una circunstancia ventajosa para reducir costes. La obtención de los materiales necesarios para el lavadero («losas fregaderas» incluidas) también pudo venir de entre los restos sobrantes de la reforma de la iglesia, por lo que su acarreo no sería costoso ni problemático. Ocio pudo realizar el lavadero evitando licitaciones más onerosas y, por ello, sin tener que recurrir al arquitecto de la Diputación para la traza y visado de la obra.

En esos años, Ocio se vio afectada por otras afecciones de carácter gastro-intestinal, como las que se dieron en los meses estivales de 1865, 1873 y 1878 provocando la muerte de un reducido número de personas vulnerables (ancianos y recién nacidos)[84]. Iniciada la ola

[81] La clausura del cementerio en la ermita de la *Asunción de Nuestra Señora* (actual sede de la Junta Administrativa) para acoger la «casa de beneficencia» se podría retrasar hasta 1851, según se deduce de un documento del Archivo Catedral de Calahorra, Ocio, sign.: 13/20/3.

[82] Echeverría Goñi, P.L.; Tabar Anitua, F.; Vélez Chaurri, J.J.; y Vidal-Abarca López, J., «Ocio» (cap.), *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria*, X (Los valles occidentales entre el Zadorra, el Ayuda y el Inglares. La villa de La Puebla de Arganzón), Vitoria-Gasteiz: Fundación Caja Vital-Kutxa, 2011, p. 426.

[83] Archivo de la Junta Administrativa de Berganzo, Secc. Histórica, Libro de Actas, año 1859, cajas 5, 23 y 29 (trazas de la fuente y del lavadero).

[84] Apellániz González, J.Á., *op. cit.* (2020), p. 176 (y notas 85, 86 y 87).

rri higienista berri batzuk aplikatzeko agindua eman zuen, horien artean honako hau, hitzez hitz: «*Las ropas de coléricos serán lavadas en sitio aparte de la demás, pero antes deberán someterlas a una fuerte colada, […]*»; eta udalei eskatu zien zain zezatela «*[…] porque los habitantes de sus distritos hagan uso de aguas potables para bebida, e inspeccionarán o harán inspeccionar las fuentes públicas, proscribiendo aquellas aguas que puedan ser nocivas para la salud*»; edo «*[…] atención preferente los lavaderos públicos, haciendo que la ropa de los coléricos que no sea quemada y se limpie, se haga en calderas con agua caliente y ceniza, sin omitir ninguna precaución*»[85].

Garbitzaileek, urteko hilabete askotan, beren lan nekezak eguraldi txarraren pean eta askotan begirada indiskretuen pean egin behar izaten zituztenez (gizonak begira), emakumezko erabiltzaileak kexu agertuko ziren behin eta berriz beren senarren eta familien aurrean, eta azken horiek ez zuten zalantzarik izango kexu horiek kontzejuko arduradunei helarazteko. 1908an konpondu nahi izan zen hiriko «garbitegi publiko bakarraren» aire zabaleko egoera: «*Que encontrándose a la intemperie el único lavadero público de esta villa donde tiene que acudir el vecindario de la misma para el labado o limpieza de los enseres o utensilios domésticos, sufriendo a la intemperie los rigores del crudo invierno y los calores del verano, tiene proyectado y acordado este ayuntamiento poner el correspondiente cobertizo o tejado […]*»[86]. 1935ean gaur egunera arte kontserbatu diren «harraskako lauzak» gehitu zizkioten. Lauza horiek ondoko Lacervilla herritik ekarri zituzten. Eta seguruenik Gerra Zibilaren urteetatik eta gerraosteko lehen urteetatik aurrera mantentze lanak egin ez izateak eragin zuen instalazioaren kontserbazio egoera pixkanaka okerrera egitea. Horrexegatik, hain zuzen ere, hauxe erabaki zen, hitzez hitz, 1961ean: «[…] el estado actual es de ruina eminente ya que el tejado y los postes de sostén o poyales se hallan carcomidos o podridos y debido al servicio que tiene destinado dicho inmueble es de urgencia su reparación y más teniendo en cuenta la proximidad del invierno»87. 1961etik aurrera hasi ziren garbitegia konpontzen, estalkiko habe «ustelduak» eta «paldoak» ordeztuko ziren berreraikitako egitura berri bat osatzeko «espainiar erako zertxa» ereduari jarraiki. Lan hori tokiko igeltsero Bibiano Plágarok eraman zuen burura Luis Fernández obra maisuaren jarraibideak betez. Luis Fernándezi une horretan agindu zioten orduan eta gaur egun Ozioko Gizarte Zentroaren (beheko solairuan) eta Administrazio Batzordearen egoitzarena egiten duen eraikinaren fatxada nagusiaren (hegoaldekoa) ekialdeko muturrari atxikitako iturria eratzen duen egitura eraiki zezala. Garbitegiko obra horiek –2022ko esku hartze hau bideratu aurretik burututako azkenak– gutxi gorabehera 15.000 eta 20.000 pezeta bitarteko kostua izan zuten.

epidémica de 1885, la Diputación Provincial adoptó nuevas medidas de carácter higienista, entre ellas que: «*Las ropas de coléricos serán lavadas en sitio aparte de la demás, pero antes deberán someterlas a una fuerte colada, […]*»; el instar a los ayuntamientos a velar «*[…] porque los habitantes de sus distritos hagan uso de aguas potables para bebida, e inspeccionarán o harán inspeccionar las fuentes públicas, proscribiendo aquellas aguas que puedan ser nocivas para la salud*»; o el ser objeto de «*[…] atención preferente los lavaderos públicos, haciendo que la ropa de los coléricos que no sea quemada y se limpie, se haga en calderas con agua caliente y ceniza, sin omitir ninguna precaución*»[85].

La circunstancia de tener que realizar las lavanderas sus duras tareas sufriendo los rigores del clima durante muchos meses del año, así como presentarse también expuestas a las miradas indiscretas (masculinas), bien pudo provocar reiteradas quejas por parte de la comunidad femenina usuaria ante sus esposos y familiares, los cuales no dudarían en trasladárselas a los responsables concejiles. La situación a cielo abierto del «único lavadero público» de la villa se quiso remediar en 1908: «*Que encontrándose a la intemperie el único lavadero público de esta villa donde tiene que acudir el vecindario de la misma para el labado o limpieza de los enseres o utensilios domésticos, sufriendo a la intemperie los rigores del crudo invierno y los calores del verano, tiene proyectado y acordado este ayuntamiento poner el correspondiente cobertizo o tejado […]*»[86]. En 1935 se tiene noticia de la incorporación de las «losas fregaderas» que se han preservado hasta hoy, losas que fueron traídas de la cercana localidad de Lacervilla. Y probablemente, la falta de mantenimiento a partir de los años de la *Guerra Civil* y de los primeros años de posguerra pudo propiciar que su estado de conservación fuese progresivamente a peor. De ahí que en 1961 se determinase que «*[…] el estado actual es de ruina eminente ya que el tejado y los postes de sostén o poyales se hallan carcomidos o podridos y debido al servicio que tiene destinado dicho inmueble es de urgencia su reparación y más teniendo en cuenta la proximidad del invierno*»[87]. La reparación del lavadero realizada a partir de 1961 debió sustituir los «poyales» junto con restos de vigas «podridas» de la cubierta para componer una nueva estructura reconstruida de «cercha a la española». Fue realizada por el albañil local Bibiano Plágaro siguiendo las directrices del maestro de obras Luis Fernández, quien en ese mismo momento había sido encargado de realizar el cuerpo que constituye la fuente adosada al extremo oriental de la facha principal (meridional) del edificio que entonces y ahora sirve de Centro Social (planta baja) y de sede de la Junta Administrativa de Ocio. Estas obras para el lavadero —las últimas de cierta envergadura antes de la actuación presente (2022)— tuvieron un costo estimado entre las 15.000 y 20.000 pesetas.

---

[85] Neurri horiek Gasteizko Udalbatzaren bilkura berezi batean onartu zituzten, eta 1885eko abuztuaren 2ko *El Anunciador Vitoriano* kazetan (1.164. zk.) argitaratu ziren, 1-2. or. (6., 13. eta 14. artikuluak), Ramos Calvo, P.M., «*La epidemia de 1885: medidas adoptadas y desarrollo de la misma*» (kap.), El Cólera en Álava (Azterlanak bilduma, 14), Gasteiz: AFA, 1986, 116. eta 118. or.

[86] Arabako Lurralde Historikoko Agiritegia, Sek. Historikoa, sign.: D.A.H. 3.802-19, 1908. urtea.

[87] Ozioko Administrazio Batzordearen Artxiboa. Sekzio Administratiboa, 3. kaxa, 45. zenbakiko espedientea, 1961.

[85] Medidas adoptadas en una sesión extraordinaria del Ayuntamiento de Vitoria, publicadas en *El Anunciador Vitoriano,* núm. 1.164, 1885 (2 de agosto), pp. 1-2 (Artículos 6.º 13.º y 14.º), ap. Ramos Calvo, P.M., «La epidemia de 1885: medidas adoptadas y desarrollo de la misma» (cap.), *El Cólera en Álava* (col. Azterlanak, 14), Vitoria: DFÁ, 1986, p. 116 y 118.

[86] Archivo de Territorio Histórico de Álava, Secc. Histórica, sign.: D.A.H. 3.802-19, año 1908.

[87] Archivo de la Junta Administrativa de Ocio, Sección Administrativa, caja 3, expediente núm. 45, 1961.

Konklusioa

Bi faktore tekniko edo posibilista hartu behar dira kontuan landa inguruneetan garbitegiak egiteko: alde batetik, herrigunetik hein batean hurbil egotea; eta bestetik, instalazioa hornitzeko ur iturri, iturburu edo erreka bat egotea. Faktore horiei osasungarritasunari buruzko sentipen berriaren ondoriozkoa gehitu beharko litzaieke[88], baita, jarrera higieneari eta erosotasunari dagokienez, tokiko eta udaletako agintariek garbitegien erabiltzaileei begira ezarritako neurriak ere. Ozion faktore horiek bat egin zuten garbitegia herriaren kanpoaldeko bide baten ondoan eraikitzeko, eta erabaki hori ez zen inola ere arbitrarioa izan.

Garbitokiak, hala nola Oziokoa, garrantzi txikikoak dira eraikitako ondarearen ikuspegitik. Halere, interesgarriak dira landa eremuko ondare elementuen artean ezaugarri morfologiko eta tipologiko bereziak dituztelako, eta haien aurreko interesa ez delako iraganeko funtzionaltasunera eta erabilerara mugatzen; gainera, eraikuntza forma berezi batzuk adierazten dituzten lekuak dira, balio sinboliko eta immaterial bati eusten diote, eta leku askotan oraindik ere herrien memoria kolektiboan gordetzen dira. Espazio pribilegiatu eta esklusibo gisa funtzionatu zuten, eta horietan beren arteko harremanak sendotzen zituzten emakumeek. Ildo horretan, geure egiten ditugu emakume ikertzaile batzuek garbitegiei buruz idatzitako ideiak: «*Ser consciente de su significado y potencialidad, permitirá recuperar sus valores, lo que muchas veces implicará recuperar el hecho físico del lavadero y esto debería hacerse respetando el concepto, las formas y el espacio entorno a él generado. Recuperar estas obras significa recuperar las señas de identidad del grupo humano que les dio sentido. Por ello, las tareas de conservación y/o rehabilitación deben ser rigurosas y planeadas por profesionales, es el único modo de evitar las actuaciones bienintencionadas pero desafortunadas que con la única premia de consolidar lo construido introducen materiales, tipos y formas que poco tienen que ver con las buenas prácticas de la rehabilitación*»[89].

Conclusión

La formalización de lavaderos en los entornos rurales viene determinada por dos factores de carácter técnico o posibilista: de una parte, la relativa proximidad al núcleo de población; de otra, la existencia de una fuente de agua, manantial o arroyo, que sirviese a la instalación. A estos factores habría que sumar el derivado del nuevo sentir en cuestiones de salubridad[88] así como en asuntos de higiene postural y comodidad de sus usuarias por parte de las autoridades locales y municipales. En Ocio, estos factores confluyeron para que la construcción del lavadero se realizara junto a un camino a las afueras de la localidad, una decisión en absoluto arbitraria.

Los lavaderos, como éste de Ocio, son construcciones de entidad menor desde el punto de vista del patrimonio edificado. Sin embargo, no sólo atesoran interés por sus características morfológicas y tipológicas dentro de los elementos patrimoniales del ámbito rural, ni su interés queda restringido a su funcionalidad y utilidad pasada; también son lugares que expresan unas formas constructivas singulares y que retienen un valor simbólico, inmaterial, que en muchos lugares aún permanece en la memoria colectiva de los pueblos. Funcionaron como espacios privilegiados y exclusivos donde la población femenina afianzaba su sociabilidad. En este sentido –y haciendo nuestras las ideas que pusieron por escrito algunas investigadoras sobre lavaderos–, «*Ser consciente de su significado y potencialidad, permitirá recuperar sus valores, lo que muchas veces implicará recuperar el hecho físico del lavadero y esto debería hacerse respetando el concepto, las formas y el espacio entorno a él generado. Recuperar estas obras significa recuperar las señas de identidad del grupo humano que les dio sentido. Por ello, las tareas de conservación y/o rehabilitación deben ser rigurosas y planeadas por profesionales, es el único modo de evitar las actuaciones bienintencionadas pero desafortunadas que con la única premia de consolidar lo construido introducen materiales, tipos y formas que poco tienen que ver con las buenas prácticas de la rehabilitación*»[89].

J.Á. Apellániz González

---

88 «*Las normas higienistas dictadas por la Ilustración contribuyeron a partir de las primeras décadas del siglo XIX a experimentar un cambio significativo en las formas y en los medios de ofrecer al vecindario la manera más cómoda y sana en el abastecimiento de agua potable. Se buscaba concentrar los servicios y acercarlos o introducirlos dentro del caserío. Factores como la localización topográfica de los manantiales y del pueblo, la mayor o menor dificultad en la conducción del agua, los recursos económicos disponibles, influyen en la elección del lugar donde instalar los tres servicios (fuentes, abrevaderos y lavaderos)*». Palacios Mendoza, V.; eta Rodríguez Fernández, J., op. cit. (2008), 195. or.

89 *Ikus* Ruiz Bedia, M.; Morante Díaz, P.; eta Ruiz Pardo, C., *op. cit*. (2011), 1.265. or.

88 «*Las normas higienistas dictadas por la Ilustración contribuyeron a partir de las primeras décadas del siglo XIX a experimentar un cambio significativo en las formas y en los medios de ofrecer al vecindario la manera más cómoda y sana en el abastecimiento de agua potable. Se buscaba concentrar los servicios y acercarlos o introducirlos dentro del caserío. Factores como la localización topográfica de los manantiales y del pueblo, la mayor o menor dificultad en la conducción del agua, los recursos económicos disponibles, influyen en la elección del lugar donde instalar los tres servicios* (fuentes, abrevaderos y lavaderos)». Palacios Mendoza, V.; y Rodríguez Fernández, J., op. cit. (2008), p. 195.

89 *Cfr.* Ruiz Bedia, M.; Morante Díaz, P.; y Ruiz Pardo, C., *op. cit.* (2011), p. 1.265.

A.28. ZIGOITIA

A.28.1. Atxarrateko harrobia

Zuzendaritza: Juanjo Hidalgo
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.28.1. Cantera de Atxarrate

Dirección: Juanjo Hidalgo
Financiación: Diputación Foral de Álava

The intervention in Atxarrate quarry, located in the mountains to the north-west of Murua (Zigoitia), in the Gorbeia Nature Reserve, aimed to increase our existing knowledge of this type of stone extraction and working area, the methodology used by stonemasons and the products manufactured.

Javier Castrok (Aranzadi Zientzia Elkartea) gidatzen duen Errotarri proiektuaren baitan biltzen da esku hartze hau, eta hainbat mendialdetan errotarriak ateratzeko harrobi guneak miatzea eta katalogatzea ditu xede. Ildo horretan, oso lagungarria da arkeologia erauzketa gune horiek, piezak lantzeko tailerrak, harginek aplikatutako metodologia, erabilitako tresnak eta landutako produktuak hobe ezagutzeko.

Atxarrate 1 izeneko aurkintzan dago kasu honetan aukeratutako harrobia, Gonga mendiaren hegoaldeko hegalean, gutxi gorabehera 850 m-ko garaieran, Murua herriaren (Zigoitia) ipar-mendebaldean, Gorbeiako Parke Naturalaren barruan. Hainbat erauzketa gunetan mailakatutako harrobia da, eta erauzketa fronte horiek pendizaren perpendikularrean daude, hau da, sestra mailen paraleloan ez baizik eta perpendikularrean. Ondorioz, luzetarako ebakien formako paisaia eratu da, ebaki horiek, 3 eta 4 bitarte, bata bestearen segidan egokituta daudelarik maila desberdinetan; ez dira oso sakonak, nahiz eta guztietan nabaritzen den erauzketaren arrastoa. Maila desberdin horiek zeharkako ezpondek bereizten dituzte lekuko gisa, desegin gabe uzten dira materialak zamatzeko nasaren funtzioak bete ditzaten eta material horiek ustiategiaren hondoraino lerratu ez daitezen.

Gainazalean ikus daitekeenez, bertan errotarriak landu dira, agian baita zorroztarriak eta eraikuntzarako elementuak ere, hala nola ate eta leihoburuak, harlanduak, arkuko giltzarriak, etab. Kalitate bikainekoa zen materiala, eta hala denean askotariko eskaerei erantzun diezaieke produkzioak; itxura guztien arabera halaxe izan zen.

Jarduera arkeologikoaren emaitzak

Ingurune malkartsua, pendiza, arroka solteen ugaritasuna eta abandonatutako erauzketa gune horiek estaltzen dituen landaredia nahaspilatua ez dira arazo txikiak esku hartze arkeologiko bat bertatik bertara egin behar denean. Gainera, bagenekien oso mehea izango zela lodiera estratigrafikoa, hala izaten baita arrokak gainazalean edo landare geruza mehe baten azpian azaleratzen diren lur hauetan. Eta halaxe izan da, oraindik ere blokeen azpian dauden harriaren lanketatik etorritako hondakinak biltzen dituen betegarri aldeetan izan ezik. Hala eta guztiz ere, harrobiko gune batzuetan esku hartzeko erabakia hartu genuen jarduera baloratzeko eta harginek erabilitako metodologia ulertzeko. Hala bada, iparraldean txabola baten hondakinak eta lodiera apaleko harrobi fronte bat izan ditugu aztergai; tarteko gunean aztarna arkeolo-

La presente intervención se enmarca dentro del proyecto Errotarri que dirige Javier Castro (Sociedad de Ciencias Aranzadi), y que trata de prospectar y catalogar las zonas de cantera para la extracción de piedras de molino en diferentes espacios de montaña. En este sentido, la arqueología es de gran ayuda para profundizar en el conocimiento de estas zonas extractivas, de sus talleres de trabajo, de la metodología empleada por los canteros, de las herramientas empleadas y de los productos elaborados.

La cantera elegida en esta ocasión se sitúa en el paraje denominado Atxarrate 1, en la ladera sur del monte Gonga, a unos 850 m de altitud y al noroeste de la población de Murua (Zigoitia), dentro del Parque Natural de Gorbeia. Se trata de una cantera escalonada en varias zonas de extracción, cuyos frentes son perpendiculares a la pendiente, es decir, a las curvas de nivel, y no paralelos, lo que configura un paisaje en forma de barrancadas longitudinales, contiguas unas a otras, y a diferentes niveles, entre 3 y 4, no demasiado profundos, aunque la huella de extracción es en todos ellos apreciable. Estos diferentes niveles se dividen entre sí por taludes transversales que, a modo de testigos, se dejan sin desmantelar para desempeñar funciones de muelles de carga que faciliten la carga de los materiales y eviten descender al fondo de la explotación.

Por lo que se aprecia en superficie, se han elaborado piedras de molino, quizá también afiladeras, además de elementos de construcción como dinteles, jambas, sillares, claves de arco, etc. La materia prima era de excelente calidad, y cuando esto ocurre, la producción puede cubrir múltiples demandas, como así parece que fue.

Resultados de la actuación arqueológica

La escabrosidad del lugar, la pendiente, la abundancia de roca suelta y la enmarañada vegetación que cubre estos espacios de extracción abandonados, no son un problema menor a la hora de acometer una intervención arqueológica *in situ*. Sabíamos, además, que la potencia estratigráfica sería muy escasa, algo propio de estos terrenos con afloramientos de roca en superficie o bajo un pequeño manto vegetal, y así ha sido, salvo en las zonas con relleno de restos de talla que aún permanecen bajo los bloques. Pero, con todo, decidimos intervenir en diferentes zonas de la cantera para valorar la actividad y entender la metodología empleada por los canteros. Así, en la zona norte nos hemos centrado en los restos de una chabola y en un frente de cantera de escasa potencia; en la zona intermedia hemos estudiado una covacha natural que no ha proporcionado restos arqueológicos; y en la

gikoak eskaini ez dituen harpe txiki bat aztertu dugu; eta hegoaldean, gune garrantzitsuenean, harrobiko fronte batean, materiala zamatzeko nasa batean eta tailerrean lan egin dugu. Jarraian azalduko ditugu emaitzak.

Hegoaldeko zama lanetarako nasa eta tailerra

Harria erauzteko lubakian bertan, erreka batek eragindako ebaki batekin inolako zerikusirik ez duen sakonune handi batean dago, eta sakonune hori gizakiaren eskuak sortua da. Sakonunea zubi trinko antzeko baten bidez eteten da, zeiharrean egokitzen da, eta alderik alde ixten du sakonunea. Hasiera batean pentsatu genuen lur eremuko lekukotasun bat izan zitekeela, berariaz utzitakoa, materialak zamatzeko nasa gisa erabiltzeko eta haranera garraiatzeko xedearekin.

Aztertu beharreko espazioa 7 m luze da (ekialdetik mendebaldera) eta 5 m zabal (iparraldetik hegoaldera), eta beraz, gutxi gorabehera 35 m^2-ko azalera hartzen du. Alde luzeak ustiategiaren iparraldetik hegoalderanzko ardatzaren perpendikularrean daude, alderik alde zeharkatzen dute, eta alde laburrak ezpondaren goiko aldera moldatzen dira garraio baliabideak, hala nola orgak, narrak eta lor abereak, ustezko karga nasara irits zitezen ahalbidetzeko.

Landare geruzaren azpian tamaina eta forma askotako hareharrizko blokeez osatutako betegarri bat azaltzen da, batzuk besteen gainean jarrita, harriaren lanketatik etorritako hondakin txikiekin. Betegarri horrek kargalekuaren azalera osoa hartzen du, eta bertako oinarri nagusia eratzen du. Esku hartze hau gunea garbitzera eta egokiera hori aztertzera mugatu da, egitura desmuntatu gabe, eta argi eta garbi ikusi ahal izan dugu materiala zamatzeko nasa horri horma lodi batek eusten diola hegoaldetik, 7,3 m luze dela eta bi ertzetako ezpondak lotzen dituela. Bloke handiek eratzen dute horma hori, bloke horietatik hiru 150 cm baino luzeagoak dira eta 50-100 cm bitarte zabal. Oso elementu handiak dira, ondoko harrobi frontetik erauziak eta ekialdetik mendebalderako norabidean egokituak, harri amak erakusten duen norabidearen kontrakoan. Datu oso hori

zona sur, la principal, hemos intervenido en un muelle de carga y taller, además de en un frente de cantera, cuyos resultados pasamos a describir.

Zona sur muelle de carga y taller

Se sitúa en la misma trinchera de extracción de piedra, una amplia depresión que nada tiene que ver con la barrancada de un arroyo, sino con la intervención humana. Dicha depresión se interrumpe mediante una especie de puente macizo que, dispuesto de manera transversal, cierra la hondonada de lado a lado. En un principio pensamos que podría tratarse de un testigo natural del terreno dejado deliberadamente, con el fin de usarlo como muelle de carga para facilitar el transporte de los materiales al valle.

El espacio a intervenir es de 7 m de largo (E-W) por 5m de ancho (N-S), con una superficie aproximada de unos 35 m^2. Los lados mayores son perpendiculares al eje N-S de explotación, que atraviesan de lado a lado, mientras que los menores se adecúan a la parte alta del talud para facilitar la entrada en el presunto muelle de carga de los diferentes medios de transporte, bien carros, narras o animales de tiro.

Por debajo de la capa vegetal aparece un relleno de bloques de piedra arenisca de diferente tamaño y forma, superpuestos unos sobre otros, con restos de talla menuda, que ocupa toda la superficie del cargadero, conformando la base principal del mismo. La intervención se ha limitado a limpiar y estudiar dicha disposición, sin desmantelar la estructura, y hemos podido ver que el muelle de carga está contenido por un grueso muro de 7,3 m de largo en el lado sur, uniendo los taludes de ambas orillas. El muro está integrado por grandes bloques, de tal manera que tres de ellos superan los 150 cm de longitud por 50-100 cm de anchura. Son elementos ciclópeos, extraídos del cercano frente de cantera y dispuestos en sentido E-W, el contrario del que presenta la roca madre. Es interesante este dato porque en un inicio pensábamos



Materiala zamatzeko nasako harrizko blokeak agerian (Argazkia: E. Arberas).

Bloques de piedra del muelle de carga a la vista (Foto E. Arberas).

interesgarria da, hasiera batean uste baikenuen materiala zamatzeko nasa lekukotasun natural bat zela, harginek berariaz utzitakoa kargaleku gisa erabiltzeko. Baina behin horma hori aztertu genuenean argi eta garbi ikusi genuen ez zela berezko lekukotasun bat, izan ere, horma sendo bat eraiki zuten aipatutako kargalekua eratuko zuen lur eta blokeez osaturiko betegarriari eusteko horma bularrarena egin zezan. Eustorma hori izan ezean berehala higatuko zen kargalekua.

Hormak arrakala bat du hego-ekialdeko herenean, eta bertan argi eta garbi ikusten da bloke batzuk beren jatorrizko lekuetatik mugituta daudela; lekualdaketa horren arrazoia 81 mm-ko Valero morteroz jaurtitako jaurtigai hondakin baten aurkikuntzari esker argitu genuen, jaurtigai horren inpaktuak eta eztandak eragin baitzuten arrakala hori horman, bloke handiak lekuz aldatuz. Ez zen Gerra Zibilean erabilitako artefaktu bat izan, XX. mendeko hirurogeigarren urteetan Gasteizko Arakako kuartel militarrean zeuden soldaduek egindako tiro ariketen ondorioa baizik. Izan ere, Gorbeiako Parke Naturaleko sektore oso horretan, Zigoitiko udalerriko udal barrutian, hainbat urtez egin zituzten gisa horretako maniobra militarrak, sute asko eragin zituzten basoan, eta suntsitu egin zuten ondare txiki horren zati bat. Ez dira gutxi lur eremuan bereizten diren sakonune txiki zirkularrak eta obalatuak, inguruetan metraila asko dutenak eta inpaktu horiek emaitzak direnak. Esan beharra dago hormako arrakala hori ez zutela konpondu, ez baita inolako konponketarik antzematen, baina inpaktuak eragindako kalteek zaildu egingo zuten kargalekuaren ohiko erabilera. Horrexegatik ondorioztatu daiteke XX. mendeko hirurogeigarren urteetarako ez zutela harrobi fronte hori ustiatzen, eta baliteke jarduera hamarkada batzuk lehenagotik abandonatuta egotea, agian XX. mende hasieratik.

Aitzitik, ez dago eustormarik materiala zamatzeko nasaren iparraldean, alde horretan sakonunerantz jaisten den ezponda arin bat baitago blokeak ondoko harrobi frontetik kargalekura eta harriak lantzeko tailerrera igotzeko lana errazteko. Eta hain zuzen ere kargalekuaren ekialdean harriaren lanketatik etorritako printzez eraturiko betegarri garrantzitsu bat aurkitu dugu, eta itxura batean blokeak lantzeko tailerrari dagozkio harri printza horiek. Beraz, leku horrek erabilera bikoitza izan zuen, bertan zamatuko ziren piezak eta bertan landuko zituzten. Betegarri horretan harriaren lanketatik etorritako printzak daude, tamaina eta forma askotakoak, batzuk finak eta luzeak, beste batzuk lodiagoak, tarte ahur edo ganbil markatuarekin, gehien-gehienak triangeluarrak, eta gehienak 5 eta 15 cm bitarte luze; piezak zizelaz eta pikotxaz lantzetik askatutako hondarrak dira. Izan ere, zehazten zailak diren denbora tarte jarraituetan, mende batzuk har ditzakeen denbora bitartean, *in situ* bideratutako hargintza lanaren hondakinak dira horiek guztiak.

Hegoaldeko harrobi frontea


Aztergai izan berri ditugun kargalekutik eta tailerretik iparraldera metro gutxi batzuetara dago harrobi frontea. Bertan eta denboran zehar etengabe bideratutako lanen ondorioz ebaki handi bat sortu da, haren luzeran zehar hainbat erauzketa fronte dituelarik, eta sakonune handi bat erdialdean, harrobiko lanetatik etorritako blokeez eraturiko betegarriarekin. Harrobi fronte hori zorroztasunez aztertu dugu: bertako arroka trinkoak eta ez oso hauskorrak estratu lodiak sortzen ditu, pieza handiak ateratzeko eta lantzeko modukoak, que el muelle de carga era un testigo natural que, de manera intencionada, habían dejado los canteros para su uso como cargadero, pero una vez estudiado el citado muro, pudimos comprobar que, lejos de ser un testigo, habían construido un potente muro para hacer de contrafuerte del relleno de bloques y tierra que constituiría dicho cargadero, y sin cuya existencia se habría erosionado con suma rapidez.

El muro presenta una brecha en el tercio SE, donde se aprecia que alguno de los bloques había sido desplazado de su posición original, y la causa de dicha dislocación, la hallamos gracias a la aparición de un resto de proyectil, un mortero Valero de 81 mm, cuyo impacto y estallido había provocado la brecha en el muro y el consiguiente desplazamiento de los grandes bloques. No se trataba de un artefacto utilizado en la Guerra Civil, sino en prácticas de tiro llevadas a cabo en la década de los sesenta del siglo XX por las compañías acuarteladas en la base militar de Araca, en Vitoria-Gasteiz. De hecho, todo este sector del Parque Natural de Gorbeia, perteneciente al municipio de Zigoitia, había sido objeto de este tipo de maniobras durante varios años, provocando frecuentes incendios en el bosque y destruyendo parte de este patrimonio menor. Frecuentemente aparecen pequeñas depresiones circulares y ovaladas en el terreno, fruto de estos impactos, con gran cantidad de metralla en los alrededores. Hay que decir que la brecha del muro no fue reparada, no se advierte ninguna refacción en la misma, y los daños ocasionados por el impacto habrían dificultado el uso habitual del cargadero. Por ello, se puede concluir que para los años sesenta del siglo XX ya no estaba en uso la explotación del frente de cantera, y es probable que la actividad fuese abandonada varias décadas atrás, quizá desde inicios de siglo.

Al contrario, el lado norte del muelle de carga no presenta muro de contención, sino un talud suave que desciende hacia la hondonada para facilitar la subida de bloques al cargadero y taller de labra desde el cercano frente de cantera. Y precisamente, en el lado oriental del cargadero, hemos descubierto un importante relleno de lascas de talla que parece obedecer al taller de labrado de los bloques, lo que determinaría un doble uso del lugar, tanto como cargadero de piezas como de elaboración de las mismas. Dicho relleno contiene esquirlas o lascas de talla de diferente tamaño y forma, algunas finas y alargadas, otras más gruesas, con acusada parte cóncava o convexa, mayormente triangulares y de entre 5 y 15 cm de longitud la mayoría de ellas, desprendidas del labrado de piezas a cincel y pico. En realidad, son desechos del trabajo de cantería realizado *in situ* durante períodos continuados en el tiempo difíciles de determinar, pero que podrían abarcar varios siglos.

Zona sur frente de cantera

En relación con el muelle de carga y taller que acabamos de comentar, unos metros más al norte, se abre el frente de cantera donde los trabajos continuados a lo largo del tiempo han abierto una importante barrancada, con frentes de extracción a lo largo de la misma y una buena hondonada al centro con relleno de bloques fruto de la actividad en la cantera. Dicho frente de cantera ha sido sometido a estudio pormenorizado, cuya roca de naturaleza compacta y poco quebradiza da lugar a una potencia de estratos suficiente como para extraer y labrar



Ezkerrean, kargalekutik begiratuta, harrobi frontearen eta materialen erauzketak eragindako ebakiaren ikuspegia. Eskuinean, karga nasan eta hegoaldeko harrobi frontean bideratuko zen lanaren birsortze ideala (Ilustrazioa: Sergio Díez).

A la izquierda, desde el cargadero, vista del frente de cantera y de la barrancada originada por la extracción de materiales. A la derecha, recreación ideal del trabajo en el muelle de carga y frente de cantera en zona sur (Ilustración Sergio Díez).

hala nola bao buruak, harrizko zoruak egiteko piezak eta errotarriak egiteko adinakoak errota hidraulikoen eskaerari erantzuteko, ebakiaren oinetan aurkitutako errotarriak egiaztatzen duen bezala.

Erauzketaren ondorioak ongi asko antzematen dira harginek bi norabidetan aurrera egin ahala, edo ebakia luzatuz (iparraldetik hegoaldera) edo zabalduz (ekialdetik mendebaldera), harrobi frontearen atzerakadan. Arrokaren hausturan zailagoak dira arrasto fisikoak antzematen. Haustura horiek baliabide mekanikoak erabiliz egin ziren, edo altzairuzko barrak, palankak eta ziriak erabiliz. Barrak eta palankak giza indarraz mugitzen dira, arrokan dauden zirrikituak eta diaklasak aprobetxatzen dituzte, horizontalak zein bertikalak, tresna horiek zirrikituetan sartzeko eta hura zabaltzeko eta blokearen haustura eragiteko, behera botatzeko eta han, eskatutako produktuaren arabera ebakitzeko eta lantzeko. Harrobi frontean ez dugu ziri markarik identifikatu, agian diaklasa naturalak barrekin lan egiteko eta zuzenean arrokaren haustura eragiteko bezain zabalak direlako. Eta ez dugu bolbora edo dinamita erabiltzeko barrena zuloen arrastorik antzeman, Gorbeiako beste harrobi batzuetan egiaztatutako formula oso eraginkorra den arren.

Iparraldeko txabola

Txabola batetik kontserbatutako aztarnak dira. Segur aski harginek erabiliko zuten kontuan hartzen badugu non dagoen, ustiategiaren goiko aldean, baina baliteke basomutilek eta bereziki ikazkinek erabili izana. Txabolak ia osorik kontserbatu ditu hormak, baita alde laburretakoak ere, horien gainean bermatzen zelarik gailurreko habea. Hormetatik behera etorritako harri gutxi batzuk alde batera utzirik, egiturari ongi eutsi diola esan daiteke, baina ez teilatuari, testuinguru honetan landare materialez eginda egoten baitziren teilatuak txapa eta uralita iritsi eta XX. mendearen erdialdetik aurrera halako estalkiak nagusitu ziren arte. Txabola 3,20 m x 2,50 m da kanpoaldean, eta 2,45 m x 1,45 m barrualdean. Hegoaldean du sarrera bakarra, 55 cm zabal da, eta kontserbatu ez duen altuera 90 cm ingurukoa zen. Hormak 47-50 cm bitarteko lodiera kontserbatzen du, hargrandes piezas, incluidos dinteles para sobre vanos y piedras soleras y volanderas para abastecer la demanda de los molinos hidráulicos, según se constata con el hallazgo de una de ellas a pie de corte.

Las consecuencias del arranque se perciben en el retroceso del frente a medida que los canteros avanzaban en un doble sentido, bien prolongando la barrancada (N-S), bien haciéndola más ancha (E-O). Más difíciles de ver son las huellas físicas en la fractura de la roca, realizado con medios mecánicos, empleando barretas de acero, palanquetas y cuñas. Tanto las barretas como las palanquetas se mueven con fuerza humana, que aprovechan las hendiduras y diaclasas de la roca, tanto horizontales como verticales, para introducir dichas herramientas, abrir más aun la grieta, y forzar la ruptura del bloque para tirarlo abajo y cortarlo o labrarlo según la demanda del producto en cuestión. No hemos encontrado en el frente marcas de cuñeras, debido, quizá, a que las diaclasas naturales son lo suficientemente anchas como para trabajar con las barretas y forzar directamente la ruptura de la roca. Tampoco hemos hallado huellas de barrenos para el uso de pólvora o dinamita, una fórmula muy eficaz que sí hemos constatado en otras canteras de Gorbeia.

Zona norte de chabola

Se trata de los restos conservados de una chabola, previsiblemente utilizada por canteros, a juzgar por el lugar en que se encuentra, dentro de la zona alta de explotación, aunque no se puede descartar que haya sido utilizada por leñadores y carboneros especialmente. La chabola mantiene los muros bastante enteros, incluidos los lados menores, sobre los que apoyaba la viga cumbrera. Se puede decir que, salvo algunas piedras caídas de las paredes, conserva bien la estructura a excepción de la techumbre que, en este ambiente, siempre era de materiales vegetales hasta la llegada de la chapa y la uralita, cuyo uso se generalizó desde mediados del s. XX. Sus medidas exteriores son de 3,20 m x 2,50 m, y las interiores de 2,45 m x 1,45 m. El único acceso practicado se abre al sur, con un ancho de 55cm y una altura no conservada en torno a los 90 cm. El muro conserva un

langaitzezkoa da, piezak lehorrean ipiniak, eta oinarriak zuzenean hartzen du atseden harri amaren gainean

Txabola guztiz estaltzen zuen landare geruza altxatu ondoren, hormetatik behera etorritako harriez osatutako betegarria, teilatua eratuko zuten uralita zati batzuk biltzen zituena, altxatzen hasi ginen. Inolako zalantzarik gabe, uralitazko teilatua konponbide erraza izango zen XX. mendearen lehen erdian edo mendearen erdialdean, eta ziur gaude txabola honetako azken teilatua uralitazkoa izan zela behin betirako abandonatu zuten arte.

Betegarri horren azpian txabolako zoru erabilgarria aurkitu dugu, lur beltzaxkako geruza (302. UE), hareharri silizeodunez eta zoruak hamarkadatan zehar jasotako materia organikoez osatua, materia organiko horiexek direlarik kolore ilunaren erantzule. Unitate estratigrafiko horretan bertan, txabola barruan, hegoaldeko hormaren oinetan, prestatu gabeko sutondo bat (303. UE) aurkitu dugu, hau da, zulorik gabeko sutondo bat, inguruan harririk gabea. Ikatz hondakin batzuk zituen, pilaketa bat osatu gabe, errauts soberakinak egunero garbituko baitzituzten. Horma apur bat erreta eta belztuta dago sugarren ondorioz.

Hormak perimetro osoan aztertuta ondorioztatu dezakegu txabola osoa obra bakar baten emaitza dela, ez baita ez eraikuntza faserik ez konponketa argirik hautematen. Hormak tokiko harlangaitzez eginda daude, aurpegi lauko pieza lauangeluarrekin, oso egokiak lehorrean ipintzeko. Hegoaldeko horman dago txabolara sartzeko sarrera bakarra, 90 cm x 55 cm-ko argiarekin eta 50 cm-ko zabalerarekin. Ildo horretan, barrura sartzeko zailtasuna aipatu behar dugu, sartzeko edo irteteko makurtu egin behar baita. Esan behar da gisa horretako sarrera deserosoak arrunt samarak direla txabola tradizionaletan, bai artzainen txaboletan bai

grosor de 47-50 cm, construido en mampostería seca, y la base asentada directamente sobre la roca madre.

Tras descubrir la capa vegetal que la cubría por completo, procedimos a levantar el relleno de piedras procedentes del derrumbe de los muros, con intrusiones de algunos trozos de uralita que habrían formado la techumbre. Sin duda, la cubrición de uralita debió constituir una fácil solución en la primera mitad del siglo XX, quizá de mediados del mismo, y con toda seguridad, supuso el último techo de la chabola hasta su abandono definitivo.

Bajo este relleno hemos encontrado el suelo de habitación de la chabola, consistente en una capa de tierra negruzca (UE.302) compuesta de arenisca silícea y la materia orgánica asimilada por el suelo durante décadas, responsable del mencionado color oscuro. En esta misma unidad estratigráfica hemos localizado, en la base del muro sur al interior de la chabola, un hogar (UE.303) sin preparación, es decir, sin hoyo ni piedras alrededor. Presentaba algunos restos de carbones, pero sin formar montón, ya que el exceso de ceniza se habría limpiado a diario. El muro se ha visto ligeramente rubefactado y ennegrecido por efecto de la llama.

El estudio de los muros en todo su perímetro, nos ha permitido concluir que pertenece todo ello a una misma obra, sin fases ni refacciones claras, realizados en mampostería del lugar, a base de piezas cuadrangulares de caras planas, muy adecuados para construir en seco. En el muro sur se ha practicado el único ingreso al interior, de 90cm x 55cm de luz y un ancho de 50cm. En este sentido, debemos valorar la dificultad de acceso al interior, que obligaba a la persona a caminar agachada tanto para entrar como para salir. Debemos añadir que no son inhabituales este tipo de accesos incomodos en las chabolas tradicionales, tanto de pastores como de carboneros. A lo largo del siglo XX se fue teniendo en cuenta esta circunstancia y



Goi-ezkerrean, ate edo leihoburu bat izateko prestaketa fasean dagoen blokea; eskuinean, harlanduzko blokea, arku bateko giltzarriarena egitekoa. Behe-ezkerrean, zorroztarri bat izateko prestaketa fasean dagoen blokea; eskuinean, errotarri bat izateko prestaketa fasean dagoen blokea.

Arriba a la izquierda, bloque en preparación para dintel, a la derecha, bloque sillar para clave de arco. Abajo a la izquierda, bloque en preparación para piedra afiladera y a la derecha, bloque en fase de trabajo para piedra molera.

ikazkinenetan. XX. mendean zehar aintzat hartu zen inguruabar hori, eta hobetzen hasi ziren irisgarritasuna, sarrerak altueran eta zabaleran egokituz. Horrela, sarrera berriak oro har etxolaren alde luzeetako batean irekiko zituzten, eta abandonatu egin zituzten horma laburretan irekitako ateak. Txabolaren bi alde luzeetan forma irregularreko bloke handiak erabili zituzten oinarria egiteko, ondoko harrobi frontetik atera zituzten pieza horiek, eta zuzenean ipini zituzten landu gabe. Azkenik, iparraldeko hormak edo horma pikoak 90 cmko altuera eta harlangaitzez osatutako zortzi errenkada kontserbatu ditu. Era berean, horma pikoaren zati triangeluarra kontserbatu du, haren gainaldean bermatuko zen gailurreko habearen muturretako bat. Baina parez pareko hegoaldeko horma pikoan ez da horrelakorik kontserbatu, ateburuak ere ez dio denboraren joanari eutsi, alde hori egituraren ikuspegitik ahulagoa baita atearen baoa biltzen duelako.

Lur beltzaxkako geruzaren azpian hareharrizko arrokaz eratutako substratu naturala azaltzen da, haren gainean bermatzen da txabola. Substratu natural horretan zati batzuk zizelkatuko zituzten harrizko lehen errenkadak hobe egokitzeko. Inolako zalantzarik gabe, hurrengo espazioan aztertuko dugun harrobiko frontearen jarraipena da substratu hori.

Iparraldeko harrobi frontea

Txabolatik ekialdera metro batzuetara zabaldi ez oso handi bat dago. Agian harria lantzeko gune bat zen, hain justu errenkaden arabera ustiatzen ari ziren erauzketa fronte baten oinean. Fronte hori erauzten hasi berria zen, eta beraz, eragin txikia izan zuen ingurumenean.

Tokiak ilargi erdi bat itxuratzen du, fronte garaiena iparralderantz, gutxi gorabehera bi metroko desnibelarekin ezpondan, eta hustuago hegoalderantz, ekialderantz eta mendebalderantz, plaza baten itxura emanez, erdialdean sakonune bat duela: bertan antzematen dira aprobetxatu ez zituzten bloke solteak.

Alde horretan landare geruza altxatu genuen harrobi frontea eratu zuen harrizko substratua ikusteko (401. UE). Horretarako, ezponda forman hozkatu genuen fronte hori harrizko blokeak ateratzeko. Ildo horretan, manipulazio antropikorik gabeko eta interes arkeologikorik gabeko harri ama naturala eta substratu naturala bereizi behar ditugu, azken horretan jarduera antropikoak identifikatu baitira, kasu honetan bezala. Gainera, harria hausteko metodologia ezagutzeko aztergaia izan daiteke substratu natural hori, nahiz eta ziurrenik burdinazko barrak eta palankak erabiliko zituzten substratu naturalean berez irekitako zirrikituetan sartzeko eta harri blokeak erauzteko.

Konklusioak

Zeramikaren atariko azterketaren arabera, IX. eta X. mendeen arteko kronologia iradokitzen dute datuek. Arabako Erdi Aroko zeramikaren azterketa konparatiborako obra nagusian, Jose Luis Solaunek gure zeramikaren azterketatik eratortzen diren ehunekoen oso antzekoak planteatzen ditu Erdialdeko Arabari begira. Aurkitutako zeramikaren testuingurua kopuru aldetik oso txikia dela kontuan hartu behar bada ere, antz handia du IX. eta X: mendeei begira marraztutako panoramarekin. Gainera, bi dira denbora bitarte luze horren baitan kronologia apur bat gehiago zehazteko aukera ematen duten datuak. Alde batetik, II. Multzoko zeramikaren presentzia dugu, erregistroko XII. mendean desagertzen dena, eta bestetik, I. Multzoko zeramiken absentzia dugu, halakoak egon behar zutenean. Bi inguruabar horiek iradokitzen dute lehenengo okupazioa proposatutako aldiaren amaieran gertatu zela. Beraz, hipotesi gisa, dokumentatutako lehenengo okupazio hori X. mende inguruan eraikitako egonleku batekin lotzen dela proposatzen dugu.

Bigarren okupazio aldia, XI. mendearen bigarren erdia

Horma bati atxikitako zoru berri batek irudikatzen du bigarren okupazio aldia. Zoru berri horrekin nabarmen goratu zuten egonlekuaren maila, gainalde horizontal bat sortu zuten berritik eraikitako hormarekin 90º-ko angelua eratuz. Horma horri esker, altuera handiagoa izango zuen egonlekuak. Lehen ere aurreratu dugun bezala, agerikoa da okupazio berri horri lotutako jarduera bizia, zeramikazko multzo oparoak eta askotarikoak salatzen du hori. Zeramika horien formak batez ere ura edukitzeko eta jatekoak prozesatzeko ontziekin lotzen dira. Eta, dirudienez, berreskuratutako

procedentes del estrato superficial), 147 de los cuales corresponden a la segunda fase de ocupación.

Antes de dar paso a la descripción de las principales fases de ocupación derivadas de la secuencia estratigráfica, cabe señalar que es una propuesta provisional y que el estudio de los materiales recuperados aún no ha concluido. Por ello, es posible que en el informe definitivo se replanteen algunas de las cuestiones planteadas ahora, sobre todo a nivel cronológico.

Primera fase de ocupación, siglo X

Esta primera ocupación es muy reducida a nivel espacial y se circunscribe al espacio central-occidental del sondeo, tal y como se puede comprobar en la planta de la fase final de excavación. La secuencia denota la existencia de una primera ocupación directamente sobre una gran roca desprendida sobre la cueva, de la que tan solo tenemos testimonio de la impronta de un fuego, arrasado para crear el primer suelo de arcilla documentado. Posiblemente se trate de una ocupación asociada a las obras de acondicionamiento del abrigo para su ocupación. Por las dimensiones de la estancia, que se limitaría como máximo a la mitad occidental de la superficie del abrigo, y por el material recuperado parece que fuera una ocupación modesta, de dimensiones reducidas. Este hábitat estaría formado por un suelo de arcilla batida y por las paredes de la roca natural, que otorgarían un metro aproximado de profundidad respecto a la cota del suelo al exterior. Muy posiblemente lo que hemos documentado sea la zona testera de un espacio de habitación.

Atendiendo al estudio cerámico preliminar, los datos apuntan a una cronología que oscilaría entre los siglos IX y X. En la obra de referencia para el estudio comparativo de la cerámica medieval alavesa, Jose Luis Solaun plantea para la Álava nuclear unos porcentajes muy similares a los que derivan de nuestro estudio cerámico. Aunque debe tomarse en consideración que el contexto cerámico es muy reducido a nivel cuantitativo, su similitud con el panorama dibujado para los siglos IX y X es considerable. Hay dos datos que permiten matizar un poco más la cronología dentro de esta amplia horquilla. Por un lado, la presencia de cerámica del Grupo II que desaparece en el siglo XII del registro y, por otro lado, la ausencia del Grupo I, que debería estar representado. Ambas circunstancias parecen que la primera ocupación tuviera lugar más hacia el final del periodo propuesto. Por tanto, de forma tentativa proponemos que la primera ocupación documentada se corresponde con la construcción de una estancia hacia el siglo X.

Segunda fase de ocupación, segunda mitad del siglo XI

La segunda fase de ocupación está representada por un nuevo suelo que está ahora asociado a un muro. Con este nuevo suelo elevaron la cota de la estancia de forma considerable, creando una superficie horizontal en un ángulo de 90º respecto al muro de nueva creación que dota a la nueva estancia de una altura mayor. La intensidad de la actividad asociada a esta nueva ocupación también es manifiesta, como ya se ha señalado, y está representado en un conjunto cerámico nutrido y variado, con formas asociadas principalmente al almacenaje de agua y al procesamiento de alimentos. Asimismo, parece que los habitantes de este espacio podrían estar relacionados con el desempeño de actividades siderúrgicas,



Indusketaren oinplanoa lehenengo okupazio aldiari dagokion zorua altxatu aurretik (6. UE). Planoan ongi asko ikusten dira bigarren aldian eraikitako horma (9. UE) eta horma horri atxikitako egituraren ingerada. (Egilea: Enklabe k. s. t.).

Planta de la excavación previa al levantamiento del suelo correspondiente a la primera fase de ocupación (UE 6). En el plano se parecían el muro construido en la segunda fase (UE 9), así como el contorno de la estructura a la que se asocia dicho muro. (Autoría: Enklabe k.s.t.)

burdinazko zepa handiak eta zeramikazko ontzietako batean isuritako burdin urtuaren hondarrak iradokitzen dute leku honetan bizi izan zirenek jarduera siderurgikoak garatu zituztela. Inguruan garatutako jarduera siderurgikoaren aztarna horiek habitat honetako espazioraino iritsi izanak adierazten du jarduera hein batean garrantzitsua izan zela. Indusketa lanen emaitzei erreparatuz gero, inolako zalantzarik gabe hauxe da harpe honetan dokumentatutako okupazio guztien artean aldi edo etaparik biziena.

Zeramika multzoaren azterketaren arabera, XI. mendean zehar eraiki zuten bigarren zorua; segur aski mende horren bigarren erdian zehar, ez baitago zeramika trauskilik. XI. mendeko Erdialdeko Arabako multzo bereizgarria osatzen duten formen presentzia, IX.-X: mendeetatik datozenak, eta 1.2-VI Pegarraren presentzia dira testuinguru hau XI. mendean datatzeko argudio enpirikoak. Beraz, une horretan eraiki zuten egonleku berri bat aurreko okupazioaren hondarren gainean, eta egonleku horrek harpearen azaleraren zati handi bat hartu zuen.

Hirugarren okupazio aldia, XI. mendearen bigarren erdia eta XII. mendearen lehen erdia

Zoru berri batek baizik ez du irudikatzen aldi hau, harrizkoa da. Aurreko zorua ez bezala, horizontala baitzen, honakoak gora egiten du diagonalean arroka naturalarekin eta hormarekin bat egin arte. Argi dago

como denota la escoria de hierro de grandes dimensiones recuperada, y los restos de hierro colado que fueron vertidos sobre una de las cerámicas. Que estas evidencias de actividad siderúrgica desarrollada en el entorno hubieran llegado hasta el espacio de hábitat, parece indicar que fue una actividad de cierta entidad. Sin duda, a juzgar por los resultados de la excavación, esta sería la etapa de mayor intensidad de ocupación del abrigo entre todas las documentadas.

Atendiendo al estudio del conjunto cerámico, la construcción del segundo suelo se acometería a lo largo del siglo XI; probablemente durante la segunda mitad, a juzgar por la ausencia de cerámica grosera. La presencia de formas que conforman el conjunto característico para la Álava Nuclear del siglo XI, pero que proceden de los siglos IX-X, unido a la presencia del Cántaro 1.2-VI, serían los argumentos empíricos para datar este contexto en el siglo XI. Por tanto, sería en este momento cuando se construya una nueva estancia sobre los restos de ocupación previos, que pasará a ocupar buena parte de la superficie del abrigo.

Tercera fase de ocupación, segunda mitad siglo XI y primera mitad siglo XII

Esta fase únicamente está representada por un nuevo suelo, esta vez empedrado. A diferencia del suelo anterior, que estaba dispuesto de forma horizontal, este suelo asciende de forma diagonal hasta unir con la roca natural y el muro. Es evidente que con esta obra se unifi-

obra horren bidez berdindu egin zutela barruko zorua egonlekuaren kanpoko zoruarekin, eta espazio bizigarria murriztu egin zela. Gertaera horrek segur aski funtzionaltasun aldaketa bat salatzen du, edo murriztu egin zela espazio bizigarria. Aitzitik, zeramikazko multzoak eskaintzen dituen ehunekoak oso antzekoak dira aurreko aldiko multzoarekiko. Informazio gehiagorik ezean, horrek pentsarazten digu ingurune horretan jarduera metalurgikoei eskainitako etaparen azken fasean egindako erreforma bat izan daitekeela, XI. mendearen bigarren erdialdetik XII. mendearen lehen erdira artekoa.

Laugarren okupazio aldia, XII. mendearen bigarren erdia eta XIII. mendea

Zanpatutako buztinezko zoru berri batek irudikatzen du okupazio aldi hau. Zoru horren gainazala higatuta dago ziur aski behin eta berriz ibili direlako bertan, gaur arte, harpean babesa bilatu duten abereak. Gainazalean identifikatutako ardien gorotz ugariak ditugu jarduera horren lekuko. Estratu horretan berreskuratutako zeramikazko multzoak, zeramika beiratuen ehunekoa oso apala izaki, aukera ematen du zoru horren eraikuntza XII. mendearen bigarren erdiaren eta XIII. mendean datatzeko. Baliteke okupazio hori harpearen inguru hurbilean dokumentatutako errotarri harrobien ustiakuntzarekin zerikusia izatea, ordurako ez baitzuen egitura arkitektoniko zehatzik izango eta ez baitu jarduera jakin batekin lotzeko moduko aztarna materialik utzi. Izan ere, 500 metroko erradio batean errotarriak landu zituzten bost harrobi dokumentatu dira (Igas, Zaldibartxo 1, Zaldibartxo 2, Ankozar, Bidabarri)[102], eta oso litekeena da errotarri horiek lantzen zituzten harginek aztergai dugun harpe honetan babestu izana.

ca la cota respecto al exterior de la estancia y que el espacio pasa a ser menos habitable. Este hecho posiblemente evidencie un cambio de funcionalidad o una reducción del espacio habitado. Sin embargo, los porcentajes que arroja el conjunto cerámico son muy similares a los del periodo anterior. A falta de más información, esto nos induce a pensar que podría tratarse de una reforma acometida en fase final de la etapa dedicada a las actividades metalúrgicas en este entorno, entre la segunda mitad del siglo XI y la primera mitad del siglo XII.

Cuarta fase de ocupación, segunda mitad del siglo XII y siglo XIII

Esta etapa está representada por un nuevo suelo de arcilla batida, cuya superficie fue erosionada por su reocupación hasta el presente, seguramente por la presencia de animales domésticos que han buscado refugio en el abrigo. La abundante presencia de excrementos de ganado ovino en el nivel superficial parece dar testimonio de esta actividad recurrente. El conjunto cerámico recuperado en este estrato, con cerámica vidriada presente en un porcentaje muy bajo, permite datar la construcción de este suelo entre la segunda mitad del siglo XII y el siglo XIII. Es muy posible que esta ocupación, que ya no contaría con una estructura arquitectónica definida, y que no ha dejado evidencias materiales específicas relacionadas con ninguna actividad concreta, pudiera estar relacionada con la explotación de las canteras moleras que se han documentado en el entorno inmediato del abrigo. De hecho, en un radio de 500 m se han documentado hasta cinco canteras en las que se tallaron muelas (Igas, Zaldibartxo 1, Zaldibartxo 2, Ankozar, Bidabarri)[102], y es muy probable que los canteros moleros hallaran refugio en el abrigo objeto de estudio.

S. Escribano Ruiz

A.30. BESTE BATZUK / VARIOS

A.30.1. N-124 errepidea autobia bihurtzeko lanak. Iter XXXIV eta kalkolitoko Herrixka (Armiñón, Berantevilla)

Zuzendaritza: Blanca Renedo Villarroya
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia. Autovía N-124 ABEE

A.30.1. Obras de conversión en autovía de la carretera N-124: Iter XXXIV y Poblado calcolítico (Armiñón, Berantevilla)

Dirección: Blanca Renedo Villarroya
Financiación: Diputación Foral de Álava. UTE Autovía N-124

Archaeological intervention prompted by the work to turn the N-124 into a duel carriageway, in which two very important heritage elements were documented: a Chalcolithic dwelling, with evidence of silos and possible associated simple huts; and part of the Roman Iter XXXIV road, which documentary evidence suggests ran in a straight line for over 600 m.

Sarrera eta aurrekariak

N-124 errepidea (25,50 K.P.-tik 28,00 K.P.-ra) bikoizteko eta autobia bihurtzeko obrek babestutako bi ondare elementuri eragiten zieten, Done Erroman tenplua eta nekropolia deitutako aztarnategiari eta Iter XXXIV galtza-

Introducción y antecedentes

Las obras de desdoblamiento y conversión en autovía de la carretera N-124, P.K.25,50 a P.K.28,00, afectaban a dos elementos patrimoniales protegidos: el yacimiento denominado Templo y necrópolis de San Román

[102] Javier Castrok emandako erreferentzia.

[102] Referencia aportada por Javier Castro.



Esku hartzearen ortoargazkia, irekitako zangen kokapenak adierazita. Urdin argiz, Iter XXXIV galtzada dokumentatu zuten zangak. Urdin ilunez, komunikabide erromatarraren trazadura (marra etenak esku hartzen honetan dokumentatu ez den trazadura adierazten du). Horiz. Done Erromanen egindako indusketa.

Ortofotografía de la intervención con la localización de las zanjas abiertas. En azul claro, zanjas donde se documentó el Iter XXXIV. En azul oscuro, trazado de la vía de comunicación romana (la línea discontinua indica su trazado no documentado en esta intervención). En amarillo, excavación de San Román.

da erromatarrari. Esku hartze sorta baten inguruan ardaztu zen geure esku hartzea: hasteko, miaketa lan intentsibo bat eraman genuen burura obrek eragingo zuten trazadura osoan, jarraian 14 zanga arkeologiko egin genituen, eta ondoren luze-zabalean induskatu genuen eragindako gunea. Gainera, etengabe bideratu genuen obren gaineko kontrol arkeologikoa. Esku hartze horiek guztiak lehendik egindako jardueretan lortutako emaitzen ondorio izan ziren, eta obrako zuzendaritzarekin eta, oro har, inplikatutako agente guztiekin koordinatuta eraman behar izan ziren burura.

Zanga arkeologikoak egiteko fasean (1etik 14ra zenbakituak iparraldetik hegoaldera) erromatarren garaiko komunikabidearen trazadura identifikatu genuen lehen zortzi zangetan. Gainera, orban zirkular batzuk dokumentatu genituen. Beraz, luze-zabalean ireki genuen gune hori, eta orbanak askoz ere gehiago zirela egiaztatu genuen, lurzati handiago bat hartzen zutela.

Obrek ukituko zuten gainazala erabat garbitu zuten kontrol arkeologiko zorrotz baten pean, eta ebidentzia arkeologikoak eta estratigrafia urria dokumentatu genituen: landare substratuaren azpian, batez ere laborantzari emandako lurraren azpian, eremuko berezko substratua agertzen zen, eta bertan ikus zitezkeen orban zirkular horiek. Erdi Aroko giza egonleku batekin lotutako «Done Erroman tenplua eta nekropolia» izeneko eremu babestuan egin ziren aurkikuntza horiek. Baina ebidentzia horiek protohistoriako kronologia bat eskaini ziguten, eta beraz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroarekin koordinatuta eremu babestuari eusteko erabakia hartu zen, hori bai, aztarnategiari izena al-

y la calzada romana Iter XXXIV. Nuestro proyecto se articuló en una serie de actuaciones que comenzaron en campo con la prospección intensiva de todo el trazado afectado por las obras, prosiguiendo con la ejecución de 14 zanjas arqueológicas y posteriormente la excavación en área de parte de la zona afectada, además del control arqueológico de las obras que se hizo de manera continuada. Cada una de estas acciones fueron consecuencia de los resultados obtenidos en las actuaciones anteriores y se debieron ejecutar de forma coordinada con la dirección de la obra y en general, con todos los agentes implicados.

En la fase de ejecución de zanjas arqueológicas (numeradas de 1 a 14 desde el norte) se identificó en las ocho primeras, el trazado de la vía de comunicación romana. Además, fueron documentadas una serie de manchas circulares, lo que propició la apertura en área de la zona y la constatación de que dichas manchas eran mucho más numerosas y ocupaban un terreno más amplio.

Bajo estricto control arqueológico se desbrozó por completo la superficie afectada por las obras, documentando, además de las evidencias arqueológicas, la escasa estratigrafía existente: bajo el sustrato vegetal, dedicado mayoritariamente al cultivo, aparecía el sustrato natural del terreno en el que se evidenciaban las manchas circulares. Estos hallazgos se encontraban dentro del área protegida denominada «Templo y necrópolis de San Román» asimilada con un asentamiento medieval. Pero las evidencias nos ofrecieron una cronología protohistórica por lo que en coordinación con el

datuta, aurrerantzean «Done Erroman. El Hornazo» deituko delarik[103]. Modu horretan, bildu egin dira orain arte azaldu diren Erdi Aroko aztarnak eta protohistoriakoak.

Iter XXXIV galtzada ere landare substratuaren azpian dokumentatu genuen 600 metro linealetik gorako tarte batean. Trazaduraren zati bat induskatu ahal izan genuen, eta aurrerago ikusiko dugunez, kontserbatutako elementuak eta eraikitzeko teknika dokumentatu genituen.

Esku hartzearen emaitzak

Esku hartze arkeologikoari esker, protohistoriako aztarnategi bat eta Iter XXXIV komunikabide erromatarraren trazaduraren zati handi bat ezagutu ditugu.

Protohistoriako aztarnategia. Done Erroman. El Hornazo

Lur eremuko substratu naturalean egindako ebaki batzuk dira dokumentatutako ebidentzia aspaldikoenak. Ebaki horiek gutxi gorabehera 1650 m^2-ko eremu batean barreiatzen ziren. Gehienak zirkularrak ziren formaz, baina era berean dokumentatu genituen ebaki obalatu batzuk eta beste ebaki poligingildun bat; guztira 47 ebaki zenbatu genituen.

Ebaki zirkularrak biltegiratze siloen oinarri gisa interpretatu ziren; bi ebaki obalatuak, handiagoak, indusketa eremuaren iparraldean kokatuak, siloei lotutako balizko txabola hondoen arrasto gisa interpretatu ziren. Eta, azkenik, hegoaldean identifikatutako ebaki poligingilduna denbora tarte jakin batean bideratutako siloen eraikuntzarekin lotzen dugu.

Estratigrafia eskasak behartu gintuen amortizazio betegarrietan berreskuratutako kultura materiala (zeramika zatiak eta harriaren lanketatik etorritako hondarrak) oinarritzat hartzera aztarnategi hau identifikatu eta interpretatu ahal izateko eta kronologia bat zehazteko. Gainera, antzeko ezaugarriak dituzten gertuko aztarnategietan egindako esku hartzeei buruzko argitalpenak, halako informazioa eskaini dutenak, aztertu ditugu.

Aztertutako parametro guztiek garamatzate aztarnategi hau ziurrenik kalkolitokoa den kronologiako bizileku batekin lotzera.

Iter XXXIV

Esku hartze honetan 600 metro linealetik gorako tarte batean dokumentatu ahal izan dugu *Iter XXXIV De Hispania in Aequitania ab Asturica Burdigalam* izeneko komunikabide erromatarraren trazadura, eta beraz, Euskadin orain arte arkeologiaren ikuspuntutik dokumentatutako tarte luzeena da.

Bide horretako tarte batzuk induskatu genituen, batez ere obrek suntsituko zituzten tarteak, eta galtzada eraikitzeko teknika eta gerora egindako konponketak dokumentatu ahal izan genituen, behin betirako abandonatu zuten arte.

Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco se decidió mantener el área de protección, cambiando el nombre del yacimiento, que ha pasado a denominarse «San Román. El Hornazo"[103,] englobando de esta manera las evidencias medievales y protohistóricas que hasta el momento han aparecido.

El Iter XXXIV, se documentaba también bajo el sustrato vegetal y fue Identificada en un recorrido de más de 600 m lineales. Pudimos excavar parte de su trazado constatando como veremos, los elementos y técnica de construcción conservados.

Resultados de la intervención

La intervención arqueológica ha permitido conocer un yacimiento protohistórico y una buena parte del trazado de la vía de comunicación romana Iter XXXIV.

Yacimiento protohistórico. San Román. El Hornazo

Las evidencias más antiguas documentadas tienen que ver con una serie de cortes realizados todos ellos en el sustrato natural del terreno. Se extendían por un área de aproximadamente 1650 m2. Tenían forma mayoritariamente circular, aunque también se documentaron cortes ovalados y uno polilobulado; se contabilizaron un total de 47

Los cortes circulares fueron interpretados como bases de silos de almacenamiento, los dos cortes ovalados, de mayores dimensiones y localizados al norte del área de excavación, se interpretaron como restos de posibles fondos de cabaña, asociados a los silos. Finalmente, el corte polilobular identificado al sur, lo asimilamos a una consecución de ejecución de silos durante un espacio temporal determinado.

La escasa estratigrafía nos obligó a basarnos en la cultura material recuperada (restos cerámicos e industria lítica) en los rellenos de amortización, para poder identificar, interpretar y dotar de cronología a este yacimiento; además de investigar las publicaciones de intervenciones en yacimientos cercanos, de similares características, que hubieran aportado información.

Todos los parámetros analizados, nos llevan a asociar este yacimiento con un lugar habitacional de cronología probablemente calcolítica.

Iter XXXIV

En esta intervención se ha podido documentar el trazado de la vía de comunicación romana denominada *Iter XXXIV De Hispania in Aequitania ab Asturica Burdigalam*, en más de 600 m lineales, lo que supone el trazado más largo documentado arqueológicamente hasta el momento en el País Vasco.

Han sido excavados algunos tramos de esta vía, sobre todo los que iban a ser destruidos por las obras, pudiéndose documentar tanto su técnica de construcción como los arreglos posteriores hasta su abandono definitivo.

---

[103] Bi udalerritan hedatzen da aztarnategi hau, Berantevillan eta Armiñonen. 1996an eta 2004an egindako esku hartzeetan egin zen Erdi Aroko kronologia duten materialen aurkikuntza.

[103] Este yacimiento se extiende por dos municipios: Berantevilla y Armiñón. Los hallazgos de cronología medieval se produjeron en intervenciones fechadas en los años 1996 y 2004.

Hauexek identifikatu ahal izan genituen: *Iter*-a mugatzeko zangak, galtzada hartzeko prestakin betegarriak eta ohatzea, eta bidearen trazadura mugatzen zuten eta geroago gaineko geruzak zabaltzeko armazoia osatzen zuten egiturak. Goiko geruza horiek errekarriz eratuta zeuden, eta horien gainean bermatuko zen erabilerako gainazala, azken hori tamalez betikoz desagertua.

Iter-a eraiki ondoren eta bere bizi luzean zehar hainbat konponketa egin ziren, konponketa horien arrastoak identifikatu baititugu, baina bidearekin lotutako kultura materialaren eta estratigrafiaren urritasuna eragozpen gaindiezinak dira konponketa horiek zer unetan egin zituzten jakiteko. Guk uste dugu trazadura osoan zehar egin zituztela konponketak oso denbora bitarte luzean.

Une zehaztugabe batean abandonatu zuten bide hori, eta pixkanaka hondatu egin zen, itxura batean ibai batek herrestan eramandako materialez osatutako depositu batzuek agerian uzten dutenez. Abandonu horren ostean, eremu hori pixkanaka okupatu zuten laborantza lur gisa erabiltzeko gaur arte, eta ondorioz, desagertu egin da aztarna arkeologikoen zati handi bat.

Erromatarren garaiko komunikabide hori osorik iduskatu ez bazen ere, xehetasun osoz dokumentatu genuen agerian utzitako trazadura osoan, eta haren babesa ziurtatzeko, osorik estali genuen ehunezko sare batez.

Se han podido identificar las zanjas de delimitación del *Iter* así como rellenos de preparación y asiento, y estructuras que delimitaban la traza de la vía y formaban el armazón para la colocación posterior de las capas superiores, como un depósito de cantos rodados sobre el que se apoyaría la superficie de rodadura, esta última desafortunadamente desaparecida.

Tras la construcción del *Iter* y a lo largo de su dilatada existencia, se produjeron arreglos de los que también se han registrado evidencias, aunque la escasez estratigráfica y de cultura material asociada, nos impide conocer en qué momento se produjeron estos arreglos, suponiendo que se repetirán a lo largo de todo el trazado y en un lapso temporal muy amplio.

En un momento indeterminado se abandonó esta vía, produciéndose su paulatino deterioro identificado por una serie de depósitos de arrastre de origen aparentemente fluvial. Tras este abandono, el terreno fue ocupado progresivamente hasta ser utilizado como terreno de cultivo, eliminando gran parte de las evidencias arqueológicas, hasta nuestros días.

Aunque esta vía de comunicación romana no fue excavada en su totalidad, sí fue documentada en todo el trazado descubierto y para asegurar su protección, fue cubierta completamente por geotextil.

B. Renedo Villarroya

A.30.2. Arabako historiaurreko leize dekoratuak. Ikerketa, kontserbazio eta zabalkunde egoeraren diagnostikorako azterlana

Zuzendaritza: Diego Garate Maidagan
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.30.2. Cuevas decoradas prehistóricas de Álava. Estudio para el diagnóstico del estado de investigación, conservación y difusión

Dirección: Diego Garate Maidagan
Financiación: Diputación Foral de Álava

Throughout 2022, we carried out a one-off archaeological intervention in caves protected by the Basque Government: Solacueva (Jokano, Kuartango), Lazaldai (Zarate, Zuia), Los Moros (Atauri, Arraia-Maeztu), Liziti (Andagoia, Kuartango), Pico Corral (Bóveda, Valdegovía/Gaubea) and Yurdinas II (Urizarra/Peñacerrada), as well as in some that are not as yet protected: Orau (Osma, Valdegovía/Gaubea) and Socuevas de San Miguel (Rivabellosa, Erriberagoitia/Ribera Alta), all located in the Province of Araba/Álava. The general aim of the intervention was to establish a roadmap to provide the government with a specific diagnosis of each of these heritage elements, and to identify any possible corrective measures (if required) to guarantee a suitable policy for their research, conservation and dissemination. Each cave's archaeological characterisation was updated, and renewed conclusions were drawn regarding the chronology of each one. Furthermore, future proposals were developed to improve our scientific knowledge of them and to ensure that the best possible measures are taken in each case.

2022ko abuztu eta abendu bitartean burutu dugun esku hartze hau egiteko, aurretiazko oinarrizko helburu jakin batzuk ezarri ditugu Arabako Lurralde Historikoko leize guztietan lan sistema unibertsal bat inplementatzeko xedearekin.

Para la realización de la presente intervención, que hemos realizado entre los meses de agosto y diciembre de 2022, hemos establecido unos objetivos específicos previos de base con el fin de implementar un sistema de trabajo universal, aplicable a todas las cuevas del Territorio Histórico de Álava.

Aplikatu beharreko lan sistema

Dokumentuak kudeatzea eta informazioa monitorizatzea

Datu basearen prototipo bat diseinatzea eta sortzea, aztertutako elementu bakoitzari begira sortutako informazio guztia dokumentatu eta artxibatu ahal izateko. Informazioa hierarkizatuta eta bereizita egongo da

Sistema de trabajo a aplicar

Gestión de la documentación y monitorización de la información

Diseño y creación de un prototipo de base de datos que permita documentar y archivar toda la información generada para cada uno de los elementos estudiados. La información estará jerarquizada y subdivida en fun-

hainbat atalen arabera, eta arreta berezia jarriko zaie ikerketa arkeologikoaren, haitzulo bakoitzaren kontserbazio egoeraren eta eman dakiokeen zabalkunde sozialaren lehentasunei. Aplikazioak aukera emango du datuak une oro eguneratzeko, eta horrela, administrazioaren zerbitzura egongo den sistema dinamikoa, intuitiboa eta moldakorra sortuko da.

Artxibo bibliografikoa

Aztergai diren haitzuloei/harpeei buruz orain arte argitaratutako informazio guztia biltzea. Datu basean jasoko dira bildutako erreferentzia guztiak eta oinarrizko informazioa. Era berean, digitalki artxibatuko dira ondare elementu higigarri eta higiezin guztien irudiak.

Geoerreferentziazioa

GPS zentimetrikoaren bidez haitzulo bakoitzaren koordenatu zehatzak lortzea.

Ezaugarritze geomorfologikoa

Labar artearen kontserbazio egoera ezagutzeko eta haien kontserbazio eraginkorra bermatzen duten neurriak planteatzeko, behar-beharrezkoa da labar arte hori biltzen duten edukiontzien –haitzuloak– gaur egungo eta iraganeko dinamikak aztertzea. Geomorfologiaren bidez haitzuloaren sorrera argitu ahal izango da, zorupeko gaur egungo paisaiari forma eman dioten prozesuak identifikatu eta ezaugarritu ahal izango dira, kobazuloetako gune sentikorrenak bereizi ahal izango dira, etab.

Dokumentazio arkeologikoa

In situ egiaztatuko da aztertu beharreko ondare elementuetan adierazitako labar ebidentzia bakoitza, eta haietako bakoitzaren oinarrizko informazio eguneratua bilduko da.

3D-ko dokumentazio grafikoa eta irudien tratamendua

Haitzulo bakoitzeko labar ebidentzia nagusiak eta horiek kokatzen diren espazioak hiru dimentsiotan lehengoratzea, irismen laburreko fotogrametriaren bidez. Aldi berean aurrez ezarritako algoritmoen bidez tratatuko dira irudiak, bisualki hautemanezinak diren ñabardurak hautemateko.

Kolore profilak egitea

Koloreen kalibrazioa eta jasotze fotogrametrikoetan koloreen kalitatea aztertzea erabakigarria da aztertutako ondare ondasunetan eragina izan dezaketen etorkizuneko prozesuak monitorizatu ahal izateko. Horrela, erreprodukzioen xehetasun maila handiari esker, denboran zehar jarraipena egin daiteke, gerta daitezkeen aldaketak hauteman ahal izateko, bai maila kromatikoan, bai egiturazkoan.

Neurri zuzentzaileak proposatzea

Aztertutako haitzuloetan/harpeetan berreskuratutako eta prozesatutako informazio guztiaren ondorioz, ondasunen ondare kudeaketa egoki bat ahalbidetuko duten jarraibide edo gomendio batzuk landuko dira. Ikerketa arkeologikoaren kasuan, defizit jakin batzuk arintzeko ekintza puntualak izan daitezke (analisiak, berrikuspenak, zundaketak, etab.), kontserbazioaren kación de los diversos apartados, con especial atención a las prioridades de investigación arqueológica, al estado de conservación y al potencial de difusión social de cada cueva. La aplicación permitirá la actualización constante de los datos generando así un sistema dinámico, intuitivo y versátil, al servicio de la administración.

Archivo bibliográfico

Vaciado de toda la información publicada hasta la fecha referente a las cuevas/abrigos implicados en el estudio. Todas las referencias y la información fundamental serán recogidas en la base de datos. Todas las imágenes de los elementos patrimoniales mueble e inmueble serán igualmente archivados digitalmente.

Georreferenciación

Obtención de coordenadas exactas mediante GPS centimétrico para cada una de las cuevas.

Caracterización geomorfológica

Para conocer el estado de conservación del arte rupestre y para plantear unas medidas que garanticen su protección eficaz, es necesario estudiar las dinámicas tanto actuales como pasadas de sus contenedores naturales –las cuevas–. Mediante la geomorfología se podrá abordar la génesis de la cavidad, identificar y caracterizar los procesos que han dado forma al estado actual del paisaje subterráneo, identificar las zonas más sensibles de las grutas, etc.

Documentación arqueológica

Comprobación in situ de cada una de las evidencias parietales señaladas en los elementos patrimoniales a estudio y captación de la información básica actualizada de cada una de ellas.

Documentación gráfica 3D y tratamiento de imágenes


Restitución tridimensional mediante fotogrametría de corto alcance de las principales evidencias parietales de cada cueva, así como de los espacios donde se ubican. Al mismo tiempo, se procederá al tratamiento de las imágenes mediante algoritmos preestablecidos con la finalidad de detectar matices imperceptibles visualmente.

Elaboración de perfiles colorimétricos

La calibración de los colores y el testado de su calidad en los levantamientos fotogramétricos resulta determinante para poder monitorizar futuros procesos que puedan afectar a los bienes patrimoniales estudiados. De esta manera, se puede realizar un seguimiento en el tiempo que permita detectar posibles alteraciones, bien sea a nivel cromático como estructural, gracias al alto grado de detalle de las reproducciones.

Propuesta de medidas correctoras

Como consecuencia de toda la información recuperada y procesada en las distintas cuevas/abrigos a estudio, se planearán una directrices o recomendaciones que permitan una correcta gestión patrimonial de los bienes. Puede tratarse, en el caso de la investigación arqueológica de acciones puntuales para paliar déficits concretos (analíticas, revisiones, sondeos, etc.); en el de la conservación de posibles seguimientos para un con-



Lazaldai (Zarate, Zuia). A: galeria aktiboaren eta fosilaren arteko elkargunea eta erreka aktiboa igarotzen den ohearen xehetasunak. B: gerriko belarria aurkitu genuen puntua, klastoen eta herrestan ekarritako materialen artean, eta piezaren xehetasun argazkia; antzekotasun estilistikoetan oinarrituta, VI.-VII. mendeetakoa izan daiteke.

Lazaldai (Zarate, Zuia). A: punto de intersección entre la galería activa y fósil y detalle del lecho por el que discurre el curso de agua activo. B: lugar de localización de la hebilla entre clastos y material arrastrado y fotografía de detalle de la pieza, adscribible por paralelos estilísticos a los siglos VI-VII.

suan, kontrol eraginkorra egiteko balizko jarraipen lanak (klimaren monitorizazioa, itxiturak, jarraipen kolorimetrikoak, etab.) eta zabalkundearen kasuan, baliabide didaktikoen sorrera (3D-ko lehengoratzeak, webguneak, triptikoak, jardunaldiak, etab.).

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirola Sailarentzat egin dugun txostenaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko historiaurreko 8 haitzulo edo harpe dekoratuen egoera aztertu dugu. Aintzat hartu ditugu haitzulo horietako alderdi arkeologiko hutsak, haien kontserbazio egoera eta sarbideen egoera, besteak beste. Helburu nagusia izan da, alde batetik, erakundeei baliabide sorta bat eskaintzea ondare ondasunen kudeaketa erraztearren, eta bestetik, horri buruzko jarraibide batzuk iradokitzea.

Horretarako, sakon aztertu ditugu aztarnategiak, eta horien kontserbazioan eta ezagutza arkeologikoan eragin ditzaketen faktoreen ebaluazio bat egin dugu. Modu horretan datu base bat landu dugu informazio arkeologikoa, geologikoa eta kontserbazioaren ingurukoa oinarri hartuta, hiru dimentsiotako altxaerak egin ditugu fotogrametriaren bidez, eta kontrol kolorimetrikorako puntuak dokumentatu ditugu aztarnategi guztietan.

Kontserbazioarekin lotutako alderdiei dagokienez, hasteko bereizi egin behar dira itxitura motaren bat duten haitzuloak eta zentzu horretan inolako babesik ez

trol efectivo (monitorización climática, cierres, seguimientos colorimétricos, etc.); y en el de difusión de la creación de recursos didácticos (restituciones 3D, páginas web, trípticos, jornadas, etc.).

Mediante el informe que hemos realizado para el Departamento de Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava, hemos elaborado un estado de la cuestión de los 8 yacimientos prehistóricos en cueva o abrigo decorados del Territorio Histórico de Araba/Álava. Hemos atendido tanto a cuestiones meramente arqueológicas como a otras relacionadas con su estado de conservación o con la situación de los accesos. El objetivo definitivo ha sido el de dotar a las instituciones de una serie de recursos que faciliten la gestión de los bienes patrimoniales, así como sugerir algunas directrices al respecto.

Para ello hemos desarrollado una prospección profunda de los yacimientos y una evaluación de los distintos factores que pueden afectar a la conservación y al conocimiento arqueológico de los mismos. De esta manera, se ha elaborado una base de datos con información arqueológica, geológica y de conservación, se han realizado levantamientos tridimensionales mediante fotogrametría y se han documentado puntos de control colorimétrico en todos ellos.

Respecto a las cuestiones relacionadas con la conservación debemos diferenciar en primer lugar, las cue-

dutenak. Itxiturak askotarikoak dira eta egoera desberdinetan daude. Oro har, behar-beharrezkoak dira kontrol eta mantentze lan batzuk. Gainerako aztarnategietan, sarbideak zailak izanik eta herriguneetatik urrun egonik, gutxienera murrizten dira kontrolik gabeko bisitaldiak egiteko aukerak. Aztarnategi bakar batean ere ez da ingurumen mailako kontrolik egiten (tenperatura, hezetasuna, CO_2).

Ez da oso nabarmena aldaketa antropikoen presentzia. Haitzulo batzuek aspaldian egindako grafitiak dauzkate (Orau, Lazaldai), baina urri dira azken bisitaldiek utzitako hondakinak edo hondarrak (aipatzekoa da Lazaildai). Arruntak dira izaera biologikoko aldaketak, baina nabarmentzekoak dira saguzarren presentzia (Orau) eta sarrera ondoko guneetako bakterioena (Solacueva). Komenigarria litzateke aldaketa horien aldizkako kontrola egitea.

Aztarnategietako potentzial arkeologikoari dagokionez, askotarikoa da balorazioa. Ia kasu guztietan, aspaldian argitaratua da dagoen informazioa, eta gainera, informazio partziala da edo oso laburra. Kasu askotan (Orau, Liziti, Lazaldai), interpretazioak ez daude behar bezala justifikatuta, eta eguneratu behar dira gaur egun gaiaren inguruan bildu diren ezagutzen arabera (Lazaldai). Beste kasu batzuetan (Orau, Socuevas de San Miguel, Pico Corral, Los Moros eta Yurdinas), zalantzak daude zati baten edo multzo osoaren historiaurreko datazioaren inguruan.

Azken batean, adierazitako aztarnategien kontserbazio egoeraren kontrola ahalbidetuko duen abiapuntu bat ezarri dugu. Aldi berean, aztarnategi horietako batzuek datazioaren inguruan eskaintzen dituzten zalantzak planteatu ditugu, baita aztarnategi batzuen ezagutzan sakontzeko premia ere.

vas que presentan algún tipo de cerramiento de aquellas no protegidas en ese sentido. Los cierres son de distinta naturaleza y presentan estados dispares. En general, un control y mantenimiento se antoja necesario. En el resto de los yacimientos, su difícil acceso y localización alejada de núcleos de población, son factores que reducen al máximo las posibilidades de visitas incontroladas. Ninguno de los yacimientos presenta un control medioambiental (temperatura, humedad, CO2).

La presencia de alteraciones antrópicas no es muy intensa. Algunas de las cuevas presentan grafitis desde épocas muy antiguas (Orau, Lazaldai) pero son escasos los deshechos o restos de visitas recientes (destaca Lazaldai). Las alteraciones de carácter biológico son comunes, aunque destaca la presencia de murciélagos (Orau) y bacterias en zonas próximas a la entrada (Solacueva). Sería conveniente un control periódico de dichas alteraciones.

En lo que se refiere al potencial arqueológico de los yacimientos, la valoración es diversa. En casi todos los casos la información existente se ha publicado en época antigua y de manera muy parcial o escueta. En muchos de los casos, las interpretaciones no están bien justificadas (Orau, Liziti, Lazaldai) y deben ser actualizadas en función de los conocimientos actuales sobre la materia (Lazaldai). En otros casos, se presentan dudas sobre la adscripción prehistórica de parte o todo el ocnjunto (Orau, Socuevas de San Miguel, Pico Corral, Los Moros y Yurdinas).

En definitiva, hemos establecido un punto de partida que facilite el control del estado de conservación de los yacimientos señalados. Al mismo tiempo, hemos planteado las dudas que ofrecen algunos de ellos respecto a su adscripción, así como la necesidad de profundizar en el conocimiento de algunos casos.

D. Garate; M. Arriolabengoa; S. Salazar; A. Torres; I. Intxaurbe

A.30.3. **Arrokan zulatutako dolareak Arabako Errioxan**

Zuzendaritza: José Rodríguez Fernández
Finantzazioa: Euskal Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza

A.30.3. **Lagares excavados en roca de Rioja Alavesa**

Dirección: Jose Rodríguez Fernández
Financiación: Centro de Patrimonio Cultural Vasco. Gobierno Vasco

The study examines and disseminates the historical presence of presses dug into rocks in the Rioja Alavesa region, reviewing previously published dates and offering strategic and methodological analyses from the perspective of archaeology, which are fundamental to learning more about this historic phenomenon since, although presses are recognised as part of our heritage, many gaps still remain in our global knowledge of them.

Of the results obtained, the following can be highlighted: 1) The number of presses catalogued does not match the number still surviving today. Visual inspections and stratigraphic excavations indicate that the inventory will increase over the coming years. Problems occur when 'discoveries' are made without archaeological oversight, since this often results in the loss of valuable information. 2) It is necessary to analyse the presses that exist in the surrounding countryside, rather than limiting archaeological interventions to transformation centres only. We started, for example, to interpret material remains that indicate the possibility of historical vine growing activities next to the presses. 3) In terms of chronology, and bearing in mind the numerous problems that prevent the precise dating of these elements, we have started to be able to narrow down the origin and rise of rock-dug presses in the Rioja Alavesa region to between the 9th and 14th centuries, although they were occasionally used after that period as well. Finally, although just as important, we can plausibly link these vine growing and transformation spaces with their associated settlements.

Sarrera eta abiapuntua

Dolareak, mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizpen gunetzat hartuta, ikerketa historikoaren xede izan dira Europako hegoaldean, bereziki azken hamarkadetan, oro har ardoaren kulturari balioa emateko eta agerian jartzeko prozesuen eskutik. Ondorioz, gaur egun badakigu Europako Mediterraneo aldeko arku luze-zabalean mahatsa zapaltzeko eta prentsatzeko milaka instalazio daudela, mota guztietako harri azaleratzeak (granitoa, hareharria, kareharria eta arbela) baliatzen dituztenak. Oro har, eta segur aski ikuspuntu historiko batetik baino ikuspegi etnografiko batetik, dolare horien kopurua, hedadura eta ezaugarri morfologikoak eta teknikoak ezagutzeko xedea izan zuten lehen lanek. Geroago, dolare horiek kronologikoki kokatzeko kezka piztu zen. Eta horretan datza arazo handiena; izan ere, kasu gehienetan, ezagututako instalazioak ezin izan dira historian modu fidagarri batean kokatu aurkikuntzen berezko ezaugarriengatik.

Alde batetik, aztarnategi handiago batzuetan (landa edo hiri aldeko habitata) bildutako instalazioak daude, eta horiek eskuarki obrako egiturak eta sekuentzia estratigrafiko bat eta material datagarriak eskaintzen dituzten beste ebidentzia batzuk dauzkate inguruan. Halakoak gutxienak dira kopuruz, eta oraingoz funtsean erromatarren aurreko garaira, erromatarren garaira eta antzinarora mugatzen dira. Nolanahi ere, ezagutzen diren harrizko dolare gehien-gehienak isolatuta daude, ez dira habitat egitura handiagoetan biltzen, eta gehienek ez dute estratigrafiarik eskaintzen, beren datazio kronologikoa areago zailduz[104].

Arabako Errioxan mahatsa zapaltzeko eta prentsatzeko ehundik gora instalazio ezagutzen dira (batzuk isolatuta daude, gehienak taldean egituratuta), eta Ardoaren eta Mahastiaren Kultura Paisaiaren zati nabarmena osatzen dute horiek guztiek. Dolare horiek aztergai izan dituzten lanak bat datoz adieraztean instalazio horiek Erdi Aroko mahastizaintzaren eredura garamatzatela, ustiapen, eraldaketa eta ardogintza eredu jakin batzuen aurreko eredura, geroago zorupeko upeltegi/soto bihurtuko ziren ereduen aurreko garaira. Lurpeko arkitektura horiek gero eta hobeto ezagutzen ditugu besteak beste Samaniegon, Eltziegon eta Guardian garatutako ikerketa proiektuei esker[105].

Gure azterlanean berriz ere aztertu ditugu bibliografia, toponimia eta dauden iturri idatziak, eta tokian tokiko komunitatearen ahozko testigantzak gaineratu ditugu. Eta, batez ere, metodologia arkeologikoa (begi bidezko miaketa, azterketa espaziala eta indusketa estratigrafikoa) erabili dugu harrizko egitura hauen funtzionamendu aldia kronologikoki mugatzen saiatzeko, horien erabilerari buruzko aztarna gehiago lortzeko eta egitura horiek biltzen zituen paisaia historikoa (mahats mota, atxikiriko kultura materiala, mahatsa prentsatzeko egitura osagarriak, herri sarearekiko lotura, etab.) zehazteko.

Introducción y base de partida

Los lagares, entendidos como complejos productivos vitivinícolas, han sido objeto de investigación histórica en el sur de Europa especialmente en los últimos decenios, por lo general de la mano de procesos de valorización y visibilización de la cultura del vino. Como resultado, hoy conocemos la existencia de miles de instalaciones de pisado y prensado que ocupan afloramientos rocosos de toda naturaleza (granito, arenisca, caliza o incluso pizarra) a lo largo y ancho del arco mediterráneo europeo. Por lo general, los primeros trabajos se centraron en conocer su número, expansión y características morfológicas y técnicas, posiblemente desde un punto de vista más etnográfico que histórico. Algo más tarde se desarrolló la preocupación por ubicarlos cronológicamente. Y aquí reside el gran problema, puesto que en la gran mayoría de los casos las instalaciones reconocidas no se han podido contextualizar históricamente de manera fiable por las propias características de los hallazgos.

Por un lado, existen instalaciones integradas en yacimientos más amplios (hábitat rural o urbano) y generalmente acompañadas por estructuras de obra y otras evidencias que permiten, con cierta solvencia, disponer de una secuencia estratigráfica y materiales fechables. Son los ejemplos menos numerosos y hasta el momento se restringen, esencialmente, a época prerromana, romana y tardoantigua. Sin embargo, la mayor parte de los lagares rupestres conocidos se presentan aislados, no integrados en estructuras de hábitat y carentes en la mayoría de las ocasiones de estratigrafía, dificultado aún más su adscripción cronológica[104].

En la Rioja Alavesa se conocen más de un centenar de instalaciones de pisado y prensado (algunas aisladas, la mayor parte dispuestas en grupo) que forman parte destacada del Paisaje Cultural del Vino y el Viñedo. La bibliografía que se ha ocupado de ellas coincide en señalar que remiten a una viticultura propia de la Edad Media, antecedentes de unas formas de explotación, transformación y vinificación que más tarde dieron paso a las bodegas-calaos, arquitecturas subterráneas que por cierto vamos conociendo cada vez más y mejor gracias a proyectos de investigación como los desarrollados en Samaniego, Elciego y Laguardia[105].

En nuestro estudio se ha reexaminado la información bibliográfica, toponímica y documental existente, añadiendo testimonios orales de la comunidad local y, sobre todo, se ha empleado metodología arqueológica (prospección visual, análisis espacial y excavación estratigráfica) para tratar de acotar cronológicamente el periodo de funcionamiento de estas estructuras rupestres y conseguir nuevos indicios sobre su uso y el paisaje histórico al que pertenecieron (tipo de vid, cultura material asociada, estructuras auxiliares de prensado, relación con la red de poblamiento, etc.).

---

[104] Peña Cervantes, Y. (2019). Los lagares rupestres de la Península Ibérica: sistemas de estrujado y problemática cronológica, *ArkeoGazte*, 9: 83-99.

[105] Sánchez Zufiaurre, L. (2022). *De cubas, lagares y cuevas. Arqueología de las bodegas subterráneas de Rioja Alavesa*, Eusko Jaurlaritza.

[104] Peña Cervantes, Y. (2019). Los lagares rupestres de la Península Ibérica: sistemas de estrujado y problemática cronológica, *ArkeoGazte*, 9: 83-99.

[105] Sánchez Zufiaurre, L. (2022). *De cubas, lagares y cuevas. Arqueología de las bodegas subterráneas de Rioja Alavesa*, Eusko Jaurlaritza–Gobierno Vasco.

Ikerketak jauzi bat egin behar du dolarearen beraren ikuspegi mikrotik inguruko lurralderantz (maila makroa), izan ere, orain arte eta salbuespenaren bat salbuespen, ez diogu behar bezalako arreta eskaini harrizko dolareak inguratzen duen guztiari. Mahatsa eraldatzeko instalazioak direnez, laborantza guneekin, herriguneekin, otoitz egiteko lekuekin edo ardoa egiteko harrizko plataformak zulatu zituzten giza taldeen definizio soziokulturala osatzen duten hileta guneekin lotu behar ditugu dolareak.

Ikerketa proiektuaren konklusioak

Arrokan zulatutako dolare kopuruari eta banaketari dagokienez

Gaur egun 107 dolare dauzkagu identifikatuta Arabako Errioxan, eta badira ustezko beste bi instalazio, oraingoz ziurtasun osoz egiaztatu ezin ditzakegunak. Dolare horietatik 98 ondareari buruzko datu basean zeuden jasota proiektu hau burura eraman aurretik. Indusketa arkeologikorako multzo egokiak bilatzeko miaketa lanetan zehar harrizko beste zazpi dolare identifikatu ditugu inolako zalantzarik gabe, eta ustezko beste bi instalazio. Gainera, Montebuena Norte izeneko aurkintzan (Bastida) bideratutako indusketa lanetan lehen ezagutzen ez ziren bi dolare geratu ziren agerian, horiek ere arrokan zulatuak.

Dolareen kokapen orokorrari erreparatuz gero, bistan da Sonsierraren mendebalderantz biltzen direla harrian landutako egiturak. Gaur egun Araban ezagutzen diren dolareen % 75 Bastidako udal barrutian daude. Eta joera horrek bere jarraipena du Errioxako lurretan, hala nola Haro, Ábalos, Briñas, Briones, Peciña, Rivas de Tereso eta San Vicente de la Sonsierran, horietan ehunen bat egitura ezagutzen baitira[106]. Batez ere mendebaldean biltzen badira ere, badira halakoak Arabako Errioxaren erdialdean, gutxiago badira ere (Samaniego, Villabuena, Mañueta, Navaridas, Eltziego, Guardia, Elvillar, Lapuebla de Labarca eta Lantziego). Ekialdeen dauden lau udalerrietan oraingoz ez dugu gisa horretako instalaziorik identifikatu.

Dolare batzuk itxura batean isolatuta daude, baina asko dira hainbat instalazio hartzen dituzten kontzentrazioak (zortzi eta bederatzi multzo handienetan). Ildo horretan, esan beharra dago arrokan zulatutako dolareen zerrenda etengabe handitzen ari dela azken urteetan, bereziki ikuskapen arkeologikorik gabe egindako «aurkikuntza berrien» ondorioz, horrek dakarren galera guztiarekin balizko informazioari dagokionez. Era berean kontuan hartzen badugu Montebuena Norte aurkintzan egindako indusketa arkeologikoan zehar beste bi instalazio geratu direla agerian jada sei instalazio ezagutzen ziren ingurunean, ondorioztatu dezakegun gauza bakarra da gaur egun ezagutzen ditugun elementuek baino askoz ere elementu gehiagok osatzen dituztela identifikatutako multzoak, eta elementu horiek inguru hurbilean daudela ezkutaturik. Laburbilduta, dagoeneko zerrendatutako elementu kopuru garrantzitsu bat dugun arren, oraindik argazki osatu gabe baten aurrean gaude.

La investigación debe dar el salto desde el enfoque micro del propio lagar hacia el territorio circundante (nivel macro) porque, de momento y salvo alguna excepción, no hemos prestado atención a todo lo que rodea a los lagares rupestres. Si los lagares son instalaciones de transformación, hemos de asociarlos a las zonas de cultivo, a los asentamientos poblacionales, a los lugares de culto o a los espacios funerarios que completan la definición sociocultural de los grupos humanos que horadaron los bancales de roca para producir vino.

Conclusiones del proyecto de investigación

Sobre el número y distribución de los lagares excavados en roca

En la actualidad, disponemos de 107 lagares identificados en Rioja Alavesa, con otras dos posibles instalaciones que no podemos asignar por el momento con absoluta seguridad. 98 de ellos estaban recogidos en las bases de datos patrimoniales con anterioridad a la realización de este proyecto. Durante las labores de prospección en busca de conjuntos adecuados para la excavación arqueológica se han identificado con seguridad siete lagares rupestres nuevos y otras dos posibles instalaciones. Además, en las labores de excavación en el paraje de Montebuena Norte (Labastida) se exhumaron otros dos lagares excavados en roca antes desconocidos.

Observando su ubicación general, es evidente la concentración de conjuntos rupestres hacia la parte occidental de la Sonsierra. El 75% de los lagares conocidos actualmente en Álava se ubican en el municipio de Labastida. Y esta tendencia tiene su continuación en los territorios riojanos adyacentes de Haro, Ábalos, Briñas, Briones, Peciña, Rivas de Tereso y San Vicente de la Sonsierra, con un centenar de estructuras conocidas[106]. A pesar de esta concentración hacia el oeste, también existen localizaciones, en menor número, en el centro de Rioja Alavesa (Samaniego, Villabuena de Álava, Baños de Ebro, Navaridas, Elciego, Laguardia, Elvillar, Lapuebla de Labarca y Lanciego). En los cuatro municipios más orientales no constatamos a día de hoy la presencia de este tipo de instalaciones.

Existen lagares que parecen encontrarse aislados, pero son frecuentes las concentraciones de varias instalaciones (hasta ocho o nueve en los conjuntos más numerosos). A este respecto, comentar que el elenco de lagares excavados en roca no deja de aumentar en los últimos años, especialmente debido a «nuevos descubrimientos» efectuados sin supervisión arqueológica, con todo lo que conlleva de pérdida de información potencial. Si tenemos en cuenta también que durante la excavación arqueológica en Montebuena Norte han sido exhumados dos nuevos ejemplares en un paraje donde ya eran conocidos seis, sólo podemos concluir que los complejos identificados están compuestos por muchos más elementos de los que conocemos en la actualidad ocultos en las inmediaciones. En definitiva, y pese a que contamos con un buen elenco ya inventariado, todavía estamos observando una fotografía incompleta.

---

[106] Contreras, M., Elías, L.V. (koor.) (2015). *Lagares rupestres. Aportaciones para su investigación*, Asociación para el Desarrollo de Rioja Alta.

[106] Contreras, M., Elías, L.V. (coords.) (2015). *Lagares rupestres. Aportaciones para su investigación*, Asociación para el Desarrollo de Rioja Alta.



Arabako Errioxan orain arte dokumentatutako zukutzeko hiru sistemen birsorkuntza: zapalketa, habe horizontaleko prentsa eta ardatz bertikaleko prentsa. Birsortze lanak: Ángel Martínez.

Recreación de los tres sistemas de estrujado documentados por el momento en Rioja Alavesa: pisado, prensa de viga horizontal y prensa de huso vertical. Recreaciones de Ángel Martínez.

Horrek guztiak ondarearen irakurketa garrantzitsua dakar. Dolareen garrantzi historikoari buruzko pertzepzioa emendatu egin da azken urteetan, baina sentsibilizazio horrek ez dakar beti esku hartze egoki bat. Gaur egungo mahastiari balio erantsia emango dion aleren bat aurkitzeko grinak ondorio kaltegarriak eragin ditzake, eta balizko instalazio horiek metodologia arkeologikoetatik kanpora garbitzera bultzatu (asmo onak, ondorio ezin okerragoak). Bestalde, dolare horiek harrien azaleratzeetan egokitzen direnez, eta gaur egun harrizko azaleratze horiek mahasti sailen arteko uharteak direnez, desagertzeko arrisku etengabean daude legezko tresnak egon badauden arren.

Ardoarekiko loturari buruz

Ardoa egiteko dolareak dira? Erantzuna baiezkoa da. Zapaltzeko plataformen presentzia etengabeak eta olibak ehotzeko sistemen eta ondoz ondoko dekantazio eta komunikazio deposituen absentziak ezinbestean garamatzate mahatsa eraldatzeko instalazioetara.

Mahatsa zukutzeko sistemei buruz

Arabako Errioxako ale gehien-gehienak mahatsa zapaltzeko plataformak dira. Muztioa kanal txiki batzuetan barrena bideratu eta putzu edo depositu batean biltzen da. Eta badira mahatsa prentsatzeko sistemen aztarna negatiboak: Santurniak (Bastida) habe prentsa bat zuen; Montebuenak (Bastida) eta San Vicentek (Elvillar) torloju bertikal edo ardatz batez hornituriko prentsak dituzte atarietan bilduta.

Nolanahi ere, ale horiek zurezko egitura handiak izan zituzten, horiek bermatzeko ainguraketak ageriko arrastoak utzi baititu arrokaren gainean. Ezin dugu

Todo esto conlleva una importante lectura patrimonial. La percepción sobre la importancia histórica de los lagares ha ido en aumento en los últimos años, pero esta sensibilización no siempre desemboca en una correcta actuación. Las ansias por descubrir algún ejemplar que otorgue valor añadido al viñedo actual puede resultar contraproducente, empujando a realizar actuaciones de limpieza fuera de los cauces arqueológicos (buenas intenciones, consecuencias funestas). Por otro lado, la ubicación de los lagares en afloramientos rocosos que a día de hoy son prácticamente islas entre mares de monocultivo de vid supone un riesgo permanente de desaparición a pesar de las herramientas legales existentes.

Sobre su relación con el vino

¿Son lagares de vino? La respuesta es afirmativa. La presencia continua de plataformas de pisado y la ausencia (al menos por el momento) tanto de sistemas de molturación de olivas como de depósitos de decantación sucesivos y comunicados remiten necesariamente a la transformación de la uva.

Sobre los sistemas de estrujado de la uva

La inmensa mayoría de los ejemplares de Rioja Alavesa son plataformas de pisado donde el mosto se conduce a través de pequeños canales y se recoge en un depósito (torco) de recepción. Pero también existen huellas en negativo de sistemas de prensado: Santurnia (Labastida) contaba una prensa de viga; Montebuena (Labastida) y San Vicente (Elvillar) presentan prensas de tornillo vertical o huso alojadas en pórtico.

En cualquier caso, hablamos en estos ejemplares de potentes estructuras lignarias cuyo anclaje proporciona

baztertu lan egiteko azaleretan gaur egun marka adierazgarriak eskaintzen ez dituzten prentsa mugikor txikiak baliatu izana. Izan ere, dolare askoren ondoan, kasu batzuetan mahatsa zapaltzeko plataformen barruan, badira prozedura hori islatu dezaketen zulo txiki batzuk.

Dolareak eraikitzeko moduei buruz

Loren, Montebuena eta bereziki Mugazabalen bideratutako esku hartzeei esker, azken horretan ezin hobe kontserbatu baitira lanabesek arrokan utzitako markak, arrokan egindako indusketa prozesu progresiboa hauteman ahal izan dugu, ebakidura bertikalak egin eta kolpe zeiharrak eman zituzten, betiere zeharkako kolpeak emateko tresna bat erabiliz, esate baterako, laztabina. Behin alboetan nahi zen sakonera iritsi ondoren, hondoa kareztatu eta berdindu egiten zuten era berean laztabina, punta zizela edo zizel laua erabiliz. Lanabes horiek arrokan induskatutako Erdi Aroko nekropolietan, X.-XII. mendekoetan, dokumentatzen dira, baina horien erabilera ez zen aipatutako mendeetara mugatu, gerora ere lanabes horiek erabili baitira gaur egunera arte, eta beraz, ezin dugu irizpide hori baliatu adierazle kronologiko erabakigarri gisa.

Dolareei lotutako mahastiei buruz

Ikerketa proiektu honetan ustekabeko atseginetako bat izan da egiaztatzea kasu batzuetan (Mugazabal, Remelluri eta Castrijo) mahatsa eraldatzeko dolareen ondoan kontserbatu egin direla askotariko zulo edo erreten ugari, eta zulo horiek ez direla mahatsa prentsatzeko mekanismoen arrastoak, eta are gutxiago noizbehinkako habitat baten edo habitat egonkor baten zantzuak.

Gure aburuz, eta Arabako Errioxari begira dena etorkizunean argitzeko dagoen ikerketa ildo bat baita, horrek ateak zabaltzen dizkio oraingoz arriskutsua baina onargarria izan daitekeen interpretazio bati, kontuan hartzen baditugu Frantzian eta Iberiar Penintsulan erromatarren aurreko eta erromatarren garaiko testuinguru historikoetan egiten ari diren ikerlan batzuen emaitzak[107]. Baliteke ikusten ditugun ebaki horiek mahastiaren labore historikoaren isla izatea, mahatsondoarena, hain zuzen; izan ere, halakoak egiaztatu ditugu X. mendetik gaur egunera arteko dokumentu idatzietan Bastidako hainbat aurkintzatan (dolareak dauden guneetan).

Zehazki, mahastiaren antolamendua eta mahatsondoaren haziera ahalbidetzen duten lubakietan eta hobietan egiaztatzen dira landaketaren arrastoak. Lubaki eta hobi horiek, aldi berean, landareak berritzea errazten dute mogronear-morgonear deritzon teknikaren bidez (Erdi Aroko eta Aro Modernoko iturri idatzietan sarritan

[107] Boissinot, PH. (2001), Archeologie des vignobles antiques du sud de la Gaulle, *Gallia*, 58: 45-57. Martín i Oliveras, A. (2013). Nuevas vías de investigación del cultivo de la vid en época clásica. Técnicas de estudio, caracterización e identificación de variedades de uva antiguas para su plantación en viñedo romano experimental, Palomo, A., Piqué, R. Terradas, X. (arg.), *Experimentación en arqueología. Estudio y difusión del pasado*, MAC-Girona, 25.2: 327-335. Echevarría Sánchez, A., Vera Rodríguez, J.C. (2015). Los inicios de la viticultura en la Península Ibérica a partir de las huellas de cultivo, Francia Verde, R. (koor.), *Historia y arqueología en la cultura del vino*, Instituto de Estudios Riojanos: 57-68.

evidentes huellas sobre la roca. No podemos descartar que en las superficies de trabajo existieran puntualmente pequeñas prensas móviles que no ofrecen marcas significativas en la actualidad. De hecho, junto a muchos lagares y también en algunos casos dentro de las propias plataformas de pisado existen algunas pequeñas oquedades que podrían reflejar este procedimiento.

Sobre los modos de construcción de los lagares

Gracias a las intervenciones efectuadas en Loren, Montebuena y Mugazabal, especialmente en este último complejo debido a la excepcional conservación de las marcas de herramientas en la roca, hemos podido captar el proceso progresivo de excavación en la roca, bien mediante la incisión vertical bien mediante golpes oblicuos, utilizando siempre una herramienta de percusión indirecta como es el barreno. Una vez que se alcanza en los laterales la profundidad deseada, el fondo se carea y regulariza también con barreno, puntero más fino o cincel plano. Estas herramientas se documentan en las necrópolis medievales excavadas en roca de los siglos X-XII, pero su uso no se reduce a estas centurias sino que continúa a través del tiempo prácticamente hasta nuestros días, por lo que no podemos utilizar este criterio como indicador cronológico definitivo.

Sobre el viñedo asociado a los lagares

Una de las gratas sorpresas de este proyecto de investigación ha sido comprobar que, en algunas ocasiones (Mugazabal, Remelluri o Castrijo), junto a los lagares de transformación se conservan abundantes y variadas oquedades que no pueden interpretarse como huellas de la existencia de mecanismos de prensado ni mucho menos como marcas de hábitat ocasional o permanente.

En nuestra opinión, y es una línea de investigación para Rioja Alavesa en la que queda todo por decir a futuro, esto abre la puerta a una interpretación por el momento arriesgada pero plausible, a tenor de algunos estudios que se vienen realizando en Francia y la Península Ibérica en contextos históricos prerromanos y romanos[107]. Puede que estas rozas que observamos sean el reflejo del cultivo histórico del viñedo, una presencia, la de la vid, que hemos constatado documentalmente en varios parajes de Labastida (coincidentes con la existencia de lagares) desde el siglo X hasta la actualidad.

Concretamente, las huellas de plantación se concretan en trincheras y fosas que favorecen la organización del viñedo y el crecimiento de la vid, a la vez que facilitan la renovación de las plantas mediante la técnica de mugronear-morgonear (una práctica que también aparece habitualmente en la documentación escrita de época medieval y moderna), consistente en renovar

[107] Boissinot, PH. (2001), Archeologie des vignobles antiques du sud de la Gaulle, *Gallia*, 58: 45-57. Martín i Oliveras, A. (2013). Nuevas vías de investigación del cultivo de la vid en época clásica. Técnicas de estudio, caracterización e identificación de variedades de uva antiguas para su plantación en viñedo romano experimental, Palomo, A., Piqué, R. Terradas, X. (eds.), *Experimentación en arqueología. Estudio y difusión del pasado*, MAC-Girona, 25.2: 327-335. Echevarría Sánchez, A., Vera Rodríguez, J.C. (2015). Los inicios de la viticultura en la Península Ibérica a partir de las huellas de cultivo, Francia Verde, R. (coord.), *Historia y arqueología en la cultura del vino*, Instituto de Estudios Riojanos: 57-68.

aipatzen den praktika); teknika horren arabera, mahastia pixkanaka berritzen da maha-tsondo zahar bat alboko ebakidura batera bideratuz edo mahats adar bat lurperatuz oin berri bat sortzeko.

Nolanahi ere, etorkizunari begira zuzeneko ondorioa izango baitute, hipotesi horiek egiaztatu edo baztertu beharko dira kontuan izanik arrokan zulatutako dolareen inguruan aspaldiko mahastiaren landaketaren aztarnak ere kontserbatu daitezkeelako aukera erakargarria. Eta beraz, etorkizuneko esku hartze arkeologikoek ahal den neurrian kontuan hartu beharko dute hori, eta luze-zabalean aztertu beharko dute dolareen inguruko espazioa. Garrantzi handieneko informazioa dago jokoan Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintza historikoa modu globalean ulertzeko.

Dolareen kronologiari buruz

Urriak eta laburrak badira ere, arrokan zulatutako dolareek idatzizko erreferentziak dituzte X.-XI. mendeetatik. Beste muturrean, XIV. eta XV. mendeetan lurpeko dolareetaranzko joera aldaketa bat islatzen duten lekukotasun idatziak daude. Nolanahi ere, ez dago ukatzerik harrizko instalazio batzuei geroago beste erabilera bat eman zietela (guk geuk burututako indusketa arkeologikoetan lortutako emaitzek berretsi duten bezala). Azken batean, dolare horiek beti daude mahastien ondoan, eta beraz, ildo horretan, erraz irudikatu daiteke tarteka erabiliko zituztela. Berretsi dezakeguna da Aro modernoan eta Aro garaikidean uzta biltze orokorra tokiko kontzejuek zorrotz araututa zegoela, mahatsak beren azalekin garraiatzen zituztela herrietako lurpeko dolareetara, ardoa egiteko moduen bilakaerarekin bat etorrita.

Mahastien eta arrokan zulatutako dolareen arteko lotura etengabearekin jarraituta, Bastidako aurkintza batzuetan mahatsondoak X. mendetik gaur egunera arte daudela ikusi dugu, eta aurkintza horietan dolareak egiaztatu ditugu. Arazoa da mahastiak errentan hartzeko, ustiatzeko edo salerosteko kontratu guztiz interesgarriak ugaritu egin zirela XVI. mendetik aurrera, eta garai hori inolako zalantzarik gabe oso berantiarra progresivamente la viña derivando una cepa vieja a una roza lateral o enterrando un sarmiento de aquella para obtener un nuevo pie.

En cualquier caso, y como consecuencia directa para el futuro, estas hipótesis sólo podrán ser contrastadas o refutadas teniendo en cuenta la muy sugerente posibilidad de que en el entorno de los lagares excavados en roca también se puedan conservar evidencias de la plantación de viñedo antiguo. Y por lo tanto, las próximas intervenciones arqueológicas deberían en la medida de lo posible tomar en cuenta este hecho y analizar el espacio de los lagares en extensión. Hay información potencial de suma importancia en juego para entender globalmente la vitivinicultura histórica en Rioja Alavesa.

Sobre la cronología de los lagares

Los lagares excavados en roca tienen (escasas y escuetas) referencias documentales desde los siglos X-XI. En el otro extremo, existen testimonios escritos que reflejan un cambio de tendencia hacia los lagos subterráneos en los siglos XIV y XV. No se puede negar en cualquier caso (y nos remitimos a nuestros propios resultados en las excavaciones arqueológicas efectuadas) un uso posterior de algunas instalaciones rupestres. Al fin y al cabo, los lagares se ubican siempre junto a las viñas, y no es difícil imaginar en este sentido una utilización esporádica. Lo que podemos confirmar es que en época moderna y contemporánea la vendimia general, regulada férreamente por los concejos locales, transporta las uvas con los hollejos a los lagos soterrados de los núcleos poblacionales, de acuerdo a la evolución de las formas de vinificación.

Siguiendo la permanente asociación de viñedo y lagares excavados en roca, hemos observado para Labastida la presencia de vid en algunos parajes desde el siglo X hasta prácticamente la actualidad, parajes donde constatamos la presencia de lagares. El problema reside en que los muy interesantes contratos de arriendo, de explotación o compraventas de viñedo florecen a partir del siglo XVI, una época sin duda muy



Mugazabalgo airetiko ikuspegi orokorra. Zapalketa bidezko dolare baten arrastoak, habe bidezko ustezko prentsa bat eta mahastiak lubaki edo hobian antolatu izanaren arrastotzat ditugun erreten asko (ez dute zertan garaikideak izan) bereizten dira.

Vista aérea general de Mugazabal, donde parecen coexistir huellas de un lagar de pisado, una posible prensa de viga y multitud de rozas que interpretamos como marcas de plantación de viñedo en fosa (no necesariamente contemporáneas).



Ezkerrean, Remelluriko nekropolian dagoen dolare txikia. Eskuinean, hobi bat ebakitzen duen erretena, gure iritziz, mahastiaren landaketa historikoarekin lotuta egon daitekeena.

A la izquierda, pequeño lagar existente en la necrópolis de Remelluri. A la derecha, roza que corta una tumba y que, en nuestra opinión, puede estar asociada a la plantación histórica de viñedo.

dela aztergai ditugun arrokan induskatutako instalazioen jatorria aztertzeko.

Arabako Errioxan maila orokor edo makro honetan erabili dugun beste estrategia bat izan da arrokan egindako dolare multzo kopuru handi bat Erdi Aroko herriguneen aztarna arkeologikoekin lotzea. Hori bai, albokotasun lotura horiek, bizitegi espazioak eta ekoizpen espazioak (kasu honetan mahastizaintza eta ardogintza) testuinguruan kokatzen baitituzte, oso kontuan hartu beharreko aukeratzat hartu behar ditugu, baina inola ere ezin dira ziurtasun gisa erakutsi. Hau da, arrokan antolatutako multzo batzuk oso-oso hurbil daude Erdi Aroko habitat aztarnetatik, hain hurbil ezen pentsa baitaiteke lotura estua zegoela herrixkaren eta mahastien eta ardoa egiteko gunearen artean, baina ez dago erabateko ziurtasunez egiaztatutako loturarik, besteak beste mahastiak eta dolareak, gaur egun Erdi Aroan bezala, bizitegi eremuetatik kanpo zeudelako. Eta hain zuzen ere bizitegi aldeak, otoitz egitekoak eta ehorzlekuak dira arkeologikoki hobekien ezagutzen ditugunak, arrokan zulatutako dolareak biltzen dituzten ageriko lan eremuak ez bezala.

Dolare asko biltzen dituen lekua da Castrijo, Bastidaren mendebaldean dago, Erdi Aroko Santa Luzia edo Torrentejoko herri hustutik eta gaur egungo izen bereko baselizatik 500 metro eskasera. Bertan bideratutako kanpaina arkeologikoetan hauexek hauteman dira: VII., XIV.-XV. eta XVIII. mendeetan datatutako laborantza terrazak; Torrentejoko elizarekin zuzenean lotzen ez den Goi Erdi Aroko hilerria (VIII.-IX. mendeak); X.-XI. mendeetako etxe egiturak; eta herrixkaren antolamendu berria, XI. mendean gauzatua. XII. mendean, behin Donemiliaga Kukulako monasterioak leku hau bere jabetzakoa egin zuenean, bi etapatan berreraiki zuten eliza. Itxura guztien arabera, XIV. mende amaieran edo XV. mende hasieran hustu zen herrixka[108]. Iturri idatzien arabera, Torrentejon gutxienez XI. mendeaz geroztik baziren mahastiak. Beraz, Castrijo inguruko labar dolare horiek ondoko Erdi Aroko herrixka ongi mugatuaren testuinguruarekin lotzen dira (VIII.-XIV. mendeak).

Artaxoa, Cubanegra eta Matadulako labar dolareen multzoak Motilluri eta La Llana aztarnategietatik 300 me-

tardía para analizar el origen de las instalaciones rupestres a estudio.

Otra estrategia que hemos utilizado en este nivel general o macro en Rioja Alavesa ha sido la de relacionar espacialmente un buen número de complejos de lagares rupestres con indicios arqueológicos de poblamiento medieval. Eso sí, debemos considerar estas relaciones de contigüidad como una posibilidad a tener muy en cuenta que contextualiza los espacios de habitación con los de producción (en este caso vitivinícola), pero en ningún caso se puede mostrar como una certidumbre. Es decir, algunos complejos rupestres se ubican tan cerca de vestigios de hábitat medieval que es factible pensar que pueda darse una asociación del tipo aldea - zona de cultivo y transformación del vino, pero no existen relaciones contrastadas con absoluta certeza, entre otras cosas porque viñedos y lagares, hoy como en la Edad Media, se hallaban fuera de los espacios habitacionales. Y precisamente son los lugares de habitación, de culto o de enterramiento los que mejor conocemos arqueológicamente, y no tanto los lugares de trabajo externos de los que forman parte los lagares rupestres.

Castrijo es una impresionante localización de múltiples lagares situada al oeste de Labastida y a escasos 500 metros de la aldea medieval y actual ermita de Torrentejo-Santa Lucía. Las campañas arqueológicas han detectado unas terrazas de cultivo fechadas en el siglo VII, XIV-XV y XVIII; un cementerio altomedieval (siglos VIII-IX) no asociado directamente a la iglesia de Torrentejo; estructuras domésticas de los siglos X-XI; y una reorganización de la aldea en el siglo XI. En el siglo XII, una vez que el monasterio de San Millán de la Cogolla convirtió el lugar en una decanía, la iglesia fue reconstruida en dos etapas. Todo parece indicar que la aldea fue despoblada en torno hacia finales del siglo XIV o inicios del XV[108]. La documentación escrita refleja la existencia de viñedo en Torrentejo al menos desde el siglo XI. Es posible por lo tanto contextualizar los lagares rupestres del entorno de Castrijo con el poblamiento medieval cercano y bien acotado (siglos VIII-XIV).

Los complejos de lagares rupestres de Artajona, Cubanegra y Matadula se hallan a no más de 300 metros

[108] Quirós, J.A., Tejerizo, C. (2017). Santa Luzia edo Torrentejoko herri hustua, *Arkeoikuska 2016*: 81-85.

[108] Quirós, J.A., Tejerizo, C. (2017). Despoblado de Torrentejo o Santa Lucía, *Arkeoikuska 2016*: 81-85.

trora daude, gutxi gorabehera. Motilluriri dagokionez, XI. mendearen erdialdetik aurrera aipatzen da herrixka Donemiliaga Kukulako eta Leireko dokumentuetan, eta leku horrek memorian jarraitzen du mende batzuetan zehar kontserbatu egin delako San Martin baseliza. Esan beharra dago inguruetan parrokiako hilerria eratuko zuen nekropoli bat dagoela[109]. Motilluritik mendebaldera ez urrutira La Llanako giza egonlekua izeneko eremu bat dago, eta bertan arkeologikoki aztertu zen VIII.-XI. mende bitartean eta hainbat alditan etxeko hondakindegi gisa (zeramika, fauna hondakinak, eraikuntzatik etorritakoak, harrizko eta metalezko materialak) berrerabilitako 16 silok osatutako multzo bat. Izan ere, Luis Gilek lotu egiten ditu siloak eta hondakinak desagerrarazteko espazio horiek Motilluriko herrixkarekin berarekin[110].

Motilluriko eta Artaxoako mahastiak gutxienez XI. mendeaz geroztiko iturri idatzietan daude jasota, eta aro modernokoetan ere bai. Eta beraz, berriz ere proposatu dezakegu XI. mendean jada existitzen zen eta XV. mendetik haratago egin ez zuen Erdi Aroko herrixka baten eta harrian zulatutako dolareen arteko lotura zentzuzkoa.

Loren-en (Samaniego), proiektu honen baitan, arkeologikoki esku hartu dugu bi dolaretan, horietako bat kontserbazio egoera txar samarrean dago, baina bestea bikain kontserbatu da. Tamalez, berreskuratutako mahats hazi ugariek gure ustez arrokan zulatutako dolareen sorrera unearekin ez baizik eta askoz ere geroagoko behin-behineko erabilera batekin bat datorren datazio aski berria eskaini dute. Nolanahi ere, beste ale bikain bat da dolareak eta Erdi Aroko herrixka testuinguruan jartzeko proposamena egiteko. Leku horretatik iparraldera 200 metro eskasera dago Murriarteko herri hustua. Guardiako hiriari lotutako landa eremuko herrixketako bat zen 1164. urteaz geroztik, eta populatuta egon zen XV. mendera arte[111].

Arabako Errioxako leku batzuetan, oraindik ere gehiago doitu daiteke Erdi Aroko herrixkaren eta arrokan zulatutako dolareen arteko lotura, horretarako adierazle mikroak erabili behar dira. Remellurin arrokan induskatutako nekropoli bateko berrogeita hamarretik gora hilobi utzi ziren agerian, eta hilobi horiek, beren tipologiagatik eta beste kasu batzuekin alderatuta, X. mende inguruan kokatu ziren kronologikoki[112], eta IX. eta X. mendeetako idatzizko erreferentzia askorekin lotu ziren horiek. Nekropoli horretan dolare txiki bat dago, baina ez da egia hileta hobi bat ebakitzen duenik, azterlanen batean horri buruz irakur daitekeenez. Eremuan kontserbatzen diren erreten paraleloetako bat da arrokan zulatutako hobi hori zuzenean ebakitzen duena, eta beraz, geroagokoa da (ez dakigu zehazki noiz egina den). Lede los yacimientos de Motilluri y La Llana. Respecto a Motilluri, la aldea se menciona en la documentación de San Millán de la Cogolla y Leire desde mediados del siglo XI y el lugar queda en la memoria gracias a la conservación durante algunos siglos de la ermita de San Martín. También podemos añadir la existencia en las cercanías de una necrópolis que debía conformar el cementerio parroquial[109]. Poco al oeste de Motilluri se halla el área denominada asentamiento de La Llana, donde se analizó arqueológicamente un conjunto de 16 silos reutilizados como basureros domésticos (cerámica, restos de fauna, restos constructivos, material lítico y metálico) en diferente ritmo, entre los siglos VIII-XI. De hecho, Luis Gil pone en relación estos silos y espacios de eliminación de residuos con la propia aldea de Motilluri[110].

La existencia de viñedo en Motilluri y Artajona se reconoce en la documentación escrita desde al menos el siglo XI y también durante la época moderna. Y de nuevo podemos proponer la más que razonable asociación entre un núcleo poblacional medieval que ya existe en el siglo XI y que no va más allá del siglo XV con lagares excavados en roca.

En Lorén (Samaniego) hemos intervenido arqueológicamente durante la realización de este proyecto sobre dos lagares, uno de ellos bastante degradado pero el otro en perfectas condiciones de conservación. Lamentablemente, la gran cantidad de semillas de uva recuperadas ha ofrecido una datación reciente que no corresponde a nuestro entender con el momento de creación de los lagares excavados en roca, y sí con una utilización esporádica muy posterior. En todo caso, es otro excelente ejemplo para proponer la contextualización de lagares y poblamiento medieval. A escasos 200 al norte de esta localización se halla el despoblado de Murriarte, uno de los núcleos aldeanos (ya existente) que quedan adscritos a la villa de Laguardia desde 1164, estando poblado hasta el siglo XV[111].

Existen algunos lugares en Rioja Alavesa donde poder afinar todavía más la relación entre poblamiento medieval y lagares rupestres, utilizando indicadores micro. En Remelluri se exhumaron más de medio centenar de tumbas de una necrópolis excavada en roca que, por tipología y comparación de casos, situaron cronológicamente en torno al siglo X[112], relacionándose con las numerosas referencias escritas existentes durante los siglos IX y X. En la necrópolis existe un pequeño lagar, pero no es cierto que esté cortando a una fosa funeraria, como puede leerse en alguna obra al respecto. Lo que sí corta directamente a una tumba excavada en roca es una de las rozas paralelas que se conservan en el área, y que sería por lo tanto posterior (no sabemos

---

109 García Fernández, E. Díaz de Durana, J.R., López de Ullibarri, F. (1990). *Labastida en la Edad Media. Poblamiento y organización político-administrativa (S. X-XIII)*. Arabako Foru Aldundia. Velilla Córdoba, S. (2018). Cuatro ermitas de San Martín en la antigua Sonsierra de Navarra, *Berceo*, 174: 11-36.

110 Gil Zubillaga, L. (2004). Los silos de La Llana (Labastida, Álava). Memoria de las campañas de excavación de 1995, 1996 y 1997, *Estudios de Arqueología Alavesa*, 21: 281-310.

111 García Fernández, E. (1985). *La Comunidad de Laguardia en la Baja Edad Media (1350-1516)*, Arabako Foru Aldundia.

112 Llanos Ortiz de Landaluce, A. (1972). Necrópolis altomedievales en la zona occidental de Rioja Alavesa, *Estudios de Arqueología Alavesa*, 5: 219-245.

109 García Fernández, E. Díaz de Durana, J.R., López de Ullibarri, F. (1990). *Labastida en la Edad Media. Poblamiento y organización político-administrativa (S. X-XIII)*. Diputación Foral de Álava. Velilla Córdoba, S. (2018). Cuatro ermitas de San Martín en la antigua Sonsierra de Navarra, *Berceo*, 174: 11-36.

110 Gil Zubillaga, L. (2004). Los silos de La Llana (Labastida, Álava). Memoria de las campañas de excavación de 1995, 1996 y 1997, *Estudios de Arqueología Alavesa*, 21: 281-310.

111 García Fernández, E. (1985). *La Comunidad de Laguardia en la Baja Edad Media (1350-1516)*, Diputación Foral de Álava.

112 Llanos Ortiz de Landaluce, A. (1972). Necrópolis altomedievales en la zona occidental de Rioja Alavesa, *Estudios de Arqueología Alavesa*, 5: 219-245.

hen ere azaldu dugu erreten horiek mahastiaren landaketaren arrastoak izan daitezkeela; hala bada, aurreko-ondorengo zuzeneko lotura bat izango genuke ez dolarearekin berarekin, baina bai mahatsondoen hazkuntzaren lagin batekin. Bestalde, ez da oso zentzuzkoa erabilera aldian zegoen hileta ingurune batean mahastizaintza eta ardogintza lanak egitea.

Errioxatik hurbil dauden nekropolietan arrokan zulatutako hobiak ebakitzen dituzten bi dolare ditugu arrokan zulatuak (Santa María de la Piscina eta San Andrés de Hornillos), eta beraz, hobi horiek zulatu ondorengoak dira dolareak. Bi hilerri alde horiek X.-XII. mende inguruan kokatzen dira irizpide tipologikoen arabera, baina ez dugu datazio zehatzik[113].

Azkenik, Elvillarko San Vicente dolarearen lekukotasun arkeologiko baliotsua dugu. Bertan egokitutako maila antropiko lodietan bideratutako esku hartzearen arabera (hainbat deposituk eta amortizazio egiturek guztiz zigilatuta zuten dolarea) IX.-XII mende artekoa da lehenengo abandonu depositua, eta beraz, dolare hori amortizatuta geratu aurretik, 800. urte inguru (mutur batean) eta 1200. urte inguru (beste muturrean) bitartean erabiliko zutela proposatzera garamatza horrek, eta garai hori guztiz bat dator arrokan zulatutako dolarearen mendebaldera metro gutxi batzuetara (150-200 metro inguru) dagoen San Vicente herrixkaren existentziarekin[114]. Bizitegi eremuak eta mahastizaintzako eta ardogintzako lan eremuak, dagokien testuinguru historikoarekin nolabaiteko ziurtasunez lotu daitezkeen adibide onenetako bat da.

cuánto). Ya hemos comentado que interpretamos estas rozas como posibles huellas de plantación de viñedo; de ser así tendríamos una relación directa de anteroposterioridad no con el lagar propiamente dicho, pero si con una muestra de cultivo de vid. Por otra parte, no es muy lógico realizar labores vitivinícolas en un entorno funerario en uso.

En necrópolis cercanas de La Rioja sí encontramos dos casos de lagares rupestres (Santa María de la Piscina y San Andrés de Hornillos) que cortan tumbas excavadas en roca, por lo que necesariamente han de ser posteriores. Ambos espacios cementeriales se sitúan en torno a los siglos X-XII por criterios tipológicos, pero no poseemos dataciones concretas[113].

Finalmente, disponemos del valioso testimonio arqueológico del lagar de San Vicente en Elvillar. La intervención sobre los potentes niveles antrópicos depositados (el lagar se hallaba excepcionalmente sellado por varios depósitos y estructuras de amortización) fija el primer depósito de abandono entre los siglos IX-XII, lo que nos lleva a proponer un uso que puede situarse en torno al año 800 en un extremo y 1200 como fecha más reciente, antes de quedar amortizado, época que coincide plenamente con la existencia de la aldea de San Vicente, situada a escasos metros al oeste (apenas 150-200 m) del lagar rupestre[114]. Es uno de los mejores ejemplos donde se puede correlacionar con cierto grado de certidumbre los espacios habitacionales y las áreas de trabajo vitivinícola, con su correspondiente contextualización histórica.

J. Rodríguez Fernández; Á. Martínez Montecelo; I. Sánchez Pinto

A.30.4. **Araban aztarnategi arkeologikoak teledetekzioaren bidez identifikatzea (Asparrena / Lantaron / Donemiliaga / Gaubea)**

Zuzendaritza: F. Rafael Varón Hernández
Finantzazioa: Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza

A.30.4. **Identificación de yacimientos arqueológicos en Álava a través de la teledetección (Asparrena / Lantaron / San Millán / Valdegovía)**

Dirección: F. Rafael Varón Hernández
Financiación: Centro de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco

This text presents the results obtained from applying remote detection and Landscape Archaeology techniques to different sites in the province of Álava. The project included the gathering and processing of different historical, archaeological and cartographic documents, as well as aerial photos; and new documents have been generated thanks to the use of drones.

113 Loyola Perea, E. (1983). El yacimiento medieval de Santa María de la Piscina, *Cuadernos de Investigación: Historia*, 9-2: 77-88. Heras y Núñez, M.A., Tojal, I. (1995). *El alfoz de San Vicente de la Sonsierra*, Errioxako Gobernua.

114 García Fernández, E. (2020). Elvillar de Álava: somos libres y exentos, no vasallos ni botegeros, *Sancho el Sabio*, ale berezia 3: 23-65. Rodríguez Fernández, J., Martínez Montecelo, A., Sánchez Pinto, I. (2022). San Vicenteko harrizko dolarea, *Arkeoikuska 2021*: 56-60.

113 Loyola Perea, E. (1983). El yacimiento medieval de Santa María de la Piscina, *Cuadernos de Investigación: Historia*, 9-2: 77-88. Heras y Núñez, M.A., Tojal, I. (1995). *El alfoz de San Vicente de la Sonsierra*, Gobierno de La Rioja.

114 García Fernández, E. (2020). Elvillar de Álava: somos libres y exentos, no vasallos ni botegeros, *Sancho el Sabio*, Extra 3: 23-65. Rodríguez Fernández, J., Martínez Montecelo, A., Sánchez Pinto, I. (2022). Lagar rupestre de San Vicente, *Arkeoikuska 2021*: 56-60.

Sarrera

Garai desberdinetako aztarnategietan teledetekzio eredu desberdinak baliatzeko teknologia berrien eta datu publiko berrien erabilerak eman dio hasiera proiektu honi.

Hauexek izan dira gure abiapuntua: droneen erabilera eta LiDAR aplikazioarekin lortutako datuei gehitu beharreko produktuen lorpena, toponimia biltzea eta gainazaleko miaketa –azken eginkizun horri teknologia mugikorretan oinarritutako informazioa biltzeko eredu bat inplementatu zaio–.

Helburua izan da teknika mota horiek aztertzea, Paisaiaren Arkeologiaren berezko teknikak baitira, une honetan Euskal Autonomia Erkidegoan dugun esparrua gaindituko duen prospekzio eredu bat proposatzeko.

Aukeratutako Balizko Arkeologia Guneek droneen erabilera erraztu beharko luketen ezaugarri komun batzuk dauzkate. Gure kasuan, 9 BAG eta inbentarioan jaso gabeko galtzada tarte bat, bibliografiaren arabera erromatarren garaiko kronologia baitu, bereizi ditugu. Printzipioz, labore sailek hartuta egongo ziren arakatu beharreko lekuak, edo bestela, larreak izango ziren nagusiki. Beste elementu komun bat da, eta ez garrantzi txikikoa, droneak erabili ahal izateko erraztasun administratiboa; kasu guztietan erabili ahal izan genituen tresna horiek A1/A3 baldintzetan, «El Castrillo» aldean izan ezik, leku hori Valderejoko Parke Naturalean dagoelako; kasu horretan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailari baimena eskatu behar izan genion, baita lortu ere. Eskerrak ematen dizkiegu Sail horretako langileei eta Parkeko langileei, erraztasun eta laguntza guztiak eman baitizkigute lanak ahalik eta hobekien egiteko.

Era berean boluntarioen lankidetzaren onuraduna izan da proiektua. Boluntario horiei esku hartzearen edukiei eta burura eraman beharreko lan zehatzei buruzko prestakuntza teorikoa eta praktikoa eman zaie. Halaber, eskertzekoa da UPV/EHUko Letrak Fakultatearen lankidetza, Belen Bengoetxea Doktorearen bidezkoa, eta Arkeologiarako Arabar Institutuarena, ekimen honetan boluntarioen parte hartzea sustatu baitzuen[115].

Lan fluxua

Proposatutako lan fluxua, oro har, hiru fasetan eraman da burura: hasierako bulego lanetan, landa lanak egiteko bigarren fasean eta azkeneko hirugarren fasean, lortutako datu guztiak biltzen dituen txostena egiteko bulego lanetan.

Datuak biltzea Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroan

Hasteko, dokumentatu beharreko lekuei dagozkien fitxak berrikusi ditugu Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroan, ahalik eta informazio gehiena bilduz, Arabako Inbentario Arkeologikoko (AIA) fitxetan jasotako edukiak eta babes geometriak barne hartuta. Nahitaez egin beharreko bisitaldia izan zen,

[115] Hauexek izan dira boluntarioak: Ander Armentia, Mikel Núñez, Sergio Carracedo, Marian Pena, Imanol Vidal, Koldo Jauregi eta Vega Orozco.

Introducción

El proyecto arranca con la utilización de nuevas tecnologías y nuevos datos públicos para practicar distintos modelos de teledetección en yacimientos de diferentes épocas.

Nuestro punto de partida ha sido la utilización de drones y la obtención de distintos productos que sumar a los datos obtenidos de la aplicación de LiDAR, la recogida de toponimia, la prospección de superficie –a la que se ha implementado un modelo de recogida de información basada en tecnologías móviles.

El objetivo ha sido testar este tipo de técnicas, propias de la Arqueología del Paisaje, para proponer un modelo de prospección que supere el marco actual que tenemos en la Comunidad Autónomo del País Vasco.

Las Zonas de Presunción Arqueológica seleccionadas presentan características comunes que deberían facilitar el uso de los drones. En nuestro caso se ha optado por 9 ZPA más un tramo de calzada sin inventariar, pero propuesta como de cronología romana por la bibliografía. En principio, los sitios a revisar debían tener cultivos de tipo cerealícola o, en su defecto, espacios mayoritariamente herbáceos. Otro elemento común, y no de poca importancia, es la facilidad administrativa para poder volar drones; en todas ellas se podían utilizar estos aparatos bajo condiciones A1/A3, a excepción de «El Castrillo», situada en el Parque Natural de Valderejo, en que tuvimos que solicitar y obtener el permiso del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava. Debemos agradecer al personal de este Departamento, así como a las y los trabajadores del Parque, las facilidades y colaboración que nos han prestado para el mejor desarrollo de los trabajos.

El proyecto también se ha beneficiado de la colaboración de personal voluntario al que se ha ofrecido formación teórica y práctica sobre los contenidos de la actuación y sus labores específicas en él. Agradecemos profundamente su participación, así como la colaboración de la Facultad de Letras de la UPV/EHU a través de la Dra. Belén Bengoetxea, y al Instituto Alavés de Arqueología, que apoyaron la participación de personas voluntarias en esta iniciativa[115].

Flujo de trabajo

El flujo de trabajo propuesto ha consistido, de manera general, en una fase inicial de gabinete, una de campo, y una tercera final, nuevamente en gabinete para la redacción de la memoria integrando todos los datos obtenidos.

Recogida de datos en el Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco

En primer lugar, se han revisado las fichas correspondientes a los sitios a documentar en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco del Gobierno Vasco, recopilando toda la información posible, incluyendo el contenido de las fichas del Inventario Arqueológico de Álava (IAP) y sus geometrías de protección. Esta fue visita obligada, puesto que estos datos no son de acceso en remoto, al con-

[115] Las personas voluntarias han sido: Ander Armentia, Mikel Núñez, Sergio Carracedo, Marian Pena, Imanol Vidal, Koldo Jauregi y Vega Orozco.

datu horiek ezin eskuratu baitaitezke urrunetik, beste erkidego batzuetan gertatzen denaren kontrara, horietan profesional gaituek informazio hori eskuratu baitezakete, datuak linean aztertu ahal izatea ahalbidetuz, itxaronaldiak eta alferrikako joan-etorriak saihestuz. Ekintza honen helburua da aurreneko GIS bat lantzea, zeharkakoa izango dena proiektuaren jarduera guztiekiko.

Txostenak berrikustea BIBATen

Mota bateko edo besteko jarduerak izan zituzten lekuetan bideratutako jarduera arkeologikoei dagozkien txostenak berrikusi dira BIBAT Museoan.

Toponimia biltzea

Hurrengo une batean aztertu beharreko lekuen toponimia bildu da. Horretarako hiru iturri erabili ditugu, automatikoa bata, erdiautomatikoa bestea eta eskuzkoa hirugarrena. Lehenengo kasuan IDE GeoEuskadik bildutako toponimia erabili dugu toponimoa dagozkion X eta Y koordenatuetan zehaztu eta automatikoki gure GIS-ean kokatu ahal izateko. Bigarrenik, IGN-k eskaintzen dituen Minuta Kartografikoak erabili ditugu, GIS-ean WMS geruzak kargatuz eta toponimoa eskuz kokatuz. Azkenik, J.A. González Salazarren *Cuadernos de Toponimia Menor* obra klasikoa erabili dugu, eta eskuz idatzi dugu, behin eskaneatu eta georreferentziazioa egin ondoren, etnografo arabarrak bildutako toponimo bakoitza.

Dokumentazio historikoa

Era berean, leku horietako batzuei buruzko dokumentazio historikoek eta bibliografikoek eskainitako datuak bildu ditugu, leku guztiek ez baitute halako erreferentziarik.

Airetiko argazki bildumak berrikustea

IDE GeoEuskaditik eta Google Earth Pro aplikaziotik hartutako airetiko argazki bildumak berrikusi ditugu. Beraz, leku bakoitzetik gutxi gorabehera 40 argazki berrikusi ditugu haietako bakoitzean egon litezkeen jatorri antropikoko irregulartasunak bilatzen.

LiDAR eta EED

Dokumentatutako leku bakoitzeko GeoEuskadik eskainitako LiDAR artxiboak erabili ditugu. Horietako bakoitzetik dagozkion orriak aukeratu dira, mahaiko GIS batez prozesatu dira Lurraldearen Eredu Digital (LED) bat lortzeko geuk behar ditugun baldintzetan. Horretarako parametro desberdin batzuk erabili ditugu argiaren orientazioari eta altuerari edo gehiegikeria bertikalari dagokienez. Era berean, bistaratzeko modu desberdinak sortu dira lortutako emaitzak hobe ulertzeko.

Landa lanak

Gainazala miatzea

Bi lan desberdin egin dira: alde batetik, gainazala bertatik bertara miatzeko lana, eta bestetik, airetiko miaketa lana, drone bidezkoa.

Gainazala miatzeko lanetan zehar ohiko miatzaile zerrendak antolatu ziren trantsektuak egiteko dokumentatu beharreko eremuetan barrena. Parte hartzaile bakoitzak telefono mugikor adimendun bat zuen, GPS batez

trario de lo que sucede en otras comunidades autónomas con respecto a la habilitación de profesionales que pueden acceder a esta información, en que se facilita el estudio de estos datos en línea, ahorrando esperas y desplazamientos innecesarios. El objetivo de esta acción es elaborar un primer SIG, qué será transversal a todas las actividades del proyecto.

Revisión de memorias en el BIBAT

Se han revisado en el Museo BIBAT Museoa las memorias de actuación arqueológica de aquellos sitios que habían tenido actividades de algún tipo.

Recogida de toponimia

En un siguiente momento se ha recogido la toponimia de los lugares a revisar. Se ha optado por usar tres fuentes, una automática, una semiautomática y otra manual. En el primer caso se ha recurrido a la toponimia recogida por la IDE GeoEuskadi, que facilita la obtención del topónimo en sus coordenadas X e Y y que se pueden ubicar automáticamente en nuestro SIG. En segundo lugar, se ha recurrido a las Minutas Cartográficas que provee el IGN, cargando capas WMS en el GIS, y ubicando manualmente el topónimo. Finalmente, hemos utilizado la obra clásica de J.A. González Salazar, *Cuadernos de Toponimia Menor*, colocando de forma manual, tras escaneado y georreferenciación, cada topónimo recogido por el etnógrafo alavés.

Documentación histórica

También se ha recurrido a la integración de los datos ofrecidos por la documentación histórica y bibliográfica de algunos de los sitios, puesto que no todos disponían de ella.

Revisión de las colecciones de fotografía aérea

Se han revisado las colecciones de fotografía aérea procedentes de la IDE GeoEuskadi y la aplicación Google Earth Pro. Esto supone la revisión de unas 40 imágenes por cada sitio, buscando anomalías de posible origen antrópico en cada una de ellas.

LiDAR y MDT


Hemos recurrido a los archivos LiDAR, facilitados por GeoEuskadi, de cada uno de los sitios documentados. De cada uno de ellos se han seleccionado las hojas correspondientes, se han procesado con un SIG de escritorio para obtener un Modelo Digital del Terreno (MDT) con las condiciones que necesitamos. Para ello se han aplicado distintos parámetros en lo que a orientación y altura de la luz se refiere, o a la exageración vertical. También se han generado distintas formas de visualización para comprender mejor los resultados obtenidos.

Trabajos de campo

Prospección de superficie

Se han 0realizado dos actividades distintas, por un lado, el trabajo de prospección de superficie, y por otro la prospección aérea con drone.

La prospección de superficie ha contado con las típicas bandas de prospectores haciendo transectos por las zonas elegidas para documentar. Cada participante contaba con un teléfono móvil inteligente, dotado con GPS y con dos aplicaciones específicas que ha usado



170. zenbakiko BAG-ari (Medropioko herrixka) eta 233. zenbakikoari (Somillasko giza egonlekua, Gaubean) begira berreskuratutako toponimia.

Toponimia recuperada para las ZPA nº 170, Poblado de Medropio, y nº 233 Asentamiento de Somillas, en Valdegovia.

eta proiektuak erabili dituen bi aplikazio espezifikoz hornitua. Aplikazioetako batek miatu beharreko eremuen mugak identifikatuta edukitzeko balio zuen, eta miatzaileen ibilbideak erregistratzeko. IGNren Mapas de España da aplikazio hori. *App*-k berak landa eremutik parteka ditzake ibilbideak posta elektronikoaren bidez, behin landa lanak amaitu direnean.

Beste aplikazioak datuak bertatik bertara biltzeko balio du, eta aurkikuntzen georreferentziazioa eskaintzen du. Miatzaile bakoitzak bete beharreko formulario bat diseinatu zen, pieza bakoitza sailkatuz, eta beharrezkoa izan denean argazkiak egin dira. Horrela ez dira objektuak landatik ateratzen, eta saihestu egiten da gainazalaren erregistroaren galera. Adibide gisa, esan dezagun 2022ko otsail eta urri arteko irteeretan 971 objektu dokumentatu ditugula, eta horietatik 4 baizik ez genituela jaso beren ezaugarri formalengatik eta zuzeneko ekarpen kronologikoa eskaintzeagatik: domina erlijioso garaikide bat, Behe Erdi Aroko txanpon bat, hondoan *siggillum*-a duen TSH zatiki bat eta dokumentatu gabeko TSH forma posible bat.

United Nations Office for the Coordination of Humanitarian Affairs bulegoak eskaintzen du doako aplikazio hori. Bi aukera eskaintzen ditu, alde batetik datuen lineako transmisioa egin ahal izatea landatik hodeirantz, eta bestetik, datu horiek bulegotik esportatu ahal izatea internetekiko konexio baten bidez.

Landa lanetan berreskuratutako datu guztiak proiektuaren GIS-ean biltzen dira.

Miaketa lanak droneekin

Hiru unetan eta beste helburu batzuekin eraman da burura jarduera hau. Otsailean egin zen aurreneko hegaldia, laborantza lurrak ongi finkatuta zeudela eta, printzipioz, laboreak hazi gabe; horri esker, lur eremuaren berezko koloreak eskainiko zituzten airetiko argazkiak lortu genituen, LED fidagarri bat lortzeko baliagael proyecto. Una de ellas servía para tener identificados los límites de las zonas de prospección, y para registrar los recorridos de las y los prospectores. Esta aplicación es Mapas de España del IGN. La propia *app* puede compartir los recorridos vía correo electrónico desde el campo una vez finalizados estos.

La otra aplicación sirve para la recogida de datos en campo, georreferenciando los hallazgos. Se diseño un formulario para cumplimentar por parte de cada prospector, facilitando una clasificación de cada pieza y, en caso necesario, tomar fotografías. De este modo no se retiran objetos del campo evitando devaluar el registro superficial. Como ejemplo, podemos indicar que entre las salidas de febrero y octubre de 2022 se documentaron 971 objetos, y se han recogido únicamente 4 debido a sus características formales y aporte cronológico directo: una medalla religiosa contemporánea, una moneda bajomedieval, 1 fragmento de TSH que incluye *sigillum* en su fondo, y una posible forma de TSH no documentada.

La aplicación, gratuita, procede de la *United Nations Office for the Coordination of Humanitarian Affairs*. Facilita dos posibilidades, la transmisión en línea de los datos desde el campo hacia la nube, o la exportación desde el gabinete mediante una conexión a internet.

Todos los datos recuperados en campo se integran en el GIS del proyecto.

Prospección con drones

Esta actividad se ha realizado en tres momentos, con diferentes objetivos. Se voló en febrero, con los terrenos de cultivo asentados y, en principio, con los cultivos sin crecer, lo que permite obtener una fotografía aérea con la coloración propia del terreno, y con mayor facilidad para obtener un MDT fiable –sin la distorsión del cultivo–; también se vuela en junio, con las plantas en crecimiento para obtener unos índices vegetales de

rriak –laboreek eragindako distortsiorik gabea–; era berean, beste hegaldi bat egin zen ekainean, landareak hazten ari zirela, kalitate handiagoko landare indizeak lortzeko eta laborantza lurretan haziera desberdinak hautemateko; azkenik, hirugarren hegaldi bat egin zen urrian, printzipioz lursailak harrotuta zeudelarik. Halere, 2022ko iraileko eta urriko lehorteak eraginda azaroan goldatu zituzten lur horiek, beste urteetan baino dezente geroago.

Bi modutan prozesatzen dira irudi horiek. Lehenengoan, eredu «tradizionalean», jatorri antropikoko irregulartasunak bilatzen dira irudi bakoitzean. Bigarren ereduan prozesu fotogrametriko bat bideratzen da irregulartasun horiek detektatzeko ortomosaiko geoerreferentziatuak lortzeko. Mosaiko horiei landare indizeak aplikatzen zaizkie, eta horietatik lortzen dira LED-ak eta Elebazio Eredu Digitalak (EED).

Droneekin eremu hein batean txikiak, hektarea batetik gorakoak, eta 60 hektareatik gorako lursailak estali dira altuera desberdinetan. Gainera, altuera apaleneko hegaldien kasuetan 1,03 cm^2/px-ko bereizmenak lortu dira, eta 100 metroko altueran egindako hegaldien kasuetan 4,10 cm^2/px-koak.

Lehen ere aurreratu dugun bezala, hiru dira lortutako produktuak: airetiko argazki geoerreferentziatuak, LED/EED-ak eta landare indizeak.

Dronearen erabileraren abantailetako bat da datuak hartzeko hegaldiak guri komeni zaigun uneetan egiteko eta errepikatzeko aukera –eguraldia lagun eta agintari eskudunaren baimenaz–, irudiak aski denbora laburrean aztertu baitaitezke. Gainera, eskura dauzkagun IDEE-etatik abiatuta eskuratu ditzakegunak (barne hartuta hegazkinetatik edo erabilera zibileko sateliteetatik hartutako irudiak) baino askoz ere hobeak dira bereizmenak.

Programa fotogrametrikoen eta GIS-aren erabilerak era berean bereizmen handiko LED/EDD-en sorrera ahalbidetzen du, eta horri esker, aurreko kasuan bezala, hobetu egiten dira emaitzak. LiDAR datuetan oinarritutako prozesatuan bezala, lurraldearen hainbat modelatu egin dira eta bistaratze desberdinak lortu dira.

Azkenik, bi landare indize erabili ditugu jatorri antropikoko irregulartasunak dokumentatzen saiatzeko. Gure kasuan ageriko espektroaren indizeak erabili ditugu. Teknika hori onuragarria da drone arrunten erabileran, baina argi dago espektro anitzeko sentsoreez ordeztuta hobetu egiten direla emaitzak.

Nolanahi ere, GRVI eta VARI indizeak landu ahal izateko ekuazio egokiak egin ditugu. Prozesu hori fotogrametria programarekin egin daiteke, baina baita edozein GIS-ekin. Bi tresnekin eraman da burura, eta lortutako bistaratze onenak hautatu dira.

Jardunbide egokiak

Jardunbide egoki gisa, proiektu honetan biltegi digital bat sortu da hodeian, Kultura Ondarearen Zentrorako sarbidea erraztuz, lan hauen sustatzailea den erakunde horrek lanen bilakaeraren jarraipena egin ahal izan dezan.

mejor calidad y apreciar crecimientos diferenciales en las plantaciones; finalmente, se voló en octubre, en principio con las parcelas removidas. Sin embargo, la sequía de septiembre y octubre de 2022 provocó que las labores de arado se produjesen en noviembre, con retraso respecto a otros años.

La toma de imágenes se procesa de dos maneras. La primera sería la «tradicional», buscando en cada imagen anomalías de origen antrópico. La segunda supone el procesado fotogramétrico para obtener ortomosaicos georreferenciados en el que detectar esas anomalías. A estos mosaicos se les aplican los índices de vegetación y desde ellos se obtienen los MDT y los Modelo Digital de Elevaciones (MDE).

Con los drones se han cubierto desde espacios relativamente pequeños, con algo más de una hectárea, hasta sumar parcelas que han supuesto algo más de 60 hectáreas, a distintas alturas. Además, se han obtenido resoluciones que oscilan entre los 1,03 cm^2/px para los vuelos más bajos (50 metros), y 4,10 cm^2/px en vuelos a 100 metros de altura.

Los productos obtenidos, como ya se ha avanzado, son tres: fotografías aéreas georreferenciadas, MDT/MDE, e índices vegetales.

Una de las ventajas del uso del drone es la posibilidad de temporalizar y reiterar los vuelos de toma de datos a nuestra conveniencia –con el permiso del tiempo y la autoridad competente–, pudiendo contrastar imágenes en tiempo relativamente cortos. Además, las resoluciones son mucho mejores de las que podemos disponer a partir de las IDEE disponibles, que incluyen tomas desde avión o desde satélite de uso civil.

El uso de programas fotogramétricos y SIG facilitan la creación de MDT/MDE también de alta resolución, lo que mejora, como en el caso anterior, los resultados. Al igual que el procesado a partir de datos LiDAR, se han hecho distintos modelados del terreno y obtenido distintas visualizaciones.

Finalmente, hemos utilizado dos índices vegetales para intentar documentar anomalías de origen antrópico. En nuestro caso hemos recurrido a índices del espectro visible. Esta técnica beneficia el uso de drones comerciales, pero es evidente que su sustitución por sensores multiespectrales mejora los resultados obtenidos.

En cualquier caso, hemos practicado las ecuaciones adecuadas para poder trabajar los índices GRVI y VARI. Este proceso se puede realizar con el programa de fotogrametría, pero también en cualquier SIG. Se han ejecutado con ambas herramientas, seleccionando las mejores visualizaciones obtenidas.

Buenas prácticas

Como buena práctica, en este proyecto se ha creado un repositorio digital en la nube, facilitando el acceso al Centro de Patrimonio Cultural para que esta entidad, promotora de los trabajos, pudiera hacer un seguimiento de la evolución de estos.

Konklusioak

Metodoa balioestea eta nabigatzaileei ohartaraztea

Argi dagoenez eta ohiko bibliografian jasota dagoenez, tekniken konbinazioak lurperatutako elementuen arrasto gehiago lortzeko aukera ematen du. Eta argi dago erabiltzen diren tresnak gero era irisgarriagoak eta hobeak direla: LiDAR datu eguneratuak, urteroko hegaldi fotogrametrikoak, gero eta bereizmen hobearekin, droneak eta horientzako aplikazio gero eta osoagoak, dokumentazio historikorako edo toponimiarako sarbidea erraztu egiten duten aurrerapen digitalak, eta abar.

Halere, horrek ez du esan nahi «egoneko arkeologia» bat edo «kostu apaleko arkeologia» bat egiten ari garenik. Azpimarratu behar da ikasi egin behar direla teknika horiek guztiak, eta prestakuntzak denbora eskatzen duela eta ageriko gastuak dakartzala berekin batera. Era berean, programa informatikoen erabilerak baimenetan inbertsio bat egin behar izatea dakar, aplikazio batzuen doakotasunak kostu hori apaltzen badu ere. Droneen kasuan, halakoak erabiltzeko erraztasunak kontraste handia egiten du gai burokratikoekin, funtsetan inbertsio bat handi samar bat egitea eta prestakuntzan denbora eman behar izatea baitakartza berekin batera; eta gainera, erantzukizun zibileko asegurua behar dute erabiliko badira.

Conclusiones

Valoración del método y aviso a navegantes

Cómo es evidente, y recogido en la bibliografía al uso, la combinación de técnicas permite obtener más indicios de los elementos soterrados. También es evidente que las herramientas utilizadas son cada vez más accesibles y mejoradas: renovación de datos LiDAR, vuelos fotogramétricos anuales, cada vez con mejor resolución, drones y aplicaciones para ellos cada vez más completas, avances en humanidades digitales que permiten acceso más fácil a la documentación histórica o la toponimia, etcétera.

Sin embargo, esto no significa que estemos practicando una «arqueología de sofá» o «arqueología low cost». Hay que incidir en que todas estas técnicas deben ser aprendidas y que la formación conlleva tiempos y gastos evidentes. Del mismo modo el uso de programas informáticos, beneficiado por la gratuidad de algunos, supone una inversión en licencias muy evidente. En el caso de los drones, su facilidad de uso contrasta vivamente con las cuestiones burocráticas, que conllevan una inversión de fondos y de tiempos en formación que podemos calificar de alta, y que, además, necesitan del correspondiente seguro de responsabilidad civil.

Lortutako emaitzak

Resultados obtenidos

Nº	DATOS ADMINISTRATIVOS				RESULTADOS						
	Cronología	Denominación	Ficha	Municipio/Concejo	Fot. Aérea	LiDAR	Prospección	Drone Fotos	Drone MDE	Drone Índices Vegetales	Suma de herramientas
1	PHª	Asentamiento de Somillas	233	Valdegovía/Barrio	?	-	+	?	-	?	+
2	PHª	Asentamiento de Fuente Pudia	234	Valdegovía/Villanueva de V.	-	-	+	-	-	-	+
3	Edad del Hierro	Poblado de Medropio	170	Valdegovía/Barrio	+	+	+	+	-	+	+
4	Edad del Hierro	Poblado Fortificado de Corrosparri	49	San Millán/Donemiliaga /Galarreta	+	+	+	+	+	+	+
5	Roma	Explotación Agrícola de Barcabao	194	Valdegovía/Espejo	-	-	+	?	-	+	-
6	Roma	Campamento Romano El Castrillo	38	Valdegovía/Lahoz	?	+	+	+	+	+	+
7	Roma	Calzada en Fontecha	s/f	Lantaron/Fontecha	+	+	+	+	+	+	+
8	Edad Media	Poblado de Ribalpuesta	152	Valdegovía/Gurendes	+	-	+	-	-	-	-
9	Edad Media	Poblado de Ullibarri (San Esteban)	50	Asparrena/Gordoa	-	+	-	-	-	+	-
10	Edad Media	Ermita de San Bartolomé	51	Asparrena/Gordoa	?	-	-	-	-	+	-

1. Taula: Teknika bakoitzaren erabileran eta azken balorazioan lortutako emaitzen laburpen taula.


Tabla 1: Tabla-Resumen de los resultados obtenidos en el uso de cada técnica y en la valoración final.

Erabilitako tekniken baterako aplikazioa oso baliagarria izan da aztertutako eremuen existentzia eta ezaugarriak berresteko eta hain justu ere kontrakoa berresteko: oker izendatutako eremuak baztertzeko balio izan du.

Aztertutako leku bakoitzaren balorazio labur bat eskaintzen dugu.

La aplicación en conjunto de las técnicas utilizadas ha sido muy útil, tanto para la confirmación de la existencia y características de las zonas estudiadas, y también para todo lo contrario: ha servido para descartar zonas asignadas de manera incorrecta.

Ofrecemos una breve valoración de cada sitio analizado.



Ezkerrean, Castrilloko erromatarren kanpamentuaren LiDAR modelatua eta Slope Shader bidezko bistaratzea. Eskuinean, Korrosparriko Herrixka Gotortuaren airetiko argazkia, drone batez egindakoa 2022ko otsailean eta 50 metroko altueratik. Argazkian balizko harresia hautematen da hegoaldean, baita oinplano zirkularreko/erdizirkularreko barrutiak ere.

A la izquierda, modelado LiDAR y visualizado Slope Shader del Campamento Romano de Castrillo. A la derecha, foto aérea del Poblado Fortificado de Corrosparri/Korrosparri, tomada con drone a 50 metros de altura en febrero de 2022, en la que se aprecia la posible muralla, al sur de la toma, y los recintos de planta circular/semicircular.

Airetiko argazki bildumak, garaiera apalean egindako airetiko argazkiak eta gainazaleko miaketa lanak aztertu ondoren, *Somillasko giza egonlekuan* berretsi egin dira AIAren fitxan jasotako informazioak gainazaleko kolorazio desberdinei eta material arkeologikoen pilaketei dagokienez.

Fuentepudiako giza egonlekuan soilik gainazaleko miaketa lanek balioetsi dituzte aztarna arkeologikoak (tamaina eta funtzionaltasun askotako ebakiak) agerian utzi dituzten beste esku hartze arkeologiko batzuek eskainitako informazioak. Esku hartze hauek Gaubeako Ureztapen obren testuinguruan egin dira, Qark Arqueología enpresak eraman ditu burura. Baliteke aztarna horiek, halako sakonera mailan lurperatuta baitaude, opakuak edo hautemanezinak izatea erabilitako beste tekniken aurrean.

Medropioko herrixkan emaitzak positiboak izan dira ia erabilitako tresna guztiekin. Garaiera altuan eta apalean hartutako irudien berrikuspenean eta landare indizeen aplikazioan leku interesgarri honetan etorkizuneko ikerketa ildoa markatu dezaketen irregulartasun batzuk hauteman dira. Gainera, gainazaleko miaketak aukera eman du leku honetan ezkutuko eta isilpeko jarduera bizia gertatu dela egiaztatzeko.

Korrosparriko Herrixka Gotortuan, altueran eta garaiera apalean egindako airetiko argazkiak erabiliz eta lurraldearen modelatuak baliatuz, agerian geratu dira barrutiaren inguruko defendatzeko harresia eta barruko terraza. Gainera, altuera apalean egindako airetiko argazkian landare indizeak aplikaturik, historiaurreko/protohistoriako eraikuntzekin bateragarriak izan daitezkeen barruti zirkularrak izan daitezkeen irregulartasun batzuk hauteman dira, beste aukera batzuk baztertu gabe.

Barcabaoko Nekazaritza Ustiategian gainazaleko miaketa lanak eskaini ditu emaitza positiboak. Negatiboak ulertzeko, eta altuera apalean egindako argazkiei eta landare indizeen aplikazioari dagokionez, esan beharra dago miatutako lursailetako laboreen egoera ez dela egokiena izan, koltza sailak eta lugorriak agertzen baitziren han-hemenka.

En el *Asentamiento de Somillas* se han confirmado las informaciones de la ficha del IAP en cuanto a coloraciones diferencias y concentración de materiales arqueológicas en superficie, a través del estudio de las colecciones de fotografías aéreas, las tomas aéreas a baja cota, la prospección de superficie.

Para el *Asentamiento de Fuentepudia* solo la prospección superficial ha validado las informaciones obtenidas por otras actuaciones arqueológicas que han exhumado restos arqueológicos en forma de cortes de distinta entidad y funcionalidad. Estas actividades se han enmarcado en las obras del Regadío de Valdegovía, y se han ejecutado por Qark Arqueología. Es posible que estos restos, enterrados a cierta profundidad, sean opacos al resto de técnicas utilizadas.

En el *Poblado de Medropio* los resultados han sido positivos con la práctica totalidad de las herramientas utilizadas. La revisión de imágenes a alta y baja cota, y la aplicación de índices vegetales ha detectado anomalías que pueden orientar el futuro de la investigación en este interesante sitio. La prospección de superficie ha servido, además, para comprobar una intensa actividad de furtivos en este lugar.

Para el *Poblado Fortificado de Corrosparri/Korrosparri*, se ha puesto de manifiesto el posible encintado defensivo del recinto y un aterrazamiento interior usando fotografía aérea en altura, a baja cota y a partir del uso de los modelados de terreno. Además, en fotografía aérea a baja cota y aplicando índices vegetales, se han detectado anomalías que pueden corresponderse a recintos circulares compatibles con construcciones pre/protohistóricas, sin descartar otras posibilidades.

En la *Explotación Agrícola de Barcabao* ha sido la prospección de superficie la que ha ofrecido resultados positivos. Para entender los negativos, y con respecto a las fotos a baja altura y la aplicación de índices vegetales, abría que cifrar que el estado de los cultivos de las parcelas prospectadas no ha sido el más idóneo, con presencia de barbecho y cultivo de colza.

El Castrillo kanpamentu erromatarrak emaitza positiboak eskaini ditu erabilitako tresna guztiekin, eta beraz, berretsi egiten dira iraganean A. Martínez Velascok egindako identifikazioa ulertzen laguntzen duten irregularitasunak.

Fontechako Galtzadaren kasuan, haren tarte batzuk egiaztatu ahal izan ditugu dokumentu historiko batzuetan, airetiko argazkietan, LiDAR datuetan, garaiera apalean egindako argazkietan eta landare indizeetan eta gainazaleko miaketa lanetan. Nolanahi ere, deitoratu egiten dugu berandu iritsi eta soilik suntsipen partziala egiaztatu ahal izatea.

Ribalpuestako herrixkak emaitza onak eskaini ditu miaketa lanetan, eta airetiko argazkiek lurperatutako balizko egituren existentziaren sintomak eskaini dituzte. Halere, lursaileko laboreek –zereala/belar landareak izan beharrean patatak– dronearen erabileraren aurka jokatu dute.

Ullibarri-San Esteban herrixkan ez da Erdi Aroko herri hustu baten existentziarekin lotu daitekeen emaitza positiborik lortu. Erabilitako teknika guztiek, gainazaleko miaketa lanak barne hartuta, kronologia horretako kokaleku baten absentzia adierazten dute. Gainera, dokumentazio historikoaren berrikuspenak beste kokapen batean dagoela iradokitzen du.

Aurreko kasuan planteatutako arazo berbera planteatzen du San Bartolome baselizak. Gure ustez berriz ere aztertu behar da kokapen egokiago bat lortze aldera.

Neurri zuzentzaileak

Azkenik, 4 lekutan proposatu ditugu neurri zuzentzaileak.

El Castrilloko erromatar kanpamentuaren kasuan berezko fitxa bat sortzea proposatzen da, izan ere, askoz ere handiagoa den eta beste kronologia bati dagokion aztarnategi batean biltzen da, eta horrek zaildu egiten du haren kokapena eta interpretazioa zehaztea.

Fontechako galtzadari begira, AIAn jasotzea proposatu da.

Ullibarri-San Esteban herrixkaren kasuan eta San Bartolome baselizarenean, leku horien kokapenak zorrozki berrikusteko proposamena egiten dugu.

El *campamento romano de El Castrillo* ha ofrecido resultados positivos con todas las herramientas utilizadas, confirmando las anomalías que ayudan a entender la identificación realizada en el pasado por A. Martínez Velasco.

En el caso de la *Calzada de Fontecha*, hemos podido verificar su paso en algunos documentos históricos, fotografías aéreas, LiDAR, fotos a baja cota e índices vegetales, así como en la prospección superficial. Lamentamos, no obstante, haber llegado tarde y solo comprobar su destrucción parcial.

El *Poblado de Ribalpuesta* ha ofrecido buenos resultados en prospección, y síntomas de la existencia de posibles estructuras soterradas en la fotografía aérea. Sin embargo, los cultivos de la parcela –patata en vez de cereal/herbáceas– ha jugado en contra de la utilización del drone.

En el *Poblado de Ullibarri-San Esteban* no se han obtenido resultados positivos relacionables con la existencia de un despoblado medieval. Todas las técnicas empleadas, incluida la prospección de superficie, indican la ausencia de un emplazamiento de esta cronología. Además, la revisión de documentación histórica abogaría por su localización en otra ubicación.

La *Ermita de San Bartolomé* presenta el mismo problema que el caso anterior. Entendemos que necesita ser estudiada de nuevo para obtener una mejor ubicación.

Medidas Correctoras

Finalmente, se han propuesto medidas correctoras en 4 lugares.

Para el campamento romano de El Castrillo se propone la creación de una ficha propia, incluida en otra mucho mayor, y de otra cronología lo que dificulta su localización e interpretación.

Para la calzada de Fontecha se ha propuesto su inclusión en el IAP.

En el caso del poblado de Ullibarri-San Esteban, y la ermita de San Bartolomé, proponemos una revisión en profundidad de las ubicaciones de estos sitios.

F.R. Varón Hernández; V. Orozco Legaza

A.30.5. **Miaketa lanak Araia-Burunda ibai arroan**

Zuzendaritza: Mikel Beorlegi Ereña

Finantzazioa: Asparrengo Udala; Vital Kutxa Fundazioa

A.30.5. **Prospecciones en la Cuenca del río Araia-Burunda**

Direción: Mikel Beorlegi Ereña

Financiación: Ayuntamiento de Asparrena; Fundación Vital

The research project linked to spatial archaeology in the field of open-air sites of prehistoric chronologies, in the spatial framework of the Araia River Basin, northeast of the territory of Alava, and which we have been developing since 1988, includes a new campaign of visual prospections. As a result of this campaign would be the discovery of 5 new concentrations of prehistoric industries located on farmland, and new indications of surface occupation located in the surroundings of the Lotabarri stream.

Aurreko kanpainei begira planteatutako helburuei jarraipena emanez eta Asparrena kultura elkartearen eta UPV/EHUren laguntza logistikoarekin eta Asparrengo Udalaren eta Vital Fundazioaren laguntza ekonomikoarekin, amaitu egin ditugu miaketa lanak Ilarduia

Siguiendo los objetivos planteados para anteriores campañas y contando con el apoyo logístico de la Asociación cultural Asparrena, de la UPV-EHU y con el apoyo económico del Ayuntamiento de Asparrena y la Fundación Vital, hemos completado las revisiones

eta Albeiz kontzejuetan, eta hein batean miatu ditugu Araia herriko lurrak[116]. Araia ibai arroan bideratzen ari den ikerketa programak (1988an egin ziren lehen urratsak), historiaurreko aztarnategi arkeologikoen katalogoa osatzea du helburuetako bat. Horretarako, sistematikoki miatzen eta ezaugarritzen ditugu ondare aberats honi buruzko informazio berria eskaintzen duten eta erregistratzen ditugun lekuak[117].

Ingurunea berrikusteko hiru irtenaldietan zehar, Ilarduiako Lezeko Iturria (ARYA 11) aztarnategian bideratzen ari garen indusketaren II. sektorea inguratzen duen eremua aztertu dugu, inguruaren egituraketa eta terraza itxurako morfologia hobe aztertzeko eta balizko erabilera eta okupazio gune berriak identifikatzeko, eta suharrian landutako eta hareharrian eta bulkanitan leundutako tresneriaren hondarrak hauteman ditugu.

Era berean, Araia herriaren hegoaldea eta ekialdea eta Albeiz herriaren mendebaldea miatu eta emaitza positiboak lortu ditugu, eta suharrian landutako harrizko tresnek, ofitan leundutakoek eta hezurrean landutako objektu gutxi batzuek osatutako bost metaketa berri identifikatu ditugu. Arbeizko Arandi, Isasia eta Berua aurkintzetan amaitu ditugu miaketa lanak, aurreko hiru ekinaldietan erregistratutako informazioa aberastu dugu, eta multzo horien funtzionaltasunaren eta alderdi teknologiko eta kulturalen definizio hobe batera hurbiltzen gaituzten irizpide selektiboak aplikatu ditugu horietan. Aipatutako leku horietako gehienetan goldeak maila desberdinetan zeuden aztarnak nahasi baditu ere, dirudienez fosil gidari batzuk kontserbatu dira, eta fosil horiek, gutxienez, okupazio aldi batzuk berresten dizkigute (kasu batzuetan oso modu lausoan bada ere), amaierako txostenean sakon aztertuko ditugunak. Izan ere, Erdi Paleolitoan, Hasierako Goi Paleolitoan eta Amaierakoan eta Holozenoaren hasierako uneetan eremu hau biziki okupatu zutela egiaztatzen jarraitzen dugu[118].

Muino sorta bat aztertu dugu arroan, baina ez dugu giza jardueraren aztarna esanguratsurik egiaztatu.

Urkilla eta Altzania mendilerroetako megalitismoari buruzko azterlanen atalean, sei irteeratan zehar kokaleku motak aztertu ditugu, aztarnategien egoera ebaluatu dugu eta GIS irizpideak aplikatu ditugu, hainbat hedabidetan argitaratutako albisteak bertatik bertara berrikus-

[116] Proiektu honetako fase berrietan aurrera egin ahala, gero eta hobe jabetzen gara zeinen garrantzitsua den miaketa lana lur eremuaren gainazala ezagutzeko; izan ere, azken urteetan garapen maila handiena izan duen landako arkeologiaren diziplinetako bat da, eta zalantzarik gabe ezinbesteko tresna bihurtu da iraganeko gizarteak hobe ulertzeko, edozein indusketa lan egin aurretik.

[117] Zehaztu behar dugu, halaber, isilpean ibiltzen diren askotariko zaleen sarrerek eragindako egoera tamalgarria.

[118] Premiazkoa da haraneko eremu irekietan eta behealdeetan dauden aztarnategi horiek katalogatzen amaitzea. Leku horietan, paisaia erritmo bizian ari da hondatzen gizakiak eraginda, nahiz eta hainbat gizarte eragilek Aizkorri-Aratz parke naturaletik gertu dagoen ingurunea (guk aztergai dugun eremua) zaintzeko eta hobetzeko ekimenak bateratu dituzten. Eta Asparrenakoak elkarteko kideok lanean jarraitzen dugu ondare natural, paisajistiko eta arkeologiko hau suntsitu ez dadin.

espaciales en los concejos de Ilarduia y Albeniz, prospectando, parcialmente, el término de Araia[116]. El programa de investigaciones en la Cuenca del Río Araia, cuya andadura se inició el año 1988, tiene entre sus objetivos el completar el catálogo de yacimientos arqueológicos de época prehistórica a través de la prospección sistemática y caracterización de los lugares donde venimos registrando y aportando nueva información sobre este rico acervo[117]

En el curso de tres salidas de revisión espacial, se ha recorrido el entorno circundante al sector II de la excavación que venimos realizando en el yacimiento de ARYA.11, La Fuente de la Leze, en Ilarduia, con el objetivo de estudiar mejor la estructuración y morfología aterrazada del entorno, identificando nuevas áreas de posible uso y de ocupación, donde se han detectado restos de industria tallada en sílex y pulida en arenisca y en vulcanita.

También hemos prospectado al sur y al este del término de Araia y al oeste de Albeniz con resultados positivos, localizándose cinco nuevas concentraciones, también de industria lítica tallada en sílex, de pulimentada en ofita y residualmente de industria ósea. En los términos de Arandi, Isasia, Berua, de Arbeiz hemos terminado la revisión espacial, ampliado la información registrada en las pasadas tres campañas, donde hemos aplicado criterios selectivos, que nos están acercando a una mejor definición de la funcionalidad y de los aspectos tecnoculturales de estos conjuntos. Si bien, en su mayor parte, se trata de lugares en los que el arado ha mezclado evidencias de diferentes horizontes, parecen persistir una serie de fósiles directores que, por lo menos, nos confirman (en ocasiones vagamente) una serie de momentos de ocupación, sobre los que incidiremos en la memoria final. De hecho, seguimos constatando una densa ocupación del espacio en horizontes del Paleolítico Medio, Paleolítico Superior inicial y Final, así como en momentos iniciales del Holoceno.[118]

Se han revisado una serie de cerros y lomas en la cuenca sin constatar restos significativos de actividad humana.

Dentro del apartado de estudios sobre el megalitismo de las sierras de Urkilla y Altzania, y en el curso de seis salidas, se ha trabajado en el estudio del tipo de emplazamientos, en la evaluación del estado y en la aplicación de criterios SIG., completando los trabajos

[116] Conforme vamos avanzando en las nuevas fases de este proyecto, somos vez más conscientes de la importancia de la prospección como reconocimiento superficial del terreno, como una de las disciplinas de la arqueología de campo que mayor desarrollo ha experimentado en los últimos años, convirtiéndose, indudablemente, en una herramienta de primer orden para comprender mejor a las sociedades del pasado, previa o independientemente de cualquier excavación.

[117] Debemos precisar también la lamentable situación generada por las incursiones de personas aficionadas de diversa índole que se dedican al furtivismo.

[118] Urge el ultimar la catalogación de estos yacimientos, ubicados, en las zonas abiertas y bajas del valle, donde se está implementando un ritmo de degradación paisajística acelerada de origen humano, y a pesar de que, desde distintos agentes sociales, se vengan aunando iniciativas para la preservación y la mejora del entorno cercano al parque natural de Aizkorri-Aratz, área en la que estamos investigando. Y desde la asociación Asparrenakoak trabajamos para que no se destruya este legado natural, paisajístico, y arqueológico.



Ezkerrean, bulkanitazko aizkora leundua, gerora ukitua eta balizko aihotz bihurtua, errekuntza arrastoekin. Eskuinean, miaketa kanpainan berreskuratutako tresna batzuk.

A la izquierda, hacha de vulcanita pulida y posteriormente retocada y reconvertida en posible machete, con signos de combustión. A la derecha, muestra de industrias recuperadas en la campaña de prospecciones.

teko lanak osatu ditugu eta honako ataza hauek eraman ditugu burura: ingurunearen kokapena, georreferentziazioa eta deskribapena, egituren izaera antropikoaren balorazioa eta monumentu bakoitzaren deskribapena eta argazkiak. Hona hemen atariko balorazioa:

Bertsola trikuharriak argi eta garbi trikuharri bati dagozkion lauza batzuk kontserbatzen ditu, baina Urkitza Lepoko trikuharria (banalerroan) hondatzeko arrisku larrian dago higadura prozesu bizia nozitzen duen bide erdian dagoelako. Galarretaren iparraldean dagoen Juaremartzialde tumulua harrizko metaketa soil bat baizik ez da itxura guztien arabera, ez dirudi historiaurreko egitura bat denik, eta Mojabaso tumuluan ez dugu aztarna bakar bat ere identifikatu. Ingurune horretan bertan Naparbasoko menhirra aztertu dugu, kontserbazio egoera onean dago. Bestalde, Malkorran bi menhirri buruzko informazioa egiaztatu dugu, eta berretsi egin dugu gailurraren hegoaldean dagoen alearen izaera megalitikoa.

Aratzkasaroi aurkintzan menhir bati buruzko albistea argitzen saiatu gara, baina inguru horretan izaera arkeologiko zalantzagarria duten hareharrizko bloke batzuk baizik ezin izan ditugu deskribatu.

Arrazpi tumuluak bere horretan jarraitzen du azken ikustaldietatik, eta kontuan harturik haren egoera zaurgarria guk uste dugu interesgarria dela bere izaera egiaztatzea.

Milpiribil eta Pagarreta aldean, egoera onean dago erreferentziazko multzo megalitikoa, egoera onean daude Milpiribil I eta II monolitoak, Aspoarri megalitoa, Pagarreta I eta Pagarreta II trikuharriak eta Astonzulo zista, baina Aspoarri menhirrak eta Milpiribil I eta II monolitoak ez daude behar bezala seinaleztatuta, eta Pagarreta I trikuharriaren kasuan zuhaitzak desitxuratzen ari dira egitura hori.

Altzania aldean egiaztatu egin da egoera onean daudela Olano menhirra eta Harrobigaina trikuharria, era berean Ilaragorri izenaz ezagutzen dena, eta Atxipi tumuluaren kokapena zehaztu dugu, nahiz eta gaur egun landarediak ez duen argi eta garbi identifikatzeko aukerarik ematen. Alkartzadata I/La Piedra I ustezko trikuharriaren eta menhirraren kasuetan, azkar hondatzen ari direla egiaztatu dugu, eta beraz, luze gabe esku hartze bat bideratuko dugu horietan haien garrantzia baloratzeko eta babes neurriak proposatzeko.

de supervisión sobre el terreno de las noticias publicadas en distintos medios, efectuando las siguientes tareas: ubicación geo-referenciación descripción del entorno, valoración del carácter antrópico de las estructuras, fotografiado y descripción de cada monumento, con la siguiente valoración preliminar:

El dolmen de Bertsola conserva un grupo de losas claramente dolménicas y el dolmen de Urkitza Lepoa (en la divisoria) corre un claro riesgo de deterioro por su ubicación en pleno camino con un alto proceso de erosión. El túmulo de Juaremartzialde al norte de Galarreta parece, más bien, una simple acumulación de piedras de dudosa entidad pre-histórica y sobre el túmulo de Mojabaso no se ha podido identificar indicio alguno. En este mismo entorno se ha revisado, el menhir de Naparbasoko que presenta un buen estado de conservación y se ha verificado la información sobre dos menhires en Malkorra, confirmándose el carácter megalítico del ejemplar ubicado al sur de la cima.

En el término de Aratzkasaroi se ha intentado clarificar la noticia de un menhir pero en el término únicamente se han podido describir una serie de bloques de arenisca de dudosa entidad arqueológica.

El túmulo de Arrazpi no presenta alteraciones desde las últimas visitas, y vemos interesante el verificar su naturaleza dada su vulnerable situación.

En la zona de Milpiribil y Pagarreta, el conjunto megalítico referenciado se encuentra en buen estado, tanto los monolitos de Milpiribil I y II, el megalito Aspoarri, los dólmenes de Pagarreta I y Pagarreta II y la cista de Astonzulo, pero debemos señalar que el menhir de Aspoarri y Milpiribil I y II carecen de señalización apropiada, y que en el caso de Pagarreta I los árboles están desfigurando esta estructura.

En el entorno de Altzania, se ha constatado el buen estado del menhir de Olano, del dolmen de Harrobigaina, del también conocido dolmen de Ilaragorri y se ha determinado la posición del túmulo de Atxipi, aunque actualmente la vegetación no permite identificarlo con claridad. En los supuestos dolmen y menhir de Alkartzadata I/La Piedra I se sigue constatando su rápido deterioro y en breve llevaremos a cabo una intervención para valorar su entidad y proponer medidas de protección.

Era berean, Araia Ibaiaren arroa geomorfologikoki kontestualizatzeko hirugarren ekinaldia eraman dugu burura. Aztertutako eremua nabarmen zabaldu da hegoalderantz, Entziarekiko banalerroraino, eta iparralderantz, Altzania mendilerroko gailur lerroraino, mendebaldeko muga UTM sareko (X) 556000 koordenatuaren ardatzean finkatuz.

Aurreikusita zegoen bezala, ekinaldi honetan azterketa eremua zabaltzearekin batera, Araia Ibaiaren arroaren eskuinaldea (hegoaldean) eta Entziako mendi oina berraztertzeko lanei eman diegu hasiera. Erregistro geomorfologikoa dibertsifikatuagoa da, bereziki glazisek eta zenbait mendi hegaletako blokeko kolapsoek eraginda. Helburu orokorra da arro osoaren mapa geomorfologiko bat osatzea (gutxi gorabehera 1:25.000 eskalan) dagokion amaierako txostenarekin batera. Txosten horretan bilduko dira, besteak beste, AIAren proiektuan lortutako datu arkeologikoak, kulturalak eta ingurumenekoak. Informazio horrekin guztiarekin (bibliografia, argazkien interpretazioa eta landa lana) prozesuaren amaieran aurkeztuko den txosten bat osatzen ari gara, baita kanpaina osoa laburbiltzen duen kartografia bat ere.

Se ha desarrollado también la tercera campaña de contextualización geomorfológica de la cuenca del Río Araia, el espacio estudiado se ha ampliado enormemente tanto hacia el sur, hasta la divisoria con Entzia, como hacia el norte, hasta los cordales de la sierra de Altzania con el límite por el oeste en el eje de la coordenada (X) 556000 de la retícula UTM (ETRS89-30N).

Como estaba previsto, con la ampliación de la zona de estudio de esta campaña se han iniciado los trabajos de revisión en la margen derecha (al sur) del cauce del Río Araia y el piedemonte de Entzia. El registro geomorfológico se muestra más diversificado, con especial incidencia de los glacis y colapsos en bloque de algunas laderas. El objetivo general es confeccionar un mapa geomorfológico de toda la cuenca (a escala aprox. 1:25.000) con su respectiva memoria final en la que se integrarán los datos arqueológicos culturales y medioambientales obtenidos, entre otros en el proyecto AIA. Con toda esta información (bibliografía, fotointerpretación y trabajo de campo) se está´ completando un informe y una cartografía de síntesis de campaña que será presentado al final del proceso.

A. López de Ipiña Peña; P. Rodríguez Quillay; E. Apilánez Garrido; G. Martín Alonso; M.A. Beorlegi Apilánez; Á. Martínez Montecelo; J. A. González de Heredia; M. Beorlegi Ereña

A.30.6. Erromatarren garaiko larreko herrixkak Arabako Ekialdeko Lautadan (Arbulu (Burgu), Mezkia (Donemiliaga), Oreitia eta Uribarri Arratzua (Gasteiz)

Zundaketa arkeologikoen II. kanpaina
Zuzendaritza: Álvaro Martín Fernández
Finantzazioa: Berak finantzatua

A.30.6. Poblamiento rural romano en la Llanada Alavesa oriental: Arbulo (Elburgo), Mezquía (San Millán), Oreitia y Ullibarri-Arrazua (Vitoria-Gasteiz)

II Campaña de sondeos arqueológicos
Dirección: Álvaro Martín Fernández
Financiación: Propia

Numerous studies about the romanization of Alava have been carried out since the second half of the last century. Actually, the excavations in urban centers or areas linked to the Asturica Burdigalam road are really well known. However, only a few of them study rural settlement and, in this way, this research aims to contribute to the analysis of the roman peasantry in central-eastern sector of this region.

Sarrera

Une honetan osatzen ari den «*Arabako ekialdeko Lautadako landako herri erromatarren analisi arkeologikoa*» doktore tesiaren testuinguruan kokatzen da zundaketa arkeologikoen proiektu hau. Zundaketa horiek 2022ko maiatzetik urrira bitartean eraman ziren burura Arbulu (Burgu, Mezkia (Donemiliaga), Oreitia eta Uribarri Arratzua (Gasteiz) kontzejuetako leku jakin batzuetan.

Ikerketaren xedea da Lautadako erromatarren garaiko nekazaritzak, bere ezaugarriak eta beste okupazio forma batzuekin zituen harremanak erdigunean jartzen dituen lurraldearen analisi bat egitea. Antoninoren Bide sareko XXXIV galtzadaren ondoan zeuden hiriguneak eta herriak askotariko proiektu akademiko eta ekimen profesionalen xede izan diren bitartean, bestelako tratamendua izan dute testuinguru txikiago hauek. Izan ere, ez dira berriz ere aztertu obren gaineko kontroletan eta miaketa arkeologikoetan identifikatu zirenez geroztik (Sáenz de Urturi 1993 eta 2000; Iriarte 1990, 1991 eta 1992).

Introducción

Este proyecto de sondeos corresponde a las labores de campo enmarcadas en la tesis doctoral en curso *Análisis arqueológico del poblamiento rural romano de la Llanada Alavesa oriental*. Se llevaron a cabo entre los meses de mayo y octubre de 2022 en determinadas localizaciones de los concejos de Arbulo (Elburgo), Mezquía (San Millán), Oreitia y Ullibarri-Arrazua (Vitoria-Gasteiz).

La investigación pretende establecer un análisis del territorio centrado en el campesinado romano de la Llanada, sus características y su relación con otras formas de ocupación. Mientras que los núcleos urbanos y los centros relacionados con la vía XXXIV del Itinerario Antonino han sido objeto de estudio en múltiples proyectos académicos e iniciativas profesionales, estos contextos menores tuvieron un tratamiento diferente. No han vuelto a ser tratados desde su identificación en controles de obras y prospecciones arqueológicas (Sáenz de Urturi 1993 y 2000; Iriarte 1990, 1991 y 1992).

Durante las primeras campañas de prospecciones y excavaciones (2020-2021) se documentaron numerosas

Lehen miaketa eta indusketa kanpainetan zehar (2020-2021) erromatarren garaiko material metaketa asko dokumentatu genituen gainazalean, beheragoko mailetan zeuden egiturekin bat zetozenak. Ageriko aztarnarik gabeko aztarnategiak dira, neurri zehaztugabeko etxaldeak eta nekazaritza ustiategiak. Beraz, hauexek izan ziren esku hartzeen helburuak: metaketa horien jatorria egiaztatzea, testuinguruen hedadura eta aurreko ekinaldietan identifikatutako espazioak zehaztea, estratigrafia fidagarriak dokumentatzea eta sekuentzia kronologikoak ezartzea, betiere estratu arkeologikoetan aurkitutako laginetan eta materialetan oinarrituta.

Esku hartzearen emaitzak

Guztira 10 zundaketa egin genituen, 1 x 1, 2 x 1 eta 2 x 2 metroko zundaketak. Soilik emaitza positiboak eskaini zituztenak izango ditugu aztergai, kasu askotan maila geologikoen presentziak markatu baitzuen lanen amaiera. Goldeak mugitutako lur paketeetan pieza arkeologikoak identifikatu bagenituen ere, nahasita zeuden horiek guztiak.

Olatxo, Arbulu (455. lursaila). Iragan ekinaldian bezala, 1.2, 1.3 eta 1.4 zundaketek t*erra sigillata* hispaniar berantiar (TSHT) moldeko zati gutxi batzuk, zeramika modernoa eta garaikidea eta kronologiaren eta kulturaren ikuspegitik zehazten zailak diren metalezko objektu batzuk eskaini zituzten. Material guztiak nekazaritzako lurrez osatutako estratuan azaldu ziren, eta azpian tuparri buztintsuez eraturiko estratua azaltzen zen. Puntu horretan eten genituen zundaketa lanak.

San Juan, Mezkia (525. lursaila). 4.1. eta 4.2 zundaketetan, hauexek bereizi genituen goldeak mugitutako lur paketean: *terra sigillata* hispaniar (TSH) moldeko zatiak, TSHT, zeramika arrunta, ahuntzaren eta behiaren familiako abereen hezur zatiak eta forjatutako piezak. 4.3 zundaketan, erromatar zeramika zatiez eta metalezko objektuez gain, egitura baten iparraldeko izkina identifikatu genuen, baina oraindik ez ditugu haren neurri osoak ezagutzen. Haren ondoan bazen iparraldetik hegoaldera egiten zuen beste horma egitura bat, 1 m luze eta 30 cm lodi, kontserbazio egoera okerragoan zegoen. Bi egitura horiek eraikuntza teknika berbera partekatzen dute: kareharri hein batean kareztatuak, lehorrean ipiniak. Ezin izan genituen egitura horiek hartuko zituzten ebakiak edo zangak dokumentatu, baina maila horretan bertan ugari ziren *sigillata* zatiak, burdinazko piezak eta errekuntzatik etorritako hondakinak.

4.4 zundaketak ez zuen materialik eskaini. 4.5 zundaketako maila arkeologikoan, alde batetik, ikaztutako egur zati handi bat identifikatu genuen. Zundaketaren neurriek ez zuten elementu hori osorik dokumentatzeko aukera eman, baina hegoaldeko eta mendebaldeko profiletan elementu horren jarraipena identifikatu genuen. Bestalde, zundaketaren ekialdeko muturrean sedimentu laginak jaso genituen alde horretan suak gorritutako hondakin asko identifikatu genituelako, 4.3 zundaketan baino askoz ere gehiago.

Bidegutxi, Oreitia (96. lursaila). 5.1 zundaketan, goldeak mugitutako paketean, eskuz landutako zeramikazko pieza batzuk identifikatu genituen, estratu geologikoaren gainean jarritako ontzi baten presentziaz ohartarazten zuten. Historiaurreko testuinguru hori kontserbazio egoera txarrean zegoen, eta itxura batean deseginda zeuden ontziaren hondoa eta paretak eratzen zituzten zatiak. Ontzi horren barrutik hezur zati batzuk eta ofitazko aizkora

concentraciones de material de superficie adscrito a época romana que correspondían con la existencia de estructuras en niveles inferiores. Se trata de yacimientos sin restos visibles, interpretados como granjas y explotaciones agrícolas de dimensiones indeterminadas. Estas actuaciones estuvieron orientadas a comprobar el origen de dichas concentraciones, la extensión de los contextos y definir los espacios identificados en campañas previas, así como documentar estratigrafías fiables y establecer secuencias cronológicas en base a las muestras y materiales hallados en estratos arqueológicos.

Resultados de la intervención

Se llevaron a cabo un total de 18 sondeos de dimensiones 1 x 1, 2 x 1 y 2 x 2. Solamente se tratarán aquellos que obtuvieron resultados positivos debido a que la presencia de niveles geológicos marcó, en muchas ocasiones, el final de las labores. Si bien los correspondientes paquetes de arado aportaron piezas arqueológicas, todas ellas se encontraban revueltas.

Olacho, Arbulo (parcela 455)**.** Al igual que en la campaña pasada, los sondeos 1.2, 1.3 y 1.4 aportaron escasos fragmentos de *terra sigillata* hispánica tardía (TSHT), cerámica moderna y contemporánea además de objetos metálicos de difícil adscripción cronocultural. Todos los materiales se hallaron en el estrato agrícola, inmediatamente sucedido por un estrato de margas arcillosas. En ese momento se detuvieron los sondeos.

San Juan, Mezquía (parcela 525). El paquete de arado de los sondeos 4.1 y 4.2 dio fragmentos de *terra sigillata* hispánica (TSH), TSHT, cerámica común, restos óseos de caprino y bóvido junto con piezas forjadas. En el 4.3, además de reconocer cerámica romana y objetos metálicos, se identificó la esquina N de una estructura cuyas dimensiones totales se desconocen. Junto a ella, otro alzado en peor estado de conservación con orientación N-S, 1 m de largo y 30 cm de ancho. Ambos comparten la misma técnica constructiva: calizas parcialmente careadas y dispuestas en seco. No fue posible documentar los cortes o zanjas realizadas sobre las que se asientan ambas estructuras, pero se reconocieron en ese mismo nivel una cantidad relevante de fragmentos de *sigillata*, piezas de hierro y restos de rubefacción.

El sondeo 4.4 no aportó ningún material. En el nivel arqueológico del 4.5 se recogió, por un lado, un gran fragmento de madera carbonizado. Las dimensiones del sondeo imposibilitaron documentarlo por completo, pero en los perfiles S y O se apreció la continuación de este elemento. Por otro lado, se tomaron muestras de sedimento en el extremo E del sondeo debido a la gran cantidad de restos rubefactados identificados, superiores a los del sondeo 4.3.

Bidegutxi, Oreitia (parcela 96)**.** En el mismo paquete de arado del sondeo 5.1 se reconocieron piezas de cerámica fabricada a mano que advirtieron de la existencia de un recipiente colocado sobre el estrato geológico. Este contexto prehistórico presentaba mal estado de conservación y los fragmentos que componían tanto el fondo como las paredes del recipiente parecían desechos. Se recogieron de su interior restos óseos y un hacha pulimentada de ofita. Los sondeos 5.2 y 5.3 no aportaron resultados positivos. No obstante, en los correspondientes niveles de arado aparecieron más piezas del recipiente

leundu bat berreskuratu genituen. 5.2 eta 5.3 zundaketek ez zuten emaitza positiborik eskaini. Nolanahi ere, zundaketa horietan, goldeak mugitutako paketean, aurreko ontziari zegozkion pieza gehiago, eta kronologia moderno eta garaikideko zeramika zatiak azaldu ziren harrizko laginekin batera.

Mamutxu-Iturria, Uribarri Arratzua (201. lursaila). 3.2 zundaketak ez zituen emaitza positiboak eskaini, besterik gabe TSH eta zeramika arrunteko zati batzuk jaso genituen nekazaritza lurrez osatutako estratutik. Azpian, tuparriez eta kareharriez, txandaka, osatutako maila geologikoa azaltzen zen. Baina 3.1 eta 3.3 zundaketetan partzialki identifikatu genuen gutxi gorabehera 3,5 m luze eta 40 cm lodi zen horma egitura bat, ekialdetik mendebaldera. 3.1 zundaketaren ekialdeko sektorea iparralderantz handitu genuen egitura hori definitzen saiatzeko. Nolanahi ere, egitura horren kontserbazio egoera askoz ere okerragoa zen irekitako espazio berri horretan, eta ez zirudien ekialderantz luzatzen zenik. 3.3 zundaketako egitura lodiagoa zen, gutxi gorabehera 50 cm lodi. Horma egitura hori azaletik landutako tokiko kareharriz egina zen. Bi zundaketa horietan, TSH, TSHT eta zeramika arrunten zatiak, beira eta metalezko objektuak aurkitu genituen nola goldeak mugitutako lur paketeetan hala maila arkeologikoetan.

*Mamutxu-Iturria,*Uribarri Arratzua (216. lursaila). Aurreko ekinaldian kareharrizko bi horma egitura identifikatu ziren, iparraldetik hegoaldera bata eta ekialdetik mendebaldera bestea, eta gutxienez bi espazio. Kasu honetan, emaitza positiboak eskaini zituzten zundaketa guztiek. Agerian utzitako egituren hondakinek maila berbera partekatzen zuten, eta maila hori altxatuta gela batzuk bereizi genituen. Egitura bakar batek ez zuen altueran bi errenkada baino gehiago. 2.3 zundaketan induskatu egin genuen lehenik 2.2 zundaketan hegoaldeko mugan zeuden kareharri batzuei esker identifikatu genuen gela. Bi horma egitura identifikatu genituen, bata iparraldetik hegoalderako norabidearekin eta bestea espazio hau ixten zuen ekialdetik mendebalderako norabidearekin. Bi horma egitura horietako bakar bat ere ez zen 35 cm baino lodiagoa. TSH, TSHT eta zeramika arrunteko zatiak eta metalezko piezak jaso genituen.

2.4 zundaketa iparralderantz metro erdira induskatu genuen horma egitura horien jarraipena egiaztatzeko. Iparraldetik hegoaldera egiten zuen egituraren jarraipena eta ekialdetik mendebaldera egiten zuen beste horma egitura baten abiapuntua dokumentatu genituen arren, mendebaldeko sektorean ez zen argi geratu espazio honen antolamendua, bertan ugari baitziren kareharrizko blokeak. Jasotako materialei dagokienez, aurreko zundaketan dokumentatutako materialen antzekoak direla esan behar dugu. TSH, TSHT, zeramika arrunta, metalezko objektuak eta fauna hezurrak identifikatu genituen. 2.5 zundaketan kareharrizko hogeiren bat pieza dokumentatu genituen, erorita zeuden eta testuingurutik kanpora. Baliteke arestian deskribatutako horma egituraren iparraldetik hegoalderako norabideari jarraitzea. Iparraldeko eta hegoaldeko profiletan ere sumatzen zen jarraipen hori, baina haren munta txikia argi eta garbi bereizten zen gainerako egituretatik. Metalezko piezak, zeramika arrunta, TSH eta TSHT zatiak eta hezur zati txikiak eskaini zituen. Sedimentu laginak jaso genituen.

Aurreko zundaketa horiek horma egituraren mendebaldean eta iparraldetik hegoalderako norabidean egin ziren bitartean, 2.6 zundaketa eraikuntza elementu horren anterior, fragmentos cerámicos de cronología moderna y contemporánea junto con muestras líticas.

Fuente-Mamuchu, Ullibarri-Arrazua (parcela 201). El sondeo 3.2 no tuvo resultados positivos, únicamente se recogieron fragmentos de TSH y cerámica común en su estrato agrícola antes de llegar al nivel geológico compuesto por una alternancia de margocalizas. No obstante, en los sondeos 3.1 y 3.3 se identificó parcialmente un alzado de aproximadamente 3,5 m de largo y en torno a 40 cm de ancho con orientación E-O. El sector E del sondeo 3.1 fue ampliado en dirección N para tratar de definir la estructura. No obstante, su estado era notablemente peor en este nuevo espacio abierto y no parecía continuar hacía el E. La estructura del 3.3 tenía una anchura mayor, de unos 50 cm. Este alzado estaba compuesto por calizas locales escasamente trabajadas. Se encontraron piezas de TSH, TSHT, cerámica común, vidrio y objetos metálicos tanto en los paquetes de arado como en los niveles arqueológicos de ambos sondeos.

Fuente-Mamuchu, Ullibarri-Arrazua (parcela 216). Durante la campaña anterior se identificaron dos alzados de calizas con orientación N-S y E-O y la existencia de, al menos, dos espacios. En esta ocasión todos los sondeos aportaron resultados positivos. Las estructuras descubiertas compartían un mismo nivel de derrumbe que tras ser retirado permitió comprender varias estancias. Ninguna de las estructuras superaba las dos filas de alzado. En el sondeo 2.3 se excavó la estancia previamente documentada en el *2.2* gracias a la identificación de varias calizas situadas en su límite S. Se documentaron dos alzados, uno con orientación N-S y otro E-O que cerraba este espacio. En ambos casos la anchura de las estructuras no superaba los 35 cm. Se recogieron fragmentos de TSH, TSHT, cerámica común y piezas metálicas.

El sondeo 2.4 se abrió medio metro en dirección N para comprobar la continuidad de estos alzados. A pesar de documentar la continuación de la estructura N-S y el arranque de un nuevo cierre con orientación E-O, en el sector O no quedó del todo clara la organización del espacio debido a la gran acumulación de bloques de caliza que se encontraban en él. Respecto a los materiales recogidos, habría que señalar que siguen la línea de aquellos documentados en el sondeo anterior. Se identificaron fragmentos de TSH, TSHT, cerámica común, objetos metálicos y restos óseos de fauna. En el 2.5 apenas se documentó una veintena de calizas descontextualizadas y caídas. Es cierto que podrían seguir la orientación N-S del alzado descrito previamente. Incluso en los perfiles N y S se apreciaba dicha continuación, pero su poca entidad difería claramente del resto de estructuras. Aportó piezas metálicas, fragmentos de cerámica común, TSH, TSHT y restos óseos de pequeñas dimensiones. Se tomaron muestras de sedimento.

Mientras que los sondeos anteriores se realizaron al O del alzado con orientación N-S, en esta ocasión el sondeo 2.6 se abrió al E de este elemento constructivo. Tras retirar el derrumbe se definieron al menos dos unidades arqueológicas compuestas por depósitos de tierra y divididas por alzados de entre 40 y 50 cm. Sus dimensiones eran reducidas, pero se procedió a su excavación. En la primera de ellas se localizó una gran muestra antracológica junto con piezas cerámicas de



Goi-ezkerrean, 4.3 zundaketan identifikatutako egiturak; eskuinean, 5.1 zundaketan aurkitutako ontzia, historiaurrekoa. Beheezkerrean, 3.1 zundaketan aurkitutako egituraren emaitzak; eskuinean, 2.6 zundaketaren emaitzak.



Arriba a la izquierda, estructuras identificadas en el sondeo 4.3. y a la derecha. recipiente prehistórico hallado en el sondeo 5.1. Abajo a la izquierda, resultados de la estructura descubierta en el sondeo 3.1. y a la derecha, resultados del sondeo 2.6.

ekialdean induskatu genuen. Lur jotako materialak atera ondoren, lur deposituez osatutako bi unitate arkeologiko identifikatu genituen gutxienez, 40 eta 50 cm bitarteko horma egiturek banatzen zituzten. Txikiak ziren, baina induskatu genituen. Lehenengoan multzo antrakologiko handi bat aurkitu genuen erromatarren garaiko zeramikazko piezekin, hezur zati zehaztugabe batzuekin eta metalezko objektuekin batera. Bigarrenak aurrekoak eskainitako material bertsuak eskaini zituen, eta hirugarrenak (ez zen batere argia haren izaera) ez zuen materialik eskaini. Zundaketa honen garrantzia ez da eskaini zituen materialetan oinarritzen; garrantzi-tsuena da lursail honetan aurrenekoa dela horma egiturak osorik identifikatzeko aukera ematen, dagozkien ebakiak edo zimendu zangak barne hartuta. 30 eta 40 cm bitarte garai diren horma egitura horiek lur buztin-tsuez eginak dira, harri txiki batzuk erabili zituzten sendogarri gisa, eta gainean gutxienez bi errenkada izango zituzten lehorrean ipinitako kareharriz eginak (4. irudia). Horma egitura horiek hartzen zituen estratuan TSHT zatiak, zeramika arrunta eta behiaren familiako hezur zatiak identifikatu genituen.

Emaitzen balorazioa eta interpretazioa

Bigarren ekinaldian egitura berri batzuk identifikatu ditugu, eta egitura horiek espazioak zehazten eta ulertzen saiatzeko etorkizuneko zundaketak baldintzatuko dituzte. Mezkiako *San Juan* kasuaz ari gara. 4.3 zundaketan aurkitutako angelu zuzeneko egiturak neurri txikiak izango ditu gure kalkuluen arabera (1,5 x 1,5 edo 2 x 2), inguru hurbilean beste zundaketa batzuk egin genituelako eta ez genuelako egitura horren beste atalik ez beste horma egiturarik aurkitu. Aurrekoaren gainean egokitutako egitura ere (iparraldetik hegoaldera) ez zen

cronología romana, restos óseos indeterminados y objetos metálicos. La segunda aportó el mismo material que la anterior y la tercera, cuya naturaleza no quedó del todo clara, no aportó material alguno. La importancia de este sondeo no reside en los materiales que aportó, sino en que se trata del primero en esta parcela el que se identificaron los alzados por completo con sus cortes o zanjas de cimentación. Estos alzados de entre 30 y 40 cm de altura están levantados con tierra arcillosa, usando pequeñas piedras como conglomerantes y rematados con, al menos, dos filas de alzado de calizas en seco (imagen 4). El estrato sobre el que se asientan dio fragmentos de TSHT, cerámica común y restos óseos de bóvido.

Valoración e interpretación de los resultados

Tras la segunda campaña se han localizado nuevas estructuras que condicionarán la apertura de futuros sondeos para tratar de definir y comprender dichos espacios. Es el caso de *San Juan*, en Mezquía. A la estructura de ángulos rectos hallada en el sondeo 4.3 se le estiman unas dimensiones reducidas (1,5 x 1,5 ó 2 x 2) ya que se llevaron a cabo más sondeos en su entorno inmediato y no fue posible localizar ningún otro alzado ni otras partes de esta. La estructura N-S apoyada sobre la anterior tampoco quedó del todo definida y no se comprendió su función. Por ello, la apertura de nuevas catas y sondeos arqueológicos de mayores dimensiones en este lugar se centrará en determinar la extensión y funciones de estos elementos constructivos.

erabat zehaztuta geratu, ez genuen haren eginkizuna ulertu. Horrexegatik, hain zuzen ere, eraikuntza elementu horien hedadura eta eginkizunak zehazteko xedea izango dute inguru honetan etorkizunean bideratuko diren zundaketa arkeologiko handiagoek.

Mamutxu-Iturria (Uribarri Arratzua) aztarnategian, lehenengo zundaketa kanpainan agerian utzitako horma egitura nagusiaren mendebaldean, guztira hiru gela eratzen dituzten egitura batzuk identifikatu ditugu. Zundaketen neurri txikiek eta orientazioek espazio horiek osorik dokumentatzeko aukera eman ez bazuten ere, neurri horiek berek eta espazio horietan aurkitutako materialek iradokitzen dute ukuiluak zirela, edo ondasunak biltegiratzeko espazioak. Ez dirudi agerian utzitako gelak testuinguru honetan bizi izan ziren taldeen etxeak edo bizilekuak zirenik, animalien hezur ugarien aurkikuntzak ukuilu erabilera iradokitzen baitu. Eta ezin izan dugu elementu egituratzailearen ekialdeko depositu unitateen izaera zehaztu. Gainerako zundaketetan aurkitutako materialen eta tipologien antzekoak dira, oro har, zundaketa hauek eskaini dituztenak.

Testuinguru horietako estratu arkeologikoetatik hartutako laginek material esanguratsuak eskaini dituztela esan behar dugu, eta material horiek argi gehiago eman dezaketela testuinguru horietan egiten ziren jardueren inguruan. Bestalde, bi aztarnategietatik jasotako langin antrakologikoek haietako bakoitzaren kronologia zehatzagoak eskainiko dituzte, nahiz eta, *a priori,* Arabako erromanizazio prozesuan bil daitezkeen.

Gainerako lekuetan ez ditugu haietan komunitate egonkorrak izan zirela adierazteko moduko aztarnak aurkitu; nolanahi ere, ez da baztertzen etorkizunean beste esku hartze batzuk egitea bizitegiak aurkitzeko. Emaitza hauek kontuan izanik, etorkizuneko esku hartzeen xedea izango da, alde batetik, aurkitzen diren egiturak eta gelak zundaketa handiagoen bidez definitzea, eta bestetik, aztarnategi horietan zer jarduera egiten ziren ulertzea, talde horien dinamikak zehaztu ahal izateko.

En *Fuente-Mamuchu* (Ullibarri-Arrazua) se conocen varias estructuras que dividen un total de tres estancias al O del alzado principal descubierto desde la primera campaña de sondeos. A pesar de que tanto las reducidas dimensiones como la orientación de los sondeos no permitieron documentar estos espacios en su totalidad, sus propias dimensiones y el material hallado en ellos pueden señalar que se trata de corrales o lugares destinados al almacenaje de bienes. Las estancias descubiertas no parecen responder a habitaciones o lugares reservados a los grupos que habitaron este contexto, sino que el hallazgo de abundantes restos óseos animales en su interior podría indicar esta función. Tampoco ha sido posible determinar la naturaleza de las unidades de depósito situadas al E del elemento vertebrador. Las piezas que han aportado siguen en líneas generales las tipologías y materiales localizados en el resto de los sondeos.

Hay que señalar que las muestras de flotación tomadas de estratos arqueológicos en estos contextos han aportado materiales relevantes que pueden arrojar más luz sobre las actividades que se llevaban a cabo en ellos. Por otro lado, las muestras antracológicas recogidas en ambos yacimientos aportarán cronologías más exactas para cada uno de ellos, si bien es posible englobarlos *a priori* dentro del proceso de romanización en Álava.

En las demás localizaciones no se han encontrado restos tan evidentes que señalen la existencia de comunidades asentadas en ellas, no obstante, no se descartan futuras actuaciones para localizar espacios habitados. Teniendo en cuenta estos resultados, las futuras intervenciones estarán orientadas a definir, mediante sondeos de mayores dimensiones, las estructuras y estancias que se localicen y a comprender qué actividades se llevaban a cabo en estos yacimientos para determinar las dinámicas de estos grupos.

A. Martín Fernández

A.30.7. **Arabako Onura Publikoko mendiak: miaketak eta laginketak Entziako Partzuergoan, Zalduondon eta Alkoitzan**

Zuzendaritza: Anna Maria Stagno eta Andrés Menéndez Blanco

Finantzazioa: Europako Batzordea

A.30.7. **Montes de Utilidad Pública de Álava: sondeos y toma de muestras en la Parzonería de Entzia, Zalduondo y Alkoitza**

Dirección: Anna Maria Stagno; Andrés Menéndez-Blanco

Financiación: Comisión Europea

Throughout 2022, five small sondages were carried out and samples were taken to complement the prospecting conducted in 2021 by our team. In this case, the work focused on the Parzonería de Entzia and on the area around what used to be known as Mount Alkoitza, and is today called Luzuriagabaso. The aim was to characterise the purpose of the remains identified and to date them, in order to understand better how livestock farming practices have changed in terms of the management of woodland areas from the 18th century to the present time.

Sarrera

Txosten honetan biltzen dira 2022an Arabako Partzuergoan eta Luzuriagabaso mendi inguruan Antogine («Archaeology of shariNg pracTIces: the material evidence of mountain marGinalisatiON in Europe (18th- 21th c. AD)») proiektuaren baitan egindako bost zundaketaren eta analisi dendroekologikoak, dendrokronologikoak eta

Introducción

El presente artículo recoge los resultados iniciales de cinco sondeos arqueológicos y tomas de muestras para análisis dendroecológicos, dendrocronológicos y palinológicos realizadas en 2022 en la Parzonería de Álava y el entorno del monte de Luzuriagabaso dentro del proyecto Antigone («Archaeology of shariNg pracTI-

palinologikoak egiteko laginketen hasierako emaitzak. Antigone proiektua Anna Maria Stagnok zuzentzen du eta Europako Batzordeak finantzatzen du ERC Starting Grant programaren bidez. Università degli Studi di Genova unibertsitateko Arkeologia eta Ingurumen Historiako (LASA) Laborategiko langileek eraman dituzte burura lan hauek.

Esku hartze hauek jarraipena ematen diete 2021ean eremu berberetan bideratutako prospekzio lanei, eta baliabide naturalen (larreak, zuraren eta egurraren aprobetxamendua, sasoiko laborantzak..) kudeaketa partekatuen praktikak eta horien eraldaketak, XVIII. mendetik gaur egunera arte, birsortzea dute xede. Ikuspuntu teoriko eta metodologiko batetik, lanek Ingurumen Baliabideen Arkeologiaren berezko irizpideak dituzte ardatz, LASAren ikerketa esperientzietan oinarritzen dira (Moreno, 1990[119]; Moreno et al., 2010[120]). Testuinguru horrek aukera ematen du kudeaketa praktikak birsortzeko eta horien dimentsio jurisdikzionaletan eta sozialetan sakontzeko, agerian utziko baitituzte okupazio dinamikak eta baliabideen jabetza (Stagno, 2015[121]).

Metodologia

2021ean bi fasetan eraman genuen burura landa eremuko arkeologia eta paisaia miatzeko kanpaina bat, arkeologia estentsiboa eta ekologia historikoa barne hartuta (Cevasco, 2007[122]; Rackham, 1992[123]; Stagno, 2014[124]), Arabako Ekialdeko Lautadako Onura Publikoko Mendietan (OPM) hautatutako hiru eremutan: Entziako Partzuergoan eta Zalduondoko eta Alkoitza edo Luzuriagabasoko mendietan. Leku horiek mugatzeko, kontuan hartu ziren 2014 eta 2017 bitartean Anna Maria Stagnoren zuzendaritzapean bideratutako Archimede proiektuak lortutako emaitzak (Stagno et al., 2020[125]). Lehenengo gainazaleko ces: the material evidence of mountain marGinalisatiON in Europe (18th- 21th c. AD)»), dirigido por Anna Maria Stagno y financiado por la Comisión Europea dentro del programa ERC Starting Grant. Los trabajos han sido realizados por personal ligado al Laboratorio de Arqueologia e Historia Ambiental (LASA) de la Università degli Studi di Genova.

Estas actuaciones continúan los trabajos de prospección desarrollados en las mismas zonas en 2021 y tienen por objetivo reconstruir las prácticas de gestión compartida de los recursos naturales (pasto, aprovechamientos de madera y leña, cultivos temporales…) y sus transformaciones desde el siglo XVIII hasta la actualidad. Desde un punto de vista teórico-metodológico, los trabajos siguen los criterios propios de la Arqueología de los Recursos Ambientales, sustentados sobre las experiencias investigadoras del LASA (Moreno, 1990[119]; Moreno et al., 2010[120]). Este marco permite, además de reconstruir las prácticas de gestión, profundizar en las dimensiones jurisdiccional y social de las mismas, sacando a la luz las dinámicas de ocupación y apropiación de los recursos (Stagno, 2015[121]).

Metodología

En 2021 se desarrolló en dos fases una campaña de prospección de arqueología rural y del paisaje, integrando arqueología extensiva y ecología histórica (Cevasco, 2007[122]; Rackham, 1992[123]; Stagno, 2014[124]) en tres áreas seleccionadas dentro de los Montes de Utilidad Pública (MUP) de la Llanada oriental alavesa: la Parzonería de Entzia y los montes de Zalduondo y Alkoitza o Luzuriagabaso. Para la delimitación de estas zonas se tuvieron en cuenta los resultados obtenidos por el proyecto Archimede bajo la dirección de Anna Maria Stagno entre 2014 y 2017 (Stagno et al., 2020[125]). Esa primera prospección superficial permitió registrar toda una larga serie de evi-

---

119 Moreno, D. (1990). Dal documento al terreno. Storia e archeologia dei sistemi agro-silvo-pastorali. Bologna: Il Mulino.

120 Moreno, D.; Montanari, C.; Stagno, A. M.; Molinari, C. (2010). «A plea for a (new) environmental archaeology: the use of the geographical historical microanalytical approach in mountain areas of NW Italy», In Tzortzis, Stéfan; Delestre, Xavier (eds.) Archéologie de la montagne européene; Condé sur Noireau: Errance.

121 Stagno, A. M. (2015). «Archeologia delle terre di uso collettivo: approcci di studio per la ricostruzione degli usi multipli e dei conflitti nella montagna europea», In Arthur, Paul; Imperiale, Marco Leo (eds.) VII Congresso Nazionale di Archeologia Medievale; Firenze: All'Insegna del Giglio.

122 Cevasco, R. (2007). Memoria verde. Nuovi spazi per la geografia. Reggio Emilia: Diabasis.

123 Rackham, O. (1992). «Trees and Woodland in the History and Archaeology of the Landscape», In Bernardi, Manuela (ed.), Archeologia del paesaggio, IV ciclo di lezioni sulla ricerca applicata in archeologia (Certosa di Pontignano - SI, 14-26 gennaio 1991); Firenze: All'Insegna del Giglio.

124 Stagno, A. M. (ed.), (2014). Carved Mountain. Engraved Stones. Contribution to an archaeology of resources of Mediterranean mountains (Archeologia Postmedievale, 17).

125 Stagno, A. M.; Tejerizo-García, C.; Echazarreta Gallego, A.; Santeramo, R.; Portillo, M.; Pescini, V.; Hernández Beloqui, B. (2020). «De montes comunales y sociedades campesinas. Los resultados del proyecto ARCHIMEDE en el País Vasco», hemen: Quirós Castillo, Juan Antonio; Grau Sologestoa, Idoia (arg.) Arqueología de la Edad Moderna en el País Vasco y su entorno; Oxford: Archaeopress.

119 Moreno, D. (1990). Dal documento al terreno. Storia e archeologia dei sistemi agro-silvo-pastorali. Bologna: Il Mulino.

120 Moreno, D.; Montanari, C.; Stagno, A. M.; Molinari, C. (2010). «A plea for a (new) environmental archaeology: the use of the geographical historical microanalytical approach in mountain areas of NW Italy», In Tzortzis, Stéfan; Delestre, Xavier (eds.) Archéologie de la montagne européene; Condé sur Noireau: Errance.

121 Stagno, A. M. (2015). «Archeologia delle terre di uso collettivo: approcci di studio per la ricostruzione degli usi multipli e dei conflitti nella montagna europea», In Arthur, Paul; Imperiale, Marco Leo (eds.) VII Congresso Nazionale di Archeologia Medievale; Firenze: All'Insegna del Giglio.

122 Cevasco, R. (2007). Memoria verde. Nuovi spazi per la geografia. Reggio Emilia: Diabasis.

123 Rackham, O. (1992). «Trees and Woodland in the History and Archaeology of the Landscape», In Bernardi, Manuela (ed.), Archeologia del paesaggio, IV ciclo di lezioni sulla ricerca applicata in archeologia (Certosa di Pontignano - SI, 14-26 gennaio 1991); Firenze: All'Insegna del Giglio.

124 Stagno, A. M. (ed.), (2014). Carved Mountain. Engraved Stones. Contribution to an archaeology of resources of Mediterranean mountains (Archeologia Postmedievale, 17).

125 Stagno, A. M.; Tejerizo-García, C.; Echazarreta Gallego, A.; Santeramo, R.; Portillo, M.; Pescini, V.; Hernández Beloqui, B. (2020). «De montes comunales y sociedades campesinas. Los resultados del proyecto ARCHIMEDE en el País Vasco», In Quirós Castillo, Juan Antonio; Grau Sologestoa, Idoia (eds.) Arqueología de la Edad Moderna en el País Vasco y su entorno; Oxford: Archaeopress.

miaketa lan horrek aukera eman zuen tokiko baliabide naturalen gaur egungo eta iraganeko aprobetxamenduetatik eratorritako aztarna material sorta handi bat erregistratzeko. Lehen lan horiei jarraipena eman behar zitzaienez, 2022an bost zundaketa arkeologiko txiki induskatzea proiektatu zen, eta zuhaitz laginak hartzea analisi dendrokronologikoak eta dendroekologikoak egiteko. Era berean, zutabe bat erauziko zen analisi polinikoak egiteko, eta langile adituek modu zorrotzagoan aztertuko zuten landare geruza. Lan berri horien helburua zen identifikatutako aztarnak ezaugarritzea, euren funtzionaltasuna eta kronologia zehaztea eta gainazalean bereizitako faseen aurreko faserik ba ote zen ikustea.

Lehen emaitzak

Askotariko emaitzak eskaini dituzte aipatutako lanek, eta garapen maila desberdinetan daude laginen analisiak. Adibide gisa, esan dezagun Saroizarreko hezegunean (2021eko miaketa lanetan zehar 2021 UT gisa identifikatua) errusiar zunda baten bidez zutabe poliniko bat erauzteko zundaketak ez zuela emaitza positiborik eskaini lur eremuan harri koskorrak zeudelako. Zundaketa arkeologikoei eta zuhaitzen laginketari dagokienez, jarraian deskribatuko ditugu xehetasun handiago batez eta banan-banan.

Zundaketa arkeologikoak Zalduondoko Saroian

1 x 0,7 metroko bost zundaketa arkeologiko egin genituen Entziako Partzuergoan, horietako hiru Zalduondoko Saroian eta gainerakoak Legaireko baso aldean aurkitutako bi ikaztegitan. Saroiko zundaketek sekuentzia estratigrafikoa dokumentatzea eta bi egituratatik sedimentu laginak ateratzea izan zituzten helburu. UT 1102 gisa identifikatutako lehenengo egituratik perimetroko horma identifikatu ahal izan genuen miaketa lanetan, oinplano angeluzuzena du, ardatz nagusia iparraldetik hegoaldera, eta gutxi gorabehera 10 x 5,20 metro ditu. Barrualdean bi gela ditu, azalera desberdinekin, bietan txikiena (gutxi gorabehera 2 x 3,5 m) hegoaldean eta handiena (gutxi gorabehera 5,5 x 3,5 m) iparraldean. Ezaugarri horien aurrean, oraindik ere badauden txabola batzuen ezaugarriekin bat baitatoz, gela bakoitzean zundaketa bana egitea planteatu genuen barrualdeko gela horien antolaera hobe ulertu ahal izateko.

100. zundaketa UT 1102 egiturako azalera handieneko gelaren hego-mendebaldeko angeluan induskatu genuen, gure ustez txabolaren barrualdeko bi espazioen arteko pasabidea zegoen tokian, horma eten egiten baitzen puntu horretan. Abandonu osteko lur jotako materialez osatutako maila eta deposituen (105, 106, 107, 104 eta 103. UEak) azpian, lurrezko bi estratu (109. eta 108. UEak) dokumentatu genituen, 110. UE gaineko okupazio fase batekin edo batzuekin lotu duguna; haren gainean altxatu zituzten perimetroko hormak (101. eta 102. UEak). Materialei dagokienez, antzua izan zen zundaketa, beirazko botila berri baten zati bat baizik ez genuen identifikatu, 106. UEan, eta hormak behera etorri ondorengoa zen.

200. zundaketa gela txikiaren ipar-ekialdeko angeluan induskatu genuen. Abandonu osteko lur jotako materialez osatutako maila eta deposituen (202, 203, 204, 205, 206 eta 207. UEak) azpian, okupazio aldiarekin lotzen diren lodiera eskaseko maila batzuk dokudencias materiales de distintos aprovechamientos presentes y pasados de los recursos naturales locales. Como continuación necesaria de aquellas primeras labores, en 2022 se proyectó la excavación de cinco pequeños sondeos arqueológicos, así como la toma de muestras de árboles para análisis dendrocronológicos y dendroecológicos, la extracción de una columna para análisis polínicos y la observación más minuciosa de la cobertura vegetal por personal especializado. El objetivo de estas nuevas labores era caracterizar las evidencias reconocidas, definir su funcionalidad y cronología, así como comprobar la existencia de fases anteriores a las reconocidas en superficie.

Resultados preliminares


Las labores citadas han tenido resultados variados y el análisis de muestras está en niveles de desarrollo desiguales. A modo de ejemplo, el sondeo para extracción de una columna polínica mediante sonda rusa en el humedal de Saroizar (identificado como UT 2101 durante la prospección de 2021), perteneciente al término de Narbaiza, resultó infructuoso por la presencia de cantos en el terreno. En cuanto a los sondeos arqueológicos y la toma de muestras de árboles las describimos con mayor detalle individualmente a continuación.

Sondeos arqueológicos en la Majada de Zalduondo

Se realizaron cinco sondeos arqueológicos de 1 x 0,7 m en la Parzonería de Entzia, tres de ellos en la Majada de Zalduondo y los restantes en dos carboneras localizadas en la zona boscosa de Legaire. Los sondeos de la majada tuvieron por objetivo reconocer la secuencia estratigráfica y extraer muestras de sedimentos en dos estructuras. De la primera estructura, identificada como UT 1102, se pudo reconocer durante las prospecciones un muro perimetral que traza una planta rectangular con eje mayor norte-sur y unas dimensiones aproximadas de 10 x 5,20 metros. Internamente se divide en dos estancias de distinta superficie, estando la menor al sur (2 x 3,5 m aproximadamente) y la mayor al norte (5,5 x 3,5 m aproximadamente). Ante estas características, coherentes con las de algunas chabolas aún existentes, planteamos la apertura de un sondeo en cada estancia que nos permitiera entender mejor la articulación de los espacios interiores.

El sondeo 100 se excavó en el ángulo sudoccidental de la estancia de mayor superficie de la estructura UT 1102, donde interpretamos que se situaba el paso entre los dos espacios interiores de la chabola debido a una interrupción del muro. Bajo los niveles de derrumbe y depósitos posteriores al abandono (UUEE 105, 106, 107, 104 y 103) se documentaron dos estratos terreros (UUEE 109 y 108) que hemos asociado a una fase o fases de ocupación sobre la UE 110, sobre la que se levantan los muros perimetrales (UUEE 101 y 102). En cuanto a materiales el sondeo resultó estéril, excepto por un fragmento de vidrio de botella reciente recogido en la UE 106, posterior al colapso de los muros.

El sondeo 200, por su parte, se excavó en el ángulo nororiental de la estancia menor. Bajo distintos estratos de derrumbes y depósitos posteriores al abandono (UUEE 202, 203, 204, 205, 206 y 207) se documentaron varios niveles de escasa potencia que se asocian al momento de ocupación. El nivel más antiguo adosado al



Ezkerrean, Legaireko eremua, zundatutako Unitate Topografikoen eta laginak hartutako zuhaitzen kokapena adierazita eta eskuinean, Zalduondoko Saroiko miaketa lanetan zehar gainazalean dokumentatutako egiturazko aztarnen krokisa eta zundaketen kokapena.

A la izquierda, área de Legaire con indicación de la situación de las Unidades Topográficas sondeadas y los árboles muestreados. A la derecha, croquis de los restos estructurales de la Majada de Zalduondo documentados en superficie durante la prospección y situación de los sondeos.

mentatu genituen. 212. UE da gelaren perimetroko hormari (201. UE) atxikiriko mailarik aspaldikoena, bertan esmaltaturiko kaolin zurizko galbo bat –XVIII. eta XX. mende bitarteko kronologia zabalean koka daitekeena– eta burdinazko xafla zati bat, oso hondatuta, aurkitu baikenituen. Estratu horren gainean geroagoko beste lau depositu identifikatu genituen (211, 210, 209 eta 208. UEak), meheak, tonalitate ilunekoak eta ikatz kontzentrazio handiekin; gure ustez zundatutako eremutik gertu egongo zen sutondo bat garbitzetik etorritako hondakinak dira. 2011. UEan funtzioaren eta kronologiaren ikuspegietatik identifikatzen zaila den metalezko hagatxo bat aurkitu genuen, eta 210. UE antzua zen materialei dagokienez. Bestalde, 209. UEan, metalezko poto baten bi zati, sekzio zirkularreko iltzeak, kontserbazio egoera onean, eta hezur zati bat aurkitu genituen. Horiek guztiak XX. mendeko azken okupazio uneekin lotu behar dira.

Bi zundaketetan partzialki induskatu genuen hormak (110. eta 213. UEak, hurrenez hurren) bermatuko ziren oinarria, horma horien egiturazko egonkortasuna arriskuan ez jartzeko moduko sakoneraraino. Bi kasuetan egiaztatu genuen txabolak limoez eta hareez osatutako lur maila baten gainean hartzen zuela atseden. Ez dugu baztertzen azpian maila arkeologikoak egotea.

Zundatutako bigarren egitura (UT 1103) ez dator aurrekoarekin bat gainazalean ez delako ongi ikusten, itxura batean perimetro angeluzuzen bat mugatzen duten harrizko bloke lerrokatu batzuek eratuta dago. Ardatz nagusiak ipar-ekialdetik hego mendebaldera egiten du, eta gutxi gorabehera 8,6 bider 4,7 metro ditu, osorik identifikatzen ez den arren. Gainera, perimetro horren barrualdea inguru hurbila baino pixka bat beheratuago dago. Kasu honetan, miaketa lanetan zehar identifikatutako aztarnen egituraren izaera egiaztatzea izan zen zundaketaren helburu nagusia. Horretaz gain, haren kronologia eta saroian izango zuen eginkizuna dokumentatu nahi genituen, gure hipotesiaren arabera UT 1102 egitura baino lehenagokoa baitzen eta espazio honen diakroniari buruzko datuak eskain baitzitzakeen.

muro perimetral (UE 201) de la estancia es la UE 212, en la que se hallaron un galbo de loza blanca esmaltada de difícil determinación que podría responder a una amplia cronología entre los siglos XVII y XX y un fragmento de placa de hierro muy degradada. Sobre este estrato se pudieron reconocer hasta cuatro depósitos posteriores (UUEE 211, 210, 209 y 208) de escasa potencia, tonalidad oscura y una alta concentración de carbones que interpretamos como restos de limpiezas de un hogar próximo al área sondeada. En la UE 211 tan solo fue encontrada una barrita metálica de difícil identificación funcional y cronológica, mientras que la UE 210 se mostró estéril en cuanto a materiales. Por su lado, en la UE 209 se encontraron dos fragmentos de lata metálica, clavos de sección circular en buen estado de conservación y un fragmento de hueso que deben asociarse a los últimos momentos de ocupación en el siglo XX.

En ambos sondeos se excavó parcialmente el nivel basal sobre el que se levantaron los muros (UUEE 110 y 213 respectivamente) hasta una profundidad prudencial para no comprometer la estabilidad estructural de los mismos. En ambos casos se comprobó la cimentación de la txabola sobre un nivel terrero de composición limoso-arenosa que no descarta niveles arqueológicos subyacentes.

La segunda estructura sondeada (UT 1103) contrasta con la anterior por su escasa visibilidad en superficie, definida por afloramientos de bloques petreos alineados delimitando aparentemente un perímetro rectangular. Su eje mayor sigue una orientación Noreste-Suroeste, y muestra una dimensiones aproximadas de 8,6 por 4,7 m, si bien no es reconocible en su totalidad. El interior de este perímetro se muestra además ligeramente rehundido respecto al entorno inmediato. En este caso, el primer objetivo del sondeo era verificar la naturaleza estructural de las evidencias reconocidas durante la prospección. Aparte, se buscaba reconocer su cronología y función dentro de la majada, manejando como hipótesis que se tratara de una estructura previa a la UT 1102 y que pudiese aportar datos sobre la diacronía de este espacio.

Zundaketa hau perimetroko hormaren (303. UE) ipar-mendebaldeko horma atalaren trazaduraren perpendikularrean induskatu genuen, horma atal horren zati bat barne hartuta. Hasteko, landare geruzaren (201. UE) azpian egitura hori zegoela egiaztatu genuen, lehorrean ipinitako harriez osatutako horma bat zen. Horma horren erabilera faseari lotuta bi lur maila baizik ez ditugu identifikatu (304. eta 305. UEak). Soilik 305. UEan berreskuratu genuen material bat, metalezko hari lodi bat, sekzioz zirkularra, segur aski XX. mendekoa. Abandonatu ondoren, egituran ebaki bat (307. UE) egin zutela ikus daiteke, eta geroago bete egin zutela (302. UE) lur matrize hareatsu/limotsuekin eta harri koskor txikiekin. 100. eta 200. zundaketetan bezala, egitura hareez eta limoez osatutako lur eremu baten gainean altxatzen dela egiaztatu genuen, nahiz eta argi eta garbi esan behar dugun segurtasun arrazoiak medio ez genuela estratigrafia osoa agortu.

Erradiokarbono bidezko datazioek okupazioen testuinguru kronologikoa XVII. eta XX. mende bitartean berretsi badute ere, oso arku kronologiko zabala eskaintzen dute gisa honetako analisiek hain aspaldikoak ez diren garaiei begira planteatzen dituzten arazoen ondorioz. Horrexegatik, etorkizunean analisi mota desberdinak egitea aurreikusten dugu hautemandako okupazio faseak zehaztasun handiago batez definitzeko.

Zundaketa arkeologikoak ikaztegietan

Ikaztegietan (UT 1149 eta UT 1246) egindako zundaketen kasuan, bi leku aukeratu genituen Legaire haranaren hegoaldeko isurian dauden bi pagaditan. Bi kasuetan identifikatu genituen ikatz hondakinez berdindutako ohiko guneak. UT 1246 kasuan bazen berezitasun bat mendilerroan dokumentatutako beste batzuen aldean, izan ere, kareharrizko blokeez eraturiko eustorma baten antzeko egitura txiki bat zuen. Bi zundaketetan induskatu genuen ohiko moduan, maila estratigrafikoen arabera. Baina UT 1149 egituran, ikatzez osatutako pakete lodi bat baitzuen, bost zentimetroro induskatu genituen maila artifizialtzat hartu genituenak, laginen bilketa sistematizatze aldera. UT 1149 egituratik zazpi lagin jaso genituen, eta UT 1246 egituratik lau, bakoitzetik gutxi gorabehera bi litroko bolumena. Une honetan aztertzeko fasean daude.

Laginak analisi dendroekologikoak eta dendrokronologikoak egiteko.

Guztira hogei zuhaitzen laginak hartu dira Pressler ginbalet bat baliatuz. Zuhaitz horietatik gehien-gehienak Legaireko pagadian daude, eta bertan larre/zuhaizti baten antzinako kudeaketa baten aztarnak identifikatu dira. Alde horretan ezaugarri desberdinak dituzten hamalau pago (*Fagus sylvatica*) hautatu dira, bederatzi lepatuak izan zirelako arrastoekin eta bost haziera zuzena ahalbidetzeko kimatuak izan zirelako ustezko zantzuekin. Horiez gain, sei astigarren (*azkarro* edo *Acer campestre*) laginak hartu ditugu Zalduondoko saroiaren inguruan, horiek ez zuten kimatu izanaren arrasto argirik ageri. Laginketa txiki horren bidez bi inguruneetako lehen erreferentzia batzuk eduki nahi dira, pagoen kasuan bi kudeaketa ereduetatik eratorritako desberdintasunak identifikatu ahal izateko eta giza egonlekuaren eremuan astigarren garapena hobe

El sondeo se excavó con una disposición perpendicular al trazado del lienzo noroccidental del muro perimetral (UE 303), integrando parte del mismo dentro de la cata. Se confirmó en primer lugar la existencia bajo el nivel vegetal (UE 301) de esta estructura, formada por un muro de piedra seca. Asociados a la fase de uso de la misma tan solo se reconocen dos niveles terreros (UUEE 304 y 305). El único material recuperado se encontró en la UE 305 y se corresponde con un hilo metálico grueso, de sección circular y que debe situarse seguramente en el siglo XX. Con posterioridad al abandono se observan evidencias de la excavación de un corte en la estructura (UE 307) y su posterior relleno (UE 302) con tierra de matriz arenoso-limosa y pequeños cantos. Al igual que en los sondeos 100 y 200 se comprobó que la estructura se levanta sobre un nivel terrero, de composición arenoso-limosa, sin llegar a agotar la estratigrafía por razones de seguridad.

Por su lado, las dataciones radiocarbónicas, si bien han confirmado el marco cronológico de las ocupaciones entre los siglos XVII y XX, muestran una horquilla muy amplia derivada de los problemas de este tipo de análisis para períodos recientes. Por esta razón, se contempla la realización de distintos tipos de análisis en el futuro para definir con mayor precisión las distintas fases de ocupación detectadas.

Sondeos arqueológicos en carboneras

Para los sondeos realizados en carboneras (UUTT 1149 y 1246) se han escogido dos sitios en las áreas de hayedo situadas en la vertiente sur del valle de Legaire. En ambos casos se reconocieron las habituales plazas allanadas con restos de carbones en superficie, ofreciendo la UT 1246 la particularidad respecto a las otras documentadas en la sierra de presentar una pequeña estructura de contención con bloques calizos. En ambos casos se procedió a la excavación por niveles estratigráficos convencional. Sin embargo, en la UT 1149, al presentar un potente paquete de carbones, se excavó considerando niveles artificiales cada cinco centímetros con el fin de sistematizar la recogida de muestras. En total se recuperaron siete muestras de la UT 1149 y cuatro de la UT 1246, con un volumen aproximado de dos litros por cada una que están aún en fase de análisis.

Muestras para análisis dendroecológicos y dendrocronológicos

Se han muestreado un total de veinte árboles mediante una barrena de Pressler, en su mayoría situados en el hayedo de Legaire, donde se han identificado evidencias de una antigua gestión como pasto arbolado. En esa zona se han seleccionado catorce hayas (Fagus sylvatica) que presentan rasgos distintos, nueve con evidencias de haber sido trasmochadas y cinco que han recibido posibles podas para favorecer un crecimiento recto. Aparte, se han muestreado también seis arces (*azkarro o Acer campestre*) en el entorno de la majada de Zalduondo que no presentan evidencias claras de poda. Con esta pequeña muestra se pretende tener unas primeras referencias de los dos entornos en las que se puedan identificar diferencias derivadas de dos tipos de gestión en el caso de las hayas, y datar y entender mejor el desarrollo de los arces en las áreas de asentamiento. En el caso de las hayas trasmochas,

ulertzeko. Pago lepatuen kasuan, adinaz gain, horiek kimatzen hasi ziren lehen aldi bat definitzen hasi nahiko genuke, eta hazkunde handiagoko edo txikiagoko uneak identifikatu, kudeaketa mota hori izan ez zuten pagoekin alderatuta.

Astigarrei dagokienez, Arkeoikuskaren aurreko alean jada azaldu genuen talde txikietan bildu ohi direla saroien inguruan, nahiz eta beste eremu batzuetan ere badauden halakoak. Lan hipotesi gisa planteatzen dugu horien banaketa ez dela ausazkoa, izan ere, saroien erabiltzaileek egindako landaketak iradokitzen dituzten astigar lerro batzuk identifikatu ditugu. Ildo horretan, zuhaitz horien adarrak bazka gisa erabiltzea ondo egiaztatuta dago nola Euskal Herrian hala Europa osoan (Moreno, 1990[126]; Aragón Ruano, 2001[127]: 63). Aldi berean, ez dugu baztertu behar mota horretako zuhaitzek jabe bat izan zezaketelako hipotesia, zuhaitzak batez ere egituren inguruan baitaude. Bestalde, gure ustez indar gutxiago du eremu hauetan garai batean zuhaitz masa handiago bat izan zelako eta desagerrarazi zelako hipotesiak, ez baitugu zuhaitzak mozteko lanen edo larre berriak antolatzeko lanen arrasto material bakar bat ere aurkitu. Gainera, Zalduondoko Saroian hartutako laginen bitartez ale horiek datatu nahi ditugu, eta zuhaitz horien edo inguruaren kudeaketatik eratorritako balizko adierazle ekologikoak bilatu.

Konklusioak

Zalduondoko saroiko UT 1102 egiturak orain gutxira arte erabili diren txabolen ohiko egitura du. Gela txikian berreskuratutako material batzuek –hala nola metalezko potoak– eta ikatz kontzentrazioek iradokitzen dute bertan egokitzen zirela bizitegia eta sutondoa. Bestalde, gela handiagoaren okupazio faseetan etxeko materialik ez egoteak adierazi dezake alde horri aldi laburreko materialtasun bati lotutako beste erabilera mota batzuk eman zizkiotela. Ildo horretan, aukera baliagarriak lirateke kamainak bezalako egiturak edo espazio hori azienda ukuiluratzeko erabili izana. Lehenengo aukera bateragarria da XX. mende hasieran mendilerroko txabola batzuetan dokumentatutako antolaerarekin; horietan, kamaina batek eta gaztandegi txiki batek okupatzen zuen gibelaldeko gela, bietan handiena (Arregi, 2000[128]: 473; Barandiarán Ayerbe, 1927[129]: 140). Kronologiari dagokionez, fase berrienak bat datoz saroi honetan XX. mendera arte erabili ziren bi txabola kokatzen zituzten beste iturri batzuetatik etorritako datuekin (Madinabeitia Armentia/Vegas Aramburu, 1990[130]). 212. UEan aurkitutako galboak,

[126] Moreno, D. (1990). Op. cit.

[127] Aragón Ruano, Á. (2001). «El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad». Munibe, 14. gehigarria: 1-285.

[128] Arregi, G. (arg.), (2000). Ganadería y pastoreo en Vasconia. Bilbo: Etniker Euskalerria.

[129] Barandiaran Ayerbe, J. M. (1927). «Contribución al estudio de los establecimientos humanos y zonas pastoriles del País Vasco». Eusko Folklore aldizkariaren urtekaria, 7: 137-41.

[130] Madinabeitia Armentia, J. A.; Vegas Aramburu, J. I. (1990). «Datos etnográficos sobre Encia e Iturrieta», hemen: Barandiarán Maestu, Ignacio; Vegas Aramburu, José Ignacio (arg.) Los grupos humanos en la Prehistoria de Encia-Urbasa: análisis cultural

aparte de su edad, esperamos poder comenzar a definir una primera periodización de sus podas, identificando momentos de mayor o menor crecimiento diferencial respecto a las que no presentan este tipo de gestión.

Respecto a los arces, ya hemos señalado en el número anterior de Arkeoikuska como tienden a concentrarse en pequeños grupos en torno a las majadas, si bien su dispersión no es totalmente privativa de estos espacios. Como hipótesis de trabajo planteamos que su distribución no es espontánea, identificándose incluso algunos alineamientos que sugieren una plantación por parte de los usuarios de estas majadas. En este sentido, el uso de las ramas de estos árboles como forraje es una práctica bien constatada tanto en el País Vasco como en toda Europa (Moreno, 1990[126]; Aragón Ruano, 2001[127]: 63). Al mismo tiempo, no debemos descartar la hipótesis de un sentido de posesión de este tipo de árboles dada su localización preferente en torno a las estructuras. Por otro lado, contemplamos como menos posible la hipótesis de que hubiera una masa arbórea más extensa y densa que hubiese sido eliminada en estas zonas, ya que no hallamos ningún indicio material de labores de tala o apertura de pastos recientes. Además, a través de las muestras tomadas en la majada de Zalduondo pretendemos datar estos ejemplares y buscar posibles indicadores ecológicos derivados de la gestión de los propios árboles o su entorno.

Conclusiones

La estructura UT 1102 de la majada de Zalduondo presenta la estructura común de las txabolas usadas hasta tiempos recientes. La concentración de carbones y algunos materiales recuperados en la estancia menor –como puede ser la lata metálica– sugieren la situación en esta del espacio de habitación y hogar. Por su lado, la ausencia de materiales domésticos en las fases de ocupación de la estancia mayor podría relacionarse con otros tipos de usos asociados a una materialidad efímera. En este sentido, estructuras de madera como camastros o el uso del espacio para la estabulación de ganado serían opciones válidas. La primera posibilidad sería convergente con la organización documentada en algunas txabolas a principios del siglo XX en la sierra, donde la estancia trasera de mayor tamaño estaba ocupada por el camastro (*kamaña*) y el pequeño almacén para los quesos (*gaztantegi*) (Arregi, 2000[128]: 473; Barandiarán Ayerbe, 1927[129]: 140). En cuanto a la cronología, las fases más recientes coinciden con los datos provenientes de otras fuentes que situaban dos chabolas en uso en la majada hasta el siglo XX (Madinabeitia Armentia/Vegas Aramburu, 1990[130]). El galbo localizado

[126] Moreno, D. (1990). Op. cit.

[127] Aragón Ruano, Á. (2001). «El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad». Munibe, suplemento 14: 1-285.

[128] Arregi, G. (ed.), (2000). Ganadería y pastoreo en Vasconia. Bilbao: Etniker Euskalerria.

[129] Barandiarán Ayerbe, J. M. d. (1927). «Contribución al estudio de los establecimientos humanos y zonas pastoriles del País Vasco». Anuario de Eusko Folklore, 7: 137-41.

[130] Madinabeitia Armentia, J. A.; Vegas Aramburu, J. I. (1990). «Datos etnográficos sobre Encia e Iturrieta», In Barandiarán Maestu, Ignacio; Vegas Aramburu, José Ignacio (eds.) Los gru-

bere aldetik, ez du estratu hori zehaztasun handiago batez datatzeko aukerarik ematen, eta ondorioz, ezin dugu ez baztertu ez berretsi aurreneko okupazioa XX. mendea baino lehenagokoa izan zenik. Eskura ditugun datuen arabera, ezin dugu baztertu galbo hori maila honetaraino iritsi izana txabolaren erabilera une aurreko pausatu osteko prozesuen ondorioz. Horrexegatik, gorago aurreratu dugun bezala, beste analisi batzuk egingo ditugu espazio horien kronologiak hobe zehazteko. Gainera, ikerketaren hurrengo faseetan lagin gehiago jasoko dira xafla meheak lantzeko eta horiek hobe ulertzeko analisi geoarkeologikoak garatzeko.

Itxura batean ez da antzinatasun handiago baten emaitza UT 1103 egituraren agerikotasun eskasa. Hasiera batean hipotesi hori erabili zen kontuan harturik Gipuzkoan Archimide proiektuaren barruan garatutako lanen aurretiazko esperientziak (Stagno et al., 2020[131]). Okupazio mailan berreskuratutako metalezko hari lodiak agian UT 1102 egituraren aldi bereko erabilera iradokitzen du XX. mendean zehar. Baliteke egitura horrek gainazalean agerikotasun urria izatea agian hormak desmuntatu zituztelako harria erabiltzeko, izan ere, ekintza hori iradokitzen du 307. UE gisa dokumentatutako ebakiak. Edo, akaso, altuera txikiko hormez eraturiko egitura izan zen, apika zurezko eta landarezko estalki batez hornitua. Eraikin osagarriak ongi dokumentatuta daude mendilerro honetan XX. mendera arte (Arregi, 2000[132]: 473), eta egitura batzuk, esate baterako txerrientzako esparru estali gabeak, bat datoz ezaugarri horiekin.

Oraindik ere azterketa fasean daude Legaireko ikaztegietan berreskuratutako ikatz laginak, eta beraz, oraindik ez gaude horien interpretazioan sakontzeko moduan. UT 1149 ikaztegiko estratigrafiatik abiatuta aurreratu dezakegu erabilera bat baino gehiago izan zituela, estratu buztintsu batek bereizten dituen ikatz pakete lodi biek salatzen duten bezala. Zailagoa da horien kronologia zehaztea, bi ikaztegietako laginekin egindako errediokarbono bidezko datazio kalibratuak oso arku kronologiko zabala eskaintzen baitu, XVIII. mendetik gaur egunera arte.

Laginak eta materialak aztertzeko lanen amaierak aukera emango du esku hartze bakoitzaren emaitzak Entzian eta Arabako ekialdeko lautadan 2021erik aurrera egindako lan guztien interpretazio mailako testuinguru partekatu batean zehazkiago biltzeko. Gainera, aurreikuspenen arabera 2023an beste lan batzuk egingo dira, gainazaleko miaketak egingo ditugu, eta aztertutako eremuetan gertatutako aldaketa diakronikoak zehaztasun handiago batez berreraikitzen lagunduko diguten analisi batzuk –geoarkeologikoak, palinologikoak, antrakologikoak, etab.– egiteko laginak hartuko ditugu.

en la UE 212, por su lado, no permite datar con mayor claridad este estrato, de manera que no podemos descartar ni afirmar que la primera ocupación fuera anterior al s. XX. Con los datos disponibles tampoco podemos descartar su llegada a este nivel por procesos postdeposicionales previos a los momentos de uso de la cabaña. Por ello, como ya adelantamos más arriba, se realizarán nuevos análisis para definir mejor las cronologías de estos espacios. Además, en próximas fases de la investigación se recogerán nuevas muestras para la elaboración de láminas delgadas y desarrollar análisis geoarqueológicos que permitirán profundizar más en la compresión de los mismos.

La escasa visibilidad de la estructura UT 1103 no parece responder, aparentemente, a una mayor antigüedad. Esta hipótesis había sido manejada en un inicio de acuerdo con las experiencia previa de los trabajos desarrollados dentro del proyecto Archimede en Gipuzkoa (Stagno et al., 2020[131]). La recuperación del hilo metálico grueso en un nivel de ocupación sugiere un uso quizás coetáneo a la UT 1102 durante el siglo XX. Una posible explicación para su poca expresividad en superficie es el desmontaje de los muros para el aprovechamiento de la piedra, acción que podría estar evidenciando el corte documentado como UE 307. Alternativamente, pudo ser una estructura con un mínimo alzado de los muros, quizás rematada con una cubierta de madera y material vegetal. Las construcciones auxiliares están bien documentadas en la sierra hasta bien entrado el siglo XX (Arregi, 2000[132]: 473), ajustándose a estas características algunas como los cortines exentos para los cerdos.

El análisis de las muestras de carbones recuperadas en las carboneras de Legaire está aún en fase de estudio, por lo que no estamos todavía en condiciones de profundizar en su interpretación. A partir de la estratigrafía de la carbonera UT 1149 podemos adelantar que tuvo más de un uso, evidenciado por dos gruesos paquetes de carbón separados por un estrato arcilloso. Más difícil es definir su cronología, ya que la dataciones radiocarbónicas calibradas realizadas de muestras de ambas carboneras señala una amplísima horquilla desde el siglo XVIII hasta la actualidad.

La conclusión de los trabajos particulares de análisis de muestras y materiales permitirá integrar con mayor precisión los resultados de cada actuación en un marco interpretativo común de todas las labores desarrolladas en Entzia y el conjunto de la llanada oriental alavesa desde 2021. Además, en 2023 se contempla la ejecución de nuevos trabajos, tanto de prospección superficial como de toma de muestras para distintos análisis –geoarqueológicos, palinológicos, antracológicos, etc.– que ayuden a reconstruir con mayor definición los cambios diacrónicos de las áreas estudiadas.

A. Menéndez Blanco

---

de asentamientos, sistemas de explotación, modos de vida y ritos desde el Neolítico hasta el final de la Edad Antigua; Donostia: Eusko Ikaskuntza.

131 Stagno, A. M.; Tejerizo-García, C.; Echazarreta Gallego, A.; Santeramo, R.; Portillo, M.; Pescini, V.; Hernández Beloqui, B. (2020). Op. cit.

132 Arregi, G. (arg.), (2000). Op. cit.

pos humanos en la Prehistoria de Encia-Urbasa: análisis cultural de asentamientos, sistemas de explotación, modos de vida y ritos desde el Neolítico hasta el final de la Edad Antigua; Donostia: Eusko Ikaskuntza.

131 Stagno, A. M.; Tejerizo-García, C.; Echazarreta Gallego, A.; Santeramo, R.; Portillo, M.; Pescini, V.; Hernández Beloqui, B. (2020). Op. cit.

132 Arregi, G. (ed.), (2000). Op. cit.

A.30.8. **400 kV-ko Goi tentsioko Airetiko/ Lurpeko linea. SET Abarca eta 220 kV-ko SET Promotores Miranda arteko lotura, 220 kV-ko SET Promotores Miranda (REE) eta SET Abarca Miranda eta SET Miranda Forestalia eta Promoto-res Miranda TA artekoa (Armiñón, Berantevilla, Erriberabeitia)**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Basoinsa S.L.

A.30.8. **Línea Aéreo-Subterránea de Alta Tensión 400kV conexión SET Abarca a SET Promotores Miranda 220kV, SET Promotores Miranda 220 kV a SET Miranda (REE) SET Abarca Miranda, y SET Miranda Forestalia y ST Promotores Miranda (Armiñón / Berantevilla / Ribera Baja)**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Basoinsa S.L.

Project compatible with the protection of Cultural Heritage, subject to the application of corrective measures.

Linearen trazadurak bide emango dio Aragoiko Othar, Pietas, Priamo, Promitor, Providentia, Quirite, Recarano eta Robigusko parke eolikoek sortutako energiari, eta linea horren trazadura Aragoi, Nafarroa, Errioxa eta Gaztela eta Leon erkidegoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan barrena luzatuko da. Zehazki, 400 kV goi tentsioko airetiko Linea da (Miranda – SET Forestalia Miranda lotura) Arabako Lurralde Historikoan eragiten duen azpiegitura.

Eragindako udalerrietan katalogatutako kultura ondasunen zerrenda kontsultatu ondoren, prospekzio arkeologiko sistematiko eta intentsibo bat eraman genuen burura, eta lineak Arabako Lurralde Historikoan barrena egiten duen 3,098 km-ko luzera osoa miatu genuen, baita linea horri eusteko euskarrietara iristeko sortutako bideak ere, aipatutako azpiegituren ardatzaren alde bakoitzean 50 m-ko babes korridoreak barne hartuta.

Hauexek dira hautemandako inpaktuak eta eragin horiek arintzeko xedean proposatutako neurri zuzentzaileak:

– *La Higarra etxolaren hondoa (20. BAG)*, Armiñonen. Ap. 480-4 euskarria gune arkeologiko izendatuaren barruan baina ipar-ekialdeko mugatik hurbil altxatuko da, a priori materialak barreiatuta dauden gunean, aztarnategiaren erdigunetik kanpora.

Neurri zuzentzaileak: Ap. 480-4 beste leku batean altxatzea aztarnategiak hartzen duen azaleratik kanpora uzteko. Aukera hori teknikoki bideragarria ez balitz, balorazioa egiteko zundaketa arkeologikoak induskatu beharko lirateke, eskuz, Ap. 480-4 altxatuko den tokian.

– Santa Maria herrixka (19. BAG), Armiñonen. Aztarnategiaren hedadurari begira ezarririko mugaren paraleloan eta muga horretatik 5 eta 60 m bitarteko distantzian luzatzen da linea elektrikoaren trazaduraren ardatza, baina Ap. 480-6 eta Ap. 480-7 euskarriak 50 eta 38 metroko distantziara altxatuko dira.

Neurri zuzentzaileak: Ap. 480-6 eta Ap. 480-7 euskarrien zimendu oinarriak jartzeko lanen aurrez aurreko eta bertatik bertako jarraipen arkeologikoa egitea, maila naturaletara, estratu geologikora edo obraren mailara iritsi arte, aztarnategiak hasieran aurreikusitakoa baino hedadura handiagoa duela baztertzeko, edo ez.

El trazado de la línea dará evacuación a la energía generada por los parques eólicos Othar, Pietas, Priamo, Promitor, Providentia, Quirite, Recarano y Robigus, situados en Aragón, y su trazado discurre por las comunidades autónomas de Aragón, Navarra, La Rioja, Castilla y León y País Vasco. En concreto, la infraestructura que afecta al Territorio Histórico de Álava es la Línea aérea de alta tensión 400kV Nudo Miranda – SET Forestalia Miranda.

Una vez efectuada la consulta previa del inventario de los bienes culturales catalogados en los municipios afectados, se realizó la prospección arqueológica sistemática, de tipo intensivo y cobertura total de los 3,098 km de longitud correspondientes a su trazado por el Territorio Histórico de Álava, así como los caminos de nueva creación de acceso a los apoyos, abarcando un pasillo de protección de 50 m a cada lado del eje de las infraestructuras referidas.

Los impactos detectados y la propuesta de medidas correctoras para mitigarlos son las siguientes:

– *Fondo de cabaña de la Higarra (ZPA nº 20)* en Armiñón. El Ap. 480-4 se levantará dentro pero junto al límite noreste de la zona arqueológica delimitada en su declaración, a priori en un área de dispersión de materiales que sería marginal a la zona nuclear.

Medidas correctoras: Reubicación del Ap. 480-4 para situarlo fuera de la superficie de ocupación del yacimiento. En el caso de que técnicamente esta opción no fuera viable se debería realizar una Excavación de sondeos arqueológicos de valoración, de carácter manual, en el emplazamiento del Ap. 480-4.

– *Poblado de Santa María (ZPA nº 19)* en Armiñón. El eje del trazado de la línea eléctrica se desarrolla en paralelo y una distancia de entre 5 m – 60 m del límite norte de ocupación establecido para el yacimiento, aunque los apoyos Ap. 480-6 y Ap. 480-7 se levantarán a 50 m y 38 m de distancia.

Medidas correctoras: seguimiento arqueológico presencial y a pie de obra de la apertura de las zapatas de cimentación de los apoyos Ap. 480-6 y Ap. 480-7, hasta alcanzar los niveles naturales, el estrato geológico o la cota de obra, a fin de descartar, o no, que el yacimiento posee una extensión mayor que la inicialmente contemplada.

M. Lerín Sanz; A. Ruiz de Marco

A.30.9. **Laminoriako parke eolikoa eta eguzki parke fotovoltaikoa (Arraia-Maeztu, Iruraiz-Gauna, Donemiliaga)**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Saitec S.A.

A.30.9. **Parque eólico Laminoria y parque solar fotovoltáico (Arraia-Maeztu / Iruraiz Gauna / San Millán**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Saitec S.A.

Prospecting enabled us to document a possible burial mound structure in the area affected by the project, meaning that it is subject to corrective measures.

Parke eolikoan bideratutako miaketa arkeologikoak aukera eman du eragin oro baztertzeko Arraia-Maeztuko Aizpilleta Herrixkaren (16. BAG) eta Kerrianu Herrixkaren (15. BAG) balizko arkeologia guneetan eta Hareharri Harrobian (78. kod.), Vasco-Navarro Trenbidean (140/159. kod.) eta Laminoriako Tunelaren (134/143. kod.) babes maila ertaineko kultura ondasunetan.

Hautemandako inpaktu bakarra, inpaktu ertaina, Arraia-Maeztuko Indiagana aurkintzan dagoen tumulu egituran gertatzen da. Haren izaerari dagokionez, funtzionaltasuna eta kronologia argitzeko esku hartze handiagorik (zundaketak, indusketa, etab.) egin ez denez, badira bere jatorri antropikoa eta nolabaiteko antzinatasuna berma dezaketen faktore batzuk. Faktore horien artean daude tumuluaren kokapenaren izaera estrategikoa, berezko defentsa natural egokia, lurralde zabal baten gaineko kontrola eta Euskal Autonomia Erkidegoan antzeko egiturak egotea, hala nola Zeraingo Txoritegi tumulua eta Beasain-Ordiziako Galardi tumulua. Eta esanguratsua da tumuluaren gailurrean lurrean sartutako neurri desberdinetako hiru harri egotea, horietako batek gurutze bat irarrita duelarik. Inpaktua arintzeko neurri zuzentzaile gisa aldez aurretik azterketa arkeologiko bat eta balorazioa egiteko zundaketa batzuk egitea proposatzen da aztarnategiaren izaera, kronologia, kontserbazio egoera eta beste alderdi batzuk zehaztu ahal izateko.

Eguzki parke fotovoltaiko osoa Laminoria meatzaritza enpresan ustiatutako lurretan eraikiko da, azalera agortuetan, gaur egun lehengoratuta dauden edo lehengoratzeko prozesuan dauden azaleretan. Inguruabar horrek aukera ematen du baieztatzeko ez dagoela aztarnategi arkeologikorik edo kultura ondasunik, eta beraz, ez dagoela kultura ondarearen gaineko eraginik.

La prospección arqueológica del parque eólico ha permitido descartar la afección para las zonas de presunción arqueológica Poblado de Aizpilleta (ZPA nº 16) y Poblado de Kerrianu (ZPA nº 15) en Arraia-Maeztu y los bienes culturales de protección media: Cantera de Areniscas (Cod. nº 78), Ferrocarril Vasco-Navarro (Cod. nº 140 / nº 150) y Túnel de Laminoria (Cod. nº 134 / nº 143).

El único impacto detectado, y definido como moderado, se centra en la estructura tumular localizada en el paraje Indiagana de Arraia-Maeztu. A falta de una intervención de mayor envergadura (sondeos, excavación, etc.) que permitiera aclarar su naturaleza, funcionalidad y cronología, existen una serie de factores que podrían avalar su origen antrópico y una relativa antigüedad. Entre ellos destaca el carácter estratégico de su emplazamiento, su buena defensa natural y control de un amplio territorio y la existencia de paralelos similares en el País Vasco como el túmulo de Txoritegi en Zerain o la Mota de Galardi de Beasain-Ordizia. También es significativa la presencia en su cima de tres piedras hincadas, de distintas dimensiones, una de las cuales está grabada con una cruz. Como medida correctora para mitigar su impacto se ha propuesto la realización de sondeos previos de valoración y peritación arqueológica que permitan definir su naturaleza, cronología, estado de conservación, etc.

La totalidad de la planta solar fotovoltaica se construirá en terrenos explotados por la concesión minera Laminoria, en superficies agotadas y que en la actualidad están restauradas o en proceso de restauración. Esta circunstancia permite afirmar la inexistencia de yacimientos arqueológicos o bienes culturales y, por ende, cualquier posible afección al patrimonio cultural.

M. Lerín Sanz; A. Ruiz de Marco

A.30.10. **400 kV-ko Goi tentsioko Airetiko/ Lurpeko linea. Set Tauste J2 eta 220 kV-ko SET Jundiz arteko lotura (REE): LAAT SET Tauste J-2 – Tauste Gunea eta SET Tauste J2, LAAT Gunea Tauste, Abarca Gunea. LAAT Barca gunea – SET Fréscano, LAAT SET Fréscano – Santa Engracia gunea eta SET Fréscano, LAAT Santa Engracia gunea . Miranda Gunea, LAAT Miranda gunea – SET Promotores Jundiz, LAAT SET Promotores Jundiz-SET Jundiz eta SET Promotores Jundiz (Bastida, Zambrana, Berantevilla, Armiñón, Iruña Oka eta Gasteiz)**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Basoinsa S.L.

A.30.10. **Línea Aéreo-Subterránea de Alta Tensión 400kV conexión SET Tauste J2 a SET Jundiz 220kV (REE): LAAT SET Tauste J2- Nudo Tauste y SET Tauste J2, LAAT Nudo Tauste-Nudo Abarca, LAAT Nudo Abarca-SET Fréscano, LAAT SET Fréscano-Nudo Santa Engracia y SET Fréscano, LAAT Nudo Santa Engracia-Nudo Miranda, LAAT Nudo Miranda-SET Promotores Jundiz, LAAT SET Promotores Jundiz-SET Jundiz y SET Promotores Jundiz (Labastida / Zambrana / Berantevilla / Armiñón / Iruña de Oca / Vitoria-Gasteiz**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Basoinsa S.L.

Prospecting enabled us to document a new site in the area affected by the project, and to assess the impact of the scheduled work on those cultural elements that had previously been catalogued. The project is deemed compatible with the protection of Cultural Heritage, subject to the application of corrective measures.

400kV-ko Goi tentsioko Airetiko Linearen trazadura, SET TAUSTE J2tik 220kV-ko SET JUNDIZerako loturan (REE), Ebro ardatzeko eroale nagusia da, eta Tara eta Umikoko instalazio fotovoltaikoek sortutako energia bideratzen du. Linea hori guztira 219 km luze da, eta Aragoi, Nafarroa, Errioxa eta Gaztela eta Leongo erkidegoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan barrena luzatzen da. Zehazki, hauexek dira Euskal Autonomia Erkidegoa zeharkatzen duten tarteak: LAAT Santa Engracia Gunea – Miranda Gunea, LAAT Miranda Gunea – SET Promotores Jundiz eta LAAT SET Promotores Jundiz – 200 kV-ko SET Jundiz (REE).

Eragindako udalerrietan katalogatutako kultura ondasunen zerrenda kontsultatu ondoren, prospekzio arkeologiko sistematiko eta intentsibo bat eraman genuen burura, eta lineak Arabako Lurralde Historikoan barrena egiten duen 28,553 km-ko luzera osoa miatu genuen, baita linea horri eusteko euskarrietara iristeko sortutako bideak ere, aipatutako azpiegituren ardatzaren alde bakoitzean 50 m-ko babes korridoreak barne hartuta.

Hauexek dira hautemandako inpaktuak eta eragin horiek arintzeko xedean proposatutako neurri zuzentzaileak:

Ondare historikoa eta arkitektonikoa. Babes bereziko kultura ondasunak

Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Kultura Paisaia. Bastidako udalerrian barrena luzatzen den tartearen eraikuntza, Ap. 449 eta Ap. 468 euskarrien artekoa (biak barne), halako inpaktu bisuala eragin dezake Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Kultura Paisaiaren Multzo Monumentalaren aurrean.

Neurri zuzentzailea: obra lizentzia eman aurretik, inpaktu bisualaren balorazio zehatza ahalbidetuko duten azterlan espezifikoak egiteko Arabako Foru Aldundiaren baimena lortzea, Aldundiak azterlan horiek egiteko premia dagoela erabakiz gero, inpaktu hori arintzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzeko.

El trazado de la Línea Aérea de Alta Tensión 400kV, conexión SET TAUSTE J2 a SET JUNDIZ 220kV (REE), lleva la evacuación principal del eje del Ebro y evacúa la energía generada por las plantas fotovoltaicas Tara y Umiko. Tiene una longitud total de 219 km y discurre por las Comunidades Autónomas de Aragón, Navarra, La Rioja, Castilla-León y País Vasco. En concreto, los tramos que atraviesan el País Vasco son: LAAT Nudo Santa Engracia - Nudo Miranda, LAAT Nudo Miranda - SET Promotores Jundiz y LAAT SET Promotores Jundiz - SET Jundiz 220kV (REE).

Una vez efectuada la consulta previa del inventario de los bienes culturales catalogados en los municipios afectados, se realizó la prospección arqueológica sistemática, de tipo intensivo y cobertura total de los 28,553 km de longitud correspondientes a su trazado por el Territorio Histórico de Álava, así como los caminos de nueva creación de acceso a los apoyos, abarcando un pasillo de protección de 50 m a cada lado del eje de las infraestructuras referidas.

Los impactos detectados y la propuesta de medidas correctoras para mitigarlos son las siguientes:

Patrimonio Histórico / arquitectónico. Bienes Culturales de Protección Especial

Paisaje Cultural del Vino y el Viñedo de la Rioja Alavesa. La ejecución del tramo que discurre por el municipio de Labastida, comprendido entre los apoyos Ap. 449 a Ap. 468 (ambos incluidos), podrá suponer una afección visual sobre el Conjunto Monumental Paisaje Cultural del Vino y el Viñedo de la Rioja Alavesa.

Medida correctora: autorización de la Diputación Foral de Álava previa a la concesión de la licencia de obra, quien determinará la necesidad, o no, de realizar estudios específicos que permitan valorar con exactitud el impacto visual, con el fin de adoptar las medidas correctoras necesarias para su posible corrección.

Gatzaga Buradongo Hirigune Historikoa. Proiektuaren araberako ekintza guztiak eremu babestutik kanpora eramango dira burura. Zehazki, Ap. 467 euskarria da gertuen egongo dena, eta hori hirigunearen mendebaldera 250 m-ra altxatuko da.

Neurri zuzentzailea: obra lizentzia eman aurretik, inpaktu bisualaren balorazio zehatza ahalbidetuko duten azterlan espezifikoak egiteko Arabako Foru Aldundiaren baimena lortzea, Aldundiak azterlan horiek egiteko premia dagoela erabakiz gero, inpaktu hori arintzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzeko.

Donejakue Bidea. Airetiko linea elektrikoa bost aldiz igarotzen da bide horren trazaduraren gainetik, eta horietako bi bide historikoak dira: Las Loberas bidea (226. kod.), Bastidan, eta Berantevillatik Zambranara bidea (67. kod.), Berantevillan, biak Donejakue Bidearen eraginpeko Bide historikoen 1. Zerrendan jasoak. Gatzaga Buradondik gertu igarotzen den tartera murrizten dira balizko inpaktu bakarrak, gainerako euskarriak bideetatik urrutira altxatuko baitira, gutxienez 40 metroko distantziara. Beraz, ez da inolako inpakturik izango ez Donejakue Bidean ez haren eremu babestuan.

Neurri zuzentzailea: Arabako Foru Aldundiari baimena eskatzeko eskabidean trazaduraren gaineko inpaktua zehazteko beharrezkoa den informazioa eman beharko da, eta inpaktua gutxienera eramateko edo desagerrarazteko neurriak proposatu beharko dira. Esate baterako, Ap. 467 euskarria beste toki batean altxatu liteke Donejakue Bideko zortasun eremutik ateratzeko.

Ondare etnografikoa

Terrazak. Ap. 454, Ap. 456, Ap. 463 eta Ap. 466 euskarriak 287. terrazaren (7015. kod.), 289. terrazaren (7017. kod.), 193. terrazaren (6912. kod.) eta 156. terrazaren (6871. kod.) barruan altxatuko dira hurrenez hurren, eta Ap. 452, Ap. 455 eta Ap. 458 euskarriak 85. terrazaren (7094. kod.), 303. terrazaren (7033. kod.) eta 265. terrazaren (6991. kod.) mendebaldeko, hegoaldeko eta iparraldeko mugen ondoan altxatuko dira, hurrenez hurren.

Neurri zuzentzaileak: terraza guztien inguruan balizak eta hesolak ipiniko dira 5 m-ko perimetroan, egiturak babesteko eta obra zibileko langileei haien kokapena adierazteko. Azpiegitura eraikitzeko obrak zuzenean eragiten duen ala ez zehazteko, Ap. 452, Ap. 454, Ap. 455, Ap. 456, Ap. 458, Ap. 463 eta Ap. 466 euskarriak finkatzeko lanen gaineko jarraipen arkeologikoa egingo da neurri osagarri gisa.

Haietako bakoitzean benetako eragina izango dela egiaztatu ondoren zorupea aldatzea edo terrazaren baten konfigurazioa aldatzea dakarten ekintzak egingo balira, aldez aurretik azterketa arkeologiko bat egin beharko litzateke.

Ondare arkeologikoa

Carbora giza egonlekua (93. BAG), Bastidan. Ap. 473 euskarria izendapenean mugatutako eremu arkeologikoaren mendebaldeko muga ondoan altxatuko da, a priori materialak barreiatuta dauden gunean, aztarnategiaren erdigunetik kanpora.

Neurri zuzentzaileak: Ap. 473 euskarria beste leku batean altxatzea aztarnategiak hartzen duen azaleratik kanpora uzteko. Aukera hori teknikoki bideragarria ez balitz, balorazioa egiteko zundaketa arkeologikoak induskatu beharko lirateke, eskuz, Ap. 473 altxatuko den tokian.

*Casco Histórico de Salinillas de Buradón***.** Todas las acciones de proyecto tienen lugar fuera del entorno de protección. En concreto, el apoyo más cercano es el Ap. 467 que se levantará a 250 m al oeste del casco urbano.

Medida correctora: autorización de la Diputación Foral de Álava previa a la concesión de la licencia de obra, quien determinará la necesidad, o no, de realizar estudios específicos que permitan valorar con exactitud el impacto visual, con el fin de adoptar las medidas correctoras necesarias para su posible corrección.

Camino de Santiago. La línea eléctrica sobrevuela el trazado de esta ruta en cinco ocasiones, dos de las cuales coinciden con caminos históricos: Camino de las Loberas (Cod. nº 226) en Labastida y Camino de Berantevilla a Zambrana (Cod. nº 67) en Berantevilla, incluidos en el Listado 1 Caminos históricos afectos al camino. Los únicos impactos potenciales se reducen al tramo en el que éste discurre por las inmediaciones de Salinillas de Buradón ya que en el resto los apoyos se dispondrán alejados del firme, a más 40 m de distancia anulando cualquier posible afección sobre el viario o su entorno de protección.

Medida correctora: en la solicitud de autorización a la Diputación Foral de Álava se deberá aportar la información necesaria para definir el impacto sobre el trazado así como aportar las medidas correctoras para minimizarlo / anularlo que podrían pasar por reubicar la posición del Ap. 467 para desplazarlo de la zona de servidumbre del camino.

Patrimonio Etnográfico

Aterrazamientos. Los apoyos Ap. 454, Ap. 456, Ap. 463 y Ap. 466 se dispondrán en el interior de los aterrazamientos 287 (Cod. 7015), aterrazamiento 289 (Cod. 7017), aterrazamiento 193 (Cod. 6912) y aterrazamiento 156 (Cod. 6871) mientras que los apoyos Ap. 452, Ap. 455 y Ap. 458 se levantarían junto a los límites oeste, sur y norte del aterrazamiento 85 (Cod. 7094), aterrazamiento 303 (Cod. 7033) y aterrazamiento 265 (Cod. 6991).

Medidas correctoras: balizado y estaquillado de un perímetro de 5 m entorno a los distintos aterrazamientos, para proteger y señalizar su ubicación a los agentes de la obra civil. Para concretar la existencia de afección directa, o no, por la obra de infraestructura, como medida complementaría se realizará el seguimiento arqueológico de la apertura de los apoyos: Ap. 452, Ap. 454, Ap. 455, Ap. 456, Ap. 458, Ap. 463 y Ap. 466.

Si tras verificarse el impacto real sobre cada uno de ellos, se fueran a realizar acciones que conllevaran alteración del subsuelo o en la configuración de alguna de las terrazas, debería llevarse a cabo un estudio arqueológico previo.

Patrimonio Arqueológico

Asentamiento de Carbora (ZPA nº 93) en La Bastida. El Ap. 473 se levantará junto al límite oeste de la zona arqueológica delimitada en su declaración, a priori en un área de dispersión de materiales que sería marginal a la zona nuclear.

Medidas correctoras: reubicación del Ap. 473 para situarlo fuera de la superficie de ocupación del yacimiento. En el caso de que técnicamente esta opción no fuera viable se deberían realizar sondeos arqueológicos de valoración, de carácter manual, en el emplazamiento del Ap. 473.

Done Erroman tenplua eta nekropolia (61. BAG / 27. kod.), Berantevillan eta Armiñonen. Ap. 482 eta Ap. 483 euskarriak aztarnategiari begira mugatutako okupazio eremuaren erdialdean eta ipar-mendebaldean eraikiko dira, baina ehorzketak dokumentatu ziren lursailak biltzeko bidetik urrun.

Neurri zuzentzaileak: Ap. 482 eta Ap. 483 euskarriak beste leku batean altxatzea aztarnategiak hartzen duen azaleratik kanpora uzteko. Aukera hori teknikoki bideragarria ez balitz, balorazioa egiteko zundaketa arkeologikoak induskatu beharko lirateke, eskuz, Ap. 382 eta Ap. 483 euskarriak altxatuko diren tokietan.

Ribañez (25. BAG), Armiñonen. Ap. 488 euskarria materialak barreiatuta dauden eremuaren mugan altxatuko da, aztarnategiaren bazter batean, eta alde horretan ez da aztarnarik ikusten gainazalean.

Neurri zuzentzaileak: Ap. 488 euskarria beste leku batean altxatzea aztarnategiak hartzen duen azaleratik kanpora uzteko. Aukera hori teknikoki bideragarria ez balitz, balorazioa egiteko zundaketa arkeologikoak induskatu beharko lirateke, eskuz, Ap. 488 altxatuko den tokian.

Los Hoyos, Armiñonen. Miaketa lanetan zehar aurkitu genuen aurkintza hau. Ia laua den, forma leunak eta biribilduak dituen eta Zadorra ibairantz makurtzen den mendi bizkar zabal baten gailurra hartzen du. Etxean erabiltzeko zeramika arrunten zati gutxi batzuk ditu aztarnategiak, tornuan landuak, baita eztiaren tonuetan beiratutako zeramika eta kaolin zati batzuk ere, kronologikoki eta grosso modo Behe Erdi Aroan/Aro Modernoan koka daitezkeenak, gehiago zehaztu gabe. 7,4 hektareako azaleran barreiatzen dira, betiere lur eremuaren kolorea tonu ilunetara aldatzen den puntuetan. Ezin izan dugu aztarnategiaren izaera zehaztu, baina, hipotesi moduan, giza egonleku txiki bat izan daiteke, benta antzeko bat, bertatik gertu samar igarotzen den Donejakue Bidearekin lotua.

Aztarnategiari begira mugatutako okupazio eremuaren erdialdean altxatuko da Ap. 490 euskarria, hain zuzen ere lurrean hautemandako kolore aldaketa gertatzen den puntuan.

Neurri zuzentzaileak: Ap. 490 euskarria beste leku batean altxatzea aztarnategiak hartzen duen azaleratik kanpora uzteko. Aukera hori teknikoki bideragarria ez balitz, balorazioa egiteko zundaketa arkeologikoak induskatu beharko lirateke, eskuz, Ap. 490 altxatuko den tokian.

Templo y Necrópolis de San Román (ZPA nº 61 / Cod. nº 27) en Berantevilla y *Armiñón. Los* Ap. 482 y Ap. 483 se levantarán en el centro y lateral noroeste del ámbito de ocupación delimitado para el enclave aunque alejados del camino de concentración parcelaria en cuyas inmediaciones se documentaron los enterramientos.

Medidas correctoras: reubicación de los apoyos Ap. 482 y Ap. 483 para situarlos fuera de la superficie de ocupación del yacimiento. En el caso de que técnicamente esta opción no fuera viable se deberían realizar una excavación de sondeos arqueológicos de valoración, de carácter manual, en el emplazamiento de los apoyos Ap. 482 y Ap. 483.

Ribáñez (ZPA nº 25) en Armiñón. El Ap. 488 se levantará junto al límite del área de dispersión de materiales establecida, en una zona periférica y marginal en la que no se visualiza ningún restos a nivel superficial.

Medidas correctoras: reubicación del Ap. 488 para situarlo fuera de la superficie de ocupación del yacimiento. En el caso de que técnicamente esta opción no fuera viable se debería realizar una excavación de sondeos arqueológicos de valoración, de carácter manual, en el emplazamiento del Ap. 488.

Los Hoyos de Armiñón. Este enclave fue localizado durante la prospección. Ocupa la cima de una extensa loma, prácticamente llana y de formas suaves y redondeadas, basculada hacia el río Zadorra. Se manifiesta con un escaso lote de fragmentos de cerámica común de uso doméstico, elaborados a torno, junto con otros vidriados en tonos melados y lozas que grosso modo pueden adscribirse a época bajomedieval-moderna, sin mayores precisiones. Se dispersan por una superficie de 7,4 hectáreas, coincidiendo con un significativo cambio de coloración del terreno a tonos oscuros. No se ha podido concretar su naturaleza aunque, a modo de hipótesis, podría tratarse de un pequeño asentamiento, tipo venta, vinculado a la ruta jacobea que discurre en las cercanías.

El Ap. 490 se levantará en el centro del ámbito de ocupación delimitado para el yacimiento, en el cambio de coloración advertido en el terreno.

Medidas correctoras: reubicación del Ap. 490 para situarlo fuera de la superficie de ocupación del yacimiento. En el caso de que técnicamente esta opción no fuera viable se deberían realizar sondeos arqueológicos de Valoración, de carácter manual, en el emplazamiento del Ap. 490.

M. Lerín Sanz; A. Ruiz de Marco

A.30.11. **Arabako Lurralde Historikoko aztarna arkeologikoen garbiketa**

Zuzendaritza: Miguel Ángel Berjón Lobato
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.30.11. **Limpieza de yacimientos arqueológicos del territorio histórico de Álava**

Dirección: Miguel Ángel Berjón Lobato
Financiación: Diputación Foral de Álava

Archaeological oversight of the summer and autumn seasons of landscape maintenance work carried out in 32 archaeological sites in the province of Álava.

Arabako Lurralde Historikoko 32 aztarnategi arkeologikotan paisaia egokitzeko bideratu beharreko lanen gaineko 2022ko udako eta udazkeneko kanpainaren ikuskapen teknikoa.

Supervisión técnica de la campaña estival y otoñal de 2022 de los trabajos de acondicionamiento paisajístico a realizar sobre 32 yacimientos arqueológicos –de cronología y naturaleza diferentes– del Territorio Histórico de Álava.

Aztarnategi hauetan lan egin dugu ikuskapen teknikoan zehar:

1. Campas de Oletar trikuarria (Salmantón)
2. Campas Este trikuharria (Añes)
3. Campas Oeste trikuharria (Añes)
4. Santiagoko leizeak (Tobillas)
5. Santa Olalla nekropolia (Corro)
6. Mairuen haitzuloak (Corro)
7. Santiagoko leizeak (Pinedo)
8. San Martín de Valparaíso (Uribarri Gaubea)).
9. Magdalenaren nekropolia (Caicedo Yuso)
10. La Lastra trikuharria (Leciñana del Camino).
11. La MIna trikuharria (Leciñana del Camino).
12. Pinto iturria (Mimbredo)
13. Iruña-Veleia (Billoda/Treponde).
14. Buradongo eliza (Gatzaga Buradon)
15. Layaza trikuharria (Leza)
16. El Montecillo trikuharria (Gaubea)
17. El Sotillo trikuharria (Guardia)
18. San Martin trikuharria (Guardia)
19. La Hoya herrixka (Guardia)
20. Alto de la Huesera trikuaharria (Guardia)
21. Sorginaren Txabola trikuharria (Elvillar)
22. El Encinal trikuharria (Elvillar)
23. Los Llanos trikuharria (Kripan)
24. Santa Leokadia haitzuloak (Markiz)
25. Larreako haitzuloak (Markiz)
26. Peña del Castilloko leizeak (Markiz)
27. Sorginetxe trikuharria (Arrizala)
28. Aizkomendi trikuharria (Egilatz)
29. San Sebastian Iparra trikuharria (Katadio).
30. San Sebastian Hegoa trikuharria (Katadio).
31. Gurpide Iparra trikuharria (Katadio)
32. Gurpide Hegoa trikuharria (Katadio)

Aztarnategi bakoitzaren izaeraren, topografiaren eta kontserbazio egoeraren araberako irizpideei erantzungo zien aztarnategietan bideratu beharreko esku hartzeak. Halere, hauexek izango ziren, oro har, mantentze lanen teknikariek (Euria Servicios Agroforestales, S. L. enpresakoak) egin beharrekoak: moztu eta aterako zituzten gainazaleko egituren eta testuinguruen gaineko landareak; zaborrak aterako zituzten; nahasita edo lor jota zeuden eraikuntza elementu txikiak lehengoratuko zituzten; eta hesiak, seinaleak eta beste batzuk konponduko zituzten.

Aholkuak emateko, aztertutako aztarnategietan hautemandako gorabeherak jakinarazteko eta egindako esku hartzeak argazki bidez dokumentatzeko xedea izango zuen jarduera horien gaineko ikuskapen arkeologikoak. Horretarako, aldez aurretik bertatik bertara ebaluatu genuen aztarnategi bakoitzaren egoera. Ondoren, mantentze lanetako teknikariei lagundu genien esku hartu zuten aztarnategi arkeologiko bakoitzean bideratu zuten lanetan. Eta azkenik, burura eramandako garbiketa lanen ostean aztarnategiek hartu zuten itxura dokumentatzeko azken ikustaldia egin genuen.

Los yacimientos sobre los que se ha actuado en esta supervisión han sido:

1. Dolmen Campas de Oletar (Salmantón).
2. Dolmen Campas Este (Añes).
3. Dolmen Campas Oeste (Añes).
4. Cuevas de Santiago (Tobillas).
5. Necrópolis de Santa Olalla (Korro).
6. Cuevas de los Moros (Korro).
7. Cuevas de Santiago (Pinedo).
8. San Martín de Valparaíso (Villanueva de Valdegovía).
9. Necrópolis de la Magdalena (Caicedo-Yuso).
10. Dolmen de La Lastra (Leciñana del Camino).
11. Dolmen de La Mina (Leciñana del Camino).
12. Fuente Pinto (Mimbredo).
13. Iruña-Veleia (Villodas/Trespuentes).
14. Iglesia de Buradón (Salinillas de Buradón).
15. Dolmen de Layaza (Leza).
16. Dolmen de El Montecillo (Villabuena de Álava).
17. Dolmen de El Sotillo (Laguardia).
18. Dolmen de San Martín (Laguardia).
19. Poblado de La Hoya (Laguardia).
20. Dolmen de El Alto de la Huesera (Laguardia).
21. Dolmen de La Chabola de la Hechicera (Elvillar).
22. Dolmen de El Encinal (Elvillar).
23. Dolmen de Los Llanos (Kripan).
24. Cuevas de Santa Leocadia (Marquínez).
25. Cuevas de Larrea (Marquínez).
26. Cuevas de Peña del Castillo (Marquínez).
27. Dolmen de Sorginetxe (Arrizala).
28. Dolmen de Aizkomendi (Eguilaz).
29. Dolmen de San Sebastián Norte (Catadiano).
30. Dolmen de San Sebastián Sur (Catadiano).
31. Dolmen de Gurpide Norte (Catadiano).
32. Dolmen de Gurpide Sur (Catadiano).

La actuación a realizar en cada yacimiento atiende a criterios propios de su naturaleza, topografía o estado de conservación. Así y todo, y de forma genérica, los trabajos a realizar por los técnicos de mantenimiento –de la empresa Euria Servicios Agroforestales, S.L.– son: el segado y eliminación de elementos vegetales sobre las estructuras y contextos superficiales; retirada de basuras; pequeñas restituciones de elementos construidos removidos o caídos; y reparación de cercados/vallados, señaléticas, etc.

La supervisión arqueológica de dichas actividades atiende al asesoramiento, documentación fotográfica de las actividades realizadas y notificación de incidencias detectadas en los yacimientos intervenidos. Para ello, se realiza una evaluación presencial previa del estado en el que se encuentra cada localización. Tras ello, se acompaña a los técnicos de mantenimiento en su actividad sobre cada localización arqueológica en el que se interviene. Y, por último, se realiza una visita final para documentar el estado en que quedan los yacimientos tras las tareas de limpieza realizadas.

M. Á. Berjón Lobato; R. Rodríguez Calleja; P. Sáenz de Urturi Rodríguez

B. BIZKAIA

B.1. BALMASEDA

B.1.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.1.1.1. Hiriko gaztelua

Zuzendaritza: J. L. Solaun Bustinza
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila; Balmasedako Udala

B.1.1.1. Castillo de la Villa

Dirección: J.L. Solaun Bustinza
Financiación: Departamento de Cultura y Política Lingüística. Gobierno Vasco; Ayuntamiento de Balmaseda

This document outlines the archaeological interventions carried out in 2022 on Balmaseda Castle (also known as Cerro del Castillo), as part of a heritage project led by the Balmaseda Town Council and the UNESCO Chair in Heritage Landscapes (UPV/EHU). The main aim of the action proposed was to gather further archaeological information from the western end of the castle, in order to develop a richer and more accurate narrative of the area, and to add precision and nuance to existing chronological and interpretative proposals. The research carried out resulted in the identification of structures belonging to both the medieval castle (moat, walls and tribute tower) and the fort that was rebuilt during the 1st Carlist War (moat and bulwarks).

Gazteluaren mendebaldeko muturrean bideratutako esku hartze arkeologikoaren emaitza da jarraian aurkezten dugun historia eta eraikuntza sekuentzia. Esku hartze hori lurpean (indusketa arkeologikoa) eta 0 kotatik gora (hormen irakurketa) eraman da burura. Gutxi gorabehera 400 m²-ko azalera aztertu genuen guztira, bertan biltzen zen Balmasedako gotorlekua ezaugarritzen zuten elementuen zati handi bat, karlistaldien harira eraikitako defentsei (lubanarroa eta baluarteak) eta jada Erdi Aroan baziren egiturei (lubanarroa, harresiak eta dorre nagusia) dagozkienak.

Erdi Aroko dorrea

Lehen Karlistaldian bideratutako berreraikuntzak Erdi Aroko eraikuntza zaharrari nabarmen eragin bazion ere, azterlan arkeologikoak gero eta azkarrago erakusten ari dira hasiera batean aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoa dela aberastasun materiala. 2022an burututako ekinaldian dorre nagusiaren aztarnak identifikatu ahal izan dira. Rafael de Lara ingeniari kapitainak gutxi gorabehera 1835ean eraikitako lehenengo gotorleku liberalari zegokion planoan «gaztelua» esaten zitzaion dorre nagusi horri. Indusketa lanetan eraikin sendo horren hegoaldeko muturra erregistratu zen, hiru metro eta erdi garai eta bi metro lodi diren horma atalak kontserbatzen ditu. Geroago, goian zegoen ateari sarrera egiten zion harrizko arrapala bat erantsi zioten, segur aski desagertua zen zurezko baten tokia hartu zuen.

Kronologiari dagokionez, C14ren bidez datatu ahal izan da obra hori, XII. mendearen bigarren erdiaren eta XIII. mendearen hasiera artean, eta estratigrafikoki iaz X. mendean datatutako egituraren ondorengoa da.

Hemeretzigarren mendeko gotorlekua

Lehenagoko testu batzuetan adierazi genuen bezala (*Arkeoikuska* 2021), jarduerarik gabeko denbora tarte luze baten ostean, gaztelua berriz ere okupatu zuten lehenengo karlistaldiaren testuinguruan, eta 1835 eta 1838 bitartean hiru eraikuntza fase eraman ziren burura.

La secuencia histórico-constructiva que se presenta a continuación es el resultado de la actuación0 arqueológica realizada en el extremo occidental del castillo, tanto a nivel de subsuelo (excavación arqueológica) como sobre cota 0 (lectura de alzados). Se intervino una superficie total aproximada de 400 m², en la que se situaban buena parte de los elementos que caracterizan la fortaleza de Balmaseda, correspondientes a las defensas construidas con ocasión del conflicto carlista (foso y baluartes) y a preexistencias de época medieval (foso, murallas y torre del homenaje).

La torre medieval

Aunque la reconstrucción efectuada durante la Primera Guerra Carlista afectó notablemente a la vieja construcción medieval, los estudios arqueológicos están demostrando, cada vez con mayor fuerza, una riqueza material mucho mayor a la inicialmente prevista. La nueva campaña ejecutada en 2022 ha podido identificar restos de la torre del homenaje que, el plano de la primera fortificación liberal ejecutado por el capitán de ingenieros Rafael de Lara (a. 1835), denominaba como «el castillo». Las labores de excavación registraron el extremo meridional de este potente edificio que conserva alzados de hasta tres metros y medio de altura y dos metros de grosor en sus muros. Con posterioridad, se le adosó una rampa de piedra que daba acceso a la puerta situada en alto, la cual sustituyó previsiblemente a un desaparecido patín ligneo.

En lo que respecta a su cronología, se trata de una obra que ha podido ser datada por C14 entre la segunda mitad del siglo XII y principios del siglo XIII, siendo estratigráficamente posterior a la estructura fechada el pasado año en el siglo X.

La Fortaleza Decimonónica

Como señalamos en anteriores textos (*Arkeoikuska 2021*), tras un largo periodo de inactividad, el castillo volverá a ser reocupado en el contexto del primer conflicto carlista, ejecutándose hasta tres fases constructivas datadas entre los años 1835 y 1838.



Gazteluko dorreari dagokion hormaren ikuspegia, eskuinaldean atxikita duen sarbideko arrapalarekin. Espartero jeneralak 1838an agindutako leherketaren emaitza dira ikus daitezkeen pitzadura eta zuloa.

Vista del muro perteneciente a la torre del castillo, con la rampa de acceso adosada a su derecha. La brecha y socavón que se observa responde a la voladura ordenada por el general Espartero en

1835eko gotorleku liberala

Lubanarroa eta harresia dira lehenengo gotorleku liberal honetatik erregistratutako egitura garrantzitsuenak.

Lubanarroa

Gotorlekua mendebaldetik babesten zuen lubanarroa da agerian utzitako egitura monumentalena, haren trazadura osoa induskatu dugu. Liberalen obran hegoalderantz handitu zuten iparraldeko muturrean kontserbatzen zen Erdi Aroko lubanarroa, eta itxura kurbatua eman zioten, hogeita hamabostetik gora metro luze, hiru metro eta erdi zabal eta gehienez ere ia bost metro sakon izango zen. Nola malkarra hala kontramalkarra partzialki harriz estali zituzten defentsa emendatzeko, eta ondorioz, irudi egiazki ikusgarria eskainiko zuen multzo osoak.

Hiriko harresia

Gazteluarekin batera, hiria ere gotortu zuten. Zehazki, gaztelua eta Balmasedako hiria mendebaldetik lo-tzen zituen Erdi Aroko harresi zaharra berreraiki zuten. Erdi Aroko harresi zaharraren gainean eraikitako harresi berriko lotura estratigrafikoek, estekadura espezifikoak eta Rafael de Lararen erreferentzia esplizituak («hirira jaisten den harresi zaharra» aurri egoeran dago) aukera ematen dute gaztelu ondoan kontserbatu den harresiaren zati handi bat une horretan eraiki zutela baieztatzeko. Harresi atal horretan, gainera, muinoko harresiz barneko eremua kanpoaldearekin, segur aski mendebaldetik Pandozales aldera eramaten zuen bidearekin, komunikatzeko ate bat ireki zuten.

1836ko gotorleku liberala

1836ko martxoan liberalek Balmaseda birkonkistatu ondoren, gaztelua defentsa sendoekin berreraiki zuten, garaiko albiste batzuen arabera «*gotorleku modernoa*» izango zen. Gutxienez hiru jarduera nagusitan oinarritu zen gotorleku horren eraikuntza:

Goiko plataformaren eraikuntza

Hipotesi hau soilik lan arkeologikoei jarraipena emanik baieztatu edo baztertuko bada ere, gaur egungo erregistroaren arabera lehenik eta behin suntsitu egin

El fuerte liberal de 1835

Las principales estructuras registras de este primer fuerte liberal se corresponden con el foso y la muralla.

El foso

El foso que defendía la fortaleza por el oeste es la estructura más monumental exhumada, habiéndose excavado su trazado completo. La obra liberal consistió en ampliar hacia el sur el viejo foso medieval que se conservaba en el extremo norte, generando un trazo curvilíneo de más de treinta y cinco metros de longitud, tres y medio de anchura y casi cinco metros de profundidad máxima. Tanto la escarpa como la contraescarpa fueron revestidas parcialmente en piedra para aumentar su defensa, ofreciendo una imagen de conjunto verdaderamente espectacular.

La muralla urbana

Junto al castillo, se procedió a fortificar también la villa. En concreto, se procedió a reconstruir la vieja muralla medieval que, por el oeste, unía el castillo con la villa balmasedana. Tanto las relaciones estratigráficas de la nueva muralla construida (sobre los restos de la vieja cerca medieval), como su específico aparejo y la referencia explícita de Rafael de Lara a que la «antigua muralla que baja a la ciudad» se encontraba arruinada, permiten afirmar que gran parte de la muralla conservada junto al castillo se construyó en estos momentos. En esta cerca se abrió, además, una puerta que permitía la comunicación entre el área intramuros del cerro y el exterior, probablemente con un camino que, por el oeste, se dirigía hacia la zona de Pandozales.

El fuerte liberal de 1836

Tras la reconquista liberal de Balmaseda en marzo de 1836, el castillo será reconstruido con potentes defensas que algunas noticias de la época califican de «*fuerte a la moderna*». Su construcción pivotó sobre, al menos, tres actividades principales:

La creación de una plataforma superior

Aunque solo la continuación de los trabajos arqueológicos posibilitará confirmar o desmentir esta hipótesis, atendiendo al registro actual, una de las primeras activi-



Vista general de la intervención arqueológica, con el foso exhumado y las diferentes estructuras registradas en su interior (de arriba abajo: foso interior, peldaños, parapeto de guardia, escalera helicoidal y apoyos del puente levadizo frente al cuartel). Sobre el foso puede observarse la estructura curva levantada por las tropas carlistas en 1838, las escaleras de subida a la plataforma superior y, a su derecha, restos de la torre del homenaje medieval y otras estructuras defensivas.

Esku hartze arkeologikoaren ikuspegi orokorra, agerian utzitako lubanarroarekin eta barrualdean erregistratutako egiturekin (goitik behera: barruko lubanarroa, eskailera mailak, zaintza lanetarako parapetoa, eskailera helikoidala eta kuartelaren aurreko zubi altxagarriaren bermeak). Lubanarroaren gainean oste karlistek 1838an eraikitako egitura kurbatua, goiko plataformara igotzeko eskailerak eta, eskuinaldean, Erdi Aroko dorre nagusiaren aztarnak eta beste defentsa egitura batzuk ikus daitezke.

zuten gaztelu zaharra edo Erdi Aroko dorrea, goiko aldean gutxi gorabehera 500 m² hartuko zituen plataforma handi bat sortzeko xedearekin. Gainazalean horma egitura batzuk hautematen badira ere, itxura guztien arabera gune horretan horizontaltasuna gailentzen zaio bertikaltasunari, ezkutukoa agerikoari, artillerian oinarritutako gerra modernorako prestatu baitzuten.

Behealdean defentsa barruti handi baten eraikuntza

Beste egitura batzuen artean, bertan antolatu zuten soldadu osteak hartzeko kuartel bat, 2021. urteko ekinaldian dokumentatua.

Mendebaldeko lubanarroa sarbide bihurtzeko obra

1835eko gotorlekuan eraikitako lubanarroa behar militar berrietara moldatu zuten. Hala bada, aipatutako kuartelak amortizatu zuen hegoaldean, eta guztiz eraldatu zuten mendebaldean, ibiltzeko moduko bide bihurtzeko. Izan ere, lotu egin zuten muinoaren iparraldeko mazelan gora egiten zuen orga bidea lubanarroarekin, eta lubanarroa, bere aldetik, gotorlekuarekin. Lubanarroaren eginkizun berri horrek, gainera, hainbat defentsa eraikitzea ekarri zuen alboetatik defendatu ahal izateko:

– Hasteko, barruko lubanarro edo «lubanarrotxo» bat induskatu zuten lubanarro nagusiaren iparraldeko sarreran, eta beraz, lubanarro bikoitz bat antolatu zuten. Lekukotasun batzuek, hala nola horma zuloek eta euskarriek, zurezko zubi bat izan zela iradokitzen dute; zubi hori seguruenik egitura finko batez eta beste egitura mugikor batez osatuta egongo zen.

dades ejecutada fue la destrucción del viejo castillo o torre medieval, con el objetivo de crear una gran plataforma superior, de aproximadamente 500 m². A pesar de que se reconocen algunas estructuras de fábrica en superficie, todo apunta a que se trató de un espacio donde predomina la horizontalidad sobre la verticalidad, lo oculto sobre lo expuesto, preparada para la guerra moderna basada en la artillería.

La construcción, a nivel inferior, de un gran recinto defensivo

Donde situar, entre otras estructuras, un cuartel para acantonamiento de las tropas que fue documentado en la campaña del año 2021.

La conversión del foso occidental en camino de acceso

El foso construido en la fortaleza de 1835 será readecuado a las nuevas necesidades militares. Así, mientras que al sur fue amortizado por el citado cuartel, al oeste sufrió una profunda reforma destinada a hacerlo transitable. En realidad, lo que se hizo fue comunicar el camino para carros que ascendía por la ladera norte del cerro con el foso y este, a su vez, con la fortaleza. Esta nueva función del foso exigió, además, varias defensas que permitieran su flanqueo:

– La primera de ellas consistió en la apertura de un foso interior o «refosete» a la entrada del foso principal por el norte, estableciendo una combinación de doble foso. Diversos testimonios, como mechinales y apoyos de fábrica, permiten suponer la presencia de un puente de madera, compuesto previsiblemente por una estructura fija y otra móvil.

– Barrualdeko lubanarro hori igaro ondoen, arrokan zizelkatutako eta propio eraikitako hogeiren bat eskailera mailak gainditzen zuten lubanarroak alde horretan zuen aldapa, eta eskailera mailen amaieran zaintza lanak egiteko parapetoa altxatu zuten. Golara irekitako defentsa zen, aurrealdean harrizko horma batez horniturik, non ate txiki bat zegoen eta, alde bietan, fusilez tiro egiteko bina gezileiho. Malkarrean eta kontramalkarrean irekitako bina horma zulok (soilik kontramalkarrekoak kontserbatzen dira) estalki bati eusteko zurezko bi habe etzan hartzen zituzten.
– Aurrealdeko defentsa horrez gain, bazen defendatzeko beste egitura garai bat. Goiko plataformaren ipar-mendebaldeko izkinan errebelin baten modura antolatutako baluarte aurreratu batez ari gara. Zalantzarik gabe, defentsa egitura nagusia da, aukera ematen zuen fusilez su egiteko iparraldeko orga bidearen sarreraren luzeran eta lubanarroko bidearen luzeran. Garaiko tratatu militarretan jasotako alboetako defentsa sistema eraginkorra zen, eta oro har *alboetako bateria* deritzo.
– Azkenik, lubanarroa gotorlekuarekin lotu ahal izateko, haren trazadura osoa birmoldatu zuten hegoaldeko muturrean. Erregistro arkeologikoan modu diakronikoan burututako hainbat jarduera identifikatu dira, eta horien artean nabarmentzekoa da eskailera helikoidal baten eraikuntza, lubanarroa malkarraren goiko bermarekin –eta horrek, aldi berean, eskailera txiki batekin eta goiko plataformako atearekin– lotzen zuena, baita kuartelera sartzeko atetzarrarekin ere. Handik gutxira sarrera hori gotortu egin zuten lubanarroa handituz eta zubi altxagarri bat eraikiz. Zubi altxagarri horretatik egitura eusleak kontserbatzen dira malkarrean eta kontramalkarrean.

1838ko gotorleku karlista

1838ko otsailean, Espartero jeneralak atera egin zuen garnizioa Balmasedatik ondoko Villanueva de Mena herrian instalatzeko, baina aztarnategiko hainbat puntutan ikus daitekeenez, gaztelua suntsitzeko agindua eman zuen lehenik. Gaztelua zartarazi eta Balmaseda utzi ondoren, oste karlistak sartu ziren hirian, eta gotorlekua berreraikitzen hasi ziren. Oro har, desegin egin zituzten lehentasunezkotzat ez zituzten egiturak (kuartela eta lubanarroa), eta suntsitutako egitura horietatik etorritako harriak berrerabili zituzten gazteluko defentsa nagusiak konpontzeko, hala nola goiko plataforma. Zehazki, kubo kurbatu berri batez berreraiki zuten hego-mendebaldeko eskantzua, eta kubo horretan ireki zuten goiko esparrura iristeko eskailera zaharrarekin lotzeko atea.

Gotorlekuaren suntsipena eta behin betiko abandonua

1839ko ekainaren 15ean irten zen oste karlista Balmasedatik, eta berriz ere suntsitu zuten gaztelua, gaur egun ikusten den bezala utzi arte. Gazteluko muinoan gertatutako azken gerra ekintza izan zen, handik gutxira (abuztuaren 31n) Lehen Karlistaldiari eta, ondorioz, gazteluaren okupazioari ere amaiera emango zion «Bergarako Hitzarmena» sinatu baitzuten.

– Tras franquear este foso interior, una veintena de peldaños tallados en la roca y construidos en fábrica salvaban la pronunciada pendiente de la cava en esta zona, al final de los cuales se levantaba un parapeto de guardia. Se trataba de una defensa abierta a la gola, provista de un muro frontal de piedra en el que se abría una pequeña puerta y, a ambos lados, dos aspilleras para fusilería. Dos parejas de mechinales abiertos en la escarpa y contraescarpa (de los que solo se conservan estos últimos) alojaban sendos durmientes de madera para apoyo de una cubierta.
– Además de esta defensa frontal existía otra estructura de flanqueo en alto. Nos referimos a un baluarte avanzado, a modo de revellín, situado en la esquina noroeste de la plataforma superior. Se trata, sin duda, de la principal estructura de defensa, proporcionando fuego de fusilería en sentido longitudinal a la entrada del camino carretil del norte y al largo callejón del foso. Un sistema eficaz de flanqueo que aparece recogido en los tratados militares de la época y al que se denomina genéricamente batería flanqueante.
– Por último, para poder comunicar el foso con la fortaleza, se procedió a remodelar todo su trazado en el extremo meridional. El registro arqueológico ha reconocido varias actividades ejecutadas de manera diacrónica, entre las que destaca la construcción de una escalera helicoidal que conectaba el foso con la berma superior de la escarpa –y esta, a su vez, con una pequeña escalera y puerta situada en la plataforma superior–, así como con el portón de entrada al cuartel. Poco después, esta entrada fue fortificada con la ampliación del foso y la construcción de un puente levadizo, del que se conservan las estructuras de apoyo en la escarpa y contraescarpa.

La fortificación carlista de 1838

En febrero de 1838, el general Espartero retiró la guarnición de Balmaseda para instalarse en la cercana población de Villanueva de Mena, no sin antes ordenar la destrucción del castillo, como se puede observar en varios puntos del yacimiento. La voladura del castillo y el abandono de Balmaseda provocó la posterior entrada de las tropas carlistas, que procedieron a reconstruir la fortaleza. En general, los trabajos se centraron en el desmantelamiento de estructuras consideradas no prioritarias (el cuartel y el foso) y en la reutilización de su piedra para reparar las principales defensas del castillo, como la plataforma superior. En concreto, su esquinal suroeste fue reconstruido con un nuevo cubo curvo, donde se situó una puerta que comunicaba con la antigua escalera de acceso al recinto superior.

La destrucción y abandono definitivo de la fortificación

El 15 de junio de 1839 el ejército carlista se retiró de Balmaseda, destruyendo nuevamente el castillo, como se observa en la actualidad. Fue la última acción bélica en el Cerro del castillo, ya que poco después (el 31 de agosto) se firmaba el «Convenio de Vergara» que suponía el fin de la Primera Guerra Carlista y, con ella, de la ocupación en el castillo.

J.L. Solaun; V. Martínez; Á. Martínez

B.1.1.2. **Kristo kalea, 4**

Zuzendaritza: José Ángel Fernández Carvajal
Finantzazioa: Partikularra

Archaeological assessment prompted by the construction of a dwelling on a plot located at number 4 Cristo Street, in Balmaseda. The intervention enabled the documentation of a very interesting occupational sequence dating back to the pre-foundational period, when the space was a production site (the precise nature of which has yet to be characterised) very similar to those documented in other plots on the oppose bank of the River Cadagua.

Balmasedako Kristo kaleko 4. zenbakiko orubean etxebizitza baten eraikuntzaren harira egindako balorazio arkeologikoa. Oso okupazio sekuentzia interesgarria dokumentatzeko aukera eman duen zundaketa handi bat egin dugu, sekuentzia hori Erdi Arora arte iristen da, eta orduan batez ere ekoizpen erabilera izango zuen alde horrek (oraindik ezaugarritzeko dago), antz handia izango zuen Cadagua ibaiaren beste aldeko hainbat orubetan dokumentatutakoarekin.

Balmasedako Hirigune Historikoaren hego-mendebaldean dago aztertutako eremua, Cadagua ibaiaren eskuinaldean, Zubi Zaharraren ondoan. Gure esku hartzearen hasieran eraitsitako oinplano angeluzuzeneko higiezinak hartzen zuen lursaila, hegoaldean izen bereko kalea du muga, mendebaldean 6. zenbakiko orubea, eta ekialdean 2. zenbakiko orubetik bereizten duen pasabide estu bat. Eraikinaren gibelaldean, iparraldean, ibairaino iristen den lorategi handi bat dago.

Aztergai dugun orubea Balmasedako Hirigune Historikoko Eremu Arkeologikoaren barruan ez dagoen arren, eta Balizko Arkeologia Gune gisa kalifikatuta ez badago ere, BFAren Kultura Ondarearen Zerbitzuak gomendatu zuen azterketa arkeologiko bat egitea, aurreko okupazio faseekin lotutako aztarnak, elementuak edo egiturak aurkitzeko eta eraikinaren eta, oro har, eremuaren diakronia historikoa hobeto ulertzen laguntzeko.

Ingurune horretan lehendik ez da esku hartze arkeologikorik egin, eta beraz, bildutako datuak erreferentzia izango dira etorkizuneko obretan jardun beharreko moduari begira. Gainera, ibai ondoko zerrendan, jatorria antzinako faseetan izan zezakeen lur zatikatze bat kontserbatzen zela zirudien.

Erdi Aroko hiribilduko harresiz kanpoko lehenengo errebala izango zen Kristo, hiribildura ondoko Zubi Zaharraren bidez iristeko bide bakarraren ondoan egongo zen. Eta Erdi Aroaz geroztik badugu kalearen tarte horretan zeuden etxebizitzen okupazioari buruzko dokumentazio historikoa.

Balmasedako beste errebal batzuetan orain arte egindako ikerlanen arabera, kale horiei nagusiki ekoizpen erabilera eman zietela dokumentatu da. Izan ere, horietan artisautza/industria jarduerak garatu zirelako ebidentziak dauzkagu. Nabarmentzekoa da Las Teneríasko kasua, larruak ontzera emandako auzo oso bat. Era berean, Cadagua ibaiaren bestaldean, ugari dira oraindik zehazteko dagoen burdinaren lanketa motaren batekin lotutako elementuak, eta segur aski ibaiaren alde honetan ere halakoak izango ziren.

Bortedoko jaun Lope Sánchez de Menak 1199an fundatu zuen Balmasedako Hiria lehendik populatuta zegoen tokian, Kubo kaleko orubean (Kristo kaleko 4.

B.1.1.2. **Cristo, 4**

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal
Financiación: Particular

Valoración arqueológica con motivo de la construcción de una vivienda en el solar que ocupa el nº 4 de la c/ Cristo de Balmaseda. Se ha realizado un sondeo de grandes dimensiones que ha permitido documentar una secuencia de ocupación muy interesante que se remontaría hasta época medieval, momento en el que el espacio tendría un uso eminentemente productivo pendiente de caracterizar, con grandes similitudes a lo documentado en diversos solares de la orilla opuesta del Cadagua.

El espacio intervenido se localiza al SW del Casco Histórico de Balmaseda, en la orilla derecha del Cadagua y junto al Puente Viejo. La parcela quedaba ocupada por un inmueble de planta rectangular derribado al inicio de la actuación que limita a mediodía con la calle homónima, a occidente con el nº 6 y al este con un estrecho paso que lo separa del nº 2. La parte zaguera del edificio, al norte, desemboca en un amplio jardín que se extiende hasta el río.

Pese a tratarse de un solar no enmarcado dentro de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Balmaseda, ni estar calificado como Zona de Presunción Arqueológica, la realización del estudio arqueológico venía motivada por recomendación del Servicio de Patrimonio Cultural de la DFB-BFA para favorecer la localización de indicios, elementos o estructuras relacionadas con anteriores fases de ocupación que ayudasen a comprender mejor la diacronía histórica del edificio y de la zona en general. En este sentido, varios aspectos justificaban la necesidad de la actuación:

Se trataba de un entorno para el que no se cuenta con intervenciones arqueológicas previas, por lo que los datos recabados supondrían un referente de cara a la manera de actuar en futuras obras. Además, la franja junto al río parecía conservar una lotificación que podría tener origen en fases antiguas.

El Cristo comprendería el primer arrabal extramuros de la villa medieval, estando ubicado junto a la única vía o camino de acceso a través del cercano Puente Viejo y para el que contamos con documentación histórica respecto a la ocupación de las viviendas situadas en este tramo de la calle desde la Edad Media.

Las investigaciones desarrolladas hasta la fecha en otros arrabales de Balmaseda han favorecido la documentación de un eminente uso como espacios productivos. Así, tenemos evidencias de estar destinados a la implementación de actividades de índole artesanal/industrial. Cabe destacar el caso de Tenerías, todo un barrio destinado al curtido de pieles. Igualmente, la orilla opuesta del Cadagua acumula multitud de elementos vinculados al desarrollo algún tipo de actividad ferrona por determinar que probablemente se repitiese en este lado del río.

La fundación de la Villa de Balmaseda en 1199 por D. Lope Sánchez de Mena, señor de Bortedo, se reali-

zenbakikoaren parean) hiria fundatu aurreko kronologiako materialak biltzen dituen ekoizpen fase baten detekzioak agerian uzten duen bezala. Sarrerako zubi ondoan ekoizpen eremu hori hauteman ondoren, oso litekeena zen ibaiaren alde honetan ere antzeko elementuak detektatzea.

Pisoraca-Flaviobriga galtzadari begira eta Erdi Aroan meseta eta Kantauriko portuak lotzeko erabilitako bideari begira proposatzen den bidean egongo zen auzo hau. Aipatutako galtzada eta bidea Cadagua ibaiaren eskuinaldetik abiatzen ziren, eta Zubi Zaharrean barrena zeharkatzen zuten ibaia.

Azkenik, Balmasedako auzo juduarekin, Bizkaiko bakarrarekin, lotzen da San Lorenzo auzoa, Zubi Zaharraren bestaldean. Halere, juduen auzo hori Las Tenerías eta San Lorenzo auzoen artean egon daiteke, aztergai dugun eremua erdibidean utzirik.

Esku hartze arkeologikoa

Esku hartze honetan 52 m^2-ko (11,5 x 4,5 m) zundaketa angeluzuzen bat induskatu dugu, eraitsitako higiezinaren azalera erabilgarriaren erdia baino gehiago hartuta. Balorazio lan horri esker, 5 okupazio fase dokumentatu ahal izan ditugu ongi asko definitzen diren eta elkarrengandik urrutira dauden bi garaitan banatuta, hiriaren fundazio garairaino iristen diren aztarnekin.

1.-2. faseak. Espazioaren lehen erabilera (Erdi Aroa. Fundazio aurreko garaia)

Zundaketaren erdialdeko zerrenda osoan zabaltzen den erabilerako gainazal batek ezaugarritzen du espazio honetako aurreneko erabilera unea. Gainazal hori (zepazko zorua) jarduera metalurgiko batetik etorritako hondakinez eratuta dago, eta gainean paldo zuloak, hesola zuloak eta edukiera askotako kubetak identifikatzen dira. Ildo horretan, estratigrafikoki bi fase desberdini erantzuten dieten arren –zoladura beste egiturek ebakita dago–, bi fase horiek kronologikoki eta funtzionalki ezin zehaztu dezakegun jarduera baten eta beraren inplementazioaren parte direla uste dugu guk.

Zepez eratutako maila horren gainean guztira ongi definitutako 5 paldo, zalantza gehiago planteatzen dituzten beste bi paldo eta hesola bat instalatu zituzten a priori modu nahasi samarrean. Horien ondoan edukiera desberdineko hiru kubeta ditugu, oinplanoan zirkularrak/ia zirkularrak, eta azken ebaki batek agerian uzten du espazio honen erabilera bizia, baina, aldi berean, espazioaren artikulazio estratigrafikoari buruzko galderak planteatzen ditu. Ebakiak ondoz ondoko egitura negatiboak biltzen du, eta horietako batzuek suaren arrastoak dituzte; betegarriak sakoneko azterketa baten zain daude aipatutako egituren eraketaren eta erabilera posiblearen sekuentzia ezarri ahal izateko.

Paldo, hesola eta kubeta horiek neurri desberdinean eragiten diote zoruari; batzuk zepazko zoruaren goiko mailetan egokitzen dira, beste batzuek lurrean eta haren prestaketa oinarrian eragiten dute, eta beste batzuk oinarriko lur hareatsuraino iristen dira eta/edo bertan eragiten dute.

Erregistro mota horrek galdera batzuk planteatzen baditu ere, guk uste dugu espazio honek nagusiki oraindik ezaugarritzeko dagoen ekoizpen erabilera izan zuezaría sobre un núcleo ya habitado como atestigua la detección de una fase productiva con materiales de indudable cronología previa a la fundación de la villa en el solar situado en la Calle Cubo (frente a c/ Cristo, nº 4). La detección de este espacio productivo junto al puente de acceso, hacía probable la detección de elementos similares esta margen.

Este barrio quedaría en el trayecto que se ha venido proponiendo para la calzada Pisoraca-Flaviobriga y la vía usada en época medieval para conectar la meseta y los puertos cantábricos que partirían de la margen derecha del Cadagua, cruzando el río a la altura del Puente Viejo.

Por último, tradicionalmente se identifica el barrio de San Lorenzo, al otro lado del Puente Viejo, como la aljama o la judería de Balmaseda, única en Bizkaia. Sin embargo, la presencia de esta comunidad podría localizarse entre los barrios de Las Tenerías y San Lorenzo, dejando a medio camino la zona objeto de estudio.

La intervención arqueológica

La actuación ha consistido en la excavación de un sondeo rectangular de 52 m^2 (11,5 x 4,5 m), abarcando la más de la mitad de la superficie útil del inmueble derribado. Esta valoración ha posibilitado la documentación de hasta 5 fases de ocupación enmarcadas en dos épocas bien definidas y distantes entre sí, con evidencias que se remontarían a la fundación de la villa.

Fases 1-2. Primer uso del espacio (Edad Media. Época prefundacional)

El primer momento de uso del espacio queda caracterizado por la presencia de una superficie de uso generada a base de deshechos de una actividad metalúrgica (suelo de escoria) que se extiende por toda la franja central del sondeo y sobre la que se generalizan toda una serie de agujeros de poste, estaca y cubetas de capacidades variadas. En este sentido, aunque estratigráficamente responden a dos fases distintas –el pavimento se encuentra cortado por el resto de estructuras–, entendemos que ambas fases formarían parte de la implementación de una misma actividad que no podemos precisar cronológica ni funcionalmente.

Este nivel de escorias serviría de paso para la instalación de un total de 5 postes bien definidos, otros dos que generan mayores dudas y una estaca, sin disposición a priori, ordenada. Junto a ellos, contamos con tres cubetas de diferente capacidad con formas en planta circulares/subcirculares y un último corte da muestras del intenso uso del espacio a la vez que genera interrogantes sobre la articulación estratigráfica del mismo. Se trata de un corte que engloba sucesivas estructuras negativas, algunas de las cuales presentan ligeros restos de rubefacción, con rellenos pendientes de un análisis en profundidad que permitan establecer la secuencia de su formación y posible uso.

Todos estos postes, estacas y cubetas afectan en diferente grado al terreno ya que encontramos algunos únicamente realizados sobre las cotas superiores del suelo de escoria, otros que inciden sobre el suelo y su base de preparación y otros que alcanzan y/o actúan exclusivamente sobre el terreno base arenoso.

Pese a los interrogantes que genera este tipo de registro, entendemos el espacio tendría un uso eminente-



Zundaketaren erdialdeko zerrendaren ikuspegia, jada induskatutako egitura negatibo batzuekin.

Vista de la franja central del sondeo con parte de las estructuras negativas ya excavadas.

la, segur aski jarduera metalurgiko motaren baten inplementazioarekin lotuta edo, gutxienez, mearen eraldaketarekin. Erregistro mota horrek antz handia du Cadagua ibaiaren beste aldeko hainbat orubetan dokumentatutakoekin (esate baterako, Kubo kaleko epaitegi eta espetxe zaharraren orubeetan, Kristo kaleko 4. zenbakiko orubearen parean).

Hala eta guztiz ere, erregistroaren ezaugarriek berek garai hartan bideratuko zen jarduera motari buruzko erantzun baino galdera gehiago planteatzen dituzte. Lan metalurgiko baten berezko hondakinen etengabeko presentziak lan egiteko ildo bat eskaintzen digu, baina, egia esan, oraingoz ez dugu erantzunik egitura negatibo horiek guztiek izango zuten funtzionaltasunari dagokionez.

3. fasea. Espazioa erabiltzeari uztea (Erdi Aro Betea)

Lehendik zeuden egituren amortizazioak/abandonuak definitzen du dokumentatutako hirugarren fasea. Betegarrien homogeneotasunak, bai osagaien ezaugarriei bai biltzen dituzten materialei dagokienez, une jakin batean burura eramandako ekintza orokortu baten aurrean gaudela iradokitzen digu.

Ia amortizazio guztiek dituzte ezaugarri osagai hareatsuzko betegarriak, trinkotasun maila apalarekin eta tonalitate ilunekin (gehien-gehienak beltzaxkak). Horietan ohikoak dira kolore horixkako buztin oso plastikoko xaflak, hareharrizko harlangaitzak, eraikuntzarako material hondakin puskatuak (teila) eta zepa hondakin asko (askotariko tipologiekin, horien artean burdinazko zepak nagusi, baina baita isuri zepen zatiak, zati beiraztatuak eta labeko pareten ustezko hondakinak ere) eta ikatzak tamaina handieneko ebakietan.

Zepazko zoruaren edo oinarriko lurzoruaren gainean egokitutako depositu batzuk dira abandonu fase honi dagozkion azken ebidentziak. Depositu horiek induskatu eta bete zezaketen ebakirik ez dagoela ikusirik, guk uste dugu lurzoruko irregulartasunak berdintzeko mailak direla.

Material arkeologiko higigarria zeukaten betegarrietan ehuneko handi bat hartzen zuten Erdi Aro Beteko produkzio estaldurarik gabeak eta jarraian hizpide izango ditugun zati beiratu batzuek. Horien artean azpimarratzekoa da 110/111 UEko kubeta, materialen % 57 es-

mente productivo pendiente de caracterizar, probablemente vinculado a la implementación de algún tipo de actividad metalúrgica o, al menos, relacionada con la transformación del mineral. Se trata de un tipo registro con grandes similitudes a lo documentado en diversos solares de la orilla opuesta del Cadagua (por ejemplo, en los solares del antiguo juzgado y cárcel de la c/ Cubo enfrentados a c/ Cristo nº 4).

Sin embargo, las propias características del registro nos generan más interrogantes que certezas al respecto sobre el tipo de actividad que se llevaría a cabo. La constante presencia de desechos propios de una labor de índole metalúrgico nos dan una línea sobre la que trabajar, si bien es cierto que por el momento no tenemos respuestas a la funcionalidad que tendrían toda esa serie de estructuras negativas.


Fase 3. Abandono del uso del espacio (Época plenomedival)

La tercera fase documentada queda definida por la amortización/abandono de las estructuras previas. La homogeneidad de los rellenos tanto en cuanto a sus características compositivas como los materiales que contienen nos dan una idea de estar ante una acción generalizada en un momento concreto.

La práctica totalidad de las amortizaciones se caracterizan por presentar rellenos de composición arenosa, baja compactación y tonalidades oscuras (negruzcas en la mayoría de los casos), en los que es habitual la presencia de planchones de arcilla amarillenta muy plástica, mampuestos de arenisca, restos de material constructivo fragmentado (teja) y abundantes restos de escoria (con tipologías diversas entre las que destacaría las escorias de hierro, pero con presencia igualmente de fragmentos escoria fluidal, fragmentos vitrificados e, incluso, posibles restos de paredes de horno) y carbones en los cortes de mayores dimensiones.

Las últimas evidencias excavadas correspondientes a esta fase de abandono sería una serie de depósitos apoyados sobre el suelo de escoria o el terreno base que ante la inexistencia de cortes a los que rellenaran se han interpretado como niveles de colmatación de irregularidades del terreno.

Los rellenos que contenían material arqueológico mueble destacan por presentar un alto porcentaje de producciones sin revestir de cronología plenomedieval, junto a varios fragmentos vidriados que comentaremos



Islamiar pitxer txikia.

Jarrita islámica.

kaini dituena, 112 aleri dagozkien 144 zatirekin, zeramikazkoak eta hezurrezkoak, baita kareharrian landutako operkulu bat, iltze bat, metalezko xafla bi eta zazpi zepa ere.

Zeramikazko materialari dagokionez, J.L. Solaunen VI. Multzoaren baitan sailkatutako etxeko ontzien bilduma homogeneo baten aurrean gaude, izan ere, 1-VI motako pegar batzuek (ertz jarraituarekin eta ezpain triangeluarrarekin) eta 2-VI motako ortzak, IX. mendetik XI. mendera arteko arku kronologikoa eskaintzen digute. Bestalde, bertan berreskuratu ditugu segur aski islamiar produkzioei dagozkien zati batzuk.

Hasteko, ertza kanpoko aldera irtena duen eta ezpaina biribildua duen eltze bat; lehen aipatutako egilearen araberako zeramika multzoetan antzekorik bereizi ez dugunez, guk uste dugu islamiar produkzio baten emaitza izan daitekeela, baina etorkizuneko azterlanek berretsi beharko dute hipotesi hori. Era berean, ore marroi argiz egindako zati bat berreskuratu dugu, kanpoaldetik berdez beiratua, estaldura apalarekin, ildaska sortez dekoratua, ildaskatik ildaskara tarte txikia utziz. Segur aski beste unitate batzuetan azalduko dira ontzi horri dagozkion beste zati batzuk.

Eta azkenik, nabarmentzekoa da islamiar pitxer txiki bat. Hondo laua du, karena oso apala, giderraren abiapuntua eta ertz jarraitua ezpain alakatuarekin. Ore arrosakara batez egina da, egosketak tonalitate zurixka eman zion piezaren gainazalari, eta horri esker dekoratu ahal izan zen burdin oxidoz. Elkarren paraleloan egokitutako hainbat ilarek osatzen dute dekorazioa, ilara horietako batzuk elkarren artean gurutzatzen direlarik sare antzeko bat itxuratzeko. Pieza horien antzekoak aurkitu dira, esate baterako, Castelló, Faro eta Kordobako islamiar okupazioetan.

4. fasea. Kristo kaleko 4. zenbakiko beheko solairuaren jatorrizko erabilera (1885-XX. mendea)

Denbora jauzi handi bat dakar espazioaren laugarren erabilera faseak, aro garaikide betera baikaramatza. Zehazki, higiezineko beheko solairuko jatorrizko erabileraz ari gara, eta katastroaren datuen arabera, 1885ean eraiki zuten higiezin hori.

2. zenbakiko auzotar batek emandako informazioei esker, badakigu eraikineko beheko solairuan jatorrian altzariak egiteko tailer bat egon zela; tailer horrekin lotzen

a continuación. Entre ellos destaca la amortización de la cubeta ue 110/111 que ha proporcionado el 57% del material, con 144 fragmentos que pertenecen a 112 individuos, tanto cerámica, como fauna, así como 1 opérculo en caliza, 1 clavo, 2 láminas metálicas y 7 escorias.

En lo que se refiere al material cerámico, nos encontramos ante un conjunto homogéneo de recipientes domésticos clasificados dentro del Grupo VI de J.L. Solaun, donde ha sido posible identificar varios cántaros de borde continuo y labio triangular tipo 1-VI y una orza 2-VI, que nos proporcionan una horquilla cronológica del siglo IX al XI. Además, se han recuperado aquí varios fragmentos posiblemente pertenecientes a producciones islámicas.

En primer lugar, una olla de borde exvasado y labio redondeado para la que no se ha reconocido paralelo en los grupos cerámicos del autor antes mencionado, por lo que barajamos la posibilidad de que pertenezca a una producción islámica, aunque es una hipótesis pendiente de confirmación en futuros estudios. Igualmente, se ha recuperado un fragmento de pasta marrón claro con vidriado en verde por el exterior, poco cubriente, decorada con conjuntos de estrías ligeramente separados uno de otro, del que posiblemente otros fragmentos se hayan localizado en otras unidades.

Por último, destaca una jarrita islámica. De fondo plano, con carena muy baja, arranque de asa y borde continuo de labio biselado, está realizada con una pasta rosácea que presenta una cocción que ha proporcionado una tonalidad blanquecina a la superficie de la pieza, lo que ha permitido la decoración en óxido de hierro. Esta decoración está compuesta por varias líneas paralelas entre sí, algunas de las cuales se entrecruzan formando una retícula. Paralelos de esta forma se han encontrado por ejemplo en las ocupaciones islámicas de Castellón, Faro o Córdoba.

Fase 4. Uso original del bajo de c/ Cristo nº 4 (1885-siglo XX)

La cuarta fase de uso del espacio supone un salto temporal considerable, ya que nos sitúa en plena época contemporánea. En concreto, atiende al uso original de la planta baja del inmueble que, según datos catastrales, se construiría en 1885.

Gracias a las informaciones facilitadas por una vecina del nº 2, el bajo del edificio albergaría en origen un taller de muebles al que se asocia una estructura a base de durmientes de madera para la que no tenemos

dira zurezko habe etzanez egindako egitura bat (ez gaude haren funtzionamenduari buruzko interpretazio argi bat egiteko moduan), higiezinaren iparraldeko fatxadaren zimendua eta aztertutako gunearen ekialdeko herenean hedatzen den zepazko zoru berri bat. Alfontso XII.aren agintaldiko bi txanponek berresten dute fase honetako kronologia. Aitzitik, ez dakigu zehazki noiz utzi zion tailer horrek lan egiteari.

5. fasea. Kristo kaleko 4. zenbakiko beheko solairuaren azken erabilera (gaur egun)

Higiezineko beheko solairuari eman zaion azken erabilera motozikleta tailerra izan da. Gure esku hartzeari heltzean mekanikoki altxatutako zementuzko azken zoladurak eta hura goratzeko eta prestatzeko geruzek definitzen dute fase hau.

una interpretación clara sobre su funcionamiento, además de la cimentación de la fachada norte del inmueble y un nuevo suelo de escoria de fundición que se extiende en el tercio oriental del área intervenida. La cronología de esta fase quedaría corroborada por sendas monedas pertenecientes al reinado de Alfonso XII. Por el contrario, desconocemos el momento exacto en el que cesaría dicha actividad.

Fase 5. Último uso del bajo de c/ Cristo nº 4 (actualidad)

El último uso que ha tenido la planta baja del inmueble es como taller de motocicletas. Está fase queda definida por el último pavimento de cemento y su nivel de recrecimiento/preparación retirados al comienzo de la intervención de manera mecánica.

J.A. Fernández, A. Ortega, L. Elorza, A. Valle, V. Martínez

B.2. **BARAKALDO**

B.2.1. **Bilboko Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearen eraikuntza. 1. fasea. C lotea**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Saitec S. A.

B.2.1. **Construcción de la Variante Sur Ferroviaria de Bilbao. Fase 1. Lote C**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Saitec S.A.

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Miaketa arkeologiko honi esker, baztertu egiten dugu aztertutako esparruan aztarnategi arkeologiko edo ondasun etnologiko gehiago egotea, eta baztertu egiten dugu proiektuak zuzeneko ondoriorik izatea Zubiletako Errota (17. BAG) balizko arkeologia gunean, Donejakue Bidean eta babes maila ertaineko kultura ondasunean eta Zubiletako Dorretxearen balizko arkeologia gunean (16. BAG). Hala eta guztiz ere, azken horri begira, saihesbidetik hurbil baitago, eragin bisuala eta akustikoaren balorazioa egitea proposatzen dugu neurri zuzentzaile gisa.

La prospección arqueológica ha permitido descartar la existencia de nuevos yacimientos arqueológicos o bienes etnológicos en el ámbito inspeccionado así como la afección directa del proyecto sobre la zona de presunción arqueológica Molino de Zubileta (ZPA nº 17), el Camino de Santiago y el bien cultural de protección media y zona de presunción arqueológica la Casa-torre de Zubileta (ZPA nº 16). Para este último, no obstante, y dada su proximidad al trazado, se ha propuesto como medida correctora la valoración de su afección visual y acústica.

M. Lerín Sanz; A. Ruiz de Marco

B.3. **BARRIKA**

B.3.1. **Aranbaltzako aire zabaleko aztarnategia**

X. indusketa kanpaina
Zuzendaritza: Joseba Rios-Garaizar
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.3.1. **Yacimiento paleolítico al aire libre de Aranbaltza**

X Campaña de excavación
Dirección: Joseba Rios-Garaizar
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

During the 10th season of research in the Aranbaltza open-air Palaeolithic site, attention focused on cleaning Aranbaltza III and preparing the excavation surface of US5, by mechanically removing the upper units.

Multzo arkeologikoko III. sektorea izan zen Aranbaltzako aztarnategian bideratutako hamargarren indusketa

La décima campaña de excavación en el yacimiento de Aranbaltza se centró en el sector III del complejo

kanpainaren erdigunea. Helburua zen baliabide mekanikoekin maila nahasiak eta US1 unitatea induskatzea 66 m²-ko azaleran eta 2014-15ean egindako zundaketaren eta 2016-17an induskatutako eremuaren inguruan. Modu horretan indusketa azalera handi bat prestatu nahi genuen US5 unitatea luze-zabalean induskatzen hasteko, eta aldi berean, 1960. urte amaieran agregakinen harrobia itxi zenetik inguru horretan metatutako sastrakak, isuriak eta zaborrak aterako ziren. Indusketa lanak Ondare Babesa SL enpresak eraman zituen burura Aranbaltzako indusketa proiektuaren zuzendaritzaren koordinaziopean.

Aranbaltza III aztarnategiko 1. eta 4. Guneen ekialdean zabor modernoekin (botilak, teilak, zepa beiratua) nahasitako sedimentuen metaketa garrantzitsu bat identifikatu genuen, 1-0,80 m bitarte lodi zen. Estratu horren azpian buztinezko eta harea buztintsuzko geruzak tartekatzen ziren, arkeologikoki antzuak, oso kolore markatuekin, laranjak eta beltzak; neodiapirismoak desitxuratuta daude geruza horiek, posizio inklinatuan, ia bertikalean, jatorrizko deposituarekiko. Sekuentzia hori 2016an 1. Gunea irekitzean induskatutakoaren berdin-berdina da. Sekuentzia horren azpian buztin plastikoen maila bat dokumentatu genuen (US4), eta puntu horretan eten egin zen baliabide mekanikoen bidezko indusketa.

Jarraian 6. Gunearen iparraldeko eta mendebaldeko gainazalean lan egin zen, 2014-2015ean egindako zundaketatik hurbil. Alde horretan ekialdeko sektoreari begira deskribatutakoaren antzeko estratigrafia dokumentatu dugu, nahasitako sedimentuzko geruza bat, metro bete lodi, sabaian laranja koloreko harea buztintsuarekin, azpian beltz koloreko harea buztintsuarekin eta harea beltzaren azpian, kolore gris-laranjako buztina, albotik gorantz egokitua. Depositu buztintsu horretan harrizko tresna bakar bat dokumentatu dugu, Flyscheko suharrian landutako karrakagailu bat. Depositu hau Aranbaltza I aztarnategiko B mailako deposituaren antzekoa da, eta hartan >50000 BP (Poz-82700) datazioa eskaini zuen ikatz zati handi bat erregistratu zen. Geruza buztintsu horren azpian, lodieraz aldakorra eta nahasi samarra, burdinazko zarakar bat dokumentatu genuen, Aranbaltza I aztarnategiko C mailan identifikatutakoaren berdina, eta haren azpian harea garbiko beste maila bat, harriaren lanketatik etorritako hondakin gutxi batzuk eta oso hedadura mugatutako lag-etan metatutako hareharrizko bloke txikiak biltzen zituena. Aranbaltza III aztarnategiko US1 unitatearekin bat dator unitate hau, eta segur aski Aranbaltza I aztarnategiko D mailaren garaikidea da. Aranbaltza IIIko US1 unitateak gutxi gorabehera 52.000 urteko antzinatasuna du (Rios-Garaizar et al., 2018). Buztinezko maila horrek 2016 eta 2017 bitartean induskatutako 1. Gunerantz egiten du ziri moduan, guztiz desagertzen den arte. Horrexegatik ez da puntu honetan dokumentatutako estratigrafian agertzen. Gure ustez, mendebaldetik ekialdera egiten duen indar gutxiko ubide bateko betegarria da maila hori, bertan hareak pausatu dira eta, tarteka, buztinezko geruza mehe batzuk, eta bazterretan giza egonlekuak garatu ziren, guztietan garrantzitsuenak, ia-ia jatorrizko posizioan baitaude, Aranbaltza Ieko D mailakoak. 6. Gunearen iparraldean eta mendebaldean bideratutako indusketa mekanikoa US1 unitatea induskatu ondoren eten zen, eta unitate horretatik Erdi Paleolitoko harrizko tresna sorta txiki bat berreskuratu genuen.

arqueológico. El objetivo era excavar con medios mecánicos los niveles revueltos y la US1 en una superficie de 66 m² en torno al sondeo realizado en 2014-15 y a la zona excavada en 2016-17. Con ello se buscaba preparar una superficie de excavación amplia en la que poder abordar la excavación de la US5 en extensión, al tiempo que se limpiaba la zona de maleza, vertidos y escombros acumulados desde el cierre de la cantera de áridos a finales de 1960. La excavación la realizó Ondare Babesa SL bajo la coordinación de la dirección del proyecto de excavación de Aranbaltza.

Al este de la Zonas 1 y 4 de Aranbaltza III se localizó una importante acumulación de sedimento revuelto con basura moderna (botellas, tejas, escoria vidriada) de 1-0,80 m de espesor. Bajo este estrato se observó una sucesión de capas de arcilla y arena arcillosa, arqueológicamente estériles, con coloraciones muy marcadas anaranjadas y negras que se encuentra deformada por neodiapirismo y en disposición inclinada, casi vertical, respecto a su posición de depósito original. Esta secuencia es idéntica a la excavada en 2016 al abrir la Zona 1. Bajo esta secuencia se documenta un nivel de arcillas plásticas (US4) en el que se ha detenido la excavación con medios mecánicos.

Posteriormente, se actuó en la superficie situada al norte y al oeste de la Zona 6, junto al sondeo de 2014-2015. En esta zona se ha documentado una estratigrafía semejante a la descrita para el sector este, con una capa de sedimento alterado de 1 m de espesor con arena arcillosa naranja a techo, arena arcillosa negra debajo y arcilla gris-anaranjada que aparece bajo la arena negra y lateralmente inyectada hacia arriba. En este depósito arcilloso se ha documentado un único resto lítico, una raedera en sílex del Flysch. Este depósito es semejante al del nivel B de Aranbaltza I, en el que se dató un gran fragmento de carbón en >50000 BP (Poz-82700). Bajo esta capa arcillosa, de espesor variable y bastante alterada, se documentó una costra ferruginosa idéntica a la del nivel C de Aranbaltza I, y bajo ella un nivel de arena limpia que contenía escasos restos de industria lítica y pequeños bloques de arenisca acumulados en lags de extensión muy limitada. Esta unidad se corresponde con la US1 de Aranabaltza III y es, probablemente, contemporánea del nivel D de Aranbaltza I. La US1 de Aranblatza III tiene unos 52.000 años de antigüedad (Rios-Garaizar et al., 2018). Este nivel arenoso se acuña hacia la Zona 1, excavada entre 2016 y 2017, hasta desaparecer por completo. Esto explicaría su ausencia en la estratigrafía documentada en este punto. Este nivel se interpreta como un relleno de canal fluvial de baja energía, que discurre en una dirección W-E, en el que se han depositado arenas y ocasionalmente pequeñas capas de arcilla y en cuyos márgenes se han producido asentamientos humanos, siendo los más importantes por su posición casi primaria los del nivel D de Aranbaltza I. La excavación mecánica en la superficie al norte y al oeste de la la Zona 6 se detuvo tras excavar la US1, de la que se ha recuperado un pequeño lote de industria lítica del Paleolítico Medio.

J. Rios Garaizar

B.3.2. **Zabaletxe, 22. area**

Zuzendaritza: Alvaro Arrizabalaga
Finantzazioa: Barrikako Udala; Edestiaurre Arkeologia Elkartea; GIZAPRE Ikerketa Taldea (UPV/EHU)

B.3.2. **Zabaletxe área 22**

Dirección: Alvaro Arrizabalaga
Financiación: Ayuntamiento de Barrika; Edestiaurre Arkeologia Elkartea; Grupo de Investigación GIZAPRE (UPV/EHU)

The Zabaletxe (Barrika) area has been explored by different teams since the 1960s. We dug a small four-metre-squared sondage in an area in which, at the beginning of the 1980s, a sanitation ditch revealed stone materials possibly dating from the Châtelperronian era (recovered by I. Líbano). We have identified four levels, the lowest of which most likely corresponds to this period.

Barrikan dago Zabaletxe aztarnategia, izen bereko baserri zaharraren ondoan. Azken hamarkadetan zehar hainbat esku hartze arkeologiko eraman dituzte burura inguru honetan, batez ere J. M. Barandiaranek, I. Libanok eta M. Agirrek. Sedimentu edo jalkinen ikuspegitik, inguruko depositu arkeologikoak desegindako duna eremu batean daudela dirudi, itsasertzeko aspaldiko zabaldi baten gainean egokituta. 80. hamarkadaren hasieran Iñaki Libanok harrizko materialak identifikatu zituen induskatzen hasi garen aldean, hondakin urak husteko zanga baten ertzen gainean, 22. area gisa izendatu zen tokian. Harrizko material haien artean, batzuek argi eta garbi gogorarazten zituzten Châtelperron kultura moldeko puntak. Behin gune horren eta aztarnategi honetan bertan lehendik induskatutako beste gune batzuen arteko lotura ezarri ondoren, Eusko Jaurlaritzak erabaki du sigla bat eta bera erabili behar dugula (ZB), indusketa egin den urtea barra etzan baten ondoren adierazita (kanpaina honetan aurkitutako materialak ZB/22 siglarekin adieraziko dira).

2022an Zabaletxeko 22. arean bideratutako kanpaina batez ere miaketa lanetan oinarritu da: helburua zen antzinako materialak berreskuratu ziren kanalizazioaren sektoretik hurbil 4 m^2-ko azalera bat aukeratzea, materialen presentzia egiaztatzeko, deposituaren inguruabarrak sakon aztertzeko, aztarnategiaren atariko balorazio kronologikoa eta tipologikoa ezartzeko eta aztarnategia etorkizunean luze-zabal induskatzeko aukera ebaluatzeko. Soilik bi astez induskatu badugu ere, oso positiboak izan dira emaitzak. Gainazaleko maila sakon samarra alde batera utzita, hautemandako beste hiru mailek itxura batean osorik kontserbatu dituzte estratigrafiak eta material arkeologikoak. IV. mailak, une honetan interesgarriena baita, harrizko hondakinen dentsitate handi samarra du, eta hondakin horien posizioa zorroztasun osoz aztertu dugu goiko mailetatik iragaziak ote diren, pendizaren ondorioz bertaraino lerratu diren ala gainazaleko behin-behineko jariatzeen emaitza ote diren jakiteko. Oraingoz bederen, harrizko materialen egokierak ez du horien mugimendu bertikalik edo horizontalik iradokitzen.

El yacimiento de Zabaletxe se sitúa en Barrika, junto al antiguo caserío del mismo nombre. A lo largo de las últimas décadas se han producido diferentes intervenciones arqueológicas en la zona, a cargo de J.M. Barandiarán, I. Libano y M. Aguirre fundamentalmente. Desde el punto de vista sedimentario, los depósitos arqueológicos de la zona parecen ubicarse en un campo de dunas desmantelado, dispuesto sobre una antigua superficie de rasa litoral. A principio de los 80, Iñaki Libano observó la presencia de materiales líticos en la zona en la que hemos iniciado la excavación, sobre los márgenes de una zanja para la evacuación de aguas residuales, que fue denominada como área 22. Entre aquellos materiales, algunos evocaban claramente a puntas de Châtelperron. Una vez establecido el vínculo entre esta zona y otras anteriormente excavadas en el mismo yacimiento, el Gobierno Vasco ha convenido que empleemos la misma sigla (ZB), acompañada del año de excavación, tras una contrabarra (los materiales de esta campaña serán siglados como ZB/22).

La campaña 2022 en el área 22 de Zabaletxe ha tenido un carácter prospectivo: se trataba de seleccionar una superficie de 4 m2 cercana al sector de la canalización en el que se recuperaron los antiguos materiales. Los objetivos eran los de comprobar la presencia de materiales, observar detenidamente las circunstancias de su depósito, establecer una primera valoración crono-tipológica del yacimiento y evaluar la posibilidad de una futura excavación en extensión del yacimiento. A pesar de que prácticamente solo hemos excavado durante dos semanas, los resultados han sido muy positivos. Con excepción de un profundo horizonte superficial, los otros tres niveles detectados parecen tener integridad estratigráfica y materiales arqueológicos. El nivel IV, en estos momentos el más interesante, tiene una densidad apreciable de restos líticos, cuya posición ha sido observada en detalle, en busca de indicios de percolación desde niveles superiores o de desplazamiento atendiendo a la pendiente o eventuales escorrentías superficiales. Hasta el momento, la disposición de los materiales líticos no indica movimientos verticales o en superficie de los mismos.



Châtelperron moldeko punta osoa, 2022ko ekinaldian berreskuratua.

Punta de Châtelperron completa obtenida en la campaña 2022.

Bildumaren (harrizko 250en bat hondakin) atariko azterketa nahiko ongi egokitzen zaio auzoko Kurtziako suharria lantzeko tailerraren funtzionaltasunari: ugari dira azala kentzetik, produktuak egokitzeko lanetatik eta hautsitako euskarrietatik etorritako hondakinak, eta urri dira nukleoak, euskarri osoak eta ukituak. Azkenik, testuinguru horretan bertan, Châtelperron moldeko punta oso bat eta segur aski beste punta hautsi bat berreskuratu ditugu, ukitutako beste objektu batzuez gain (zulakaitzaren bat eta elementu bizkardunen bat)

El análisis preliminar de la colección (unos 250 restos líticos) encaja bastante bien con una funcionalidad de taller, relacionada con el vecino sílex de Kurtzia: muchos restos de decorticado, productos de acondicionamiento y soportes fracturados, frente a la escasez de núcleos, soportes enteros y retocados. Finalmente, una punta de Châtelperron completa y probablemente, otra fragmentaria, se han recuperado en este mismo contexto, además de otros objetos retocados (algún buril, y algún elemento de dorso).

A. Arrizabalaga, E. Domínguez-Ballesteros, I. Líbano, A. de Lombera

B.3.3. **Baso mozketa Barrika Baso aldean**

Zuzendaritza: Virginia Fernández Carranza
Finantzazioa: Explotaciones forestales La Bella, S.L.

B.3.3. **Tala forestal en la zona de Barrika Baso**

Dirección: Virginia Fernández Carranza
Financiación: Explotaciones forestales La Bella, S.L.

In this brief paper, we describe the archaeological monitoring process carried out to confirm the absence of archaeological remains in an area affected by tree felling in Barrika Baso, Barrika. The process was carried out upon request from the forestry company, with the conclusion drawn being the total absence of archaeological remains in the layers of soil affected by the felling.

2021. urtean, eukalipto sail bat mozterakoan Barrikako 3 hektarea inguruko alde batean (Barrika Baso), eta eremu hori Uribe Kosta-Butroeko Kautelazko Babes Eremu gisa kalifikatuta dagoenez (AF31-2021), Explotaciones forestales La Bella SL enpresak, baso mozketa egin beharreko eremuaren gaineko inplikazio horien jakitun, bere kabuz erabaki zuen moztu beharreko eremuaren gaineko jarraipen arkeologiko bat kontratatzea, elementu arkeologikoak izanez gero inolako kalterik jasan ez zezaten.

Barrikako Udalak eskatutako baimen guztiak lortzeak luze samar jo duenez, epe luzea igaro da jarraipen arkeologikoa egiteko baimena eskatu zenetik lan horiek egin diren arte. Azkenik, 2022ko abuztu eta urri artean eraman zen burura jarraipen arkeologikoa.

Basolanetan bulldozer baten laguntzaz egokitu egin ziren lehendik zeuden bi baso bideak makina astunen joan-etorriak errazteko, eta baso moztaile batek motozerraz moztu zituen zuhaitzak. Zuhaitzak lurrean eta prozesadorearen laguntzaz, azala kendu, moztu eta gune lau batean pilatu ziren geroago autokargagailuarekin beste leku batera eramateko; han, kamioietan zamatu eta paper fabrikara eraman zituzten prozesatzeko.

Etengabe kontrolatu genituen zuhaitzak mozteko eta baso bideak moldatzeko lanak, makinen pisuak hein batean eragin baitzezakeen lurzoruan. Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarririko metodologia aplikatu dugu. Zehazki 64. artikuluaren a) atala, nagusiki ikusizko prospekzioa eraman baita burura. Edozein motatako aurkikuntza arkeologikoak egin izan balira, lanak behin-behinean etengo ziratekeen aztarna horiek ebaluatzeko eta babesteko neurriak hartzeko. Zuhaitzak euririk gabeko sasoian moztu zirenez (uztailean eta abuztuan), makinen joan-etorriek ez zu-

En al año 2021, a la hora de llevar a cabo una tala forestal de un eucaliptal en una zona que comprende unas 3 hectáreas en Barrika (zona de Barrika Baso), y siendo esta una zona calificada como Zona de Protección Cautelar de Uribe-Kosta-Butroe (AF31-2021), la empresa Explotaciones forestales La Bella SL, al tener conocimiento de estas implicaciones sobre la zona de tala decide de *motu propio* contratar un seguimiento arqueológico de la zona de tala para evitar que en el caso de existir elementos arqueológicos estos pudieran sufrir daños.

Dada que la obtención de todos los permisos exigidos por el Ayuntamiento de Barrika se ha alagardo bastante, ha transcurrido largo plazo desde que se solicitó el permiso de seguimiento arqueológico y se han llevado a cabo los trabajos. Finalmente, se llevaron a cabo entre agosto y octubre de 2022.

Los trabajos forestales han consistido en el repaso de las dos pistas forestales preexistentes con bulldozer para adecuarlas para el paso de la maquinaria pesada, el talado de los árboles con motosierra por un talador, los cuales caen al suelo y ya con la procesadora se van descortezando, cortando y apilando en una zona llana para que luego se trasladen con el autocargador a otro punto donde luego se cargan a los camiones que ya se los llevan a la fábrica papelera para su procesado.

Se hizo un control continuo de los trabajos tanto de repaso de pistas como de tala, ya que debido al peso de la maquinaria esta pudiera en alguna medida afectar al suelo. Nos hemos ceñido a la metodología establecida en la Ley 6/2019, de 9 de mayo, del Patrimonio Cultural Vasco. En concreto al artículo, punto a), ya que principalmente se ha llevado a cabo una prospección visual. Si se hubieran hecho hallazgos arqueológicos de algún tipo se habría detenido la actividad temporalmente para evaluarlos y tomar medidas para su protección. Dado que esta tala se ha llevado en una época sin lluvias (julio y agosto),

ten askorik eragin Barrika Baso aldeko lurzoruan, eta ez zen inolako aurkikuntza arkeologikorik egin. Horrek ez du esan nahi aztarna arkeologiko motaren bat ez dagoenik, baina halakorik baldin badago, baso mozketa honek eragin duena baino maila sakonagoan egongo da.

el paso por las pistas y caminos no ha afectado en gran medida al suelo de la zona de Barrika Baso y no se han hecho hallazgos arqueológicos de ningún tipo. Esto no implica que no pudieran existir restos de algún tipo, pero, en el caso de que los hubiera sería a más profundidad que la que ha implicado esta tala forestal.

V. Fernández Carranza

B.4. **BASAURI**

B.4.1. **Ollargango gotorleku karlista**

Zuzendaritza: Gorka Martín
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.4.1. **Fuerte carlista de Ollargan**

Dirección: Gorka Martín
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

Between September and October 2022, an archaeological intervention was carried out in the Ollargan Carlist Fort (Basauri). The project comprised two main activities: prospecting with metal detectors and the archaeological excavation of four assessment sondages. Although the results were of little interest in terms of remains from the Second Carlist War, we did document an important phase linked to the Spanish Civil War. Overall, the data obtained reflect the intense militarisation undergone by the site during the last two civil wars.

Testuinguru historiko laburra

Bigarren karlistaldia (1872-1876)

1868an Iraultza Loriatsuak Espainiako aginpidetik egotzi zuen Isabel II.a erregina. Erreginak utzitako botere hutsune horrek ezegonkortasun politiko eta gizarte gatazka larriak eragin zituen, eta egoera hori berriz ere aprobetxatu zuten karlistek armak eskuetan hartzeko eta euren erregegai Karlos VII.a erregetzara eramateko. Gerra zibila 1872an hasi zen karlismoaren lurralde historikoetan, Euskal Herrian, Nafarroan, Katalunian eta Erdialdean (Aragoiko hegoaldea, Valentziako iparraldea eta Gaztela-Mantxako alde batzuk), eta 1876an amaitu zen karlisten beste porrot batekin.

1873ko udan, hamaika frontetatik jazarriak eta hiriburuan ezegonkortasun politiko larria bizi zelarik, armada liberalak atera egin zituen bere garnizio guztiak Euskal Herriko eta Nafarroako barnealdetik hiriburuen defentsan kontzentratzeko. Karlistek, beren aldetik, areagotu egin zituzten erasoak Bilbo aldean hiria blokeatzeko eta komunikazioak eteteko xedearekin. 1874ko urtarrilean Portugalete erorita isolatuta geratu zen Bizkaiko hiriburua, eta karlistek berriz ere setiatu zuten Bilbo 1874ko urtarriletik maiatzera arte. Azkenik, hiria salbatu egin zen sorospeneko armada liberalari esker, hori bai, bere lerroetan hildako ugari nozitu ondoren.

Nolanahi ere, askapen horrek ez zuen epe luzeko segurtasuna ekarri. Beste setio baten beldur, agintari zibilek eta militarrek gotorleku sorta bat diseinatu eta eraiki zuten hiria eta Nerbioi-Ibaizabal itsasadarrean barrena Abrako bokalera arteko komunikazioa defendatzeko. Ingeniari karlistek modu bertsuan erantzun zuten, eta beren gotorlekuak eraiki zituzten etsaienei aurre egiteko. Modu horretan gatazkaren paisaia zabal eta konplexu bat sortu zen, *Bilboko Lerroa eta itsasadarra eta Abra* izenaz ezaguna, eta Ollargango gotorlekuak rol garran-

Breve contexto histórico

Segunda guerra carlista (1872-1876)

En 1868, la Revolución Gloriosa expulsó a la reina Isabel II del trono de España. El vacío de poder dejado tras de sí generó una situación de grave inestabilidad política y conflictividad social aprovechada por los carlistas para alzarse nuevamente en armas tratando de entronizar a su pretendiente, Carlos VII. La guerra civil se formalizó en 1872 en los territorios históricos del carlismo: País Vasco, Navarra, Catalunya y el Centro (sur de Aragón, norte de Valencia y parte de Castilla la Mancha) y terminó en 1876 con una nueva derrota para el carlismo.

En el verano de 1873, acosados por múltiples frentes y con una grave inestabilidad política en la capital, el ejército liberal retiró todas sus guarniciones del interior del País Vasco y Navarra, concentrándose en la defensa de las capitales. Los carlistas, por su parte, incrementaron la intensidad de sus ataques en el área de Bilbao con la intención de bloquear la ciudad y cortar sus comunicaciones. La caída de Portugalete en enero de 1874 formalizó el aislamiento de la capital vizcaína y dio pie a un nuevo asedio carlista que se prolongó de enero a mayo de 1874. La ciudad fue finalmente salvada gracias al ejército liberal de socorro, no sin antes sufrir un considerable número de bajas.

No obstante, la liberación no se tradujo en una seguridad a largo plazo. El temor a un nuevo asedio llevó a las autoridades civiles y militares a diseñar y construir una serie de fortalezas que defendieran tanto la ciudad, como su comunicación por la ría del Nervión-Ibaizabal hasta su desembocadura en el Abra. Los ingenieros carlistas respondieron de la misma forma construyendo sus propias fortificaciones para oponerlas a las contrarias. De esta manera se formó un complejo y vasto paisaje del conflicto conocido como *Línea de Bilbao y su ría y Abra,* de la cual

tzitsua jokatu zuen, karlisten egitura nagusietako bat izan zen (Martín, 2019[1]).

Esku hartzearen testuingurua

Ollargango gotorleku karlistari buruzko azterketa arkeologikoa Bizkaiko Lurralde Historikoan 2022. urtean zehar ikerketa arkeologikoak eta paleontologikoak sustatzera bideratutako foru dirulaguntzen babesean eraman zen burura. Beraz, *Arqueología del conflicto carlista en Bizkaia y Araba* izenburuko doktore tesia egiteko ikerketa jardueran bideratutako esku hartzea izango zen.

Landa lanei hasiera eman aurretik, teledetekzio eta ikusizko prospekzio lanak egin ziren *Bilboko Lerroa eta itsasadarra eta Abra*ko gotorleku multzoa osatzen zuten ondare elementuen kontserbazio egoera bertatik bertara ikusteko. Helburu nagusia zen gotorleku egokiena aukeratzea hartan esku hartze arkeologiko bat bideratzeko.

Azkenik, arrazoi sorta batek eraman gintuen Ollargango gotorleku karlista aukeratzera. Hasteko, landaredia sarriak gotorlekuaren egiturak bereiztea eragozten bazuen ere, LiDAR hegaldietako argazkiei eta aspaldiko ortoargazkiei esker egiaztatu ahal izan genuen gotorlekuaren perimetroa ongi asko hautematen zela, eta iturri kartografiko historikoetan jasotakoaren antz handia zuela. Bigarrenik, jatorriz karlistek eraikitako gotorlekua zen, eta Bilboko eta inguruko borroka zelaian kontserbatzen zen gotorleku karlista bakarra. Eta hori gutxi balitz, Daniel J. Escondrillasen memoriei esker, ingeniari karlista izan baitzen gerran, gotorlekuaren eraikuntzari buruzko lehen eskuko informazio idatzia genuen eskuragarri (Escondrillas, 1876[2]). Azkenik, harlandua edo harlangaitza nagusi den beste gotorlekuak ez bezala, lurrezko gotorlekua zen Ollargan, hau da, batez ere lurrez eraiki zuten. Arrazoi horiengatik guztiengatik erabaki genuen aurkintza horretan arkeologikoki jardutea, gure ustez gotorleku egokiena baitzen kontserbazio egoera onean zegoelako eta eskain zitzakeen datu historikoak oso interesgarriak izan zitezkeelako.

Esku hartzearen emaitza

Lan arkeologikoei heldu aurretik, kendu egin genituen gotorlekuaren barnealdearen mendebaldeko sastrakak, landaredia trinkoak indusketa lanekin hastea galarazten baitzigun. Lan hori eskuz eta sastrakak kentzeko makina mekanikoen laguntzaz eraman zen burura. Lehen ere aurreratu dugun bezala, bi jardueratan oinarritu zen esku hartzea: alde batetik, lau zundaketa induskatuko ziren estratigrafikoki, eta bestetik, prospekzio metalikoa bideratuko zen inguruko eremuetan. Bi kasuetan positiboak izan ziren emaitzak.

Indusketa arkeologikoa

Balorazioa egiteko lau zundaketatan oinarritu zen indusketa arkeologikoa. Gotorlekuko gune desberdinetan planteatu ziren zundaketa horiek, eta bakoitzak bere hel fuerte de Ollargan formó parte importante como una de las principales estructuras carlistas (Martín, 2019[1]).

Contexto de la intervención

El estudio arqueológico del fuerte carlista de Ollargan se desarrolló al amparo de las subvenciones forales destinadas a la promoción de investigaciones arqueológicas y paleontológicas en el Territorio Histórico de Bizkaia realizadas a lo largo del año 2022. Se trataba, por tanto, de una intervención enmarcada como actividad de investigación de la tesis doctoral *Arqueología del conflicto carlista en Bizkaia y Araba*.

Previamente al inicio del trabajo de campo se desarrollaron labores de teledetección y prospección visual. La finalidad era determinar el estado de conservación de los diferentes elementos patrimoniales que integraban el conjunto de fortificaciones de la *Línea de Bilbao y su ría y Abra*. El objetivo principal consistía en seleccionar la más adecuada para su intervención arqueológica.

Finalmente, una conjunción de razones nos hizo decantarnos por el fuerte carlista de Ollargan. En primer lugar, si bien la abundante vegetación impedía distinguir las estructuras de la fortificación, gracias al visionado de vuelos LIDAR y de ortofotos antiguas pudimos verificar que el perímetro se distinguía perfectamente y que guardaba amplia similitud con las fuentes cartográficas históricas. En segundo lugar, se trataba de un fuerte de construcción originariamente carlista, el único conservado en todo el teatro de operaciones de Bilbao. Por si esto fuera poco, gracias a las memorias de Daniel J. Escondrillas, ingeniero carlista durante la guerra, contábamos con información documental de primera mano sobre la construcción del fuerte (Escondrillas, 1876[2]). Finalmente, a diferencia de otras fortalezas donde predomina la sillería o mampostería, Ollargan era un fuerte terrero, lo que significa que fue erigido mayormente con tierra. Por todas estas razones decidimos intervenir arqueológicamente este emplazamiento por considerarlo como el más óptimo por sus buenas condiciones de preservación y el interés de los datos históricos que pudiera aportar.

Resultado de la intervención

Previamente al inicio de las labores procedimos a desbrozar la mitad occidental del interior del fuerte debido a que el exceso de vegetación nos impedía comenzar con las labores de excavación. Dicho trabajo se realizó con medios manuales y con desbrozadoras mecánicas. Como se ha mencionado anteriormente, la intervención se basó en dos actividades: la excavación estratigráfica de cuatro sondeos y la prospección metálica de las zonas aledañas. En ambos casos los resultados fueron positivos.

Excavación arqueológica


La excavación arqueológica se basó en la realización de cuatro sondeos valorativos. Se plantearon en áreas diferentes de la fortaleza y con objetivos específicos. El

[1] Martín, G.; (2019). Defendiendo la «Invicta Villa». Génesis y desarrollo de la «línea de Bilbao y su ría y Abra» durante la Última Guerra Carlista (1872-1876), *Vasconia: Cuadernos de historia-geografía,* 43: 33-73.

[2] Escondrillas, Daniel (1876). *Mis memorias de la guerra.* Bordele: Berak argitaratua.

[1] Martín, G.; (2019). Defendiendo la «Invicta Villa». Génesis y desarrollo de la «línea de Bilbao y su ría y Abra» durante la Última Guerra Carlista (1872-1876), *Vasconia: Cuadernos de historia-geografía,* 43: 33-73.

[2] Escondrillas, Daniel (1876). *Mis memorias de la guerra.* Bordeaux: Autoeditado.



Ollargango gotorleku historikoaren planoa (1), gaur egungo LiDAR irudia (2), 1977ko ortoirudia (3) eta esku hartzean zehar egindako zundaketen kokapena eta mapa topografikoa (4). Iturria: Espainiako Mapa Aldatua. Defentsa Ministerioa. ICHM. AGMM. BI-03-10 (1), LiDAR itzalak 1m, GeoEuskadi, Eusko Jaurlaritza (2), 1977-1978ko Ministerio arteko hegaldia, GeoEuskadi, Eusko Jaurlaritza (3) eta egileak (4).

Plano histórico del fuerte de Ollargan (1), imagen LIDAR actual (2) ortoimagen de 1977 (3) y levantamiento topográfico y ubicación de los sondeos realizados durante la intervención (4). Fuente: Modificado de España. Ministerio de Defensa. ICHM. AGMM. BI-03-10 (1), sombras LiDAR 1 m, GeoEuskadi, Gobierno Vasco (2), Vuelo interministerial 1977-1978, GeoEuskadi, Gobierno Vasco (3) y los autores (4).

lburuak izango zituen. Lehenengo zundaketa gutxi gorabehera gotorlekuaren erdialdean induskatu genuen, 1,5 x 2 metro hartu zituen, eta xedea zen aztarnategiaren lodiera estratigrafikoa neurtzea. Unitate estratigrafiko guztiak altxatuta kronologia berriko eta Gerra Zibilaren garaiko material arkeologiko batzuk berreskuratu genituen. Metro beteko sakoneran dokumentatu genuen substratu naturala.

Sastrakak kentzeko lanetan zehar, gotorlekuaren iparraldeko sektorean, bidetik hurbil, oinplano lauangeluarreko eta tamaina handiko unitate negatibo bat egiaztatu genuen. Balizko uraska edo lurpeko egitura bat izan zitekeelakoan, 2. zundaketa planteatu genuen. Halere, egitura hori induskatuta, askoz ere modernoagoa zen zerbait zela ikusi genuen, oso hondakin berriak baitziren berreskuratutako material guztiak: freskagarri latak, plastikozko bilgarriak, ehiza kartutxoak… Kontuan harturik inguruko meatzaritza jarduera, baliteke meatzariek egindako zundaketa zulo bat izatea, XX. mendearen azken laurdenean betetakoa.

Parapetoaren iparraldeko sektorean induskatu genuen hirugarren zundaketa gotorlekuaren arkitektura eta eraikitzeko metodoa dokumentatzeko xedearekin. Argitu beharreko beste alderdietako bat zen artilleriarako kanoi zuloak edo fusil tiratzaileentzako tiro parapetoak izan zituen ala ez egiaztatzea. Indusketa prozesuan zehar Gerra Zibilari zegozkion material batzuk berreskuratu ahal izan genituen, hala nola kartutxoak, bala zorroak

primer sondeo se ubicó aproximadamente en el centro del fuerte, sus dimensiones eran de 1,5 x 2 m y la finalidad del mismo era valorar la potencia estratigráfica del yacimiento. La retirada todas las unidades estratigráficas reportó varios materiales arqueológicos de cronología reciente y de época de la Guerra Civil. Documentamos el sustrato natural a 1 m de profundidad.

Durante las labores de desbroce se verificó la existencia de una unidad negativa de planta cuadrangular y considerables dimensiones en el sector norte de la fortificación, cerca del camino. Pensando que podría tratarse de un posible aljibe o estructura soterrada, planteamos el sondeo número 2. Sin embargo, tras su excavación pudimos verificar que se trataba de algo mucho más moderno, dado que todos los materiales recuperados se correspondían con basura de época reciente: latas de refresco, envoltorios de plástico, cartuchos de caza… Teniendo en cuenta la actividad minera de la zona, creemos plausible que se tratase de un pozo de sondeo que fue colmatado en el último cuarto del siglo XX.

El tercer sondeo se delimitó en el sector norte del parapeto con el objetivo de documentar la arquitectura y método constructivo del fuerte. Otra de las cuestiones a dilucidar era comprobar la existencia o no de troneras para artillería o banquetas de tiro para fusileros. Durante el proceso de excavación se pudieron recuperar varios materiales correspondientes a la Guerra Civil, tales como cartuchos, casquillos y guías de cargador Mauser. Asi-

eta Mauser kargagailu gidak. Era berean dokumentatu ahal izan genuen ingeniari karlistek parapetoa besterik gabe lurrak metatuz eta barruko lurzorua beheratuz eraiki zutela espazio hori ahalik eta hobekien babesteko.

Azkeneko zundaketa, laugarrena, izan zen emaitzetan emankorrena. Gotorlekuaren izkinetako batean induskatu genuen, iparraldeko parapetoak mendebaldekoarekin eratzen duen ukondoan hain zuzen. Puntu horretan induskatu genuen artilleriarako prestaturiko gune bat izan zitekeelako. Baina 7,92 x 57 Mauser motako ia 400 pieza dokumentatuta egiaztatu genuen Gerra Zibilean erabilitako tiratzaile postu bat zela, seguruenik matxinatutako alderdiko soldaduek erabilia. Era berean, 88 mm-ko artilleria jaurtigaien hondarrak berreskuratu genituen.

Miaketa

Prospekzio lanetan metal detektagailua erabili genuen piezak aurkitzeko eta ateratzeko, eta berreskuratutako elementu bakoitzaren geoerreferentziazioa egin genuen kode batekin batera, bakoitzaren tipologia eta aurkikuntzaren zenbaki korrelatiboa adierazteko. Hiru sektoretan banatu genuen esku hartzeko eremua.

Gotorlekua oinarritzen zen muinoa hartu zuen lehenengo sektoreak. Helburua zen induskatuko ez zen gainazalean zeuden material guztiak berreskuratzea, ezkutuan metal detektagailuekin ibiltzen direnengandik eta harrapatzaileengandik babesteko. Zalantzarik gabe honakoa izan zen sektore emankorrena, guztira 153 elementu berreskuratu baikenituen, gehien-gehienak Espainiako Gerra Zibilarekin lotuak: bala zorroak, kartutxoak eta Mauser eta Mannlicher-Carcano kargagailu gidak. Elementu horien banaketa espazialak geroago 4. zundaketan dokumentatu genuen tiratzaile postu bat iradokitzen zuen. Era berean, bigarren karlistaldiko halako jarduera bat identifikatu ahal izan genuen, artilleriaz jaurtitzeko granada titidun zati batzuk, 11 x 57 Remington balak eta 50-70koak dokumentatu baikenituen.

Montefuerte aldea hartu zuen hurrengo sektoreak, gotorleku karlistaren iparraldean. Alde horretan helburua zen gotorlekua eraiki aurretik karlistek setioan zehar antolatutako mortero eta kanoi bateriak dokumentatzea. Karlistaldiko artilleriako jaurtigaien zati batzuk berreskuratu genituen arren, baita bala eta bala zorro batzuk ere, aurkikuntzak urriegiak eta sakabanatuegiak izan ziren bateria horien existentzia edo existentziarik eza zehazteko.

Azkenik, gotorlekuaren atzealdea izan zen eremuan planteatu genuen hirugarren sektorea, gotorlekuaren hego-ekialdean. Andikogana izeneko mendi bizkarra hartzen zuen, eta bertan egin genituen aurkikuntza interesgarrienak. Mendi bizkarrean zehar artilleriako jaurtigai zati batzuk dokumentatu ahal izan genituen, horien artean nabarmentzekoak kalibre handiko granada titidun batzuk, hain zuzen ere Bilboko gotorleku liberaletatik Ollargango karlisten aurka jaurtitakoak. Izan ere, iturri idatziak berak mintzo zaizkigu artillerien arteko etengabeko borroka horiei buruz (Escondrillas, 1876).

Aztarnategiaren interpretazioa eta konklusioak

Landa lanak amaitu eta materialak aztertu ondoren esan dezakegu *Gaztelu* gaina, gaur egun Ollargango gotorleku karlistaren aztarnak hartzen dituena, oso mismo, pudimos documentar que los ingenieros carlistas habían erigido el parapeto mediante la simple acumulación de tierras y rebaje del piso interno para proteger este espacio lo máximo posible.

El último sondeo, el número 4, fue el más prolífico en resultados. Se planteó en una de las esquinas del fuerte, precisamente en el codo de unión que forma el parapeto norte con el oeste. Decidimos excavar en esta área por la posible existencia de un emplazamiento artillero. No obstante, la documentación de casi 400 piezas de tipo 7,92 x 57 Mauser confirmó que se trataba de un puesto de tirador empleado durante la guerra civil española, probablemente por parte de soldados del bando sublevado. También se recuperaron restos de artillería de 88 mm.

Prospección

La prospección se basó en el empleo del detector de metales para la localización y extracción de las piezas, y en la georreferenciación de cada elemento junto a un código como expresión de su tipología y el número correlativo de hallazgo. El área de intervención se dividió en tres sectores.


El primer sector comprendía la colina sobre la que se asentaba el fuerte. El objetivo era recuperar toda la materialidad existente en la superficie que no se iba a excavar para así mantenerla a salvo de detectoristas y expoliadores. Se trató sin duda del sector más fructífero, recuperándose un total de 153 materiales relacionados, sobre todo, con la guerra civil española: casquillos, cartuchos y guías de cargador Mauser y Mannlicher-Carcano fueron la tónica. La distribución espacial de estos elementos auguraba la existencia del puesto de tirador que documentamos posteriormente en el sondeo número 4. También pudimos identificar cierta actividad durante la segunda guerra carlista al identificar varios fragmentos de granadas de artillería de tetones, balas 11 x 57 Remington y 50-70.

El siguiente sector abarcaba la zona de Montefuerte, al norte de la fortificación carlista. El objetivo en esta área era tratar de documentar las baterías de mortero y cañón que los carlistas establecieron durante el asedio, *ergo*, con anterioridad a la construcción del fuerte. Si bien recuperamos varios fragmentos de proyectiles de artillería de la guerra carlista, así como varias balas y casquillos, los hallazgos resultaron demasiado escasos y dispersos como para concretar la existencia o no de dichas baterías.

Finalmente, el tercer sector se planteó en lo que fue la retaguardia del fuerte, al sureste. Comprendía una loma alargada conocida como Andikogana y deparó los hallazgos más interesantes. A lo largo del cordal pudimos documentar varios fragmentos de proyectiles de artillería entre los cuales destacan varias granadas de tetones de gran calibre, precisamente las que se dispararon desde los fuertes liberales de Bilbao contra los carlistas de Ollargan. De hecho, las propias fuentes documentales nos hablan de este constante duelo artillero (Escondrillas, 1876).

Interpretación del yacimiento y conclusiones

Tras la finalización de las labores de campo y estudio de materiales, podemos decir que la cima *Gaztelu,* donde se ubican actualmente los restos del fuerte car-



Mapa honetan daude jasota miaketa metalikoan zehar egindako aurkikuntzak.

Mapa con los hallazgos realizados durante la prospección metálica.

eremu militarizatua izan zela Bilboko hiriak nozitu zituen azken bi gerra zibiletan zehar.

Bi fase markatzen dituzte aztarna arkeologikoek. Aspaldikoena bigarren karlistaldiari dagokio, zehazki 1874 eta 1876 urte artekoari. Bilboko setioaren testuinguruan jarri zen abian, eta *Bilboko Lerroa eta itsasadarra eta Abra* delako lerroaren sorrera ekarri zuen egoneko gerra fasearekin luzatu zen. Fase honetakoak dira aurkitutako tamaina handiko granada titidun zatiak, segur aski Bilboko gotorleku liberaletan antolatutako artilleria piezetatik iritsiak. Era berean, une horretakoak dira 11 x 57 Remington balak eta bala zorroak eta 50-70koak.

Bigarren fasea, oparoena eta agerikoena, Espainiako Gerra Zibilarekin lotzen da. Ugari dira Mauser fusilaz jaurtitzeko munizioak, bala zorroak, balak, kartutxoak, kargagailu gidak, aho estalkiak… Kontuan izanik testuinguru historikoa eta 7,92 x 57 Mauser munizio gehiena Alemaniako fabriketatik etorria dela, guk uste dugu matxinatuen posizio bat izan zela. Testuinguru hori 1937ko ekainaren 15, 16 eta 17an sortu zen, oste matxinoek Burdinazko Hesia hautsi eta Bilbo hiriaren aurkako azken erasoaldia egin ondoren. Gogor eraso zituzten Malmasin eta Ollargango posizioak, funtsezkoak baitziren hiria hegoaldetik inguratzeko eta ezkerraldean barrena aurrera egiteko. Aurkikuntzek borroka latzak izan zirela uzten dute agerian, hainbat eraso izan baitziren. Gure ustez, aurkintza gotortzeko aldez aurretik egindako lur mugimenduek eta borroka basatiek (artilleria bidezko bonbardaketak barne) larriki kaltetu zuten gotorleku karlistaren hemeretzigarren mendeko testuingurua, eta horixe da, hain zuzen ere, kronologia horretako material gutxi berreskuratu izanaren arrazoietako bat.

lista de Ollargan, fue una zona intensamente militarizada durante las dos últimas guerras civiles que sufrió la ciudad de Bilbao.

Los restos arqueológicos evidencian dos fases. La más antigua se corresponde con la segunda guerra carlista, más en concreto entre los años 1874 y 1876. Se inició en el contexto del asedio de Bilbao y se extendió con la fase de guerra estática que supuso la creación de la *Línea de Bilbao y su ría y Abra.* Esta fase se caracteriza por el hallazgo de fragmentos de granadas de tetones de grandes dimensiones provenientes, probablemente, de las piezas de artillería ubicadas en los fuertes liberales de Bilbao. A este momento también pertenecerían algunas balas y casquillos 11 x 57 Remington y 50-70.

Una segunda fase, la más abundante y presente, se refiere a la guerra civil española. Su materialización son los abundantes elementos de munición Mauser: casquillos, balas, cartuchos, guías de cargador, cubrebocas… Teniendo en cuenta el contexto histórico y que la mayoría de la munición 7,92 x 57 Mauser procede de fábricas alemanas, creemos que se trataría de una posición sublevada. Este contexto se generó durante los días 15, 16 y 17 de junio de 1937, después de que las tropas sublevadas rompieran el Cinturón de Hierro y lanzasen la última ofensiva sobre Bilbao. Las posiciones de Malmasín y Ollargan fueron duramente atacadas ya que constituían uno de los puntos clave para rodear la ciudad por el sur y continuar avanzando por la margen izquierda. Los hallazgos muestran la intensidad de la lucha, donde se sucedieron varios ataques. Creemos plausible pensar que las remociones efectuadas previamente para fortificar el enclave y la ferocidad de los combates (bombardeos artilleros incluidos) podrían haber alterado gravemente el contexto decimonónico del fuerte carlista, siendo una de las razones del escaso número de materiales recuperados para esta cronología.

Oro har, burura eramandako esku hartze arkeologikoan egiaztatu egin dira aztarnategi honen kontserbazio egoera ona eta bere diakronia historikoa. Ildo horretan, Ollargango gotorlekuak halako lotura du Bizkaian aztertutako beste aztarnategi batzuekin; horietan gainjarri egiten dira gerra zibilak, eta beraz, ikertzeko aukera handiak eskaintzen dituzten palinpsestoak sortzen dira. Azkenik, interes zientifikotik haratago, proiektu hau hasiera-hasieratik sortu zen leku hau berreskuratzeko eta balioa emateko mekanismo gisa. Ildo horretan, bisitaldi gidatuak, ate irekiko jardunaldiak eta elkarrizketak egin ditugu prentsan.

Globalmente, la intervención arqueológica realizada ha demostrado el buen estado de conservación de este yacimiento así como su diacronía histórica. En este sentido, el fuerte de Ollargan guarda relación con otros yacimientos intervenidos en Bizkaia en los que la superposición de guerras civiles es común, conformando palimpsestos del conflicto de gran potencialidad de estudio. Finalmente, más allá del interés científico, desde el primer momento el proyecto se concibió como un mecanismo para la recuperación y puesta en valor del lugar. En esta línea se han realizado visitas guiadas, jornadas de puertas abiertas y entrevistas en prensa.

G. Martín-Echebarria; A. Solana-Muñoz; J. Hidalgo-Masa

B.5. **BERMEO**

B.5.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.5.1.1. **Aranatar Sabin Plaza, 3**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Jabekideen komunitatea, Bizkaiko Foru Aldundia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Arana'tar Sabin Enparantzako 3. zenbakiko orubea Bermeoko Hirigune historikoaren erdialdean dago, Udaletxeak eta Andra Mariaren parrokia elizak eratutako plazari (XVIII. mendean sortutakoa) begira. Oinplano luzeko orubea da, 1910. urte inguruan eraikitako etxe batek hartzen du.

Etxearen gibelaldeko patioan igogailu berri bat instalatu behar zutelako eta barrura sartzeko zoru maila beheratu behar zutelako eraman dira burura lan arkeologiko hauek. Erregistratutako depositu arkeologikoa oso garrantzi gutxikoa izan da, orube honetan lehendik egindako obren ondorioz (gaur egungo eraikina eraiki zutenean eta azpiegiturak gaitu zituztenean?) oso nahasita baitzegoen. Ez dugu hiria fundatzeko prozesuarekin eta hiriko sektore honek bizi izandako bilakaerarekin zerikusia izan zezakeen aztarna bakar bat ere identifikatu.

B.5.1.1. **Aranatar Sabin Plaza, 3**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Comunidad de Propietarios; Diputación Foral de Bizkaia

El solar de Arana'tar Sabinen Enparantza nº 3 se dispone en la parte central del Casco Histórico de Bermeo, abierto a un espacio conformado por el Ayuntamiento y la Iglesia parroquial de Nuestra Señora de la Asunción (plaza creada en el s XVIII). Un solar de planta alargada ocupado por una edificación erigida en torno a 1910.

Los trabajos arqueológicos se han llevado a cabo por la habilitación de un nuevo ascensor en el patio trasero de la casa y el rebaje de la cota de acceso al interior. El depósito arqueológico registrado ha sido de muy escasa relevancia, ya que se encontraba muy alterado debido a las transformaciones experimentadas por el solar con anterioridad (¿construcción del actual edificio y habilitación de infraestructuras?). No habiéndose podido identificar evidencia alguna relacionada con el proceso de fundación de la villa y evolución de este sector de la población.

A. Moraza Barea

B.5.1.2. **Harresia: Eskinarruaga / Arresi / Aldatseta / Ispizua'tar Segundo**

Zuzendaritza: Ander Ortega Franco
Finantzazioa: Bermeoko Udala

B.5.1.2. **Muralla: Eskinarruaga / Arresi / Aldatseta / Ispizua Tar Segundo**

Dirección: Ander Ortega Franco
Financiación: Ayuntamiento de Bermeo

Archaeological monitoring of urban planning and service renovation work at the intersection between Eskinarruaga, Arresi and Aldatseta Streets and Ispizua Tar Segundo Street in Bermeo. The intervention enabled the documentation of a new stretch of the town's wall (around 9 m), as well as levels dating from before its construction in the 14th century, probably linked to the development of some kind of craft activity associated with the use of fire

BI-631 errepidean (Ispizua'tar Segundo kalea), Bermeoko Eskinarruaga, Arresi eta Aldatseta kaleen bidegurutzean, zerbitzuak berritzeko eta urbanizatzeko lanek eragindako esku hartze arkeologikoa. Beharrezko zangak induskatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa egin dugu, eta Erdi Aroko harresiaren beste atal bat (gutxi gorabehera 9 metro) dokumentatu ahal izateaz gain, XIV. mendean eraikitako harresi horren aurreko mailak dokumentatu ditugu. Maila horiek segur aski suaren erabilerarekin zerikusia zuen artisautza moldeko jarduera mota baten garapenarekin lotzen dira.

Hemendik hurbil egindako esku hartzeen emaitzak aintzat harturik, esku hartze honen helburu garrantzitsuenetako bat zen Bermeoko Erdi Aroko faseari dagozkion mailen eta egituren dokumentazioa ahalbidetzea, horien artean arreta berezia jarriz hiriko harresiaren eta San Frantzisko Portalearen identifikazioan (bertatik abiatzen zen Gernikaranzko bidea), eta artisautza jardueren inplementazioari lotutako egituren aztarnetan.

Abiapuntu horrekin, esku hartzeko proiektuaren arabera tamaina handiko zundaketa bat egingo zen bidegurutzean dagoen zebra bide osoaren azalera hartuta. Halere, kontuan harturik obraren baldintzatzaileek eta lurpeko afekzio handiak, ugari baitziren hiriko zerbitzuak eta azpiegiturak, zangak induskatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa egin genuen, eta lehenagoko faseei zegozkien elementuak aurkituz gero zanga horiek handitu egingo ziren elementu horiek baloratzeko eta oinean dokumentatzeko.

Horrela, harresia identifikatuta, 26 m^2-ko (100. Sektorea) eta 3 m^2-ko (200. Sektorea) ireki ziren, Arresi kaleko 1. zenbakian dokumentatutako harresi atalaren lerroarekin bat etortzen zirenak[3].

Baldintzatzaileak gorabehera, oso interesgarriak izan dira esku hartze honen emaitzak. Portalearen aztarnarik identifikatu ez dugun arren, hiribilduko sektore honetako harresiaren antolamenduari eta atearen kokapenari buruzko datu berriak bildu ditugu: sarbide hori Eskinarruaga kaleko 7. zenbakiko orubearen azpian egongo zen.

Era berean, Bermeo harresitu aurreko aztarnak dokumentatu ahal izan ditugu, hiriaren sorreratik hurbil dauden datetara edo, are gehiago, lehenagoko datetara eraman gaitzaketenak. Une honetan azterketa fasean dauden materialek eta maila horien datazioek emango digute informazio horiek zehazteko aukera.

Azkenik, nabarmentzekoa da Erdi Aroko harresiak puntu honetan erakusten duen afekzio larria. Gure garaiko komunikazio eta zerbitzu gune batean dagoenez hondatu egin da pixkanaka, eta soilik egituraren eraikuntza ezaugarri apartei esker kontserbatu dela esan behar dugu.

Hori esanda, esku hartzeari esker lau une historikotan kokatu beharreko elementuak eta/edo aztarnak dokumentatu ahal izan ditugu. Jarraian deskribatuko ditugu fase horiek.

Intervención arqueológica motivada por las obras de urbanización y renovación de servicios en la BI-631 (c/ Ispizua Tar Segundo) a la altura de la intersección de las c/ Eskinarruaga, Arresi y Aldatseta de Bermeo. Se ha realizado el control arqueológico de la excavación de las zanjas necesarias pudiendo documentar un nuevo tramo de la cerca medieval (unos 9 m), así como niveles previos a su construcción en el siglo XIV, probablemente vinculados al desarrollo de algún tipo de actividad de índole artesanal relacionada con el uso de fuego.

Teniendo en cuenta los resultados de intervenciones cercanas, la actuación contaba entre sus principales objetivos con posibilitar la documentación de niveles y estructuras correspondientes a la fase medieval de Bermeo, destacando la identificación de la muralla de la villa y el Portal de San Francisco, desde el que saldría el camino a Gernika, así como los restos de estructuras vinculadas a la implementación de actividades de carácter artesanal.

Con este punto de partida, el proyecto de intervención contemplaba la apertura de un sondeo de grandes dimensiones abarcando la superficie del paso de cebra presente en el cruce. Sin embargo, los condicionantes de la obra y la fuerte afección del subsuelo, caracterizada por la densidad de servicios e infraestructuras urbanas presentes, deparó la realización del control intensivo de la excavación de zanjas y su ampliación en caso de localizar elementos pertenecientes a fases previas favoreciendo su documentación en planta y valoración.

De esta manera, la identificación de la muralla ha motivado la apertura de dos sectores de 26 m² (Sector 100) y 3 m² (Sector 200) que quedarían en línea con la orientación documentada para la defensa en el nº 1 de la c/ Arresi[3].

Pese a los condicionantes, podemos calificar los resultados de la actuación como muy interesantes. Así, aunque no se han identificado los restos del portal, se han recabado nuevos datos respecto a la articulación del encintado de la villa en este sector y la situación del acceso, que quedaría ubicado bajo el solar nº 7 de la c/ Eskinarruaga.

Igualmente, cabe destacar la documentación de evidencias anteriores al amurallamiento de Bermeo que nos podrían remontar hasta fechas cercanas a la fundación de la villa o, incluso, anteriores. El estudio de material que está en curso y la datación de estos niveles permitirá concretar estas informaciones.

Por último, cabe remarcar la fuerte afección que presenta el cercado medieval en este punto. Estar ante un nudo de comunicaciones y servicios contemporáneos ha fomentado su deterioro progresivo y, en gran medida, solo sus excepcionales características constructivas han facilitado su conservación.

Dicho esto, el transcurso de la actuación ha favorecido la documentación de elementos y/o evidencias atribuibles a cuatro momentos históricos que pasamos a describir.

[3] Ortega, A. (2022): «Arresi kalea, 1. Harresia (Bermeo)», *Arkeoikuska 2021*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 232-234. or.

[3] Ortega, A. (2022): «c/ Arresi, 1. Muralla (Bermeo)», en *Arkeoikuska 2021*. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, p: 232-234.

1. fasea. Hiriko harresia eraiki aurreko espazioaren erabilera

Harresiaren kanpoko aurpegiaren ondoan erregistratutako bi deposituk eta erabilerako maila batek irudikatzen dute identifikatutako lehenengo unea. Aztertutako gunea txikia izan arren, hiriko harresia eraiki aurreko mailetan gaudela argi eta garbi uzten duten datuak bildu ditugu.

Zehazki, defendatzeko egituraren azpian dagoen zepazko zoruak iradokitzen digu suaren erabilerarekin zerikusia zuen artisautza moldeko jarduera motaren bat garatzen zen eremuaren zati bat dela honakoa.

Hipotesi hori dokumentuen bidez eta arkeologikoki berresten da. Hala bada, Eskinarruaga kaleko[4] ondoko 16-18. zenbakietako orubeetan dokumentatutako xede horretarako errekuntza egiturek abiapuntu bat eskaintzen digute, eta abiapuntu hori indartu baizik ez du egiten San Frantzisko Portaleari ematen zioten beste izenak: Errementarien/Olagizonen Atea; izan ere, Bermeo hiriko sektore honetan lan egiten zuten artisau horiek beren sutegiekin.

Era berean, zepazko zoladuraren eta prestakin geruzaren instalazioak lehenagoko depositu bat zigilatuko zuen, antzinako aintzira ohe edo ur ibilgu batekin lotu litekeena, Sollube eta Garbola mendietan behera udalerriko behe alde honetan biltzen ziren erreken eta Artika ibaiaren uholde ugariei buruzko dokumentazioan egiaztatzen denez.

2. fasea. Bermeoko harresiaren eraikuntza (1334-1357)

Inolako zalantzarik gabe, hiriko harresiaren presentzia da esku hartzen honetan elementurik nabarmenena. Egitura ezaguna izan arren, eta hainbat aldiz arkeologikoki aztertu eta dokumentatu bada ere, bidegurutze honetan duen garapenari esker harresiaren trazadura zehazten jarrai dezakegu Bermeoko sektore honetan.

Agerian utzitako tarteari esker (gutxi gorabehera 9 metro bi sektoreak barne hartuta) aski modu ziurrean proposatu dezakegu San Frantzisko Portalearen kokapena, eta haren morfologiari eta eraikuntzari buruzko alderdi berri batzuk eskain ditzakegu.

Harresiaren morfologiari dagokionez, esku hartzean zehar ikusi dugu harresi atal hau gainerako atalen berdina dela materialei eta eraikuntza teknikari dagokienez eta lehendik bideratutako esku hartzeetan bildutako informazioaren arabera. Halere, aztergai dugun kasu honetan, bi alderdi berri identifikatu ditugu.

Hasteko, barruko aurpegiaren oinarriaren zati batean 30 cm-ko atzeraemangune bat dokumentatu dugu angelu zuzenean, 2,05 metroko garapenarekin, baina ez gaude interpretazio sendo bat egiteko moduan. Hasiera batean San Frantzisko Portaleko bi kuboetako baten balizko presentziarekin lotu bagenuen ere, horma atala hego-ekialdera luzatzen zela ikusi genuen, eta beraz, baztertu egin genuen aukera hori. Era

[4] Anibarro, S. (2004): «Eskinarruaga kalea, 16-18 (Bermeo)». *Arkeoikuska 2003*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 276-281. or.

Fase 1. Uso del espacio anterior al amurallamiento de la villa

El primer momento identificado queda representado por un nivel de uso y dos depósitos registrados junto al lienzo exterior de la muralla. Pese al reducido espacio valorado, se han recabado datos inequívocos de estar ante niveles anteriores a la construcción de la cerca de la villa.

En concreto, la presencia de un suelo de escoria que se desarrolla bajo la estructura defensiva nos lleva a pensar en que se trataría de parte de la zona en la que se desarrollaba algún tipo de actividad de índole artesanal relacionada con el uso de fuego.

Esta hipótesis quedaría atestiguada tanto documental como arqueológicamente. Así, la documentación de estructuras de combustión para tales fines en los cercanos nº 16-18 de la c/ Eskinarruaga[4] nos daría un punto de partida que quedaría reforzado por el otro nombre con el que se conocía el Portal de San Francisco: Puerta de los Herreros/Ferrones, a raíz de la presencia en este sector del espacio urbano de Bermeo de dichos artesanos con sus fraguas.

Igualmente, la instalación del pavimento de escorias y su preparación sellarían un depósito anterior que podría relacionarse con un antiguo lecho lacustre o zona de paso de aguas, como también se atestigua en la documentación de los numerosos desbordamientos del río Artika y los arroyos que convergían en esta zona baja del municipio procedentes de los montes Sollube y Garbola.

Fase 2. Construcción de la muralla de Bermeo (1334-1357)

Sin lugar a dudas, el elemento más destacado de la actuación es la presencia de la muralla de la villa. Pese a que se trata de una estructura conocida y que ha sido objeto de estudio y documentación arqueológica en varias ocasiones, su desarrollo por toda la intersección nos permite seguir precisando su trazado para este sector de Bermeo.

Gracias al nuevo tramo descubierto (unos 9 m contando ambos sectores) podemos proponer de manera bastante segura, la ubicación del Portal de San Francisco, así como apuntar nuevos aspectos respecto a su morfología y construcción.

Centrándonos en su morfología, durante la actuación se ha podido comprobar que la factura de la cerca es idéntica en cuanto a materiales y técnica constructiva si atendemos a las informaciones recogidas en anteriores actuaciones arqueológicas. Sin embargo, en el caso que nos ocupa hemos identificado dos nuevos aspectos.

En primer lugar, en parte de la base de su lienzo interior se ha documentado un retranqueo de 30 cm en ángulo recto con un desarrollo de 2,05 m para el que no se encuentra una interpretación firme. Aunque en un principio se relacionó con la posible presencia de uno de los cubos del Portal de San Francisco, la prolongación del lienzo hacia el SE hizo que se descartase. De la

[4] Anibarro, S. (2004): «C/ Eskinarruaga, 16-18 (Bermeo)». Arkeoikuska 2003. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, p: 276-281.



Harresiaren presentzia dela eta irekitako sektoreen egoera eta 100. sektorearen ortoargazkia.

Situación de los sectores abiertos con motivo de la presencia de la muralla y ortofoto del sector 100.

berean, ez luke zentzu handirik zapata edo zimendu atal bat izateko aukerak kontuan hartzen badugu oso zerrenda lokalizatua dela. Testuinguru horren aurrean, guk uste dugu harresiaren eraikuntzan bertan baztertutako lan bat dela, ulertzen ez dugun arrazoi batengatik hasiera batean planteatutako lodiera baztertu zuten lanaren emaitza. Halere, argi dago egituraren jatorrizko eraikuntzaren atal bat dela, inon ere ez baikenuen geroagoko eraberritze lan bat iradokiko ligukeen ebakirik edo eranskinik hauteman.

Bestalde, alde batetik aurreko erabilerako mailen gaineko egituraren oinarria legoke, eta bestetik, zimendu zangen edo lurzorua aurrez egokitzeko lanen gabezia, Eskinarruaga kaleko 5. zenbakiko orubean halako obrak dokumentatuta dauden arren[5].

Harresiaren trazadurari dagokionez, jatorrian garapen jarraitua izango zuen, ipar-mendebaldetik hego-ekialderantz, gutxienez Arresi kaleko 1. zenbakiko atarirk Ispizua'tar Segundo kaleraino, kantoia egiten duen Eskinarruaga kaleko zenbaki bakoitien muga irudikatzen duen mehelinaren pareraino.

Beraz, kontuan izanik harresia berriz ere agertzen dela Eskinarruaga kaleko 5. zenbakiko fatxadaren azpian, puntu honetan egongo zen San Frantzisko sarrera, hego-mendebaldetik ipar-ekialderako norabidearekin, ekialdeko sarrera eratuz.

Proiekzioaren arabera, gaur egun espaloiak eta Eskinarruaga kaleko 7. zenbakiko orubeak eta Prantzisko Deuna Atea kaleko 10. zenbakikoak partekatzen duten zorupean egon zen atea.

misma manera, la opción de tratarse de una zapata tampoco tendría sentido si tenemos en cuenta que se trata de una franja muy localizada. En esta situación, nos inclinamos porque pueda tratarse de un trabajo descartado durante la propia construcción del muro que, por algún motivo que no llegamos a comprender, desechase el engrosamiento planteado de inicio. Lo que sí quedaba claro es que se trataba de parte de la construcción original de la estructura, puesto que en ningún momento se advirtieron cortes o adosamientos que nos situasen ante un trabajo de reforma posterior.

En segundo lugar, estaría el asiento de la estructura sobre niveles de uso anteriores, por un lado, y la ausencia de zanja de cimentación u obras de acondicionamiento previo del terreno como las identificadas en el nº 5 de la c/ Eskinarruaga[5], por otro.

Si atendemos al trazado de la cerca, en origen tendría un desarrollo continuado con orientación NW-SE al menos desde el portal nº 1 de la c/ Arresi hasta la c/ Ispizua-Tar Segundo, a la altura del muro medianero que representa el límite de los nº impares de c/ Eskinarruaga donde hace esquina.

De esta manera, teniendo en cuenta la presencia nuevamente de la defensa bajo la fachada del nº 5 de la c/ Eskinarruaga, el acceso de San Francisco quedaría ubicado en este punto, presentando una orientación SW-NE que abriría el acceso desde oriente.

Teniendo en cuenta su proyección, la puerta se ubicaría en el subsuelo que actualmente comparten la acera y los solares nº 7 y 10 de las c/ Eskinarruaga y Prantzisko Deuna Atea, respectivamente.

[5] Lecanda, J.A. (2006): «Eskinarruaga kalea, 5 (Bermeo)». *Arkeoikuska 2005*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 334-337. or.

[5] Lecanda, J.A. (2006): «C/ Eskinarruaga, 5 (Bermeo)». Arkeoikuska 2005. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, p. 334-337.

3. fasea. Aurreko galtzada baten aztarnak (XIX. mendea – XX. mende hasiera)

Harrizko zoru batek eta haren azpiko betegarriak definitzen dute identifikatutako hirugarren unea. Estratigrafikoki harresia eraiki ondorengo bi maila dira, biak atxikitzen baitzaizkio harresiari barruko aldetik.

Hasiera batean erronda bidearekin zerikusia izan zezakeela pentsatu bagenuen ere, markagailu kronologiko argi baten gabeziak eta kanpoko aldean identifikatutako zoruarekiko altuera aldeak iradokitzen digute XIX. mende amaierako edo XX. mende hasierako zoladura zahar baten aztarnak direla, eta galtzada hori ia harresi osoa eraitsi ondorengoa dela, egitura ia osorik eraitsi baitzuten Bermeko hiri garapenari leku egiteko. Tesi hori indartzeko0, esan dezagun harrizko zoladura hori harresiaren goiko atal suntsituaren maila berean antolatuta zegoela.

4. fasea. Gaur egungo zerbitzuen eta zoladuren orokortzea (XX. mendeko bigarren erdia)

Esku hartzean zehar dokumentatutako askotariko zerbitzuek ezaugarritzen dute faserik berriena. Gehiengehienek neurri handiagoan edo txikiagoan eragin zuten Erdi Aroko harresian. Eta horiei bidegurutzeak izan dituen azken zoruak gehitu behar zaizkie, galtzada harrizkoa, hormigoizkoa eta asfaltozkoa.

Fase 3. Restos de una calzada anterior (siglo XIX - principios del XX)

El tercer momento identificado lo definen un suelo encachado y el relleno sobre el que asienta. Se trata de dos niveles estratigráficamente posteriores a la cerca, puesto que se le adosan por su lado interior.

Aunque en un primer momento se barajó su posible vinculación al paso de ronda, la falta de un marcador cronológico claro y la diferencia de cota existente respecto al suelo identificado al exterior, presupone que respondería a los restos de un antiguo pavimento del siglo XIX o principios del XX, posterior a la eliminación de la práctica totalidad de la muralla para favorecer el desarrollo urbanístico de Bermeo. Esta tesis vendría reforzada por el desarrollo del pavimento encachado a la misma cota del arrasamiento superior de la cerca.

Fase 4. Generalización de servicios y soleras actuales (segunda mitad siglo XX)

La fase más reciente queda caracterizada por la multitud de servicios documentados en el transcurso de la actuación y que, en gran parte de los casos, afectaban en mayor o menor medida a la cerca medieval. A ellas habría que sumar la presencia de los últimos suelos que ha tenido la intersección en forma de adoquinado, solera de hormigón y asfalto.

A. Ortega Franco; A. González García

B.5.1.3. **Nekazari kalea**

Zuzendaritza: Ander Ortega Franco
Finantzazioa: Bermeoko Udala

B.5.1.3. **C/ Nekazari**

Dirección: Ander Ortega Franco
Financiación: Ayuntamiento de Bermeo

Archaeological monitoring of the urban planning and service renovation work carried out in the upper part of Nekazari Street in Bermeo. The results were of little or no historical-archaeological interest.

Bermeoko Nekazari kaleko goiko tartean zerbitzuak berritzeko eta urbanizatzeko lanek eragindako esku hartze arkeologikoa. Kalearen mendebaldeko zerrendan (zenbaki bakoitien fatxada lerroan) 1,50 m zabal eta 55-70 cm sakon izango zen zanga bat induskatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa eraman genuen burura, baina emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Jarraipen lanetan agerian geratu da zorupeko afekzio larria, izan ere, aspaldi ez dela hiriko eta kaleko eraikinetako zerbitzuak eta azpiegiturak instalatu zirenean nahasi egin zuten zorupe hori.

Esan beharra dugu esku hartze honetan ez dugula hiriko harresiaren eta/edo Nekazarien Atearen egiturazko aztarnarik identifikatu. Besterik gabe hipotesi bat planteatu daiteke harresiaren eraikuntzarako materialaren berrerabilerari dagokionez, harresia desegin ondoren pieza batzuk agian 7. zenbakiko fatxadaren zimenduarena egin baitzuten.

Bestalde, erretenaren goiko muturrean Arresi kalearen paraleloan luzatzen zen kanalizazio bat dokumentatu dugu partzialki. Kanalizazio horren tipologiak aurreko erabilera aldi batera garamatza, baina ezin diogu kronologia zehatz bat eman.

Intervención arqueológica motivada por las obras de urbanización y renovación de servicios en el tramo superior de la c/ Nekazari de Bermeo. Se ha realizado el control arqueológico de la excavación de una zanja en la franja occidental de la calle (fachada nº impares) con una anchura de 1,50 m y una profundidad de 55-70 cm, siendo los resultados del mismo de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

El seguimiento ha quedado caracterizado por la fuerte afección del subsuelo debido a la sucesiva y reciente instalación de servicios e infraestructuras tanto urbanas como de los propios edificios de la calle.

Debemos señalar que la actuación no ha favorecido la identificación de restos estructurales de la muralla de la villa y/o el Portal de Labradores/Bacas. Tan solo cabría hipotetizar la reutilización del material constructivo de la cerca tras su desmonte en la cimentación de la fachada correspondiente al nº 7.

Por su parte, el extremo superior de la zanja ha deparado la documentación parcial de una atarjea que discurriría en paralelo a la c/ Arresi. La tipología de este caño nos situaría en una fase de uso previa, aunque no podemos precisarle una cronología concreta.

A. Ortega Franco, M. Romano Vallejo

B.5.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

B.5.2.1. **Talaia eraikina, Matxitxako lurmuturrean**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez Zufiaurre
Finantzazioa: Jabea

B.5.2.1. **Edificio Talaia, en cabo Matxitxako**

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: Propiedad

The Talaia building is located in the area defined as a zone of presumed archaeological interest linked to a post-medieval watchtower on Cape Matxitxako, Bermeo. The restoration of the building prompted a stratigraphic study and a series of archaeological sondages. The study carried out enabled us to establish that the building dates from the 18th century, and served as a late watchtower. The batteries located slightly further down the slope most likely date from the 19th century.

Talaia eraikina, Matxitxako lurmuturrean, arkeologikoki babestutako eremuan dago, zehazki balizko arkeologia gunean, eta 53. zenbakiaz erregistratuta dago Eusko Jaurlaritzaren inbentario arkeologikoan. Babestutako eremuak aztergai dugun eraikina eta alboko lurzorua hartzen ditu. Era berean, babestutako eremuan biltzen dira iparraldera gutxi gorabehera 60 m-ra dagoen egitura bat, lau elementu erdizirkularrez osatua, eta iparraldetik hegoaldera egiten duen tunel gangadun bat, hegoaldeko muturra gaur egun trenkada batez itsututa duelarik.

Toki honetan itsasoko trafikoa zaintzeko balio zuen talaia bat izan zen, baina zehazki ez dakigu non. Kontuan izanik eremu babestua dela, edozein eraberritze lan bideratu aurretik ezinbestekoa da azterlan arkeologiko bat egitea.

Azterlan arkeologiko honetan, alde batetik, eraikinaren hormen irakurketa estratigrafikoa egin genuen, eta bestetik, zundaketa batzuk egin genituen obrek ukituko zituzten aldeetan, batik bat jatorrizko talaiaren aztarnak azal zitezkeelako.

Emaitzak

Obrek zorupean eragingo zuten guneetan egin genituen zundaketak, baina ikuspuntu arkeologikotik denak negatiboak izan zirela esan behar dugu. Kontuan harturik zundaketen eta lur mugimenduen gaineko kontrol lanen emaitzak, guk uste dugu zorupean ez dagoela gaur egungo eraikina inguratzen duen elementurik.

Lau unez osatutako sekuentzia eskaini zuen multzo osoko hormen irakurketa estratigrafikoak:

Eraikinaren jatorrizko obra

Oinplanoan egitura lauangeluar irregularra du eraikinak (1. UE), eta iparraldeko erpinean dorre zirkular bat du. Obra osoa harlangaitzeko hormez osatuta dago, eta horma guztiek 10 cm inguruko zabalerako zokaloa dute. Harlangaitzak tamaina ederrekoak dira, gutxi gorabehera 30 cm-ko aldearekin, eta halako errenkadak eratzeko asmoz ipinita daude. Harlanduxkez eginda daude eskantzuak eta bao inguruak, eta pikotxaren arrastoak nabaritzen dira pieza horietan.

Egituraren iparraldean altxatzen da dorre zirkularra, erdi puntuko leiho txiki bat duena. Dorre zirkular horretako estekadura eraikinaren gainerako hormetako estekaduraren berdin-berdina da.

El edificio Talaia, situado en el cabo Matxitxako, se encuentra dentro de un área protegida arqueológicamente. definida como zona de presunción arqueológica y registrada con el número 53 dentro del inventario arqueológico del Gobierno Vasco, esta área de protección comprende una superficie que engloba tanto el edificio objeto de estudio como el terreno adyacente. También se incluye una estructura situada a unos 60 m al norte formada por cuatro elementos semicirculares además de un resto de túnel abovedado cuyo trazado tiene una orientación N-S, actualmente tapiado en su extremo S.

En este lugar se localizaba una atalaya que servía para la observación del tráfico naval, aunque se desconoce su ubicación exacta. Dada el área de protección, se hace imprescindible un estudio arqueológico previo a cualquier reforma que se lleve a cabo.

El estudio arqueológico incluyó la lectura estratigráfica de los alzados del edificio y sondeos en las zonas afectadas por las obras, principalmente en previsión de que pudieran aparecer restos de obras de la atalaya primitiva.

Resultados

Los sondeos se realizaron en las zonas en las que las obras iban a afectar al subsuelo, siendo en cualquier caso negativos desde el punto de vista arqueológico. Creemos, por los resultados de los sondeos y del control del movimiento de tierras, que no hay elementos que rodeen al edificio actual en el subsuelo.

La lectura estratigráfica de los alzados del conjunto reveló una secuencia de cuatro momentos:

Obra original del edificio

El edificio (UE 1) se dibuja en planta como una estructura cuadrangular irregular en cuyo vértice norte se dispone una torre circular. Toda la obra está formada por una serie de muros aparejados en mampostería que presentan un zócalo de unos 10 cm de ancho. Los mampuestos son de buen tamaño, teniendo unos 30 cm de lado y se colocan con cierta intencionalidad de seguir hiladas. Los esquinales de la obra son de sillarejo y se aprecian restos de talla a picón, al igual que en los recercos de los vanos.

Al norte de la estructura se desarrolla un torreón circular en el que se abre una pequeña ventana con arco de medio punto. El aparejo de este torreón circular es el mismo que el del resto del edificio.

Dorre zirkularraren hegoaldean dorre angeluzuzen antzeko bat goratzen da, gutxi gorabehera multzo osoaren erdialdean dago. Dorre angeluzuzen horrek, ipar-mendebaldeko horman, erdi puntuko arku batez eraturiko bao bat du, egitura zirkularrean irekitakoaren tipologia berekoa.

Hego-mendebaldeko horman, itxitura egitura iparralderantz luzatzen da, ipar-mendebaldetik hego-ekialdera egiten duen hormatxo batekin, eraikinaren iparraldeko lur eremua hein batean mugatuz. Hormatxo horrek obra osoan identifikatzen den eraikuntza teknika ageri du, eta iparraldean du amaiera zutabe baten gisara, zutabe sekzioz zirkularra eta goiko muturra biribilduta duelarik.

Gutxi gorabehera 80 cm lodi dira obra osoko hormak.

Beraz, oinplano lauangeluarreko eraikin bat dugu, iparraldeko muturrean dorre zirkular bat duena eta, egitura osoaren erdialdean nabarmenduz, itxura karratuko beste dorre antzeko bat. Eraikinean ipar-ekialdetik sartzen da erdi puntuko arku batez eraturiko bao batera daramaten eskailera batzuen bitartez, eta erdi puntuko bi leiho daude. Obraren uniformetasuna kontuan harturik, guk uste dugu itsasoa zaintzeko talaia bat osatuko zuen multzo bateratu baten aurrean gaudela.

Gainera, eraikinaren iparraldera, gutxi gorabehera 50 m-ra, zuzen, bateriak hartzeko bost gune erdizirkular daude hegoaldetik horma batez mugatuta. Horma horretan geroago ebaki bat egin eta gutxi gorabehera 1 m zabal eta 2 m garai izango zen tunela ireki zuten. Tunelak, kanoi gangaz estalita eta barrutik adreiluz egina, iparraldetik hegoaldera egiten du, eta hegoaldeko muturrean 90º-tan biratzen du mendebalderantz. Inolako zalantzarik gabe, bateriak eraiki ondorengoa da tunela.

Kronologiari dagokionez, jakin badakigu Espainiako Ondorengotza Gerraren testuinguruan Diputazioak 1703an Bizkaiko portuen defentsa bermatzeko agindua eman zuela. Horretarako, bateria berriak eraiki zituzten kostaldean, lehendik zeudenen osagarri. Eraikitako egituren artean daude Baztarre eta Galdiz, Bermeon.

Baina XIX. mende hasiera baino lehen, leku beheretan antolatzen ziren bateriak kanoiek tiro horizontala egiten zutelako. Geroago leku garaiagoak bilatuko zituzten kanoiek tiro parabolikoak egin zitzaketelako eta arima marratuko eta atzerakargako artilleriak garapen handia ezagutu zuelako. Horri esker, beste abantaila batzuez gain, askoz ere handiagoa izango zen tiroaren irismena, Matxitxakon hartzen duten posiziotik tiro egiteko modukoa. Horrexegatik, hain zuzen ere, agian Karlistaldiarekin, Espainia-Estatu Batuak Gerrarekin edo Gerra Zibilarekin lotu behar ditugu defentsa bateria horiek.

Talaiako eraikinaren egiturari dagokionez, agian defendatzeko obraren multzoaren zati bat izango zen, baina beharbada aurreko eraikuntza bat da kontuan hartzen baditugu kontsultatutako iturri idatziak. Kasu honetan, guk uste dugu Talaiako eraikinaren lehenengo fase hau XVIII. mende amaieraren eta XIX. mendearen lehen erdiaren artean kokatu behar dela, baina ez dugu baztertzen deskribatutako egiturak lehenagokoak izatea.

Beraz, aztergai dugun eraikineko talaia eraiki ondorengoa da iparraldeko bateria.

Al sur del torreón circular se eleva la estructura en una especie de torreón rectangular, situado aproximadamente en el centro de todo el conjunto. Este torreón rectangular presenta, en su alzado noroccidental, un vano, también con arco de medio punto, y de igual tipología que el abierto en la estructura circular.

En el alzado SW, la estructura de cierre se desarrolla hacia el norte, con un murete con orientación NW-SE, delimitando parcialmente el terreno que se abre al norte del edificio. Este murete presenta la misma técnica constructiva de toda la obra y finaliza al norte en un remate a modo de columna, de sección circular y extremo superior redondeado.

El grosor de los muros de toda la obra es de 80 cm aproximadamente.

Tenemos por lo tanto un edificio de planta cuadrangular, con una torre circular en su extremo norte y, elevándose en el centro de toda la estructura, otra especie de torre, de forma cuadrada. El acceso al edificio se realiza por el NE, a través de unas escaleras que llevan a un vano en arco de medio punto, existiendo, de esta misma tipología dos ventanas. La uniformidad de la obra nos lleva a pensar en un conjunto unitario que formaría una atalaya de observación marítima.

A esto hay que añadir la existencia al norte (a unos 50 m lineales), de la estructura con hasta cinco espacios semicirculares para baterías que al sur queda delimitada por un muro. En este muro se aprecia un corte posterior y la creación de un túnel de aproximadamente 1 m de anchura y 2 m de altura. Este túnel, cubierto con bóveda de cañón aparejada en ladrillo, presenta un recorrido N-S, girando en ángulo de 90º hacia el W en su extremo sur. Claramente es posterior a la construcción de las baterías.

En cuanto a la cronología, sabemos que, en el contexto de la Guerra de Sucesión Española, la Diputación encarga en 1703 la garantía de defensa de los puertos vizcaínos. Para ello se crean una serie de nuevas baterías costeras que complementaban a las existentes. Entre las estructuras levantadas se encuentran Baztarre y Galdiz en Bermeo.

Pero antes de comienzos del siglo XIX, las baterías se localizaban en lugares bajos, debido al tipo horizontal de tiro de los cañones. Es posteriormente cuando buscan lugares elevados por el tipo de tiro parabólico y por el desarrollo de la artillería de ánima rayada y de retrocarga. Esto les permite, además de otras mejoras, un alcance de tiro mucho mayor, posible desde la posición que ocupan en Matxitxako. Por todo ello estas baterías defensivas hemos de asociarlas quizás con la Guerra Carlista, con la Guerra Hispano-Norteamericana o incluso con la Guerra Civil.

En cuanto a la estructura del edificio de la atalaya bien podría haber formado parte del conjunto de la obra de defensa, aunque quizás sea una construcción anterior si tenemos en cuenta las fuentes consultadas. Para este caso, nos decantamos por fijar esta primera fase del edificio Talaia entre finales del siglo XVIII y la primera mitad del siglo XIX, sin descartar la posibilidad de que las estructuras descritas sean anteriores.

La batería situada al norte, por lo tanto, sería posterior a la obra de la atalaya del edificio objeto de nuestro trabajo.





Oinplanoa eta altxaera eraikinaren faseak adierazita, eta multzoaren argazkia lanetan zehar.

Planta y alzado con las fases del edificio, y fotografía del conjunto durante las obras.

Ipar-ekialdeko eranskina

Multzoaren ipar-ekialdean 'L' bat itxuratzen duten bi hormez eratutako egitura bat (2. UE) eraiki zuten. Horma horiek harlangaitz irregular handiez eginak dira, eta eskantzua pieza erdi eskuairatuez. Harrietan ez da zizelkatzeko lanabesen arrastorik hautemateten. Hormak ez dira gaur egungo teilatuaren altuerara iristen, 1,70 m garai da ipar-ekialdekoa eta 1,90 m garai hego-mendebaldekoa. Hego-ekialdeko horman ez du zokalorik, baina ipar-ekialdekoan bai, oinean eta 7 cm zabal da.

Kontserbatu diren elementuak aintzat harturik, guk uste dugu biltegi ireki gisa erabilitako gunea izan zela; halere, ezin dugu kronologia zehatz bat eskaini, baina gure aburuz XIX. mende bukaeraren eta XX. mendearen erdialdearen artean eraiki zuten, beharbada talaia honen jatorrizko funtzionaltasuna abandonatu zuten eta etxebizitza bihurtu zuten testuinguruan.

Berritze lanak

Fase honetan biltzen dira etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak hobetzeko eta eraikina eraberritzeko prozesu baten barruan burututako obrak.

Fase honetako obra guztiak eraikina eraberritzeko unean biltzen dira, txoko bat eta, ipar-mendebaldean, eranskin txiki bat antolatu zuten, azken hori segur aski sukaldeko biltegi edo komun gisa erabilia. Hegoaldean eraikitako ur biltegiak eraikina etxebizitza gisa erabiltzearen ondorioz izandako hobekuntzak adierazten dizkigu.

Erabilitako materialen izaeragatik eta egituren dokumentazioagatik kronologia garaikide batean bildu behar ditugu berritze lan horiek guztiak, segur aski XX. mendearen bigarren erdian eginak baitira.

Anexo NE

Se edifica al noreste del conjunto una estructura (UE 2) formada por dos muros en L, aparejados en mampostería irregular con piezas grandes y esquinal semi-escuadrado. En las piezas no se aprecia instrumento de talla. Los muros no alcanzan la altura del tejado actual, teniendo una altura de 1,70 m al noreste y 1,90 m al sureste. En el alzado SE no tiene zócalo, y en el noreste sí, en su base y con una anchura de 7 cm.

Dados los elementos conservados, consideramos que se trataba de un espacio seguramente utilizado a modo de almacén abierto, del que no podemos ofrecer una cronología concreta, suponiendo que fue edificado entre finales del siglo XIX y mediados del siglo XX, quizás en un contexto de abandono de la funcionalidad de esta atalaya y su conversión en vivienda.

Reformas

En esta nueva fase se engloban las obras ejecutadas dentro de un proceso de reforma y mejora de las condiciones como vivienda.

Todas las obras de esta fase se enmarcan en un momento de reforma del edificio con la creación de un txoko y de un pequeño anexo al noroeste usado seguramente como despensa de la cocina o incluso como baño. La creación de un depósito de agua al sur nos indica las mejoras producidas debido al uso del edificio como vivienda.

Todas estas reformas, por la naturaleza de los materiales empleados y la documentación de las diferentes estructuras, debemos englobarlas en una cronología contemporánea, seguramente realizadas en la segunda mitad del siglo XX.

Azken aldaketak

Fase honetan biltzen ditugu jabe berriek egin berri dituzten obrak.

Konklusioak

Talaia eraikinean nola hormetan hala zorupean burututako azterlan arkeologikoak aukera eman du elementu honen historia, eraikuntza eta okupazio sekuentzia eta erantsitako egiturena birsortzeko sortu zirenez geroztik, eta azterlanean bildutako datuen arabera, XVIII. mende amaierakoak edo XIX. mendearen lehen erdikoak dira horiek guztiak.

Talaiako eraikinari iparraldeko egitura erantsi zioten, bateriak antolatzeko bost gunerekin, hegoaldetik horma batez mugatuta, hormaren gibelaldean dagoelarik iparraldetik hegoaldera egiten duen tuneleko sarrera. Bateria horiek segur aski XIX. mendetik aurrera eraiki zituzten, baina tunelari dagokionez, ez dakigu zehazki noiz eraiki zuten, nahiz eta ziurrenik aro garaikidean egina den kontuan hartzen badugu adreiluzko estekadura.

Ez dirudi iparraldeko bateria horiek beren historian zehar egiturazko zaharberritze lanik nozitu zutenik, baina Talaiako eraikina lehen aldiz eraldatu zuten XIX. mende amaieraren eta XX. mendearen lehen erdiaren artean ipar-ekialdean gorputz ireki bat erantsi ziotenean; agian biltegi gisa erabili zuten zati hori.

XX. mendearen bigarren erdian berriz ere eraberritu zuten eraikina hainbat obra eginez: biltegia itxi egin zuten txoko bihurtzeko, eskailera nagusia handitu zuten, hego-ekialdean ur biltegi bat eraiki zuten eta ipar-mendebaldean eranskin txiki bat eraiki zuten. Guk uste dugu etxebizitza hobetzeko egin zituztela obra horiek. Dokumentatutako azken fasea gaur egun egiten ari diren obrekin lotzen da, izan ere eraikina osorik eraberritzen ari dira.

Últimas modificaciones

Incluimos aquí las obras actuales de reforma, emprendidas por los nuevos propietarios.

Conclusiones

El estudio arqueológico realizado en el edificio Talaia tanto en sus alzados como en el subsuelo ha permitido recrear la secuencia histórico-constructiva y de ocupación de este elemento y de las estructuras anejas, desde sus orígenes que, según los datos recabados en el estudio, se podrían remontar a finales del siglo XVIII o la primera mitad del siglo XIX.

Al edificio Talaia se añade la estructura que se sitúa al norte, con cinco espacios para baterías y delimitada al sur con un muro que presenta un acceso posterior a un túnel con recorrido N-S. Estas baterías posiblemente se levantaron a partir del siglo XIX y en cuanto al túnel, desconocemos en qué momento se construye, siendo una obra que posiblemente se haya realizado en época contemporánea, debido a su aparejo de ladrillo.

Así como las baterías situadas al norte no parece que sufrieran reformas estructurales a lo largo de su historia, el edificio Talaia se ve modificado por primera vez con la construcción de un anexo abierto al NE, entre fines del siglo XIX y la primera mitad del siglo XX, quizás usado como almacén.

Hacia la segunda mitad del siglo XX, se reforma de nuevo el edificio con diferentes obras como el cierre del almacén para su conversión en txoko, la ampliación de la escalera principal, la creación de un depósito de agua al sureste o la creación de un pequeño anexo al noroeste. Suponemos que estos cambios fueron realizados como mejoras de la vivienda. La última fase documentada tiene que ver con las obras que se están llevando a cabo en la actualidad, debidas a la reforma integral del edificio.

L. Sánchez Zufiaurre; B. Renedo Villarroya

B.5.2.2. **Peru Ariztiko tumuluak. Baso mozketa edo matarrasa**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Kultura Saila. Bizkaiko Foru Aldundia

B.5.2.2. **Túmulos de Peru Arizti. Tala forestal o matarrasa**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Departamento de Cultura. Diputación Foral de Bizkaia

Below is a description of the archaeological monitoring of the clearing of a section of forest in the area of presumed archaeological interest linked to the Peru Arizti mounds (Bermeo).

Peru Ariztiko tumuluak Matxitxako Lurmuturraren ingurunean daude, Peru Arizti baserritik hurbil. 2000. urtean, Urdaibaiko Kultura Ondare Arkeologikoaren Inbentarioa osatzeko landa lanetan zehar eremu hori miatu genuen, eta ustezko tumulu egitura horiek oso zalantzazkoak zirela esan genuen orduan. Izan ere, Matxitxako aldean ugari dira gisa horretako muinoak, gehien-gehienak luzangak, harrizko substratuaren gaineko higadura diferentzialeko prozesuen emaitza direnak. Harrizko substratu hori granulometria desberdineko hareharriez osatuta dago (pikor fineko hareharriak eta mikrokonglomeratuak). DEIKER txostenak ere zalantzazkotzat zituen, halaxe baitzioen, hitzez hitz: «*difieren sensiblemente de las situadas en otras comarcas, tanto en cuanto a su emplazamiento, a media ladera, como en sus dimensiones*» (DEIKER 1990, 240. or.).

Los túmulos de Peru Aristi se localizan en el entorno del Cabo Matxitxako, cerca del caserío Peru Aristi. En el año 2000, durante los trabajos de campo del Inventario de Patrimonio Cultural Arqueológico de Urdaibai, prospectamos la zona, valorando como muy dudosas estas presuntas estructuras tumulares. De hecho, en el área de Matxitxako abundan ese tipo de montículos, normalmente alargados, que responden a procesos de erosión diferencial sobre el substrato litológico, compuesto por areniscas de diferentes granulometrías (desde las areniscas de grano fino a los microconglomerados). El informe DEIKER también los consideraba dudosos ya que «*difieren sensiblemente de las situadas en otras comarcas, tanto en cuanto a su emplazamiento, a media ladera, como en sus dimensiones*» (DEIKER 1990, p. 240).

Nolanahi ere, multzoa Balizko Arkeologia Gune gisa izendatuta dagoenez, 2022ko ekainean eukalipto sail bat matarrasa egiteko lanen gaineko kontrol arkeologikoa egin genuen, eta lan horiek babestutako eremuan inolako eraginik izan ez zutela ikusi genuen. Basoetan egiten diren lanetan ohikoak diren urratsak egin ziren: a) eukaliptoak eskuz moztu ziren; eta b) eremu babestuetan debekatu egin zen makina astunen joan-etorria. Amaierako balorazio gisa, komenigarria litzateke esku hartze arkeologiko bat egitea muino horien kalifikazio arkeologikoa berresteko edo baztertzeko.

No obstante, y dado que el conjunto está declarado como Zona de Presunción Arqueológica, en junio de 2022, hicimos el control arqueológico de una matarrasa de eucalipto, sin ninguna incidencia sobre el área protegida. La actuación se guío con las pautas habituales en las obras forestales: a) los eucaliptos fueron talados de forma manual; y b) en las zonas protegidas, se prohibió el paso de maquinaria pesada. Como valoración final, sería conveniente realizar una intervención arqueológica para verificar o descartar la calificación arqueológica de dichos montículos.

J.C. López Quintana

B.6. BERRIATUA

B.6.1. Legarmendi. Gerra Zibileko defentsa posizio frankista

Zuzendaritza: Josu Santamarina Otaola
Finantzaketa: Berriatuko Udala

B.6.1. Legarmendi. Posición defensiva franquista de la Guerra Civil

Dirección: Josu Santamarina Otaola
Financiación: Ayuntamiento de Berriatua

In July 2022 we carried out an archaeological intervention in a position of the Francoist side during the Civil War of 1936-1937 in the municipality of Berriatua. We have been working at Lea-Artibai since 2020, but on this occasion we have focused on a «taboo heritage» within the materiality of the war conflict: the remains of the Francoist side, of the rebels, who also received Italian help from the Black Arrows («Frecce Nere»). The setting for our intervention: Legarmendi, a mountain that is currently undergoing a process of transformation into a public forest as part of the collective heritage of the area. The documented remains represent a «quiet front» for the rebel forces stablished in Legarmendi, but with a certain atmosphere of control and repression. The intervention has had the support of the Berriatua Council, Ahaztuen Oroimena and Goikolau Elkartea associations and the University of the Basque Country.

2022ko uztailaren 1etik 12ra, Legarmendi izeneko gunean, 1936-1937. urteen artean gotortutako posizio frankista baten aztarnak arakatu ditugu. Esku-hartze arkeologiko integrala izan da: prospekzioa edo behaketa, lurrazalean kontserbatzen diren elementuen erregistro grafiko eta topografikoa, eta sektore jakin batzuen indusketa intentsiboa. Lan horien bidez, Legarmendiko ondare arkeologikoa baloratzeko lehenengo saiakera holistikoa bideratu dela esan daiteke.

Del 1 al 12 de julio de 2022, en la zona conocida como Legarmendi, hemos rastreado los restos de una posición franquista fortificada entre los años 1936-1937. Ha consistido en una actuación arqueológica integral: prospección y observación, registro gráfico y topográfico de los elementos conservados en superficie y excavación intensiva en ciertos sectores. Se puede decir que gracias a esas actuaciones se ha llevado a cabo el primer ensayo holístico para la valoración del patrimonio arqueológico de Legarmendi.

Sarrera: Legarmendiko esku-hartzearen markoa

Proiektu honetan bi ardatz nagusi aipatu behar dira. Alde batetik, ardatz historiko-arkeologikoa: 1936-1937. urteen arteko gerra-posizio frankista baten ikerketa, bere materialtasuna sakonki ezagutzeko asmoz. Beste aldetik, Legarmendi Berriatuko Udalaren jabegoko espazioa bilakatu da azken urtean, hau da, mendi publikoa, bertan ingurumen-berreskuratze lanak eta gizartaratze-lanak uztartzen direlarik. Lehen pribatua zena eta basogintza intentsibora bideratuta zegoena, hemendik aurrera herritarren gozamenerako gune sostengarria bihurtuko da. Horrela, proiektu arkeologiko honen bidez, 1936ko Gerrari lotutako ondare- eta memoria-balioak ere prozesu zabalago horretan txertatzen dira. Beraz, horra hor beste ardatza: etiko, zibiko edota politiko gisa definitu dezakeguna.

Introducción: Marco de la intervención de Legarmendi

Dos son los principales ejes que debemos mencionar dentro de este proyecto. Por un lado, el eje histórico-arqueológico: la investigación de una posición bélica franquista de los años 1936-1937, con el fin de conocer en profundidad su materialidad. Por otro lado, durante el último año Legarmendi se ha convertido en un espacio propiedad del Ayuntamiento de Berriatua, es decir en monte público, y en el mismo se combinan las labores de recuperación medioambiental con las labores de socialización. Lo que antes era privado y estaba destinado a la silvicultura intensiva, a partir de ahora se convertirá en un espacio sostenible para el disfrute de la población. Así, a través de este proyecto arqueológico, los valores patrimoniales y de memoria vinculados a la Guerra de 1936 también se incorporan a este proceso más amplio. Por tanto, he ahí el otro eje, el cual podemos definirlo como ético, cívico y/o político.

2022ko uztailean garatutako esku-hartze arkeologikoa ikerkuntza-marko zabalagoan kokatzen da. 2014tik, EHUko Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldean, «Gerra Zibilari buruzko Arkeologia» jorratzen duen ikerketa-lerroa martxan dago. 2016-2017 urteen artean *Paisaia ahaztuak 1936-1937* proiektua burutu zen, Araban kontserbatutako fronteko gerra-aztarnak dokumentatzeko asmoz. 2019tik 2020ra, urte batzuk lehenago hasitakoa zabaldu eta birpasatu egin zen *Guda-Otsak* izeneko proiektuaren bidez: Arabako aztarnekin batera, Bizkaian eta Gipuzkoan ere, 1936ko udazkenetik 1937ko udaberrira ezarritako euskal fronte osoa arkeologikoki aztertzea izan zen ikerketa-ardatz berria. Bi proiektu horiek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesa jaso zuten. 2014tik 2020ra EAEko hainbat gune desberdinetan garatu izan dira esku-hartze arkeologiko espezifikoak: San Pedro/Askuren mendian (Amurrio, Urduña), Moreoko gunean (Zierbena), Ekialdeko Burbona gailurrean (Zuia), Oketan eta Keturan (Zigoitia).

2019 eta 2020. urteen artean, *Guda-Otsak* proiektuaren testuinguruan, EHUko arkeologoen eta Lea-Artibaiko *Ahaztuen Oroimena 1936* elkartearen arteko lankidetza martxan jarri zen. Une horretan, Zapola eta Zapolazpiko posizio errepublikarren dokumentazio grafikoa eta topografikoa burutu zen. Maila arkeologikoan, bi posizio horiek Markinaldeko bigarren defentsa-lerro errepublikarraren adibide esanguratsu gisa ikertu ziren. Ondare-mailan, *MX-2 Ibilbidea*ri begirako materialak osatzea zen beste helburuetako bat. *Guda-Otsak* proiektuaren azken emaitzetako bat oinarrizko inbentario arkeologikoa burutzea izan zen. Inbentario horretan jada Lea-Artibain kokatutako hainbat gerra-posizio azaltzen ziren; horien guztien artean, Legarmendiko guneak «BEU005» kodea jaso zuelarik: posizio frankista bat, lubaki perimetral batekin eta balizko babesleku batekin. 2020ko udaberrian, Legarmendi pinudi batek estaltzen zuen, egituren ikusmena eskasa zelarik. Hala ere, lurrazalean metraila zati bat aurkitu genuen: 5 x 10 cm ingurukoa, artilleriazko pieza batekoa izango zelarik[6].

2021ean, EHUko arkeologoen eta Ahaztuen Oroimena 1936 elkartearen arteko lan-marko partekatu horretan sakonduz, Baldaburuko gunean esku-hartze arkeologiko integrala abiatzea erabaki zen, Iturreta auzoan (Markina-Xemein). Zapola eta Zapolazpiko posizioen kasuan bezala, Baldaburun ere Markinaldeko bigarren defentsa-lerroari lotutako hainbat defentsa-egitura eraiki ziren 1936-1937. urteen artean. Horrela, gaur egun, Baldaburun hainbat altuera-maila eta orientazio desberdinen arabera antolatutako sistema bateratua antzeman daiteke: gailurrean, behatokia; mendimagalean, erdi-maila batean, bi metrailadore-postu; eta are beherago, metrailadore-postu bat babesleku batekin. 2021eko ekaina eta uztaila artean garatutako esku-hartzean, bi indusketa-gune ezarri ziren: Balda I (beheko postua) eta Balda II (erdi-mailako postua). Horrela, industutako bi hormigoizko egitura horiek eza-


La intervención arqueológica desarrollada durante julio de 2022 se integra en un marco de investigación más amplio. Ya desde el año 2014, en el Grupo de Investigación del Patrimonio Construido de la UPV/EHU, está en marcha la línea de investigación que aborda la «Arqueología de la Guerra Civil». Entre los años 2016-2017 se llevó a cabo el proyecto *Paisaia ahaztuak 1936-1937* con el objetivo de documentar los vestigios bélicos del frente conservados en Araba. Desde 2019 hasta 2020 se amplió y repasó lo iniciado años atrás a través del proyecto denominado *Guda-hotsak*: Junto a los restos de Araba, también en Bizkaia y Gipuzkoa, el nuevo eje de investigación se basó en el estudio arqueológico de todo el frente vasco implantado entre el otoño de 1936 y la primavera de 1937. Ambos proyectos recibieron el apoyo del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco. Desde 2014 hasta 2020 se han desarrollado varias intervenciones arqueológicas específicas en diferentes zonas de la CAPV: en el monte San Pedro/Askuren (Amurrio, Urduña), en la zona de Moreo (Zierbena), en la cima de Burbona Este (Zuia) y en Oketa y Ketura (Zigoitia).

Entre los años 2019 y 2020, en el contexto del proyecto *Guda-hotsak*, se puso en marcha la colaboración entre los arqueólogos de la UPV/EHU y la asociación *Ahaztuen Oroimena 1936* de Lea-Artibai. En aquella ocasión se desarrolló la documentación gráfica y topográfica de las posiciones republicanas de Zapola y Zapolazpi. Desde el punto de vista arqueológico, ambas posiciones fueron investigadas como ejemplos significativos de la segunda línea defensiva republicana de la zona de Markina. A nivel patrimonial, otro de los objetivos consistía en completar los materiales correspondientes a la ruta *MX-2 Ibilbidea*. Uno de los últimos resultados del proyecto *Guda-hotsak* fue la realización de un inventario arqueológico básico. En dicho inventario ya se recogían diversas posiciones bélicas situadas en Lea-Artibai, y entre todas ellas la zona de Legarmendi recibió el código «BEU005»: se trata de una posición franquista dotada de una trinchera perimetral y presunto refugio. En la primavera del año 2020, Legarmendi estaba cubierto por un pinar que impedía en gran medida la visibilización de las estructuras. Sin embargo, en la superficie encontramos un trozo de metralla de alrededor de 5 x 10 cm que probablemente correspondería a una pieza de artillería[6].

En el año 2021, en aras de profundizar en ese marco de trabajo compartido entre los arqueólogos de la UPV/EHU y la asociación Ahaztuen Oroimena 1936, se tomó la decisión de iniciar una intervención arqueológica en la zona de Baldaburu, en el barrio de Iturreta (Markina-Xemein). Así como en el caso de las posiciones de Zapola y Zapolazpi, en Baldaburu también se construyeron diferentes estructuras defensivas en la segunda línea defensiva de la zona de Markina entre los años 1936-1937. De ese modo, en Baldaburu actualmente se puede percibir un sistema unificado organizado en diferentes niveles de altura y orientación: en la cima el observatorio, a media ladera dos nidos de ametralladora; y más abajo, un nido de ametralladora con su correspondiente refugio. En la intervención desarrollada entre junio y julio de 2021 se establecieron dos zonas de excavación: Balda I (puesto inferior) y Balda II (puesto

[6] Santamarina Otaola, J.; Herrero Acosta, X. (2021): «Guda-Otsak. El frente estable de la Guerra Civil en el País Vasco (Álava / Bizkaia / Gipuzkoa», *Arkeoikuska 20*, 388-412.

[6] Santamarina Otaola, J.; Herrero Acosta, X. (2021): «Guda-Otsak. Gerra Zibilaren fronte egonkorra Euskal Herrian (Araba / Bizkaia / Gipuzkoa)», *Arkeoikuska 20*, 388-412. or.



Ortoimagen: Objetos documentados en la posición de Legarmendi.

Ortoirudia: Legarmendiko posizioan dokumentatutako objektuak.

gutza arkeologikoa eskaintzearekin batera, *MX-3 Ibilbidea*ren parte bilakatu dira.

Legarmendiko proiektua Lea-Artibaiko eskualdean garatutako lan guzti horien markoan txertatzen da. Baina, oraingo honetan, bando «altxatuak», matxinatuak edo frankistak eraikitako materialtasuna izan da aztergaia. Orokorrean, Euskal Herrian oso posizio frankista gutxi ikertu egin izan dira. Zenbait gudu-zelaietan erasoaldi frankistei lotutako faseak dokumentatu izan dira: esaterako, Lemoatxen (Lemoa) edota San Pedro/Askuren mendian (Amurrio, Urduña). Beste kronologia batzuei buruzko ikerketa-proiektuetan ere, okupazio frakistei lotutako aztarna materialak erregistratu izan dira. Horren adibide gisa, Debagoienan, Atxorrotxeko aztarnategian defentsa-posizio frankista baten arrastoak aurkitu izan dira hainbat kanpaina desberdinetan. Posizio frankista bat espezifikoki ikertu duen esku-hartze arkeologiko bakarrenetako bat Aranzadi Zientzia Elkarteko auzolandegien testuinguruan eman izan da: Larraulen, Murgil izeneko mendian hainbat zundaketa egin izan dira, kota horretan erreketeak egon zirelarik 1936ko abuztua eta irailaren artean[7].

Ondare frankista bezala definitu daitekeen aztarna multzoa arkeologikoki aztertzeari dagokionez, Nafarroa da aitzindaria Euskal Herrian. Azken urteetan, 1937tik aurrera Diktaduraren autoritateek martxan jarritako *muga*ren gotortzea ezagutzeko eta ezagutarazteko hainbat esku-hartze arkeologiko martxan jarri izan dira. *Vallespín Lerroa* eta *P Lerroa* bezala ezagu-

a media ladera). De ese modo, ambas estructuras de hormigón excavadas, además de ofrecer conocimiento arqueológico, se han convertido en parte de la ruta *MX-3 Ibilbidea*.

El proyecto de Legarmendi se integra en el marco de todas esas intervenciones desarrolladas en la comarca de Lea-Artibai. Sin embargo, en esta ocasión el tema de estudio ha sido la materialidad construida por el bando «alzado», sublevado o franquista. En general, en Euskal Herria se han investigado muy pocas posiciones franquistas. En algunos campos de batalla se han documentado fases correspondientes a ataques franquistas, por ejemplo en Lemoatx (Lemoa) y/o en el monte San Pedro/Askuren (Amurrio, Urduña). Del mismo modo, en proyectos de investigación sobre otras cronologías también se han registrado restos materiales asociados a ocupaciones franquistas. Como muestra de ello, en Debagoiena, en el yacimiento de Atxorrotx, a lo largo de diferentes campañas arqueológicas se han puesto al descubierto los restos de una posición defensiva franquista. Uno de las pocas intervenciones arqueológicas que ha investigado específicamente una posición franquista se ha llevado a cabo en el contexto de un trabajo comunitario dirigido por Aranzadi Zientzia Elkartea: en Larraul, en el monte denominado Murgil, se han llevado a cabo varios sondeos, ya que en esa cota se establecieron los requetés entre agosto y septiembre de 1936[7].

En lo que se refiere al análisis arqueológico del conjunto de restos que podría definirse como *patrimonio franquista*, Nafarroa es pionera en Euskal Herria. Durante los últimos años, se han iniciado diferentes intervenciones arqueológicas para conocer y divulgar la fortificación de la *frontera* llevada a cabo por las autoridades de la Dictadura. En Nafarroa se están investi-

[7] Blanco, J.; Peña-Muñoz, A.; Buces, J.; Almorza, K. (2020): «Arqueología en el sistema de defensa Saseta (Gipuzkoa): memoria y materialidad en el inicio de la Guerra Civil española». In Abelló, T.; Cattini, G. C.; Gavín, V.; Ibarz, J.; Santacana, C.; Solé, Q.; Vives, A. (coords.): *Postguerres-Aftermaths of War*, Universitat de Barcelona, Bartzelona: 632-645.

[7] Blanco, J.; Peña-Muñoz, A.; Buces, J.; Almorza, K. (2020): «Arqueología en el sistema de defensa Saseta (Gipuzkoa): memoria y materialidad en el inicio de la Guerra Civil española». Abelló, T.; Cattini, G. C.; Gavín, V.; Ibarz, J.; Santacana, C.; Solé, Q.; Vives, A. (koor.): *Postguerres-Aftermaths of War*, Universitat de Barcelona, Bartzelona: 632-645.

tzen diren defentsa-sistemen aztarnak ikertzen ari dira Nafarroan: Orreaga eta Auritz inguruan, Erronkariko haranean eta Erratzun (Baztan)[8]. Memoriaren Nafarroako Institutuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta zenbait arkeologo profesionalek euren lana *memoria demokratikoa*ren lanketa globalago batean ulertzen dute: 1936ko *altxatu*ek eta Francoren Diktadurak ekoiztutako espazio eta materialtasun horiek guztiek gaur egun jabetze kolektibo eta pedagogiko baten objektu bilakatu behar dira[9].

Berriatuko udalerria fronte-lerroaren ardatzetako bat bilakatu zen 1936ko urritik 1937ko apirilera arte. Lurraldea bitan zatituta geratu zen: Milloi eta Asterrikako auzoak gune errepublikarrean zeuden bitartean, Madalena auzoa matxinatuen kontrolpean geratu zen. Erribera, udalerriko herrigune nagusia, «inorren lurra» delakoan geratu zen (*no man's land*). Legarmendi fronte-lerro frankistaren posizioetako bat zen. Bertan, Falangeko indarrek erabateko protagonismoa izan zuten. Fase hori irudikatzearren, borrokalari batzuen egunerokoak ditugu. Besteak beste, Héctor Colmegna mediku argentinarrarena eta Luis Fernandez Arregi altsasuarrarena[10]. Edonola ere, 1937ko apirilaren hasieran, *Gezi Beltzak* (*Frecce Nere*) delako indar misto italiar-espainiarrak ere Legarmendi inguruan izan ziren. Beraz, proiektu arkeologiko honen bidez, italiar faxismoak –espainiar faxismoarekin batera– *altxatu*en garaipenean izandako protagonismoa aztertzeko aukera ere eskaintzen da.

Aztarna arkeologikoak

Legarmendiko gailurrean, 1936-1937. urteen artean ohikoak diren zenbait aztarna topa daitezke. Hasteko, mendi-magalean kokatutako lubaki bat: mendebaldeko magalean zehar finkatuta, iparralderanzko eta hegoalderanzko orientazioak ere ditu. Iparraldean mendi-pista batek lubakia moztu du, eta, beraz, gaur egun 26 metroko luzeera du, magalaren inguruan forma kurboa izanez.

Tontorrean behatokia kokatuko zen, bertatik Berriatua inguruko frontearen gaineko ikuspegi zabala lortzen delarik. Posizio frankistak izan zituzten beste gune batzuk ikus daitezke: Onuntzezabal hegoaldean; Amallosur eta Txindurri mendebaldean; Tontorramendi iparraldean. Eta, noski, posizio errepublikarrak izan zituzten mendi nagusiak ere: Ituñomendi, Epermendi, Laka, Eizmendi, Kalamendi eta Urkixamendi (Asterrika). Legarmendiko gailurraren inguruan lubaki-lerro bat egongo zen 1936tik 1937ra, baina gaur egun nekez antzeman daiteke lurrazalean. Tontorrean erpin geodesiko bat eta mendi-postontzia daude. Edonola ere, jatorrizko lubakia identifikatu ahal izateko, esku-hartze honen

gando los restos de los sistemas defensivos conocidos como *La línea Vallespín* y *Línea P*: en los alrededores de Orreaga y Auritz, en el valle de Erronkari y en Erratzu (Baztan)[8]. El Instituto Navarro de la Memoria, la Universidad Pública de Navarra y diversos arqueólogos profesionales entienden su trabajo dentro de un contexto de elaboración más global de la *memoria democrática*. Todos esos espacios y materialidades producidos por los *sublevados* de 1936 y la Dictadura Franquista deben convertirse hoy en día en objeto de una apropiación colectiva y pedagógica[9].

El municipio de Berriatua se convirtió en uno de los ejes de la línea del frente desde octubre de 1936 hasta abril de 1937. El territorio quedó dividido en dos: mientras que los barrios Milloi y Asterrika permanecieron en la zona republicana, el barrio de Madalena quedó bajo control de los sublevados. Erribera, principal núcleo urbano del municipio, quedó en «tierra de nadie» (*no man's land*). Legarmendi era una de las posiciones franquistas en la línea del frente. En la misma tuvieron total protagonismo las fuerzas de la Falange. Disponemos de diarios de varios soldados que reflejan dicha fase, entre otros, el del médico argentino Héctor Colmegna y el del altsasuarra Luis Fernández Arregi[10]. De todos modos, a principios de abril de 1937, las *Flechas Negras* (Frecce Nire), cuerpo mixto ítalo-español, estuvieron en los alrededores de Legarmendi. Por lo tanto, a través de este proyecto arqueológico, también se ofrece la posibilidad de analizar el protagonismo que tuvo el fascismo italiano –junto al fascismo español– en la victoria de los *sublevados*.

Restos arqueológicos

En la cima de Legarmendi podemos encontrar diversos restos comunes durante los años 1936-1937. Para empezar, una trinchera situada a media ladera del monte: establecido en la ladera occidental, se dispone con orientaciones hacia el norte y hacia el sur. Al norte una pista de montaña ha cortado la trinchera, por lo que actualmente muestra una longitud de 26 metros, formando una curva alrededor de la ladera.

En la cima se situaría el observatorio, desde el mismo se tendría una amplia visión sobre el frente de la zona de Berriatua. Se pueden ver otras zonas que dispusieron las posiciones franquistas: al sur Onuntzezabal, al oeste Amallosur y Txindurri; al norte Totorramendi. Y, cómo no, los principales montes que tuvieron posiciones republicanas: Ituñomendi, Epermendi, Laka, Eizmendi, Kalamendi y Urkixamendi (Asterrika). En torno a la cumbre de Legarmendi habría una línea de trincheras de 1936 a 1937, pero hoy en día es difícilmente perceptible en superficie. En la cima hay un vértice geodésico y un buzón de montaña. En cualquier caso, para poder identificar la trinchera original, en el marco de esta intervención se ha venido eliminando la capa vegetal en torno a 98 m2 de superfi-

[8] Zuazúa, N.; Arteta, E.; Zuza, C. (2020): «Arqueología de la fortificación del Pirineo en Navarra: hierro, cemento, memoria», *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, 27: 95-142.

[9] Gastón, J. M.; Layana, C. (2020): «Del terror a la esperanza, lugares de memoria en Navarra», *Huarte de San Juan. Geografía e historia*, 27: 71-94.

[10] Colmegna, H. (1942): *Diario de un médico argentino en la Guerra de España*, Espasa-Calpe, Madril.

[8] Zuazúa, N.; Arteta, E.; Zuza, C. (2020): «Arqueología de la fortificación del Pirineo en Navarra: hierro, cemento, memoria», *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, 27: 95-142.

[9] Gastón, J. M.; Layana, C. (2020): «Del terror a la esperanza, lugares de memoria en Navarra», *Huarte de San Juan. Geografía e historia*, 27: 71-94.

[10] Colmegna, H. (1942): *Diario de un médico argentino en la Guerra de España*, Espasa-Calpe, Madrid.

markoan, 98 m^2 inguruan geruza begetala kendu izan da. Horri esker, posiblea izan da lubaki horren ataltxo bat aurkitu eta dokumentatzea (4. sektorea, 370 metroko altueran).

Tontorrean behatokia eta lubaki-lerro txikia egongo zen moduan, metro batzuk beherago eta mendebalderanzko norabidean, mendi-magaleko lubakia zegoen (1. eta 2. sektoreak, 365 metroko altueran). 2020ko udaberrian, *Guda-Otsak* proiektuaren testuinguruan, lubaki hori jada antzemangarria zen. Forma kurboko lubaki bat, mendi-magalaren topografiara egokituta, ilargierdiko forma bat marrazten duelarik gailurraren inguruan. Lubaki sinplea da: tiro egiteko putzurik gabe, babesleku funtzioa betetzeko eskuadra-posturik gabe... Lubakien tipologia oso anitza da, baina, kasu honetan, soldadu frankistek lubaki-eredu sinpleena eraiki zutela esan daiteke.

Azkenik, Legarmendiko egitura arkeologiko esanguratsuena gailurretik hurbil kokatzen da ere, metro batzuk ekialdera, mendiaren iparraldeko isurialdean. Mendian ebakitako «zulo» dela esan daiteke, harpe artifizial bat, alegia. Mendiko harkaitza moztuz lortutako egitura negatiboa da eta «balizko babesleku» bezala definitu izan da hasieratik (3. sektorea, 369 metroko altueran). Atzegoardian kokatzen denez, «babesleku» edo «bizitoki» izatea arrazoizkoa dirudi. Gainera, Héctor Colmegna medikuaren egunerokora itzuliz, posizioetan beti bi konpainia zeuden zaintza-lanak egiten. Horrela, soldadu talde horiek babesteko gunea izan zitekeen mendian egindako hustuketa hori.

Legarmenditik Artibaiko mendebaldeko eta iparraldeko mendi-magalak bisualki kontrolatzeko aukera azpimarratzeko modukoa da. *Lubakien gerra* edo *posizioen gerra* garatu zen bitartean, 1936ko urritik 1937ko apirilera, frontea balizko «mugaldea» zen Errepublikarekiko leiala zen *Euzkadi* autonomoa eta Francoren kontrolpeko Espainiaren artean. Egoera horretan, Legarmendi bezalako espazio gotortuak zaintza-postuak ziren, mugalde horrekiko kontrol zorrotza inposatu behar zuten dorreak, hain zuzen.

Edonola ere, buruzagi eta soldadu frankisten interesetako bat, *etsaia*ren ikusizko kontrola baino gehiago, norberaren lerroen barnean zegoena ere zorrozki zaintzea zen. Héctor Colmegna mediku argentinarraren egunerokoan posizioen eta baserrien arteko erlazio estua mahaigaineratzen da. Bi konpainiek posizio bat zaintzen zuten bitartean, beste bi konpainia inguruko baserri batean instalatuta zeuden, euren txandaren zain eta lehenengo bi konpainia horiei babesa emateko prest. Horrela, posizio gotortuen eta baserrien arteko ikusizko erlazioa ezarri zen paisaia honetan. Soldaduek baserritarren eguneroko bizitza eta lana kontrolatzen omen zuten, zenbaitetan, balizko espioitza kasuak identifikatu eta gogorki zapaltzeko prest. Horrela, Legarmendiren inguruan, kilometro eskas bateko erradioan, Arantzadi, Urdiñoleta, Pertika, Olabe, Iturrino eta Legarregi baserriak zaindari armatuen menpe zeuden. Fronte-lerroan, *etsaia* ez zen soilik beste lubakian zegoena. Etsaia leku guztietan egon zitekeen eta, horregatik, lurraldearen militarizazioarekin batera, biztanleria zibilaren kontrola ere ezinbestekotzat jotzen zen.

cie. Eso ha permitido localizar y documentar una pequeña parte de dicha trinchera (sector 4, a 370 m de altitud).

Del mismo modo en el que en la cima se situarían el observatorio y una pequeña línea de trinchera, unos metros más abajo, en dirección hacia el oeste se encontraba la trinchera a media ladera del monte (sectores 1 y 2, a 365 m de altura). En la primavera del año 2020, en el contexto del proyecto *Guda-hotsak*, ya era visible dicha trinchera. Se trata de una trinchera de forma curvada, adaptada a la topografía de la ladera, que dibuja una forma de media luna alrededor de la cumbre. Es una trinchera simple: sin pozo de tiro, sin puestos de escuadra para desempeñar la función de refugio… La tipología de las trincheras es muy variada, pero en este caso podemos decir que los soldados franquistas construyeron el modelo de trinchera más sencillo.

Por último, también se encuentra cerca de la cima de Lergarmendi la estructura arqueológica más significativa, a unos metros al este, en la vertiente norte del monte. Se puede decir que se trata de un «agujero» realizado en el monte, es decir, una gruta artificial. Se trata de una estructura negativa realizada cortando la roca del monte, y desde un principio se ha definido como «presunto refugio» (sector 3, a 369 m de altura). Al situarse en la retaguardia, parece razonable que se trate de un «refugio» o «alojamiento». Además, volviendo al diario del médico Héctor Colmegna, en las posiciones siempre se disponían de dos compañías para que llevaran a cabo trabajos de vigilancia. Por tanto, dicho vaciado podría haber sido el lugar de refugio de los grupos de soldados.

Es de destacar las posibilidades que ofrece Legarmendi para tener bajo control visual las laderas oeste y norte de Artibai. Mientras se desarrolló la *Guerra de trincheras* o *posiciones de guerra*, entre octubre de 1936 y abril de 1937, el frente constituía la supuesta «frontera» entre la Euzkadi autonomoa fiel a la República y la España controlada por Franco. En ese contexto, los espacios fortificados como Legarmendi eran puestos de vigilancia, torres que debían imponer un férreo control sobre esa frontera.

En cualquier caso, uno de los intereses de las autoridades y soldados franquistas, más que el control visual del enemigo, era vigilar escrupulosamente también lo que estaba dentro de las propias filas. En el diario del médico argentino Héctor Colmegna se refleja la estrecha relación entre las posiciones defensivas y los caseríos. Mientras que dos compañías protegían una posición, otras dos compañías se instalaban en algún caserío de las inmediaciones, en espera de su turno y dispuestos a socorrer a las anteriores dos compañías. De ese modo, en este paisaje se estableció una relación visual entre las posiciones fortificadas y los caseríos. Parece que los soldados controlaban el trabajo y la vida cotidiana de los baserritarras, y que en algunas ocasiones identificaron y reprimieron duramente los posibles casos de espionaje. Así, alrededor de Legarmendi, en un radio de un kilometro escaso, estuvieron bajo dominio de los vigilantes armados los caseríos de Arantzadi, Urdiñoleta, Pertika, Olabe, Iturrino y Legarregi. En la línea del frente el *enemigo* no solamente era aquel que se encontraba en la otra trinchera. El enemigo podía estar en cualquier sitio, y por ello, junto con la militarización del territorio, se consideraba imprescindible el control sobre la población civil.

Konklusioak. Posizio frankista izatetik, herri-mendia izatera

Hasiera batean aipatutako ardatz historiko-arkeologikoaren ildotik, Legarmendiko gerra-posizio frankista ikertzeak informazio esanguratsua eskaintzen digula esan daiteke.

Lehenengo eta behin, posizio honen egitura gotortuen sinpletasuna edo are izaera apala (edo are «pobrea») azpimarratzeko modukoa da. Lubakia da defentsa-dispositibo nagusia: lubaki sinplea, tiro egiteko putzurik gabe, eskuadra-posturik gabe, artilleria arina instalatzeko gunerik gabe... Borroka-lubakia baino ez. Ez du zerikusirik Lea-Artibaiko eskualdean bertan posizio errepublikarretan aztertutako aberastasun morfotipologikoarekin: hormigoizko metrailadore-abi diferenteak, eskuadra-postuak, tiro egiteko putzuak, zig-zag formako komunikazio-lubakiak, etab. Honi lotuta, merezi du Patxi Juaristi EHUko irakaslearen hausnarketa bat hona ekartzea[11] (2014: 149):

«Edozelan ere, alde bateko eta besteko lubakiak ikusi zituztenek diotenez, frankistenak errepublikazaleenak baino sakonera eta babes gutxiagokoak ziren. Itxura denez, zeuden posizioetatik aurrera egingo zutenaren esperantzarekin egindakoak ziren.»

«Sakonera eta babes gutxiagokoak». Honakoa ez omen da Legarmendin soilik dokumentatu izan den salbuespenezko kasua. Beste fronte-lerro batzuetan ere, frankistek «gotortze alferkeria» («pereza fortificadora» jatorrizko aipuan) erakutsi zutela esan ohi da[12]. Ipar-ekialdeko isurialdean eraikitako babeslekuari dagokionez, harkaitzean ebakitako espazio ikusgarria den arren, antzeko zerbait ondoriozta daiteke: oso egitura sinplea da, «zulo handi» bat baino ez, jatorrian babeserako eta kamuflajerako elementuak izango omen zituena.

Legarmendiko egitura gotortuak oso sinpleak eta xumeak ziren arren, ez dirudi mendiak erasorik jasan zuenik. Ez da kraterrik edo beste artilleriazko inpakturik dokumentatu. Metrailaren presentzia ere marjinala dela esan daiteke. Orokorrean, frankistek eurek erabilitako munizioaren aztarnak baino ez dira erregistratu. Eta ezin da esan munizio-piezen kopurua oso altua izan denik ere. Beraz, fronte «lasaia» izan zela pentsa daiteke, batez ere, Legarmendiko soldaduentzat.

Munizioari dagokionez, gehiena Mauser 7 x 57 mm kalibrekoa da. Oso markaketa gutxi irakurgarriak diren arren, kalibre hori espainiar ekoizpenekin erlaziona daiteke. Normalean, Sevilla eta Toledoko piezak. Hala ere, Mauser 7,92 x 57 mm kalibreko pieza alemaniarrak ere dokumentatu dira Legarmendin: Alemania naziak Francoren alde egindako inbertsio erabakigarriaren ebidentzia. Horrela, bi kalibre ziren nagusiki Legarmendin erabiltzen zirenak. Horrek munizioaren estandarizazio maila altua erakusten du, batez ere, posizio errepu-

Conclusiones. De ser una posición franquista a ser un monte público

En línea con el eje histórico-arqueológico mencionado inicialmente, la investigación de la posición bélica franquista de Legarmendi nos ofrece información relevante.

En primer lugar, cabe destacar la simplicidad o incluso el carácter modesto (o incluso «pobre») de las estructuras fortificadas de esta posición. El dispositivo principal de defensa es la trinchera: trinchera simple, sin pozo de tiro, sin puesto de escuadra, sin zonas para instalación de artillería ligera… Nada más que una trinchera. Nada que ver con la riqueza morfotipológica de las posiciones republicanas analizadas en la propia comarca de Lea-Artibai: nidos de ametralladora de hormigón, puestos de escuadra, pozos de tiro, trincheras de comunicación en zigzag, etc. En este sentido, merece la pena traer aquí una reflexión del profesor de la UPV/EHU Patxi Juaristi (2014: 149)[11]:

«Edozelan ere, alde bateko eta besteko lubakiak ikusi zituztenek diotenez, frankistenak errepublikazaleenak baino sakonera eta babes gutxiagokoak ziren. Itxura denez, zeuden posizioetatik aurrera egingo zutenaren esperantzarekin egindakoak ziren.»

«De menos calado y protección». Parece que esta posición de Legarmendi no es la única excepción documentada. También se cita que los franquistas mostraron «pereza fortificadora» en otras líneas del frente[12]. En lo que respecta al refugio construido en la vertiente noreste, aunque se trata de un espacio espectacular cortado en roca, se puede deducir algo similar: se trata de una estructura muy sencilla, nada más que un «gran agujero» que originalmente dispondría de elementos de protección y camuflaje.

A pesar de que las estructuras fortificadas de Legarmendi eran muy sencillas y simples. No parece que el monte fuese objeto de ataques. No se han documentado cráteres u otros impactos de artillería. Se puede decir que la presencia de metralla también es marginal. En general, sólo se han registrado restos de munición utilizados por los propios franquistas. Y tampoco se puede decir que el número de piezas de munición haya sido muy alto. Por tanto, se puede pensar que se trató de un frente «tranquilo», sobre todo para los soldados establecidos en Legarmendi.

En cuanto a la munición, la mayor parte es del calibre Mauser 7 x 57 mm. Aunque son muy escasos los marcajes legibles, ese calibre puede relacionarse con las producciones españolas. Mayormente piezas de Sevilla y Toledo. A pesar de eso, también se han documentado piezas alemanas del calibre Mauser 7,92 x 57 mm: clara evidencia de la decisiva inversión realizada por la Alemania nazi a favor de Franco. De ese modo principalmente fueron dos los calibres utilizados en Legarmendi. Y eso muestra un alto nivel de estandarización de la munición utilizada, sobre todo en comparación con lo que se ha

[11] Juaristi, P. (2014): *Gerra Zibila Berriatuan eta Lekeitioko frontean: Berriatua Berrezarkuntzan, II. Errepublikan eta Gerra Zibilean*, EHU, Bilbo.

[12] De Sequera Martínez, L. (2001): *Historia de la fortificación española en el siglo XX*, Caja Duero, Salamanca.

[11] Juaristi, P. (2014): *Gerra Zibila Berriatuan eta Lekeitioko frontean: Berriatua Berrezarkuntzan, II. Errepublikan eta Gerra Zibilean*, EHU, Bilbo.

[12] De Sequera Martínez, L. (2001): *Historia de la fortificación española en el siglo XX*, Caja Duero, Salamanca.

blikarretan aztertu izan denarekin konparatuz. Esate baterako, San Pedro/Askurengo posizioan, Amurrio-Urduñako frontean, 2016tik egindako indusketa-kanpainietan, gutxienez bost kalibre mota diferente dokumentatu egin izan ditugu, munizioaren jatorri geografikoa ere oso anitza izanik: Mexiko, Sobietar Batasuna, Frantzia, Estatu Batuak, Polonia, Txekoslovakia, Austria, Britainia Handia... Legarmendiren kasuan bezala, bi kalibre eta bi jatorri baino ez. 2022ko esku-hartze honetan ez da beste ezer dokumentatu, baina, kontuan izan behar dugu 2019ko ekainean, herritar batek Legarmendin Carcano 6,5 mm kalibreko balazorro italiarra ere aurkitu zuela: ziurrenik 1937ko apirilean *Gezi Beltzek* inguruan izandako protagonismoaren ebidentzia argienetako bat.

Errepublikaren aurka *altxatu* zirenentzat, Euzkadiko proiektu autonomoa suntsituko zutenentzat eta Francoren *garaipena* lortuko zutenentzat, Legarmendikoa leku «lasaia» izan omen zen. Frontearen lurralde-eskema oso finkatuta zegoen bailararen arabera eta ez zen oso gune estrategikoa kontsideratzen euskal fronte osoaren testuinguruan. Hala ere, ondo dakigunez, «lasaia» izateak ez du esan nahi indarkeria egon ez zenik. Legarmendiko posiziotik hainbat baserrien gaineko ikusizko kontrola lortzen zen eta, gainera, gerra mota horrek –*posizioen gerra* delakoak– lurraldearen militarizazio zorrotza ekarri zuen. Horren adibide traumatiko gisa, gerran zehar bizia galdu zuten Berriatuko sei bizilagunak aipatu behar dira.

Edonola ere, esku-hartze honen bidez, Legarmendi Berriatuko udalerrirako espazio eraberritua eta gozagarria izaten lagundu nahi izan dugu. Mendi publikoa eta, beraz, ondare publikoaren zentzu etikoa, zibikoa zein politikoa barneratzen dituena. Garai batean militarizatuta egon zen kontrolerako espazioa, hemendik aurrera, ingurumen- eta ondare-mailan sostengarria izango den gunea izango da. Ibilbide horretan, Arkeologiak oso erreminta erabilgarriak erakusten ditu, baita balazorro xume batzuk dokumentatzeko balio duenean ere.

estudiado en las posiciones republicanas. Por ejemplo, en la posición de San Pedro/Askuren, en el frente de Amurrio-Urduña, en las campañas de excavación realizadas desde 2016 hemos documentado por lo menos cinco calibres diferentes, siendo también muy variado el origen geográfico de dicha munición: México, Unión Soviética, Francia, Estados Unidos, Polonia, Checoslovaquia, Austria, Gran Bretaña… Pero en el caso de Legarmendi, únicamente se identifican dos calibres y dos procedencias. En esta intervención de 2022 no hemos documentado nada más, pero hemos de tener en cuenta que en junio de 2019, un lugareño encontró un casquillo de calibre Carcano 6,5 mm de procedencia italiana: probablemente se trate de una de las más claras evidencias del protagonismo que tuvieron las *Flechas Negras* en este entorno en abril de 1937.

Para los que se *alzaron* contra la República, para los que destruirían el proyecto autónomo de Euzkadi y para los que lograrían la *victoria* de Franco, el de Legarmendi fue un lugar «tranquilo». El esquema territorial del frente estaba muy consolidado en función del valle y no se consideraba un núcleo muy estratégico en el contexto de todo el frente vasco. Sin embargo, como bien sabemos, ser un lugar «tranquilo» no significa que no haya habido violencia. Desde la posición de Legarmendi se conseguía un control visual sobre varios caseríos y, además, este tipo de guerra –la llamada guerra de las posiciones– dio lugar a una estricta militarización del territorio. Como ejemplo traumático de ello hay que citar a los seis vecinos de Berriatua que perdieron la vida durante la guerra.

En cualquier caso, con esta intervención hemos querido contribuir a que Legarmendi sea un espacio reformado y de disfrute para el municipio de Berriatua, que integre el monte público y, por tanto, el sentido ético, cívico y político del patrimonio público. El espacio de control que antaño estuvo militarizado será, a partir de ahora, un espacio sostenible a nivel medioambiental y patrimonial. En este recorrido, la Arqueología muestra herramientas muy útiles, incluso cuando sirve para documentar unos sencillos casquillos.

J. Santamarina Otaola; E. Alcántara Díez; P. Fernández García; M. Ezkerra Elorza; A. Arechavaleta Larreategui

B.7. BERRIZ

B.7.1. Ama Birjiñen Basoa trikuharria. Basoko bakantze lanak

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.7.1. Dolmen de Ama Birjiñen Baso. Labores de entresaca forestal

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The text describes the archaeological monitoring process of a forest clearing operation in zones 1 and 2 of the protected area containing the Ama Birjiñen Baso dolmen, in Berriz.

Ama Birjiñen Basoa trikuharria Oiz mendiaren (1.026 m.) hego/hego-mendebaldeko mazelako ordeka batean dago, Undekorta muinoaren (664 m.) hego/hego-mendebaldera 450 m-ra eta Oiz mendiaren hego-ekialdean Iturrizuri-Kanterazuri izeneko ordeka handi batera daraman baso bidetik 80 m-ra. Oinplano zirkularreko egitura tumu-

El dolmen de Ama Birjiñen Baso se sitúa en un rellano localizado en la ladera S.SW del monte Oiz (1.026 m), a 450 m al S.SW de la colina de Undekorta (664 m) y a 80 m de la pista forestal que se dirige al gran rellano de Iturrizuri-Kanterazuri, al SE del monte Oiz. Se trata de una estructura tumular de planta circular, sin cráter cen-

larra da, erdiko kraterrik gabea. Badaude balizko ganbera angeluzuzen baten ebidentziak: 1,30 m luze den lauza, ipar-mendebaldetik hego-ekialdera 240º-ko orientazioarekin, lauza txikiago batekin angelua eratuz. Gainera, badira beste 3 ortostato handi monumentuaren gainean etzanda: hiru horietatik handiena bloke monolitiko landu bat da, 1,80 x 0,80 x 1,50 m-ko neurriak ditu.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak eta Berrizko eta Mallabiko Udalek sustatutako proiektuaren testuinguruan, Oizko Estazio Megalitikoari balioa eta zabalkundea emateko, lurren jabeekin (Andikona Kofradia) adostu zen monumentua babesteko 1. eta 2. Guneetan hazten ziren 14 pinu moztea. Azkenik, lur jabeek ez zuten lanen hasieraren berri eman, eta zuhaitzak derrigorrezko kontrol arkeologikoa egin gabe moztu zituzten. Hala eta guztiz ere, kontu handiz egin zuten lana, eta eragin arinen bat baizik ez genuen hauteman tumuluaren gainean etzanda dauden bi ortostatotan.

tral. Hay evidencias de una posible cámara rectangular: una losa de 1,20 m de longitud, orientada a 240º NW-SE, formando ángulo con una losa menor. Además, otros 3 grandes ortostatos yacen tumbados sobre el monumento: de éstos, el mayor es un bloque monolítico labrado, de 1,80 x 0,80 x 0,15 m.

En el marco del proyecto de puesta en valor y difusión de la Estación Megalítica de Oiz, promovido por el Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco y Ayuntamientos de Berriz y Mallabia, se acordó, con los propietarios del terreno (Kofradia Andikona), talar una serie de 14 pinos que crecían sobre las zonas 1 y 2 de protección del monumento. Finalmente, los propietarios del terreno no comunicaron el inicio de obra y la tala se llevó a cabo sin el obligatorio control arqueológico. A pesar de todo, el trabajo se hizo con cuidado, habiendo registrado alguna afección leve sobre dos de los ortostatos que aparecen tumbados en el túmulo.

J.C. López Quintana

B.8. BUSTURIA

B.8.1. Matxategi/ Matategi baserria (2. BAG. Santi Mami baseliza)

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantzazioa: Jabea

B.8.1. Caserío Matxategi/ Matategi (ZPA nº 2. Ermita de San Mamés)

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Propiedad

The work carried out on the Matategi Farmhouse took into account the possible link between this building and the presumed presence in the area of the San Mamés Chapel in Busturia. The results failed to confirm the association between the two constructions, and no remains of the chapel were found.

Sarrera geografikoa eta historikoa

Matategiko Santi Mami baselizaz hitz egitea ezagutzen ez den ondare elementu batez hitz egitea da, izan ere, ez dago eraikin horrekin lotu litekeen ageriko aztarnarik. Ustez Matxategi baserria dagoen aurkintza berean dago, baina hainbat dira hitz horiek desitxuratzen dituzten erreferentzia historiografikoak.

Gurutzi Arregiren *Ermitas de Bizkaia* argitalpenean (1987) hauxe adierazten digu hitzez hitz: «estuvo situada en el barrio Kantale, en el lugar que ocupa actualmente el caserío Matati (Matxategi), junto al camino real y antigua calzada que conduce a la casa Romana. Otros caseríos próximos: Kaltzada, Babene, Zupide y Zupidetxu».

Egile berak Karmelo Etxegarairen[13] aipamen bat jasotzen du, honela dio hitzez hitz: «De la de San Mamés, que ha desaparecido ya, no se sabe sino que debía estar junto al caserío de Matategui, pues con ese nombre de Matategui se le cita en el inventario de los bienes de la Iglesia de Aspe, hecho de Diciembre de 1644».

J. R. Iturriza y Zabalaren *Historia General de Vizcaya* obran (1785), Busturiko Axpe elizatean zeuden eraikinak

Introducción geográfica e histórica

Hablar de la ermita de San Mamés de Matategi es hablar de un elemento patrimonial desconocido por la ausencia de restos asignados a dicha edificación. Se presupone su emplazamiento en el mismo enclave en el que se erige el caserío Matxategi, sin embargo, son varias las referencias historiográficas que desdibujan tales palabras.

En la publicación de *Ermitas de Bizkaia* (1987), de Gurutzi Arregi se nos señala: «estuvo situada en el barrio Kantale, en el lugar que ocupa actualmente el caserío Matati (Matxategi), junto al camino real y antigua calzada que conduce a la casa Romana. Otros caseríos próximos: Kaltzada, Babene, Zupide y Zupidetxu».

La misma autora recoge una cita de Carmelo de Echegaray[13], en la que se recoge: «De la de San Mamés, que ha desaparecido ya, no se sabe sino que debía estar junto al caserío de Matategui, pues con ese nombre de Matategui se le cita en el inventario de los bienes de la Iglesia de Aspe, hecho de Diciembre de 1644».

En la *Historia General de Vizcaya* de J. M. de Iturriza y Zabala (1785) al mencionar las edificaciones existentes

[13] Echegaray, C.: Geografía General del País Vasco-Navarro. Provincia de Vizcaya. Barcelona, 1921: 794

[13] Echegaray, C.: Geografía General del País Vasco-Navarro. Provincia de Vizcaya. Barcelona, 1921: 794

aipatzean, izen hori baitzuen herriak, bederatzi baseliza aipatzen dira, horien artean Santi Mamikoa.

Ramos Larribak, bere aldetik, hauxe adierazten du Busturiko udalerriko azterlan historikoa eta artistikoa lanean (1997) baseliza horri dagokionez:

«*Esta ermita se hallaba en el barrio de Kantale, junto al caserío Matategui; en un lugar próximo a la actual estación ferroviaria de Busturia-Pedernales. (…) ya existía en el siglo XVII. El libro de Fábrica de finales de esta centuria ya la cita en su contabilidad: Iten ciento y treynta y un reales y veinte mrs. Que costo el quebrante hecho junto a la ermita de San Mamés y su cerradura de vallado.*

También a la ermita de San Mamés llegaban las procesiones que todos los años organizaba el cabildo eclesiástico en cumplimiento de lo acordado con el ayuntamiento en 1755. (…) A comienzos de la década de 1790 debía hacer ya bastante tiempo que no se celebraban misas en esta ermita porque, según auto de visita de 1793, se hallaba en un deplorable estado de conservación: «También se visitó la Hermita titulada de San Mamés que la cercan las aguas saladas queando hay plena mar; la que se halló sin altar, Efigies, mesa, ni otra señal alguna de lugar sagrado, y solo las paredes, y el tejado, y una casa pegante a ella, y por estar informado S.S.I que no se celebra en dha hermita hace muchos años el santo sacrificio de la misa y que se tiene como profanada prohivia y prohivio se vuelva a usar de ella para cosas sagradas y declarándola como S.S.I la declaró profanada, daba, y dio licencia en forma para que pueda servir de casa de habitación, con tal que no se haga en ella establo de animales ni depósitos de inmundicias sobre que celara el cura de dha Yglesia a quien corresponde la citada hermita».

La ermita de San Mamés, inhabilitada para la celebración de actos litúrgicos por orden del prelado de la diócesis, D. Francisco Mateo Aguiriano, fue demolida poco después de esta visita. Así consta ya en el Data del Libro de Fábrica de 1795. La iglesia parroquial siguió alquilando la casa contigua a la ermita con sus pertenecidos, percibiendo una renta anual de 22 reales, pero la ermita desapareció.»

Askotariko informazioa eskaintzen digu hainbat ikertzailek emandako informazio horrek. Hasteko, Karmelo Etxegarairen idatziak adierazten digunez, badakigu Santi Mami baseliza jada bazela XVII. mendearen lehen erdian, eta denboran harago arakatzerik ez dagoen arren, horrek ez du esan nahi are zaharragoa izan ez daitekeenik. Bigarrenik, badakigu XVIII. mende amaieran desakralizatuta zegoela, ordurako oso kontserbazio egoera txarrean zegoela, eta 1795ean eraitsi zutela. Eta azkenik, agian informazio interesgarriena hauxe baita, behin eta berriz aipatzen dela baseliza ondoko baserri bat, Matategi izenekoa.

Gaur egungo eraikinari dagokionez, argi eta garbi ikus daiteke mendebaldeko fatxada dela atalik zaharrena. Eraikinaren alde horretan argi eta garbi ikus daitezke itsututako bi bao. Bata, leiho txikia, goiko solairuan, eta bestea behe solairuan, gaur egungo zoruaren mailan. Bao horiek kanpoko aldetik antzeman daitezkeen arren, barrutik leihoa baizik ez daiteke nabari. Ateari legokiokeen baoari dagokionez, barruko aldetik, hormaren

en la anteiglesia de Axpe de Busturia, nombre con el que se conocía a esta población, se mencionan nueve ermitas, entre las que señala la de San Mamés.

Por su parte, Ramos Larriba, en el Estudio histórico-Artístico del municipio de Busturia (1997) señala lo siguiente en relación a la ermita:

«*Esta ermita se hallaba en el barrio de Kantale, junto al caserío Matategui; en un lugar próximo a la actual estación ferroviaria de Busturia-Pedernales. (…) ya existía en el siglo XVII. El libro de Fábrica de finales de esta centuria ya la cita en su contabilidad: Iten ciento y treynta y un reales y veinte mrs. Que costo el quebrante hecho junto a la ermita de San Mamés y su cerradura de vallado.*

También a la ermita de San Mamés llegaban las procesiones que todos los años organizaba el cabildo eclesiástico en cumplimiento de lo acordado con el ayuntamiento en 1755. (…) A comienzos de la década de 1790 debía hacer ya bastante tiempo que no se celebraban misas en esta ermita porque, según auto de visita de 1793, se hallaba en un deplorable estado de conservación: «También se visitó la Hermita titulada de San Mamés que la cercan las aguas saladas queando hay plena mar; la que se halló sin altar, Efigies, mesa, ni otra señal alguna de lugar sagrado, y solo las paredes, y el tejado, y una casa pegante a ella, y por estar informado S.S.I que no se celebra en dha hermita hace muchos años el santo sacrificio de la misa y que se tiene como profanada prohivia y prohivio se vuelva a usar de ella para cosas sagradas y declarándola como S.S.I la declaró profanada, daba, y dio licencia en forma para que pueda servir de casa de habitación, con tal que no se haga en ella establo de animales ni depósitos de inmundicias sobre que celara el cura de dha Yglesia a quien corresponde la citada hermita».

La ermita de San Mamés, inhabilitada para la celebración de actos litúrgicos por orden del prelado de la diócesis, D. Francisco Mateo Aguiriano, fue demolida poco después de esta visita. Así consta ya en el Data del Libro de Fábrica de 1795. La iglesia parroquial siguió alquilando la casa contigua a la ermita con sus pertenecidos, percibiendo una renta anual de 22 reales, pero la ermita desapareció.»

Esta información dada por diferentes investigadores, nos muestra una información variada. En primer lugar, que de la ermita de San Mamés se sabe de su existencia en la primera mitad del siglo XVII, como así nos lo atestigua el relato de Carmelo de Echegaray, no pudiendo rastrearla más allá en el tiempo, aunque eso no quite que pudiera tener una mayor antigüedad. En segundo lugar, que a finales ya del siglo XVIII se desacraliza, estando ya en un estado de conservación muy malo, llegando a su derribo en el año 1795. Y, en tercer lugar, y posiblemente el de mayor interés, es la repetida cita a la existencia de un caserío inmediato a la ermita, y al que ya se cita como caserío Matategui.

En cuanto al edificio actual, se puede comprobar que la parte más antigua la localizamos en la fachada oeste. En este lado del edificio es visible la presencia de dos vanos cegados. Uno, una pequeña ventana situada en el piso alto, y otro, en la planta baja, a la altura del suelo actual, una posible puerta. Si bien estos vanos son perceptibles desde el exterior, solamente la ventana

kontra dauden higigarriek eta lanabesek galarazi egiten dute alde hori behar bezala ikusi ahal izatea.

Lan arkeologikoen emaitzak

Matxategi baserriaren hegoaldeko etxebizitzan bideratutako lanetan ez da ezkutaturiko ondare aztarnarik identifikatu ukitutako azalera osoa estaltzen zuen zoladuraren azpian. Bi unitate estratigrafiko baizik ez ditugu antzeman. Lehenengoa etxebizitza osoa hartzen duen zoladura da. Mailakatuta dago maila bat dagoelako etxebizitzaren eta ukuiluaren artean. Etxebizitza ukuilua baino gorago dago.

Zoladura horren azpian jatorri antropikoko geruza bakarra dokumentatu dugu, soilik ukuilu aldean, ez etxebizitzan. Hormigoizko zoladura hartzeko oinarriarena egiten duen hareharrizko eta kareharrizko (gehienak) blokeez osatutako depositua da. Geruza horren lodiera gunearen araberakoa da, baina aski erregularra da, gutxi gorabehera 35 cm lodi. Harrizko piezak modu irregularrean daude ipinita, eta era berean ukuiluaren espazio osoa estaltzen dute. Ez dugu harriei lotutako kareorezko hondakinik identifikatu, eta beraz, ez dugu gaur egungo baserriko zoladuraren azpian ezkutaturiko balizko eraikuntza egituren balizko presentziari buruzko hipotesi bat planteatzeko moduko informazioa eman ziezagukeen aztarnarik hauteman.

Lehen ere azaldu dugunez, geruza hori eraikinaren atzeko aldean baizik ez da erregistratzen, ukuilu erabilerarako aldean. Aitzitik, etxebizitzari emandako aldean, hormigoizko zoladura altxatuta zuzenean ikusten dugu substratu geologikoa. Eta beste horrenbeste gertatzen da alde honetan eraikitako pilareekin eta hormekin, guztiek hartzen baitute atseden maila geologikoaren horizontaltasunaren gainean.

Ezin dugu ziurtatu substratu geologikoaren maila erregularra gizakiak moldatua edo eraldatua den. Guk uste dugu halaxe dela, nahiz eta baserriaren inguruko zelaia ere horizontala den.

Tokiko berezko arroka soilik ukuilu aldean bereizten da, eta argi eta garbi ikus daiteke ez dela eraldatua izan. Horren erakusgarria da eraikinaren hego-mendebaldeko angeluan dagoen arroka puska, baserriko zimendu oinarriarena egiten duena nola hegoaldeko horman hala mendebaldekoan.

Etarteari dagokionez, zoladura eratzen duen lauzadurak zuzenean hartzen du atseden substratu geologikoaren presentzia salatzen duen geruza buztintsuaren gainean.

Konklusioak

Matategi baserrian burututako esku hartze hau bere garaian Matategiko Santi Mami baseliza eraiki ahal izan zen orubetzat hartu izanaren ondorio da.

Lan arkeologikoetatik ateratako dokumentazioak ez digu tenplu hori eraiki ahal izan zen gune bati buruz hitz egiteko moduko aztarna materialik eskaini.

Kontrol arkeologikoko fasean zehar dokumentatutako ebidentzia estratigrafikoak ez du eraikuntza zanes apreciable desde el interior. En el caso del posible vano de la puerta, desde el interior, todo el material mueble y aperos apoyados sobre el muro, impiden la correcta visión de la zona.

Resultados de los trabajos arqueológicos

Los trabajos efectuados en la vivienda sur del caserío Matxategi no han dado con evidencias de carácter patrimonial ocultas bajo la solera que cubría toda el área intervenida. Únicamente se detectan dos unidades estratigráficas. La primera es la solera que se extiende por toda la vivienda. Esta se presenta abancalada debido al escalón existente entre el área de habitación y el área de cuadra. La primera se encuentra más alta que el espacio destinado al ganado.

Bajo esta solera se ha documentado un solo estrato de origen antrópico, documentado únicamente en la zona de cuadra, no en la de la vivienda. Se trata de un depósito de bloques de piedra arenisca y caliza (mayoritaria en el depósito), que sirve de base para el asiento de la solera de hormigón. La potencia de este estrato varía según la zona, aunque mantiene una regularidad entorno a los 35 cm de potencia. La disposición de las piezas pétreas es irregular, y cubren del mismo modo todo el espacio de cuadra. No se han observado restos de argamasas asociadas a las piedras detectadas y que pudieran informarnos, o al menos poder hipotetizar, sobre la posible presencia de estructuras constructivas ocultas bajo la solera del actual caserío.

La presencia de este estrato, como se ha señalado previamente, se nos muestra únicamente en la parte trasera, aquella destinada al uso de cuadra. En el espacio de habitación vemos como el sustrato geológico se localiza de manera directa una vez retirada la solera de hormigón. Misma relación de inmediatez con el sustrato geológico detectamos en relación a los pilares o muros levantados en éste área. Todos ellos se apoyan sobre la horizontalidad que presenta el nivel geológico.

No podemos asegurar si el nivel regular que presenta el sustrato geológico ha sido alterado o modificado por el ser humano. Entendemos que dicha posibilidad es más que justificada pese a la horizontalidad que presenta el campo existente alrededor del caserío.

La roca propia del lugar se localiza únicamente en el área de cuadra, no viendo que esta haya sido alterada o que muestre dicha intencionalidad. Un caso muy evidente es como en el ángulo suroeste del edificio se alza una peña que hace las funciones de base de cimentación del caserío, tanto del muro sur como del oeste.

En relación al etarte, el enlosado que define el pavimento, se asienta directamente sobre el estrato arcilloso que identifica la presencia del sustrato geológico.

Conclusiones

La actuación llevada a cabo en el caserío Matategi viene en relación directa con la asignación de este solar como aquél en el que pudo erigirse en su día la ermita de San Mamés de Matategi.

La documentación extraída de los trabajos arqueológicos no ha mostrado evidencias materiales que nos posibilite hablar de un espacio donde pudo erigirse dicho templo.

La evidencia estratigráfica, recogida durante la fase de control arqueológico, no ha ofrecido indicios cons-

tzurik edo beste mota bateko ondare arrastorik bat ere eskaini (esate baterako, zorupean hilobiak edo zeramikak edo metalak bezalako kultura materialaren aztarnak egon daitezkeelako zantzuak). Halaber, aurrez aurre dugun egitura arkitektonikoa, itxura guztien arabera oso-osorik dagokio Matxategi baserria definitzen duen eraikina eraikitzeko proiektuari.

Kontuan harturik Ramos Larriba eta Karmelo Etxegarai egileek eta historialariek adierazitakoa, baliteke Santi Mami baseliza Matxategi baserria hartzen duen orube berberean ez egotea, baizik eta haren ondoan, egile horiek dioten bezala.

tructivos o de otra índole patrimonial (como pudieran ser indicios de la presencia de sepulturas en el subsuelo o restos de cultura material como cerámica o metales). De igual modo, el esqueleto arquitectónico con el que nos encontramos, parece que obedece íntegramente al proyecto constructivo del edificio rural que define al caserío Matxategi.

Recogiendo lo señalado por autores e historiadores, como Ramos Larriba o Carmelo de Echegaray, es posible que la ermita de San Mamés no se encontrase en el mismo solar que el caserío Matxategi, sino junto a él, como así señalan.

R. Rodríguez Calleja

B.8.2. **Añabustiko trikuharria. Sastrakak kentzeko eta mozteko lanak**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.8.2. **Dolmen de Añabusti. Trabajos de desbroce y tala**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The text outlines the archaeological monitoring of woodland clearing and felling operations in zones 1 and 2 of the protected area containing the Añabusti dolmen.

Bizkaiko Foru Aldundiak Añabustiko trikuharria (Busturia) hartzen duten lurrak erosita, monumentua babesteko 1. eta 2. guneetan sastrakak kentzeko eta zuhaitzak mozteko lanak amaitu ahal izan ziren. Alde batetik, 2022ko apirilaren 4an, garbitu egin zen trikuharria, zuhaixka landareek (otea eta laharra) inbadituta baitzegoen. Abuztuaren 1ean, inguruan basolanak egiteko makina bat zebilela aprobetxaturik, aurreko urtean moztu gabe utzitako 11 pinuak moztu ziren. Lan horiek eskuz egin ziren, pinuak trikuharriaren kanpoko alderantz botata, eta 3. gunetik atera ziren babes eremuko 1. eta 2. guneei eragin gabe. Lan horiek guztiak arkeologo profesional baten ikuskaritzapean eraman ziren burura.

La compra del terreno donde se ubica el dolmen de Añabusti (Busturia), por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, propició el que se concluyeran las labores de desbroce y tala dentro de las zonas 1 y 2 de protección del monumento. Por una parte, el 4 de abril de 2022 se hizo el desbroce del dolmen, que se encontraba invadido de vegetación arbustiva (argoma y zarza). El 1 de agosto, aprovechando la presencia de una máquina procesadora forestal en la zona, se talaron los 11 pinos que se habían dejado sin cortar el año anterior. Esta labor se realizó de forma manual, tirando los pinos hacia el exterior del dolmen, y siendo extraídos desde la zona 3, sin ninguna afección a las zonas 1 y 2 de protección. Todo ello se llevó a cabo bajo la vigilancia y seguimiento de un profesional de la arqueología.

J.C. López Quintana

B.9. **DIMA**

B.9.1. **Axlor haitzuloa**

Zuzendaritza: Jesús Emilio González-Urquijo
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia,
IIIPC (Kantabriako Unibertsitatea, Santander, Kantabriako Gobernua),
AEI (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa)

B.9.1. **Abrigo de Axlor**

Director: Jesús Emilio González-Urquijo
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia,
IIIPC (Universidad de Cantabria, Santander, Gobierno de Cantabria), AEI (Ministerio de Ciencia e Innovación)

The 2022 season of excavations in Axlor forms part of a study aiming to explore the historical dynamics of Neanderthal societies in North Atlantic peninsular areas. The fieldwork comprised the excavation of the upper Mousterian levels and the demarcation of the fillers deposited during previous interventions. In the laboratory, we analysed the sedimentary characteristics of the deposits, established the chronology of the sequence and studied the remains of a Neanderthal human.

Axlor aztarnategian bideratzen ari den esku hartze arkeologikoak Goi Pleistozenoko gizarte neandertalekin lotutako alderdi historiko sorta bati heltzen dio. Ho-

La intervención arqueológica en el yacimiento de Axlor aborda un conjunto de cuestiones históricas relacionadas con las sociedades neandertales del Pleis-

riekin lotuta, ondare arkeologikoari buruzko ezagutza zabaltzeko eta landa lanetan arkeologoak trebatzeko beste helburu osagarri batzuk ditu proiektuak.

Indusketak eta material arkeologikoen azterketak helburu orokor batzuk dituzte: (1) Erdi Paleolitoko harrizko tresneriarekin lotutako prozesu teknikoak argitzea; (2) hezurrezko tresnekin lotutako estrategia teknikoak zehaztea; (3) aztarnategi barruko espazioaren erabilera aztertzea; (4) aztertutako testuinguruetako jokabide sinbolikoen presentzia eta izaera ebaluatzea; (5) animalia eta landare baliabideak lortzeko eta kontsumitzeko sistemak aztertzea; (6) populazioaren aldakortasuna ulertzea eta herri neandertalen egituraren oinarrizko ezaugarriak aztertzea; (7) paleoingurumenaren bilakaera berreraikitzea, bereziki alderdi paleografikoena, landareen paisaiarena eta fauna populazioena; (8) zehaztapen kronologiko egoki bat lortzea; (9) lurralde ereduak berreraikitzea; eta (10) garaiko paleoingurumenaren bilakaera eta dinamika historikoak alderatzea.

Hiru ildo nagusitan garatu da landa lana: (a) miaketak harrizko lehengaiak eta mineralak aurkitzeko eta ezaugarritzeko, (b) indusketa arkeologikoa eta (c) sistema karstikoaren topografia eta 3D-ko eskaneatzea.

a) Helburua da aztarnategian identifikatutako harriez hornitzeko eta kudeatzeko harrobiak zein izan ziren zehaztea. Inguruak eta Urbasa, Trebiñu eta Barrikako azaleratze tipiko batzuk izan ditugu aztergai. Urgoniar jatorriko tokiko suharri batzuk identifikatu ondoren, gisa horretako baliabideak eduki zitzaketen eremuak miatu genituen.

b) Aztarnategi barruko indusketa lanetan eginkizun hauek eraman dira burura: materialak induskatu eta prozesatu ditugu; aztarnategiaren ekialdean behera etortzeko arriskuan zeuden guneak kontserbatzeko esku hartze bat bideratu dugu; eta laginak jaso ditugu, bereziki jalkinen mikromorfologia aztertzeko. Indusketa lana, aurreko ekinaldietan bezala, laukiak/mailak kontrolatuta antolatu da, jalkinaren makurdura ezagunaren araberako laukiak eta mailak induskatuz. Jalkin edo sedimentuaren etengabeko kontrol laginketak egin ditugu, eta Leica 1205 estazio total baten laguntzaz ebidentzia bakoitzaren eta jalkin formazioen hiru dimentsiotako posizioa erregistratu dugu.

Landa lanaren zati garrantzitsu bat aztarnategi barruan 1960-70 urteetan egindako esku hartzeetan sortutako lur deposituak garbitzera bideratu da. Esku hartze horren helburua zen aztarnategiko *in situ* testuinguruan nahasitako deposituak kontrolpean ateratzea. Sekuentzia arkeologikoko mailetatik ateratako jalkina sistematikoki edukitzen da igeri makinetan, ikaztutako landare hondakinak berreskuratzeko. Mikrofaunaren bilketa egiteko bereiziriko laginen kasuan izan ezik, 1 mm argiko bahe bat erabili dugu neurri horretatik gorako sedimentuak eta material arkeologikoak berreskuratu ahal izateko. Landare hondakinak 0,25 mm argiko bahe batez berreskuratzen dira, deposituan kontserbatutako hondakin esanguratsu gehien-gehienak berreskuratzeko aukera ematen baitu.

toceno superior. Vinculadas a ellas, el proyecto incluye otros objetivos complementarios de difusión del conocimiento sobre el patrimonio arqueológico y de formación de arqueólogos en el trabajo de campo.

La excavación y el estudio de los materiales arqueológicos se orienta hacia un conjunto de objetivos generales: (1) Reconstruir los procesos técnicos relacionado con el utillaje de piedra en el Paleolítico Medio; (2) precisar las estrategias técnicas relacionadas con la industria ósea; (3) estudiar el uso del espacio dentro del yacimiento; (4) evaluar la presencia y naturaleza de comportamientos simbólicos en los contextos estudiados; (5) analizar los sistemas de captación y consumo de los recursos animales y vegetales; (6) comprender la variabilidad poblacional y estudiar los rasgos básicos de la estructura de las poblaciones neandertales; (7) reconstruir la evolución paleoambiental, especialmente de los aspectos paleográficos, del paisaje vegetal y delas poblaciones faunísticas; (8) obtener un buen encuadre cronológico (9) reconstruir de los patrones territoriales; y (10) comparar la evolución paleoambiental y las dinámicas históricas del periodo.

El trabajo de campo se ha desarrollado en tres líneas principales (a) prospecciones para la localización y caracterización de materias primas líticas y minerales, (b) excavación arqueológica y (c) topografía y escaneado 3D del sistema cárstico.

a) Se trata de precisar las fuentes de aprovisionamiento y gestión de las rocas identificadas en el yacimiento. Las áreas de estudio se han centrado en entornos locales y en algunos de los afloramientos típicos como Urbasa, Treviño o Barrika. El reconocimiento de la presencia de algunos sílex locales de procedencia urgoniana ha llevado a la prospección de áreas con potencial contenedor de este tipo de recursos.

b) Las tareas de excavación en el yacimiento se han sustanciado en trabajos de excavación y procesado de materiales, un trabajo de intervención para la conservación de áreas en riesgo de desplome en la zona oriental del yacimiento, y tomas de muestras, en particular para análisis de micromorfología de sedimentos. La excavación se ha organizado con un control por cuadrantes/tallas, similar al desarrollado en campañas anteriores, con excavación por cuadrículas y tallas que siguen el buzamiento conocido del sedimento. Realizamos muestreos de control continuo del sedimento, y registramos la posición tridimensional de las evidencias individuales y de las formaciones sedimentarias con la ayuda deuna estación total Leica 1205.

Una parte importante del trabajo de campo se ha centrado en la limpieza de la terrera generada dentro del propio yacimiento en las intervenciones de los años 1960-70. El objetivo de esta intervención ha sido la retirada controlada de depósitos removidos dentro del contexto *in situ* del yacimiento. El sedimento extraído de los niveles de la secuencia arqueológica se trata de manera sistemática en máquinas de flotación para recuperar los restos botánicos carbonizados. Excepto en las muestras designadas para la recogida de la microfauna, hemos empleado una malla base de 1 mm de luz que permite la recuperación de todo el sedimento y materiales arqueológicos de dimensiones mayores a esta magnitud. Los restos botánicos se recuperan en una malla de 0,25 mm de luz que permite la captura de la mayor parte de los restos relevantes conservados en el depósito.

Azaroan zehar ebaki hauskorrenak babesteko eta kontserbatzeko lanak eraman dira burura. Lan horiek J.C. López Quintanak koordinatutako arkeologo talde batek egin ditu.

c) Topografia lanak Axlorreko sistema karstikoko bi barrunbe nagusien arteko lotura geometrikoa ezartzean oinarritu dira. Axlorreko hasierako proiektu topografikoa tokiko sistema kartesiar batean oinarrituta egin zen. Hasieran, goiko ahoaren geometria ezaugarritzera eta bertan dokumentatutako objektu higigarrien eta unitate estratigrafikoen erregistro arkeologikora mugatu zen sistema hori.

Hein batean gainjarritako gutxienez hiru galeria maila dituen sistema baten ahoan dago aztarnategia. Topografia xehatua egiteko interesa barrunbeen kokapen erlatiboa ezagutzeko beharrean datza, elementu horrek zuzeneko eragina baitu sedimentu metaketen eraketan eta aldaketan.

Horrexegatik, hain zuzen ere, sistema karstikoko beheko maila baten topografia egin dugu, ahoa Paleolitoko aztarnategitik behera gutxi gorabehera 15 metrora du, eta maila hidrostatiko aktibotik gora metro gutxi batzuetara. Horretarako, sistema poligonal batera zabaldu genuen tokiko sistema goiko ahoaren kanpoko oinetatik abiatuta Baltzolako haitzuloetara daraman bideko hainbat puntutaraino. Puntu horietatik beste bederatzi oinarri topografiko kalkulatu ziren beheko galeriaren barrunbean, hein batean gogortutako materialez eta beste espeleotema batzuez beteriko katu zulo batekin topo egin arte. Horrek guztiak galarazi egiten du barrunbeko beste galeria posible batzuetara iritsi ahal izatea. Nolanahi ere, hondo horretatik gertu, garapen handiagoa izan dezaketen beste katu zulo batzuk geratu ziren topografiatzeke.

Goiko ahoan bezala, behekoan erradiatutako neurrien kodifikazioa bi 2½ D eredu independente sortzeko sortu zen (zorua eta sabaia), eredu horiek galeriaren irekitasun handiena definitzen duten askotariko lineek elkartzen dituztela. Guztira 1689 neurketa egin ziren 40 m lineal pasatxo dituen eta 235 m^2-ko azalera hartzen duen galeria tartean, eta beraz, 7,18 puntuko dentsitatea ematen du horrek m^2 bakoitzeko.

Proiektu topografiko honetan TCRM1105 plus, TCRM1205 eta TS16 motatako Leica estazio totalak erabili genituen. Bost ereduak n4ce profesional softwarean (Applications in Cadd Ltd.) sortu ziren.

Tokiko sistema kartesiar hori ETRS89 koordenatu sistema ofizialarekin lotu zen Lapikoerreka ibarraren iparraldeko mazelan arku gisa ezarritako hiru puntu komunen bidez, goiko ahoan finkatutako oinarrietatik gutxi gorabehera 360 metrotara eta haietatik gora 130 metro ingurura. Horretarako doitasun zentimetrikoko Leica GNSS900 markako GPS/RTK bat erabili genuen, maiztasun bikoitzekoa, eta lehen aipatutako estazio totaletatik bat (TS16). Azkenik, aipatutako sistemaren UTM proiekzio batera eraman genituen egindako neurketa guztiak. Hartutako neurrien kontzentrazio espaziala kontuan izanik, ez genuen eskala faktorerik aplikatu eraldaketa horretan. Irudian, ETRS89 sistematik abiatuta, ongi asko ikusten da bi maila karstikoen arteko lotura topografikoa oinplano ortometrikoan eta perspektiba konikoko planoetan.

Durante el mes de noviembre se han realizado tareas de protección y conservación de los cortes más frágiles Estos trabajos han sido llevados a cabo por un equipo de arqueólogos coordinados por J.C. López Quintana.

c) Las tareas de topografía se han centrado en establecer la relación geométrica entre las dos cavidades principales del sistema cárstico de Axlor. El proyecto topográfico inicial de Axlor se realizó a partir de un sistema local cartesiano. En principio, este sistema se restringió a la caracterización geométrica de la boca superior y al registro arqueológico de las unidades estratigráficas y objetos mobiliares documentados en ella.

El yacimiento se encuentra en la boca de un sistema con al menos tres niveles de galerías, parcialmente superpuestas. El interés de la realización de una topografía detallada estriba en la necesidad de conocer la posición relativa de las cavidades, un elemento que influye en la formación y alteración de los depósitos sedimentarios.

Por ello, en esta campaña se ha realizado la topografía de un nivel inferior del sistema kárstico, cuya boca se localiza en una cota unos 15 m por debajo del yacimiento paleolítico, y a unos pocos metros por encima del nivel hidrostático activo. Para ello se extendió el sistema local a una poligonal, lanzada desde las bases exteriores de la boca superior a diferentes puntos en el camino que conduce a las cuevas de Baltzola. Desde estos puntos se calcularon otras nueve bases topográficas en el interior de la galería inferior hasta topar con una gatera colmatada con materiales de arrollada parcialmente cementados y otros espeleotemas. Todo ello impide el paso a posibles conductos hacia el interior. No obstante, quedaron por topografiar otras gateras cercanas a ese fondo que podrían tener un desarrollo más amplio.

Al igual que en la boca superior, la codificación de medidas radiadas en la inferior se concibió para generar dos modelos 2½ D independientes (suelo y techo), unidos por polilíneas que definen la máxima apertura de la galería. En total se tomaron 1689 mediciones, en un recorrido de galería de poco más de 40 m lineales y 235 m^2 de área, lo que da una densidad de 7,18 puntos por m^2.

Para este proyecto topográfico se utilizaron estaciones totales Leica de los tipos TCRM1105 plus, TCRM1205 y TS16. Los modelos (cinco) se generaron en el software n4ce profesional (Applications in Cadd Ltd.).

Este sistema local cartesiano se vinculó al sistema de coordenadas oficial ETRS89 mediante tres puntos comunes establecidos en arco en la ladera norte del barranco del río Lapikoerreka, a unos 360 m de las bases fijadas en la boca superior y a unos 130 m por encima de ellas. Para este propósito se utilizó un GPS-RTK se doble frecuencia de precisión centimétrica de la marca Leica GNSS900 y una de las mencionadas estaciones totales (TS16). Finalmente se transformaron todas las mediciones en una proyección UTM del mencionado sistema. Dada la concentración espacial de las medidas tomadas, no se consideró aplicar ningún factor de escala en dicha transformación. En la imagen se observa la relación topográfica de ambos niveles kársticos en planta ortométrica y en alzados de perspectiva cónica, a partir del sistema ETRS89.

Topografiak agerian utzi du beheko harpearen barruko galeria aztarnategiaren bertikalean dagoela.

Azterketa espezializatuak

Sedimentuen azterketa

Kareharri urgoniarraren barruko haran karstiko batean ondoz ondo txertatutako galeria sorta baten mailarik altuenean dago Axlor. Haitzuloa guztiz bete zen Pleistozeno berantiarraren amaiera aldera. Orain arte deskribatutako depositu beherenaren oinetan (P maila) bloke handiak agertzen dira. Formazio horrek adierazten du sabaiaren zati batek eta hormek lur jo zutela; ondorioz oso topografia irregularra sortu zen aztarnategian. Topografia irregular horren gainean N mailatik etorritako sedimentuen eta atxikiriko material arkeologikoen metaketa eratu zen. Sedimentuen sekuentziak alde batetik ageriko egonkortasun baldintzak erakusten ditu, limoak eta buztinak nagusi, harea kantitate txikiekin, eta bestetik, uraren zirkulazio mugatu batek eta haitzuloko hormetatik eta sabaitik gertatzen diren infiltrazioek ezaugarritutako noiz behinkako aktibazioa.

Sedimentuez eratutako sei maila nagusietatik (B-N mailak) jasotako sedimentu laginen ezaugarritze granulometrikoan oinarritzen dira deskribapen sedimentologikoak. Granulometriari buruzko emaitza horiek lortzeko, lehenik lehorrean bahetu ziren sedimentu laginak <2 mm-ko frakzioak (hau da, hareak, limoa eta buztina) bereizteko. Jarraian hidrogeno peroxido diluituarekin tratatu zen frakzio hori gai organikoa kentzeko. Hareazko frakzioa (>0,05 mm) bahetu, sailkatu eta pisatu zen.

Axlorren (N-B mailetan) jasotako laginen azterketa granulometrikoaren arabera nagusi dira elementu finak sedimentuen sekuentzia nagusian. Limoek eta buztinek materialen % 80 hartzen dute gutxi gorabehera, M mailako % 71 eta N mailako % 86 bitarteko balio txikienekin eta handienekin, hurrenez hurren. Hareazko frakzioaren artean, guztizko masaren gutxi gorabehera % 70 hartzen du harea finak, M mailako % 60 eta N mailako % 78 bitarteko balio txikienekin eta handienekin, hurrenez hurren. Maila desberdinetako hareek aldaketa txikiak erakusten dituzte mugimendu arloko ezaugarriei dagokienez. Hareazko frakzioan, pikor biribilduen ehunekoak oso gutxitan gainditzen du guztizkoaren % 5, eta horrek iradokitzen du sedimentu horiek jatorrizko harrobi edo hobietatik gertu daudela. Sedimentuen ezaugarriak aldatu egiten dira B maila osatu zenean (Erdi Paleolitoko okupazioen amaieran), frakzio finak (limoak eta buztinak) nagusi dira. A2-ko deposituetako ebidentziek agerian uzten dute ur korronteen indarra aldizka handiagoa izaten zela, eta horrexek ahalbidetu zuela legarrak bertan pausatzea. Azkenik, hormetatik etorritako klastoen ekarpena nabarmenagoa da A1 mailaren eraketan. Maila horretan etengabe gertatutako deposizioak haitzuloko sarreraren gainazalean du amaiera.

Azterketa estratigrafikoa

On Joxemiel Barandiaranek eta bere taldeak 1967 eta 1974 bitartean bideratutako indusketetan bederatzi unitate estratigrafiko bereizi ziren (I.tik IX.era). Unitate horietatik, III. mailatik VIII. mailara artekoak Erdi Paleolitokotzat hartu ziren horietan mousteriar kulturako harrizko tresneria agertu zelako, karrakagailuak nagusi.

La topografía ha revelado que la galería interior de la cavidad inferior se sitúa en la vertical del yacimiento.

Análisis especializados

Análisis sedimentario

La cueva de Axlor se abre en el nivel más alto de una serie de conductos sucesivamente encajados en un valle kárstico dentro de la caliza Urgoniana. La cavidad quedó completamente colmatada hacia finales del Pleistoceno tardío. Grandes bloques aparecen en la base del depósito más bajo descrito hasta ahora (nivel P). Esta formación indica un derrumbe parcial del techo y las paredes que generó una topografía muy irregular en el yacimiento. Sobre esta topografía irregular se formó la acumulación sedimentaria a partir del nivel N y los materiales arqueológicos asociados. La secuencia sedimentaria muestra unas marcadas condiciones de estabilidad, con un aporte dominado por limos y arcillas, con pequeñas cantidades de arena y una activación esporádica caracterizada por una limitada circulación de agua e infiltraciones desde las paredes y el techo de la cueva.

Las descripciones sedimentológicas se basan en la caracterización granulométrica de muestras de sedimentos recogidas en los seis niveles sedimentarios principales (Niveles B –N). Para obtener estos resultados de granulometría, las muestras de sedimentos se tamizaron primero en seco para aislar la fracción <2 mm (es decir, arena, limo y arcilla). A continuación, esta fracción se trató con peróxido de hidrógeno diluido para eliminar la materia orgánica. La fracción de arena (>0,05 mm) se tamizó, clasificó y pesó.

El análisis granulométrico en Axlor (niveles N - B) muestra un predominio de elementos finos para la secuencia sedimentaria principal. Los limos y las arcillas representan aproximadamente el ~80% del material, con valores mínimos y máximos comprendidos entre el ~71% (en el nivel M) y el ~86% (en el nivel N), respectivamente. Entre la fracción arena, la clase arena fina representa ~70% de la masa total, con valores mínimos y máximos entre 60% (nivel M) y 78% (nivel N), respectivamente. Las arenas de los distintos niveles presentan ligeras variaciones en cuanto a sus características de movilización. La proporción de granos redondeados en la fracción de arena raramente supera el ~5% del total, lo que sugiere que los sedimentos permanecen cerca de su área fuente original. Las condiciones sedimentarias cambian tras la formación del nivel B (final de las ocupaciones del Paleolítico Medio), pasando los finos (limos y arcillas) a ser la fracción dominante. Los depósitos A2 muestran evidencias de aumentos periódicos de la energía de las corrientes de agua, que permitieron la deposición de gravas. Por último, el aporte de clastos desde las paredes se hace más importante durante la deposición de A1. La deposición continuada de este nivel culmina finalmente en la colmatación de la entrada de la cavidad.

Análisis estratigráfico

En las excavaciones realizadas por don J.M. de Barandiarán y su equipo entre 1967 y 1974 se definieron nueve unidades estratigráficas (del I al IX). De estas unidades, los niveles III a VIII se interpretaron como pertenecientes al Paleolítico Medio, debido a la presencia de industrias líticas musterienses, en las que predominaban las raederas. Estos trabajos pioneros descubrieron

Lehen lan haiek agerian utzi zuten eta balioa eman zioten aztarnategiaren aberastasunari, nahiz eta kontrol estratigrafikoa eta erregistratutako material arkeologikoen hautaketa/bilketa inguruabar historikoek eta baliabideen erabilgarritasunak guztiz baldintzatuta egon ziren. Argitara emandako txostenetan (Barandiaran, 1980) eta argitaratu gabeko oharretan jasota dagoen bezala, metro karratuko koadrikula unitateen arabera induskatu zuten aztarnategia, 5 eta 10 cm bitarte lodierako geruza horizontaletan hedatzen ziren sakonera plano arbitrarioei (artifizialak) jarraiki, urak hartutako maila batera iritsi arte. Azken indusketa kanpainetan zehar, 2018tik aurrera, garbitu egin dira aspaldiko indusketa azalerak, eta horien planoak egin dira estazio totalak eta fotogrametria baliatuz. Lan horri esker ikusi dugu On Joxemielen jatorrizko indusketa unitate horiek egiazki hartzen zutela metro karratu bana, eta ondoz ondoko sekzio horizontaletan induskatu zirela sakonera maila finko batean, maila estratigrafikoa gorabehera. Era berean, V. mailari (alde horretan induskatutako azkenekoa) esleitutako azalerek maila estratigrafiko desberdinak (Lazuen eta González-Urquijoren arabera gutxienez bost) zeharkatzen zituztela dokumentatu genuen, eta horietako batzuk 30 ky-tik gorako denbora tarteetan metatu ahal izan direla esan behar dugu. Jatorrizko sedimentua berreskuratzeko orduan ez zen aintzat hartu sedimentuzko deposituak hainbat plano axialetan egiazki duen makurdura, eta zailtasun horrek erabat baldintzatu du estratigrafiaren aurreko interpretazioa. Beraz, praktikan, lehen indusketa lan haietan maila arkeoestratigrafiko gisa definitutako entitate arkeologiko horiek maila desberdinetako material heterogeneoen nahasketak eduki ditzakete, une desberdinetan pausatutako hainbat sedimentu formazio bildu baitira.

Azterketa kronologikoa

Axlorren eskuragarri dauden zenbakizko kronologia datuek fauna hondakinekin, 14C-ren bidez eta aurretratamenduko prozedura estandarren bidez (azidoa-alkalia-azidoa) lortutako adin sorta bat biltzen dute. B, D eta F mailetan eta azken indusketetan zehar (González Urquijo eta Lazuen, 2020) jasotako hezur laginen kasuan, 14C bidezko sei emaitza argitaratu dira guztira. 14C bidezko lagin horiek teknikaren muga analitikoetatik hurbil daude edo haratago egiten dute, edo inguruko emaitzekin bat ez datozen adinak eskaintzen dituzte. B mailaren goiko bi laginek 42,0 ± 1,3 14C ka BP eta 42,7 ± 0,9 14C ka BP-ko adin ez kalibratuak eskaini zituzten (IntCal20-k % 95,4an kalibratutako adin tarteak: 47,7-42,9 cal ka BP eta 47,4- 44,1 cal ka BP, hurrenez hurren). D eta F mailetako bi laginek adin tarte ez kalibratu mugagabeak eskaini zituzten, eta D mailako beste lagin bat teknikaren adin mugan zegoen (44,9 ± 2,0 14C ka BP), eta adin kalibratu hein batean mugatua eskaini zuen (54,8-44,6 cal ka BP). F mailako seigarren lagin batek adin nabarmen gazteago bat eskaini zuen (33,3 ± 0,4 14C ka BP; IntCal20-k % 95,4an kalibratutako adin tartea: 39,2-37,0 cal ka BP), estratigrafikoki alderantzikatua dagoena gaineko mailen kasuan lortutako beste adin guztiekin eta F mailako laginarekin alderatuz gero. Adin mugagabe zein mugatuen arteko estratifikazioak eta inguruko adin gazte baten presentziak iradokitzen dute aurreko erradiokarbono bidezko azterlanetan erabilitako 14C azidoa-basea-azidoa aurretratamendu estandarreko prozeduretan ez

Hondartzaren erdialdean zegoen egurra, gune gogortuan; hau da, itsasgora ez da egurra zegoen tokiraino iristen, egur zati hori ez zen puntu horretaraino iritsi marea egoera normal batean. Izan ere, 2 metro inguruko desnibela dago egurra dagoen hondartzaren goiko aldearen eta itsasgoraren marraren artean. Hondartza hau oso bizia da ekaitzek eta itsas korronteek eragindako harea mugimenduei dagokienez. Lehen aipatutako gune gogortu hori Bizkaiko Labe Garaietako zepa hondakinen emaitza da, hondakin horiek Abrako ahoan isurtzen baitzituzten. Itsas korronteek Getxoko hondartzetara bideratzen zituzten hondakin horiek[31]. Era berean, plastikoak, beirak eta antzeko hondakin modernoak azaldu ziren hareazko jalkinean, eta sedimentuzko pakete hori 70 cm baino lodiagoa da puntu batzuetan, eta zementua bezain gogorra. Izan ere, oso neketsua izan zen eskuz induskatzea, mailu pneumatikoa erabiltzeko baimena eman ziguten arte. Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala zaintzeko Sailak babestua da eremu hau, eta ikusirik oso zaila zela eskuz induskatzea baimena eman zigun errekuntza motorrez dabilen tresneria erabiltzeko eta tresneria hori ibilgailuz ontziraino garraiatzeko[32].

En 2018, Mikel Unzueta[30], arqueólogo territorial del Servicio de Arqueología de la Diputación Foral de Bizkaia, conocedor de que estábamos realizado investigaciones sobre embarcaciones en entornos intermareales, nos pidió la valoración de un fragmento de madera parcialmente enterrado que había visto en la playa de Gorrondatxe.

La madera se encontraba hacia la mitad de la playa y en su zona cementada, es decir, la marea alta no llega a la posición de la madera como para que ésta hubiera llegado allí con la marea en condiciones normales. De hecho, existe un gran desnivel de unos 2 metros entre la parte alta de la playa donde está la madera y la zona de la pleamar. Esta playa es muy dinámica en cuanto a movimientos de arena por temporales o corrientes marinas. Esa cementación es fruto de los desechos de escorias de Altos Hornos de Bizkaia, que se arrojaban en la boca de El Abra. Las corrientes marinas empujaban esos restos a las playas de Getxo[31]. También aparecieron restos modernos de plásticos, vidrio y similar, en el sedimento arenoso que en algunos lugares es de más de 70 cm de espesor y duro como el cemento. De hecho, excavar a mano fue una labor ardua hasta que se nos permitió usar martillo percutor. Esta zona está protegida por el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral, quien fue sensible a las dificultades de excavación a mano y nos permitió el uso de herramienta a motor de combustión, así como su transporte en vehículo hasta la embarcación[32].

---

[30] Eskerrak ematen dizkiogu Mikel Unzuetari emandako informazio≤agatik eta gugan jarritako konfiantzagatik. Hari opa diogu txosten hau.

[31] Gai horri buruz gehiago jakiteko, ikus ASTIBIA, Humberto, 2012, «Tunelboka y Gorrondatxe (Getxo, Bizkaia), fósiles humanos para el Antropoceno». *Euskonews* 640, 2012-09-28 / 2012-10-05 (2012). http://www.euskonews.eus/zbk/640/tunelboka-y-gorrondatxe-getxo-bizkaia-fosiles-humanos-para-el-antropoceno/ar-0640001002C/. eta Pujalte, Victoriano, Humberto Astibia, Fernando Aizpiri, eta Aitor Payros, 2015, «Las playas cementadas del «Antropoceno» de Bizkaia, País Vasco: origen y degradación». *Geogaceta* 57: 123-26.

[32] Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko teknikari Mikel Larrinoa Aguirreren sentsibilitatea eskertu nahi dugu, makinak eta ibilgailuak erabiltzeko baimena emateagatik. Era berean, eskerrak eman behar dizkiogu Josu Ateca Acebo Getxoko Udaleko azpiegituren arloko Ingurumen teknikariari, hondartzan ibilgailua erabiltzeko emandako erraztasunengatik.

---

[30] Agradecemos a Mikel Unzueta la información facilitada y la confianza. Este artículo está dedicado a su memoria.

[31] Sobre este tema, véase ASTIBIA, Humberto, 2012, «Tunelboka y Gorrondatxe (Getxo, Bizkaia), fósiles humanos para el Antropoceno». *Euskonews* 640, n.º 2012-09-28 / 2012-10-05 (2012). http://www.euskonews.eus/zbk/640/tunelboka-y-gorrondatxe-getxo-bizkaia-fosiles-humanos-para-el-antropoceno/ar-0640001002C/. y Pujalte, Victoriano, Humberto Astibia, Fernando Aizpiri, y Aitor Payros, 2015, «Las playas cementadas del «Antropoceno» de Bizkaia, País Vasco: origen y degradación». *Geogaceta* 57: 123-26.

[32] Agradecemos la sensibilidad de Mikel Larrinoa Aguirre, técnico del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia, por autorizar el uso de maquinaria y vehículos. También debemos agradecer en este punto a Josu Ateca Acebo, técnico de Medio Ambiente del área de infraestructuras del Ayuntamiento de Getxo, por las facilidades dada para usar vehículo en la playa.



Ontziaren ikuspegia behin osorik induskatuta. Teilakatze teknikaren araberako eraikuntza, zuakerrak eta gila gaina ikus daitezke. Ia guztiz desagertuta dago istriborra. Era berean, ontzi kroskoaren kanpoaldea aztertzeko zundaketa ikus daiteke. Marka horizontala, 1 metro; marka bertikala, 5 metro.

Vista de la embarcación totalmente excavada. Se aprecia la construcción a tingladillo, las cuadernas y la sobrequilla. El lado de estribor está prácticamente desaparecido. También se puede ver la cata para comprobar el exterior del casto. Jalón horizontal 1 metro; jalón vertical 5 metros.

Burura eraman genuen lehenengo balorazioak adierazten zuen egiazki zela ontzi bati zegokion zati bat. Denboraren joanean zati hori kontrolpean edukitzeko hainbat bisitaldi egin genituen, zura ageriago egonez gero hobeto balioetsi ahal izateko. Azkenik, hainbat urtez ikuskatu ondoren, zati bat baizik ez baitzen ikusten, induskatu beharra zegoela erabaki zen noraino lurperatuta zegoen jakiteko, soilik pieza hori ote zen ala multzo handiago baten zati ote zen ikusteko. Ababorrean teilakatze teknikaren arabera antolatutako oholak aurkitu genituenean jakin genuen, inolako zalantzarik gabe, ontzi bat zela. Era berean, beste ohol batzuk azaldu ziren istriborrean, nahiz eta alde horretan askoz ere gutxiago ziren.

Teilakatze teknikaren arabera eraikitako txalupa bat da, segur aski XIX. mende amaieran eraikia eta XX. mendearen erdialdeko uneren batean abandonatua. Gutxi gorabehera 4,80 metroko luzera kontserbatzen du, baina guk uste dugu beste 2 metro gehiago izango zituela alde bakoitzean, hau da, brankan eta popan, eta beraz, 8,80 metro luze izan zitekeen, edo luzeagoa, agian 10 metro luze. 1,89 metroko zabalera kontserbatu du, baina gila gainetik ababorrera (alde osoena) 1,30 metro zabal da. Horrek adierazten du 2,60 metro luze zela, edo luzeagoa, ababorrean galduta baitaude kareleraino iritsiko ziren goiko ohol batzuk.

Gaur egungo posizioan, ontzia apur bat makurtuta dago ababorrean. Horixe da ohol kopuru handiena kontserbatzen duen aldea, 12 ilara, obra bizia gainditu gabe. Istriborrean lau ohol ilara baizik ez ditu kontserbatzen. Oholak kobrezko iltzeen bidez lotuta daude, iltzeak buru laukoak, sekzioz karratuak eta errematxerako zirrindola zirkularrarekin. Gila gainean badira oholak gilarekin lotzeko buru hexagonaleko torlojuak.

Oholak gutxi gorabehera 2 cm lodi dira, eta itxura batean pinu zurezkoak dira. Zuakerrak segur aski egositako akazia egurrezkoak dira, eta behin oholekin ontzi kroskoa eginda zegoenean barrualdean jarriko zituzten horiek. Zuaker meheak dira, zabalera txikikoak, eta puntu batzuetan bikoitzak dira.

La primera valoración que realizamos indicaba que, efectivamente, se trataba del fragmento de una embarcación. Se fueron realizando a lo largo del tiempo diversas visitas de control por si la madera estuviera más expuesta y así poder valorarla mejor. Finalmente tras varios años de visitas, puesto que solo se veía una parte, se decidió que había que excavar para comprobar cuánto más había enterrado, si solamente era esa pieza o formaba parte de un conjunto mayor. Cuando se encontraron tablas por el lado de babor que se reconocieron a tingladillo, se empezó a tener la seguridad de que efectivamente era una embarcación. También aparecieron tracas por el lado de estribor aunque aquí el número de ellas es mucho menor.

La embarcación es un bote de tingladillo, construido posiblemente a finales del s. XIX y abandonado en algún momento hacia mitad del s. XX. Tiene una eslora conservada de 4,80 metros, aunque creemos que aún quedarían unos 2 metros más por cada lado, es decir, por proa y popa, lo que daría una posible eslora total de 8,80 metros e incluso mayor, llegando quizás a los 10 metros. La manga conservada mide 1,89 metros, si bien la manga desde la sobrequilla hasta el lado de babor (el más completo) es de 1,30 metros. Esto indicaría que se trata de una eslora de 2,60 metros o incluso algo más ya que parte de las tracas superiores hasta la regala por el lado de babor están perdidas.

En la posición actual, la embarcación está ligeramente escorada por el lado de babor. Este lado es el que más tracas conserva, 12 hiladas, no llegando a superar la obra viva. El lado de estribor conserva solo cuatro hiladas de tracas. La unión de las tracas se hace con clavos de cobre, de cabeza plana, sección cuadrada y con arandela circular para el remache. En la sobrequilla hay tornillos de cabeza hexagonal que la unen con la quilla.

El grosor de las tracas es de unos 2 y parecen ser de pino. Las cuadernas son seguramente de acacia cocida para ser colocada en el interior una vez que la forma del casco está realizada con las tracas. Son cuadernas de poco espesor y anchura y en algunos lugares son dobles.

Ontzi kroskoaren barrualdean, pieza sendogarri batzuk daude, guk 14 zenbatu ditugu, baina ziurrenik gehiago izango zituen, batez ere brankan. Pieza angeluzuzenak dira, 14 x 9 cm-koak, mehe samarrak, eta ontzi kroskoaren barrualdetik kobrezko iltzeek eusten diete, lau zerrendatan (ontziaren luzeran zehar agerian) eta ilara edo zerrenda bakoitzean hiru iltze erabiliz; erdiko bi zerrendetan paraleloan egokitzen dira iltzeak, baina kanpoko ilaretako iltzeak erdiko zerrendetakoekin tartekatzen dira. Pieza horietatik lehena azaldu zenean, konponketa batean erabilitako adabaki bat zela pentsatu genuen; baina bigarren pieza bat azaldu zenean eta geroago hirugarren pieza bat, konponketa pieza bat ez baizik eta egiturazko elementu bat zela susmatzen hasi ginen. Gainera, ontzi krosko osoa induskatuta zegoenean ikusi ahal izan genuen pieza horien ezarpenean eredu jakin bat aplikatu zutela, pieza batzuk oholen artean bereizirik baina zuakerren arteko ilara berean agertzen baitziren.

Pieza horiek egiturazkoak zirela berresteko, zundaketa txiki bat egin genuen ontzi kroskoaren ababorrean, kanpoko aldean, puntu horretan halako altuera zegoelako eta bi piezak beren eginkizunari buruzko erantzuna eman zezaketelako. Teilakatze teknikaren arabera ipinitako oholak goitik behera eta brankatik popara teilakatzen direnez, kanpoaldean oholak lotzeko alaka batez ikusi beharko litzateke hori. Aitzitik, ontzi honen kasuan, ohol ilara horiek ez dira brankatik popara lotzen, baizik eta topera; lotura hori, ontzi kroskoaren barrualdetik, puntu horretan eginkizun hori betetzen duten piezaren bidez indartzen da. Bestela, pieza hori ez balitz, oholen ilaren arteko topeko lotura hori ahulegia litzateke, eta kroskoa ireki liteke[33]. Burura eramandako zundaketa txiki horri esker ikusi ahal izan genuen ontzi kroskoa zuriz pintatuta zegoela; zura babesteko balioko zuen eta, gainera, are iragazgaitzago bihurtuko zuen.

Dirudienez, gisa honetako ontziak erabiltzen zituen Espainiako Itsas Armadak, ontzi osagarri gisa eta erreskateak egiteko[34]. Nolanahi ere, esan beharra dago Euskal Herrian XIX. eta XX. mendeetan zehar ohikoak izan direla teilakatze teknikaren bidez egindako ontziak[35].

Baliteke lehen adierazi dugun itsas dinamismo bizianen ondorioz iritsi izana zurezko ontzi bat itsasgora iristen ez den lekuraino. Segur aski denborale handi batek bultzatuko zuen ontzia puntu horretaraino, hein batean harean sartuta geratuko zen, eta denboraren joanean lurperatuta geratuko zen. Izan ere, hondartzako garbitzaileek[36] adierazi ziguten zenbaitetan dunaren gainetik pasatzen dela itsasoa (hau da, ontzia lurperatuta dagoen lekuaren gainetik), eta era guztietako hondakinak uzten dituela, baita enbor handiak ere.

El interior del casco presenta varias piezas de refuerzo, que se han contabilizado en un número de 14 aunque posiblemente tendría más, sobre todo en la parte de proa. Son piezas rectangulares de 14 x 9 y poco espesor; están sujetas desde el interior del casco por clavos de cobre, en cuatro bandas (vistas a lo largo de la eslora) y con tres clavos por banda; las dos bandas centrales presentan los clavos en forma paralela mientras que los de las bandas exteriores van intercaladas con las bandas centrales. Cuando apareció la primera de estas piezas, se consideró que era un parche de reparación; pero al aparecer una segunda y, posteriormente, una tercera ya se sospechó que no era una pieza de reparación sino un elemento estructural. Además, cuando se tuvo todo el casco excavado se pudo ver que existía un patrón en la colocación de las mismas ya que varias piezas aparecían apartadas entre las tracas pero en una misma línea entre cuadernas.

Para corroborar que las piezas eran estructurales, se realizó una pequeña cata en el lado exterior de babor del casco, donde había cierta altura y donde dos de las piezas podrían dar respuesta a su función. Puesto que las tracas a tingladillo han de solaparse no solamente de abajo a arriba sino también de proa a popa, esto debería verse en el exterior mediante un chaflán de empalme. Sin embargo, en el caso de esta embarcación las hiladas de tracas no empalman de proa a popa sino que lo hacen a tope; ese empalme es reforzado por el interior del casco por la pieza que cumple aquí su función. De otro modo, si esa pieza no existiera, la unión a tope de las hiladas de las tracas sería demasiado débil y el casco podría abrirse[33]. Con la cata, también se pudo observar que el casco tiene algún tipo de pintura de color blanco que serviría para proteger la madera, haciéndola además impermeable.

Según parece la Armada Española usaba este tipo de botes tanto como embarcaciones auxiliares como embarcaciones de rescate[34]. No obstante, hay que indicar que el uso de embarcaciones a tingladillo no ha sido ajeno en el País Vasco durante el s. XIX y XX[35].

Es posible que el dinamismo marino que indicábamos anteriormente explicaría cómo una embarcación de madera acaba en una zona donde la marea alta no llega. Posiblemente, un gran temporal arrojara a la embarcación en ese punto, se enterrara parcialmente en la arena para finalmente, con el paso del tiempo, acabar siendo enterrada. De hecho, el personal de limpieza[36] de la playa nos comentó que en algunos momentos la mar llega a pasar por encima de la duna (es decir, por encima de donde está la embarcación enterrada) y deposita restos de todo tipo, incluyendo grandes troncos.

---

[33] Adierazi nahi dugun honi buruzko ilustrazio batzuk ikus daitezke hemen: Matés Luque, José Manuel, 2016, «Una traca a tingladillo hallada en la playa de Laida (Ibarrangelua, Bizkaia). Un nuevo pecio medieval en el País Vasco». *Kobie (Paleoantropologia atala)* 35: 205-24, bereziki 12. orrialdean, 7. irudia, eta 213. orrialdean, 8. irudia.

[34] Eskerrak ematen dizkiogu Salvador Tinocori informazio hau emateagatik.

[35] Eskerrak ematen dizkiegu Jon Ispizua eta Xabier Alberdiri informazio hau emateagatik.

[36] Eskerrak ematen dizkiegu hondartzako garbitzaileei informazio hori emateagatik; une honetan uste dugu ontzia bertaraino iristeko azalpen onargarriena dela.

[33] Unas ilustraciones de esto que queremos indicar puede encontrarse en MATÉS LUQUE, José Manuel, 2016, «Una traca a tingladillo hallada en la playa de Laida (Ibarrangelua, Bizkaia). Un nuevo pecio medieval en el País Vasco». *Kobie (Serie Paleoantropología)* 35: 205-24, especialmente en la pág. 12, fig. 7, y la pág. 213, fig. 8.

[34] Agradecemos esta información a Salvador Tinoco.

[35] Agradecemos esta información a Jon Ispizua y Xabier Alberdi.

[36] Agradecemos esa información al personal de limpieza de la playa que, en estos momentos creemos, es la explicación más plausible sobre el depósito de la embarcación.



Eredu fotogrametrikoaren argazkia, kokapen eredu bat erakusten duten pieza sendogarrien posizioa adierazita. (Alberto Mendikutek sortutako eredua Rafa Varonek egindako argazkietan oinarrituta). Behe-eskuinean, indusketa lanetan zehar berreskuratutako iltze solte batzuk. Horien sekzio karratua eta errematxerako zirrindola ikus daitezke.

Captura del modelo fotogramétrico con indicación de la posición de las piezas de refuerzo que muestran un patrón de posición (Modelo creado por Alberto Mendikute en base a fotografías de Rafa Varón). A la derecha abajo, vista de algunos clavos sueltos recuperados durante la excavación.Se puede ver su sección cuadrada y la arandela del remachado.

Une honetan ehunezko sare batez eta berriz ere osorik estaltzen duen hareaz babestuta dago ontzia, bertan beste esku hartze bat egiteko erabakia hartzen den arte.

Ontzia hareaz estalita dagoen bitartean, hein batean ongi babestuta dago. Halere, etorkizunean, ontzi hori berreskuratzea planteatu beharko da, ontzia dagoen hondartzaren goiko alde hori higaduraren eta klima aldaketaren ondorioz suntsitzeko eta behera etortzeko arriskuan dagoelako, eta itsasbazterreko eta marearteko ondare arkeologikoa eragin horretatik kanpo ez dagoelako. Beste leku batzuetan ere antzeko mehatxupean daude beste ale asko, eta horietatik ez gutxi kaltetuta daude dagoeneko; Gorrondatzeko ontzi zatia ez da mehatxu horretatik salbu. Ontzi atal hori berriz ere induskatzen ez den bitartean, ontziaren berreraikuntza bat ikus daiteke 3D-tan, zabalkunde publikoa emateko plataforma batean dago esekita[37].

Actualmente, la embarcación está protegida por geotextil y toda la arena excavada que vuelve a cubrirla por completo hasta que se decida realizar alguna nueva actuación en ella.

Mientras la embarcación siga cubierta, está relativamente bien preservada. Sin embargo, a futuro, se deberá plantear su recuperación ya que la amenaza de caída y destrucción de la zona alta de la playa en la que se sitúa sucederá en algún momento debido a la erosión y al cambio climático, algo a lo que el patrimonio arqueológico costero e intermareal no es ajeno. Existen muchos otros ejemplos de amenaza a restos similares en otras latitudes, muchos de ellos ya siendo afectados; el pecio de Gorrondatxe no será ajeno a las mismas amenazas. Mientras el pecio no se vuelva a excavar, se puede ver una reconstrucción del pecio en 3D que está colgada en una plataforma para su difusión pública[37].

J. M. Matés Luque

B.15.2. **Punta Begoña. Etxebarrietatarren Finkako lorategi zaharra**

Zuzendaritza: Iban Sánchez Pinto

Finantzazioa: Puntua Begoña Fundazioa; Getxoko Udala; Bizkaiko Foru Aldundia

B.15.2. **Punta Begoña. Antiguo jardín de la Finca Etxebarrieta**


Dirección: Iban Sánchez Pinto

Financiación: Fundación Punta Begoña; Ayuntamiento de Getxo; Diputación Foral de Bizkaia

The archaeological work being carried out in the old garden of the Echebarrieta Estate (Punta Begoña, Getxo) has revealed the presence of a prehistoric settlement that was established during the Neolithic era and developed considerably during most of the Chalcolithic.

[37] Eskerrak ematen dizkiegu Alberto Mendikute eta Rafa Varoni eredu fotogrametriko hau egiten laguntzeagatik. Sketchfab-en estekan dago eskuragarri. https: //sketchfab.com/3d-models/pecio-gorrondatxe-2022-2c0a0964200b441ab5fc5a3618e8ed5c

[37] Agradecemos a Alberto Mendikute y a Rafa Varón su implicación en la realización de este modelo fotogramétrico disponible en el enlace de Sketchfab https://sketchfab.com/3d -models/pecio-gorrondatxe-2022-2c0a0964200b441ab5fc5a3618e8ed5c



Induskatutako bi txabola hondoen xehetasunak.

Detalle de los dos fondos de cabaña excavados.

Aurrekariak

Punta Begoñan Etxebarrietatarren Finkako lorategi zaharra eratzen duten bi terrazetan modu irregularrean lan egin badugu ere, ipar-mendebaldeko terrazan geratu dira agerian aztarna arkeologiko garrantzitsuenak. Nolanahi ere, hego-mendebaldeko terrazan, XVII. mendearen erdialdean eraikitako kostaldeko defentsa bateriaren hondakinak kontserbatzen direla dirudi.

2017. urtean zehar egindako zundaketa geoteknikoen kanpainaren ondoren, ipar-mendebaldeko terrazan egin ziren ikerketa arkeologikoak, Galerien ondoko terraza hormaren eta bizitegi etxebizitzen eta hego-mendebaldeko terrazaren artean, egungo etxebizitzen eta terraza hormaren eta kubo erdizirkularraren artean. Bi sektore horietatik ipar-mendebaldeko terrazan egin genituen ahalegin handienak, azken batean alde horretan metatzen baita aztarna kopuru handiena.

Miaketa geofisikoak

Behin ipar-mendebaldeko terrazaren gainazala egoera hobean zegoela ikusi ondoren, bertan prospekzio geofisiko bat eraman genuen burura georradarra erabiliz. Lan horiek, esku hartze arkeologikoaren osagarri izateaz gain, zorupearen egoerari eta egoera horrek eraikinean izan zezakeen balizko eraginari buruzko datuak biltzea zuten xede. 6 transeptu egin genituen iparraldetik hegoaldera eta 20 ekialdetik mendebaldera. Horietatik 17tan morfologia ahurreko irregulartasun batzuk hautematen dira, 0,5 metrotaraino sakontzen dira buztinezko maila oso hezean. Irregulartasun horiek guztiak plano batean geolokalizatu genituen, eta dendenak terrazaren iparraldeko erdian metatzen direla ikusi genuen, 600 metrotik gorako eremu batean hedatzen direla, eta egungo lursailaren mugak gainditzen dituztela. Beraz, askoz ere handiagoa zen egonlekuaren jatorrizko hedadura.

Kontuan harturik prospekzio geofisikoaren emaitzak, ipar-mendebaldeko terrazaren ipar partean egin ditugu ahalegin handienak. Aurreikuspenen arabera, lan horiek etorkizunean hego-mendebaldeko terrazan egin

Antecedentes

Si bien se ha intervenido, de manera irregular, en las dos terrazas que componen el antiguo jardín de la Finca Echevarrieta en Punta Begoña, ha sido en la terraza noroeste donde se ha puesto de manifiesto la presencia de importantes restos arqueológicos. No obstante, en la terraza suroeste parecen quedar evidencias de la batería de defensa costera erigida a mediados del siglo XVII.

Después de la campaña de sondeos geotécnicos desarrollada a lo largo de 2017, las investigaciones arqueológicas se concentraron en la terraza noroeste, entre el muro de aterrazamiento junto a las Galerías y las viviendas residenciales, y la terraza suroeste, entre las actuales viviendas y el muro de aterrazamiento y cubo semicircular. De los dos sectores, todos los esfuerzos se han venido centrando en la terraza noroeste que es, en definitiva, donde se concentran la mayor cantidad de restos.

Prospecciones geofísicas

Una vez que se definió la terraza noroeste como la que presentaba las mejores condiciones en superficie, se realizó la prospección geofísica de la misma mediante el empleo del georradar. Estos trabajos, además de coadyuvar a la intervención arqueológica, tenían como objetivo aportar datos sobre la situación del subsuelo y las posibles afecciones que de su estado se pudieran derivar en el edificio. Se realizaron 6 transeptos N-S y hasta 20 E-W. En 17 de estos transeptos se aprecian una serie de anomalías de morfología cóncava, que profundizan hasta los 0,5 metros sobre un nivel arcilloso muy húmedo. Todas estas anomalías fueron geolocalizadas sobre una planta, pudiéndose comprobar que todas ellas se concentran en la mitad norte de la terraza y que se extienden por un área superior a los 600 metros y que se desarrolla más allá de los límites de la actual parcela, por lo que la extensión original del asentamiento es mucho mayor.

Los trabajos de prospección geofísica nos han permitido centrar los esfuerzos en la mitad norte de la terraza noroeste. Confiamos en que en un futuro se pue-

ahal izango dira, eta orduan ikusiko dugu sektore honetan ebidentziarik geratzen den 2016ko indusketa kanpainaren ondoren aipatutakoaz harago.

Esku hartze arkeologikoa

Orain arte bildutako informazioari esker, lehen ere aurreratu dugun bezala, ipar-mendebaldeko terrazaren ipar partean barreiatuta dauden betegarri batzuk dokumentatu ditugu, eta betegarri horiek hainbat egitura mota betetzen dituzte: paldo zuloak, txabola hondoak eta funtzionaltasun ezezaguneko zuloak. Egitura horiez gain, azken indusketa kanpainan kanpoaldean baliatzeko zoru bat erregistratu dugu.

Kanpaina honen helburua zen, alde batetik, dokumentatutako egituren artean diakroniarik ba ote zen egiaztatzea, eta bestetik, egonlekuaren dimentsioak mugatzea. Azken kanpaina hau bideratu ondoren, badakigu egonleku hau gaur egungo itsaslabarren ertzeraino iristen dela.

Esku hartze arkeologikoaren emaitza nagusiak

Esku hartutako eremuan orain arte lortutako emaitzak oso positibotzat jo daitezke Punta Begoñako Galeria bezalako garrantzi handiko eraikin konplexu baten sekuentzia historikoa ulertzeko. Hauexek dira azken indusketa kanpaina egin ondoren lortu ditugun ondorio nagusiak:

– Aztertutako eremu osoa Horacio Etxebarrietaren egoitza multzoaren zati bihurtu zenean zigilatu egin zen azpiko estratifikazioa, eta beraz, eraldaketa horrek historiaurreko giza egonlekuaren aldaketa nabarmena eragin ez zuela pentsa dezakegu. Halere, iragan mendearen amaieran eremu hori urbanizatu zutenean, nahasi egin zituzten industrialari bizkaitarrak bideratutako urbanizaziotik kontserbatutatako hondakinak eta historiaurreko giza egonlekuko aztarnak.

– Aurreko ekinaldietan dokumentatutako bi txabola hondo handiei eta itxura batean txabola hondo handi horiei lotutako egitura osagarriak diruditen forma eta dimentsio desberdineko lau sakonuneei beste bi txabola hondo handi gehitu behar zaizkie; horietako batek perimetroko paldo zuloak kontserbatzen ditu, eta paldo zulo horien kanpoaldean, zulo bat eta erabilerako azalera handi bat.

Lehenengo txabola hondoa (1023, 1066, 1073, 1077 eta 1078. UEak) maila naturalean egindako beherapen handi bat da, baina oraingoz ezin izan dugu haren oinplanoaren forma zehaztu aztertutako eremutik kanpora hedatzen delako. Oinean gehienez ere 5,6 metro luze da iparraldetik hegoaldera, eta 6,5 metro luze ekialdetik mendebaldera, eta gehienez ere 20 cm sakon da. Beheraguneko hormak ez dira bertikalak, apur bat makurtzen dira oinarrirantz. Barrualdean erabilerako zorua du, kolorez beltzaxka, eta ikatz ugari biltzen ditu. Gainazalean ausaz ipinita, tamaina ertain/handiko harri koskorrak identifikatzen dira. Egonlekuaren perimetroa zedarrituz bi paldo zulo erregistratu ditugu, oinplano erdizirkularrekoak, txabola hondoaren kanpoaldeko ertzera egokitzeko. Erabilerako zoruaren gainean material ardan desarrollar estos mismos trabajos en la terraza suroeste y ver si resta algún tipo de evidencia en este sector más allá de lo apuntado después de la campaña de excavación de 2016.

Intervención arqueológica

La información disponible hasta la fecha nos ha permitido, tal y como se ha señalado, documentar toda una serie de rellenos diseminados por la zona septentrional de la terraza noroeste, que colmatan diferentes tipos de estructuras; de agujeros de poste, fondos de cabaña y agujeros de funcionalidad desconocida. Además de estas estructuras en la última campaña de excavaciones hemos registrado un suelo de uso exterior.

Los objetivos de la presente campaña eran comprobar si existe diacronía entre las diferentes estructuras documentadas e ir acotando las dimensiones del asentamiento. Después de la última campaña sabemos que el asentamiento se extiende hasta el borde del acantilado actual.

Principales resultados de la intervención arqueológica

Los resultados obtenidos en el área intervenida hasta la fecha se pueden calificar como muy positivos para la comprensión de la secuencia histórica de un complejo edilicio de gran entidad como es el caso de las Galerías Punta Begoña. Estos son las principales conclusiones a las que hemos llegado después de la última campaña de excavación:

– La conversión de toda el área intervenida en parte del complejo residencial de Horacio Echevarrieta supuso el sellado de la estratificación subyacente y, por tanto, cabe suponer que esta conversión no supuso la alteración sustancial del asentamiento prehistórico. Sin embargo, la urbanización de toda el área a finales de la centuria pasada sí que supuso la alteración tanto de los restos conservados de la urbanización acometida por el industrial vizcaino como de los restos del asentamiento prehistórico.

– A los dos grandes fondos de cabaña y hasta cuatro rebajes, de forma y dimensiones variables, que parecen corresponderse con estructuras auxiliares asociadas a estos dos grandes fondos, documentados en campañas anteriores, se suman hasta dos nuevos grandes fondos de cabaña, una de ellas conserva los agujeros de poste perimetrales, un agujero y una gran superficie de uso al exterior de los mismos.

El primero de los fondos de cabaña (UUEE 1023, 1066, 1073, 1077, 1078) se trata de un gran rebaje en el nivel natural, cuya forma en planta aún no hemos podido definir al desarrollarse fuera del área intervenida. Presenta unas dimensiones máximas en planta de 5,6 metros de longitud N-S y 6,5 metros E-W y una profundidad máxima de 20 cm. Las paredes del rebaje no son verticales, buzando ligeramente hacia la base. Al interior presenta un suelo de uso que se caracteriza por tener una tonalidad negruzca y presentar abundantes carbones. Dispuestos de manera aleatoria por la superficie, además, se observa la presencia de toda una serie de cantos de tamaño medio/grande. Jalonando el perímetro de la estancia se han registrado hasta dos agujeros para poste de forma en planta semicircular que se ajustan al borde exterior del

keologiko ugari berreskuratu dugu (batez ere suharrian landutako tresnak), asko eta asko erreta.

Bigarren txabola hondoa (1064, 1065, 1074 eta 1076. UEak) beherapen apur bat irregularra da, 6,3 metro luze eta 1 eta 5,3 bitarte zabal, eta gehienez ere 20 cm sakon. Barrualdean erabilerako zoru bat du, aurreko txabola hondoan dokumentatu dugunaren oso antzekoa; eta, hark bezala, ikatz asko ditu gainazalean. Pentsatzekoa da, bai kasu honetan bai aurrekoan, ikatz horiek nahita zabaldu zirela lurzoruak hezetasun gutxiago izan zezan. Bai kasu honetan bai aurrekoan, taxoi bati eta berari erantzuten diete guztiek, *Quercus* hostoerorkorrari. Lurzoru horren gainazalean, harrizko eta zeramikazko ohiko materialez gain, hareharrizko harri bat berreskuratu dugu, eta haren neurriengatik eta ontzi itxurako formagatik eskuko errota baten zati bat izan daitekeela esan behar dugu. Gainera, urradura arrastoak ageri ditu bi aurpegitan.

Bi txabola hondo handi horiei lotuta, beste zulo bat dokumentatu dugu (1060. eta 1061. UEak), oinplano luzanga du, alboak bertikalak eta oin laua. 1,85 metro luze da, 0,6 metro zabal eta gehienez ere 20 cm sakon.

Bigarren txabola hondoaren aurrean, itsaslabarrari begira, beste erabilerako azalera bat erregistratu dugu (1080. UE), deskribatutako bi txabola hondoetako erabilerako lurzoruen antzeko ezaugarriak dituena. Hiru zulo zirkularrek (1081, 1082, 1083, 1084, 1086 eta 1087. UEak) zulatzen dute gainazal hori. Gainazal horren eta zuloen kronologiari dagokionez, abian diren analisi arkeometrikoen emaitzen zain gauden honetan, berreskuratutako materialek ez digute orain arte egonleku honi buruz adierazitakoari askoz ere gehiago gaineratzeko aukerarik ematen.

fondo de cabaña. Sobre el suelo de uso se han recuperado una gran cantidad de materiales arqueológicos (útiles de sílex fundamentalmente), muchos de ellos se encuentran quemados.

El segundo de los fondos (UUEE 1064, 1065, 1074, 1076) se trata de un rebaje un tanto irregular de 6,3 metros de largo y con una anchura variable entre 1 y 5,3 metros y una profundidad máxima de 20 cm. Al interior se caracteriza por presentar un suelo de uso, muy similar al documentado en el fondo de cabaña anterior, y que también tiene una gran cantidad de carbones por su superficie. Cabe suponer, tanto en este caso como en el anterior, que dichos carbones fueron aportados de manera intencional con la finalidad de que el suelo tuviera una menor cantidad de humedad. Tanto en este caso, como en el anterior, todos ellos responden a un mismo taxón al tratarse de *Qercus* de tipo caducifolio. Sobre la superficie de este suelo, además del característico material lítico y cerámico, se ha recuperado una piedra de arenisca que, por su forma abarquillada y dimensiones, pudiera tratarse de un fragmento de molino. Tiene, además, dos de sus caras con huellas de abrasión.

Asociado a estos dos grandes fondos de cabaña se ha documentado un agujero (UUEE 1060, 1061) con forma en planta alargada, los laterales verticales y la base plana. Tiene unas dimensiones de 1,85 metros de largo, 0,6 metros de ancho y una profundidad máxima de 20 cm.

Delante del segundo fondo de cabaña, mirando hacia al acantilado, se ha registrado la presencia de una nueva superficie de uso (UE 1080) que presenta características muy similares a la de los suelos de uso de los dos fondos descritos. Cortando esta superficie se han registrado hasta tres agujeros circulares (UUEE 1081, 1082, 1083, 1084, 1086, 1087). En cuanto a la cronología tanto de esta superficie como de los agujeros, a falta de los resultados de los análisis arqueométricos en curso, los materiales recuperados no nos permiten ir mucho más allá de lo apuntado hasta la fecha sobre el asentamiento.

I. Sánchez Pinto; J. Fernández Eraso; C. Camarero; A. Azkarate

B.16. LARRABETZU

B.16.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.16.1.1. **Andra Mari kalea, 10.**

Zuzendaritza: Ander Ortega Franco
Finantzazioa: Jabea

B.16.1.1. **Andra Mari, 10**

Dirección: Ander Ortega Franco
Financiación: Propiedad

Archaeological monitoring of the excavation of the rear courtyard of the dwelling, prompted by renovations to the ground floor of the building. The results were of no historical-archaeological interest.

Larrabetzuko Andra Mari kaleko 10. zenbakiko etxebizitzaren beheko solairuaren gibelaldean egin beharreko zaharberritze lanek eragindako esku hartze arkeologikoa. Gibelaldeko patioaren azalera osoa induskatzeko

Intervención arqueológica motivada por las obras de reforma en la zona zaguera la planta baja del nº 10 de la c/ Andra Mari de Larrabetzu. Se ha realizado el control arqueológico de la excavación de la totalidad de la su-

lanen gaineko kontrol arkeologikoa bideratu dugu oinarriko buztinetara iritsi arte. Emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik, baina ebaluatzeko geratzen da etxebizitza barruko zorupea.

perficie del patio zaguero (19 m²) hasta alcanzar la arcilla base, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar el subsuelo interior de la vivienda.

A. Ortega Franco

B.17. LEKEITIO

B.17.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.17.1.1. Intxaurrondo kalea, 10-12

Zuzendaritza: José Ángel Fernández Carvajal
Finantzazioa: Zulegiar SL

B.17.1.1. Intxaurrondo 10-12

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal
Financiación: Zulegiar SL

The archaeological intervention carried out in Intxaurrondo Street (numbers 10 and 12) in Lekeitio comprised the archaeological monitoring of the removal of surface fillers and the digging of archaeological sondages with the aim of assessing the quality of the archaeological register and minimising the impact of the work required for the future construction of a block of nine apartments in this plot. The intervention enabled several occupational phases to be registered in this large plot, which is located near the Roman site of Arranegi.

Lekeitio hiriko Intxaurrondo kalean (10 eta 12. zenbakiak) bideratutako esku hartze arkeologikoan, alde batetik, arkeologikoki kontrolatu ditugu gainazaleko amortizazio deposituak ateratzeko lanak, eta bestetik, zundaketa arkeologiko batzuk egin ditugu erregistro arkeologikoaren kalitatea balioesteko eta gune honetan etorkizunean bederatzi etxebizitza izango dituen eraikin bat eraikitzeko beharrezkoak diren obren eragina gutxienera eramateko xedearekin.

Bi orube horiek Intxaurrondo kalearen iparraldean daude, 10. zenbakikoak 73,56 m² hartzen ditu eta 12. zenbakikoak 206,19 m², hau da, 279,75 m² biak batera hartuta. Esku hartze arkeologikoari heltzen eta zoladurak eta betegarriak altxatzen hasi aurretik ez zen aztarna arkeologikorik hautematen ikertu beharreko espazioaren gainazalean. Halere, handiak ziren arkeologia arloko perspektibak, batez ere jatorrizko partzelazioari eta aurreko eraikinen banaketari dagokienez.

Kontrol arkeologikoa

Hasteko, gainazaleko mailak ateratzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa egin genuen; maila horietan material arkeologikoak aurkitu genituen bigarren posizioan, eta egiturazko elementuak azaleratzen hasi ziren. Hustuketa baliabide mekanikoak erabiliz egin zen maila homogeneoetara iritsi arte; maila horietan batez ere erromatarren garaiko materialak biltzen ziren.

Esku hartze arkeologikoa

Bi orubeek hartzen duten 279,75 m²-ko azaleran 110 m²-ko gunea (123 x 9 m) induskatu genuen, eta beraz, orubearen % 39 aztertu genuen zuzenean. Azalera hori bi sektoretan banatu genuen, erreferentziatzat 10. eta 12. zenbakietako orubeen arteko mehelina harturik. Ez genuenez jatorrizko posizioan zegoen material arkeologikorik dokumentatu, hiru zundaketa egin genituen erre-

La intervención arqueológica realizada en la calle Intxaurrondo (números 10 y 12) de la villa de Lekeitio ha consistido, por un lado, en el control arqueológico de la retirada de los depósitos de amortización superficiales y, por otro, en la realización de sondeos arqueológicos con el objetivo de valorar la calidad del registro arqueológico, además de minimizar el impacto de las obras necesarias para la futura construcción de un edificio de nueve viviendas en este espacio.

Estas dos parcelas se sitúan en la zona norte de la calle Intxaurrondo, y ocupan una extensión de 73.56 m² en el caso del Nº10 y de 206.19 m² en el caso del Nº 12, haciendo un total de 279.75 m². Antes de la intervención arqueológica y de la retirada de soleras y rellenos no se observaban restos a cota cero dentro del espacio a investigar. No obstante, las perspectivas arqueológicas eran elevadas, especialmente en relación con las parcelaciones primitivas y a la distribución de las anteriores edificaciones.

Control arqueológico

En primer lugar, se realizó el control arqueológico de la retirada de los niveles superficiales, en los que se localizaron materiales arqueológicos en posición secundaria y comenzaron a aflorar diferentes elementos estructurales. El vaciado por medios mecánicos se llevó a cabo hasta alcanzar niveles más homogéneos; entre los que se encontraban materiales, principalmente, de cronología romana.

Intervención arqueológica

El área de excavación alcanzó los 110 m² (12 x 9 m) sobre una superficie total de 279,75 m² para el total de los dos solares, lo que supuso la valoración directa del 39 % del solar. Esta extensión fue dividida en dos sectores, tomando como referencia el muro de división entre los nº 10 y 12. No habiéndose documentado materiales arqueológicos en posición primaria, se optó por realizar

gistro arkeologikoaren kalitatea balioesteko (1, 2 eta 3. zundaketak).

Dokumentatutako egiturak

Garbiketa lanekin batera, behin egungo lurzoruak eta betegarriak atera ondoren azaleratu ziren aurreneko egiturak dokumentatu genituen. Egitura horiek bi taldetan bana zitezkeen: alde batetik, 10. zenbakiko azken etxeari eta aurreko faseei zegozkien hormak, eta bestetik, horma horien mendebaldeari atxikiriko egitura angeluzuzena, 12. zenbakiko orubean.

204. UE: 10. zenbakiko orubeko horma indartzen duen estalduretako bati atxikita eraiki zuten 204 UEko egitura. Pilare formako egitura da, oinplano angeluzuzenarekin, eta altxaera osoa kontserbatzen zuen. Eraikuntzari dagokionez, harlangaitzez eta errekarriz egina dago, harriak kolore moreko kareore hidrauliko batez batuak. Kareore hori bera erabilita estali zituzten egituraren barruko zein kanpoko aurpegiak. Egitura 1,95 m zabal, 1,50 m garai eta 3,30 m luze da, eta 25-30 cm lodi da behe aldeko paretetan.

Zundaketa arkeologikoak

Guztira 3 zundaketa egin genituen orubeak ezaugarritzeko informazio garrantzitsua eman zezaketen beste hainbeste gunetan, betiere dokumentatutako hormei eta egiturei lotuta. Interes arkeologiko eskasekoak izan ziren zundaketa horien emaitzak, besterik gabe bigarren posizioan zeuden material arkeologikoak dokumentatu genituelako (kronologia askotakoak, batez ere erromatarren garaiko zeramika arruntak, baina baita kronologia modernoagokoak ere), eta material horiek orubeak urbanizatu aurretik lur eremu naturalaren pendiza berdintzeko erabilitako betegarrien zati bat osatzen zutelako.

Burura eramandako zundaketei esker, guztira lau okupazio fase dokumentatu ditugu. Halere, materialak oso testuinguru nahasian agertu direnez, ezinezkoa da Intxaurrondo kalean erregistratutako faserik aspaldikoena ezaugarritzea.

Fase modernoetan kokatzen dira dokumentatutako eraikuntzak, etxebizitzekin eta kontsultatutako dokumentazio historikoan adierazten diren egitura osagarriekin lotu daitezkeenak. Egitura horiek guztiak oso suntsituta zeuden gaur egunera arte iritsi diren orube garaikideak antolatzeko bideratu zituzten lanen ondorioz.

tres sondeos que permitieran valorar la calidad del registro arqueológico (Sondeos 1, 2 y 3).

Estructuras documentadas

De manera paralela a la limpieza, se procedió a la documentación de las estructuras previas que habían aflorado una vez retirados los suelos y rellenos actuales. Estas se podrían separar en dos grupos diferenciados: el conjunto de muros correspondiente a la última vivienda nº10 y sus anteriores fases, y una estructura rectangular adosada al oeste de estos muros, situada en el nº 12.

UE 204: adosándose precisamente a uno de los forros con los que se refuerza el muro del solar nº10 se construye la estructura UE 204, una estructura en forma de pila, planta rectangular de la que se conservó la totalidad del alzado. En términos constructivos, está formada por mampuestos y cantos rodados unidos mediante una argamasa hidráulica de tonalidad morada con la que se realizó un revestimiento tanto del interior como del exterior de la estructura. Esta estructura presenta unas medidas de 1.95 m de ancho, 1.50 m de alto, y 3.30 de largo, y un grosor de 25-30 cm en las paredes de la parte inferior.

Sondeos arqueológicos

Se realizaron un total de 3 sondeos que fueron ubicados en las zonas más susceptibles de ofrecer información relevante para la caracterización de los solares, siempre en relación con los distintos muros y estructuras documentadas. Los resultados de los sondeos fueron de escaso interés arqueológico, ya que únicamente se documentaron materiales arqueológicos (de diversas cronologías, principalmente cerámica común de época romana pero también de cronologías más modernas) en posición secundaria, formando parte de los depósitos de nivelación de la pendiente natural del terreno, previos a la urbanización de estos solares.

Los sondeos permitieron documentar un total de cuatro fases ocupacionales. Sin embargo, la aparición de los materiales en contextos muy revueltos impiden caracterizar la fase más antigua registrada en Intxaurrondo.

La fases más modernas estarían ejemplificadas por las construcciones documentadas que podrían pertenecer tanto a viviendas como a los muros y estructuras auxiliares que se mencionan en la documentación histórica consultada. Todas ellas presentaban un nivel de arrasamiento considerable fruto de la inserción de los solares contemporáneos que han llegado hasta nuestros días.

A. González-García; J. Á. Fernández Carvajal

B.17.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

B.17.2.1. **Atea Kalea, 8**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Jabea; Bizkaiko Foru Aldundia

B.17.2.1. **Atea kalea, 8**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Propiedad; Diputación Foral de Bizkaia

The excavation carried out on Garraitz/San Nicolás Island focused on the S end, which is where evidence of a religious nature is concentrated (chapel, monastery). Remains were found dating from between the 13th and 19th centuries. It is an area in which different military structures were later built.

Atea kaleko 8. zenbakiko orubea Lekeitioko Erdi Aroko hiribilduko harresietatik kanpo dago. Portuko dorrea edo Arteita izenaz ezagutzen den oinplano luzangako orubea da. XVI. mende hasieran eraiki zuten, eta geroago gibelaldetik handitu zuten. Beheko solairua berritzeko eta jabeek sustatutako bizitegi erabileretarako moldatzeko lanen aurrean eraman dugu burura esku hartze arkeologiko hau.

Oso sinplea izan da, inolako garrantzirik gabea, erregistratutako depositu arkeologikoa, zentimetro gutxi batzuetara azaleratzen baitzen substratu geologikoa. Itxura guztien arabera, beheko solairu horretan XX. mende hasieran egindako lur mugimendu batzuekin lotzen da testuinguru hori.

El solar de Atea kalea nº 8 se dispone extramuros de la población medieval de Lekeitio, en un solar de planta alargada conocido como la Torre del Puerto o Arteita. Edificio erigido a principios del siglo XVI, y posteriormente ampliado por su parte trasera. La intervención arqueológica se ha llevado a cabo ante la reforma de la planta baja y su readecuación para usos residenciales promovida por sus propietarios.

El depósito arqueológico registrado ha sido de una gran sencillez y sin relevancia alguna, aflorando el substrato geológico natural a los pocos centímetros. Contexto que parece estar relacionado con las posibles remociones operadas en esta planta baja a principios del siglo XX.

A. Moraza Barea

B.17.2.2. **Garraitz edo San Nikolas uhartea**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Lekeitioko Udala; Atabaka Kultur Elkartea; Bizkaiko Foru Aldundia; Eusko Jaurlaritza

B.17.2.2. **Isla de Garraitz / San Nicolás**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Ayuntamiento de Lekeitio; Atabaka Kultur Elkartea: Diputación Foral de Bizkaia; Gobierno Vasco

For its part, the restoration work carried out on Garraitz/San Nicolás Island focused on the N end, which contains a series of military structures (barracks, magazine and battery) dating from between 1742 and 1839.

VIII. indusketa kanpaina

2022. urteko kanpainan zehar Garraitz edo San Nikolas uhartean bideratutako esku hartze arkeologikoek aurkintza berezi honen iragan hurbilari buruzko datu berri eta interesgarri askoak eskaini dizkigute. VIII. kanpaina honetan, aurrekoetan bezala, uhartearen hegoaldeko muturrean lan egin dugu. Inguru horretan zeuden uharteari izena ematen dion baseliza zaharra eta puntu horretan geroago gaitu zuten aldi baterako komentua, frantziskotarrena (1617-1650). Lan hauetan berrogeiren bat boluntariok parte hartu dute.

Guztira sei sektoretan lan egin dugu, eta sektore bakoitzean helburu espezifiko batzuk zehaztu ditugu. Uhartearen mendebaldeko zerrendan dago sektore interesgarriena, plataforma estu eta luze bat da, itsas fronteak eta trazadura sigi-sagatsua duen eustorma estu batek mugatua. Burura eramandako lanetan, bai aurreko urteetan (VIII., XIII. eta XIV. zundaketak) bai aurtengoan (XIII., XIV. eta XVI. zundaketak) antzeko sekuentzia estratigrafikoa erregistratu ahal izan dugu, oso homogeneoa da lurrezko betegarriak osatzen duen maila, osagai hareatsuak ere zati handi bat hartzen duelarik. Intentsitate handiko okupazio aldiak dokumentatu ahal izan dira maila horretan, horien kronologiak gutxienez XIII. mendetik (uhartean lortutako datu zaharrenak) XVI. mendeko une aurreratu batera artekoa edo XVIII. mende hasiera artekoa hartzen duelarik. Aurkikuntza horien artean aipatzekoa da jatorri desberdinetako (Portugal, Gaztela eta Leon, Frantzia eta Eskozia, besteak beste) txanpon kopuru handi samar bat, burdinazko iltze askorekin, fauna hondakinekin eta kronologia bertsuko zeramika zatiekin batera. Halako ziurtasunik ez badago ere, dirudienez sektore hau estu lotuta dago uhartean garaiko izurriteren batek kutsatutakoak hartzeko edo berrogeialdia igarotzeko antolatu eta eraiki zituzten eraikinekin (1597ko idatzi batean adierazten da uhartean 180tik gora legendun bizi zirela).

VIII campaña de excavación

Los trabajos arqueológicos desarrollados durante la campaña del año 2022 en la isla de Garraitz/San Nicolás han ofrecido nuevos e interesantes datos sobre el pasado reciente de este singular enclave. En esta VIIIª Campaña las labores se han centrado, al igual que las precedentes campañas, en el extremo sur de la isla. un entorno éste donde estaban dispuestos la antigua ermita que da nombre a la isla y el convento franciscano provisionalmente habilitado en ese punto (1617-1650). unos trabajos donde han participado una cuarentena de voluntarios.

En total se ha trabajado en seis sectores diferentes, con unos objetivos específicos en cada caso concreto. El sector más interesante se dispone en la franja occidental de la Isla, definido como una estrecha y alargada plataforma delimitada por el frente marítimo por un estrecho muro de contención de trazado serpenteante. En los trabajos realizados, tanto en los años precedentes (Sondeos VIII, XIII y XIV) como en el presente (sondeos XIII, XIV y XVI), se ha podido registrar una secuencia estratigráfica muy similar entre si, con un nivel de relleno muy homogéneo de tierra con un alto componente arenoso. Nivel en el que se ha documentado una intensa ocupación cuya cronología abarca desde al menos el siglo XIII (datos más antiguos obtenidos en la Isla) hasta avanzado el XVI o principios del XVII; destacando la presencia de un nutrido número de monedas de procedencia muy variada (Portugal, Castilla y León, Francia, Brabante o Escocia entre otros), junto a numerosos clavos de hierro y restos de fauna y cerámica de una cronología muy similar. A pesar de no existir certeza al respecto este sector parece estar relacionado con las construcciones dispuestas en la isla en las épocas en que fue habilitada como lazareto o zona de cuarentena para los contagiados por algunos de los diferentes episodios epidémicos de la época (en 1597 se señala que residen en la isla más de 180 apestados).



Garraitz edo San Nikolas uhartean (Lekeitio) egindako zaharberritze lanak. Kuartel zaharra lanak hasi aurretik (2020) eta lanak bukatuta.

Lan arkeologikoei esker datu interesgarriak lortu ditugu uhartearen hegoaldeko muturreko plataforma nagusian, bertan daude eraikin erlijioso garrantzitsuenak (baseliza zaharra eta frantziskotarren komentua). Puntu horretan eraman ditugu burura VII. eta X. zundaketak, eta oso emaitza interesgarriak lortu ditugu. Zundaketa horiei esker, funtsean uhartearen sektore honetan gutxi gorabehera 1617 eta 1655 bitartean gaitutako komentu frantziskotar desagertuarekin zerikusia duten esparru batzuk identifikatu ahal izan ditugu. Komentu hori eraikitzen hasi baziren ere, amaitu gabe geratu zen fraideek uhartea abandonatu zutelako, horrexegatik iristen dira horma gehienak gehienez ere metro erdiko garaierara. Datuak urriak direnez, ezinezkoa da espazio horietako bakoitzaren funtzionaltasun espezifikoa (sartzeko eskailerak, biltegiak, etab.) ziurtasunez zehaztea. Hori bai, egitura horietako askok arroka naturalaren azaleratzea baliatzen dute (behin beheratu ondoren) horma horien funtsezko atal gisa.

Ingurune zehatz horretan (hegoaldeko muturra) aldaketa batzuk egin zituzten alde hori gotortzeko eta Lekeition eragin zuten gatazka armatuetan zehar uhartearen defentsa bermatzeko (batez ere Napoleondar Gerretan eta Lehen Karlistaldian). Horren erakusgarri dugu mendebaldeko zerrendan antolatutako defentsa horma handia (XII. zundaketa), lehen aipatu dugun beheko plataforma (1,75 m zabal) mozten duena eta erregistroaren arabera gutxienez dozena bat metrotan luzatzen dena; horma hori, gainerako defentsak bezala, amaitu gabe geratuko zen. Eta erakusgarria da, era berean, berreskuratu dugun mota guztietako jaurtigai bilduma (kanoi balak, fusilez jaurtitzeko harrizko jaurtigaiak, etab.).

Zaharberritzeko eta balioa emateko lanen gaineko kontrol arkeologikoa (I. fasea)

2022ko abenduan zehar uharteko eraikuntzak zaharberritzeko eta balioa emateko lanen gaineko kontrol arkeologikoa eraman genuen burura.

Trabajos de restauración en la Isla de San Nicolas/Garraitz (Lekeitio). El antiguo Cuartel antes del inicio de los trabajos (2020) y a su finalización.

Los trabajos arqueológicos han proporcionado también interesantes datos en la plataforma principal del extremo meridional de la isla, un espacio en el que se sitúan las principales edificaciones de carácter religioso (antigua ermita y convento franciscano). En ese punto la intervención se ha centrado en los definidos como sondeos nº VII y X, obteniendo unos resultados muy interesantes. Gracias a ellos se han podido identificar una serie de ámbitos relacionados principalmente con el extinto convento franciscano que fue habilitado en este sector de la isla entre 1617 y 1655 aproximadamente. Un edificio éste último que comenzó a erigirse pero que quedó inconcluso al abandonar los frailes la isla, de ahí que la mayor parte de los muros apenas si alcancen el medio metro de altura. La escasez de datos impide determinar con certeza la funcionalidad específica de cada uno de esos espacios (escaleras de acceso, almacenes, etc., ...). Teniendo muchos de ellos como característica común el aprovechamiento del afloramiento rocoso natural como parte fundamental de esos muros (previo rebaje del mismo).

Este específico entorno (extremo sur) será objeto de ciertas modificaciones con objeto de su fortificación para garantizar la defensa de la isla en el trascurso de los diferentes conflictos armados que afectaron a esta población (Guerras Napoleónicas y Primera Guerra Carlista principalmente). Una prueba clara de ello lo tenemos en el gran muro defensivo dispuesto en la banda occidental (sondeo XII), cortando la antes referida plataforma inferior (1,75 m de anchura) y un desarrollo registrado de al menos una decena de metros que como el resto de las defensas quedará inconcluso. O también por el abundante muestrario de proyectiles de todo tipo que se ha podido recoger (balas de cañón, proyectiles piedras de fusil, etc.).

Control arqueológico de los trabajos de restauración y puesta en valor (Fase I)

A lo largo del mes de diciembre de 2022 se procedió a efectuar un control arqueológico de los trabajos de restauración y puesta en valor de distintas construcciones de la isla.

I. fase honetan batez ere uhartearen iparraldeko muturrean dauden eraikinetan (kuartela, bolborategia eta iparraldeko bateria) lan egin da. Eraikin horiek 1742 eta 1839 urte bitartean eraiki zituzten, eta aldi horretan hainbat aldiz konpondu zituzten. Kanpaina honetako lanetan funtsean finkatu egin dira eraikin horiek beren jatorrizko itxura aldatu gabe eta dagoen depositu arkeologikoa ukitu gabe.

Los trabajos de esta Fase I se han centrado fundamentalmente sobre las construcciones situadas en el extremo septentrional de la isla (cuartel, polvorín y batería N). Edificaciones que fueron erigidas en un período comprendido entre 1742 y 1839, y remozadas en distintas ocasiones en ese período de tiempo. Los trabajos han consistido básicamente en la consolidación de las referidas construcciones sin alterar su imagen original, ni alterar apenas el depósito arqueológico existente.

A. Moraza Barea

B.17.2.3. **Garratza III haitzuloa**

II. kanpaina

Zuzendaritza: Asier Gómez-Olivencia

Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa; European Research Council; Marie Sklodowska Curie Actions

B.17.2.3. **Cueva de Garratza III**

II Campaña

Dirección: Asier Gómez-Olivencia

Financiación: Gobierno Vasco; Ministerio de Ciencia e Innovación; European Research Council; Marie Sklodowska Curie Actions

The second year of this research project aimed to complete prospecting in Garratza III Cave (Lekeitio). This season we finished exploring the first floor and began exploring the second and third levels of the cave, both of which have a rich palaeontological register.

ADES Espeleologia Taldeak Lekeitioko Udal barrutian biltzen den Lumentxa mendian bideratutako esplorazioei esker, 2015ean Garratxa III izena jarri zioten beste haitzulo bat aurkitu zuten. Haitzulo hori hiru solairutan eratzen zen, eta guztien gainazalean ageri ziren aztarna paleontologikoak. Hirugarren solairua lotuta dago gainean duen Lumentxa haitzuloarekin.

2022an hiru sarraldi egin genituen haitzuloan, lehenengoa martxoaren 12an, bigarrena maiatzaren 15ean eta hirugarrena abuztuaren 21ean. Hiru sarraldi horietan 2015. urtean landutako topografian kokatu genituen egindako aurkikuntza paleontologiko esanguratsuenak, eta bilketa selektibo bat egin genuen. Azkenik, flowstone zati bat eta hiru estalagmita zati aukeratu genituen datazioak eta, azken horiekin, datu paleoklimatikoak lortzeko.

Lehenengo solairuko galeriaren amaieran, estugune bat igarota, proboscidea baten hondakinak berreskuratu dira. Solairu horretan bertan, baina beste gune batean, balea baten isats ornoen hondakinak identifikatu dira. Bigarren solairuan ugari dira hienen hondakinak, eta aipatzekoak dira koprolito ugariak eta Crocuta generoko hiena baten hezurdura osoa. Hirugarren solairuan ugari dira hondakin fosilak, horien artean hiena, otso, elur orein, orein eta zaldiei dagozkienak, baita hartzen presentzia ere, barne hartuta hartzen atzaparkadek hormetan utzitako arrastoak. Kronologiari dagokionez, balea baten isats orno bat zuzenean datatu da, eta egiaztatu da ez dela historiaurrekoa.

Las exploraciones del Grupo Espeleológico ADES en el monte Lumentxa, en el término municipal de Lekeitio, llevaron al descubrimiento en 2015 de una nueva cavidad que denominaron Garratxa III. Esta cavidad, conformada por tres pisos, presentaba restos paleontológicos en superficie en los tres. El tercer piso, situado debajo de la cueva de Lumentxa está comunicado con esta última.

En 2022 se realizaron tres entradas en la cueva, la primera el 12 de marzo, la segunda el 15 de mayo y la tercera el 21 de agosto. En estas tres entradas se procedió a situar los hallazgos paleontológicos más significativos sobre una topografía previa, realizada en el año 2015 y también se realizó una recogida selectiva. Por último, se seleccionó un fragmento de flowstone y tres estalagmitas para obtener dataciones y datos paleoclimáticos en estas últimas.

Al final de la galería del primer piso, después del paso de un estrechamiento, se han recuperado restos adicionales de proboscídeo. En este mismo piso, pero en una zona distinta, se han identificado restos de vértebras caudales de un cetáceo. En el segundo piso son abundantes los restos de hiénidos, destacando la presencia de abundantes coprolitos y de un esqueleto completo de hiena del género Crocuta. El tercer piso presenta una gran abundancia de restos fósiles que incluye hienas, lobos, renos, ciervos, caballos, así como la presencia de osos, incluyendo zarpazos en las paredes. Respecto a la cronología, una vértebra caudal de cetáceo ha sido datada directamente y se ha comprobado que no es prehistórica.

A. Gómez-Olivencia; M. Arlegi; M. Arriolabengoa; D. López-Onaindia; V. Martínez-Pillado; A. Pablos; M. Rodríguez-Almagro; N. Sala; M. Villalba de Alvarado; Grupo Espeleológico ADES

B.18. LEZAMA

B.18.1. Hornidura sarea berritzeko lanak Garaioltza auzoan

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

B.18.1. Renovación de la red de abastecimiento al barrio Garaioltza

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Proiektua gauzatzetik eratorritako lur mugimenduen gaineko kontrol arkeologikoak aukera eman du ingurune hurbilean dauden balizko arkeologia guneetan eragin ez dela ziurtatzeko.

Lezamako giza egonlekua (5. BAG). Balizko arkeologia gunearen hegoaldeko mugaren paraleloan luzatuko zen zanga irekitzeko eta bertan eroalea egokitzeko lur mugimenduen gaineko jarraipen arkeologikoan oinarritutako esku hartzea. Hauexek osatzen dute agerian utzitako sekuentzia estratigrafikoa: bideko lurzorua osatzen duen asfaltoak, 0,10 m inguru lodi, eta haren ohe eta nibelazio geruzak, 0,30 m - 0,40 m bitarte lodi. Azpian estratu geologikoa dokumentatzen da.

Emaitzak negatiboak izan dira arkeologiaren ikuspuntutik, baina ebaluatzeko geratzen da eremu babestuan biltzen den azalera osoa.

Olasarre errota (2. BAG). Higiezinaren paraleloan luzatuko zen zanga irekitzeko eta bertan eroalea egokitzeko lur mugimenduen gaineko jarraipen arkeologikoan oinarritutako esku hartzea. Arkeologia arloko perspektibak oso handiak zirenez, izendapenean ezarritako babes eremua handitzeko proposamena egin zen antapara eta hustubidea ere bertan biltzeko, soilik errotaren eraikina sartzen baitzen izendapen hartan. Sinplea da sekuentzia estratigrafikoa, eta antzua da arkeologikoki. Hauexek osatzen dute agerian utzitako sekuentzia estratigrafikoa: bideko lurzorua osatzen duen asfaltoak eta haren ohe eta nibelazio geruzak, azken tartea gaur egungo teila eta adreilu txikituez osatua, drainatzea ahalbidetzeko. Jarraian eta aztertutako tarte osoan estratu geologikoa dokumentatzen da.

Emaitzak negatiboak izan dira arkeologiaren ikuspuntutik, baina ebaluatzeko geratzen da eremu babestuan biltzen den ia azalera osoa.

El control arqueológico de los movimientos de tierra derivados de la ejecución del proyecto ha permitido descartar la afección sobre las zonas de presunción arqueológica situadas en el entorno próximo.

Asentamiento de Lezama (ZPA nº 6). Intervención desarrollada en base al seguimiento arqueológico de los movimientos de tierra efectuados en la apertura de la zanja que acoge la conducción y que discurre en paralelo al límite sur de la zona de presunción arqueológica. La secuencia estratigráfica exhumada está conformada por el asfalto que constituye el firme de la pista, de unos 0,10 m de grosor, y su capa de asiento y nivelación, de hasta 0,30 m - 0,40 m de espesor, bajo la que se documenta el estrato geológico.

Los resultados han sido de nulo interés arqueológico quedando pendiente de evaluar la totalidad de la superficie incluida en su ámbito de protección.

Molino Olasarre (ZPA nº 3). Intervención desarrollada en base al seguimiento arqueológico de los movimientos de tierra efectuados en la apertura de la zanja que acoge la conducción y que discurre en paralelo a la fachada del inmueble. Debido a las altas perspectivas arqueológicas, se propuso la ampliación del ámbito de protección establecido en su declaración, y en el que tan sólo se incluía el edificio del molino, a fin de abarcar también la antepara y su canal de desagüe o socaz. La secuencia estratigráfica es sencilla y arqueológicamente estéril; está conformada por el asfalto que constituye el firme de la pista y su capa de asiento y nivelación que en el tramo final está definida por una capa de tejas y ladrillos machacados de época actual, que facilitan el drenaje. Sin solución de continuidad y a lo largo de todo el recorrido inspeccionado, se documenta el estrato geológico.

Los resultados han sido de nulo interés arqueológico quedando pendiente de evaluar la práctica totalidad de la superficie incluida en el ámbito de protección propuesto.

M. Lerín Sanz; A. Ruiz de Marco

B.19. MAÑARIA

B.19.1. Silibrankako harpea

V. kanpaina

Zuzendaritza: Maria Jose Iriarte-Chiapusso

Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia: GIZAPRE Ikerketa Taldea (UPV/EHU)

During the 2022 season in Silibranka Cave, we focused mainly on two areas: the lower zone and grid R26. In the first of these, we reached the bedrock, as we did during last season in the upper area.

Azken kanpainan (2020), beheko indusketa gunean eten egin behar izan genituen lanak harpeko hormako pitzadura txiki batek gune hori urez betetzea eragiten zuelako. Ekinaldi honetan, prezipitazio gutxi izan baitira, baldintzatzaile hori saihestu eta induskatzen amaitu dugu oinarriko arrokaraino iritsita. Modu horretan, aztarnategiak gune honetan duen sekuentzia arkeologiko osoa ezagutzeko helburua lortu ahal izan dugu.

Esku hartzeko beste gunea (R26) goiko aldean dago, eta indusketa eremuaren gainerakoa ez bezala, harpearen babesgunetik kanpora. Gune honetan, gure esku hartzearen xedeko beste guneetan bezala, sedimentuen sekuentziaren zati bat galdu egin dela egiaztatu dugu (maila desberdineko makurdura guneak sorraraziz), batez ere gainazaleko geruzetan. Aurreikuspenen arabera, datorren kanpainan amaituko dugu gure esku hartzea alde honetan, eta oraingoz atariko datuak baizik ez ditugun arren, berretsi egiten dugu harpe honetako babesgunetik kanpo giza okupazio bat izan zela Silibranka aldean.

Indusketa lanetan zehar ateratako sedimentu guztiak igeri edukita, material arkeologiko txikiak eta paleoingurumen azterlanak egiteko landare eta fauna hondakinak berreskuratzen ari gara.

B.19.1. Abrigo de Silibranka

V Campaña

Dirección: María José Iriarte Chiapusso

Financiación. Diputación Foral de Bizkaia; Grupo de Investigación GIZAPRE (UPV/EHU)

En la última campaña (2020), tuvimos que interrumpir los trabajos en el área de excavación inferior debido a los problemas de encharcamiento que genera una pequeña grieta de la propia pared del abrigo. En esta campaña, la escasez de precipitaciones nos ha permitido sortear este condicionante y concluir su excavación hasta alcanzar la roca base. De este modo hemos podido cumplir con el objetivo de conocer la totalidad de la secuencia arqueológica de este yacimiento en esta zona.

La otra zona de actuación (R26) se ubica en la zona superior y a diferencia del resto del área de excavación se sitúa fuera de la protección del abrigo. En este sitio, al igual que en las otras zonas de nuestra actuación, se constata la pérdida de parte de la secuencia sedimentaria (generando áreas con buzamientos de diferente grado) que afecta fundamentalmente a los niveles superiores. Esperamos concluir nuestra actuación en esta zona en la próxima campaña y aunque de momento, tenemos datos preliminares, se confirma la ocupación humana del espacio de Silibranka fuera de la protección de la cubierta de este abrigo.

La flotación de la totalidad de sedimento extraído durante la excavación nos está permitiendo recuperar aquellos materiales arqueológicos de pequeño tamaño, así como, los restos vegetales y faunísticos que forman parte de los diversos estudios paleoambientales.

Mª J. Iriarte-Chiapusso

B.19. MALLABIA

B.19.2. Probazelaiburuko lepoa

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana

Finantzazioa: Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza. Berriz eta Mallabiko Udalak

The project to protect and publicly disseminate the Oiz Megalithic Site aimed to conserve and foster awareness of the megalithic monuments located in this mountain range. The 2022 season included a stratigraphic analysis comprising a series of sondages on Probaizelaiburu Hill.

Oizko monumentu megalitikoak kontserbatzeko eta ezagutarazteko xedea du Oizko Estazio Megalitikoa babesteko eta balioa emateko proiektuak. Proiektu orokor hori 2021eko maiatzean abiarazi zen Berrizko eta Mallabiko Udalek sustaturik Probazelaiburu I multzoa (trikuharria eta harrespila) eta Iturzurigana harrespila arkeologikoki induskatuta. Oiz aldeko lehenengo ebaluazio arkeologikoko kanpaina horren emaitzek (*Arkeoikuska*

B.19.2. Collado de Probaizelaiburu

Dirección: Juan Carlos López Quintana

Financiación: Centro de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco; Ayuntamientos de Berriz y Mallabia

El proyecto de protección y puesta en valor de la Estación Megalítica de Oiz tiene como objetivo la conservación y difusión de los monumentos megalíticos de Oiz. Este proyecto general comenzó en 2021 con la excavación arqueológica del conjunto de Probazelaiburu I (dolmen y crómlech) y del crómlech de Iturzurigana, promovido por los Ayuntamientos de Berriz y Mallabia. Los resultados de esta primera campaña de evaluación ar-





Probazelaiburuko lepoa: goian, «drone» baten bidez egindako airetiko argazkia, sei zundaketaren kokapenak eta 2021ean induskatutako egiturak (ezkerrean) adierazita; behean, Probazelaiburu 2 tumulu ondoan aurkitutako balizko menhirra.

Collado de Probazelaiburu: arriba, foto aérea de «drone», con la distribución de seis de los sondeos y las estructuras excavadas en 2021 (a la izda.); abajo, posible menhir descubierto junto al túmulo de Probazelaiburu 2.

2021) multzoari balioa eta zabalkundea emateko programa orokorra zabaltzea eskatzen zuten. Horretarako, Berrizko Udalak proposamen bat aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskal Kultura Ondareari balioa eta zabalkundea emateko egindako dirulaguntzen deialdiaren harira (2022-2024).

Probazelaiburuko lepoan estratigrafia zundaketen bidez zehazteko 1. kanpaina

Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza hori esleitu ondoren, lehen urteko (2022) helburuetako bat zen Probazelaiburuko lepoan estratigrafia zehazteko ekinaldi bat egitea. 2021eko kanpainan egindako aurkikuntzek justifikatzen zuten aukeratutako eremua, izan ere, 1,20 m diametroko harrespil txiki bat dokumentatu genuen, gutxi gorabehera K.a. I. milurtekoaren bigarren erdian datatua, Burdin Aroan. Zundaketa kanpaina egitura txiki horien prospekziora bideratu zen oharkabean pasa zitezkeelako.

Prospekzio kanpaina honetan, 2022ko iraileko bigarren hamabostaldian, guztira 8 zundaketa estratigrafiko egin ditugu, guztiak eskuz induskatuta. Horietako bostek 1 m^2-ko azalera hartu dute, salbuespenak S-2 zundaketa (2 m^2), S-6 zundaketa (9 m^2) eta S-8 zundaketa (3 m^2) izan dira. Siglen bidez zenbakitu dira zundaketak, S-1, S-2,… eta 50 cm-ko aldea duten lau karratutan zatitu dira indusketa lanak egiteko eta laginen eta aurkikuntzen kontrol topografikoa egiteko. 5 cm lodierako taila erditan altxatu ziren lurrak, eta jalkinak 2 milimetro argiko galbahearekin bahetu ziren, multzo osoa Estratigrafia Analitikoaren printzipioen arabera interpretatzeko.

queológica de Oiz (*Arkeoikuska* 2021) demandaban una ampliación del programa general de puesta en valor y difusión. Para ello, desde el Ayuntamiento de Berriz se presentó una propuesta a la convocatoria de subvenciones para la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco (2022-2024), del Dpto. de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.

Iª campaña de determinación estratigráfica mediante sondeos en el collado de Probazelaiburu

Adjudicada la mencionada subvención del Gobierno Vasco, uno de los objetivos de la primera anualidad (2022) era la realización de una campaña de determinación estratigráfica en el collado de Probazelaiburu. La elección del sitio se justificaba por los hallazgos de la campaña de 2021, donde se documentó un pequeño crómlech, de 1,20 m de diámetro, datado en la segunda mitad del I milenio cal BC, dentro de la Edad del Hierro. La campaña de sondeos se orientó a la prospección de este tipo de estructuras menores, que podían pasar desapercibidas.

La campaña de prospección ha incluido un total de 8 sondeos estratigráficos, excavados de forma manual y ejecutados durante la segunda quincena del mes de septiembre de 2022. Cinco de ellos han abarcado una superficie de 1 m^2, siendo excepciones el sondeo S-2 (de 2 m^2), el sondeo S-6 (de 9 m^2) y el sondeo S-8 (de 3 m^2). Los sondeos han sido numerados mediante las siglas S-1, S-2,…, y subdivididos en cuatro cuadrantes de 50 cm de lado, para la excavación y control topográfico de muestras y hallazgos. El levantamiento de las tierras se ejecutó en semitallas de 5 cm de espesor y el sedimento se cribó con cedazo metálico de 2 milímetros de luz, interpretando el conjunto desde los principios de la Estratigrafía Analítica.

Probazelaiburuko I. zundaketa kanpainaren emaitzak

Emaitza positiboak eskaini dituzte Probazelaiburun egindako zundaketek, eta beraz, berretsi egin da miaketa kanpainan proposatutako hipotesia. Horrek guztiak Probazelaiburu-Iturzurigana (Berriz-Mallabia) multzoko hileta sekuentzia finkatzen du, eta ondorioz, balioa eta zabalkundea emateko aukera handiak eskaintzen ditu eremu arkeologiko honek. Aurkikuntzak batez ere S-2 eta S-8 zundaketetan egin dira.

S-2 zundaketa

Zundaketa honetan, 20 cm-ko sakoneran, ezagutzen ez zen harrizko egitura bat geratu zen agerian, ondoko PZ1 trikuharriaren antzekoa, harri batzuk posizio bertikalean zituela horizontalean zeuden beste batzuen ondoan. Oso azalera txikia induskatu genuen, baina itxura guztien arabera ganbera eta tumulu batez eratutako hileta monumentua da (trikuharria edo zista). Lurpean kontserbatu denez potentzial arkeologiko handia du, eta baliteke inolako aldaketa natural edo antropikorik gabe kontserbatu izana. Kontuan harturik kanpaina honen helburuak, soilik miaketa lanak egitera eta dokumentatzera mugatuko baikinen, ehunezko sare batez eta lurrez estali genuen egitura bere kontserbazioa bermatzeko.

S-8 zundaketa

S-8 zundaketa, 2,60 x 1,20 m-ko azalerarekin, Probazelaiburu 2 tumulutik hegoaldera 32 metrotara induskatu genuen. Puntu horretan, zalantzak gorabehera azaleratzetzat hartu genuen hareharrizko bloke bat agertzen zen. Zundaketa arkeologikoki induskatuta agerian geratu zen sekzio ia triangeluarreko monolito bat, gehienez ere 2,35 m luze, hasiera batean menhir gisa kalifikatzea bermatzen duten ezaugarri jakin batzuk dituena: a) kokapena, nekropoli megalitiko baten barruan; b) inguruan arroka azaleratzerik ez egotea; c) blokea erregularizatu eta landu izanaren arrastoak; eta d) testuinguru estratigrafikoa. Indusketa arkeologiko sakon baten bidez menhir bat dela berresten bada, handitu egingo litzateke Oizko estazio megalitikoko arkitekturen aniztasuna, eta Probazelaiburu-Iturzurigana multzoaren antolamenduari buruzko informazio baliotsua eskainiko luke. Oraingoz, ehunezko sare batez eta lurrez estali dugu monolitoa bere kontserbazioa bermatzeko.

Resultados de la Iª campaña de sondeos en Probazelaiburu

Los sondeos realizados en Probazelaiburu han aportado resultados positivos, confirmando la hipótesis de partida de la campaña de prospección. Todo ello consolida la secuencia funeraria del conjunto Probazelaiburu-Iturzurigana (Berriz-Mallabia), dando lugar a un área arqueológica con grandes posibilidades para la puesta en valor y difusión. Los hallazgos realizados se centran básicamente en los sondeos S-2 y S-8.

Sondeo S-2

En este sondeo, a 20 cm de profundidad se descubre una estructura pétrea inédita, similar a la del contiguo dolmen PZ1, con algunas lajas en posición vertical, yuxtapuestas a otras horizontales. La superficie excavada es mínima, pero todo apunta a un monumento funerario de cámara y túmulo (dolmen o cista). El hecho de haberse conservado enterrado le confiere un gran potencial arqueológico, pudiendo haberse mantenido sin ningún tipo de alteración natural ni antrópica. Dados los objetivos de la presente campaña, exclusivamente de prospección y documentación, la estructura se ha cubierto con tela geotextil y tierra para garantizar su conservación.

Sondeo S-8

El sondeo S-8, de 2,60 x 1,20 m de superficie, se abrió a 32 metros al sur del túmulo de Probazelaiburu 2. En ese punto asomaba un bloque de arenisca que considerábamos un afloramiento, aunque con algunas dudas. Tras la excavación arqueológica del sondeo, se descubre un monolito de sección subtriangular y 2,35 m de longitud máxima, con algunos rasgos que avalan (preliminarmente) su calificación como menhir: a) su emplazamiento dentro de una necrópolis megalítica; b) la ausencia de afloramientos en el entorno; c) la presencia de huellas de labra y regularización del bloque; y d) el contexto estratigráfico. Si se confirma su clasificación como menhir, mediante una excavación arqueológica en profundidad, la estación megalítica de Oiz incrementaría la diversidad de sus arquitecturas y podría aportar valiosa información sobre la organización del conjunto Probazelaiburu-Iturzurigana. Por el momento, el monolito se ha cubierto de tela geotextil y tierra para garantizar su conservación.

J. C. López Quintana; A. Guenaga; J.M. Arruabarrena; I. Líbano; E. Arévalo; A. Sánchez; E. Alonso

B.20. **MORGA**

B.20.1. **Meakaur auzoko hornidura sarea hobetzeko lanak**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

B.20.1. **Mejora de la red de abastecimiento existente en el barrio Meakaur**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Ola Errota (5. BAG) eta El Crucifijo baseliza (13. BAG) balizko arkeologia guneei begira ezarritako mugetatik

Intervención desarrollada en base al seguimiento arqueológico de los movimientos de tierra efectuados en

gertu egindako lur mugimenduen gaineko jarraipen arkeologikoan oinarritutako esku hartzea. Bi gune horietan agerian utzitako estratigrafia sorta eduki arkeologikorik gabeko estratuez osatzen da, ez da errotari edo errotako azpiegitura hidraulikoei lotutako eraikuntza hondakinik identifikatzen, ezta tenpluaren kanpoaldeko balizko nekropoli bati lotutako hileta elementurik ere.

Emaitzak negatiboak izan dira arkeologiaren ikuspuntutik, baina etorkizunean ebaluatzeko geratzen da gune bakoitzaren izendapenean ezarritako eremu babestuetan biltzen den azalera osoa.

las inmediaciones de las delimitaciones establecidas para las zonas de presunción arqueológica Molino Ola (ZPA nº 5) y Ermita del Crucifijo (ZPA nº 13). La seriación estratigráfica exhumada en ambas zonas está conformada por estratos sin contenido arqueológico en los que no se evidencian restos constructivos asociados al molino o sus infraestructuras hidráulicas, ni elementos funerarios vinculados a una hipotética necrópolis en el exterior del templo.

Los resultados han sido de nulo interés arqueológico quedando pendiente de evaluar en el futuro la totalidad de la superficie incluida en los ámbitos de protección establecidos en sus respectivas declaraciones.

A. Ruiz de Marco

B.20.2. **Ola auzoko hornidura sarea hobetzeko lanak**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

B.20.2. **Mejora de la red de abastecimiento existente en el barrio Ola**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Aurretiazko zundaketen eta proiektua gauzatzetik eratorritako lur mugimenduen gaineko kontrol arkeologikoen ondorioz baztertu egiten dugu proiektuaren arabera balizko inpaktuak nozitu zitzaketen balizko arkeologia guneetan inolako eraginik izatea.

San Martin eliza (10. BAG)

Tenpluaren ekialdean eta hegoaldean, inguruko 15 m-ko babes arkeologikoko perimetroaren barruan, egindako hiru zundaketa mekanikotan (1,20 m luze bider 1 m zabal) eta ondorengo lur mugimenduen gaineko jarraipen arkeologikoan oinarritutako esku hartzea. Sinplea eta antzua da sekuentzia estratigrafikoa. Aro garaikidekoak dira agerian utzitako estratu guztiak, eta errepidearen eraikuntzari lotuta daude: zoruko asfaltoa, berdintze geruzak eta hormigoia, eta/edo aspaldi ez dela ingurune hori moldatzeko eta auzoa zerbitzuez hornitzeko egindako obrei lotuak dira.

Emaitzak negatiboak izan dira arkeologiaren ikuspuntutik, baina etorkizunean ebaluatzeko geratzen dira elizaren barrualdea eta tenpluaren iparraldea eta mendebaldea.

Isasi jauregia (9. BAG)

Eremu babestuaren erdialdea luzetara zeharkatzen duen bide asfaltatuaren alboetan 20 m-ko tarte erregularretan egindako bost zundaketa mekanikotan (1,20 m luze bide 1 m zabal) eta ondorengo lur mugimenduen gaineko jarraipen arkeologikoetan oinarritutako esku hartzea. Katastroan jasotako lursailei erreparatuta ikusten da 25 x 24 m-ko lursail bat dagoela (11. lursaila), eta bere konfigurazioagatik, aprobetxamendu berezituagatik, gune goratu eta zelai batean egoteagatik eta San Martin elizatik gutxi gorabehera 100 metrotara egoteagatik jauregiaren jatorrizko kokapena izan zitekeen. Gainazalean ageriko hondakinik kontserbatu ez duen higiezin horri dagokionez, gauza jakina da jauregi haren

Los sondeos previos y el posterior control arqueológico de los movimientos de tierra derivados de la ejecución del proyecto han permitido descartar la afección sobre las zonas de presunción arqueológica para las que se habían detectado impactos potenciales por el proyecto.

Iglesia de San Martín (ZPA nº 10)

Intervención desarrollada en base a tres sondeos mecánicos, de 1,20 m de longitud por 1 m de anchura, situados en los laterales este y sur del templo, dentro del perímetro de protección arqueológica de 15 m de entorno, y en el posterior seguimiento arqueológico de los movimientos de tierra. La seriación estratigráfica es sencilla y estéril. Todos los estratos exhumados son de época contemporánea, vinculados a la construcción de la carretera: asfaltado del firme y capas de nivelación y hormigón, y/o a las obras realizadas en época reciente para el acondicionamiento de la zona y la dotación de servicios al barrio.

Los resultados han sido de nulo interés arqueológico quedando pendiente de evaluar en el futuro el interior de la iglesia y sus laterales norte y oeste.

Palacio Isasi (ZPA nº 9)

Intervención desarrollada en base a cinco sondeos mecánicos, de 1,20 m de longitud por 1 m de anchura, situados a intervalos regulares de 20 m de distancia en los laterales de la pista asfaltada que recorre de forma longitudinal el centro del ámbito de protección, y en el posterior seguimiento arqueológico de los movimientos de tierra. Analizando el parcelario catastral se observa la existencia de una finca catastral de 25 x 24 metros (parcela nº 11), que por su configuración, aprovechamiento diferenciado, situación en zona plana y elevada y ubicación a unos 100 metros de la Iglesia de San Martín pudiera corresponder con la localización original del palacio. De este inmueble, del que no quedan restos visibles en superficie, se sabe que sus materiales fueron

materialak 1580. urtean San Martin eliza handitzeko erabili zituztela, eta 1779an haren hondakinak eta uraska bat lurrez estali zituztela, aipatutako San Martin parrokiako onuradun Juan Bauptista de Bolibarrek eta Juan Manuel de Gueréquizek elizaren inguruak galsoro bihurtzeko xedean bultzatutako ekimenari jarraiki.

Emaitzak negatiboak izan dira arkeologiaren ikuspuntutik, baina ebaluatzeko geratzen da eremu babestuan biltzen den ia azalera osoa.

Meakaur burdinola (11. BAG)

Balizko arkeologia gunearen erdialdea zeharkatzen duen asfaltozko bidearen paraleloan eroalea hartzeko zanga irekitzeko lur mugimenduen gaineko jarraipen arkeologikoan oinarritutako esku hartzea.

Emaitzak negatiboak izan dira arkeologiaren ikuspuntutik, baina ebaluatzeko geratzen da eremu babestuan biltzen den ia azalera osoa.

utilizados en 1580 para ampliar la iglesia de San Martín y sus vestigios y un patín de agua se cubrieron de tierra el año de 1779, a causa de haber reducido su circunferencia a heredad de pan de sembrar por don Juan Bauptista de Bolibar y don Juan Manuel de Gueréquiz, beneficiados de la citada parroquia de San Martín.

Los resultados han sido de nulo interés arqueológico, quedando pendiente de evaluar en el futuro la práctica totalidad de su superficie.

Ferrería de Meakaur (ZPA nº 11)

Intervención desarrollada en base al seguimiento arqueológico de los movimientos de tierra efectuados en la apertura de la zanja que acoge la conducción y discurre en paralelo a la pista asfaltada que atraviesa el área central de la zona de presunción arqueológica.

Los resultados han sido de nulo interés arqueológico quedando pendiente de evaluar en el futuro la práctica totalidad de la superficie incluida en el ámbito de protección.

M. Lerín Sanz; A. Ruiz de Marco

B.21. **MUNGIA**

B.21.1. **Karmelo Etxegarai kalea, 42. Elortza baserria (13. BAG)**

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantzazioa: Jabea

B.21.1. **Karmelo Etxegarai, 42. Caserío Elorza (ZPA nº 13)**

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Propiedad

References to the Elorza Farmhouse date back to the middle of the 16th century. However, the archaeological exploration of the area around the stables, in the zone in which said building is thought to have been located, revealed no evidence of its presence.

Elortza baserriko ukuilu aldean bideratutako lanek ez dute erakutsi etxebizitza aldea eta ukuilua bereizten dituen su hesi/hormaren paraleloan egokitutako zementuzko zoru bat eraikitzetik harago beste ezer dagoenik.

Jatorri zalantzagarria duen buztinezko depositua da harrizko estratura iritsi aurretik dokumentatutako elementu bakarra, eta gainera, zaila da argitzea estratu hori lurzorua berdintzeko ekarpen baten emaitza den ala lur eremuko geologiaren berezko estratua den. Estratu horretan ez dugu kultura materialik aurkitu.

Los trabajos efectuados en el área de la cuadra del caserío Elorza no ha mostrado la presencia de una ocupación humana más allá de la ejecución de un suelo a base de cemento ubicado en paralelo al muro cortafuegos que separa el espacio de vivienda del de la cuadra.

Un depósito de arcilla con un incierto origen (difícil dilucidar si se trata de un echado de nivelación o si se trata, por el contrario, de un estrato propio de la geología del terreno) es el único elemento documentado, previo a la localización del estrato rocoso. En dicho estrato no se ha hallado resto alguno de cultura material.

R. Rodríguez Calleja

B.22. MURUETA

B.22.1. **Bateltoki teileria**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.22.1. **Tejera de Bateltoki**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The text outlines the archaeological assessment of the environmental and landscape recovery work focusing on 'La Dinamita' loading dock, prompted by the possibility of it affecting the Bateltoki tile factory (Murueta).

Bateltoki teileria (Murueta) Gernika-Bermeo burdinbidearen eskuinaldeko ezponda batean dago, Bateltokiko ainguralekutik hurbil. Teilak eta adreiluak egiteko instalazio protoindustrial bat da, tiro bertikalekoa eta lurrean erdi induskatua. Bi ganbera ditu, labea edo arragoa behean eta piezak egostekoa goikoan. Kortezubiko Terlegiz teileriaren tipologia berbera du. Kultura, Gaztedia eta Kirol Sailburuordeak 1997ko maiatzaren 21ean emandako Ebazpenaren bidez (1997ko ekainaren 13ko EHAA) balizko arkeologia gune gisa dago izendatuta, A motatakoen artean (Eraikinaren hormez barruko esparrua babestekoa).

Eusko Jaurlaritzak sustatutako «*Auzolandegiak*» programaren testuinguruan, Muruetako Udalak nazioarteko landa lan bat antolatu zuen Muruetako Ontziolen ondoko «La Dinamita» kargaleku zaharraren inguruneko ingurumena eta paisaia lehengoratzeko. Eusko Jaurlaritzaren kartografiaren arabera, lanek kontserbazio egoera txarrean zegoen Bateltoki teileriako aztarnetan eragin zezaketen, eta beraz, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak eskatuta, obraren ebaluazio arkeologiko bat eraman genuen burura. 2022ko apirilaren 16an ikuskaritza bisitaldi bat egin genuen Muruetako alkateak lagundurik, eta planteatutako obrek instalazio protoindustrialean inolako eraginik izango ez zutela egiaztatu genuen bertatik bertara.

La tejera de Bateltoki (Murueta) se sitúa en el talud derecho de la línea ferroviaria Gernika-Bermeo, próxima al fondeadero de Bateltoki. Se trata de una instalación protoindustrial para la producción de tejas y ladrillos, de tiro vertical y semiexcavada en el terreno. Presenta dos cámaras: la inferior o de combustión y la superior o de cocción. La tipología es idéntica a la tejera de Terlegiz, en Kortezubi. Está declarada como *zona de presunción arqueológica* mediante Resolución de 21 de mayo de 1997, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes. (BOPV 13 de junio de 1997), con la clave A (protección del área intramuros del edificio).

En el marco del programa «*Auzolandegiak*», promovido por el Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Murueta planificó un campo de trabajo internacional para la recuperación ambiental y paisajística del entorno del antiguo cargadero «La Dinamita», junto a los Astilleros de Murueta. Según la cartografía del Gobierno Vasco, las obras en cuestión podían afectar a los restos de la tejera de Bateltoki, en frágil estado de conservación, por lo que se llevó a cabo una evaluación arqueológica de obra, requerida por el Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia. El día 16 de abril de 2022 hicimos la visita de inspección, acompañados por el alcalde de Murueta comprobando que las obras planteadas no suponían ningún riesgo de afección a la instalación protoindustrial.

J. C. López Quintana

B.23. ORDUÑA / URDUÑA

B.23.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.23.1.1. **Barria kalea, 48 / Zagueras kalea,43**

Zuzendaritza: Lorena Elorza González de Alaiza
Finantzazioa: Construcciones BIGANDI, S.L.

B.23.1.1. **Barria, 48 / Zagueras 43**

Dirección: Lorena Elorza González de Alaiza
Financiación: Construcciones BIGANDI S.L.

Archaeological intervention prompted by the demolition and reconstruction of a property located in the town's Archaeological Zone, which is recognised as a Cultural Asset under the category Monumental Complex. Four sondages were carried out, covering 46% of the useful surface area of the building. Each sondage was located in one of the rooms of the current building, with the aim of identifying the possible existence of remains in the subsoil that pre-date the present structure or date from its initial phases, along with any other archaeological evidence that may have survived, with special emphasis on the facade area, which is thought to perhaps coincide with the line of the Orduña defensive wall.

Orubearen bilakaera

Eremu naturalaren portaera desberdinak eta espazioen estratigrafia desberdinak zaildu egiten dute multzoaren eboluzio faseen sintesia egitea, baina espazioaren une ebolutiboak sailkatu ditugu gaingiroki, bost fase orokor bereizirik. Argi eta garbi esan dezakeguna da ez dugula XVI. mendeko sute ezagunei lotutako hondakinik dokumentatu, eta beraz, baliteke indusketa lanetan zehar dokumentatutako egitura gehien-gehienak data horren ondorengoak izatea, denak harresiaren hondakinak izan ezik, aurrerago ikusiko dugunez.

1. Fasea. Eraikina altxatu aurreko egiturak (Erdi Aroa)

Fase honetan bakarrik bi elementu sartzen ditugu; alde batetik, 300. zundaketan aurkitutako kubeta, substratu naturalean induskatua, itxura batean eraikina eraiki aurreko une batekoa dena; eta bestetik, 400. zundaketan identifikatutako harresi atalaren hondakinak, orubea okupatu zuten lehenengo une honetan kokatu beharrekoak.

2. fasea. Eraikinaren eraikuntza

Une honetakoak dira 100. eta 200. zundaketetan identifikatutako jarduera batzuk. Alde batetik, 100. zundaketan, horma baten eraikuntza dugu, dagokion zimendu zangarekin: fatxadako egungo horma da, eta beraz, zuzeneko lotura izan dezake eraikinaren eraikuntzarekin. Jangela aldean, une honetan kokatzen da kareorea prestatzeko gune gisa identifikatutako egitura, era berean hormaren eraikuntzari lotua dena.

3. fasea. Eraikinaren lehen erabilera

Bi etapa bereiz ditzakegu fase honetan: hasteko, espazioko irregulartasunak amortizatzen dituzten betegarriak eta berdintze geruzak ditugu, baita horretarako behar diren egiturak ere. Bigarren unekoak dira lehen une honetako erabilerako zoru guztiak, hau da, 100. zundaketako lauzadura, 200. zundaketako enkatxoak eta harrizko zoladurak eta 300. zundaketako enkatxoak. Argi samar dago horiek ez direla ekintza bakarraren emaitza, izan ere, hainbat handitze lan eta konponketa dokumentatzen dira, baina funtzionaltasun bera dutenez eta denbora bitarte bertsuan antolatu zituztenez, fase berean bildu ditugu. Eremu bakoitzeko espazioaren funtzionaltasun heterogeneoak (etxeko zorua, ukuilukoa, etab.) markatuko luke lurzoru desberdinen (lauzadura, enkatxoa, harrizko zoladura) arteko aldea. Berreskuratutako materialak, artean sakon aztertu gabe badaude ere, ez dira esanguratsuak une hau datatzeko, baina guk uste dugu Behe Erdi Aroaren eta Aro Modernoaren hasieraren arteko une batean kokatzen dela. Une honetakoa da, era berean, 400. zundaketan identifikatutako depositu organikoa, baratze bati dagokiona.

4. fasea. Aurreko egituren amortizazioa

Fase honetan biltzen ditugu lehenengo erabilera horren eta hormigoizko zoladurek definitzen duten gaur egungoaren arteko amortizazio desposituak. 300. eta 400. zundaketetako buztinezko desposituez eta 200. zundaketako zoruak amortizatzen dituzten desposituez ari gara.

La evolución del solar

El comportamiento dispar del terreno natural, así como la desigual estratigrafía de los diferentes espacios hacen difícil realizar una síntesis en fases evolutivas de conjunto, pero se ha realizado una clasificación a grandes rasgos de los momentos evolutivos del espacio, con cinco fases generales. Sí que podemos afirmar que no se han documentado restos asociados a los incendios conocidos del siglo XVI, por lo que cabe la posibilidad de que la mayor parte de las estructuras documentadas en la excavación sean posteriores a esa fecha, a excepción, como veremos, de los restos de la muralla.

Fase 1. Estructuras previas al edificio (época medieval)

En esta primera fase enmarcamos únicamente dos elementos; por un lado, la cubeta localizada en el Sondeo 300, excavada en el sustrato natural y que parece pertenecer a un momento previo de la construcción del edificio. De igual manera, los restos del lienzo de la muralla identificados en el Sondeo 400 se adscriben a este primer momento de ocupación del solar.

Fase 2. Construcción del edificio

Se corresponden a este momento varias actividades localizadas tanto en el Sondeo 100 como en el 200. Por un lado, en el primero contamos para este momento con la construcción de un muro con su zanja de cimentación, base del muro actual de la fachada, por lo que pudiera ponerse en relación con la construcción del edificio. En la zona del comedor se adscribe a este momento la estructura identificada como espacio para preparar la argamasa, asociada asimismo a la construcción del muro.

Fase 3. Primer uso del edificio

En esta fase podemos encontrar dos subdivisiones: en un primer momento, nos encontramos ante diferentes rellenos y nivelaciones que amortizan las irregularidades del espacio, así como las estructuras necesarias para ello. En un segundo momento, nos encontramos con todos los suelos de uso de este primer momento, englobando aquí el enlosado del Sondeo 100, así como el encachado y empedrados del Sondeo 200 y los encachados del Sondeo 300. Parece claro pensar que no es una acción única, sino que se pueden documentar diferentes ampliaciones y reparaciones, pero al mantener la misma funcionalidad, los incluimos en la misma fase, ya que además, en el tiempo mucho una de otra. La diferencia entre los distintos suelos (enlosado, encachado, empedrado) podría venir definida por la heterogénea funcionalidad del espacio de cada área (suelo de casa, cuadra, etc.). Los materiales recuperados, a falta de su estudio, no son significativos para fechar este momento, pero podemos pensar que se trata de un momento comprendido entre la Baja Edad Media y el inicio de la Edad Moderna. A este momento también pertenecería el depósito orgánico del Sondeo 400, atendiendo a su uso como huerta.

Fase 4. Amortización de las estructuras previas

Englobamos aquí los depósitos de amortización entre este primer uso y el uso actual, que viene definido por las soleras de hormigón. Se trata de los depósitos arcillosos de los sondeos 300 y 400, así como los depósitos que amortizan los suelos en el Sondeo 200.

5. fasea. Eraikinaren erabilera taberna/jatetxe gisa (gaur egun)

Orubeen erabilera taberna/jatetxe gisa eta atxikiriko gelak (biltegia, garajea). Une honetakoak dira gaur egungo baldosazko zoru guztiak, kontrol arkeologikoan zehar altxatutako zoladurak eta dagozkien berdintze/goratze deposituak.

Urduñako harresia esku hartze arkeologikoan

Printzipioz 100. eta 400. zundaketek emango ziguten harresiaren balizko aztarnak dokumentatzeko aukera, zundaketa horien mugek bat egiten baitute harresiaren lerroarekin, egungo fatxadari jarraiki. Sukalde (100. sektorea) eta jangela (200. sektorea) barruko horma atalak behin eta berriz eraldatu dira higiezinean ondoz ondo bideratu diren berritze eta moldatze lanen ondorioz, lehenik ostatu izan baitzen eta ondoren taberna/jatetxe, eta horma bera ere mehetu zuten barruko aldera espazioa irabazteko, izan ere, altxaeran ez da jatorrizko harresiaren zatirik kontserbatu, baina baliteke harresiaren atal horretako zatiren bat kontserbatzea haren kanpoko aurpegian.

100. zundaketan horma egitura bat dokumentatu genuen egungo fatxadaren azpian. Kareharrizko harlangaitz irregularrez egina da, pieza batzuk formaz karratuak eta angeluzuzenak direlarik, errenkada apur bat irregularretan baina horizontaltasunera egiteko joerarekin ipiniak. Horma egitura hori batez beste 40-45 cm lodi da dokumentatutakoaren arabera, eta gutxi gorabehera 60 cm-ko garaiera kontserbatu du lau ilaratan. Halere, kontuan eduki behar dugu jarraipena izan dezakeela egungo fatxadako hormaren azpian. Iparraldetik hegoaldera luzatzen den beste horma bat aurrekoarekin teilakatzen da, higiezinaren ekialdeko hormaren oinarria da eta harresiko ate zaharraren ondoan dago. Tamalez, ezin izan genuen osorik dokumentatu zati bat ertzaren azpian eta, lehen ere azaldu dugun bezala, higiezinaren ekialdeko itxitura hormaren azpian gelditzen delako. Bi horma horiek zimendu zanga partekatzen dute, eta beraz, une kronologiko berean eraiki zituztela pentsa genezake, nahiz eta ekialdeko hormari dagokion zatia irregularragoa den eta iparraldera egin ahala itxura batean galtzen den, indusketa guneko profilaren azpian desagertuta. Esku hartzeak burutu ondoren, guk uste dugu eraikinaren ekialdean dokumentatutako egungo lurzoruaren azpiko elementuak inguruko beste esku hartze batzuetan dokumentatutako harresi lerroari jarraitzen zaizkiola, baina *a priori* ez direla Erdi Aroko harresiaren hondakinak.

Aitzitik, bestelakoak izan dira 400. zundaketak eskainitako emaitzak. Gaur egungo fatxadaren paraleloan bideratutako zundaketan desberdintasun bat dokumentatu genuen egungo fatxadaren beraren osaeran: oinarritik abiatuta gutxi gorabehera aurreneko 90 cm-tan tamaina handiagoko kareharrizko harlangaitzez eginda dago, formaz angeluzuzenak dira piezak, ilunagoak, eta luzetarako zainetan ongi asko nabaritzen den kareorez grisaxkaz, kare noduluekin, daude batuta. Altuera horretatik gora, harlangaitzak lauangeluarragoak eta irregularragoak dira, txikiagoak, eta bestelako kareore batez daude batuta; altxaera osoan daude antolatuta, eta horman hainbat konponketa nabari dira; gainera, zarpiatuta dago erabilerako zoruaren mailan. Bestelako

Fase 5. Uso del edificio como bar/restaurante (actualidad)

Uso de los solares como bar-restaurante y estancias asociadas (almacén, garaje). A este momento se corresponden todos los suelos de baldosa actual, así como las soleras que se han retirado en el control arqueológico, junto con los depósitos de nivelación/recrecimiento correspondientes.

La muralla de Orduña dentro de la intervención arqueológica

En principio eran los sondeos 100 y 400 los que nos permitirían documentar los posibles restos de la muralla, ya que sus límites coinciden con la línea de ésta, siguiendo la fachada actual. Los paramentos interiores de la zona dedicada a la cocina (Sector 100) y al comedor (Sector 200) se han visto tan alterados por las sucesivas reformas y acondicionamiento del inmueble a su función como posada primero y bar/restaurante después, llegando incluso al adelgazamiento del propio muro para ganar espacio en el interior, que en alzado, no queda resto alguno de la muralla original, tal como puede ser posible en algunas de las zonas del lienzo exterior.

En el sondeo 100 se documentó una estructura muraria bajo la fachada actual, realizada con mampuestos irregulares de caliza, algunos de forma cuadrangular o rectangular, colocados en hiladas más bien irregulares, aunque tendentes a la horizontalidad, alcanzando una anchura media documentada de 40-45 cm y una altura conservada de aproximadamente 60 cm en cuatro hiladas. Sin embargo, debemos tener en cuenta la alta posibilidad de que se desarrolle bajo el muro de la fachada actual. Otro muro, éste con dirección N-S imbrica con el anterior, siendo la base del muro oriental del inmueble, junto a la antigua puerta de la muralla. Lamentablemente, no pudo documentarse de forma completa porque queda parcialmente bajo el cantil y el muro de cierre del edificio por el lado oriental, como decimos. Ambos paramentos comparten zanja de cimentación, lo que nos permite pensar que fueron construidos en el mismo momento cronológico, aunque es cierto que la parte correspondiente al muro oriental es más irregular y parece perderse según nos desplazamos hacia el norte, perdiéndose bajo el perfil de la excavación. Tras las intervenciones realizadas, consideramos que los elementos bajo cota de suelo actual documentados en la zona oriental del edificio sí siguen la línea de muralla documentada en otras actuaciones cercanas, pero no son *a priori* restos de la muralla medieval.

En el Sondeo 400, los resultados en cambio han sido diferentes. En la cata realizada de forma paralela a la fachada actual se documentó una diferencia en la composición del propio muro de la fachada actual: los primeros 90 cm aproximadamente partiendo desde la base, están conformados por mampuestos calizos de mayores dimensiones, de forma rectangular, más oscuros y montados con una argamasa grisácea con nódulos de cal que se aprecia claramente en vetas longitudinales. Sobre esa cota, los mampuestos son más cuadrangulares e irregulares, de menor medida, y con una argamasa diferente, que se desarrollan en todo el alzado, con varias reformas, con la única diferencia de que sobre la cota de suelo de uso se encontraba enfos-



Ezkerrean, kareorea prestatzeko egitura 200. sektorean. Eskuinean, harresitik kontserbatutako aztarnak 400. sektorean.



A la izquierda, estructura para la preparación de argamasa del Sector 200. A la derecha, restos conservados de la muralla en el Sector 400.

bolumetria horrexek iradokitzen digu agian harresiaren zimenduak direla. Hori kontuan izanik, guk uste dugu horixe dela gaur egungo eraikinaren horman kontserbatu den harresi atal bakarra. Ezin izan dugu substratu naturalean ebakirik definitu maila freatikoraino iritsi garelako, baina kontuan izanik buztinezko deposituan ez dugula halakorik hauteman, zentzuzkoa da harresiaren zimenduak substratu geologikoan daudela pentsatzea.

Harresia ez da berdin kontserbatuko bi aurpegietan, denboraren joanean bideratutako esku hartzeek soilik aurpegietako batean eragin ahal izan baitute, guk geuk hainbat aldiz dokumentatu dugun bezala.

Kontuan hartzen baditugu iturri idatziak, 1653. urteko errolda batean jasota dagoenaren arabera, XVII. mendekoa da orube honetako etxe bati buruzko lehen aipamena; gainera, badakigu mende bat geroago, 1753. urtean, «ostatu» gisa funtzionatzen zuela, nahiz ez dakigun zehazki zer unetan hasi zen ostatu zerbitzua ematen, eta ia gaur egunera arte izan dela ostatu. Beraz, hor egongo zen Erdi Aroko harresia gutxienez XVII. mendeko bigarren erditik aurrera eraldatu da, batez ere tamainaz eta kokapenez aldatu diren baoak irekita, eta beraz, ez da harritzekoa kontserbatu diren hondakinak munta txikikoak izatea eta kronologikoki zehazten zailak.

Fatxadako hormen irakurketa

Behin esku arkeologikoa burura eraman ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko Arkitektura sailak eraikinaren kanpoko hormetan esku hartze zehatzago bat egiteko eskatu zuen, izan ere, barrualdean haren altxaerak eta/edo zimenduak egiaztatu ahal izan baziren ere, kanpoaldean, zarpiatuta egonik, ezin izan zen sakon aztertu, eta ezin identifika zitekeen Erdi Aroko harresiari zegokion jatorrizko estekadura.

Azpimarratu behar dugu ez dela eraikineko hormen irakurketa oso eta integral bat, hori ez baita lan honen xedea.

cado. Esta volumetría diferente es la que nos hace pensar que tal vez se trate de la cimentación de la muralla. Teniendo esto en cuenta, pensamos que éste es el único tramo de muralla conservado en el alzado del edificio actual. No ha sido posible definir un corte en el sustrato natural debido a que se ha alcanzado el nivel freático, pero teniendo en cuenta que no se ha detectado en el depósito de arcilla, parece lógico pensar que la cimentación de la muralla debe estar localizada en el sustrato geológico.

La conservación de la cerca no ha de ser igual en ambas caras, ya que las diversas actuaciones llevadas a cabo a lo largo del tiempo han podido, y de hecho en ocasiones hemos documentado que es así, afectar únicamente a una de ellas.

Si tenemos en cuenta la información documental, la primera mención de una casa en este solar es del siglo XVII, según se recoge en un censo del año 1653; además, sabemos que un siglo más tarde, ya en el año 1753, está funcionando como «mesón», sin que podamos determinar en qué momento comienza esta actividad, que se mantendrá prácticamente hasta la actualidad. Por lo tanto, la muralla medieval que debió existir aquí se ha visto modificada desde al menos la segunda mitad del siglo XVII, esencialmente con la apertura de vanos que han ido variando en tamaño y ubicación, por lo que no resulta extraño que los restos conservados sean de tan escasa entidad y de tan difícil adscripción.

Lectura de alzados de la fachada

Una vez realizada la intervención arqueológica, el departamento de Arquitectura del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia pidió una actuación más concreta, centrada en los alzados exteriores del edificio, debido a que, aunque en el interior se habían podido verificar los alzados y/o cimentaciones de la misma, el exterior, al estar revocado, no había podido ser estudiado con exhaustividad y no podía reconocerse la presencia de aparejo original perteneciente a la muralla medieval.

Debemos resaltar el hecho de que no se trata de una lectura de alzados completa e integral del edificio, ya que no era ese el objetivo de este trabajo.

Higiezinaren kanpoaldeari dagokionez, Zagueras kaleari begira duen fatxadan, lehen hurbilketa bat egin ondoren, BFAko teknikariekin batera balioetsi zen geroagoko eraberritze lanek eragin handia izan zuten horma atal batean jatorrizko harresiaren «tarte» batzuek iraun zezaketela; Erdi Aroko harresi atalaren aztarna batzuk identifikatzen omen diren bost gune bereizi dira, eta horiek kontserbatu egin beharko dira eraikinean bideratzen diren eraberritze lanetan. Ez dira gune handiak, baizik eta eraikinean burututako eraberritze lanek eragin ez duten gune txikiak, lekuko gisa kontserbatu direnak.

Aitzitik, ekialdeko fatxadan, estaldura partzialki altxatuta, ikusi ahal izan da XIX. mendean puntu honetan zegoen Burgosko atea eraitsi zutenean, zehazki 1807ko ekainaren 14 eta 21 bitartean, guztiz desagerrarazi zituztela jatorrizko harresiaren aztarna guztiak. Halere, itsututako bao bat eta Erdi Aroko harresiaren ondorengo garaietan horman egindako beste eraberritze lan batzuen zantzuak bereizten dira.

Urduña hirian burutu diren esku hartzeek agerian uzten dute hiribilduko harresia ez zela inola ere obra uniforme bat izan, hainbat fase izan zituela eraikuntza aldian, eta ondorioz, desberdintasun batzuk nabari direla erabilitako teknikei eta estekadurei dagokienez. Gainera, mendeen joanean, hainbat eraberritze lan eraman dira burura harresiaren trazaduran barrena, eta lan horiek zimenduan ere eragin dute harresia hartzen duen lur eremuaren ezaugarrien ondorioz; izan ere, eremuaren orografiak, mendi magalean eta ur iturburu ugarirekin, eragin negatiboa izan du haren kontserbazio egoeran. Horrexegatik, hain zuzen ere, ez da erraza aztergai dugun higiezinaren indusketan dokumentatutako horma atalak jarduera horrekin lotzea.

En lo que se refiere al exterior del inmueble en su fachada de la calle Zagueras, tras una primera aproximación, se valoró, junto con los técnicos de la DFB-BFA, la posible pervivencia de varios «tramos» de la muralla original en un paramento fuertemente afectado por las reformas posteriores; se han localizado cinco áreas en las que parece identificarse restos del paramento medieval, que deberán ser conservados en las obras de reforma del edificio. No se trata en ningún caso de grandes áreas, sino más bien de pequeñas zonas conservadas a modo de testigo que no se han visto alteradas por las reformas llevadas a cabo en la edificación.

En cambio, en la fachada oriental se ha podido advertir, tras la retirada parcial del revestimiento, que el derribo llevado a cabo en el siglo XIX (concretamente entre el 14 y el 21 de junio de 1807) del portal de Burgos aquí ubicado afectó de tal forma que no quedan restos de la muralla original, aunque sí es posible reconocer la presencia de un vano cegado y otras reformas realizadas en el muro en épocas posteriores a la cerca medieval.

Las diversas intervenciones que se han llevado a cabo en la ciudad de Orduña visibilizan el hecho de que la muralla de la ciudad no fue una obra uniforme ni mucho menos, sino que contó con varias fases en su construcción, lo que a su vez supone diferencias en cuanto a las técnicas y aparejos utilizados. Además, con el transcurrir de los siglos ha sufrido reformas a lo largo de su trazado, viéndose afectada incluso su cimentación debido a las características del terreno en que se asienta, cuya orografía en ladera y con frecuentes surgencias de agua, ha afectado de manera negativa a su conservación. Es por ello que no resulta fácil la adscripción a esta actividad de los paramentos documentados en la excavación del inmueble que nos ocupa.

L. Elorza González de Alaiza

B.24. **OROZKO**

B.24.1. **Erroatx harrobia**

Zuzendaritza: Juanjo Hidalgo
Finantzazioa: Berak finantzatua

B.24.1. **Cantera Erroatx**

Dirección: Juanjo Hidalgo
Financiación: Propia

Erroatx is a quarry whose stone was used mainly for making paving stones and millstones. The archaeological intervention in the quarry revealed the techniques and methodologies used by stonemasons, as well as the workshops, and provides interesting information on the difficulties encountered in adapting to the area, how materials were transported and the presence and use of temporary shelters.

2021eko ekinaldian identifikatutako aztarnategi arkeologikoa da Erroatx, baina jada 2015ean harrobi gisa katalogatu zuen Javi Castrok, Errotarri proiektuaren testuinguruan. Gorbeiako Parke Naturaleko mendialde batean dago, Orozko udalerriaren hegoaldean, eta bertaraino Arbaitza auzotik iristen da, ipar-ekialdera, Arbaitzagoitikoerrekea errekastoari jarraiki. Materialak erauzteko eremua da, batez ere errotarriak eta kaleen zoladurarako galtzada harriak. Hainbat erauzketa fronte eta aire zabaleko tailer izango zituen, baita bide bat ere, harrobiaren eta kargalekuaren artean egokitua, material astuna jaisteko lor animaliei sarbidea emateko.

Erroatx es un yacimiento arqueológico identificado como tal en la campaña de 2021, aunque ya fue catalogado como cantera de extracción en 2015 por Javi Castro, dentro del proyecto Errotarri. Se trata de una zona de monte incluida en el Parque Natural de Gorbeia, y situada al sur del municipio de Orozko, con acceso desde el barrio de Arbaitza, en dirección noreste, siguiendo el arroyo Arbaitzagoitikoerrekea. Se trata de una zona de extracción de materiales, sobre todo de piedras de molino y adoquines para el solado de calles, que debió contar con varios frentes de cantera y talleres al aire libre, así como con un camino adecentado entre el canchal y algún cargadero para dar acceso a los animales de tiro con los que bajar el pesado material.

Esku hartze arkeologikoaren guneak

Erroatxek metodologia arkeologikoz ikertzeko oso leku interesgarria egiten zuten hainbat ezaugarri zituen, izan ere, harrobi fronte garrantzitsu bat zuen goiko aldean, mendi hegalean barrena banatutako blokeen nahaspila handi bat harrobi frontearen eta errekaren artean, ustezko tailer gune batzuk erreka lerroaren gainean eta harpe txiki bat, *in situ* lan egiten zuten harginek behin-behineko babesgune gisa moldatu zutela erakusten duten ageriko arrastoekin. Horregatik guztiagatik, gure helburuetako batzuk ziren harria lantzeko tailerren eta arrokako erauzketa guneen arteko lotura zehaztea, blokeen nahaspila ulertzen saiatzea eta horien jatorri naturala edo antropikoa bereiztea. Eta jakina, mendiko industria horien kronologia zehaztea, ia inolako zalantzarik gabe garatu baitira Aro Moderno osoan zehar eta XX. mendeko lehen hamarkadak arte.

Toki malkarrak, pendiz handiak, arroka solteak, landarediak eta esku hartzeari heltzeko espazioaren planifikazioak guztiz zaildu dute burura eramandako jarduera, baina, hala eta guztiz ere, hiru gunetan esku hartu ahal izan dugu, eta zorrozki miatu ahal izan ditugu harrobi frontea eta blokeen nahaspila.

Behin-behineko harpea-babesgunea

Adiera hertsian ez da harpe bat, ezpada hareharrizko estratu gogorretan berez irekitako lurpeko pitzadura bat. Beraz, ez dute esku hartzen kaltzio karbonatoren eta antzekoen disoluzioarekin zerikusia duten higadura faktoreek, ez baita kareharrizko arroka. Errekatik gora hainbat metrotara dago, eta aho txikia ipar-mendebaldeari begira du. Sarreran terraza modura antolatutako betegarri gune bat du, eta biseraren azpian egonleku antzeko bat itxuratzen duten bi hormatxo, horma bi horien arteko guneak behin-behineko babesgunearena bete duelarik lan sasoietan.

Barruko horma (5. UE) 2 m luze da eta 1 m garai punturik goienean, ez baita beti-batekoa haren altuera, harpeko ahoa sorrarazi zuen estratuaren makurdurara egokitzen delako. Horma horren egitekoa zen pitzadurako sarrera ixtea eta modu horretan aire korronteak

Zonas de intervención arqueológica

Erroatx cumplía con una serie de características que hacían de éste un lugar muy interesante para ser investigado con metodología arqueológica, ya que contaba con un frente de cantera importante en la zona superior, un extenso caos de bloques repartidos por toda la ladera entre el frente de cantera y el río, varias zonas de taller aparente en la línea inmediatamente superior al río, y una covacha con evidentes signos de haber sido acondicionada para refugio temporal por los canteros que trabajaban *in situ*. Por todo ello, uno de nuestros objetivos era determinar la relación habida entre los talleres de labrado y las zonas de extracción de la propia roca, así como tratar de entender el caos de bloques y discernir entre un origen natural o antrópico. Y por supuesto, determinar las cronologías de estas industrias del monte que, con toda seguridad, se han desarrollado durante toda la Edad Moderna y hasta las primeras décadas del siglo XX.

La escabrosidad del lugar, la acusada pendiente, la roca suelta y la vegetación han dificultado en extremo la actividad desarrollada, así como la planificación del espacio para acometer dicha actividad, a pesar de lo cual, hemos podido intervenir en tres zonas diferentes, además de prospectar con detenimiento el frente de cantera y el caos de bloques:

Covacha-refugio temporal

En sentido estricto, no se trata de una cueva, sino de una grieta subterránea abierta de forma natural en los estratos duros de arenisca. No intervienen, pues, factores de erosión que tengan que ver con la disolución del carbonato cálcico y similares, ya que no se trata de roca caliza. Se encuentra a varios metros por encima del río y su pequeña boca se abre hacia el noroeste, con un espacio de relleno aterrazado a la entrada, y un par de muretes de habitación bajo la visera, cuya zona intermural ha servido de refugio temporal en épocas de trabajo.

El muro más al interior (UE.5) tiene 2 m de longitud y 1 m de altura en su parte más alta, ya que no es uniforme en todo su alzado, pues se adapta al buzamiento del estrato que originó la boca de la covacha. Su cometido era cerrar la entrada a la grieta y evitar con ello las



Ezkerrean, galtzada harriak lantzeko 1. tailerraren birsorkuntza, *in situ* utzitako galtzada harriak erabiliz. Eskuinean, 1. tailerrean abandonatutako galtzada harrien metaketa.

A la izquierda, recreación en Taller 1 de un adoquinado, utilizando adoquines que se dejaron *in situ*. A la derecha, apilamiento de adoquines abandonados en Taller 1.

saihestea. Kanpoko hormari dagokionez (6. UE), gaur egun metro beteko altuera duen lekukoa baizik ez da kontserbatzen, zazpi errenkadarekin eta 60 cm eskaseko luzerarekin. Bi horma horiek lurzoruko arroka naturalaren gainean altxatu zituzten, inguruko arrokatik erauzitako harlangaitz irregularrak ilaretan antolatuz, piezak lehorrean ipinita, biserako sabairaino. 120 cm zabal eta 320 cm luze da hormen arteko espazioa, gune beherenean 40 cm garai da eta pixkanaka goratu egiten da punturik garaienean 180 cm izan arte. Guztira 3,84 m²-ko azalera hartzen du. Gune horretan bideratutako esku hartzean altxatu egin genuen gainazaleko geruza (1. UE), inguruko basotik etorritako orbelaz eta humusaz beteta, baita animalien gorotzaz ere, batez ere orein gorotzaz, gaur egun ere atsedenleku gisa erabiltzen baitute oreinek harpe hau.

Geruza natural horren azpian zarakar gogortu bat azaltzen zen (2. UE), 5-7 cm lodi eta kolorez marroi iluna eta hauskara, erabileraren erabileraz lurzoru trinko baten eraketa ahalbidetu duten gorotz eta gernu ekarpenen ondoriozkoa. Haren azpian kareharrizko zoru bat identifikatu genuen (3. UE), deskonposatutako lutitazkoa. Hasiera batean zorua moldatzeko xedean berariaz ekarritako betegarri bat izan zitekeela pentsatu genuen, nahiz eta soilik puntu gutxi batzuetan erabili zuten pikotxa gainazal lauago bat lortzeko, apur bat hegoalderantz inklinaturik. Hormen arteko gunearen kanpoaldean, tamaina ederreko harriekin eta bloke handiekin antolatutako egitura bat dokumentatu ahal izan genuen; harri horiek kanpoaldean, mendi hegal aldapatsuan, irabazitako terrazaren egiturarako erabili zituzten, espazio lau bat sortzeko eta eremu bizigarria handitzeko. Hala eta guztiz ere, indusketa lanetan ez dugu aztarna material bakar bat ere identifikatu, ezta zabor antropikoaren arrastorik bat ere. Ildo horretan, harpea haranaren gainean egokitutako behatoki garai bat denez, hondakinak beherantz bota izan dira, eta ondorioz, blokeen arteko hu-tsuneetan galdu da datazioren bat eskain zezakeen edozein tresna, txanpon edo gauza.

Zoladurarako galtzada harriak egiteko 1. tailerra

Harpe/babesgunearen beheko aldean, hegoalderantz gutxi gorabehera 50 metrotara, 9 m² inguruko gune gutxi gorabehera lau bat dago, harrizko blokerik gabe. Gune horixe erabili zuten harginek hirietako kaleen zoladurarako galtzada harriak, kono-enbor formakoak, lantzeko. Eta ongi asko ezagutzen ditugu galtzada harri horiek gaur arte *in situ* kontserbatu diren piezei esker, zergatik ez dakigula sekula ere ez baitzituzten haranera garraiatu, ez entregatu ere.


Lehenengo tailer honetan goiko geruza (1. UE) garbitu dugu, lurzoru osoa estaltzen zuen goroldio trinko batez eta metatutako orbelez eratutako geruza naturala, sare trinkoa osatzen zuena, altxatzeko neke handia eman zigularik. Azpian argi eta garbi azaltzen da beste unitate estratigrafiko bat, laneko azalera osoa hartzen duena, galtzada harrien lanketatik etorritako hondakinak biltzen dituen betegarri batez eratua (8. UE).Tamaina eta forma askotako harri printzak dira, batzuk finak eta luzeak, bestetzuk lodiagoak, zati ahur edo ganbil nabarmenarekin, formaz triangeluarrak, gehien-gehienak 5 eta 15 cm bitarte luze, baina badira 3-4 cm-ko eta 18-20 cm-tik gorakoak ere, zizel kolpeez landutako galtzada harrien hondakinetatik etorriak. Harriaren lanketatik etorritako hondakin horiek 1. tailerraren gune osoan zehar hedatzen dira: bertatik bertara denboran zehazten zailak diren aldi corrientes de aire. En cuanto al muro exterior (UE.6), hoy tan sólo queda un testigo de un metro de altura con siete hiladas y apenas 60 cm de longitud. Ambos muros se dispusieron sobre la roca natural del suelo, montando hiladas de mampostería irregular en seco, de la propia roca del entorno, hasta llegar al techo de la visera. El espacio entremuros es de 120 cm de ancho y 320 cm de largo, con una altura progresiva que va desde los 40 cm en la zona más baja hasta los 180 cm en la más alta, cubriendo una superficie de 3,84 m². La intervención en este espacio consistió en despejar la capa superficial (UE.1), rellena de hojarasca y humus procedente del entorno boscoso, además de estiércol animal, sobre todo de ciervo, animal que continúa hoy día usándolo como sesteadero.

Bajo esta capa natural se encontraba una costra endurecida de 5-7 cm de grosor (UE.2) y de coloración marrón oscura y cenicienta, producto de la inclusión de excrementos y orina que han favorecido la creación de un suelo compactado por el uso. Por debajo de ella encontramos un suelo de cayuela (UE.3), lutita descompuesta. Inicialmente, valoramos la posibilidad de que fuera un relleno deliberado para acomodar el suelo, aunque sólo en algunas partes habían utilizado la piqueta para lograr una superficie más plana y ligeramente inclinada hacia el lado sur. Parte afuera del espacio entremuros pudimos documentar la disposición de piedras de buen tamaño y grandes bloques, empleados para la estructura de la terraza que se había ganado al exterior, sobre la empinada ladera, con el fin de crear un espacio llano y ampliar la zona habitable. A pesar de todo, la excavación no ha deparado vestigio material alguno, ni restos de basura antrópica. En este sentido, el hecho de que la covacha sea un mirador elevado sobre el valle, ha facilitado el hecho de arrojar desperdicios hacia abajo, y perder entre los huecos de los bloques cualquier utensilio, moneda o instrumento que pudiera haber aportado alguna datación.

Taller 1 para adoquines de solado

A un nivel inferior de la covacha-refugio y a unos 50 metros hacia el sur, se halla una pequeña zona de unos 9 m² de superficie, más o menos llana y despejada de bloques de piedra, que fue utilizada como taller por los canteros para el labrado de adoquines troncocónicos para el solado de las calles de las villas. Y conocemos bien el producto aludido por los depósitos que se han conservado *in situ* hasta nuestros días, y que, por alguna razón, nunca fueron trasladados al valle ni entregados.

La intervención en este primer taller ha consistido en la limpieza de la capa superior (UE.1), un natural de hojarasca acumulada y musgo denso que tapizaba todo el suelo, formando una red muy tupida y costosa de quitar. Bajo ella, aparece con nitidez otra unidad estratigráfica formada por un relleno (UE.8) que contiene los restos de talla de los adoquines cubriendo toda la superficie de trabajo. Se trata de esquirlas o lascas de talla de diferente tamaño y forma, algunas finas y alargadas, otras más gruesas, con acusada parte cóncava o convexa, triangulíformes, y de entre 5 y 15 cm de longitud la mayoría de ellas, aunque las hay de 3-4 cm y también superiores a 18-20 cm, producidas por el labrado de los adoquines a golpe de cincel. Estos restos de talla se extienden por todo el espacio del Taller 1 y son desechos del trabajo de



Ezkerrean, 2. tailerraren ikuspegia harrobiaren behe aldean, elementu guztiak garbituta. Eskuinean, Erroatxeko planoa.

A la izquierda, vista del Taller 2 en la parte baja de la cantera, con todos sus elementos limpios.. A la derecha, plano de Erroatx.

jarraituetan egindako hargintza lanetatik etorritako hondakinak dira, baina iturri idatzietan jasota dagoenez, aldi edo denbora tarte horiek hamarkadak eta mendeak ere barne hartzen dituzte.

Harri printza horiez eratutako deposituaren lodiera hobe ezagutzeko, 80 cm x 80 cm-ko zundaketa bat egin genuen tailerraren erdialdean. Klasto horiek, gunearen arabera, 20 eta 30 cm bitarteko metaketa bat eratzen zuten, eta 50 cm-ko sakonerara arte iristen ziren lantzeko baldintza egokiak ez zituzten pieza baztertuekin, tamaina ertaineko harrizko blokeekin, nahasita. 50 cm-ko sakonera mailatik behera buztina eta lutita nagusitzen dira, estratu naturala da eta ez du antropizazio arrastorik bat ere ageri. Halere, baliteke tailerreko beste gune batzuetan datu horiek aldatzea eta lodiera handiagoak edo txikiagoak egotea.

1. tailerreko bazterretan galtzada harrien metaketa batzuk kontserbatu dira, 100 eta 200 bitarte pieza dira, guztiz amaituak, haranera garraiatzeko prest daude. Denborak erabat kamuflatu ditu piezak, goroldio sarriak erabat estali ditu aurpegi guztiak. Erregistratu ahal izan ditugun aleen artean neurri desberdinak ikusten dira, baina guztiek dituzte produktua eskatzen zutenentzako neurri onargarriak. Dozenatik gora pieza neurtu ditugu, betiere goiko aurpegia neurturik, aurpegi hori baita gainazalean nabarmentzen dena kale bateko zoladura osatzen duenean. Goiko aurpegitik angeluak mehetu egiten dira beheko aurpegirantz, betiere txikiagoa baita, hain zuzen ere piezak behar bezala txertatzeko bide publikoaren oinarriarena egiten duen hareazko ohearen gainean egokitzen direnean. Neurtutako luzeak 25 eta 30 cm bitartekoak dira, baina galtzada harri gehien-gehienak 28 eta 30 cm luze dira. Piezen zabalera doituago dago, 19 eta 21 cm artean, eta hori errenkaden zabalera

cantería realizado en el lugar durante una serie de períodos continuados en el tiempo difíciles de determinar, pero que con toda probabilidad abarcan décadas y hasta siglos, según se constata en la documentación escrita.

Para conocer mejor la potencia de este depósito de lascas, se realizó en el centro del taller un sondeo de 80 cm x 80 cm, dando como resultado que estos clastos, según la zona, forman un acúmulo de 20 a 30 cm de espesor, y continúan hasta los 50 cm mezclados ya con bloques de piedra de tamaño mediano, desechados cuando ya no reúnen las condiciones de talla. A partir de 50 cm de profundidad aparece mayor concentración de arcilla y lutita, considerado ya como el natural y sin muestras de antropización. No obstante, es muy posible que en otras partes del taller fluctúen estos datos y pueda haber potencias de mayor o menor consideración.

En zonas marginales del Taller 1 se han conservado varios depósitos de adoquines apilados, entre 100 y 200 piezas perfectamente terminadas y listas para ser trasladadas al valle. El tiempo los ha camuflado por completo, tapizados de musgo bien espeso en todas sus caras. Entre los elementos que hemos podido registrar se observan medidas diversas, pero dentro de un rango aceptable por quienes encargaban el producto. Hemos tomado medidas a más de una docena de ellos, y siempre de la cara superior, por ser la única que aflora en superficie cuando forma parte del solado de una calle. Desde la cara superior los ángulos se adelgazan hacia la cara inferior, siempre más reducida, precisamente para facilitar el encaje entre las diferentes piezas cuando se disponen sobre el lecho de arena que sirve de base en la vía pública. Las longitudes tomadas varían entre los 25 y 30 cm, aunque la mayoría de los adoquines tienen entre 28 y 30. La anchura está más



Eskuinean, harria ebakitzeko pletina arteko burdinazko ziri baten birsorkuntza. Ezkerrean, harri batean egindako ziri markak galtzada harriak egiteko piezak mozteko.

A la derecha, recreación de una cuña de hierro entre pletinas para el corte de piedra. A la izquierda, marcas de cuñeras en una piedra para el corte de piezas para adoquines.

eta lerrokadura zehazten duelako ulertzen da. Galtzada harrien altuerari dagokionez, piezek iristen duten sakonera mailari dagokionez, antzekoa da guztietan, 20 eta 22 cm artean, eta horrek kalearen gainazalean denak maila berean egokitzeko eta batzuk besteetatik ez nabarmentzeko xedeari erantzuten dio. Nolanahi ere, betiere egon behar dute hutsune txikiagoetan txertatzeko moduko materialak kaleen zabalera osatzeko, eta horrexegatik daude 20 x 25 cm-ko eta 21 x 21 cm-ko galtzada harriak.

Neurriei dagokienez, 1889ko dokumentu interesgarri bat dugu[38], Bilboko udalak egindako enkante baten berri ematen du «Orozkoko harrobietatik etorritako galtzada harrietan 1000 m² erosteko eta kaleak berritzeko (…)». Eta hauxe gaineratzen du: «galtzada harrien neurriak muga hauen artekoak izango dira: 0,20 eta 0,28 metro bitarte luze; 0,15 eta 0,189 metro bitarte zabal; 0,18 eta 0,15 metro bitarte tizon[39]». Laugarren artikuluan adierazten da galtzada harriak «bikain eskuairatuta egongo direla, pikotxa finez landuak aurpegi guztietan, ageriko aurpegiak, goikoak, guztiz laua izan behar duelarik». Inolako zalantzarik gabe, Erroatx zen «Orozkoko harrobi» horietako bat, Oketa, Arbaitza, Maltzarraga eta Orortegi auzoetako gertuko beste harrobi batzuekin batera.

Errotarriak eta galtzada harriak lantzeko 2. tailerra

Hegoalderago, errekatik hurbilago, beste lan gune bat antolatu zuten, gaur egun harrizko blokeez, erdi landutako errotarri piezez eta amaitutako galtzada harri batzuez beteta dagoena, baina 1. tailerreko metaketa antolatuak osatu gabe, 20 m² eskaseko gune honi erabilera bikoitza eman ziotela agerian utzirik. Oso deigarriak dira eskailera moduan antolatutako 60 cm diametroko lau errotarri amaitu gabeak, zergatik ez dakigula arbastatzeko prozesutik harago egin ez zutenak. Piezetako batek erdigunea du markatuta zirkulua marrazteko eta pieza ajustada, entre los 19 y 21 cm, lo cual se entiende porque determina el ancho de las filas y su alineamiento. En cuanto a la altura de los adoquines, llamado tizón, también es bastante similar en todos ellos, entre 20 y 22 cm, y se entiende igualmente por la necesidad de que estén al ras y no sobresalgan unos de otros en la superficie de la calle. No obstante, siempre tiene que haber materiales que puedan encajar en huecos más pequeños para completar el ancho de las calles, por lo que hay adoquines de 20 x 25 cm y de 21 x 21 cm.

Con respecto a las medidas, tenemos un interesante documento de 1889[38] que da cuenta de una subasta por parte del ayuntamiento de Bilbao para «la adquisición de 1000 m² de adoquín de piedra, procedente de las canteras de Orozco y con destino a la reposición de calles (…)». Y se dice que «Las dimensiones de los adoquines variarán entre los siguientes límites: Longitud de 0,20 a 0,28 metros; Anchura de 0,15 a 0,189 metros; Tizón[39] de 0,18 a 0,25 metros». En el artículo cuarto expresa que los adoquines estarán «perfectamente escuadrados y labrados a picón fino por todas sus caras, debiendo ser la superior perfectamente plana». Sin duda, Erroatx era una de esas «canteras de Orozco», junto a otras próximas de los barrios de Oketa, Arbaitza, Maltzarraga y Orortegi.

Taller 2 para piedras de molino y adoquines

Más al sur y cercano al río se estableció otro taller de trabajo, hoy colmatado de bloques de piedra, piezas semielaboradas de moleras y varios adoquines bien terminados, pero sin presentar apilamientos como sí ocurría en el Taller 1, lo que constata el doble uso de este espacio de apenas 20 m². Sorprende la alineación en escalera de cuatro muelas de 60 cm de diámetro, inacabadas, que se quedaron en el proceso de desbaste por las razones que fuesen. Una de ellas presenta marca de punto central para dibujar el círculo y ajustar la ta-

[38] Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa. Udal Sekzioa. Funtsa: Bilboko Udal Artxiboa. Signatura: Bilbao Cuarta 0072/002. Datak: 1889 / 1890.

[39] Tizón hitzarekin galtzada harrien altuera adierazten du, sakonerari dagokionez.

[38] Archivo Histórico Foral de Bizkaia, Sección Municipal, Fondo: Archivo Municipal de Bilbao, Signatura: Bilbao Cuarta 0072/002. Fechas: 1889 / 1890.

[39] Con el nombre de Tizón se refiere a la altura de los adoquines, pero en el sentido de profundidad.

lortu nahi zen zirkunferentziaren neurrian zizelkatzeko. Pieza horiekin lerrokatuta bada lantzen hasi berria den beste errotarri bat, azalaren erdia biribilduta du, eta beste erdia ukitu gabe, diametro apur bat desitxuratuarekin, 100 cm-ko diametroa gainditu lezakeen arren.

Bost errotarri horiez gain, badira, gutxienez, beste bost galtzada harri eta baztertutako harrizko bloke. Era berean, harria hausteko eta galtzada harriak lantzeko harginak egindako haustura lerroak identifikatu ditugu.

2. tailer horretan bideratutako esku hartze arkeologikoa hostoz eta goroldioz eratutako geruza naturala (1. UE) garbitzera mugatu da, deskribatutako elementu guztiak agerian uztea baikenuen helburu. Horien artean 1. tailerrean dokumentatutako harriaren lanketatik etorritako printzeez eratutako geruza berbera (8. UE) dokumentatu ahal izan dugu. Halere, 1. tailerrean ez bezala, tailer honetan ez dago harria lantzeko erdiko gune garbi bat, eta itxura guztien arabera zuzenean lan egin zuten bloke horien gainean, behin piezak behar bezala finkatu ondoren zabuak eta mugimendu faltsuak ekiditeko.

Tailer honetan galtzada harri batzuk aurkitu ditugun arren, ez dakigu halakoak izan ote ziren tailer honetan gehien landu zutenak, ez dakigu errotarriak galtzada harrien garaikideak diren ala lehenagokoak diren, eta ez dakigu zergatik diren hain txikiak (60 cm-ko diametroarekin) ohiko errotarriekin alderatuta (100 cm-tik gorakoak). Eta ez dakigu produktu bat eta bestea lantzen zuten harginak berberak ote ziren ala, aitzitik, produktu bakar batean espezializatutako hargin taldeek lantzen ote zituzten.

Miaketa lanak harrobi frontean eta blokeen nahaspilan

Blokeez betetako mendi hegalaren jatorri antropiko eta ez naturalaren hipotesia planteatu zen, hasiera batean pentsatu genuen bezala, jatorri meteorologiko eta mekanikoko harri jauziek eraginda. Beraz, ekintza antropikoaren emaitza da dagoen blokeen nahaspilaren arrazoia, helburua izango baitzen material asko eskuragarri izatea tailerretan lantzeko.

Erroatxeko goiko partean hamarnaka metrotan hedatzen den Behe Kretazikoko hareharri zerrenda gogor eta lodi bat da harrobi frontea. Ez da erregularra ebakiaren altuera, izan ere, lur eremuko topografiak markatzen du, oso mailakatua da, horma bertikal handi samarrekin. Fronte horren eta errekaren artean metatzen da blokeen nahaspila, tartean hainbat kilotako eta hainbat tonatako piezak daudela, ertz biziko trapezoide forma asko eskaintzen dituztenak. Harrobiko jarduera abandonatuta, azkar ari da birsortzen baso hezea.

Neurri handi batean ezezaguna zitzaigun hargin haiek halako ustiategi batean erabiltzen zuten lan metodologia, eta beraz, aldapa osoa ikuskatzeko erabakia hartu genuen ebaki, lanketa edo erauzketa marken bila, eta hiru marka mota bereizi ahal izan genituen mendi hegalaren luzera eta zabalera osan zehar metatutako harrietan: ziriak sartzeko markak, hau da, harrian ziriak sartzeko egindako zuloak; laztabin edo palankaz egindako markak, segur aski bolbora sartzeko; eta haustura lerroen markak, ziriak sartzeko zuloak egin aurrekoak, ebakia markatzeko eta zuzena izan zedin ahalbidetzeko.

Harginek harriak hausteko egindako marken lagin txiki hori blokeen nahaspilak ziur aski ezkutatzen duen lla al tamaño de circunferencia deseado. Alineada con ellas hay otra muela incipiente con la mitad de superficie redondeada y la otra mitad sin hacer, con un diámetro un tanto desdibujado, pero que podría superar los 100 cm.

Además de estas cinco piedras de molino, hay, al menos, otros cinco adoquines y bloques de piedra desechados. También hemos encontramos líneas de rotura practicadas por el cantero para fracturar la piedra y labrar adoquines.

El trabajo arqueológico en Taller 2 se ha visto reducido a una limpieza de la capa natural, de hoja y musgo (UE.1), para dejar al descubierto todos los elementos descritos. Entre ellos hemos podido documentar la misma capa de lascas de talla (UE.8) que habíamos visto en el Taller 1, producto del labrado de las piedras. Sin embargo, este espacio carece de una zona central y despejada como en el anterior, y parece que se ha trabajado sobre los mismos bloques, asentándolos previamente para evitar balanceos y falsos movimientos.

Aunque hemos encontrado varios adoquines en este taller, no sabemos si ha sido el producto más elaborado aquí, y tampoco si las piedras de molino son coetáneas de los adoquines o anteriores a ellos, ni porqué son tan pequeñas (60 cm de diámetro) comparadas con las habituales moleras (superiores a 100 cm). Ignoramos incluso si los canteros de uno y otro producto eran los mismos o, por el contrario, si pertenecían a grupos especializados en uno solo.

Prospección del frente de cantera y del caos de bloques

Se había planteado la hipótesis de un origen antrópico de la ladera colmatada de bloques, y no natural, como habíamos pensado en un inicio, producido por desprendimientos de origen meteorológico y mecánico. Así, la acción antrópica habría sido la causa del caos de bloques existente para generar material abundante con el que trabajar en las zonas de taller.

El frente de cantera es una potente banda de arenisca dura del Cretácico Inferior que se extiende por la zona alta de Erroatx a lo largo de varias decenas de metros. La altura del corte no es regular, ya que viene marcada por la topografía del terreno, muy escalonado, con paredes verticales de cierta entidad. Entre dicho frente y el río se encuentra el caos de bloques, con piezas que van desde varios kilos hasta algunas toneladas de peso, ofreciendo múltiples formas trapezoides de aristas vivas. Abandonada la actividad de la cantera, el bosque húmedo se está regenerando a gran velocidad.

Desconocíamos en buena medida la metodología de trabajo empleada por aquellos canteros en una explotación de este tipo, así que decidimos inspeccionar toda la pendiente, en busca de marcas de corte, talla o extracción, y aparecieron de tres tipos, bien distribuidas a lo largo y ancho de todo el derrumbe de la ladera: marcas de cuñeras, concavidades practicadas en la roca para insertar cuñas; marcas de barrena o palanqueta, posiblemente para introducir pólvora; y marcas de líneas de rotura, previas al tallado de cuñeras, para rayar y facilitar que el corte fuese recto.

Esta pequeña muestra de marcas realizadas por los canteros para romper la piedra, es tan sólo la punta del

izozmendiaren punta baizik ez da, baina nahaspila hori berezko lur edo harri jauzien ondorioa ez baizik eta galtzada harriak eta errotarriak lantzeko harria erauzteko giza ekintzaren emaitza delako hipotesia berresteko balio du.

Aztertu gabeko guneak

Hegoalderago dago, uraz beheiti, 3. tailerra, lan egiteko gune lautua, gutxi gorabehera 40 m²-koa. Erdialdean arroka handi bat geratu da hartatik erauzitako materialaren lekuko isil gisa, baita harri koskor ugari ere, guztiak harginek *in situ* egindako lanen hondakinak direla. Gainazalean errotarri edo zorroztarri bat aurkitu dugu, ia arbastatu gabe, 65 cm-ko diametroarekin. Eta badira galtzada harriren bat eta galtzada harriak egiteko prestatutako bloke batzuk, produkzioak jarraitu izan balu inolako zalantzarik gabe erabiliko zirenak. Tailer honetan ez dugu esku hartu, ez dugu garbitu, besterik gabe erregistratu egin ditugu agerian zeuden elementuak. Beraz, etorkizuneko esku hartzeak bideratzeko erreserba gune gisa geratu da tailer hau.

Hegoalderantz metro batzuetara, ia errekaren parean, harria lantzeko prestatutako laugarren tailerra dago. Gainazal lau batean dago antolatuta, artifizialki sortutako terraza batean, eta beharbada jada amaituta eta garraiatzeko prest zeuden materialak zamatzeko kargaleku gisa ere erabili zuten. Lanaren lekuko gisa geratu dira bloke batzuk, ongi eskuairatuta eta ebakita, erabiltzeko prest. Harrigarria da espazioaren zabalera eta garbitasuna, eta horrek leku honi bitariko erabilera eman ziotela pentsarazten digu, hau da, lantegi eta kargaleku gisa erabiliko zuten gure ustez. Harrobiaren beheko partean dagoenez, Arbaitzara daraman igarobide ondoan, leku hau ezin egokiagoa da produktuak idiek edo beste animalia batzuek tiratutako narretan zamatzeko. Gainazalean laztabin batek utzitako marka bat eta ziriak sartzeko eta harria hausteko zuloekin prestatutako bloke handi bat erregistratu ditugu. Tailer honetan, 3. tailerrean bezala, ez dugu esku hartu eta ez dugu garbitu, besterik gabe erregistratu egin ditugu deskribatutako elementuak. Era berean, erreserba gune gisa geratu da laugarren tailer hau.

Materialak

Gainazalean aurkitutako materialen artean, denak harrizkoak, bereizi egin behar dira harrobi frontean eta blokeen nahaspilan miaketa lanen bidez aurkitutako materialak. Harrobi frontekoak harrizko elementu hein batean astunak (galtzada harriak) eta oso astunak (errotarriak eta/edo zorroztarriak) dira, sortutako eskaerari erantzuteko harrobiko produkzioari dagozkiolarik. Blokeen nahaspilakoak, berriz, metal detektagailuekin bideratutako prospekzioaren bidez aurkitutako burdinazko elementuak dira, harginek beren lanetan erabilitako tresnak dira.

Harrobi frontea eta blokeen nahaspila detektagailuaren laguntzaz miatzeko ideia oso lagungarria izan zen haren jatorri antropikoaren hipotesia indartzeko. Helburua zen harginek erabiliko zituzten burdinazko lanabesak aurkitzea, horietako batzuk arrokako zuloetan galduko baitzituzten, hain zuzen ere ezin induskatu zitezkeen puntuetan, blokeen beren pisu eta ezegonkortasunagatik.

Emaitza ezin emankorragoa eta harrigarriagoa izan zen, aurkitutako tresnen erregistroa oso zabala izan iceberg de lo que seguramente esconde el caos de bloques, pero sirve para corroborar la hipótesis de que dicho caos es producto de la acción humana como consecuencia de la extracción de piedra para adoquines y piedras de molino, y no como resultado de desprendimientos naturales.

Zonas no intervenidas

Más al sur, aguas abajo, se halla el Taller 3, un espacio de trabajo aterrazado, de unos 40 m². En el centro ha quedado una gran roca como testigo mudo del material extraído de ella, además de numerosos trozos de piedra, todos ellos restos del trabajo que los canteros realizaron *in situ*. En superficie hemos hallado una muela o afiladera, apenas desbastada, de 65 cm de diámetro. También hay algún adoquín y bloques preparados para la extracción de éstos, que, de haber continuado la producción, habrían sido utilizados. En este taller no hemos hecho limpieza ni hemos intervenido, salvo para registrar los elementos que se encontraban a la vista. Queda, por tanto, como un espacio de reserva para futuras actuaciones arqueológicas.

Siguiendo algunos metros más al sur, casi a la altura del arroyo, encontramos un cuarto taller habilitado para el trabajo de la piedra. Se conforma en una superficie plana, aterrazada artificialmente, que pudo haberse empleado también como cargadero de materiales ya terminados y listos para el transporte. Como testigos del trabajo han quedado algunos bloques, bien escuadrados y cortados para su utilización. Sorprende la amplitud del espacio y lo despejado del mismo, lo que nos ha llevado a pensar en un uso mixto para este lugar, tanto como taller como cargadero. Su ubicación en la parte más baja de la cantera, junto al vado que conduce hacia el Arbaitza, hacen de éste un lugar idóneo para la carga de productos en narras tiradas por bueyes u otras bestias. En superficie hemos hallado una marca de barrena y un gran bloque preparado con cuñeras para ser partido. En este taller, al igual que en el nº 3, no hemos hecho limpieza ni intervención alguna, salvo para registrar los elementos descritos, quedando, igualmente, como un espacio de reserva.

Materiales

Hay que diferenciar entre los materiales hallados en superficie, todos ellos líticos, y los materiales hallados mediante prospección en el frente de cantera y el caos de bloques. Los primeros son elementos de piedra medianamente pesados (adoquines) y muy pesados (piedras moleras y/o afiladeras), pertenecientes a la producción de la cantera para atender la demanda generada. En cuanto a los segundos, se trata de elementos de hierro hallados mediante prospección con detector de metales, y obedecen al instrumental utilizado por los canteros en las actividades requeridas.

La idea de prospectar el frente de cantera y el caos de bloques con el detector ayudó también a reforzar la hipótesis de un origen antrópico de la misma. El objetivo era buscar las herramientas de hierro que, previsiblemente, habrían utilizado los canteros y que, en alguna medida, habrían perdido entre las oquedades de la roca, precisamente donde se hacía imposible excavar, debido al peso e inestabilidad de los propios bloques.



Irudiaren ezkerrean, zuloak egiteko barra batez egindako marka 4. tailerreko pieza batean. Eta blokeen nahaspilan galduta berreskuratutako zulatzeko barra bat, 130 cm luze dena eta 11 kg-ko pisua duena. Irudiaren eskuinean, berreskuratutako mutur bikoitzeko harri mailua, harginek harria hausteko erabil-tzen zutena eta blokeen nahaspilan aurkitutako hargin mailua.

A la izquierda de la imagen, marca realizada con barra de barrenar en una pieza del Taller 4 y recuperación de una barra de barrenar de 130 cm de largo y 11 kg de peso, perdida en el caos de bloques. A la derecha de la imagen, recuperación de una almádena de doble pico, utilizada por los canteros para romper la piedra y una maza de cantero entre el caos de bloques.

baitzen: iltzeak, aiztoak, ziriak eta pletinak, harri mailu bat, zulatzeko barra bat eta hargin mailu bat. Aurkitu espero ez genituen baina aurkitu genituen beste elementu batzuk idien oinak babesteko kailuak izan dira; izan ere, aldapa malkartsua eta ezegonkorra izanik baztertu egin genuen animalia horien presentzia hemen ekoitzitako materialak garraiatzeko, behintzat harrobiaren mailan. Pentsatzen genuen zamariak eta mando gogorrak egokiagoak izango zirela mugitzeko, arinagoak eta iaioagoak direlako. Ildo horretan, oso litekeena da gaur egungo paisaia oso desitxuratuta egotea, izan ere, landutako materiala eta, segur aski, udazken partean, gaztainak garraiatzeko bide baten trazadura marrazten duen horma hondakinen bat antzematen da. Harrizko material astun horiek narren bidez aterako zituzten harrobi oinetik, zoruaren arrasean baliatzen ziren zurezko lera antzekoen bidez, oso egokiak baitziren materialak bertan zamatzeko eta gurdibideraino garraiatzeko.

Azaldutako guztiarekin, Erroatx inolako zalantzarik gabe egokitu zuten hainbat beharrizani egokiro erantzuteko: harria erauzteko eta produktua sortzeko, biltegiratzeko, zamatzeko eta aldi baterako biltegiratzeko guneraino eramateko. Eta ez dugu zalantzarik giza jarduera bertan behera utzi ondoren horrelako leku malkartsu batean denboraren joanak eragiten dituen ondorioei dagokienez; izan ere, tokiko pendiz handiek iraganean utzitako aztarnak ezabatzen laguntzen dute, eta aldi berean material horiek maldan behera erortzea ahalbidetzen dute.

El resultado no pudo ser más fructífero ni sorprendente, ya que el registro de herramientas hallado cubre una amplia gama de ellas: desde clavos, cuchillos, cuñas y pletinas, una almádena, una barra de barrenar y una maza de cantero. Otros elementos hallados, y que no pensábamos encontrar, han sido los callos para calzar bueyes, pues debido a lo abrupto de la pendiente y a su inestabilidad, habíamos desestimado la presencia de estas bestias para el transporte de los materiales aquí producidos, al menos en la cota de cantera. Pensábamos que los caballos de tiro o los duros mulos, habrían sido más adecuados para moverse, tanto por su menor peso como por su mayor agilidad. En este sentido, es muy probable que el paisaje actual esté muy desdibujado, ya que se adivina algún resto de muro con cierta traza de camino para el transporte del material elaborado y, probablemente, también de las castañas en la otoñada. La forma de evacuar estos materiales pesados de piedra, a pie de cantera, sería mediante narras o narrias, una especie de trineos de madera a ras de suelo, muy apropiados para la carga y traslado hasta llegar al camino de carro.

Con todo lo dicho, Erroatx fue acondicionado, sin duda, para el buen desarrollo de múltiples necesidades: extracción, producción, almacenamiento, cargadero, traslado del producto, y hasta zona de refugio temporal. Pero tampoco tenemos duda sobre la acción que ejerce el paso del tiempo en un lugar tan abrupto como éste tras el abandono de la actividad humana, cuyas pendientes ayudan a eliminar la huella dejada en el pasado, favoreciendo el rodado de materiales ladera abajo.

J. Hidalgo; J. Castro

B.24.2. **Astepe I trikuharria. Sastrakak kentzeko lanak**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.24.2. **Dolmen de Astepe I. Obra de desbroce**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The text outlines the archaeological assessment of a clearing operation using heavy machinery in the protected area containing the Astepe I dolmen.

Astepe I trikuharria Argindekorta mendiaren (1.087 m.) ipar/ipar-ekialdeko hegaleko ordeka batean dago, Usabeldik Austegiarminera doan bidearen ezkerraldean 15 metrora, behin Algortako ordeka handia atzean utzita. Tumulu egitura zapala da, oinplano ia zirkularrekoa, erdian kraterra duena, bertan ganberako lauza bat azaleratzen delarik iparraldetik hegoalderako norabidean. Tumuluaren mendebaldean, tumulutik kanpo, hileta barrutikoa izan litekeen lauza handi bat dago lurrean etzanda.

2022ko ekainaren hasieran, Bizkaiko Foru Aldundiko Natur Ondarea zaintzeko Zerbitzuak Algorta-Astepeko ordeka handiaren inguruan, Gorbeiako Parke Naturalaren barruan, sastrakak kendu beharreko eremua mugatzen zuen dokumentazio kartografikoa helarazi zigun. Kartografia horren balioespenak berretsi egin zuen obrak Astepe I trikuharria babesteko 1. eta 2. guneetan eragingo zuela, eta ondorioz, Natura Ondarea zaintzeko Zerbitzuak aldatu egin zituen garbitu beharreko eremuaren mugak monumentuan eragiteko arriskua desagerrarazteko.

El dolmen de Astepe I se sitúa sobre un rellano localizado en la ladera N.NE del monte Argindegorta (1.087 m), a 15 m a la izquierda de la pista de Usabel a Austegiarmin, una vez pasado el gran llano de Algorta. Se trata de una estructura tumular aplanada, de planta subcircular, con cráter central en el que aflora una losa de la cámara, con orientación N-S. En el sector occidental del túmulo, fuera de éste, aparece una gran losa en posición horizontal, que pudiera pertenecer al recinto sepulcral.

A primeros de junio de 2022, el Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia nos envió documentación cartográfica con la delimitación de un área a desbrozar (con maquinaria pesada) en el entorno del gran llano de Algorta-Astepe, dentro del Parque Natural de Gorbeia. La valoración de dicha cartografía ratificó la afección de la obra a las zonas 1 y 2 de protección del dolmen de Astepe I, ante lo cual el Servicio de Patrimonio Natural modificó la delimitación del área a desbrozar, eliminando el riesgo de afección al monumento.

J. C. López Quintana

B.25. **PLENTZIA**

B.25.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.25.1.1. **Artekale, 8**

Zuzendaritza: Ander Ortega Franco
Finantzazioa: Jabea

B.25.1.1. **Artekale, 8**

Dirección: Ander Ortega Franco
Financiación: Propiedad

Archaeological monitoring of the excavation work linked to the comprehensive restoration of the property. The results were of no historical-archaeological interest.

Plentziako Artekale kaleko 8. zenbakiko eraikina birgaitzeko obrek eragindako esku hartze arkeologikoa. Beheko solairuko azalera osoa (65 m^2) substratu geologikoraino iritsi arte induskatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa eraman da burura, eta agortu egin dira beste ikerlan bat egiteko aukerak oro. Izan ere, emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Intervención arqueológica motivada por las obras de rehabilitación integral del nº 8 de la c/ Artekale de Plentzia. Se ha realizado el control arqueológico de la excavación de la totalidad de la superficie de la planta baja (65 m^2) hasta alcanzar el sustrato geológico, agotando la posibilidad de nueva investigación y siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico.

A. Ortega Franco

B.25.1.2. **Eleiz enparantza, 4**

Zuzendaritza: Jose Angel Lecanda Esteban
Finantzazioa: Jabea

B.25.1.2. **Eleiz emparantza, 4**

Dirección: Jose Ángel Lecanda Esteban
Financiación: Propiedad

Archaeological excavation linked to the retrofitting of premises occupying the ground floor and lower ground floor of the property. The results were of little historical-archaeological interest. The elements documented pertain to the current building, which was constructed in 1900, along with residual elements of the division of the area into separate plots from the period immediately before. No remains were found that could be identified as belonging to the medieval wall.

Plentziako Eleiz Enparantzako 4. zenbakiko beheko solairua eta erdisotoa hartzen dituen lokala birgaitzeko lanek eragindako esku hartze arkeologikoa. Segurtasun arloko baldintzatzaile jakin batzuk kontuan harturik, 24 m^2-ko indusketa bat egin da (azalera osoaren % 50), eta gainerako espazioan egindako lur mugimenduen gaineko kontrol arkeologikoa. Esku hartzearen emaitzak ez dira batera interesgarriak izan historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Esku hartze horren helburu nagusia zen, aztergai dugun orubea karga arkeologikoetatik askatzeko legezko betebeharrak betetzeaz eta ikuspegi metodologikotik ondare arkeologikoaren presentzia eta nozitu zitzakeen eragin negatiboak zuzentzeko urratsak egiteaz gain, aurreko partzelazioen arrastoak eta, bereziki, hiribilduko harresiarenak hautematea, harresiaren trazadura eraikinaren gibelaldeko fatxadaren lerroan (Portaleta kalea) kokatu izan baita tradizioz.

Esku hartzeari esker, 4 okupazio fasetan koka daitezkeen elementu materialak identifikatu ahal izan ditugu, fase guztiak XVIII. mende ondorengoak direlarik. Zehazki, fase zaharrena izan ezik, 1900. urtean eraiki zenetik bizi izan duen eraikuntza bilakaeraren aurrean jartzen gaitu gaur egun ikusten dugun eraikinak.

Lehenagoko partzelazio bati dagozkion aztarnen dokumentazioa izan da esku hartze honetan lortutako emaitza interesgarriena. Gaur egungo mehelinaren paraleloan luzatzen den horma baten zimenduez eta horma hori altxatzeko aldamioekin zerikusia izan dezakeen paldo zulo batez ari gara (kokapenagatik eta beste eraikuntza egitura edo funtzio mota batekin lotu daitekeen mota bereko ebidentziarik ez egoteagatik diogu aldamioari lotuta egon daitekeela). Kontserbatutako aztarnak partzialak diren arren eta markagailu kronotipologikorik ez badago ere, kontuan harturik oinplanoan duten egokiera eta estratigrafikoki ondorengoak diren faseetako elementuak agertzen diren mailarekiko alde txikia, guk uste dugu gaur egungo eraikinaren aurre-aurreko kronologia dutela guztiek.

Bestalde, etxadi honetan lehendik egindako esku hartzeetan bezala, erdisotoa –sarrera Portaleta kalean du– induskatzeko lanetan ez dugu Erdi Aroko hiribilduko harresiari lotu dakiokeen aztarnarik dokumentatu[40]. Zentzuzkoa da pentsatzea jatorrian, gibelaldeko fatxaden lerrokadurak berak, behe mailetan baorik gabeak, beteko zuela eginkizun hori kontuan izanik defendatzeko funtzionaltasuna baino funtzionaltasun ekonomikoagoa eta juridikoagoa izango zuela, Bizkaiko beste hiribildu batzuetan eta inguruko beste lurralde batzuetan ongi ezagutzen den tipologiaren arabera.

Intervención arqueológica motivada por las obras de rehabilitación del local que ocupa el bajo y semisótano del nº 4 de Eleiz Enparantza de Plentzia. Dados ciertos condicionantes de seguridad, se ha realizado una excavación de 24 m² (50% de la superficie total) y se ha procedido al control arqueológico de los movimientos de tierra en el resto del espacio, siendo los resultados de la actuación de escaso interés histórico-arqueológico.

Dicha actuación tenía como objetivo principal, más allá de los derivados del cumplimiento legal de liberar de cargas arqueológicas al solar en cuestión y de los obvios desde el punto de vista metodológico de verificar la existencia de patrimonio arqueológico y corregir los potenciales impactos negativos que pudiera sufrir, la detección de restos de parcelaciones anteriores y, especialmente, de la muralla de la villa, cuyo trazado se ha situado tradicionalmente en la línea de la fachada zaguera (c/ Portaleta).

La intervención ha posibilitado la identificación de elementos materiales adscribibles a 4 fases de ocupación que no se remontarían más allá del siglo XIX. En concreto, a excepción de la fase más antigua, el conjunto nos situaría ante la evolución constructiva que ha experimentado el edificio que observamos hoy día desde que fue construido, en el año 1900.

El mayor interés de la actuación ha residido en la documentación de restos propios de una parcelación previa, consistentes en los cimientos de un muro situado en paralelo al actual muro medianero y en un agujero de poste que podría estar vinculado a su andamiaje (por su ubicación y la ausencia de otras evidencias de este tipo que pudieran relacionarse con otro tipo de estructura o función constructiva). Pese a la parcialidad de los restos conservados y la falta de marcadores cronotipológicos, su disposición en planta y la escasa diferencia de cota respecto a elementos de fases estratigráficamente posteriores nos lleva a proponer una cronología inmediatamente anterior al edifico actual.

Por su parte, al igual que en las intervenciones anteriores realizadas en esta manzana, la excavación del semisótano –accesible desde la c/ Portaleta– no ha permitido documentar resto alguno que pudiera identificarse como la cerca de la villa medieval[40]. Es lógico pensar que, en origen, el propio alineamiento de las fachadas traseras, ciegas en sus cotas inferiores, cumpliesen dicha función, teniendo en cuenta su funcionalidad tanto o más económica y jurídica que defensiva, de acuerdo a una tipología bien conocida en otras villas bizkainas y en otros territorios cercanos.

J.A. Lecanda Esteban; A. Ortega Franco

[40] Lecanda, J.A. (2004): «Eleiz enparantza, 1-2 (Plentzia)», *Arkeoikuska 2003*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 313-315. or. eta Lecanda, J.A. (2005): «Eleiz enparantza, 5 (Plentzia)», *Arkeoikuska 2004*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 347-348. or.

[40] Lecanda, J.A. (2004): «Eleiz enparantza, 1-2 (Plentzia)», en *Arkeoikuska 2003*. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, p. 313-315. Lecanda, J.A. (2005): «Eleiz enparantza, 5 (Plentzia)», en *Arkeoikuska 2004*. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, p. 347-348.

B.25.1.3. **Goienkale, 3**

Zuzendaritza: Ander Ortega Franco
Finantzazioa: Jabea

B.25.1.3. **Goienkale, 3**

Dirección: Ander Ortega Franco
Financiación: Propiedad

Archaeological monitoring of the interior retrofitting of the ground floor of the premises. The results were of little historical-archaeological interest.

Plentziako Goienkale kaleko 3. zenbakiko eraikina barruko aldetik berritzeko obrek eragindako esku hartze arkeologikoa. Beheko solairuko lurzoruak eta betegarriak altxatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa egin dugu. Azalera osoan (54 m^2) 30 cm-ko sakonerara arte beheratu da oinarriko estratura iritsi arte, eta emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Jarraipen arkeologikoan 1875. urte inguruan eraikitako egungo higiezinaren berezko elementuak baizik ez ditugu dokumentatu. 30. hamarkadan egindako berritze lanen emaitza diren egungo zoruen eta dagozkien prestakin geruzen azpian egokitzen ziren jatorrizko lauzadura eta kanalizazio bat. Obra horrek zuzenean hartzen zuen atseden hareez eraturiko berdintze geruzaren gainean.

Intervención arqueológica motivada por las obras de reforma interior del nº 3 de la c/ Goienkale de Plentzia. Se ha realizado el control arqueológico de la retirada de soleras y rellenos de la planta baja hasta alcanzar los 30 cm de profundidad en la totalidad de la superficie (54 m^2) sin alcanzar el terreno base, siendo los resultados del mismo de escaso interés histórico-arqueológico.

El seguimiento únicamente ha permitido documentar elementos propios del actual inmueble construido hacia 1875. Bajo los actuales suelos y preparaciones correspondientes a una reforma de los años 30, se extendía el suelo enlosado original con una atarjea asociada. Esta obra apoyaba directamente en una nivelación compuesta por arena.

A. Ortega Franco

B.26. **PORTUGALETE**

B.26.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.26.1.1. **Andra Maria Elizaren eremua**

Zuzendaritza: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Finantzazioa: Portugaleteko Udala

B.26.1.1. **Campo de la Iglesia de Santa María**

Dirección: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Financiación: Ayuntamiento de Portugalete

The intervention aimed to definitively dismiss the possibility of the existence of underground rooms and passageways in the field outside Santa María Church. The results were negative.

2020. urteaz geroztik, Portugaleteko Udalak eskatuta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoko Arkeologia Taldea miaketa geofisiko batzuk burura eramaten ari da Lope Gartzea Salazarren kantoiak, Udal Liburutegiak, basilikak berak, Colegio Nuestra Señora del Carmen ikastetxeak eta Andra Maria kaleko etxeetako fatxadek mugatutako eremuan. Helburua zen partikular batek El Mareómetro taldeko kideei egindako kontakizun batekin bateragarriak ziren zorupeko zulo batzuk egiaztatzea. Kontakizun horren arabera, galeriak eta ganberak zeuden plaza azpian, itxura batean Elizaren kantoiko saltoki azpian (1,5 m beherago) luzatzen zen galeria bat, parrokiara zeramana, agian Salazar dorrera, gero itsasadarreko garai bateko bazterreraino jaisteko. Zorupeko gelek hileta funtzioak beteko zituzten, eta eraikuntzaren kalitatea eta dimentsioak monumentaltasun handikoak izango ziren (harlanduz estalitako paretak eta gangak, korridore zabalak, dekorazio ugari ganberetan, etab.).

Lehenengo ekinaldian baliabide geofisikoak erabili genituen kontakizunaren fidagarritasuna neurtzeko, eta emaitzak ez ziren batere itxaropentsuak izan. Bigarren

Desde el año 2020, el equipo de arqueología del Museo de la Minería del País Vasco lleva realizando una serie de intervenciones arqueológicas encargadas por el Ayuntamiento de Portugalete en el área limitada por el cantón Lope García de Salazar, la Biblioteca Municipal, la propia basílica, el colegio Nuestra Señora del Carmen y las fachadas de las casas de la calle Santa María. El objetivo ha sido el de verificar la existencia de cavidades subterráneas compatibles con un relato ofrecido por un particular a los miembros del grupo El Mareómetro sobre la existencia de galerías y cámaras bajo la plaza, que aparentemente discurría bajo un local comercial del cantón de la Iglesia (alrededor de 1,5m por debajo) y que conducía hacia la parroquia, quizá a la torre Salazar y, finalmente, bajaba hasta la antigua orilla de la ría. Las estancias subterráneas tendrían funciones funerarias y la calidad y dimensiones de la construcción serían de gran monumentalidad (paredes y bóvedas forradas de sillería, amplia luz de los pasadizos, abundante decoración en las cámaras, etc.).

En la primera campaña se emplearon medios geofísicos para evaluar la fiabilidad del relato y los resultados obtenidos fueron poco halagüeños al respecto. En una

kanpaina batean arkeologikoki zundatu genituen Elizaren Eremuko lorategiak, alde batetik eremuko estratigrafiaren nondik norakoak ezagutzeko eta, bestetik, bitarteko geofisikoen bidez hautemandako irregularartasun bat El Mareómetro taldeko kideek jasotako kontakizunean deskribatutako hileta ganberetako baten ustezko kokapenarekin bat omen zetorren puntua egiaztatzeko. Lortutako datu estratigrafikoek, nola datu arkeologikoek hala geologikoek, iradokitzen zuten alde honetan ez zegoela lurpeko gelarik ez galeriarik.

Nolanahi ere, zulo horien presentzia eta, beraz, kontakizunaren egiazkotasuna behin betikoz baztertzeko, bi zundaketa geotekniko egin zituen Ingelur, Instrumentación Geotécnica Lur S.L. enpresak, lorategiaren ekialdeko goiko ertzean bata eta elizan sartzeko eskaileraren oinetan bestea, dorrearen oinaren ipar-mendebaldeko izkinan. Zundak 3 m-ko eta 4,8 m-ko sakonera mailetaraino iritsi ziren hurrenez hurren, baina emaitzak balio arkeologiko urrikoak izan ziren (1,1 metro eta 0,65 metro lodierako betegarriak eta azpiko tuparrizko arroka) eta guztiz antzuak esku hartzearen xedeari dagokionez.

Beraz, berretsi egiten dira Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoko arkeologia taldeak aurreko ekinaldietan iritsitako ondorioak, eta behin betikoz baztertzen da alde honetako zorupean gelak eta galeriak egoteko aukera.

siguiente campaña, se procedió a sondear arqueológicamente las zonas ajardinadas del Campo de la Iglesia, con el doble objeto de conocer la estratigrafía de la zona y verificar un punto donde una anomalía detectada por medios geofísicos coincidía con la supuesta situación de una de las cámaras mortuorias descritas en el relato recogido por los miembros de El Mareómetro. Los datos estratigráficos tanto arqueológicos como geológicos que se obtuvieron apuntaban también a la inexistencia de estancias y galerías subterráneas en este espacio.

No obstante, con el fin de desechar definitivamente la existencia de estas cavidades y, por tanto, la veracidad del relato, se procedió a practicar dos sondeos geotécnicos (a cargo de la empresa Ingelur, Instrumentación Geotécnica Lur S.L.) en el borde superior este de la zona ajardinada y al pie de la escalera de acceso a la iglesia (en la esquina noroccidental de la base de la torre). Las sondas alcanzaron una profundidad de 3m y 4,8m respectivamente y los resultados fueron de escaso valor arqueológico (depósitos de rellenos de 1,1m y 0,65m de potencia; roca margosa subyacente) y absolutamente nulos en relación con el objeto de la intervención.

Por tanto, se confirman las conclusiones obtenidas por el equipo de arqueología del Museo de la Minería del País Vasco en las campañas anteriores y se desecha definitivamente la posible existencia de galerías y estancias subterráneas en la zona.

I. Etxezarraga; J. Franco

B.26.1.2. **Coscojales kalea, 3**

Zuzendaritza: José Ángel Fernández Carvajal
Finantzazioa: Jabekideen komunitatea

B.26.1.2. **Coscojales, 3**

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal
Financiación: Comunidad de propietarios

Archaeological assessment prompted by the installation of a lift in the plot located at number 3 Coscojales Street in the historic quarter of Portugalete. Despite being limited to the small space of the lift shaft, the intervention enabled at least two prior occupation phases to be charted, associated with the wall-like structure documented in the profile.

Coscojales kaleko 3. zenbakiko orubean igogailu bat instalatzeko obren harira, gainazaleko betegarriak ateratzeko lanen gaineko kontrolean, eta, ondoren, hautemandako faseak induskatzeko lanetan oinarritutako esku hartze arkeologikoa eraman dugu burura.

Igogailurako zuloaren espazio urrira mugatu bada ere, esku hartzeari esker aldez aurreko bi okupazio fase dokumentatu ahal izan ditugu profilean dagoen harresi egitura bati lotuta. Atxikiriko deposituek ez zuten material arkeologiko interesgarririk.

Esku hartzeko baldintzatzaileek ez dute hautemandako faseak ezaugarritzeko ez eta oinarriko lurzorura iristeko aukerarik eman. Hala eta guztiz ere, esku hartzeak aurrera egin ahala, egungo eraikinaren azpian kalitatezko estratigrafia kontserbatzen dela susmatzen dugu.

Con motivo de las obras de instalación de un ascensor en el solar nº 3 de la c/ Coscojales se ha procedido a realizar una actuación arqueológica basada tanto en el control de la retirada de los rellenos superficiales, como en la excavación posterior de las fases detectadas.

La intervención, pese a limitarse al escaso espacio del pozo de ascensor, ha permitido documentar dos fases de ocupación previas adscritas a una estructura muraría localizada en el perfil. Los depósitos adosados no contenían materiales arqueológicos de interés.

Los condicionantes de la actuación no han permitido caracterizar las distintas fases detectadas ni alcanzar el suelo base. No obstante, el transcurso de la actuación permite sospechar la conservación de estratigrafía de calidad bajo el actual edificio.

J.A. Fernández Carvajal; A. Ortega Franco

B.27. SONDIKA

B.27.1. Basozabal. SM Artxandaren eta atxikiriko linea elektrikoen eraikuntza

Zuzendaritza: Maite Pérez Gil
Finantzazioa: i-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.

B.27.1. Basozabal. Construcción de la SM Artxanda y líneas eléctricas asociadas

Dirección Maite Pérez Gil
Financiación: I-DE, Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.

The Archaeological field survey showed that not existing achaelogical sites were affected.

SM Artxanda eta atxikiriko linea elektrikoen eraikuntzaren harira (Bizkaia), 2022ko otsailean lur mugimenduen gaineko kontrol lanetan oinarritutako azterlan arkeologiko bat egin genuen.

Sondika udalerrian dago aztergai izan dugun gunea, Bilbotik gutxi gorabehera 5 km-tara. Basozabal da udalerriko auzo nagusia. SM Artxanda berria Artxanda Basozabalekin lotzen duen errepidearen ekialdeko lursail batean egokitzen da.

SM Artxanda eta atxikiriko linea elektrikoen (Bizkaia) aldean bideratutako kontrol arkeologikoaren emaitza negatiboa izan da, ez baitugu egitura edo material arkeologiko bakar bat ere dokumentatu.

Con motivo de la construcción de la SM Artxanda y líneas eléctricas asociadas (Bizkaia), se realizó de febrero a junio de 2022 un estudio arqueológico que comprendía el control arqueológico de los movimientos de tierras.

La zona de estudio se encuentra en el municipio de Sondika a unos 5 km de la ciudad de Bilbao. Su núcleo principal es Basozábal. La nueva SM Artxanda se sitúa en una parcela ubicada al este de la carretera que une Artxanda con Basozabal.

El resultado del control arqueológico realizado en el área de la SM Artxanda y líneas eléctricas asociadas (Bizkaia), ha sido negativo, no documentándose ningún tipo de estructura ni material arqueológico.

M. Pérez Gil

B.28. UGAO-MIRABALLES

B.28.1. CPI Ugao eskola IPI Haur eta Lehen Hezkuntzako saneamenduaren lotura

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

B.28.1. Incorporación del saneamiento del CPI Ugau eskola IPI Haur eta lehen eskuntza

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Ugaoko Hirigune Historikoko Gune Arkeologikotik gertu baina gune horretatik kanpo egindako lur mugimenduen gaineko jarraipen arkeologikoan oinarritutako esku hartzea. Obra horren xedea zen ur biltzailearen tarte bat grabitatez lotzea dagoen saneamendu sarearekin.

Emaitzak negatiboak izan dira arkeologiaren ikuspuntutik.

Intervención desarrollada en base al seguimiento arqueológico de los movimientos de tierra efectuados en las inmediaciones de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Ugao-Miraballes, pero fuera de su delimitación, para conectar el tramo de colector en gravedad con la red de saneamiento existente.

Los resultados han sido de nulo interés arqueológico.

M. Lerín Sanz; A. Ruiz de Marco

B.29. URDULIZ

B.29.1. Torrebarri (3. BAG)

Zuzendaritza: Ander Ortega Franco
Finantzazioa: Urdulizko Udala

B.29.1. Torre Barri (ZPA nº 3)

Dirección: Ander Ortega Franco
Financiación: Ayuntamiento de Urduliz

Archaeological monitoring of the removal of various recently-constructed buildings adjoining Torre Barri Palace (Z.P.A. nº 3 in Urduliz) during the perimeter retrofitting. The intervention was prompted by the urban development works scheduled as part of the partial plan for area 33, Torrebarri in Urduliz. The results were of no historical-archaeological interest.

Urdulizko Torrebarri 33. areako plan partzialetik eratorritako urbanizazio lanen harira bideratutako esku hartze arkeologikoa, area horretan biltzen baitira «Torre Barri» (3. BAG, A motatakoa) eta «Torrebarri jauregia» (4. BAG) arkitektura ondasunak.

Urbanizazio lanek higiezinaren barrualdeko zorupean zuzenean eragingo ez zuten arren, perimetroa egokitzeko lanetan zehar berriki eraikitako hainbat eranskin kentzea aurreikusten zuten, eta ondorioz, BFAko Kultura Ondarea zaintzeko Zerbitzuak jarraipen bat egiteko gomendioa egin zuen orain arte ezkutaturik egon diren eta Erdi Aroko dorreari edo jauregi barrokoari legozkiokeen elementuen identifikazioa ahalbidetzeko.

Kontrol arkeologikoko lanetan iparraldeko arrapalari erantsitako lokala eta hego-mendebaldeko angeluan egokitutako etxola desagerrarazteko lanak ikuskatu ditugu. Emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Biak ala biak dira aspaldi ez dela eraikitako egiturak, aldi berean eranskin garaikidetan oinarritzen zirenak –XIX. mendekoa eskaileren kasuan eta XX. mendekoa jauregiaren mendebaldeko fatxada ondoko etxebizitzaren kasuan–. Era berean, fatxada nagusiaren ekialdean metro gutxi batzuetara dagoen labe bat eraistea aurreikusten zen, baina udalak azkenik hura kontserbatzeko erabakia hartu zuen.

Intervención arqueológica motivada por las obras de urbanización derivadas del plan parcial del área 33 Torrebarri de Urduliz en las que se incluye la ZPA nº 3 «Torre Barri» (Clave A) y el bien arquitectónico nº 4 «Palacio de Torrebarri».

La obra de urbanización, pese a no afectar directamente al subsuelo interior del inmueble, preveía la retirada de varios anexos de reciente construcción durante su acondicionamiento perimetral, por lo que desde el Servicio de Patrimonio Cultural DFB-BFA se recomendó realizar un seguimiento que posibilitase la identificación de elementos enmascarados hasta el momento que pudieran pertenecer a la torre medieval o el palacio barroco.

El control arqueológico ha consistido en la supervisión de la eliminación del local adosado al patín norte y una caseta ubicada en el ángulo SW, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico.

En ambos casos se trataba de estructuras de reciente construcción que apoyaban, a su vez, en añadidos contemporáneos –siglo XIX en el caso de la escalinata y siglo XX en el caso de la vivienda junto a la fachada oeste del palacio–. También estaba prevista la demolición de un horno ubicado escasos metros a oriente de la fachada principal que finalmente el consistorio optó por conservar.

A. Ortega Franco

B.30. VALLE DE CARRANZA / KARRANTZA HARANA

B.30.1. Venta Laperra, El Rincón eta El Bortal leizeak

XX. kanpaina
Zuzendaritza: Sergio Salazar
Finantzazioa: Karrantza Harrobia

B.30.1. Cuevas de Ventalaperra, El Rincón y El Bortal

XX Campaña
Dirección: Sergio Salazar
Financiación: Cantera Carranza

The 20th season of monitoring of the Venta Laperra, El Rincón and El Bortal caves found no new evidence relating to the conservation status of their archaeological heritage.

Venta Laperra, El Rincón eta El Bortal leizeetan bideratutako XX. kontrol kanpainak ez du inolako berrikuntzarik eskaini leize horietako ondare arkeologikoaren kontserbazio egoerari dagokionez.

La XX campaña de control de las cuevas de Venta Laperra, El Rincón y El Bortal no ofrece ninguna novedad con respecto al estado de conservación de su patrimonio arqueológico.

2022ko ekitaldian zehar hiru hilabetean behin bideratutako lau esku hartzeek erabateko jarraitutasuna egiaztatu dute hiru leizeen kontserbazio egoerari dagokionez, baina badaude etorkizunean horien kontserbazio egoeran eragin dezaketen alderdi batzuk:

El Bortal

Leize barruan ez bezala, ez baita aldaketarik nabaritzen ondare arkeologikoaren kontserbazio egoeran ez eta leizeko geologiaren egoeran ere, meategiko jardueraren ondorioz bloke handi batzuk ari dira mazelan behera jausten, babes sarea ere hautsi dute, eta horrek arriskutsu bihurtzen du sarrera. Harri jauzi horiek batez ere harrobiaren frontetik gertuen dagoen aldean gertatzen ari dira, leizeko sarreratik distantzia handi samarrera, eta beraz, oraingoz ez dago arriskuan leizearen osotasuna.

Venta Laperra, El Rincón eta El Bortal leizeen kontserbazio egoera aztertzeko proiektua Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak 2002ko maiatzaren 13an emandako ebazpenari jarraiki ari gara aurrera eramaten. Izan ere, Cantera Carranza - Karrantza Harrobia enpresak une honetan Karrantzako udal barrutian sustatutako <Venta La Perra> harrobia ustiatzeko proiektuak ingurumenean eragina izango zuela erabaki zuen aipatu Sailak.

Las cuatro intervenciones trimestrales desarrolladas durante el ejercicio 2022 muestran una continuidad absoluta en lo que se refiere a la conservación de las tres cavidades, si bien cabe señalar algunos aspectos que podrían afectar a su conservación en un futuro:

El Bortal

A diferencia de lo que ocurre en el interior de la cueva, en donde no se observan incidencias respecto a la conservación de su patrimonio arqueológico, ni tampoco en el estado geológico de la cavidad, la actividad de la cantera está generando desprendimientos de grandes bloques por la ladera que hacen peligroso el acceso, llegando incluso a romper la malla de protección. Estos desprendimientos se concentran principalmente en la zona más próxima al frente de cantera, a bastante distancia de la boca de acceso, por lo que por ahora no está en riesgo la integridad de la cueva.

El proyecto de seguimiento del estado de conservación de las cuevas de Venta Laperra, El Rincón y El Bortal se desarrolla de acuerdo con la resolución del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, de 13 de mayo 2002. En ella se formula la declaración de impacto ambiental del proyecto de explotación de la cantera <Venta La Perra> promovida actualmente por Cantera Carranza - Karrantza Harrobia, en el término municipal de Karrantza Harana.

S. Salazar Cañarte

B.30.2. **La Cabaña multzo megalitikoa eta Fuentellanoko trikuharria**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Karrantzako Udala

B.30.2. **Conjunto megalítico de la Cabaña y el dolmen de Fuentellano**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Ayuntamiento del Valle de Carranza

Report on the archaeological monitoring of fence and perimeter marker renovation works (using Rondino pivots) in the La Cabaña megalithic complex and the Fuentellano dolmen (Karrantza Harana- Valle de Carranza).

Aizkoko Estazio Megalitikoa kontserbatzeko proiektu orokor baten barruan, 2022. urtean zehar esku hartze batzuk eraman ditugu burura Karrantza Haraneko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Mendiak eta Kultura Ondasuna zaintzeko Zerbitzuek sustatuta. Batez ere babesteko helburua izan duten esku hartze horiek (hesiak berritzea eta perimetroak errondinozko piboteen bidez mugatzea) La Cabaña multzo megalitikoan eta Fuentellanoko trikuharrian bideratu ditugu.

Honako lan hauek eraman ditugu burura:

La Cabaña multzo megalitikoa

- Finkan sartzeko atea eta hesiaren hegoaldeko tartea berritu ditugu, azken hori iparralderantz metro batzuetara eraman dugularik, La Cabaña 3 eta 5 monumentuak babesteko 2. gunea errespetatuz.
- Kendu egin dugu hesiaren iparraldeko tartea, eta haren lekuan zoruaren mailatik gora 30 cm irteten diren errondinozko pibote batzuk jarri ditugu.
- Lekuz aldatu ditugu Eusko Jaurlaritzaren zedarriak edo seinaleak La Cabala 5 eta 6 trikuharrietan.

Dentro de un proyecto general de conservación de la Estación Megalítica de Aizko, durante el año 2022 se han llevado a cabo una serie de intervenciones, promovidas por el Ayuntamiento de Karrantza Harana y los Servicios de Patrimonio Cultural y Montes de la Diputación Foral de Bizkaia. Estas actuaciones, fundamentalmente de protección (renovación de vallados y delimitaciones perimetrales mediante pivotes de rondino), se han centrado en el conjunto megalítico de La Cabaña y en el dolmen de Fuentellano.

Las actuaciones realizadas han sido las siguientes:

Conjunto Megalítico de La Cabaña

- Renovación de la puerta de acceso a la finca y del tramo sur del vallado, que se desplaza unos metros hacia el norte, respetando la zona 2 de protección de los monumentos de La Cabaña 3 y 5.
- Supresión del tramo norte del vallado, siendo sustituido por una delimitación con pivotes de rondino que sobresalen 30 cm del suelo.
- Reubicación de los hitos o señales del Gobierno Vasco en los dólmenes de La Cabaña 5 y 6.

Fuentellanoko trikuharria

– Babesteko hesi bat jarri dugu trikuharrian sartzeko ezpondan.
– Monumentuaren perimetroa mugatu dugu 2. babes gunearen kanpoko aldetik. Mugaketa hori, La Cabaña multzo osoan bezala, zoruaren mailatik gora 30 cm irteten diren errondinozko pibote batzuekin markatu dugu.

Bi kasuetan (La Cabaña multzoa eta Fuentellanoko trikuharria) eskuz egin dira hesia jartzeko eta perimetroa mugatzeko zuloak, betiere arkeologo profesional baten kontrol eta ikuskaritzapean, eta ez da inolako eragin arriskurik izan ukitutako monumentu megalitikoak babesteko eremuan.

Dolmen de Fuentellano

– Instalación de vallado de protección en el talud de acceso al dolmen.
– Delimitación perimetral del monumento desde el exterior de la zona 2 de protección. La delimitación se ha ejecutado, al igual que en el conjunto de La Cabaña, con pivotes de rondino a 30 cm por encima del suelo.

En los dos casos (conjunto de La Cabaña y dolmen de Fuentellano), los agujeros para el vallado y delimitación perimetral se han realizado de forma manual, bajo el control y supervisión de un arqueólogo profesional, habiendo eliminado cualquier riesgo de afección dentro del área de protección de los monumentos megalíticos involucrados.

J. C. López Quintana; J.M. Arruabarrena

B.30.3. **Galupa 1 trikuharria**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana

Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Bizkaiko Foru Aldundia; Karrantzako Udala

B.30.3. **Dolmen de Galupa 1**

Dirección: Juan Carlos López Quintana

Financiación: Gobierno Vasco; Diputación Foral de Bizkaia; Ayuntamiento del Valle de Carranza

The archaeological intervention carried out in the Galupa 1 dolmen forms part of a project that aims to disseminate and raise public awareness of the Armañón Megalithic Complex. The project contract was awarded to AGIRI Arkeologia Elkartea within the call for subsidy applications for the dissemination and public awareness-raising of Basque Cultural Heritage (2021-2023). The archaeological assessment of Galupa 1 forms part of the interventions scheduled prior to the consolidation and public dissemination of the dolmen.

Galupa 1 trikuharrian bideratutako esku hartze arkeologikoa «Armañongo Espazio Megalitikoari balioa eta zabalkundea emateko proiektuaren» zati da. Proiektu hori AGIRI Arkeologia Elkarteari esleitu zaio Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskal Kultura Ondareari balioa eta zabalkundea emateko dirulaguntzen deialdiaren barruan (2021-2023).Armañongo proiektuaren finantzazioan parte hartzen dute, era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea zaintzeko Zerbitzuak eta Karrantza Haraneko Udalak.

Galupa 1 trikuharria

Galupa 1 trikuharria La Galupa gainaren (721 m) mendebalde/ipar-mendebaldera 58 metrotara dago, muinoa Biroleo aldera inguratzen duen bidearen iparraldera 20 metrotara. Galupa 2 trikuharriaren mendebaldera/ipar-mendebaldera 40 metrotara dago, Galupa 4 eta 5 bikotearen mendebaldera 290 metrotara. 1960an aurkitu zuten P. M. Gorrotxategi eta P. J. Gorrotxategik eta J. M Apellanizek induskatu zuen 1965ean. Kultura Ondasun gisa dago sailkatuta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2099ko otsailaren 3an emandako 25/2009 ebazpenaren bidez. Galupa 1 monumentu erdiesferikoa da, oinplano zirkularrekoa (diametroa: 18,00 m / garaiera: 2,20 m), eta Apellanizen arabera hileta ganbera bikoitza du, elkarren gainean egokituta: behekoa angeluzuzena, eta goikoa zehaztu gabea.

Galupa 1 trikuharrian bideratutako zundaketa arkeologikoaren helburuak

J.M. Apellanizek bideratutako indusketa ez zen erabat lehengoratu, 2,50 m (iparraldetik hegoaldera) bider

La intervención arqueológica en el dolmen de Galupa 1 forma parte del proyecto «Puesta en valor y difusión de la Estación Megalítica de Armañón», adjudicado a AGIRI Arkeologia Elkartea dentro de la convocatoria de subvenciones para la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco (2021-2023), del Dpto. de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco. El proyecto Armañón es cofinanciado, además, por el Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia y por el Ayuntamiento de Karrantza Harana.

El dolmen de Galupa 1

El dolmen de Galupa 1 se sitúa a 58 metros al W-NW del Alto de La Galupa (721 m), a 20 metros al norte de la pista que bordea la loma en dirección a Biroleo. Se emplaza a 40 m al W-NW del dolmen de Galupa 2 y a 290 m al oeste del binomio Galupa 4 y 5. Fue descubierto en 1960 por P.M. Gorrotxategi y P.J. Gorrotxategi y excavado por J.M. Apellániz en 1965. Está calificado como Bien Cultural mediante decreto 25/2009, de 3 de febrero, del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Galupa 1 es un monumento hemisférico de planta circular (diámetro: 18,00 m / altura: 2,20 m) donde, según Apellániz, se documenta una doble cámara sepulcral superpuesta: la inferior, rectangular; y la superior, no determinable.

Objetivos del sondeo arqueológico en el dolmen de Galupa 1

La excavación de J.M. Apellániz no fue reintegrada en su totalidad, habiendo dejado una depresión de 2,50



Galupa 1eko beheko ganbera topografikoki dokumentatzeko prozesua.

Proceso de documentación topográfica de la cámara inferior de Galupa 1.

4,00 m-ko (ekialdetik mendebaldera) sakonune bat utzi zen. Ustez goiko ganberako lauza behar zuena, 2,40 m luze, makurtuta eta hautsita geratu zen. Trikuharriaren irudi horrek ez zuen monumentuari balioa ematea ahalbidetzen, eta horrexegatik planteatu genuen hileta ganberari zegokion espazioa finkatzeko eta lehengoratzeko esku hartze bat egitea. Horretarako, behar-beharrezkoa zen egituraren ebaluazio arkeologikoa egitea, hilobiaren arkitektura eta eraikuntza faseak dokumentatu ahal izateko.

Hileta ganberaren ebaluazioa

Ganbera ebaluatzeko, 2,00 x 1,20 metro azalerako zundaketa bat eraman genuen burura 2022ko uztailak 25 eta abuztuak 4 bitartean. Kartesiar koordenatuen metodoaren araberako estrategia baliatu genuen induskeka lanetan, eta 5 cm lodierako mailatan altxatu genituen lurrak. Sedimentu guztiak 2 milimetro argiko metalezko galbahe baten bidez bahetu genituen, eta Estratigrafia Analitikoaren printzipioen arabera interpretatu dugu multzo osoa.

Zundaketa induskatuta egiaztatu ahal izan genuen Apellanizen beheko ganbera (monumentua fundatu zeneko ganbera) kontserbazio egoera onean zegoela, 1965ean utzi zen bezalaxe. Ganbera hori tumuluaren beheko aldean sartuta zegoenez, berriz ere behar bezala estaltzeko erabakia hartu genuen, behin egituraren dokumentazio topografikoa eta fotogrametrikoa egin ondoren.

Galupa 1eko hileta ganbera finkatzeko eta lehengoratzek lanak

Galupa 1 monumentuan bideratutako ekinaldiaren azken egunak hura finkatzen eman genituen. Erdiko hutsunea betetzeko 4.000 litro landare lur ongarritu eraman ziren, BI-Lurra konpostaz, lurrez eta silize hareez osatua. Hona hemen burura eramandako prozesua:

a) Hasteko, material finez (2 mm-ko galbahez bahetutako sedimentu hareatsua) eta hareharrizko printzez bete genuen beheko ganberaren barrualdea. Estalkiko lauza jatorrizko posizioan jarri genuen, lauza bertikalak edo ortostatoak ukitu gabe. Beheko ganbera berrosatu ondoren, ehunezko sare batez «esta-

m (N-S) por 4,00 m (E-W). La supuesta losa norte de la cámara superior, de 2,40 m de longitud, quedó basculada y fracturada. Esta imagen del dolmen no favorecía la puesta en valor del monumento, ante lo cual se planteó una consolidación y reintegración del espacio correspondiente a la cámara sepulcral. Para ello, se hacía necesaria la evaluación arqueológica de la estructura, con el objeto de documentar la arquitectura y fases constructivas del sepulcro.

Evaluación de la cámara sepulcral

Para la evaluación de la cámara, se hizo un sondeo de 2,00 x 1,20 metros de superficie, ejecutado entre el 25 de julio y el 4 de agosto de 2022. La estrategia de excavación se reguló por el método de coordenadas cartesianas y el levantamiento de las tierras se ejecutó en medias tallas de 5 cm de espesor. El sedimento se cribó en su totalidad con cedazo metálico de 2 milímetros de luz, interpretando el conjunto desde los principios de la Estratigrafía Analítica.

La excavación del sondeo permitió comprobar que la cámara inferior de Apellániz (cámara fundacional del monumento) se encontraba en buen estado de conservación, tal y como se había dejado en 1965. Dado que dicha cámara se encontraba embutida en la parte inferior del túmulo, decidimos cubrirla nuevamente de forma ordenada, realizando una documentación topográfica y fotogramétrica.

Consolidación y reintegración de la cámara sepulcral de Galupa 1

Los últimos días de la campaña en Galupa 1 se dedicaron a la consolidación del monumento. Para el relleno del hueco central se acarrearon 4.000 litros de tierra vegetal abonada, compuesta por compost BI-Lurra, tierra y arena de sílice. El proceso seguido ha sido el siguiente:

a) Primeramente, el interior de la cámara inferior se rellenó con material fino (sedimento arenoso cribado con cedazo de 2 mm) y lajas de arenisca. La losa de cubierta se colocó en su posición original, sin tocar las losas verticales u ortostatos. Una vez recom-

li» genuen, 1965eko «goiko ganbera» zalantzagarriko hutsunea lehengoratzen hasi aurretik.

b) Hutsune hori lehengoratzeko, aipatutako landare lur ongarritua erabili genuen indusketa lanetan zehar metatutako hareharrizko blokeek eta harriek eratutako geruzekin nahasita. Harrizko geruza horiek areagotu egiten dute betegarri sendogarriaren trinkotasuna.

c) Betegarri sendogarri horren barruan ganberaren hegoaldeko ertzean etzanda zeuden lau lauzak sartu dira, lauza horien jatorrizko testuingurua ezezaguna zaigularik. Kasu honetan, kontserbatu egin ditugu (ehunezko sare batez babesturik) tumuluko kraterreko betegarriaren barruan.

Egitura lehengoratzeko eta finkatzeko lanek Katillotxuko estazio megalitikoan aztertutako eta aplikatutako ingurumenean jarduteko gidalerroak izan dituzte ardatz. Monumentuak kontserbatzeko sistematika horrek landare (belar) geruza finkatzea eta hari eustea ditu helburu higadura prozesuei galgak jartzeko elementu gisa.

puesta la cámara inferior, ésta se «forró» con tela geotextil antes de proceder a la reintegración del vaciado de la dudosa «cámara superior» de 1965.

b) Para la restitución de este hueco, se empleó la mencionada tierra vegetal abonada, combinada con capas de bloques y lajas de arenisca, acopiados durante la excavación del sondeo. Las capas de piedra incrementan la compacidad del relleno consolidante.

c) Dentro del mencionado relleno consolidante, se han incluido las cuatro losas que yacían en el borde sur de la cámara y cuyo contexto original es indeterminado. En este caso, hemos optado por conservarlas (protegidas con tela geotextil) dentro del relleno del cráter.

Los trabajos de reintegración y consolidación de la estructura han continuado las directrices de intervención ambiental estudiadas y aplicadas en la estación megalítica de Katillotxu. Esta sistemática de conservación se orienta a la potenciación y mantenimiento de la capa vegetal (herbácea) como elemento amortiguador de los procesos erosivos.

J.C. López Quintana; A. Guenaga; J.M. Arruabarrena; I. Libano; E. Arévalo; A. Sánchez; E. Alonso; Petra S. Coop.

B.30.4. **Galupa 3 tumulua**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Bizkaiko Foru Aldundia; Karrantzako Udala

B.30.4. **Túmulo de Galupa 3**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Gobierno Vasco; Diputación Foral de Bizkaia; Ayuntamiento del Valle de Carranza

The archaeological intervention carried out in the Galupa 3 mound forms part of a project that aims to disseminate and raise public awareness of the Armañón Megalithic Complex. The project contract was awarded to AGIRI Arkeologia Elkartea within the call for subsidy applications for the dissemination and public awareness-raising of Basque Cultural Heritage (2021-2023). The archaeological assessment of Galupa 3 aimed to verify the megalithic nature of the structure, since doubts had been aired regarding its morphology and typographic unit.

Galupa 3 trikuharrian bideratutako esku hartze arkeologikoa «Armañongo Espazio Megalitikoari balioa eta zabalkundea emateko proiektuaren» zati da. Proiektu hori AGIRI Arkeologia Elkarteari esleitu zaio Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskal Kultura Ondareari balioa eta zabalkundea emateko dirulaguntzen deialdiaren barruan (2021-2023).Armañongo proiektuaren finantzazioan parte hartzen dute, era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea zaintzeko Zerbitzuak eta Karrantza Haraneko Udalak.

Galupa 3 tumulua

Galupa 3 tumulua ordeka/muino batean dago, La Galupa gainaren (721 m) mendebalde/hego-mendebaldera 535 metrotara, Surbias Gainera daraman bidearen eta haren paraleloan egokitutako hesiaren artean. Isolatuta dagoen arren, La Galupako multzo megalitikoaren barruan sartu da. Monumentua 1974an aurkitu zuten P. M. Gorrotxategi eta P. J. Gorrotxategik, eta Kultura Ondasun gisa kalifikatuta dago 2009ko otsailaren 3ko 25/2009 dekretuaren bidez. Egitura erdiesferiko zapala da, oinplano zirkularrekoa (diametroa: 6,40 / garaiera: 0,45 m), erdian krater txiki bat du, eta inguruan hareharrizko lauzak agertzen dira horizontalean eta bertikalean. Ipar-ekialdeko sektorean hareharrizko bloke bat ageri da ia bertikalean, egituraren erdigunerantz egiten du; ipar-mendebaldeko

La intervención arqueológica en el túmulo de Galupa 3 forma parte del proyecto «Puesta en valor y difusión de la Estación Megalítica de Armañón», adjudicado a AGIRI Arkeologia Elkartea dentro de la convocatoria de subvenciones para la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco (2021-2023), del Dpto. de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco. El proyecto Armañón es cofinanciado, además, por el Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia y por el Ayuntamiento de Karrantza Harana.

El túmulo de Galupa 3

El túmulo de Galupa 3 se sitúa en un rellano/collado, a 535 metros al W-SW del Alto de La Galupa (721 m), entre la pista que se dirige al Alto de Surbias y el vallado paralelo a ésta. Aparece aislado, aunque se ha incluido dentro del Conjunto megalítico de La Galupa. El monumento fue descubierto en 1974 por P.M. Gorrotxategi y J. Gorrotxategi y está calificado como Bien Cultural mediante decreto 25/2009, de 3 de febrero. Se trata de una estructura hemisférica aplanada de planta circular (diámetro: 6,40 m / Altura: 0,45 m), con leve cráter central, en torno al cual aparecen lajas de arenisca en posición horizontal y subvertical. En el sector NE emerge un bloque de arenisca subvertical orientado hacia el centro

sektorean, berriz, lauza ia bertikal batzuk azaleratzen dira monumentuaren kanpoko alderantz inklinatuta.

Galupa 3 tumuluan bideratutako zundaketa arkeologikoaren helburuak

Galupa 3 tumuluan bideratutako ebaluazio arkeologikoak egituraren izaera megalitikoa berresteko xedea zuen, halako zalantzak sortu baitziren haren morfologiaren eta tipometriaren inguruan. Trikuharria zehazteko metodoa aplikatuz haren azaleko balorazioa egiteaz gain, zundaketa estratigrafiko bat egiteko erabakia hartu genuen egitura ezaugarritzeko prozedura erabakigarri gisa. Horretarako baimena eskatu behar izan genion Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarea zaintzeko Zerbitzuari, eta Armañongo Parke Naturalaren eta lurren jabe den Karrantzako Udalaren baimenak ere eskatu behar izan genituen.

Tumuluaren diametroan induskatutako zundaketak 5 m^2-ko azalera hartu zuen (5 x 1 m) ipar/ipar-mendebaldetik hego/hego-ekialdera. Modu horretan profil estratigrafiko diametral ia osoa lortu nahi genuen. Maiatzaren 30etik ekainaren 3ra arte luzatu ziren zundaketa induskatzeko lanak. G. Laplacek sistematikoki azaldutako kartesiar koordenatuen metodoaren araberako estrategia baliatu genuen indusketa lanetan, eta 5 cm lodierako mailatan altxatu genituen lurrak. Sedimentu guztiak 2 milimetro argiko metalezko galbahe baten bidez bahetu genituen, eta Estratigrafia Analitikoaren printzipioen arabera interpretatu dugu multzo osoa.

Ebaluazio arkeologikoaren emaitzak

Galupa 3 egituran bere arkitekturarekin lotuta erregistratu dugun estratigrafia azalduko dugu sabaitik oinera:

Tumuluaren egitura (Bsm/Csm)

Galupa 3 tumuluko koraza (Bsm/Csm unitate estratigrafikoa) ez da beti-batekoa induskatutako eremu osoan, baina halako antolamendua erakusten du: bereziki nabarmentzen da tumuluaren eraztuna, 1,20 metro zabal; haren kanpoko aldean lauza batzuk ageri dira posizio ia bertikalean, agian eraztunak biltzen duen edukiari eusteko elementuak dira. Kanpoaldean horizontalean agertzen dira lauzak, barreiatuago eta antolatu gabe, egituraren kanpoko perimetroa markatuz. Tumuluaren erdialdean ez da hileta ganberaren arrastorik bat ere hautematen.

Bsm/Csm (blokeak/klastoak harea marroiekin) unitate estratigrafikoa

Galupa 3 tumuluak harrizko koraza bat du sabaian, eta horretan nagusi dira blokeak, tarteka klastoak ageri direlarik kolore marroiko hareazko matrizearen gainean. 2. maila erdiaren oinean kolorea argitu eta horixkara egiten du, Bsm(a) gisa definitu da. Ez da material arkeologikorik bat ere azaldu.

Erdialdeko ikatz depositua (F-Slnt)

3tik 5erainoko maila erdiak induskatuta (6F eta 7F laukietan) berretsi egiten da ez dagoela hileta ganberarik. Nolanahi ere, 7F laukian zulo txiki bat dago (F-Slnt), tumuluko korazak zigilatuta eta kolore ilun eta beltzeko sedimentu hareatsuaz eta limotsuaz beteta, ikatz ugarirekin.

de la estructura; en el sector NW afloran algunas lajas subverticales inclinadas al exterior del monumento.

Objetivos del sondeo arqueológico en el túmulo de Galupa 3

La evaluación arqueológica de Galupa 3 tuvo como objetivo verificar la atribución megalítica de la estructura, ante las dudas que había generado en cuanto a su morfología y tipometría. Además de la valoración superficial, mediante la aplicación del método de determinación dolménica, se optó por la realización de un sondeo estratigráfico como procedimiento más concluyente para su caracterización. Para ello, hubo que solicitar autorización al Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia, así como los permisos del Parque Natural de Armañón (DFB) y Ayuntamiento de Karrantza Harana, propietario del terreno.

El sondeo, de disposición diametral, ocupó una superficie de 5 m^2 (5 x 1 m), con una orientación N/NW-S/SE. Se pretendía así obtener un perfil estratigráfico diametral prácticamente completo. Los trabajos de excavación del sondeo se llevaron a cabo la semana del 30 de mayo al 3 de junio. La estrategia de excavación se reguló por el método de coordenadas cartesianas, expuesto sistemáticamente por G. Laplace y el levantamiento de las tierras se ejecutó en medias tallas de 5 cm de espesor. El sedimento se cribó en su totalidad con cedazo metálico de 2 milímetros de luz, interpretando el conjunto desde los principios de la Estratigrafía Analítica.

Resultados de la evaluación arqueológica

Exponemos, de techo a muro, la estratigrafía determinada en la estructura de Galupa 3, en conexión con su arquitectura:

La estructura tumular (Bsm/Csm)


La coraza tumular de Galupa 3 (unidad estratigráfica Bsm/Csm) no es uniforme en toda la zona excavada, mostrando una cierta ordenación: se destaca especialmente un anillo tumular, de 1,20 metros de anchura, en cuya parte exterior aparecen algunas lajas en posición subvertical, tal vez como elementos de contención del anillo. Por fuera, aparecen lajas en posición horizontal, más dispersas y sin orden, marcando el perímetro exterior de la estructura. En la parte central del túmulo no se vislumbra ningún rastro de la cámara sepulcral.

Unidad estratigráfica Bsm/Csm (bloques/clastos con arenas marrones)

Galupa 3 muestra a techo una coraza pétrea tumular, concretada en un predominio de los bloques, puntualmente clastos, sobre matriz de arenas de color marrón. Hacia la base de la semitalla 2, la coloración se aclara y tiende al amarillo, definido como Bsm(a). No aparece ningún material arqueológico.

El depósito de carbones de la parte central (F-Slnt)

La excavación de las semitallas 3 a 5 (centrada en los cuadros 6F y 7F) reafirma la ausencia de cámara sepulcral. No obstante, en el cuadro 7F aparece un hoyo o pequeña fosa (F-Slnt), sellado por la coraza tumular y relleno de un sedimento areno-limoso de color marrón oscuro a negruzco, con abundantes carbones.



Galupa 3 tumuluaren fotogrametrria geoerreferentziatua, burura eramandako zundaketa adierazita.

Fotogrametría georreferenciada del túmulo de Galupa 3, con el sondeo realizado.

F-SInt (hareez eta kolore beltzeko limoez betetako zuloa, ikatz ugarirekin) unitate estratigrafikoa

Tumuluko harrizko korazak zigilatutako zulo txikia, hareez eta limo solteez betea, kolorez marroi ilunak eta beltzak, ikaztutako egur hondakin askorekin (C-Bsm, Bsm-c eta Snb-c). Betegarri horren barrutik suharrizko 2 hondakin txiki-txiki berreskuratu genituen.

Tumulu azpiko zorua (Sa-c)

6. maila erdian tumulu azpiko zorua ebakitzen du zuloak, eta zoru hori hareez eta buztin horiez eratuta dago, ikatz zatiak sartuta dituelarik (Sa-c). Zuloaren oinarrian hareharri termoaldatu batzuk dokumentatzen dira, ziur aski noizbehinkako su bati dagozkio.

Laburbilduta, Galupa 3 harrizko egitura tumular txiki bat da (6,40 m-ko diametroa eta 0,45 m-ko garaiera), ez du hileta ganberarik eta kanpoko aldetik ia bertikalean dauden lauzek inguratuta dago. Monumentuaren erdialdean ikaztutako egur hondakin asko biltzen dituen zulo bat dokumentatzen da. Maila estratigrafikoan, tumuluko harrizko korazak estalita eta zigilatuta dago zulo hori. Une honetan azterlan arkeobotanikoa egiten ari da M. Ruiz Alonso (CSIC, Madril), eta horri deposituaren C14 bidezko datazioa gaineratuta gehiago jakingo dugu egituraren funtzionaltasunari eta kronologiari dagokienez.

Unidad estratigráfica F-SInt (Fosa u hoyo relleno de arenas y limos de color negruzco, con carbones)

Hoyo o pequeña fosa sellada por la coraza pétrea tumular y rellena de arenas y limos sueltos, de color marrón oscuro a negruzco, con abundantes restos de maderas carbonizadas (C-Bsm, Bsm-c y Snb-c). Dentro de este relleno, se recuperan 2 microrrestos de sílex.

El suelo infratumular (Sa-c)

En la semitalla 6, la fosa llega a cortar el suelo infratumular, compuesto de arenas y arcillas de color amarillo, con carbones incrustados (Sa-c). En la base de la fosa se documentan algunas areniscas termoalteradas, correspondientes posiblemente a un fuego esporádico.

Como conclusión, Galupa 3 es una estructura tumular de piedra, de pequeñas dimensiones (6,40 m de diámetro por 0,45 m de altura), sin cámara sepulcral y delimitada exteriormente por lajas subverticales. En la parte central del monumento se documenta un hoyo que acoge un depósito con abundantes restos de maderas carbonizadas. A nivel estratigráfico, este hoyo aparece cubierto y sellado por la coraza pétrea tumular. En la actualidad, se está realizando el estudio arqueobotánico, por parte de M. Ruiz Alonso (CSIC, Madrid), lo cual, unido a la datación C14 del depósito, nos podrá orientar sobre la funcionalidad y cronología de la estructura.

J. C. López Quintana; A. Guenaga; E. Arévalo; A. Sánchez; E. Alonso; M. Ruiz Alonso

B.30.5. **La Lama tumulua**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Bizkaiko Foru Aldundia; Karrantzako Udala

B.30.5. **Túmulo de La Lama**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Gobierno Vasco; Diputación Foral de Bizkaia; Ayuntamiento del Valle de Carranza

The archaeological intervention carried out in the La Lama mound forms part of a project that aims to disseminate and raise public awareness of the Armañón Megalithic Complex. The project contract was awarded to AGIRI Arkeologia Elkartea within the call for subsidy applications for the dissemination and public awareness-raising of Basque Cultural Heritage (2021-2023). The archaeological assessment of the La Lama mound structure aimed to document the monument's architecture and construction phases ready for its public dissemination.

La Lama tumuluan bideratutako esku hartze arkeologikoa «Armañongo Espazio Megalitikoari balioa eta zabalkundea emateko proiektuaren» zati da. Proiektu hori AGIRI Arkeologia Elkarteari esleitu zaio Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskal Kultura Ondareari balioa eta zabalkundea emateko dirulaguntzen deialdiaren barruan (2021-2023).Armañongo proiektuaren finantzazioan parte hartzen dute, era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea zaintzeko Zerbitzuak eta Karrantza Haraneko Udalak.

La Lama tumulua

La Lama tumulua La Lama ordeka handiaren (747 metro) hego-mendebaldean dago, Armañón mendiaren hegoaldean. 1959an aurkitu zuten P. M. Gorrotxategi eta P. J. Gorrotxategik, eta Kultura Ondasun gisa kalifikatuta dago 2009ko otsailaren 3ko 25/2009 dekretuaren bidez. Egitura erdiesferiko bat da monumentua, oinplano zirkularrekoa, handia (diametroa: 20,00 m / garaiera: 2,40 m), ordeka zabal eta estrategiko batean dago, eta ordeka horretan kronologia zehaztugabe bateko aire zabaleko giza egonleku bat deskribatu da. Erdialdean jatorri edo kausa ezezaguneko krater sakon bat du.

La Lama tumuluan bideratutako zundaketa arkeologikoaren helburuak

Armañongo estazio megalitikoari balioa emateko esku hartzeen fasearen barruan La Lama tumuluaren erdialdeko krater handia finkatzeko eta lehengoratzeko lanak planteatu ziren. Horretarako, behar-beharrezkoa zen egituraren ebaluazio arkeologikoa egitea monumentuaren arkitektura eta eraikuntza faseak dokumentatzeko xedearekin. Erdialdeko kraterra finkatzeko lanei heldu aurretik sortutako profilak aprobetxatuko genituen tumuluaren eta balizko ganberaren erregistro arkeologikoa egiteko. Horretarako baimena eskatu behar izan genion Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarea zaintzeko Zerbitzuari, eta Armañongo Parke Naturalaren eta lurren jabe den Karrantzako Udalaren baimenak ere eskatu behar izan genituen.

Zundaketak, kraterraren barruko aldean induskatuak, 4,00 x 3,50 metroko laukizuzen bat hartu zuen, guztira 10 m^2-ko azalera induskatu genuen. Modu horretan bi profil estratigrafiko lortu genituen, sagitala bata, 4 m luze eta frontala bestea, 3,5 m-koa. Zundaketa induskatzeko lanak 2022ko uztailaren 7tik 15era luzatu ziren. Kartesiar koordenatuen metodoaren araberako estrategia baliatu genuen indusketa lanetan, eta 5 cm lodierako mailatan altxatu genituen lurrak. Sedimentu guztiak 2 milimetro argiko metalezko galbahe baten bidez bahetu genituen, eta Estratigrafia Analitikoaren printzipioen arabera interpretatu dugu multzo osoa.

Ebaluazio arkeologikoaren emaitzak

La Lama tumuluan bere arkitekturarekin lotuta erregistratu dugun estratigrafia azalduko dugu sabaitik oinera:

Harri lehorreko estekadura duen tumulu egitura (Bsnt unitate estratigrafikoa)

La Lama monumentuak tumulu egitura lodia du sabaian, 1,30 m lodi, eta bertan nagusi dira bloke solteak kolore beltz biziko hareazko matrize organiko mehe baten gainean (Bsnt unitatea). Bloke gehien-gehienak ha-

La intervención arqueológica en el túmulo de La Lama forma parte del proyecto «Puesta en valor y difusión de la Estación Megalítica de Armañón», adjudicado a AGIRI Arkeologia Elkartea en la convocatoria de subvenciones para la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco (2021-2023), del Dpto. de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco. El proyecto Armañón es cofinanciado, además, por el Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia y por el Ayuntamiento de Karrantza Harana.

El túmulo de La Lama

El túmulo de La Lama se sitúa en la parte suroccidental del amplio llano de La Lama (747 metros), emplazado al sur del monte Armañón. Fue descubierto en 1959 por P.M. Gorrotxategi y P.J. Gorrotxategi, y está calificado como Bien Cultural mediante decreto 25/2009, de 3 de febrero. El monumento se define como una estructura hemisférica de planta circular, de grandes dimensiones (diámetro: 20,00 m / Altura: 2,40 m), emplazada en un estratégico y amplio rellano, donde se ha descrito un asentamiento al aire libre de cronología no determinada. Presenta un profundo cráter central, cuyo origen o causa desconocemos.

Objetivos del sondeo arqueológico en el túmulo de La Lama

Dentro de la fase de intervenciones para la puesta en valor de la estación megalítica de Armañón, se planteó la consolidación y reintegración del gran cráter central de La Lama. Para ello, se hacía necesaria la evaluación arqueológica de la estructura con el objeto de documentar la arquitectura y las fases constructivas del monumento. Antes de proceder a consolidar el cráter central, aprovecharíamos los perfiles generados para hacer un registro arqueológico del túmulo y de la presunta cámara. Para ello, hubo que solicitar autorización al Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia, así como los permisos del Parque Natural de Armañón (DFB) y Ayuntamiento de Karrantza, propietario del terreno.


El sondeo, ubicado en el interior del cráter, ha ocupado una cuadrícula de 4,00 x 3,50 metros, habiendo excavado una superficie de 10 m^2. Se han obtenido así dos perfiles estratigráficos: uno sagital, de 4 m de longitud; y otro frontal, de 3,5 m. Los trabajos de excavación del sondeo se llevaron a cabo entre el 7 y el 15 de julio de 2022. La estrategia de excavación se reguló por el método de coordenadas cartesianas y el levantamiento de las tierras se ejecutó en media tallas de 5 cm de espesor. El sedimento se cribó en su totalidad con cedazo metálico de 2 milímetros de luz, interpretando el conjunto desde los principios de la Estratigrafía Analítica.

Resultados de la evaluación arqueológica

Exponemos, de techo a muro, la estratigrafía determinada en el túmulo de La Lama, en conexión con su arquitectura:

La estructura tumular de aparejo a piedra seca (unidad estratigráfica Bsnt)

El monumento de La Lama muestra a techo una potente estructura tumular, de 1,30 m de grosor, definida por un predominio de los bloques (sueltos) sobre una efímera matriz orgánica de arenas de color negro inten-



La Lama egituraren hegoaldeko profilaren fotogrametria, bi eraikuntza/unitate estratigrafikoak adierazita: goian, lehorrean ipinitako harriez antolatutako tumulu egitura; behean lurrez eratutako beheko tumulua, harrizko eraztunarekin.

Fotogrametría del perfil sur de La Lama, con la indicación de las dos unidades estratigráfico-constructivas: arriba, la estructura tumular de aparejo a piedra seca; abajo, el túmulo inferior de tierra con anillo pétreo.

reharrizko lauza ertainak eta handiak dira (badira 0,60 x 0,40 m-ra iristen direnak ere). Tumulu lodi hori horizontalean eta ia horizontalean ipinitako lauzetan antolatuta dago, piezak lehorrean ipiniak direlarik. Bloke horietako batzuek lanketaren arrastoak erakusten dituzte. Material arkeologikoari dagokionez, 6M laukian, 1. mailan, disko baten formarekin landutako hareharrizko xafla bat erregistratu dugu. Gainera, gainazaleko 50 cm-ko tartean, fauna hondakin modernoak (zaldi eta ardi eta ahuntz hezurrak) eskopeta kartutxoak, beira eta gisakoak azaltzen dira.

Induskatutako gunean, trinkotasun handiagoko maila batean (Slnck unitatea) hartzen du atseden Bsnt tumulu paketeak, eta maila horretan nabarmenak dira aldaketak: matrizean gehiago dira limoak, eta desagertu egiten da hareharrizko lauzen estekadura, piezak lehorrean ipiniak. Betegarri batez eratutako maila da, eta betegarri horretan klasto/bloke txikiaren tamainako hareharri eraldatuak bereizten dira, kolore horiko buztinen sarkinekin. Slnck unitatearen oinarritik ikatz asko berreskuratu genituen; 6M laukian (3. maila) erabileraren arrastoak ageri dituen okre bat berreskuratu genuen.

Azpiko lurrezko tumulua (Sln eta Cb-Sln unitate estratigrafikoak)

Lehorrean ipinitako harriez estekatutako pakete tumularraren (Bsnt) eta Slnck betegarriaren azpian aldaketa argi bat hautematen da, lurrezko depositu bat nagusitzen da, limoez eta harea beltz-beltzez osatua (Sln unitatea). Osagai handien absentzia da ezaugarri nagusia, lurrezko matrizea, oso organikoa, baita nagusi. Kanpotik ekarritako betegarri bat delako ebidentziak dauzkagu, izan ere, jatorri antropikoko betegarri bat da. Hasteko, La Lamako ordeka zabalaren mailatik gora nabarmentzen den lur goragune bat da, erliebe erdiesferiko nabarmena du, eta harrizko eraztun batez hornituriko zuloak mugatzen du. 4M eta 5M laukien artean, lur muino horren parterik garaienean, lurrezko nukleoan parso (unidad Bsnt). Los bloques corresponden, en su mayoría, a losas de arenisca de tamaño mediano a grande (con tamaños que llegan a alcanzar los 0,60 x 0,40 m). Este potente túmulo está organizado en un aparejo de losas en posición horizontal-subhorizonal, a piedra seca. Algunos de estos bloques muestran huellas de labrado. En cuanto al material arqueológico, en el cuadro 6M, talla 1, se registra una plaqueta de arenisca tallada en forma de disco. Además, en los 50 cms. superficiales aparecen restos modernos de fauna (caballo y ovicaprino), cartuchos de escopeta, vidrio, etc.

En la zona excavada, el paquete tumular Bsnt se asienta sobre un nivel de mayor compacidad (unidad Slnck), que muestra cambios notorios: la matriz tiene más presencia de limos y desaparece el aparejo de losas de arenisca a piedra seca. Se trata de un nivel de relleno, con areniscas alteradas tamaño clasto/bloque pequeño y con inclusiones de arcillas de color amarillo. En la base de Slnck se recogen abundantes carbones; en el cuadro 6M (talla 3) se recupera un ocre con huellas de uso.

El túmulo inferior de tierra (unidades estratigráficas Sln y Cb-Sln)

Por debajo del paquete tumular de aparejo a piedra seca (Bsnt) y del relleno Slnck, se percibe un cambio nítido, definido por la presencia de un depósito terroso, de limos y arenas de color negro azabache (unidad Sln). El rasgo más característico es la ausencia de componentes gruesos, siendo predominante la matriz terrosa, muy orgánica. Disponemos de evidencias de que se trata de un paquete aportado, de origen antrópico. En primer lugar, es un promontorio terroso que queda por encima de la cota del gran llano de La Lama y muestra un destacado relieve hemisférico, delimitado por un foso con anillo pétreo. Entre los cuadros 4M y 5M, en la parte más alta de este promontorio de tierra, se identifica una pequeña fosa recubierta de losetas de arenisca

tzialki sartzen diren hareharrizko lauza txikiez estalitako zulo txiki bat identifikatzen da (Cb-Sln). Material arkeologikoari dagokionez, ikatz laginen bat jaso dugu, baina goiko Slnck unitatearekin alderatuta unitate honetan askoz ere gutxiago dira hondakin antrakologikoak.

Laburbilduta, induskatutako azalera txikia izan denez, zuhurki jardun behar dugu egitura konplexu hau interpretatzerakoan. Eta ezinbestekoak dira ohiko azterketak (sedimentuarena, arkeobotanikoa, C14 bidezkoa) ongi oinarritutako proposamenak egiteko.

La Lama tumuluaren erdialdeko kraterra finkatzeko lanak

Erdiko kraterra finkatzeko 8.000 litro landare lur ongarritu eraman ziren, BI-Lurra konpostaz, lurrez eta silize hareez osatua. Lurrezko material horren ezaugarrietako bat da bere ehundura soltea eta silize hareen presentzia, aukera ematen baitu substratu naturaletik bereizteko eta «lehengoratutako» zatiak ongi identifikatu ahal izateko. Bestalde, lurrezko sendogarri hori, behin ongi pausatu eta kohesionatu ondoren, gainazaleko jariatzea ahalbidetzen du. Hona hemen burura eramandako prozesua:

– Hasteko, lurrezko tumuluaren beheko azalera osoa (Sln unitatea) ehunezko sare batez estali genuen eta ondoren material finez (2 mm argiko galbahe batez bahetutako sedimentu hareatsua) eta hareharrizko lauzez bete genuen.
– Kraterra lehengoratzeko, aipatutako landare lur ongarritua (8.000 litro) erabili genuen indusketa lanetan zehar metatutako hareharrizko blokeek eta harriek eratutako geruzekin nahasita. Harrizko geruza horiek areagotu egiten dute betegarri sendogarriaren trinkotasuna.

Egitura lehengoratzeko eta finkatzeko lanek, 2022ko uztailaren 18tik 21era bitartean egindakoek, Katillotxuko estazio megalitikoan aztertutako eta aplikatutako ingurumenean jarduteko gidalerroak izan dituzte ardatz. Monumentuak kontserbatzeko sistematika horrek landare (belar) geruza finkatzea eta hari eustea ditu helburu higadura prozesuei galgak jartzeko elementu gisa.

(Cb-Sln), que se insertan parcialmente en el núcleo terroso. En cuanto al material arqueológico, se recoge alguna muestra de carbón, aunque se aprecia un descenso de los restos antracológicos con respecto a la unidad suprayacente Slnck.

Como conclusión, la reducida superficie excavada nos obliga a ser prudentes en la interpretación de esta compleja estructura. Y hace falta disponer de las analíticas habituales (sedimento, arqueobotánica, C14) para poder hacer una propuesta al efecto.

Consolidación del cráter central de La Lama

Para la consolidación del cráter central se aportaron 8.000 litros de tierra vegetal abonada, compuesta por compost BI-Lurra, tierra y arena de sílice. Una de las características de este material terroso es su textura suelta y la presencia de arenas de sílice, lo que permite diferenciarlo del substrato natural, pudiendo identificar bien las partes «restauradas». Por otra parte, este consolidante terroso, una vez asentado y cohesionado, facilita la escorrentía superficial. El proceso seguido en La Lama ha sido el siguiente:

– Primeramente, toda la superficie del túmulo terroso inferior (unidad Sln) fue cubierta con tela geotextil y rellenada con material fino (sedimento arenoso cribado con cedazo de 2 mm de luz) y lajas de arenisca.
– Para la restitución del cráter, se empleó la tierra vegetal abonada (8.000 litros), combinada con algunas capas de bloques y lajas de arenisca, acopiados durante la excavación. Las capas de piedra incrementan la compacidad del relleno consolidante.

Los trabajos de reintegración y consolidación de la estructura, desarrollados entre el 18 y el 21 de julio de 2022, han continuado las directrices de intervención ambiental estudiadas y aplicadas en la estación megalítica de Katillotxu. Esta sistemática de conservación se orienta a la potenciación y mantenimiento de la capa vegetal (herbácea) como elemento amortiguador de los procesos erosivos.

J. C. López Quintana; A. Guenaga; J.M. Arruabarrena; I. Libano; A. Sánchez; E. Arévalo; E. Alonso; M. Ruiz Alonso

B.30.6. **Llano de la Cerroja 2 tumulua**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Karrantzako Udala

B.30.6. **Túmulo de Llano de la Cerroja 2**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Ayuntamiento del Valle de Carranza

As part of the general conservation project focusing on the Aizko Megalithic Complex (Karrantza Harana), a sondage was scheduled to archaeologically confirm the mound-type structure of Llano de la Cerroja 2, given doubts that had arisen regarding the true nature of this presumed monument.

Aizkoko (Karrantza Harana) Estazio Megalitikoa kontserbatzeko proiektu orokor baten barruan, 2022. urtean zehar esku hartze batzuk eraman ditugu burura Karrantza Haraneko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Mendiak eta Kultura Ondasuna zaintzeko Zerbitzuek sustatuta. Batez ere babesteko helburua izan duten esku hartze horiek (hesiak berritzea eta perimetroak errondinozko piboteen bidez mugatzea) La Cabaña eta Llano de la Cerroja/Fuentellanoko multzo megalitikoetan

Dentro de un proyecto general de conservación de la Estación Megalítica de Aizko (Valle de Carranza), durante el año 2022 se han llevado a cabo una serie de intervenciones, promovidas por el Ayuntamiento de Karrantza Harana y los Servicios de Patrimonio Cultural y Montes de la Diputación Foral de Bizkaia. Estas actuaciones, fundamentalmente de protección (renovación de vallados y delimitaciones perimetrales mediante pivotes de rondino), se han centrado en los conjuntos monumentales de La

bideratu ditugu. Bi multzo horien hautaketa balioa emateari begira duten potentzial arkeologiko handian oinarritu da.

a) Bi multzo megalitiko horietan egin dira indusketa arkeologikoak eta diziplina askotako azterlanak, eta horiek indartu egiten dute balioa eta zabalkundea emateko elementu gisa duten potentziala.
b) Bi kasu horietan hondatuta daude monumentuei balioa emateko baliabideak (hesiak, sarrerak, panelak, …), eta horiek inola ere eguneratu eta berritu behar dira.

Gainera, multzoak kontserbatzeko plan horren barruan, Llano de la Cerroja 2 tumulu egituran egiaztapen arkeologikoko zundaketa bat egitea planteatu genuen kontuan harturik ustezko monumentuak sorrarazten zituen zalantzak.

Llano de la Cerroja 2 tumulua

Llano de la Cerroja 2 tumulua 1980. urtean aurkitu zuten X. Gorrotxategik eta M.J. Yarrituk. La Cabaña muinoaren (736 m) iparraldeko hegaleko ordeka batean dago, Fuentellano 1 monumentuaren ekialdera 135 metrotara eta La Cabaña nekropoli megalitikoaren iparraldera 550 metrotara. Abeltzaintza intentsiboari emandako lursail baten barruan dago balizko monumentua.

Egitura tumular atipikoa da, oinplano obalatuarekin eta oso handia (18 x 13 metroko diametroa eta 1,55 metroko garaiera), ez du erdialdeko kraterrik ez eta hileta ganberaren beste ebidentziarik ere. Kasuren batean lursailean abeltzaintza jardueraren ondorioz gertatutako eraldaketen emaitza gisa interpretatu da egituraren morfologia berezi hori. Gure aldetik, oso zalantzagarria da egitura, eta egiazki arrokaren azaleratzen bat izan daitekeela uste dugu guk.

Arkeologia egiaztatzeko zundaketaren emaitzak

Nahikoa izan zen 2 m^2-ko azalera izan zuen zundaketa bat egitea egiaztatzeko tumuluaren erliebe luzanga hori, Llano de la Cerroja 2 tumulutzat hartutako egitura hori, egiazki forma natural bat dela, hareharrizko material gogorragoen eta hareazko eta buztinezko depositu finago eta bigunagoen arteko higadura diferentzialak eragindakoa. Sortutako tumulu forma hori hareharri albiarren azaleratze bat da (Behe kretazikokoa), C lurzoru horizontala litzatekeenean aldatuta eta hautsita agertzen dena.

Esku hartzean zehar zehaztutako estratigrafia azalduko dugu sabaitik oinera:

Smc (harea marroiak klastoekin) unitate estratigrafikoa

Belar geruza altxatu ondoren, deigarria da humus (A) edo zoruko geruza organiko baten absentzia. Zuzenean sabaian agertzen da kolore marroi argiko hareazko maila bat, hareharrizko klastoekin eta legarrekin, itxura batean harrizko substratua aldatzen duen C maila baten abiapuntuari dagozkiola.

Csa (klastoak matrize hareatsu horiaren gainean) unitate estratigrafikoa

Smc mailaren azpian hareharrizko substratu eraldatuaren C maila agertzen da. Maila horretan nagusi dira

Cabaña y Fuentellano/Llano de la Cerroja. La elección de estos dos conjuntos se sustenta en el potencial arqueológico de cara a su puesta en valor.

a) Ambos conjuntos megalíticos disponen de excavaciones arqueológicas y estudios pluridisciplinares, que refuerzan su potencial como elementos susceptibles de puesta en valor y difusión.
b) En los dos casos, los recursos de puesta en valor (vallados, accesos, paneles,…) muestran marcados deterioros que requerían de una renovación y puesta al día.

Además, dentro de este plan de conservación, se planteó la realización de un sondeo de comprobación arqueológica en la estructura tumular de Llano de la Cerroja 2, ante las dudas que suscitaba el presunto monumento.

El túmulo de Llano de la Cerroja 2

El túmulo de Llano de la Cerroja 2 fue descubierto en 1980 por X. Gorrotxategi y M.J. Yarritu. Se localiza en un rellano de la ladera norte de la loma de La Cabaña (736 m), a 135 m al E del monumento de Fuentellano 1 y a 550 m al norte de la necrópolis megalítica de La Cabaña. El presunto monumento se ubica dentro de una parcela de uso ganadero intensivo.

Se trata de una estructura tumular atípica, de planta ovalada y grandes dimensiones (18 x 13 metros de diámetro y 1,55 m de altura), sin cráter central ni otras evidencias de la cámara sepulcral. La morfología atípica se ha interpretado en algún caso como resultado de las transformaciones de la parcela por su dedicación ganadera. Por nuestra parte, la estructura era muy dudosa, valorando la posibilidad de que correspondiera realmente a un afloramiento rocoso.

Resultados del sondeo de comprobación arqueológica

Con un sondeo de 2 m^2 de superficie fue suficiente para certificar que el relieve tumular alargado, valorado como túmulo de Llano de la Cerroja 2, corresponde efectivamente a una forma natural, originada por la erosión diferencial entre materiales pétreos areniscosos, más duros, frente a depósitos de arenas y arcillas, más finos y blandos. La forma tumular resultante es un afloramiento de areniscas albienses (Cretácico inferior), que aparece alterada y fracturada en lo que sería el horizonte C edáfico.

Exponemos la estratigrafía determinada durante la intervención, de techo a muro:

Unidad estratigráfica Smc (arenas de color marrón con clastos)

Tras levantar la capa herbácea, llama la atención la ausencia de un horizonte húmico (A) o capa orgánica del suelo. Aparece, directamente a techo, un nivel de arenas de color marrón claro con clastos y gravas de arenisca, que parecen corresponder al inicio de un horizonte C de alteración del substrato rocoso.

Unidad estratigráfica Csa (Clastos sobre matriz arenosa amarilla)

Por debajo del nivel Smc, aparece seguidamente el horizonte C de alteración del substrato rocoso de are-

hareharrizko klastoak eta legarrak, eraldaketak eragindako ohiko kolore laranjekin. Harea eta buztin horiak dira matrize aglutinatzailearen osagaiak.

Laburbilduta, burura eramandako zundaketak ez du hileta ganberaren eta tumulu egituraren ebidentziarik bat ere eskaini. Aitzitik, formazio natural bat agertzen zaigu, higadura diferentzialeko prozesuek sorrarazia, eta lurzoruko A eta B mailak ia erabat desagerrarazi dituzten lur mugimenduek guztiz hondatua. Beraz, baztertu egin behar dugu Llano de la Cerroja 2 tumulu gisa kalifikatutako egituraren izaera arkeologikoa, eta hortaz, kendu egin ditugu monumentu megalitikotzat balioesten zuten seinaleak eta kartelak.

nisca. Se define por el predominio de clastos y gravas de arenisca, con las características coloraciones naranjas de alteración. La matriz aglutinante son arenas y arcillas de color amarillo.

Como conclusión, el sondeo realizado no aporta ninguna evidencia de cámara sepulcral ni estructura tumular. Por el contrario, se muestra una formación natural, configurada por procesos de erosión diferencial, muy afectada, además, por obras de remoción que han eliminado prácticamente por completo los horizontes A y B del suelo. Por tanto, podemos descartar la naturaleza arqueológica del calificado túmulo de Llano de la Cerroja 2, al cual se le han retirado ya las señalizaciones y carteles que lo valoran como monumento megalítico.

J. C. López Quintana; J.M. Arruabarrena

B.30.7. **Ahedoko San Migel Arkanjelua elizaren ingurua**

Zuzendaritza: J. A. Fdez. Lombera
Finantzazioa: Berak finantzatua

B.30.7. **Entorno de la Iglesia de San Miguel Arcángel de Ahedo**

Dirección: J. A. Fdez. Lombera
Financiación: Propia

Two trenches made in the restoration of the roof of the portico of the church of San Miguel de Ahedo (after the 15th century) in Karrantza, Bizkaia, have provided archaeological data that, in their interpretation, allow us to deduce the use of the space both as a medieval temple and as a necropolis and the possible dimensions of the ancient church.

Sorrera eta kausa

Ahedoko (Karrantza, 48891) San Migel Arkanjelua parrokia elizaren perimetroaren % 85 eliz atari batez inguratuta dago iparraldean, hegoaldean eta mendebaldean.

Kontserbazio arrazoiak tarteko, aipatutako eliz atariko teilatu osoa hiru aldeetan berritzeko erabakia hartu zuten. Eliz ataria berritzeko lanetan bi zanga ireki behar izan dira eraikin ondoan: bata hegoaldean (*Plaza* aldean) eta bestea mendebaldean, kanpai hormaren parean. Esku hartze arkeologiko honen xedea izan da bi zanga horietan agerian utzitako materiala eta sedimentuak aztertzea.

Aurkitutako datuak

Alde handia dago aztertutako bi puntu kardinaletan (hegoaldean eta mendebaldean) aurkitutakoen artean bai kopuruari bai kalitateari (arkeologiaren ikuspuntutik) dagokienez.

Hegoaldea

Plaza alde horretan lur asko mugitu da ekialdeko muturretik mendebaldeko muturrerainoko zanga bat (drainatzeko eta hodi bat hartzeko) irekitzean. Zangako ertz bertikal txikiek antzeko datuak eskaintzen zituzten zangaren luzera osoan zehar: estratu bakarra, lur hareatsuak (ugariago) eta buztinak biltzen dituen lur matrize baten barruan nahasitako materialez osatua.

Azaldutako materialak, ehuneko oso handi batean, teila zatiak eta harriak izan dira. Gure interpretazioaren arabera, bi estalkietan (tenplukoan eta eliz atarikoan) egindako erreteila eta beste lan batzuetatik etorritako hondakinak dira.

Origen y causa

La iglesia parroquial de San Miguel Arcángel de Ahedo en Karrantza (48891) tiene un 85 % de su perímetro circundado por un pórtico en sus tres lados norte, sur y oeste.

Por motivos de conservación se decide renovar toda la cubierta de dicho pórtico en sus tres lados. Las obras de renovación del pórtico han exigido realizar dos zanjas junto al edificio: una en su lado sur (en la *Plaza/Coso*) y otra en el oeste frente a la espadaña. El análisis de la sedimentación y del material exhumado en ambas zanjas ha sido el objeto de esta actuación arqueológica.

Datos encontrados

Existe una neta diferencia de lo hallado en los dos puntos cardinales analizados, sur por un lado y oeste por otro, tanto en la cantidad como en la calidad (arqueológicamente hablando) de los mismos.

Sur

La tierra removida para la realización de la zanja de drenaje y conducción de una tubería desde el extremo este hasta su opuesto al oeste ha sido mucha en esta zona de la *plaza/coso*. Los pequeños cantiles verticales de la zanja daban unos datos similares en todo su recorrido: un único estrato compuesto por materiales revueltos dentro de una matriz terrosa en que se combinaban tierras arenosas (más abundantes) y arcillas.

Los materiales aparecidos han consistido, en un altísimo porcentaje, en fragmentos de tejas con piedras que interpretamos como restos de los retejados realizados en las dos cubiertas (la del templo y la del pórtico) y otras obras.

Hainbat une historikotako teila hondakinak (hainbat teileriatan landutakoak eta osaera, apaingarri, forma, teknika eta egosketa prozesu desberdinetan eginak) dira material esanguratsu nagusiak. Bestalde, burdinazko iltze bat (sekzio karratuko buruarekin) eta garrantzi txikiko beste material batzuk (beirazko argiontziak, mahaiko baxera, harriak, etab.) azaldu dira.

Hegoalde horretan bideratutako esku hartze arkeologikoan aurkitutakoaren ideia orokor bat eskainiko duen ahalik eta laginketa zabalena egin dugu, jakin beharrekoari (zer gertatu zen) datu askorik gaineratzen ez dioten material errepikakorrak alde batera utzirik. Gainera, irudi eta argazki asko egin ditugu.

Guk uste dugu estalkietan egindako erreteila lanetan «*zabortegi*» gisa erabili izan dela *plaza* aldea, bertan metatu direla material horiek guztiak inolako antolamendu motarik gabe.

Mendebaldea

Alde honetan, guztiz bestelakoak dira (hegoaldearekin alderatuz gero) agerian utzitakoaren eta aurkitutako materialen kantitatea eta kalitatea: materialak askoz ere gutxiago dira, eta azaldutako materialen posizioak datu interesgarri batzuk eskaini ditu, izan ere, zuzenean azaldu dira giza hezurrak, teila zati, harri eta beste material batzuekin batera.

In situ egindako egunkarian jasotako aipua:

Tenpluaren mendebaldetik eliz atarira sartzeko oinezkoen sarbidean irekitako zanga tartean, gutxi gorabehera haren erdialdean, giza hezurrak azaltzen dira. Zanga hori elizaren mendebaldeko aurpegian ireki da, eliz atarira eramaten duen egungo harrizko eskaileraren lehenengo mailaren aurrean hain justu ere. Eraikinaren mendebaldeko fronte osoa hartzen du zangak.

Berreskuratutako material batzuk makinek atera zituzten lurpetik, eta beste batzuk, gutxienak, geuk atera ditugu eskuz. Azken horien posizio estratigrafikoak eskaini ditu aztarnategi honetan lortu ahal izan denaren izaerari buruzko datu esanguratsuenak. Makinek ateratako materialak besterik gabe jaso ditugu. Besteak, eskuz lortutakoak, kontu handiz atera dira euren posizioa zorroztasunez erregistratuta.

Bi izaera desberdin dituen desberdintasun sedimentario horizontal garbia antzematen da: sedimentu mota bien arteko «muga» hezurrak agertzen hasten diren gunearen eta hezurrik gabeko gunearen artean legoke. Beraz, bi gune leudeke: batean, aipatutako «mugatik» zangaren iparraldera, hezurrak estratifikaturik agertzen dira lur buztintsuagoetan eta trinkoagoetan, eta «mugatik» hegoaldera lur hareatsuagoak azaltzen dira, giza hezurrik gabeak.

«Muga» horretatik iparralderantz trinkoagoa da sedimentazioa, nagusi da osagai buztintsua (hezurrekin). «Muga» horretatik hegoalderantz, soletagoa da sedimentazioa, hareatsua eta eraikuntzarako materialez eratutako betegarriarekin, horretan batez ere teila zati zaharrak eta harriak bereizten direlarik (hezurrik gabe).

Ertz txikiek berretsi egiten dute sedimentuen osagai desberdin hori: iparraldean lur buztintsua eta trinkoa / hegoaldean lur hareatsu soltea. Zanga 34 cm zabal eta 43 eta 50 cm bitarte sakon da (maldan dago eremua).

Los restos de tejas de diferentes momentos históricos, con facturas, decoraciones, formas, técnicas, cocciones y tejerías distintas han sido los materiales significativos predominantes. Además, han aparecido un clavo de hierro (tija de sección cuadrangular) y otros materiales (vidrios de lámparas, vasijas, piedras, etc.) sin mayor relevancia.

La actuación arqueológica en esta parte sur ha consistido en recoger una muestra lo más amplia posible que dé una buena idea general de lo encontrado sin que ello suponga un exceso de materiales que se repitan sin aportar muchos datos a lo necesario: saber qué ocurrió. Además, se ha realizado una extensa toma de imágenes.

Consideramos que en los diversos retejados realizados se ha utilizado la *plaza/coso* como «*escombrera*» adonde han ido a parar todos estos materiales sin ningún tipo de ordenación.

Oeste

Aquí ha habido una inversión (respecto al sur) en relación a la cantidad y calidad de lo exhumado y encontrado: la cantidad ha sido mucho menor y la naturaleza y posición de los materiales aparecidos ha dado cierto juego de datos interesantes al existir restos de huesos humanos exhumados directamente, además de cascotes de teja, piedras, etc.

Cita del diario realizado *in situ*:

En el trozo de zanja situado en el acceso peatonal al pórtico por el lado oeste del templo y justo en su mitad aproximada afloran huesos humanos. La zanja se realiza en la cara oeste de la iglesia justo por delante del primer escalón de la actual escalera de piedra que da acceso al pórtico. La zanja interesa todo el frente oeste del edificio.

Los materiales obtenidos se encontraban unos ya exhumados por la máquina y otros, los menos, a mano. Ha sido la posición estratigráfica de estos últimos la que ha dado más datos sobre la naturaleza de lo que se ha podido obtener de este yacimiento. Los sacados por la máquina se han recogido sin más. Los otros han sido exhumados cuidadosamente observando bien su posición.

Se aprecia una neta diferencia sedimentaria horizontal con dos naturalezas distintas: el «límite» entre los dos tipos de sedimentación estaría donde comienzan a aparecer los huesos frente a la zona donde no los hay. Así habría dos zonas: una con huesos estratificados en tierras más arcillosas y compactas hacia el norte de la zanja desde tal «límite» y, desde éste, otra con tierras más arenosas y ausencia de huesos humanos en dirección sur.

Desde ese «límite» hacia el norte la sedimentación es más compactada con un componente mayoritario arcilloso (y con huesos). Desde tal «límite» hacia el sur la sedimentación es más suelta, arenosa y de puro relleno de materiales constructivos con, principalmente, cascotes de tejas viejas y piedras (y sin huesos).

Los cantiles (pequeños) confirman ese componente sedimentario diferenciador: norte tierra arcillosa compactada / sur tierra arenosa suelta. La zanja tiene una anchura de 34 cm y una profundidad que oscila (la zona está en pendiente) entre 43 y 50 cm.

Kolore marroia dute hezurrek, eta hezur horiek hartzen dituen lurra, halako hezetasun mailarekin, hezur horiei estu atxikita dago. Kontuan hartu behar da une honetan asfaltozko geruza bat dutela gainean. Alde horretan ikatz zati txiki-txiki batzuk eta, oso noizean behin, 4 cm-ko diametrora iristen ez diren karezko konkrezio gutxi batzuk azaltzen dira.

Interpretazioa

Errenazimentuko obra da gaur egungo tenplu erlijiosoa: habearte bakarreko eraikina da erdi puntuko arku apur bat beheratuek bereiziriko hiru atalekin. Arku horiek sekzio lauangeluarreko pilareetan/horma bularretan hartzen dute atseden. Tarte bakoitza gurutze ganga batez estalita dago.

Tenplu hori baino lehen, beste tenplu bat izan zen leku berean, Erdi Arokoa/erromanikoa, ustez txikiagoa (burualdeko horman azaldutako prismak, gaur egun presbiterio ondoan dagoenak, horixe bera salatzen du).

Segur aski hilobiak izango ziren tenplu zaharraren inguruan, eta mendebaldea izango zen hilobiak hartzeko alde egokiena, hegoaldea (egungo «*plaza*») maila aski garaiagoan baitago; aitzitik, maila aski baxuagoan dago iparraldea, eta ekialdea aldapan dago gorago dagoen plano baterantz. Erliebea modu horretan aztertuta, zentzuzkoena da zenduak mendebaldean ehortzi izana, eta hain zuzen ere alde horretara handitu zen tenplu berria. Horregatik guztiagatik, mendebaldea izango zen alderik egokiena eraikin berrietatik –tenplua handitzeko obrak, eliz atariaren eraikuntza, erreteila lanak– etorritako zabor guztiak (teila zatiak, ehortzitakoen hezurrak, karea, harriak, etab.) bertan metatzeko.

Beraz, mendebaldea izan da datu esanguratsuenak eskaini dituena burura eramandako zundaketa txikitik ondorioztatutakoari dagokionez. Zundaketa horretan, besteak beste, hezur luzeak eta zeramikazko teila zati bi azaldu dira. Hezur horien eta teila zatien posizio estratigrafikoak argi eta garbi erakusten du guztia dela materialen nahaspila bat.

Egungo asfaltozko lurzoruaren azpiko geruza obratik etorritako materialen nahasketa batek osatzen du, bertan lurrak, teila zatiak, harriak eta abar nahasten dira. Azpiko geruzak biltzen ditu lau hezur luze horiek eta teila zati biak. Apofisirik gabeko hezur luzea zeramikazko zati handienaren gainean dago, beste hezur baten apofisietako bati atxikita. Hezur luze hori altxatuta, azpian agertzen dira (ia maila berean), zeramikazko beste zati txikiagoa eta beste hezur apofisi bat. Hortik ondorioztatzen da guztia (hezurrak, lurrak, teila zatiak, harriak, kare hondarrak, etab.) nahaspila bat dela. Beraz, eraikuntza lanetatik etorritako zaborrez eta ehorzketa hondarrez osatutako materialen nahaspila bat dugu.

Lau giza hezur luzeak, apofisiarekin eta gabe, lurpetik aterata ikusi dugu aspaldikoak direla diafisien hausturak, ez direla hezurrak ateratzean gertatu.

Konklusioak

Lehendik hautsitako lau hezur luzeek, tamaina askotako teila zatiek, eta hezurren, teila zatien, harrien, ikatzen, karearen, buztinaren, lur marroien eta abarren nahasketak iradokitzen dute material horiek guztiak aspaldi ez dela metatu zirela alde horretan. Ildo horretan, nabarmentzekoa da hezurren eta beren hausturen

Los huesos tienen una coloración marrón y la tierra donde aparecen está muy pegada a los mismos con cierta humedad, teniendo en cuenta que en estos momentos tienen una capa de asfalto sobre ellos. Aparecen en esa zona algunos fragmentos muy pequeños de carbón y también, muy esporádicamente, algunas concreciones de cal de no más de 4 cm de diámetro.

Interpretación

El actual edificio cultual es de fábrica renacentista: una sola nave con tres tramos diferenciados con arcos de medio punto un poco rebajados que descansan en pilares/contrafuertes de sección cuadrangular. Cada tramo remata en bóveda de crucería.

Anterior a este templo hubo, en el mismo lugar, otro medieval/románico supuestamente de dimensiones más modestas (el prisma que apareció en el muro del testero y que actualmente está junto al presbiterio así lo atestigua).

Muy probablemente existirían enterramientos alrededor del templo antiguo y la zona oeste sería la más propicia para ello puesto que la sur (actual «*plaza/coso*») está a un nivel bastante más alto; la zona norte todo lo contrario y la este se encuentra en pendiente hacia un plano superior. Analizando así el relieve lo más lógico es que enterraran en la zona oeste que es hacia donde se extendió más el nuevo templo. Por lo anterior parece que la zona oeste resultara la óptima para que fueran depositando todos los escombros de las nuevas construcciones: la ampliación del templo, la ejecución del pórtico, los diferentes y diversos retejados (cascotes de teja, huesos de los enterramientos, cal, piedras, etc.).

Ha sido, por tanto, la zona oeste la que ha proporcionado los datos más significativos respecto a lo que se ha podido deducir con el pequeño sondeo realizado. En este sondeo aparecen, entre otras cosas, huesos largos y dos fragmentos de teja cerámica. La posición estratigráfica de estos huesos y la de los dos fragmentos de teja demuestra que todo ello es un revuelto de materiales.

El estrato inmediatamente inferior al suelo actual de asfalto es un revuelto de obra donde se combinan tierras, cascotes de tejas, piedras, etc. Un estrato inferior contiene esos cuatro huesos largos y los dos fragmentos de teja. El hueso largo sin apófisis se encuentra encima del fragmento de cerámica mayor y adosado a una de las apófisis de otro hueso. Levantado este hueso largo, bajo él aparecen (en una situación prácticamente a nivel) el fragmento menor de cerámica y la otra apófisis ósea también a nivel. De ahí se deduce que todo (huesos, tierras, fragmentos de tejas, piedras, restos de cal, etc.) es un revuelto. Tendríamos, por tanto, una situación de revuelto de materiales consistente en escombros de construcciones y restos de enterramientos.

Exhumados los cuatro huesos humanos largos con y sin apófisis y las roturas de las diáfisis son antiguas, no se han hecho al exhumarlos.

Conclusiones

Los cuatro huesos largos ya fragmentados de antes, los cascotes de tejas de diversos tamaños, la mezcla de huesos, tejas, piedras, carbones, cal, arcilla, tierra amarronada, etc. da a entender que la deposición de todos estos materiales fue relativamente contemporánea. La inconexión anatómica de los huesos y sus roturas

lotura anatomiko eza. Segur aski tenpluan obrak egin zituztenean (Erdi Aroko tenplua/tenplu erromanikoa gaur egungo neurrietara handitzean; eliz ataria eraiki zutenean –hura estaltzeko eustormak, plazaren kontrako eustorma, lauzadura eta harrizko zoladura–, etab.), alde horretara zabaldu zen obretatik etorritako zaborrak biltzeko zabortegia/hondakindegia. Orain kare hondarrekin batera azaldu diren hezurrak (nahasiak, lotura anatomikorik gabe, zokoratuak eta kanpoko aldera nahasiak) Erdi Aroko ehorzketen gutxieneko hondarrak lirateke.

Kanpai hormaren behe aldean, mendebaldean, eliz atarira sartzeko gaur egungo eskaileraren maila beherenak, bere luzeraren erdialdean, eskailera mailak estaltzen dituen agregakin masaren altxatu bat zuen aztertu genuen unean. Altxatu hori iparraldetik hegoaldera luzatzen da, eta hain zuzen ere hegoaldeko muturrean dago, mugan, lehen adierazitako sedimentazio aldaketa.

Puntu horretan antzeman zitekeen nekropoli zaharraren (eremu sakratua) eta ez nekropoliaren (eremu profanoa) arteko aldea. Hortik ondorioztatu daiteke puntu horretatik eta ekialdetik mendebaldera marra bat trazatuz gero marra hori litzatekeela nekropoliaren iparraldeko muga, eta ziurrenik bertan egokituko litzatekeela tenplu zaharraren hegoaldeko horma.

Udalak gaur egungo obra amaitu ondoren, ongi asko nabari da non zegoen altxatu hori, berreraiki duten langileek erabilitako agregakin masaren kolorea desberdina baita. Altxatuaren puntu hori, eta beraz, estratigrafia horizontalak aldatzen diren puntu hori, ia % 100ean dator bat gaur egungo tenpluari mendebaldetik sarrera egiten dion atearen erdi puntuko arkuaren ezkerreko pilarearekin (iparraldean).

Marra hori gutxi gorabehera bat etorriko litzateke egungo eraikinaren erdiarekin, eta muga markatuko luke jarraian adierazten direnekin:

– Aurreko tenplua egungoa baino txikiagoa zenez, zenduei lur emateko erabiliko zuten eremu bat izango zuen mendebaldeko hormaren parean. Ondorioztatutako ekialdetik mendebalderako marra horrek erabilera desberdineko bi gunetan zatituko zuen tenpluaren aurreko eremu hori, marraren iparraldera bata eta hegoaldera bestea. Iparraldean egokituko ziren ehorzketak (gune *sakratua*), eta hegoaldean ez zen ehorzketarik izango (gune *profanoa*).
– Marra/ardatz horretatik ez oso urrutira egongo zen jatorrizko tenpluaren hegoaldeko horma. Lehenengo tenplu hark gaur egungo tenpluaren burualdetik urrutira egongo ez zen burualdea izango zuen, baina egun eskura ditugun datuekin oso zaila da jatorrizko tenplu haren luzera ondorioztatzea, eta beraz, ez dakigu zehazki non zuen mendebaldeko horma. Jatorrizko tenpluaren hegoaldeko hormaren gutxi gorabeherako posizioa halako logika batez zehaztu dezakegun arren, ez da gauza bera gertatzen mendebaldeko hormari bagagozkio. Tenpluaren hegoaldeko muga (dagokion hormarekin) non zegoen ondorioztatzeko moduan gauden bezala, tenpluaren mendebaldeko muga soilik teorikoki suposatzen dugu non zegoen.

Egungo tenpluaren iparraldeko horma Hezurtegia deritzon aldean begiz aztertuta, baita eliz ataririk abiatuta Hezurtegi horretako horma bera aztertuta, itsututako ateak eta leihoak nabari dira, baita inpostak ekialdeko muturretik gaur egungo tenpluaren luzearen erdialdera iritsi aurreko puntu bateraino eta aspaldi egindako beste

abundan en este sentido. Probablemente al hacer obras en el templo (ampliación de éste del medieval/románico al actual; construcción del pórtico –muros de sustentación para su cubrición, muro de contención contra la plaza/coso, enlosado y encachado del pavimento–, etc.) se expandió hacia esta zona el vertedero/escombrera de las propias obras. Los huesos que ahora aparecen con restos de cal serían un mínimo residuo de los enterramientos (removidos, desconexionados, arrumbados y revueltos hacia el exterior) medievales.

El escalón actual más bajo de la escalera de acceso al pórtico en la zona oeste bajo la espadaña tenía en el momento del análisis, hacia la mitad de su longitud, un desconchado de la masa de áridos que recubre a los propios escalones. Este desconchado va de N-S y es cerca de su extremo sur donde se encuentra el cambio de sedimentación reseñada anteriormente, el límite.

Éste sería el punto donde se podría apreciar la diferencia entre la antigua necrópolis (espacio sagrado) y la no necrópolis (espacio profano). De aquí se podría deducir que, si desde este punto trazáramos una línea E-O, tal línea sería el límite de la necrópolis hacia el N y, probablemente, la ubicación del muro S del antiguo templo.

Finalizada la obra actual por parte del Ayuntamiento, se percibe dónde estaba el desconchado por la diferente coloración de la masa de áridos que han puesto los operarios que lo han reconstruido. Este punto del desconchado y, por tanto, donde las estratigrafías horizontales cambian, coincide casi al 100% con el pilar izquierdo (al norte) del arco de medio punto que tiene la puerta que da acceso al templo actual en el lado oeste.

Esta línea coincidiría aproximadamente con la mitad del edificio actual y marcaría una linde con lo siguiente:

– Al ser el templo anterior de dimensiones más modestas que el actual, tendría frente a su muro oeste un espacio que sería el utilizado para los enterramientos. La línea/eje E-O deducida partiría este espacio frente al templo en dos zonas con utilización diferenciada: una al norte del eje y la otra al sur. En la parte norte se encontrarían los enterramientos (zona *sagrada*) y la parte sur estaría libre de enterramientos (zona *profana*).
– El muro sur del templo primitivo se encontraría no muy lejano de esta línea/eje. El templo primitivo tendría el testero (muro este del edificio) no muy lejos del actual, pero sería muy difícil deducir con estos datos cuál podría ser la longitud del templo antiguo y, por tanto, dónde estaría su muro oeste. Así como podríamos aventurar con cierta lógica una posición aproximada del muro sur del templo primitivo, no ocurre lo mismo con su muro oeste. De la misma manera que consideramos relativamente deducible el límite sur del templo (con su muro correspondiente), su límite oeste lo suponemos de manera totalmente teórica.

Analizados de visu tanto el muro norte actual del templo en la zona de la llamada Huesera y el muro de la tal Huesera desde el pórtico, aparecen restos de puertas y ventanas cegadas, impostas desde el extremo este hasta un punto anterior a la mitad de la longitud del templo actual y otros restos de construcciones

eraikuntza eta zaharberritze lanetatik etorritako hondarrak ere. Hortik abiatuta jarraituko dugu Ahedoko gaur egungo San Migel Arkanjelua tenpluaren eraikuntza/arkitektura multzo honen bizitzari buruzko datuak ondorioztatzen.

Gure ustez ondorio horiek ez dira txosten honen xede, eta beraz, etorkizuneko beste ikerketa batzuetarako utziko dugu ekialdetik mendebalderako marra/ardatz horrek bereiziriko ustezko bi gune sakratu/profano horiei begira eskainitako datu hori.

y rehabilitaciones antiguas. De aquí se podrán seguir deduciendo datos de la vida de este complejo constructivo-arquitectónico sagrado que es el actual templo de San Miguel Arcángel de Ahedo.

Entendemos que tales deducciones no son el objetivo de este artículo por lo que dejamos apuntado ese dato de las dos posibles zonas sagrada/profana en la línea/eje E-O para otras futuras investigaciones.

J.A. Fernández Lombera

B.30.8. **Polvorín kobazuloko I. leizea**

II. kanpaina
Zuzendaritza: Asier Gómez-Olivencia
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia; Eusko Jaurlaritza; Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa: European Research Council

B.30.8. **Sima I de Polvorín**

II campaña
Dirección: Asier Gómez-Olivencia
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia; Gobierno Vasco; Ministerio de Ciencia e Innovación; European Research Council

During the 2022 season, the work carried out in Sink-hole I of Polvorín Cave can be grouped into three areas, each of which aim to respond to one of the initial objectives. First, at a logistical level, several actions were taken to facilitate access to the site. Second, new samples were taken to enable the geo-chronological contextualisation of the different allostratigraphic units detected. Finally, excavations continued in the area in which fossils had been recovered in 1983 and 2000, and a new area of excavations was opened up next to the previous one, with in situ sediments.

2021ean hasi ginen Polvorín kobazuloko I. leizeko aztarnategian esku hartzen. Aztarnategi hori ezaguna da Speleo Talde Iluntasunaren Lagunak 1983an eta geroago 2000. urtean leizearen gainazaletik material arkeologikoa berreskuratu zuenetik. Hondakin horiek ustez kobazuloko goiko solairutik behera etorritako testuinguruetatik iritsiak ziren, eta beraz, horiek biltzean informazio estrategikoa desagerrarazteko arriskurik ez zela iritzi zen orduan. Leize hartzei zegozkien berreskuratutako hondakin paleontologiko gehien-gehienak. Gainera, hiena hondakin bilduma garrantzitsua berreskuratu zuten, eta hartzena bezain oparoa ez bazen ere, une hartan taxoi horretako hondakin fosilen bilduma handiena osatzen zuen Bizkaian.

Hauexek izan ziren 2022an burututako esku hartzearen helburuak: 1) aztarnategiko sarbidea hobetzea, 2) hautemandako unitate aloestratigrafikoak datatzeko laginak hartzea; 3) 1983an eta 2000n hondakinak berreskuratu ziren azaleko mailak induskatzea; eta 4) jatorrizko posizioan dauden testuinguruak bilatzea, gainazalean berreskuratutako fosilak dagozkien testuinguruan jartzeko.

Ez da erraza aztarnategira iristea, bertikalean jaisteko teknika espeleologikoak erabili behar baitira 30 m baino gehiago jaisteko eta zulo bertikalak eta arrapalak alderik alde igarotzeko. 2022an zehar aztarnategira iristea erraztu zuten elementu berri batzuk ipini genituen, eta behin esku hartzea amaituta, kendu egingo genituen inolako arrastorik utzi gabe. Zehazki, frakzio berri batzuk antolatu genituen 7 metro sakon den zuloaren oinean eta 25 metrotan luzatzen den arrapalan. Planteatutako bigarren helburuari dagokionez, metalezko grapak jarri genituen puntu estrategikoetan igoerak eta jaitsierak errazte aldera. Bigarrenik, espeleotema lagin batzuk hartu genituen Uranio/Torio bidezko datazioak lortzen saiatzeko eta hautemandako unitate aloestratigrafikoak geokronologikoki beren tes-

En 2021 comenzamos la intervención en el yacimiento de Sima I de Polvorín. Este yacimiento es conocido por la recogida superficial de material realizada por el Speleo Talde Iluntasunaren Lagunak en 1983, y posteriormente en el año 2000. Los restos procedían de unos contextos que se suponían como desprendimientos del piso superior de la cavidad, por lo que se consideró que no había riesgo de eliminar información estratigráfica al recogerlos. La mayor parte de los restos paleontológicos recuperados pertenecían a osos de las cavernas. Además, se recuperó una importante colección de restos de hiena, que aunque no era tan abundante como la de los osos, constituía en ese momento la mayor colección de restos fósiles de ese taxón en Bizkaia.

Los objetivos de la intervención realizada en 2022 fueron: 1) la mejora del acceso al yacimiento; 2) la toma de muestras para la datación de las distintas unidades aloestratigráficas detectadas; 3) la excavación de los niveles superficiales donde se recuperaron los restos en 1983 y 2000; y 4) la búsqueda de contextos en posición primaria que permitiesen la contextualización de los fósiles recuperados en superficie.

El acceso al yacimiento es complicado ya que requiere del uso de técnicas espeleológicas de progresión vertical para descender más de 30 m, atravesando tanto pozos verticales, como rampas. Durante el 2022, se instalaron nuevos elementos que facilitan el acceso al yacimiento, y que una vez terminada la intervención, podrán ser eliminados sin dejar huella. En concreto, se emplazaron nuevos fraccionamientos, en la base del pozo de 7 m de profundidad y en la rampa de 25 m de desarrollo. En relación al segundo objetivo planteado, se colocaron grapas de metal en zonas estratégicas para facilitar el paso. En segundo lugar, se tomaron distintas muestras de espeleotemas para intentar obtener dataciones por Uranio/Torio con el propósito de contextualizar geocronológicamente las distintas unidades

tuinguruan kokatzeko. Aztarnategia induskatzeko eta testuinguruan jartzeko helburuei dagokienez, esan dezagun indusketak bereziki 2021ean esku hartu zen gunea izan zuela xede, ustez bertan aurkitu baitzituzten espeleologoek 1983 eta 2000. urteetan berreskuratutako fosilak, eta bertan bigarren posizioan baitaude sedimentuak eta fosilak. Gainera, alboko gune bat induskatzen hasi ginen, 1,5 baino lodiagoa den sekuentzia estratigrafikoaren sabaia da, eta sekuentzia horretan jatorrizko posizioan zeuden hondakin fosilak berreskuratu genituen. Une honetako lan hipotesiaren arabera, gainazalean eta bigarren posizioko testuinguruan berreskuratutako hondakinak hein batean higatuta gertatu den sekuentzia horretatik eratorriak dira. Bi indusketa guneetan berreskuratutako hondakin fosil gehien -gehienak leize hartzei dagozkie, baina ez dira gutxi aurkitutako hiena hezurrak. Azkenik, beste lau giza hezur berreskuratu genituen.

aloestratigráficas detectadas. En cuanto a los objetivos de excavación y contextualización, comentar que la excavación se centró especialmente en la zona donde se intervino en 2021, que es supuestamente la misma zona donde los espeleólogos recuperaron los fósiles en los años 1983 y 2000 y en la que los sedimentos y los fósiles están en posición secundaria. Además, también se comenzó a excavar una zona anexa, que es el techo de una secuencia estratigráfica de más de 1,5 m de potencia en la que se recuperaron restos fósiles en posición primaria. La hipótesis de trabajo actual es que los restos recuperados en superficie y en contexto secundario derivan de esta secuencia, que ha sido parcialmente erosionada. En ambas zonas de excavación, los restos fósiles recuperados corresponden mayoritariamente a osos, aunque los restos de hiena encontrados también son numerosos. Por último, se recuperaron cuatro nuevos restos humanos.

A. Gómez-Olivencia; J. Aramendi; M. Arlegi; M. Arriolabengoa; J. Galán; V. Martínez-Pillado; J. Moreno; A. Pablos; A. Pantoja-Pérez; M. Rodríguez-Almagro; N. Sala; M. Villalba de Alvarado

B.31. ZALDIBAR

B.31.1. Hornidura sarea handitzea Sallabente auzoan

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

B.31.1. Ampliación de la red de abastecimiento existente en el barrio Sallabente

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Frontoiarekin eta San Lorenzo elizarekin batera jolas, kirol eta gizarte espazio bat osatzen duen San Lorenzo Probalekuaren ingurunean (39. kod.) bideratutako lur mugimenduen gaineko jarraipen arkeologikoan oinarritutako esku hartze arkeologikoa. Higiezin horiek guztiak Oinarrizko Babes maila duten Kultura Ondasun gisa daude jasota Zaldibarko Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Katalogoan.

Emaitzak negatiboak izan dira arkeologiaren ikuspuntutik, eta aukera ematen dute proiektua gauzatzeko lanek higiezinetan inolako eraginik izan ez dutela berresteko.

Intervención desarrollada en base al seguimiento arqueológico de los movimientos de tierra efectuados en el entorno del Probaleku de San Lorenzo (Cod. nº 39), que forma un espacio lúdico, deportivo y social junto con el frontón y la iglesia de San Lorenzo. Todos estos inmuebles están incluidos en el Catálogo del Plan General de Ordenación Urbana de Zaldibar como Bienes Culturales de Protección Básica.

Los resultados han sido de nulo interés arqueológico y permiten afirmar que la ejecución del proyecto no ha supuesto ninguna afección sobre la fábrica de los inmuebles.

A. Ruiz de Marco

B.32. ZALLA

B.32.1. Urrutia jauregia (6. BAG)

Zuzendaritza: José Ángel Fernández Carvajal
Finantzazioa: Zallako Udala

B.32.1. Palacio Urrutia (ZPA nº 6)

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal
Financiación: Ayuntamiento de Zalla

Archaeological monitoring of the installation of an elevated walkway in Urrutia Palace (Z.P.A. num. 3 in Zalla), as part of Phase 3 of the project designed to consolidate and disseminate the La Mella complex. The earth moving works and partial dismantling of structures linked to the new walkway were monitored. The intervention revealed no new data regarding the questions posed in previous phases regarding either the possible existence of an older tower or the structural problems that resulted in the collapse of the NE quadrant during the second half of the 20th century.

Urrutia jauregian (Zallako 3. BAG) eta La Mellako multzoa finkatzeko eta balioa emateko 3. Fasean pasabide goratu bat instalatzeko lanek eragindako esku hartze arkeologikoa. Beharrezko lur mugimenduen eta pasabide berriari lotutako egiturak partzialki desegiteko lanen gaineko jarraipen arkeologikoa egin dugu. Esku hartze honetan zehar ez dugu aurreko faseetan planteatutako galderei erantzuteko moduko datu berririk lortu, ez dakigu lehendik dorre bat izan ote zen, eta ez dakigu zeintzuk izan ziren XX. mendearen bigarren erdian iparekialdeko koadrantearen kolapsoa eragin zuten egiturazko arazoak[41].

Urrutia familia XVI. mendearen erdialdera egokitu zen Cadagua ibaiaren ezkerraldean, La Mella auzoko izen bereko familiarena zen etxetzar zahar baten hondakinen gainean. XVI. mende amaieran leinua berrosatuta (Urrutia de la Mellaren Orubea izena hartuko zuen), gaur egun ikus dezakegun jauregi zoragarriaren hondarrak ekarriko zituzten etengabeko eraberritze lanak abiarazi zituzten. Onibarra beste elementu batzuek ere osatzen zuten, esate baterako, etxebizitzak, kaperak, hiru olak, errota batek eta beste ondasun batzuek, eta denen artean zitadela harresitu antzeko bat eratzen zuten. Eraikin nagusiak errege bidearen alde bietan egokitzen ziren, eta beraz, bide horretatik igarotzen zirenek nahitaez zeharkatu behar zituzten ondasun horiek.

Urrutia familiak betiere errespetatu behar izan zuen bide horretatik igarotzeko zortasuna, baina hori ez zuen oztopo izango bere kokapen pribilegiatua aprobetxatu zezan eta beren boterearen ikurrak nabarmendu zitzan. Hala bada, familiaren lursailaren sarreran eta irteeran, harrizko hesi batez inguraturik, paraje hauetan zuen nagusitasuna gogorarazten zuten kubo batzuk altxatu zituzten. Harrez gero lotura estua izan dute Urrutiatarren ondasunek errege bidearekin, eta kontuan eduki behar da bide horretan joan-etorriak etengabeak zirela.

Multzo horretatik jauregia –perimetroko itxitura hormaren zati bat barne–, kapera, zaintzaileen etxea –dokumentu batzuetan olagizonen etxe gisa identifikatua– eta makina hidraulikoetako baten kokapena kontserbatu dira, azken hori XIX. mende bukaeran zentral hidroelektriko bihurtua.

Gure esku hartzean ikuskatu egin ditugu 5 oinarri induskatzeko, hormen gainean 3 euskarri instalatzeko, gibelaldean 2 eustorma eraikitzeko eta ekialdeko kanpoko aldean drainatze egitura bat instalatzeko lanak.

Intervención arqueológica motivada por la instalación de una pasarela elevada en el Palacio Urrutia (ZPA nº 3 de Zalla) dentro de la Fase 3 del proyecto de consolidación y puesta en valor del conjunto de La Mella. Se ha realizado el seguimiento de los movimientos de tierra necesarios y el desmonte parcial de estructuras vinculados al nuevo paso. El transcurso de la actuación no ha permitido obtener nuevos datos respecto a los interrogantes planteados en fases previas sobre la posible existencia de una torre anterior o los problemas estructurales que originarían el colapso del cuadrante NE en la segunda mitad del siglo XX[41].

La familia Urrutia se asentó en la margen izquierda del río Cadagua a mediados del siglo XVI, sobre los restos de la antigua casona de La Mella pertenecientes a la familia homónima. Con la refundación del linaje a finales del XVI (pasará a denominarse Solar de Urrutia de La Mella) se inician las continuas reformas que dieron como consecuencia los restos del magnífico complejo arquitectónico que podemos observar en la actualidad. El mayorazgo integraba residencia, capilla, tres ferrerías, molino y otros bienes, llegando a conformar una especie de ciudadela amurallada. Los edificios se disponían a ambos lados del camino real, de modo que quienes lo recorrían debían atravesar estas pertenencias.

La familia Urrutia hubo de respetar siempre la servidumbre de paso de este camino, pero ello no impidió que se aprovechasen de su privilegiada situación para destacar los emblemas de su poder. Así, tanto a la entrada como salida de su finca, rodeada por una cerca de piedra, dispusieron unos cubos recordando su primacía en estos lugares. Los pertenecidos de Urrutia han mantenido desde entonces un estrecho vínculo con la calzada real, cuyo tránsito era incesante.

De este complejo aún se mantienen el palacio –parte del muro perimetral de cierre incluido–, la capilla, la casa de lo guardeses –identificada en algunos documentos como casa de los ferrones–, así como la ubicación de uno de los ingenios hidráulicos, reconvertido en central hidroeléctrica a finales del siglo XIX.

La actuación se ha centrado en supervisar la excavación de 5 zapatas, la instalación de 3 apoyos sobre muros, construcción de 2 muros de contención en la parte zaguera y la instalación de un drenaje exterior por el flanco oriental.

[41] Fernández, J.A. (2021): «Urrutia jauregia (Zalla)», *Arkeoikuska 2020*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 246-249. or.

[41] Fernández, J.A. (2021): «Palacio Urrutia (Zalla)», en *Arkeoikuska 2020*. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, p. 246-249.

Zimenduak induskatzeko lanek besterik gabe gaur egun agerian dauden zoladurei lotutako prestakin desituak eta betegarriak dokumentatzeko aukera eman dute, eta euskarriek ez dute inolako eraginik izan hormetan.

Bestalde, gibelaldean eustormak eraikitzeko lanetan agerian geratu da kontserbatutako horma atalak oso egoera txarrean daudela, eta higiezinaren azken erabilera fasean ipar-ekialdeko koadrantea berreraikitzeko lan bati dagozkiola.

Azkenik, ekialdeko eremua drainatzeko egituraren instalazioak aukera eman du aurreko fasean kanpoaldean identifikatutako egiturak zehatzago dokumentatzeko eta interpretatzeko. Egitura horiek bat etorri beharko lukete mendebaldean beharko lukeen antzeko pasabidearekin.

La excavación de cimentaciones únicamente ha permitido documentar depósitos de preparación y relleno asociados a los pavimentos visibles en la actualidad, mientras que los apoyos no han causado afección alguna sobre los muros.

Por su lado, la construcción de contenciones en la parte zaguera ha dejado patente que los paramentos conservados, en muy mal estado, pertenecen a una reconstrucción del cuadrante NE en las fases finales de uso del inmueble.

Por último, la instalación del drenaje por el flanco oriental ha permitido documentar e interpretar de manera más precisa las estructuras exteriores identificadas en la fase previa, que se corresponderían con un paso equivalente al presente en el lateral oeste.

J.A. Fernández Carvajal; A. Ortega Franco

B.33. **ZAMUDIO**

B.33.1. **Cadalso baserria**

Zuzendaritza: Lorena Elorza González de Alaiza

Finantzazioa: Zamudioko Udala

B.33.1. **Caserío Cadalso**

Dirección: Lorena Elorza González de Alaiza

Financiación: Ayuntamiento de Zamudio

Archaeological intervention included in the farmhouse dissemination project led by the Zamudio Local Council, with the aim of minimising the impact of the scheduled works and assessing the quality of the archaeological register in the subsoil and emerging elements of heritage interest. The aim was also to monitor the possible appearance of hitherto undetected elements, paying special attention to evidence corresponding to the oldest phases of the farmhouse.

Zamudioko udal barrutian 1506an eraikia, Cadalso baserria, Cadalso etxea edo Kadaltso, baserrien lehen belaunaldian kokatzen da, eta bere ingurunean ale bakar bihurtzen duten elementu bereizgarri jakin batzuk ditu. Oinplano angeluzuzeneko eraikina da, bi isuriko teilatua du, eta beheko solairua, solairu nagusia eta estalkipea. Hegoaldeari begira du fatxada nagusia, eta zurezko zutikoen arteko atari burudunean bi sarrera; toskanar zutabe batek eusten dio atariburuari, eta bertan bi idazkun daude harrian zizelkatuta. Fatxadako baoak, burudunak, hiru ardatzetan daude antolatuta; estalkipea egurasteko aukera ematen duten baoak triangeluarrak dira. Gibelaldeko fatxadan sei saietera daude, eta eskuineko fatxadan beste bi. Mistoa da eraikuntza teknika, zurezkoa da egitura, harlangaitzezkoa beheko solairua eta adreilu trinkoz egina da frontisaren goiko aldea; izkinak harlanduzkoak dira. Iparraldeko fatxadako erdi puntuko leihoek indartu egiten dute higiezinaren Erdi Aroko jatorriaren ideia. Lehenengo solairuko erdiko bi baoen artean harrizko armarri bat dago, eta haren azpian bi idazkun daude: idazkun horiek ez daude beren jatorrizko posizioan, beste toki batetik ekarriak eta berrerabiliak dira. Gaur egun oso aldatuta dago jatorrizko higiezina denboraren joanean bideratu diren eraberritze lan ugarien ondorioz.

Enmarcado en el término municipal de Zamudio, el caserío Cadalso o Casa Cadalso o Kadaltso, cuya construcción data de 1506, se encuadra dentro de la primera generación de caseríos, con una serie de elementos característicos que lo convierten en un ejemplar único en su entorno. Es un edificio de planta rectangular con cubierta a dos aguas que consta de planta baja, primer piso y camarote. La fachada principal da al sur, con soportal adintelado de doble acceso, enmarcado por postes de madera; se encuentra sustentado por una columna toscana, sobre la que se encuentran dos inscripciones. Los vanos de la fachada, adintelados, se disponen en tres ejes; los que proporcionan aireación al camarote son triangulares. En la fachada posterior se abren seis saeteras, así como dos más en la fachada lateral derecha. La técnica constructiva es mixta, con armazón de madera, mampostería en la planta baja y ladrillo macizo en la parte superior del frontis, con esquineras en sillería. La presencia de ventanas de medio punto en la fachada norte parecen apoyar la idea de un origen medieval del inmueble. Entre los dos vanos centrales del primer piso hay un escudo de piedra bajo el que hay dos inscripciones, que no se encuentran en su posición original, sino que están reaprovechados. Hoy en día el inmueble original se halla muy modificado, producto de las numerosas reformas llevadas a lo largo del tiempo.

Esku hartze arkeologikoa

Kontuan izanik gaur egungo eraikinean argi eta garbi Erdi Aroko jatorria duten elementuak kontserbatu direla (esate baterako, erdi puntuko leihoak) eta denboraren joanean kontserbatu den toponimoari eutsi zaiola, Zamudioko Dorrearekin lotutako aurrealdeko defentsa eratu zezakeen Erdi Aroko egitura zahar bat egon zitekeen bertan, eta ustez lehenengo okupazio hari legozkiokeen aztarnak aurki zitezkeen zorupean.

Hipotesi hori egiaztatzeko hiru zundaketa egitea planteatu zen: lehenengoa (100. zundaketa) atarian; bigarrena (100. zundaketa) mendebaldeko etxebizitzan, lehenengo hormarteko egongela nagusiaren barrualdearen erdialdean; eta hirugarrena (300. zundaketa) ekialdeko etxebizitzan, era berean lehenengo hormarteko egongelan.

Desberdinak izan dira zundaketen emaitzak; 300. zundaketak ez du informazio askorik eskaini, materialak urri direlako eta egungo zoladuraren azpian substratu geologikoa azaltzen delako, gainean zorua berdintzeko edo lautzeko geruza bat duelarik. Berdintze geruza horren azpian, oso tarteka, depositu ilunago bat azaltzen zen, agian aurreneko okupazioen hondarrak ziren, baina oso eraldatuta zeuden geroagoko jardueren ondorioz. 200. zundaketak, aurrekoak bezala gutxi gorabehera 9 m^2 hartu zituenak, datu gehiago eskaini ditu. Zoladura horren azpian material modernoa eta jaurtigai multzo bat eskaini duen berdintze geruza bat dokumentatu dugu. Depositu horrek ukuiluko lurzorutzat identifikatu duguna estaltzen zuen, eta bertan, substratu geologikoak sakonune bat duen tokian, harriz berdindutako pasabide bat. Zundaketaren mugetan zanga bat dokumentatu dugu, baina ezin izan dugu identifikatu gaur egungo hormaren azpian galtzen delako. Era berean, horma baten zokaloa dokumentatu dugu, segur aski baserriak eraberritu aurretik izango zuen barne banaketari dagokiona. Azkenik, 100. zundaketak 21 m^2 hartuko zituen, baina azkenik azaleraren erdia baizik ez genuen induskatu. Higiezineko atari osoa hartu zuen, eta identifikatutako unitate bakar batek ere ez zuen Erdi Aroko kronologiako materialik eskaini. Gaur egungo zoladuraren azpian lauzez eratutako zoru bat eta dagozkion konponketak eta zerbitzuak instalatzeko zanga moderno bat identifikatu ditugu. Egitura horren azpian berdintze geruza lodi bat identifikatzen da, eta gainean funtzio zehaztugabeko kubeta bat, bi etxebizitzatan banatu aurreko baserriko ateko atalasea zimendatzeko zangak eta haren mendebaldean dagoen habea dokumentatu ditugu. Depositu horren azpian 300. zundaketan dokumentatutakoaren antzeko maila bat erregistratu dugu arrokako hutsuneak betez, segur aski baserriaren aurreneko okupazio uneei dagokie.

Baserriaren bilakaera kronologikoa

Oro har eta behin-behinean proiektuan aurreikusitako gainerako informazioa (hormen irakurketa, historia eta dokumentu azterketa, etab.) bildu arte, esku hartze arkeologikoaren arabera 4 une bereiz ditzakegu baserriaren bilakaeran.

1. fasea. Arroka gaineko berdintze lanak

Zundaketa guztietan substratu geologikoaren gainean dokumentatutako berdintze edo lautze geruzak dira lortu ditugun elementu zaharrenak. Aurreko okupazioen sobe-

La actuación arqueológica

Teniendo en cuenta la presencia hoy en día de elementos conservados en el edificio de claro origen medieval (como pueden ser las ventanas de medio punto), junto con la presencia del topónimo que se ha mantenido con el transcurrir de los años, denotaban la posibilidad de la presencia de una antigua estructura medieval que pudiera corresponder con una avanzadilla defensiva de la Torre Zamudio, y se consideraba que en el subsuelo podrían encontrarse restos pertenecientes a esta primera ocupación.

Para comprobar esta hipótesis, se planteó la excavación de tres sondeos: el primero (Sondeo 100), situado en el soportal; el segundo (Sondeo 200), localizado en la mitad interior de la estancia principal de la primera crujía en la vivienda oeste; y un tercero (Sondeo 300), ubicado en la vivienda este, también en la estancia de la primera crujía.

Los resultados de los sondeos han sido desiguales; el Sondeo 300 no ha proporcionado mucha información, ya que apenas contamos con materiales y debajo de la solera actual aparecía ya el sustrato geológico, con una pequeña nivelación sobre él. Por debajo de esa nivelación aparecía de forma puntual un depósito más oscuro, tal vez restos de las primeras ocupaciones, pero muy alterado por las actividades posteriores. El Sondeo 200, de unos 9 m^2, como el anterior, ha proporcionado más datos. Bajo la solera, se ha documentado una nivelación que ha proporcionado material moderno, así como un conjunto de proyectiles. Ese depósito cubría lo que se ha identificado como un suelo de cuadra, con un espacio de paso regularizado con piedras allí donde el geológico presenta una hondonada. En los límites del sondeo se ha documentado una zanja, que no se ha podido identificar porque continua bajo el muro actual, así como el zócalo de un muro, posiblemente de la primera distribución del caserío previo a las reformas. Por último, el Sondeo 100 cuenta con unos 21 m^2 de los que finalmente se excavaron la mitad. Ocupa todo el soportal del inmueble y ninguna de las unidades identificadas ha proporcionado restos de cronología medieval. Bajo la solera actual se ha documentado un suelo de losas con su reparación, así como una zanja moderna para la instalación de servicios. Debajo de esta estructura se encuentra una potente nivelación, sobre la que se ha documentado una cubeta de función indeterminada y las zanjas de cimentación del umbral de la puerta del caserío antes de su división en dos viviendas, así como la de la viga situada al oeste de la misma. Bajo este depósito se ha localizado un nivel similar al documentado en el sondeo 300, rellenando los huecos de la roca, posiblemente de los primeros momentos de ocupación del caserío.

Evolución cronológica del caserío

A grandes rasgos y de forma provisional hasta contar con el resto de la información prevista en el proyecto (lectura de alzados, estudio histórico-documental, etc.), según la intervención arqueológica podemos identificar 4 momentos en la evolución del caserío.

Fase 1. Nivelaciones sobre la roca

Los elementos más antiguos con los que contamos son las diversas nivelaciones sobre el sustrato geológico documentadas en todos los sondeos. Pueden ser remanentes de las ocupaciones previas, pero lo que



Arkitektura mistoaren xehetasunak eta eraikinean egindako eraberritzeak.

Detalle de la arquitectura mixta y las sucesivas reformas del edificio.

rakinak izan daitezke, baina gaur egun iritsi zaiguna arrokaren zainen arteko hutsuneak betetzen dituzten hondakin txikiak dira. Nolanahi ere, ez dirudi oso data goiztiarrekoa denik berreskuratutako material urri hori.

2. fasea. Espazioari emandako abeltzaintza erabilera. XVI. mendea

200. zundaketan dokumentatzen da bigarren fase hau, bertan materia organikoan aberatsa den zoru ilun bat dugu, aziendaren ohatzeen hondakinekin lotzen duguna. Era berean, une horretakoa izango litzateke aipatutako zundaketan dokumentatutako harrizko plataforma, gibelaldeko aterantz modu erosoagoan igarotzeko aukera emango zukeena. Gure ustez, baserria eraiki zen uneari lotu behar zaio erabilera hori.

3. fasea. XVIII. mendeko eraberritze handia

Hondakin eta aztarna gehien-gehienak XVIII. mendeko eraberritzearekin lotzen dira, higiezina bi etxebizitzatan banatu eta fatxada itxi zuten unearekin. Une horretan eraman zuten burura 100. zundaketan identifikatutako berdintze lan handia, eta orduan antolatu zuten lauzadura, geroago, une zehaztugabe batean, baina denboran ez oso urrun, eraberrituko zutena. Era berean, une honetakoak izan daitezke barruko zundaketetan identifikatutako berdintze geruzak.

4. fasea. Azken jarduerak. XIX.-XX. mendeak

Batez ere iragan mendekoak dira arkeologikoki dokumentatutako azken jarduerak: esku hartze honi heltzean baserriak zituen hormigoizko zoladurez eta zoru horiei dagozkien berdintze geruzez ari gara.

Zundaketak induskatzeko lanetan zehar berreskuratutako aztarnak eta identifikatutako jarduerak asko izan ez badira ere, huts egiteko beldurrik gabe ziurta dezakegu gutxi gorabehera induskatutako 40 m^2-etan ez dugula XVI. mendean baserria eraiki aurreko garaira garamatzan elementurik erregistratu. Eta esan genezake garai hartako aztarnak gutxi izateaz gain, iritsi zaizkigun horiek batez ere XVIII. mendeko eraberritzearekin zerikusia duten jarduerak direla; beraz, ekintza horiek eragin handia izan zutela esan dezakegu, eta aurreko okupazioen arrasto guztiak desagerrarazi zituztela, halakorik izan bazen.

nos ha llegado hoy en día son pequeños restos rellenando los huecos entre las vetas de la roca. No obstante, el escaso material recuperado no parece apuntar a fechas muy tempranas.

Fase 2. Uso ganadero del espacio. Siglo XVI

Esta segunda fase se documenta en el sondeo 200, donde nos encontramos con un suelo rico en materia orgánica y de coloración oscura, que se asocia a los desechos de las camas del ganado. Además, a este momento pertenecería también la plataforma de piedras en ese mismo sondeo que permitiría el tránsito de una manera más cómoda hacia la puerta trasera. Consideramos que debe asociarse este uso al momento de la construcción del caserío.

Fase 3. Gran reforma del siglo XVIII

La mayor cantidad de restos se asocian a la reforma del siglo XVIII, cuando se divide el inmueble en dos viviendas y se cierra la fachada. Es ahora cuando se realiza la gran nivelación del sondeo 100 y la colocación del suelo enlosado, con su posterior reforma en un momento indeterminado, pero no muy alejado en el tiempo. Asimismo, las nivelaciones de los sondeos interiores también podrían corresponder con este momento.

Fase 4. Últimas actuaciones. Siglos XIX-XX

Las últimas actividades documentadas arqueológicamente se engloban mayoritariamente en el siglo pasado; se trata de las soleras de hormigón que presentaba el caserío al comienzo de la intervención, así como sus nivelaciones.

Aunque los restos recuperados y las actividades identificadas durante la excavación de los sondeos no han sido muy abundantes, podemos asegurar que en los aproximadamente 40 m^2 no se ha registrado ningún elemento que nos remita a la época anterior a la construcción del caserío en el siglo XVI. Incluso podríamos decir que no sólo son pocos los restos de esta época, sino que lo que nos ha llegado son todas las actividades relacionadas principalmente con la reforma del siglo XVIII, por lo que podemos aventurar que estas acciones tuvieron un impacto tal que borraron la huella de las ocupaciones previas, si las hubo.

L. Elorza González de Alaiza

B.33.2. **Multzo monumentalak. Balioa ematea**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Zamudioko Udala

B.33.2. **Conjuntos monumentales. Puesta en valor**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Gobierno Vasco; Ayuntamiento de Zamudio

In the framework of the project designed to disseminate and raise public awareness of the Zamudio Monumental Complexes (2021-2023), reintegration/consolidation interventions were carried out on the Gaztelukolanda dolmen and the Zamudianos road. Clearing and signposting work was carried out in the machine gun post (ZAMF01) and trenches of Mount Avril.

«Zamudioko Multzo Monumentalei balioa eta zabalkundea emateko jarduerak» proiektua (2021-2023) Orbela S.L. enpresak diseinatu eta erredaktatu zuen, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Zamudioko Udalak finantzatu zuten. Proiektu horren testuinguruan, lehengoratzeko/finkatzeko esku hartze batzuk bideratu dira Gaztelukolanda trikuharrian eta Zamudiotarren galtzadan (Donejakue Bidea). Iturritxualde mendiko Metrailadore gunean (ZAMF01) eta lubakietan (Bilboko Burdin Hesia eta defentsak) sastrakak kentzeko eta seinaleak jartzeko lanak egin dira. Egiturak kontserbatzeko eta sustatzeko esku hartze horiek, baita seinaleak jartzeko eta sastrakak kentzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa ere, J.C. López Quintanaren (arkeologoa) eta A. Guenagaren (kontserbatzailea/zaharberritzailea) zuzendaritzapean eraman dira burura.

Gaztelukolanda trikuharria leheneratzeko/ finkatzeko lanak

Iturritxualde mendiaren ekialdeko hegaleko ordeka zabal batean dago Gaztelukolanda monumentua. 1973an aurkitu zuten P. M. Gorrotxategi eta J. Gorrotxategik, eta J. Gorrotxategi eta M. J. Yarrituk indusketa arkeologiko bat bideratu zuten bertan 1998 eta 2000 urte bitartean. Lurrezko nukleoa eta harrizko koraza dituen monumentua da Gaztelukolanda, 18 metroko diametroa du eta 0,60 metroko garaiera. Ganberak, oinplano angeluzuzenekoa, hego-ekialderanzko norabidean, gaur egun ikus daitezkeen hiru lauza kontserbatu ditu. Indusketa lanetan berreskuratutako tresneriak, horien artean nagusi ukiera trauskileko geometrikoak, Kristo aurreko V. milurtekoaren eta IV. milurtekoaren lehen erdiaren artean kokatzen ditu trikuharriaren eraikuntza eta hileta erabilera.

Gaztelukolanda monumentuko sastrakak kendu ondoren, 1998-2000 aldiko indusketa koadrikulako sektore batzuk garbitu eta mugatu genituen, tumuluaren harrizko egitura eta hilobi ganbera agerian geratu ziren sektoreak, hain zuzen. Hasiera batean, ikuspegi didaktikotik egokia zen indusketa lan haien egileek proposatutako ideia monumentuaren arkitektura erakusteko. Halere, sarritan gertatu ohi denez, «baliabide erakusgarri» horren gaineko jarraipen eta mantentze lanak egin ez direnez, egiturazko ezegonkortasun egoera batean dago monumentua, eta horrek zaildu egiten du haren ulermena.

Behin ukitu beharreko guneak mugatu ondoren, ehunezko sare batez estali genituen monumentuaren jatorrizko zatia finkatutako zatitik bereizi ahal izateko. Jarraian, tumuluaren egiturako hutsuneak eta zuloak bete genituen jatorrizko osagaiak «in situ» utzirik. Hilobi ganberako hutsunea gutxi gorabehera 30 cm-tan bete genuen, eta oraindik agerian geratzen dira kontserbatutako hiru lauzak. Egitura arkeologikoak lehengoratzeko/ finkatzeko prozesu horretan landare lur ongarritu eta hi-

El proyecto «Actuaciones para la puesta en valor y difusión de los Conjuntos Monumentales de Zamudio» (2021-2023) fue diseñado y redactado por la empresa Orbela S.L. y financiado por el Dpto. de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco y por el Ayuntamiento de Zamudio. En el marco de este proyecto, se han acometido intervenciones de reintegración/consolidación en el dolmen de Gaztelukolanda y en la calzada de los Zamudianos (Camino de Santiago). En el asentamiento para ametralladora (ZAMF01) y trincheras de Monte Avril (Cinturón de Hierro y defensas de Bilbao) se han realizado labores de desbroce y señalización. Todas estas actuaciones de conservación y fomento, así como el control arqueológico de las obras de señalización y desbroce, han sido dirigidas por J.C. López Quintana (arqueólogo) y A. Guenaga (conservadora-restauradora).

Reintegración/consolidación del dolmen de Gaztelukolanda

El monumento de Gaztelukolanda se ubica en un amplio rellano de la ladera este del monte Avril. Fue descubierto en 1973 por P.M. Gorrotxategi y J. Gorrotxategi, y su excavación arqueológica se llevó a cabo entre los años 1998 y 2000, por J. Gorrotxategi y M.J. Yarritu. Gaztelukolanda es un monumento de núcleo terroso y coraza pétrea, de 18 metros de diámetro por 0,60 metros de altura. La cámara, de planta rectangular y orientada al sureste, ha conservado tres losas que se pueden observar en la actualidad. El ajuar recuperado en la excavación, en el que destacan los geométricos de retoque abrupto, sitúan la construcción y uso funerario del dolmen entre finales del V y la primera mitad del IV milenio antes de Cristo.

Tras el desbroce del monumento de Gaztelukolanda, se procedió a limpiar y delimitar una serie de sectores de la cuadrícula de excavación de 1998-2000, donde se había dejado visible la estructura pétrea tumular y la cámara sepulcral. En principio, la idea propuesta por los autores de la excavación era buena desde el punto de vista didáctico, de cara a mostrar la arquitectura del monumento. Sin embargo, y como ocurre frecuentemente, la falta de un seguimiento y mantenimiento de ese «recurso expositivo», termina en una situación de inestabilidad estructural, dificultando la comprensión del monumento.

Una vez delimitadas las zonas a intervenir, éstas fueron cubiertas con una tela geotextil, con el objeto de separar la parte original del monumento de la parte consolidada. Seguidamente, los huecos y vacíos de la estructura tumular se fueron reintegrando, dejando «in situ» los componentes originales. El hueco de la cámara sepulcral se rellenó unos 30 cm, quedando todavía visibles las tres losas conservadas. En este proceso de reintegración-consolidación de estructuras arqueológicas, empleamos una

gienizatua erabili genuen, BI-Lurra konpostaz, lurrez eta silize hareez osatua. Lehenengo fase batean (2022ko apirila) 340 litro lur erabili genuen. Lehenengo lur ekarpen hori finkatu ondoren, 2022ko maiatzean, bigarren faseari heldu eta 4.050 litro lur erabili genuen. Lurrezko material horren ezaugarrietako bat da bere ehundura soltea eta silize hareen presentzia, aukera ematen baitu substratu naturaletik bereizteko eta «lehengoratutako» zatiak ongi identifikatu ahal izateko.

Ondareari balioa emateari dagokionez, berezko zuhaitz zirkulu batez dago mugatuta monumentua, eta beraz, baztertu egin dugu hesiak jartzea. Trikuharriaren sarreran interpretazio panel sinple bat jarri da, Hirumugarrietako estazio megalitikoari buruzko informazio orokorra eskaintzen du.

Zamudiotarren galtzada babesteko eta finkatzeko lanak

Iturritxualde mendiaren ekialde/hego-ekialdera 240 metrotara dago Zamudiotarren galtzada, Artxanda aldean. Zamudioko Donejakue Bidearen azken tartea da, Bilboko udal barrutian sartu aurretik. Zamudiotarren Bidea jada XIV. mendean existitzen zen, Bilboko hiria harresiz inguratuta zegoenean. Harresi horretako ate edo sarreretako batek hain zuzen ere «Zamudioko Atea» zuen izena, gaur egun Joan Santuen plaza dagoen lekuan egon zen.

Zamudioko multzo monumentalei balioa emateko eta babesteko proiektu honen barruan, 2021eko azaroan bide egituraren hondamenari galgak jartzeko esku hartze batzuk eraman genituen burura: a) hasteko, azaleko uren zirkulazioa desbideratzeko drainatze kanal bana ireki genuen bidearen alde banatan; b) aldi berean, bide egiturako hutsuneak eta zuloak bete genituen landare lur ongarritua erabiliz 35 metroko tarte batean, Bilbon sartzeko atetzarretik abiatuta; eta c) behin galtzada lehengoratu ondoren, jarraipen lan bat planteatu genuen finkatutako gune horien bilakaera behatzeko eta erregistratzeko. Erantsitako lurra behar bezala finkatu eta trinkotu izan balitz, landare geruzaren hazkundea bultzatuko zatekeen higadura prozesuaren eragina arintzen laguntzeko.

Galtzada finkatzeko lehen saio horren emaitza txarra izan zen, batez ere 2021eko azaroko euri erauntsi handien ondorioz, sendogarri gisa erantsitako lurrezko materialaren zati handi bat berekin batera eraman baitzuten euri jasek. Ez zirudien hain erraza izango zenik Zamudiotarren galtzada finkatzeko prozesua, beste konponbide konplexuago bat eskatzen zuen. Alde batetik, galtzada hartzen duen zerrendak gaur egun mendi hegal horretan behera iristen diren ur jariatzeak bideratzeko «ibilguarena» egiten du. Beraz, lehenik eta behin desbideratu egin behar dira ur jariatze horiek, eta, noski, galarazi behar da bizikleten eta ibilgailu motordunen zirkulazioa. Gainera, galtzadaren pendizak, Zamudiora bidean, gainazaleko jariatzeek eragindako higadura prozesuak azkartzen ditu.

Modu horretan, 2022an, Zamudiotarren galtzada finkatzeko bigarren ekinaldi bati heldu genion. Guztira 900 litro lur jarri genuen 2021eko azaroko euriteek hustutako zuloak betetzeko. Gaur egun 2022ko ekinaldian finkatutako gune horien gaineko jarraipen lanak egiten ari gara.

tierra vegetal abonada e higienizada, compuesta por compost BI-Lurra, tierra y arena de sílice. En una primera fase (abril 2022), aportamos 2.340 litros de tierra. Tras asentar ese primer aporte de tierras, en mayo de 2022 se acometió una segunda fase en la que empleamos 4.050 litros. Una de las características de este material terroso es su textura suelta y la presencia de arenas de sílice, lo que lo diferencia bien del substrato natural, pudiendo identificar bien las partes «restauradas».

En cuanto a la puesta en valor del bien, el monumento queda delimitado por un círculo arbóreo natural, desechando la instalación de vallados. En el acceso al dolmen se ha instalado un panel simple de interpretación, con información genérica referente a la estación megalítica de Hirumugarrieta.

Protección y consolidación de la calzada de los Zamudianos

La calzada de los Zamudianos se localiza a 240 m al E-SE del monte Avril, en el área de Artxanda. Es el tramo final del Camino de Santiago por Zamudio, antes de entrar en el término municipal de Bilbao. El Camino de los Zamudianos ya existía en el siglo XIV, cuando la villa de Bilbao se encontraba amurallada. Una de las puertas o accesos de esta muralla era precisamente la denominada «Portal de Zamudio», que estuvo donde ahora se encuentra la plaza de los Santos Juanes.

Dentro de este proyecto de protección y puesta en valor de los conjuntos monumentales de Zamudio, en noviembre de 2021 se desarrollaron una serie de actuaciones encaminadas a aminorar el deterioro de la estructura viaria: a) en primer lugar, se abrieron sendos canales de drenaje para desviar la circulación de las aguas superficiales; b) paralelamente, se reintegraron los huecos y vacíos de la estructura viaria, mediante tierra vegetal abonada, en un trecho de 35 metros de longitud, desde el portón de acceso a Bilbao; y c) una vez reintegrada la calzada, se planteó un seguimiento para observar y registrar la evolución de estas zonas consolidadas. Si la tierra añadida fuera asentando y compactando, habría que potenciar el crecimiento del manto herbáceo, que contribuirá a atenuar el impacto de los procesos erosivos.

El resultado de ese primer ensayo de consolidación de la calzada resultó infructuoso, sobre todo debido a las fuertes lluvias (torrenciales) de noviembre de 2021, que eliminaron una buena parte del material terroso añadido como consolidante. La consolidación de la calzada de los Zamudianos comenzaba a mostrarse como un proceso complicado, que demandaría de una solución más compleja. Por una parte, la franja que ocupa la calzada funciona en la actualidad como un «cauce» de circulación de las aguas de escorrentía de esa ladera. Por tanto, la solución se tiene que sustentar, primeramente, en desviar esas aguas de escorrentía, además de evitar, obviamente, la circulación de bicicletas y vehículos a motor. Además, la pendiente de la calzada en su descenso hacia Zamudio favorece los procesos erosivos por escorrentía superficial.

De esta manera, en 2022 se decidió acometer una segunda campaña de consolidación de la calzada de los Zamudianos. Se aportaron un total de 900 litros de tierra, con el objeto de reasentar los huecos vaciados por las lluvias de noviembre de 2021. En la actualidad, hacemos un seguimiento de estas zonas consolidadas en la campaña de 2022.

Egindako obren gaineko kontrol arkeologikoa

Arkeologo profesional baten kontrolpean eta zuzendaritzapean eraman dira burura proiektu honen testuinguruan egindako lan guztiak. Bereziki kontrolatu dira zorupean egindako zuloak, panelak eta seinaleak instalatzekoak. Zulo horiek eskuz egin dira, eta ateratako lurrak kontrolatu dira, bai maila sedimentologikoan, bai balizko material arkeologikoen agerpenean. Obren gaineko kontrol horren bidez desagerrarazi egin dira ukitutako aztarnategi arkeologiei eragiteko arriskuak oro. Hauexek izan dira kontrol arkeologikopean egindako obrak:

- Panelak jarri dira Gaztelukolanda trikuharri ondoan eta Iturritxualde mendiko metrailadorerako gunean (ZAMF01).
- Behin-behineko hesi bat jarri da Zamudiotarren galtzadan.
- Sastrakak kendu dira Gaztelukolanda monumentutik eta Iturritxualde mendiko lubakitik.

Control arqueológico de las obras realizadas

Todas las obras realizadas en el marco de este proyecto se han desarrollado bajo control y supervisión de un arqueólogo profesional. Se han controlado especialmente los agujeros practicados en el subsuelo para la instalación de paneles y señales. Estos agujeros se han excavado de forma manual, controlando las tierras extraídas, tanto a nivel sedimentológico como en la aparición de posibles materiales arqueológicos. Mediante este control de obra se ha eliminado cualquier riesgo de afección a los yacimientos arqueológicos involucrados. Las obras con control arqueológico han sido las siguientes:

- Instalación de los paneles colocados en el dolmen de Gaztelukolanda y en el asentamiento para ametralladora de Monte Avril (ZAMF01).
- Colocación de vallado provisional en la calzada de los Zamudianos.
- Desbroces del monumento de Gaztelukolanda y trinchera de Monte Abril.

J. C. López Quintana; A. Guenaga; I. Libano; A. Sánchez; E. Arévalo; Orbela, S.L.

B.34. **ZEBERIO**

B.34.1. **Errege Bidea**

Zuzendaritza: Juanjo Hidalgo
Finantzazioa: Zeberioko Udala

B.34.1. **Camino Real**

Dirección: Juanjo Hidalgo
Financiación: Ayuntamiento de Zeberio

The intervention on the upper stretch of the royal Zeberio road that passes between the Etxebarri and Undurraga neighbourhoods revealed part of the original paving of the 18th century road that followed the valley floor from Miraballes to Arratia Valley. We had the opportunity to clean, study and document this finding.

Azken urteotan berreskuratu egin dira Zeberioko Errege Bidearen zati batzuk ahanzturarik erreskatatzeko eta udalerriko beste historia eta ondare elementu bat bezala gehitzeko, bertako biztanleen gozamenerako. Helburua da ibaiaren paraleloan ibilgailu motordunik gabe paseatzeko espazio bat sortzea, bide horrek haran osoaren ardatz egituratzaile gisa izan duen garrantzia gogorarazteko, luzaroan eman baitie zerbitzua burdinola eta errotei, errementaritza eta merkataritza produktuei eta Nerbioi eta Arratia haranen arteko gurdi eta mandoen joan-etorriei.

Berreskuratutako tarte berrian sastrakak kentzen ari ziren Etxebarri eta Undurraga auzoen artean, bidearen tarte txiki batean harrizko Errege bide zaharraren aztarna materialak azaldu zirenean; itxura batean interesgarri samarrak ziren, eta beraz, garbiketa lanak egitea erabaki zen jarraipen eta kontrol arkeologiko baten pean, Aro Modernoko galtzada bide mota horien eraikuntza hobe ezagutzeko. Eta halaxe zen, agerian geratu ziren bidearen alboetako hamar lauza edo kantoi harri, ondo lerrokatuta, baita barruko zoladuraren zati bat ere, oraindik ere harrizko betegarria kontserbatzen zuena.

Jarduera arkeologikoaren emaitzak

31 metroko luzera duen tarte batean egin dira garbiketa lanak, tarte horretan XVIII. mendeko jatorrizko harrizko zoladuraren zati handi bat kontserbatzen baitzen.

Algunos tramos del camino real de Zeberio se han venido recuperando en los últimos años con la intención de rescatarlo del olvido e incorporarlo como un elemento histórico y patrimonial más del municipio para el disfrute de sus habitantes. Se pretende crear un espacio de paseo paralelo al río y libre de vehículos de motor, que recuerde la importancia que ha ejercido el camino como eje vertebrador de todo el valle, dando servicio a las ferrerías y molinos, a los productos de herrería y comercio, y al trasiego de carros y mulas entre los valles del Nervión y Arratia.

El nuevo tramo recuperado estaba siendo desbrozado entre los barrios de Etxebarri y Undurraga, cuando aparecieron las evidencias materiales del viejo empedrado en un pequeño trecho del camino, suficientemente interesantes como para acometer una intervención de limpieza con seguimiento y control arqueológico para conocer mejor la construcción de este tipo de vías calzadas de la Edad Moderna. Efectivamente, habían quedado expuestas a la vista una decena de losas laterales o cantoneras bien alineadas, además de una parte del solado interior que aún mantenía un relleno de piedras.

Resultados de la actuación arqueológica

El trabajo de limpieza se ha centrado en un tramo de 31 metros de longitud en el que se conservaba buena parte del empedrado original del s. XVIII. En esta fase he-

Fase honetan ohiko palote triangeluarra erabili dugu, erratzaz eta brotxaz lagundurik, harrizko zoladura estaltzen zuen lur eta belar geruza altxatzeko. Horrela, harrizko zoladuraren gainazala ikusten hasi ginen, oraindik oso zikin zegoen, baina agerian geratzen zen enkatxoaren garrantzia. Jarraian, bigarren garbiketa fasean, harrizko gainazalari kalterik ez egiteko kontu handiz, haizagailu bat erabili genuen, gutxieneko indarrarekin, lurra bidearen alboetara ateratzeko.

Errege bidearen neurriak

Behin gainazaleko geruza altxatu eta harrizko zoladura agerian geratu zenean hasi ginen galtzada neurtzen. Jatorrizko zabalera 3,40 metrokoa da; sistema metriko hamartarrean ez du askorik adierazten neurri horrek, baina XVIII. mendeko neurketa sistemara eramaten badugu, neurri egiazki biribila da, 12 oinen baliokidea baita edo, bestela esanda, 4 kanaren baliokidea, betiere Bizkaian nagusi zen ereduari, Gaztelako ereduari, jarraiki, neurri horiek nabarmen aldatzen baitziren lurralde batetik bestera. Kasu honetan, oinak 0,278 m ditu eta kanak 0,835 m.

Esan beharra dago Bizkaia oso goiz hasi zela bideei zegozkienak arautzen, 1452an idatzitako Foru Zaharrean jasota dagoenez bideen zabalera 8 eta 12 oin bitartekoa izan behar baitzuen, hau da, 3 eta 4 kana bitartekoa, Zeberiokoaren zabalera tarte handienean kokatzen delarik. 1526ko Foru Berriak ere gai horri heldu zion, eta behar izanez gero 20 oineko zabalerara handitu zitezkeela zehazten du. Baina XVIII. mendera arte oso bestelakoa zen errealitatea, gehien-gehienak bide estu samarrak baitziren eta handitu egin behar baitziren trazadura berari eutsita. Gurdi bide zaharra baino zabalagoa eta kalitatez hobea izan behar zuen Errege bideak. Ildo horretan, itxura guztien arabera gehienez ere 7 oin zabal (194 cm) zen Zeberioko elizateko ardatz egituratzaile nagusia, zabalera egokia ardatz bakarreko gurdiak eta zamariak igarotzeko, baina eskasa garraio, merkataritza eta biztanleen desplazamendu behar berrietarako. Eta oso litekeena da Zeberioko Errege bidea, berez, une horretan sortzea, eta mende horretan zehar osatzea, batez ere 1760 eta 1775 urte bitartean.

Errege bidearen eraikuntzan erabilitako teknika

Errege bidearen zabaleraren (4 kanak) kontserbazio egoera onaz ari garenean XVIII. mendeko galtzada baten harrizko egituraz ari gara, Behe Erdi Aroko edo XVI. mendeko bideetan erabilitako egituraz bestelakoaz. Ildo horretan, garrantzitsua da jakitea Bizkaiko Errege bideetatik oso gutxik izan zutela harrizko zoladura motaren bat, salbuespenak hiribilduetako hirigunea zeharkatzen zutenak, ez denak, zirelarik. Hala bada, Zeberiokoari dagokionez, Errege bide horretan metro bakar bat ere ez zen harrizkoa 1724. urtea baino lehen.

Aztertutako tartean, osorik dago galtzadaren 3,3 metroko zati bat, hau da, harri guztiak kontserbatzen ditu, alde bateko lauzetatik beste alderainokoak arte. Gainera, bada beste 11,65 m-ko galtzada zati ia oso bat, eskuinaldeko lauza guztiak eta bide erdiko harrien zati handiena kontserbatu ditu, ez ordea ezkerraldeko lauzak. Puntu horretatik aurrera, eskuinaldeko lauza batzuk eta bide erdiko harri batzuk kontserbatu dituzten zenbait tarte txiki daude, baina kontserbazio egoera txarrean daude eta mos utilizado la típica paleta triangular para ir quitando la capa de tierra y hierba que cubría el empedrado, ayudados también de escoba y brocha. Así, fuimos vislumbrando la superficie del empedrado, todavía muy sucia, pero que dejaba vislumbrar la importancia del encachado. A continuación, en una segunda fase de limpieza, con sumo cuidado de no dañar el revestimiento de piedra, empleamos una máquina soplador para sacar la tierra hacia los laterales del camino, con la velocidad al mínimo.

Medidas del camino real

Una vez despejada la capa superficial, con el empedrado a la vista, comenzamos a medir la calzada, cuya anchura original es de 3,40 metros, una medida que en el sistema métrico decimal no aporta gran cosa, pero que, si lo trasladamos al sistema de medición del siglo XVIII, es verdaderamente redonda, pues equivale a 12 pies o, dicho de otra manera, 4 varas, siempre según el patrón que regía en Bizkaia, y que no era otro que el castellano, pues dichas medidas variaban de manera sensible de un territorio a otro. En nuestro caso, nos referimos al pie de 0,278 m y a la vara de 0,835 m.

Hay que decir que Bizkaia legisla sobre los caminos muy pronto, pues en el Fuero Viejo, redactado en 1452, se dice que la medida de estos debía estar entre 8 y 12 pies, es decir, entre 3 y 4 varas de ancho, en cuyo valor máximo se encuentra el de Zeberio. También el Fuero Nuevo de 1526 se preocupa sobre esta materia, señalando la necesidad de ampliar a 20 pies si fuese necesario. Pero la realidad hasta el siglo XVIII era bien distinta, pues se trataba de caminos bastante estrechos que necesitaban ser ampliados manteniendo el mismo trazado. El camino real no sólo tenía que ser más ancho que el viejo camino carretil, sino también de mejor calidad. En este sentido, parece que el principal eje vertebrador de la anteiglesia de Zeberio no tendría mayor anchura de 7 pies (194 cm), adecuado para el paso de carros de un eje, caballerías y mulos de carga, pero inadecuado para las nuevas necesidades de transporte, comercio y desplazamiento de la población. Y es muy probable que el camino real de Zeberio, como tal, naciera en este momento, y fuera conformándose a lo largo de la centuria, especialmente entre los años 1760 y 1775.

Técnica constructiva empleada en el camino real

Cuando hablamos de la buena conservación del ancho del camino real, de esas 4 varas, nos estamos refiriendo a la estructura empedrada de una calzada del siglo XVIII, distinta de la empleada en caminos bajomedievales o del siglo XVI. En este sentido, es importante saber que muy pocos de los caminos reales de Bizkaia contarían con algún tipo de encachado en su firme, a excepción de las vías que atravesaban el espacio urbano de las villas, y no todas. Así, para el caso de Zeberio, no había ni un metro del camino real que estuviera empedrado antes de 1724.

Para el tramo estudiado, hay una secuencia de 3,3 metros de calzada completa, es decir, con todo el empedrado, desde las losas de un lado hasta las del otro. Además, hay otros 11,65 metros de calzada semicompleta, con todas las losas del lado derecho y gran parte del empedrado del medio, a falta del enlosado izquierdo. De aquí en adelante, hay pequeños tramos de losas del lado derecho y algunos restos del empedrado central, aunque



Galtzada tartearen ikuspegia zabalera osoarekin, lau kaleak luzetarako bizkarrezur lerrokadurarekin eta etzetako lauzekin.

Vista del tramo de calzada con el ancho completo, de cuatro calles con las líneas de armadura longitudinales y las cantoneras laterales.

zati batzuk betikoz galduta. Ongi asko nabari da bidearen ezkerraldean ur jariatze handiagoak izan direla gainazalean, materialak arrastaka eraman direla eta galtzada higatu dela, eta kalte horiek azkartu egin direla errege bidea apurka-apurka 1860an eraikitako errepide berriaren alde abandonatu ondoren mantentze lanak egin ez direlako. Baina arrazoi horiek eta beste batzuk gorabehera, osorik eta ia osorik dauden tarteen kontserbazio egoera bikainari esker xehetasun osoz ezagutu ahal izan dugu XVIII. mendeko uneren batean obra zuzendu eta burutu zutenek erabilitako eraikuntza teknika.

Galtzadak lur hareatsuko oinarri baten gainean, puntu batzuetan kare apur batekin, hartzen du atseden, eta erdialdean profil apur bat konkortua du euri urak alboetako zangetara edo erretenetara bideratzeko. Esan beharra dago profil konkortu hori gaur egun aski desitxuratuta dagoela harrizko zoladura osatzen zuten materialak galdu direlako eta hainbat arrazoiengatik lur mugimenduak izan direlako.

Oinarri horren gainean egokitzen dira ertzetako lauzak, alegia, galtzadaren zabalera eratzen duten alboetako lauzak. Kasu honetan, 4 kana edo 1 oin zabal da galtzada, horixe da eraikitzaileek erabilitako neurria. Modu horretan, adjudikaziodunak ziurtatzen zuen bete egingo zuela obraren enkantean konprometitutako funtsezko baldintzetako bat. Behin bidearen zabalera mugatu ondoren, bi ertzetako lauzen arteko espazioa zatitzen zuten, lana errazten zien kalexka estu batzuk itxuratuta. Kasu honetan, barneko espazioa 65 cm inguruko zabalera zuten erdiko bi kalexkaren bidez eratzen zen. Hasiera batean bi oin inguru zabal izango ziren, eta nerbio gisa jarritako harri luzeen hiru errenkadek, bidearen norabidearen paraleloan, mugatzen zituzten, guztira lau kale eratuz. Bidearen bizkarrezurra eratzen zuten errenkada edo lerrokadura horien artean bideko betegarria eratzen zuten errekarriak jarri zituzten, aurrekoak ez bezala, bidearen norabidearen zeiharrean. Azkenik, bide ertzetako lauzen eta bizkarrezurraren lerrokaduraren artean 40-50 cm inguruko espazio bat geratzen zen, lauzen luzeraren arabera, eta espazio hori ere harri koskorrez betetzen zuten. Harri koskor horiek eliz atarietako edo etxe batzuetako atarietako harrizko zoladuretan erabilitakoak baino handiagoak dira, eta puntatik sartzen ziren lurzoru hareatsuaren oinarrian, alderik zabalena bidearen gainazalerantz utzirik. Harri koskor horiek sumilez eta zurezko mailuz sartzen zituzten, pieza bakoitzak eskatzen zuen sakoneran, gainazalean denak arrasean egon zitezen. Beraz, luzetarako nerbio horien lerrokamal conservado e incluso perdido. Se ve que la mitad izquierda de la vía ha sufrido más la escorrentía del agua en superficie, con arrastre de materiales y erosión de la calzada, acelerado por la falta de mantenimientos tras el paulatino abandono del camino real en favor de la nueva carretera construida en 1860. Pero, a pesar de estas y otras vicisitudes, el excelente estado de conservación de los tramos completos y semicompletos, nos ha permitido conocer con detalle la técnica constructiva empleada por quienes dirigieron y ejecutaron la obra en algún momento del siglo XVIII, y que pasamos a desarrollar.

La calzada se asienta sobre una base de tierra arenosa, pocas veces mezclada con algo de cal, con un perfil ligeramente alomado por el centro para facilitar la evacuación de aguas de lluvia hacia las zanjas o cunetas laterales. Hay que decir que dicho perfil alomado está bastante desfigurado en la actualidad, debido a la pérdida de materiales del empedrado y a movimientos del terreno por diferentes causas.

Sobre la mencionada base se colocan las cantoneras, que son las losas laterales que conforman el ancho de calzada, en este caso de 4 varas o 12 pies, que es la medida utilizada por quienes la construyeron. De esta forma, el rematante se aseguraba de cumplir con uno de los requisitos fundamentales a que se había comprometido en la subasta de la obra. Una vez delimitado el ancho del camino, se procedía a dividir el espacio intermedio existente entre cantoneras, atendiendo a una serie de calles o carrejos estrechos que facilitaban la labor. En este caso, el espacio interno se configuraba mediante dos carrejos o calles centrales de aproximadamente 65 cm de anchura, que en origen serían unos dos pies, delimitados entre sí por tres alineaciones de piedras largas, colocadas a modo de nervios, y paralelas al sentido del camino, conformando un total de cuatro calles. Entre dichas alineaciones, que constituían la armadura de la vía, se dispondrían los cantos rodados que configuraban el relleno del empedrado y que, al contrario de las anteriores, se ordenaban en sentido transversal. Finalmente, entre las cantoneras laterales y la línea de armadura quedaba un espacio de unos 40-50 cm, según fueran las longitudes de las losas, que se rellenaba igualmente con cantos. Estos cantos solían tener un tamaño mayor que los habituales de los empedrados de los pórticos de iglesias o de los portalones de algunas casas, y se introducían de punta en la base de suelo arenoso, dejando la parte más ancha hacia la superficie del camino. Los cantos se introducían mediante pisones y mazas de madera, ajustándolos al ras

duren eginkizuna zen harrizko betegarria alboetara mugitu zedin galaraztea, izan ere, gurdien eta ferra animalien eguneroko joan-etorriek nabarmen higatzen zuten galtzadako zorua.

Harri horiek guztiak ipini ondoren, hareazko geruza bat zabaltzen zuten harrien artean geratutako hutsuneak betetzeko, eta karobi bat egiteko aurrekontua zegoen lekuetan harea hori kare pixka batekin nahasten zuten ura gaineratuta kareore arin bat sortzeko eta modu horretan harrizko zoladura gogortzeko. Zeberioko Errege bidean ezin izan dugu horrelakorik egiaztatu, seguruenik karea erabili gabe egindako galtzada baita.

Etxebarriko zubia

Zubi honetan lehenik sastrakak kendu, jarraian garbitu eta azkenik neurketak egin ditugu. Haraneko ibai nagusia eta mendi hegaletan behera haranerantz jaisten diren hamaika erreka eta errekasto zeharkatzeko aukera ematen duten 40tik gora zubi ezagunen artean bat da honakoa. Zubi txiki horiei hartzubi edo harri-zubi esaten zaie. Zubi horiek, neurri handi batean, hauskorragoak ziren beste zubi batzuk, zurez eraikiak eta pontoi gisa ezagutzen ditugunak (erreka eta errekastoen uholdeen ondorioz oso kaltetuta zeudenak) ordeztu zituzten. Etxebarriko zubi txikia harriz eraikia zen, arkuarekin eta zehar saiheskako ganga tangentatuarekin. Teknika hori oso erabilia izan zen XVIII. mendean, baserri askotako sarreretan ikus dezakegu. Eraikitzeko modu horrek harrizko lauzak, estuak eta luzangak, elkartzea eskatzen zuen, zurezko zinbria baten laguntzarekin, zeina aldez aurretik arkuaren eta zubiaren argirako aurreikusitako gangaren formarekin diseinatzen baitzen. Lauzak zeharka ipintzen ziren (zehar saiheska) zinbria txantiloiaren gainean, harriak elkarri batuak kareorerik gabe; modu horretan, zinbria kentzean, zubiko ganga, bere pisuagatik, doitu egiten da, eta lauzen arteko presioaren ondorioz eusten dio. Zubi sendoa da, 110 cm altuerako eta 230 cm zabalerako argiarekin, eta zubi bideko zorua ere harrizkoa du gangaren gainaldea higatu dadin saihesteko. 4,40 m luze eta 3,20 metro zabal da, galtzada baino 0,20 m estuagoa, baina kalexka kopuru berberarekin, laurekin, estuagoak diren arren. Zubi horietan luzeagoak izaten ziren bide ertzetako lauzak, alboetako kalexken ia zabalera osoa hartzen zuten, eta ondorioz, lauza horien muturrak zubiaren bertikaletik 10 cm-tan irteten ziren, modu horretan Errege bideak zituen lau kanatako zabalera berdinduz. Lauza horietako bat, hiru kontserbatu baitira, 115 cm luze da, eta beraz, ez ziren mugituko edo ibaira eroriko gurdiak eta animaliak bertatik igarotzen zirenean.

Konklusioak

Behin esku hartzea amaitu, neurketak egin eta harrizko zoladuraren irakurketa egin ondoren, Zeberioko Errege bidearen tarte honi buruzko balorazio eta ondorio batzuetara iristeko moduan gaude. Hala bada, esan dezagun, adiera hertsian, Zeberioko Errege bideak, XVIII. mendean harriztatuak, lau kale dituela, erdialdean bi eta alde bakoitzean bana, luzetara egokitutako harrizko hiru lerrokadurek mugatuta; muturretako bi kaleak modu mistoan daude eratuta, errekarriekin eta alboak ixteko lauza handiekin.

de la superficie, según pidiera cada pieza. Así, vemos que la función de esta armadura de nervios longitudinales era la de evitar que el relleno de cantos se moviera o desplazara hacia los lados, ya que el paso diario de carros y animales de herradura sometían a un gran desgaste el suelo de la calzada.

Terminado el empedrado, se solía echar una capa de arena para cubrir los huecos dejados entre los cantos, y allí donde hubiese presupuesto para cocer un horno calero, eventualmente podría mezclarse esa arena con una parte de cal, lo que ayudaría a crear un ligero mortero al entrar en contacto con el agua, lo que contribuía a endurecer el encachado. No hemos podido constatar este extremo en el camino real de Zeberio, realizado posiblemente sin aporte de cal.

El puente de Etxebarri

La intervención en este puente ha sido de desbroce, limpieza y medición. Es uno de los más de 40 que se han conocido en el valle para posibilitar el paso en el río principal y en la multitud de arroyos y barrancos de ladera que descienden hacia el valle. Estos pequeños puentes son los llamados *artzubiak* o *harri-zubiak*, es decir, puentes de piedra que fueron sustituyendo en gran medida a otros más endebles, construidos en madera y que conocemos como pontones, muy maltratados por los frecuentes aguaduchus de las crecidas de arroyos y torrenteras. El pequeño puente de Etxebarri estaba edificado en piedra, con arco y bóveda a sardinel tangentado, una técnica muy utilizada en el siglo XVIII y que podemos ver en numerosos ingresos a caseríos. Esta manera de construir requería la unión de lajas de piedra, estrechas y alargadas, con la ayuda de una cimbra de madera que previamente se diseñaba con la forma del arco y de bóveda pretendida para la luz del puente. Las lajas se colocaban de canto (a sardinel) sobre la cimbra-plantilla, unidas unas a otras sin argamasa, de tal manera que, al quitar la cimbra, la bóveda del puente, por su propio peso, acabe por ajustarse y se mantenga por presión entre las propias lajas. Es un puente robusto, con una luz escasa de 110 cm de altura y 230 cm de ancho, y con el firme igualmente empedrado para evitar el desgaste de la parte superior de su bóveda. Su medida es de 4,50 m de largo y 3,20 metros de ancho, 0,20 m menos que la calzada, pero con igual número de carrejos, cuatro, aunque más estrechos. Estos puentes tenían las cantoneras más largas, ocupando casi todo el ancho de las calles laterales, de tal manera que los extremos de estas losas volaban 10 cm sobre la vertical del puente, igualando de esta forma la anchura de cuatro varas que tenía el camino real. Alguna de estas losas, de las que se han conservado tres, ha dado 115 cm de longitud, lo que evitaba que se movieran o cayesen al río por el rodar de carros y el paso de animales.

Conclusiones

Finalizada la intervención, hechas las mediciones, y realizada la oportuna lectura del empedrado, podemos llegar a algunas valoraciones y conclusiones sobre este tramo del camino real de Zeberio. Así, en sentido estricto, podría decirse que el camino real de Zeberio, empedrado en el siglo XVIII, consta de cuatro calles, dos centrales y dos laterales, delimitadas por tres líneas de armadura de piedras, dispuestas de forma longitudinal, estando conformadas las dos calles extremas de manera mixta, mediante cantos rodados y grandes losas de cierre lateral.

Inolako zalantzarik gabe, galtzada ona zen, lur eremuan ongi finkatuta bidea eta garraioaren joan-etorriak ziurtatzeko. Baina ez zen errepide bat, baizik eta oinarri ahuleko bidea, hareatsua, zoruaren gainean kalte handiak jasandakoa etengabeko uholdeek, euri jasek eta gurdien eta ferra animalien joan-etorriek eraginda. Ildo horretan, iturri idatzietan konponketa lan asko aipatzen direla esan behar dugu, baina guk ez dugu horrelakorik egiaztatu aztergai izan dugun tartean.

Lurrezko bide zaharra Errege bide bihurtzeko azpiegitura iraunkorrak behar ziren, iraunkorragoak izan behar zuten harrizko zoladurek eta harrizko zubiek, zurezko pontoi zaharrak baino gogorragoak. Obra horiek gastu ikaragarri handiak ekartzen zizkion elizateko kutxari, hamarnaka urtetan luzatzen ziren lanak, baina garai berrietako beharrizanetara egokitzeko aukera ematen zuten. Eraikuntzak iraun zuen aldian, haraneko nekazari askok diru sarrera handiagoak izan zituzten obra horietan lan eginda.

Gisa honetako azpiegituretan bideratzen diren esku hartze arkeologikoei esker, gehiago jakin daiteke bide sareari eta mendeetan zehar izandako bilakaerari buruz, eta aukera ematen dute aurkitutako edozein harrizko zoladura Erdi Aroarekin edo erromatarren garaiarekin lotzen zuten sinesmen zaharrak alde batera uzteko.

Era, sin duda, una buena calzada, bien asentada en el terreno para asegurar la vía y el fluir del transporte. Pero no era una carretera sino un camino con poca base de asiento, arenosa, y muy maltratada por las inclemencias, sobre todo por los aguaduchus, las constantes crecidas, la pluviosidad y el daño de los transportes rodados y animales de herradura sobre el firme. En este sentido, hemos de decir que en la documentación aparecen numerosas labores de reposición, pero no hemos podido constatar ninguna en el tramo estudiado.

La conversión del viejo camino de tierra en camino real, precisaba de infraestructuras duraderas, tanto por el empedrado como por los puentes de piedra, más resistentes que los viejos pontones de madera. Se trataba de obras que generaban un gasto enorme a las arcas de la anteiglesia, y que se prolongaban durante décadas, pero que permitían adaptarse a las necesidades de los nuevos tiempos. Durante este tiempo, muchos de los campesinos del valle consiguieron aumentar sus ingresos a través de este tipo de trabajos.

Las intervenciones arqueológicas en este tipo de infraestructuras permiten saber más sobre la red viaria y su evolución a través de los siglos, abandonando viejas creencias que identificaban con la Edad Media cualquier empedrado que apareciera, cuando no con la época romana.

J. Hidalgo

B.35. BESTE BATZUK / OTROS

B.35.1. MEGALITO GUNEAK / ESTACIONES MEGALÍTICAS

B.35.1.1. **Armañongo tumulua (Karrantza Harana / Trucios-Turtzioz)**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritza; Bizkaiko Foru Aldundia; Karrantzako Udala

B.35.1.1. **Túmulo de Armañon (Valle de Carranza / Trucios-Turtzioz)**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Gobierno Vasco; Diputación Foral de Bizkaia; Ayuntamiento del Valle de Carranza

The archaeological intervention carried out in the Armañón mound forms part of a project that aims to disseminate and raise public awareness of the Armañón Megalithic Complex. The project contract was awarded to AGIRI Arkeologia Elkartea within the call for subsidy applications for the dissemination and public awareness-raising of Basque Cultural Heritage (2021-2023). The archaeological assessment of Armañón aimed to verify the megalithic nature of the structure, since doubts had been aired regarding its morphology and typographic unit.

Armañongo tumuluan bideratutako esku hartze arkeologikoa «Armañongo Espazio Megalitikoari balioa eta zabalkundea emateko proiektuaren» zati da. Proiektu hori AGIRI Arkeologia Elkarteari esleitu zaio Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskal Kultura Ondareari balioa eta zabalkundea emateko dirulaguntzen deialdiaren barruan (2021-2023).Armañongo proiektuaren finantzazioan parte hartzen dute, era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea zaintzeko Zerbitzuak eta Karrantza Haraneko Udalak.

La intervención arqueológica en el túmulo de Armañón forma parte del proyecto «Puesta en valor y difusión de la Estación Megalítica de Armañón», adjudicado a AGIRI Arkeologia Elkartea dentro de la convocatoria de subvenciones para la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco (2021-2023), del Dpto. de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco. El proyecto Armañón es cofinanciado, además, por el Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia y por el Ayuntamiento del Valle de Carranza.

Armañongo tumulua

Armañongo mendi bizkarrean ipar-mendebaldeen dagoen goragunean (853 m) dago Armañongo tumulua, Carcelares tumuluaren ekialdera 770 metrotara. Monumentua Kultura Ondasun gisa kalifikatzen du 2009ko otsailaren 3ko 25/2009 Dekretuak. Egitura erdiesferikoa da, zapala, oinplano zirkularrekoa (diametroa: 61,5 m / garaiera: 0,50 m). Mendebaldera 4 metrotara azaleratzen da, modu isolatuan, hareharrizko bloke bat posizio bertikalean, 0,70 m luze da eta 0,15 m garai.

Armañongo tumuluan bideratutako zundaketa arkeologikoaren helburuak

Armañongo tumuluan bideratutako ebaluazio arkeologikoak egituraren izaera megalitikoa berresteko xedea zuen, halako zalantzak sortu baitziren haren morfologiaren eta tipometriaren inguruan. Trikuharria zehazteko metodoa aplikatuz haren azaleko balorazioa egiteaz gain, zundaketa estratigrafiko bat egiteko erabakia hartu genuen egitura ezaugarritzeko prozedura erabakigarri gisa. Horretarako baimena eskatu behar izan genion Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarea zaintzeko Zerbitzuari, eta Armañongo Parke Naturalaren (BFA) eta lurren jabe den Karrantzako Udalaren baimenak ere eskatu behar izan genituen.

Tumuluaren diametroan induskatutako zundaketak 3 m^2-ko azalera hartu zuen (3 x 1 m) ipar/ipar-ekialdetik hego/hego-mendebaldera. 2022ko ekainaren 7tik 10era arte luzatu ziren zundaketa induskatzeko lanak. G. Laplacek sistematikoki azaldutako kartesiar koordenatuen metodoaren araberako estrategia baliatu genuen induskeka lanetan, eta 5 cm lodierako mailatan altxatu genituen lurrak. Sedimentu guztiak 2 milimetro argiko metalezko galbahe baten bidez bahetu genituen, eta Estratigrafia Analitikoaren printzipioen arabera interpretatu dugu multzo osoa.

Ebaluazio arkeologikoaren emaitzak

Armañongo egituran bere arkitekturarekin lotuta erregistratu dugun estratigrafia azalduko dugu sabaitik oinera:

Tumuluaren egitura (Bsm/Smb)

Armañón 1 tumulua, Galupa 3 tumulua bezala, 1,00/1,20 metroko zabalera duen harrizko eraztun batetik abiatuta dago antolatuta, kasuren batean hiru errenkada eratzen duten lauza horizontalez eraikia, lauzak bata bestearen gainean ipinita daudelarik. Kanpoko alderantz egitura luzatu egiten da itxura batean antolatuta ez dauden harri xabal eta klastoez eratutako sare ez nabarmen batez. 5K laukiak, egituraren erdialdean, jada 1. mailan erakusten du blokeen arteko hutsune bat (Sm), hortxe dokumentatu dugu ikatzez eratutako geruza bat, beharbada monumentuaren hileta erabilerarekin zerikusia izan zezakeen behin-behineko sutegiak eratutakoa. Nolanahi ere, ez dugu hileta ganberaren edo barrutiaren zantzu bakar bat ere hauteman.

Ikatz geruza (C-Sm)

3. mailatik behera 5K laukian bideratu ditugu induskeka lanak, bertan erregistratu baikenuen blokeen arteko hutsunea. 3. mailaren oinean (5K laukiko 3. eta 4. koadranteak), ikatz fazies edo maila baten gainean (C-Sm) zuzenean gainjarritako lau lauza txiki ageri dira horizontalean. Geruza antropologiko horren itxura behin-behineko

El túmulo de Armañón

El túmulo de Armañón se sitúa en la elevación más noroccidental (853 m) de la loma de Armañón, a 770 m al este del túmulo de Carcelares. El monumento está calificado como Bien Cultural por el Decreto 25/2009, de 3 de febrero. Se trata de una estructura hemisférica aplanada de planta circular (diámetro: 6,15 m / Altura: 0,50 m). A 4 metros al oeste, aflora, de forma aislada, un bloque de arenisca en posición vertical, de 0,70 m de longitud por 0,15 m de altura.

Objetivos del sondeo arqueológico en el túmulo de Armañón

La evaluación arqueológica del túmulo de Armañón tuvo como objetivo verificar la atribución megalítica de la estructura, ante las dudas que había generado en cuanto a su morfología y tipometría. Además de la valoración superficial, mediante la aplicación del método de determinación dolménica, se optó por la realización de un sondeo estratigráfico como procedimiento más concluyente para su caracterización. Para ello, hubo que solicitar autorización al Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia, así como los permisos del Parque Natural de Armañón (DFB) y Ayuntamiento de Karrantza Harana, propietario del terreno.

El sondeo, de disposición radial, ocupó una superficie de 3 m^2 (3 x 1 m), con una orientación N/NE-S/SW. Los trabajos de excavación del sondeo se llevaron a cabo entre el 7 y el 10 de junio de 2022. La estrategia de excavación se reguló por el método de coordenadas cartesianas, expuesto sistemáticamente por G. Laplace y el levantamiento de las tierras se ejecutó en media tallas de 5 cm de espesor. El sedimento se cribó en su totalidad con cedazo metálico de 2 milímetros de luz, interpretando el conjunto desde los principios de la Estratigrafía Analítica.

Resultados de la evaluación arqueológica


Exponemos, de techo a muro, la estratigrafía determinada en la estructura de Armañón, en conexión con su arquitectura.

La estructura tumular (Bsm/Smb)

El túmulo de Armañón 1, al igual que Galupa 3, se organiza a partir de un anillo lítico de 1,00/1,20 metros de anchura, construido a base de lajas horizontales superpuestas, que llegan a formar, en algún caso, tres hiladas. Hacia el exterior, la estructura se prolonga con un entramado de lajas y clastos, poco destacado y sin un orden aparente. El cuadro 5K, situado en la parte central de la estructura, muestra desde la talla 1 un vacío de bloques (Sm), y es ahí donde se localiza un horizonte de carbones, tal vez un hogar ocasional, tal vez relacionado con un uso sepulcral del monumento. No obstante, no se detecta ningún indicio de cámara o recinto sepulcral.

El horizonte de carbones C-Sm

A partir de la talla 3, la excavación se centra en el cuadro 5K, donde se registra el vacío de bloques. En la base de la talla 3 (cuadrantes 3 y 4 de 5K), aparecen cuatro pequeñas lajas horizontales superpuestas directamente sobre una facies u horizonte de carbones (C-Sm). El aspecto de este horizonte antracológico es el de un fuego u hogar esporádico que se cubre con unas losetas (¿para apagar-



Armañongo tumuluaren planimetria, egindako zundaketaren fotogrametriarekin.

Planimetría del túmulo de Armañón con la fotogrametría del sondeo realizado.

su edo sutegi batena da, lauza txiki batzuez estalitakoa (sua itzaltzeko? sutondoa zigilatzeko?...), eta oso unitate estratigrafiko zehatz baten barruan kontserbatu da (2-4 cm bitarte lodi), kolore marroiko matrize hareatsu baten baitan. Eta 4. eta 5. mailetan bat-batean desagertzen da. Material arkeologikoari dagokionez, tarte estratigrafiko horren barruan, suharrizko bi printza erregistratu ditugu: a) lehenengoa 5K laukiko 3. mailan, C-Sm geruza antrakologikoari lotua; b) bigarrena, C-Sm geruzaren azpian, hareharrizko legarrez eratutako unitatearen barruan (Gsm).

Tumulu azpiko zorua (Csa)

6. mailan beste unitate estratigrafiko bat identifikatzen da, tumulu azpiko zoruari dagokio. Izan ere, monumentuaren azpian, hareek eta buztin horiek (Csa) eratutako matrizearen gainean hareharrizko klastoez eta legarrez osatutako pakete bat egokitzen da, eta bertatik berreskuratu genuen ikaztutako egur lagin bat. Arroka amaren alteraziotik eratorritako C estratua da.

Laburbilduta, Armañongo tumulua harrizko egitura da, txikia (6,15 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera) eta hileta ganberarik gabea. Monumentuaren erdialdean geruza antrakologiko bat identifikatzen da, segur aski behin-behineko su edo sutegi bat, ziurrenik monumentuaren hileta erabilerari lotua, lauza txiki batzuez estalia. Antzeko elementu arkeologiko bat dokumentatzen da Biroleo I zistaren barruan (Turtzioz); han, hiru ikatz metaketa estaltzen dituzten bloke horizontalak bereizten dira erdialdean, K.a. gutxi gorabehera II. milurtekoaren bigarren erdian datatutako testuinguruan.

lo?, ¿para sellarlo?...), habiéndose conservado dentro de una unidad estratigráfica muy precisa (entre 2-4 cm de grosor), en el seno de una matriz arenosa de color marrón. Y desaparece bruscamente en las tallas 4 y 5. En cuanto al material arqueológico, dentro de este tramo estratigráfico se registran dos lascas de sílex: a) la primera, en la talla 3 del cuadro 5K, asociada al horizonte antracológico C-Sm; b) la segunda, por debajo de C-Sm, dentro de una unidad de gravas de arenisca (Gsm).

El suelo infratumular (Csa)

En la semitalla 6, se determina una nueva unidad estratigráfica, correspondiente al suelo infratumular. Efectivamente, por debajo del monumento, se localiza un paquete de clastos y gravas de arenisca alteradas sobre matriz de arenas y arcillas de color amarillo (Csa), donde se recoge una muestra de madera carbonizada. Se trata del horizonte C de alteración de la roca madre.

En síntesis, Armañón es una estructura tumular de piedra, de pequeñas dimensiones (6,15 m de diámetro por 0,50 m de altura) y sin cámara sepulcral. En la parte central del monumento se identifica un horizonte antracológico, posiblemente un fuego u hogar esporádico cubierto por unas losetas, posiblemente asociado a un uso sepulcral del monumento. Un gesto arqueológico similar se documenta en el interior de la cista de Biroleo I (Turtzioz), donde se reconoce un área central de bloques horizontales que cubren tres concentraciones de carbones, dentro de un contexto datado en la segunda mitad del II milenio cal BC.

J. C. López Quintana; A. Guenaga; J.M. Arruabarrena; I. Libano; E. Alonso; M. Ruiz Alonso

B.35.2. BILBOKO BURDIN HESIA BIZKAIAN / CINTURÓN DE HIERRO DE BILBAO EN BIZKAIA

B.35.2.1. **GANF10 eta GAMF15 Deskarga ibarrean (Gamiz-Fika)**

Zuzendaritza: Sergio Salazar
Finantzazioa: Gamiz-Fikako Udala

B.35.2.1. **GANF10 y GAMF15 en la vaguada de Descarga (Gamiz-Fika)**

Dirección: Sergio Salazar
Financiación: Ayuntamiento Gamiz-Fika

Archaeological monitoring of the elements catalogued as GAMF10 to GAMF15, located in the Descarga stream bed, in the municipality of Gamiz-Fika. The intervention enabled the recovery of interesting remains and provided a more complete overview of the role played by these structures in defending the 'Iron Belt'. We discovered new and important data, along with elements that provide relevant information about this strategic area at a moment very close to the breaching of the 'Iron Belt'. Pending further study of the materials recovered, we present the preliminary results of the intervention.

Lan hau «*Bilboko Burdin Hesiari*» balioa emateko, gizarteratzeko eta ezagutarazteko proiektuan biltzen da. Proiektu hori «*Burdin Hesia eta Bilboko defentsak*» kontserbatzeko eta balioa emateko Erakundeen arteko Lankidetza Protokoloaren bitartez sustatzen eta babesten dute Eusko Jaurlaritzak, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek eta «Burdin Hesiak» ukitzen dituen 33 udalerriek.

Esku hartze honetan bideratutako ikerketaren emaitzak (2021) oso garrantzitsuak dira, bai aurkitutako material arkeologikoei (aztertzeko prozesuan daude) dagokienez bai 1937ko ekainaren 12tik aurrera Gaztelumendin eta Gamizmendin izandako erasoen eta defentsen garapenei dagokienez, 1937an Burdin Hesiaren hausturan gertatutako inguruabarrak ezagutzeko. Lan horiei esker, zehatzago definitu ahal izan dugu nola hedatu zen eraso frankista eta nola antolatu zen euskal armadaren defentsa Eperlanda I eta II aldean, Aseburugoikoa ibarrean, metrailadore kokaleku bi horiek babestuta.

Esku hartze hau Gamiz-Fikako udalak proposatutako sastrakak kentzeko, garbitzeko eta monumentua egokitzeko lanetan zehar eraman genuen burura 2022ko abuztuan eta irailean zehar.

Metodologia

Kontuan harturik Gamiz-Fikan lehendik dokumentatutako emaitzak oso interesgarriak izan zirela, inguruan bideratutako jarraipen eta miaketa arkeologikoari esker lortutako datu guztiak batera dokumentatzeko eta aztertzeko jarduera proiektua diseinatu genuen. Jarduera hauek bildu zituen garatutako metodologiak:

Jarraipen arkeologikoa

Behar bezala bideratu zitezen, arkeologo talde batek une oro gainbegiratu ditu garbitzeko eta sendotzeko lanak, multzo arkeologikoaren babesa eta kontserbazioa bermatuz. Edestiaurre Arkeologia Taldeak eraman du burura egitura garbitzeko, sendotzeko eta jarraipen arkeologikoa egiteko prozesua.

Dokumentazio arkeometrikoa

Dokumentazio idatzia eta katalogazioa *in situ* egin dira, miaketaren ondoren, elementu arkitektonikoak, lurzoruak eta material arkeologikoak behatuz eta baloratuz. Material arkeologiko oro, elementuen kokapena edo gerrarekin lotutako zantzu oro, gatazkaren protagonisten grabatu batzuk esate baterako, zehatz-mehatz erre-

Este trabajo está circunscrito al proyecto de puesta en valor, socialización y divulgación del «*Cinturón de Hierro de Bilbao*», recogido en el Protocolo de Colaboración Interinstitucional para la conservación y puesta en valor del «*Cinturón de Hierro y defensas de Bilbao*», entre Gobierno Vasco, las Diputaciones de Álava y Bizkaia y los 33 municipios afectados por el «Cinturón de Hierro».

Los resultados de la investigación en esta intervención (2022) son de notable interés para el conocimiento de las circunstancias acaecidas en la ruptura del «*Cinturón de Hierro*» en 1937, tanto a nivel de los materiales arqueológicos descubiertos en proceso de estudio, como del desarrollo del ataque y defensa del Gastelumendi y Gamizmendi en los días anteriores e inmediatamente posteriores al 12 de junio de 1937. Gracias a estos trabajos hemos podido definir de forma más precisa cómo se desplegó el ataque franquista y cómo se articuló la defensa del ejército vasco en la zona de Eperlanda I y II, en la vaguada de Aseburugoikoa, protegida por estos dos asentamientos de ametralladora.

Esta intervención se llevó a cabo durante los trabajos de desbroce, limpieza y adecuación propuesta por el municipio de Gamiz-Fika y se desarrolló en los meses de agosto y septiembre de 2022.

Metodología

Dados los resultados de gran interés que se habían documentado en las campañas anteriores en Gamiz-Fika, diseñamos un proyecto de actuación destinado a la documentación y estudio integral de todos los datos que se obtuvieran gracias al seguimiento arqueológico y a las prospecciones del entorno. La metodología desarrollada comprende las siguientes actividades:

Seguimiento arqueológico

Las tareas de limpieza y consolidación han estado constantemente supervisadas por el equipo de arqueólogos para su correcto desarrollo, garantizando la protección y conservación del conjunto arqueológico. Todo el proceso de limpieza, consolidación y seguimiento arqueológico se ha llevado a cabo por el equipo de Edestiaurre Arkeologia Elkartea.

Documentación arqueométrica

La documentación escrita y catalogación se ha desarrollado *in situ*, mediante la observación visual y valoración de los elementos arquitectónicos, de los suelos y materiales arqueológicos. Todo material arqueológico, situación arquitectónica de los elementos o indicio vinculado con la contienda bélica, como algunos grabados de los protago-



Ezkerrean, GAMF10 elementuari egindako fotogrametria zenitala. Eskuinean, 1. txabola hondoaren fotogrametria.

A la izquierda, fotogrametría cenital final realizada a GA MF10. A la derecha, fotogrametría de fondo de cabaña 1.

gistratu dira, behar bezala berreskuratu eta ondoren kontserbatu ahal izateko.

Argazki bidezko dokumentazioa

Argazki bidezko dokumentazioa bi mailatan egin da: lehenik, multzoaren eta metrailadore habiaren dokumentazioa, eta, bigarrenik, aztarnategian aurkitutako interesezko material eta elementu guztien erregistroa, aztarna arkeologikoen xehetasunezko makroargazkiak, drone batekin hartutako ortoirudiak eta fotogrametria aplikatua barne hartuta, identifikatu diren datu guztiak errazago ulertzeko.

Lehengoratze grafikoa bi dimentsiotan

Ezarlekuaren oinplanoaren eta profilaren tratamendu digitalaren bidezko lehengoratze grafikoaren berregitearen helburua izan da multzo arkeologikoa ulertzeko behar den informazioa ateratzea eta, aldi berean, modu ulergarrian transmititzea zabalkundea eman ahal izateko.

Miaketa

Miaketa sistematikoan sakon aztertu dira Descarga ibarraren inguruan adierazitako elementuen inguruak, baita urrutirago dauden elementuak ere eraikuntza materialak alderatzeko eta horiek testuinguru zabalago batean kokatzeko. Lan honetan, orain arte identifikatu ez diren lubakiak eta obusek sorrarazitako kraterrak edo zuloak aurkitu ditugu.

Elementu arkitektonikoen lehengoratze grafikoa hiru dimentsiotan

Prozedura fotogrametrikoak aplikaturik eraman da burura hiru dimentsioko lehengoratze grafikoa. Horretarako, kamera digitalak eta «drone» baten bidez hartutako irudiak (ezarlekuaren 500 irudi 3 metroko altueratik hartuak) erabili dira. Helburua da 3D-ko ereduak lortzea, doikuntza handikoak, elementuaren dokumentazioa ahalbidetuko dutenak eta, aldi berean, elementuaren kontserbazioa eta ondorengo zabalkundea bermatuko dituztenak.

Emaitzak

2018an Eperlanda I eta Eperlanda II aurkituta handitu egin dira Gamiz-Fika udalerriko ondare Historikoa eta Memoriarena. Gainera, aurkikuntza horiei esker, aurrerapausoak egin dira «Bilboko Burdin Hesiari» buruzko ezagutzan, izan ere, egindako azterketari esker, zehanistas del conflicto, se registraron con precisión para su correcta recuperación y posterior conservación.

Documentación fotográfica

La documentación fotográfica se realizó a dos niveles: primero, la documentación del conjunto y del nido de ametralladora, y segundo, el registro de todos los materiales y elementos de interés localizados en el yacimiento, incluyendo macrofotografías de detalle de los vestigios arqueológicos, orto imágenes con «drone» y fotogrametría aplicada, facilitando así la comprensión de todos los datos identificados.

Restitución gráfica bidimensional

La restitución gráfica del asentamiento a través del tratamiento digital de la planta y perfil mediante planos del asentamiento ha tenido como objetivo extraer la información necesaria para comprender el conjunto arqueológico y a su vez transmitirla de manera inteligible para su divulgación.

Prospección

La prospección sistemática se ha centrado en el reconocimiento detenido de los alrededores de elementos citados en torno a la vaguada de Descarga, incluyendo elementos alejados para comparar materiales de construcción e insertarlos en un contexto más amplio. En este trabajo se han localizado cráteres de obuses y trincheras que hasta ahora no estaban identificadas.

Restitución gráfica tridimensional de los elementos arquitectónicos

La restitución gráfica tridimensional se ha realizado aplicando procedimientos fotogramétricos. Para ello se han empleado tanto cámaras digitales como tomas con «drone» realizando unas 500 tomas fotográficas del asentamiento a una altura de 3 metros. El objetivo es obtener modelos 3D de alta precisión que permitan la documentación geométrica del elemento, que a su vez garantizan la conservación de este y posterior difusión.

Resultados

Los descubrimientos de Eperlanda I y Eperlanda II realizados en 2018 han incrementado el patrimonio Histórico y de la Memoria del municipio de Gamiz-Fika. Además, han supuesto un avance en el conocimiento acerca del «Cinturón de Hierro de Bilbao», ya que su estudio ha permitido comprender con más precisión las

tzago ulertu ahal izan dira Burdin Hesiko 5. Defentsa sektorean gertatutako inguruabarrak.

2019an Eperlanda I elementuan bideratutako esku hartzeak guztiz emaitza bereziak eskaini zituen Burdin Hesiaren haustura ondorengo uneei dagokienez. Haustura hori mendebaldera gutxi gorabehera 1.000 metrora gertatu zen, Gaztelumendi eta Urrusti mendialdeetan, 1937ko ekainaren 12an. 2021ean Eperlanda II elementuan bideratutako esku hartzeari esker, Aseburugoikoa ibarraren bazterretan dauden bi metrailadore elementuak –«ekialdean» Eperlanda I eta «mendebaldean» Eperlanda II– lotu eta dagozkien testuinguruan kokatu ahal izan ditugu.

Eremu hori interes handikoa izan zen gerran zehar, hala Euskadiko armadaren defentsa egituratzeko nola matxinatutako bandoak planteatutako erasoa antolatzeko. Alderdi frankistarentzako zuen garrantzia agerian geratzen da 2021eko ekinaldian Avilako artxibo militarrean aurkitutako dokumentuetan eta krokisetan. Dokumentu horiek argitu egin dituzte eremua defendatzeko jardueraren inguruabarrak, eta bideratu diren eta bideratuko diren esku hartze arkeologikoekin batera, Burdin Hesiaren hausturaren aurreko eta ondorengo uneak ezagutzeko mugarria markatuko duten lekukotza idatziak dira. Eperlanda II elementua egokitzeko eta finkatzeko lanetan zehar egindako aurki-kuntzek berretsi egiten dituzte gertaera horiek.

Aurrekari horiek aintzat harturik, 2022ko ekinaldi hau Descarga ibarreko GAMF10-GAMF15 elementuetan bideratzeko proposamena egin zen, eta elementu horien azterketari esker, 1937ko ekainak 11ren inguruko egunetan jazotako gertaerak hobe ezagutzen ditugula esan behar dugu. Katalogatu gabeko elementu multzoaren barruan, aurkikuntza garrantzitsuak dira jarraian adierazten ditugunak:

- Oinplano karratuko 2 txabola: lehenengoak harlangaitzezko horma bat du bere eraikuntzan, ez zen metro betetik gorako altuerara iritsiko, eta hortik gora, estalkiraino, enborrez eratutako bilbadura izango zuen. Sastrakak kentzeko eta lur jotako hareharri puskak ateratzeko lanetan zehar estalkiari zegozkion enbor batzuk azaldu dira. *In situ* utzi ditugu, induskatu gabe. Bigarrena osorik egongo zen enborrez egina, begi hutsez ikus daiteke hori. Oso interesgarria litzateke etorkizuneko esku hartzeetan bi txabola horiek induskatzea.
- 19 tiratzaile postu indibidual: formaz lauangeluarrak, gutxi gorabehera 100 x 70 cm-koak, lubakiko defentsa frontean egokituak. Postu horietako hondakin organikoak eta harriak ateratzeko lanetan zehar bala zorroak eta fusiletako kargagailu orraziak azaldu dira, postuak defentsa aktiboan erabili zirela agerian utzirik.
- 6 babesleku pasibo: batzuek ezkutatzeko estalkiari zegozkion zurezko paldoen hondakinak kontserbatu dituzte. Oso interesgarria litzateke etorkizuneko esku hartzeetan babesleku horiek induskatzea, txabolak bezala.

Garbitze eta finkatze lanak eta ondorengo jarraipen arkeologikoa landa lanetan emandako 42 egunetan eraman ditugu burura, egunean batez beste 10 lagunek lan egin dutelarik. Horietatik % 30 emakumeak izan dira.

Hasiera batean aurreikusitakoaren arabera 16 egun emango genituen landa lanetan, baina egonlekuaren inguruabarren eta aurkitutako lodiera handiaren ondorioz lanak luzatu egin ziren denboran, eta lehen ere azaldu dugun bezala, bigarren lan fase bati heldu behar izan genion. Arkeologi Museoaren esku jarri aurretik, 2023ko

circunstancias acaecidas en el 5º Sector defensivo del Cinturón.

La intervención de la campaña 2019 en Eperlanda I aportó unos resultados extraordinarios en relación con los momentos inmediatamente posteriores a la ruptura del Cinturón de Hierro, producida a unos 1000 metros al oeste, en el Gaztelumendi y Urrusti, el 12 de junio de 1937. Con la intervención de 2021 en Eperlanda II, hemos podido relacionar y contextualizar los dos elementos de ametralladora que se encuentran en los márgenes de la vaguada de Aseburugoikoa, al «este» Eperlanda I, y al «oeste» Eparlanda II.

Esta zona era de extremado interés en el trascurso de la contienda, tanto para la articulación de la defensa del ejército de Euskadi, como para la ofensiva planteada por el bando sublevado. La importancia para el bando franquista queda atestiguada en los documentos y croquis descubiertos en el archivo militar de Ávila en la campaña de 2021. Estos documentos han aclarado las circunstancias de actuación defensiva de la zona y son el testimonio documental que, junto a las intervenciones arqueológicas, van a suponer un antes y un después para el conocimiento de los momentos inmediatamente anteriores y posteriores de la ruptura del Cinturón de Hierro. Los descubrimientos realizados durante el acondicionamiento y consolidación de Eperlanda II ratifican estos hechos.

Con estos antecedentes se propuso esta campaña de 2022 en los elementos GAMF10 al GAMF15 en la vaguada de Descarga y su estudio significa un avance para el conocimiento de los acontecimientos acaecidos en los días cercanos al 11 de junio de 1937. Como descubrimientos importantes dentro del conjunto de elementos que estaban sin catalogar citamos los siguientes:

- 2 cabañas de planta cuadrangular: la primera tiene en su construcción un muro de mampostería que tendría una altura de no más de un metro y después estaría formada, hasta la techumbre, por un entramado de troncos. En la limpieza de vegetación y de los restos derrumbados de las areniscas han aparecido troncos de esa techumbre. Se han dejado *in situ* sin excavar. La segunda estaría construida íntegramente con troncos de madera, también en esta se aprecian a simple vista. Sería muy interesante excavar estas cabañas en futuras intervenciones.
- 18 puestos individuales de tirador: realizados con forma cuadrangular de unas dimensiones aproximadas de 100 x 70 centímetros en el frente de defensa de la trinchera. En la limpieza de estos puestos de restos orgánicos y de piedras han aparecido casquillos y peines de recarga de fusiles lo que indica que fueron utilizados en la defensa activa.
- 6 abrigos pasivos: alguno de ellos con restos de postes de madera que posiblemente pertenecían a la techumbre de ocultación. Estos, al igual que las cabañas, serían muy interesantes para futuras excavaciones.

El trabajo de limpieza, consolidación y consiguiente seguimiento arqueológico se ha realizado en 42 días de trabajo de campo con un promedio diario de 10 personas. De ellas un 30% mujeres.

En un principio la previsión de trabajo de campo era de 16 días, pero las circunstancias del asentamiento y el gran potencial que se descubrió hicieron que estas labores de alargaran en el tiempo, realizando una segunda fase de trabajo, tal y como hemos comentado. El trabajo de limpieza, registro, inventariado y documenta-

azken hondarrera arte luzatu daiteke berreskuratutako material guztiak garbitzeko, erregistratzeko, zerrendatzeko eta dokumentatzeko lana.

Aurkitutako aztarnetatik eta berriki aurkitutako garaiko iturri idatzietatik lortzen ari garen datuen arabera, GAMF10 aldean aurrez aurreko borrokaldi bat izan zen euskal gudarostearen eta matxinatutako bandoaren artean, segur aski 1937ko ekainaren 11, 12 eta 13an. Datu hori lehendik Eperlanda I eta II egituretan burututako ekinaldietan egiaztatu zen. Eskura ditugun datuetatik abiatuta, defentsa egituratzeko moduari buruzko hipotesi hauek planteatzen ditugu:

– Eperlanda I egituran defentsa Urrusti aldeari eta Aseburugoikoa ibarrari begira antolatu zen.
– Eperlanda II egituran, berriz, defentsa batez ere Eperlanda I egiturarekin lotzen duen ibarrari begira antolatu zen.
– GAMF10-15 ezarlekuetan defentsa Descarga ibarrari begira antolatu zen, hain zuzen ere aztertutako eremuaren parean.

Eskura ditugun datuen arabera eta ondoz ondo burura eraman ditugun ekinaldietan zehar berreskuratutako aztarna arkeologikoei esker, badakigu ezarleku horiek behin eta berriz bonbardatu zituztela, eta 75 m/m eta 155 m/m artilleria piezen jopuntua izan zirela. Beraz, gerraren gune oso bero bati buruz ari gara, non matxinatutako osteek presio ikaragarria egin zioten euskal gudarostearen defentsari, lurrez zein airez. Ekinaldi honetan zehar bonbardaketek eta artileria piezek eragindako beste 5 krater aurkitu ditugu, azaldu berri dugunaren erakusgarri.

Eperlanda I, Eperlanda II eta GAMF10 elementuetan erregistratutako materialen erregistroa alderatzen badugu, handiak dira haien arteko aldeak, eta puntu zehatz honetan frankisten aurrerapena nolakoa izan zen azaltzen duten gakoak eskaintzen dituzte. Ekinaldi honetan berreskuratutako datuek iradokitzen dute GAMF10 elementua eraso frankistan suntsitu zutela, agian ekainak 11 eta 12 bitartean, eta euskal gudarosteak postua abandonatu zuela ekialdera bidean jartzeko, Eperlanda I eta II eta Gaztelumendi eta Gamizmendiko gailurrekin lotzen duen Aseburogoikoa ibarrerantz.

Aurkikuntza garrantzitsuen artean aipatzekoak dira eskuko 4 granadak, Ertzaintzako artezilariek leherrarazi aurretik behar bezala dokumentatu genituenak. Horietatik hiru GAMF10 egiturako bolborategian aurkitu genituen, eta bestea GAMF14 elementuaren ondoko lubakian. Fusiletarako munizio kargagailu osoak berreskuratu ditugu kargagailu horiek babesten zituzten kartoizko bilgarriaren hondarrekin. Lubaki ondoan bi txabola identifikatu ditugu, harlangaitzezkoak eta sabaiko enborren hondakinekin. Era berean, artilleriako obusen metraila ugari, eta bala zorroen, kartutxoen eta kargagailu orrazien metaketa garrantzitsuak dokumentatu ditugu.

Azkenik, ekinaldi honetan burututako ikerlanari esker, zerrendatutako 6 elementu izatetik (GAMF10-GAMF15) aztertutako eremuan Burdin Hesiaren babes egitura osatzen zuten 28 elementu dokumentatzera igaro gara. Beraz, kontuan harturik egindako aurkikuntzak eta defentsa egitura hau eratzen duten elementu arkitektonikoak, huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu dibulgazio eta ondare ahalmen handia duela aztertutako eremuak.

Azken batean, berreskuratutako materialak aztertzen eta zerrendatzen jarraitzen ari garen honetan, kontrol eta dokumentazio arkeologikoko lan hauei esker borroka uneari dagokion «argazki» bat lortu ahal izan dugu, eta

ción de todos los materiales recuperados se puede prolongar hasta últimos de 2023, antes de su entrega al Arkeologi Museoa.

Según los datos que estamos obteniendo de los restos encontrados y la documentación de la época que se ha descubierto recientemente, en la zona de GAMF10 se produjo un enfrentamiento directo entre el ejército vasco y el bando sublevado, probablemente en los días 11, 12 y 13 de junio de 1937. Este dato se había constatado en las campañas anteriores de Eperlanda I y II. Gracias a los datos que manejamos planteamos las siguientes hipótesis sobre cómo pudo orientarse la defensa:

– En Eperlanda I, la defensa estuvo orientada hacia el Urrusti y hacia la vaguada de Aseburugoikoa.
– Por su parte, en Eperlanda II la defensa se orientó principalmente hacia esa vaguada que lo une con Eperlanda I.
– En los asentamientos GAMF10 al 15 esta defensa estuvo orientada hacia la vaguada de Descarga, justo enfrente de la zona intervenida.

Por los datos que manejamos y gracias a las evidencias arqueológicas recuperadas durante las sucesivas campañas que hemos desarrollado, estos asentamientos fueron repetidamente bombardeados y fueron objetivo, de artillería de 75m/m y de 155m/m. Por tanto, estamos hablando de una zona muy caliente del conflicto en la cual las tropas sublevadas ejercieron una presión brutal a la defensa del ejército vasco, tanto desde tierra como desde el aire. Durante esta campaña hemos descubierto 5 nuevos cráteres de bombardeo y artillería, lo que evidencia el hecho que acabamos de señalar.

Comparando el registro de materiales de Eperlanda I, Eperlanda II y GAMF10, la diferencia entre ellos es notable, dando claves de cómo fue el avance de los franquistas en este punto en concreto. Los datos recuperados durante esta intervención sugieren que el elemento GAMF10 también fue destruido por el ataque franquista, quizá entre el 11 y 12 de junio, siendo la posición abandona por el ejército vasco en dirección al este, donde se encuentra la vaguada de Aseburugoikoa, que lo une a Eperlanda I y II y la cumbre del Gaztelumendi y Gamizmendi.

Como descubrimientos importantes nombrar las 4 granadas de mano que fueron documentadas correctamente antes de ser destruidas por los artificieros de la Ertzaintza. Tres de ellas en el polvorín de GAMF10 y otra en la trinchera cercana a GAMF14. Se han recuperado cargadores completos de munición de fusil con restos del envoltorio de cartón que los protegía. Se han identificado dos cabañas adyacentes a la trinchera con mampostería y restos de troncos de la techumbre. También abundantes restos de metrallas de obuses de artillería, e importantes concentraciones de casquillos, cartuchos y peines de munición.

Por último, gracias al trabajo de investigación realizado durante esta campaña, hemos pasado de 6 elementos inventariados (desde GAMF10 a GAMF15) a la documentación de un total de 28 elementos que formaban parte de la estructura defensiva del Cinturón en la zona intervenida. Por tanto, podemos afirmar que el área estudiada presenta un altísimo potencial divulgativo y patrimonial, tanto por los descubrimientos materiales como por los elementos arquitectónicos que configuran la estructura defensiva.

En definitiva, y a la espera de continuar con el estudio e inventario de los materiales recuperados, gracias a las labores de control y documentación arqueológica, hemos podido obtener una visión «fotográfica» del mo-

Descarga alde honetan eta Eperlanda elementuak biltzen dituen Aseburugoiko aldean bideratzen ari garen ikerketarentzat oso datu garrantzitsuak eskaintzen dituzten materialak berreskuratu ahal izan ditugu. Lortutako emaitzak erabakigarriak izan dira Burdin Hesiaren hausturari buruz ezagutzen zen dokumentazioa argitzeko eta indartzeko, baita Gamiz-Fikan, Eperlanda aldean, Euskadiko armadaren defentsan zehar, 1937ko ekainaren 11n, 12an eta, beharbada, 13an jazotakoak nola gertatu ziren argitzeko ere.

Ikerketari dagozkion datu guztiak, oraindik zaharberritzeko, dokumentatzeko eta laborategian aztertzeko dauden arren, hilabete gutxi batzuen buruan egongo dira eskuragarri; modu horretan, egindako aurkikuntzekin balio handiagoa emango zaio Edestiaurre Arkeologia Elkarteko taldearekin batera Gamiz-Fikan egindako jarraipen arkeologikoari.

mento del enfrentamiento y recuperar materiales que aportan datos importantísimos para la investigación en esta zona de Descarga, paralela a la de Aseburugoikoa donde se encuentran los elementos de Eperlanda. Los resultados obtenidos han sido determinantes para esclarecer y potenciar la documentación que ya se conocía de la ruptura de Cinturón y de cómo se desarrollaron los hechos en los días 11, 12 y posiblemente 13 de junio de 1937, durante la defensa del ejército de Euskadi de la zona Eperlanda, en Gamiz-Fika.

Todos los datos de la investigación que aún está en fase de restauración, documentación y estudio en laboratorio, estarán disponibles en unos meses, revalorizando con más descubrimientos el seguimiento arqueológico que se ha realizado con el equipo de Edestiaurre Arkeologia Elkartea en Gamiz-Fika.

S. Salazar, I. Libano, S. Vega; Edestiaurre Arkeologia Elkartea

B.35.2.2. **Eperlanda I eta II (Gamiz-Fika)**

Zuzendaritza: Sergio Salazar
Finantzazioa: Gamiz-Fikako Udala

B.35.2.2. **Eperlanda I y II (Gamiz-Fika)**

Dirección: Sergio Salazar
Financiación: Ayuntamiento Gamiz-Fika

Archaeological monitoring of the elements catalogued as Eperlanda I and Eperlanda II, located in the Aseburu-Goikoa stream bed, in the municipality of Gamiz-Fika. The intervention provided a more complete overview of the role played by these structures in defending the 'Iron Belt'.

The small woodland area located between the two machine gun posts was cleared, with all felling and removal works being subject to continuous archaeological oversight, guaranteeing at all times the integrity of both the previously mentioned elements and the trench line that linked them.

Lan hau «*Bilboko Burdin Hesiari*» balioa emateko, gizarteratzeko eta ezagutarazteko proiektuan biltzen da. Proiektu hori «*Burdin Hesia eta Bilboko defentsak*» kontserbatzeko eta balioa emateko Erakundeen arteko Lankidetza Protokoloaren bitartez sustatzen eta babesten dute Eusko Jaurlaritzak, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek eta «Burdin Hesiak» ukitzen dituen 33 udalerriek.

Testuinguru horretan, Eperlanda (I eta II) kokapenen arteko guneari balioa emateko proposamena egin da Gamiz-Fika udalerriko ondarea ezagutarazteko espazioa izan dadin.

Alde horretan pinudi bat zegoenez, eremua garbitzea proposatu zen modu horretan Burdin Hesia ezagutarazteko espazio bat garatu ahal izateko eta, aldi berean, ia bere luzera osoan kontserbatzen zen lubaki lerro bat berreskuratzeko. Horretarako, zuhaitz masan bakantze lanak egin eta eskuz moztu ziren aleen gutxi gorabehera % 10, kartel berriemaileen eta jolas guneen instalazioa aurreikusten den aisialdirako espazioa antolatu ahal izateko.

Arau esparrua

Bilboko Burdin Hesia eta defentsak Kultura Ondasun gisa izendatu zuen 2018ko abenduaren 26ko 195/2018 Dekretuak, Monumentu Multzo kategoriarekin. Beraz, babes mailarik handiena duen Ondasun baten aurrean gaude, eta ondorioz, haren osotasunean eta kontserbazioan eragin dezaketen esku hartze guztiek izango dituzte ardatz Dekretuak berak ezarritako irizpideak (2019ko urtarrilaren 8ko EHAA, 5. zk.).

Babestu beharreko elementuak

2022ko abuztuaren 10ean eta 11n, GAMF010 elementuan bideratutako esku hartze arkeologikoan zehar,

Este trabajo está circunscrito al proyecto de puesta en valor, socialización y divulgación del «*Cinturón de Hierro de Bilbao*», recogido en el Protocolo de Colaboración Interinstitucional para la conservación y puesta en valor del «*Cinturón de Hierro y defensas de Bilbao*», entre Gobierno Vasco, las Diputaciones de Álava y Bizkaia y los 33 municipios afectados por el Cinturón de Hierro.

En este contexto, se ha propuesto la puesta el valor de la zona entre los asentamientos de Eperlanda (I y II) como espacio de divulgación del patrimonio del municipio de Gamiz-Fika.

Ante la presencia de un bosque de pinos, se propuso su limpieza para aclarar la zona y de esta forma poder desarrollar un espacio de divulgación del Cinturón, al tiempo que se recuperaba una línea de trinchera conservada prácticamente en toda su extensión. Para ello, se ha aclarado la masa arbórea talando a mano aproximadamente un 10% de los ejemplares, con la idea de dejar espacio de ocio en la que está prevista la instalación de cartelería informativa y zonas recreativas.

Marco normativo

El *Cinturón de Hierro y defensas de Bilbao* (Bilboko Burdin Hesia) fue declarado por Decreto 195/2018, de 26 de diciembre, como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental. Estamos por tanto ante un Bien que cuenta con la máxima protección, por lo que toda actuación que pudiese afectar a su integridad y conservación deberá regirse por unos criterios establecidos en el propio Decreto (BOPV, nº 5, de 8 de enero de 2019).

Elementos a proteger

Los días 10 y 11 de agosto de 2022, durante la actuación arqueológica desarrollada en el elemento

prospekzio bat egin genuen pinuak mozteko lanak egingo ziren gunean, zuhaitzak mozteko jarraipen lanetan zehar kontrolatu beharreko elementuak identifikatzeko.

Hasteko, lanen eremutik ekialdera 100 metro ingurura, Eperlanda I metrailadore habiaren hondakinak daude. Egitura hori pinuak mozteko eremutik kanpo dago, eta eremu horretarainoko tartea haren kontserbazioa bermatzeko bezain handia da.

Bestalde, garbituko den eremuaren iparraldeko mugan 30 metrotik gorako lubaki lerro bat identifikatu dugu. Lubaki hori lan eremutik kanpo dago baina soilik 25 metroko tartera, eta beraz, jarraipen lanak batez ere alde horretan egin ditugu egituraren osotasuna bermatzeko xedean. Identifikazio egoki bat ziurtatzeko, lehen garbiketa lan bat eraman genuen burura ikuskaritza arkeologiko baten pean. Modu horretan egituraren identifikazio egokia bermatu eta balizez inguratuko genuen elementua basolanek eragindako eremutik isolatzeko.

Metodologia

3 egun iraun zuten basolanek (2022ko azaroaren 14tik 16ra). Arkeologo taldeak une oro ikuskatu zituen langileen egitekoak, modu horretan ondarea behar bezala zainduko zela bermatzeko.

Aurretiazko prospekzioa eta balizak jartzea

Pinuak mozten hasi baino egun batzuk lehenago (2022ko azaroaren 11n) eta aurretiazko miaketa lanetan (2022ko abuztuaren 10ean eta 11n) lortutako datuetatik abiaturik, azken miaketa bat egitea planteatu genuen egiturak balizen bidez seinalatzen hasi aurretik. Lan horiek egiten ari ginenean obusek sorrarazitako beste bi krater edo zulo aurkitu genituen moztu beharreko pinuen espazioan. Interes arkeologikoko elementu guztiak (lubakiak, obusek eragindako kraterrak, babesleku pasiboak) identifikatu ondoren, seinaleztatzeko xingola batez inguratu genituen. Xingolez seinaleztatutako guneetan ez da inolako lanik egin. Gainera, galarazi egin da puntu horretatik makineria igarotzea eta enborrak herrestan garraiatzea.

Pinuak mozteko prozedura

Pinuak eskuz moztu dituzte langileek, eta horretarako motozerrak eta aizkorak erabili dituzte. Kablez hornituriko atoiontzi txiki bat erabili behar izan da enborrak ateratzeko. Makina txikia da, katerik gabea, ia ez du inolako eraginik izan lurzoruaren gainazalean eta aukera eman du enborrak utzi beharreko punturaino eramateko.

Lubakitik gertuen zeuden pinuak moztu ahal izateko funtsezkoa izan da atoiontzia. Pinuak lubaki aldera eror ez zitezen, hori oso arriskutsua bailitzateke elementuaren kontserbazioari begira, bota beharreko aleak atoiontziko kablearekin ziurtatu dira, erorikoaren norabidea bideratzeko.

Enborrak ateratzeko bideak arkeologo taldeak ezarri zituen miaketa lanetan zehar identifikatutako egiturak saihesteko. Horrenbestez, atoiontzia iritsi ahal izateko 3 bide zehaztu dira: baso bide zaharra, moztu beharreko pinuak hartzen dituen eremuaren erdialdea eta eremu babestuaren kanpoaldea. Ez da inolako xendrarik ireki, bestetik gabe kablearen laguntzaz garraiatu beharreko enborrek egin beharreko bidea definitu da. Bide horiek lanak egin ondoren miatu ditugu zorupean eragin ez dela eta aztarna arkeologikorik ez dagoela ziurtatzeko.

GAMF010, realizamos una prospección en la zona donde se ejecutarían los trabajos de corta, con objeto de identificar los elementos a controlar durante el seguimiento de la tala.

En primer lugar, a unos 100 m al este de la zona de los trabajos se localizan los restos del nido de ametralladora Eperlanda I. Esta estructura queda fuera y la distancia existente hasta el área de la limpieza es lo suficiente para garantizar su conservación.

Por otro lado, en el límite más hacia el norte de la zona que se va a limpiar se han identificado más de 30 m de trinchera. Esta trinchera queda fuera del área de los trabajos por escasos 25 m, por lo que las labores de seguimiento han estado centradas en esta área para garantizar la integridad de la estructura. Para asegurar una correcta identificación, efectuamos una primera limpieza bajo supervisión arqueológica. De esta forma garantizamos su correcta identificación y aseguramos un balizado efectivo para aislarla de la zona afectada por los trabajos forestales.

Metodología

Las tareas forestales han tenido una duración de 3 días (14 a 16 de noviembre 2022). Las actividades de los operarios han sido supervisadas en todo momento por el equipo de arqueólogos, garantizando de esta forma una correcta preservación del patrimonio.

Prospección previa y balizamiento

Días antes del inicio de la corta (11 de noviembre 2022) y a partir de los datos obtenidos en las prospecciones previas (10 y 11 de agosto 2022), planteamos una última prospección, previa al balizamiento de las estructuras. Durante estos trabajos localizamos dos nuevos cráteres de obuses en el espacio afectado por la corta. Identificados todos los elementos de interés arqueológico (trincheras, cráteres de obús, refugios pasivos), se procedió a su balizamiento con cinta de señalización. En las áreas balizadas no se ha efectuado ningún trabajo. Además, se ha evitado el paso de maquinaria y arrastre de troncos por estos puntos.

Procedimiento de tala

La tala se ha efectuado manualmente por parte de los operarios, empleando para ello motosierras y hachas. Para poder extraer los troncos ha sido necesario el uso de una pequeña remolcadora con cable. Se trata de una pequeña máquina, sin cadena, que apenas incide en la superficie del suelo y que ha permitido arrastrar los troncos hasta el punto de apeo.

Para poder cortar los pinos más próximos a la trinchera ha sido fundamental la máquina remolcadora. Para evitar la caída de los pinos hacia la trinchera, lo que supondría un riesgo altísimo para su conservación, los ejemplares se han asegurado previamente con el cable de la remolcadora para dirigir la dirección de la caída.

Las vías de saca han sido establecidas por el equipo de arqueólogos, evitando las estructuras identificadas durante la prospección. Se han definido 3 vías por las que ha podido acceder la remolcadora: la antigua pista forestal, parte central del área de corta y exterior del área de protección. En ningún momento se han abierto pistas, sino que se ha definido el recorrido por el que arrastrar los troncos con el cable. Estás vías se han prospectado con posterioridad a los trabajos para descartar afecciones al subsuelo y la aparición de vestigios arqueológicos.

Jarraipen lanak bertatik bertara

Basolanei heldu aurretik, eremua langileekin batera ikuskatu genuen babestu beharreko gune zaurgarriak zein ziren adierazteko. Kontuan harturik pinuak moztu ahal izateko langileen beharrak eta oroz gain ondarea babesteko eskakizunak aintzat harturik, honako lan plan hau diseinatu genuen:

Enborrak ateratzeko bideak ezartzea

Kontuan harturik lur eremuaren baldintzatzaileak eta egitura arkeologikoak babesteko eskakizunak, enborrak herrestan atera ahal izateko 3 bide definitu dira:

- Lehenengoa moztu beharreko eremuaren ekialdetik igarotzen den baso bide zahar bat da, Eperlanda 1 metrailadorerako kokalekutik 15 m eskasera igarotzen da, eta iparraldeko ertzean barrena luzatzen den lubaki nagusia ebakitzen du. Oso eremu nahasia denez, bide hori erabiltzeko hautua egin genuen enborrak herrestan garraiatzeko.
- Bigarrena moztu beharreko pinuak hartzen dituen eremuaren erdialdean dago. Marra ahalik eta zuzenena definitu genuen enborrak uzteko puntuaren eta enborrak kablez lotu ahal izateko atoiontziak iritsi behar zuen tokiaren artean. Saihestu egin dira kraterrak eta erdiko lubakia.
- Hirugarren bidea mendebaldean ezarri dugu, ia ez da eremu babestuan sartzen. Muga horretatik gertu dauden enborrak herrestan atera ahal izateko eta enborrak metatzeko erabili den bidea da.

Enborrak metatzeko gunea ezartzea

Eremu babestutik kanpo ezarri da, gaur egun Gamizmendiko mendilerro osotik igarotzea ahalbidetzen duen xendran, mozketa lanen xede izandako azaleraren hegoaldean.

Lanak bertatik bertara gainbegiratzea

Arkeologo taldeak une oro gainbegiratu ditu basolanak. Langileei aldez aurretik emandako jarraibideez gain, langileekin batera lan egin dugu puntu zaurgarrietan, arriskuak gutxienera eramateko.

Argazki bidezko dokumentazioa

Pinuak mozteko prozesu osoa dokumentatu dugu lanak egitean eta ondoren.

Azken miaketa

Pinuak mozteko lanak amaitu ondoren, eremua azken aldiz miatu dugu material arkeologikorik ez dagoela egiaztatzeko. Arreta berezia jarri dugu enborrak ateratzeko bideetan, pinuak bide horietan barrena atera baitira herrestan eta landare geruza apur bat harrotu baita.

Emaitzak

Azaroak 14: behin enborrak ateratzeko bideak eta metatzeko puntua ezarri ondoren, ekialdeko pinuak mozten hasi ziren, baso bide zaharretik gertu zeudenak. Ale guztiak motozerraz moztu ziren eta erdiko lubakiaren eta lubaki nagusiaren kontrako norabidean bota zituzten. Enborrak baso bide zaharrean barrena garraiatu ziren atoiontziko kablearen laguntzaz, eta enborrak metatzeko tokian utzi ziren geroago prozesatzeko.

Azaroak 15: ekialdeko aleak atera ondoren, erdialdeko pinuak moztu zituzten. Horixe izan zen faserik

Seguimiento a pie de obra

Antes de comenzar los trabajos forestales, se procedió a inspeccionar la zona junto con los operarios para indicarles todos los puntos sensibles que debían ser protegidos. En vista de las necesidades de los trabajadores para poder efectuar la corta, y anteponiendo las exigencias de protección del patrimonio, se diseñó el siguiente plan de trabajo:

Establecimiento de las vías de saca

Debido a los condicionantes del terreno y las exigencias de protección de las estructuras arqueológicas se han definido 3 vías de saca por las que poder arrastrar los troncos:

- La primera corresponde con una antigua pista forestal que discurre por la parte este del área de la corta, pasa a escasos 15 m del asentamiento de ametralladora Eperlanda 1 y corta la trinchera principal que discurre por el borde norte. Al ser un espacio muy alterado, hemos optado por seguir esta vía para el arrastre de los troncos.
- La segunda corresponde con la parte central del área de la corta. Se ha definido una línea lo más recta posible entre el punto de apeo y el lugar hasta el que tenía que llegar la remolcadora para poder atar con el cable los troncos. Se han evitado los cráteres y la trinchera central.
- La tercera vía se ha establecido por la parte oeste y apenas entra en el área de protección. Se trata de una vía usada para poder arrastrar troncos situados cerca de este límite y facilitar el apeo de la madera.

Establecimiento del punto de apeo

Se ha establecido fuera del área de protección, en la pista que actualmente permite el tránsito por todo el cordal del Gamizmendi, al sur de la superficie afectada por la corta.

Supervisión de los trabajos in situ

Las labores forestales han estado en todo momento supervisadas por el equipo de arqueólogos. Además de las instrucciones previas dadas a los operarios, se ha trabajado estrechamente con ellos en los puntos conflictivos, minimizando así los riesgos.

Documentación fotográfica

Se ha documentado todo el proceso de corta durante y después de la ejecución de los trabajos.

Prospección final

Una vez finalizadas las labores de corta se ha realizado una última prospección del área para descartar la existencia de material arqueológico. Se ha prestado especial atención a las vías de saca ya que son las zonas por las que se han arrastrado los pinos y la cubierta vegetal se ha visto ligeramente alterada.

Resultados

Día 14 de noviembre: establecidas las vías de saca y el punto de apeo, se procedió a cortar los ejemplares de la parte este, los próximos a la antigua pista forestal. Todos los ejemplares se cortaron con motosierra y fueron derribados en dirección contraria a la trinchera central y principal. Los troncos fueron arrastrados por la pista mediante el cable de la remolcadora y depositados en el punto de apeo para su procesado.

Día 15 de noviembre: sustraídos los ejemplares de la parte este, se procedió a cortar los pinos de la parte cen-

konplexuena, lubaki nagusiko babesleku pasiboa, erdiko lubakia eta kraterrak saihestu behar baitziren. Gainera, bide horretatik atera ziren lubaki nagusiarekin muga egiten zuten pinuak, eta horretarako atoiontzia kokatzeko puntu bat definitu behar izan zen enborrak ziurtatu ahal izateko eta erorikoaren norabidea kontrolatzeko (lubaki nagusiaren kontrako aldera). Behin enborrak modu seguruan ateratzeko bidea definitu ondoren, kablearen bidez arrastaka atera ziren metatzeko punturaino.

Azaroak 16: azkenik, moztu beharreko eremuaren mendebaldeko pinuak moztu ziren. Fase hori izan da guztietan errazena, bideak ia ukitu ere ez baitu egiten eremu babestua, eta beraz, ez baitzegoen arrisku handirik multzoaren babesari begira. Egun horretan batez ere botatako aleak biltzeko eta metatzeko lanak egin ziren gaur egun Eperlandara eramaten duen xendran.

Beraz, gogobetetzeko moduan eraman dira kontrol arkeologikoko lanak, bermatu egin da katalogatutako egitura arkeologikoen osotasuna, eta babestu egin dira aurretiazko miaketa lanetan zehar aurkitutako aztarna berriak (kraterrak).

Lanetan zehar ez dugu inolako aztarna arkeologikorik aurkitu. Horrek ez du esan nahi eremu honetan balizko arkeologia gune garrantzitsu bat ez dagoenik, lanek gehienez ere landare geruzan (pinuen hondakinak, garoak eta belarrak) eragin baitute. Baliteke zorupean Burdin Hesiarekin zerikusia duten aztarna arkeologikoak agertzea, izan ere, jarduera biziko eremu batean gaude, eta bertan egitura nabarmenak identifikatu dira, hala nola Eperlanda I metrailadorerako kokalekua. Beraz, eremu horretan mantendu behar dira kautela arkeologikoak bertan egin nahi diren eta zorupean eragin dezaketen edozein lan egiteko.

Konklusioak

Jarraipen arkeologiko honek bete egin ditu ukitutako eremuan dagoen kultura ondarea babesteko ezarritako helburu guztiak. Bermatu egin da *Bilboko Burdin Hesia eta defentsak* ondareari dagozkion elementu katalogatuak behar bezala zaintzea. Eperlanda I metrailadorerako kokalekua eta lanak egin diren inguru hurbilean identifikatutako kraterrak eta lubakiak une oro babestu dira arkeologo taldeak bertatik bertara eta une oro bideratutako gainbegiratze lanari esker.

Azkenik, pinuak mozteko lanek ukitutako eremuan aztarna arkeologikorik aurkitu ez badugu ere, potentzial arkeologiko handiko eremuan gaude, *Burdin Hesiak* Gamiz-Fika udalerrian egituratzen zuen fronte aktiboaren zatia osatzen baitzuen. Eperlandan (I eta II) induskatutako elementuetan berreskuratutako material arkeologiko kopuru handiaren ondorioz, gune hau interes berezikoa da Burdin Hesiko defentsek Gerraren garapenean zehar izan zuten rola aztertzeko eta ezagutzeko. Beraz, lurpean eragina izan dezaketen edo dagoeneko ezagunak diren egituren osotasuna arriskuan jar dezaketen obra edo esku hartze guztiak kultura ondarea behar bezala babestuko dela bermatzen duten profesionalen ikuskapen arkeologikopean eraman beharko dira burura.

tral. Esta fase fue la más compleja ya que había que evitar el refugio pasivo de la trinchera principal, la trinchera central y los cráteres. Además, por esta vía es por donde se sacaron los pinos que limitaban con la trinchera principal, por lo que fue necesario definir un área donde ubicar la remolcadora para poder asegurar los troncos y controlar la dirección de caída (contraria a la trinchera principal). Definida la vía por la que extraer los troncos de forma segura, estos han sido arrastrados mediante cable hasta el punto de apeo.

Día 16 de noviembre: finalmente se procedió a cortar los ejemplares de la parte oeste del área de corta. Esta fase ha sido la más sencilla ya que la vía apenas incide en el área de protección y no había riesgo elevado para la protección del conjunto. Este día las labores se centraron mayoritariamente en el apeo de los ejemplares para prepararlos para la recogida, todo ello en la pista que actualmente da acceso a Eperlanda.

Por tanto, las labores de control arqueológico se han desarrollado satisfactoriamente, garantizando la integridad de las estructuras arqueológicas catalogadas y la protección de las nuevas evidencias localizadas durante la prospección previa (cráteres)**.**

Durante los trabajos no se ha localizado ningún vestigio arqueológico. Esto no indica que la zona no cuente con una presunción arqueológica importante, ya que los trabajos apenas han incidido en la cubierta vegetal (restos de vegetación de los propios pinos, helechos y hierbas). No descartamos que en el subsuelo pudieran aparecer vestigios arqueológicos relacionados con el Cinturón de Hierro, ya que estamos en una zona de alta actividad en la que se han identificado estructuras notables como el asentamiento de ametralladora Eperlanda I. Por tanto, hay que mantener las cautelas arqueológicas en la zona para cualquier trabajo que se quiera desarrollar en la zona y pueda afectar al subsuelo.

Conclusiones

El presente seguimiento arqueológico ha cumplido con los objetivos establecidos para la protección del patrimonio cultural existente en el área afectada. Se ha garantizado la correcta preservación de los elementos catalogados pertenecientes al *Cinturón de Hierro y defensas de Bilbao*. Tanto el asentamiento de ametralladora Eperlanda I, como las trincheras y cráteres que se han identificado en el entorno inmediato a los trabajos, han sido protegidos en todo momento gracias a la supervisión continua a pie de obra por parte del equipo de arqueólogos.

Finalmente, a pesar de no haberse localizado vestigios arqueológicos en la zona afectada por las labores de corta, estamos ante un área con elevado potencial arqueológico ya que formaba parte del frente activo que configuraba el *Cinturón de Hierro* en el municipio de Gamiz-Fika. La gran cantidad de materiales arqueológicos recuperados en los elementos excavados en Eperlanda (Eperlanda I y II) hacen de este espacio un lugar de especial interés para el estudio y conocimiento del papel que desempeñaron las defensas del Cinturón de Hierro durante el desarrollo de la Guerra. Por tanto, todas las obras o actuaciones que impliquen una afección al subsuelo o puedan comprometer la integridad de las estructuras ya conocidas deberá contar con la supervisión arqueológica de profesionales que garanticen la correcta protección del patrimonio cultural.

S. Salazar, I. Libano, S. Vega; Edestiaurre Arkeologia Elkartea

B.35.2.3. **132Kv-ko linea elektrikoa, zirkuitu bikoitz sinplea, Mantres TA- Abanto TA**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: i-DE Redes Eléctricas Inteligentes

B.35.2.3. **Línea eléctrica a 132Kv, simple circuito dúplex, ST Mantres-ST Abanto**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: i-DE Redes Eléctricas Inteligentes

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Prospekzio arkeologikoak aukera eman du ikuskatutako eremuan aztarnategi arkeologiko edo ondasun etnologiko berririk ez dagoela ziurtatzeko.

Aztergai izan dugun esparruan dagoen ondare elementu bakarra Bilboko Burdin Hesia eta defentsak dira, babes bereziko kultura ondasun gisa dago kalifikatuta. Linea elektrikoaren trazadura 1. Sektorearen hegoaldeko azpisektorean garatzen da, eta alde horretan eraiki gabe geratu zen gotortze lerroa errendimendu gutxi eskainiko zuelakoan, horrexegatik da 0 Gunea (0 Lerroa), eta izendatutako kultura ondasunaren zati bada ere, ez du inolako babes motarik.

La prospección arqueológica ha permitido descartar la existencia de nuevos yacimientos arqueológicos o bienes etnológicos en el ámbito inspeccionado.

El único elemento patrimonial existente en el ámbito de estudio es el, bien cultural de protección especial, Cinturón de Hierro y defensas de Bilbao. El trazado de la eléctrica se desarrolla en el Subsector sur del Sector 1, cuya línea de fortificación se quedó sin construir al considerarse de poco rendimiento, por lo que tiene consideración de Zona 0 (Línea 0) y, aunque es parte integrante del bien cultural declarado, no posee ningún tipo de protección.

M. Lerín Sanz; A. Ruiz de Marco

B.35.3. BESTE BATZUK / OTROS

B.35.3.1. **Burdin Aroko populazio ereduak Bizkaian. I. fasea**

Zuzendaritza: Jagoba Hidalgo-Masa
Finantzazioa: Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza

B.35.3.1. **Patrones de poblamiento de la Edad de Hierro en Bizkaia. Fase I**

Dirección: Jagoba Hidalgo-Masa
Financiación: Centro de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco

The project presented here aims to link the collection of steles found in Bizkaia, dating from the Iron Age, to their original environments in the context of fortified Iron Age settlements. To this end, the entire collection of steles has been documented using both photography and photogrammetry in order to assess aspects such as their stylistic and/or typological complexity, etc. Furthermore, non-invasive prospecting was carried out in a series of sites that have yet to be fully characterised and which may bear some relation to these steles.

Sarrera

K.a. lehenengo milurtekoaren zatirik handiena hartzen duen aldia da Burdin Aroa. Aldi horrek herrixka gotortuaren estandarizazioa eta hedapena ditu bereizgarri komunitateen kokaleku nagusi gisa. Herri horietako defentsen gotortzeak eta monumentalizazioak faktore askori erantzuten diete, besteak beste Brontze Aroko sistema soziopolitikoaren krisialdi posibleari eta ekoizpen eremuak kontrolpean edukitzeko beharrari, beharbada baliabide horien gaineko presioa gero eta handiagoa zelako. Aztarnategi horiek altuera ertainean daude, ingurunea kontrolpean edukitzeko aukera eskaintzen duten gailurretan, baita leku estrategikoetan ere, hala nola lurraldeko komunikabide nagusietan. Modu horretan, taldeak lurrari atxikita geratu ziren, erabateko sedentarizazioa sustraituko zen (Maya, 1998). Horrenbestez egituratzen da paisaiaren dimentsio soziopolitikoa, etorkizuneko gizarteen populazioa eta egituraketa ulertzeko funtsezko populazio eredua.

Bizkaian XIX. mendean hasi ziren gisa honetako aztarnategiak aztertzen (Torregaray, 2021[42]). Lan horiek

Introducción

La Edad del Hierro es un periodo que comprende la mayor parte del primer milenio a. C. Este periodo se caracteriza por la estandarización y expansión del poblado fortificado como asentamiento principal de las distintas comunidades. La fortificación y monumentalización de las defensas de estos poblados responde a múltiples factores entre los que se encuentra una posible crisis del sistema sociopolítico de la Edad del Bronce o la necesidad de control de los espacios productivos, tal vez debido a una presión creciente sobre estos recursos. Estos yacimientos se sitúan a media altura, en cimas con grandes capacidades de control sobre el medio adyacente, así como situadas en puntos estratégicos como pueden ser las principales vías de comunicación del territorio. De esta forma, los grupos quedaron ligados a la tierra, enraizando así una plena sedentarización (Maya, 1998). Así se estructura una dimensión sociopolítica del paisaje, un patrón de poblamiento clave para entender el poblamiento y estructuración de las sociedades venideras.

En Bizkaia el estudio de estos yacimientos se remonta al siglo XIX (Torregaray 2021[42]), estos primeros trabajos

[42] Torregaray, E. 2021. Los inicios de la arqueología en el País

[42] Torregaray, E. 2021. Los inicios de la arqueología en el País Vasco y Navarra (Del siglo XVI a comienzos del XX). En I. García

oso noizbehinkakoak izan ziren XX. mendeko azken hamarkadetan okupazio horien azterketa sistematizatu zen arte M. Unzueta (1884[43]), L. Valdés (1984[44]) eta C. Olaetxea (1990[45]) egileek egindako lanei esker. Nahiz eta azken urteetan aurrerapauso handiak egin diren barruti horietako batzuetan J.J. Cepedaren eta M. Unzuetaren ardurapean (Cepeda eta Unzueta, 2020[46]) eta denboran zehar bideratutako indusketa proiektu batzuei esker, hala nola Arrolan (Nabarniz) edo Bolunburun (Zalla), oraindik ere argitzeke dauden hainbat arazo planteatzen jarraitzen du lurraldeko Burdin Aroak. Esate baterako, herri gotortuen dentsitate txikia kilometro koadroko, edo Burdin Aroan kokatutako hilarri multzoak jatorrizko herrixkekin duten lotura. Proiektu honen asmoa da azken arazo horri erantzun bat ematea hipotesi honetatik abiaturik: inguruetan hilarriak dituzten aztarnategiak daudenez (Kosnoaga, Berreaga eta Malmasin), hilarri isolatuak dauden lekuetan oraindik aurkitu ez diren herrixkak egon daitezke, eta alderantziz.

Bizkaiko Burdin Aroko hilarriak harrizkoak dira, disko formakoak edo angeluzuzen/trapezoide itxurakoak, eta eguzki, zerrenda eta paraleloan marratutako lerro motiboez dekoratuta daude. Apaingarri mota horiek M. Unzuetak (1994) aztertu zituen, eta lurralde historikoan barrena banatuta aurkitutako hilarrietatik abiatuta dokumentu corpus bat osatu zuen. Hilarri horiek batez ere Urdaibai eskualdean eta inguruetan biltzen dira, hau da, oso modu desberdinean banatzen dira lurraldean. Sakabanaketa horrek elementu horiek biltzen diren eremuen berri ematen digu, eta eremu horiek, indusketa lanetan aurkitutako piezei esker, Burdin Aroko azken uneetan datatu ahal izan dira.

Proiektu honek bi lan ildo nagusi izan ditu, eta horietako bakoitzari begira lan metodologia zehatz bat garatu da. Alde batetik, hilarriak argazkien eta fotogrametriaren bidez dokumentatu dira ohiko erregistro metodoak erabiliz (Charquero, 2016[47]). Prozesu hori Bilboko Arkeologi Museoaren instalazioetan eraman da burura, eta modu osagarrian, hilerri horietako batzuk dauden baseliza asko eta asko bisitatu ditugu (hilarriak hormetan, aldareetan eta abarretan). Hau da, unean uneko baldintzetara egokitu da dokumentazioa. Bestalde, azterlan jakin batzuetan, metodologia ez inbaditzaileak baliatu dira, hala nola LiDAR drone bidezko hegaldiak, prospekzio geofisikoak eta miaketa arkeologikoak. Teknika horiek

Vasco y Navarra (Del siglo XVI a comienzos del XX). Hemen: I. García Camino (koor.), *Sobre espaldas de gigantes, una historia de la arqueología vasca.* Bizkaiko Foru Aldundia/Diputación Foral de Bizkaia, Bilbo.

43 Unzueta, M. 1994. La estela prerromana en Bizkaia. Nuevas aportaciones y ensayo de interpretación histórica. *Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía,* 10. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

44 Valdés, L. 1984. Maruelexako kastroa (Nabarniz): II. indusketa ekinaldia. *Arkeoikuska* 1983: 64-66.

45 Olaetxea, C., Valdés, L. y Peñalver, X. 1990. El Bronce Final y la Edad del Hierro en Gipuzkoa y Bizkaia. *Munibe,* 42: 161-165. Donostia.

46 Cepeda, J. J. eta Unzueta, M. 2020. Poblados fortificados de la Edad del Hierro en Bizkaia. Un balance de la investigación de campo. *Kobie Anejo*, 20: 143-174. Bizkaiko Foru Aldundia/Diputación Foral de Bizkaia, Bilbo.

47 Charquero, A. M. 2016. Prácticas y uso de la fotogrametría digital en Arqueología. *DAMA,* 1: 139-157. Universitat d´Alacant, Alacant.

fueron muy puntuales y no es hasta las últimas décadas del siglo XX cuando se sistematiza el estudio de estas ocupaciones con trabajos como los de M. Unzueta (1994[43]) L. Valdés (1984[44]) o C. Olaetxea (1990[45]). Aunque se ha avanzado mucho en los últimos años con proyectos de excavación sostenidos en el tiempo en algunos de estos recintos, como pueden ser Arrola (Nabarniz) o Bolunburu (Zalla), a cargo de J. J. Cepeda y M. Unzueta (Cepeda y Unzueta 2020[46]), lo cierto es que la Edad del Hierro del territorio continua planteando una serie de problemáticas aún por ser resueltas. Problemáticas como la baja densidad de poblados fortificados por kilómetro cuadrado o la relación del conjunto de estelas adscritas a la Edad del Hierro con sus poblados de origen. El presente proyecto pretende dar respuesta a esta última problemática partiendo de la siguiente hipótesis: dado que existen yacimientos con estelas en sus inmediaciones (Kosnoaga, Berreaga o Malmasin), allí donde existan estelas aisladas podrían hallarse poblados aún no descubiertos y viceversa.

Las estelas de la Edad del Hierro de Bizkaia son elementos pétreos discoidales o rectangulares-trapezoidales, decoradas con elementos solares, bandas y líneas incisas paralelas. Estos tipos decorativos fueron estudiados por M. Unzueta (1994), quien elaboró un corpus documental a partir de la localización de nuevas estelas repartidas en el territorio histórico. Estos emplazamientos se sitúan principalmente en la comarca de Urdaibai y en sus proximidades, es decir se distribuyen de manera muy desigual en el territorio. Esta dispersión nos da cuenta de las áreas de concentración de estos elementos, áreas en las que gracias al hallazgo en excavaciones de estas piezas se han fechado en los últimos compases de la Edad del Hierro.

Este proyecto ha tenido dos líneas principales de trabajo, desarrollando para cada una de ellas una metodología de trabajo concreta. Por un lado, la documentación de las estelas se ha llevado a cabo fotográfica y fotogramétricamente utilizando los métodos de registro más habituales (Charquero 2016[47]). Este proceso se ha llevado a cabo en las instalaciones del Arkeologi Museoa de Bilbo, así como visitando las múltiples ermitas en las que se encuentran ubicadas algunas de las estelas (en paredes, altares, etc.). Es decir, la documentación se ha adaptado a las condiciones existentes en cada momento. Por otro lado, en los casos concretos de estudio se han desplegado diversas metodologías no invasivas, como son los vuelos dron LIDAR, las pros-

Camino (coord.), *Sobre espaldas de gigantes, una historia de la arqueología vasca.* Bizkaiako Foru Aldundia/Diputación Foral de Bizkaia, Bilbo.

43 Unzueta, M. 1994. La estela prerromana en Bizkaia. Nuevas aportaciones y ensayo de interpretación histórica. *Cuadernos de Sección. Antropología-Etnografía,* 10. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

44 Valdes, L. 1984. Castro de Marueleza (Nabarniz): III campaña de excavaciones. Arkeoikuska 1983: 64-66.

45 Olaetxea, C., Valdés, L. y Peñalver, X. 1990. El Bronce Final y la Edad del Hierro en Gipuzkoa y Bizkaia. *Munibe,* 42: 161-165. Donostia.

46 Cepeda, J. J. y Unzueta, M. 2020. Poblados fortificados de la Edad del Hierro en Bizkaia. Un balance de la investigación de campo. *Kobie Anejo*, 20: 143-174. Bizkaiako Foru Aldundia/Diputación Foral de Bizkaia, Bilbo.

47 Charquero, A. M. 2016. Prácticas y uso de la fotogrametría digital en Arqueología. *DAMA,* 1: 139-157. Universitat d´Alacant, Alacant.

aukera eman dute datu bolumen handi bat lortzeko aztarnategien izaera aldatu gabe. Jarraian, labur-labur azalduko ditugu datu horiek.

Hilarrien dokumentazioa

Hala, eremu horretan hiru geruza beheratu ditugu, eta aldameneko laukien (etxebizitzen eremua) antzeko estratigrafia dutela egiaztatu dugu. Triasikoko harehar-rizko lauzak agertu dira, tamaina handikoak, aldameneko harresiaren barrualdeko horma atalaren antzekoak, egitura horrek behea jotzean sortutako hondakinak 13W laukian.

Hasierako geruza horietan, etxebizitzen eremu lauan gertatu zen bezala, material garrantzitsua agertu da. Haien artean aipatzekoak dira brontzezko pieza batzuk, apaingarriak (fibulak eta belarritakoa).

13V laukia, hura zabaltzea eta forma zirkularreko hondakinak

Oraingoz zehaztu gabeko bi hondakin agertu ondoren (testura gogortukoak eta metro erdiko diametrokoak) aurreko kanpainetan induskatutako 13V laukiaren eremuan (induskatutako eremuaren hegoaldeko ertzaren mugan), 13W alboko laukira zabaldu dugu indusketa. Hori dela eta, 13V lauki osoan esku hartu dugu, bi egitura zirkular horiek argitzeko, bai eta pistaren ondoko eremua ere, herrixkarako sarbide zaharretako bat izango zena agian.

Gainazaleko mailak kendu ondoren, zeramikazko hondakin bakan batzuk agertu dira. Horiez gain, aipatzekoa da, harri lerrokadura bat agertu dela laukiaren mendebaldeko mugan, harriak itxuraz ondo antolatuak, iparraldetik hegoalderako norabidean, hormaren batekoak izan daitezkeenak.

Georradar bidez egindako azterketa osatzeko lanak, harresiaren lotura zehazteko herriguneko bi indusketa eremuen artean, ekialdeko terrazan.

Herrigunean sartzeko bidearen mugakide diren eremuetan defentsa lerroaren trazadura zehazteko eta barrutira sartzeko balizko puntu bat baieztatu ahal izateko, bi jarduera egin ziren 2020ko kanpainan: georradar bidezko azterketa, lurpean ezkutatutako eremuetako trazadura zehazteko, eta esku hartzea indusketaren amaieratik 13W/14W laukietan (harresiarenak), horietan argi eta garbi zehaztuta baitago bai barruko eta kanpoko horma ataletan bai betelanean, herrigunean ekialdetik sartzeko egungo pistaraino doan eremuan.

Harresi lerroa, herrigunearen ekialdeko terrazatik duen ibilbidean, hainbat fasetan induskatu genuen aztarnategira ekialdetik igotzen den pistaren bi aldeetan (iparraldean eta hegoaldean). Hala ere, induskatutako bi muturren arteko ibilbidea oso kota desberdinetan dago, eta horrek esan nahi du egiturak haustura bat izan dezakeela eremu horretan, eta horrek zerikusia izan lezake barrutirako sarbide batekin.

Horregatik, lurzoruaren azterketa egitea erabaki genuen, defentsa egituraren trazadura zehazteko, eremu horretan induskatze lanik egin beharrik gabe.

tradas al mismo, se han realizado en la campaña precedente diferentes intervenciones que de momento no han permitido esclarecer ninguna de las dudas.

En esta campaña se ha optado por ampliar la zona de excavación en la franja que va desde donde se conoce el desarrollo de la muralla hasta la pista actual, es decir, el cuadro correspondiente al 13W.

Así, se han rebajado tres lechos en esa zona, constatándose una estratigrafía similar a la de los cuadros adjuntos (zona de viviendas), apareciendo lajas de arenisca triásica de considerable tamaño, similares a las del lienzo interior de la muralla en la zona adyacente, y correspondientes al derrumbe de esta estructura en el cuadro 13W.

En estos lechos iniciales han aparecido, al igual que sucediera en la zona llana de viviendas, material significativo, destacando algunas piezas de bronce correspondientes a adornos (fíbulas y pendiente).

El cuadro 13V, su ampliación y los restos de forma circular

La aparición de dos restos indeterminados de momento, de textura endurecida de medio metro de diámetro en la zona del cuadro 13V excavado en campañas previas (lindando con el cantil sur del área excavada) y la ampliación de la excavación del cuadro contiguo 13W, nos ha llevado a intervenir en la totalidad del cuadro 13V con el fin de esclarecer estas dos estructuras circulares así como el área colindante a la pista y tal vez, uno de los posibles accesos antiguos al poblado.

Tras rebajar los niveles superficiales con la aparición de algunos restos cerámicos aislados, destaca el hallazgo en el límite oeste del cuadro, de una alineación de piedras aparentemente bien ordenadas, con dirección norte-sur, y que pudieran corresponder a algún tipo de muro.

Trabajos de complemento al estudio de georradar para determinar la conexión de la muralla entre las dos áreas de excavación del poblado en la terraza este

Con el fin de determinar el trazado de la línea defensiva en las zonas colindantes al camino de acceso al poblado y poder confirmar un posible punto de acceso al recinto, se realizaron en la campaña de 2020 dos actuaciones: la realización de un estudio de georradar para definir el trazado en las zonas ocultas bajo la tierra y una intervención en la zona que va desde el final de la excavación en los cuadros 13W/14W (de la muralla), en donde se encuentra claramente definida tanto en sus lienzos interior y exterior y en su relleno, hasta la pista actual de acceso al poblado por el lado este.

La línea de muralla en su recorrido por la terraza este del poblado fue excavada en distintas fases a ambos lados (norte y sur) de la pista que asciende al yacimiento por el lado este. Sin embargo, la trayectoria entre ambos extremos excavados se sitúa en cotas considerablemente distintas, indicando un posible quiebro de la estructura en esa zona, algo que pudiera tener que ver con una posible entrada al recinto.

Es por ello que se decidió llevar a cabo un estudio del terreno con el fin de determinar el trazado de la estructura defensiva sin necesidad de realizar trabajos de excavación en esa zona.



Basagaingo herrigunean burdinazko pieza bat ateratzen 2022ko kanpainan.

Extracción de una pieza de hierro en el poblado de Basagain durante la campaña de 2022.

Landa lan horietan ikusi da harri metaketa bat egon daitekeela norabide jakin batean eta horrek esan nahiko luke defentsa nabarmen desbideratzen dela.

Kanpaina honetan zenbait esku hartze egin ditugu georradarraren emaitzak alderatzeko.

Lehenengoa, aurreko ataletan adierazitakoa, 13V eta 13W laukietan egindako handitzeari dagokio, harresiaren trazadura zuzenean zehaztu ahal izateko Basagainen sartzeko egungo pistaraino.

Bigarren esku hartzea izan da bi indusketa egitea hegoaldeko eremuan dagoen harresiaren inguruan. Helburua zen eremu horretan zuen trazadura aurkitzea eta iparraldean jada induskatutako harresiaren beste zatiarekin nola lotzen zen jakitea.

Horretarako, pistaren ertza induskatu-altxatu dugu, pistara bertara zabaldu ditugu lanak 3,70 x 1,70 m-ko azaleran. Bestalde, 8 x 1 metroko lubakia induskatu dugu egitura edo haren behea jotako hondakinak aurkitzeko.

Bi esku hartze horietan ez da argi geratu harresiaren presentzia edo erorketa, eta are zalantza gehiago sortu zaizkigu egiturak eremu horretan izango zuen trazadurari buruz.

Materialak

Kanpaina honetan aurkitutako material arkeologikoak hainbat motakoak dira, baina zeramikazkoak (eskuz eta tornuan landuak) dira nagusi. Harrizko materialak leuntzaileak eta kolpekariak dira batez ere, eta marka zuzenak grabatuta dituen harlauzaren bat ere aurkitu dugu.

Zepa hondakin ugari agertu dira. Era berean, burdinazko piezen hondakinak ere badira; horien artean nabarmentzekoa da hagaxka bat, 70 zentimetro inguruko luzera duena, aztertzen ari dena. ***Clavi caligae*** bat ere agertu da. Brontzean, berriz, bi fibularen eta eraztun baten hondakinak aurkitu ditugu.

Ondarea hedatzea

Aurreko urteetan bezala, indusketa orduetan bisita ugari egin dira aztarnategira, batez ere Oria haraneko hainbat eskualdetako ikastoletako haurrek, bai eta helduek ere. Bisita horiek guztiak, Anoetako Udalak koordinatuak, indusketa taldeko kideren batek gidatu ditu.

Aurreko kanpainetan bezala, arreta eman diegu indusketa kanpainan aztarnategira joan diren eskualdeko eta herrialdeko hainbat komunikabideri.

Estos trabajos de campo han ofrecido una visión de una posible concentración de piedra en una determinada dirección que pudiera corresponder con un notable desvío de la defensa.

En la presente campaña se han realizado algunas intervenciones para contrastar los resultados del georradar.

La primera, ya señalada en apartados anteriores, se refiere a la ampliación llevada a cabo en los cuadros 13V y 13W con la intención de definir directamente el trazado de la muralla hasta la pista actual de acceso a Basagain.

La segunda ha consistido en sendas excavaciones en la zona de la muralla situada en el área sur. El objetivo era la localización del trazado en esa zona y ver la forma de confluir con la otra parte de la muralla ya excavada en el norte.

Para ello se re realizado una excavación-reavivado del cantil de la pista ampliando los trabajos a la propia pista en una superficie de 3,70 x 1,70 m, y por otra parte se ha realizado la excavación de una trinchera de 8 x 1 metro para localizar la estructura o su derrumbe.

En ninguna de las dos intervenciones ha quedado clara la presencia de la muralla o su derrumbe, planteando más dudas sobre el trazado de la estructura en esa zona.

Los materiales

Los restos arqueológicos hallados en la presente campaña pertenecen a distintos tipos, predominando los cerámicos (a mano y a torno). Los de tipo lítico son principalmente alisadores y percutores, habiéndose hallado alguna laja con marcas rectilíneas grabadas.

Los restos de escoria han sido muy frecuentes. Son asimismo varios los restos de piezas de hierro, destacando la varilla de en torno a 70 centímetros de longitud, en curso de estudio. Aparece igualmente un *clavi caligae.* En bronce se han hallado restos de dos fíbulas y un anillo.

Difusión del patrimonio

Como en los años anteriores, las visitas al yacimiento durante las horas de excavación han sido abundantes, principalmente de niños de las ikastolas de varias zonas del valle del Oria, así como de adultos. Todas estas visitas, coordinadas por el ayuntamiento de Anoeta, han sido guiadas por algún miembro del equipo de excavación.

Al igual que en campañas precedentes se ha atendido a diversos medios de comunicación de la comarca y del herrialde que han acudido al yacimiento durante la campaña de excavación.

X. Peñalver; E. Uribarri

C.5. ARAMA

C.5.1. Apaizetxea. Arama plaza, 7

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Aramako Udala

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with San Martin de Tours Church in Arama.

Bost zundaketa egin genituen esku hartze honetan: hiru elizari itsatsita dagoen pilotalekuan (2,50 m x 1,00 m-koak, batez beste); bat Apaizetxearen barruan (0,80 m x 0,80 m-koa) eta azkena eraikinaren atzealdean (3,00 m x 1,00 m-koa). Emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik. Eremuaren gainerakoa etorkizunean ebaluatzeko geratu da.

Z. Galan Zumeta

C.5.1. Apaizetxea. Arama plaza, 7

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Ayuntamiento de Arama

Intervención desarrollada en base a un cinco sondeos, tres en el frontón pegante a la iglesia de 2,50 m x 1,00 m de media; uno en el interior de Apaizetxea de 0,80 m x 0,80 m y el último en la trasera de la edificación de 3, 00 m x 1,00 m , siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto del área.

C.6. ARRASATE

C.6.1. San Prudentzio presa, Deba ibaian

Zuzendaritza: Ander Arrese
Dirulaguntza emailea: Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Ukituriko azalera osoan egin zen kontrol arkeologikoa, baina emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik.

A. Arrese

C.6.1. Presa de San Prudencio, en el río Deba

Dirección: Ander Arrese
Subvención: Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas. Diputación Foral de Gipuzkoa

Control arqueológico realizado en toda la superficie afectada siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico.

C.7. AZPEITIA

C.7.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.7.1.1. Elizkale, 24-26 eta 28

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Azpeitia Berritzen S.L.

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the medieval town of Azpeitia.

Orubearen azalera osoa hartu zuen esku hartze arkeologikoak. Agortu egin genuen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukera oro, emaitzak edo oso balio eskasekoak izan baitziren edo ez baitzuten inolako interes historiko-arkeologikorik.

Z. Galan Zumeta

C.7.1.1. Elizkale, 24-26 y 28

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Azpeitia Berritzen S.L.

Intervención desarrollada en toda la extensión del solar, agotando la posibilidad de nueva investigación sobre éste, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

C.7.1.2. **Perez Arregi plaza, 1**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Azpeitiko Udala

C.7.1.2. **Plaza Pérez Arregi, 1**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Ayuntamiento de Azpeitia

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the medieval town of Azpeitia.

Perez Arregi plazako 1. zenbakiko orubea Azpeitiko hirigune historikoan dago, eta bertan Azpeitiko Udalak hainbat obra egin ditu eraikina eraberritzeko eta birmoldatzeko.

Gaur egungo eraikina, Telefonica izenez ezagutzen dena, 1925-1926 inguruan eraiki zuten, Bikuña jauregi zaharraren (Altzagatarren leinuak eraikia XVI. mendean) hondarren gainean, eta herriko eraikin zibil nagusietako bat da. Garrantzi handiko posizioa zuen garai bateko Santa Ana plazaren aurrean (egungo plazaren ernamuina) eta Beheko Atariaren ondoan, bertatik iristen baitziren produktuak kostaldeko herrietatik. Egungo plaza 1925. urtearen inguruan sortu zen, eta erabat aldatu zen espazio hura (atari zaharra eta harresiak eraitsi ziren, beste zubi bat eraiki zen trenbideko geltokiarekin lotzeko, eta jauregia eraitsi eta egungo trazarekin berreraiki zen).

Lan arkeologikoak, funtsean, izan dira egungo zolata kentzea eta hainbat azpiegitura prestatzea (elektrizitatea, saneamendua, etab.), bai eta igogailurako zulo berria irekitzea ere. Erregistratutako depositu arkeologikoa soila eta pobrea da, aspaldi ez dela (XX. mendearen bigarren erdialdean) egindako lur iraultzeen ondorioz batez ere. Bikuña jauregi zaharrarekin lotura duen ebidentzia bakarra orubearen hego-ekialdeko muturrean erregistratutako bi horma hondakin txiki dira (09. eta 10. UEak). Erregistratutako lagina oso txikia denez, ezin da haren funtzionaltasunari eta kronotipologiari buruzko ondoriorik atera, baina argi ikusten da ez duela inolako loturarik kokaleku horretan altxatutako eraikinaren egungo egiturarekin. Datu hori berretsi egin da, halaber, erabat desegina eta suntsitua dagoelako, egungo kronologia duten gainazaleko betegarrien azpian dagoen kotan.

El solar de Plaza Perez Arregi nº 1 se dispone en pleno Casco Histórico de Azpeitia, donde el consistorio azpeitiarra ha abordado una serie de obras para la reforma y remodelación del inmueble.

La actual edificación, conocida como edificio Telefónica, fue erigida en torno a 1925-1926 sobre las ruinas del antiguo Palacio de Bikuña (erigido por el linaje de los Altzaga en el s XVI), siendo una de las principales construcciones civiles de la población. Ocupaba una posición de gran relevancia frente a la antigua Plaza de Santa Ana (germen de la actual Plaza) y junto al Portal de Abajo, a través del cual llegaban los productos desde las localidades costeras. La gestación de la actual Plaza se llevó a cabo hacia 1925 transformando completamente este espacio (derribo del antiguo portal y las murallas, apertura de un nuevo puente para conectar con la estación del FFCC y demolición del palacio y su reconstrucción con su actual traza).

Los trabajos arqueológicos han consistido básicamente en la retirada de la actual solera y la habilitación de distintas infraestructuras (electricidad, saneamiento, etc.), así como la apertura del nuevo foso para el ascensor. El depósito arqueológico registrado se caracteriza por su sencillez y pobreza, fruto básicamente de las remociones operadas en tiempos recientes (segunda mitad del siglo XX). La única evidencia relacionada presumiblemente con el antiguo Palacio Bikuña son dos pequeños restos de muros registrados en el extremo SE del solar (UUEE 09 y 10). Lo reducido de la muestra registrada impide obtener conclusiones respecto a su funcionalidad y cronotipología, si bien se observa claramente que no presenta relación alguna con la actual estructura del edificio levantado en este emplazamiento. Un dato que viene ratificado asimismo por el hecho de encontrarse totalmente desmantelado y arrasado a una cota por debajo de los rellenos superficiales de cronología actual.

A. Moraza Barea

C.7.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.7.2.1. **Asurtzu 4**

Zuzendaritza: Izaro Quevedo-Semperena
Finantzazioa: Azpeitiko Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.7.2.1. **Asurtzu 4**

Dirección: Izaro Quevedo-Semperena
Financiación: Ayuntamiento de Azpeitia; Diputación Foral de Gipuzkoa

After gathering all the information brought to light during previous seasons and interpreting it during 2021, in 2022 we initiated an excavation project in the area with the aim of confirming the existence (or absence) of prior occupation.

Duela urte batzuetatik hona, Antxieta taldea jarduera arkeologikoa egiten ari da Izarraitz mendigune osoan, eta hainbat zundaketa arkeologiko egin ditu. 2021ean aztarnategiarekin lehen kontaktua izan ondoren eta lehenengo kanpainetako datuak ikertzeko modu berrira egokitutakoan, 2022an beste modu bat planteatu da

Desde hace varios años, el grupo Antxieta viene desarrollando una actividad arqueológica en todo el macizo de Izarraitz, que ha consistido en la realización de varios sondeos arqueológicos. Tras el primer contacto con el yacimiento durante el año 2021 y la adecuación de los datos existentes de las primeras campañas a la

aztarnategia eta, ondorioz, bertako biztanleak hobeto ezagutzeko beharrezkoa den testuinguru informazioa lortzeko.

Esku hartze arkeologiko honen helburua da Brontze Aroan Asurtzu aztarnategian izandako okupazioa egiaztatzea eta haren kronologiaren ezagutza osatzea hurbileko lurralde testuinguruan, informazio berria eman dezaketen datu eta material berriak emanez.

Horretarako, 2021ean egindako lan topografikoen ondoren, bi esku hartze eremu hautatu ditugu. Alde batetik, indusketa eremu nagusia, 14x4 metrokoa; interes handiko errekuntza egitura bat dago bertan, Antxieta Taldeak bere garaian 1x1 metroko kata baten bidez identifikatu zuena. Egitura horrek erakusten zuen, alde batetik, biztanleek ezarlekuren bat izan zutela inguruan, baina, aldi berean, kataren izkina batean egoteak ez zuen informaziorik ematen C14 bidezko dataziotik haratago. Horregatik, 2022ko kanpainaren helburu nagusietako bat izan da kataren inguruko eremua irekitzea, haren kotara iritsi arte (1,55 metroko sakonera, gutxi gorabehera), agertutako egitura eta haren goiko mailak ulertu ahal izateko. Bestalde, bigarren zundaketa bat egin dugu, 2 x 1,5 metrokoa, eta, horrela, intereseko eremu osoa hartu dugu.

Indusketa eremu nagusia

Sedimentuz betetako dolina zabal baten hondoan dago eremu hori. Itxitura antzeko batek mugatzen du dolina, berezko azaleramendu baten bidez ipar-ekialdeko sektorean eta harrizko horma antropiko baten bidez hego-ekialdean. Antxieta taldeak emandako emaitza positiboengatik, jada aipatu direnak, interesgarria izateaz gain, lurraren geologiagatik ere interesgarria da. Hondo zabaleko sakonune handi baten hondoan dagoenez, leku egokia izango litzateke ezarleku gisa erabiltzeko, eta, aldi berean, material arkeologikoetan aberatsa izan liteke, lur gaineko isurketek leku horretara eramandako sedimentazio tasa handia dela eta.

Hasiera batean, 24 x 30 metroko indusketa unitatea marraztu genuen, eta UEen araberako erregistro sistema aplikatu genuen, Harris sistemari jarraituz. Mugatutako eremu osoan azaleko zenbait geruza altxatu ondoren, egiaztatu ahal izan genuen erdigunera mugatzen zela ebidentzia arkeologiko gehiena, Antxieta Taldeak egindako laukiaren inguruan, urte batzuk lehenago errekuntza egitura agertu zen eremuan, hain zuzen ere. Hori egiaztatu ondoren, erdiko lauki horren inguruneetara murrizten hasi ginen indusketa eremua.

Indusketa amaitu ondoren, 52 unitate estratigrafiko identifikatu genituen; haietako batzuk abandonu horizonteak izango ziren eta beste batzuk, berriz, ekintza antropikoak, hala nola 39. UE. Unitate estratigrafiko hori hobi bat da, eta behiaren familiako azienda bat sartu zuten han. Erradiokarbono bidez datatzeko prozesuan dago une honetan.

Lehen UEen azpian, berreskuratutako material arkeologikoaren arabera, hainbat jarduera eremu edo antzinako lurzoru agertu ziren, inguru horretan izandako Brontze Aroaren hasierarekin bat datozenak. Era berean, ustezko okupazio eremu bat erregistratu ahal izan

nueva forma de investigar, durante el 2022 se ha planteado otra forma de obtener la información contextual necesaria para conocer más a fondo el yacimiento, y, por ende, sus pobladores.

El objetivo de esta intervención arqueológica es verificar la ocupación durante la Edad de Bronce en el yacimiento de Asurtzu y completar el conocimiento de su cronología en un contexto territorial próximo aportando nuevos datos y materiales que puedan arrojar nueva información.

Para ello y tras los trabajos topográficos llevados a cabo en 2021, se han seleccionado dos áreas de intervención. Por un lado, un área de excavación principal de 14x4 metros en el que se encuentra integrada una estructura de combustión de gran interés que el Grupo Antxieta identificó en su momento mediante una cata de 1x1 metros. Se trata de una estructura que por un lado demostraba que los pobladores tenían algún tipo de asentamiento en la zona, pero a la vez su presencia, en una esquina de la cata, no aportaba información más allá de la datación de C14 que se obtuvo de la misma. Es por ello por lo que uno de los objetivos principales de la campaña 2022 ha sido abrir el área de alrededor de la cata hasta llegar a su cota (1,55 metros de profundidad aproximadamente) para poder comprender la estructura aparecida y los niveles superiores de la misma. Por otro lado, se ha realizado un segundo sondeo con una dimensión de 2 x 1,5 metros abarcando así la totalidad de la zona de interés.

Área de excavación principal

Se trata de un área que se localiza en el fondo de una amplia dolina rellena de sedimento que se encuentra delimitada por una especie de cercado mediante un afloramiento natural en su sector noreste y por un murete antrópico de piedras en el sureste. Además de ser interesante por los resultados positivos arrojados por el grupo Antxieta, ya comentados, lo es también por la propia geología del terreno. Al localizarse en el fondo de una importante depresión de fondo amplio, se trataría de un lugar idóneo para el asentamiento a la vez que podría resultar rico en materiales arqueológicos a causa de la alta tasa de sedimentación que aportan las escorrentías superficiales hacia ese lugar.

En un principio dibujamos una unidad de excavación de 24 x 30 m donde aplicamos un sistema de registro por UUEE siguiendo el sistema Harris. Tras varios levantamientos superficiales de toda el área acotada, pudimos comprobar que la mayor parte de la evidencia arqueológica se circunscribía a la zona central en torno al cuadro realizado por los Antxieta donde había aparecido la estructura de combustión años atrás. A partir de esta constatación comenzamos a reducir el área de excavación precisamente a los entornos de este cuadro central.

Una vez concluida la excavación, se identificaron 52 unidades estratigráficas; algunas serían horizontes de abandono y otras acciones antrópicas como la UE 39 que se corresponde con una fosa donde se depositó un bóvido en proceso de datación radiocarbónica en estos momentos.

Bajo las primeras UUEE aparecieron, a juzgar por el material arqueológico recuperado, varias zonas de actividad o suelos antiguos que se corresponden con los inicios de la edad del Bronce en la zona. Igualmente pudimos registrar una posible área de ocupación compuesta por varios agujeros de poste [UE 6], tres pequeñas es-

genuen, honako hauek zituena: zutoin-zuloak [6. UE], hiru egitura txiki gorrituak, forma irregularrekoak oinplanoan eta nahiko ondo kontserbatuak [29., 40. eta 41. UE], lurzoru maila bat zeramikak in situ zituena (37. UE), eta errekuntza egitura bat [47. UE], osoa eta berezia. Elementu hori arkeomagnetismoaren ikuspegitik aztertzen ari dira une honetan.

Aurreratu dezakegun emaitza interesgarrienetako bat da, oraindik datazio absolutu berrien faltan, Antxieta Taldeak lortutako garai bateko datak testuinguruan kokatzea, Azpeitiko Udalak finantzatuak. Izan ere, ez dugu uste oker gabiltzanik baieztatzen badugu errekuntza egituraren ondoan, 4. UEren azpian eta 1,50 metroko sakoneran, lortutako 2.621-2.468 cal BC data kanpai formako zeramiken etapa betean koka dezakegula, eta, Brontze Aroaren hasierara garamatzaten tipologiako zeramika mailen (zoruen) azpian dago, hain zuzen ere. Era berean, esan dezakegu, sektore horretan -0,50 zentimetrotik behera, historiaurreko mailak ditugula, aurrez datatuak 1516/1401 cal BC datan.

Laburbilduz, honako korrelazio hau ezar genezake gure esku hartzean ateratako mailen eta Antxieta Taldeak aztarnategian egindako aurreko esku hartzeetan lortutako datazioen artean:

tructuras rubefactadas de forma irregular en planta y relativamente bien conservadas [UE 29, 40 y 41], un nivel de suelo con cerámicas in situ (UE 37), y una estructura de combustión [UE 47] completa y peculiar cuyo análisis desde el punto de vista del arqueomagnetismo se encuentra en proceso en estos momentos.

Uno de los resultados más interesantes que podemos adelantar, a falta todavía de nuevas dataciones absolutas, es la contextualización de las antiguas fechas obtenidas por el Grupo Antxieta, financiadas por el Excmo. Ayuntamiento de Azpeitia. En efecto, creemos no equivocarnos si afirmamos que la fecha del 2.621-2.468 cal BC obtenida junto a la estructura de combustión, bajo la UE 4 y a 1,50 metros de profundidad podemos situarla en plena etapa campaniforme y, en efecto, se encuentra por debajo de los niveles (suelos) de cerámicas cuya tipología nos llevan a los iniciaos de la Edad del Bronce. Igualmente podemos asegurar que a partir de -0,50 centímetros en ese sector, nos hallamos ante niveles ya prehistóricos que habían sido fechados con anterioridad en el 1516/1401 cal BC.

En suma, podríamos establecer la siguiente correlación entre los niveles exhumados durante nuestra intervención con las dataciones obtenidas por el Grupo Antxieta en anteriores intervenciones en el yacimiento:

Asurtzu 4.1 UE **UE Asurtzu 4.1**	**Datazioa** **Datación**	**2022ko indusketa UE** **UE Excavación 2022**	**Deskribapena** **Descripción**
3. UEren goiko eremua Zona superior UE 3	1401-1516 cal BC bi sigman 1401-1516 cal BC a dos sigma	24. UEren hasiera Inicio UE 24	Zutoin zuloak izan daitezkeenen barrualdea [6] Zona interior de los posibles agujeros de poste [6]
3. UEren azpiko eremua Zona inferior UE 3	2290-2047 cal BC bi sigman 2290-2047 cal BC a dos sigma	37. UEren goiko aldea Parte superior UE 37	Erabilera maila, zeramikak in situ dituena Nivel de uso con cerámicas in situ
4. UE UE 4	2621-2468 cal BC bi sigman 2621-2468 cal BC a dos sigma	37. UEren beheko aldea Parte inferior UE 37	Errekuntza egitura estaltzen [47] Cubriendo a la estructura de combustión [47]

Zundaketa

Indusketa unitate handi horrekin batera, zundaketa arkeologiko bat ere egin genuen, dolina babesten duten horma artifizialetako batetik gertuko muino baten azpian ezkutatzen zen ebidentzia arkeologikoa ezagutzeko. Egia esan, oso interesgarria izan zen zundaketa horren indusketa, gainazaleko mailek erakutsi baitzuten harrizko etxolaren bat zegoela, nahiko hondatua (hortik dator gainazalean ikusten zen muino txikia). Haren hormak, lausoki ikusten baziren ere, ia desagertuak ziren. Lehen maila horietan material moderno/garaikide interesgarriak berreskuratu genituen, hala nola fusil harri bat, Donostian zegoen fabrika batetik etorria segur aski, eta aurrekargako fusilen berunezko hainbat jaurtigai, Gerra Karlistetan erabili zirenak seguruenik.

Azaleko maila horien azpian, eta kanpainaren azken egunetan, historiaurreko mailara iritsi ginen (44. UE). Bertan, zeramikazko material arkeologikoaren dentsitate handia erregistratu genuen, bai eta brontzezko orratz bat ere. CSICeko Ignacio Montero doktoreak egindako berunezko isotopoen analisiari esker, ondoriozta dezakegu minerala mendilerroaren inguruetatik etorriko li-

Sondeo

Junto a esta gran unidad de excavación realizamos también un sondeo arqueológico para intentar conocer la evidencia arqueológica que se ocultaba bajo un promontorio cercano a uno de los muros artificiales que protegen la dolina. Ciertamente la excavación de este sondeo resultó muy interesante pues los niveles superficiales depararon la existencia de algún tipo de cabaña pétrea bastante deteriorada (de ahí el ligero promontorio que se observaba en superficie), cuyos muros, aunque se atisbaban, se encontraban prácticamente desaparecidos. En estos primeros niveles recuperamos interesantes materiales modernos/contemporáneos como una piedra de fusil posiblemente proveniente de una fábrica ubicada en Donosti y varios proyectiles de plomo de fusiles de avancarga utilizados, también probablemente, durante las Guerras Carlistas.

Bajo estos niveles superficiales, y en los últimos días de campaña, se llegó al nivel propiamente prehistórico (UE 44), donde registramos una más que notable densidad de material arqueológico cerámico junto a una aguja de bronce. El análisis de isótopos de plomo, realizados por el Dr. Ignacio Montero del CSIC, nos permite concluir

tzatekeela, eta, nolanahi ere, hurbil samar dagoen eremu batetik. Emaitza berberak atera ziren Antxieta Taldeak aurreko kanpainetan eremu horretatik hurbil samar egindako zundaketan berreskuratutako buru biribileko orratzaren analisitik.

Horrekin, eta etorkizunean analisi arkeologikoak eta testuinguru azterketak egiteko zain, esan dezakegu ibilbide kronologiko luzeko aire zabaleko kokalekua izan zitekeela Asurtzu 4 aztarnategia. Neolitoaren amaieran hasiko ziren erabiltzen, eta okupazio handiagoa edo garrantzitsuagoa izango zuen Brontze Aroan zehar eta Burdin Aroaren hasieran.

Azterketa prozesuan dauden datuek lagunduko dute, zalantzarik gabe, Donostiako historiaurrearen fase horiek testuinguruan kokatzen, apalago irudikatua Haltzerreka (Idiazabal) eta San Adriango tunela (Zegama) bezalako aztarnategiek.

que la procedencia del mineral sería de las inmediaciones de la sierra y en todo caso de una zona relativamente cercana. Los mismos resultados se extrajeron del análisis de un alfiler de cabeza enrollada recuperado por el Grupo Antxieta en campañas anteriores en un sondeo relativamente próximo.

Con ello, y a falta de futuros análisis arqueográficos y contextuales, podemos indicar que el yacimiento de Asurtzu 4 podría haber sido un asentamiento al aire libre de larga trayectoria cronológica cuyos inicios se situarían a finales del Neolítico con una ocupación más densa o importante a lo largo de la Edad del Bronce e inicios de la Edad del Hierro.

Los datos en proceso de estudio no dudamos que ayudarán a contextualizar estas fases de la prehistoria donostiarra, representada, más modestamente, por yacimientos como Haltzerreka (Idiazabal) y el Túnel de San Adrian (Zegama).

I. Quevedo-Semperena M. Ángel Rojo Guerra

C.7.2.2. **Madalenako baseliza. Ingurua**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Azpeitiko Udala

C.7.2.2. **Ermita de la Magdalena. Entorno**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Ayuntamiento de Azpeitia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Lan arkeologikoak Madalenako baselizaren inguruan egin dira, Azpeitiko Hirigune Historikoaren inguruetan. Eremu horretan eraberritze eta urbanizazio obra batzuk egin behar zituztelako egin dira lan horiek.

Kontrol lan horiek ez dute hondakin arkeologiko garrantzitsurik identifikatzeko aukerarik eman, depositua erabat suntsitua baitago.

Los trabajos arqueológicos se han desarrollado en el entorno de la Ermita de La Magdalena, en las proximidades del Casco Histórico de Azpeitia. Trabajos realizados con ocasión de las obras de reforma y urbanización a realizar en esa zona.

El control no ha permitido identificar restos arqueológicos de relevancia encontrándose el depósito totalmente arrasado.

A. Moraza Barea

C.8. BELAUNTZA

C.8.1. **Egozkozabal baserria**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantzazioa: Jabeak finantzatua

C.8.1. **Caserío Egozkozabal**

Dirección: Ander Arrese
Financiación: Propiedad

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Ukituriko azalera osoan egin zen kontrol arkeologikoa, baina emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik.

Control arqueológico realizado en toda la superficie afectada siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico.

A. Arrese

C.9. BERGARA

C.9.1. Kurutzebakar trikuharria

Zuzendaritza: Jesus Tapia Sagarna
Finantzazioa: BEGEGESA; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.9.1. Dolmen Kurutzebakar

Dirección: Jesus Tapia Sagarna
Financiación: BEGEGESA; Diputación Foral de Gipuzkoa

The excavation of the Kurutzebakar dolmen (Bergara) enabled us to document several holes dug to support the orthostats of the original funerary chamber, which no longer exists. Diverse material elements were also recovered. Moreover, a soil pit dug a few metres from the dolmen revealed the presence of a small cist, which we have named Kurutzebakar II.

Kurutzebakar trikuharria izen bereko gailurraren ondoan dago, Soraluze eta Bergara udalerrien artean. 1921ean aurkitu zuen Barandiaranek, eta urte hartan bertan induskatu zuten Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenek. Emaitza gisa, harri kristal bat, fusil harri bat eta aurrekargako bala esferiko bat besterik ez ziren berreskuratu. Monumentuan ez zen hilobi ganberako lauzarik identifikatu, eta 10 metroko diametroa eta 0,80 metroko altuera zuen tumulu bat besterik ez zen ageri, erdian arpilatze krater handi bat zuena.

Indusketa lan hauetan tumulua estaltzen duen landaredia garbitu dugu, eta erdiko kraterra betetzen duten sedimentuak modu ordenatuan altxa ditugu, bertan baitzegoen, hasiera batean, hileta ganbera. Behea jotako eta betelaneko deposituak induskatu ditugu harri amara iritsi arte, eta, horri esker, hainbat hobi identifikatu ahal izan oinarrian zulatuak. Hobi horietako bat identifikatu zuten Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenek, eta aurreko txikizioen eta arpilatzeen ondorioz sortua zela interpretatu zuten. Hala ere, kanpaina honetan aurkitutako hobi hori nahiz beste bi hobiak jatorrian hileta ganbera osatuko zuten lauza handiagoak (gero atera egin zirenak) ahokatzeko zuloak dira.

Materialei dagokienez, hainbat suharri zati, eskuz egindako zeramika zati batzuk, lepoko baten ale bat, harri kristal zati batzuk eta giza hezurra izan daitekeen hezur zati bat berreskuratu ditugu.

El dolmen de Kurutzebakar se encuentra junto a la cima del mismo nombre, entre los términos municipales de Soraluze y Bergara. Fue descubierto en 1921 por Barandiaran y excavado ese mismo año por Aranzadi, Barandiarán y Eguren. Como resultado sólo se recuperó un cristal de roca, una piedra de fusil y una bala esférica de avancarga. En el monumento no se habían identificado losas correspondientes a la cámara sepulcral, y únicamente se apreciaba un túmulo de 10 m de diámetro y una altura de 0,80 m, con un gran cráter de saqueo en su zona central.

La excavación ha consistido en la limpieza de la vegetación que cubre el túmulo y en el levantamiento ordenado de los sedimentos que rellenan el cráter central, donde originalmente se encontraba la cámara funeraria. La excavación de los depósitos de derrumbe y de relleno hasta la roca madre ha permitido identificar varias fosas cavadas en la base. Una de estas fosas ya fue identificada por Aranzadi, Barandiaran y Eguren, quienes la interpretaron como resultado de destrozos y saqueos anteriores. Sin embargo, tanto esta como las otras dos fosas localizadas en esta campaña se corresponden con el encaje de las losas mayores que componían originalmente la cámara funeraria, y que posteriormente fueron extraídas.

En lo que respecta a los materiales, se han recuperado varios elementos en sílex, algunos fragmentos de cerámica a mano, una cuenta de collar, varios fragmentos de cristal de roca y un posible hueso humano.



Ezkerrean, Kurutzebakar trikuharria, indusketaren ondoren. Eskuinean, Kurutzebakar II zista.

A la izquierda, dolmen de Kurutzebakar tras la excavación. A la derecha, cista de Kurutzebakar II.

Bestalde, kata arkeologiko bat egin dugu lursail berean. Kurutzebakar trikuharritik ipar-ekialdera, 10 bat metrora, zistarik ba ote dagoen egiaztatu nahi genuen, Jon Aldaiak halakorik zegoela ohartarazi baitzigun. Katak 2,4x2m-ko azalera hartu du, eta soropilaren geruza eta azaleko lurraren lehen zentimetroak altxatu besterik ez dugu egin. Emaitza gisa baieztatu dugu zista txiki bat dela, harri xabalez eta basaltozko blokez osatua, harri koskor gutxi batzuekin bermatuak, baina ez dira egiazko tumulua osatzera iristen. Betegarrietan suharri zati bat eta erraustutako giza hezurren printza batzuk atzeman ditugu.

Ondorio gisa, kanpaina honek emaitza oso interesgarriak eman dizkigu Elosua-Plazentzian, Neolitoaren eta Brontze Aroaren artean, hileta ohiturek zer-nolako bilakaera izan zuten aztertzeko.

Por otra parte, se ha realizado una cata arqueológica en el mismo terreno. Se trataba de comprobar la posible existencia de una cista a unos 10 metros al noreste del dolmen de Kurutzebakar, advertida por Jon Aldaia. La cata ha abarcado una superficie de 2,4x2 m y se ha limitado a levantar el nivel de césped y los primeros centímetros de tierra superficial. Como resultado se ha confirmado que se trata de una pequeña cista formada por lajas y bloques de basalto sujetos con escasos cantos, que no llegan a formar un verdadero túmulo. En las tierras de relleno se han localizado un fragmento de sílex y esquirlas de huesos humanos incinerados.

Como conclusión, esta campaña ha arrojado resultados de gran interés para analizar cómo evolucionaron las costumbres funerarias entre el Neolítico y la Edad del Bronce en Elosua-Plazentzia.

J. Tapia Sagarna; Aranzadi Zientzia Elkartea

C.9.2. **Maurketa trikuharria**

Zuzendaritza: Jesus Tapia Sagarna

Finantzazioa: BEGEGESA; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.9.2. **Dolmen Maurketa**

Dirección: Jesus Tapia Sagarna

Financiación: BEGEGESA; Diputación Foral de Gipuzkoa

The excavation of the Maurketa dolmen (Bergara) enabled us to document the few elements remaining of an almost totally dismantled funerary chamber. However, an extensive collection of archaeological remains were recovered, including ornaments, stone tools, pottery fragments and some human bone remains.

Maurketa trikuharria izen bereko lepoan dago, Frantsesbasoa eta Leiopago artean, Bergarako udalerrian. Monumentuan ez zen hilobi ganberako lauzarik ageri, eta 16,5 metroko diametroa eta 1,6 eta 0,75 metro arteko altuera zuen tumulu bat besterik ez zen ikusten. Erdialdean, 5 m-ko diametroa eta 1,3 m-ko sakonera zeukan krater handi bat zuen, eta tumuluaren ertzeraino hedatzen zen ekialdeko muturrean.

Barandiaranek aurkitu zuen 1921ean, eta urte horretan bertan induskatu zuten Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenek. Ez zuten hileta ganberaren aztarnarik aurkitu, eta mikrolito geometriko bat suharrian landua (triangelua), bi ale globular eta beste bat disko-formakoa harrian egina, harri kristal bat eta giza hezurren zenbait zati berreskuratu zituzten, baina gero galdu egin ziren.

Batez ere abuztutik irailera bitartean egin dugu indusketa lana, baina hasieran aurreikusitakoa baino konplexuagoa izan da,

El dolmen de Maurketa se encuentra en el collado del mismo nombre, entre Frantsesbasoa y Leiopago, en el término municipal de Bergara. En el monumento no se apreciaban losas correspondientes a la cámara sepulcral, y únicamente podía observarse un túmulo de 16,5m de diámetro y una altura de entre 1,6 y 0,75 m. En su zona central presentaba un gran cráter de 5 m de diámetro y 1,3 m de profundidad, extendiéndose hasta el borde del túmulo en su extremo este.

Fue descubierto en 1921 por Barandiaran y excavado ese mismo año por Aranzadi, Barandiaran y Eguren, quienes no hallaron restos de la cámara funeraria, y recuperaron un microlito geométrico en sílex (triángulo), dos cuentas globulares y otra discoidea en piedra, un cristal de roca y varios fragmentos de huesos humanos, que después se extraviaron.

La excavación se ha llevado a cabo principalmente entre agosto y septiembre, pero ha resultado más com-



Maurketa, indusketaren ondoren.

Maurketa tras la excavación.

eta, azkenean, azaroaren hasierara arte luzatu dira lanak. Erdiko kraterra oso zabala eta sakona da, hainbat arpilatzeren eta Aranzadiren, Barandiaranen eta Egurenen jatorrizko indusketen ondorioz sortua. Gure esku hartzeari esker, jatorrizko ganberaren eraikuntza hondakin gutxi batzuk identifikatu ahal izan ditugu, honako hauek, hain zuzen ere: ganberaren lauza zati bat, substratu harritsuan erdi sartua zegoena, beste lauza bat ahokatzeko zuloa, eta substratuan induskatutako hobi bat hileta espazioari zabalera handiagoa emateko.

Material arkeologikoei dagokienez, lepokoaren aleak, suharrian landutako tresnak, harri kristalak eta eskuz landutako zeramikazko zatiak berreskuratu ditugu, bai eta tamaina txikiko giza hezurrak ere.

pleja de lo inicialmente previsto y finalmente los trabajos se han alargado hasta principios de noviembre. El cráter central ha resultado ser de gran amplitud y profundidad, formado como consecuencia de diversos saqueos y de la excavación original de Aranzadi, Barandiaran y Eguren. Nuestra intervención ha permitido identificar la presencia de escasos restos constructivos correspondientes a la cámara original. Se trata de un fragmento de losa de la cámara que se hallaba semi hincada en el substrato rocoso, del hoyo de encaje de otra losa, y de una fosa excavada en el substrato para dar amplitud al espacio funerario.

En cuanto a los materiales arqueológicos, se han recuperado cuentas de collar, útiles en sílex, cristales de roca y fragmentos cerámicos a mano, además de restos óseos humanos de pequeño tamaño.

J. Tapia Sagarna; Aranzadi Zientzia Elkartea

C.9.3. **Matxategi presa, Deba ibaian**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Dirulaguntza emailea: Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

C.9.3. **Presa Matxategi, en el río Deba**

Dirección: Ander Arrese
Subvención: Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidraúlicas. Diputación Foral de Gipuzkoa

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Ukituriko azalera osoan egin zen kontrol arkeologikoa, baina emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik.

Control arqueológico realizado en toda la superficie afectada siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico.

A. Arrese

C.9.4. **STR Txara 30/13Kv transformazio estazio berria**

Zuzendaritza: Maite Pérez Gil
Finantzazioa: i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.

C.9.4. **Nueva estación transformadora STR Txara 30/13Kv**

Dirección: Maite Pérez Gil
Financiación: i-DE, Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.

The Archaeological field survey showed that not existing achaelogical sites were affected.

STR Txara 30/13 kV transformazio azpiestazio berria eraiki behar zutela eta (Gipuzkoa), azterketa arkeologikoa egin genuen 2022ko martxoan, hau da, hainbat zundaketa arkeologiko proiektuak hartzen zuen eremuan.

Esku hartze horretan, 5 transektu edo lubaki ireki genituen, 2 metroko zabalerakoak, haietako bakoitzaren artean 10 metroko tartea utzita. Helburua zen aztarna arkeologikorik ba ote zegoen ebaluatzea.

STR Txara 30/13 kV transformazio azpiestazio berriaren eremuan (Gipuzkoa) egindako zundaketa arkeologikoen emaitza negatiboa izan da, eta ez da inolako egitura edo material arkeologikorik dokumentatu.

Con motivo de la construcción de la nueva subestación transformadora STR Txara 30/13 kV (Gipuzkoa), se realizó en marzo de 2022 un estudio arqueológico que comprendía la ejecución de sondeos arqueológicos en el área del proyecto.

La intervención consistió en la apertura de 5 transectos o trincheras con una anchura de 2 m y planteadas con una separación de 10 metros entre cada una de ellas, que tenían como fin evaluar la posible existencia de restos arqueológicos.

El resultado de los sondeos arqueológicos realizados en el área de la nueva subestación transformadora STR Txara 30/13 kV (Gipuzkoa), ha sido negativo, no documentándose ningún tipo de estructura ni material arqueológico.

M. Pérez Gil

C.10. DEBA

C.10.1. Astigarraga haitzuloa

Zuzendaritza: José Antonio Mujika
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.10.1. Cueva Astigarraga

Dirección: José Antonio Mujika
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

The first sondage carried out in Astigarraga Cave was enlarged to include quadrants 12K and 12L. Level I was excavated, finding remains chronologically attributable to ceramic cultures. Domestic animal bones were also found, along with charcoal in a hearth with blurred demarcation lines. No tool manufacturing remains were recovered.

Astigarragako haitzuloa (Deba) Goltzibar haranean kokatzen da, eta azken mendeetan ahuntzak gordetzeko erabilia izan da. Munibe Taldekoek aurkitu zuten 1967an, ondoren, Antxieta Taldekoek ere beste bilketa bat egin zuten lur-azalean. Orduan jasotako aztarna batzuk (elur-oreina, leize-hartza, etab.) Pleistozenoaren amaieran koka daitezke eta azalean jasotako giza-hezurrak Brontze-Aroan.

Lehenengo zundaketa 10-11/K-L laukietan egin zen eta gorenekoa maila (I) nahiko nahastuta zegoela konturatu ginen. Honen arrazoietako bat Brontze-aroan egin zen ehorzketa bat izan daiteke, bere hezurrak gutxienez 30 zentimetroko sakonera arte azaldu baitziren 10K laukian eta sakonago oraindik ondoko 10L laukian. Beste aztarna batzuk ere nahasketaren susmoa edo testuinguru ez oso argiarena pizten dute, adibidez etxekotutako animalien hezurrak leize-hartzenekin agertzeak. Gerta daiteke azken hezur hauek kobaren lur-azaleko gune ezberdinetan sakabanatuta egotea eta egon ziren holozenoko egonaldi laburretan sortzen joandako aztarnekin ausaz nahastu izatea nahi gabe. Gainera, badaude beste arrazoi batzuk ere aurretik eta ondoren gertatutakoak (azkonarrak, kobaren erabilera ahuntzak gordetzeko, etab.).

Aurtengo indusketa-ekinaldian lehenengo lana lur-azalean nabarmenak ziren sedimentu nahastuak altxatzea izan zen, ondoren 12L-ko troska tontorretik 12K-ko 6-7-8 sektoreetara jaisten ziren ur-tantak eratutako konkrezio-geruza bat azaleratzea izan zen. 12L laukian itoginaren ondorioz konkrezio edo troska-geruza lodi bat zegoen, 12K laukian berriz sei sektoretan buztina zen nagusi.

Indusketa 12K laukiko 1-2-3 sektoreetan hasi genuen, eta 1a eta 1b azaletan, kareharrizko lau bat harri koskor ertain ageri ziren sedimentu buztintsu marroi argi baten gainean. Harri koskor horiek ez dago baieztatzerik gizakiak jarrita daudenik, baina ez dugu baztertzen esertzeko jarrita egon zitezkeen hipotesia euren aurre aldean harriz mugatu gabeko sutondo bat bereizten hasi zelako, agian prestatutako sakonune edo kubeta batean egina.

In 2018, we located a Roman army marching camp on Mount Euletxara. Subsequent work has enabled the identification of remains of troop deployments during the 18th and 19th centuries, as well as a system of trenches linked to the battle that took place here in 1936 between rebel troops and the army of the Republican Government. In 2022, we continued researching evidence from the Roman era, identifying a complete stretch of the vallum, as well as what appears to be the entranceway.

2022an ikerketa lanetan jarraitu dugu, eta beste bi zundaketa arkeologiko egin ditugu.

8. zundaketa egiteko, 6,40 x 2 metroko esku hartze eremua ireki dugu, eta erromatarren garaiko *vallum* bat aurkitu dugu, hau da, agger (lubeta), fossa (hobia) eta contra-agger (kanpoko parapetoa). Lehen adierazi den

En el año 2022 hemos continuado con los trabajos de investigación, practicando dos nuevos sondeos arqueológicos.

Para realizar el sondeo 8 se ha abierto un área de intervención de 6,40 x 2 metros, localizándose un *vallum* de época romana, es decir, *agger* (terraplén), *fossa* (foso) y contra-*agger* (parapeto exterior). Tal y como se

bezala, babes sistema hura eraikitzeko prozesuan babes hobi bat ireki zuten, lurra eta azpian zegoen harria induskatuta, eta bi aldeetan jarri zuten ateratako materiala. Hala, parapetoa sortu zuten kanpoaldera eta lubeta, berriz, barrualdera.

Fossa edo hobiak «V» formako profila du, eta harkaitzean induskatutako zatiak 0,60 metroko sakonera eta 1,30 metroko zabalera ditu goiko aldean. *Agger* edo lubetak 1,80 metro inguruko zabalera du, eta 1,66 metroko garaierara iristen da *fossar*en hondoan. *Aggerra* induskatzean burdinazko objektu bat aurkitu dugu (mihi txiki bat agian).

Guk esparruaren sarrera identifikatu genuen tokian egin dugu 9. zundaketa, eremu horretatik landaretza guztia kendu ondoren. Esku hartze arkeologikoari esker, egiaztatu ahal izan dugu *aggerra* lurrean bermatua dagoela zuzenean, eta 1,50 metroko zabalerako plataforma bat sortu dela haren oinean. Eremu horizontal horrek *fossaren* lekua hartzen du, eta sektore horretan desagertu egiten da. Bertan ikusten da, halaber, aggerra eten egiten dela 3,50 bat metrotan zehar, haren eskuineko muturrak barrualderantz biratzen du, eta altuera galtzen du lurraren maldak gora egin ahala. Gero, zentimetro gutxi batzuk dituen ebaki bihurtzen da lurrean, ezkerrerantz biratzen duena eta *aggerraren* ezkerreko muturrarekiko paraleloan jarraitzen du metro batzuetan, 3 metroko zabalerako korridorea osatuz. *Claviculae* motako sarrera gogorarazten dute ezaugarri horiek.

Ikerketa lanak egin diren urte hauetan zehar frogatu da erromatar kanpamentu txiki bati dagozkionak direla Euletxara mendiko defentsa egitura interesgarrienak, eta horren lekuko dira haren ezaugarriak, garai hari atxiki dakizkiokeen material urriak, metalezkoak baino ez, eta barruan beste egiturarik aurkitu ez izatea. Era horretako gotorlekuak ia ez dira ezagutzen gure lurraldean, eta Leaburukoa da Gipuzkoan ezagutzen den kasu bakarra gotorleku guztia kontserbatu duena. Nolanahi ere, aldi baterako kokalekua izango litzateke, ehunka soldaduz osatutako goarnizioa izango zuena. Haren helburua izango zen hurbileko lurraldea kontrolatzea, inguruko komunikazio bideak begiratuta. Sekto-

ha señalado con anterioridad, el proceso de construcción de dicho sistema defensivo consistió en la apertura de un foso de protección, excavando el suelo y la roca que había debajo, y depositando el material extraído a ambos lados, conformando con ello un parapeto hacia el exterior y un terraplén al interior.

La *fossa* presenta un perfil en «v», y la parte excavada en la roca es de 0,60 metros de profundidad y una anchura en la parte superior de 1,30 metros. El *agger* presenta una anchura de unos 1,80 metros, alcanzando los 1,66 metros de altura respecto al fondo de la *fossa*. Durante la excavación del *agger* se ha encontrado un objeto de hierro (tal vez un pequeño badajo).

El sondeo 9 se ha realizado en el lugar en el que nosotros identificamos la entrada al recinto, zona que ha sido limpiada de toda vegetación. La intervención arqueológica ha permitido identificar que el *agger* se apoya directamente en el terreno, creándose una plataforma a sus pies de unos 1,50 metros de anchura. Este espacio horizontal ocupa el lugar de la *fossa*, que desaparece en este sector, donde también se aprecia una interrupción del *agger* a lo largo de unos 3,50 metros, volviéndose el extremo derecho del mismo hacia el interior, perdiendo altura conforme asciende la pendiente del terreno, hasta convertirse en un corte de unos centímetros en el suelo que gira hacia la izquierda y continúa paralelo al extremo izquierdo del *agger* durante unos metros, formando un pasillo de 3 metros de ancho. Estas características recuerdan a una entrada tipo *claviculae*.

A lo largo de estos años de investigación se ha demostrado que las estructuras defensivas más interesantes del monte Euletxara son las correspondientes a un pequeño campamento romano, como así lo atestiguan sus características, la escasa presencia de materiales adscribibles a ese periodo y que únicamente son metálicos, así como que no se han localizado otras estructuras en su interior. Este tipo de fortificaciones es prácticamente desconocido en nuestro territorio, y el de Leaburu es el único caso conocido en Gipuzkoa en el que se conserva todo el recinto fortificado. Se trataría en todo caso de un emplazamiento temporal que acogería una guarnición de varios cientos de soldados, con el objetivo controlar el territorio inmediato mediante la vigilancia de las



8. zundaketa: fossa eta aggerra.

Sondeo 8: fossa y agger.

re horretan zegoen hedapen militar handiago baten parte izango zen, haren beste kokaleku posible bat ere aurkitu baitugu.

Zaila da zehatz esatea zein den kanpamendu honen kronologia; izan ere, mendi hori behin eta berriz erabili izan da historia garaikideko gerra gatazketan, eta oso emaitza ezberdinak atera dira egin diren datazioetan. Horren harira, kontuan hartuta harkaitzeraino iristen diren sustraiez osatutako itxura oneko zuhaitzak daudela, azken hamarkadetan baso ustiapen intentsiboa egin dela eta 1936an bertan borroka bortitzak izan zirela, ez ditugu fidagarritzat hartzen lortutako datazioak. Nahiz eta antzinako data bat dugun, gaur egungo I.-II. mendekoa, harriaren gainean lortua, Erdi Aroko beste batzuk lortu dira, bai eta gaur egungo beste batzuk ere lurreko *aggerrean*, eta orain arte ezinezkoa izan da datagarriak diren materialak aurkitzea nolabaiteko segurtasuna eskaintzen duten testuinguruetan. Nolanahi ere, egituren ezaugarriei eta garaiko materialei erreparatzen badiegu (*pilum* eta lantza zatiak), Errepublikaren amaieraren eta Printzerriaren hasieraren arteko aldi batean koka liteke kanpamendua, konkista gerren testuinguruan Asturiasko eta Kantabriako kanpamenduetan identifikatutakoen antzekoak izanik.

Zoritxarrez, 2022an, aztarnategia ezaguna bada ere udalerrian, pinuak mozteko pista bat ireki dute *fossaren* hegoaldeko zati bat aprobetxatuz, *aggerraren* behealdea moztu dute eta guk irekitako eta ikertzen ari garen zundaketa baten gainetik pasatu dira. Gainera, 2021ean eta 2022an izandako haize boladek *aggerraren* gainean zeuden zuhaitz batzuk bota dituzte, eta kalte larriak eragin dizkiote.

vías de comunicación de la zona, formando parte de un mayor despliegue militar en este sector, del que ya hemos localizado otro posible emplazamiento.

La cronología de este campamento resulta difícil de determinar, ya que este monte se ha utilizado repetidamente en diferentes conflictos bélicos de la historia contemporánea, y se han obtenido dataciones con resultados muy diferentes. En este sentido, dada la presencia de árboles de buen porte con raíces que llegan hasta la roca, la intensiva explotación forestal de las últimas décadas, y los violentos combates desarrollados en el lugar en 1936, no consideramos las dataciones obtenidas como fiables. Si bien se cuenta con una fecha antigua, de los siglos I-II de la era actual, obtenida sobre la roca, se han obtenido otras de época medieval e incluso varias contemporáneas en el *agger* de tierra, habiendo sido hasta ahora imposible conseguir materiales datables en contextos que ofrezcan cierta seguridad. En todo caso, si se atiende a las características de las estructuras y a los materiales de la época (fragmentos de *pilum* y lanza), cabría situar el campamento en un periodo entre finales de la República e inicios del Principado, siendo semejantes a las identificadas en campamentos de Asturias y Cantabria en el contexto de las guerras de conquista.

Lamentablemente, en 2022, a pesar de que el yacimiento es conocido en el municipio, se ha abierto una pista para tala de pinos aprovechando parte de la *fossa* en su tramo sur, cortando la parte inferior del *agger* y pasando por encima de un sondeo abierto por nosotros y en curso de investigación. Además, las rachas de viento registradas en 2021 y 2022 han derribado algunos árboles situados sobre el *agger*, afectándolo gravemente.

M. Ceberio Rodriguez

C.22. MENDARO

C.22.1. **Agarre leizea**

Zuzendaritza: Alvaro Arrizabalaga
Finantzazioa: Mendaroko Udala; GIZAPRE Ikerketa Taldea (UPV/EHU)


C.22.1. **Cueva de Agarre**

Dirección: Alvaro Arrizabalaga
Financiación: Ayuntamiento de Mendaro; Grupo de Investigación GIZAPRE (UPV/EHU)

Low level excavations have been under way in Agarre Cave since 2019, hampered by the global pandemic and its negative effects on fieldwork. The brief 2022 season enabled the discovery of a combustion zone at the surface of a level presumably dating from the late Magdalenian epoch.

1966an aurkitu zuten Agarre leizeko aztarnategia, baina 2018tik aurrera hartu zuen garrantzi handiagoa, orduan aurkitu baitziren, testuingurutik kanpo, harrizko bi tresna, apainduak. Azkonar batek atera zituen ustekabean, bere gordelekuko tunela egiten ari zela. Horma artearen irudi bat ere atzeman zen. 2019az geroztik, jarduera arkeologikoak egin dira eremu horretako azalera txiki batean, baina, hainbat arrazoi direla medio, oraindik ez da material gehiegi aurkitu. Kasu batzuetan, kanpoko finantzaketa falta izan da; beste batzuetan, berriz, aukeratutako datetan eguraldi txarra egin du, eta, 2020tik, COVID19aren pandemiak landa lanei ezarritako mugek zaildu egin dute aztarnategian nolabaiteko jarraitutasunez esku hartzea. Iazkoa ez da salbuespena izan, kanpainan lanean zazpi egun eman ondoren indusketa bertan behera utzi behar izan

El yacimiento de la cueva de Agarre fue descubierto en 1966, si bien cobra mayor importancia a partir de 2018, con el hallazgo descontextualizado de dos piezas de industria ósea decoradas que fueron extraídas accidentalmente por un tejón al excavar el túnel de su madriguera y de una figura de arte parietal. Desde 2019 se han sucedido actuaciones arqueológicas en una pequeña superficie del área que, por diferentes motivos, no han proporcionado todavía demasiados materiales. En algunos casos, ha faltado financiación externa, en otros las fechas elegidas han coincidido con meteorologías adversas y, desde 2020, las limitaciones impuestas a las tareas de campo por la pandemia de COVID19 han dificultado intervenir con cierta continuidad en el yacimiento. El pasado año no ha representado una excepción, dado que tras siete días de campaña debimos



Agerre leizearen oinplanoa (2019-2020).

Planta Agarre (2019-2020).

baikenuen, COVID19aren kasu positibo bat baieztatu zelako parte hartzaileen artean.

2020ko kanpainaren helburu nagusia izan zen Apellanizek egindako indusketa zaharraren ebakia egonkortzea eta amortizatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkeologia zerbitzuekin adostuta geratu zen bezala. 2021ean ezin izan ginen leizean sartu eremuan uholdeak izan zirelako, eta 2022ko kanpainaren helburua zen irekitako azaleran Pleistozenoko mailetara iristea. Azalera ireki horrek laukiaren zenbait unitateri eragiten zien arren (M10, M12, L10, L12 eta 14. bandako zati txikiak), 2,5 m^2 inguruko azalera hartzen du guztira. Hori gertatzen da indusketa eremuko hodi karstikoaren morfologiagatik, neurri handi batean murrizten baitu lanerako azalera. Ezarritako lauki sarea kontuan hartuta (2020an unitate antzuetan egindako esku hartzea izan ezik), 30 cm inguruko sakoneran esku hartu dugu aipatutako lauki horietan. Induskatutako mailak oso pobreak izan dira, ia antzuak sakonera horretan zehar, baina induskatutako eremuaren oinarrian aurkikuntzak areagotzen ari direla nabaritu da, errekuntza eremu nahiko zabal bat irekitzen den gunean, K10 laukiaren kantoian sartzen dena. Une horretan justu, indusketa bertan behera utzi behar izan genuen adierazitako gorabeherarengatik, eta ezin izan genion egutegiko beste une batean indusketa lanari ekin.

Kanpaina honetan berreskuratutako material gehienek holozenokoak dirudite, kanpainaren amaieran induskatzen hasi den errekuntza eremuan daudenak izan ezik. Testigantza moduan bada ere, elementu bizkardun txikiren bat azaldu da, eta horrek pentsarazten ditu Madeleine aldi aurreratuko okupazioen garaikoa izan daitekeela maila berri hori. Aurkikuntzak areagotzen ari direnez, komenigarria da sedimentu guztiaren bilketa sistematizatzea aurrerantzean, iturriko urarekin garbitzeko eta luparen laguntzaz bereizteko. Hala, etxeko hondakin antrakologikoak ez ezik, lauza eta tailu txikienak ere bilduko dira, horiek oharkabean pasatzen baitira indusketan eta lehorreko baheketan. Aurkitutako unitate berri horren ezaugarriek (errekuntza egitura lausoa eta aurkikuntzen dentsitate gero eta handiagoa) indusketa estrategia aldatzera behartzen dute, jarduketa K10 laukira zabaldu behar baita, eta, ondoren, errekuntza egitura osoa beheratu behar baita zabaleran. Unitate estratigrafiko horretara iritsitakoan (V. maila, nahiz eta II. maila presente dagoen induskatutako eremu oso mugatu batean), sedimentu guztia poltsetan sartuko da, urez bahetuko da eta binokularraren laguntzaz bereiziko da, ebidentzia guztiak berreskuratu ahal izateko.

suspender la excavación al confirmarse un caso de positivo por COVID19 entre sus participantes.

Si la campaña de 2020 tuvo como principal objetivo estabilizar y amortizar el corte de la antigua excavación de Apellániz, como quedó acordado con los servicios de Arqueología de la Diputación de Gipuzkoa, y las inundaciones locales nos impidieron acceder a la cueva en 2021, el objetivo de 2022 era alcanzar los niveles pleistocenos en la superficie abierta que, aunque afecta a diversas unidades de la cuadrícula (M10, M12, L10, L12 y pequeñas porciones de la banda 14), comprende una superficie total de unos 2,5 m^2. Esto sucede por la morfología de tubo kárstico del área de excavación, que restringe en gran medida la superficie de trabajo. Atendiendo a la cuadrícula establecida, excepción hecha de la intervención mencionada de 2020 sobre unidades estériles, se ha intervenido en unos 30 cm de profundidad en los mencionados cuadros. Los niveles excavados han resultado muy pobres, casi estériles a lo largo de esa profundidad, aunque en la base de la zona excavada se ha notado una densificación de hallazgos, coincidiendo con la apertura de un área de combustión bastante extensa, que entra en el cantil del cuadro K10. Justo en este momento, debimos suspender la excavación por la contingencia indicada, sin poder retomarla en otro momento del calendario.

La mayoría de los materiales recuperados en esta campaña parecen todavía holocenos, con la posible excepción de los incluidos en el área de combustión que se ha comenzado a excavar al final de la campaña. Aunque de modo testimonial, la presencia de algún pequeño elemento de dorso permite sospechar que este nuevo nivel puede corresponder ya a las ocupaciones del Magdaleniense avanzado. La densificación de hallazgos también hace aconsejable sistematizar en adelante la recogida de todo el sedimento para su lavado con agua corriente y posterior triado a la lupa, recogiendo así no solo los restos antracológicos del hogar, sino también las más pequeñas lascas y elementos de talla que pasan desapercibidos durante la excavación e incluso con el cribado en seco. Las características de esta nueva unidad localizada (estructura de combustión difusa y densidad creciente de hallazgos) obligan a un cambio de estrategia de excavación, ampliando la actuación al cuadro K10 y rebajando posteriormente toda la estructura de combustión en extensión. Una vez alcanzada esta unidad estratigráfica (el nivel V, aunque el nivel II está presente en una zona muy limitada excavada), todo el sedimento será embolsado, tamizado con agua y triado bajo el binocular para recuperar el conjunto de las evidencias.

A. Arrizabalaga; M. Berjón; B. Ochoa; M.J. Iriarte-Chiapusso

C.22.2. **Kilimon eta Maala haranak**

Zuzendaritza: Alvaro Arrizabalaga
Finantzazioa: Mendaroko Udala, GIZAPRE Ikerketa Taldea (UPV/EHU)

C.22.2. **Valles de Kilimon y Maala**

Dirección: Alvaro Arrizabalaga
Financiación: Ayuntamiento de Mendaro, Grupo de Investigación GIZAPRE (UPV/EHU)

The existence of numerous caves filled by Holocene sediments in the Kilimon and Maala Valleys suggests that it would be a good idea to review both areas from an archaeological perspective.

Kilimon eta Maala haranetan (Mendaro) sedimentuz betetako barrunbe ugari daudenez, komeni da hara hurbiltzea eta beharreko kontrol arkeologikoa egitea, potentzial arkeologikoa duten leizeak garbitzeko lana barne. Horretarako, 2022an, dagokion administrazio baimena eskatu genion Gipuzkoako Foru Aldundiari, lauzpabost urterako lan planarekin.

2022an zehar, Holozenoko sedimentuz betetako barrunbe berriak aurkitzea izan da gure helburua, eta espero dugu hurrengo urteetan haitzulo horiek hustea kontrol arkeologikoa eginda, eta interes arkeopaleontologikorik baduten ebaluatzea.

Interes arkeologikoa izan dezaketen 30 leku berri detektatu ditugu inguru horretan. 2023an zehar, haietako lehen lauzpabost garbitzen hasiko gara, eta, aldi berean, etorkizuneko interes puntuen katalogoa amaituko dugu. Duten interesa egiaztatu ahala, GIS euskarria duen mapa batean txertatuko ditugu. Mapa horretan jasoko ditugu emaitza positiboa nahiz negatiboa eman duten kobazuloak (horrela saihestuko dugu etorkizunean sedimentu iraultze berriak egin behar izatea).

A. Arrizabalaga; O. Quiroga; Mª J José Iriarte

La presencia de numerosas cavidades colmatadas de sedimento en los valles del Kilimon y Maala (Mendaro) hace aconsejable una nueva aproximación, que incluya la desobturación de cuevas con potencial arqueológico, bajo el correspondiente control arqueológico. Para ello solicitamos a la Diputación Foral de Gipuzkoa en 2022 la correspondiente autorización administrativa, con un plan de trabajo a cuatro o cinco años.

A lo largo de 2022 nos hemos concentrado en la localización de nuevas cavidades colmatadas con sedimento holoceno, esperando poder abordar en años posteriores la desobturación de estas cuevas bajo control arqueológico y la evaluación de su eventual interés arqueopaleontológico.

Han sido detectados unos 30 lugares nuevos con potencial interés arqueológico en la zona. A lo largo de 2023 comenzaremos a desobturar los primeros cuatro o cinco de ellos, al tiempo que concluimos el catálogo de puntos de interés futuros. A medida que se contraste su interés, los iremos incorporando a un mapa con soporte SIG en el que haremos constar tanto las cuevas que han ofrecido resultado positivo, como negativo (evitando así nuevas remociones de sedimento en el futuro).

C.23. **OÑATI**

C.23.1. **Askazubi baserria**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Jabea; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.23.1. **Caserío Askazubi**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Propiedad; Diputación Foral de Gipuzkoa

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Jabeek eraikinean eraberritze lanak egin behar zituztela eta, lan arkeologikoak egin genituen Askazubi baserrian, Oñatiko Zubillaga auzoan. Horretarako, luzetarako hiru zanga handi egin genituen, baina ez zuten ebidentzia arkeologiko garrantzitsurik eskaini.

A. Moraza Barea

Los trabajos arqueológicos desarrollados en el caserío de Askazubi, en el barrio oñatiarra de Zubillaga, tuvieron lugar como consecuencia de las labores de reforma llevadas a cabo por sus propietarios sobre el inmueble. Con ese fin se ejecutaron tres grandes zanjas longitudinales que no ofrecieron evidencia arqueológica alguna de relevancia.

C.23.2. **Jaturabe IX**

II. kanpaina
Zuzendaritza: Naroa Garcia-Ibaibarriaga
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia; Oñatiko Udala

C.23.2. **Jaturabe IX**

II Campaña
Dirección: Naroa Garcia-Ibaibarriaga
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa; Ayuntamiento de Oñati

Second season of archaeological excavations in Jaturabe IX. We enlarged the area opened in the previous field seasons, enabling a better documentation of occupations from the Middle Palaeolithic to recent Prehistory.

Esku hartze arkeologikoaren testuingurua

2018ko ekainean zundaketa arkeologikoa egin genuen barrunbearen barruan, eta, horri esker, sekuentzia estratigrafiko garrantzitsua erregistratu ahal izan genuen, historiaurreko populazioen okupazio dinamikak ulertzeko balio handiko informazioa ematen zuena. Gainera, kronologiari dagokionez Araotz haraneko aztarnategi zaharrenaren aurrean geundeke.

2019an, beste zundaketa bat egin genuen aurreko urtean irekitakoaren ondoan, baina hartan ere ez ginen sekuentziaren oinarrira iritsi. Indusketa 2020an egin zen, eta dagoeneko induskatutakoen inguruan 1 x 1 m-ko hiru lauki ireki genituen. Bestalde, 2021ean egindako landa lanen helburua izan zen laginak biltzea, hainbat motatako analisiak egiteko.

2022ko jarduera

Jaturabe IX leizean indusketa arkeologiko gisa egin den bigarrena da 2020an egindako kanpaina. Ekainean egin genituen landa lanak.

Esku hartze arkeologiko honetan 1 x 1 m-ko lauki berriak ireki ditugu, jada induskatutakoen inguruan. Bigarren kanpaina honetan beste hiru laukirekin handitu dugu indusketa eremua, eta 8 m^2-ko azalera irekia ezarri dugu.

Indusketa lanen garapenari dagokionez, kanpaina honetan ez gara iritsi aurreko kanpainetan iritsi ginen sakonerara. Horrenbestez, barrunbeko okupazio berrienei buruzkoa da azken kanpaina honetan jaso ahal izan dugun informazioa.

Sekuentziak ez du aldaketa garrantzitsurik izan, eta kanpaina honetan aurkitutako hondakinak bateragarriak dira aurreko kanpainetakoekin. Berreskuratutako zeramikazko piezak oso zatituak badaude ere, ertzen bat identifika daiteke. Harrizko materialen artean, suharrian egindako ale batzuk berreskuratu ditugu. Fauna hondakinek osatzen dute multzoa, gutxi-asko zatituak, eta batzuetan suaren eraginez belztuak.

Konklusioak

2022ko kanpainaren balorazioa positibotzat eta arrakastatsutzat jo daiteke. Irekitako laukien artean erlazioak ezartzen jarrai daiteke, eta material arkeologiko ugari berreskuratu dugu.

N. Garcia-Ibaibarriaga; E. Arrieta

Contextualización de la intervención arqueológica

En junio de 2018 se realizó un sondeo arqueológico en el interior de la cavidad que nos permitió registrar una importante secuencia estratigráfica que aportaba información de incalculable valor para comprender las dinámicas ocupacionales de las poblaciones prehistóricas. Además, nos encontraríamos antes el yacimiento cronológicamente más antiguo del Valle de Araotz.

El año 2019 realizamos un nuevo sondeo adyacente al abierto el año anterior, sin llegar en esta tampoco a la base de la secuencia. La excavación propiamente dicha tuvo lugar en el 2020, con la apertura de tres cuados de 1 x 1 m circundantes a las ya excavadas. Por su parte, los trabajos de campo realizados en el 2021 se centraron en la recogida de muestras para analíticas de diversa índole.

Actuación 2022

La campaña del 2020 en la cueva de Jaturabe IX es la segunda que se realiza como excavación arqueológica propiamente dicha. Los trabajos de campo tuvieron lugar el mes de junio.

La actuación arqueológica llevada a cabo ha consistido en la apertura de nuevos cuadros de 1 x 1 m, circundantes a los ya excavados. Durante esta segunda campaña hemos ampliado con tres cuadros más el área de excavación, estableciendo una superficie abierta de 8 m^2.

En cuanto al desarrollo de los trabajos de excavación, en esta campaña no hemos alcanzado la misma profundidad que en las campañas anteriores. Por lo que la información que hemos podido recabar en esta última campaña es relativa a las ocupaciones más recientes de la cavidad.

La secuencia no ha sufrido variaciones de importancia, y los restos hallados en esta campaña son compatibles con los de las campañas anteriores. Aunque la fragmentación de las piezas cerámicas recuperadas es muy elevada, es posible identificar algún borde. Entre los materiales líticos, se han recuperado ejemplares realizados sobre sílex. Completan el conjunto los restos de fauna, con mayor o menor fragmentación, y en ocasiones ennegrecidos por la acción del fuego.

Conclusiones

La valoración de la campaña del 2022 puede clasificarse como positiva y exitosa. Es posible seguir estableciendo relaciones entre los diferentes cuadros abiertos, y se ha recuperado abundante material arqueológico.

C.24. **ORDIZIA**

C.24.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.24.1.1. **Barrena jauregia**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Ordiziako Udala

C.24.1.1. **Palacio Barrena**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Ayuntamiento de Ordizia

The archaeological intervention did not uncover any elements associated with the history of the town of Ordizia.

2,00 x 1,70 metroko igogailurako zuloan oinarritu genuen esku hartzea. Emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik, eta etorkizunean ebaluatzeko utzi genuen orubearen gainerakoa.

Intervención desarrollada en base a un foso para ascensor de 2,00 x 1,70 m, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto del solar.

Z. Galan Zumeta

C.24.1. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.24.2.1. **San Bartolome baseliza**

Zuzendaritza: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Finantzazioa: Ordiziako Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.24.2.1. **Ermita de San Bartolomé**

Dirección: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Financiación: Ayuntamiento de Ordizia; Diputación Foral de Gipuzkoa

The intervention carried out focused on the western part of the gardens, specifically aiming to study the southern half of San Bartolomé Chapel, which predates the structure currently standing. Although the levels of use pertaining to phases pre-dating the present-day chapel seem to have been destroyed by the contemporary building work, the structures uncovered, funerary evidence documented and some of the material collected all provide evidence of some interesting aspects of the historical-construction evolution of the chapel, the origins of which are rooted in the High Middle Ages.

Ordiziako San Bartolome baselizaren inguruan egiten ari garen lanei jarraipena emateko, baseliza zaharrak hartzen zuen orubearen hegoaldeko erdia induskatu dugu (1818an eraitsi zuten egungo tenplua eraikitzeko). XV. mendearen bigarren erdialdean tenplua berreraikitzeko zer irtenbide erabili ziren jakitea da planteatu den helburua; izan ere, iparraldeko sektorean, baseliza berriaren kanpoko horma aurrekoaren (XIII. mendearen amaierakoa, 1300 ingurukoa) zimendu suntsituen gainean zegoen ia. Hala, hamarnaka zentimetroko zabalera baino ez zen berreskuratu iparraldean, eta falta zen jakitea berreraikuntza ekialde-mendebalde ardatz nagusiari eutsiz egin zen edo, aitzitik, hegoalderantz mugitu zen ardatza. Bigarren aukera horrek esan nahiko luke zabaltzea handiagoa izan zela hegoalderantz.

Bigarren hipotesi horren alde egitera bultzatzen gintuen datuetako bat zen XV. mendearen bigarren erdiko elizaren hegoaldeko horma jada dokumentatua zegoela gaur egungo tenpluaren zimenduetan (hegoaldeko tobazko harlanduzko horma atalaren azpian), eta erdiko korridorean egindako zundaketen arabera, berriz, 1300. urte inguruko burualdea ezin zen ekialderago egon. Horrek esan nahi zuen abside horrek korridorearen eta egungo baselizaren espaloi perimetralaren artean egon behar zuela, eta, beraz, haren luzera nahiko txikia zela. Hala, tenplu haren luzeraren eta zabaleraren artean izan genezakeen erlazio hipotetikoak, oinplanoa angeluzuzena izango zela kontuan hartuta, 6-7 metro inguruko zabalera proposatzera eraman gintuen kanporako, eta 3-4 metrokoa barnerako. Hala, egungo presbiterioko mailen parean egongo zen dokumentatu ahal izan dugun eliza zaharrenaren hegoaldeko horma.

Gure hipotesia egiaztatzeko, 6 x 5 metroko laukia ireki genuen 2020an egindakoaren ondoren, hegoalderantz. Teilape zahar baten (eraitsia eta lurperatua) hondakin pila handia atera behar izan genuen, asbesto hondakinak ugari ziren haien artean. Lan nekeza horren ondoren, egiaztatu ahal izan genuen obra hondakinak lurperatzeko egindako hobiak ukitzen zuela indusketa eremua, eta laukiaren ekialdeko bi herenetan hedatzen zela obra hori (egungo baselizaren hormatik hurbilago).

Como continuación de los trabajos que llevamos realizando en torno a la ermita de San Bartolomé de Ordizia, se procede a excavar la mitad sur del solar ocupado por la antigua ermita (derribada en 1818 para construir el templo actual). El objetivo que se plantea es reconocer qué soluciones se habían puesto en práctica en la reconstrucción del templo en la segunda mitad del siglo XV, ya que en el sector norte el muro exterior de la nueva ermita prácticamente montaba sobre los cimientos arrasados de la precedente (datada a fines del siglo XIII, en torno a 1300). Así, en el lado septentrional apenas se habían recuperado unas decenas de centímetros de anchura y restaba saber si la reconstrucción se había realizado manteniendo el eje principal este oeste o si, por el contrario, éste se había desplazado más hacia el sur. Esta segunda opción significaría que la ampliación en sentido sur habría sido mayor.

Uno de los datos que nos hacía decantarnos por esa segunda hipótesis era que el muro meridional de la iglesia de la segunda mitad del siglo XV ya había sido documentado en los cimientos del templo actual (bajo el lienzo de sillares de toba del lado meridional), mientras que los sondeos practicados en el pasillo central de ésta indicaban que la cabecera de hacia el año 1300 no podía encontrarse más al este. Esto significaba que ese ábside necesariamente debía estar entre el pasillo y la acera perimetral de la ermita actual y que, por tanto, la longitud de esta era bastante reducida. Así, la hipotética relación que barajamos entre el largo y el ancho de aquel templo, considerando que su planta sería rectangular, nos llevó a proponer una anchura exterior de unos 6-7 m y de 3-4 m en el interior. De esta forma, el muro meridional de la iglesia más antigua que hemos podido documentar debería situarse al par del escalón del presbiterio actual.

Para comprobar nuestra hipótesis se abrió un cuadro de 6 x 5 m a continuación del practicado en 2020, en dirección sur. Fue precisa la retirada de una importante acumulación de restos procedentes de una antigua tejavana, derribada y enterrada, en la que abundaban los restos de asbesto. Después de la costosa operación, pudimos comprobar que el área de excavación se encontraba afectada por la fosa practicada para enterrar los escombros y que esta obra se extendía en los dos ter-

Hala, ikusi genuen, zorionez, XIII. eta XV. mendeetako baselizen mendebaldeko itxituraren horma hondakinak (biek partekatzen zituztenak neurri handi batean) ez zituztela kaltetu egindako jarduketek.

2020an jakin ahal izan zen aurreko baselizen oinetan hedatzen zen lursailaren zorua, ibairantz, gaur egungoa baino dezente beherago zegoela, eta XX. mendean jatorri antropikoko ekarpen gogorren bidez erregularizatu zela. Horrenbestez, hondeamakina erabili genuen betegarri horiek (gehienak obra hondakinak) kentzeko, egin nahi genituen egiaztapenak egiteko behar genuen kotaraino, laukia hustu gabe aurreko jatorrizko buztinezko kotaraino (aurreko kanpainatik ezagutzen genuen hura).

Aldez aurreko lan horiei esker, honako ondorio hauek atera ditugu:

- XX. mendearen lehen herenean txabola bat eraiki zuten San Bartolome elizaren oinaldeko horma zaharraren kontra. Eraikina mendebaldeko itxiturari atxiki zitzaion, 1300. urtearen inguruan edo aurretik eraikia eta 1450etik aurrera eraberritua. Alboko hormetarako, hilerriko itxitura hormaren eta kontrahorma baten (2020an identifikatua eta Aro Modernoan datatua) artean zegoen eremu angeluzuzena baliatu zuten, biak ere lehendik zegoen hormaren kontra perpendikularki eraikiak. Hala, txabola hura egiteko, mendebaldeko fatxada, teilatua eta haren solairua baino ez zituzten eraiki behar izan. Lehergailuen biltegi gisa erabiltzeko egin zuten eraikin hura.
- Baselizaren mendebaldeko itxitura horma, baseliza 1856 inguruan eraitsi ondoren, zutik utzi zen hilerriaren horma perimetral gisa, 1809az geroztik erabiltzen baitzen hilerria. Baselizaren eraberritzea hilerria birplanteatzearekin batera gertatu zen. Hala ere, hezur hondakinak gordetzeko egindako hobi batek eragin zion gutxienez tenpluaren hego-mendebaldeko izkinari. Hezurtegia dirudiena dokumentatu dugu, baina induskatu gabe utzi dugu. Nolanahi ere, badakigu albo horretan lurra beherantz okertzen zela (altuera galtzen zuen ibaiaren ibilgura hurbildu ahala), eta XV. mendearen bigarren erdialdean eraikitako hegoaldeko horma malda-maldan zimendatu zela.
- XIII. mendearen amaierako elizaren hegoaldeko horma espero genuen tokian agertu zen gutxi gorabehera, mendebaldeko hormako harlangaitzezko estekaduran aldaketa nabari zen eremu batean. Funtsean, karezko bloke bat da (kolore grisaxkakoa) XV. mendeko hormaren nukleoa, dentsitate txikiko harri koskorrez finkatua, eta kanpoko aldeetan harlangaitzezko oihal batez forratua. Hala ere, 1300 inguruko eraikinaren kasuan, harrizko blokeez egindako eraikuntza nahiko homogeneoa da horma osoan, harriak kareorez lotuak (kolore zurixka-horixkakoa). 105 cm inguruko zabalera du. Esan behar dugu, halaber, zundaketa geotekniko baten zundak zulatu zituela horma horren zimenduak eta hura estaltzen duten deposituak. Zundaketa geotekniko hori, segur aski, XX. mendearen amaieran egingo zuten, N-I errepidera sartzeko zubia eraikitzeko aldez aurretik egindako azterketen ondorioz.
- Gaur egungo tenpluaren inguruko espaloia mugatzen duen estoldari ia itsatsita (eta, beraz, hura ezartzeko egindako zangak moztua), bi giza izterrezurren hondakinak dokumentatu ditugu, posizio anatomikoan, ekialde-mendebalde norabidean ehorcios orientales (más cercanos a la pared de la ermita actual) del cuadro. Así, vimos que, afortunadamente, los restos murarios del cierre occidental de las ermitas de los siglos XIII y XV (que ambas compartían en parte importante) no se habían visto afectados por la actuación.

Ya en 2020 se pudo saber que el piso del terreno que se extendía a los pies de las ermitas anteriores, en dirección al río, se hallaba a una cota bastante inferior al actual y que había sido regularizado mediante fuertes aportes de origen antrópico durante el siglo XX. Por lo tanto, nos servimos de una excavadora para retirar estos rellenos (la mayoría escombro) hasta una cota suficiente para realizar las comprobaciones que pretendíamos, sin vaciar el cuadro hasta la cota previa de arcilla original (la cual ya conocíamos desde la campaña anterior).

Estas labores previas nos han permitido llegar a las siguientes conclusiones:

- En el primer tercio del siglo XX se construyó una chabola contra el antiguo muro de los pies de la iglesia de San Bartolomé. El edificio se adosaba al cierre occidental construido hacia o antes de 1300 y reformado a partir de 1450. Para los muros laterales se aprovecharon de la existencia de un área rectangular formada entre el muro de cierre del cementerio y un contrafuerte (identificado en 2020 y datado en Época Moderna), ambos construidos perpendicularmente contra el muro preexistente. Así, para levantar esta chabola solamente tuvieron que construir la fachada oeste, el tejado y el piso de la misma. Este edificio se realizó para servir de almacén de explosivos.
- El muro de cierre oeste de la ermita, una vez derribada ésta hacia 1856, se dejó en pie como muro perimetral del cementerio, que ya se encontraba en uso desde 1809. La reforma de la ermita coincidió con un replanteamiento del cementerio. Sin embargo, la esquina suroeste del templo se vio afectado por al menos una fosa realizada para contener restos óseos. Se documenta lo que parece ser un osario, que se deja sin excavar. En todo caso, sabemos que en este costado el terreno buzaba hacia abajo (perdiendo altura conforme se acercaba al cauce del río) y que el muro sur levantado en la segunda mitad del siglo XV se cimentó en plena cuesta.
- El muro sur de la iglesia de fines del siglo XIII apareció aproximadamente donde se esperaba, en una zona donde se notaba un cambio en el aparejo de mampostería de la pared oeste. Básicamente, el núcleo del muro del siglo XV consiste en un bloque de mortero de cal (de tonos grisáceos) reforzado con cascajo en poca densidad, forrado en sus caras exteriores por un paño de mampostería. Sin embargo, en el caso de la construcción de hacia 1300 todo el muro consiste en una construcción bastante homogénea de bloques de piedra recibidos mediante mortero de cal (de tonos blancuzcos-amarillentos). Su anchura es de unos 105 cm. Indicaremos también que los cimientos de este muro, así como los depósitos que lo cubren fueron perforados por la sonda de un sondeo geotécnico, posiblemente realizados a fines del siglo XX a raíz de los estudios previos realizados para construir el puente de acceso a la N-I.
- Casi pegante a la atarjea que limita la acera que rodea el templo actual (y por tanto cortado por la zanja realizada para instalarla) se documentan los restos de dos fémures humanos, en posición anatómica, inhumados en orientación este-oeste



San Bartolome baseliza. Mendebaldeko itxitura hormaren aurrealdearen ikuspegia ekialdetik. Bertan, 1300eko eta 1450eko tenpluetako hormen lotura lerroa ageri da, bai eta eliza horietako lehenengoaren mendebaldeko eta hegoaldeko hormek osatutako angelua ere.

Ermita de San Bartolomé. Vista frontal del muro de cierre oeste desde el este, en la que se muestra la línea de unión de los muros de los templos de 1300 y de 1450, así como el ángulo formado por los muros oeste y sur de la primera de estas iglesias.

tziak (oinak ekialderantz). Gainerako hezurdura kendu egin zen teilapearen hondakinak lurperatzeko egindako indusketetan. 1300eko hormarekiko duen kokapenagatik, uste dugu XV. mendearen bigarren erdialdean tenplu berria eraiki aurreko ehorzketa dela, nahiz eta oraindik ez dugun erabateko datazio-rik denboran zehazkiago kokatzeko.

Horrela, egindako esku hartzeari esker, erantzun ahal izan diogu 2020an planteatutako zalantzari, eta egiaztatu dugu zuzena dela Erdi Aro berantiarreko handitzeari buruz egin genuen hipotesia. Hala, jakin ahal izan dugu XIII. mendearen amaierako nabearen barruko zabalera, hegoaldeko erdian behintzat, 3,95 metro ingurukoa zela (eta 6,15 metrokoa kanpokoa). Gainera, orubearen erabileraren azken faseen azterketan ere egin dugu aurrera, egungo tenplua eraiki zenetik abiatuta, eta espazio horren birmoldaketak aurreko eraikuntza hondakinei nola eragin zien ere aztertu dugu.

Nolanahi ere, etorkizunari begira, XIII. mende bukaerako elizaren burualdearen aztarnak aurkitzea baino ez litzaiguke geratuko. Gure ustez, gaur egungo tenpluaren mendebaldeko alboko hormaren eta erdiko korridorearen artean ezkutatuta egon daitezke. Horretarako, ikerketarekin jarraitu nahi dugu hurrengo kanpainan.

(con los pies hacia oriente). El resto del esqueleto fue eliminado por la excavación realizada para enterrar los restos de la tejavana. Por su situación respecto al muro de 1300, pensamos que se trata de un enterramiento previo a la construcción del nuevo templo durante la segunda mitad del siglo XV, aunque no disponemos aún de una datación absoluta para situarlo más exactamente en el tiempo.

Así, la intervención realizada nos ha permitido responder a la incógnita planteada en 2020 y comprobar que nuestra hipótesis sobre la ampliación tardomedieval era correcta. Así, hemos podido saber que la anchura interior de la nave de fines del siglo XIII, al menos en su mitad sur, era de unos 3,95 m (y de 6,15 m al exterior). Además, se ha avanzado también en el reconocimiento de las últimas fases de uso del solar a partir de la construcción del templo actual y de cómo afectó la remodelación de este espacio a los restos constructivos previos.

En todo caso, con vistas a futuro, solamente nos quedaría intentar hallar los restos de la cabecera de la iglesia de fines del siglo XIII, que consideramos que podrían esconderse entre el muro lateral oeste y el pasillo central del templo actual. Para ello, pretendemos continuar con la investigación en la próxima campaña.

I. Etxezarraga, N. Iraola, D. Cano

C.25. **ORIO**

C.25.1. **Martinportu etxea**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Jabeak finantzatua

C.25.1. **Casa Martinportu**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Propiedad

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with Martinportu House.

Orubearen azalera osoa hartu zuen esku hartze arkeologikoak. Agortu egin genuen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukera oro, emaitzak edo oso balio eskasekoak izan baitziren edo ez baitzuten inolako interes historiko-arkeologikorik.

Intervención desarrollada en toda la extensión del solar, agotando la posibilidad de nueva investigación sobre éste, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

Z. Galan Zumeta

C.26. / PARZONERÍA DE GIPUZKOA Y ÁLAVA / GIPUZKOA ETA ARABAKO PARTZUERGO NAGUSIA

C.26.1. San Adriango tunela edo Lizarrateko Igarobidea

XVI. kanpaina

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea

Finantzazioa: Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusia; Zegamako Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia; Zegamako Udala

C.26.1. Túnel de San Adrián o paso de Lizarrate

XVI Campaña

Dirección: Alfredo Moraza Barea

Financiación: Parzonería General de Gipuzkoa y Álava; Ayuntamiento de Zegama; Diputación Foral de Gipuzkoa

The archaeological intervention enabled the documentation of the most recent phases of occupation of the old fortress built inside the Tunnel during the 11th-12th or 13th century; the building was dismantled during the 18th century and turned into an inn for travellers.

2022an San Adrian/Lizarrateko tunelean edo leizean egindako lan arkeologikoak 2008an leku horretan bertan hasitako lanaren jarraipena dira (XVI. kanpaina). Hainbat erakundek parte hartzen dute ikerketa prozesu horretan (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Nagusia eta Zegamako Udala). Leku oso desberdinetatik etorritako hamar bat boluntariok eta ikaslek hartu dute parte lan horietan.

XVI. kanpaina honetan, azken urteotan lantzen ari garen bi eremu nagusietan egin dira lan arkeologikoak: ermitaren aurrean dagoen gunean, bolboategi izenez ezagutzen dena, eta Ostatu edo benta zaharraren barruan, tunelaren ekialdeko muturrean.

Ermitaren aurrean dagoen gunea (karlisten antzinako bolborategia)

Gune horietako lehenengoan 2012tik ari gara lanean, eta emaitza oso interesgarriak lortu ditugu. Aurreko kanpainan, dagoeneko ezagunak diren azken okupazio faziesak erregistratu ahal izan genituen (1225. UE), kronologikoki Azil/Madeleine aldiei atxiki dakizkienak. Funtsean, ehiztari-fruitu biltzaile talde batekin lotzen dira maila horiek, San Adrian/Lizarrate tunelean aldi baterako kanpaleku garrantzitsua zutenak, zenbait lehengaiz hornitzeko. Beheko mailetan kontserbatutako depositu arkeologikoaren balizko ezaugarriak ebaluatzeko beharra ezarri zuen kanpaina honetarako lan planak, etorkizuneko lan arkeologikoetan esku hartzeko behar beste irizpide eduki ahal izateko.

Inguruabar horiek kontuan hartuta, 1,33 x 1,33 m-ko zundaketa bakar bat egin dugu, eskuz, eta 1,36-1,70 m-ko sakonerara iritsi gara. Guztira lau maila erregistratu ditugu, oso ondo bereiziak.

- 1226. UE. Metro bat inguruko lodiera du depositu honek. Kolore marroiko buztin plastikoz osatua da, eta tamaina zentimetrikoko kareharrizko klasto ugari ditu. Iparraldera eta ekialdera okertzen da. Arkeologiaren ikuspegitik antzua da.
- 1227. UE. 10 eta 30 cm arteko lodiera du depositu honek. Lohi hareatsuek eta buztinek osatua da, kolo-

Los trabajos arqueológica desarrollados en el Túnel o Cueva de San Adrián/Lizarrate en el año 2022 son una continuidad de la labor iniciada en este mismo emplazamiento en el año 2008 (Campaña XVI). Un proceso de investigación en el que se encuentran implicadas diversas instituciones (Diputación Foral de Gipuzkoa, Gobierno Vasco, Parzonería General de Gipuzkoa y Álava y el Ayuntamiento de Zegama). Labores éstas en las que han venido colaborando una decena de voluntarios y estudiantes de muy diferente procedencia.


En esta presente XVI Campaña los trabajos arqueológicos se han desarrollado en los dos ámbitos principales en los que se viene trabajando durante los últimos años, la estancia dispuesta enfrente de la ermita conocida como el Polvorín y el interior del antiguo Ostatu o Venta, en el extremo E del túnel.

Estancia enfrente de la Ermita (antiguo Polvorín carlista)

En el primero de esos emplazamientos se viene trabajando desde el año 2012 con unos resultados de gran interés. En la Campaña precedente se pudieron registrar las últimas facies de ocupación ya conocidas (UE 1225), y adscritas cronológicamente al Aziliense/Magdaleniense. niveles que se asociaban básicamente a un grupo de cazadores-recolectores que tenían en el Túnel de San Adrian/Lizarrate un destacado campamento de carácter provisional destinado al abastecimiento de distintas materias primas. El plan de trabajo para esta presenté campaña establecía la necesidad de evaluar las posibles características del depósito arqueológico conservado en los niveles inferiores, a fin de disponer de criterios suficientes de actuación para los futuros trabajos arqueológicos.

Teniendo en cuenta estas circunstancias se ha procedido a ejecutar un único sondeo manual de 1,33 x 1,33 m, alcanzando una profundidad de 1,36-1,70 m. Habiendo registrado un total de cuatro niveles perfectamente diferenciados:

- UE 1226. Depósito de aproximadamente 1 m de espesor. Formado por arcillas plásticas de color marrón con abundantes clastos calizos de tamaño centimétrico. Buza al N y al E. Estéril arqueológicamente.



Ezkerrean, Erdi Aroko gaztelu zaharraren itxitura hormaren kokapen planoa, San Adrian/Lizarrateko tunelean, pixka bat atzeraemana egungo itxituratik. Eskuinean, San Adrian/Lizarrateko tunelean egindako lan arkeologikoetan berreskuratutako material higigarri batzuen xehetasuna: brontzezko titarea, kaolinezko piparen kazola, mikeleteen uniformearen botoia.

Loatzu I eta II monumentu megalitikoak (Andatzako megalito gunearen barruan daude megalito horiek) dauden lursailean zuhaitzak botatzeko eta berriz landatzeko proiektua zuen Kutxabankek. Hori dela eta, inpaktu arkeologikoari eta begi miaketei buruzko txostena egin dugu.

Lanetan zehar, hainbat elementu identifikatu ditugu. Alde batetik, Beldarrain muinoan, kobazulo txiki bat aurkitu dugu, baina barruan ez dugu intereseko material arkeologikorik atzeman, eta, bestalde, suharri zati bat.

Loatzu I monumentua dagoen muinoan, txabola baten eta antzinako itxitura horma baten aztarnak identifikatu ditugu. Loatzu II monumentua dagoen muinoan, berriz, beste bi suharri zati berreskuratu ditugu. Hala ere, Loatzu muinoaren inguruan identifikatu eta berreskuratu ditugu elementu gehien. Hainbat ikatz eta lur egosi metaketak eta hainbat txabola eta itxitura horma. Eraikin horietako bat zer-nolako ezaugarriak ikusteko adina kontserbatu da oraindik: oinplano angeluzuzena du, harlangaitzezko hormak lehorrean lotuak eta egurrezko estalkia teilaz egina. Loatzu muinoan bertan, baina iparralderantz, beste suharri zati bat aurkitu dugu.

Txabolak alde batera utzita, gizakiak espazioa ustiatzeko izan dituen moduen adierazle berriak baitira, harrizko materialek monumentu megalitikoen inguruan gizakiak duen presentzia erakusten dute, eta historiaurrean inguru horiek erabili zirela berresten dute.

Lortutako emaitzek iradokitzen dute material arkeologiko gehiago egon daitekeela eta monumentu megalitikoen ingurua babesteko ezarritako eremua oso garrantzitsua dela; izan ere, monumentu horiek eraiki zituzten pertsonei lotutako hondakinak daude hilobi horien inguruetan.

Debido al proyecto de Kutxabank para la corta de madera y nueva plantación en una parcela en la que se ubican los monumentos megalíticos de Loatzu I y II, incluidos en la estación megalítica de Andatza, se ha realizado un informe de impacto arqueológico y prospecciones visuales.

Durante los trabajos se han identificado diferentes elementos. Por un lado, en la colina de Beldarrain, hemos encontrado una pequeña cueva en cuyo interior no se han encontrado materiales arqueológicos de interés, y un fragmento de sílex.

En la loma donde se ubica el monumento a Loatzu I se han identificado restos de una chabola y de un antiguo muro de cierre. En la loma en la que se ubica el monumento de Loatzu II se han recuperado otros dos fragmentos de sílex. Sin embargo, ha sido en el entorno del collado de Loatzu donde se han identificado y recuperado un mayor número elementos. Diferentes acumulaciones de carbones y tierra cocida y varias chabolas y muros de cierre. Una de las construcciones aún se conserva lo suficiente para apreciar sus características: planta rectangular, paredes de mampostería en seco, y cubierta de madera con tejas. En el mismo collado de Loatzu, pero hacia el norte, se ha encontrado otro fragmento de sílex.

Al margen de las chabolas, indicadoras recientes de los modos de explotación del espacio por el ser humano, los materiales líticos muestran la presencia humana en torno a monumentos megalíticos y confirman el uso de estos parajes en la prehistoria.

Los resultados obtenidos sugieren que puede haber más material arqueológico y lo importante de la zona establecida para proteger el entorno de los monumentos megalíticos, dado que las inmediaciones de estos sepulcros se localizan restos asociados a las gentes que los construyeron.

M. Ceberio Rodriguez

C.33.1.2. **Ernioko megalito gunea (11. zk.). Putzu bat jartzea Itxurain tumuluaren ondoan (Alkiza)**

Zuzendaritza: Jesus Tapia
Finantzazioa: Naturtzaindia Elkartea

C.33.1.2. **Estación megalítica de Ernio (nº 11). Instalación de una charca junto al túmulo de Itxurain (Alkiza)**

Dirección: Jesus Tapia
Financiación: Naturtzaindia Elkartea

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Esku hartze arkeologikoa egin genuen putzu bat egiteko obran kontrolatzeko. Lan horien emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik. Etorkizunean ebaluatzeko gelditu da babes megalitikoko 3. eremuaren gainerakoa tumuluaren inguruan.

Intervención desarrollada en base al control de las obras de excavación de la charca, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto del Área 3 de protección megalítica en torno al túmulo.

J. Tapia Sagarna; Aranzadi Zientzia Elkartea

C.33.1.3. **Elosua-Plazentziako megalito gunea (10. zk.). Miaketa arkeologikoa Karakate-Iruian (Elgoibar-Soraluze)**

Zuzendaritza: Jesus Tapia
Finantzazioa: Soraluzeko Udala; Aranzadi Zientzia Elkartea

C.33.1.3. **Estación megalítica de Elosua-Plazentzia (nº 10). Prospección arqueológica en Karakate-Iruiya (Elgoibar-Soraluze-Placencia de las Armas)**

Dirección: Jesus Tapia
Financiación: Ayuntamiento de Soraluze-Placencia de las Armas; Aranzadi Zientzia Elkartea

Archaeological prospecting was conducted at the Elosua-Plazentzia Megalithic Complex and the surrounding area, up to the summit of Mount Gortazar/Karakate. The intervention enabled the location of three cists and a small mound, expanding the perimeter of the complex to include the entire Karakate-Irukurutzeta-Agerreburu mountain range.

Urte hauetan Elosua-Plazentziako megalito guneetan egin ditugun esku hartzeetan, ohikoa izan da material arkeologiko bakanak aurkitzea lurraren gainaldean, bereziki Idoia/Iruia eta Karakate/Kortazar gailurraren artean dagoen mendilerroan. Gainera, mendilerro osoan hilobi megalitikoak modu trinkoan eta zehaztuan banatzen badira ere, deigarria zen guretzat Gizaburuaga eta Karakate artean hilobi ebidentziarik ez egotea. Horren harira, Julian Ezenarrok eta Hilarriak taldeak jakinarazi ziguten zantzu posibleak bazeudela inguru horretan.

Hutsune bitxi horri buruzko zalantzak argitzeko eta bildutako zantzuak egiaztatzeko, kata bidezko miaketa proiektua jarri dugu martxan inguru horretan. Inguruko udalerrietako boluntario askoren eta gure ohiko laguntzaileen laguntza izan dugu proiektu hori aurrera eramateko.

Esku hartze honetan 5 kata arkeologiko egin ditugu eta gainazala miatu dugu Karakate-Idoia/Iruia tartean, Karakate/Kortazar (750 m), Akillar (760 m), Pagomuneta (750 m) eta Gizaburuaga (765 m) tontorrak eta haien artean dauden lepoak barne.

Egindako bost katetatik lauk emaitza positiboak eman dituzte:

Otsoaldasoro I zista

Julian Ezenarrok ohartarazi gintuen. 2 x 2 m-ko kata bat egin dugu hasieran, baina azkenean 8 x 5 m-ra handitu dugu. Landare estalkia eta gainazaleko lurren geru-

Durante las intervenciones que hemos realizado estos años en la Estación Megalítica de Elosua-Plazentzia, ha sido frecuente localizar materiales arqueológicos aislados en la superfcie del terreno, particularmente en el tramo de la sierra situado entre Idioia/Iruiya y la cima de Karakate/Kortazar. Además, pese a que en todo el cordal las sepulturas megalíticas se distribuyen de forma densa y pautada, llamaba nuestra atención la ausencia total de evidencias funerarias entre Gizaburuaga y Karakate, y en este sentido, recibimos avisos sobre la existencia de posibles indicios en la zona por parte de Julián Ezenarro y del grupo Hilarriak.

Con el objetivo de aclarar dudas sobre este extraño vacío y de comprobar los indicios recabados, hemos puesto en marcha un proyecto de prospección con catas en la zona, que ha contado con la ayuda de numerosos voluntarios de los municipios cercanos y de nuestros colaboradores habituales.

La intervención ha consistido en la excavación de 5 catas arqueológicas y en la prospección de superficie del tramo de Karakate-Idoia/Iruiya, incluyendo las cimas de Karakate/Kortazar (750m), Akillar (760), Pagomuneta (750m) y Gizaburuaga (765m) y los collados situados entre ellas.

De las cinco catas practicadas, cuatro han dado resultados positivos:

Cista de Otsoaldasoro I

Fue advertida por Julián Ezenarro. Se ha realizado una cata inicial de 2 x 2 m, finalmente ampliada hasta 8 x 5 m de extensión, retirándo únicamente la cubierta ve-

za bakarrik kendu ditugu. Emaitza gisa zista bat identifikatu dugu, erdi suntsitua, eta 3 bloke kontserbatu dira. Harri txikiz osatutako tumulua du inguruan. 7 metroko diametroa eta gehienez 0,4 metroko altuera ditu tumuluak. Suharrizko igitai bat, suharrizko hiru laska eta ehotzeko tresna bat berreskuratu ditugu bertan.

Gortazar zista

Hilarriak taldeak ohartarazi gintuen. 4 x 3 metroko kata bat egin dugu, eta landare estalkia eta gainazaleko lurren geruza bakarrik kendu ditugu. Emaitza gisa zista bat identifikatu dugu, erdi suntsitua, eta 3 bloke kontserbatu dira. 4-5 metroko diametroa eta gehienez ere 0,5 metroko altuera duen harrizko tumulua du inguruan. Suharrizko 3 printza eta ehotzeko tresna bat berreskuratu ditugu bertan.

Otsoaldasoro II zista

4 x 3 metroko kata bat egin dugu hasieran. Landare estalkia eta gainazaleko lurren geruza kendu ondoren, zista bat agertu da, erdi hondatua. Bi bloke handi dira eta harlauza bat lurrean sartua, eta bata bestearen gainean jarritako harlauza zabalak ditu barruko betegarrian. 4 metroko diametroa eta gehienez ere 0,5 metroko altuera duen harrizko tumulua du inguruan. Harlauzazko geruzak induskatu ondoren, suharrizko 2 laska, ehotzeko/urratzeko 2 tresna eta eskuz landutako 23 zeramika zati berreskuratu ditugu.

Otsoaldasoro III tumulua

4,4 x 1 metroko kata bat egin dugu lubaki gisa, forma obaleko konkor txiki baten erdialdea zeharkatuz. Indusketan ama harriaren oinarriraino iritsi gara, eta identifikatu ahal izan dugu oinplano obaleko tumulua dela, lurrez eta harriz osatua, gehienez 5 m-ko diametroarekin eta 0,40 cm-ko altuerarekin. Tumulua substratu harritsuaren gainean dago, eta ez du inolako hutsunerik edo baorik; aitzitik, zuzenean estaltzen du ama harriaren gainean metatutako ikatz geruza. Ikatz zatiak dituzten lurren artean suharrizko printza bat berreskuratu dugu.

Aurkikuntza horiez gain, suharrizko beste pieza batzuk ere aurkitu ditugu ibilbidearen hainbat zatitan. Oso onak izan dira miaketa lan honen emaitzak; izan ere, aukera eman dute mendilerroaren parte horretan zegoen informazio hutsune harrigarria betetzeko. Horrek pentsarazten digu horrelako egitura gehiago izateko aukera handia dagoela eremu horretan, gainazalean ez badira askorik nabari ere.

getal y la capa de tierras superficiales. Como resultado se ha identificado una cista semi destruida de la que se conservan 3 bloques, que está rodeada por un túmulo de pequeñas piedras, de 7 m de diámetro y 0,4 m de altura máxima. Se han recuperado un elemento de hoz en sílex, tres lascas de sílex y un útil de molienda.

Cista de Gortazar

Fue advertida por el grupo Hilarriak. Se ha realizado una cata de 4 x 3 m de extensión, retirándo únicamente la cubierta vegetal y la capa de tierras superficiales. Como resultado se ha identificado una cista semi destruida de la que se conservan 3 bloques, que está rodeada por un túmulo de piedras de 4-5 m de diámetro y 0,5 m de altura máxima. Se han recuperado 3 esquirlas de sílex y un útil de molienda.

Cista de Otsoaldasoro II

Se ha realizado una cata inicial de 4 x 3 m de extensión. Tras retirar la cubierta vegetal y la capa de tierras superficiales se observa una cista parcialmente destruida, delimitada por 2 grandes bloques y una laja hincada, que confinan un relleno de lajas planas superpuestas, y que se encuentra rodeada por un túmulo de piedras de 4 m de diámetro y 0,5 m de altura máxima. La excavación de las sucesivas capas de lajas ha permitido recuperar 2 lascas de sílex, 2 útiles de molienda/abrasión y 23 fragmentos de cerámica a mano.

Túmulo de Otsoaldasoro III

Se ha realizado una cata de 4,4 x 1 m a modo de trinchera atravesando la parte central de un pequeño abultamiento de forma oval. La excavación ha alcanzado hasta la base de roca madre, y ha permitido identificar que se trata de un túmulo de planta oval formado por tierras y piedras, con un diámetro máximo de 5 m y una altura de 0,40 cm. El túmulo se asienta sobre el substarto rocoso y no alberga ningún hueco o vano, sino que cubre directamente una capa de carbones depositados sobre la roca madre. Entre las tierras con carbones se ha recuperado una esquirla de sílex.

Además de estos hallazgos, se han recuperado otras piezas de sílex en distintos tramos del recorrido. Los resultados de esta prospección son altamente satisfactorios ya que permiten rellenar el sorprendente vacío de información que existía en este tramo de la sierra, y nos alertan sobre la elevada probabilidad de que existan en la zona más estructuras tan poco perceptibles en superficie como estas.

J. Tapia Sagarna; Aranzadi Zientzia Elkartea

C.33.1.4. **Gipuzkoako onura publikoko mendietako ondare arkeologikoa babestea**

Zuzendaritza: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Finantzazioa: Mendi Zuzendaritza. Gipuzkoako Foru Aldundia

C.33.1.4. **Salvaguarda del patrimonio arqueológico en los montes de utilidad pública de Gipuzkoa**

Dirección: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Financiación: Dirección de Montes. Diputación Foral de Gipuzkoa

This text outlines the actions carried out to safeguard our archaeological heritage against the various interventions planned by the Gipuzkoa Provincial Council's Woodland Department in public woodland areas in the province. Special focus is placed on protected areas containing different megalithic complexes that have been classified as historic monuments. We can conclude that the interventions carried out did not affect the area's archaeological heritage, and nor did the monitoring reveal any new findings.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritzari ematen zaion zerbitzua da basogintza eta abeltzaintza jarduerek lurraldeko onura publikoko mendietako ondare arkeologikoan duten eragina ebaluatzea. Horren harira, aurretiko eraginari buruzko hainbat txosten egin dira, baina kasu batzuetan bakarrik egin behar izan da landa lana.

Esku hartze gehienen helburua izan da ondasunak seinaleztatzea, lanak egin dituztenei ondasun horiek non dauden jakinarazteko, eta megalito bakoitzeko babes ertaineko eremuen perimetroak mugatu zaizkie basozainei eta inplikatutako gainerako foru langileei. Esate baterako, Loa trikuharria (Elduain), Etzala eta Unamene harrespilen multzoak (Elduain eta Hernani) eta historiaurreko beste hilobi babestu batzuk, larreak mantentzeko belar sastrakak kentzen diren lekuetan daudenak.

Bestalde, monumentu izendatutako Gipuzkoako megalito multzoen oinarrizko babeseko eremuen barruan, intereseko arkeologia testuinguruetan eragin daitekeen kaltearen aurrean, azkenik, landa lana behar izan duen jarduera bakarra honako hau da:

Pilotasoro / Elusbeltza (Oiartzungo Megalito Guneko Monumentu Multzoa)

Monumentu multzo horren oinarrizko babes eremuaren barruan, Arritxurietako harrespiletik eta Arritxurietako Gainekoek osatutako multzotik gertu, uraskak eta haien lurpeko kanalizazioak egin behar zirela eta, zanga haiek irekitzeko obrak kontrolatu genituen. Gainera, ikusita jatorri antropikoa izan dezakeen tumulu egitura bati eragin ziezaiokeela obrak (Arritxurietako gailurraren hegoaldeko hegalaren oinean dago), haren izaera egiaztatu genuen.

Zangak ireki zituztenean egin genuen kontrola antzua izan zen ibilbide osoan, eta indusketak ez zuen eraginik izan inguruan kokatutako ondasun megalitikoetan. Gainera, aipatutako tumulu egitura hori aztertu ondoren, gizakiak egina izateko aukera baztertu egin genuen; izan ere, landare geruzarik ez zuten eremu batzuetan egiaztatu genuen, begiz, lurreko harri granitikoa zela azpian zegoena.

El servicio que se presta a la Dirección de Montes de la Diputación Foral de Gipuzkoa consiste en la evaluación del impacto de las actividades forestales y ganaderas en el patrimonio arqueológico radicado en los montes de utilidad pública del territorio. En este sentido, se han realizado varios informes de impacto previo, aunque solamente en algunos casos ha sido precisa una intervención de campo.

La mayor parte de las intervenciones han consistido en la señalización de los bienes con objeto de advertir de su ubicación a quienes han llevado a cabo los trabajos, delimitando los perímetros de las áreas de protección media de cada megalito a los guardas forestales y a los demás empleados forales implicados. Es el caso del dolmen de Loa (Elduain), los conjuntos de crómlech de Etzala y Unamene (Elduain y Hernani) y de otros sepulcros prehistóricos protegidos que radican en zonas objeto de desbroces para el mantenimiento de los pastos.

Por otro lado, la única actuación que, finalmente, ha precisado de una intervención de campo ante una posible afección en contextos arqueológicos de interés dentro de las áreas de protección básica de los distintos conjuntos megalíticos de gipuzkoa declarados monumento es la siguiente.

Pilotasoro / Elusbeltza (Conjunto Monumental de la Estación Megalítica de Oiartzun)

Ante la instalación de una serie de abrevaderos y de sus respectivas canalizaciones subterráneas dentro del área de protección básica del conjunto monumental, cerca del crómlech de Arritxurieta y del conjunto formado por los de Arritxurietako Gaña, se realizó un control de las obras de apertura de las zanjas. Además, ante la posible afección de la obra a una estructura tumular de posible origen antrópico situada a los pies de la ladera sur de la cumbre de Arritxurieta, se procedió a verificar su naturaleza.

El control de la apertura de zanjas resultó estéril en todo su recorrido y la excavación practicada no afectó a ninguno de los bienes megalíticos radicados en la zona. Además, como resultado de la revisión de la expresada estructura tumular se desechó su origen humano, ya que en algunas zonas descarnadas de tapiz vegetal se comprobó de visu que lo que subyacía era la roca granítica del terreno.

I. Etxezarraga

C.33.2. BESTE BATZUK / OTROS

C.33.2.1. **Munoaundi herri harresitua (Azkoitia / Azpeitia)**

XVII. kanpaina
Zuzendaritza: Antxoka Martínez Velasco
Finantzazioa: Gipuzkoko Foru Aldundia; Azkoitiko eta Azpeitiko udalak

C.33.2.1. **Poblado fortificado de Munoaundi (Azkoitia / Azpeitia)**

XVII Campaña
Dirección: Antxoka Martínez Velasco
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa; Ayuntamientos de Azkoitia y Azpeitia

In 2022, we carried out the 17th season of excavations in Munoaundi, and began the 3rd phase of the research project. In this new phase, we focused on exploring new areas in order to expand our research efforts.

Munoaundiko XVII. indusketa kanpainarekin batera, proiektuaren 3. faseari hasiera eman diogu. Ikerketaren helburu nagusiek berdinak jarraitzen dute izaten, hau da, defentsa-sistema aztertzea, bizitokiak ikertzea eta nekropolia aurkitzea. Baina, hemendik aurrera, beste gune batzuetan arituko gara.

Indusketa-lanei dagokienez, aurtengo lanak 3. Eremuan eta harresiaren 2. Ebakiduran bildu ditugu. Programatutako ikerketa-lerroari jarraipena emanez, aztarnategiaren okupazio-mailetan eta defentsa sisteman sakondu dugu. Horiekin batera, 2. Eremuan zenbait lan osatu ditugu, gune horrek oraindik ere eskatzen dituelako helburuak betetzeko.

Era berean, Munoaundi herri harresituarekin lotutako hilerriaren aztarnak topatzeko saiakera egin dugu eta, horretarako, katak eta miaketa magnetikoa egin ditugu.

3. Indusketa-eremua aztarnategiaren goiko aldean kokatzen da. Aldez aurretik egindako azaleko miaketetan, zenbait material aurkitu ziren eta horrek eramaten gaitu pentsatzera okupatuta egon zela. Gainera, aterrazamendu zabala ikusten da, eta horrek adierazten du egokitzapen lanak egon direla. Kata bat egin dugu eremu horren potentziala baloratzeko, baina ez dugu emaitza positiborik lortu. Hala ere, programatuta dagoen bezala, datozen urteotan miaketa lanekin jarraituko dugu ingurunea sakonean arakatzeko.

Aztarnategiaren hego-mendebaldean irekitako 2. Ebakiduraren lanak osatzen joan gara, eta ekialdeko profilean sakondu dugu. Hiru azal jaitsi ditugu azalera osoan, eta iaz lortutako datuak osatu ditugu. Iaz ikusi bezala, baieztatu dugu harresia aterrazamenduaren gainean eraiki dela eta oinarriak kota desberdinetan daudela maldara egokitzeko. Ez dira eraikuntza-fase desberdinak bereizten atal horretan, nahiz eta pentsatzekoa den mantenu-lanak izan zituela. Eraikuntza-teknikari dagokionez, baieztatu dugu iaz ikusitakoa, hau da, koherentea dela 2. Indusketa-eremuan eta 1. Ebakiduran dokumentatuarekin –harresia horma bikoitzaren teknikaz altxatu zen, eta harlangaitzez eta bien arteko tartea betelanez sendotu; guztia, bertako materiala erabiliz–.

2. Indusketa-eremuaren garbiketa eta mantenu-lanak egin ditugu. Horiekin batera, aipatzekoa da, hegoaldeko okupazio-zoruan, bi koadroren mugan, erdialdean, agertu den zeramika-multzoa. Eskuz eginiko ontzi handi baten zatia agertu da erorkinen artean. Nahiko zatituta dagoenez, Gordailuko zaharberritzaileak etorri dira ateratzera. Egun zaharberritzen dago.

Coincidiendo con la XVII campaña de excavación de Munoaundi, se ha dado inicio a la fase 3 del proyecto. Los objetivos principales del estudio siguen siendo los mismos, es decir, estudio del sistema defensivo, estudio de la zona de viviendas y localización de la necrópolis. Sin embargo, a partir de ahora, se va a intervenir en otras zonas.

En cuanto a los trabajos de excavación, la intervención realizada durante esta campaña se ha centrado en la Zona 3 y en la Sección 2 de la muralla. Continuando con la línea de investigación programada, se ha profundizado en los niveles de ocupación del yacimiento y en el sistema defensivo. Al mismo tiempo, se han realizado una serie de trabajos en la Zona 2, ya que este espacio lo sigue demandando para el cumplimiento de los objetivos marcados.

Asimismo, se ha intentado localizar los restos del cementerio relacionado con el poblado fortificado de Munoaundi mediante catas y prospección magnética.

3. El área de excavación se sitúa en la parte superior del yacimiento. En las exploraciones superficiales realizadas previamente, se encontraron una serie de materiales que nos llevan a pensar que tuvo ocupación. Además, se observa un amplio aterrazamiento, lo que indica la existencia de labores de acondicionamiento. Se ha realizado una cata para valorar el potencial de esta zona, pero no se han obtenido resultados positivos. No obstante, tal y como está programado, en los próximos años continuaremos con las labores de exploración para rastrear en profundidad el entorno.

Se han ido completando los trabajos de la Sección 2 abierta al suroeste del yacimiento, profundizando en el perfil oriental. Hemos rebajado tres capas en toda la superficie, completado los datos obtenidos el año pasado. Como se vio el año pasado, hemos confirmado que la muralla se ha construido sobre el aterrazamiento y que los cimientos se encuentran a diferentes cotas para adaptarse a la pendiente. No se distinguen diferentes fases constructivas en esta parte del lienzo, si bien es de suponer que en el mismo se realizaron labores de mantenimiento. En cuanto a la técnica constructiva, se ha confirmado lo que observamos el año pasado, esto es, que es coherente con lo documentado hasta ahora en la Zona 2 y en la Sección 1 (la muralla se levantó con técnica del doble muro y se reforzó con mampostería y relleno de separación entre ambos, todo ello utilizando material autóctono).

2. Se han realizado labores de limpieza y mantenimiento de la zona de excavación. Además, destaca el conjunto cerámico aparecido en el suelo de ocupación sur, en el límite de dos cuadros, en la parte central. Entre las ruinas se ha recuperado un fragmento de un recipiente grande hecho a mano. Al estar bastante fragmentado, han acudido las y los restauradores de Gordailu a sacarlo. Actualmente está en restauración.



Harresiaren 2. Ebaketa. Egindako lanen ikuspegi orokorra.

Corte 2 de la murala. Vista general de los trabajos realizados.

Azkenik, nekropolia topatzeko lanak egin ditugu. Aurten, aurreko urteetan egindako lana osatzea hobetsi dugu. Horretarako, kata arkeologikoak egin ditugu 14-109 Partzelan, eta ikus-miaketa eta miaketa-magnetikoa egin ditugu aztarnategiaren barruan eta kanpoaldean, aurreko urteetan bezala, azken urteotako aztarnategiaren garbitze-lanak (sasiak eta garoak moztea bereziki) aprobetxatuz, miaketarako aukera handiagoa ematen baitu. Miaketek ez dute emaitza positiborik eman.

Berreskuratutako materialei dagokienez, batez ere eskuz egindako zeramikak topatu ditugu.

Finalmente, abordamos los trabajos de localización de la necrópolis. Durante esta campaña hemos optado por completar el trabajo realizado en años anteriores. Para ello, se han realizado catas arqueológicas en la parcela 14-109, y se ha llevado a cabo una prospección visual y magnética en el interior y exterior del yacimiento, aprovechando, como en años anteriores, las labores de limpieza del yacimiento de los últimos años, especialmente la corta de matorrales y helechos, lo que permite una mayor posibilidad de exploración. Las labores de prospección no han arrojado resultados positivos.

En cuanto a los materiales recuperados, se han encontrado principalmente cerámicas realizadas a mano.

A. Martínez Velasco

C.33.2.2. **Murugaingo herrigune gotortua (Aramaio / Arrasate, Aretxabaleta)**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantzazioa: Itelazpi, S.A.

C.33.2.2. **Poblado fortificado de Murugain (Aramaio / Arrasate / Aretxabaleta)**

Dirección: Ander Arrese
Financiación: Itelazpi S.A.

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Ukituriko azalera osoan egin zen kontrol arkeologikoa, baina emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik.

Control arqueológico realizado en toda la superficie afectada siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico.

A. Arrese

C.33.2.3. **Gipuzkoako antzinako meatzaritza**

Zuzendaritza: Txomin Ugalde

Dirulaguntza emailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.33.2.3. **Minería antigüa de Gipuzkoa**

Dirección: Txomin Ugalde

Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

We focused researching on mining activities in the Aiako Harria massif, the Aralar Mountain Range and the mining region of Basagain. In Aiako Harria, we found new iron mines that appear to date from the Roman era. In Aralar, we began work in a new copper mining area and completed our mapping of Basagain.

Aiako Harriko miaketak. Amasain, Gorosti, Arditurri

Aiako Harriko Paleozoikoko mendigunean lau gunetan egin dira meatze arkeologiari buruzko lanak: Arditurri, Amasain, Meazuri eta Gorosti.

Arditurri da duela 25 urte ikertu genuen lehen meatze barrutia, eta bertan aurkitu da galeria erromatar gehien. Joan den urtean, barruti horretara itzuli ginen erromatar meatzaritzako adibide nagusien kartografia digitala egiteko, eta egiaztatu genuen multzo modernoetan bazirela bazterreko galeriak eta erregistratu gabeko antzinako lanak zituzten eremuak. Aurten, berriz, labirinto moduko meatze multzo modernoetan barrena ibili gara, eta intereseko eremuak miatu ditugu, miaketa eta azterketa kanpaina berriak abian jartzeko. Horren ondorioz, erromatrren garaian ustiatu zituzten galeria interesgarri berriak aurkitu ditugu meatze gune moderno handien barruan.

Amasaini dagokionez, aurten amaitu ditugu burdin mineralaren ustiategi konplexu horren miaketa eta kartografia lanak. Tipologikoki ezberdina den ustiapen sekuentzia egiaztatu dugu. Goiko kotetan daude maila zaharrenak, eta beheko kotetan modernoak. Multzo horren alderdi interesgarriena da erromatarren garaiko tipologiako burdin mearen ustiategien kokalekuak aurkitzea, bereziki Amasain 2 izenekoa. Ustiategi hori zenbait alderditan bestelakoa da garai hartan bertan Aiako Harriko eta Bortzirietako mendigune paleozoikoko adibide ugarietan galena zilarduna ustiatzeko erabiltzen ziren teknikekin alderatzen badugu.

Meazurin, Meazuri 10 miatu eta topografiatu dugu. Mea ustiategia da, eta kalkopirita eta galena zainak ikus daitezke bertan. Multzoa hiru mailatan garatzen da, eta iragaitzazko galeria oso estuekin eta erauzketa gela txikiekin.

Gorostiko sektorean ere hasi ditugu miaketa eta kartografia lanak. Bertan, hamaika interesgune aurkitu ditugu, gainazaleko eta galeriako burdina ustiategiak dituztenak, antzinako tipologiakoak. Sektore hori aztertzen ari gara gaur egun.



Aitzarteko gunearen azterketa Ataunen.

Exploración del complejo de Aitzarte en Ataun.

Las prospecciones de Aiako Harria. Amasain, Gorosti, Arditurri

Los trabajos sobre arqueología minera en el macizo del Paleozoico de Aiako Harria, se han localizado en cuatro zonas; Arditurri, Amasain, Miazuri y Gorosti.

Arditurri es el primer coto minero que investigamos hace ya 25 años y donde se ha hallado mayor número de galerías romanas. El pasado año, volvimos a este coto para realizar cartografía digital de los principales ejemplos de minería romana y comprobamos que en los complejos modernos existían galerías marginales y zonas con trabajos antiguos no registrados, la labor este año ha consistido en realizar un recorrido por los laberínticos complejos mineros modernos e ir registrando las zonas de interés para relanzar nuevas campañas de exploración y estudio. Fruto de ello ha sido la localización de nuevas interesantes galerías de explotación romanas inscritas en los grandes complejos mineros modernos.

Respecto a Amasain, este año hemos finalizado los trabajos de exploración y cartografía de este complejo de explotación de mineral de hierro. Hemos comprobado una secuencia de explotación tipológicamente diferente, encontrándose los niveles más antiguos en las cotas superiores, y modernos en las inferiores. Lo más interesante del complejo es la localización de explotaciones de mineral de hierro de tipología romana, especialmente la denominada como Amasain 2, que difiere en ciertos aspectos de las técnicas de explotación de galena argentífera de ésta misma época en los abundantes ejemplos de Aiako Harria y del macizo paleozoico de Cinco Villas.

En Miazuri, hemos explorado y topografiado Miazuri 10, que corresponde a un complejo minero de explotación donde es posible apreciar filones de calcopirita y galena. El complejo se desarrolla a tres niveles, con galerías de tránsito muy estrechas y pequeñas salas de extracción.

También hemos iniciado los trabajos de prospección y cartografía en el sector de Gorosti, donde se han localizado once puntos de interés con explotaciones de hierro de superficie y en galería de tipología antigua, y que está en estudio.

Aralar mendia

Aralar mendilerroan egin ditugun lanek bi eremu izan dituzte ardatz: Arritzagako barrutia eta Ataungo Domoko meategiak.

Arritzagan, aurreko urteetan inbentariatutako interesguneei buruzko datuak lortu eta kartografia egin dugu. Lan horietan zehar, kobre minerala erauzteko montera berriak aurkitu ditugu, eta, dagoeneko datatuta dauden beste batzuekin duten antzagatik, Brontze Aroan egindako lanekin loturik egon daitezke.

Ataungo Domoko meatzaritzari dagokionez, Aitzarretako kobre meategiak erregistratzen eta kartografiatzen jarraitu dugu. Meategi horietako batean, erauzketa teknika desberdinak nabari dira, eta horien jatorria aztertzen ari dira. Burdin meatzaritzako adibideak ere aurkitu dira, teknika zaharrekin loturiko monterak eta galeriako ustiategiak. Ikatz ugari dago haietako batean, eta, ikatz horiek erauzteko baimenak lortu ondoren, meatze ustiategiaren garaia zehazteko aukera izango dugu.

Basagain

Meatze barruti honetako lanak izan dira, alde batetik, Basagain II-ko lurrazpiko kartografia osatzea, multzoko handiena baita, eta, bestetik, Basagain I-eko oligisto espekularra erauzteko monterak berrikustea, etorkizunean kata arkeologiko bat egin ahal izateko.

Sierra de Aralar

Nuestros trabajos en la Sierra de Aralar se han centrado en dos zonas; El coto de Arritzaga y las minas del denominado Domo de Ataun.

En Aritzaga el trabajo ha consistido en la obtención de datos y cartografía de los puntos de interés inventariados durante los años anteriores, en el transcurso de los cuales se han localizando nuevas monteras de extracción de mineral de cobre, que por su similitud con otros ya datados, pueden corresponder con trabajos efectuados en la Edad del Bronce.

Respecto a la minería del Domo de Ataun, hemos continuado con el registro y cartografía de las minas de cobre de Aitzarreta, en una de las cuales se advierten diferentes técnicas de extracción cuyos orígenes están en estudio. Se han localizado también ejemplos de minería de hierro, con explotaciones de monteras y en galería que corresponden a técnicas antiguas. La presencia de abundantes carbones en una de ellas, que tras obtener los permisos correspondientes para su extracción, nos permitirán poder datar la época de la explotación minera.

Basagain

Los trabajos en este coto minero, se han centrado en completar la cartografía subterránea de Basagain II, la mayor del conjunto, y la revisión de las monteras de extracción de oligisto especular de Basagain I con objeto de realizar en un futuro una cata arqueológica.

T. Ugalde. Felix Ugarte Elkartea

C.33.2.4. **Miaketa arkeologikoak Asteasun, Lepasoro Ataunen, Aitzarten**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.33.2.4. **Prospecciones arqueológicas en Asteasu, Lepasoro Ataun, Aitzarte**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

Prospecting and archaeological research carried out in different caves in the vicinity of Ibiturrierreka stream in Asteasu and Itaundieta in Ataun.

Felix Ugarte Elkartea Espeleologia Taldeak, Arkeolan Fundazioarekin batera, Gipuzkoako lurraldeko sistema karstikoen ikerketetan hainbat barrunbe inbentariatu eta aztertu ditu, eta horietako batzuek, dituzten ezaugarriei erreparatzen badiegu, aztarnategi arkeologikoak izan ditzakete.

Ararteko Arkaitza da Santa Barbaran hasten den kareharrizko barra baten mendebaldeko muga, eta Buruntzatik eta Belkoaindik jarraitzen du. Aztertutako eremua, batez ere, Ibiturrierrekako haranean oinarritzen da. Han, kareharri urgoniarrak azaleratzen dira, eta haran karstiko bat sortzen da, hainbat iturburu eta hustubide dituena. Mendi hegaletan harpe ugari ikus daitezke, eta haietako batek, Lepasorok, aztarnategi arkeologiko bat du katalogatua. Bordabeko Arkaitza kareharrizko muinoaren hegoekialdeko hegalean daude ikertutako harpeak.

Miaketak Ibiturrierrekako harpeetan. Lepasoro

Bordabeko Harkaitza 1

Harpe bat eratzen du kareharrian, 4 metroko zabalerakoa, eta barrualdean barrunbea ikusten da, ze-

El Grupo de Espeleología Felix Ugarte Elkartea junto a la Fundación Arkeolan, en sus investigaciones de los diferentes sistemas kársticos del Territorio de Gipuzkoa ha inventariado y explorado diferentes cavidades algunas de las cuales, por sus características, podrían albergar yacimientos arqueológicos.

Ararteko Arkaitza es el límite occidental de una barra caliza que se inicia en Santa Bárbara, continua por Buruntza y Belkoain. La zona estudiada se centra principalmente en el valle de Ibiturrierreka, donde afloran las calizas urgonianas, dando lugar a un valle kárstico con varios manantiales y sumideros. En sus laderas pueden apreciarse numerosos abrigos, uno de los cuales, Lepasoro, tiene un yacimiento arqueológico catalogado. Los abrigos investigados se encuentran en la ladera SE de la colina caliza de Bordabeko Arkaitza.

Prospecciones en los abrigos de Ibiturrierreka. Lepasoro

Bordabeko Harkaitza 1

Forma un abrigo en la roca caliza de 4 m de ancho en cuyo interior se aprecia una cavidad impenetrable

harkaezina sedimentuz betea dagoelako. Kanpoaldean suharri hondakinak, hezur zatiak eta itsas moluskuen maskor batzuk (Patella vulgata) aurkitu genituen.

Bordabeko Harkaitza 2

3 metroko luzera eta 2 metroko sakonera ditu harpe honek, eta ibai ibilguarekiko 10 metroko desnibelean dago. Barruan kata arkeologiko bat egin genuen, baina emaitzak negatiboak izan ziren.

Bordabeko Harkaitza 3

4 metroko luzera eta 2 metroko sakonera ditu harpe honek, eta ibai ibilguarekiko 3 metroko desnibelean dago. Barruan kata arkeologiko bat egin genuen, baina emaitzak negatiboak izan ziren.

Miaketak Itaundietan. Lizarreta, Kobazabal eta Kobabeltz leizeak

Ataungo Domoa deitutako kareharri urgoniarretan oinarritu dira ikerketak. Sektore horretan aztarnategi arkeologiko gisa katalogatutako barrunbe asko daude, eta gure lana izan da aspaldi ez dela aurkitu diren barrunbeen eta interes arkeologikotzat katalogatu gabeko beste barrunbe batzuen ikerketa arkeologikoa egitea.

Lizarretako koba

Aurkitu berri den koba honek 150 metro inguruko luzera du eta 15 metroko putzua. Hasierako galeria lurzoru horizontalekoa da eta estalagmita formazio ugari ditu. Galeria nagusiaren bukaeran buztinezko geruza bat dago, eta ikatz puska ugari eta hezur hondakinen bat ageri dira bertan. C14 bidezko datazioa egitera bidali dugu ikatzen lagin bat.

Kobazabal

Sarrera zabala du kobazulo honek, eta 13 metroko luzera, 6 metroko zabalera eta zoru horizontala duen gela baterako sartzen da hartatik. Kata arkeologiko bat ireki genuen, eta ikusi genuen ama harria ukitzen ikatz maila fin bat zegoela, baina ez genuen material arkeologikorik aurkitu.

Kobabeltz

Aurrekoen inguruan dago kobazulo hau. Garapen horizontala du, 20 metroko luzera eta 6 metroko zabalera. Kata arkeologiko bat egin genuen han, baina emaitza negatiboa izan zen.

debido a la colmatación por sedimentos. En su exterior se hallaron restos de sílex, fragmentos de huesos y algunas conchas de moluscos marinos (Patella vulgata).

Bordabeko Arkaitza 2

Es un abrigo de 3 m de largo por 2 de profundo y situado a unos 10 m de desnivel respecto al curso fluvial. En su interior se abrió una cata arqueológica con resultados negativos.

Bordabeko Arkaitza 3

Es un abrigo de 4 m de largo por 2 de profundo y situado a unos 3 m de desnivel respecto al curso fluvial. En su interior se realizó una cata arqueológica con resultados negativos.

Prospecciones en Itaundieta. Cuevas de Lizarreta, Kobazabal y Kobabeltz

Las investigaciones se han centrado en las calizas urgonianas del denominado Domo de Ataun. En este sector existen numerosas cavidades catalogadas como yacimiento arqueológico y nuestro trabajo se ha centrado en la investigación arqueológica en algunas de reciente descubrimiento y en otras no catalogadas como de interés arqueológico.

Lizarretako koba

Esta cueva de reciente descubrimiento tiene una longitud de unos 150 m con un pozo de 15 m. La galería inicial es de suelo horizontal con numerosas formaciones estalagmíticas. Al final de la galería principal se ha hallado un estrato con arcillas, abundantes carbones y algún fragmento óseo. Una muestra de los carbones se ha enviado a realizar una datación por C14.

Kobazabal

Cueva de amplia entrada que da acceso a una sala de 13 m de longitud por 6 m de anchura y suelo horizontal. Se abrió una cata arqueológica donde se observó que en el contacto con la roca madre había un fino nivel de carbones, pero no se halló material arqueológico alguno.

Kobabeltz

Se trata de una cueva situada en las inmediaciones de las anteriores, de desarrollo horizontal de 20 m de longitud por 6 m de anchura. Se realizó una cata arqueológica con resultado negativo.

Z. Galan Zumeta

C.33.2.5. **Piaspe parke eolikoa eta ebakuazioko linea elektrikoa (Zestoa / Azpeitia / Errezil)**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Basoinsa S.L.

C.33.2.5. **Parque eólico Piaspe y línea eléctrica de evacuación (Zestoa / Azpeitia / Errezil)**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Basoinsa S.L.

Prospecting enabled us to document various anomalies, meaning that the project is now subject to corrective measures.

Instalazio eolikoak hartuko duen goragunearen miaketa intentsiboak eta erabatekoak ez du aukerarik eman orain arte ezagutzen ez ziren aztarnategi arkeologikoak dokumentatzeko, baina balio izan du tokian bertan egiaztatzeko 1945-1946tik aurrera egindako hegaldien argazkiak eta LiDAR eredu digitalak aztertzeko aurreko fasean detektatutako hainbat anomalien izaera.

La prospección intensiva y de cobertura total de la elevación que acogerá la instalación eólica no ha deparado la documentación de yacimientos arqueológicos desconocidos hasta la fecha pero ha servido para comprobar sobre el terreno la naturaleza de varias anomalías detectadas en la fase previa de análisis de las fotografías de los vuelos realizados a partir del 1945-1946 y del modelo digital LiDAR.

Honako hauek dira detektatutako inpaktuak eta horiek arintzeko proposatutako neurri zuzentzaileak:

1. anomalia. Etxolatxoa

Anomalia hori miaketa egin aurretik detektatu zen, airetik egindako argazkien eta LiDAR eredu digitalaren analisian. Tokian bertan egindako berrikuspenari esker, elementu etnologiko gisa identifikatu ahal izan zen. Gaur egungo aterpe edo etxola txiki bat zen eta honako koordenada zentral hauetan zegoen: UTM X.- 563736/Y.- 4783335. Gaur egun, kontserbatutako hondakinak erabat hondatuta daude, baina nabari da kareharriz egina zela, harriak lehorrean lotuak. Oinplano angeluzuzena mantendu da, 3,50 metroko luzerakoa ekialdetik mendebaldera, 2,20 metroko zabalerakoa iparraldetik hegoaldera eta 0,90 m-ko altxaerakoa gehienez.

Neurri zuzentzaileak: neurketa dorrerako sarbidearen adarretik gertu dagoenez, eraikina balizatzea eta hesolaz inguratzea proposatu da, 5 m-ko erradioan, obra zibileko agenteei behar bezala seinaleztatzeko eta ez hondatzeko.

2. anomalia

Anomalia hori UTM X.- 561695/Y.- 4782429 koordenatu zentraletan dago, eta miaketa egin aurretik detektatu zen, airetik egindako argazkien eta LiDAR eredu digitalaren analisian. Ikus daiteke oinplano angeluzuzeneko egitura bat dagoela, 23 metroko luzerakoa ipar-mendebaldetik hego-ekialdera eta 14 metroko zabalerakoa hego-mendebaldetik ipar-ekialdera. Lursailean bertan egindako berrikuspenari esker, egiaztatu ahal izan zen lurrez eta harri txiki eta ertain irregularrez osatutako muinoa dela. Gaur egun 10 metroko luzera, 4,5 m-ko zabalera eta 0,70 m-ko altuera ditu, ez du oinplano zehatzik, baina nabarmendu egiten da dagoen inguruan.

Zenbait datu ikusita, hala nola oinplano angeluzuzenaren erregulartasuna, kultura materialaren hondakinik ez izatea eta bakarra izatea, baztertu egin beharko litzateke egitura arkeologikoa izateko aukera. Bestalde, eraikuntza hondakinik (harlandu txikiak, teilak, baldosak, etab.) ez egoteak ere, lagunduko luke baztertzen garai modernoko edo garaikideko elementu etnologiko gisa identifikatzeko aukera, inguruko abeltzaintza jarduera tradizionalari lotua. Hipotesi egingarriena da, esku hartze arkeologiko handiagorik ezean, hondakindegia izatea, eremu horretan zundaketa mekaniko bat induskatu ondoren sortua. Ustez, ura biltzeko prozesuari lotua egongo zen, gaur egun dagoen eta erabiltzen ari den erregistroaren antzekoa, 180 metro ekialdera dagoena, edo Sañu tontorrean egindakoaren antzekoa, 460 metrora dagoena.

Neurri zuzentzaileak: balorazio eta peritazio arkeologikorako zundaketa bat egitea. Haren helburua izango da galdera horiei erantzutea eta kontserbatutako hondakinak zehatz-mehatz dokumentatzea.

3. anomalia

Anomalia hori miaketa egin aurretik detektatu zen, airetik egindako argazkien eta LiDAR eredu digitalaren analisian. Haietan ikusten zen lurra hondoratua zegoela UTM X.- 561405/Y.- 4782479 koordenatu zentraletan. Hondoratutako guneak 9 metroko luzera zuen hego-mendebaldetik ipar-ekialdera eta 2 metroko zabalera ipar-mendebaldetik hego-ekialdera. Tokian bertan egindako miaketari esker, egiaztatu ahal izan zen luzetarako lubaki txiki bat dela, lurrean irekia, gutxi gorabehera 1,5 m-ko sakonerakoa eta lehen aipatutako neurri

Los impactos detectados y la propuesta de medidas correctoras para mitigarlos son las siguientes:

Anomalía nº 1. Chozo

Esta anomalía fue detectada de forma previa a la prospección, durante el análisis de la fotografía aérea y el modelo digital LiDAR. La revisión sobre el terreno permitió identificarla como un elemento etnológico, al corresponder a un pequeño refugio o chozo de época contemporánea y situado en las coordenadas centrales UTM X.- 563736 / Y.- 4783335. En la actualidad, los restos conservados están completamente arruinados aunque se advierte que fue construido con piedra caliza, a seco, y se mantiene su planta rectangular, de 3,50 m de longitud este-oeste por 2,20 m de anchura, norte-sur y un alzado máximo de 0,90 m.

Medidas correctoras: debido a su proximidad al ramal del acceso a la torre de medición se ha propuesto el balizado y estaquillado de la construcción, en un radio de 5 m, a fin de señalizarla de forma conveniente a los agentes de la obra civil e impedir su deterioro

Anomalía nº 2

Esta anomalía, situada en las coordenadas centrales UTM X.- 561695 / Y.- 4782429, fue detectada de forma previa a la prospección, durante el análisis de la fotografía aérea y el modelo digital LiDAR, siendo perceptible la existencia de estructura de planta rectangular con unas dimensiones de 23 m de longitud noroeste-sureste por 14 m de anchura suroeste-noreste. La revisión sobre el terreno permitió se pudo corroborar que corresponde a un montículo conformado por tierra y piedras irregulares de tamaño pequeño y medio, que en la actualidad mide 10 m de longitud, 4,5 m de anchura y 0,70 m de altura, sin planta definida pero resaltado en el entorno circundante.

Algunos datos como la regularidad de su planta rectangular, la ausencia de restos de cultura material asociados y su propia unicidad, parecen descartar que se trate de una estructura arqueológica. Por otro lado, la significativa ausencia de restos constructivos: sillarejos, tejas, baldosas, etc. contribuiría a descartar su identificación como un elemento etnológico de época moderna o contemporánea, vinculado a la actividad ganadera tradicional de la zona. La hipótesis más factible, a falta de una intervención arqueológica de mayor envergadura, es que se trate de la escombrera generada tras la excavación de un sondeo mecánico en esta zona, presumiblemente vinculado a la captación de agua, similar al registro existente y en uso, situado a apenas 180 m al este, o al realizado en la cima Sañu, a 460 m de distancia.

Medidas correctoras: excavación de un sondeo de valoración y peritación arqueológica cuyo objetivo será solventar dichos interrogantes y documentar de forma exhaustiva los restos conservados.

Anomalía nº 3

Esta anomalía fue detectada de forma previa a la prospección, durante el análisis de la fotografía aérea y el modelo digital LiDAR, en la que fue perceptible la existencia de un rehundimiento del terreno, en las coordenadas centrales UTM X.- 561405 / Y.- 4782479, de 9 m de longitud, suroeste-noreste, por 2 m, noroeste-sureste. La prospección sobre el terreno permitió verificar que se trata de una pequeña trinchera longitudinal, abierta en el terreno, de 1,5 m de profundidad aproximada e idénticas medidas a las ya comentada. Puede

berberekin. Proiektuak anomalia horretan zuzeneko eragin fisikoa izatea baztertu daiteke, nahiz eta P-01 aerosorgailuaren plataforma eta erdi tentsioko zanga 25 metroko distantzian egon.

Neurri zuzentzaileak: balizatzea eta hesolaz inguratzea, 5 m-ko erradioan, obra zibileko agenteei behar bezala seinaleztatzeko eta garbiketa eta dokumentazioa egiteko. Helburua izango da eskaintzen dituen zalantzak argitzea; izan ere, gaur egun landarez estalia dago, eta, beraz, ezin da egiaztatu leize/haitzulo gisa identifikatzeko moduko sarrerarik baduen. Inguruan ez da aurkitu inolako kultura materialik, ez zeramikazko, ez harrizko edo bestelakorik, kokagune edo ezarleku posible batekin lotura duela adierazten duenik.

descartarse una afección física directa del proyecto sobre esta anomalía aunque la plataforma del aerogenerador P-01 y la zanja de media tensión se sitúan en un entorno de 25 m de distancia.

Medidas correctoras: balizado y estaquillado, en un radio de 5 m, a fin de señalizarla de forma conveniente a los agentes de la obra civil y limpieza y documentación de la misma. El objetivo será despejar las dudas que ofrece ya que, en la actualidad está cubierta de vegetación lo que impide comprobar si posee alguna entrada que permitiera su identificación como una sima / cueva y en su entorno no se localizó ningún resto de cultura material, cerámico, lítico o de otra índole asociado e indicativo de su vinculación con un posible enclave o asentamiento.

M. Lerín Sanz; A. Ruiz de Marco

C.33.2.6. **«Saseta» defentsa sistema. Gerra Zibileko arkeologia Adunan, Asteasun, Larraulen eta Zizurkilen**

Zuzendaritza: Julien Blanco

Finantzazioa: Adunako, Asteasuko, Larraulko eta Zizurkilgo Udalak; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.33.2.6. **El sistema defensivo «Saseta»: arqueología de la Guerra Civil en los municipios de Aduna / Asteasu / Larraul / Zizurkil**

Dirección: Julien Blanco

Financiación: Ayuntamientos de Aduna, Asteasu, Larraul y Zizurkil; Diputación Foral de Gipuzkoa

Since 2013, the Aranzadi Science Society has been committed to a project which aims to study a sector of the August-September 1936 front, located in the centre of the province of Gipuzkoa. The 2022 season focused on Mount Arripilleta in Zizurkil, with the aim of exhaustively exploring a defensive position located in this area. The sondages and prospecting carried out help complement the data gathered previously, enabling us to identify and characterise two different defensive trenches, as well as several areas containing military materials and a ditch that may have been dug to defend against tanks. For the first time along this front, we were able to research different elements pertaining to the same defensive position. These findings enable a better understanding of the organisation of this defensive system, which was established as an emergency measure by the Azpeitia Military Command in response to the advance of rebel forces through the province of Gipuzkoa. The sondage carried out in the highest defensive trench also enabled the identification of another earlier structure, probably pre- or proto-historic in nature, through which the line of the trench passed.

2013an, Gipuzkoako erdialdean 1936ko abuztuiraileko frontearen sektore bat ikertzen hasi zen Aranzadi Zientzia Elkartea. Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu eta finantzatu dute proiektua. Helburua da Espainiako Gerra Zibilean lau udalerri horietan zer gertatu zen dokumentatzea, giza eskubideen urraketak barne. Arkeologiaren ikuspegitik begiratuta, gure jarduerek helburu zientifikoa dute, bai fronteko lerro bat dokumentatzeko bai Azpeitiko Komandantziatik defentsa lerro bat nola antolatzen zen aztertzeko, baina helburu soziala ere badute, tokiko memoria kolektibotik desagertutako elementuak berreskuratzeko, eta herritarrek parte hartzeko dibulgazio jardueretan nahiz ikerketa arkeologikoko prozesuetan eta memoria historikoa berreskuratzeko prozesuetan.

En 2013 se empezó la investigación de un sector del frente de agosto-septiembre de 1936 en la zona centro de Gipuzkoa desde la Sociedad de Ciencias Aranzadi. El proyecto viene impulsado y financiado por los ayuntamientos de Aduna, Asteasu, Larraul y Zizurkil y por la Diputación Foral de Gipuzkoa. El objetivo es documentar lo sucedido en estos cuatro municipios durante la Guerra Civil Española, incluyendo las vulneraciones de derechos humanos. Desde un punto de vista arqueológico, nuestras actuaciones tienen una finalidad tanto científica, con la documentación de una línea de frente y el estudio de la organización de una línea defensiva desde la Comandancia de Azpeitia, como social, con el propósito de recuperar elementos desaparecidos de la memoria colectiva local, y la participación de la ciudadanía tanto en actividades de divulgación como en procesos de investigación arqueológica y de recuperación de la memoria histórica.

Testuinguru historikoa

1936ko uztaileko estatu kolpearen ondoren eta hura Nafarroan bete ondoren, uztailaren 18an bertan zutabe matxinatuak antolatu ziren Gipuzkoako lurraldea okupatzeko, Frantziarako mugako igarobidea mozteko helburu nagusiarekin. Hori zela eta, Agintarien Batzarra antolatu zen, eta, ondoren, Gipuzkoako, Eibarko eta Azpeitiko Defentsa Batzarrak. Batzar horiek hiru sekto-

Contexto histórico

Tras el golpe de estado de julio 1936 y su cumplimiento en Navarra, se organizan columnas sublevadas el mismo 18 de julio para ocupar el territorio guipuzcoano, con el objetivo principal de cortar el paso fronterizo con Francia. En consecuencia se organiza la Junta de Autoridades, seguida por las Juntas de Defensa de Gipuzkoa, de Eibar y de Azpeitia, que se reparten el terri-

retan banatu zuten Gipuzkoako lurraldea, matxinatutako indarren aurkako babesa antolatzeko. Gipuzkoako sektore zentralaren zati batean oinarritzen da gure proiektua. Abuztuaren 5ean sortutako Azpeitiko Batzordeak antolatu zuen sektore haren defentsa. Oria ibaiak ekialdean eta Debaren eskualdeek mendebaldean mugatutako lurraldea babesteaz arduratzen zen Azpeitiko Komandantziaren antolakuntza, eta Candido Saseta karrerako militarra komandante izendatzeak, ondorio zehatzak izan zituen frontean. Batzarra sortu izanari esker, hiriguneak defendatzeko saiakerak gainditu ahal izan ziren, kolpe militarra izan zenetik ez baitzuten Oria ibaiaren haraneko zutabe matxinatuen aurrerapena geldiarazteko aukerarik eman. Abuztuaren 11n Tolosa zutabe matxinoen eskuetan erori zenean, Azpeitiko milizianoen lehen ekintzak izan ziren Andatzako mendiguneko mendietan posizioak ezartzea. Hala, orografiaz eta lurra ondo ezagutzeaz baliatu ziren indar handiagoa, esperientzia militar handiagoa eta ekipamendu hobea zituen etsai bati aurre egiteko. Hala, defentsa lerro sendoa antolatu zuten, defentsa postu taktikoetan oinarritua, haranak eta errepideak ondo kontrolatzeko. Berrantolaketa horri esker, sektore horretan hilabete batez egonkortu ahal izan zen fronte lerroa, eta indar matxinatuek eraso jarrera alde batera utzi eta lubakietan babestu behar izan zuten. Bigarren fronte hori egonkor geratu zen indar matxinatuek Donostia hartu zuten arte, 1936ko irailaren 13an.

Problematikak eta metodologia

Arripilleta mendia txikia da, Azpeitiko Komandantziaren defentsa lerroan dago eta lan arkeologikoak egiteko baldintza onak ditu. Aukera ona da mendiko babes posizio oso bat aztertzeko. Beraz, esku hartzearen helburua izan zen posizioa osatzen zuten elementuen ezaugarriak zehaztea, defentsa egituren antolaketa eta izan zuten bilakaera ulertzeko, bai eta gune horretan izandako borroken errealitatera hurbiltzen saiatzea ere.

2019an egin ziren lehen jarduketa puntualei esker, mendi horretan identifikatu ahal izan ziren 1936ko defentsarako lubaki bat eta gerrako materialak hainbat eremutan han eta hemen sakabanatuak. Bestalde, 1954ko ortoargazkien analisiak agerian utzi zuen anomalia topografiko bat zegoela, lubaki edo zanga modukoa, sarbide zaharraren bidea mozten mendiaren hego-ekialdeko hegalean, baina orain desagertua dago; induskatutako beste egitura batzuk, berriz, ikusteko moduan daude muinoaren azpian. Dokumentu historikoetan ez da toki zehatz horri buruzko aipamenik egiten, baina mendi hori Aiztondo haranaren iparraldeko isurialdean dago, matxinatuek Belkoain mendia hartu ondoren 1936an errepublikaren defentsarako lerroa ezartzeko aprobetxatutako mendien erdian, eta Zarateko Bentak baserrian zegoen euskal milizien kuartel nagusitik gertu.

Honako jarduera hauek egin ditugu nagusiki: katen bidezko miaketak metalen detektagailua erabilita, metalezko materialek gainazalaren lurrazpian zuten sakabanaketaren kartografia osatzeko eta haien laginak biltzeko; eta zundaketa puntualak identifikatutako edo antzemandako egituren ibilbidea ezaugarritzeko eta kartografiatzeko.


torio guipuzcoano en tres sectores para organizar su defensa contra las fuerzas sublevadas. El objetivo de nuestro proyecto es una parte del sector central guipuzcoano, cuya defensa se organizó desde la Junta de Azpeitia, creada el 5 de agosto 1936. La organización de la Comandancia de Azpeitia, encargada de defender el territorio delimitado por el río Oria al este y por las comarcas del Deba al oeste, y el nombramiento como comandante a un militar de carrera, Cándido Saseta, tuvieron consecuencias concretas en el frente. La creación de la Junta permitió superar los intentos de defensa en los núcleos urbanos, que desde el golpe militar no habían permitido detener el avance de las columnas sublevadas en el valle del rio Oria. Al caer Tolosa en manos de las columnas rebeldes el 11 de agosto, las primeras actuaciones de los milicianos de Azpeitia fueron establecer posiciones en los montes del macizo de Andatza, la orografía y su conocimiento del terreno para hacer frente a un enemigo superior en fuerza, en experiencia militar y en equipamiento. De esta manera se organizó una línea defensiva consistente, apoyada en puestos defensivos tácticos permitiendo el control de los valles y de las carreteras. Esta reorganización permitió estabilizar la línea de frente en este sector durante un mes, obligando a las fuerzas sublevadas a abandonar su postura ofensiva y a atrincherarse. Este frente secundario quedó estable hasta la toma de Donostia por las fuerzas sublevadas, el 13 de septiembre 1936.

Problemáticas y metodología

El monte Arripilleta, de dimensiones reducidas, ubicado en la línea defensiva de la Comandancia de Azpeitia y con buenas condiciones de actuación arqueológica, presenta una buena oportunidad para estudiar una posición defensiva completa, a escala del monte. Por lo tanto los objetivos de la intervención fueron caracterizar los diferentes elementos constitutivos de la posición, con el fin de entender la organización y las posibles evoluciones de las estructuras defensivas, así como intentar acercarnos a la realidad de los combates ocurridos en este sitio.

Una primera serie de actuaciones puntuales en 2019 permitió identificar en este monte una trinchera defensiva de 1936 y varias zonas de dispersión de materiales bélicos. Por otra parte, el análisis de las orto fotografías de 1954 reveló la presencia de una anomalía topográfica, de tipo trinchera o zanja, cortando el camino del antiguo acceso en la ladera sureste del monte y ahora desaparecida, mientras otras estructuras excavadas siguen visibles debajo en el collado. No se conocen menciones a este sitio concreto en los documentos históricos, pero este monte se ubica en la vertiente norte del valle de Aiztondo, en medio de los montes aprovechados para instalar la línea defensiva republicana en 1936 tras la toma del monte Belkoain por las fuerzas sublevadas, y en la proximidad del cuartel general de las milicias vascas ubicado en el caserío Ventas de Zarate.

Las actuaciones han consistido principalmente en prospecciones con catas con uso de detector de metales, para completar la cartografía de la dispersión de materiales metálicos en el subsuelo superficial y a recoger muestras de aquellos, y en sondeos puntuales destinados a caracterizar y cartografiar el recorrido de las estructuras excavadas identificadas o intuidas.



Arripilleta mendiaren kokapena defentsa sisteman eta Zizurkilgo udalerrian, eta Arripilleta mendiaren ikuspegi orokorra hego-ekialdetik, esku hartutako egituren gutxi gorabeherako kokalekuarekin.

Situación del monte Arripilleta en el sistema defensivo y en el municipio de Zizurkil y vista general del monte Arripilleta desde el sureste, con la ubicación aproximada de las estructuras intervenidas.

Emaitza arkeologikoak

Muinoaren inguruan egin genuen begi miaketak ez zigun aukerarik eman 1936ko defentsa posizioekin lotzeko moduko elementu berriak identifikatzeko. Era berean, materialik ez dagoenez, ezin ditugu kontserbatutako egiturak Gerra Zibileko gertaerekin lotu. Metalen detektagailuaren bidez 4 miaketa eremutan egindako ikerketari esker, jakin ahal izan dugu mendian barrena nola sakabanatuak zeuden gerrako materialak. Bestalde, bildutako materialek aukera eman ziguten tiro eremuak eta infanteriaren suak jotako eremuak bereizteko; izan ere, 7 x 57 mm Mauser kalibreko zorro ugari zeuden tiro eremuetan, eta disparatutako errifleen balen kopuru gutxi-asko handiak, berriz, tiroak jaso zituzten eremuetan. Bestalde, 7 zundaketa egin genituen eskuz, eta haietatik 3 negatiboak izan ziren. Bi zundaketak aukera eman ziguten 2019an ezaugarritutako defentsa lubakiaren muturrak kartografiatzeko, eta haien ibilbide zehatza osatzeko. Zundaketa batek aukera eman zigun antzinako ortoargazkietan identifikatutako egituretako bat ezaugarritzeko: zanga bat da, 80 cm-ko zabalera eta 70 cm-ko sakonera kontserbatu ditu, eta mendiaren isurialde irisgarriena zeharkatzen du sestra kurbei jarraituz, matxinatuen posizioen aurrean. Aztarna material bakar batek ere ez zigun lagundu zanga datatzen edo haren interpretazio funtzionala egiten, baina ezin dugu baztertu tankeen aurkako zanga izateko aukera. Azken zun-

Resultados arqueológicos

La realización de una prospección visual en la zona del collado no permitió identificar nuevos elementos atribuibles a las posiciones defensivas de 1936, la falta de materiales tampoco permite relacionar las estructuras conservadas con eventos de la Guerra Civil. La investigación de 4 áreas de prospección con detector de metales permitió completar nuestro conocimiento de la dispersión de materiales bélicos en el monte, mientras la recogida de muestras permitió diferenciar zonas de disparo caracterizadas por la presencia masiva de vainas de calibre 7 x 57 mm Mauser, y zonas apuntadas por fuego de infantería, con la presencia más o menos importante de balas de rifle disparadas. Por otra parte se excavaron manualmente 7 sondeos, 3 de los cuales fueron negativos. Dos sondeos permitieron cartografiar los extremos de la trinchera defensiva caracterizada en 2019, completando su recorrido concreto. Un sondeo permitió caracterizar una de las estructuras identificadas en las ortofotografías antiguas: se trata de una zanja de 80 cm de anchura y 70 cm de profundidad conservada, que atraviesa la vertiente más accesible del monte siguiendo las curvas de nivel, frente a las posiciones sublevadas. Ningún indicio material permitió datar o ayudar a la interpretación funcional de la zanja, pero una interpretación como zanja antitanque no puede ser descartada. El último sondeo permitió caracterizar otra trinchera defensiva ubicada en la cumbre del

daketari esker, defentsarako beste lubaki bat bereizi ahal izan genuen mendiaren gailurrean. Lubaki hark aurreko beste egitura baten irregulartasun handiak aprobetxatu dituela dirudi, segur aski jatorri pre- edo protohistorikokoa izango zuena.

Oro har, mendiaren bi gailurretan induskatutako bi defentsa postu zeudela ikusi genuen, biak hego-ekialdera begira. Bi lubakiek antzeko neurri txikiak dituzte, oso txikiak (50 eta 65 cm arteko zabalera eta 40 eta 50 cm arteko sakonera kontserbatua). Litekeena da mendiaren hego-ekialdeko isurialdea tankeen aurkako zanga lerro batez babestua egotea gutxienez, nahiz eta zanga haren interpretazioa eta datazioa ez diren ziurrak. Lubakietan gerra material ugari egoteaz gain, mendiaren hego-mendebaldeko isurialdean zorro ugari egoteak esan nahi du tiro sektore bat zegoela, ziurrenik gudu txiki edo eraso gertakari batekin lotua. Bestalde, disparatutako balen presentziak erakusten du gutxienez behin eraso egin ziotela mendiaren hegoaldeko aldeari. Berreskuratutako kultura materialak erakusten du Mauser errifleak nahiz pistolak erabili zituztela, baina modu heterogeneoan mendiko eremuen arabera

monte. Aquella trinchera parece aprovechar las irregularidades elevadas de otra estructura anterior, posiblemente de origen pre- o proto- histórica.

De manera general se pudo observar la presencia de dos puestos defensivos excavados ubicados en las dos cumbres del monte, ambos orientados hacia al sureste. Las dos trincheras presentan dimensiones similares muy reducidas (entre 50 y 65 cm de anchura y entre 40 y 50 cm de profundidad conservada). Es posible que la vertiente sureste del monte estuviese protegida por al menos una línea de zanja antitanque, aunque la interpretación y datación de aquella zanja no son seguras. Además de la cantidad importante de materiales bélicos en las zonas de trinchera, la presencia masiva de vainas en la vertiente suroeste del monte indica la presencia de un sector de disparos, probablemente relacionado con al menos un episodio de escaramuza o ataque, mientras la presencia de balas disparadas demuestra que la parte sur del monte fue atacada al menos en una ocasión. La cultura material recuperada demuestra el uso tanto de rifles Mauser como de pistolas, aunque de manera heterogénea según las zonas del monte.

J. Blanco

.

D. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

D. COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA

D.1. GASTEIZ-BILBO-DONOSTIA ABIADURA HANDIKO LINEA / LÍNEA DE ALTA VELOCIDAD VITORIA-BILBAO-SAN SEBASTIÁN

D.1.1. AHT Gasteizen integratzeko obrak. II. fasea (Iter XXXIV). Aurretiazko zundaketak (Araba: Iruña Oka; Gasteiz)

Zuzendaritza: Leandro Sánchez Zufiaurre
Finantzazioa: Construcciones Sánchez Domingo (Sando), ADIF

D.1.1. Obras de integración del TAV en Vitoria-Gasteiz. Fase II (Iter XXXIV). Sondeos preliminares (Álava: Iruña de Oca; Vitoria-Gasteiz)

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: Construcciones Sánchez Domingo (Sando), ADIF

The construction of the stretch of the High Speed Rail link to Vitoria passed through an area containing four archaeological sites. Before commencing with the building work, it was necessary to determine whether or not it would affect these sites, since no subsoil studies had been carried out previously within the affected area. A season of sondages was therefore scheduled for the areas containing these four sites, with the results revealing effective remains only in the ITER XXXIV site. Following the study, the pertinent corrective measures were defined, to be carried out before and during the work.

Burgos-Gasteiz Abiadura Handiko Linea, trenbidea Gasteizen integratuz, II. faseko obrak direla eta egindako aurretiazko esku hartze arkeologikoan lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu lan honetan.

Iruña Oka eta Gasteiz artean doa obraren trazadura. Aurreko urteetan egindako obraren jarraipena da, zati bera mendebalderantz.

2019an egindako ingurumen inpaktuaren azterketaren ondorio dira jarduketa horiek. Azterketa hartan, lurraren miaketa intentsiboa egin zen. Lan horiek egin zirenean, 27 aztarnategi dokumentatu genituen inguruan. Haietako lautan obrak eragina izango zuen, zuzenean edo zeharka:

- Iruñako Oppidumaren ingurune mugatua, Iruña Oka (Inbentario zk.: 16). Interes Kulturaleko Ondasun deklaratua (1984/08/04ko EHAA).
- Trespondeko errota finkatzea, Iruña Oka (Inbentario zk.: 29). Balizko Arkeologia Gune izendatua (1997/07/07ko EHAA).
- Legardagutxi herrixka, Gasteiz (Inbentario zk.: 199). Balizko Arkeologia Gune izendatua (1997/07/08ko EHAA).
- Erromatar bidea Antonino Iter XXXIV ibilbidea, Ab Asturica Burdigalam.

Miaketan ikusi zen, ordea, Iruña Veleiako Oppidumaren mugaketa eremuan ez zutela zuzeneko eraginik izango obrek. ITER XXXIV galtzada, berriz, bai ebakiko zuen linearen trazadurak. Trespondeko errotaren ezarlekurako eta Legardagutxi herrixkarako zehaztutako eremuetan ere eragina izango zuten obrek.

Zundaketa arkeologikoen kanpaina definitu genuen kaltetutako hiru aztarnategien eremuan, betiere trazaduraren barruan. Bestalde, lau zundaketa egin genituen Iruña-Veleiako aztarnategitik gertuen zeuden eremuetan.

Este trabajo presenta los resultados obtenidos en la intervención arqueológica preliminar realizada con motivo de las obras de la *Línea de Alta Velocidad Burgos-Vitoria con la integración del Ferrocarril en la ciudad de Vitoria-Gasteiz. Fase II*.

La traza de la obra discurre entre los municipios de Iruña de Oca y Vitoria-Gasteiz. Es continuidad de la obra realizada en años anteriores, hacia el oeste del mismo tramo.

Estas actuaciones están motivadas por el estudio de impacto ambiental, realizado en el año 2019, en el que se llevó a cabo una prospección intensiva del terreno. En el transcurso de la misma se documentaron 27 yacimientos en el entorno. De ellos, cuatro presentaban afección directa o indirecta por parte de la obra:

- Entorno delimitado del Oppidum de Iruña, Iruña de Oca (Nº Inventario: 16). Declarado Bien de Interés Cultural (BOPV 04/08/1984).
- Asentamiento del Molino de Trespuentes, Iruña de Oca (Nº Inventario: 29). Declarado Zona de Presunción Arqueológica (BOPV 07/07/1997).
- Poblado de Legardagutxi, Vitoria-Gasteiz (Nº Inventario: 199). Declarado Zona de Presunción Arqueológica (BOPV 08/07/1997)
- Vía romana Itinerario de Antonino Iter XXXIV, Ab Asturica Burdigalam.

En la prospección se vio, sin embargo, que el ámbito de delimitación del *Oppidum* de Iruña Veleia no se iba a ver afectado de manera directa. La calzada ITER XXXIV sí quedaría seccionada por el trazado de la línea. Las zonas definidas para el Asentamiento del Molino de Trespuentes y el Poblado de Legardagutxi también se verían afectadas por las obras.

Se definió una campaña de sondeos arqueológicos en la zona de los tres yacimientos afectados, siempre dentro de la traza; y se hicieron también cuatro sondeos en las zonas más cercanas al yacimiento de Iruña-



Zundaketen kokapena (gorriz, ezkerrean), obraren trazaduran. Eskuinean, 9. zundaketan agertutako galtzada.

Ubicación de los sondeos (en rojo, a la izquierda), en la traza de la obra. A la derecha, la calzada aparecida en el sondeo 9.

tan, babestutako eremutik kanpo haren hondakinik ba ote zegoen ikusteko.

Guztira 14 zundaketa arkeologiko egin genituen, lau eremutan banatuak, eragina jasan zezakeen aztarnategiaren arabera (15 zeuden aurreikusita, baina 10. zundaketa ezin izan genuen egin).

Zundaketek 6 eta 13 metro arteko luzera zuten, eta gutxienez 2 metroko zabalera.

Baliabide mekanikoak eta eskuzkoak erabili genituen zundaketa lan horiek egiteko, eremu bakoitzaren beharren eta agertu ziren estratuen edo egituren arabera.

1-4 zundaketak Iruña-Veleiako aztarnategiaren inguruan egin genituen; 5-9 zundaketak ITER XXXIV galtzadarako proposatutako trazaduraren gainean; 10-12 zundaketak Trespondeko errotaren inguruan (10. zundaketa ez genuen egin beharrezkotzat jo ez genuelako, eta gasbidearen zati batetik oso gertu zegoelako); eta 13tik 15erako zundaketak, berriz, Legardagutxi herrixkako aztarnategiaren eremu babestuaren barruan egin genituen.

Emaitzak

Emaitza positiboak izan ziren 4 zundaketatan, eta ITER XXXIV aztarnategiko elementuak aurkitu genituen. Beste hiru aztarnategietan guztiz negatiboak izan ziren emaitzak.

5., 7., 8. eta 9. zundaketetan ITER XXXIV erromatar komunikazio bidearen ebidentziak aurkitu genituen. Kasu guztietan, gainazaletik 0,50 eta 0,75 m arteko kotan zeuden galtzadaren hondakinak.

5., 7., 8. eta 9. zundaketetan bidearen alboko zanga dokumentatu genuen (hasieran ***sulko*** gisa identifikatu genituen, baina ondorengo indusketetan ikusi genuen drainatzekoak izango zirela segur aski).

7., 8. eta 9. zundaketetan bidea bera aurkitu genuen.

Veleia, por si hubiera restos del mismo, fuera de la zona protegida.

Se llevó a cabo un total de 14 sondeos arqueológicos distribuidos en cuatro zonas, en función del yacimiento potencialmente afectado (había previstos 15, pero el número 10 no se pudo llevar a cabo).

Los sondeos tuvieron una longitud de entre 6 y 13 metros, con una anchura de al menos 2 metros.

Se llevaron a cabo combinando medios mecánicos y manuales, en función de las necesidades de cada zona y los estratos o estructuras que aparecieron.

Los sondeos 1 al 4 se hicieron en el entorno del yacimiento de Iruña-Veleia; los sondeos 5 a 9 se llevaron a cabo sobre el trazado propuesto para el ITER XXXIV; los sondeos 10 a 12 se situaban en la zona del molino de Trespuentes (el sondeo 10 no se llevó a cabo por no considerarse necesario, y estaba muy cerca de un tramo del gasoducto); los sondeos 13 al 15 se hicieron dentro de la zona protegida del yacimiento del Poblado de Legardagutxi.

Resultados

Hubo resultados positivos en 4 de los sondeos, descubriendo elementos del yacimiento ITER XXXIV. En los otros tres yacimientos los resultados fueron completamente negativos.

En los sondeos 5, 7, 8 y 9 se encontraron evidencias de la vía de comunicación romana ITER XXXIV. En todas las ocasiones los vestigios de la calzada estaban a una cota de entre 0,50 y 0,75 m de la superficie.

En los sondeos 5, 7, 8 y 9 se documentó una zanja lateral de la vía (originalmente se identificaron como *sulcos*, pero en las excavaciones posteriores vimos que eran posiblemente de drenaje).

En los sondeos 7, 8 y 9 se encontró la propia vía.

Errodadura geruza ez zen kontserbatu, eta material geruza desberdinei dagokienez, agerian geratu ziren zoru gisa jarritako kareharri eta errekarri pila handiak.

Emaitzek aukera eman ziguten erromatar bidea hor zegoela baieztatzeko, Eusko Jaurlaritzak proposatutako eta babestutako trazadurari jarraituz.

Zangei eta galtzadari buruz egindako dokumentazio topografikoari esker, ibilbide proposamen bat ezarri ahal izan genuen, neurri zuzentzaileak behar bezala zehazteko.

Konklusioak eta neurri zuzentzaileak

Azpiegitura berriak galtzadan zuzenean eragingo zuenez, obrek eragindako trazaduraren eremuan indusketa arkeologiko osoa egitea proposatu genuen.

Obrak Iruña-Veleiatik 400 metro eskasera eta haren sarbideetako batean daudenez, oso litekeena da trazaduraren inguruan hiriarekin eta haren hiri bazterrekin lotutako eraikinak egotea. Hori dela eta, galtzada osoa sistematikoki induskatzeaz gain, haren inguruan 80 metroko zabaleran sastrakak kentzea eta induskatzea (emaitza positiboak izanez gero) proposatu genuen, galtzada horrekin zerikusia duten hondakinak dauden ikusteko.

Proposatutako neurri zuzentzaileak aplikatzen ari dira lerro hauek idazteko unean.

No se conservaba la capa de rodadura, y respecto a las diferentes capas de material, se evidenciaron grandes concentraciones de piedras calizas y cantos rodados colocados a modo de firme.

Los resultados nos permitieron afirmar la existencia de la vía de comunicación romana, siguiendo un trazado ajustado al propuesto y protegido por el Gobierno Vasco.

Gracias a la documentación topográfica realizada de las zanjas y la calzada, pudimos establecer una propuesta de recorrido, para definir correctamente las medidas correctoras.

Conclusiones y medidas correctoras

Dado que la nueva infraestructura iba a afectar directamente a la calzada, se propuso realizar una excavación arqueológica completa de la zona de la traza afectada por las obras.

Dado que las obras se sitúan a escasos 400 metros de Iruña-Veleia, y en una de sus vías de acceso, era muy probable que en el entorno de la traza hubiera edificaciones relacionadas con la ciudad y sus arrabales. Por ello, se propuso, además de la excavación sistemática de toda la calzada, el desbroce y excavación (en caso de resultados positivos) de una anchura de 80 m en torno a la misma, por si aparecieran restos relacionados con ella.

Las medidas correctoras propuestas se están aplicando en el momento de escribir estas líneas.

L. Sánchez Zufiaurre; J. López de Ocáriz Casas

D.1.2. **Zatia: Durango-Amorebieta-Etxano (Bizkaia)**

Zuzendaritza: Luis Valdés García; Antxoka Martínez Velasco
Finantzazioa: UTE Nortúnel - Vías y Construcciones

D.1.2. **Tramo: Durango-Amorebieta-Etxano (Bizkaia)**

Dirección: Luis Valdés García; Antxoka Martínez Velasco
Financiación: UTE Nortúnel - Vías y Construcciones

From 2018 to 2022, the earth moving work prompted by the building of the High Speed Rail link between Durango and Amorebieta-Etxano was monitored from an archaeological perspective. As a result of this monitoring, several archaeological interventions were carried out (excavation of a possible cabin, some horse remains and a paved road dating from after the 17th century), a craft quarry was documented and several isolated elements were discovered at different points along the route (Acheulean pebbles, a polished axe and munitions from the Spanish Civil War).

Durango eta Amorebieta-Etxano arteko zatian, Ibaizabal ibaiaren haranaren eskuinaldean dago abiadura handiko linearen plataforma eraikitzeko tartea, Iturrina, Olabarrieta, Torrebaso eta Astelaiz iparraldeko isurialdearen magalean, Urtzelai, Iturrie eta Betzuen haranak gurutzatuta.

Jarraipen arkeologikoko lanak 2008an hasi ziren, eta 2022an eman ziren amaitutzat. Bi alditan egin ziren, 2008-2011 eta 2018-2022 urteen artean, lurrak iraultzea zekarten lanei egokituta. Era berean, trazadura sektoretan banatu zen lana kudeatzeko, eta, beraz, eskema berera egokitu zen jarraipena.

Lanak egin bitartean, hainbat aztarna arkeologiko aurkitu genituen, eta haietan esku hartu behar izan genuen. Aurkikuntza bakanak ere egin genituen han eta

El tramo de construcción de la plataforma de la línea de Alta Velocidad en el tramo entre Durango y Amorebieta se localiza en la margen derecha del valle del Ibaizabal, asentado en las faldas de la vertiente norte de Iturrina, Olabarrieta, Torrebaso y Astelaiz, cruzando los vallejos de Urzelai, Iturrie y Betzuen.

Las labores de seguimiento arqueológico se iniciaron en 2008 y se dieron por concluidas en 2022. Se llevaron a cabo en dos períodos distintos, entre los años 2008-2011 y 2018-2022, ajustadas a los diferentes trabajos que implicaban la remoción de tierras. De igual modo, la traza se dividió en sectores para la gestión del trabajo, por lo que el seguimiento se adaptó al mismo esquema.

En el transcurso de los trabajos se localizaron diferentes evidencias arqueológicas que motivaron la intervención en las mismas, así como hallazgos aislados. De



AHT Durango-Amorebieta zatia. Goian: obrako aurkikuntzak. Behean, ezkerrean, hareharri txiki landua, erdian, Gerra Zibileko munizioa eta eskuinean, aizkora leundua.

TAV Tramo Durango-Amorebieta. Arriba: hallazgos en obra. Abajo, a la izquierda, canto tallado sobre arenisca, en el centro, munición de la Guerra Civil y a la derecha, hacha pulida.

hemen. Era berean, zati zabaletan ebidentziarik ez zegoela ere egiaztatu genuen.

2018-2022 urteetako jarraipenaren emaitzak

Zaintza arkeologikoko lanei 2018an ekin zitzaien berriro, 2011ko geldialdiaren ondoren, eta beste baimen bat eskatu zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiari. Aldi horretan, trazaduraren lau sektoretan egin ziren zaintza lanak: hegoaldeko ahoan, Betzuengo biaduktuan, Betzuengo magalarekiko loturan eta, azkenik, azken horren eta trazaduraren amaieraren arteko zatian.

Betzuengo biaduktua

Ugarenerrekea errekaren haranaren hondoari dagokio. Lur iraultzeen helburua izan zen eremu osoko sastrakak kentzea, biaduktuko pilareak induskatzea eta erreka kanalizatzea. Lur iraultzeen jarraipenaren ondorioz, hareharri zati txiki batzuk aurkitu genituen, landuak, Behe Paleolitoko kronologiakoak, uholde terrazan han eta hemen sakabanatuak, errekaren eskuineko ertzean (48:3:0:0:22:119 lursaila, Sigpac).

igual modo, también se comprobó la ausencia de evidencias en amplios tramos.

Resultados del seguimiento en el periodo 2018-2022

Las labores de vigilancia arqueológica se retomaron en 2018 tras el parón de 2011 y se solicitó a la Diputación Foral de Bizkaia una nueva autorización. Durante ese período, se centró la vigilancia en cuatro sectores del trazado el amboquille sur, el viaducto de Betzuen, el entronque con la ladera de Betzuen y, finalmente, el tramo comprendido entre ese último y el final de traza.

El viaducto de Betzuen

Corresponde al fondo del vallejo del arroyo Ugarenerrekea. Los movimientos de tierras se centraron en el desbroce de toda el área, la excavación de las pilas del viaducto y la canalización del arroyo. Como resultado del seguimiento de los movimientos de tierras, se hallaron una serie cantos de arenisca tallados, con una cronología general del Paleolítico Inferior, dispersos por la terraza de inundación en la orilla derecha del arroyo (parcela 48:3:0:0:22:119 (Sigpac)).

Eremu horretan bertan, biaduktuko pilareetako baten zimenduak induskatzen ari ginela (3. pilarea), zaldi baten hondakinak aurkitu genituen (P. Castaños doktoreak[2] zehaztu zuen haren espeziea), eta, ondorioz, atera egin genituen. Hondakin haiek ez zuten atxikitzeko kultura testuingururik eta, beraz, Beta Analityc laborategian datatu ziren. Emaitza izan zen 180 +/- 30 BP (Beta- 505700 BETZUEN-2018-1, % 95,4ko probabilitatearekin).

Betzuengo magalarekiko lotura

Inguru horretan bazegoen bide bat identifikatua 2010etik. Azkenik, 2019an garbitu eta induskatu egin zen. Bidea hiru segmentutan banatu zen, zuen kontserbazio egoera kontuan hartuta. Heren batek bakarrik gorde zituen jatorrizko harrizko bidearen ebidentzia garrantzitsuak, halakotzat hartzeko kontserbazio egoera aski zutenak. Goiko aldeari zegozkion bi segmentuak suntsituak zeuden. Alboko kordoiaren lagin gutxi batzuk baino ez ziren geratzen, eta, zuen funtzioagatik, sakonera handiagoan izango du oinarria.

Kalkulatutako kronologia XVIII. mendea da, edo agian XVII. mendearen amaiera, Abadiñoko «Karlisten bidearen» edo Areatzan Arratia ibaiaren inguruko bidearen antza baitzuen eraikuntza aldetik. Kultura material esanguratsurik ez zegoenez ezin izan zen datazio hoberik egin, eta horri gehitu behar zaio alde nabarmenak dituela antzinatasun handiagoko bideekiko.

Leku horretan, Gerra Zibileko kartutxo sorta bat aurkitu genuen (7 zorro eta 2 bala).

Betzuendik trazaduraren amaierara 4+600 KPan

Tarte horretan egokitu zen bide plataforma, eta, horretarako, hainbat ezponda egin behar izan ziren mendi hegalean, bai eta betelanak ere plataformarako. Trazadura osoan ez genuen aurkitu substratuaren anomaliarik, ondare balioko aldaera antropikoa erakusten zuenik. Hala eta guztiz ere, ezpondetako bat prestatzen ari zirela (9. zk.), aizkora leundu bat aurkitu genuen, inolako testuinguru nabarmenik gabe.

Harrobia 8. bidearen ondoan

Ibaizabal ibaiaren ezkerreko ertzean, Durango eta Bernagoitia auzoaren artean (Amorebieta), harrobi zahar bat identifikatu genuen 2022an, EVEk edo Aldundiaren Kultura Ondareak katalogatu gabea. Bertan zeuden hondakinen dokumentazioa argazki bidez egin genuen. Elementu aipagarrienak honako hauek dira: harlanduzko bloke batzuk abandonatuak, hargintzako lauzen harritza ugari, (horrek esan nahi du ateratako harria *in situ* prozesatzen zela hasieran, eta ustiapen eredu tradizionala erabiltzen zutela), bai eta harria ateratzeko fronte ugari ere. Gainazaleko azaleramendu horiek intentsitate aldakorrez ustiatu ziren, harriaren kalitatearen arabera. Gehienek ez dute lurrean sakontzen, 8. bidearen ondoko harrobiaren kasuan bezala.

Urte asko abandonatuta egoteak eta sastrakek ez dute lagundu harrobiko fronteetan harria eraузteko erabilitako erreminten markak kontserbatzen, baina, ze-

[2] Eskerrak eman nahi dizkiogu Pedro Castaños doktoreari hondakin horiek baloratzeko prestutasunagatik eta eskainitako arreta adeitsuagatik.

En la misma zona, durante la excavación de la cimentación de una de las pilas del viaducto (Pila 3) se hallaron los restos de un caballo determinada la especie por el Dr. P. Castaños[2], lo que motivó su posterior excavación. Dichos restos carecían de contexto cultural al que poder asociarlos por lo que se promovió su datación en Beta Analityc, con una resultado de 180 +/- 30 BP (Beta-505700 BETZUEN-2018-1, 95,4 % de probabilidad).

El entronque con la ladera de Betzuen

En esta zona ya se tenía identificado un camino empredrado desde 2010. Finalmente en 2019 se limpió y excavó. El camino fue dividido en tres segmentos en atención al estado de conservación que presentaba. Solo un tercio conservaba evidencias relevantes del camino empedrado original que se hallaba en un estado de conservación suficiente para ser apreciado como tal. Los dos segmentos correspondientes a la parte más alta del mismo estaban arrasados, sólo quedaban unas escasas muestras aisladas del cordón lateral que, por su función, tiene un asiento a mayor profundidad.

La cronología estimada es el s. XVIII o quizá el final del XVII, dada su semejanza constructiva con el «Camino del carlista» en Abadiño o el camino que bordeaba el río Arratia en Areatxa. La falta de materiales culturales significativos no permitió una mejor datación, a lo que hay que sumar las grandes diferencias evidentes con caminos de mayor antigüedad.

De forma aislada, se halló en este lugar un lote de cartuchería de la Guerra Civil (7 vainas y 2 balas).

De Betzuen hasta final de traza en el PK 4+600

En este tramo se acondicionó la plataforma de vía, para lo que tuvieron que hacerse diferentes taludes en la ladera así como rellenos para la propia plataforma. En todo el trazado no se encontró ninguna anomalía del sustrato que indicase alterarión antrópica de valor patrimonial. A pesar de esta circunstancia, durante la preparación de uno de los taludes (nº 9), se localizó un hacha pulida sin ningún contexto apreciable.

La Cantera junto al Camino 8

En la orilla izquierda del Ibaizabal, entre Durango y el barrio de Bernagoitia (Amorebieta), se identificó el año 2022 una antigua cantera que no figura catalogada por el EVE o Patrimonio Cultural de la Diputación. La documentación de los restos presentes se realizó mediante fotografía. Como elementos más destacables, cabe mencionar la presencia en el lugar de algunos bloques para sillares abandonados, la presencia de numerosos canchales de lascas de cantería, indicativos de un procesado inicial *in situ* de la piedra extraída, e indicativo de un modelo de explotación tradicional, así como la presencia de numerosos frentes de extracción de piedra. Estos a afloramientos superficiales se explotan con intensidad variable según calidad de la roca. La mayoría no profundizan en el terreno como en el caso de la cantera junto al camino 8.

Los años de abandono y la maleza no han ayudado a conservar las marcas de las herramientas empleadas para la extracción de la piedra en los frentes de cantera aunque, en función de los datos indirectos como los si-

[2] Agradecemos al Dr. Pedro Castaños su disposición y amable atención para la valoración de estos restos.



Ezkerrean, harrizko bidea. Eskuinean, amaitu gabeko harlanduak harrobian, 8. bidearen ondoan.

A la izquierda, camino empedrado. A la derecha, sillares sin acabar en la cantera junto a Camino 8.

harkako datuen arabera (harlanduak eta hargintzako lauzak, esaterako), eskuzko erauzketa tradizionala erabili zutela uste dugu (ziriak, mazoak, etab.), hau da, barrenarik eta leherketarik gabeko ekoizpena. Era berean, ez dago ustiategi moderno abandonatua izango zela pentsatzeko erabili behar den industria makineria astunaren inolako zantzurik. UTE Nortúnel - Vías y Construcciones enpresak egin zuen jasotze topografikoa.

Lan arkeologikoen azken balorazioa

Lur iraultzeen jarraipen osoa egin genuen, eta, horren ondorioz, ondare ebidentzia batzuk aurkitu eta dokumentatu genituen. Zaharrenek ez dute inolako testuinguru arkeologikorik, eta, beraz, ezin dira sakonago aztertu, dituzten ezaugarriengatik kronologia zabal batean ezarri baino ez. Eremua oinez goitik behera miatu ondoren, ez zen objektu gehiagorik agertu, eta taila hondakinik ere ez genuen aurkitu.

Hasierako proiektuan adierazitako ondare elementuei dagokienez, inoiz ez zen arriskurik izan elementu haietako bakar batentzat ere. Kontratatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteak gure gomendio guztiak bete ditu eta gure lana erraztu du baliabide teknikoak jarrita, eta hori eskertzen dugu.

llares y las lascas de cantería, se presume una extracción manual tradicional (cuñas, mazas, etc.), es decir, una producción sin barrenas y sin explosivoss. Tampoco hay ningún indicio del uso de maquinaria industrial pesada que supusiese una explotación moderna abandonada. El levantamiento topografico fue realizado por la UTE Nortúnel - Vías y Construcciones.

Valoración final de los trabajos arqueológicos

Se llevó a cabo un seguimiento completo de los movimientos de tierras que dio como resultado la localización y documentación de algunas evidencias patrimoniales. Las más antiguas carecen de un contexto arqueológico lo que no permite una mayor profundidad en su estudio que establecer su cronología amplia por sus características. La intensa exploración pedestre del área no reveló un numero mayor de objetos, ni la presencia de restos de talla.

En lo referente a los elementos patrimoniales señalados en el proyecto inicial, en ningún momento hubo riesgopara ninguno de ellos. La UTE contratante ha atendido todas nuestras recomendaciones y ha facilitado nuestro trabajo con la aportación de medios técnicos, lo que agradecemos.

L. Valdés Gacia; A. Martínez Velasco

D.1.3. **Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko lineako larrialdietarako tuneletan irteera berriak eraikitzeko proiektua. Bergara-Astigarraga zatia (Gipuzkoa: Beasain / Legorreta)**

Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantzazioa: UTE Galerías de Emergencia

D.1.3. **Proyecto constructivo de nuevas salidas en los túneles de emergencia de la línea de Alta Velocidad Vitoria-Bilbao-San Sebastián. Tramo Begara-Astigarraga (Gipuzkoa: Beasain-Legorreta)**

Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: UTE Galerías de Emergencia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Tunelen ahoen zabalera osoa hartu zuen esku hartze arkeologikoak Beasainen eta Legorretan. Agortu egin genituen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro, emaitzak edo oso balio eskasekoak izan baitziren edo ez baitzuten inolako interes historiko-arkeologikorik.

Intervención desarrollada en el subsuelo de toda la extensión de los emboquilles de los túneles en Beasaín y Legorreta, agotando la posibilidad de nueva investigación en los mismos, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico- arqueológico.

X. Alberdi Lonbide

D.2. BESTE BATZUK / OTROS

D.2.1. Ibai-haranetako paisaia kulturaren ikerketa Euskal Autonomia Erkidegoan (Araba/ Bizkaia/ Gipuzkoa)

Zuzendaritza: Josu Narbarte, Eneko Iriarte; Juan Antonio Quirós Castillo

Finantzaketa: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

D.2.1. Estudio de la cultura paisajística de los valles fluviales en la Comunidad Autónoma del País Vasco (Araba/ Bizkaia/ Gipuzkoa)

Dirección: Josu Narbarte, Eneko Iriarte; Juan Antonio Quirós Castillo

Financiación: Departamento de Cultura y Política Lingüística. Gobierno Vasco

